

W. SHAKESPEARE 3/4

BUSKERAZ



KARDABERAZ
†
†

eGINTZAK

LARRAKOETXEA'TAR B.



EUSKERAZTZALLEA

Arratia'n Zeanuri'n, Undurraga Goiko "ALTXAGUTXI" etxean yaio zan LARRAKOETXEA AGIRREZABALA'tar Bedita Yon, 1.894'g. urtean; Laterandar Araudun Lekaide izateko asmoz, Naparroa'ko Alsasua'ra doa 1.907'g. urtean, an Latera-ta ikasteko; an urte bi eginda, Oñati'ra, aztertu ta iru ziñak egiteko; meztarako ikasketak Oñati'n eginda, Gasteiz' en abadetu zan 1.917'g. urtean. Arrazkero Oñati'ko lekaretxean irakasle; geroago (ta

orretarako Iruña'ko Irakasle-Irakastegian azterketak yasan eta Irakasle-Agiria lorturik) Oñati'ko Udal-Irakastegi'ko Zuzendari ta Rodrigo Mercado de Zuazola izeneko Iraskuntzako Gau-Irakastegiko Irakasle, 1.936'g. urterarte; urrengo urtean Ingelanda'ra eta an urtebete ta zerbait geiago eginda, Uruguay'ra ta Argentina'ra, an Salta'ko "Colegio Belgrano" dalako irakastegian 1.970'g. urterarte irakasle izateko. Amerikari agur egin eta 1.972'g. urtean atzera ona etorri zan eta emen dogu.

Bere idazlanak: "Granja Modelo Fraisoro"n irakasle izandako García Peña'ren "PATOLOGIA VEGETAL" liburu mardula euskeraztu 1.930 urtean edo or orren baten, Azkue'tar Dunixi'k eskatuta; Eleiz-itzaldi-mordoa; Jauregi'tar Gabirel' en PISIA ta KIMIA'ko euskerea orraztu; EUSKAL-EKAN-DU-Laukiak buru-izenez 1.935'g. urtean Bilbao'ko egunkari baten lau idazlan labur agertu ziran eta eurretatik batek yaso eban urte atako KIRIKIÑO saria; garai orretantsu bidali eban bere lan bat Iruña'ko nor-geiagoketa batera ta an be lenengo saria lortu ta yaso; orraitioño be euskal idazle bikain onen idazlanik andien eta nekatsuen emen doatsuna da, irakurle, Shakespeare mundu osoan ezagun baño ezagunago danaren 37 antzerkiak euskeraratzea izan da. Lan au, egiteko au zelan burutu dauen gure idazle onak zeuk ebatzi. Antzerkiotatik iru EUZKO-GOGOAN argitaratu ziran ainbat urte dirala; beste bat euskeraztzalleen Paris'ko norgeiagoketa batera bidali eban eta an lenengo saria yaso eban; sari ori yaso ebana BINIXA'KO SALEROSLEA deretxona izan zan. Mirande Aipharsorho'tar Yon zana izan zan maiko beste batzuen artean, eta ak Ibinagabeitia'tar Andima zanari idatzi eutsanez, ain bikain eginda ei egoan euskeraratze-lana-ta, lenengo saria berari emon-bearrean aurkitu ei ziran maikoak. Gure euskerea betiko galtzeko zori larrian ikusirik, bizirik iratunazoteko asmoz egin ei dau lan goragarri au, ez beste asmoz. Lortuko al dau bere guraria gure idazleak.

KARDABERAZ BILDUMA - 12-13
EGINTZAK



**W. SHAKESPEARE'REN
ANTZERKI
GUZTI-GUZTIAK
EUSKERAZ**



**LARRAKOETXEA'tar BEDITA Y.'ek
euskerazturik**



NON ZER

	Orrlalde
YON BAKALDUNA	9
II ERRIKARTA BAKALDUNAREN	47
BIZITZA TA ERIOTZEA	
IV ENDIKA BAKALDUNAREN	89
LENENGO ATALA	
IV ENDIKA BAKALDUNAREN	133
BIGARREN ATALA	
V ENDIKA BAKALDUNA	181
VI ENDIKA BAKALDUNAREN	229
LENENGO ZATIA	
SEIGARREN ENDIKA BAKALDUNAREN	271
BIGARREN ZATIA	
SEIGARREN ENDIKA BAKALDUNAREN	319
IRUGARREN ZATIA	
IRUGARREN ERRIKARTA BAKALDUNAREN	367
BIZITZA TA ERIOTZEA	
ZORTZIGARREN ENDIKA BAKALDUNA	421

YON BAKALDUNA
(KING JOHN)

YON BAKALDUNA

(KING JOHN)

ANTZERKI ONETAN ANTZEZTURIKO LAGUNAK

YON BAKALDUNA.

ENDIKA BAKALSEME, aurrekoaren seme; gerora III ENDIKA BAKALDUN.

ARTUR (ARTHUR), Bretagne'ko Duke, GEFREY Bretagne'ko Duke ta YON BAKALDUNA'ren anai zarrago zanaren seme.

GILELMA (William) Mareshall. Pembroke'ko Kondea.

GEFREY FITZ-PETER, Essex'ko Konde, Ingelanda'ko Ebazla Nagusia.

GILELMA (William) LONGSWORD, Salisbury'ko Konde.

ERROBERTA (Robert) BIGOT, Norfolk'eko Konde.

UBERTA (Hubert) DE BURGH, BAKALDUNA'ren Chamberlain.

ERROBERTA FALCONBRIDGE, Sir ERROBERTA FALCONBRIDGE'n seme

PILIPA (Philip) FALCONBRIDGE, aurrekoaren erdi-anai, Errikara Bakalduna'ren sasikume.

YAGOBA GURNEY, LADY FALCONBRIDGE'n Otsein.

Pomfret'eko KEPA. aztu edo igarla.

PILIPA, Pantze'ko Bakalduna.

KOLDOBIKA, Delbina.

OSTERRI'ko DUKEBURU.

PANDULBA KARDINALA, Aita Gurenaren Ordeazko.

MELUN, Pantzetar Andiki.

CHATILLON, Yon Bakalduna'ganako Pantze'tiko Ordeazko.

ELINORE, II Endika Bakaldunaren alargun, Yon Bakaldunaren ama.

KOSTANTZE, ARTUR'en ama.

BLANCA, Gaztela'ko Bakaldun ALBONTSA'ren alaba, Yon Bakaldunaren illoba.

LADY FALCONBRIDGE, SASIKUMEAREN eta ERROBERTA FALCONBRIDGE'n ama.

Lordak, Angiers'ko Uritarrak, Xeripa (Sheriff), Aldarrikariak, Agintzagudariak, Gudariak, Geznariak, eta Laguntzako beste batzuk.

AGERLEKU.-Bein INGELANDA'n, bein PANTZE'n.

I EKITALDI

I AGERLEKU.-NORTHAMPTON. Yauregiko Bakalderri-arazotegia.

Aurrera, YON BAKALDUNA, ELINORE BAKALDUNOA, PEMBROKE, ESSEX, SALISBURY, ta beste batzuk, Chatillon'egaz.

YON B.—Esan orain, Chatillon, zer gura dau Pantze'k gugaz?

CHAT.—Bein zuri agur egindakoan, au dirautso Pantze'ko bakaldunak, nire bitartez eta agoz, emen dagon Ingelanda'ko nagusiagotzeari..., nagusiagotza yesanari.

ELIN.—Inñondiko asierea auxe: nagusiagotza yesanari!

YON B.—Ixilik, ene ama on. Entzun ordeazkoarena.

CHAT.—Izaro eder onegazko ta beronen ben-deko diran lurraldeakazko, zera, Eire, Poitiers, Anjou, Touraine, Maine'gazko legezko be legezko eskakizuna egiten dautsu Pantze'ko Pillipa'k, Geoffrey zure anai zanaren

seme Artur Plantagenet'en eskubide ta ize-
nez, zuri aginduaz, iñori osturiko ainbat lu-
rraldeotan aginduten dauen zure ezpatea
baztarreratu ta zure illoba ta lurraldeotako
zuzenezko yabe dan Artur gaztearen es-
kuetan imini dagizula.

YON B.—Zer yarraiko, zer etorriko atzean,
guk olangorik egin ezpa'dagigu?

CHAT.—Gudu itzal eta odoltsuren agintza
arroa, indarrez eukitako eskubideok inda-
rrez artzeko.

YON B.—Gudu dogu emen gudurentzako, odo-
la odolarentzako, eta eustea eustearentza-
ko: erantzun au emon Pantze'ri.

CHAT.—Olan izatekotan, artu nire agoz nire
bakaldunaren eupadea, nire ordeazkotzea-
ren atzenengo mugatzat.

YON B.—Nirea eroan egiozu ari eta, olan, ba-
kez alde egizu; onestua legetxe eldu zadiz
Pantze'ren begien aurrera, zuk ari emen-
go barririk emon baño len an naz, ba,
ni, eta an enizungo da nire suodien daun-
badea: alde. ba emendik! Gure asarrearen
turut eta zeuon ondamediaren iragarla mu-
ker izan zadiz.-Bide-lagun omengarririk izan
dagiala: ik artu egik orrako orren ardurea,
Pembroke. Agur, Chaiillon. (Alde Chatillon
eta Pembroke'k).

ELIN.—Aiko, ene seme! Eztauskat nik beti be
esan, ala, Kostantze geiagokeritsu ak sutan
iminiko leuleka Pantze ta mundu guztia,
bere semearen eskubide ta alderdia dira-
la-ta? Erraz eragotzi eitekean aurreztik orra-
ko ori, alkarreganako maitasun-agiri ta ou-
torpenagaz; orain, ostera, ondoren odoltsu
ta bildurgarriz atondu bearko yoe bakal-
derri bik.

YON B.—Gure alde doguz gure yabetza sen-
doa ta gure eskubidea.

ELIN.—Ire eskubideak baño askozaz be
sendoago izan bearko yok ire yabetzeak, ostan-
txean txarto ibili bearko dogu bai zuk, bai
nik: au dirautsu belarrira Yaungoikoak, zuk
eta neuk bakarrik dantzugun nire yakinki-
detzeak.

Northamptonshire'ko Xeripa (1) aurrera, eta
belarrira dirautso zerbait Essex'eri.

ESSEX.—Ene nagusi, auzirik iñondikoena do-
zu emen, zuk ebazteko baserritik datorren
eta nik eguño entzun dodanik iñondikoena:
zure aurrera ekarriko ete dodaz gizonok?

YON B. Datozala. (Alde Xeripak). Abatate-
giak eta Priortegiak ordainduko dabez gu-
du onetako diru-eraketak,

Barriro aurrera Xeripa, ERROBERTA FAL-
CONBRIDGE ta onen anai sasikume PILI-
PA'gaz.

Nortzuk zarie?

SASIK.—Zure bendeko zintzo naz ni, Nor-
thamptonshire'n yaiotako aitonseme ta, nire
ustez, Erroberta Falconbridge'n semerik za-
rrena, esku omen-emollez Coeur-de-lion'ek
gudategian bertan zaldundutako Erroberta
Falconbridge gudariarena.

YON B.—Nor augu i?

ERROB.—Falconbridge berberaren seme ta
etxagungeia.

YON B.—Ori izan zarrena, eta i augu etxa-
gungeia, ala? Olan izatekotan eta dirudi-
nez, ama batenak etzarie zuok.

SASIK.—Seguru baño seguruago ama bate-
nak, bakaldun altsu..., eztago ori eztakia-
nik; eta, nire ustez, aita batenak gara; ba-
ña onako au seguru yakiteko, Yaungoikoa-
gana ta nire *amagana* bidaliko zaudaz;
izan be, onako onetan eztoz segurantzarik,
gizakumetan iñok be eztauzenez.

ELIN.—Ken akit, zakarto ori! Lotsatu egiten
dok ik ire ama, eta zauritu, orbandu aren
entzute ona ire ezpai orregaz.

SASIK.—Nik, ala, andera? Ez, eztoz nik orre-
tarako biderik..., nire anaiea da bere auzi
ta eskakizunetz ori diñona, ez ni; eta orrek
erakutsi al ba'dau orrako ori, gitxienez ur-
tean bosteun libera ederretik uxatuten nau:
Yaungoikoak gordeko al dauz nire amaien
omena ta nire lurrak!

YON B.—Argi ta garbi itz egitekoa dogu txo-
txo au. Ori i baño gazteago izanik, zegaitik
ire etzaguntzarako eskabide-azirik orrek?

SASIK.—Eztaukit nik zegaitik dan, etzaguntzeaz
yabetuteko baño bestetarako. Baña aurrez
aurre eta mosu mosuan esan eustan bein
sasikume nintzala; baña ni bide zindoz yai-
o-a nazan, ala ez, nire amari ezarten dau-
tsat orrako orren errua; baña, ori bestean
ondo sortua izan nazanentzazko, ene nagu-
si, (baketon begoz ni sortuteko nekeak artu
ebezan azurrak!) alkarren aldamereratu egi-
zuz gure mosuak, eta zeuk ebatzi. Erroberla

(1) "Oxford Dictionary" k diñonez, bakal-
dunarsn ordezko izaten zan Ingelanda'ko koin-
detegi (county)etan Xeripa (Sheriff) dalakoa,
eta oneik ziron bere egikizun eta eskubideak:
bakea yagon, epaitegien bidez bakotxari be-
rea emon, goitik etorkozan aginduak bete,
eta austeskumdeetan buru izan. Gure urietako
endore edo alkateenak, gitxi gora-bera, baña
arlo ncrsaigoon.

zarrak sortu ba'ginduzan gu biok, eta a izan ba'zan gu bion aita, eta ori seme ori aren antzeko... Ui! Erroberta zar, aita, nire belauenen ganean ernoten dautsudaz eskenak zure antzeko egin eninduzulako!

YON B.—Ba! Zoro lango zoroa emon dausku Yaungoikoak gizon onegan!

ELIN.—Coeur-de-lion'en mosuaren ukututxorik ba-dau orrek berorren mosuan; itz egikeran be ba-dau aren antzik; ez ete dok idoroten nire semearen agiririk gizatzar orren soin-yoskeran?

YON B.—Ondo aztertu ta arakatu dauz nire begiak orren soin-atalak, eta ori Errikarta egin egina dala didoro. I, txotxo, itz egik, zek bultzatuten au i ire anaiearen etzaguntzea eutzako eskautera?

SASIK.—Bere arpegitik erdia nire aitarena lango dauelako; nire etzaguntza osoaren yabe izan gura leuke arpegi-erdi orregaitik; lau txakurrandiko mosuak bosteun liberako etorria bear dauela urtean!

ERROB.—Ene nagusi eskartsu, zure anaiea bizi zala, ainbat otseintzatan erabili eban ak nire aita...

SASIK.—Tiruk. yaun, ori ez tok biderik ik nire etzaguntzea ire eskuetaratuteko; zera erakutsi bear yok ire ipuinak, orren aitak ze otseintzatarako erabili eban nire ama.

ERROB.—Eta bein Germani'ra bidali eban ak, an bere ordeazkotzea egiteko, ango bakal-dunagaz aldi atako arazo andien batzukaz eragoteko. A etxetik alde eginik egoteari onurarik atera eutsan bakal-dunak, eta nire aitarenean bizi izan zan aldikada baten; lotsa naz esaten an zelan urten zan bereagaz..., baña egia egi da; legor eta itsasarlo andiak egozan nire aita ta amaren bitartean, (neure aitari esaten entzundo dot onako < rj) aitonseme mardul au sortu zanean. Bere eriotza-ocan, ilburukoz, niri itxi eustazan bere lurra; eta bere erioztaldian nire amaren seme ori etzala nire aitarenik; eta arena izatekotan, bere aldia baño amalau aste lenago etorri zan mundu onetara. Olan dala, ba, ene nagusi on, nire dana, nire aitaren lurra, nire aitaren ilburukoz, nitzako eukiten itxi egidazu.

YON B.—I, txotxo, legezko dok ire anaiea; ez-konduazkero ekarri yoan mundu onetara ire aitaren emazteak; eta a ustel izan ba'ya-koan ire aitari, bere dok errua; eta ezkondu-ten diran gizon guztiai yazo lekikeoena dok oker ori. Esaidak, zer yazoko litzakean, ik diñokanez seme au sortuteko nekeak berak artu ba' yoazan, nire anaieak bere seme-tzat ire aitari eskatu izan ba'leutso? Seguru

be seguru, adiskide on, ire aitak bere txal-zekortzat euki egikean ori, mundu guztikiak besterik esan-arren be, bere beiaeren uke dalako; bai, euki eçikean, seguru be seguru; olan, ba, nire anaiearenik izanarren be, ezin eskatu egikean ak beretzat; ezta ire aitak be, bererik izan ez-arren, beretzat artu ez. Emendik datorrena dok..., nire amaren semeak sortu ebalu ire aitaren etzaguntza; eta ire aitaren etzagungeiak yaditxi bear yok ire aitaren lurra.

ERROB.—Ez ete dau, ba, indarrik nire aitaren ilburukoak bererik eztan ume ori etzaguntza bagarik izteko?

SASIK.—Ni etzaguntza bagarik izteko etxok ak, nire ustez, indarrik geiago, ni sortuten izan eban baño.

ELIN.—Bietatik zein eunke ik gurago, Falcon-bridge eta ire anaiearen antzeko ta lurren yabe izan, ala Coeur-de-lion'en seme-tzat etsi ire burua eta, lurrik bagarik, eu artuala lekuren yabe izan?

SASIK.—Andera, nire antzeko ba'litz nire anaiea, eta aren antzeko ni; Sir Erroberta' ren antzeko ba'nintz, a dan lez; txibita-kir-ten bi ba'lira nire zangoak, angira-narru kirruz betezko ba'lira nire besoak eta, "Aiko or iru txakurtzikiko gizona" esango leuski-denaren bildurrez nire belarrian larrosarik iminten ez azarteko bestean me ba'litz nire mosua; eta bere antzagaz batera lur guzti onen etzagungei ba'nintz, ez al neu bein be nagon lekutik zirkinik egingo, dodan antz au eukite-arren lur orretatik atzenengo oñe-rañokoa emongo ezpa'neu; edozelan be eneunke gurako Sir Nob'ik izan.

ELIN.—Begiko be begiko atxat: ez ete dok bertanbera itxi gura ire ondasuntzea, ire lurra orri itxi, ta nire yarra etorri? Gudari nok ni, eta Pantze'rako bidean orain.

SASIK.—Anai, autso nire lurra, alanbearra artuko yoat nik; ire mosuari zor dauksak urtean bosteun liberako etorria, bai, eta karuegi dok. Andera, erioztaraño yarraiko naxatsu.

ELIN.—Ez, i ara nire aurretik yoatea gura yoat nik.

SASIK.—Gure aberriko ekanduz, nagusiagoai itxi bear dautsegu aurea.

YON B.—Zer yak izana?

SASIK.—Phillipa, ene nagusi; orregaz eta ortik asten da nire izena; Phillipa, Sir Erroberta agure onaren emaztearen semerik zarrena.

YON B.—Bere antza dokanaren izena erabili egik oraindik ara; belaunbikatu adi, Phillipa, baña andiagoturik yagi adi... Sir Errikarta ta Plantagenet yagi adi.

SASIK.—Amaren aldetiko anai orrek, ekadak esku ori; dedua emon yeustan nire aitak, lurrak emon euskazan iri ireak. Onetsia bedi ni sortu nintzan crdua, eguneko, naiz gabeko dala; alde egina zan orduan Sir Erroberta!

ELIN.—Plantagenet'en gogoa bera! Ire amama nok, Errikarta; olan deitu nagik.

SASIK.—Andera, alanbearrez, ez legez: baña ze ardura dau? Or inguruan ibilia naz, legetik apur bat urrindurik. Leiotik sartu naz etxera, leiotik edo tellatutik; gabaz ibili bear egunez ibilten azarten eztanak; eta edoze-lan goatua izan, eukite da eukitea; ur, naiz urrin, ondo urtetan da ondo egiten dana; eta ni neu naz ni, onan, naiz olan sortua izan.

YON B.—Tiruk, Falconbridge, bete dok orain ire guraria; lurdun "squire" (2) egin au lurrik bagako zaldunak. Tira, andera, -eta tira, Errikarta; arin yoan bear dogu Pantze'ra, bai, Pantze'ra; bearreko baño bearrekoago da-ta.

SASIK.—Agur, anai: zori on izango al dok! legezko bidez sortua az-eta. (Alde Sasikumeaz beste guztiak) Oin bete omen geiago dot, baña lurretan oin bete asko gitxiago. Tira, ba; edozein Yone anderatu daiket orain. "Egun on, Sir Errikarta: Yaungoikoa lagun izango al yak, lagun": Gorka ba'yako izena, Kepa deituko dot, omen artu-barriai aztu egiten yakez gizonen izenak-eta; gure aldakuntzarako lotsorregi ta txerakorregi litzake bestera yokatutea. Goazen orain bazkalondoko mizkerira: or datorkit maira bere agin-zotz eta guzti; eta bein nire zaldunbiuzturia asebate dakidanean, aginak zear nire miña erabiliaz, onan itanduten dauatsat nirs erkide txairoari? "Arren, ene yaun". (Onan asiko naz, nire ukondoak maiari deustola). Au da nire itauna. Eta or dator erantzuna kistarr-ikasbidean lez ikasia: "Ui! yaun, zure agindura nago ni, zuk erabilteko, zure otseintzarako", diño erantzunak. "Ez, yaun", diño itaunleak, "neu nago zure otseintzarako, yaun ezti"; eta olan, erameratik era-merara, eta Alpetz, Apenin, Auñemendi mendiez eta Po ibaiaz itz egiten daragoioela, apal-ordua eltzen yake erantzuleak itaunleak zer esan gura dauen ezta-kie-la. Onango yatsu andikiekazkoa, eta ori da nirea lango gogo ezi-ikasiri dagokona. Eta izan be, sasikume izan bear da aldi onetan (eta sasikume ba-naz ni) oarr-ikasle ez izateko; oarr-ikasle izan bear da ez ekandu, yardukera, azaleko yasa ta apainkera arloan bakarrik, barrutiko igikunen arloan be baño, aitatik darion eden gozo gozoaz oar-

tuteko. Eta ondo ikasi gura dot eden au, ez iñori ziririk sartzeko asmoz, neuri iñok sartu eztagistan baño; gora igoteko malla bakotxean idoroko dot orrako eden ori-ta... Baña nor datorku emen orren arin eta estu zaldiganerako soñekoz yantzita? Emakumezko ze bidari dogu au? Ez ete dau senarrik, bere aurrean turuta yoteko nekeak artzekorik?

FALCONBRIDGE'n Andera ta Yagoba GURNEY aurrera.

Ui, ui, ui! neure ama da. Kaxo, andera on! Zek zokaz orren arin eta ixaduz bakal-yaurregira?

FAL. AND.—Nondik dok ire anaiea, yopu a, alangoa? Nondik dok a, nire dedua atzera-aurreka darabilena?

SASIK.—Nire anai Erroberta, ala? Sir Erroberta zarraren semea, ala? Kolbrand gizatza, gizon asarre ori, ala? Sir Erroberta'ren semearen billa zatoz, ala?

FAL. AND.—Sir Erroberta'ren semearen! Bai, mutil lotsabako ori, Sir Erroberta'ren semearen billa; eta aren seme az i eu be.

SASIK.—Yagoba Gurney, bakarrik itxiko ete gozak apur baten?

GUR.—Gogoz be gogoz, Pillipa on.

SASIK.—Pillipa? Artatxori! Yazotekoak yazo dozak, Yagoba; laster emongo daukat barri geiago. (Alde GURNEY'k) Andera, enozu ni Sir Erroberta zarraren semerik; Bariku Gurenez be yan egikean Sir Erroberta'k nigan ak dauena, orregaitik aratisterik ausi baga; lan onik egin eikean Sir Erroberta'k, baña Andera Miren-arren, autortu egizu a etzala gauz ni egiteko... ezagun yaku aren esku-lana: olan, ba, ama on, nori zor dauztsadaz azpegiok? Sir Erroberta'k ez eban emon eguño laguntzarik zango au egiteko.

FAL. AND.—I eu be ire anaiearen zinkide augu, ala, eure irabaziagaitik nire izen onaren alde urten bear eunken ori? Zer esan gura yok ire ni zapuztute orrek, zakar zakar ori, alango ori?

SASIK.—Zaldun, zaldun nozu, ama on..., Basilisko langoxe. Ba! Bizkarrean zartadea emona nozu, sorbalda-ganean dot zaldun-tzea. Baña, ama, enaz ni Sir Erroberta'ren

(2) "Squire" (Skuaire irakurri, egin-egfnean irakurten ezpa'dakizu) izena baserrietako aitonsemeai ezarten eutsen eta dautse, alon be lur-yabe ba'dira. Ikurdi-eroala esan gura dou itz onek.

semerik; agur egin dautset Sir Erroberta'ri ta nire lurrai; yoanik dira legezkotutea, ize-na ta guztia: olan, ba, ene ama on, iragarri egidazu nor dan nire aita..., gizon yatorren bat dala ditxarot: nor izan zan, ama?

FAL. AND.—Ukatu egin dok Falconbridge'tar azala, ala?

SASIK.—Txerrentar nazala ukatuko neunken bestean zindoro ta zinez.

FAL. AND.—Errikarta Coeur-de-lion bakaldu-na izan zoan ire aita: luzaro ekinez eta eskariren eskariz zirikatu nindun nire senar-raren oean berari leku egiteko: zeruak ez al daust ezarriko oben ori nik erantzungar-rien artean! Nik gogor egiteko indartsuegi zan nire oben atsegingarriaren ondoren eta igali az i.

SASIK.—Barriri sortuko ba'nintz, andera, ar-gi au-arren, eneunke gurako aita obarik. Berarizko legea dabe oben batzuk ludi one-tan, eta olangoxea daroa zureak be; bu-

ruarinkerizkorik etzan izan zure utsa: nai ta nai ez imini bear izan zendun zure bio-tza aren bendea, ak zer-gura zuk egiteko, -bendekoaren zergatzat maitasunaren nagu-siagotzeari-, bildurbako leoik be ezin egin izan eutsan, ba, burrukarik aren asarre ta bardinbako indarrari, ezta bere biotza Erri-karta'ren eskuetan itxi baño besterik egin be: indarrez leoiari eurai be biotzak ostuten dautsezanak erraz irabazi lei emakume-ren biotza. Bai, ene ama, biotz biotzez da-motsudaz eskerrak nire aitagaitik! Bizí dan-ik azarri ba'dadi esaten txarto egin zendu-la ni sortu nintzansan, sulezara bidaliko dot bere gogo. Erdu, andera, nire senideai erakutsiko zautsedaz; eta Errikarta'k sortu nindunean zuk ari ezetz erantzun izan ba' zeuntso, oben egingo zeunkeala esango dau-tsue aik; oben izan zala diñonak, guzurra diño; etzala izan obenik diñot nik. (Alde da-gie).

II EKITALDI

I AGERLEKU.-PANTZE. Angiers'ko Arresien aurrea.

Aurrera, alde batetik, Osterri'ko Dukeburua, ta bere Indarrak; bestetik, PILLIPA, Pantze'ko Bakalduna, KOLDOBIKA, KOSTANTZE, ARTUR, eta Indarrak.

KOLD.—Angiers'en aurrean batera ondo yoa zauguz, Osterri kementsu ori. Artur, ire odo-leko aurrendari andi a, Errikarta, leoiari bio-tza ostu eutsana, gudu gurenetan Palestin' an izan zana, duke adoretzu onen bitartez yatsi zoan goxetik bere ilobira; eta aren ondorengoai bere zorra ordaindute-arren, ona etorri dok gure eskariz, bere ikurrinak ire alde zabalduite-arren, mutiko; orretara-ko, ta yaiotzatikoaz besterako dan ire osa-ba Yon Ingelاندarrak iri egindako lapurre-tea txarresteko; besartean estatu, ta maite izan egik, ba, ta ona ondo etorria emoiok.

ART.—Ainbat errazago parkatuko dautsu Yaungoikoak Coeur-de-lion'en erioztea, aren semeari bizia emoten dautsazunazkero, aren eskubideak zure gudu-egoen keizpetan ar-turik: indarbako eskuz damolsul ondo-eto-rria, baña orbanbako maitasunez beteriko biotzez, ondo etorria, ba, duke, Angiers'ko atetara.

KOLD.—Mutikoaren zindo! Nok ez emoteko iri zuzena?

OST.—Mun aperturitsu au egiten dauskat ire

mosuan, nire maitasunaren bearkune onen sendogarriztat, zera, enazala atzera etxera yoango, Angiers eta Pantze'ko ire eskubi-depeko beste lurrak, eta lur-mustur laru a, itsas-baztar zuri a, bere oñagaz itsasoko ugin orroatsuai ostikoka egin eta bertako izarotarrak beste lurretatik bananduten dauzana... baita Ingelanda a bera be, bere lurrak urez esiturik dauzana, erbestetarren asmoetatik bere burua segurutzat dauen ur-ormaz yagondako guda-segurutegi a bera be, eguzki-sarrerakoen dan lur ak berak be bere bakalduntzat iri txera ta agur egin arte; ordurarte. mutiko eder, etxoat nik eb;era yoateko asmorik izango, iskillioen ya-rrai aurrera egin baño.

KOST.—Ui! autsiz orren amaren eskerrak. andera alargunaren eskerrak, zure esku sendoz orreri indarrak artzen lagundu ta ori zure maitasunari obeto erantzuteko gei izan arte!

OST.—Zerutiko bakea izango dabe onango gu-du zuzen eta erukizkotan euren ezpatak eragi dagiezanak.

PIL.—Tira, ba, eldu dagiogun lanari: goyor egiten dauskun uri onen aurre-aldea begira imini bear dira gure suodiak. Dei egin gu-du-trebetasunez yakintsuen diran gure gi-

16 W. SH
zonai, egokien diran asmoak aututeko; uri onen aurrean iminiko doguz baitzat gure bakalazurrak, Pantzetarren odolztatik zear urratuko dogu bidea uriko zeira, baña mitiko onen bendeko egingo dogu.

KOST.—Etxon zure ordeazkoak ze erantzun dakarren ikusi arte, zurtasun bagarik zuon ez-patak odolzez orbandu eztagizuezan; ba-le-dike nire yaun Chatillon'ek arako eskubi-deak Ingelanda'tik bakez ekarterik-eta, guk emen guduz emonazo gura doguzan esu-bideak; eta oiangorik yazo ba'ledi, ain itsu-mustuan ixuri dogun odolaz damuturik ge'-ditutea.

PILL.—Alatza, miraria, andera! Ara, zure gurariagaz bat eldu da gure geznari Chatillon!

CHATILLON aurrera.

Labur esan Ingelanda'k diñona, yaun txerakor; bare entzungo dauskagu; itz egik, Chatillon.

CHAT.—Olan izatekotan, atera egizuz zure indarrak uri-esitute nagi onetatik, eta zeregin andiagorako eragiezu emendik. Iski-Uoak artuta dago Ingelanda, zure eskari zuenak artegaturik; axe arerioetan iminirik neban nik nire itxaroa, baña astirik asko emon izan dautsoe bere gudari-talde guztiak nigaz batera legorreratuteko; eragozpenbarik dator uri onetara bidez bide, sendo dira bere indarrak, ustetsu bere gudariak. Beragaz batera etorri da bere ama-bakaldunoa. beste Ate (3) dana, odolera ta burrukara a zirikatuten dauena; bere illo-ba, España'ko Blanca anderañoagaz; eurekaz batera len bakaldun zanaren sasikume bat be; baita lurralde atako gogaldi aldakordun guztiak, bat-baterakoak, buruarinak, eta euren kitetik sutsuak, mosuz emakume, baña gogoz eta biotzez iransuge ikaragarriak..., euren aberriko ondasunak saldu, eta yaiotzatiko euren eskubi-deak aldean dabezala, or datoz alanbearez ondasun bariak emen egiteko asmotan- Labur esateko, Ingelandar ontziak orain ekarri izan dabena baño bildurrik bagako biotz-mordo autuago ta ederragorik ezta eguño etorri izan uginen ganean, kistartasunaren laido ta kalterako. (Danbor-otsa barruon) Euren danbor zakarren otsak galazo egiten daust zertzelada geiagorik emoten; emen dira, alkarregaz itz egiteko, edo burruka egiteko: gertau zadize, ba.

PILL.—Gudu-bidaldi onen otoz-otoko!

OST.—Otoz-otokoago dan eta geure bumak

yagoteko atzarriago egon bear dogu; izan be, abagunea da adorea biztu ta goia eragi daroana; ondo etorriak bediz, ba; gerturik gagoz gu.

YON BAKALDUNA, ELINORE, BLANCA, Sasi-

kumea, Andikiak eta Indarrak aurrera.
YON B.—Bakea Pantze'ri, Pantze'k itxi ba' dagisku bakez sartzen yatorriz eta zuzenez geure danera! Ostantxean, odola berio Pantze'ri, eta zerura boa bakea! Bitartean guk, Yaungoikoaren asarrearen bitarteko ta esku gareanok, euren ezepen arroz bakea zerura bidalten dabena zigorturik.

PILL.—Bakea Ingelanda'ri, Pantze'tik Ingelanda'ra eroan ba'dagi gudua, an bakez biziteko! Maite dogu guk Ingelanda; eta Ingelanda'gaitik gagoz emen izerditan iskillioen zamapean. Zure izan bear leuke guk emen artzen dogun nekeak; baña zu ain urrin zagoz Ingelanda maite izatetik-eta, bere legezko bakaldunaren lekua artu dozu, eten egin dozu yatorrizko urengorik urxengoratzeta; lotsarik arean bagarik iraindu dozuz umeren eskubi-deak, eta indarrez ausi dozu burestunaren nesagarbitasuna. Begiratu egizu emert Geffrey zure anaiearen mosua;... arenetatik eratuak dira begiok, bepuoek: Geffrey'gan ildako anditasuna dago txiki onen txikitasunean; eta aldiaren eskuak idaztiztar egingo dau idazti laburtu onetatik; zu baño zarrago zan zure anai Geffrey, eta aren seme da au: Geffrey'na zan Ingelanda eskubidez, eta Geffrey'na da au: Yaungoikoa-arren, zelan da, ba, au, zuk zure burua bakalduntzat etsi ta eukitea, zuk indarrez dozun burestunaren yabe diran lokietan odol biziak taupadak emoten dara-goionazkero?

YON B.—Nogandik dozu zuk, Pantze, egikizun andi au, zure itaunai nik erantzuteko?

PILL.—Aginpide sendorik dauenaren biotzean, eskubi-dearen orban eta akatsak ikusteko, gogai onai eragin eta bultz egiten dautsen gorengo Ebazla agandik dot; Ebazla aren baiaz, Ebazla aren ederretsiz salatuten dot

(3) Ektdetarren mitu-iziti'i'k agiri danez, Tzeu yainkorik nagusie-naren alaba da Ate dalako au. Burruka-yai'nkonotzat esteo eben Eladetarrak, eta bere egikizuna edo bere lerea asarreak sortu ta gizakumeark geztakeritik geztakerira zirikatu ta bultzautea zan, betiko galdu eitezan.

nik zure gaiztakeria; eta Aren laguntzeagaz zigortu egin gura dot gaiztakeri ori,

YON B.—Ai ene! Iñoren aginpidea artzen dozu zuk.

PILL.—Parkatu nagizu... Iñorena ostuten dauena lurreratutea da nire egikuzuna.

ELIN.—Nor deituten dozu lapur, pantze?

KOST.—Neuri itxi erantzuten: zure semea da lapur.

ELIN.—Ken, lotsabako ori! zure sasikumea izango *d<j* bakaldun, zeu bakalduno izateko, ta mundua zure bendean eukiteko!

KOST.—Zurea zure senararentzako bestean zintzo izan zan nire oea nirearentzako; eta mutiko au Gefrey'ren antzekoago da bere soñez, zu ta Yon ekanduz baño, euria ta ura bestean zuok alkarren antzeko, naiz txerrena bere emaztearen antzeko bestean, zuok alkarren antzeko izan-arren. Sasikume izan be nire mutikoa! Nire gogoa-arren, nire ustez onen aita etzan sortu izan au bestean zindoro ta zintzoro: ezin izan edikean, zu izan ba'zintzazan bere ama.

ELIN.—Ama argi dok ori, mutiko, orbandu egiten yore ire aita-ta.

KOST.—Amama argi dok ori, mutiko, i orbandu gura au-ta.

OST.—Ixilik!

SASIK.—Entzun aldarrikaria.

OST.—Ze txerren augu i?

SASIK.—Ignz txerrenarena egingo dauena, i ta ire narrua bakarrean goatu ba'dagiz. Arako atsotitzeko erbia augu i, leoi ilai bizarretatik eltzeo lain adore dauena; keatu egingo dauskat narruzko soñeko ori, non-baiten goatu ba'agit; Txo, arduraz abil, gero! benetan, orixe egingo dauskat, bai, orixe.

BLANCA.—Ui! itzalez egoki datorko leoi-yantzi ori, leoiari bere soñekoa ostu dautsanari.

SASIK.—Bai, Alkidetz andiaren oskiak astoen bateri egoki yakozan bestean egoki yako orren bizkarrari leoi-narrua: baña, i, asto, kenduko dauskat bizkarretik zama ori, ostantxean, tarrat eta karrask eragingo dau-tsoen zama barriak erantsiko yautsazat ire bizkarrari.

OST.—Nor eta zer dogu tarrat eta karraskatzalla au, itzontzikadaka belarriak gortu bear dauskuzan au?

PILL.—Koldobika, bertatik ebatzi egik zer egin bear dogun.

KOLD.—Emakume ta ergelok, eten egizue zuon autua. Yon bakaldun, au da zer gutziaren laburpena..., Ingelanda ta Eire, Anjou, Touraine, ta Maine'ren eske nagotsu Ar-

tur'en eskubidez: emongo ete dozuz, eta lurreratuko ete dozuz zure iskilluak?

YON B.—Lenago neure bizia.-Eupada egiten dautsut, Pantze. Bretagne'ko Artur, nire eskuaren benderatu adi, eta nire maitasunez, Panlze'ren esku kikilak iñoz irabazi daiken baño geiago emongo dauskat: benderatu akit, mutiko.

ELIN.—Atoz ire amamagana, ume.

KOST.—Oa, bai, ire amamagana, seme; bakalderria emoiok ire amamari, eta amamak okaran bat, kerexa bat, eta iko bat emongo dauskaz: amama argi dok ik.

ART.—Ixilik, ama kutun! Nire ilobian sakon sarturik al nengo: onenbeste zaratagarririk enaz ni.

ELIN.—Mutikoaren errukarri! Ainbestean lotsatuten dau bere amak-eta, negarrez dago.

KOST.—Zeutzako lotsea, orren amak lotsatu, naiz lotsatu ez! Orren amamaren okerrak, ez orren amaren lotsak izan dira zeruari be eragingo leuskioen pitxiok orren begi errukarriatetik atera dabezanak, eta zeruak ordaingarriztat artuko dauzanak: bai, leia-rrezko bolatxoon bitartez irabaziko da zerrua mutiko oni zuzena egiteko, ta zuri zigorra ezarteko.

ELIN.—Zeru-lurren laidotzalla itzal ori!

KOST.—Zeru-lurren iraintzalla asarre ori! Enagizu deitu laidotzalla; zuk eta zureak ostuten dozuez agintzak, bakalduntzak eta mutiko sakatu onen eskubideak: au da zure semerik zarrenaren semea, zure aldetik ez bestetan zori txarreko eztan au: mutiko errukarri onetan dakusez zure obenak; Iegearen gogorkeria ezarten yako oni, zure sabel obentitiko bigarren gizaldiko baño izan ez-arren.

YON B.—Bego, zoro ori.

KOST.—Auxe bakarrik dot oraindik esateko, mutiko au orren obenagaitik izurriak yota egon ezeze, Yaurtgoikoak orren obena ta ori berori berorren ondorengo urrindu onen izurri egin dauzala, orregaitik izurrituarena, eta orren izurriagaz batera orren obena; orren kalte da mutikoaren kaltea... orren obenaren aldarrikari da mutikoa; mutiko onegan zigortu dira orren obenak, eta orregaitik; izurriak eroango al dau ori!

ELIN.—Zurtasunik bagako agirikalari ori, zure semea eskubidebagatu daiken ilburukoa egin daike nik.

KOST.—Bai, eta nok dau orrako orren ezparrik? Ilburukoa! Ilburuko zantarra; emakumeren ilburukoa; biziak yotako amamaren ilburukoa.

PILL.—Ixilik, andera! Bego, ostantxean neu-

rrizkoago izan: eztot uste, ba, leku au ego-ki danik olango eztabaida latzetan ekite-ko. Turutalarien batek dei egin dagioela Angiers'ko gizonoi, arresi-ganera etorri dadi-zan: entzun dagiegun zeñen eskubideak ederreslen dabezan, Arlur'enak, ala Yon-enak.

Tutu-ots. Arresi-ganera Uritarrak.

I URIT.—Nor da arresi-ganera dei egin dauskuna?

PILL.—Pantze da, Ingelanda'ren izenez.

YON B.—Ingelanda, bere izenez: zuoi Angiers'ko gizon, eta nire bendeko maiteoi.

PILL.—Angiers'ko gizon txerakorrok, Artur'en bendekook, gure tutuak dei egin dautsue autu txerakor onetarako.

YON B.—Ainbat eta oba gutzat; rni dala-ta, geu entzun lenen. Zuon kalterako etorri dira ona zuon urfaren aurreraño aurreratu diran Pantze'ko ikurrinok: asarez beterik dabez suadiak euren sabelak, eta euren lekuetan gerturik dagoz euren asarrearen burdiñea zuon arresien aurka yaurtiteko: urisitate odoltsurako ta errukibako ekiterako gertakuntza guztiak eginda dagoz Pantzetar-ron aldetik, zuon urriaren aurrean, zuon uriate itxien aurrean; eta gu urreratuteagaitik izan ezpa'litz, loak artuta dagozan orra-ko arriak, garria garrikoak lez zuon uria inguratuten daben arriak, onazkero karezko euren oetatik aterata legokezan orreint suodikaden indarrez, eta inñondiko triskantzea egingo litzakean, agintza odoltsua zuon ba-keaz yabetuteko. Baña au igarririk, nekez eta arin etorri da zuon legezko bakalduna, ta orrei erantzuteko indarrak ekarri dauz zuon uri-ateen aurrera, zuon uri zemaituaren arpegia urratu-rik бага yagoteko... Be-gira. ikaraturik, alkarregaz itz egifea gura dabe Pantzetarrak; eta orain, sutan baturiko su-bolen ordeaz, zuon arresietan sukar dardaratia sortzeko sutan baturiko su-bolen ordeaz, itz bareak yaurtiten dautsuez, ketan baturik, iruzur eginik eta zintzotasuna gal-durik gelditu daitezcan zuon belarriak: orra-ko orri dagokion ustea izan, ba, uritar maiteok, eta barrura sartzen itxi egiozue zuon bakaldun oni; atsedena artu gura dau, ba, zuon uri-arresien barruan arin be arin etorri-bearrez ebainduta dagon onek.

PII L.—Nik itz egín dagidanean erantzun bioi. Ara, zuzena egiteko Yaungoikoari zin egin dautsan nire esku eskoari deusala dago Plantagenet gaztea, gizon orren anai zarragoaren semea, ta orren eta orrek dauen

guztiaren bakalduna; ostikopean zapalduta dagon zuzentzearen alde zapalduten doguz gudu-ibiltaldiz zuon uri-aurreko zelai muskerrok; ume estutu oni lagunduteko Yaungoikoz bultzatuten gauzan aperturia baño bape arierioago ezkara gu zuontzako, Eder etsi egizue, ba, zor dautsazuenari zuon bendekotasuna ordaindutea, zerari, bakalseme gazte oni: eta arduan gure iskilluok, euren antzez bestera, musturra estuta dauen artzaren antzeko izango dira, kalterik egin ezin; alperrik galduko da gure suadien gaiztakeria, ortzeko odoi zauri-ezinai euren barrukoa yaurtinda; eta onspenez eta nekatzeka alde egingo dogu emendik, ezpatari agínik egiteka, buru-koskolik mallatzeka; emen zuon uriri erasoten ixurteko gintzazan odol mardula aldean dogula yoango gara eixera, eta bakesz itxiko doguz zuon ume, emazte, ta zeuok. Baña besterik uste-tan gure aginduari yaramonik egin ezpa' dagiozue, zuon arresi mosu-zarren birbil-tasunak ezin ostondu izango zaez gure gu-du-geznariakandik, ezta Ingelandar guztiok euren gudu-trebetasunagaz arresion ertz birribiltuaren barruan egon-arren be. Olan, ba, esan egiskuzue, bere yauntzat autortuko ete gauz zuon uriak, aren izenez eupada egin dautsagunaren ingeanean, Artur'en ize-nean? Ala, kiñu egingo ete dautsagu gure asarreari, ta odoletan urratu gure ondasu-nerako bidea?

I URIT.—Labur esateko, Ingelanda'lco bakaldunaren bendelco gara gu: arentzako, ta aren eskubidez deusagu guk uri oneri.

YON B.—Autortu egizue, ba, bakalduna, eta barrura sartzen itxi egidazue.

I URIT.—Olangorik ezin daikegu; baña zintzo izango gatxakoz bakaldun dala erakutsi da-gianari: ordurarte mundu guztiari itxiko dau-tsaguz gure ateak.

YON B.—Ingelanda'ko burestuna daroanek ez ete dau erakusten nor dan bakaldun? Eta ori asko ez izatekotan, emen dakatsuedaz orren autorlatzat birritan amabost milla Ingelanda-kume biotz...

SASIK.—Sasikume ta ganetiko.

YON B.—Euren biziakaz gure eskubideak autortu ta egiztauteko.

PILL.—Orrenbeste ta orreik bestean odolzin-do...

SASIK.—Sasikume batzuk be bai.

PILL.—Ba-dagoz bere aurrean, orrek diñona guzurtauteko.

I URIT.—Zuok zeuon artean zuotatik zein dan beinago atondu ta itundu arte, bioi uka-

tuko dautsuegu eskubidea, beinago danarentzako gordeta.

YON B.—Olan izatekotan, Yaungoikoak parkatuko al dauz gaur iluntzan ifiontza yausi baño len gure bakalderriko bakaldun nor dan erakuste-arren ekite itzalean beti-ko lekura yoango diranen obenak!

PILL.—Olantxe, olantxe! Zaldi-ganera, zaldu-nok! Iskillioetara!

SASIK.—Gure buruak yagoteko bideren bat erakutsiko al dauku iransugea bilin-bolaka ortik zear egotzi ta arrazkero nire arroztu-noaren ate-buruan iransuge-ganean izartolaka dagon Gorka Gurenak! (Osterrri) I. txotxo, ire etxean ba'nintzok, ire artzuloan, ire leoi emeagaz, txo, idi-buruen bat ezarriko neuskio ire leoi-narruari, eta i gizazakarturik itxi.

OST.—Ixilik! Bego.

SASIK.—Ui! Ikaratu adi, ba-dantzuk, ba, leoiaren orroea.

YON B.—Goragora goazen, goiko zelaira; an iminiko doguz, ba, gure gudari-taldeak egokerarik egokienean.

SASIK.—Arin ibili, ba, lekua gure aldeko izan dakigun.

PILL.—Orixte diñot nik be. (KOLDOBIKA'ri) Beste mendian dagozala agindu geroagorako begira bein beinean geldi egongo diranai. Yaungoikoa ta gure eskubidea lagun izango al yakuz! (Alde, banazectn).

Sartu-urten batzuk egindakoan, Pantzetar aldarrikari bat aurrera tutulariakaz, uriko atetara.

PANTZ. AI.D.—Angiers'ko gizonok, zabal zabal idigi atek, eta barrura sartzen itxi Artur Bretagne'ko Dukeari, ak, ba, bear onik egin izan dau gaur Fantzetarren eskuz, lur odoldu-ganean ilik datzaen euren semeakaitik amaika Ingelandar amari negar eragiteko; auzpez datzae amaika emakume alargunen senarrak, bere kolorea galduriko lurrari otzik deutsoela; eta galtze gitxiko garaiteak olgetan daragoio Pantzetarren ikurri nantz daragoioenetan. eta or datoz ikurrinok, garaitea-arren zabal zabal, irabazleak orra sartu ta Bretagne'ko Artur Ingelanda'ko zuon bakaldun iragarteko.

Ingelandar Aldarrikari bat aurrera, tutulariakaz.

ING. ALD.—Poztu zadize, Angiers'ko gizonok, yo zuon yoaleak; or dator ur Yon bakalduna, Ingelanda'ko ta zuon bakalduna, egun bero sargori onen yaun eta yabea: Pan-

tzetarren odolez urregorri-kolorez datoz atzera, emendik urrezuri-kolovez alde egin eben euren soin-koskolak; Ingelandarren gangarretik luma bat bera be eztau eratsi Pantzetarren guda-agak; emendik eroan ebezanen eskuetan eurretan datoz atzera gure ikurrinak; eta eiztari-talde gogargiaren anizera, esku gorriuz daioz gure Ingelandar mardoak, il-aginik dagozan euren are-rioen odolez margoztaurik; idigi zuon atek, eta bide-egin gudu-irabazleari.

I URIT.—Aldarrikariok, gure torreetatik, asieratik atzeneraño ikusi al izan dogu zuon bitzuo gudari-taldeen erasoa ta atzeraketea; begirik zurrenak eta zolienak be ezin dau ebatzi zein izan dan oba; odolez erosi da odola, eta zartadak erantzun dautse zartadai; bardindur^{ic} itxi dau sendotasunak sendotasuna, eta indarrari indarrak emon dautso arpegi; bardin zarie bitzuok, bardin zatzakuez gogoko. Alde batak agertu bear dau nagusi; olan, bitzuok bardin, asta-fardin dirauen bitartean, eztozu gure uria ez batsuentzat, ez besteentzat; bitsuontzat bein-beinean.

Aurrera barriro, alde batetik, YON BAKALDUNA ,ELINORE, BLANCA, SASIKUMEA, ta Indarrak; eta bestetik, PILLIPA BAKALDUNA, KOLDOBIKA, OSTERRI, ta Indarrak.

YON B.—Pantze, ba-dozu oraindik odolik geiago ixurteko, ala? Esan, bere bidean aurrera yoaten itxiko ete dautsazu gure eskubidearen urbiarri? Eragotzi ba'dagiozu bere tidea eroaten, asarraturik, bere bide yatorra itxi ta besterik artuta, mugen ganetik aurrera egingo dau, bere urrezuri-koloreko urai itsasora-bidea bakez egiten iixi ezpa'dagiezu.

PILL.—Ingelanda, norgeiagoketa oneian Pantze'k baño odol-tantan bat bera be geiagorik eztozu aurreratu; bestera, galdu bai geiago; eta ortzepe onetako lurraren yaurla dan esku au-arren zin dagit, edo zuzenez dakaguzan iskillook lurreratu baño len, zuri erasoteko dakaguzan iskillook lurreratu baño len zeu lurreratuko zauguzala, edo ilen kopurua bakaldun-kopuruz geitu, ta gudu-triskantza au edestuko dauen papel biribila bakaldunen izenez apaindu ta edertuko dogula.

SASIK.—Ara, nagusiagotza! Ire aintza, ire ederra bai gora be gora yagiten dala bakaldunen odol bikafna suak artzen daue-nean! Ui! Galtzaiduz yazten dauz orain eriotzeak txanlxurbako bere matrallazurrak;

gudarien ezpatak dagie bere agin eta txarri-aginena; etc oturuntzean dago orain, giza-okela-billa, bakaldunen eztabaida ebazkizunetan— Zegaitik dagoz bakal-mosuok onan ikaratimk? Ondamendirako dei egin, bakaldunok! atzera barru zelai orbandura, agintari bardinok, suturiko gogook! Bataren nasketeak bestearen bakea sendotu dagiala; zartadak, odola, ta eriotzea ordurarte!

YON B.—Zein alderdiren alde dagoz uritarrak?

PILL.—Itz egin, uritarrok, eta Ingelanda'ren alde yarri; nor da zuon bakaldun?

I URIT.—Ingelanda'ko bakalduna, nor dan yakin dagigunean.

PILL.—Gure artean dagola yakin egizue, gu gagoz emen bere alde-ta.

YON B.—Geu gareala yakin egizue, eta gu geu gareala gure ordeazko ta geure aldeko; geure buruaren yaun eta yabe gara emen; geure buruaren, Angiers'en, eta zuon yaun eta yabe.

I URIT.—Gu baño al andiagok guzurtauten dau orrako ori; eta nor dan gure bakaldun argi ta garbi ikusiarte, gure ate sendoro itxien barruan yarraiko gara lengo ezipaian; bakalduntzat bildurra dogula, bakaldun seguruen batek gure bildurrak uxatu ta garbitu arte.

SASIK.—Yaungoikoa-arren, irri ta iseka dagitsue zuoi bakaldun bioi Angiers'ko legentsuok, eta seguru dagoz euren arresi-orrazietan, antzpztegien baten ba'legoz legetxe, ta andik begiratu ta euren eretxia emoten dabe zuon ikuskizun trebe-asmotsuez eta eriotzea dakarren egiteez. Nire esanera erabili egizuez zuon bakal-buruak: beñola Yerusalem'eko asaldatak egin ebena egizue. Onezkoak egizuez alkarregaz apur baterako, eta bitsuok alkarturik, okerrik andienak egiozuez batera uri oni: sorkalde-sarkaldee-tatik imini dagiezala Pantze'k eta Ingelanda'k euren suodi yotzaleak, euren agoetaraño beterik, euras aterako dabean ots bildurgarriak uri ezesla onen suarritzko saietzak astrapalaka lurreratu arte: etentzaka ekingo neunskioe nik zaldizarroi, euren yagolatatzat dabezan arresiok lurreraturik aidea bestean billusik eta narru gorritan orreik ilxi arle. Bein orrako ori eginazkero, banandu egizuez len alkarturik egon diran zuon indarrak, eta alkarregandik alde eragin alkarregaz nasturik egon diran zuon ikurrinai. Arpegi emon arpegiari aurrez auire, eta moko odoltsua moko odoltsuari; gero, beingo baten, zoriak autuko dau alderdi batetik, naiz bestetik, berari kutun yakon zori on-

tsua, eskerrez eguna emongo dautsana, eta muntzat garaite argia emongo dautsana. Zer deretzatzez onu basati oni, bakalderri altsuok? Ez ete dau erriketa-usainik arean?

YON B.—Gogoko be gogoko ta atsegin yat onu ori, buru-ganean dogun ortzea-arren. Pantze, alkarrieri yosiko ete dautsaguz gure indarrak, eta Angiers oni lurragaz bat eragin? Eta gero alkarregaz burruka egin nor izango dan bakaldun?

SASIK.—Bakaldun-yatortasunik ba'dozu..., uri gogalditsu onek irain eginda zagozanazkero, arresi zantarron aurka itzuli egizu zure su-odiaren agoa, guk gurenak itzuliko doguzanez; eta bein orreik lurreratu dagiguzanean, ba! eupada egin dagiogun orduan alkarri, eta alkarregaz nasturik gure artean lan egin, zerurako, naiz sulezarako!

PILL.—Olan bedi.-Esan, nondik erasoko dozue zuok?

YON B.—Sarkaldetik bidaliko dautsagu guk ond.amendia uri onen bularrari.

OST.—Iparraldetik nik.

PILL.—Egoealdetik egotziko dau gure ostotsak burdin euri-zaparradea uri onen ganera.

fVSIK.—(Bere kitean) Guda-bide onen zur! Iparraldetik egoaldera..., alkarri egora yaurtingo dautsez Osterri'k eta Pantze'k burdin-bolak: ori egitera zirikatuko dodaz. Tira, goazen, goazen!

URIT.—Entzun gagizue, bakaldun andiak! Etxoizue, arren, apur baten, eta neuk erakutsiko dautsuedaz bakea ta alkarr-ituntze mosu-argia; zartadarik eta zauri barik irabazi egizue uri au; oean ilteko erosi egizuez zelai-oparizat on etorri diran biziak. Ez irau zuon asmotan, bakaldun altsuok, niri entzun baño.

YON B.—Ekiok ire itzaldiari, gure gogo onez; gogoz entzungo dauskagu.

I URIT.—Ingelanda'ren illoba da España'ren alaba ori, Blanca anderaño ori; begiratu Koldobika Delbinaren urteak, eta neskato lirain ori; edertasunaren billa yoatekotan maitasun sutsua, non idoroko ak Blanca baño ederragorik? Onindarraren billa yoatekotan maitasun aperturitsua, non idoroko ak Blanca baño aratzago ta garbiagorik? Yaiotzaz bardinik billatutekotan maitasun geiagokeritsuak, noren zanetan dago odol aberatsagorik Blanca anderañoarenetan baño? Neskato ori ederrez, onindarrez, yaiotzaz oso dan bestean oso da Delbina be. Ezeren ezik ba'leu Delbinak, neskatoagan idoroko leuke berak eztauen; Blanca'k ba'leu zerbaiten ezik, Delbinagan idoroko leuke berak eztauen; gizon onetsitik erdia da Delbina,

beste erdia osotuteko olango neskatoa bear dauena; eta bikaintasunetik erdia da neskatua, bikaintasunaren beste erdia Delkinagan dauena. Oi! olango urrezurizko urbizi bik alkarregaz bat egiten dabenean, apaindu ta txairotu egiten dabez eurak barruan artzen dabezan ur-baztarrak; eta zuok erregeok izango zarie urbizi bigaz egindako urbizi oneni mugak, bakalsemealaba bioi eutsingo dautsen mugak, orreik alkarregaz ezkondu ba'dagizue; zuon suodiak baño egikorrago izango da ezkontza au gure ateetarako; eta izan be, ezkontza au egin ba'dadi, arinaço ta gogozago idigiko dogu zabal zabal ataka-agoa, zuok barrua sartu zadizen, zuon sutausak indarrez daiken baño; baña ezkontza au ez egitelotan, itsaso asarreak eztau gure gortasunaren erdirik be, leoir'k be ^fago gu baño ustetsuagorik, mendii-ik etu arririk bez gu baño tinkoagorik; ez, Eliotzea bera bez bere erail-bear gorrian, gi* geure vriari eusteko gagozan baño bein ijetikoa.

SASIK.—Eriotza zarraren gorpu-azurak euren sorkietatik aterata gure aurrean eragiten dautsen uritar bat dozue emen! Bere agotik eriotzea, ta mendiak, atxak eta itsasoak egozten dauzan agotzarra dozue emen benetan; eta tapa-tapa nasai itz egiten dau leoi orroalariez, amairu urteko neskatoak txakurkumez itz egingo leukenez! Nongo suodilarik sortu izan dau odol sutu au? Nasai ta etxetiar itz egiten dau orrek suodiez, suaz, keaz eta daunbadaz; narrua berotuten dauku bere itzez; orren zigorkadak artzen dabez gure belarriak; Pantze'ren ukabilkadak baño gogorrago yoten gauz orren itz bakotxak. Denganiñoen denganiño! Eguño iñok enau segortu orrenbestean nire anaiearen aita aita deitu nebanazkero.

ELIN.—Seme.yaramoiok alkartute oni, egik ezkontza au; ezkontsari andirik asko emoiok ire illobeagaz batera: korapil onen bidez segurutoko dok orain seguru eztagon bures-tuna-ta, loraturik dagon eta igali asko emoteko dan mutiko gazte orrek eldu ta umatuteko eguzkirik izan eztagian. Oben, men egiten dauela yakusat Pantze'ren begirakuneetan; oar akio zelan daragoion txutxuputxuka; estutu egizak, eragiek euren biotzetan geiagokeri onek dirauen artean, orain eskari samurren arnasaz beraturik eta bigundurik dagon aperturia, errukiz eta garbaiz otzitu ta leiturik barriri leneratu baño len.

I URIT.—Zegaitik eztautsoe erantzuten nagu-

siagotza biak gure uri zemaituaren adiskide-itunben oni?

PILL.—Ingelanda'k itz egin dagiala lenen, bera izan da uriri lenen itz egin dautsanata: zer diñozu zuk?

YON B.—Or dagon Delbinak, bakalsemeak irakurri al ba'dagi "Maite zaudaz" maitasun-idazti onetan, bakaldunorena besteko izango da neskato onen ezkontsaria: izan be, Anjou, Touraine eder, Maine, Poitiers, eta itxasoz emendiko aldetik gure bures-tun eta alaren edergarritaz dogun guztia, esiturik dogun uri au ez beste guztia neskato onen ezkontza-oea urreztauteko izango da; eta aberats egingo dogu izengoitiz, omenez, eta goratsarrez, berau edertasunez, azibidez, odolez munduko edozein bakalalabagaz eskutik yoatekoa dan bestean.

PILL.—Zer diñok ik, mutil? Begiratu egik neskato anderañoaren mosua.

KOLD.—Begira dot, ene yaun, eta arrigarri didorot bere begia, arrigarri edo alatz arrigarri, neure itzala bere begian; eta, zure semearen itzala baño izan ez-arren, eguzkitu egiten da, ta itzaldtu egiten dau zure semea. Autort dautort eztodala eguño nire burua maite izan, neskato orren begiko lauki lilurakorreen margozturik ikusi arte. (BLANCA'gaz txutxuputxuka daragoio).

SASIK.—(Bere kitean) Neskatoaren begi lilurakorreko lauki zoragarrian!... Bai, zera! Bere bepuruko betozko tximurretik eskegita!... eta zatiturik bere biotzean!... Bere burua dakus maitasun-saltzalleak!... Errukarri ta tamal da benetan olango gizon zakarrik olan maitasunean eskegita, margoztuta, ta zatiturik aurkitutea.

BLANCA.—Nire osabearen guraria da nire, arazo onetan. Berari gogoko yakonik ezer ba'dakus nire osabeak zukan, nik erraz nire gurariratu daiket zu gogoko izatera eragiten dautson zer ori; naiz, obeto itz egiteko, zeuk gura ba'dozu, erraz beartuko dot nire maitasunera. Orrez ganera, etzaudaz zurutuko nik, ene yaun, nik zukan dakusadan oro maitasuna dala esanaz, auxe bakarrrik esango dot, zera, zukan dakusadanik ezta-la gorrotagarririk, gogo txarrez etsita be.

YON B.—Zer diñoie gazteok? Zer diñon ik, nire illoba orrek?

BLAN.—Oraindik be beartuta nagola ni zuk zure zurtasunez diñozuna egiteko.

YON B.—Itz egizu, ba, Bakalseme Delbin orrek: maite ete daikezu anderaño au?

KOLD.—Ez egidazu itandu maie daikedan, ala ez, maite ez ete daikedan baño, ezetarik irudituanenik egiteka maite dot nik-eta.

YON B.—Olan izatekotan, Vexin, Touraine, Maine, Poitiers, eta Anjou, bost erki edo lurraldeok damotsudaz neskato onegaz batera; eta ganera cu, ogei ta amar milla mark Ingelanda'ko dirutan. Pantze'ko Pillipa, gogoko ba'yatsu onako au, alkarri eskuak emon dagioezala agindu egiezu zure seme-alaboi.

PILL.—Gogoko be gogoko yaku. Bakal-semealabok, estutu alkarri zuon eskuak.

OST.—Bai zuon ezpanak be; ondo seguru nago, ba, orise egin neuntsala nik nire emaztegeiari bein segurutu nebanean.

PILL.—Angiers'ko uritarrok, idigi orain zuon atea, barrura sartzen itxi zuok egin izan dozuen adiskidetasunari, bertatik egingo dila, ba, ezkontza-araudiko zerak Miren Gurenaren yauretsetxoan. Eztago Kostantze anderea batzar onetan, ala? Ba-dakit eztagola; eta izan be, ezkontza au eginik, eragozpen andia litzatekean a emen egotea: nondik dira a bera ta aren semea? Esaidazue, nok daki?

KOLD.—Zure goitasunaren txoznan dago motel, gotilun eta eraginik.

PÍLL.—Eia, nire sinistea-arren, emen egin dogun alkar-arte onek eztau bape oscituko aren moteltasuna. Ingelanda'ko anai, zelan poztuko ete dogu andera alargun a? Aren eskubideen alde etorriak gara: eta Yaungoikoak dakianez, guk, geure onerako, beste biderik arrazo dautsegu eskubideoi.

YON B.—Dana osatuko dogu, dana osatu gura dogu, Bretagne'ko Duke ta Richmond'eko Konde egingo dogu, ba, Artur gaztea; eta uri aberats onen yaun dagigu. Dei egiozue Kostantze andereari: geznari bizkorren bategan esan dagiola datorrela gure yaira; -badot usterik, aren gogoa osorik bete ezpa' dagigu be, geien baten naikotuko dogula ta, olan, a ixilduko dogula. Goazen gu, al-bait arinen, otoz-otoko, yai gertau barikoa onetara.

(SASIKUMEAZ beste guztiak alde. Alde Uritarrak arresietatik)

SASIK.—Mundu cnen zoro! Bakaldunon zoro! Alkartze onen zoro! Yon'ek, Artur'en esku-

bideai aurrera-bidea osoan isteko, bere kitetik itxi dau bere danetik zati bat; eta Pantze'gazko... bere yakinkidetzak gudukoskola yantziago eutsan Pantze'ri, Yaungoikoaren gudaritzarako gudategira aperturi ta goi-maitasunak ekarririko Pantze'ri ixil-muxilka belarrira itz egin dautso asmo-aldatzalle ak, txerren maltzur ak; zinak egunean egunean ausiazoten dauzan ak; bakaldun,eskeko, gizon gazte, agure ta neskatok, guztiak eta guztitarikoak irabazten dauzan ak; eta galtzeko agirikorik neska-garbiren izenaz besterik eztauen neskato beartsuari orixe be ostu egiten dautsan ak, aitonseme mosu-leun ak, gili-gili egiten dauen Onura ak, Onureak, munduari okerrek bidea arrazoten dautsan onureak; munduari, bere einen, orekan egoan munduari, bide zelai-leunean ebilen munduari, alango baten zori oneko onura orrek, zer zakarrerako aurbera orrek, igikune guztien yaun eta yabe dan orrek, onura orrek bide bardinetik, edozetariko bidetik, asmotik, elburutik, yo-mugctik alde eragiten dautso: eta bide-okertzalle beronek, onura onek, emagaldu onek, iruzurizalla onek, zer guztiak aldatuten dauzan itz onek ikusi dau, ta ikusiaz bat irabazi dau Pantze aldakorren soñeko begia, eta or alde eragin dautso erabagitako elburutik, ebatziriko ta omengarri dan gudutik, bake zakar-zirtzil eta zirtzilkiro yaditxirako. Eta zegaitik nabilko akarka ta agirika onura oni? Oraindik nire billa ibili eztalako bakarrik ez nik kemenik eta indarrik dotalako eskua isteko, onen angeru lirainak nire esku-barruan agurrik eta txerarik egingo ba'leust; baña nire eskuagazko, oraindik zirikatzeke dago-ta, aberatsez txarto esaka daragoio, eskeko beartsuak legetxe. Tira, ba, txarto esaka eragoiko dot eskeko nazan bitartean, eta "Aberats izateaz beste obenik etxagok" esango dot; eta bein aberastuazkero, "Eskekotzeaz beste txarrindarrik etxagok" esatea izango da orduan nire onindarra: bakaldunak be austen ba'dabe zintzotasuna onurea-arren, Irabazi, i izan adi nire yaun! gurtuko aut-eta. (Alde dagi).

III EKITALDI

I AGERLEKU-PANTZE. PANTZE'ko BAKALDUNA'ren Txoznea.

KOSTANTZE, ARTUR, eta SALISBURY au-
rrera.

KOST.—Ezkonduten yoanik! Bakeak egiteko yoanik! Odol ustela odol ustelagaz batu-rik! Adiskidetuteko yoanik! Bere izango dau Koldobika'k Blanca? Eta Blanca'k erki edo lurraldeok bere izango? Ezin izan ledike olangorik; oker aitua dok ik, oker entzun dok; zurtu adi ta esatekoa barriro esan egik: igan uste onik eztdala izan bear uste yoat, ire itza gizon arruntarena bestean alperriko arnasa baño eztoke-eta: sinistu egidak, eztauskat sinistuten, gizon; besterako zina yoat bakaldunagandik. Zigortu egingo augu onan bildurtu ta ikaratu nokalako, ge-xorik eta bildurbera naiagok, ba, ni; oker-rreriz sakatu ta estuturik eta, orrexegaitik, bildurrez beterik; alargun nok, senarrik bagako, bildurbera ta bildurti; emakune r.ok eta, orrexegaitik, yaiotzaz bildurti; eta orain txantxetan ibili azala autortu ba'dagistak be, ezin yoat arterik artu nire gogaldi asarregaz-eta, ikaraturik eta lauorritan egon-ço nok egun oso onetan. Zer esan gura dok burueragite orregaz? Zegaitik begiratuten dok olan gotilun nire semea? Zer esan gura yok or bular-ganean dokan esku orrek? Zegaitik yoen ire begiak eruki-erio ori, bere mugen ganetik zabalduen dan ibai arroak legetxe? Ire itzen sendagarri dozak lorratz ilunok, ala? Olan ba'dok, barrien barri itz egik..., ez len esan dokan guztirik, ik esana egia danentz baño.

SAI.—Guzur dirala zuk uste dozun bestean egi, eta orrek erakusten dautsu egia dala nik esana.

KOST.—Ui! naibagekizun au sinisteko irakasten ba'daustak, ni zelan erail be irakatsi egioke naibage oni; eta alkarregana yoaz bat yausi ta ilten diran etsitako gizon biren asarrea legetxe, sinistea eta bizitzeak alkar yoko al yoe!., Blanca'gaz ezkondu Koldobika! Ui! semetxo, olan ba'dok, non ago i? Ingelanda'ren adiskide Pantze! Zer izango da nirea? Oa, lagun: ezin yasan aut nire aurrean: gizon itsusi be itsusi egin au barri onek.

SAL.—Ze beste kalterik egin dautsut nik, an-

dera on, besteak egin dautsuen kaltearen barri emon baño?

KOST.—Kalte ori berez da ain gorrotagarri-ta, orretzaz daragoioenak eurak be kaltegarri egiten dauz.

ART.—Nasaitu zadiz, arren, andera.

KOST.—Nasaitu naitela aginduten daustakan ori motz, itsusi ta ire amaren sabelaz txarto esatekorik ba'intz, pinporta zakar eta orban itsusiz beterik, meiki, tentel, makur, baltz, ezain, orañen itsusiz eta begiai min egiten dautsen lorratzez yosirik, elitxakidak ardura orrako orregaitik; nasai nengokek orduan; i olangorik izatekotan ez induket maite izango-ta; ez, eta eu be ez intzake ire yaiotza andigarririk, ezta burestungarririk be. Baña eder az i; eta ire yaiotzean yaiotzatikoak eta zoriak biak batera yo yoen, seme kutun, i andi egiteko; liliekaz eta larrosa erdi-idigiekaz batera arrotu ta ilarraindu eimdeke i yaiotzatikoaren esku-agirietan: baño zoriarena! Ui! usteldurik dago a, aldaturik, beste norbaitek irabazirik; egun oro ezkon-tzausten daragoio ak ire osaba Yon'egaz; eta bere urrezko eskuz nagusientzeari zor yakon lotsa begigarria zapalduera bul-tzau yok Pantze, eta euren maitasunaren bitarteko egin yok bere nagusiagotzea, kutunkeri-bitarteko egin dok Pantze, Zoriaren eta Yon'en bitarteko. Zori emagalduren eta Yon lapurrean bitarteko. Esaidak, la-gun, ez ete dau zina ausi Pantze'k? Edendu egik itzez; naiz, oa bakarrik, eta bakarrik itxi egizak ondikook, onein zamea neuk bakarririk eroan bear yoat-eta.

SAL.—Azketsi, parkatu nagizu, andera, bakarririk ezin yoan naiteke ni bakaldunakana.

KOST.—Yoan zatekez, eta yoango zara; zuzag enaz yoango ni: arro izaten irakatsiko dautset nik nire naibageai; arro da, ba, naibagea ta kementsu egiten dau bere omena. Neugana ta nire naibage andiaren lege-errira datozala bakaldunak batzarra egiten; eta izan be, ain andi da nire naibagea-ta, asarre tinkoaz beste euskarririk eztago beretzako: emen yezarriko gara ni ta nire b'otz-minak; emen dago nire bakal-aulkia-ta, datozala bakaldunak oni euren burua makurtuten. (Lurrean yezarten da).

YON B., PILLIPA B., KOLDOBIKA, BLANCA, ELINORE, SASIKUMEA, OSTERRI, ta Laguntza-koak aurrera.

PILL.—Egia da, alaba zoragarri; eta beti eukiko da yaitzat egun onetsi au; bere bidean gelditu egiten da eguzki argitsua, egun au goratuteko, eta alkimitarrena dagi, bere begi ederr-argiz lur zirtzil-mokiltua urre dizdiztsu eginik; beti izango da yaiegun urteko bere bideak dakarren egun au.

KOST.—(Ycigi-ala) Zori txarreko eguna, ez yaieguni!! Zer irabazi dau egun onek? Zer egin dau egun onek, egutegiko egun-mordotzarrean urrezko izkiz imintekorik? Ez, ori bagarik bestera, atera astearen egunetatik egun au, lotsari-egun au, estutasun eta zin-auste egun au; naiz, oraindik be or irauan bear ízatekotan, umedun emazteak otoi egin dagiela, euren sabeleko zamak eztaitezala andik urten egun onetan, alatzez euren itxaroak usteaz bestera urten eztaitezan: baña egun onetan izan ezik ístastarrak eztagiela izan urperatuko diralaren bildurrik; ez al dau porrot egingo egun onetan egiten diranez beste itunbenek: euren atzenera egun onetantxe elduko al dira egun onetan asi diran zer guztiak... Bai, zintzotasuna bera be ustelkeri utsera aldatuko al da!

PILL.—Yaungoikoa-erren, andera, eztozu izango biderik edo zegaitirik egun onetan egina biraotuteko. Neure nagusiagotzea eztoz baitu zure alde, ala?

KOST.—Iruzur bai egin daustazu zuk nagusiagotzea dalakoagaz; ukutu ta zelango dan ikusi ba'dagizu, utsa dala agiriko yatsu: zin-ausla zara zu, bai. zin-ausla: nire arerioen ofiola ixurteko etorri zara zu iskillokaz, baña orain besartean sendotu egiten dozu zeureagaz; otzitu egin dira gduetako kemena ta betozko asarrea adiskidetasunez eta bake irudituz, eta gure estutasunak egin dau itunben au. Zeruok, iskillok artu zuok, iskillok artu zuok bakaldun zinausleon aurka! Negarrez dago andera alargun bat; zuok izan zakidaze senar, zeruok! Eakez ez al dira amaituko Yaungoikoaren aurkako egun onetako orduak; iskillodun asarrea sortuko al da bakaldun zinausleon artean eguzkia sartu baño len! Entzun nagizue, Ui! entzun nagizue!

OST.—Nasaitu zadiz, Kostantze andera.

KOST.—Gudua! Gudua! bakerik ez! Gudu yat niri bakea. Ui, Limoges! Ui, Osterrri! Lotsatu egiten dozu ondakin odoltsu ori, yopu orrek, zori txarreko orrek, kikil orrek! Adoretan txiki. zitalkeriz andi azan orrek! I

beti sendo alderdi sendoagoren alde! I, Zoriaren txapeldun ori, iri segurutasuna irakasteko andera gogalditsu ori ire aldameanean dokanean baño eguño burrukarik egin eztokan ori! I eu be zinausla az, eta zurikeriak egiten dautsezak andiai. Tentel lango tentel augu i, tentel zemaitzalla, arroputzarena egin, ostikoaz yu lurra, eta eure alderdiaren alde zin egitekoa! Ik, yopu odol-otz orrek, eztok autortsak lez nire alde itz egin, ala? Eztok autortu zinez ire burua nire gudarítzat, ala? Eta nire arerioetara alde dagicdak orain? Leoi-narrua daroak ik aldean! Erantzi egik lotsea-arren, eta txal-narruz yantzi egizak ire aspegi dollor-kikilok!

OST.—Ui! gizonetzko al litz itzok esaten daustazana!

SASIK.—Eta ixal-narrua eskegi beso kikil orreitatik.

OST.—I. zital ori, ez al az azarriko olangorik esaten, eure bizia-arren.

SASIK.—Eta txal-narruen bat eskegi beso kikil orreitatik.

YON B.—Etxakuk begiko onako au; eure buruagaz aztuta ago i.

PILL.—Emen dator Aita Gurenaren ordeazko gurena.

PANDULBA aurrera.

PAND.—Gora, Yaungoikoaren ordeazko igurtziok!... Zutzako da nire geznea, Yon Bakaldun. Nik emen nagon Pandulba onek, Milano liraineko kardinal, eta ñokentzi Aita Gurenaren ordeazko onek, aren izenean yainkozalekero itanduten dautsut zegaitik daragoizorren orren gogatsu akuluka gure ama Elexa Gurenaren aurka; eta zegaitik indararren indarrez bere yezarlekuratuten izten eztautsazun Canterbury'ko gotzaiburutzat aututa dagon Estepan Langton'eri. Au itanduten dautsut len esandako Aita Guren ñokentzi'ren izenean.

YON B.—Lurreko noren izenek beartuko erantzutera bakaldun igortziren itz yareirik? Ezin asmau zeinke, kardinal orrek, aita gurenarena besteko dan izen zirtzilik, aintzako-ezik, eta barregarririk niri erantzunazoteko. Onako au esaiozu; eta Ingelanda'ren agotik au be erantsi egiozu, zera... Italiar abadek eztauela batuko gure aginterrian amarrenik, naiz beste zergarik: bestera, ortzpean bururik nagusien gareanazkero, nagusitasun andi aren bendea, Yaungoikoaren bendea, gu bakaldun garean lekuan, geuk bakarrik eutsingo dautsagula geureari, esku ilkorren laguntzarik baga: au esaiozu

aita gurenari, ari ta aren aginpide ostuari geiagoko begirapenik бага.

PILL.—Ingelanda'ko anai, biraoka daragoiozu zuk onako onetan.

YON B.—Zu ta kistarr-errietako bakaldun guztiak orren zakar erabili-arren iñoren arazoetan sartu bear dauen abade ak. diruz irabazita noberagandik kendu lediken biraoarean bildurrez; eta sal-eroste onetan beragandiko baño eztan parkamena gizon battegandik sastamar eta auts baño eztan urre zirtzilez zuok ercsi-arren; zu ta beste guztiak orren zakarkiro ba'zarabilez be, sorgin ziri-sartzalla a zuokanaiko etorriaren irrikiturik ba'dago be, ni neu bakarrik nago aren aurka, aita gurenaren aurka, eta nire areriotzat dodaz aren adiskideak.

PÁND.—Olan izatekotan, dodan legezko alez, biraoturik eta elexkidetzarik бага geldituko zara: eta onetsirik geldituko da siniste-ausleari bendekotasuna ukaturik yagi dadina; efa irabazi onekotzat, gurenen izendegiratutzat, eta gurentzat autortua izango da edo-z'fariok bide ixilez zuri zure bizi gorrotagarria kendu dagitsun eskua.

KOST.—Ui! Sori ta legezko izango al yat nik be Erroma'gaz batera apur baten ori biraotutea! Aifa kardinal on ori, "Olantxe" gedarrez erantzun egiezu nire biraok zorrotzai; eta izan be, niri egindako okerrik eztauenaren rniñek eztau eskubiderik eta alik ori biraotuteko.

PAND.—Leçea ta baia dodaz nik, andera, nire biraoen alde.

KOST.—Bai nireen alde be: legeak zuzenik ezin egin dauenean, legezko bedi legeak okerrik ez galazotea: legeak ezin dautso emon bakalduntzarik nire seme oni, onen bakalduntzea daukanak dauko iegea beta; olan, ba, legea bera be oker uts danazkero, zelan galazoteko legeak biraorik nire miñari?

PAND.—Pantze'ko Pillipa, biraobidean zagozeta, yarei egizu siniste-ausleen siniste-ausla dan orren eskua; eta bere kitetik Erroma'ren benderatu ezpa'dadi, orren buru-ganera doala Pantze'ren al osoa.

ELIN.—Zurbildu egin zara, Pantze; ez yarei zure eskua.

KOST.—Gero! Txerren ori! Ez itxi Pantze'ri damutuen, eskuak yareiaz sulezeak gogo bat galdu eztagian.

OST.—Pillipa bakaldun, yaramon egiozu kardinalari.

SASIK.—Eta txal-narrua eskegi orri berorren beso kikiletatik.

OST.—Tiruk, zital, sakeleratu egin bear yoadaz irainok, ba...

SASIK.—Ba-yagok orrenbestentzako lekurik ire parketan.

YON B.—Pillipa, zer dirautsazu kardinalari?

KOST.—Zer esatek- orrek, kardinalak esan dauenez besterik?

KOLD.—Burutan erabilí zer orí, aita; eta izan be, au da aldea, edo Erroma'ren aldetik biraok astuna irabazi, edo Ingelanda'ren adiskidetasun arina gaidu: bietatik arinena autu egizu.

BLAN.—Erroma'ren biraoka da orrako ori.

KOST.—Ui, Koldobika, tinko irauñ egizu! Txerrena dagotsu emen ziri-zirika, soñekoak erazten doan emaztegeiaren irudiz.

BLAN.—Sinisteak eztautso itz eragiten Kostantze andereari, bere bearr-izanak baño.

KOST.—Bete ba'dagizu sinistearen eriotzaz bakarrik bizi dan nire bearr-izana, onako au da, nai ta nai ez, ortik datorrena, zera..., barriro biziko litzakela sinistea bearrizanaeren eriotzeagaz! Olan, ba, ui! ostikopean zapaldu egizu nire bearr-izana, bai, eta gorra yagiko da sinistea; goian eukizu, bai, nire bearr-izana, eta ostikopean dozu nire sinistea!

YON B.—Eraginik dago bakalduna, eta eztautso erantzuten onako oni,

KOST.—Uif alde egizu orregandik, eta ondo erantzun egizu!

OST.—Orixe egizu, Pillipa Bakaldun; ez irauñ luzarago ez egingo, bai egingotan.

SASIK.—Txal-narrua eskegi egik ire sorbalde-tatik. tentel.

PILL.—Ezbaian, zalantzan nago, eta eztaikit zer esan.

PAND.—Zer esateko zuk, elexkide etzareala ta biraoturik gelditu ba'zadiz zalantza andiagotan aurkituko zareala baño?

PILL.—Aita begiragarri on, nire lekuan yarri zadiz, eta zetara yokatuko zeunken zeuk esaidazu. Alkarri yosi-barri dira bakaldun-esku au eta nirea, eta alkarregaz bat eginik gure barruko gogoak, itunbenez baturik, bikoteturik eta loturik gelditu dira, yaurreste-indarrez eta zin gurenez; zin-bidezko zintzotasunaren otsa izan da gure orain-tsuengo itzen otsa, bake ta adiskidetasunaren otsa, gure bakalderri ta bakalduntza bion arteko maitasunaren otsa; eta egin-barri dan gudu-bitarteko bake-aldi onetan, bakaldunen arteko bake-itunbena egiteko eskuak ikuzteko lain asti izan baño len (eta Yaungoikoak ba-daki ondo loi eta orbandurik egozala gure eskuak triskantzearen ar-

katzez, euren bakaldun asarreen eztabaidak azaskatzeak margoztaurik; eta odoliek ikuzbarri diran eskuok, oraintsu be oraintsu batuok, alkarri gogor yosiok, azkatu egin bear ete dabe auren korapila ta agur egin itunben oni? Lotu-azkaka yokatu zintzotasunagaz? Olan txantxetan ibili Yaungoikoagaz, ume aldakor-gogalditsuena egin gure buruakaz, orain atzera gure eskuak alkarregandik banandurik; egindako zinak ausi; arrotz odolirik artu bake irribarretsuaren ezkontza-oean; eta asarrez ilundu zintzotasun zindoaren betarte argic*;' Ui! yaun guren, ene aita begiragarri, ez al da yazoko olangorik! Agindu txerakorren bat asmau, bideratu ta agindu egzitu; eta orduan zori ontzutzat etsiko dogu zure guraria egitea, ta alkarregaz adiskide izatea.

PAND.—Eraga da era oro, naste-borraste era oro, Ingelanda'ganako maitasunaren aurkako eztan oro. Olan, ba, iskillotara! Gure Elexearen aldekoen txapeldun yazadiz! Ostantxean, bere biraoa egotzi dagitsula gure ama Elexeak..., amaren biraoa, gero!, bere seme asaldatu izango zarean orren ganera. Pantze, oba yatsu suger bere miñetik eldu ta eutsin, leoi asarri bere erpa erailkorretatik, katamotz barauri seguruago bere aginetatik zuk deutzazun eskuari bazekez eutsin baño.

PILL.—Banandu daiket nik nire eskua, baño ez nire zintzotasuna.

PAND.—Olan zuk zintzotasunaren arerio egin dozu zintzotasuna; eta zeure buruagazko guduaren legetxe, zinaren aurrez-aurre iminten dozu zina, zeure miñaren aurrez-aurre zure miña. Ui! lenen beteko al dautsazu Yaungoikoari zuk Yaungoikoari lenen egindako zina..., zera, Elexearen yagola izango zintzazala! Zeure buruaren aurka egina da zuk arrazkero egin dozun zina; eta izan be, zerbait egingo dozula oker egin dozun zina ez betetea ezta okerrik, ezta obenik; eta egikizuna okerrera doanean egikizun ori ez egitea yatsu zintzo izatea. Egiterakoan be okerretara egitea da okerreko asmo ta erabagiak daben zerik onena; berez okerretara egin-arren, izatez zuzen da okerretara egin dana, eta guzurraguzurra osatuten dau; zanetan sua dauena erretan danean sua suak otzituten dauezez; yaurespideak deute zinai; baño zuk yaurespidearen aurka, yaurespidez bestera zin egin dozu, lendik eginda zeunkan zinaren aurka, lengoaz bestera; lengoaren aurkako dan zinaren baigarrizat egin dozu zuk zin barria; segurutzat eztozun egiak zin-

auslarik etzareala izango zin egitera bakarrik beartuten zauz; ostantxean iseka lango iseka litzake zin egitea! Baña zuk zin-auslarik etzareala izango bakarrik zin egin dozu; eta zin-auste lango zin-austea litzake zuk egin dozun zinari euste. Olan, ba, zeure buruagazko zure asaldatute dira zuk oraintsuen egin dozuzan zure zinak; eta ezin zainke garaite obarik izan zuk dozuzan zatirik tinkoen eta zindoanek zirikatute aldakor eta lokaon aurka iskilloz ormidu baño; gura ba'dozu, or izango dozuz orretarako gure arrenik onenak; baño olangorik egin ezpa'dagizu, yakizu zugan kokatuko *áala* gure tiraoen galgordea, eta zuk ezin aztindu ta ortik gear bidali al izango dozuzala, etsi etsita euren zama astunpean il baño.

OST.—Asaldatutea, asaldatuteaz besterik ez! SASIK.—Ezin izango ete dok besterik? Ez ete yok txal-narruen batek estali ta itxiko ire agoa?

KOLD.—Iskillotara, aita!

BLAN.—Zeure ezteguetan, ala? Zeuk ezkondu dozun odolaren aurka, ala? Eraildako gizonak izango dira gure ezteguak, ala? Tutu orroalariak eta danbor zakarrak..., sulezearen gedarrak, izan bear dabe gure yaieko yantzea neurtuazo bearko dauskue-nak, ala? Ui! senar ori, entzun nagizu! Bai, ene! nire agoan bai barri senarr-izena!... eguño nire miñak esan eztauen izen ori gaitik taño ezpa'da be, nire belauenen ganean eske nagotsu, etzadzala yoan iskillotara nire osabearen aurka.

KOST.—Ui! nire belauenen ganean, belaubikotutez gogorturik dagozan nire belauenen ganean arren dagitsut Delbin onindartsu orri, ez al dozu aldatuko Yaungoikoak emondako epaia.

BLAN.—Orain ikusiko dot zelango dan zuk daustazun maitasuna: zek izan leike zutzako indar geiagorik, emazte-izenak baño?

KOST.—Omenak, zure omen danaren omenak: Ui! zure omena, Koldobika, zure omena!

KOID.—Andi etsita nago zure nagusiagotzea orren otz agertuteaz, zuri eragiteko zegaitiak ain andi ta aintzakoak izanik.

PAND.—Añena egotziko dautsat buru-ganera. PILL.—Eztozu izango orrako orren bearrrik. Ingelanda, alde egingo dot zugandik.

KOST.—Nagusiagotza erbesteratu orren atzera etortearen eder!

ELIN.—Pantzetar aldakorkeriaren itsusi!

YON B.—Pantze, ordu onetantxe negar egingo icuitsazu ordu oni.

SASIK.—Aldi Zar ori, erloiulari ori; Aldi ori, obratzalla buru-ul ori, euk zer-gura egin

bear dok, ala? Tira, ba, damutuko yako Pantze'ri.

BLAN.—Odolez estalirik dago eguzkia: agur, eguraidi on! Zein aiderditara yo bear ete dot nik? Dietako naz ni; nire esku bana dabe gudarostek; eta ten eginda zafitu egingo nabe euren asarre gorrian. Senar, nik ezin dot arrenik egin zuk irabazi dagizun; osaba, nai ta nai ez, zuk galdu dagizun arren egin-bearrean nago; aita, ezin dot gura izan zori ona lagun izan dakizunik; amama, ezin dot gura izan zure gurariak burutu daitezunik; edozeinek irabazi, galdu egiten dot ak irabaziaz; galtzea seguru, zein geiagoketea asi baño len.

KOLD.—Nigaz zatoz, andara: nigaz datza zure etorkizuna.

II AGERLEKU.-Angiers etik urreko Zelaiak.

Gudara-otsak. Sartu-urtenak. SASIKUMEA aurrera, OSTERRI'ren buruagaz.

SASIK.—Nire bizia-arren, bero be bero da egun au, itzalez bero; egaz dabil ortzean eguratsezko txerrenen bat, gaiztakeria darrion. Emen atza, Osterri'ren buru ori, Pillipa'k arnasea artzen dauen bitartsan.

III AGERLEKU.-Lengoxea.

Gudara-otsak. Sartu-urtenak, Atzeraketea. YON BAKALDUNA, ELINORE, ARTUR, SASIKUMEA, UBERTA, ta Lordak aurrera.

YON B.—Olan izango da; atzean geldituko da zure eskerra, yagolatalde sendo orregaz. (ARTUR'eri). Illoba, ez izan orren gotilun: maite au ire amamak, eta ire aitak maite indun bestean maite izango au ire osabeak.

ART.—Ui! naibagaz ilgo da nire ama onako onegaz!

YON B.—(SASIKUMEARI) Lengusu, alde Ingelanda'ra; arin egik gure aurretik; eta, gu ara eldu baño len, aztindu egizak abaten diru-zorroak; yarei itxi egizak baitegian dagozan angeruak (4); bakearen saiets-arte gizenak emon bear yautsek orain yaten goseak ilai: alik eta gogorren erabili egik gure agindua.

SASIK.—Yoalek, idaztik eta argi-taketek eztaust atzera eragingo, urre gorrik eta zurik aurrera egiteko kiñurik egin ba'dagist. Emen

BLAN.—Nire zori ona non bizi, an ilten da nire bizia.

YON B.—Lengusu, oa ta batu egizak gure indanak. (Alde SASIKUMEA).—Pantze, asaire biziak erreta nago; onetariko da nire asarrea, zera, odolaz beste ezek ezin itzali, ezin amatau dauena..., odolaz bestek, Pantze'ko odolik onenaz bestek ezin itzali dauena.

PILL.—Zeu erreko zauz zure asarreak, eta austu egingo zara, gure odolak su ori itzali baño len: yagoizu zure buiua, galtzorian zagoz-eta.

YON B.—Ez zemaituten nauena baño geiago. Iskillioetara goazen arin! (Alde alde banatalk).

YON BAKALDUNA, ARTUR, eta UBERTA aurrera.

YON B.—Uberta, yagoik mutiko au. Pillipa, amaitu dagigun; bildur nok nire ama otoz otoan billatu ta goatu dabela nire txoznan.

SASIK.—Neuk yarei dot, ene yaun; seguru dago aren nagusiagotzea, ez izan bildurrik; baña ekin dagiogun, ene yaun, neke apur batek atzen onera eroango dauz erdimitok-eta. (Alde dagie).

izten dot zure nagusitasuna. Amama, iñoz otu ba'dakit yaungoikozale izaterik, arren egingo dot zure segurutasunaren alde; olan, mun dagitsut eskuan.

ELIN.—Agur, illoba txerakor.

YON B.—Onik eta ondo ibili, lengusu.

ELIN.—Erdi ona, senditexo ori; zertxo bat entzun egidak. (Batzarrera daroa beragaz Artur).

YON B.—Ator ona, Uberta, Uberta txerakor ori, zor andia dauskagu iri! I artuenduntzat auen gogorik ba-yagok aragizko orma onen barruan, ela ire biotz ona zorraz ganerako ia gutzi ordainduteko asmoa yok; eta, ene

(4) Aldi atako Ingelanda'ko txanponak edo metal-diruak Mikel Angeruburuaren irudia izaten eben euren arpegi batean. Orregaitik, "Baitegian dagozan angeruak" sakeleko baitegian dagozan txanponak esan gura dau emen.

adiskide on, kutun yoat nire biotzean ik eurre kitetik egindako zina. Ekadak esku ori. Ba-naioan zerbait iri esateko..., aldi ego-kiagorik izango dok orrako ori iri esateko. Yaungoikoa-arren, Uberta, ia lotsa be banok aintzako be aintzakotzat audala iri esaten.

UBER.—Zure nagusiagotzeari beartu-bearturik nago ni.

YON B.—Adiskide on, bein beinean eztok ik olangorik esateko biderik; baña izango dok; eta aldia astiro yoan-arren be, elduko dok nik iri onik egiteko aldia. Zer bat naioan iri esateko... baña dagola; goian yagok eguzkia, eta egun arroa, ludiko atsegin guztiak inguruan dauzala, olgetariegi ta yaiez beteegi yagok niri yaramonik egiteko, ni entzuteko: bere burdiñezko miñ eta borontzezko agoz yoaleak ordu batako yoko ba' leuz gau loguretsuaren belarrietan; obitegi-ren bat ba'litz lez gagozan leku au, eta ik eurre ganean milla bat irain ba'euz; naiz, odola egosi, astundu ta loditu izan ba' leusk gogaldi motel-gotilunak (orain zanetan yoan-etorrika ta gili-gilika ibiliaz barre tentela eragin, eta mosuak orretarako biderik bagarik argituten dauzan odola, eta biotzaldi au etxakiek bape egoki nire asmoai); naiz, ni ik begi bagarik ikusi al ba'nindukek, ire belarri bagarik ik entzun ni, eta miñ bagarik erantzun, begibarik, belarribarik, eta itzen ots kaltegarri bagarik bulkoak bakarrik erabilita..., orduan, egun atzarri ta kuikalaria

kuika egon-arren be, ire barrura ustuko neunke nire gogaketak eta bulkoak: baña, ai! etxoat egingo olangorik!... Orraitiño be, maite maite aut; eta, sinistu egidak, ik euk be maite maite nokala uste yoat.

UBER.—Ain maite zaudaz-eta, eginagaz batera eriotzea ba'letorkit be egingo neunke nik egiteko zuk aginduko zeuskidana, Yaungoikoa-arren.

YON B.—Egingo eunkela eztakidala uste dok, ala? Uberta, Uberta, Uberta on, mutiko orren ganera egotzi egizak ire begiak: ori suge dala nire bidean esan bear daukat, eta nik nire oña non ezarri, an datza ori nire aurrean: aituten ete daustak? I az orren yagolea.

UBER.—Eta nik euki ta yagongo dodanez eztautso minik egingo zure nagusiagotzeari.

YON B.—Eriotzea.

UBER.—Ene yaun?

YON B.—Ilobia.

UBER.—Bizirik ezta geldituko.

YON B.—Asko dok.-Pozik egon nadike orain. Uberta, maite aut: tira, etxoat esango itzako zer dodanik: ez aztu, gero! Agur, andera: zugana bidaliko dodaz orko indarrak.

ELIN.—Nire onespina itzako!

YON B.—Ingelanda'ra, illoba; Uberta izango yak ire otsein, ire esanera egongo dok edozetan eta zintzo izango yak. Aurrera, Calais'erantza, ee! (Alde dagie).

IV AGERLEKU.-Pantze'ko Bakaldunaren Txoznea.

PILLIPA BAKALDUNA, KOLDOBIKA, PANDULBA, ta Laguntzakoak aurrera.

PILL.—Olan ba, sakabanaturik eta laguntza bagarik deslai ta ondaturik gelditu da itsasoko ekaitz ikaiaigairi-asanez galtzeko zan ontzidi osoa.

PILL.—Zer ondo urtengo ta mondo urtengo, orren txarto ibili gareanazkero? Eztauskue geiago egin, ala? Eztoqu galdu Angiers, ala? Ezta yausi atxilo Artur, ala? Ainbat adiskide maite eztira il, ala? Pantze'k ezarri dautsazan eragozpenak gora-bera, ezta yoan Ingelanda odoltia Ingelanda'ra, ala?

KOLD.—Sendoturik, tinkoturik itxi dau ak irabazi izan dauena; zurtasunez be zurtasunez atonduta, iradu gorri-beroa egina; le-nurrenketa ain arduratsua arazo ain itzalean; eurak langorik eztabe lenagotik ona-

ko zerok: nok irakurri, naiz entzun izan dau eguño onetariko egiterik?

PILL.—Gure lotsariaren antzekorik idoro al ba'neu, idoro: yasango neunke Ingelanda'gazko gorapen ori. Begira, nor datorren or! Gogoaren ilobia; no orren gogoaz batera gogo ilezina bular naibagetuko baitegi zakarrean euki daukana.

KOSTANTZE aurrera.

Arren, andera, alde egizu neugaz.

KOST.—Begira, orain! Ikusi orain zure ba-keak ekarri dauena!

PILL.—Epe artu egizu, andera on! Nasaitu zaitetz, ICostantze zindo.

KOST.—Ez, eupada egiten dautset onu guz-liai eta benetako osakai eztiran zer guz-tiai; eriotzea betor, eriotzea: Ui! eriotza

adiskide maite ori! Usain gozodun andur ori! Usteltasun zindo ori! Yagi akit gau luzeko ire oetik, zori onaren gorrotakizun eta ikarra ori, bai, eta mun egingo dauset ire azur iguingarri-gorrotagarriai; eta ire betzulo makurretan nire begi-bolak iminiko yoadaz; eta ire etxeko arrezko erestunak iminiko yoadaz nire aizetan; eta autsaren autsez itxi egingo yoat arnasbidearen ataka au, eta I eu langoxe gorpu zakar izango nok; erdu akit, mosuak egidazak, eta irribarre egiten daustakala uste izango yoot, eta mun egingo dauskat eure emazte ba'nintzok lez! Bear garricren maite ori, Ui! erdu akit!

PILL.—Naibagetu eder ori, ixilfik!

KOST.—Ez, ez, enaz ixilduko, gedar egiteko arnasarik dodan artean! Ui! ostotsaren agonan al lego nire miña! Olan, ba, aztindu ta ikaratu eçir-go neunke ludia nire naibagaldian; eta lozorroMk iratzarri egingo neunke anderaren abots makalik ezin entzun eta oraingo gedarrai irri egiten dautsen gorpu itsusi-anker ori.

PAND.—Andera, zorakeri uts da zuk diñozuna, ez naibagarik.

KOST.—Deunik etzara zu, nitzaz olango guzurak diñozuanazkero; burutik eginda enago ni; neure dira sustarretik ateraten dodazan uleok; ICostantze yat Izena; Geffrey'ren emazte izana nozu; Artur gaztea da nire semea, eta galdurik da a; burutik eginda enago ni; eder al litxako Yaungoikoari ni burutik eginda egotea! Olangorik izatekotan, nire buruaz azturik nengoke-ta; Ene! nik bai aztuko neunkela naibaga lango naibagea! Burutik eragiteko yakintzaren bat irakatsi eçidazu, eta deuntzat iragarriko zaudaz, kardinal; eta izan be, burutik eginda bagarik, naibagarako sobera nazalako, nire burua ondikoostatik zelan yareiko bidebilla dabil nire argibide-alderdia, ta neure burua erail, naiz eskegiteko irakasten daust: burutik eginda ba'nengo, nire semeaz aztuta nengoke, naiz, zorakeriz, baserritar-kumeren bat da)a usie izango neunke: enago ni buruik eginda; ondoegi, ondoegi so egiten daustat ezbear baktoxaren izurri ezbar-dinari.

PILL.—Estu egizuz buruko adatsok.—Ui! maistasun lango malfasuna oar eta ikusi dakust ule orrein molto ederrean! Alanbearrez ara urrezurizko tantanen bat baño yalgi ez-tan lekura, naibagean lagun, tantan arexegana be amai milla adiskide me-me bazten dira, estu estuka alkarregaz bat eginik, ezbearrean alkarregana estu estu ba-

tzen diran maite yator, bakan-ezin, zintzoen antzera.

KOST.—Ingelanda'ra, gura ba'dozu.

PILL.—Lotu egizuz zure ule-adafsok,

KOST.—Bai, egingo dot orrako ori; baña zegaitik egin bear eate dot? Euren lokarrieta-tik tenka atera, gedar egingo dot zoli "Uleok yarei dabezan bestean erraz yareiko al lebe eskuok nire semea!". Baña orain begi txarrez dakustaz yareita, atzera lokarri-barrurau egingo dodaz, atxilo dago nire seme errukarria-ta. Eta, aita kardinal, entzunik dautsut nik zuri esaten zeruan ikusi ta ezautuko doguzala gure adiskideak: egia ba'da orrako ori, barrero be ikusiko dot nire semetxo; eta Izan be, arako lenengo ume arra, Kain yayo zanazkero, arnasea arizen esaterako atzo asi zan semea ganaño, ezta yayo izan nire semea besteko ume zoragarririk. Orain, barriz, a naibagazko bizienak yango dau pipiletan, eta ostu egingo dausto bere mosuetako edertasun yatorra, eta mamu bestean arro ta uts irudituko da, irits eta argal sukarduna besteah; eta olan, il egingo da; eta olan berbiztu ba' dadi, eztoz ezautuko a zeruko yauregian agaz egaz batu nadinean; olan ba, iñoz bez, iñoz be eztoz barrero adi-adi begiratu-ko nire Artur eder-polita!

PAND.—Lotsa geiegi dautsazu zuk naibageari.

KOST.—Eguño semerik izan eztauenak dara-goio niri itz egiten-

PILL.—Zure semea bestean maite dozu zuk zure naibagea.

KOST.—Bete bete egiten dau naibageak emen eztan nire semearen lekua, aren oean datza, neugaz dabil batera ta besteraka, aren begirakune lirainak egiten daustaz, aren itzak barrero esaten daustaz, aren alderdi ta zati zoragarriak gogoratuten daustaz, aren antzez beteten dauz aren soñeko utsak; aor ba, zegaitik maite dodan nik naibagea. Onik eta ondo ibili: zeuk izan ba' zeu nik izan dodana lango galtzerik, zuk damostazuna baño nasaigarri oberik emon al izango al neunskfzu. Eztoz euki gura nire buruan atontze au (Saskildu egitcn dau bere adatsa), nire sentzuean onango nastea dagon artean. AI, ene Yaungoikoa! Ene seme, ene Artur, ene seme eder! Ene bizi, ene poz, ene yanari, ene ludi oso! Alarguntzako ene nasaitasun, eta ene naibagearen osagan! (Alde dagi).

PILL.—Bere buruari okarren bat egingo eate dautsan bildur naz-eta, yarra egingo natxako. (Alde dagi).

KOLD.—Eztago mundu onetan ni poztu naike-

nik ezer: birritan esaten dan ipuina bestean iguingarri yat bizia. logura dan gizonaren belarriak minduten dauzan bigarrenezko ipuina bestean; eta lotsariaren lotsariak muzkildu daust gozo onen gozotasuna, lotsaria ta mingostasunaz besterik eztaust emoten-eta.

PAND.—Egin-eginean be, gaitz andia osatu-aurretik, osatze ta osasuneratze-aurretxoan izaten da gexo-aldikadarik gogorra; alde egiterakoan erakusten dabe alde egiten daben gatxak euren gaiztakeri osoa: zer galdu dozu egun au galduaz?

KOLD.—Egun aintzatsu, pozkarri ta zori ontsu guztiak.

PANO.—Irabazi izan ba'zeu bai galduko zeunkezan seguru be seguru. Ez, ez; onik geien egin gura dautsenean begiratuten dauz betozko zemaikorrez zoriak gizonak. Gogoratu ta gogoratuteko da zelango galtzeak izan dauzan Yon Bakaldunak berak irabazitzat baño irabaziagotzat dauen egun onetan: ez ete dozu naibagarik Artur aren atxilo dala-ko?

KOLD.—Artur berak dauelako ak pozik dauen beste bai.

PAND.—Zure odola bestean gazte da zure adimena, Entzun nagizu orain ni, igarla-gogoz itz egiten; eta izan be, nik esan gura dodanaren amaseak berak be putz egingo dautso Ingelanda'ko bakaulkirako zure bide artezan zure oñak idoroko dauen auts bakotxari, lasto bakotxari, eragozpenik txikienari; eta orrazkero, oartu zakioz onako oni. Goatu dau Yon'ek Artur; eta ezin izan ledike irutikoaren zanak zear bizi epela goraberaka dabilen bitartean bere lekuan ezta gon Yon'ek ordu bateko, minuto bateko bakerik, ezta arnasa bateko bakerik be izaterik: koipekero ta lafc-ankeritan ibilteka, zakarki euki bear da esku zakarrez goaturiko agintza-makilea; eta bide labanean dagonak eztau zirtzil eta zakartzat zutunik irauteko on yakon zulorik: Yon'ek zutunik iraungo ba'yok, nai ta nai ez yausi egin beaT yok Artur'ek; olan izango dok, bestera ezin izan ledike-ta.

KOLD.—Baña zer irabazteko nik Artur yausiagaz?

PAND.—Orduan ik, ire emazte Blanca'ren eskubidez, Artur'ek beretzat eskatuteko eban eskubidea dok iretzat eskatuteko.

KOLD.—Eta galdu bera, bizi ta guzti, Artur'ek legetxe.

PAND.—Gazte be gazte ta gordin be gordin az i mundu zar onetan! Yon'ek berak irakasten dauk zer egin; ire alde dok eretia; eta izan be, segurantzaz odoltsu ta saltzalla baño etxok idoroko bere segurantzaz odol zindotan bustiten dauenak. Ain gezto dan aren egite onek otzitu egingo yozak bere erritarren biotz guztiak, eta leitu beragana-ko arein aperturia-ta. txera argia egingo dautsoe a bere bakaulkitik erasteko agertu dadin eretirik txikienari; ezta agertuko ortzean berezko zaratarik, yaiotzatikoaren nasaitasunik, ez eguraldi txarrik, ez-oi dan axerik, egun oroko yazokunerik, berezkozat bagarik artuta, izar ibiltaritzat, alaztat, zer arrigarriztat, illortzat, iragarlatzat, eta Yaungoikoaren mintzat artu ta olangotzat deituko eztabenik, agiri agirian Yon'en generako azaskatutea iragarten eztabenik.

KOLD.—Ba-ledike ak, Artur gaztearen bizia ukutu bagarik, Artur baitegian eukita bera seguru egotea.

PAND.—Ui!, yaun, zu urreratuaz zoazala ak entzun dagiane, ordurako yoanik ezpa'da Artur, barri ak erailgo dau; eta orduan, bere erriko biotz guztiak asaldatu ta iges egingo dabe agandik, eta otos otoko aldakuntzearen ezpanai mun egingo dautse; eta asaldatzerako ta asarrerako zegaiti sendoa idoroko dabe Yon'en erpuru odolduetan. Naste-borraste au bidean dakustala irudituten yat: eta, Ui!, or dozuz zerak nik esan dodan baño gertuago zure alde! Ingelanda'tik da orain Falconbridge sasikumea, Elxearen ondasunik ostuten, yaun-maitasunari irain egiten: amabi bat Pantzetar iskillokaz an ba'lira, eurak litzakez asko, dei legetxe litzakez eurck euren atzean euren aldera amar milla Ingelandar ekarteko; naiz, yausi ta yausi, laster mendia egiten dauen edur-malutea langoxe. Delbin zindo ori, zatoz nigaz bakaldunagana: orain euren gogoak irainez ganezka dagoz-eta, sinistu be ezin dateke zer yaditxi lediken euren gogokoz bestera egotetik: zoaz Ingelanda'ra: neuk zirikatuko dot bakalduna.

KOLD.—Zegaiti sendoak egite sendoak egin daroez: goazen: zuk "bai" esan ba'dagizu, bakaldunak eztau esango "ez" ik. (Alde *á*-gie).

IV E K I T A L D I

I AGERLEKU.--NORTHAMPTON. Gazteluko leku.

UBERTA ta bere otsein bi aurrera.

UBERT.—Berctu ta goritu egidazuez burdiñok; eta errezelaren ostein egon zuok: lurra bularrean ostikoaz yo dagidanean, bat-batean urten andik, eta yezarlekuari gogor estu nigaz aurkituko dozuen mutikoa: zoli ibili: alde orain eia zur egon.

I OTS.—Gure buruak zurituteko zure aldetik baien bat emongo dauskuzula uste dogu.

UBERT.—Kezkaon zustarbako! Ez izan zuok ezeren bildurnk: nire escrn.a egin. (C'tsei'n'k alde). Erdur ona, mutil gazte; itz egin bear dauskat.

ARTUR aurrera..

ART.—Egun on, Uberta.

UBERT.—Egun on, bakalsemetxo.

ART.—Bakalsemetxo izan be, bakalseme andi izateko zegaiti ain andiak izan-arren. Gotilun eta motel zagoz zu.

UBER.—Bai, izan be, iñoz izan naz gogargi-go.

ART.—Ai ene! neuk bakarrik gotilun egon bsar reunkela uste neban nik: orraitiño be, ni Pantze'n rjengcanean, gotilun egoten ziran citonseme çazteak, gaurkotasuna-arren bakarrik. Kistartasuna-arren, baitegian ezpa'nengo, eta artzai ba'nintz, eguna luze dan bestean gogargi nengoke; ementxe be olantxe egongo nintzake, nire osabea nitzako kalte andiagorik asmatuten dibilelaren sumorik ezpa'neu: bildur daust ak, eta neuk be bai ari; ze erru dot nik Geiffrey'ren seme izanagctz? Eztot, ez orixe; eta zure seme al nintz, TJBerta, Yaungoikoaren ederrez, zuk mai'eko nindukezu-ta, Uberta.

UBERT.—(Bore kitcnn) Itzik egin ba'dagiot. errubako bere izketeagaz iratzarri egingo dauEí, nigan ilik dagon errukia: olan ba, arin eta beingo baten eçin bear dot orregazkoa.

ART.—Gexorik zagoz, ala, Uberta? Zurbil zagoz zu gaur: egia esateko, zu apur bat gexorik eçtcea gu.-ako neunke, gau osoan yezarrita zugaz egoteko: benetan zuk ni baño maiteago zaucaz nik.

UBERT.—(Bere kite'inl Nire biotzaren yabe egi ten dira orren itzak. Irakurri egizu au, Artur gazte (Ingi, papel bat opatuten dautso). (Bere kitean) Onangorik! Negarron zoro ta

tentel! Errukibako elorrioari atek isten dau-tsoezanak! Arin ibili bear dot, nire tinkota-suna, tantanka, emakume-negar samurrez nire begietatik yalgi eztakidan. Ezin dozu irakurri, ala? Eztago arçi idatzita, ala?

ART.—Argiegi ta txukunegi, Uberta, olango egite zakarrerako. Burdin goriz erre bear ete daustazuz begi biak?

UBER.—Erre bear yoadaz, bai, mutil gazte.

ART.—Eta egingo ete dozu olangorik?

UBER.—Bai, egin egingo dct.

ART.—Izango ete dozu orretarako biotzik? Buruko mina baño besterik etzeunkanean, mo-suzapiagaz lotuten netirtsun bekokia, neban nik onenagaz, bakal-alabak nitzako egin-gaz, eta eguño eztautsut eskatu atzera; eta gaberdian neure eskuetan eusten neuntsan zure buruari; eta orduaren begira dagozan minutoak legetxe, ixilik eta bertatik poztuten neban aldi astuna, esanaz, "Zer bear dozu?" , naiz, "Non dozu min?" , naiz, "Zetan erakutsi daiketsut nire biotz ona?". Gizon beartsuren seme bat baño geiago legokean etzanda geldí, eta itz maitakorrik bat be esan ez zuri; zuk, ostera, bakalseme izan dozu zure gexoaldiko otseintzat. Orraitiño, maitasun trebetasunez iruditutatz oisi zeinkean nire maitasuna, eta lukikeri deitu: -egizu egitekoa, gura ba'dozu; Yaungoikoari eder ba'dakio txarto erabili bear nozula zuk, ba! olan izatekotan, erabili nagizu. Aterako ete daustazuz begiak? Eguño erakutsi ez, eta oraindik ara be betozkorik erakutsiko eztautsuen begiok?

UBER.—Zin eçinda nago orrako ori egiteko-ta, burdin goriz erre ta ustu bear dautsudaz.

ART.—Ene! burdin-aro onetan bakarrik egin ledike olangorik! Burdiñeak berak be, gori egon-arren be, begiotara urreratu-ala, nire negarrak edanda, nire erragetasunagaitik baño ezpa'da be, itzali egingo leuke bere asarre sutsua; areago, ugartu egingo litzake, nire begiai kalte egiteko sua euki izan dauelakoxe. Burdin mallukatua baño be gogorrigo ta setatsuaگو zara, ala? Ange-ruen bat etorri izan ba'litxat, eta Uberta'k begiak aterako eustazala esan ba'leust, ene-unsion sinistuko.. Uberta'naz beste miñek eleuskidan sinistuazoko.

UBER.—(Lurra yoten dau ostikoaz) Erdue.

Osteintzakoak aurrera barriro, lokarri, burdin eta ganetikoakaz.

Egizue agindurik dozuena.

ART.—Ui! yarei nagizu, Uberta, yarei nagizu! Gizon odolzaleon Legirakune bildurgarritz be urtenik dagoz nire begiak.

UBER.—Ekadazue burdiñea, bai, ta emen estu egizue.

ART.—Ai ene! zetarako izan bear dozue orren gezto ta zakar? Eztot egingo nik zirkinik, arria baño geldiago egongo naz. Yaungoikoa-arren, Uberta, ez al nabe estuko! Ez, entzun nagizu, Uberta! Alde eragiezu gizonoi, eta asuria bestean otzan eta bare egongo naz; eztot egingo zirkinik, atzera egingo bez, itzik egingo bez, ezta burdiñeari gorrotz begiratu be: atera egizuz gizonok emendik, bai, eta asketsiko zaudaz nik, zuk edozein elorrio ezarri ba'dagistazu be.

UBER.—Zoaze ta or barruan gelditu; bakarrik itxi nagizue beronegaz.

I OTS.—Gogoko baño gogokoago yat olango egitetik urrin egotea. (Alde Otseinak).

ART.—Ai ene! uxatu egin dot nire adiskidea nire agirikeagaz! Begirakune gogorra dau, baño biotz samur-zindoa; datorrela atzera, bere errukiak zurea biztu dagian.

UBER.—Tiruk, mutil, gertau adi.

ART.—Eztago beste biderik, ala?

UBER.—Bat bez, zure begiak galtzeaz besterik.

ART.—Ui! Yaungoiko ori! bilder bat baño epa'dozu zure begietan, aletxoren bat, autsen bat, eltxoen bat, ule aldarraien bat, edozein kezka sentu bikain orretan, arttega zagoz! olan ba, zer txikiak ain kezkarri izanik an, nai ta nai ez ikaragarri izan bear dau zure asmo zakarrak.

UBER.—Ori ete da zuk agindu dozuna? Tira, iutsiozu zure miñari.

ART.—Uberta, miñ biren itzak be eztira asko begi biren alde eskatuteko; enagizu beartu nire miñari eustera. Ez, Uberta, enagizu

orretara beartu! Naiz, Uberta, miña moztu egidazu, begiak aldean eukitekotan: Ui! ez egidazu kendu begirik, zeu begiratuteko baño bestetarako ezpa'dira be! Begira, egia esateko, otzik dago lankia, eta eleuskit egingo kalterik.

UBER.—Berotu daiket, mutil.

ART.—Ez, ez orixa; il egin da sua naibagaz, nasaigarritz egina izanik, egite orren txarretarako erabilteko zala ikusirik; zeuk ikusi; eztago geztokeririk ikatz gori onetan; zeruiko putzak itzali dau bere garra, eta damuzko auissz estali dau.

UBER.—Baña nire putzez biztu daiket, mutil.

ART.—Baña olangorik egin ba'dagizu, Uberta, lotsatuazo, eta zure egitearen lotsaz gorritu baño eztautsazu eragingo; areago, ba-le-dike zure begistara txatarrak egozte; eta, burrukara beartuten dan txakurrak lez, burrukarako aiazoten dauen ugazabari usigi. Euren egitekoa ukatu egingo leuskitsue niri okerrik egiisko erabiiko zeunkezan zer guztiak; zuk bakarrik dozu agiri agirian errukibako egikizunetarako erabilten diran su ta burdin bildurgarriak ba-daben errukiaren eza.

UBER.—Tira ba, ikusi egik biziteko; nik etxoat ukutuko ire begirik ire osabeak dauzan ondasun guztiakaitik be; orraitino be, zin eginik nengoan-eía, burdin onexegaz iri begiak erreteko asmoa izan yoat, mutil.

ART.—Ui! orain bai ba-dakust nik Uberta bera! Bitarte oso onetan marropean egon zara zu,

UBER.—Ixilik; bego. Agur! Zure osabeak eztau yakin bear zu bizirik zareanik; guzurrezko barriz beteko dodaz kuikalari setatsuok: eta, mutiko zoragarri, kezka bagarik eta seguru lo egizu, munduko aberastan osoa-gaitik be Uberta'k eztautsu gatzik egingo-ta.

ART.—Ui, ene Yaungoikoa! Eskerrik asko, Uberta.

UBER.—Ixilik; bego: ur arrakit barrura: galgorde andia yoat igaitik. (Alde dagic).

II AGERLEKU.-Lengoxea. Bakalduntzearen lekua Yauregian.

YON BAKALDUNA, burestuna buruan dauela; PEMBROKE, SALISBURY, ta beste Lord batzuk aurrera. Bere bakaulkian yezarten da Bakalduna.

YON B.—Beste bein yezarten gara, beste bein burestuna ezarririk eta, nire uestez, begi txerakorrez gakusela.

PEMB.—Alperriko zan beste beingo au, zure nagusiagotzeari eder izan ezpa'litxako: len-dik zengozan zu burestuna ezarrita, ta inok eguño eztautsu kendu izan zure bakalduntzarik; eguño ezta orbandu izan asaldatzez zure bendekoein zintzotasuna; eta bakalde-rria ezta artegatu izan bere begira luzaro

egondako aldakuntzaz, naiz zer oberen ibcaroz.

SAL.—Ori dala-ta, geiegikeri alperriko ta barrerri da yai bikotz au, lendik eder zan izen au edertutea, urrea urreztautea, lilia margoztautea, bioleteari usain gozoen bat ezartea, leia labandutea, naiz ostadarrari kolore barririk ezartea, naiz ortzeko begi ederra argizai-argiz ederragotu gura izatea.

PEMB.—Egin-bearreko ezpa'litz zure bakal-dun-gurari au, ipuin zarren bat barriri esatea langotsu litzake egite au; erara ezta-torrelako, bera barriri esatea gogoikarriago baño eztalako.

SAL.—Asko aldatu da onako onetan gure ekandu zarren arpegi izurbakoa; eta aldatuten dan axeak ontziari bidea aldatuazoten dautsan lez, onako onek be gogaketai beste biderik arrazoten dautse; ikaratu ta bildurtu egin da yentea; ete-daka geldituten dira len seguru egozanak, eta susmota aldatu da len egizat ebena; eta oi izan ezтана egite-arren dana be.

PEMB.—Langilleak zerbait ondo baño obeto egin gura izaten dabenean, geigokeriak itsuturik, eztabe erakusten Irebetasunik; eta sarritan, utsen bat zurutu-gureagaz utsa agiriagotu baño eztabe egiten..., utsa estali-gureagaz urratuen bateri adabakien bat ezarten yakonean urratuak len baño itsu-siago emon daroanez.

SAL.—Orregaitik, zu barriri burestundau baño len emon geuntsun guk gure onua: baño gure onuari yaramonik ez egitea eder izan yakon zure nagusitasunari; eta, orraitio, nasai eta pozik geldituko gara gu, gure gurari guztiak zure nagusitasunaren gurariari edozetan men egiten dautsoe-ta.

YON B.—Lendik emon dautsuet birritako burestundatze onen zegaiti batzuen barri, eta sendotzat dodaz zegaitio; eta geiagoren eta sendoagoren barri emongo dautsuet, bildur gitxiago izan dagidanean; bitartean ondo eztagonik zer aldatu gurako zeunkien esaidazue, eta or ikusiko dozue gertu be gertu nagola zuok entzuteko ta zuon eskakizuna beteteko.

PEMB.—Olan ba'da, neure aldetik eta euren biotzetako gurariak iragarteko ni imini naben onein aldetik, baño guztien ganetik zeure segurutasunaren aldetik (orretara yoten dabe, ba, nire ta euren guraririk onenak), biotz biotzez eskatuten dautsugu yarei, azkatu dagizula Artur, gogo txarrekoen ezpanai txarto esanazoten dautse, ba, a baitegian eukiteak, eta galgorde andien bat sortu ledike ortik..., onetara diñoe, ba, "Eu-

ki daukazuna eskubidez ba'daukazu, zegaitik eta zeren bildur zara?" Aik diñoenez, ba, zuzenik ezari darraikio bildurra. Zegaitik euki bear dozu baitegian zure senide samurra. eta bere egunak ezyakintza zakarrean igarozau, eta aren gaztetasunari ezite ederrik galazo? Oraingo zure arerioak asaldatze-adionik dabenean euren burua zurituteko biderik izan eztagien, esateko esku-biderik emoiguzu zeuk eskatu dauskuzula aren azkatasuna eskatu dagitsugula; gure onerako bakarrik eztoz eskatuten onako au, zeurerako baño, zure onerako da aren azkatasuna-ta.

YON B.—Olan bedi, ba: zuon esanera nagotsue.

UBERTA aurrera.

Ze barri dakak, Uberta?

PEMB.—Au da egikizun odoltsua egiteko zan gizona; nire adiskide bateri erakutsi eutsan eukan agindua; bere begietan dau orrek oker gezto-gorrotagarriaren irudia; ondo ta argi diragar irudi ixil orrek biotz kezkatuaren gogaldia; eta egiteko eban agindua egin eta burutuko ebalaren ain bildur gintzazanarena.

SAL.—Yoan-etorrika dabil bakaldunaren kolorea. bere asmo ta bere yakinkidetzaren bitartean, gudaroste itzal biren bitartean dagozan aldarrikariak letgetxe. Gora-goraka dator bere biotzaldi umatua-ta, nai ta nai ezler eta iztenak egin bear dauz.

PEMB.—Eta iztenak egin dagizanean, bildur nok mutiko maitagarri baten eriotzatiko andur zantarra urtengo da'a.

YON B.—Eriotzearen esku sendoari eustekorik ezkera: Lord onok, emoteko dodan gogo bizirik egon-arren, yoanik eta ilik dago zuon eskakizuna: arrats onetan il dala Artur diño onek.

SAL.—Izan be, bildur gintzazan gu, osa-ezina zala aren gatxa.

PEMB.—Izan be, entzunik geban eriotzatik ur be ur egoala a, gexorik egoala berak igarri bafso be lenago: onako oni edo ementxe, edo beste nonbaiten erantzun bearko yako.

YON B.—Zegaitik begiratuten nozue orren ben eta gotilun? Nik dodazala alanbearraren artaziak uste dozue, ala? Biziaren taupaden yaun eta yabe naz, a!a?

SAL.—Agirian dago yokabide txarra; eta lotsagarri be lotsagarri da anditasunak olan-go yoko zakarrik egitea zure yokotik irabazia aterateko! Eta orrazkero, agúr.

PEMB.—Etxoik apur baten, Salisbury yaun;

igaz yoango nok mutiko errukarri onen yarauntsiaren billa, bearturiko ilobitzeko bere bakalderritxoaren billa. Iru oinbetezko lurak dauka izaro oso onetako lur zabalaren yabe zan odol a: zital be zital da mundu au! Ezin yasan ledikena da au: naibagarik asko ta guztitarikoak ekarriko daukuz onako zer onek, eta arin ekarri be, nire ustez. (Alde Lordak).

YON B.—Asarrez irakiten dagoz. Damuturik nago: odola ezta oñarri segururik; ezia seguru besteren eriotzeagaz yaditxiten dan bizirik.

Geznari bat aurrera.

Ikcratuaren begirakunea dok ik; nondik dok mosu orreitan nik ikusiriko odola! Olongo ortze ilunik eztoz argituten ekatx bagarik; eralgi egizak ire euriak: zelan yoazctk Pcn-tze'ko zer guztiak?

GEZN.—Ingelanda'ra datoz Pantze'tik guztiak. Eguño iñoongo lurraldetan ezta batuzi an alango indarrak erbestera yoateko. Ikasi dabe aik arin ibilteko zuk emon dautsezun eredu; eta, izan be, aik gertakuntzetan daragoioela yakin bear zeunkenean, aik ona eldurik diralakoaren bcrria dator.

YON B.—Ui! non egon ete dira gure ixilkizun-billatzalleak mozkoturik? Non loak artu ete dauz? Nondik da nire *amaien* ardurea, Pantze'n orrenbesteko gudaosterik ak yakiteka batzeko?

GEZN.—Autsak itxita dagoz aren belarriak, ene yaun; Yorrailaren lenengo egunez il zan zure ama zindoa; eta, entzun dodanez, iru egun lenago il zan Kostantze anderea, zoroaldi baten; baña onako au orko zurrumurrutatik entzuna da, egia ala guzurra dan nik eztaکیدana.

YON B.—Ibitu, galgatu egik ire iradua, abagune ikaragarri orrek! Ui! nigaz itundu adi, nire Lord mukerrak nik naikotu arte! Onangorik! Ilik nire ama! Olan, ba, Pantze'ko nire lurraldea bai ibiliko dala nasturik! Nor yoek buru ik egizat, emen legorreratutzat dozakan indarrok"

GEZN.—Delbina dabe burutzat.

YON B.—Zorabiauirik itxi nok barri txarrokaz.

SASIKUMEA aurrera, Pomfret'eko Kepa'gaz.

Kaxo! Zer diño munduak ire egiteez? Ez adi ibili nire burua barri txar geiagogaz beteten, lendik yoat beterik-eta.

SASIK.—Danik eta txarrena entzuteko bildur ba'zara, zure buru-ganera yausi daitela txarren ori, entzuteka.

YON B.—Yasan nagik .lengusu, zorabiau ta itxi naiok izkoreak-eta; baña orain ur-ganean oster be arnasea artzen asi nok, eta edonori entzuteko gauz nok, berak zer-gura esan.

SASIK.—Batu dodazan diru-mordoak esango dabe eleiz-gizonen artean zoli ta bizkor ibili nazanentz. Baña lurraldea zear ara ta onaka, batetik bestera nenbilela, iñondiko kasketaldiz beterik ikusi dot yentea; ames utsezko zurrumurruz beterik, zeren bildur diran be eztaکیela, baña bildurrez bete beterik; eta emen dozu aztu edo igarla bat, Pomfret'eko etxarte bideetatik neugaz ekarri dodana; atzetik ara bere yarra eundakak yoakozala aurkitu neban nik au an; eta onek itz neurtu zakar eta abots latzez abestu egiten eutsen bartanbera itxiko zendula zuk zure burestuna Igokunde eguneko eguerdia baño len.

YON B.—Ameslari guzurti ori, zegaitik egifen euan orrako ori?

KEPA.—Ba-nenkialako olantxe yazoko dala.

YON B.—Uberta, atera egik ori emendik; baitegiratu egik; eta eskegi dagiela nik burestuna bertanbera itxiko dodala diñon egun bereko eguerdian. Leku seguruan imini egik; eta atzera ator ona, zerbaiterako bear aut-eta. (Alde UBERTA'k eta KEPA'k). Ui! ene lengusu maite ori, entzun ete dok orgestetiko barririk, eta nortzuk etorri diranik?

SASIK.—Pantzetarrak eldu dira. ene yaun; ez-tabil besterik yente guztien agotan; orrez ganera, Bigot eta Salisbury yaunakaz trikitx egin dot..., eta auren begiak su ixitu-barrria bestean gorri egozan..., beste batzuk be aurkitu dodaz, zure erdi-aginduz arratseon erail dabela diñoen Artur'en ilobia ikusten doazala.

YON B.—Senide maite, oa ta euren kide egin adi; ba-yoat oraindik arein biotzak irabazteko biderik: nire aurrera ekadazak.

SASIK.—Yoango naz euren billa.

YON B.—Bai; baña arin egik egitekoa, eskoako oña aurren dala. Ui! ez al dot izango arer'orik neure bendekoan artean, lur onetaratzat arro ta bildurgarriz erbestetar are-riok nire uriak ikaratuten dabezan bitartean! Merkuri langoxe izan adi, egoak ezarri egiezk ire orpoai, eta gogaketeak legetxe egaz egik eurekandik atzera nigana.

SASIK.—Aldiaren gogoak, espirituak, irakatsiko daust arin egilen.

YON B.—Aitonseme zoli ta zindori dagokenez itz agin dok (Alde SASIKUMEA'k) Oakio atzetik ara; ba-ledikek, ba, ak bere ta Lor-

den bitarteko geznerien bat bear izatea-ta, olangorena egik ik.
 GEZN.—Biotz biotzez, ene yaun. Alde dagi).
 YON B.—Ilik da nire ama!

UBERTA aurrera beste bein.

UBER.—Ene yaun, bost iretargi ikusi dabezala bart diño or; geldi lau; eta boskarrenak brinean eta arrigarriri fcira egiten izan ei dau beste lauen inguruan.

YON B.—Bost iretargi!

UBER.—Iragarpen galbidetsuak egiten daragoie agurek eta zoroak etxartebideetan; agotik agora dabil euren artean Artur gaztearen eriotzea; eta agazkorik aitatuten dabenean, euren buruai eraginda, alkarri bellarria txutxuputxuka daragoie; itz egiten daragoionak esku-muturretik deutso entzuten dagokonari; entzuleak, bitartean, mosu ta aieru bildurgarriak egiten dauz, betozkoa izurtuz, burua makurtuz, begiai bira eraginaz. Bere mallua onan dauela ikusi izan dot burdin-arotz bat, bitartean ingude-ganeko burdin gorria otzituten yakola, yostun baten barriak agoa zabalik irusten egoala; eta yostunak, artaziak eta neurria eskue-tan ebazala, eta oñetan ezpartin edo abar-ketak, baña iraduaren iraduz okerreko oñetan sarturik, ainbat milla Pantzetar gudari gudazale gerturik eta lerrokaturik egozala Kent'en esaten eutsan. Beste arotz iristu ta mosu-zikin batek eten eragiten dautsa ipuina, ta Artur'en eriotzeaz daragoio izketan.

YON B.—Zegaitik bete ta okitu gura nok bildurrokaz? Zegaitik aitatuten dauetak orren sarri Artur gaztearen eriotzea? Ire eskuak erail yok a: nik bai ba-naioan biderik eta zegaiti onik eta andirik a ilik gura izateko, baña ik ez euan ezetarikorik a erailteko.

UBER.—Zegaitirik ez, yaun! Ba! eninduzun zirikatu ta bultzau, al?

YON B.—Bakaldunen zori txar eta biraoa dok euren gogaldian norbaiteri bizia kentzeko leiea agertu izana agindutzat artzen daben otseinak eukitea; agintariaren begi-kiñuen bat legetzat artzen dabenak; nagusiagotzeak alanbearrez, gogaldiz, eta zerak ondo begiratzeka, betozkoa okertuten dauenean, aren aieru bildurgarria agindutzat artzen daben otseinak eukitea.

UBER.—Amezan zure esku ta zure ikurratza nik egin dodanaren alderako.

YON B.—Ui! esku au eta ikurratz au gure gaxespenerako autorla izango dira zeru ta luraren artean atzenengo epaia egin dai-

tenean! Bai guri sarri be sarritan egite txar-rak eragin egite txar-rak egiteko bideak aurak ikusiak! Nire aldamentean egon ez-pa'intz i, egite lotsagarri au egiteko i yaioztatikorean eskuak akatza ezarrita, izentaut-a, engoan ori nire aldamentean egon ez-pa'intz, olangorik burura etorri be elixtaki-dan egingo; baña, ire arpegi iguingarria ikusirik, zitalkeri odoltsurako i egoki intzala aurkiturik, egikizun galgordetsuetarako i itzulia ta etzana intzala ikusirik, Artur ez erailgo, bai erailgoa ibili nintzoan igaz; eta ik, bakalduneri eder egite-arren, ez euan izan ik ire yakinkidetzean ezetariko kezka-rik bakalsemea ondatuteko.

UBER.—Ene yaun,.

YON B.—Nire asmoen alde gotilun itz egiten neunskanean, ik ire buruari oragintxo bat baño egin ezpa'euntso, naiz ixildu, naiz zallantzabegirakuneren bat egin niri arpegira, nire esatekoa itz argi ta garbiz esateko niri aginduaz, lotsearen lotseak ni izkaturik, ixildurik itxiko nindukean, asmoa bertanbe-ra itxiakoko eunskidan, eta ire bildurrak nigan be bildurrak sortu eikean; baña ik, aieruz aitu nindukan, eta cueruz itundu intz-an obenagaz; eta gelditzeka, ederretsiako euntsan ire biotzari, eta gero, gure miñ bi-ak be aitatu gura ez eben egitea eragin euntsan ire esku zakarrari... Alde egik nire aurretik, eta ez al aut ikusiko bein geiago! Bertanbera izten nabe nire aitonsemeak; eta nire bakalderriari neure ateeetan berton eupada egiten dautsoe, erbestetar indarlerroz; areago, aragizko lur onetantxe, neronen buruaren bakalderri onetantxe, odola ta arna-sea ibili dabilkidazan bakalderri onetantxe be areriotasuna ta erri-barruko gudua dabil nire yakinkidetzearren eta nire illobearen eriotsearen bitartean.

UBER.—Zure beste arerioen aurka iskillok artu egizuz, bai, ta neuk egingo dodaz onez-koak zure gogoaren eta zeure bitartean. Bizirik da Artur gaztea: loitubako ta erruge da oraindik nire esku au, eztago odol gorrizko orbanez loifurik, margozi.aurik. Bictz onetan ezta sartu izan eguño erailte goga-ketearen zirkin bildurgarririk; eta nire mo-sua dala-ta. txarto esaka erabili dozu zuk yaioztatikoa, nire mosua, ba, azalez zakar be zakar izan-arren, ume errugeren araki-nik izateko baño biotz oberen estalgi da-ta.

YON B.—Bizi dok Artur, ala? Ui, oa arin "peer"akana (5). barri au emoiok euren

(5) "Afrko", "gañako", "'bardin" esan gu-

asarre goriari, ta ibitu ta otzandu egizak, men egin dagiskuen! Azketsi, parkatu egidak nire biotzaldian ire mosu zakarrak esan izan dodana; eta, izan be, itsuturik egon dok nire asarrea, eta azan baño inguingarriago aurkeztu auste irudimen zakarraren be-

gi odolduak. Ui! ez egidak erantzun; beste-
ra, alik eta arinen nire gelara ekarri egidak Lord asarreak: astiroegi egiten dauskat nire eskari au be; arinago oa i. (Alde da-
gie).

III AGERLEKU.-Lengoxea. Gazteluaren aurrea.

ARTUR aurrera, Arresien ganean.

ART.—Gorati da orma au, eta orraitño be emendik bera itxiko dautsat nire buruari: Erruki akit, eta ez egidak kalterik, lur on orrek! Edo gitxik, edo iñok be enau ezagun: ezautu izan ba'nabe be, ontzi-mutilaren antz onek guztiz marropetu nau. Bildur naz; eta orraitño be ikusi bear dot nigazkoa zelan doan. Nire azur-mamiak ausi bagarik eldu ba'nadi lurrera, amaika bide idoroko dot alde egiteko: ilik emen egotea bestean on yat, il eta yoatea (Bere buruari izten dautso lurrera). Ai ene! nire osabearen biotza dabe arriok: Yaungoikoak artuko al dau nire gogoa, eta Ingelanda'k eukiko al dauz nire azurrok! (II egiten da).

PEMBROKE, SALISBURY, ta BIGOT aurrera.

SAL.—Yaunok, Saint Edmund's-Bury'ra yoango naz aren billa: gure segurutasuna dago orretan, eta ederretsi bear dogu eskeintza txerakor au aldi larri onetan.

PEMB.—Nok ekarri dau kardinalagandiko idazki ori?

SAL.—Melun Kondeak, Pantze'ko andiki zindoak; eta ak nigaz izan dauen autuak Pantze'ko Delbinaren maitasunazko zertzelada geiago emon daust idazki onek dakarren baño.

BIG.—Olan ba, biar goxean batu gadizan beragaz.

SAL.—Oba litxakigu oraintxe bidean yarri; egun luze biko ibiltaldia egin bearko dogu. ba, yaunak, eurekana eldu-orduko.

SASIKUMEA aurrera.

SASIK.—Beste bein alkarregaz trikitx ondo eginak, Lord mukerrok! Bertatik bere aurretutea eskatuten dautsue bakaldunak nire bitartez.

SAL.—Bakaldunak berak egingo dautso uko gugazko bere yabetzeari: guk gure omen garbi-aratzagaz eztautsagu ezarriko azpikorik aren kapa orbanduari, eta eztogu itxiko

odol-lorraztik be gure oñak zapalduten daben lurrean. Atzera yoan eta: "Badakigu danik eta txarrena" esan egiozu.

SASIK.—Dozuen gogoa izan, itz onak dira zerik onena, nire ustez.

SAL.—Gure naibageak dira, ez gure era-merak, gure argibidea darabilenak.

SASIK.—Baña argibide gitxi dago zuon naibagean; orregaitik, ba, zuzen litzake zuok orain era-mera onik izatea.

PEMB.—Yaun, yaun, ba-dau bere-bere legerik eperik-ezak.

SASIK.—Egia da, bere yabeari kalte egiteko, ez beste iñori.

SAL.—Au da baitegia: Nor datza emen? (ARTUR dakus).

PEMB.—Eriotza ori! Arroturik ago i bakalsemearen edertasun aratzagaz! Eztau lurrak zulorik, egite au ostondutekorik.

SAL.—Berak eginari iguin izan-eta, agirian izten dau erailteak onako au, aspertzea zirikaturteko.

BIG.—Edo, ak edertasun oni ilobirako epaia emon eutsanean, ederregi ta bakalseme bikainegi idoro eban ilobirako.

SAL.—Ze uste dok ik, Sir Errikarta? Eguño ikusi. irakurri, naiz entzun izan ete dok onangorik? Naiz, bururatu, otu ete leiketun? Eta ikusi ba-dakusazularik? Otu, bururatu ete ledike onangorik, onako au aurrean izan ezik? Erailerin iskillorik egin leikeenaren tontorra bera da au, gallurra, gangarra, galluraren gallurra, gangarraren gangarra; au da eguño arrizko begidun asarreak, naiz sumin begi-itxiak erruki samurraren negarrai opatu izan dautsen lotsaririk odoltsuena, basatikeririk basatiena, zartadarik zitalena.

ra dau, gitxi gora-bera, "pír" irakurten dan "peer" Ingelandar itzak; baña geien baten itz au Ingelonda'ko aitsenmeren bat iragarteko erabilten da. Lorden Etxean (House of Lords) yezarteko eskubidea dabe "peer" diralakook.

PEMB.—Zuriturik izten dauz onako onek le-nagoko aldietako erailketa guztiak; eta ain bakan eta ain bardinbako da onako au-ta, onako onen aldean deun eta araztat etsiko dira gero-aldian yazoko diran obenak; eta ikuskizun nazkagarri au eredu dalarik, txan-txatzat etsiko da odol-ixurtze eraillkorra.

SASIK.—Egite gaiztetsi ta odoltsu da onako au; esku astunen baten egite itsusia. eskuk eгина ba'da beintzat.

SAL.—Eskuk eгина ba'da!... aurrez dik erdi-ikusten geban guk onako au, ba-geban guk susmorik zer yazoko zan: Uberta'ren eskua-ren egite lotsagarria da au, bakaldunaren marro ta asmoak beteaz; eta ari ukatu egiten dausat nire biotzetiko bendekotasuna, bizitza ezti onen onáakinen aurrean belau-nbikaturik, eta arnasabako bikaintasunik bi-kainen oneri nire arnaseagaz usain gozo-dun zina opaturik, zin deuna, esku onegaz zer goragarrien bat, azaskatze-gurtzea opa-turik, esku onegaz zer goragarrien bat egin arte eztodala gaurtik ara munduko atsegi-netatik zelanço danik be artuko, atseginek enauela kutsatuko, naiereagaz eta alper-keriagaz eztodala zer-ikusirik izango.

PEM., BIGOT.—Yauresteki ro sendesten dabez gure biotzak be zure itzak.

UBERTA aurrera.

UBER.—Yaunak, iraduaren iraduz beroturik nator zuon billa: bizirik dago Artur; deiez dagotsue bakalduna.

SAL.—Ui! lotsabako da-fa, eztautso orrek lotsarik eriotzeari: Ken! zital gorrotagarri ori, alde egik emendik!

UBER.—Enaz ni zitalik.

SAL.—(Ezpotea atera-ala) Legea ausi bearko ete yoat, ala?

SASIK.—Dizid egiten dau zure ezpateak; lekaratu egizu barrero.

SAL.—Ez erailearen narruan lekaratu arte.

UBER.—Atzeratu zadiz, Salisbur yau... atze-rafu zadiz, gero! Yaungoikoa-arren, zurea bestean zorrotzat dot nik nire ezpatea: ez al zara aztuko zeure buruaz, yau, eta ez al dou zirikatuko nire benetako neure burua yagoteko galgordea be; zure asarrea begiraturik, zure aintzokotasunaz, zure anditasunaz, eta zure zindotasvmaz aztu ena-din.

BIG.—Ken akit, sastegi ori! Aitonsemeri eupa-da egiteko arpegirik be ba-dok, ala?

UBER.—Ez nire bizia-arren; baña orraitño be, nire bizi erreea yagote-arren izanazkero, inberadoren aurka be egingo neunke.

Sal.—Eraila az i.

UBER.—Ez egidazu olangorik izanazo; olangorik oraindik enaz-eta: guzurra diñon min-ek eztiño egirik, danarena dala; eta guzurra diño egia eztiñonak.

PEMB.—Zeatu egik ori.

SASIK.—Geldi, gero!

SAL.—Bazartu adi, Falconbridge, ostantxean narrua eratsiko dauskat-eta.

SASIK.—Txerrenari narrua erastea oba litxakik. Salisfury: betozkoa niri okertu, naiz ire oñari zirkinik eragin, naiz ire gogaldi txar zurtasunik bagakoari niri irainik egiten irakatsi ba'dagiok, ilik geldituko az. Bertatik zorroratu egik ire ezpatea; ostantxean, i eu eta ire ezpata eupadagina ain mallaturik itxiko zaudaz-eta, txerrena etorri dala sulezatik uste izango dok.

BIG.—Zer egiteko az, Falconbridge ospatsu ori? Zital eta eraileren alde urteteko ala?

UBER.—Bigot yau, enaz ni ez bata, ez besterik.

BIG.—Nok erail yok bakalseme au?

UBER.—Ordu bete be ezta nik ori onet itxi izan dodala; dedu neuntsan nik, maite be baneban; eta bizi nazan arte guztian negar egingo dausat bizitza maitagarri orren gal-tzeari.

SAL.—Ez sinistu orren begietatiko negar maltzurrai, zitalkeriak beti be izaten dau olango eriorik-eta; eta ori orretara oitu ta eginik dag[^]-ta, damu ta errugetasunaren antza emoten dautse. Erdu, etorri nigaz arategiko andur zakarrai iguin dautsazuen guztiok; erailte onen kirats zakarrez ito-bearrean nago-ta.

BIG.—Bury aldera goazen, an dagon Pan-tze'ko Delbinagana!

PEMB.—Ara datorrela gure billa esaiok bakaldunari. (Alde Lordak).

SASIK.—Mundu onen eder! Ezagun ete dok lan bikain au? Ik egin ba'dok egite au, Uberta, ezetsita ago i; neurribako ta baztarririk bagako izan-arren Yaungoikoaren erukia, itzako etxagok eruririk.

UBER.—Entzun nagizu, arren, yau.

SASIK.—Ba! Zertxo bat esango dauskat; gaiztetsi ain baltz az i-ta, etxagok ezer i bestean baltzik; Luziper bera baño be gaiztetsi-ago ta ezeskari-ago az i: sulezako txerren artean be etxagok i baño itsusi-ago dan txerrenik, ik erail ba'dok ume au.

UBER.—Neure gogo-a-arren...

SASIK.—Etsita gelditu adi, biozbakorik biozbakoen egite onetarako ire ederreteririk emon izan ba'dok be; eta eure burua eskegitoko lokarri-rik bear ba'dok, eguño armiarmak

bere sabeleik irun izan dauen amaraunik meen eta txikiena izango dok asko zeregin orretarako; ítzek egingo yok abearena i andik eskegiteko; naiz, ik ire burua irato gura izatekotan, txali batek artu-ala urek itsaso bete urena egingo yok i lango zitala itoazoteko. Susmo qogorra yoat i izan azala onako onen egila,

UBER.—Egitez, ederretsiz, naiz oben-gogaketaz, buziin eder orretan esiturik egon izan dan arnasa gozoa ostuteaz errudun aurkitu ba'nadi, su'ezeak ez al dau izango elorriorik asko ni minduteko! Onik itxi dot nik a.

SASIK.—Tiruk, ire besartean eroan egik emendik. Zorabiauta naiagok ni, nire ustez, eta galdu egiten yoat bidea mundu onetako arantza ta galgordeen artean. Erraz be erraz eragiten dok ik Ingelanda osoa! Erregetza il orren zatitik, aurreak arturik zerura egaz

egin yoek bakalderri guzti onen biziak, eskubideak eta egiak; eta or geldituten dok orain Ingelanda, tatarrez ten egiteko berari, batek eta bestek beretzakotuteko, eta aginka zatituteko, bakaldun arroak eskubiderik baga euki ta bertanbera itxita. Orain gudu-txakurrak, bere uleak latzituri, ausika daragoio bake maitagarriaren begien aurrean, nagusiagotzearen azur utsen billa: lerro bat egiten dabe orain erbestetar indarrak eta aberriko mukerrak; eta abere ilaginaren ganean egazka dabilen belea legetxe, anditasuna noz yausiko begira dago ondamendia. Zori ontsu orain ekaitz oneri erantzuteko añoak txartesik eta garrikorik dauena. Eroan egik ume ori, eta ator arin nire yarrai: bakaldunagana naioak ni: amaikatxo arazo ba-yoagu ebazteko, eta ortzeak betozkoa erakusten yausak gure aberriari. (Alde dagie).

V E KITALDI

I AGERLEKU.-NORTHAMPTON. Yauregiko leku.

YON BAKALDUNA aurrera; PANDULBA bures-tunagaz, eta Laguntzakoak.

YON B.—Au dala-ta, zure eskuetan itxi dot nire aintzaren uztaia,,

PAND.—(Burestuna Yon Bakaldunari emon-ala) Barriro artu egizu nire eskutik, zure goren go-rengo anditasuna ta agintzapidea Aita Gurenagandiko dirala erakusteko.

YON B.—Bete orain zure itz deunak; zoaz Pantzetarrakana; eta Aita Gurenagandiko zure al guztia erabili egizu gu suak artu baño len arein aurreratzea geldituazoteko; nasturik eta asaldaturik dagoz gure konde-erriak; muker eta asarre da gure erria bendekotasunagaz, bere zintzotasuna ta biotza arbestetar odol eta erbestetar bakaldun-tzeari opatuaz. Zuk bakarrik ibitu zeinke gogaldi txarrezko uriol au. Au dala-ta, ez galdu astirik, aldi au, ba, ain gexorik dago-ta, bertañik ezarri bear yako osakaia, ostantxean ondamendi osa-ezina etorriko dala.

PAND.—Nire itzak ekarri izan dabe ekaitz au, zuk Aita Gurena zakarkiro erabili izan dozulako; baño onera biurturik eta benderaturik zagozanazkero, nire itzak ixildu be egingo dabe ekaitz au, eta eguraldi ona ekarriko dautsoe zure bakalderri asaldaturri. Igokunde egun onetan, gogoan euki, ge-

ro! Aita Gurenaren otsein izango zareala egin dozun zina dala-ta, egun onetantz noa ni Pantzetarrai euren iskillook lurrera-tuazoten. (Alde dagi).

YON B.—Igokunde eguna da au, ala? Arako igarleak ez eban igarri ta iragarri Igokunde egunaren aurretik nik nire bures-tunari agur egingo neuntsala, ala? Eta orie egin be egin dot: iñok eraginda izango zala uste neban nik; baño, Yaungoikoari eskerrak, neure kitetik baño ezta izan.

SASIKUMEA aurrera.

SASIK.—Men egin dau Kent osoak; Dover'ko Gazteluaz besterik ezta gelditu gogor dagianik; arrotz adiskidetzat artu dauz London'ek Pantze'ko Delbina ta aren indarrak; eztabe entzun gura zure Lordak zure itzik, eta euren otseintzea zure arerioari opatuten yoanik dira; zorabiorik andiena eldu ya-ke zure adiskide ete diran apurrai.

YON B.—Artur gaztea bizirik dala yakindakoan be ez eben nigana atzera etorri gura nire Lordak, ala?

SASIK.—Ilik idoro izan dabe a, ilik eta etxar-tebideetara egotzirik; upel utsa, andik esku gaitzetsien batek bizi-aitxorra ostu ta kendirik.

YON B.—A bizirik zala esan yeustan Uberta zitalak.

SASIK.—Nire gogoarren, berak uste ebana baño ez eutsun esan. Baña zegaitik kikilduten zara? Zegaitik zagoz gotilun? Egitez be andi izan zadiz, gogaketaz andi izan zareañez; munduak ez al dau ikusiko bakaldun-begiaren zirkinik bildurrak eta uste onik ezak eragindakorik; eretiari dagokonez eragiozu zure buruari; zirti-zarta yo egizu; suz erantzun egiozu suari; zemaitu egizu zeu zemaituten zauzana, eta itzalik itzale-na gangarkeriz ba'datortsu, arpegi zorrotzagoz erantzun egiozu: olan, bekoen begiak, goikoenak eredutatz arturik, andi ta arro egingo dira, ta edozetarako adoretuko dira. Alde emendik, ela gudalegiaren yabe bere burua egin gura dauen gudu-yainkoak legetxe argi egizu; azartasuna ta usterik onena erakutsi egizuz. Onan-gorik! Leoia bere zuloan billatu ta andik bildurrez uxatu bear ete dabe, ba? Eta a, an bildurrez ikaratu? Ui! ez al dabe esan al izango olangorik! Zoaz zureak eta erdi egiten, zoaz asaldatuen billa zure ateetatik urrin, eta lar urreratu bagarik eldu ta ekiezu.

II AGERLEKU.—St. EDMUND'S BURY'tik ur. Pantzetarren gudaltea.

Iskilloakaz. aurrera, KOLDdBIKA, SALISBUR7 MELUN, PEMBROKE, BIGOT, eta Gudariak.

KOLD.—Ene yaun Melun, birridatzi onako au, itunben au, eta seguru gorde, guk noz-guro irakurri al izateko; yaunoi emon atzera lenengo; olan, gure artsko itunbena idatzirfik eukiaz, guk eta eurok, bakotxak berea irakurriaz, zetarako zin egin dogun yakin dagigun. zetara beartu garean, eta alkarri agindua bitsuok sendo ta ausi bagarik yagon dadigun.

SAL.—Bein be eztoгу ausiko guk gure alde-tik. Orraitiño be, Delbin zindo, zure asmoen alde gure kitetiko aperturi ta iñok orretara beartu bagako zintzotasunaz zin egin-arren. sinis egidazu, bakalseme orrek, enau bape ejoztuten onango aldi iarnan osapidea asai-datze zirtzilean billatuteak, eta zauri bateko bizien zarra zauri barriak eginaz osatuteak. Ui! naibagetu be naibagetu egiten nau nire aldameneko ezpata au emakumek alargunduteko atera-bearrak! Ui! eta lur onetantxe izan bp, laguntza-eske ta yagote-eske Salisbury'n izena gedarrez aitatuten daben lur onetantxe; baña ain izurritsu da

YON B.—Aita Gurenaren bidalia izan da nigaz, eta onezkoak egin dodaz beragaz; eta Pantze'ko Delbina burutzat daben indarrak atzera bidaliko dauzala agindu daust.

SASIK.—Ilunben orren lotsagarri! Erbesteko iskillodunak gure lurrera sarturik dagozala, bake-eske yoango ete gara, arerioagazko beartu, alkarregaz itz egiterik aiatu, ta meni lotsagarriak egingo ete dogu? Bizarbako mutikok, sedaz yantzitako gangarrek etorri bear ete dau gure lurrari eupada egiten, eta lurralde guduzalean gudua zelan egin ikasten, bere ikurrinak nasai zabalduz emengo eguratsari irri eginik. eta berari nok gogor eginik idoroten eztauela, ala? Iskilloetara yo dagigun, ene yaun: ba-ledike kardinalak ezin egin al izatea zure bakerik; eta egitekotan be burrukarako asmorik eta gogorik izan dogula esan dagiela.

YON B.—Euk artu egik oraingo arazook arteztuteko ardurea.

SASIK.—Goazen, ba, gogo ta adorerik onenagaz! Orraitiño be ba-dakit nik asko dalct gure alderdia arerio arroagori erantzuteko be. (Alde dagie).

aldi auta, zuzenik-ez gordinera ta zori txa—oko nastera yo-bear gorrian aurkituten gara, eskubideari osasuna ta indarra ekarteko. Ez ete da tamalgarri, ene adiskide naibagetuok, izaro onetako seme ta ume gareanok, onango ald' motel-ilunik ikusteko gu yaio izana; erbestetarren yarrai geure aberriko lurra bera zapaldu-bearrean, eta *nx* bestetarren gudaleroak bete-bearrean aurkitutea? Ui! Baztarreratu ta emen bertoneqar egiteko nago, onetara beartu gauzan zeragaitik, urrineko erriren ederra egin, eta emen gure ezagun ezfran ikurrinen yarrai yoan-bearra! Onangorik! Non, eta emen? Ene Aberri ori, beste nonbaitera alde egingo al zeu! Garritik deusun Netun'ek. zuk igarteka, bere besoetan artuta, kistarrenik eztan itsas-baztarren batera eroango al zindukez, kistar-gudaroste biok an euren odol asarreagaz adiskidetasun-iturri egiteko, eta ez onan, auzo txarrai dagokienez, alpe-rrik ixuri ta galtzeko!

KOLD.—Gogaldi zindoa erakusten dozu zuk orreka orretan; eta lurr-ikara antza dabe zure biotzean alkarregaz burruka daragoien

zure biotzaldi zindoak. Ui! bearraren eta abertzaletasun zintzoaren bitartean zuk izan dozun burrukearen zindo: Itxi egidazu zure mosuak bera darion urrezurizko infontza legoriuen; egun oroko ta berezko uriola izan arren, anderaren negarrak be urtu egin izan dauste biotza; eta crraiñño be, olango gizon-negar fantanak ikusirik, zure biotzeko elcatxeiiko euri-zaparrada au ikusirik, arriurrik geaiiuten tñira nire begiak, ineteoren baten argiasunagaz orizeko sapaia ikusi izan ba'neu baño be arrituagorik. Argitu egizu betozko ori, Saiisbury entzutetsu, eta biotz anaiz uxaiu egizu ekaitz ori; munaufzarra eguño asarraturik ikusi izan eztaben ume-begietara cidaii egizuz zure begieñako urok, ume-begietara ta yai, poz, eta alkarregazko elektetz bestetariko zoririk izan eztabenakana. Tira, fira; eta, izan be, Koldobika'k herak bestean barrura sartuko dozu zuk zure eskua zori onaren sakeiean: oiantxe egin dozu zeuk be, Lord guziok, nire indarragaz zuon zamiiak iruten dozuezanok. Eta onetan angeruen batek iiz egin dauela uste dot: ara, aor non datorren Aita Gurenaren bidalia zeruaren eskutik guri baia emoteko ta bere itzez gure egikizunai eskubide-izena emoteko.

PANDULBA aurrera, lagundurik.

PAND.—Gora, Pantze'ko bakalseme zindo ori! Onako au dozu urren: onezkoak egin dauz Yon bakaldunak Erroma'gaz; etorri da atzera Elexa Gureñik, Erroma'ko uri-ama andi ta yarlekutik urrundurik eta arerioturik egoan aren gogo: au dala-ta, batu egizuz zure ikurri zemaikorrak, eta baretu, ibitu egizu gudu gordinaren gogo basatia, yaten eskutik emoten yakon ideoia legetxe bakearen cñetan bare ta nasai etzan dadin, eta erakusketan baño kaitegarriago izan eztaiten.

KOLD.—Azketsiko, parkatuko al nau zure eskerrak, atzerarik eztoz egingo nik-eta; goregi nago ni yaiotzaz, besteren urrengo ta esdneko izateko, naiz munduko edozein legerriren otsein eta lankirik izateko. Zuk zure itzez ixiotu ta sutu zebazan bekalderri zigortu onen eta nire arteko guduaren ikatz itzaliak, eta zuk ekarri zeban errekinna su oneiara; eta indar geiegi artu dau orain suak, berau ixiotu ebanarena lango putz erkinez atzera itzali al izateko; zeuk irakatsi zeunstan eskubidea noren alde dagon igarten, zeuk iragarri zeunstan lurralde onetarako nire eskubidea; areago, egikizun au zeuk

bururatu zeunstan; eta Yon'ek Erroma'gaz onezkoak egin dauzala esaten zatorkidaz orain? Ze zerikusirik dabe nigaz orre in arteko onezkoak eia bakeak? Artur gaztea il daitenean, nire ezkontzatiko eskubidez, neurretaz dot eta eskatuten dot lurralde ou; eta orain, berau erdi-benderaturik dodala, atzera egin bear ete dot, Yon'ek Erroma'gaz onezkoak egin izan dauzalako? Erroma'ren yopu ncz ni, aia? Ze diru emon dau Erroma'k, ze gizon emon dau, ze iskillo bidali dau egiteko oni eustek? Ez ete naz neu egiteko au, zama au yasan bear dauena? Neu ta rire benderafu diranez nor bestek bota dau izerdirik arazo onetan eta gudu oni eusteko? Eztozaz entzun izarotarrok, euron urrietara uireratuten izan nazanean, "Vive le roi:" oioka, ala? Burestuna irabazteko egiten dan yokaldi errez onetan eztozaz nik kartarik or.enak, ala? Eta bertanbera itxi bear ete dot orain yokoa? Ez, ez, ez nire gogoarren, oiangorik egin izan dodanik inoz ezta esango.

PÁND.—Azala baño eztozu ikusten zuk onako zer onetan.

KOLD.—Azal, naiz mami, eztoz egingo atzerarik nire aleginak nire itxaroari aginduriko ainta ta ospea lortu ta yaditxi arte, ezta gudaroste adoretzu-bikain au, ta biotz-arrook, benderatzerako mundu zabaletik batuok, gudara eroan arte ta entzute ona lortu arte, galgordearen eta eriotzearen agin-artera yoan bear ba'dabe be. (Tutu-ots). Ze tutu mardul da gudura dei dagikun ori?

SASIKUMEA aurrera, lagundurik.

SASIK.—Ludi onetako ekandu zindoa-arren, entzun nagizuela eske nagotsue; itz egiteko bidali nabe ni; Milano'ko yaun guren ori, bakaldunagandik nator ni, bere alde zuk zer egin dozun yakiteko; eta zure erantzuna zeingo dan, andik yakingo dot luzeago, ala laburrago itz egin.

PAND.—Ezetzera itzuliegi dago Delbina, ta eztautse menik egin gura nire eskariai; argi ta garbi diño orrek eztauzala lurrera eratsiko bere iskilloak.

SASIK.—Eguño asarre gorriak ixuri izan idauen odol guztia-arren, ondo esan dau gazte orrek. Entzun orain Ingelanda'ko gure bakaldunak diñona; aren bakalduntzea da, ba, nire agoz itz egiten daragoioa. Gerturik dago a, eta zuzen be ba-da a gerturik egotea: irri egiten dautso bakaldunak zuon etorrera matxango-antzeko ta traketsari, irri iskillodun kokomarrooi ta sentzunbako yai oni;

irri bizarbakoen lotsabakokeri oni ta muti-kozko gudaroste oni; eta gerturik dago, ondo gerturik, txabita-otsean bere lurretatik epo-gudaroste au. pimi-gudarialdeok (6) uxatu ta aterateko. Zeuonean be ak bere esku indartsuz narrua ondo berotu dautsue zuoi, z'gorka zuon etxeetako atea idigiteko astirik baga ate-ganetik barrua yauzi eragin dautsue, osin ostonduetan kantinak legetxe murgilduazo; zuon korta ta itoietakoz azpigarri ta olen artean eratzan eta ostonduazo; sapai ta baitegiatan billatuazo segurutasun gozoo; txarri-txokietan ostonduazo; eta zuon erriko ollarraren (7) kukurrukua gaz beragaz be, aren kukurrukua Ingelanderren baten otsa zalakotan bildurta ta ikarratu egiten zintzazenok; emen izango ete da, ba, makal, mengel eta erkin zeuon loçjeletan be zigor lanço zigorra emon eutsuen aren esku garaillea? Bai, zera! Yakin egizue iskilliak aldean dauzala dagola bakaudun adoretu a. eta bere bizilekuan goian egazka dabilen arranoaren antzera, a bera be zuon ganean egazka dabil, bere abira urreratu dakionarena egiteko. Eta zuok, endekatuok, esker txarreko asaldatuok, Neron odoltzaleok, zuon ama maite Ingelanda'ren sabela urratuten dozuonok, lotsaz gorritu zaitez; eta, izan be, zeuon anderak eta zeuon alaba mosu-zurbilak eurak be, Amatzonen antzera, ariñeketan datoz danborraren yarrai, euren atzontziak metalezko eskuzorroturik, euren yostarratzak astamakilatuturik, eta euren biotz samurrak lera ikaragarri-odoltsuetara biurturik.

III AGERLEKU.-Lengoxea. Gudategia.

Gudarako otsak. YON BAKALDUNA ta UBERTA aurrerx

YON B.—Zelan yoak eguna gutzako? Uii! esaidak, Uberta.

UEER.—Bildur naz txarto doala. Zelan dago zure nagusiagotzea?

YON B.—Gogor dirau nigan ain luzaro kezkatu nauen sukar onek; -Uii! gexorik dot biotza.

Geznari bat aurrera.

GEZN.—Zuk, ene yaun, zuk gudategitik alde egitea ta norako bidea artuko dozun nire bitartez berari esatea gura dau zure senide adoretu Falconbridge'k.

YON B.—Swinstead aldera noala esaiok, ango abategira.

KOLD.—Amaitu egik ire arropuzkeri ori, eta oa beakan guri atzea emonik; autortuten yoagu gu baño geiago azala i aurrekoari asarre egiteko; onik eta ondo ibili; i lango barritsugaz alperrik galtzeko baño obatzat yoagu guk astia.

PAND.—Itxi egidazu itz egiten.

SASIK.—Ez, neuk egingo dot itz.

KOLD.—Ez batari, ez besteari eztautsagu egingo yaramonik. Yo danborrak; eta guduaren miñak itz egin dagiala gure eskubideen alde ta gu emen aurkitutearen alde.

SASIK.—Bai, bai, orixe! yo ba'dagizue, ots egingo dabe zuon danborrak, negar egingo dabe; eta orixe egingo dozue zeuok be, yo ta eio zagieguzanean; oiartzuna atera egizue zuon danborren otsez, bai, eta or ur dago zuonak bestean zoli erantzungo dauen danborra; yo, ta beste oiartzunen bat aterazo egiozue zuonari, bai, eta zuonak bestean zoli erantzun eta ots egingo dau gureak ortzearen belarrietara, ta irri egingo dautso ostots orroatiari; eta izan be, bere bearrik izan dauelako baño geiago olgetarako erabili izan dauen bidali menkor onegan uste onik izan ez-eta, ezta urrin Yon bakaldun guduzalea, eta egun onetan millaka Pantzetarregaz sekulako oturuntzea egiteko dan eriotza saiets-agiria dago aren mosuan yezarrita.

KOLD.—Yo gure danborrak, galgordearen billa yoateko.

SASIK.—Eta idoro be idoroko dozu, Delbin, bai orixe! (Alde dergie).

GEZN.—Nasai ta ustetsu egon; izan be, ba, emen dagon Delbinak itxaro ebazan indar barriak, orain iru gau dirala, Goodwin Ondartzan urperaturik dira; oraintxe eldu ya-

(6) "Pimi" edo "pigmi" izena eguño lenengoz Apirka'ko Ludi-garriko-arloan bizi ziran gizakume txikiak emon izan yaken, baña georoago, izatetik bere antzekora yota, edozein gizctkume epo edo merro-txikiri be ezarten yako orain.

(7) "Zuon erriko ollarraren kukurrukua". Ollar deituten dabez Pantzetarrak orain be edoncn, ez beste errietakoak baño ollarrago edo arrcago diralako, Lateraz "gallus" itzak Ollar eta Pantzetar, zer biak esan gura dauzalako boño.

ko Errikarta'ri barri au; geldo daragoioe burrunkan Pantzetarrak, eta atzeraka doaz. YON B.—Nirearena! erre bear nau sukar gordin onek, eta eztau gura barri on oni ondo-

etorririk emon dagiodanik. Goazen Swins-tead aldera; nire bizkarr-oera bertatik; malkaleria yabetu da nigaz, eta larriturik nago. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.-Lengoxea. Gudategiko beste leku bat.

SALISBURY, PEMBROKE, ta beste batzuk aurrera.

SAL.—Eneban uste Bakaldunak orrenbeste adiskide ebazanik.

PEMB.—Aurrera beste bein; adoretu Pantzetarrak: aik benderaturik gelditu ba'daitez, geu be benderaturik geldituko gara.

SAL.—Bide txarrez yaioriko txerren ak, Falconbridge'k, berak bakarrik egiten dau gogor egun onetan eta bere da gaurko eguna, gure aleginak alegin.

PEMB.—Or diñoenez, Yon bakaldunak, gexorik be gexorik, alde egin dau gudategitik.

MELUN aurrera, zauriturik, eta Gudariak darrera.

MEL.—Lhgelanda'ko asaldatueisana eroan nagizue.

SAL.—Beste izenik ba-geban guk gure zori onaldian.

PEMB.—Melun kondea dok ori.

SAL.—Zauri larriagaz.

MEL.—Igesi egizue, Ingelandar andikiok, erosi ta salduak zarie; atera egizue aria asaldatze-yostorrazaren begi zakarretik, eta atzera ondo-etorria emon egiozue ortik zear bidaliriko zuon zintzotasunari. Yon bakaldunaren billa zoaze, ta bere oñetan belaunbikatu zadize; Pantzetarrak irabazi ba'dagie egun au, zuon nekeen saritzat buruak moztuko dautsuez-eta; orretarako zin egin dago, ba, a, bai ni be agaz, eta nigaz batera beste asko be Saint Edmund's Bury'ko opa-maiaren aurrean; egin eginean be zui zin-bidez benetako adiskidetasuna ta betiko maitasuna agindu geuntsuen opamai berberaren aurrean.

SAL.—Izan ete ledike olangorik? Egi izan ete ledike orrako ori?

MEL.—Eriotzea eztot nik nire begien aurrean, ala? Eta geldituten yatan bizitza-apurra odolustu-ala eztago urtu ta manatuten, suaren aurrean iminten dan argizagizko irudia-

ren antzera, ala? Ludian danik zer dala-ta iruzur egin bear dautsuet nik, nire iruzurretik ezer onik etorriko etxatanazkero? Zegaitik izan bear dot, ba, guzurti, emen il bear dodala egia danazkero, eta beste munduan egiagaz bizi bear dodanazkero? Barri dirautsuet, Koldobika'k irabazi ba'dagi egun au, zin-ausle izango da a zuon begiai eguzki-aldetik eguzki-urteerarik ikusten itxi ba'dagie; gau onetantxe, eguzki zar, makal eta egunez ibiliaren ibiliz unaturik dagonaren buru-ganean bere arnasa baltz intsikorra zabalduen dcuen gau onetantxe; gau askarri onexek ikusiko dau zelan doazan zuon atzenengo arnasak, eta olan ordainduen dozuela zuon azpikeriaren apena zuon guztion bizien saneuriz, Koldobika'k zuon laguntza-bidez gaurko eguna irabazi ba'dagi. Gorantziak Uberta dalakoari, zuon bakaldunagaz dagonari; aganako nire maitasunak, eta beste zer onek, nire aitaita be Ingelandar zalakoak, iratzarri dau nire yakinkidetzea nire autorpen au zui egiteko. Onako onen ordaintzat, atera nagizue emendik, arren, gudategiko ots eta zurrumurruen artetik, eta an nire gogaketak bakez batu ta nire gogoa soñetik berezi al dagidan beste nonbaitera eroan nagizue, an Yaungoikozeretan eta gurari yaungoikozaleetan euki dagidan.

SAL.—Sinisten dautsugu; birotua ta ezetsia izango al da nire gogoa, azpikeri-bideak izteko abagunetzat artu ezpa'dagigu! Azi ta gero ibituten dan urutuaren antzeko izango al gara; or itxi dagigun gure uriola ta neurritz gorako aztea; goazen atzera an atzean itxi dogun itsas-baztarrera, goazen nasai ta bendekotasunez gure itsasora, Yon gure bakaldunagana. Lagun izango yatsu nire besoa zu emendik urrin eroateko, badakust, ba, zure begietan, ur dirala eriotzearen elorrio gorriak. Aurrera, adiskideok! Barritasun zori ontsu izango da igeste barria, eskubide zarraren aldera garoazana. (Alde dagie, MELUN'eri eutsin eta lagunduaz).

V AGERLEKU.-Lengoxea. Pantzetarren Gudalgegia.

KOLDOBIKA ta bere Yarraigokoak aurrera.
KOLD.—Lotsa izan dala eguzkia ortzean etxuteko iruditu yat, gelditu egiten izan dala, eta etzan-aldeko ortzea gorritu egiten izan dauela, Ingelandarrak, uko eginik, euren aberriko lurra euren atzean itxirik, atzeraka astiro yoiazanean. Ui! bikainkiro amaitu dogu eguna, eguneko ekite odoltsuen ostean gure su-iskilloen zaparrada bategaz gauonak emon dautseguzanean; eta, gudategian atzenen gelditurik, ia gudategiaren yabe garea, gure ikurrin urratuak atzera gure gudategira ekarri doguzanean!

Geznari bat aurrera.

GEZN.—Nondik da ene bakalsemea, Delbina?

KOLD.—Emen; ze barri dakak?

VI AGERLEKU.-Swinstead'ko Abategitik urreko Zabalunea.

SASIKUMEA ta UBERTA aurrera, alkarregaz trikitx egiten dabela.

UBER.—Nor dago or? Itz egin, eee! Arin itz egin, ostantxean daunbada bat emongo dauskat-eta.

SASIK.—Adiskideatariko bat. Nor augu eu?

UBER.—Ingelanda'ren aldeko bat.

SASIK.—Nora oa?

UBER.—Zer áausk ardura iri? Neuk zegaitik ez itandu ire arazoetzaz, ik nireetzaz egiten dokanez?

SASIK.—Uberta augu i, urrean.

UBER.—Zuzen be zuzen ago orretan: nire miña orren ondo ezagun dokanazkero, yazotekoa yazo, nire adiskidetzat etsiko aut. Nor augu eu?

SASIK.—Euk nor gura: eta eder ba'dakik, nire ederra egingo dok alde batetik Plantagenetar nazala uste izan ba'dagik.

UBER.—Zori txarreko gomutea orixe! Lotsaturik itxi nozue ik eta gau itsuak: parkatu egidak, gudari adoretu orreek, ire lenengo itz-otsetik i ezagutu eza.

SASIK.—Tiruk, tiruk; koipekieriak baztarrera-turik, ze barri dok ortik?

UBER.—Ba! emen nabil ni ire billa gabaren betozko ilunetan.

SASIK.—Labur esaik, ba, esatekoa; ze barri dok?

UBER.—Ui! ene yaun maite, gabari dagoko-

GEZN.—Eraulik da Melun Kondea; bere onuz alde egin dabe gugandik Ingelandar Lordak; eta euren begira ain luzaro ta itxarotsu egon zarien indar barriak itsasperaturik eta ondaturik dira Goodwin'go itsas-ertzean,

KOLD.—Ui! Ui! barrior askarri! Biraotua izan. go al az! Enaioan usfe gau onetan, barriok dirala-ta, onen gotilun eta biotz-yausirik egongo nintzanik. Nok esan dau gure gudaroste nekatu biak alkarregandik banandu baño ordubete. edo ordu bi lenago Yon bakaldun gexoak gudategitik alde egin dauela?

GEZN.—Esan dauenak esan dauela, egia da, ene yaun..

KOLD.—Tira, ba; yoan zuon txoznetara ta zui egon arratseon; ni baño lenago ezta yagiko egun barria, biariko zori ona zelango dan ikusteko. (Alde dagie).

zan barriak, baltz, bildurgarri, artegarri ta ikaragarriak.

SASIK.—Barri txarroz zauria bera erakutsi egidak; enok ni emakumerik, konorterik etxaustek galduazoko barriok.

UBER.—Bildur nok lekaideen batek edendu egin dauela bakalduna; ia itzik baga itxi yoat nik, eta alde egin yoat, igana etorri ta oker onen barri iri emoteko, astiz eta aurreztik esanda gertuago egon adin bat-bateko yazokune txar onetarako.

SASIK.—Zelan edan yok? Nok edan yok aren aurretik, zelango dan ikusteko?

UBER.—Lekaide batek artu dauela dirauskat, berak edan-ala aren sabelak iztenak egin eta edozetarako gerturik egon dan zital batek: bakaldunak berak oraindik itzik egien yok, eta ba-ledike osatu al izatea.

SASIK.—Nor itxi dok aren nagusiagotzeari yaramoteko?

UBER.—Ba! eztakik, ala? Atzera etorri dozak Lord guztiak, eta eurekaz batera ekarri yoek Endika Bakalsemea; onako onen eskariz azketsi yozak bakaldunak, eta guztiak yagozak aren nagusiagotzearen inguruan.

SASIK.—Eutsin egiozu zure asarreari, Yaungoiko altsu orrek, eta ezkagizuz zirikatu al doguna baño geiago yasatera! Iri esan-bearrean naiagok, Uberta, gau onetanxe Lincoln ibaiko urak iruntsi dabela nire indarretatik erdia, zelaioek zear igaroten eiagoie-

la; nik neuk be, zaldi onik euki-arren. nekez alde egin yoat bizirik. Goazen, aurrera! ba-

kaldunagana eroan nagik; bildur nok gu eldu baño len ilgo ete dan. (Alde dctgie).

VII AGERLEKU.-Swinstead Abategiko Igali-baratza.

ENDIKA BAKALSEMEA, SALISBURY, ta BIGOT aurrera.

END. B.—Beluegi da; usteldurik dagoz bere odol guztiak; eta batzuen ustez gogoaren bizileku mengel diran bere garaun garbiak, ilkortasunaren atzena diragarre, diñozen ganorabakokerietatik agiri danez.

PEMBROKE aurrera.

PEMB.—Oraindik ba-dagi itzik aren goikotasunak; eta sinisturik dago egurats zabaletara aterazkero, beragandik alde egingo lekuela erasoten dautsan eden zakarraren sukarrak.

END. B.—Igali-baratz onetara ekarri dagiela. Oraindik be asarre gorrian ete dago? (Alde BIGOTek).

PEMB.—Zuk itxi dozunean baño epetsuago dago; abestuten erago dautso oraintsu be oraintsu.

END. B.—Gatxaren zoro! Eztabe alkarren barririk, tartekorik barik alkarregandik urrin dagozan geiegikeri ítzalak. Ikus-egin geldituten *iii*a azaleko zerak, eriotzeak iruntsi dauzanean; eta eriotzeak orain adimena esi-baruraturaten daragoio-ta, kizki-kazka zauritu egiten dau ifñondiko irudipenezko gudari-taldez, eta oneik azkenengo eraso onetan moltsoka ta itsumustuan alkarregaz naste lango nastea egiten dabe. Ifñondiko be ifñondiko ta andi be andi da eriotzeak abestutea. Zisne orren ume naz ni, bere eriotzeari abesti alakari ori abestuten dautsan zisne orren ume; eta bere indar mengelez betiko atse-denerako abestuten dautse bere soin eta gogoari.

SAL.—Nasaitu zadiz, bakalseme; zu zara, ba, irudi zakar antz-galdu orri bere irudia emoteko yaioa.

BIGOT eta Lagunak aurrera barriro, YON BAKALDUNA yezarlekuan dakarrela.

YON B.—Bai, arrano, nasai dago orain nire gogo; len etxakon izan begiko ez aterik, ez leiorik idigita. Udaroin aino berao da nire erraietan-eta, auts eginik geldituten dira nire errai guztiak; suaren aurrean tximurtuten dan idaznarruan idaztorrez egindako irudia langoxe naz ni orain.

END. B.—Zelan dago zure nagusiagotzea?

YON B.—Edendurik... txarto; ilik, bertanbera itxirik, ortik zear egotzirik: eta zuotatik baktek be eztautso dei egin gura neguari, bere atz leituak nire eztarrira sartu dagistazan; eztago nire bakalderriko ibaiari nire bular gorria zear euren bidea artzen itxi gura datsenik be; ezta iparr-axe otzai nire epanetarako bidea artzen itxi gura dautsenik be, euren otzagdz ni nasaitu nagien... eztautsuet eskatuten askotzarik; otza eskatuten dautsuet nasaigarritzat; eta zuok ain zorrotz, ain esku-itxi ta esker txarreko zarieta, orixe be ukatu egiten daustazue.

END. B.—Zure minak arindu al izateko indarririk al leue nire negarrak!

YON B.—Bero dok ire negarren gatz... Sulezea bera dok nire barrua; eta edena dok angotxerrena, an esitua, arterik artzen izten eztautsan odol gaiztetsian gordinkeriak egiteko.

SASIKUMEA aurrera.

SASIK.—Ui! Zure nagusiagotzea ikuste-arren arinaren arinez arnas-estuka ito-aginik nago!

YON B.—Illoba, nire begiak isteko etorri az i; tarrat eginik eta erreta yagozak nire biotzaren ontziko lokarriak; eta aritxo bat, uletxo bat baño ezSozak nire bizia itsaso onetako ur-ganean eroan bear eukien oial guztiak; aritxo bat baño etxok nire biotzak berari eusteko, eta ik ire barriak esan arteño baño etxautsak eutsingo; eta orduan, ik orain dakuskan guzti au mokil bat, erpil bat baño eztoz izango, eta ondaturiko nagusiagotzearen ondakin utsa,

SASIK.—Onako bidea artzeko gertakuntzetan daragoio Delbinak, ari zelan erantzungo dautsagun Yaungoikoak bakarrik dakian leku onetarako; izan be, ba, gau baten bakarrik, gure onerako atzeraka egiten neragoiola, ustebako ta ototz otoko uarre edo uriol batek, alan bearrez, nire gudarietatik talderik onena iruntsi izan dau. (II egiten dct bctkalduna).

SAL.—Eurak bestean ilik dagozan belarrietara eralgi dozuz zuk eralgi dozuzan eriotzabarriok. Ene nagusi! ene yaun! Oraindik

oraintxe bakaldun zana, auxe baño ezta

END. B. -Olangoxe da gure bidaldia, eta olançoxe gure atzena. Ze segurantzarik, ze itzarorik, ze euskarririk dago ludi onetan, oraintsu-oraintsu bakaldun izan au orain eskubete buztin baño eztanazkero?

SASIK.—Olan alde egin dozu? Aspertzallearena egiteko bakarrik geldituko naz bizirik zure ostean, eta gero zerura yoango da nire gogoia zure otseintzarako, ludi onetan zure otseintzarako bizi izan dan lez. Eta orain, orain, zuon bide biribiletan ibili zabilzten xzar arçif.uok, nondik da zuon indarra? Erakutsi orain zintzo ta zindo dala zuon bendekotasuna; eta erdu bertatik nigaz atzera ondamendiari ta betiko lotsariari atzera-ka eragiten, gure lurralde larriko ate mengeletatik uxatuten. Bertatik, bereala goazen arein billa, ostcmtxean eurak etorriko dira gure-billa-ta; gure orpoetan dogu Delbina asarre bizian.

SAL.—Dirudinez, zuk eztakizu guk dakigun beste. Emen abategi onetan datzan eta orduerdi dala etorri dan Pandulba kardinalak Delbinaren aldefiko bake-opaketak ekarri dauz, eta opaketok gutzako lotsaririk baga eta gure deiuz ontzat artu daifeguz. Gudu bertatik amaitutea da Delbinaren asmoa.

SASIK.—Lenago amcitungo dau gogor egiteko gu gerturik eta adoretzu gagozala ikusi ba' dagi.

SAL.—Eztago olangorik egin-bearrik; amaiturik dala esan ledike; izan be, burkada asko bidali dauz itsas-bazarrera, ta kardinala-

ren eskuetan itxi dauz bere auzia ta asarrec: eta egoki fca'deretxctsu, kardindagaz batera yoango gara zu, neu, ta beste Lordak, arazo oni atzen zori ontsua emoteko.

SASIK.—Olantxe bedi: -eta zu, ene bakalseme zindo, zuon aitaren iletan ardurea artu egizue zuk zeuk eta beste bakalsemeak.

END. B.—Worcester'en obiratu bear da, bere ilburukoan olantxe dago ebatzirik-eta.

SASIK.—Olan ba'da, an obiratuko da: eta zuk, maitagarri orrek, zuk iraunazo zori cnez aren ondorengo argitasunari ta aberriaren aintzeari! Nire belauna makurtuten dot bendekofasun osoz cren ondorengctzearen aurrean, eta nire otseintza zintzoa opatuten dautsat, eta bai nire benetako bendekotasuna be beti betirako.

SAL.—Eta maitasun-opari bardina dagigu guk be, beti beti ezetariko orban bagarik irauñ dagian.

END. B.—Zuoi eskerrak emoteko gogorik badot izan, baña eztakit zelan emon, negarrez izan ezik.

SASIK.—Ui! Bear-bearreko naibagaz besterik eztagiogun ordaindu aldi oni, lendik izan dogu naibagarik asko-ta, Ingelanda au ezta izan eguño ta aurrerantzean be ezta iñoz izango irabazleren oin arropcan, berak aurrertik bere burua zauritu ezpa'dagi. Aberriko bakalsemeok atzera etxeratu diranazkerro, ludiaren iru okuluak betoz iskillioakaz, eta gogor erantzungo dautsagu euren era-soari: ezeren garbairik, damurik eztogu izango. Ingelanda bere buruari zintzo izan ba'dakio. (Alcb dagie).

LAN ONETAKO EUSKAL-ITZ GITXI EZAGUNAK ETA BASRIAK:

ASARRE.—Itz onek, Bizkaia'n beintzat, andi ta itzal be esan gura dau, bere esan-gurarik beinenaz ganera. "Mutil asarre" = mutil andi-andi.

AZPEGI.—Atzak eta begiak esan gura dau berez, baña soñeko atal guztiak iragarteko erabilten dabe darabilen lekuan.

BAKALDUN.—Agintzea berak bakarrik dauena, errege.

BAKALDUNO.—Bakaldun eme.

BAKALSEME.—Bakaldunaren seme.

BIUZTURI.—Zeanuri'n beintzat urdail. Biuzturi-ko min = urdailako min.

EDEN.—Euskalgaiztozko "bereno", "pozoi", sikilikitu (Zeanuri).

IRANSUGE.—Erri-irudimenak asmauriko piztiztar narrazti bildurgarria.

IZARO.—Alde guztietatik urez inguraturiko lur edo Iegorra. Orretariko bat ba-dogu Bizkaia'n Bermeo ta Mundaka bitartean, eta Izaro yako izena.

LENURRENKETA.—Zerak euren lekuan imintea, eraturtea.

LENURRENTZA.—Aurrekoaren esan-gura bereberekoa, or nonbaiten.

LENURRENDU.—Zerak euren Iekuratu.

MENI.—Guduan daragoioenak alkarregaz itundurik bein-beinerako egiten daben bakea.

MOSUAK EGIN.—Aieru egin, muxinka egin. Zeanuri'n orretarako erabilten dogu.

MOKO.—Or dozu Paskoetan aitabitxi-amabitiak euren beseoetakoari emoten dautsoen mokotza, mokoz edo "punta"z beterik dagon ogia, erdian arrautzea dauela. Erdiazko "punta" esan gura dauen itz oni be orañtsu Ieku askotan "osaba" itzari yazo yakona bera yazo yako ainbat lekutan. Erbestetarrak azpian artu ta iik edo il-aginik gelditu.

MUSKER.—Euskalgaiztoz "berde" esaten yakon kolore edo margoa. Itz zarra da.

ORO.—Guzti, guztiak esan gura dau. Esateko, "gizonak oro" = gizon guztiak.

ORTZE.—Gure buru-ganean dogun sapaia, gau argiz izarrez beterik agertzen dana.

SORI.—Zilegi, edo bera egiterik galazota eztagona.

SUODI.—Euskalgaiztoz "kañoi" esaten yakon gudu-Iankia yatsu.

YAUERRI.—Orretarako aginpiderik dauenak erri, naiz etxeko egikizunak eratu ta arautu. Euskalgaiztoz "gobernau".

YAURLA, YAURLE.—Erri, naiz etxeak yaurten dauzana.

YAKINKIDETZA.—Euskalgaiztoz, "kontzentzi".

YESAN.—Zorreen arti'

ZINKIDE.—Zerbait egiteko, geien baten okerrerien bat egiteko, zin-bidez besteren bategaz, naiz geiagogaz, itunduten dana.

II ERRIKARTA BAKALDUNAREN BIZITZA TA ERIOTZEA

(THE LIFE AND DEATH OF KING RICHARD II)

II ERRIKARTA BAKALDUNAREN

BIZITZA TA ERIOTZEA

THE LIFE AND DEATH OF KING RICHARD II)

IRUDITURIKO LAGUNAK

II ERRIKARTA BAKALDUNA.)
LANGLEY'ko EDEMUNDA, York'eko Duke [Bakaldunaren osabak.
GAUNT'eko YON, Lancaster'ko Duke)
ENDIKA, izengoitiz BOLINGBROKE, Hereford'eko Duke, GAUNT'eko
YON'en seme. gerora IV ENDIKA BAKALDUN.
AUMERLE'ko DUKE, York'eko Dukearen seme.
TOMA MOWBRAY, Noriolk'eko Duke.
SURREY'ko DUKE.
SALISBURY'ko KONDE.
BERKLEY'ko KONDE.
BUSHY)
BAGOT [ERRIKARTA BAKALDUNA'ren kutunak.
GREEN)
NORTHUMBERLAND'eko KONDE.
ENDIKA PERCY, aurrekoaren seme.
LORD ROSS.
LORD WILLOUGHBY.
LORD FITZWATER.
CARLISLE'ko GOTZAI.
WESTMINSTER'go ABATA.
Lord Marshal.
EXTON'go SIR PIERCE.
SIR ESTEPAN SCROOP.
Kimurutar Talde baten Buru edo Gudalburu (1).

ERRIKARTA BAKALDUNAREN BAKALDUNOA.
GLOSTER'ko DUKENOA.
YORK'eko DUKENOA.

Bakaldunoaren Laguntzako Andera.

Lordak, Aldarrikariak, Agintza-gudariak, Gudariak, Baratzai bi,
Yagola, Geznari, Zaltzai, eta Laguntzako beste batzuk.

AGERLEKU.-INGELANDA'n eta KIMURUERRI'n zabal.

I EKITALDI

I AGERLEKU.-LONDON. Bakal-yauregiko leku.

Aurrera ERRIKARTA BAKALDUNA, lagundurik; GAUNT'eko YON, eta beste Andiki batzuk.

ER. B.—Gaunt'eko Yon zar, Lancaster begiragarri ori, zure zin eta aginduaren arauz, ekarri ete dozu ona zure seme azarri Hereford'eko Endika, ak oraintsu Toma Mowbray Norfolk'eko Dukearen aurka egindako salakuntza gogorrari eusteko, aldi atan entzu-

(1) Iru errik osatuten dabe "Great Britain" derefixon lege-erria: Ingelanda, Eskolanda ta Kimuruerriak. Ingelcnda'ren sarkaldean eta izaro berean, Ingelaoda'ri deusala dago Kimuruerria, ta Wales deretxoe Ingelandarrak. Lege ta agintza berberaren azpiom bizi-arren, Ingelandarrak eta Kimurutarrak eztira ez odol, ez izkuntza bereko, alde orretatik erri bereziak baño.

teko astirik ezkeunkan salakuntza gogorri-ri orain eusteko?

GAUNT.—Ekarri dot. bai, ene yaun.

ER. B.—Orrez ganera, zirikatu ta aztertu ete dozu a, orrako salakuntzea lendiko gogo txarrez eta ikusi-ezinez egiten dauentz ikusteko; ala zindoro, agan aspikeri agirien bat ikusi izan dauelako ta edozein bendeko onek egin bear leukenez?

GAUNT.—A aztertu ta eralgiaz ikusi al izan dodanez, besteagan ak zutzako galgorde agirien bat ikusi izan dauelako da, ez lendiko ikusi-ezinez.

ER. B.—Olan ba'da, biak deitu egizuz gure aurrera. Bai salatzaileak, bai salatuak, biak nasai itz egin dagiela, mosuz mosu, betozko asarreari betozko asarrez, biak entzungo doguz-eta: (Alde laguntzako batzuk) biak dira aik arro, biak asarre gorridun, biak itsasoa bestean asarre bizidun, eta sua bestean bapateko.

Aurrera barriri laguntzakoak. BOLINGBROKE ta NORFOLK'egaz.

BOL.—Egun zori ontsudun urte asko izango al dauz nire nagusien eskertsuak (2), nire ugazaba maiteak!

NORF.—Aurrekoa baño zori ontsuago izango al da egun baktotxa; lurreko zori ona begi txarrez ikusirik. zeruak zure burestunari izengoiti il-ezinen bat erantsi arte!

ER. B.—Eskerrik asko bioi; orraitioño be la-bankerietan zabilteza bata edo bestea, ona dakazuen auzitik agiñi danez, bata bestea azpikeririk andienaz salatuten dozuena zke-ro. Hereford'eko lengusu, zer egozten dau-tsak ik arpegira Norfolk'eko Dukeari Toma Mowbray'ri?

BOL.—Lenen, eta zerua bekitt nire itzen lako ta autorla, bendeko zintzoren aperturiak bultzaurik, nire bakaldunaren segurantz ederra yagote-arren, eta osteango gorroto txarrik ezto dala, emen nator emen dagon bakaldunagana entzun nagiala eske. Toma Mowbray, igana bíurtuten nok orain; eta ondo oar akio nire agurrari; izan be, ba, edo nire soñak emen lurrean, edo nire yainkoar gogoak zeruan egingo yok nik diñodanaren aldekotzea. Azpiyala ta zistrin augu i; andiegi olangorik izateko, eta geztoegi, biziteko, ederrago ta gardenago dan ortzea, itsusiago írudituten dozak an ibiltan diran odeiak-eta. Beste bein, eta zera baltzago egiteko, azpiyala zitalaren izena egozten daukat ire ezterrira; eta nire bakaldunari eder izatekotan, nik emendik zirkinik egin

baño len, eupada egiten daukat nik miñez diñodana egia dala nire ezpatatz erakusteko.

NORF.—Nire itz otzak ez al dabe salatuko emen nire aperturirik eza; miñ zoli biren zarata mingotsez ebaztekorik eztok gure ateko auzi au, emakumek eurenak ebatzi daroenez; bero yagok onetarako otzik egon bear leuken odola; orraitioño be, neu be enaiagok epe barerik ba-dodala-ta bape arrotuteko, ezer esateka ixilik geldituteko: lenen, nire itzai ago-ugalak nasaitu ta aztalak sartzetik atzera eragiten yaustak ire anditasun begiragarriari dauksadan lotseak; ostantxean, aurrera eragingo neunskion nire miñari, iri erantzunaz azpikeri-izena beste ainbesteturik ire ezterrira egozteko. Bere bakal-odol goikoa baztarturik, eta bakaldunagazko bere senitasunari baztarrera eraginginik, eupada egiten dauksat, eta txua yaurtiten dauksat arpegira; kikul guzurrez salatzalla ta zital deituten dot: eta onako oni nik erantzuteko, alderik be emongo neunskio nik orri; bidera urtengo nintxakio, orretarako Alpe mendien tontor leitueta oñez igon bear ba'neu be, naiz, eguño Ingelndarrrik bere oñik ezarten azarri eztan eta iño ezin bizi lediken edozein lekura eldu bear ba'neu be. Bien bitartean nire autorpen au bedi nire zintzotasunaren aldeko; nire itxaro guztiak-arren, guzurtirik andiena dogu ori.

BOL.—Kikul zurbil ikarati ori! Or doakik nire eskuorria, eta ementxe baztarrera eragiten yaustat bakaldunagazko nire senitasunari; eta ik lotsarik baño bildurrik geiango dauksan nire odol goiko erregetarra be baztatu egiten yoat. Errutiko bildurrik nire deduaren baia eragiteko lain adre itxi ba'dausk, makurtu ta eragik: orrako orregaitik eta zalduntzako beste arau eta ekan-duakaitik, iskilluari iskilloz erantzunaz, naiz euk asmau daikekan beste bide txarragoz yokatuko yoat nik esanaren alde.

NORF.—Eragiten yoat; eta bizkarrean zalduntzea bigun eta leun imini eusten ezpatearren, zuzenez erantzungo dauksat, zaldun-

(2) Ingelndarrak, eta bai beste bakalderri bafcuk be, "eskortsu" izengoitia ezarten eutsoen *efa* dautse euren bakaldun edo erregeai, zer bigaitik batez be; bakaldun Yaungoikoz, edo Yaungoikoaren eskarrez zirakr uste ebelako, ta bestalde, besteri eskarrak emoteko gei ziralako, aberatsak eta alteuak lainder edo beartsuak boño errazago emon doikie eskuragiririk-eta.

tza-arauz; eta bein zaldi-ganeratuazkero, ez a). nok bizirik yatsiko andik, azpiyala ba' nok, naiz, burruka bide okerrez egin ba'dagit!

ER B.—Ze salakuntza dakar nire lengusuak Mowbray'ren ganera? Andi ta astun izan bear dau salakuntza orrek, beste orreagan guk gogo txarraren susmorik be izateko.

BOL.—Begira, nire biziak erakutsiko dau egia dala nik diñodana; zortzi milla "zindo" (3) artu ebazan Mowbray orrek zure nagusitasunaren gudariak alogetzat emoteko, eta gorde egin izan dauz orrek, txarto erabilteko, azpiyala ustelek eta legebako zifalek egingo leukenez. Orrez ganera, esan diñot, eta burrukan erakutsiko dot (naiz ementxe, naE eguño Ingelandairen begifc ikusi ta arakatu izain dauen beste edozein lekutan), amazortzi urteotan asmau, irun eta sortu diran azpikeri guztiak Mowbray ustelaren billa ibili dirala euren buru ta iturburutzat. Orrez ganera, esan diñot, eta au egia dala erakusteko orren bitizta geztoarena egingo dot, marrotan eta asmaka ibili dala ori Gloster'ko Dukea erailteko be; susmoak sartu eutsezan aren arerio buru-arinai, eta gero, azpiyala koldarrari dagokionez, odol-urutuak zear urtetan itxi eutsan aren gogo errugear; eta odol ori, Abel opariarena legetxe, lurreko leza artzuloetatik be gedarrez dagoko nire eskutiko zuzenta ta azaskatze gordinari; eta nire aurretikoen odol aintzatsua-arren, nire besoak egingo dau orrako ori, edo bizi au emongo dot orretarako!

ER. B.—Arro be arro diragar orrek bere erabagia! Norfolk'eko Toma, zer dirautsak ik orrako orri?

NORF.—Ui! Beste aldera begiratuko al dau zure nagusientzeak eta gortu egingo al dira apur baterako zure belarriak, bere odolari txarto esala orri nik esan arte, olango guzurti zakarrari noragiñoko gorrotoa dau-tsoen bai Yaungoikoak, bai gizon onak.

ER. B.—Nowbray, eztira alderagotirik gure begiak eta belarriak. Nire aitaren anaiearen seme dok ori, baña nire anai, areago, nire bakalderriaren etzagungei ba'litzok..., nire agintza-makileari zor yakon lotsea-arren, zin dagit, orren odolaren gugazko urr-urreko senitasunak eztautsala emongo orri ezetarik berarizko eskubiderik, ezta bere alderago itzuliazoko nire biotz zuzeneko tinkotasun makurr-ezinari; gure bendeko dok ori, Mowbray, eu azan legetxe; or dok nasai eta bildur bagarik itz egiteko eskubidea.

NORF.—Olan izatekotan, Bolingbroke, ire biotza bestean zirtzil augu i, eta guzurra

diñck ik ire eztarri guzurti orretatik! Bear zanez, Bakaldunaren gudariak ordainduteko erabili naioazan Calais'erako artu nebazan arako diruetatik iru laurenak; neutzako gorde naioan beste laurena, bakaldunaren edereitsiz, bakalduna niganako zorrean ego-lako, Pantze'ra bakaldunoaren billa yoan nintzanean nik egindako dirueralketa asarrearen ondakina bakaldunak niri ordainduteko; iruntsi egik orain arako ire guzurra! Gloster'koaren eriotzeagazko..., nik enaioan erail a; baña, nire zori txarrerako, aztu egin yatan yazokune atan nik zin egindako egikizuna. Zugazko, Lancaster'ko ene yaun zindo ori, nire arerioaren aita zindo ori, bein kuika egon izan naz zure biziaren aurka, eta tamalik asko dot orain olangorik nik egin izanaz; baña autortu egin izan dot oker ori gure Yauna artu-aurretik; eta egin eginean be parkapena eskatu neuntsun, eta ba-dot itzarorik emon be emon zeunstala. Au da nire okerreria, au nire utsa; orrez ganetik salakuntzeaz eta gorago yoteaz, zital gorrotati ta azpiyala endekatutik datorrena baño ezta; eta orrako orreitak neuk yagongo dot nire burua adorez eta biotzez; eta neuk be nire aldetik orren oñetara yaurtiten dot nire eskuzorroa, azpiyala arroputz orren oñetara, aitonseme zintzo nazala orri erakusteko, naiz ta orretarako biotzean dauen odolik onena atera bear izan orri. Orrako ori egín arte artega ta urduri nagola, gu biotatik nor geiago dan ikusteko eguna izentau dagiskuzula zure nagusitza orri eske nago.

ER B.—Asarre goriz ixioturiko aitonsemeok, nire esanera zagoze biok; odolik ixurtzeka garbituko al dogu beaztun au; osalariarik izan ez-arren gu, au da guk aginduten doguna; epai sakonegia egiten dau geztokeri sakonak: aztu, azketsi, parkatu; amaitu ta adiskidetu zadize; gure osalariak diñoenez, ezta au odolik aterateko garai.-Osaba maite, asi zan lekuan bertan amaituko al da onako au; guk baretuko dogu Norfolk'eko Dukea, zuk baretu zure semea.

GAUNT.—Bakegintzea dagoko nire adinari; lurreratu egik, ene seme, Norfolk'eko Dukearen eskuzorroa.

ER. B.—Eta ik, Norfolk, ik be lurreratu egik beste orrena.

GAUNT.—Noz, Endika? Noz? Esaneko izateak

(3) Ingelanda'ko txanpon edo diru dogu emen "zindo" (noble), sei "xilin" eta iru krunekoa izom be.

aginduten dausk birritan agindutera ni ez beartutea.

ER. B.—Norfolk, egotzik lurrera; geuk aginduten dauskagu; etxagok beste biderik.

NORF.—Neure burua bai egotziko dot zure oñetara, nagusien bildurgarri; nire biziagazko aginduko daustazu, baña ez nire deduazkorik: zorrean dautsut bata; baña nire izen onagazko, ni il-arren, bizirik dirau nire ilobi-ganean, eta zuk eztozu nire entzute ona baltzituteko eskubiderik. Laidoturik, salaturik, eta nora ezean nago ni emen; biotza erdibiturik guzurrezko salakuntzearen aztamakil edenduz, eta ezin ledike osatu zauri au beste usaburkiz, eden ori bere arnaseagaz egotzi dauenaren biotzetiko odolagaz baño.

ER. B.—Geldituazog egin bear yakok asarreak: ekadak orren eskuzorroa: ezi egiten yoezak leoiak lun nabarrak.

NORF.—Bai, baña orbanik kendu ez: zeuk artu egizu ezarri daustan lotsaria, bai, eta itxiko dautsut nire eskuzorroa. Ene yaun maite maite, orbanik bagako izena da gizonak bere bizian izan leiken altxorrik garbiena ta argiena; bein izen ona galduazkero, gizonak ezтира buztin urreztau, naiz margoztaua baño. Kutxan amar giltzapean dagon pitxia langoxe da biotz zintzoan dagon gogo adoretua. Nire dedua da nire bizia; biak batera bizi dira, biak bat egiten dabe; kendu egidazu nire dedua, bai, eta egin dau nire biziarenak; olan, ba, ene yabe, itxi

egidazu nire deduaren alde burruka egiten; deduak nau bizirik, eta orregaitik il be egingo naz.

ER. B.—Lengusu, lurreratu egik ire eskuzorroa; i asi.

BOL.—Ui! Yaungoikoak ez al daust itxiko olan-go oben zakarrik egiten! Gangarra makurturik agertu bear ete dot nire aitaren aurrean? Naiz, nire gotasuna eratsi bear ete dot, eskeko bildurti zurbil lez agerturik lotsabako sasikume onen aurrean? Nire miñak nire dedua olango kikilkeri-irainez zauritu baño len, naiz, alkarregaz itunduteko tuturik zirtzilkiro yoazo baño lenago, urratu ta zatitu egingo dabe nire aginak atzera eragiten dauen bildurraren yopu-estalgia, eta odola dariola txuka arpegira egotziko neunskio gizon orren lotsari andiari, lotsategi dan Mowbray'ren arpegira! (Alde GAUNT'ek).

ER. B.—Iñori eske ibilteko ezkara yaiog gu, aginduteko baño; eta zuoi onezkoak eragiteko gauz ezkareanazkero, gertu egon zadize, zuon biziakaz erantzuteko, Lanberta Deunaren egunez biok Coventry'n agertuteko; zuon ezpata ta aztamakilak izango dira an zuon arteko goroto tinkoaren ebazla; onezkorik ezin eragin dautsegunazkero, zuzentzeak ebartziko dau zuotarik zein dan nagusi urtengarri. Marshal yaun, agindu gure gudu-gizonai bien arteko burruka au zuzenduteko gertu egon daitezala. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Lengoxea. LANCASTER'ko DUKE'aren Yauregiko leku.

GAUNT eta GLOSTER'ko DUKENOA aurrera.

GAUNT.—Ai ene! Zure biotz-gedarrak baño geiagobultzetan nau Gloster'koa ta ni odol-kide izateak ari bizia kendu eutsanaren aurka. Baña guk ezin arteztu dogun okerra arteztu, ea bera egin ebenen eskuetan dagonazkero, Yaungoikoaren eskuetan izten dogu auzi au; eta azaskatze berozko euria eralgiko dau Yaungoikoak okerginen buruganera, onetarako aldi egokia ta umatua eldu daitenean.

DUKENOA.—Ez ete dau idoroten anaitasunak zugan ori baño aztal, akulu zorrotzagorik? Ez ete dau maitasunak su bizirik zure odol zarrean? Bere odol gurenaren zazpi ontzi langoxe ziran euretatik bat zeu zaraan Edorta'ren zazpi semeak, naiz, zustar bate-tik yagiten ziran zazpi adar mardul: eurenegartu ziran zazpi adorrotatik batzuk,

alanbearrak ebagi izan dauz beste batzuk; baña Toma, ene yaun maitea, ene bizia, ene Gloster... Edorta'ren odol gurenez beteriko ontzietariko bat, aren bakaldar be bakaldar zustarretatiko adarretatik bat, tarrat eginik dago, tarrat eginik eta bere odol bikain guztia zeatz ixuririk; ebagi ta lurreraturik dago, eta zimeldurik dauz bere udarri guztiak, ikusi-ezinarren eskuz eta erai-learen azkora odoltiz. Ui! Gaunt, zure zan aren odola! Zu eratu ta eredutu zinduzan oek, sabelak, odolak berak egin eban a gizon; eta zu bizi izan-arren, zuk arnasarik artu-arren, zu zeu be ilik zagoz agan; zuk zeuk be zelnnbait onetsi egiten dozu zure aitaren eriotze, ilten ikusi dakusazulako zure anai zori txarrekoa, zure aitaren bizitzearen eredu zana. Epe-izenik ez egiozu emon orrako orri, Gaunt..., etsipena da orrako ori: zeuri bizia kentzeko bide-zidorra agi-

rian erakusten dozu, zure anaíea olan erailtea zuk yasanez, erailte gordinari zeu zelana erail irakatsirik: kikiñkeri otz zurbila da biotz zindoetan, gizon zirtziletan epe ereisten dautsaguna. Zer esango nik? Nire Gloster'en eriotzeaz azaskatutea da biderik onena zure zeure bizia yagotsko.

GAUNT.—Yaungoikoarena da auzi au; izan be, Yaungoikoaren ordekoa, Bere aurrean gantzuturiko Bere ordezkoa da aren eriotzearen errudun: eta eriotza ori, txarto eginik ba'dago, Yaungoikoa azaskatu daitela, nik ezin daiket, ba, iñoz be nire beso asarrersk eragi Bere ordezkoren aurka.

DUKENOA.—Olan ba'da, nori alakatuteko ni?

GAUNT.—Yaungoikoari, alargunen aldekarri ta yagoleari.

DUK.—Olan ba'da, orixe egingo dot. Agur, Gaunt zar. Coventry'ra zoaz zu gure lengusu Hereford eta Mowbray zakar-traketsaren arteko fcurrukea ikusten. Ui! Hereford'en ezpatan imini egizuz nire senarrari egindako irainak, Mowbray erailearen biotzera sartu daiten! Naiz, lenengo ariñeketa-aldian uts egitekotan, Mowbray'ren biotzeko obenaik ain astun izanda, bere zaldi izerdituaren bizkarrazurra ausi ta zaldiganekoa buruz aurre yausiko al da zaldunketategian, zirtzil a nire lengusu Hereford'en eskuetan

III AGERLEKU.-Gosford Green, Coventry'tik ur.

Gertu zaldunketategia, ta bakaulki bat. Begirara Aldarrikariak eta abar.

Lord MaTshal eta AUMERLE aurrera.

MAR.—Ene Lord Aumerle, aldean ete dauz iskillokak Endika Hereford'ek?

AUM.—Bc.i, zeatz, eta barrura sartzeko luze eretxita dago.

MAR.—Auzidunaren tutuak noz ots egingo astinik eta arrorik dago Norfolk'eko Dukea AUM.—Ba, olan ba'da, gerturik dagoz burrikariak eta, geldi ba'dagoz, bere nagusia-gotzea noz elduko begira dagozalako da.

Tutu-ots. Aurrera ERRIKARTA BAKALDUNA, ta bere bakaulkian yezarten da; GAUNT eta Andiki balzuk, euren lekuak arturik. Ots dagi tutuak, eta beste tutu batek erantzuten dautso barrutik. NORFOLK dator orduan aurrera, iskilloz yantzita, ela bere aurretik Aldarrikari bat datorrela.

ER. B.—Marshal, zegaitik datorren ona iski-Iloz yantzita itandu egiok burrukari orri; be-

itxirik! Agur, Gaunt zar; bere lagun dan naibageagaz batera amaitu bear dau bere bizia beñola zure anaiearen emazte zanak.

GAUNT.—Agur, arraba; Coventry'ra yoan bear dot: neutzako beste on opa dautsut!

DUK.—Orraitño be, itz bat geiago: yagi egiten da naibagea yausten dan lekuan. ez arro ta uts dalako, astun dalako baño: asi baño lenago agur egiten dot; eta, izan be, arenak egin dauela uste danean ezta amaituten atsekabea. Gorantziak York'eko Edemunda nire nebeari. Tira, au da dana: ez, ez, ez alde egin geiagoko bagarik; esatekoak esan-arren, ez alde egin orren arin; besterik etorriko yat burura. Esaiozu, Ui! zer esateko? Len baño len ikusi nagizu Plashy'n. Ai ene! eta zer ikusteko an York zarrak bizileku utsak eta apaingarririk bagako ormak baño, iñorbako lantegiak, iñok zapalduten eztauzan arriak baño? Eta zer entzuteko an ondo-etorritzat nire intziarik baño? Olan, ba, ez emon nire gorantziak besterik ezer; eztaítela etorri ona naibaga billa, beste edonon be idoroko dau-ta. Pozik bagarik, pozik bagarik, emendik alde egin eta il egingo naz: begiak negarretan dodazala damotsut nire atzenengo agurra! (Alde dagie).

re izena itandu egiok, eta, ekandu dogunez, zin eragin egiok zuzenezko dala bere auzia.

MAR.—Yaungoikoaren eta bakaldunaren izezez esaiguk nor azan, eta zegaitik atorren olan zalduneri dagokionez iskilloz yantzirik; noren aurka atorren, eta ze auzi dan irea: egia esaik, ire zalduntasunari ta ire zinari dagokienez; eta, olan, Yaungoikoak eta ire adoreak yagongo al aue!

NORF.—Toma Mowbray, Norfolk'eko Duke, yat izena; eta ona ba'nator, nire zinak orretara bearturik nator, eta Yaungoikoak ez a) dautso itxiko zaldunari bere zinik austen! Yaungoikoa ta bakalduna ta bere ondorengoekanako nire zintotasuna ta egia ni salatu nauen Hereford'eko Dukearen aurka autortu ta yagoteko nator; eta Yaungoikoaren eskarrez eta neure besoz erakusteko, neure burua yagonez, azpiyala dala a Yaungoikoarentzako, bakaldunarentzako ta nitzako; eta Yaungoikoak yagongo al nau, egiaren alde yokatuten dodanazkeru!

Tutu-ots. BOLINGBROKE aurrera, iskilloz yantzirik, bere aurretik Aldarrikari bat dakarrela.

ER B.—Marshal, iskilloz yantzita or dagon zaldunari itandu egiok bai nor dan, eta bai zegaitik datorren ona olan gudu-soñeko z yantzirik; eta gure legearen arauz bere auzia zuzen danentz erasan egiok.

MAR.—Zer yak izena? Eta zegaitik ator ona Errikarta bakaldunaren aurrera, bere zaldunketategira? Noren aurka ator? Eta ze auzi dok irea? Benetako zalduneri dagokionez itz egik eta. olan, Yaungoikoak yagongo al au!

BOL.—Hereford'eko Endika, Lancaster eta Derby naz ni; eta gerturik nago ni emen, zaldunketategi onetan, iskilloz yantzirik, Yaungoikoaren eskarrez eta nire soñeko adorez, Toma Mowbray, Norfolk'eko Dukeari erakustsko, azpiyala zikin eta kaltegarri dala a Zoriontegiko Yaungoikoarentzako, Errikarta Bakaldunarentzako, ta nitzako; eta Yaungoikoak yagongo al nau, egiaeren alde yokatuten dodanazkero!

MAR.—Eriotzearen zemaiepean, ez al da sartuko, ezta zaldunketategiko esirik ukutuko be, azarri eta auserti izan-arren, marshalaz eta burrukea zuzendutoko diran beste otseinez besterik.

BOL.—Marshal yaun, nire nagusienari eskuan mun egiten eta bere nagusiagotzearen aurrean nire belauna makurtuten itxi egidazu, izan be, ba, bidaldi luze ta nekaisurako zin egin daben gizon biren antzeko gara ni ta Mowbray; orrazkero, ba, alde-egikerara erameratsu ta agur maitakorra egin dagiegun baktotxak bere adiskideai.

MAR.—Bere bendekotasun guztiagaz agur dagitso salatariak zure goikotasunari, eta zure eskuari mun eginda agur egin gura daustu.

ER. B.—Guztiok goaz gu orra bera, ori gure besartean estututeko. Hereford'eko Iengusu, ire auzia zuzen dan besteko izango al dok ire zori ona bakaldar burruka onetan! Agur, ene odoleko ori; eta ik gaur odol ori ixuri ba'dagik, tamalik asko izango yoagu, baina ire eriotzegaitik ezin azaskatu izango gozak-

BOL.—Ui! Ez al dau orbanduko negarrek begi zindorik nigaitik, Mowbray'ren expateak odoletan itxi ba'nagi: aztoreak, txorien battegaz burruka egiteko, egaz ustetsu egiten dauen bestean ustetsu egingo dot nik burruka Mowbray'gaz. Agur dagitsut, ene yaun maite; zuri be bai, nire Iengusu zindo, Au-merle yaun orri; eta agur au gexorik, ez-

tot egiten, eriotzeagaz erago bear izan-arren, mardul, gazte ta arnasea alai artuta baño. Ara! Ingelandarrak euren yaietan egin daronez, atzenerako izten dot yakirik mizkeena, atzena gozoago egin dakidan: (GAUNT'eri) nire odolaren lurta egila ori; nigan barriztauriko zure gogo gazteak nire buru-ganean dagon garaitera elduteko adore lango bigaz gora eragiten nauen ori... zula-ezinagotu egizu nire guda-koskola zure arrenez; eta zure onespenez galtzaidutu egizu nire aztamakilearen mokoa, Mowbray'ren argizagizko guda-koskolean sartu al dadin, eta bere semearen erago zantsutik Gaunt'eko Yon'en izenari dizdiz barria etorri dakion.

GAUNT.—Zori ona ekarriko al dask Yaungoikoak ire auzi onean! Oñeztua bestean bizkor izan adi ire egitekoan; eta ostots zurgarriak legetxe yausiko al dozak ire zartadak, beste ainbestekoturik, ire arerio kaltegarriaren buru-koskol-ganera; iratzarri egik ire odol gaztea, adoretzu izan eta bizi adi.

BOL.—Nire errugatasunak eta Gorka Gurenak yagongo al nabe!

NORF.—Dana dalako izan Yaungoikoak, naiz Zoriak aterazoko daustan zotza, Errikarta Bakaldunaren bakaulkiari zintzo yakon aintonseme zintzo, zuzen eta arteza il edo bizi-ko da: eguño eztau atxilok biotz nasaiaogoz yaurtin ortik zear bere atxilo-katerik, eta urrezko bere azkatasuna besarkatu, nire gogo yantzariak nire eriotzeagazko burrukayai au yaituten dauen baño. Nire yabe altsu ori, -eta nire lagun bikoteok..., zuontzako urte zori ontsuen opea artu nire agotik; txantxetarako ba'litz bestean betargi ta gogargi noa ni burrukara: biotza nasai euki daroa egiaik.

ER. B.—Agur, ene yaun; seguru yakusat onindarra ire begietan, adoreagaz batera; agindu nor-geiagoketea, marshal, eta asi.

MAR.—Hereford'eko Endika, Lancaster eta Derby, auto ire aztamakilea; eta zuzenaren alde yarriko al dok Yaungoikoak!

BOL.—Torreren bat bestean sendo itxaroz, olantxe! diñot gedarrez.

MAR.—(Otsinetalik brcteri) Auto, Toma, Norfolk'eko Dukeari eroan egiok aztamakil au.

I AIDAR.—Hereford, Lancaster eta Derby'ko Endika dago emen, Yaungoikoari, bere nagusienari ta bere buruari erakusteko Norfolk'ko Dukea, Toma Mowbray, azpiyala ta etoi yakela bai Yaungoikoari, bai bakaldunari ta bai bere buruari be; eta burrukarako eupada egiten azarten yako, orrako ori

ez erakustekotan guzurti ta usteltzat agertuteko.

II AIDAR.—Toma Mowbray, Norfolk'eko Dukea dago emen, bai bere burua yagoteko, bai erakusteko Hereford, Lancaster, eta Derby'ko Endika zintzotasunbako yakela Yaungoikoari, bere nagusiari ta bai bere buruari be, ostantxean ustel eta azpiyala agertuteko; eta adoretu ta nasai dago noz asiko aginduaren begira.

MAR.—Yo, tutulariok; eta urten aurrera, burrukariok. (Ekiterako otsa entzuten da). Geldi or, bere agintza-makilea egotzi dau baldunak zaldunketategira.

ER. B.—Kendu, erantzí dagiezala euren burukoskolak eta aztamakilik eta atzera euren lekuetara doazala; (Andikiari) Erdu nigaz orra baztarrera, eta yoten ekin dagioela tutuak, zaldunak zer egin bear daben ebatzi ta gu atzera etorri arte (tut-ots luzea) (Burrukariari) Urreratu zadize ta gure onulariak ebatzi dabena entzun egizua. Berak bazkatu dauen odol karuz gure lurra loitu bear eztalako, eta erkideen ezpataz egindako anaien arteko zauriai gure begiak iguin dautselako; gure eretxiz, zuon arrokeri arroz, arranoaren egazkadea legetxe ortzera-guraka dabilzian gogaketa geiagokeritsuz, eta asarre zarretiko alkar ikusi-ezinez, gure luirean seaskako seintxoa legetxe arnasea artzen daragoioen gure bakea iratzarri gura dozuélako; eta olango danborrots zakar-latzez, eta tutuen arrantza bildurgarriz, eta burdiñezko iskilloen irrirtze zorrotz-latzez bakea iratzarriazkero ba-ledikelako bakeak. bildurturik, gure muga-barru baketsuetatik alde egin, eta geure senideen odol-artetik guri bidea eragitea; olan, ba, erbesteratu egiten zaueguz gure lurretatik: I, Hereford lengusu, ire bizia galduteko zemaipen, ik eztautsek egingo txerarik gure bendeko lur ederrai amar urtek bere soloak aberastu arteño, erbesteko bidezidorrak zapaldu baño.

BOL.—Zure gurea egin bedi; onako onek izan bearko dau nire pozkarri, zera, niri be argi egingo daustala lur au epelduten dauen eguzkiak, eta ak emen emoten dautsuezan urrezko izpiak elduko dirala niganano be ta urreztauko daustela nire erbestea.

ER. B.—Norfolk, epai gogorrago yoagu itzako, gogoaz besteratsu nire agotik eralten dodana; ordu geldoak etxoek iragarriko noz dan egunik izentau bagariko ire erbeste-aldiaren atzena; ire biziaren zemaipen, itxarorik bagako itza eralten yoeik nire ezpanak itzako..., iñoz be ez azala atzera etorriko.

NORF.—Epai astuna, ene yabe eskartsu be eskartsu, eta zure nagusitasunaren agotik olangorik yalgiko zalaren usterik arean bagakoa; egurats utsetara, legorrik bagako lekura ni egozte baño zer obarik irabazi izan dot nik zure nagusitasunaren eskuetatik etortekorik. Bertanbera itxi bear dot orain berrogei urteotan ikasi izan dodan izkuntzea, nire Ingelander a yatorra; eta nire izkuntzea etxat orain bape gauzago, lora edo aririk bagako bibolinen bat, naiz arparen bat baño; naiz, kutxan dagon, naiz, kutxatik aterata egon-arren, yoten eztakianaren trebetasunik bagako eskuetan iminitako ereskina baño bape gauzago; baitu egin dozu nire miña nire agoan, nire aginak eta ezpanak esi bikotxa egiten dautsoela; eta ezyakintza motel, so-gogor eta antzua izango da nire baitegi-zaia, ni yagoteko. Zarregi nozu sentzaini kutunkerik egiteko, urteetan aurreratuegi orain, ezetan ikasla izateko: zer da, ba, zure epaia, itzik bagako eriotzea baño, nire izkuntza yatorra ostuten daustanazkero?

ER. B.—Eztoz ezer onik aterako gure errukiagana yoaz; beluegi yatok ire alaketea bein guk gure epaia emonazkero.

NORF.—Olan, ba, onan emoten dautsat nire bizkarra nire aberriko argiari, atzenik bagako itzal andietan biziteko (Alde egin-ala).

ER. B.—Ator ona barriro ta egingo dokan zina eroan egik. Gure bakaldun-ezpatearen ganean ezarri egizak erbesteratuaren ire eskuak; Yaungoikoari zor dautsakan zintzotasunagaz zin egik (guganakoa eugaz batera erbesteratuten yoogu), beteko dokala guk eragiten dauskagan zina: iñoz be eztozue (eta Yaungoikoa ta zuon zintzotasuna lagun izango al yafsuez zin au beteteko) billatuko alkarreganako maitasunik zuon erbestean; iñoz be eztozuela begiratu alkarren arpegirik; iñoz be eztautsa-zuela idatziko alkarri, alkarri agurrik egingo, ezta alkarregaz onezkorik egingo zuok zuon aberrian sorturiko alkarganako gorrotzoko ekatzaz; eta eztozuela iñoz be ezertxorik asmauko gure aurka, gure balderraren, gure bendekoen, naiz gure lurrraren aurka ezetariko gatxik,

BOL.—Zin dagit.

NORF.—Bai nik be, olangorik ez egiteko.

BOL.—Norfolk, au dirauskat nire arerio azan aldetik: Bakaldunak olangorik egiten itxi izan ba'leusku, onazkero or ebilen aldarrai eguratsetan gu biotatik bataren edo batarraren gogoa, gure soin onetako ilobi mengeletik erbesteraturik, orain gure soña lur one-

tatik erbesteturirik dagon letxe; autortu egizak ire azpiyaiekieriak bakalderri onetatik igesi baño len; urrin yoan bear dokanazkerro, ez egik eroan bizkarrean bidean meikka eroango auen ire gogo erruduneko zamea.

NORF.—Ez, Bolingbroke; eguño azpiyala izan ba'nok, ezabatu daitela nire izena bizien idaztfitik, eta zerutik erbesteratua izan nadila ni neu, emsndik lez! Baña i zer azan Yaungoikoak, euk eta nik yakiguk; eta bildur nazanez, arinegi negar egingo yok bakaldunak. Agur, ene yabe. Eztot biderik galduko orain; atzera Ingelendarakoaz beste, mundu osoa da nire bide. (Alde dagi).

ER. B.—Osaba, zure begietako ispilluan be ba-dakust nik zure biotzeko naibagea; lau urte kendu dautsaz zure arpegi ilunak aren erbesteko urteen zenbakiari. (BOLINGBROKE'n) Bein sei negu leitu igarozkerro, atzera etxera ator ire erbestetik, ondo-etorria artzeko.

BOL.—Itz txiki baten datzan aldiaren luze! Itz bategaz amaituten dira lau negu nagigeldo lau udabarri olgetari-bizkor: olan-goxe da bakaldunen itza.

GAUNT.—Nire eskarrak nire yabeari nitzako begirapengaitik nire semearen erbeste-aldia lau urtez laburtuten dauelako; baña obari andirik ezot aterako ortik; eta, izan be, orrek igaro bear dauzan urteetan iretargiak bere ilgora-ilberak bete orduko adinaren adinez itzalirik geldituko da nire argi orio-urria, eta ni neu betiko gau ilunetan mur-gildurik; erreko da atzondo biko nire argizagia ta arenak egingo dau, eriotza itsuak eztaust itxiko nire semea ikusten.

ER. B.—Ba! osaba, biziteko urterik asko dozu oindiño.

GAUNT.—Baña ez, bakaldun, zuk emon zeinskedanik minutorik be; laburtu bai egin dai-kezuz nire egunak naibaga mukerrez, eta bai niri gaurik kendu be, baña ezin emon biaramonik bat bera be; lagun izan zaife-keoz aldiari, adinez nire arpegia tximurrez beteteko, baña ezin dautsazu tximur bateri be geldituzo bere bidaldian; eriotzearen lagun izan dateke zure itza nire eriotzarako, baña bein ni ilazkerro, zure bakalderria ezta gauz niri arnasarik barriro emoteko.

ER. B.—Onuz erbesteratuta da zure semea, eta besteen kide baño ezta izan nire miña erbesteratze orretan; zer dala-ta, ba, dirudie-nez, eztozu onartuten gure zuzentzea?

GAUNT.—Mingots eta garratz izaten dira ya-nausterakoan yaterakoan gozo diran ya-kiak. Bultzau egin nozu ebazla nazan alde-

tik; baña gurago neunkean nik aitari dago-kionez itz egiteko agindu izan ba'zeunst. Ui! erbestetarren bat izan ba'litz, eta ez nire semerik, izan nazan baño bigunago nintzakean aren utsa arinduteko; alderdike-ri-orbanik niri ez ezartearren billa ibili izan naz, eta neure bizia manatu dot epai emoterakoan. Ai ene! Begira egon naz ni zuo-tatik baten batzuk noz esango gogorregi nintzala nirea erbesteratuten; baña zuk nire miñ mukerrari itxi egin dautsazu oker ori nire gogoaz bestera egiten.

ER. B.—Agur, lengusu; eta, osaba, zeuk be agur egiozu: sei urterako erbesteratuta dogu, eta yoan egin bear dau. (Tutu-ots. Alde ERRIKARTA BAKALDUNAK eta Yarraigo-kock).

AUM.—Agur, lengusu: ire idazkiak yakinazo-ko al yauskuek i bizi azan lekutik emen eugandik ezin yakin doguna.

MAR.—Ene yaun, nik eztauskat agurrik egi-ten, aberri-mugarano eldu arte zaldiz ire aldamentean yoango nok-eta.

GAUNT.—Ui! zetarako aurreratuten dozak ire itzak, ire adiskideen agurrai erantzunik ez emoteko?

BOL.—Itz gitxiegi dot zuoi agur egiteko, mi-ñak eskuzabalegi izan bear leukenean bio-tzeko naibagea itzez iragarteko.

GAUNT.—Zati baterako alde eginik egotea baño eztoz ire naibagea.

BOL.—Bertan dago naibagea poza alde egi-nik dagon aldi osoan.

GAUNT.—Zer dozak sei negu? Arin be arin yoazak.

BOL.—Pozik bizi diranentzat bai; baña ordu batetik lau egiten dauz naibageak.

GAUNT.—Eure gogoz artzen dokan bidaldizat etsi egik bidaldi ori.

BOL.—Intziri egingo daust biotzak bidaldi oni olango guzurrezko izenik ezarri ba'dagiot bearturiko bidaldizat dau biotzak-eta.

GAUNT.—Pitxi ederren baten azpikotzat etsi egik ire oinkada nekatuen bide iluna, an ezarri bear dokala ire etxera etortzeko pitxi bikaina-ta.

BOL.—Bai zera! dana bestera, nik maite do-dazan pitxietatik urrin be urrin nagola go-goratu baño eztaust egingo egin dagidan oinkada bakotzak. Erbesteko bideak ikaste-ko ikastaldi luze baño etxat egingo, eta atzenean yarei yari nadinean, zek arrotu ta ilarrainduko nau, minaren otsein dan bi-dari naibagetu bat baño enazala idoro da-gidanean?

GAUNT.—Kai eta itsas-ate yakozak gizon zu-rriari ortzeko argiak ikusi dakusazan le-

ku guztiak. Argibideak onan emoten irakatsi egiok ire bearrari; etxagok bearra lango onindarrik. Ez egik gogoratu bakaldunak erbesterratu auenik, bakalduna euk erbesterratu dokala baño; astunago egiten dok zori txarra, nekez yascten dala oartu dadi-nean. Oa, deduaren billa bidali audala esaik, eta ez bakaldunak erbesterratu auela; naiz, izurri ikaragarrien bat dagola gure eguratsean eta egurats-giro obetara igesi oala iruditu egik; begira, i oan lekuan dago la ik maite dokana iruditu egik, ez ik itxi doka lekuan; ereslaritzat etsi egizak txori abeslariak, itzako zabaldurik dagola ik oin-pean zapalduten dokan bedarra; andera liraintzat etsi egizak lorak, *eta yantza* atsegin-garriren neurritzat ire oinkadak; izan be, indar gitxiago yok usigiteko aginak erakusten dauzan naibageak, irri egiten dauktan eta gaitxitzat esten dauen gizonak baño.

BOL.—Ui! nok eusteko eskuan dauen suari, Kaukas mendi leitua gogoratuaz? Naiz, nok asetuteko yangarraren ertz gcsctia, oturuntzea gogoratu bakarrik? Naiz, nor ibilteko billusik itzulka Lotazileko edurtzan, udako berotan dabilela uste izanik? Uí! ez! Txarrazako sokorrago baño ezkaug egiten ona ezagututeak; zaurituz odolik ateraten ez-tauean baño iñoz be ezta okerrago naibaga zorrotzaren agina, usigiten dauenean.

GAUNT.—Tira, tira, ene seme, lagun izango natxak bidean; nik izatekotan ire gaztetasuna ta zegaitia, enintzakek geldituko ni.

BOL.—Agur, ba, Ingelanda'ko lur; agur, lur gozo ori; oraindik be bere barruan narooan ama ta iñude ori! Non ibili, oraindik be zmgaz ilarraindu ta arrotu naiteke..., erbesterratu izan-arren, orraitño be Ingelandar yator. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.-Bakal-yauregia.

ERRIKARTA BAKALDUNA, BAGOT eta GREEN aurrera; euren atzetik AUMERLE.

ER. B.—Oartu gatzakoz. Aumerle lengusu, noragiño eroan dok bere bidean Hereford arroa?

AUM.—Olan deitu gura ba'dozu, urrengo mendiraño eroan dot Hereford arroa, eta an itxi dot.

ER. B.—Eta esaidak, negar asko izan ete dok agur egiterakoan?

Aum.—Ba! bapez nire aldetik; bakarrik, une atan arpegi-arpegira putz egiten izan euskun iparr-axe otzak, alabearrez, iratzarri dausku lotan egoan begi-erioa-ta, axek eragin dauskuz negar batzuk gure begi idorretatik, agur egitearen edergarritzat.

ER. B.—Zer esan yok gure lengusuak ik agandik alde egiterakoan?

AUM.I.—"Agur" esan dau; baña nire biotzak eztau gura izan nire miñak itz ori zakarterik-eta, naibagearen naibageak azpian artu ta sakatuarena egin dot, nire itzak naibagearen ilobian ba'legozarena. Ba! nire "agur" itzak alik izan ba'leu aren erbeste-aldi laburreko orduak luzatuteko, eta aren erbeste-aldiko urte urriai beste urte batzuk erasteko, kolko bete agur be egingo neunskion; baña olango alik ez-eta, agurrik bat be eztausat egin.

ER. B.—Lengusu yakuk a, lengusu; baña gure senide ori atzera erbestetik etorri dadi-nean etxakiat bere adiskideak ikusten eto-

riko danentz. Neu, ta Bushy, ta emen dagozan Bagot eta Green be oartu gatzakoz ak erri zeari egin dautson txereari; euren biotzetaraño murgildu dala bere txera apal eta etxetiarrez; yopuai be lotsa-agiria egin dautsela; beargin tziroai irribarre txerakorrez eta maltzurrez txera egin dautsela, eta bere zoria epez daroalarena egin dauela, euren biotzak beragaz batera erbestera ba'leroaz lez. Txapela erantzi dau neska ispel-saltza-Ua baten aurrean; belauñ biguna makurtu egin dautse "Yaungoikoa lagun izango al yatsu!" esan dautsoen burtzai biri, "Eskarrik asko, aberkideok, ene adiskide maiteok", berak erantzunik; etxerakoan gure Ingelanda bere ba'litz legetxe, eta gure bendekoan urrengo itxaroa ba'ra ba'litz legetxe.

GREEN.—Tira ba, yoanik da a; eta beragaz batera yoanik dira aren uestok be. Arin egin bear da orain Eire'n asaldatuakazkoa, ene nagusi, astirik geiago emonazkero aik eskuarte agiogo lortu eztagien euren alde-rako ta zure kalte ta galtzerako.

ER. B.—Gu geu be yoango gara gudu orretara; eta gure diru-kutxekazko, yauregitar geiegigaz eta eskuzabalegi izanaz, arinegi aurkituten diralako, gure bakal-lurra maizterrai emon-bearrean aurkituko gara eurak landu dagiezan; lurrok dakarrenak emongo dausku arazotarako bear doguna. Orrako ori gitxi izatekotan, eskuak yarei izango dabez emen gure ordezkatat gelditu daitezanak; orretarako, nortzuk diran aberats ya-

kin dagienean, urre-raordo asarreak ordainduazoko dautsez, gero gure bearrizanetarako bidalteko; bertatik yarriko gara, ba, gu Eire'rako bidean.

BUSHY aurrera.

Ze barri dakak, Bushy?

BUSHY.—Gexo-gexorik dago Gaunt'e'ko. Yon zarra, ene yaun, otoz otoan gexoturik; eta arin egin-alean bidali dau geznari bat, bera ikusten zu yoateko eske.

ER. B.—Non yagok a etzatez?

BUSHY.—Ely-House'n.

ER. B.—Yaungoikoa, len baño len a bere ilobirako bidean yarri dadin lagun izan dakiozala bururatuko al dautsezu aren osagilei! Aren diru-kutxen azaleko oialakaz egingo doguz gure gudarien soñekoak Eire'ko gure guduotarako. Tira, aitonsemeok, goazen guztiak a ikusien: gure iradua gorra-bera, gu beluegi eldutea gurako al dau Yaungolkoak! (Alde dagie).

II EK :TALDI

I AGERLEKU.-LONDI IN. Ely-House'ko Gela.

GAUNT oe-ganean; YORK'eko DUKEA ta besete batzuk bere aldamenen zutunik.

GAUNT.—Etorriko ete da bakalduna, aren gazetasan buru-arinari onu osasungarriak emonda nire atzenengo arnasea emon dagan?

YORK.—Etzadiz artegatu, eta ez egizu alperrik galdu arnasarik, alperrik doaz onuak aren belarrietara-ta.

GAUNT.—Ui! baño or esan daroenez, eresi gozoak lez so eragiten ei dabe il-aginik dagozanen itzak; itzak nekez izaten dira alperriko, gixi diranean; izan be, ba, egia esaten dabe nekez esaten dabezanen itzak. Adiago entzutsn yako gefagorik esango eztauenari, gazte dirala-ta, itzontzi diranai baño; soago egiten yako gizonen atzenari, aurreko euren bizitzeari baño: gomutan irarriago geldituten dira eguzki-sarrerea ta atzenen yoten dan eresia aspaldiko zerak baño, yakien gozotasuna be gozoen atzenanean danez; bizirik nintzaneko nire onurik Errikarta'k entzun gura izan ez-arren. baledike nire eriotza-aldikoak aren belarrietara bidea egitea.

YORK.—Ezta; beste itz labanez itxirik dagoz aren belarriak, esaterako, bere yaukerez egiten dautsoezan gorapenez: orrez ganera, or dozuz abesti lizunak, gazteriak euren ots edentsua beti gogoz eta belarriak idigirik entzun daroazanak; Itali arroan zabal zabal dabiltzan gaurkokeriak eta gure matxangorria euren atzean meikika belu doakien era-merak. Non ateraten dau munduak uskerien bat (barri izatekotan eztau ardura zirtzil izan-arren), astirik galtzeka aren belarrietara eralgiko etzabenik? Olan ba, be-

randuegi dator onua bera entzuteko guraria sentsunagaz burruka ta ukabilka dabilen lekuan. Ez egiozu biderik erakutsi berak bere bidea artu gura daueneri; arnasa-bearrean zagoz zu, eta arnasa ori galdu egin gura dozu zuk.

GAUNT.—Goitik putz egin-barri dan igarla nazala uste dot nik eta, onan, ilterakoan iragarten dausat: ezin irauñ dagike luzaro aren geiegikerien gar bizi ta itsumustuak, su andiak arin agortuten dira-ta, luzaro irauten dabe lanparrak eta zirimiriak, baño laburrak izaten dira bat-bateko euriyasak; aztalak sartuago ta lenago nekatuten da zaldia; saloegi yateak irato egiten dau yalea. Uskeri buru-arinak, sai ase-ezina, bein bereak yanazkero, bere burua yan daroa. Bakaldunen bakaulki au, agintzama kiladun izaro au, nagusiagotzearen lurralde au, Marte'ren yezarleku au, Eden barri au, erdi-zoriontegi au, Yaiotzatikoak berak beretzat eragiriko torre au, izuririk eta guduaren eskurik eldu eztakion; giza-enda zori ontsu au, mundu txiki au; urrezurizko itsasoan ezarritako arri-pitxi eder au, itsasoak ormearena egiten dautsan au, naiz, ain zori ontsu ezitan lurraldeetakoen ikusi-ezinen erasoetanik etxea yagoteko itsasoak etxe-inguruko osinarena egiten dautsan au; arlo onetsi au, lur au, bakalderri au, Ingelanda au, inñude au, bakaldar bakaldunez beteriko sabel au, euren yatorriz bildurgarri diran bakaldunez, yaiotzaz entzute-tsu diran bakaldunez, aberrikeri nrrin kistar-tasunaren eta zalduntasun yatorraren alde egindako egite andiakaitik ospatsu diran bakaldunez..., esaterako, or dozue Yudar buru-gogorren artean dagon munduaren Yarei-

learen. Miren onetsiaren Semearen ilobiaz gure bakaldunak yabetea; onango biotz maitagarrien lurralde au, lurralde maite maite au, mundua zear entzute lango entzute dauen lurralde au maizterrai emonik dago orain (au esan-bearra bera da asko ni ilteko), etzategiren bat, naiz baserri zakarren bat ba'litiz legetxe; Ingelanda, itsaso arroak bere besartean artzen dauena, Ne-tun urtsuaren urutu ikusi-ezintsuai bere arrizko itsasegiak atzera eragiten dauetsena, lotsaritan baturik, lotsariaren basartean dago orain, orban baltzez loiturik, eta idaznarru ustelezko lokarrik loturik; besteak benderatutera oiturik egon dan Ingelanda bera, berak bere burua lotsagarriro benderaturik aurkituten da. Ene! ni bai zori ontsu be zori ontsu ilgo nintzakela lotsari ori nire biagiagaz amaituko ba'litiz!

ERRIKARTA BAKALDUNA ta BAKALDUNOA, AUMERLE, BUSHY, GREEN, BAGOT, ROSS eta WILLOUGHBY aurrera.

YORK.—Etorri da bakalduna: bigun ibili zadiz orren gaztetasunagaz; asarreago egiten dira, ba, zaldizko gazte beroak, bein asaratuazozazkero.

BAKALDUNOA.—Zelan dago Lancaster gure osaba zindoa?

ER. B.—Zelan zagoz, gizon? Zelan doaku Gaunt zarra?

GAUNT.—Ui! egoki baño egokiago datorko izen ori nire egokereari! Gaunt zarra, bai izan be; azurruts bere zartzaroon; barau luze gogaikarria izan dau naibageak nire barruan; eta nor ez geldituteko azurrutsik okelarik yan ezik? Luzaro egon naz, ba, ni atzarrrik lotan dagon Ingelanda yagoten; argaldu egiten dau lorik ezak, eta argalduaz donor geldituten da azurrutsean; barau zeatza egin dot nik aita batzuk daben atseginetik, nire semeen begirakuneetatik esan gura dot; eta barau ori zuk niri ezarriaz, azurrutsean itxi nozu: azurrutsean nago ni ilobirako, ilobia bestean azurrutsean, bere sabel arroan azurrez besterik artzen eztauen ilobia bestean.

ER. B.—Zelan yokatu ete lei gizon gexok orren polito bere izenakaz?

GAUNT.—Ez, zori txarra da bere buruagaz yokatuten daragoiona, bere buruari irri egiteko; nire izena nigan erail gura dozulako, neuk erailten dot nire izena, bakaldun andi, zuri labankeriak egiteko.

ER. B.—II-aginik dagozan gizonak labankeri-rik egin ete leioe bizirik dagozanai?

GAUNT.—Ez, ez; biziak dira il-aginik dagozanai labankeriak egiten dautsezanak.

ER. B.—Zeu zara, ba, il-aginik zagozan ori, labankeriak egiten daustazuzala diñozuna.

GAUNT.—Ui! ez! zeu zara il-aginik zagozana, ni zu baño gexoago aurkitu-arren.

ER. B.—Osasun ona dot nik, arnasea artzen dot, eta gexorik zakustaz.

"5AUNT.—Ba! ba-daki ni egin nindunak gexorik zakusadala; gexorik dakust nire burua, eta gexorik nago zu be gexorik ikusteaz. Zure entzutea en gexorik dagon lurraldea bera da zure eriotza-oea; eta zuk, gexo ardurabakoegi orrek, eurak zauritu zinduezan osagileen esku ta ardurapean iminten dozu zure soin gantzutua; milla labankerizale dagoz zure burua bera baño andiago eztan zure burestunaren inguruan; eta orraitioño bakalderri osoraño eltzen da toki orretan egiten dan okerra. Ui! zure aitaitak igarlabegiz ikusi izan ba'leu bere semearen semeak zelan ondatuko eukeazan bere semeak, zuk yadistetik urrin itxiko eukean zure lotsaria, zuri emona emon-aurretik zuri kenduxik, yaditxirik orain dozuna bertanbera izteko dozu-ta. Ba! illoba, munduaren yabe ba'zintzaz be, lotsagarri litzake lurralde au maiztertzarako saldutea; baño lurralde au baño eztanazkero zure mundua, ez ete da lotsagarri baño lotsagarriago lurralde au onenbesteraño lotsaturik iztea? Ingelanda'ko lur-yabe zara zu orain, ez bakaldunik: legearen bendeko da orain legezko zure egokerea; eta...

ER. B.—Eta ergel buru-arin zu, gexoaren berarizko legea dala-ta, zure onu otkazak nire mosuak zurbilduten azarten zareana, bakal-odola asarre biziz bere lekutik uxatuaz. Nire bakalдар lekuaren nagusiagotzea-arren, Edorta andiaren semearen anai ezpa'zintzaz, buruagaz batera lioake zure sorbalda lotsabakoetatik, zure buruan orren borobil dabilen miñ ori.

GAUNT.—Ui! enagizu yarei, enagizu azketsi, enagizu parkatu, nire anai Edorta'ren seme orrek, aren aita Edorta'ren seme nazalako; pelikanaren antzera, dagoneko edoski dozu zuk odol atatik, eta onazkero mozkortu be egin zara odol ori edanaren edanez! Glos-ter nire anaiea, gogoz laua, gogo laurik iñoz eta iñoñ izan ba'da, eta asmorik enenetakoa, eta Yaungoikoak bere otseinen artean izango al dau! a izan ledike autorla on ela eredu Edorta'ren odula ixurtzeko kezkarik zuk eztozula iragarteko: nik orain dodan gexoagaz kidedu zadiz; eta zure gordinkeriak, zartzarrea lez makurturik, zartada

bategaz ebagi dagiala aspaldi zimeldu ta igtaririk dagon lorea. Zure lotsarian bizi zadiz, baña lotsaria ez al da ilgo zugaz! Nire elorrio-emolla izango al dira itzok oraindik ara! Nire oera eroan nagizue, efa ilobira andik. Maitasunik eta dedurik dabena gura izango al dabe bitzea, (Alde dagi, bere otseñaik eroan daroela).

ER. B.—Eta il daitezala adfna ta mukerkeririk dabena; biak dozak, ba, ik, eta biak dozak ilobirako.

YORK.—Bere gatzaren gogaldiari ta bere adinari ezarriko al dautse zure nagusiagotzeak itzon errua, arren: maite zauz ak, nire biziaren, Hereford'eko Endfika'k legetxe maite zauz, a emen ba'lego.

ER. B.—Bai izan be, egia diñozu: Hereford'ena langoxe da orrek daustan maitasuna; eta eurena langoxe da nik dautsedana be; diranak dira zerak.

NORTHUMBERLAND aurrera.

NORTH.—Ene nagusi, gorantziak bidalduten dautsaz Gaunt'ek zure nagusiagotzeari.

ER. B.—Zer diño ak?

NORTH.—Deusik bez esan; esanda dago esatekoa; aririk bagako oskina da orain aren miña; dana agortu da Lancaster zarragan, itzak, bizia ta dana.

YORK.—York izango al da urren olan porrot egingo dauena! Errukarri izan-arren erioztea, beragaz amaituten dira emengo nabaga eraikorrak be.

ER. B.—Igalirik umatuenak yalgiten dira lenen, eta olan yalgi da a be: yoana da aren aldia, olantxe amaitu bear dau gure bidaldiak: bego orrako orregazkoa. Eire'ko gure guduaz erago dagiogun orain: ostikoperatu bear doguz "kern" (4) zakar buru-motel aik, lege bereziz eurez beste ezek edenik eztauen lur atan edena darioen aik. Eta arazo andiok dirutza andiak eroaten dabezeta, gure bearretarako artuko dogu gure osaba Gaunt'ek eban urrezuria, dirua, aren etorriak eta erredizak.

YORK.—Noz arte irauin bear ete dau nire epeak? Ene! noz arte yasan bear ete dau okerra nire bendekotasun samurrak? Ez Gloucester'en eriotzeak, ez Hereford erbestertzeak, ez Gaunt'eri egindako irainak, ez Ingelanda'ri bakarrean egindako okerrak, ez Bolingbroke errukarriaren ezkontzeari ezarritako eragozpenak, ezta neuri egindako irainak be, eztautse kolorerik aldatuazo nire mosu epetsuui, ezta nire bakaldunaren aurrean nire betozkoa okertuazo be. Edorta

zindoaren semeetatik gazteena naz ni, erretatik zarrena zure aita Kimuruerriko Bakalsemea izanik; leoi asarrerik baño asareago izan zan a guduetan, bake-aldian eguño ezte izan asuri otzanik a baño otzanagorik, bakaldar aitonseme gazte a izan zan baño otzanagorik. Aren mosua dok ik, ire antz-antzeko zoan, ba a, ire adineko zanean; baña ak betozkorik okertuten ebanean, Pantzetarrai okertuten yeutseri, ez bere adiskideai; eralgi-ala irabazi egiten *yaan aren* esku zindoak, baña etxoan eralten bere aita garailearen eskuak irabazirik: aren eskuak etzoazan bere senideren odolaren errudun, baña odoltsu ta odolti bere senideen arerioentzako. Ui! Errikarta, urri-negi eldu dozak York'en naibageak, ostan-txean ez indukedan iñoren aldamenean iminiko.

ER. B.—Ba! osaba, zer yazoten da?

YORK.—Ene nagusi ori, azketsi, parkatu nagizu, eder ba'yatsu; eder ezpa'yatsu ostera, nasai geldituko naz, zuk azketsi ezarren. Eurekaz yabetu ta zure eskuetaratu egin gura dozuz Hereford erbestertuaren yabe-bide ta eskubideak, ala? Ezta il Gaunt, ala? Eta ezta bizi Hereford, ala? Ez ete zan zuzen Gaunt? Eta ez ete da zintzo Endika? Ak ez ete eban irabazi bere onordekorik izaterik? Ezta aren etzagungeia etzagungei izateko lain, ala? Kendu egiozuz Hereford'eri bere eskubideak, eta kendu egiozuz Aldiari bere-bere legeak eta ekandutiko eskubideak; egizu gaurrek eztakarrela biarrik; ez izan zu zeu; izan be, ba, zegaitik zara zu bakaldun, urregotzatik urregoratzeagaitik baño? Orain (eta Yaungoikoaren aurrea-n diñot, eta Yaungoikoak ez al dau gurako nik diñodana egia izaterik!) okerrerez Hereford'en eskubideen yabe egin ba'zadiz, ak bere bitartekoen bidez bere eskubideen alde epaitegietara yoteko dauzan idatziak, bakalderriko idaztietan yariarik, ezereztu ba'dagiozuz, eta zuri opatu dautsun bendekotasuna ukatu ba'dagiozu, amaikatxo galgorde ba-dakazu zeure buruganera, zukanako gogo ona daben amaikatxoren biotza galtzen dozu, eta zirikatut egiten dozu nire epe samurra, nire deduak eta

(4) Eire (Eere irakurri egizu, iraikurla) edo Irlanda'ko itza do'gu "kem" daiako au, eta "oñezko gurari is'killo-arin" e-san gura dau; gerora, Ingelantarrak beste esan-gurarik be ezairi eutsuen *1/z* oni, zera., "trakets", "kirten".

- zuri opatu ta emondako bendekotasunaz
UTJ GGI*:" ^zt'-b⁰" CT^m·CIIO*²" le^u e^{mrt*}·sk^m"
- ER. B.—Uste dozuna zuk uste, gure eskueta-
ratu egiten doguz aren urrea, aren ondasu-
nak, aren diruak, eta aren lurak.
- YORK.—Bitartean enozu izango ni zure alda-
menean: agur, ene nagusi: inok ezin esan-
go dau zer etorriko dan ortik; baña eztago
aitu-ezinik bide txarretik dabilenak eztaue-
la izango atzen onik. (Alde dagi).
- ER. B.—Bertatik oa, Bushy. Wiltshire'ko Kon-
dearenera; esaiok datorrela gugana Ely-
House'ra, arazo onegazkoa an egiteko.
Biar uriengo gara Eh'erako; terizioa da izan
be; bai orixe; eta gu emendik alde eginik
garean bitarterako gure osaba York iminten
dogu Ingelanda'ko yaurlatzat; gizon artez
da, ba, a, eta beti maite izan gauz. Tira,
gure bakalduno: biar urtengo gara; gogargi
egon, batera egoteko asti gutxi dogu-ta.
(Zaamiolen otsa. Alde Bakaldunak, Bakaldu-
noak, Bushy'k, Aumerle'k, Green'ek eta Ba-
got'ek).
- NORTH.—Tira, ba, yaunak, ilik da Lancaster'
ko Dukea.
- ROSS.—Bai bizirik be, aren semea duke da
orain-eta.
- WILL.—Izenez baño ez, ez etorritan.
- NORTH.—Bietan aberats bizi be, zuzenak es-
ku'oiderik izatekotan.
- ROSS.—Andi da nire biotza; baña iztenak
eragin bear dauksaz ixilik egoteak, miñ nasa-
iz bere zamea bere ganetik kendu baño
len.
- NORTH.—Ez, ori ez, esaizu gogoko yatsuna;
eta bein geiago ez al dau itzik egingo zuri
gatxik egiteko zure itzak barriro esan dagi-
zanak!
- WILL.—Hereford'eko Dukeagazko da zuk esan
gura zeunkena, ala? Ori ba'da, len baño len
eta adoretstu ustu onizi ori; atzarrrik dago ni-
re belarria agazko onik entzuteko.
- ROSS.—Ez nik ari egin neikeon onik; onda-
sunak kendu ta oslu yakozan aren erruki
izatea. ezpa'dozu aren ontzat.
- NORTH.—Ba, Yaungoikoaren aurrean diñot, lo-
tsagarri dala berantza doan erri onetan
olango irainik ari egitea, bakalseme iza-
nik, ari ta odol zindoko beste askori be. Ez-
ta lengorik bakalduna, labankerizaleak bi-
detik atera ta ondatua baño; eta aik, guga-
nako gorroto utsez, ari iragarri dagioena
zeatz eta gogor egingo dau bakaldunak,
gure bizi, gure ume, ta gure oñordekoen
aurka.
- ROSS.—Zerrutsean itxi dau ak erri zea zera-
ga astunez, eta guztiz galdu dau erriaren

- biotza. Galena ezarri dautse andikiak, lena-
goko alkarregazko asarreakaitik, eta ouz-
tiz galdu dauz arein biotzak be.
- WILL.—Eta egun oro asmauten dauz zerga
barrien batzuk, esnterako, zenbatik izentau-
bariko eskakizunak, eskupekoak, eta ezta-
it zer be geiago; baña, Yaungoikoa-arren,
nora doa onako guzti au?
- NORTH.—Guduetan eztau eralgi orrako ori,
gudurik eztau izan-eta, bere aurrekoak gu-
duan zartadaka irabazia itunben lotsagarritz
emon eta galdu baño; geiago eralgi dau
onek bake-aldian, aik guduetan baño.
- ROSS.—V/iltshire'ko Kondeak dau bakalderria
maiztertzan.
- WILL.—Porrot eginik dago bakalduna, porrot
egindako beste edozein gizon lez.
- NORTH.—Bere buru-ganetik dingilizka dagoz
lotsaria ta ondamedia.
- ROSS.—Zerga astunak ezarri-arren, eztau di-
rurik Eire'ko guduotarako, duke erbestera-
tuari ostu dauksana baño.
- NORTH.—Bere senide zindoari ostua: bakal-
dun onen endekatuaen endekatu! Baña,
lordok, ba-dantzugu ekaitz bildurgarria txis-
tuka, eta orraitioño eztozu billatuten gorde-
lekurik, gure buruak ekatxetik yagoteko;
ba-dakusgu gogor yoten dauzala axeak gure
ontzioalak, eta orraitioño eztozu egiten
aleginik-eta, seguru galduko gara.
- ROSS.—Yasan bearko dogun urperatzea be
be ba-dakusgu; eta urperatze au dakarren
zerai yaramonik egin ezagaitik, orain bertatik
zirristik egin-ezina da galgorde au.
- NORTH.—Olangorik ez; eriotzearen betzulo
utsak gu begira ikusi-arren be; baña ezin
dot esan nasaitasuna ekarriko dauksuen bar-
rriak ur dagozantzen.
- WILL.—Tira, zure gogaketearen kide egin ga-
gizuz, gureen kide ba-zara-ta.
- ROSS.—Nasai eta ustetsu egin itz, Northum-
berland; zu zeu baño ezkara gu irurok; eta,
olan, itz egitekotan, gure gogaketak baño
eztira izango zure itzak; olan ba, adoretstu
itz egizu.
- NORTH.—Tira ba; amen zera: Port le Blanc,
Bertain'go itsas-kolkotik ixilpean arturik dot
barri au, zera, Hereford'eko Duke Endika,
Errinalda Lord Cobham, beñola Canterbury'
ko Gotzauiburu izandako bere anai Exeter'ko
Dukeagaz bere arr-emonak urratu dauzana,
Sir Toma Norpingham, Sir Yon Ramston, Sir
Yon Norbery, Sir Erroberta Waterton, eta
Pantzeska Quaint... guztiok, Bertain'go Du-
keak ondo orniduta, zortzi ontzi andi, ta iru
milla gudarigaz, onako bidean ei dira al
dabenik eta arinen, eta iparraldeko gure

itsas-baztarra laster ukututeko asmotan ei dira; onazkero an legokezan, urrean, bakalduna Eire'rako bidean noz yarriko begira ezpa'legoz. Yoputirik gaukazan gure buztarrria aztindu gura ba'dogu, lur yoteko dagon gure aberriaren ego ausia osatu ta sendotu gura ba'dogu, ba, baiturik dagon burestun lotsagarria baitegitik atera gura ba'dogu, estalduten dauen autsa kendu gura ba'daustagu gure agintza-makileko urrearri, eta na-

gusiagotza goikoa lengo antzeratu gura ba'dogu, erdue, bidari-bidez nigaz batera Ravenspurg'era yoteko; baña orretarako adorerik ezpa'dozue, orretarako bildur ba'zarie-emen gelditu ta gorde ixilkizuna-ta, neu yoango naz.

ROSS.—Zaldi-ganera, zaldi-ganera! Bildurtia aitatu ez-yoango-bai-yoangoak.

WILL.—Nire zaldiak erantzun ba'dagist, neu izango naz lenen an. {Alde dagie}.

II AGERLEKU.-Bakal-yauregiko leku.

BAKALDUNOA, BUSHY, ta BAGOT aurrera.

BUSHY.—Andera, gotilunegi dago zure nagusiagotzea: biziari kaltegarri yakon gotilun-keria baztatu ta gogargi egongo zintzazala agindu zeuntson zuk bakaldunari ari agur egiterakoan.

BAKAL.—Orike egin neban, bakaldunaren ederragaitik; baña neure ederragaitik ezin dot egin olangorik; orraitioño be eztakit zegaitik emon bear dautsadan Iekurik naibagea lango arrotzeri, nire Errikarta lango arrotz maite agur egiteko izan ezik: orraitioño be, nire ustez, alanbearraren sabelean eldurik baña oraindik yaioteko dagon naibageen bat ba-datorkit; eta ikaraz dago nire gogoia nire barruan, zegaitik danik eztakidala; nire yaun bakaldunagandik bananduteak baño geiago naibagetuten nau beste zerbaitek.

BUSHY.—Ogei itzal dauz naibagearen mami bakotxak, naibagerik izan ez-arren naibagea bera dirudienak; izan be, naibagearen begiak, negar itsukorrak liluraturik, ainbat zati egiten dau zer oso bat; ikuskizun batzuk yazoten danez, aurrez-aurre begiratuazkero, naste uts; zeanetara begiratuazkero, antz garbia: olan, zure nagusiagotza maite orrek be, zure yaunaren alde-egitea zearretara begiraturik, zure yauna beraz ganera naibageirudiak idoroten dauz an, zuri negar eragiteko; baña zerok eurak dirarez begiratuazkero, eztanaren irudi baño besterik eztirala dakuskezu. Olan, ba, bakalduno ezti be ezti, zure yaunaren alde-egiteaz bestegaitik ez egizu negarrik egin, beste zegaitirik ezta agiri-ta; eta besterik egotekotan, naibagearen begi guzurtiz ikusten dana baño ezta, irudituriko zerak, naibage-begiarrenak, egiazkotzat negar eragiteko.

BAKAL.—Ba-Iedike olan izatea; baña orraitioño be barruan nire gogoak bestera dala sartzen daust buruan: dana dala, gotilun

egon-bearrean nago; gotilun be gotilun, ain gotilun-eta, gogaketan daragoiodanean, gogaketarik bateri be yaramonik egin ez-arren, zer astunik ezer izan ez-arren, yausita ta estuturik geldituten yat biotza.

BUSHY.—Burutapena baño besterik etxatsu ori, ene andera eskartsu.

BAKAL.—Olangorik ez: lenagoko naibageen batetik sortuten da burutapena; nireagazkoa ezta olangorik, zerbait dalako nire naibagea ezta ezek sortu-ta; edo-ta, zerbaitetik dator ni naibagetuten nauen deusik ez au; aurrezkit dot nik nai'oage au, ezek sortu bagarik; baña oraindik eztakit naibagea dakastana zer danik; ezin dausat izenik ezarri; izenik bagako zori txarra da, nire ustez,

GREEN aurrera.

GREEN.—Yaungoikoak yagongo al dau zure nagusiagotzea! eta trikitx ondo eginak, aitonsemeok: oraindik ez al da ontziratu bakalduna Eire'rako.

BAKAL.—Zegaitik dozu itxaro ori? Itxaro oiba da a ontziraturik izatea; izan be, iradumin dira aren arazoak, a arin ibilte da itxaro ona: olan, ba zegaitik dozu itzarorik a eztala ontziratu oraindik?

GREEN.—Gure itxaro dan ak, bere indarrak andik atera al izcingo eukezalako, ta etsipeneratuko eukealako lur onetan euren oña tinko imini izan dabenen itxaroa: Bolingbroke erberesteratuak berak emon dausto atzema bere erbeste-aldiari, eta iskilloak eskuetan goian dauzala, onik eldu da Ravenspurg'era.

BAKAL.—Yaungoikoa-arren, ez al da izango olangorik!

GREEN.—Ui! andera, egiegi da: eta okerrago dana, Lord Northumberland, aren seme gazte Endika Percy, Lord Ross, Lord Beaumont,

eta Lord Willoughby, euren adiskide indartsu guztiakaz, agana igesi eginak dira.

BUSHY.—Zegaitik eztozak aldarrikatu saltzallatzat Northumberland eta yagi diran ganetikokoak?

GREEN.—Eginda yagok orrako ori: eta orrako ori entzundakoa, ausi egin yok bere makilea Worcester'ko Kondeak, itxi egin yok bere ondasuntzaitzea, eta bere etxeko otsein guztiak beragaz batera igesi egin yoak Bolingbroke'gana.

BAKAL.—Okm, ba, Green, zu zara nire zori txarragazko emagina, eta Bolingbroke nire naibagearen oñordekoa, nire naibagearen zori txarreko umea: orain argitaratu dau zer arrigarria; eta nik, arnas-estuka nagon ama erdi-barri onek, zori txarrari zori txarra, naibageari naibagea erantsi dausat.

BUSHY.—Etzadiz etsi, andera.

BAKAL.—Nok eragozteko niri ori? Etsita geldituko naz, eta arerio egingo natxako itxaro labankerizaleari, zuritzalla da, inorren lepotik bizi dana da, eriotzeari atzera-eragila da biziaren lokarriak bigun azkatu gura leukezana, atzenean be, itxaro ustelez, nekez eta miñez azkatuten diran lokarriak.

GREEN.—Emen dator York'eko Dukea.

BAKAL.—Bere iaun zarrean gudu-atzak, gudu-zaugarriak dakazala: Ui! bere begirakuneak arazo astunez beterik dakazala!

YORK aurrera.

Osaba, Yaungoikoa-arren, itz nasaigarriak esango al daukuzuz.

YORK.—Olangorik egingo ba'neu, guzurtu egingo neunkez nire gogaik: zeruan dago nasaitasuna; gu, ostera, lurrean gagoz, kurutze, kezka ta naibagaz besterik eztagon lurrean. Urrineko lurra yagoten yoanik da zure senarra, beste batzuk etxekoa galduatoteko dotozan bitartean; emen nago ni aren lurrari eusteko emen itxita, eta ni, nire adinak makaldurik, neure buruari eusteko be enaz gauz; orain dator aren betekadak, aren geigikeriak dakarren gatxa; orain ikusiko dau ak zelango diran berari zuriakeriak esaten emetsoezan bere adiskideak.

Otsein bat ourrera.

OTS.—Ene lord, ni eldu baño len yoanik zan zure semea.

YORK.—Bai ete? Ba! ori be bai? Yazotekoa yazo dadila! Igesi dabe andikiak, otzik dago erri zea, eta bildur naz, Hereford'en aldera itzuli ta yagiko ete dan. I, txotxo, oa Plashy'ra, nire arraba Gloster'gana; berta-

tik bidali dagistazala milla libera esaiok ari: auto, artuik nire erestuna.

OTS.—Ene lord, aztu egin yat zuri yaun orri esatea, gaur andik igaro-ala, an deitu dotala; baña enoa ganetikoa esanaz zu naibagetuten.

YORK.—Zer dok orrako ori, txotxo?

OTS.—Ni eldu baño ordubete lenago il da dukenoa.

YORK.—Gure erruki izango al dau Yaungoikoak! Uriola lez lur negargarri onen ganera batera dotozan zori txarren zori txax! Ez-takit zer egin be: Yaungoikoak gura izan al leu (nire zintzoeziasur.ak ari orretarako biderik emon ez-arren) bakaldunak nire burua nire anaiearenagaz batera moztu izatea. Ostera! ez ete da bidali bidaririk Eire'ra? Zelan zuzenduko dogu guduotarako dirua? Tira, arraba (illeba esan gura izan dot), parkatu nagizu, arren. (Otseinari) Oa, txotxo, burHien ^atzuk gertauteko, eta ekadak an dodan guda-koskola. (Otseinak alde) Aitonsemeok, gudarigeiak batzen yoango ete zarie? Onan nasturik nire eskuataru diran arazook zelan, eta ze bidez zuzendurik ba'dakit, ez egidazue iñoz be sinistu. Biak yataz senide; nire nagusia na bata, nire zinak eta nire bendekotasunak, biak, batera, bere alde egiteko aginduten daustena: bestea, ostera, bakaldunak okarrak egin dau tsazan nire senide da, eta nire yakinkidetzak eta nire senitasunak biak aginduten dauste ari zuzena egitea. Tira, ba, zerbait egin bear dogu. Tira, illoba, leku seguruan iminiko zaudaz. Aitonsemeok, zoaze ta batu egizuez zuon gizonak, eta zatoze bertatik Berkley'ko Gaztelura, nire billa, Plashy'ra be eldu bear neunke; baña eztoz izango orretarako astirik; -dana dago buruz bera ta oñez gora, eta alanbearraren eskuetan itxi bearko dana. (Alde YORK'ek eta BAKALDUNO'ak).

BUSHY.—Axe egokiak daragoioe puzka bariak Eire'ra bidalteko, baña andiko barrikerik eztozu ezetarikerik be. Gugazko, guk ezin dogu batu arerioari erantzuteko lain dan indarrik.

GREEN.—Orrez ganera, gure maitasunak bakaldunagana urreratuten gauzan bestean ur yaku a maite eztauenen gorrotoa.

BAGOT.—Eta or dok zein aldetara itzuliko ete dan alboraka dabilen erri zea; euren maitasuna euren sakeletan datza-ta; eta euren sakelakustu dagizanak, ustuago ta gorroto geiago izango yok aikandik.

BUSHY.—Ortik atera egik alde guztietatik dagola gaitzetsita bakalduna.

BAGOT.—Aik ebaztekotan bakalduna, gu be ebatziak gintzakezak, gu beti egin gozak bakaldunagandik urr-eta.

GREEN.—Tira, ba, artez naioak ni gordeleku-tzat Bristol'go gaztelura; onazkero an dok Wiltshire'ko Kondea.

BUSHY.—Ara yoango nok neu be igaz; onik gitxi egingo yauskuk gorrotoz beteriko erri zeak, ba, txakur txatxarrak lez zeatu ta txataldu baño. Gugaz etorri gura ete dok?

BAGOT.—Ez; bere nagusiagotzeagana, Eire'ra yoango nok ni. Onik eta ondo ibili: utsak ezpa'dozak nire biotzaren igarpenak, emen alkarregandik bananduten garean irurok ezkozak beste bein alkarregana batuko.

BUSHY.—Bolingbroke'ri atzerantza eragiteko York'ek zelan yokatuten dauenaren eskue-tan yagok ori.

GREEN.—Ai ene! Dukearen errukarri! Ondarrak zenbatutea, eta edanez itsasac agortutea bestean gatx dok ak beraganduten dauen egikizuna; batek egingo ba'yok burruka aren aldamenean, millakak izango dozak igesi egingo dabena. Agur bertatik, bein betiko.

BUSHY.—Ba! oraindik barriro be batu gendikez.

BAGOT.—Bildur nok, bein be ezkareala batuko. (Alde dcigie).

III AGERLEKU.-Glostershire'ko lekaroa (bascmortua)

BOUNGBROKE ta NORTHUMBERLAND aurre-ra, Indarrakaz.

BOL.—Zenbat bide dago ,ene lord, emendik Berkley'ra?

NORTH.—Sinistu egidazu, lord zindo, erbeste-ko nozu emen Glostershire'n: luzatu egiten dauskuez millak-eta, gogaikarri yakuz mendi garai soilok eta bide latz ez-bardinok; orraitio, bide latza gozo ta atsegingarri egiteraño gozo ta atsegingarri egin yat zure itzaldia. Baña, nire ustez, Ross eta Willowghby'ri bai egingo yake nekatsu ta aspergarri Ravenspurg'etik Cotswold'erako bidea, zu laguntzat izan ezagaz, zure laguntza orrek, ba, eta autortu daurtort, asko be asko arindu daust ibiltaldi onen gogaikarritasuna: baña nik orain dodana eurak be izatsko itxarora da areina gozatuten dauena; eta pozaren itxarora euki daukagun poza baño asko gitxiago ezta pozaien aldetik; onako onek labor eretxiatzoko dautse euren bidea lord nekatuai, nik dautse zure laguntza izateak niri eretxiato daustanez.

BOL.—Zure itz onak baño gitxiago da gei nire laguntzea. Baña nor dator emen?

NORTH.—Nire semea da ori, Endika Percy gaztea, nondik etzakidala, nire anai Worcester'ek bidalia.

ENDIKA PERCY aurrera.

Endika, zelan yagok ire osabea?

PERCY.—Zuokandik yakingo neunkeala aren osasuna uste neban nik, ene lord.

NORTH.—Ba! bakaldunagaz etxagok a, ala?

PERCY.—Ez, ene loid on; bertanbera itxi dau bakal-yauiegia, ausi egin dau beie ogibi-

demakilea, eta sakabanatu egin dauz bakaldunaren etxeokak.

NORTH.—Zegaitik egin yok orrako ori? Etxegoan, ba, a orren ebatzirik guk azkenengoz itz egin geuntsanean.

PERCY.—Zu, lord ori, saltzalla aldarrikatu zinuezalako. Baña a, ene lord, Ravenspurg'era yoanik da, bere otseintzea Hereford'eko Dukeari eskeintzeko; eta Berkley'ra bidali nau ni, York'eko Dukeak an zelango indarrak batu dauzan ikusteko, gero andik Ravenspurg'era yoateko niri aginduz.

NORTH.—Aztuta daukak Hereford'eko Dukea, ala, mutil?

PERCY.—Ez, ene lord on; eguño gomutau izan eztdanik ezin aztu ledike-ta: nik dakidanez nire bizian eguño ezto ikusi aren arpeirik.

NORTH.—Olan ba'dok, oraintxe ikasik a ezaututen; au dok arako dukea.

PERCY.—Ene lord eskartsu, nire otseintzea opatuten dautsut, dana dalakoa, samurra, gordina, ta gaztea; eta egun zarragoak eldu ta sendotuko dabe otseintza au, otseintza obarako ta aintzakoagorako.

BOL.—Eskarrik asko iri, Percy txerakor; eta seguru ago, ezek be enaue'a geiago poztuten, nire adiskide onak gogoratuteko biotza eukiteak baño; eta ire maitasunagaz nire zori ona eldu ta umatu dadinean, izango dok ire maitasun zintzoaren saririk: itunben au egiten yok nire biotzak, eta onan ikurraztuten yok.

NORTH.—Bide luzea ete yagok emendik Berkley'ra? Eta zetara yoteko dok an York agure ona bere gudariekaz?

PERCY.—An dozu gaztelua, zugatz-mordo

orren andikaldean, nik entzun dodanez yagola-indartzat irureun gizon dauzala; eta an dagoz York, Berkley, eta Seymour'ko lordak, besterik iñor bez, izenduntzat eta aitonsemetzat estekorik.

NORTH.—Emen datoz Ross eta Willowghby'ko Lordak, aztalak odoldurik, eta arin eginez arpegiak gorri dabezala.

ROSS eta WILLOWGHBY aurrera.

BOL.—Ondo etorriak, ene lordok. Ba-dakit nik saltzalla erbesterratu baten yarraí ibilteko bidean imini dozuela niganako zuon biotz ona; bein-beinean eskar ukutu-ezin baño eztria nire ondashun guztiak, baña zuan nekearen eta maitasunaren saritzat izango dira aberatsago egin dadizanean.

ROSS.—Zeu emen aurrean eukiteak egiten gauz aberats, lord zindo be zindo ori.

WILL.—Eta ondasun ori askozaz be andiogo da guk ona etorteko artu dogun nekea baño.

BOL.—Eskarrak asko beste bein, eskerrak dozak txiroen ondasuna-ta; eta au izango dok nire eskuabaltasuna nire zori on umea azi arte. Baña nor datorku emen?

NORTH.—Berkley'ko nire lorda da ori, oker zepa'nago.

BERKLEY aurrera.

BERK.—Hereford'eko ene lord, zutzako da nik dakadan geznea.

BOL.—Ene lord, Lancaster'entzako dala da nire erantzuna; eta ízen orren billa etorri naz Ingelanda'ra; eta zuk esango dozun ezeri erantzun baño len, ízen ori ikusi gura dot zure miñean.

BERK.—Ez egidazu oker aitu, ene lord; ez-tot nik asmorik zuri izengoitirik bat be kentzeko: zeuk nongo lord izatea gura, zuga nator lur onetako bakaldun-ordeko begiragarri be begiragarri dan York'eko Dukea-gandik, yakiteko zek zirikatu ta bultau zauzan bakalduna emen eztan bitartean aberri onetako bakea iskilloz austeko.

BOL.—Ezot ízango nire itzak zuk eroan bearririk, bera dator ona-ta.

YORK aurrera, lagunakaz.

Nire osaba zindo ori! (Belaunikatu egiten da).

YORK.—Ire biotz apala erakutsi egidak, ez ire belaunik, orrein egitekoa iruzurkor eta ustel dok-eta.

BOL.—Ene osaba on ori!

YORK.—Út, ut! enagik deitu ez on, e3 osaba; enok ni saltzallaren osabarik; eta ago txarrean loitu baño eztok egiten beste itz ori, on dalako ori. Zegaitik azarri dozak ire zango erbesterratu ta galazoak bein be Ingelanda'ko lurraren autsik be ukutuen? Baña zegaiti egaiorik be eskatu bear dauskat oraindik..., zegaitik azarri dozak ire zangoak aren bular baketsuaren ganean orrenbeste millako biderik egiten, ango uri mosuzurbilak guduz eta iskillu gorrotagarrien erakusketa arroz ikaraturen? Bakaldun gantzutua emen eztalako etorri az, ala? Ba! mutil ergel, atzean gelditu dok bakalduna, baña nire biotz zintzoan yagok aren ala. Gizonen artean Marte gazte zan arako Bakalseme Baltza ire aita Gaunt'ek eta nik Pantzetar millaka askoren artetik yarei gebanean nintzan lango lord gazte bero ba' nintzok orain, Ui! ordukorik izatekotan, orain elbarriaren atxilo dan beso onek bai zigortauko indukela, eta ire utsari txibita lango txibitea emongo leuskiola!

BOL.—Ene osaba on, erakutsi egidazu nire utsa; zelango dan eta non dagon.

YORK.—Egokerarik txarrean yagok egcn..., matxinada utsean eta saltzerik gorrtagarrienean: erbesterraturiko gizon az i; eta emen ago i, erbeste-aldia igaro baño len, ire nagusienari iskilloz eupada egiteko.

BOL.—Ni erbesterratu nindunean, Hereford erbesterratu nintzan ni; baña etorri natorrenean, Lancaster'tzat natox. Eta, osaba zindo, zure ontasunari arrenka nago ni nire irainai alderagotikeri bagarik so egin dagiezula, alderdikeri bagako begiz: nire aita zara zu, zuga Gaunt zarra bizirik dakustala uste dot-eta; Ui! olan ba, nire aita, íxiko este dozu zuk ni aldarrai ibiltera gaiztetsita egoterik; nire ondasun-bide ta eskubideak indarrez niri besoaetik kendurik, ondantzalleak gora igon daitezcan? Zetarako yaio nintzan? Ingelanda'ko bakaldun ba'da nire lengusua, ni be Lancaster'ko Duke nazcda autortu bear dozu. Ba-dozu zuk seme bat, Aumerle, nire senide zindoa; bera baño lenago il ba' zintzazan zu, a onan ostikopean zapaldu izan ba'leue, aita izan bear litxakion Gaunt ari, aren irainai erantzuteko, eta irainginak ormarantza estututeko. Ukatu egin dauste emen nire eskubideen alde yokatutea, eta orraitio orretarako eskubidea emoten dauste nire idatzi-agiriak; ostu ta saldu egin dabez nire aitaren ondasun guztiak; eta txarto erabili izan dabez oneik eta dana. Nik zer egitea gurako zeunkean? Bendeko naz ni ta legeari eske nago: galazo egiten

yataz nire bitartekoak; eta au dala-ta, nik neuk egiten dot berez datorkidan nire etzaguntzarako eskakizuna.

NORTH.—Okerrik geiegi egin dautsoe duke zindoari.

ROSS.—Zuri, yaun on orri, dagotsu orri zuzena egitea.

WILL.—Andi egin dira gizon zirtzilak orren etzaguntzeagaz.

YORK.—Ingelanda'ko ene lordok, auxe esaten itxi egidazue: min egin dauste ire lengusuak iri egindako irainak, eta egin nein-kean guztia egin yoat ari zuzena eragiteko; baña onetara etortea, iskilloz eupada egiteko, noberari deretxona egiteko, eta nobe rari deretxon bidea artuaz, zuzenaren billa okerreriz yoanda..., ori etxagok ondo; eta zuok. onetan orri lagun zatxakioezanok, matxinadazale zarie, eta guztiok zarie asal-dari.

NORTH.—Berearen billa baño eztatorrela zin egin dau duke zindo onek; eta berea billa-tute onetan lagun izango gatzakozala zin gogorra eginik gagoz; eta zin au ausi da-gianak ez al dau iñoz be poza zer danik ikusiko!

IV AGERLEKU.-Kimuruerriko Zabala.

SALISBURY ta Gudalburu bat aurrera.

GUD.—Salisbury'ko ene lord, amar egun dira emen gagozala ta nekez euki doguz batera gure aberkideak, eta orraitño, eztogu oraindik bakaldunaren barririk; au dala-ta, sakanatu egingo gara: agur.

SAL.—Etxoik beste apur baten, Kimurutar us-tegarri orrek; uste osoa yok igan bakaldunak.

GUD.—Bakalduna ilik dalako ustea dago; ezin dogu etxon. Zimeldu egin dira erñontz guz-tiak gure Iurraldean, eta izarki ibiltariak ikaratu egin dabez izar tinkoak ortzean; gorri emoten dau lurretik iratargi mosu-zur-bilak, eta aldakuntza bildurgarriren baten zurrumurua zabalduten daragoie igarla mosu-igarrak; goibel dagoz gizon aberatsak,

YORK.—Tira ba, tira, ba, ba-dakust zetarako diran iskillook; nik ezin dot arteztu au, au-tortu egin bear dot, makal da, ba, nire indarra eta dana egoan txarto bera artu ne-banean: zuoi eraso, eta zuoi bakaldunaren errukiaren aurrean burua makurtuazo gu-rako neuskitsue nik; baña olangorik ezin dodanazkero, yakizue alderdi bien bitartean geldituten nazala ni. Olan ba, onik eta on-do ibili; gaztelura sartu ta arrats onetakoagaitik an gau au egin eta atsedean artzea go-goko ezpa'yatsue.

BOL.—Ontzat artuko dogu, osaba, zure eskein-tza ori: baña zure ederra irabazi bear do-gu gugaz batera Bristol'go gaztelura yoan zadizan, ari eusten an ei dagoz, ba, Bushy, Bagot eta euren kideak, bakalderriaren ze-ruko katuok, eta zin eginda nago ni, aik erauzi ta zustraretik aterateko.

YORK.—Ba-ledikek ni igaz batera yoatea; ba-ña buruan erabili bear yoat arazo ori, lo-tsa nok, ba, gure aberriko Iegerik austeko. Ez adiskide. ez arerio, ondo etorriak zatxa-taze: atonduterik eztaben zerak etxaustiek emon bear orain buruko minik. {Alde da-gie}.

eta yantzan eta ikutika daragoie zitalak..., dabena galtzeko bildurrez batzuek, naste ta guduz irabazteko itxaroz besteak: bakaldu-nen eriotzearen, naiz yaustearen aurren-dari izaten dira onango atzak. Agur: yoanik eta igesirik dira gure aberkideak, Errikar-ta bakalduna ilik dala seguru ba'Tegoz Iez. (Alde dagj).

SAL.—Ai, JErrikarta, biotz astunaren begiz ikusi dakust zure aintza ortzetik lur zaka-rrera yausten, izarki ibiltarien antzera! Ne garrez sartzen da eguzkia, beerako sarre-ran, etorteko diran ekatzak autortuteko, zo-ri txarra, ta egon-ezina; igesirik dira zure adiskideak, zure arerioen otsein izateko; eta zer guztiak doaz zure zori onaz bestera. (Alde dagi).

III EKITALDI

I AGERLEKU.-BOLINGBROKE'n Gudallegia BrisloI'en.

BOLINGBROKE, YORK, NORTHUMBERLAND, PERCY, WILLOWGHBY, eta ROSS aurrera; Agintza-gudariak atzetik, BUSHY ta GREEN atxilo dakarrezala.

BOL.—Aurrera ekarri gizonok. Bushy ta Green, zuon gogoak euren soñetatik bereala alde egin bear dabe-ta, zuon bizitza kaltegarriak au ta bestea izan dirala esanez, zuon go-gooi elorriorik eztautset ezarri gura, ori erru-kiaz besterako litzake-ta; orraitíño be, zuon odola nire eskuetatik ikuzteko, emen, gizo-nen aurrean, agertuko dodaz zuon erio-tzearen zegaiti batzuk. Okerreko bidez era-bili dozue zuok bakalseme bat, bakaldar ba-kaldun bat, aitonseme bikaina, bai odolez, bai soinkeraz, osoan endekatu dozue zuok eta bere soin ederra itsusitu dautsazue: gabetako zuon yan-edan eta osteango gei-gikeri obentsuz ezkontza-austea egin dozue-la esan ledike bere bakaldunoaren eta ba-kaldunaren bitartean; ausi ta eten egin do-zuek ak bakaldun-ocan izateko orduak, eta orbandu egin dozue bakalduno lirainaren masuetako edertasuna, zuon okerreri zaka-rez aren begiaí xuriazotako negarrez. Neuk be (nire yaiotzearen alanbearrez bakalse-me, odolez bakaldunaren urreko, eta zuck ari niga^koa oker aiiuazo arte aren biotzean be urreko mintzan onek be) makurtu dot nire iduna zoun irainpean, eta nire Ingelandar arnaseak intziriak intziri egin dauz erbes-teko lañapean, erbesteratuaren ogi mingotsa yanaz; bitartean, nire etzaguntzea yan do-

zue zuok, lurreratu dozuez etxe-ondoko zu-gatzak, ebagi dozuez nire basoetako zuga-tzak, erauzi egin dozuez andik nire leioeta-ko mazmarroak, deuseztu nire andiki-agiriak, • aitonseme nazala munduari erakusteko gi-zonen uste ta neure odol biziarenaz beste ezaugarriak itxi bagarik. Au ta asko geiago, guzti au baño besie ainbesie geiagok erio-tzarako epaia emoten dautsue. Epaia bete-teko ardurea artu bear dabenen eta eriotzea-ren eskuetaratu egizueez oneik.

BUSHY.—Atsegingarriago yat niri eriotzearen zartadea, Bolingbroke Ingelanda'ri yakon baño.-Agur, lordok.

GREEN.—Zera da nik dodan poza ta nasaita-suna, zeruak artuko dauzala gure gogoak, eta Yaungoikoak su-lezako elorriok eza-rriko dautsazala zuzentzarik ezari, izurritzat.

BOL.—Ene lord Northumberland, zuk artu orreina egiteko ardurea. (Alde NORTHUM-BERLAND eta beste batzuk, atxiloakaz). Osa-ba, zurean dala bakaldunoa esan daustazu zuk; Yaungoikoa-arren, ondo artuko al do-zue; nire gorantzi txeratsuak bidalten dau-tsadazala esaiouzu; berarizko ardurea artu egizu nire agurraz eldu dakiozan.

YORK.—Nire aitonsemetariko bat bidali yoat ik dautsakan biotz *ona ari* idazki luzez ira-garriaz.

BOL.—Eskarrik asko, osaba txerakor. Tira, lordok, goazen aurrera, Glendower eta be-re lagunen aurka burruka egiteko: lan apur bat orain, oporraldi gero. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Kimuruerriko Itsas-ertza, Gaztelu bat agirian.

Zaamiolen otsa; danborrak eta tutuak. ERRI-KARTA BAKALDUNA, CARLISLE'KO GO-TZIAIA, AUMERLE, ta Gudariak aurrera.

ER. B.—Barkloughly'ko Gaztelu ez ete dabe deituten or urrean dagona?

AUM.—Bai, ene lord. Zelan yasan al dozuz axe zakarrok, oraintsu itsaso asarrean izan dozun astinaldiaren ostein?

ER, B.—Besterik ezinean gogoko izan bear, ba: pozarren negarrez nago ostera be nire bakalderrian nagolako. Lur maite, agur egi-ten dauskat nire eskuz, matxinadazaleak i euren zaldien apatxez zauritu-arren; eta as-

paldi bere umeagandik alde eginik egon dan amak, alkarregaz barriro aurkitutekoan, bere umea besartean barrez eta negarrez estutu ta kutunduten dauen lez, olantxe ku-tunduten aut nire bakal-eskuz, ene lur. Ez egiok emon yaten ire nagusienaren arerioa-ri, ene lur maite, eta ez egik poztu ire go-zotasunez aren sai-yangarrik be; ire edena edoskiten daben armiarmak eta kunkun ibil-kerá geldokoak imini egizak euren bidean, lapur-oinkadaz zapalduten auen oin etoiak kezkatu dagiezan; zista egiten eta erreten daben asunak sortu egizak nire arerioentz;

eta ire sabeletik Iorarik ostu dagienean, ar-
durea artuik, arren, bere azpian kuika da-
gon sugedorriak bere miñ bikotex eta uku-
tuaz bat, bakaldunaren arerioai eriotzea eka-
rri dagitsoen. Lordok, ez egin iririk eta ba-
rrierik nire aratze ergel onegaitik; sokor
agingo dx lurra, eta iskillodun gudaritu
egingo dira arriok, euren bakaldun yatorra
matxinadazaleen iskilloen aurrean oztopoka
lurrera yausi baño len!

CARL.—Ez izan bildurrik, ene lord- ba-dau
alik zu bakaldundu zinduzan Alak, alik guz-
tiakarren zu bakalduntzan eukiteko. Artu
egin bear dira Yaungoikoak bidalten dau-
zan bide ta eskuarteak, ez or baztarrean
bertanbera itxi; ostanlanean, Yaungoikoak
bai, baña guk geuk artu gura ezik, ortik
zear bidalten dogu Yaungoikoak eskeindu-
ten daskun laguntzea ta gure arerioai go-
gor egitea.

AUM.—Zera da orrek esan gura dauena, ene
lord, geldoegi gareala gu; Bolingbroke, oste-
ra, guk gure burua segurutzat dogula-ta,
indartsu ta andi egiten da bien bitartean,
bai ondasunez. bai adiskidez.

ER. B.—Lengusu gogaikarri ori! Eztakik, ala,
lapurrak eta ebasleak, iñok ikusteka, or za-
bal ibilten dirala, zabal eta ausarti, eraillte
ta beste okerrerieta, ortzeko begi aztertza-
llea berak argituten dauen zer borobil onen
beste aldean ostonduta dagonean; baña
lurrezko zer borobil onen azpitik yagiten dan-
nean, eguzki-aldeko lerren (piñuen) tontor
arroak sutan iminten dauzala, eta errudun
zulo guztiak zear yaurtiten dauela bere ar-
gia, eta orduan, euren bizkarretatik gabaren
estalgia kendurik, billusik eta narru gorrian
eta ikara baten geldituten dirala eraillteak,
etoikeriak, eta oben askarriak? Olan, lapur
onek, etoi onek, Bolingbroke onek, bitarte
guzti onetan gu gure oñez beste aldekoa-
kaz ortik zear ibili izan garean bitartean
gabaz bereak egiten ibili izan dan onek iku-
siko gaiozak gu gure bakaulkian yagiten,
gure eguzki-yagikeran, gorri-gorri egingo
yautsoek arpegia bere azpikeriak, egunaren
argia ta arpegia yasan ezinik, eta bildur-
turik ikara baten geldituko dok, bere obena
dala-ta. Itsaso latz zakarreko ur guztiak be
eztozak asko bakaldun gantzuturi bere gan-
tzu edo koipea kentzeko; munduko gizonen
itzek ezin yok kendu bere lekutik Yaunak
auturiko bere ordezkorik; eta izan be, Bo-
lingbroke'k gure urrezko burestunaren aui-
ka galtzaidu zorrotza eragiteko bultzau izan
dauen gizon baktxaren alderako, angeru
eder bat yaukai Yaungoikoak bere Erri-

karta'ren alderako, zerutar alogerez ordain-
durik: aiko or, ba, angeruak burrukan sar-
tuazkero, yausi egin bear gizon mengelak,
oraindik be Yaungoikoak zuzena yagoten
yok-eta.

SALISBURY aurrera.

Ondo etorria, ene lord: urrin ete dagoz zure
indarrak?

SAL.—Beso makala baño ez urrege, ezta
urrinago be, ene lord on: kezkeak darabil
nire miña, eta etsipenaz bakarrik itz egite-
ko aginduten daust. Bildur naz, ene lord zin-
do, egun batez beranduegiak lur onetako
zure egun zori ontsuak lañaperatu ta ilundu
dauzala: Ui! atzoari dei egiozu atzera elori-
rri dadin, atzera etorteko agindu egiozu al-
diari, ta amabi milla gudari izango dozuz
burrugarako! Gaur, gaui, egunaren zori
txarreko, beranduegi da gaur, itzuli egiten
dauz zure pozak, zure adiskideak, zure
zori ona, eta zure ala; izan be, ba, Kimuru-
tar gizon guztiak, zu ilik zintzazala entzu-
nik, Bolingbroke'gana yoan dira, sakabana-
tu ta igesi egin dabe.

AUM.—Nasaitu zadiz, ene nagusi; zegaitik za-
goz orren zurbil, ene nagusi on ori?

ER. B.—Ointxe ointxe baño eztala ogei milla
gizonen odolak garaila ziralako nire mo-
suan, eta orain guztiak igesi dabelako; eta
orrenbeste odol atzera nire mosuia etorri
arte, ez ete dot biderik, ez ete dot zegaiti-
rik zurbil eta ilik egoteko? Yarei ta bizirik
egon gura daberen guztiak igesi egiten dabe
nire aldamenetik, aidiak nire arrotasuna or-
bandu dauelako.

AUM.—Nasai, ene nagusi; gogoratu nor za-
rean eta zei zaiean.

ER. B.—Neure buruaz azturik nengon: enaz
bakaldun, ala? Ezta bakaldunaren izena be-
rrogei milla izen besteko, ala? Iskillok ar-
tu, iskillok artu, ene izen! Bendeko txiki-
txiki batek yoten yok ire aintza andia.-Ez
eratsi lurrera zuon begiikuneak, bakaldun-
naren kutunok: ezkara yagi ta goiko, ala?
Goitar bediz gure gogaketak be: ba-dakit
nik indarrik asko dauela gure osaba York'
ek gure lairialdi onetarako. Baña nor dator
emen?

SCROOP aurrera.

ECROOP.—Nire miñ kezkatuaren otsak emon
leion baño esasun eta zori on geiagorik
izango al dau ene nagusiak.

ER. B.—Idigita dagoz nire belarriak eta ger-
turik nire biotza; zuk zabaldu zeinskadazu-

nik okerrena be mundu onetako galtze da. Esaik, galdurik ete dok nire bakaldenia? Ba! kezkabide baño etzoan nitzako; eta ze galzerik yagok kezkatik yarei geldiutean? Geu bestean andi izateko aleginetan yara-goiok Bolingbroke'k, ala? Andiago eztoz izango; Yaungoikoaren otsein izan ba'da-di a, geu be aren otsein izango gozak eta, olan. lagun izango gatzakozak orretan, ki-de; asaldatu egin dirala gure bendeoak? Ezin osatu ori, ezin leneratu guk; guri bes-tean Yaungoikoari austen dautsoe euren zintzotasuna: zori txar, ondamendi, triskan tza, galtze, ziskatze gedar egidak, bai; eriotzea dok okerrena, eta eriotzea izango yoat egun onetan!

SCROOP.—Pozik be pozik nago zu nagusi ori barri txarrak yasateko iskilloz yantzirik zagozalako. Mundu guztia negarretan urtu izan ba'litz lez, urrezuri-ibaiai euren ertzak urperatuazoten dautsezan aldiz besterako eguraldi ekaiztsuaren antzera, neurritz gora yagiten da Bolingbroke'ren asarre gorria, zure lur bildurrez beteak galtzaidu gogor argiz, eta galtzaidua baño biotz gogorragoz estalirik. Iskilloz estali dabez bizar-zuriak euren kaskazur me ulduak zure nagusiago-tzearen aurka; eta emakume-abotsa daben mutikoak itz gogorak esaten aleginduten di-ra, eta euren azpegiak guda-koskol tinko astunez estalduten dabez zure burestuna-ren aurka; zure arrengeileak eurak be ikas-ten dabe birritan eraikor dan aginezko arranbelak makotuten, zure agintzearen aurka; areago, emakume iruleak be ba-darabi-lez euren irula-kako ugertsuak zure yezar-lekuaren aurka: gazte ta zar, bitsuek asal-datuten dira, eta dana doa nik esan nei-en baño txartoago.

ER. B.—Ondoeqi, ondoeqi diñok ik ipuin ain txarra. Nondik dok Wiltshire'ko Kondea? Nondik dok Bagot? Zer yazo yakok Bushy'ri? Nondik dok Green? Zelan itxi yautsoek olango arerio kaltegarri gure mugaba-rruak olan nasai nasai neurrituten? Guk irabaztekotan, euren buruakaz ordainduko yoek onako ori: egingo neunke onezkoak egin dabezala aik Bolingbroke'gaz.

SCROOP.—Izan be, onezkoak egin dabez aik agaz, ene lord.

ER. B.—Zitalok, sugedorriok, betirako gaitzetsiok! Txakurrok, edozein gizoni zurikeriak egiteko eiraz irabaziok! Sugeok, nire biotze-ko odolez epeldurik, niri usigitekook! Iru Yuda, iuretatik bakotxa Yuda baño iru bider geztogo! Onezkoak egiteia eldu dozak?

Gudu egingo al dautse suleza ikerragarriak euren gorkorbanduai irain onegaitik!

SCROOP.—Dakustanez, bere izakerea aldatu-rik, gorrotoik mingotsen eta eiaikonendu egiten da maitasun ezta: kendu egiezu eza-ni dautsezun aiaoa arein gogoai; euren bur-ruckaz egin dabez aik onezkoak, ez euren eskuz: eriotzeak dauen zauririk okerren eta manatzallerik manatzalleenaren minak so dabez zuk araotu dozuzanak, eta euren so-ñiak beteko lurrean datzae, ilobitzat lur arrea dabela.

AUM.—Ilik dira Bushy, Green eta Wiltshire'ko Kondea. ala?

SCROOP.—Bai, guztiak galdu dabez euren buruak Bristol'en.

AUM.—Nondik da nire aita dukea bere in-darrakaz?

ER. B.—Nondik danek etxok ardura; -iñok be eztagiala aitatu nasaitasunik; ilobi, eltxar, eta ilobi-ganekoz erago dagiogun; autsa ar-tu dagigun papeltzat, eta naibagea, lorra idatzi dagigun lurraren sabel-ganean be-gietatiko euriz. Autu dagiguzan gure ilbu-mkoak beteko dabezanak, eta ilbuiukoek itz dagigun: baño onaitiño be, ez olangorik, izan be, ba, zei izteko guk lunaii geuie soinez besteik? Bolingbroke'nak dira, ba, gure lunak, guie biziak, eta guztia, eta eiioztaez besterik ezin deitu gure danik, eriotzea ta gure azuirak estalteko eratuik dagon iuditxo mengel au. Yaungoikoa-airen, luirean yezairi gadizan, eta bakaldu-nen eriotzeagazko ipuin goibelak esan da-giguzan: zelan batzui bakalduntzea kendu izan dautsen; guduaren erail izan dabezala batzuk; batzui yanaika ibili yakezala eu-rak bakalduntzea kendu eutsenak; beste batzuk euien emazteak edendurik il diiala; beste batzuk lotan egozan bitartean erail ebezala; guztiak eiailik: izan be, bakaldu-naien loki ilkoiren inguiuan dagon burest-un arroaien banuan dau Eioztaez bere yauiegia; an dago zakarto a, bere aginte-riari irri egiten, eta bere andikeriari aginak erakusten; arnasalditxo bat izten dautso, agerkalditxo bat, bakaldunarena egiteko, bildur izan dagioen, eta bere begirakunez erailteko; norberekoikeriz gogai utsez bere burua puzturik, gure bizia esituten dauen aiagi au boiontze zula-ezinezko ba'litz lez: eta gogaldi onetan eiagorik, atzenekora da-tor, orratz txitxitxo bategaz zulatu egiten dau bere gaztelu-ormea, eta agur, bakal-dun! Estali egizuez zuon buruak, eta ez egin inirik aragi ta odolari guiketa benez; oitik zeai egotzi lotsea, guie auiretikoa, eiak eta

eramerak; enazantzat artu nozue, ba, bi-tarte guzúf onetan; ogiz bizi naz ni zeuok legetxe, ba-dakit eza zer dan, so egiten dot naibagea, adiskiderik bear izaten dot..., onen bendeko nazanazkero, zelan esan al dozue bakaldun nazala ni?

CARL.—Ene lord, gizon zurrik bein be ezta yezarten bere zori txarrai negar egiteko, negar eragiteko bideai aurreak artu baño. Kemena emofen dautso zure arerioari zu aren bildur iz-ateak, aren bildur izanaz zeurre kemena estutu ta sakatu egiten dozu-ta, zure makaltasuna iragarten dozu eta, orregaitik, zeuri eraso ta eran egiten zauz zure naibage ergelak, Bildurrak berak erailten zauz; bildurra da lagunik txarrena burrukarako; burruka egin eta burrunak iltea, ostera, eriotzea erailten dauen eriotza da; bildurrez ilten danak, ostera, yopu-arnasea opatuten dautso eriotzeari.

AUM.—Ba-dau indarrik nire aitak; a nondik dan ikasi egizu; eta azpegi bategaz soin osoa egiten ikasi egizu.

ER. B.—Zuzenez egiten daustak agirika (akar): Bolingbroke arro, ire zartadai erantzun bear yautset gure azken-epai izango dan egun onetan. Putzak eroan yok bildurraren sukar-aldi au. Esaik, Scroop, nondik dok gu-re osabea bere indarrakaz? Itz gozoz itz egik, gizon, ire begirakuneak garratz-mingotsak izango ba'dozak be.

SCROOP.—Ortzea zelan agiri danetik igarten dabe gizonak eguna zelango dan eta zetara yoko dauen; olan, zuk be igarri zengi-

ke nire begi motel eta ilunetatik. Ipuin goibelagorik ba-dau eralteko nire miñak. Eloorrio-etzartzallearena egiten daragoiot nik, apurka apurka aldia luzaturik, txarrena atzenerako itxita: Bolingbroke'gaz bat egin dau zure osabeak; eta oben egin dabe, amore egin dabe iparraldeko zure gazlelu guztiak, eta aren alde dagoz egoealdeko zure aitonseme guztiak, iskilluok eskuetan dabezala-

ER. B.—Bego, asko dok ik esana. (AUMER-LE'ri) Izurriek eroango al au, lengusu, etsipenerako bide gozotik atera nokalako! Zer diñok orain? Ze nasaitasun yoagu oraín? Yaungoikoa-arren, betiko gorrotoa izango yautsat oraindik ara bein be nasaitasunik aiatu dagistanari. Flint-Castle'era goazen: naibagaz iristuko nok an; bakaldar otseintzea egingo yautsak zori txarrari zori txarraren yopu dan babaldunak Yarei eta etxera bidali egizuez nik dodazan indarrak, eta lurrari galburuak emonazoten doazala, ba-dau, ba, lurrak galburuak emoteko itxarorik, nik neuk ezetarikorik izan ez-arren; iñok be eztagiata itzik egin, esan dodan au aldatuteko, alperrik dira onu guztiak-eta.

AUM.—Itz bat, ene nagusi.

ER. B.—Irain bat bagarik bi egiten daustaz bere miñetiko zurikeriz zauritu nagianak. Yarei nire yarraileak; doazala emendik, Errikarta'ren gabetik Bolingbroke'ren egun argitara. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-KIMURUERRI. Flint-Castle'ren aurrea.

Danbor eta fikurrinekaz aurrera BOLINGBROKE, ta Indarrak: YORK, NORTHUMBERLAND eta beste batzuk.

BOL.—Olan ba, iragarpen orretatik dakigunez, sakabanaturik dira Kimurutarrak; eta yoanik da Salisbury, bakaldunagaz batzeko, adiskide kutun gixi batzukaz itsas-baztar onetan oraínsu legorreratu dan bakaldunagaz batzeko.

NORTH.—Barri on eta ederra da orrako ori, ene lord: emendik urrin bagarik ostondu da Errikarta.

YORK.—Egokiago litzakeala uste dot "Errikarta bakalduna" esan izan ba'leu Northumberland'ek: ene! egunaren larri alango bakaldun gantzutua bere burua ostondu-bearrean aurkitu danarena.

NORTH.—Oker zagoz, eskartsu ori; labur

esate-arren bakarrik itxi dot esateka aren izengoitia.

YORK.—Izan da aldirik, agaz orren labur izan ba'zintzaz, bera be zugazko labur izango litzakeana, zu zure buruaren luzerea bestean lurrutuko zindukeazana.

BOL.—Bear baño olterragotzat ez egizu aitu, osaba.

YORK.—Euk be, illoba on, ez egik bear dan baño urrinago eroan, oker aitu eztagikan, zerua yagok, ba, gure buruen ganean.

BOL.—Ba-dakit ori, osaba; eta enozu zure gozaz besterakorik. Baña nor dator emen?

PERCY aurrera.

Xaxo, Percy: ostera! etxok men egin gura gazteluak, ala?

PERCY.—Bakaleraz dago yagonda gaztelua, ene lord, zuri ara sartzen ez izteko.

BOL.—Bakaleraz! Oстера! etxagok barruan bakalduna, ala?

PERCY.—Bai, ene lord on, ba-dau bakaldunik; Errikarta Bakalduna datza or orragoko kare ta arrien bitartean: eta agaz batera dagoz Lord Aumerle, Lord Salisbury, ta Estepan Scroop; eta orreiz ganera, begirapen gurengarri dan eleigizon bat be bai, nor danik nik eztakidana.

NORTH—Ui! ba-ledike Carlisle'ko Gotzaia izatea.

BOL.—(NORTHUMBERLAND'eri) Lord zindo, zoaz gaztelu zar orren saiets traketsetara; alkarregaz itz egiteko dei egizu orren bellarri ondatuetara borontzezko tutuagaz, eta au esan egiezu: "Belaun biak lurrean dauzala mun egiten dautso Bolingbroke'k Errikarta Bakaldunaren eskuari, ta bere bendekotasuna ta zintzotasunik zintzoena bidalten dautsoz biotz biotzetik aren notin bakaldar be bakaldarrari; ona bere oñetara etorri nazala, nire iskilliak eta indarrak emen izteko. nire erbesteratzea ezerezteutekotan eta nire lurrak bere kitetik niri atzera emotekotan; ak olangorik ez egitekotan, nire alde dodan indarra erabiliko dodala, eta ilgo diran Ingelandarren zaurietaúko odol-zaparradaz lurreratuko dodazala udako autsak; eta Bolingbroke'n biotzetik urrin be urrin dagola orrako ori, zera, olango ekaitz gorritz Errikarta Bakaldunaren lur edertzaren altzo muskerra blei-blei iztea, nire burua zintzo tasun samurrez makurtuaz nire bendekotasunak iragarriko dauela". Zoaz, orrenbeste iragarri egiozu, gu emen zelaiune onetako bedarrezko oinpekoaren ganean aurrera goazan bitartean. (Gaztelurontza doa NORTHUMBERLAND, tutulari bategaz). Goozen aurrera, danbor zemaikorren otsik бага, guk ebatzia gazteluko orma zarpiletatik ondo entzun dagien. Goian sua ta euria alkarregaz batzerakoan ortzearen mosu odeitsuak urratuaz ateraten dan ikarea baño gixtiagorik eztoz uste aterako danik gure artean, Errikarta Bakalduna ta ni alkarregaz batu gadizanean. Su ba'dadi a, men dagian ur izango naz ni: asarrea ba'dadi a, bitartean euria ixuriko dot nik lurrera; lurrera, gero! ez aren ganera. Goazen aurrera, eta oartu zakioez Errikarta Bakaldunaren arpegiari.

Alkarregazko auturako deia, eta barrutik erantzuten dau besteak. Zaamiolen otsa. Arre-

si-gonera agertuten dira ERRIKARTA BAKALDUNA, CARLISLE'ko GOTZAIA, AUMERLE, ECRROOP, eta SALISBURY.

Begira, begira, Errikarta Bakarduna bera agiri da. ikusi-ezinez bere aintza lausotu ta sarkalderako bere bide argitasua loitutera odeiak itzulirik dagozala dakusanean eguzki mosu-gorri asarrea sorkaldeko ateta sututik agertu oi danez.

YORK.—Bakaldun-antza dau: begira aren begiak, arranoarenak bestean argiak; nagusia-gotza aginkorra darioe: ai ene, ai ene! zori txarrarena, irainek olango arpegi ederrik ilundu ba'legi!

ER. B.—(NORTHUMBERLAND'eri) Zurturik gagoz gu; eta onen luzaro egon izan gara gu begira, zuk zure belauna noz makurtuko begira, zure bakaldun gintzazalakotan gengoan-eta; eta uste ezeze, izan be ba-garata, zelan azarten zara gure aurrean zure azur-giltzak guri makurtutea aztuten, orreik euren bendekotasun bildurtia guri ordaindu-teko? Ire bakaldun ezpa'nok, erakutsi egidak guri bakalduntzea kendu dauskun Yaungoikoaren eskua; ondo be ondo yakiguk, ba, guk, eztagola odol eta azurrezko eskurik gure agintza-makilearen kirten gantzutua goatu leiskigunik, zakartu, ostu, naiz iñorena artu bagarik. Eta ik uste izan-arren, (ik euk egin dokanez), guztiak erauzi dabezala euren biotzak gugandik, eta gu uts'k eta adiskide bagarik gelditu gareala, yakik orraitioño, nire ugazaba, Yaungoiko Alorudunak izurri-gudarostea batzen daragoiola Bere odeietan gure alde: eta aik yoko yoezak zuon bendeko-eskuak nire ganera eragi ta nire burestun ederraren aintza zemaituten dozuezanon seme-alabak, oraindik ez yaio, ez sortu eztiranak be. Esaiok Bolingbroke'ri (an aragoan dagola uste yoat, ba), etoikeri, azpikeri galgordetsu dala nire lurrean ak egin dagian aurrerakada baktxa: gudu odoltsuaren ilburuko gorria idigiten etorri dala; baño ain irrikiturik bere billa dabilen burestuna bere lokietan babez euki baño len eztabela eder emongo amar milla amaren semeen burestun odolduak, eztabela eder emongo Ingelanda'ren lora diranen buruetan, etxakola ondo etorriko bakearen arpegi neska-zurbila asarre-gorrituterik, ezta Ingelanda'ko larra-bedarra Ingelandar zintzoen odolez txipriztinduterik be.

NORTH.—Goiko Bakaldunak ez al dau gurako erritar eta atzerritar iskillorik gure bakaldun yaunaren aurka eragiterik! Zure lengusu zindo zindo Endika Bolingbroke'k apal

apal mun dagio Zure eskuari; eta zure bakalдар aitaitaren azurren ganean dagon ilobi zindoa-arren, eta zuon bion fcaakalдар odolak-arren (iturburu en on batetiko ddra odoleroi biok), eta ilobiraturik dan Gaunt guduzalearen eskua-arren, eta bere zintzotasun eta omena-arren, eta zin eragingarri dan beste edozer be barruko dala, zin dagi ak, bera ona etorteak eztauela beste asmorik eta zegaitirik, bere aurrekoetatik datorkozan eskubideak eskuratu ta aik bertatik yarei dagizuzala bere belauenen ganean eskaiutea baño. Bein zuk, bakaldun zarean aldetik, orrako ori emon dagiozuenan, ugartuten itxiko dautse ak bere iskillu argiai, euren kortetara bidaliko dauz gudakoskoldun bere zaldiak, eta zure nagusiagotzearen otseintzara bere biotza. Zin au dagi ak, bakalseme dan aldetik, eta zuzen da: eta, aitonseme nazan aldetik, sinistu egiten dautsat.

ER. B.—Northumberland, onan erantzuten dautsala bakaldunak esaiok: Ondo-etorri lango ondo-etorria dauela emen bere lengusu zindoak; eta bere eskari zuzen guztiak, aiko-maikorik bagarik, zeatz beteko yakozala; eta nire gorantzirik onenak eroan egizak aren belarri txerakorretara ik dokan itz-erio eder orregaz. (AUMERLE^{ri}) Zirtzildu ta beeratu egiten yoagu guk geure burua, lengusu, onango yasa apalez eta onango itz txerakorrez, ez ete? Atzera dei egingo ete yautsaguk Northumberland^{eri}, eupada egin azpiyaleari, ta onan il?

AUM.—Ez, ene yaun on; itz txerakorrez dagi-gun gudu, aldiak adiskideak, eta adiskideak euren ezpatak guri laguntzat emon arte.

ER. B.—Ui Yaungoikoa, Ui Yaungoikoa! Nire miñak beñola or orragoan dagon gizon arro orren aurka erbesteratze-epai bildurgarria emon izan, eta orain epai ori itz samur txerakorrez bazartu-bearrarena! Nire naibagea bestean andi al nintz, naiz nire izena baño gitxiagorik! Aztu al nei izan nazana! Naiz, ez gomutau orain zer izan bear dodanik! Poztu, anditu egiten atxat, biotz arro ori? Yarei itxiko aut burruka egiteko, arerioak yarei yagozak iri ta niri gudu egiteko-ta.

AUM.—Atzera dator Northumberland Bolingbroke^{gandik}.

ER. B.—Zer egin bear yok orain bakaldunak? Burua makurtu bear ete yok? Egingo yok bakaldunak orrako ori: kendu egin fcear dautsoela bakalduntzea? Nasai geldituko dok bakalduna: galdu egin bear ete yok bakaldun-izena? Yaungoikoa-arren, bedi ori

be: agurtza baten alderako emongo yoadaz nire pitxiak, etxetxo bakar baten alderako nire yauregi yaual arroa, eskekoen soñeko zirtzilen alderako nire yantzi apain txai-roak; zurezko ontzi alderako nire edalontzitzoak; palmadunaren bide-makilearen alderako nire agintza-makilea; landuriko deun biren alderako nire bendekoak, eta ilobitxo baten alderako nire bakalderri andia: ilobitxo baten alderako, ilobi ilun baten alderako; naiz, bakaldunaren bide zabalean ilobiratu naguela, erria dabilen bideren baten, an bendekoen oñak ordu oro euren nagusienaren burua ostikopean zapaldu al dagien; nire biotza, ba, orainganik, bizi nazala, zapalduten dauste; eta bein eortziakzker, ilobiratuakzker, zegaitik ez zapaldu nire burua be? Aumerle, negarrez ago i, nire lengusu biotz-samur ori! Eguraldi txarra ekarriko yoagu aintzakotzat artzen eztabezan gure negarrokaz; eurok eta gure intziriak lurreratu, erztan egingo yoezak udan gariak, eta gosetea ekarriko yautsoek lur asalatu oni. Ala, naibageok txantxetan eta olgetatzat artuta, dema politen bat egingo ete yoagu negarrokaz? Onako au, esaterako: leku baten berean ixurten itxi negarroi, eurak lurrean gutzako ilobi bana egin arte; eta an idatzi daitela, "Emen datzae senide bi euren begietatiko negarrez euren ilobiak atxurtu ebezanak". Ez ete legokek ori ederto baño edertoago? Tira, tira, ba-yakusat alperrik itz egiten dodala, eta ik irri egiten daustakala. Bakalseme altsu be altsu, ene Lord Northumberland, zer yifok Bolingbroke Bakaldunak? Aren nagusiagotzeak itxiko ete dautso biziten Errikarta^{ri}, Errikarta il arteraño? Ari belauna makurtu baño eztot nik, eta baietz esango yok Bolingbroke^k.

NORTH.—Ene Lord, bean arrazpelean dago a zure begira, zugaz itz egiteko: gogoko izango ete yatsu bera yastea?

ER. B.—Bera, bera noa ni; Paiton (5) argitsuaren ant^{ko} naz ni, bere zaldi eskura-

(5) Paiton (Eladeraz Phaethon) dalako au Helics eguzki-yainkoaren seme da Eladetarren simskera edo mituz. Bere aitaren burdian, ortzea zear, ibiltaldi bat egin bear eballa otu yakon beñ mutil biurri oker oneri, eta otu ba'yakon otu yakon; izan be, zaldiok eskuratu-ezinik gelegi urrercriu yakon Lurrarita, lurr-arlo ondia erre ta kiskalita geldituko zan. Or dozu agirirtzat Apirka^{ko} Saara lurr-arlo eskarga billusa.

gatxak, uxoak, eskuratu-ezinik dabilenean. (Atzera doa NORTHUMBE^m AND BOLING-BROKE'gana) Beko arrazpeiean, aia? Beko arrazpeiean, izan be, etoien deira ta ai ederra egiteko bakaldunak zirtzilduten diran lekura. Beko arrazpeiean, ala? Beera yatsi? Beera, yauregi! Beera, bakaldun! Larra txoriak goian abestu bear leukienean, gau-mozolloak txirrist egiten dabe-ta. (Alde dagie goitegitik).

BOL.—Zer diño aren nagusiagotzeak?

NORTH.—Ume-antzera itz eragiten dautsoe lorrak eta naibageak, gizon burutik eginari lez: orraitño be or dator.

ERRIKARTA BAKALDUNA, ta bere Yarraigo-koak, aurrera, bean.

BOL.—Bazartu zadize, eta bendekotasun zintzoa erakutsi bere nagusiagotzeari. Ene lord on ori_ (Belaunbikatu egiten da).

ER. B.—Lengusu lerdin, beeratu, zirtzildu egiten dok ik ire bakalseme-belauna, ari mun eginaz ik lur zirtzila arroturik; ederrago litxakiok nire biotzari ire maitasuna so egitea, nire begiz ire eramera ori ikusi baño. Gora, lengusu, gora; ba-yakiat goian dago-

la ire biotza, gitxienez au bestean (bere burua ukututen dau), ire belauna bean egon-arren.

BOL.—Ene lord on, neurearen billa baño enator ni.

ER. B.—Ire dok irea, eta ire nok ni, ni ta dana.

BOL.—Ene yaun bildurgarri be bildurgarri, nire otseintzea zure maitasungarri yatsunearagiño izan zakidaz nire.

ER. B.—Ondo irabazirik dok nire maitasuna: gura dabena iristeko biderik sendoen eta seguruenak dakienak dozak iritxia eukigarrien. Osaba, ekadazu zure eskua: ez, lehortu zure begiak; maitasuna bai ba-darakuse negarrak, baño eztabe euren osapiderik. Lengusu, gazteegi nok ni ire aita izateko, i zarrik asko izan-arren nire oñordeko izateko. Euk zer-gura emongo dauskat nik, eta gogoz emon be; egin, egin bear yoagu, ba, indarrak eragiten dauskuna. Goazen London'erantza; lengusu, yoango ete gara?

BOL.—Bai, ene lord on.

ER. B.—Olan izatekotan, nik eztot esan bear-ko ezetzik. (Zaamiolen ctsa. Alde dagie).

IV AGERLEKU-LANGLEY. YORK'eko DUKEA'ren Baratza.

BAKALDUNOA ta Andera bi aurrera.

BAK.—Ze olgeta asmauko ete dogu baratzen onetan, kezkearen ardura astuna gugandik uxatuteko?

I AND. Bolan egingo dogu, andera.

BAK.—Latzunez eta ostopoz beterik dagola mundua gogoratuazoko daust yoko orrek, eta zearka doala nire zoria.

I AND.—Yantzzen egingo dogu, andera.

BAK.—Ezin neurtu dabe atseginik nire zangoak, nire biotz errukarriak naibagean neurrikerik eztauen bitartean: olan ba, yantzarik ez, neska; beste olgetaen bat.

I AND.—Yezarri ta ipuin batzuk eralgi dagioguzan alkarri, andera.

BAK.—Pozkarriak. ala goibelak?

I AND.—Bitsuetarikoak, andera.

BAK.—Batsuetarikorik bez, neska: eta izan be, pozkarriak izatekotan, nik ezetarikoz pozik izan ez-eta, gogoratuago egingo leuskidiz nire naibageak; eta gotilunak, naibageagazkoak, naibagea euki daukat-eta, geitu egingo leuskidiz nire pozik eza: eta eztot bear euki daukadana barriro eukiterik; eta eztodanaz alakatuterik, etxat ezetarako on.

I AND.—Abestu egingo dautsut. andera.

BAK.—Etzagoz txarto orretarako biderik dozunazkero; baño zer gogokoagorik egingo zeunskit, negar egingo ba'zeu.

I AND.—Egingo neunke negar be, andera, orrek ezer onik ekarriko ba'leutsu.

BAK.—Neuk be negarrik egingo neunke, negarrak onik ba'lekarkit, eta eneunke zure negarren bearrik. Baña etxon, emen datoz baratzen zainak; goazen yugatzen orren itzalpera, nire zori txarra yukatuko neunskio orratz-mordori, baietz itz egin orreik bakalderri-arazoz, olantxe egin daroa, ba, edonok, aldakuntzarik danean: zori txarra da zori txarraren aurrendari. (Bazartu egiten dira BAKALDUNOA ta Anderak).

Baratzaia ta Otsein bi aurrera.

BAR.—Zoaze ta estu egizuez an dingilizka dagozan mertxika-adarrak, mutiko ezigatzen antzera, euren astunaren astunez euren aldorrari makurtuazo egiten yautsoek-eta; euskarrien bat imini egiezue adar makurrai. Buruak moztu egiezuez kimu guriegia, giza-eraileak gizonen buruekaz egin daroenez, gure bakalderrirako arroegi dirudie-ta:

guztiak izan bear dabe bardin gure yaur-liritzan. Zuok orretan daragoiuzoen bitar-tean, bedar txarrak zuztarretik ateraten yoango nok ni, lurraren emokortasunetik datorren onurea, lora osangarriai kenduta, eurak edoskiten yoek-eta.

I OTS.—Zegaitik yagon bear dogu guk parearen neurrian legerik, erarik, eta einik, gure bakalderri sendoa eredu lez erakusteko, gure baratz itsaso-ormaduna, lur osoa, bedar txarrez beterik dagonazkero; bere lorarik ederrenak itorik, bere igali-zugaiz guztiak iñausi bagarik, bere esiak muzkildu ta lurreraturik, bere lokarriak nasturik, eta bere bedar onak zeruko katuz ganezka dagozanazkero?

BAR.—Ixilik ago: orriak yausi yakozala yakusak orain, ganorabako udabarria izan dauenak: zuztar eta guzti atera yozak Bolingbroke'k aren orri zabalak itzal egiten eutsen bedar txarrak, eta bera yanez bere euskarri zirala uste ziranak. Wiltshire'ko Kondea, Bushy, Green esan gura dodaz.

I OTS.—Ostera! ilik dira, ala?

BAR.—Bai ba; eta bakaldun ondatzallea be goatu yok Bolingbroke'k Ui! tamalgari be tamalgari dok guk baratz au legetxe ak bere lurra iñausi ta apaindu eza! Guk, orretarako urte-aroa eldu dadinean, ebagi egiten yoagu igali-zugatzen azala, euren narrua, izerdi geiegiaren geiegiz, izerdiz eta odolez arroegi diralako, kalterik etorri eztakioen; ak be olan egin izan ba'leu gizon andi ta gora doazanakaz, bizi edikezan aik be onurea ekarteko, eta ak berak be arein bendekotasunaren igaliak txastatu eikeazan. Moztu egiten doguz guk alperriko adarrak, igalirik ba-dakarren adarrak bizi dadizan: ak be olan egin izan ba'leu, berak eroan eikean burestuna, alperkerian alperrik galduriko orduak guztiz lurrera egotzi daben burestuna.

I OTS.—Ostera! bakaldunari bakalduntzea kendu egin bear yakola uste dozu zuk, ala?

BAR.—Dagoneko yagok a buru-yausirik eta lur yota; eta ikusteko yagok bakalduntzea kenduko yakontz: bart etoni yakok idazia Yor'eko Duke onaren adiskide maite bateri, barri ilun-baltzak dakazana.

BAK.—Ui! il-aginik nago itz egin bearraren egin bearez! (Anderakaz aurrera etorri-ala) Adan zarraren antzeko ori, baratz au apainduteko iminia azan ori, zelan azarten dok ire min latz zakar ori olango barri iguingaririk esaten? Nongo Ebe'k, nongo sugek zirikatu au gizon biraotuari bigarrenez yausiazoteko? Zegaitik diñok bakalduntzea kendu dautsoela Errikarta Bakaldunari? I, lurra baño asko obarik ez azan ori, aren yauske-rea igarten azarten az, ala? Esaik, non, noz, eta zelan eldu azan barri txarron yabe egitera. Itz egik, zori txarreko orrek,

BAR.—Azketsi, parkatu nagizu, andera: pozik gitxi be gitxi dot nik barriok esanaz; orraitioño be egia da nik diñodana. Bolingbroke'n esku altsuaren bendeandago Errikarta Bakalduna; aztakinean (pixuetan) dagoz bien zoriak; bera baño eztago zure yau-naren abtakin-ontzian, bera ta bera arinduten daben bere uskeri batzuk; baña Bolingbroke andiarenean, beraz ganera, andagoz Ingelanda'ko andiki guztiak, eta laguntza orregaz bera doa a, Errikarta Bakalduna goian itxita. Zoaz London'era, bai, eta zeuk ikusiko dozu olantxe dala; edonok dakiana baño besterik eztiñot nik.

BAK.—Orren oin-arin azan zori txar bizkor ori, neutzako ez ete dok gezna ori, ta ni izan atzenengo ori yakiten? Ui! atzenen emon gura daustak, ire naibagea nire biotzean luzaroen euki dagidan. Tira, andera, goazen London'era, London'go bakalduna an zori txarretan idoroteko. Ba! Onerarako, nire arpegi goibelak Bolingbroke andiaren garaita apainduteko yαιο ete naz ni? Baratzain, zori txarraren barri au emon izan daustazulako, ez al dira aziko iñoz be zuk mentatu dagizuzan landarak. (Alde BAKALDUNOAK ete Anderak).

BAR.—Bakaldunoaren errukarri! Gurago neunke nik nire trebetasuna zure biraopean geHitutea, zure egokerea txarragorratutea baño. Ementxe ixuri dau negar bat; emen, leku onexetan landatuko dot boskotx-arlotxo bat, bedar mingots lerdena: laster ikusiko da emen boskotxa, errukia erakusteko, bakaldunoaren negarra gomutazoteko. (Alde dagie).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.—LONDON. Westminster Hall. Lord gogotiarak bakal-aukiaren eskoatetik; Lord mundutiarrak ezkerretatik; Erria (the Commons), bean.

Aurrera, BOLINGBROKE, AUMERLE, SURREY, NORTHUMBERLAND, PERCY, FITZWATER, beste Lord bat, CARLISLE'ko GOTZAI, WESTMINSTER'ko ABATA, ta Laguntzakoak. Agintza-gudari batzuk atzean, BAGOT'egaz.

BOL.—Deitu Bagot, datorrela aurrera.—Nasai iragarri egik orain ire gogo, Bagot; Glos-ter zindoaren eriotzeaz ik dakikana; bakal-dunaz ganera nok asmau, eta nok burutu eban aldiz aurretiko egite gordin odoltsu a. BAGOT.—Olan izatekotan, datorrela ona nire aurrera Lord Aumerle.

BOL.—Aurreratu adi, lengusu, eta begiratu egik gizon ori.

BAGOT.—Ene Lord Aumerle, ba-daki! eixakola begiko zure miñ ausartiari bein esana guzurtauterik. Glos-ter'en eriotzea asmau ta gertau zaneko aldi zori txarreko atan zure agotik entzun neban nik, "Ez ete dau nire besoak luzerarik asko, Ingelanda'ko Yau-regi baketsutik Calais'erañokorik, nire osabearen bururaño eltzekorik?". Beste itz askoren artean, aldi atantxe, entzun zindudazan esaten, iñok zuri eun milla burestun (6) opatuekotan, Bolingbroke Ingelanda'ra atzera etortea baño gurago zebala eurak ez artu; orrez ganera zuk erantsirik, onetsi be onetsi litzatekela lur au, zure lengusu au il ba'ledi.

AUM.—Bakalsemeok eta Lord zindook, zer erantzungo dautsat nik gizon txatxar oni? Orrenbesteraño kakaztu bear ete dodaz nire izar zori ontsuak, ori zigortuteko neu be orren mallan yarriaz? Ori egin bearko, ostantxean orren ezpanetatiko guzurrez loiturik geldituko da nire izen ona-ta. Autso nire eskuzorroa, nire eskuz ilgo azalaren ikurratza, sulezarako atza ezarten dauskana: guzurti azala yiñoat nik. eta i zirtzilegi izanarren nire zaldun-ezpatearen giroa ire biotzeak odoletan nik loituteko, guzurra esan dokala erakutsiko yoat.

BOL.—Epe artu egik, Bagot; ez egik artu eskuzorro ori.

AUM.—Emen dagozanetatik batez beste guztien artean argiena al litz batzar onetan onan eragin daustana!

FITZ.—Bardin-bearrean ba'yagok ire adorea, autso, Aumerle, nire eskuzorroa, ireari erantzuteko: i non ago erakusten daustan eguz-

ki argia-arren, esaten entzun neuskan, eta ollarkiro esaten be, ire erruz zala Glos-ter'en eriotzea. Ogei bider ukatu ba' dagik be, guzurra diñok ik; eta an asmau zan ire biotzeratu egingo yoat ire guzurra nire ezpatearen mokoz.

AUM.—Kikil ori, ollo ori, i ez az azarriko olan-gorik ikusteko eguneraño biziten.

FITZ.—Aiko, neure gogo-aarren, ordu onetan-txe al litzok.

AUM.—Fitzwater, sulezarako epaiturik ago i cnako onegaitik.

PERCY.—Aumerle, guzurra diñok ik; i zuzentzarik bagako azan bestean yator dok orren dedua, orren omena; eta orrek esana egia dala atzenengo arnasaraño erakusteko, autso nire eskuzorroa: eldu egiok, azarten ba' az.

AUM.—Ustelaren ustelez yausiko al yatazak eskuok eldu ezpa'dagiot, eta oraindik ara bein be ez al yautsat ikara eragingo nire galtzaidu azaskorrari nire arerioaren burukoskol argiaren ganean!

LORD.—Zer bardinagaitik egozten yoat nik nire eskuzorroa lurrera, Aumerle zinausle; eta eguzkitik eguzkira gedarrez esan-ala "guzurti az" esango yoadaz ire belarri saltzalletara iri kiñetuteko; aiko nire dedua-ren baña; erakustera beartu egik, azarten ba'az.

AUM.—Nok bestek egin gura daust eupada? Zerua-arren, guztiai egotzi bearko dautset: milla gogo dodaz nik bular baten, zuok lan-goge ogei millari be erantzuteko.

SURREY.—Ene Lord Fitzwater, ik eta Aumerle'k alkarregaz itz egin zeuen aldia bera be gomutan yoat nik.

FITZ.—Egi baño egiago: an zengozan zu orduan; eta zeu izan zatekez onako au egia dalaren autorla.

SURREY.—Yaungoikoa-arren, Yaungoikoa egi dan bestean guzur da.

FITZ.—Surrey, guzurra diñok ik.

SURREY.—Dedurik bagako mutil ori! Ain astun etzango dok ire guzurra nire ezpatearen

(6) Ingelanda'ko txanpon edo diru yatsu emen "burestun" dalako cu be, eta "esterlin" lbera'r&n lourena da.

ganean-eta, azaskatu egingo yak nire ezpatea, i eu guzurti ori ta ire guzurra lurrean ire aitaren buru-azurra bestean gelditazan arteño; eta oneko au erakusteko, austo nire deduaren baia; artu egik, gero ikusteko, azarten ba'az.

FITZ.—Gogatsu be gogatsu sartzen dautsozak ik aztalak berez bizi dan zaldia: yaten, edaten, arnasea artzen, naiz biziten azarri ba'nadi, azarriko naz Surrey'gaz bakarreaan trikitx egiten eta ari arpegira txua yaurtiten; bitartean guzurra diñok, guzurra diñok, eta guzurra diñok ari esan-ala: aikor nire itz baituaren agiria, iri narrua berotute lango narru berotutea emoteko. Mundu onetan aurrera egiteko gogorik dodan bestean nire salakuntzearen errudun da Aumerle: orrez ganera, Norfolk erbestera tuari entzunik dot, Aumerle, ire gizonetatik bi bidali euazala Calais'era, duke zindoa an erailteko.

AUM.—Kistar zintzoren batek bere eskuzorroa aurreratuko al daust, Norfolk'ek guzurra diñola erakutsi al dagidan; emen yaurtiten dot nik nire eskuzorroa, Norfolk'ek guzurra diñola erakusteko, a nozbaiten erbestetik etorri ba'ledi, nire deduaren alde.

BOL.—Eskuzorropean egongo dira eztabaidok Norfolk'eri atzera dei egin arte; dei egingo yako ta, nire arerio izan-arren, atzera emongo yakoz bere lur guztiak eta yauntzak; atzera datorrenean zuriutazoko dautsagu bere burua Aumerle'gazko.

CARL.—Bein be eztoqui ikusiko egun dedutsu ori. Sarritan egin dau Norfolk'ek burruka Yosu-Kisto'ren alde Kistarren gudategi aintzatsuetan, Kistarren kuruztedun ikurrina kistarr-ez baltz, Turkar eta Arabitarren aurka aurrera eroan-ala; eta guda-ekiteetan nekaturik, Itali'ratu egin zan; eta an, Bini-xa'n, lurralde atsegingarri atako lurrari emon eutsan bere soña, bere gogo garbia, ostera, bere gudalburu Kisto'ri, ain luzaro Aren ikurrinpean gudu egin eban-eta.

BOL.—Ba! gotzai, ilik da Norfolk, ala?

CARL.—Ni bizi nazan bestean seguru, ene lord.

BOL.—Abarran zar onaren altzora eroango al dau bake gozoak aren gogo! Lord salatzalleok, eskuzorropean egongo dira zuon eztabaida guztiak zuok baiezuko dozuezan eguna guk izentau arte.

YORK aurrera, lagunduta.

YORK.—Lancaster'ko Duke andi ori, lumaturiko Errikarta'ren aldetik natortsu; gogoz

artzen zauz ak bere oñordekotzat, eta zure esku bakaldarrean izten dau bere agintzamafilearen yabetzea; igon zadiz a gaur andik yasten dan aren bakaulkura..., eta Gora Endika, izen orretarikoetatik laugarrena!

BOL.—Yaungoikoaren izenez igoten naz bakaulkura.

CARL.—Kontxo, Yaungoikoak ez al dau gurako olangorik!; ba-ledike nire itzik onenak txartzat artzea batzar bakaldar onetan; orraitioño be, egia esan-bearrean nago. Edozein be zindorik asko al litz zindoan batzar onetan, Errikarta bakalduna zindoro epaituteko! Benetako zindotasunak galazo egingo leuskio orduan orrako orri olango oker andirik egitea. Nongo bendekok emoteko epairik bere bakaldunaren aurka? Lapurrik be ezta epaituten aurrezirik bera entzun bagarik, bere errua agiri agiria izanarren be; eta Yaungoikoaren nagusiagotzearen antza daroana, Aren gudaiburu, ondasunzai, ordezko autua, gantzutua, buretuna ezarria, urte asko dirala landatua, epaitu egin bear ete dau bere bendekok eta bera baño beragokok, a bera berton ezala? Tji! Yaungoikoak galazoko al dau olangorik egitea, Kistarren lurrean gogo ikasiak olango egite inguingarri, baltz eta zakarrik egitea! Bendekoai itz egiten daragoiot, eta bendeko da itz egiten daragoioiw. bera be, Yaungoikoak itz eraginda onen azarri ta adoretu bere bakaldunaren alde. Emen dogun Hereford'eko ene Lorda, zuak bakaldun deituten dozuen ori, Hereford arroaren bakaldunaren saltzalla zakar da; eta zuok burestunik ezarri ba'dagiozue, iragarpen au egiten itxi egidazue, zera, Inge-lanarren odolez asetuko da lurra, eta gero urteetan intziri egingo da egite zantzar onegaitik; Turkar eta kistarr-ezetara yoango da bakea lo egiten, eta bake-leku onetan gudu iskanbillatsuak lagunak lagunakaz eta senideak senideakaz ondatuko dabez; nastea, ikarea, bildurra, ta asaldaztea biziko dira emen, eta Golgota ta gizon ilen buru-azurtegi eretxiko dautsoe lur oneri. Naiz, etxe au beste etxeren aurka eragi ba'dagizue, eguño izan danik eta alkarre-gandik bananduterik ikaragarriena sortuko da lur biraotu onetan. Aurreak artu ta galazo egizue, gogor egiozue, ez al da yazoko olangorik, zuon umeak eta umeen umeak zuon aurka gedar egin eztagien "Zori txarrekoak, alangook!".

NORTH.—Ederto erakutsi dozu, yaun; eta zure nekeen alderako, atxilotu egiten zau-

guz emen, zure etoikeririk andienagaitik.-- Westrninstsr'kc ene Lord, zurs ardurorpean epai-egunerarte ori yagotea, Eder ete yatsue, Lordok, erriari bere eskakizuna emotea?

BOL.—Ona ekarri egizue Errikarta, bere bakalduntzea mundu guztiaren aurrean itxi dagian; olan, susmo txar bagarik egingo dogu gure egitekoa.

YORK.—Neuk ekarriko dot. (Alde dagi).

BOL.—Lordok, guk atxiloturik emen zagozenok, zuon baiak emon egizue, izentauriko egunetan ganean dozuezan salakuntzai erantzuieko etorriko zariela. (CARLISLE'ri). Zor andirik eztautsagu guganako zure biotz onari, eta ezgara asko gizenduko zure eskuen laguntzeagaz.

Barrero aurrera YORK, ERRIKARTA BAKALDUNA'gaz, eta burestuna dakarren Agintzagudariakaz eta beste batzukaz.

ER. B.—Ai ene! Zegaitik nakazue bakaldunen aurrera, bakalduntzan izan dodazan bakalgogaketak nigandik uxatu baño lenago? Nekez ikasi dot oraindak zerak erdizka esaten, zurikeriak esaten, burua makurtuten, nire soin-atalak makurtuten: asti apur bat emon egiozue naibageari, benderatute au zelan egin irakatsi dagistan. Orraitiño be ondo gogotan dot zergarri diran gizonok: eztira izan nire, ala? Ez eusten bein gedarez egin "Gora Bakalduna!", ala? Orixe egin eutson Yuda'k Kisto'ri; baño ari amabitik batez beste guztiak zintzo izan yakoan; niri, ostera, bat bez amabi millatik. Gora bakalduna! Inok be ez ete dau erantzungo "amen"? Abade ta meza-erasala, biak batera ete naz, ba? Tira, ba, "amen" olan izatekotan. Gora bakalduna! ni olan-gorik izan ez-arren; eta orraitiño be, "amen", Yaungoikoak bakalduntzat ba' nau.-Zer egiteko ekarri nozue ona?

YORK.—Nagusiagotzeaz nekatu ta asperturik egonak zeure kitetik eta gogoz agindua-zo eutsuna bete dagizun ekarri zauguz ona, zure agintzea ta zure burestuna Endika Boldingbroke'ntzat itxi dagizuzan.

ER. B.—Ekadazue burestuna. Autso, lengusu, eldu egioi burestunari; nire eskua alde onetatik, irea ortik. Ontzi bi aldizka beteten diran osin sakonaren antzeko dok urrezko burestun au; goian, beti yantzan, utsik dagona; bestea, an bean, ostonduta, ta urez beterik: ni nok on bean eta negarrez beterik dagon ontzia, nire naigabeak edaten, i goian agon bitartean.

BOL.—Bakalduntzea izteko gogoagaz zengo. zala uste neban nik.

ER. B.—Burestuna izteko bai; baño nire naigabeak beti dozak nire; kendu einskikedaz nire ainfzak eta rúre agintzea, baño ez nire neke-lorrik; oindiño be orrein bakaldunok.

BOL.—Zure arduren zati bat ba-damostazu zure burestunagaz.

ER. B.—Ire ardura ta kezka geitu-arren, etxoezak gitxituten nireak. Nire kezka zarrak ekarririko kezkea galtzea dok nire kezka: ire kezka, ostera, kezka barriak irabazitako kezka irabaztea dok: iñori emon-arren, aldean yoat nik emondako kezka; burestunagaz yoazak nire kezka, eta orraitiño be neugaz geldituten dozak.

BOL.—Pozik ete zagoz burestuna izteagaz?

ER. B.—Bai eta ez; ez eta bai; deusik enok izan bear, ba, ni; au dala-ta, ez, ez, iri itxi bear dauskat-eta. Oar akit orain, zelan ondaturten dodan nik nire burua: emen damoskat zama astun au nire burutik, eta bakalmakila erabilezin au nire eskutik, eta bakal-agintza arro au nire biotzetik; neure negarrez ikuzten yoat nire gantzua, neure eskuz emoten dauskat nire fc-urestuna, neure agoz ukatuten yoat nire agintza gantzutua, nire arnaseagaz yarei izten yoadaz bende-kotasuna erakusteko egitarau guztiak: agur egiten dautset andikeri ta nagusiagotza guztiak; bertanbera izten dodaz nire etzaguntzak, nire etorriak, nire ondasunak; ukatu ta ezereztu egiten dodaz nire egiteak, nire erabagiak, nire ebatziak: Yaungoikoak azketsiko, parkatuko al dauz niri egindako zinak ausi dabezanak! Ausi bagarik euki-ko al yoaz Yaungoikoak iri zin egindakoen zinak! Ezertxo be eztodan oni ez al daus tak egingo ezterariko okerrik, eta í euk gura dokan guztidun ízango al az, dana iritxi dokanazkerero! Luzaro biziko al az Errikarta'ren yezarlekuan, eta laster etzango al da Errikarta lurrean bere zuloan! Gora Endika Bakalduna, diño bakalduntzea itxi dauen Errikarta'k, eta egun zori ontsu asko emongo al dautsaz Yaungoikoak! Ete dago egitekorik geiago?

NORTH.—(Papel bat opalu-ala) Zuk zeuk eta zure yarraileak bakalderrriaren eta lur onen kalterako egindako oben astunok eta salakuntzok zeuk irakurriaz besterik ezebez; zuk eurak autortuaz, gizonak euren biotzetan uste izan dagien zuzenez kendu izan yatsula bakalduntzea.

ER. B.—Ori egin bear ete dot? Neuk arildu bear ete dot nire zorakeriz nastautako ma-

tazea? Northumberland zindo, idatzita ba' Hegozak ire okerreriak, ez ele inlaze lotsa-tuko onango batzar argiaren aurrean eurak irakurri-bearragaz? Euk gura izatekotan, idoroko eunke zer iguingarritxo baL... bakalduneri bere bakalduntzea kentzea, eta tartat eta karrask ire zinaren lokani sendoa urratu ta austeia, ik dokan orbana, zeruko idaztietan askarri ta gaiztetsizat agiri dana; areago, or zutunik ni begira zagozen guztiok, ni neure zori txarrak estuturik naukan bitartean, bein Pilata'k lez, zuon eskuak ikuzi-arren, azalene eruririk erakutsi-arren, onaitiño be zook, Pilataok, kurutzerza bidali nozue emen, eta eztago urik zuon obena ikuziko dauenik.

NORTH.—Ene Lord, egin egitekoa; irakurri atal eta txatalok.

ER. B.—Negarrez beterik dagoz nire begiak, ezin dot ikusi; eta orraitioño be ur gazi onek enau itsututen emen dagon etof-mordoa ezin ikusteraño. Bai zera! Neure burua begiratu ba'dagiz, neu be etoi naz besteakaz batera; izan be, nire biotzaren ederretsia emon izan dot bakaldunari bere soñeko yantzi arro txairoak kentzeko; zirtzildu egin dot anditasuna, eta yoputu nagusientasuna, bendekotu nagusiagotza anoa, baserritartu agintzea.

NORTH.—Ene Lord..

ER. B.—Enok ire lordik, gizon iraintzalla arroputz ori, ezta iñoren lordik *be*: etxoat nik izenik, ez izengoitirik... ez, ezta ugutzau ninduenean ezarri eusten izenik be..., au be kendu egin dauste-ta: Ai ene! egun onen zori txarreko, ainbeste negutan bizi izan-arren, orain eztakit neure buruari ze izen ezarri be-ta! Ui! edurrezko irri-bakaldunen bat al nintz, Bolingbroke'n eguzkiaren aurrean legokena, neure burua negar-tantanka urtuteko! Bakaldun on..., bakaldun andi, eta orraitioño be, ez on andirik..., eta nire itza oindiño be gauz danik ba'litz Ingelanda'n, ispilluren bat ekarri dagistela agindu egizu, zelango mosua dodan erakutsi dagistan, bere nagusiagotzeaz porrot eginik dago-ta.

BOL.—Doala zuotatik baten bat eta ekarri dagiala ispilluen bat. {Alde Otseinetatik bategok.

NORTH.—Irakurri egizu papel au ispillua datorren bitartean.

ER. B.—Txerren ori, sulezaratu baño len ezarten daustazak ik elorriok!

BOL.—Ez egik geiago estutu, ene Lord Northumberland.

NORTH.—Olan izatekotan, erria ezta geldituko aseturik.

ER. B.—Aseturik geldituko dok, bai; naikoa irakurriko yoat nire obenak an idatzita dagozan idatzia ikusi dagidanean, eta denok orrako ori.

Otseina aurrera, ispilluagaz.

Ekadak ispillu ori eta or irakurriko yoat.—Oneik baño izur sakonagorik ez oraindik? Naibageak niri onenbeste zartada emon arpegian-eta, zauri sakonagorik ez? Ispillu zuritzalla ori, zori ontsu nintzanean nire yarraileak egiten eustena bera dagistak ik. Iruzur egiten dcutustak ik! Arpegi au berau ete zoan egun oro bere etxeko tellatupean amar milla gizon ebazana? Arpegi au izan ete zoan, eguzkiak lez, berau begiratuten ebenai kiñu eragiten eutsena? Arpegi au izan ete dok ainbeste zorakeri ikusi ta, atzenez, Bolingbroke'k aurrez aurre begiratu dauena? Aintza auskorixoko batek dago dizdiz arpegi onetan: aintza bestean auskor da arpegia bera be; (Lurrera yauriiten *dara* ispillua) izan be, or dago, eun txatletan ausirik.—Oartu, bakaldun ixil ori, oartu zakioz olgeta onen irakaspenari, arin be arin manatu dauela naibageak nire arpegia.

BOL.—Zizkau egin dau zure naibagearen itzalak zure arpegia izala.

ER. B.—Barrio esan egizu orrako ori. Nire naibagearen itzala, ala? Ba! dakusgun: egi be egi da barruan dagola nire naibagea; eta itzal baño ez tira azaleko alakeia-erok biotz elorrioiuan ixilik eta iñok ikusteka dagon naibagearen aldean; an datza naibagearen mamia, eta eskarrak dagiodaz, bakaldun, zure eskuzabaltasun andiari, negar egiteko bidea niri emonaz ganera, tide orri zelan negar egin be irakasten daustazulako. Eska, bat eskatuko dautsut, zoaz gero, ta ez kezkatu geiago zure burua. Emongo ete daustazu?

BOL.—Izentau egizu, lengusu maite.

ER. B.—Lengusu maite! Ba! bakaldun baño andiago nok ni: bakaldun nintzanean, ba, nire bendeko baño etzoazan nire zuritzalleak; eta orain, bendeko nazanean, bakaldun da nire zuritzalla emen. Orren andi izan<izkero, eztot iñori ezer eskatu-bearrik.

BOL.—Orraitioño be eskatu egizu.

ER. B.—Eta iritxi be egingo ete dot?

BOL.—Bai.

ER. B.—Olan ba'da, emendik alde egiten itxi egidak.

BOL.—Nora?

ER. B.—Zuk nora gura, zuon aurretik alde egitekotan,

BOL.—Zoaze, Dorrera eroan egizue zuotatik batzuk.

ER. B.—Ui! Ori ondo! Eroan? Guztiok zarie zuok eroala, bakaldun yatorraren yaustetik orren arin yagiten zarienok. {Alde ERRIKARTA BAKALDUNA'k Lord batzukaz eía Yagora-mordcagaz}.

BOL.—Datorren eguaztenez izango da gure bureskunde ospatsua; gertau zadize, lordok. (Alde Westminster'ko Abata, Carlisle'ko Gotzaja ta AUMERLE'z beste guztiak).

ABATA.—Ba-dator zori txarra; arantzeak

bestean min egingo dautse egun zorrotz onek oraindik yaioteko diran umeai.

AUM.—Eleizgizon gurenok, ez ete dago ezatariko asmo ta biderik bakalderria orban kaltegarri onetatik yaxeiteko?

ABATA.—Nik emen biotzean dodana nasai ustu-aurretik zin egin bear daustazue, ez nire asmoak zuon biotzean eortziteko bakarrik, nik asmau dagikedana burututeko be baño. Ba-dakust zuon betozkoetan artega be artega zagozela, naibagaz beterik zuon biotzak, eta negarrez beterik zuon begiak: zatoze nirera, apaltzera; n3uk asmauko dot zerbait, egun argia erakutsiko dauskun zerbait. (Alde dagie).

V EKITALDI

I AGERLEKU.-Torrera-bideko etxartebide.

BAKALDUNOA ta Anderak aurrera.

BAK.—Bide onetatik etorriko da bakalduna; auxe da zori txarrez Yuli Kaiser'ek beñola eragitako torrera nire yaun gaiztetsia, Bolingbroke arroak epaiturik, atxilo etorriko dan bidea: emen gelditu gadizan, lur asaldatu onek ba'dau iñon lekuri bere bakaldun yatorraren bakaldunoarentzako. Baña, ixilik, begiratu baño ez egin, edo, obeto esateko, begiratu be ez egin nire larrosa lirain zimeldua! Orraitiño fce, begiratu, bai, begiratu, eruki-iñonztu zadizen, eta maitasun yatorraren negarrez bera ikuzi ta barriro guritu dagizuen.

ERRIKARTA BAKALDUNA ta Yagolak aurrera.

Ui! zu, beñolako Toroi yagiten zan lekuaren eredu ori; deduaren ikuskizun ori; Errikarta bakaldunaren ilobi, ez Errikarta bakalduna bera; zegaitik egon bear dau ostatus zugan naibaga itsusiak, arroztegiarik ederrena izanik zu? Garaita orain garardotegiko arrotz danazkero?

ER. B.—Etzakioz batu naibageari, emakume lirain; ez egin olangorik nirearena arinegi egin eztagizun: lenagoko gure egokerea ames zori ontsutat esten ikasi egizu, biotz oneko orrek; eta orain atzarririk, auxe baño ezkareala erakusten dauskula garean onek: ene kutun, anai alkarregandik banandu- ezina natxako ni alanbear motelari; eta ak eta nik alkarregaz alkartuik egon

gura dogu eriotza arteraño. Pantze'ra zoaz, eta arin yoan be, eta lekaimetxeren baten sartu zadiz an; mundu barriko burestuna irabazi bear dabe gure bizitza yaungoikozaleak, gure mundutar bizitzak emen galdu dabena.

BAK.—Ostera! soñez eta gogoz, bietara antzaldatu ta erkindu ete da nire Errikarta? Adimena be kendu dautso Bolingbroke'k, ala? Zure biotzera be sartu yatsu, ala? Benderatu dabelako asarrez, besterik ezean, erpea aurrera egotzita lurra zaurituten dau il-aginik dagon leoiak; eta ikaslek legetxe, zigorra otzan artu, ta mun egingo ete dautsazu yoten zauzan zigorrari, eta zu leoi eta abereen bakaldun izanik, apaltasun zirtzilez kutunkeriak egingo ete dautsazuz zure asarre-aldian?

ER. B.—Abereen bakaldun, bai izan be; oraindik be gizonen bakaldun zori ontsu nintzake, abereez besteren bakaldun izan ba' nintz. Beñola bakalduno on izan ori, geitau zadiz emendik Pantze'rako; ilik nagola uste egizu; eta emen artzen dozula, niie eriotzako oe-ondoan ba'litz legetxe nire atzenengo agurra. Neguko gau aspeigarrietan yente zar onakaz yezarri zadiz sutondoan, eta an eralgi dagitsuezala igaroko aldie-tan yazoiiko zori txairak; eta zuk gau on esan-orduko, euren naibagea arinduteko, nire ipuin negargarria eralgi egiezu, eta entzuleak negarrez bidali egizuz oera; izan be, ba. ilinti sogorak be errukitu egingo dira zure miñetiko esan eragikorrez, eta

Bua itzali egingo da errikizko neganez; eta batzuk, austuteraño egingo dabe negar; ikatz baltz biurtuteraño beste batzuk, zuzenezko bakaldunari bakalduntzea kendu izanagaitik.

NORTHUMBERLAND aurrera, lagunakaz.

NORTH.—Ene Lord, aldatu egin da Bolingbroke'n asmoa; Pomfret'era yoan bear dozu, ez. Torrera. Eta andera, zutzako be arturik dago erabagia; arin egin-alean Pantze'ra yoan bear dozu.

ER. B.—Northumberland, nire yarlekura igoteko Bolingbroke'k zurubitzat erabili zauzan ori, aldia ezta ordu askoz zarrago egingo zure oben zakarra eldu ta umaturik, usteldu ta zornatu baño len; ari danerako lagun izan zatxakozanazkero, gitxizat etsiko dozu zuk, ak bakalderritik erdi bata emon ba'da-gitsu be; ak, ostera, zuzenaz besterako bakaldunik iminten zuk badakizunazkero, orretarako ñok bultzau-bear aundirik бага, ari bezari be ñori osturiko bakalduntzea kentzen yakingo dozula uste izango dau. Bildurrera yoten dau adiskide geztoen arteko maitasunak; gorrotora, bildurrak; eta gorrotoak batari edo besteari, naiz biai, zuzenezko galgordea ta irabazitako eriotzea daktartsoe.

NORTH.—Neuk erantzungo dot nire erruarena, eta bego. Agur egin eta alkarregandik banandu zadize; alkarregandik bertatik banandu bear zarie-ta.

ER. B.—Bitariko ezkontza-austea! Bitariko ezkontzea austen dozue, gizon geztook..., nire burestunaren eta nire artekoa, eta gero nire ta nire emazte ezkonduaren bitartekoa. Itxi egidazu zure ta nire arteko zina rnun eginaz manatuten; baño orraitioño be, ez olan, munez egina da-ta. Banandu gagizuz, Northumberland; otz dardaratiaz eta gexoz,

an eguialdia alakaz dagon iparralderako ni; eta Pantze'ra nire emaztea, andik yaiera andiz eta Orril atsegingarria lebte apaindurik etorri zana, Domusantu, edo egunik laburrena lez ara bidalirik.

BAK.—Eta alkarregandik banandu egin bear dogu, ala? Alkarregandik alde egin bear ete dogu?

ER. B.—Bai, eskua eskutik, ene kutun. eta biotza biotzetik.

BAK.—Biok erbesterau gagizuez, eta nigaz bidali egizue takalduna.

NORTH.—Maitasunik arean bai ba-leuke orra-ko orrek, baño erriketa gitxi.

BAK.—Olan izatekotan, ori nora, ara bidali nagizue ni be.

ER. B.—Olan gu biok, batera negar eginaz, zori txar utsa gintzakez. Pantze'n negar egizu nigaitik. emen egingo dot nik zugaitik; oba urrin be urrin, ur baño, ñnoz be urrago ez egotekotan. Zoaz, intziriz zenbatu egizu zure bidea; nik nirea urrumeka zenbatuko dot.

BAK.—Olan, alakarik luzeenak egingo dau biderik luzeena.

ER. B.—Oinkada bakotxeko urruma bi egingo dodaz nik, labur izanazkero kidea, eta luzatu egingo dot nirs bidea biotz larritz. Tira, tira, labur izan gaitazan naibageagazko maftakerietan, naibageagaz ezkontzekotan, luze egingo yaku-ta. Mosu bana izango da asko gure agoak isteko-ta, ixilik alde egingo dogu alkarrsgandik; onan damotsut nik nirea, eta onan artzen dot zure biotza. (Mun d'agioe a<rkam.)

BAK.—Ekadazu atzera nirea; elegoke ondo eukiteko artu biotza ta gero erailtea! (Barriro mun dagioe alkarri).

ER. B.—Arrotu egiten dogu zori txarra luzatzate kutun onegaz; agur, beste bein; naibageak esan dagiala ganetikoa. (Alde dn-gie).

II AGERLEKU.-Lengoxea. YORK'eko DUKEA'ren Yauregiko leku.

YORK eta bere DUKENOA aurrera.

DUK.—Ene Lord, ganetikoa eralgiko zeunstala esan zeunstan, gure illoba biak London' erako bidean ziranean yazorikoazko ipuina negarrak eten eutsunean.

YORK.—Zetan nengoan eten nebanean?

DUK.—Esku zakar asaldatauak Errikarta Bakaldunaren buru-ganera leioetatik auts eta sasmamarrak yaurtilen ebezan yazokune atan, ene lord.

YORK.—Len esan dodanez, orduan dukea, Bolingbroke andia, bere ugazabaren gogo geiagokeritsua ezagun yakola irudian zaldi bizi sutsuaren ganean yoian, eta zaldia, astiro bai, baño aurrera yoian ben-ben: bitartean miñ guztiak gedar eta oio egiten ebela "Yaungoikoak yagongo al zauz, Bolingbroke!". Leioak eurak be itz egiten ebela uste izango zeunkean, ainbeste begirakune, gazte ta zarren aldetik, agirí ziran, ba, arenlzako, euren begi leiatsuetatik, leio-ata-

kak sear,- eta orma guztiak, guztitariko irudiz margoztauriko zapiz apainduak, danak batera esaten ebela "Yosu'k yagongo al zauz! Ondo etorria, Bolingbroke!". Eta birtartean berak, burutsik, buruari alde batera ta bestera eraginik, bere zaldi arroaren iduna baño berago ebala berea, onan izt egiten eutsen, "Eskarrik asko, aberkideok!". Eta, etentzaka ori berori egin-ala, olan igarro zan euren aurretik.

DUK.—Ai ene! Errikarta'ren errukarri! Non egoan bera orduan bere zaldi-ganean?

YORK.—Antzeztegiak ikusleai gogoko ta atsegingarri izan yaken antzezleriak andik alde egiten dauenean urren datorrenari gogo gixigaz eta nagi yaramoten dautsoen legetxe, aren berbetea gazbako ta gogaikarri izango yakelakotan, olantxe, edo zapuzkeri geiagogaz, begirakune betozkotsuak egiten eutsozean Errikarta'ri; gizonik bat be etzan izan "Yaungoikoak yagongo al dau bakalduna!" esatekorik. Miñ argirik etzan izan an ondo-etorriarik ari emoteko: orrez bestera, autsa egotzi eutsosen bere buru gantzuturra; eta ak, buruari eraginaz, ain txukun eta polito aztinduten ebazan autsok-eta (bere mosuon bere naibcgearen efa epearen ezaugarri yakozcsn negarrak eta irribaireak nor geiagogak ebilkazam bitartean), zegaiti andien bategaitik Yaungoikoak galtzaidutu ezipa' leuz gizonen biotzak, nai ta nai ez urtu bearko eukien, eta gordinkeriak berak be erruki izango euskion. Baña Yaungoikoak berak dau ikustekorik yazokunotan-eta, Aren goiko gurariaren aurrean gure buruak makurtu-bearrean gagoz gu, epez eta bare. Bolingbroke'n alde zin egindako bende-ko gara gu orain, ta aren agintzea ta omena aintzakotzat dodaz orain betiko.

DUK.—Emen dator Aumerle nire semea.

YORK.—Aumerle zana; eta, andera, Rutland deiru bear dozu oraindik ara; Aldundian zin eginda nago, bakaldun eginbarriari betiko zintzo ta esaneko izango yakola ori.

AUMERLE aurrera.

DUK.—Ondo etorria, ene seme: non dozak orain udabarri eldu-barriak bere altzo muskerrean zabaldu dauzan bioletak?

AUM.—Eztaikit nik, andera, eta eztaust asko ardura be; Yaungoikoak daki bardin yatala euretatico izan, naiz izan ez.

YORK.—Tira ba, ondo ibili adi aldiaren udabarri barri onetan, aldiz aurretik ebagi ez agien. Ze barri dok Oxford aldetik? Bai ete yarraiek norgeiagoketa ta garaite-yaiak?

AUM.—Nik dakidala, bai, ene lord.

YORK.—I be yoango azala uste yoat.

AUM.—Yaungoikoak ez galazotekotan, yoateko asmoa dot.

YORK.—Ze ikurratz dok ire paparrean erdi-agirian dagona? Ostera! zurbildu egiten az? Erakutsi egidak idatzi ori.

AUM.—Ezta ezer, ene lord.

YORK.—Olan ba'dok, ez au kezkatuko ori nok ikusiak. Biotz-nasai gelditu gura yoat; itxi egidak idatzi ori ikusten.

AUM.—Asketsi nagizu, arren, aita on orrek: zer-ikusi andirik bagako da zer au, eta zertxo batzukaitik eneunke gura berau inok ikusterik.

YORK.—Eta nik, beste zertxo batzukaitik ikusi egin gura yoat, sir. Bildur nok, bildur nok...

DUK.—Zeren bildurrik izan bear dozu? Yai-egunerako yantzi txairoen baterako itunbenen bat baño ezta.

YORK.—Beretzako itundurik! zetarako dau itunbenik besterentzako ez izatekotan? Ergel zara zu, emazte. Itxi egidak idatzi ori ikusten, mutil.

AUM.—Azketsi nagizu, arren; ezin dot erakutsi.

YORK.—Nasai euki gura yoat biotza; itxi egidak ori ikusten, gero! (Kendu tct irakurri egiten dau) Azpikeria! Azpikeri zantarra! Zital Ori! Saltzalla ori! Yopu ori!

DUK.—Zer yazoten da, ene lord?

YORK.—Eee! nor dago or?

Otsein bat aurrera.

Yantzi nire zaldia. Erruki izango al dauksu Yaungoikoak! Emen dogun azpikeriarena!

DUK.—Ba! zer yazoten da, ene lord?

YORK.—Ekadazuez nire oski luzeak, gero! Ezarri yarlekua zaldiari. Nire omena-arren, nire bizi-aren, nire zintzotasuna-arren, salatu egingo dot zital au. (Otseinak alde).

DUK.—Zer yazoten da?

YORK.—Ixilik, emakume ergel ori.

DUK.—Enaz ixilduko. Zer yazoten dok, seme?

AUM.—Nasaitu zadiz, ama on ori; nire bizi errukarriaz erantzun bearko dautsadana baño ezta.

DUK.—Eure biziagaz erantzutekoa!

YORK.—Ekadazuez nire oski luzeak: bakaldunagana noa.

Otseina aurrera barrien-barri, oski luzeakaz.

DUK.—Yoik ori, Aumerle. Zurtuta ago i, mutti errukani ori. (Otseixiari) Aide egik emen-

dik, zital orrek! Bein geiagotan ez akit ager-
tu aurrera.

YORK.—Ekadazak oski luzeok, gero!

DUK.—Ba! York, zer egiteko zara? Ez ete do-
zuz ostonduko zeureen okerreriak be? Ba-
dogu beste semerik, ala? Naiz, izan ete
daikegu besterik? Ez ete dau agortu aldiak
nire ernaltasuna? Eta ostu egiten daustazu
ama izen zori ontsua be, ala? Zeu langoxe
ezta ori, ala? Ezta zeure, ala?

YORK.—Ostondu egingo ete dozu alkarkide-
tze baltz au, emakume ergel kutunti orrek?
Euretatik amabik zin egin dabe emen, eta
euren eskuak alkarri loturik, alkarganako
beartu dira, bakalduna Oxford'en erailteko.

DUK.—Au ezta izango euretari korrik; emen eu-
kiko dogu au; eta olan, ze oker egingo dau-
tso onek ari?

YORK.—Ken, emakume kutuntzalla ori! Ogei
bider ba'litz be nire seme, salatu egingo
neunke.

III AGERLEKU.-WINDSOR. Gazteluko leku.

BOUNGBROKE aurrera, bakalduntzat PERCY,
ta beste Lord batzuk.

BOL.—Ezin emon ete daust iñok nire seme
ondatzallearen barririk? Iru ilebete oso di-
ra oraintsuengoz a ikusi nebala: izuririk
ba'dogu gure ganean, axe da. Yaungoikoa-
arren, ene Lordok, agertuko al yaku a;
itandu egizue London'en, ango edaletxe-
tan, aitara yoaten dala, ba, egun oro diñoe
or, Iagun nasai ezibakoakaz..., or diñoenez.
etxartebide estuetan yarri ta gure ertzainak
yo ta gure bidaztai ostuten dautsenak lan-
goxe ei da a bera be; eta ak, mutil gazte,
lotsabako ta emakume-antzeko izanik, omen-
tzat eta gizontzat artzen dau olango mordo
nasaia ren alde urtetea.

PERCY.—Ene lord, egun bi edo dira bakal-
semea ikusi nebala, eta Oxford'ko norgeia-
goketeen barri emon neuntsan.

Bol.—Eta zer esan yoan emakumezale ak?

PERCY.—Emagaldutegira yoiala bera esan
eustan, eskuzorroa kenduko eutsala emag-
aldurik galduenari, eta aren eskartzat era-
biliko ebala; eta agaz lurreratuko ebala zal-
ditük eupadaginik mardulena.

BOL.—Etsia bestean nasai dok a: eta orrait-
ño be zer biotan ba-dakusadaz itxaro oba-
ren txatar batzuk, zarragotu dadinean argi
egln legikeenak.—Baña nor dator emen?

DUK.—Errukiorrago zintxakioz, nik egin izan
dodanez, orregaitik urrume eta intziri egin
izan ba'zeu. Baña orain ba-dazagut zure
gogoa; susmoa dozu zuk ni enatxakola
zintzo izan zure oeari, eta sasikume dala
ori, ez zure semerik; York maite, senar mai-
te, ez egizu izan olango susmorik; gizonik
izan lediken bestean zure antzeko da ori, ez
nire antzeko, ezta nire senitartekoren antze-
ko be, eta orraitño be maite dot nik.

YORK.—Ken zakidaz, emakume ezi-ezin ori!
(Alde dagi).

Duk.—Atzetik ara oakio, Aumerle! Igon akio
zaldi oneri; aztalak sartu zaldiari ta aurreak
artu egiozak bakaldunaganako, eta azketsi
agiala eskatu egiok, ire aitak i salatu baño
len. Neu be enok geldituko asko atzerago;
zar izan-arren, etxoat zalantzarik York'ek
bestean arin egingo dodala; eta lurretik
iñoz be enok yagiko Bolingbroke'k i azketsi
arte. Ospa, oa! (Alde dagie).

AUMERLE aurrera, iraduz.

AUM.—Nondik da bakalduna?

BOL.—Zer yazoten yako gure lengusuari, be-
giak orren yosirik eta orren uxu dauza-
nazkero?

AUM.—Yaungoikoa gordeko al au, on ori!
Ire nagusiagotzearen billa naiatok, igaz ba-
karrean itz egingo.

BOL.—Alde egizue zuok, ni emen bakarrik
itxita. (Alde PERCY'k eta Lordok) Zer ya-
zoten yako gure lengusuari?

AUM.—(Belounbikatu egifen da) Lurra betiko
artuko al dabe nire belauinak, eta nire ago-
sapaiari intsigiko al yako nire miña, yagi
ta itz egin-aurretik azketsi ezpa'nagizu.

BOL.—Asmozko, ala egitezko dok ire utsa?

Lenengotariko baño ezpa'dok, gorrotagarri-
rik gorrotagarrien izanda be, azkesten aut,
aurrerantzerako ire biotz ona irabazteko.

AUM.—Orrazkero, ateari giltzea emoten ilxi
egidazu, nire ipuina eralgi arte gizonik ona
sartu ezta din.

BOL.—Bete egik ire guraria. (Giltzoz isten dcru
atea AUMERLE'k).

YORK.—(Barutik) Arduraz ibili, gero! ene
nagusi; yagoik ire burua; saltzalla bat dok
or ire aurrean.

BOL.—Zital, nire burua seguruta gura yoat
igandik. (Ateret egiten dau ezpatea).

AUM.—Geldituazog eglozu zure esku azaska-
tzolleari; eztozu blddurrik izan-bearrik.

YORK.—(Barrutik) Idigi ate ori, bakaldun us-tetsuegi azartiegi orrek: bioiz onez, azpi-keriaz eure aurrean itz egingo ete daus-kat? Idigi atea, ostantxean yo ta lurrera eratsiko yoat-eta. (Atea idigi ta barriro isten dau BOLINGBROKE'k).

BOL.—Zer yazoten da, osaba? Itz egizu; ar-nasea artu egizu; galtzoria ur ala urrin dogun esaiguzu, berari erantzuteko iskilluok artu dagiguzan.

YORK.—Irakurri egik idatzi au, eta euk yakin-go dok nire iraduak erakusten izten eztaus-tan azpikiera.

AUM.—Irakurri-ala, gogoratu egik ik len niri egindako agindua; damuturik naiagok ni; ez egik irakurri or nire izenik; nire biotza etxagok nire eskuagaz asmakideturik,

YORK.—Asmakidetu zoan, zital, ire izena emen imini-aurretik. Indarrez atera dot ida-tzi ori saltzallearen bularretik, bakaldun; bildurrak, ez maitasunak, damutuazoten dautso orri; ez egiok izan errukirik, biotzean usigiko dauskan sugetu eztdin ire erru-kia.

BOL.—Asmakidetzta onen iguingarri, sendo ta azaTri! Seme saltzallaren aita orren zintzo! Urrezko iturri garbi, garden zara zu, eta zugandiko ur bizi onek lupetz artetik artu dau bere bidea ta loiturik gelditu da! Geztotu egin da ganaz dagon zure ontasu-na; eta zuritu egingo dau zure ontasun ugariak zure seme bide-galduaren oiban itzal eraikor au.

YORK.—Olan izatekotan, orren txarrindarra-ren estaltzalla izango dok nire onindarra; eta ondatu egingo yok orrek nire entzute ona bere lotsariagaz, seme ondatzallleak euren gurasoen urrea, euren gurasoak apur-ka apurka aurreratua, ondatu daroenez. II egin bear yok orren laidoak, nire entzute onak bizirik iraungo ba'yok, ostantxean nire lotsaria orren laidoagaz batera etzango dok; erail egiten nok ik, orri biziten iztea-gaz; arnasea artzen itxiakzkerori, bizirik geldituten dok saltzallea, eta erail egiten dok gizon zintzoa.

DUK.—(Barrutik) Eee! ene nagusi! Yaungoi-koa-arren, barrura sartzen itxi egidazu.

BOL.—Nongo eskale abots irrintzetidunek egi-ten dau gedar larri au?

DUK.—Emakumek, ire izekoak, bakaldun an-di; neu nok. Itz egidak, erruki izan egidak, idigi egidak atea: eguño eskatu eztauen eskekoa yagok eske.

BOL.—Zer benetatik, "Eskekoa ta Bakald.una" dalako ikuskizunera aldatu da gure ikuski-zuna, Ene lengusu bildurgarri ori, barrura

sartu egik ire ama: ba-yakiat ire oben zan-tarragaitik ire alde eskatuteko etorri dala. (Idigi egiten dau atea AUMERLE'k).

YORK.—Eskatu dagianak eskatu, azketsi, par-katu ba'dagik, ori azketsiagaitik oben geia-go sortu ta azi ledikezak. Zornaturiko soin-atal au ebagiakzkerori, zindo geldituko dok enpadua: au aldean itxiakzkerori, ganetikoa be usteldu egingo yok.

DUKENOA aurrera.

DUK.—Bakaldun ori, ez egiok sinistu gizon biotz-gogor oni! Nobere burua maite eztaue-na eztko gauz besterik maite izateko.

YORK.—Emakume burutik egin ori, zer dozu zuk emen egitekorik? Beste bein azi bear ete dabe zure bular zarrak saltzallarik?

DUK.—York kutun, epe artu egizu. (Belaunbi-kafu egiten da) Entzun nagik, nagusi txe-rakor.

BOL.—Yagi zadiz, izeko on.

DUK.—Oraindik ez, arren, beti ibiliko nok, ba, nire belauen ganean, eta etxoat ikusiko Be-kula be zori ontsuak ikusi daroen egunik, ik ni poztu arte; nire mutil obenti Rutland azketsirik, poztu naitela ik niri agindu arte.

AUM.—(Belaunbikalu egiten da) Nire belau-na makurtuten dautset nire amaren eskariai.

YORK.—(Belaunbikau egiten da) Nire belau-niak makurtu beitez orrein bion aurka. Txarto ibili bearko dok, orrei eskarrik emotekotan!

DUK.—Benetan ete daragoio orrek eske? Be-giratu orren arpegia; etxako yalgiten nega-rrik begietatik, txantxetan daragoio orrek eske; agotik arako baño ezтира orren itzak, gureak, ostera, biotzetikoak; erkin da orren arrena, ta ukatutea gura dau; biotzez, go-goz, eta ganetikoz dagigu guk arren: ba-da-kit nik pozik yagiko litzakezala orren be-lau nekatuak; lurrean iraungo dabe gure belau-nak, an zuzartu arte; azaluskeri us-tela dira orren arrenak; aperturi yator eta zintzotasunik zintzoeneko, gureak. Askozaz be arrenago dira gure arrenak, orrenak ba-ño; olan ba, iritxi dagiela gureak arren ya-torrek iritxi daroen errukia.

BOL.—Yagi zadiz, izeko on ori.

DUK.—Ez, ez egik esan "yagi zadiz"; "az-kesten dot", lenen, eta gero "yagi zadiz" baño. Ire iñude ba'nintzok, iri itz egiten ira-kasteko, "azkespen, parkapen" litzakek ik lenen esango eunken itza. Eguño enok egon luze eretxita itzik entzuteko; "Azkespen" esan egik, bakaldun; errukiak irakatsiko al

dausk zelan esan; labur dok itz ori, baña labur baño gozoago; bakaldunen agorako etxagok "azkospena" lango itz egokirik.

YORK.—Pantzeraz esaik, bakaldun; "pardon-nez-moi" esaik (6 bis).

DUK.—Azkospena ondatuteko daragoiozu azkospena irakasten, ala? Ene! ene senar mingots ori, ene lord biotz-gogor ori, bere aurrez-aurre iminten dozu zuk itza! Gure aberrian oi danez esaik "azkospen"; eztoгу aituten guk Pantzetarren Ingelanderera mordollorik. Asten dok itz egiten ire begia, ire miñari be itz eragiok; naiz, ire biotz errukiarrari ezarri egiok ire belarria; gure alakak eta arrenak zelan alderik alde zulatuten daben entzunez, errukiak eragin dageskan "azkospen" itza barriro ikasten.

BOL.—Yagi zadiz, izeko on.

DUK.—Enabil ni yagi nadilaren eske; azkospena dok nik eskuartean dodan arazo guttia-

V AGERLEKU.-POMFRET. Gazteluko Baitegia.

ERRIKARTA BAKALDUNA aurrera.

ER. B.—Emen bizi nazan baitegi au munduaren aldean zelan iminiko ikasten erago dautsat; baña mundu au yentetsu izan, eta emen ni neu bakarrik nagolako, bein beinean porrot egin dot nire egikizunean; orraitño be ekin egin bear dautsat. Nire gogoaren emearena egingo dabe nire garaunak, eta aitarena nire gogoak; onako zer biok gogai-talde itzala sortuten dabe, ela talde onek talde barriak sortuten dauz mundu txiki onetan, eta gogai-taldeok gogaldiz mundu onetako yentearen antzeko dira, gogairik bat bera be eztago pozik eta nasai-eta. Eurerarik onenak be, Yaungoikoagazko arlokoak, kezkaz eta zalantzaaz beterik dagoz, alkarregaz ukabilka, esaterako oneik onoko biok, "Erdue, txikiok" (7), eta "Orratzaren begitik kamelua sartzea bestean gaitz da an sartzea" (8). Zer andi ta ezinak asmauten dabez geiagokeri-gogaiak, ni asma asma ba'nenbil legetxe zelan urratuko biderik nire atzazal mengelokaz nire mundutxo latz onen suarri-saietsak zear, nire baitegi onetako orma lodiak zear; eta euren arrokeriak burua makurtuten izten eztautselako, esan daroe, "Ezkozak alanbearraren lenengo yupuak, eta azkozak izango atzenengoak be"; eskeko ergelak, oin-lokarietan dagozanean esan oi daroenez, euren lotsariaren estalgarritzat "Asko izan dozak

BOL.—Azkesten dot, Yaungoikoak azketskio nauen legetxe.

DUK.—Belaun makurraren irabaziaren zori ontsu! Orraitño be bildurrak ilik nago; barriro esaik esana; "azkesten dot" barriro esatea eztoк birritan azkesterik, azkeste bat sendotutea baño.

BOL.—Biotz biotzez azkesten dot ori.

DUK.—Lurreko yainko augu i.

BOL.—Baña gure anai-ide (koñatu) zintzo, ta abatagazko, ta ganetiko asmakide-mordoa-gazko, ondamendia yoango yake bertatik euren orpoen atzetik aTa. Osaba on, gudari-mordoen batzuk bidali egizuz Oxford'era, naiz, azpiyaleok non dagozan, ara: zin dagit, eztirala biziko mundu onetan, nondik diran bein yakinazkero, goatu baño. Agur, osaba: eta agur, ene lengusu: ondo eginda egon dok ire amaren arrena, eta zintzo azalera erakutsi egik.

DUK.—Tiruk, ene seme zar: barriztau agiala eske naiagok Yaungoikoari. (Alde dagie).

emen len be, eta geiagorik be izango dok"; eta onango gogaletan nasaitasuna dalako zera idoroten dabe, euren zori txarra olan-gorik yasan izan dabenen bizkarrean iminita.

Onango yolasari daragoiot nik be, bat bakarrik izanik, asko nazala, eta bat bera bez pozik eta nasai: bakaldun naz batzuetan; gero, azpikeria dala-ta, eskeko izatea gura izaten dot, eta eskeko naz izan be: gero, bakaldun nintzanean obeto bizi nintzala sartzen daust buruan bere azpian zapal zapal eginik nauen bear utsak; orduan osteria be bakaldundurik geldituten naz; eta andik beingoan, Bolingbroke'k bakalduntzea kendu egin daustala uste izaten dot, eta ezebe enaz bertatik; Baña, nazana nazala, ez ni, ez gizon baño eztan beste gizonik, ezegaz be ezala geldituko asko etsita ta pozik, utsagaz asko etsita ta pozik ez geldituketotan. (Eresia yoten dabe norbaitzuk) Eresia dantzudala? Ba! ba! Aldian neurria yagoizue: berez ezti izanik, bai latz eta garratz eresia, aren aldian neurririk yagon ezik, eta

(6 bis) Eskatuten yakena ukatuteko, edo eskaikizunari ezetza polito emoteko, "Pordon-nez moi" esan daroe Pantzetarrak.

(7) Matai'ren Barri Ona, XXV, 34.

(8) Matai'ren Barri Ona, XIX, 24.

einik yagoten eztanean! Orixe yazoten da gizonen bizitzako eresian be. Eta belarri zorrotzak dodaz nik emen, aria alditik urtenda noz dabilen igarri ta oartuteko; baña, eztat izan belarririk nire aldia be oker ebilela ikusi ta oartuteko, nire agintzea ta aldia alkarren kide etzirala ikusteko. Alperrik galdu dot astia, eta orain neu galtzen nau astiak. orain aldiak aldia neurtuteko erloiu egin nau-ta: nire gogaik dira minutoak; eta nire intziarik dira begietako erloiuak orduak neurtuten dabanak, eta negarrak legortuteko, begietara daroan nire atza da erloiuaren mosuko atzarena dagiana. Orain, yaun, yoalearena egiten dauen nire biotzaren urruma zaratatsuak dira ze ordu dan esaten dabenak: olan, intziarik, eta negarrak, eta urrumak iragar ten dabez minutoak, minutokiak, eta orduak; baña bidaria lez arin doa nire aldia. Bolingbroke'n poz arrorako; bitartean ni, emen ergelarena egiten, aren erloiuak ergelarena egiten. Burutik eragiten daust eresi onek; ez al dau iraungo luzaroago; burutik eginak zurtuteko izan-arren inoiz, ba, zurrai burutik eragiteko dala deretxat niri. Orraitiño be, onetsia bedi eresi ori damostanaren biotza! biotz onaren agiria da, ba; eta biotz ona inoizdiko pitxi yako Errikarta'ri, gorroto utsa baño eztan ludi onetan...

Bakaldegiko Otsein bat aurrera.

OTS.—Gora, bakaldar bakalseme ori!

ER. B.—Eskarrik asko, andiki zindo; gutatik merkeena be karuegi dok amar "groat" etan (9). Nor augu? Eta zelan etorri az ona, ona etxatok, ba, beste gizonik nire zori txarriari bizirik iraunazoteko yakia ekarten daustan txakur betozko-iluna baño.

OTS.—Bakaldun, zure zalditegiko zaltzain errukarri izan nintzan ni zu bakaldun zintzazanean; eta, York'erako bidean nintzala, aleginik askogaz atzanean be iritxi dot beñolako nire ugazaba bakaldarraren arpegia begiratuteko ederretsia. Ui! nire biotz-minarena, bureskunde-yaiean, London'go etxarte-bideetan, zu ainbeste bider ganera igon zintxakozan eta nik ainbeste arduraz ezi izan dodan "Barbary" zaldi nabarraren ganean Balingbroke ikusi nebanean!

ER. B.—"Barbary" aren ganean yoan zoan, ala? Esaidak, adiskide txerakor, zelan yoan zoan zaldia aren azpian?

OTS.—Lurra aintzakotzat artu ezpa'leu bestean arro.

ER. B.—Bere ganean Bolingbroke ebalako ain

arro! Neure eskutik yan yok zaldi ak ogia; bai, nire bakal-eskutik; esku onek egin yok a arro, igutzitxoa emonik. Gstoporik be egin ez ak? Lurrera yausi be ez, arrokeriak yauskerarik izan bear dauela-ta, eta bizkarra ostu eutsan gizon arro ari idun-azurra ausiako be ez? Azkespena eskatu egik, zaldi! Zegaitik egiten dauskat asarrerik, gizonai bildurra sartzeko egina izanik i, yasatera beartu auen orri? Enabe egin ni zaldi; eta orraitino be, zamea daroat, asto ba'nintz legetxe, Bolingbroke ibiltariak aztalak sartu ta unaturik.

Baitegiko Yagolea aurrera, yaki-ontzi bategaz.

YAGOL.—(Bakaldegiko-otseinari) I, txotxo, alde egik; etxagok emen luzaroago egoterik.

ER. B.—Maite ba'nok, ordua dok ik alde egiteko.

OTS.—Nire biotzak esango dau, nire miña esaten azarten eztana. (Alde dagi).

YAGOL.—Ene Lord, eder izango ete yatsu yatea?

ER. B.—Euk ikusik lenen zelango dan, oi dokanez.

YAGOL.—Ene Lord, enaz azarten. Besterako agindua emon izan daust bakaldunagandik etorbarri dan Exton'go sir Pierce'k.

ER. B.—Txerrenak eroango *ál* zaez i ta Lancaster'ko Endika! Zartu dok epea, eta gogait eginda naiaukak. (Yo egiten dau yagolea).

YAGOL.—Lagun zakidaze, lagun zakidaze, lagun zakidaze!

EXTON eta Otseinak aurrera, iskillokaz.

ER. B.—Ostera! Zer gura yok eriotzeak eraso zakar onetan? Zital, eure eskuak emoten yaustak eriotza onetarako lankia. (Iski llo bat artu ta erail egiten dau bot) Oa, eta beste leku bat bete egik sulezan! (Beste bat erailten dtou, eta orduan EXTON'ek yo ta lurrera egozten dau) Inoiz be itxungiko eztan sutan erreko da, nire burua onan zealdoka imini dauenaren eskua. Exton, bakaldunaren lurra bera loitu yok bakaldunaren odolagaz ire esku eraila zakarrak. Gora, gora, ene gogo! Goian yagok ire lekua, emen ilteko, nire soña lurrera doan bitartean. (II egiten da).

(9) "Groat" dalako au be Ingelanda'ko beñolako txesnon edo diru yatsu, "xilin" oren frurena.

EXTON.—Bakal-odolez bestean adorez beterik; biena egin dot; Ui! on al litz egin dodan au! ba, ondo egiten dodala esan daustan txerrenak berak diño sulezako egunoro-

koan idatzi dala egite au. Bakaldun biziari eroango dausts bakaldun il au: kendu egizuez besteok emendik, eta emen eortzi egizuez, (Alde dagie).

VI AGERLEKU.—WINDSOR. Gazteluko leku.

Zaamiolen otsa; BOLINGBROKE, aurrera, Bakalduntzat, YORK, Lordak, eta Laguntzakoak.

BOL.—York osaba maite, oraintsuen izan dogun barriak diñenez, Glostershire'ko Cicester uria erre ta kiskali egin dabe asaldatuak; baña eztogu entzun goatu, naiz erail dabezan, ala ez.

NORTHUMBERLAND aurrera.

Ondo etorria, ene lord: ze barri dogu?

NORTH.—Lenen, zori on guztia opa dausts zure agintza gantzutuari. Amen urren go barria: London'era bidali dodaz Salisbury, Spencer, Blunt, eta Kent'en buruak; papel onetan ikusiko dozu, luze ta zabal, azaldu ta, zelan goatu izan diran (Papel bat damotso).

BOL.—Eskarrik asko, Percy txerakor, ire nekeakaitik; eta sari egokiz sarituko yoadaz ire irabaziak.

FITZWATER aurrera.

FITZ.—Ene Lord, Oxford'etik London'era bidali dodaz Brocas eta Sir Bennet Seely'ren buruak; Oxford'en zu gordinkeriz itzulteko asmotan ibili izan ziran alkar arturiko azpiyaleetatik etoi bildurgarri birenak.

BOL.—Etxoazat aztuko ire nekeak, Fitzwater; zindo be zindo dok ire irabazia, ondo autortuten yoat.

PERCY aurrera, CARLISLE'ko GOTZAIA'gca.

PERCY.—Yakinkidetzastunak eta gotiluntasun mingotsak ilobira eroan dabe Westminster'ko Abata, alkarturikoetatik andi zana; baña emen da bizirik Carlisle, zure bakaldar gaiztespenaren eta bere arrokeriaren epaiaren begira.

BOL.—Carlisle, au da zutzako epaia: leku ixil ostonduen bat autu egizu, leku yainkotarren bat, zeuk len dozunaz besteren bat, eta an bizi zadiz pozik; bakes bizitekotan, iñoren kezka bagarik bizi zadiz; zu beti nire arerio izan-arren, ba, zindotasunaren txatar argirik asko ikusi izan dot zugan.

EXTON aurrera, lagunakaz, gorpu-ontzia dakarrela.

EXTON.—Bakaldun andi, zerraldo onen barruan eskeintzen dausts eortzirik zure bildurkizuna: emen barruan datza zure arerio andietatik altsuena, Bordeaux'ko Errikarta, neuk ona ekarria.

BOL.—Exton, eztauskat emoten eskarrik iri, nire buruaren ganera, ta lurralde ospatsu oso onen ganera zer-esanik asko ekarriko dauen egitea egin dok ik ire eskuz-eta.

EXTON.—Zeure agotik urteniko aginduz egin dot egiteko au, ene lord.

BOL.—Edenik etxoek maite izaten eden-bearrean aurkituten diranak-eta, nik be ez aut maite: a ilik ikustea nik gura izan-arren, gorroto yaustsat eraileari; a erailik ikustea dok nik maite dodana. Ire yakinkidetzako errua artu egik ire nekeen alderako, baña ez nire itz onik, ezta bakalsemeren esku-erakutsirik be; aldarrai abil Kain'egaz gabeko itzalpe ta ilunbetan, eta ez egik erakutsi ire burua ez egunez, ez argitan. Lordok, autor dautort tamalez beterik dagola nire gogoa, ni azteko nire burua odolez txipriztindu-bearrean aurkitu nazalako: tira, iletea egizue nigaz batera, negar eragiten daustanagaitic. Eta ileta-yantzi baltzak soñeratu egizuez; nire esku errudunetik odol au ikuzteko: gotilun zarrakidaze atzetik; edertu egizue nire garbaia emen, aldiz aurretiko zerraldo onen atzean negar eginaz. (Alde d'Ctie).

AMAIA

LAN ONETAKO ITZ ZARR, BARRI, TA GITXI EZAGUN BATZUK:

ALTXOR.—Pitxi eder, naiz aberastasun andi.

ATXILO.—Goatua, batez be gudian goatua, nora-gura ezin yoan datekena.

ARROTZ.—Erbestetar, naiz etxean artzen dana, etxeko ezala.

ARROZTEGI.—Arrotzak artzeko etxea, "ostatu".

AZKETU.—Atz-getu; zerbaiten atsik edo lorratzik itxi ez. Irakastegira genbiltzanean euskera mordoloz "borrau" esaten geban guk, besterik guri irakatsi ez eta. Ezabatu.

AZPEGI.—Atz-begi, atzak eta begiak, eta edozein soin-atal, itzaren esan-gurea zabalagoturik.

EDEN.—"Bereno", "pozoi, pozoin" euskel-gaiztoz. Sikilikitu (Zeanuri).

EORTZI.—Ilari lur emon.

ERESI.—Ots atsegingarri, "musika", euskel-gaiztoz.

ERESKIN.—Eresi edo musikea egiteko edozein lanki, esaterako, txistu, danbor.

GALEN.—Euskel-gaiztoz "multa" esaten yakona.

IKUZI.—Uragaz garbitu. Itz au Bizkaya'n zartu egin yaku, tamalez, baña bizi da oraindik bere ume "irukutzi", ikuziaz esan gura dauena. Bein baño geiagotan esan euskun gure amak onako au: "Iturrukure ekarrik, baye yarroari irukutzi egiok", eta agindua betetakoan, eta bete be beteten geban, eta pitxarrera ur apur bat artuta, aztindu egiten geban pitxarra. Zetarako? Pitxarra irukuzteko, ba.

ILARRAINDU.—Arrotu, baña zuzenez, ez arropuzkeriz.

ISPEL.—Azurrezko azal bidun itsasoko zer bizi, yatekoa.

MEIKI.—Naparroa'n, Arbizu'n, beintzat bizi da itz au, eta euskel-gaiztoz "koxo", naiz, "erren" itzakaz esan daroena esan gura dau.

MUSKER.—Nok eztaiki zer dan muskerra? Guk geuntsan bildurrarena! Zazpi erritako yoale edo kanpaiak yo bear ei ziran berak usigiazkero, ak bere aginai gugandik alde eragiteko; baña esangura orrez ganera, euskel-gaiztoz "berde" esaten yakon "koloroa" be esan gura dau.

ORTZE.—Gure buru-ganeko sapaia, gau argitan izarrez yosirik agiri izaten dana.

OSKI, OSKIAK.—Oñetako narruzko gogorak; euskel-gaiztoz "zapatak".

OTURUNTZA.—"Ogi"tik dator itz au, ogia da. lako gizonaren yakirik beinena, baña yatecddi on yori esan gura dau.

USABURKI.—Usain gozodun zuraren usaina nasturiko orioa da itz onek esan gura dauena.

YAKINKIDETZA.—Euskel-gaiztoz "kontzentzi" itzak esan gura dauena.

YANAUSTE.—Yana-auste, yana urdallan egoste. Zeanuri'n bizi da itz au; gure amak erabilten eban beintzat.

YANAUSI.—Urdallan yana egosi, edo eio.

ZERGA.—"Petxu" euskel-gaiztoz.

ZERUKO KATU.—Zugatz eta beste landaren orriak yanda bizi ta gero pitxeletatu egiten dan mamarro uletsu-ointsuari deretxogu Zeanuri'n "zeruko katu".

ZERRUTSEAN.—Billusik. Eztakit Zeanuri'z beste uritan, naiz, baserritan itz au erabilten danentz.

IV ENDIKA BAKALDUNAREN LENENGO ATALA

[FIRST PART OF KING HENRY IV)

IV ENDIKA BAKALDUNAREN

LENENGO ATALA

(FIRST PART OF KING HENRY IV)

ANTZEZTURIKO LAGUNAK

LAUGARREN ENDIKA BAKALDUNA.

ENDIKA, Kimuruerriko Bakalsemea. BAKALDUNA'ren Semeak.
Lancaster'ko YON BAKALSEMEA.

SIR Walter BLUNT. BAKALDUNA'ren Adiskideak.
WESTMORELAND'eko KONDEA.

TOMA PERCY, Worcester'ko Kondea.

ENDIKA PERCY, NORTHUMBERLAND'eko Kondea.

ENDIKA PERCY, izengoitiz HOTSPUR, aurrekoaren semea.

EDEMUNDA MORTIMER, Marche'eko Kondea.

SCROOP, York'eko Gotzaiburu.

SIR MIKEL, Gotzaiburuaren adiskideetarikoa.

ARTXIBALDA, Douglas'ko Kondea.

OWEN GLENDOWER.

SIR ERRIKARTA VERNON.

SIR YON FALSTAFF.

POINS.

GADSHILL.

PETO.

BARDOLBA.

LADY PERCY, HOTSPUR'en Emazte ta MORTIMER'en Arraba.

LADY MORTIMER, GLENDOWER'en Alaba, MORTIMER'en Emazte.

MS. QUICKLY, Eastcheap'eko Ardandegiko Arroztegiduna.

Lordak, Agintza-gudariak, Xeripa (Sheriff), Ardaoduna, Yauregi-buruak, Edari-banatzalleak, Burdidun bi, Bidaztiak, eta Laguntzakoak.

I EKITALDI

I AGERLEKU.-LONDON. Bakaldegiko Leku.

ENDIKA BAKALDUNA, WESTMORELAND, SIR WALTER BLUNT, eta beste batzuk aurrera.

END. B.—Ain ikaraturik, eta kezkearen kezka zurbil egon-arren gu, ba-dogu astirik bake bildurduak arnasea larri artu ta arnasestuka baño ezpa'da be, urrineko be urrineko lurretan asteko diran burruka ta naste-borraste barrietaz erago dagiskun. Gudu-garrak itsutu ta egarrituriko lur onek oraindik ara eztauz buztiko bere ezpanak bere semeen odolez; ezta atxurtu ta ebagiko barriro guda-lubakirik bere lurretan, eta bertoko lorarik be ezta zapalduko arerioa-

ren oñetako burdinek; gudu-lerro eder lxaierroetan bide bat eroango dabe orain alkarren arerio izan diran begi guztiok, ortze asarreko izar ibiltarien antzekook, guztiok yatorri batekoak, guztiok yaki bardinez aziak, len erribarruko burrukan alkarren aurrez aurre aurkitu ta alkarren arteko triskantza erritarrean azaskatu ziran guztiok, eta aurrerantzean eztira izango alkarren arerio, ezta ezagunentzako, ez senideentzako, ezta itunkideentzako be; ezta ebagiko gudu-epaiak bere ugazabarik, txarto lekaturiko ezpateak ebagi daroanez. Olan, ba,

adiskideok, Kisto'ren ilobiraño goazen (Aren gudari gara, ba, orain, Aren gurutza onetsipean burruka egiteko sendetsiak eta gure izena eronak gara-ta), eta orretarako, Ingelanderrezko indarra batuko dogu oraindik aurrera; leku guren areitako lurr-arloetatik ango kistarr-ezak eizatu ta uxatuteko eratu ziran, ba, Ingelanderren besoak euren amen erraietan; an ibili ziran, ba, amalau euneko urte dirala, gure onerako kurutza gogorrean untzez yosiak izan ziran oin onetsi aik. Ba-dira amabi ilebete asmo au artu gebala-ta, eztago zetan esan gu geu be ara yoango gareala: ezkara batu, ba, orain orrelarako. Orregaitik, ene lengusu txerakor Westmoreland, ik iragarriko al daustak gudari-bidalketa onegazko gure onulariak bart erabagia.

WEST.—Ene nagusi, itzik asko egin zan an iradu gorri au dala-ta, eta ara yoate orrek iruntsiko dauen diruaz be ez itz gitxirik; eta orretan geragoiola, bitartean sartu yakun, eta bitarte osoan sartu be, Kimuruerritiko barri txarrak ekazan bidaria; eta zera izan zan barriotatik txarrena, Kimurutarren esku zakarrak goatu egin dabela Mortimer, Glendower'en gudari nastu basatai gudu egiteko Herefordshire'ko gizonakaz ara yoana, eta bere gudarietatik milla bat triskantzaturik gelditu dirala; ilen gorpuak be ain zakar, ain basatikeriz erabili ta lotsarik bage antzaldaturik itxi dabezala. Ain lotsagarri *ôa* Kimuruerriko emakume aik egin izan dabena-ta, ezin esan ledike barriro, ezta aitatu be.

END. B.—Olan izatekotan, eten egiten daukue burruka orren barriak Lur Gurenaroko dogun gure asmoa, urrean.

WEST.—Barriok eta beste batzuk be bai, ene Lord eskartsu; izan be, ba, barri latz eta bape gogoko ez tiran geiago be etorri dira iparraldetik, eta ara emen andiko barriok; Kurutza Gurenaren egunez, Holmedon'en alkarren aurrez aurre agertu ei ziran Hotspur adoretua, zera, Endika Percy gaztea, ta guztiai ezagun yaken Artxibalda, Eskolandar kementsua, eta aldi gotilun eta odoltsua igaro eben aik an, euren suskilloen daunbada ta astrapaletatik ebaztekotan, eta ortik susmau ta atera ledikenez; barriok ekarri dauzana, ba, arein zein geiagoketa bero beroan eta arroan zaldi-^aneratu zan, atzanean zetara yoko ebanik ez ekiala.

END. B.—Emen dogu adiskide maite ta trebe be trebe bat, Sir Walter Blant, zaldi-gane-

tik yatsi-barria, Holmedon'dik onako leku guztietako lurrez loitua; eta barri leun eta ondo-etorrigarriak ekarri daukuz. Banderatu dabe Douglas'ko Kondea: amar milla Eskolandar azarri, ogei ta bi zaldun euren odoletan uzer ikusi izan dauz Sir Walter'ek Holmedon'go zabaletan; atxilotan, Mordake, Fife'ko Kondea, Douglas benderatuaren semerik zarrena goatu dau Hotspur'ek; baita, Athol, Murray, Angus, eta Menteith'ko Kondeak be. Ez ete da ospagarri goatze au? Ez ete da sari ederra? Ba! lengusu, ez ete dok?

WEST.—Bai orixe, edozein bakalseme be ilarraindu, arrotu ledike olango guda-irabazteagaz.

END. B.—Bai, eta gotilundu ta oben be eragiten daustak orrako orregaz, nire Lork Northumberland'ek olango seme zori ontsurik izatea ikusi-ezinagaz..., deduaren miñaren itzgei dan semea; zugaztiko landararik artezena; zori gozoaren kutun eta arrokizuna; bitartean nik, orrako orren arrota-suna ikusi-ala, nire Endika gaztearen mosua iskanbillaz eta laidoz loiturik dakust-eta. Ui! erakutsiko al litz gabaz iruzurrak egiten dakian maitagarriren batek aldatu euskuzala gure semeak ume-mantarretan baturik seaskan egozanean, eta Percy izena ezarri eutsala nireari, Plantagenet, arenari! Olan, aren Enrika neunkake nik, eta nire-a; baña bazartu dagiguzan arentzako goraketok, eta gogaketok. Ze eretxi dok ik, lengusu, Percy gazte orren arrokeriaz? Beretzako daukaz ak zori onaldi onetan goatu dauzan atxiloak; eta Mordake Fife'ko Kondeaz besterik eztaustala emongo iragarri daust.

WEST.—Bere osabeak, Worcester'ek, irakatsi dautso ori ari, eta aren osaba orrek edozein dautsu gogo txarra; orregaitik ollartuten da a, eta eragi egiten dau bere gangar gaztea zure nagusiagotzearen aurka.

END. B.—Baña nik aren billa bidali yoadaz gizonak, orrako orregaitik ak erantzun dagian; eta zegaiti onegaitik, bein beinean bertanbera itxi bearko yoagu Yerusalem' erako dogun gure asmo gurena. Lengusu, datorren eguaztanean Windsor'en egingo yoagu gure onularien batzara..., ori iragarri egiek lordai; baña i eu arin be arin etorri akigu atzera; asarre-aldian esan daikeguna baño askozaz be geiago yagok esateko ta egiteko-ta.

WEST.—Egingo dot orrako ori, ene nagusi. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Lengoxea. Bakaldegiko beste ieku bat.

ENDIKA BAKALSEMEA ta FALSTAFF aurrera.

FAL.—Dakusagun, Hal; eguneko ze ordu dok, mulil?

BAKALS.—Ardao zarra edanaz, apalostean ire botoiak azkatuaz, eta eguerdi-osteko biaoa txiselu-ganean eginaz ain buru-motel ago i-ta, iri aztu egin yak benetan yakin gura eunkena itandutea. Ze denganiñoren egitekorik dok ik eguneko orduagaz? Orduak ardao-edalontzikadak ez izatekotan, ollar irenduak minutoak, emagalduen miñak erloiuk, emagaldutegietako iragarkinak erloiuratzak, eta tapetan gar-kolorezkoz yantzirik dagon neska bero liraina eguzkia bezatit artzen ezpa'dok..., etxoat ikusten zegaitik egin bear dokan olango alperriko itaunik eguneko orduaz.

FAL.—Oraintxe untzetik ur daragoiok yoten, Hal; ziskuak ostuten gabiltzanok, ba, iretargiaren eta zazpi izarren yarrai ibiltzen gozak, ez eguzkiaren yarrai, ez "zaldun aldarrai orren txairo" orren yarrai. Eta, arren, irrilarri maitagarri ori, i bakaldun izan adinean, (eta Yaungc.kcag yagongc al yok ire eskarra), ire nagusiagotzea esan bear neunkean, ez ire eskarra, eskarrik zelango danik be eztok izango ik-eta...

BAKALS.—Olangorik! zelango danik bez, ala?

FAL.—Ez, ez orixe; ezta gurinetan erretako arrautzearen aurre-itzaldirako lain be.

BAKALS.—Tira ba, zer orduan? Tiruk, biribil esaik, biriHI esaik.

FAL.—Ba, orduan, irrilarri maitagarri, bakaldun izatera eldu adinean, ez al dok itxiko gu gauzai gareanok iñok egunaren edertasunaren lapur deitu gagizanik; Dine'ren basazain, ilundiko altonseme, iretargiaren kutun deituko al gabez; eta gizonak esan dagiela yaurbide oneko gizonak gareala gu, itsasoa bestean gure ugazabandera zindo ta aratz dan iretargiak yaurriak, aren begien aurrean ostuten dogunak gara-ta.

BAKALS.—Ondo esan dok ik, eta ondo datorrik ik esana, izan be, ba, iretargisiren gizon gareanon zoriak be izkorak eta izperak yozak, itsasoak legetxe, gure zoria be, itsasoarena lez, iretargiak darabilena dok-eta. Aikor, esaterako: astelenez adoretzu osturiko urreziskua eruki bagarik ustu ta eralgita yagok astearte goxerako. "Geldi or" esanaz kentzen dok, eta "betor ona" gedar eginaz eralten dok; zurubiaren oñak bestean bean

yagok orain gure zoriaren izperea, eta andik laster eskegigalluaren goiena bestean goian,

FAL.—Yaungoikoa-arren, egia dok ik diñokana, mutil. Eta, ez ete dok neskarik eztieta ardandegiko nire emakume arroztuna (cstataria)?

BAKALS.—Hybla'ko eztieta bestean ezti ta gozo, gazteluko ene mutil zar. Eta bupal-narruzko azpirengo soñekoa ez ete dok soñekorik gozoen eta iraukorrena? (1).

FAL.—Ostera! Ostera! irrilarri zoro ori! Ba! zereko zeretari zabilkuz? Ze denganiñoren egitekorik dot nik bupal-narruzko azpirengo soñekoagaz?

BAKALS.—Ba! eta ze sakuterik yoat nik egiteko ardandegiko nire arrotz-tegi-neskeagaz?

FAL.—Tira ba, bein baño geiagotan erdu zatzakoz ari zoren batzukaikitik.

BAKALS.—Eguño eskatu dauskat irea ordainduteko, ala?

FAL.—Ez; autortu gura yoat zor yakana, beiti ordaindu dok ik an gu guztion zorra.

BAKALS.—Bai, eta bai beste lekutan be, nire diruak eltzen ziraneraño; eta diruak eltzen eztiranean nire izenak erantzuten yok.

FAL.—Bai, eta ainbesteraño erabili dozu zure izena-ta, oñordeko agiria zareaala agiri ezpa'litz..., baña, arren, irrilarri ezti, eskegigallurik izango ete da Ingelanda'n zu bakaldun izan zadikezanean? Eta beñolako zar irrigarri ugertsua dan lege aita zarra dalakoak eusteko ago-ugaletatik ten egingo ete dautse gizon azarriai? Ez egizu eskegi lapurrik bakaldun izan zadikezanean.

BAKALS.—Ez; euk egingo dok orrako ori.

FAL.—Nik, ala? Zeraren bakan be bakan! Yaungoikoa-arren, ebazle lango ebazle izango naz ni,

BAKALS.—Orainganik ebazten dok ik txarto; zera dok nik esan gura dodana, euk eskegiko dozakala lapurrak eta, olan, eskegitzalla bakan izango azala.

FAL.—Tira ba, Hal, tira ba, eta bakaldegian begira egotea bestean gogoko yako orrako ori nire gogaldiari, bai orixe.

BAKALS.—Eskariak iristeko, ala?

{1} Gizon-eskegitzallea-ren lagunck erabiltzen ei eben bupal-narruzko azpirengo soñekoa, euren ogibidearen ezaugarritzat. Záplada a/i etxako izam bope gogoko Falstafferi.

FAL.—Ez, soñekoak iristeko (2), eskegitzalleak soñekotegi yoria izaten yok-eta. Yaungoikoaren odola-arren. katua bestean, naiz katez daroen artza bestean motel eta gotilun naiagok.

BAKALS.—Naiz, leoi zarra bestean, naiz, maiteminduaren kitarrea bestean.

FAL.—Bai, naiz, Lincolnshire'ko zarrabetearen burrundabea bestean.

BAKALS.—Zer diñok erbia bestean, naiz Moor'eko arekea bestean gotilun agola esan ba' dagiskat?

FAL.—Etxatazak bape gogoko ta gozo ire irudikiak; ganorabako utsak dozak; irudiisu iruditsu ta zital zital augu i, bakalseme gazte ezti ori..., baña, Hal, arren, enagik geiago kezkatu ire uskeriz. Yaungoikoak gurako a) yok ik eta nik entzute on apur bana non erosi yakitea. Lengo egunean, etxartebiean. Onularietarik lord agure batek agirika egin yaustan igaitik, yaun, baña nik yaramonik bez; eta orraitño be sentzunez itz egin yoan ak..., nik ez egin yaramonik; eta orraitño be sentzunez itz egin yoan ak, eta etxartebidean egin be.

BAKALS.—Ondo egin euan ik; etxartebideetan egiten yok, ba, gedar yakituriak, eta iñok etxautsak egiten yaramonik.

FAL.—Uj! barrien barri esate askarriak dozak ik, eta izan be, edozein deun galtzeko be asko az i. Kalterik asko egin daustak ik, Hal..., Yaungoikoak azketsiko al dauk orrako ori! I ezagutu baño len, Hal, enen-kian nik deusik; eta orain, egia esatekotan, enok ni geztotarikoen bat baño asko oberik, Itxi egin bear yoat bizikera au, eta betiko itxiko yoat; Yaungoikoa-arren, zital nok, ori ez egitekotan: etxoat geztotsirik izan gura Kistartzako bakalsemerik bategaitik be!

BAKALS.—Non goatuko yoagu biar ziskuren bat, Yontxo?

FAL.—Euk non gura, mutil; neuk goatuko yoat bat; nik ez goatutekotan, zital deitu nagik eta lotsaturik itxi nagik.

BAKALS.—Ba-yakusat ederto be ederto arteztu dokala ire bizikerea..., arrenetik ziskulapurretara yo dok.

Urrinetik aurrentza dator POINS.

FAJL.—Ba! Hal, deia dok nitzako orrako ori, Hal; eztoz obenik gizonak bere deiari erantzutean. Poins! Orain yakingo yoagu Gadhilleri ezer otu yakon, ala ez. Uj! irabazi dabena emon bear ba'litxake gizonai, su-Lezan zein zulo litzake berorik asko orren-

tzako? Eguño gizon zindori "Geldi or" gedar egin dautsoenen artean ori yak zitalik altsuena.

BAKALS.—Egun on, Nsd.

POINS.—Egun on, Hal ezti. Zer diño Monsieur Damu'k? Zer diño Sir Yon Ardao-ta-gozoki'k? I, Yontxo, ze itunben egin zenduen ire gogoaz ik eta ftxerrenak, lengo Bariku Gurenez ire gogoa Madeira'ko edalontzibete ardaogaitik eta ollar ireduren iztar otz bategaitik saldu euntsanean?

BAKALS.—Bere itzari deutsalala yagok Sir Yon, artuko yok txerrenak berea; txerrenak oindiño etxok tsie itzik guzurtau-ta, "Eroango dau txerrenck berea".

POINS.—Olan izatekotan, gaiztetsita ago i ik txerrenari emondako itza betete-arren.

BAKALS.—Ostantxean be gaiztetsia litzatekean, txerrenari ziria sartu izanagaitik.

POINS.—Baña, ene mutillok, ene mutillok, Gadshill'en egon bear yoagu bier goxeko lauretan! Palmadunak yoazak Canterbury'ra opari aberatsakaz, eta London'era yoazak salerosleak zisku gizenakaz: zuok guztiontzako gerturik yoadaz mosu-marroak; badozuez zuok zaldiaak zeuon aldetik; Rochester'en etzango da arratseon Gadshill: itz emonda naiagok biar gabaz Eastcheap'en apaltzeko; lo egitea bestean seguru izango yakuk orrako ori egitea. Yoan gura ba'dozue, "burestunez" (3) bete bete egingo yoadaz zuon ziskuak; gura epza'dozue, etxean gelditu ta eskegi zagiezala.

FAL.—Entzuik, Yodward; ni etxean gelditu ta yoan epza'nadi, neuk eskegiko aut yoan azalako.

POINS.—Bai ete, saieskiok?

FAL.—Hal, gure arteko izango ete az?

BAKALS.—Nor? Nfk ostu, ala? Lapur ni? Ez ni, nire sinistea-arren.

FAL.—Eztok ik ez zindotasunik, ez gizontasunik, ezta laguntasunik be, eta bakal-odole-tikorik be ez az i, amar xilinegaitik arpegi emotekorik epza'az.

BAKALS.—Tira ba, txoriburu izango nok bein nire bizian.

Fal.— Ba! ondo esanda orixe.

(2) Zimardika, itz-yokcan dabilku emen bes-te bein, berari aim gogoko yakonez. Ingelandera "suit" izencck soñeko ta eskari, biak esan gura dauz.

(3) "Burestun" etxatsu emem bakaldunak buruan erabilten daben zera, esterlin lifce-rearen kruren dan zidarrezko txanpona baño.

BAKALS.—Tira, yazotekoa yazo, etxean gel-dituko nok ni.

FAL.—Yaungoikoa-arren, olan izatekotan, sal-tzalla izango natxatsu bakaldun izan zadi-kezanean.

BAKALS.—Etxaustak ardura.

POINS.—Arre, Sir Yon, gu geutara itxi ga-gizak bakalsemea ta ni; egiteko onetarako zegaiti ain andiak iminiko yauntsadaz nik bakalsemeari-ta, yoango dok.

FAL.—Tira ba, zerak orri buruan sartzeko lain al emongo al dauk Yaungoikoak, orri barriz, aituteko belarriak, ik esan dagioka-nak eragin dagion, eta entzun dagiana orrek sinistu dagian, bakalseme yatorra ol-getan guzurrezko lapurto daitekela buruan sartu dakion; aldi onetako geiegikeritxoak adore-bearrean aurkituten dozak-eta. Agur: Eastcheap'en idoroko nozue.

BAKALS.—Agur, udabarri igaro ori! Agur, Domusantuetako uda ori! (Alde FALSTAFF'ek).

POINS.—Orain, ene lord on ezti ori. zatoz biar gugaz zaldiz: bakarrik ezin egin dai-kedan txantxeta bat dot asmaurik. Falstaff, Bardolba, Peto, ta Gadshill'ek ostu egingo dautsie orainganik kirikaturik doguzan gizonai; zu ta ni ezkara izango an; eta bein aik euren goakizuna eskuetan dabe-nean, zuk eta nik aik eskuak utsik itxi ez-pa'dagiguz, moztu egidazu sorbalda-ganean dodan buru au.

BAKALS.—Bai, baña zelan alde egingo eure-kandik?

POINS.—Ba! aik baño lenago, naiz geroago urtengo gara, ta eurekaz batzeko lekua izentauko dautsegu, ta guk eztogu yoko ara; eta orduan egitekoa eurak bakarrik egiten azarriko dira; eta aik euren egin-ala, ga-nera yoango gatzakez.

BAKALS.—Bai, baña seguru baño seguruago ezautu egingo gabez gure zaldi, soñeko ta beste ezaugarrietatik.

POINS.—Bai zera, eztabe ikusiko aik gure zal-dirik, basoan lotuko dodaz-eta; bein aikan-dik alde egindakoan, aldatu egingo doguz gure mosu-marroak; eta, txo, liño latzezko yantziak dodaz kutxetan ereti onetarako, gure soñekoen ganean iminteko.

BAKALS.—Baña aik gutzako gogorregi izan-go ete diran bildur nok.

POINS.—Ba! ba-dakit euretatik bi eguño atzea emon izan daben beste bi baño bil-durtiago ta kikilago dirana; eta irugarrena-gazko, bidezko dan baño luzaroago ekin ba'dagio burrukan, bertanbera itxiko dodaz nire iskilloko, agur egingo dautset. Adarra yote onek dauen zerik onena gu alkarregaz batu ta apaldutera yoan gadizanean zital sabelandi ak esango dauzan guzr sinistu-ezinak entzutea izango da: gitxienez ogei ta amarregaz burruka egin dauela; zelan ya-gon bear izan dauen bere burua, zelango zartadak emon dauzan, eta zelango estuku-retan aurkitu izan dan; eta guk orrako ori guzurtetea dago txantxea.

BAKALS.—Tira ba, yoango nok igaz; gertau egizak bear diran zer guztiak, eta biar arratsean ator nigana Eastcheap'en; an apalduko yoat. Agur.

POINS.—Agur, ene lord. (Alde POINS'ek).

BAKALS.—Guztiok zaue-daz ezagun, eta eus-tsin egingo dautsat aldikada baten zuon al-perkeriaren gogaldi buztargeari; orraitio be, eguzkiaren antzeko izango naz onetan, eguzkiak, ba, odei zirtzil kutsakorrai bere edertasuna ludiaren aurretik ostonduten rtxiarren, bearreko danean, lengoxe izan gura dauenean, arrigarriago agertu ledike, bera iratoten ebela irudien lurrunezko odei ta laño zikin itsusien bitartetik bere mosua erakusten dauenean. Yai-egun ba'lira urte-ko ogun guztiak, lan egitea bestean gogai-karri litzake opor egitea; baña meatz dato-zanean, euren irrikan, euren leicagaz gen-gozala etorten yakuz, eta nozean-beingo ze-rak yakuz gogokoen. Olan, eragoketa na-sai au ortik zear bidali dagidanean, eta eguño agindu eztodan zorra ordaindu dagi-danean, itzez agindurik dodana baño oba nazan bestean guzurtauko dodaz nik gizo-nen nigazko itxaroak; eta, lur zakar itsu-sian agun metal argiari yazoten yakonez, nire onduteak be, nire uts eta akatsen ga-nean argi egiten dauela, ederragorena egingo dau, eta ekarriago egingo dauz be-ragana gizonen begiak, ikusgarriago iza-teko loirik izan eztauenak baño. Ostoporik egin ba'dagit, ostopoa nire trebetasuna erakusteko egingo dot; gizonak gitxien uste dabenean erosiko dot asti galdua. (Alde dogi).

01 AGERLEKU.-Lengoxe 3-3. Bakaldegiko fceste leku.

ENDIKA BAKALDUNA, NORTHUMBERLAND, WORCESTER, HOTSPUR, SIR WALTER BLUNT, eta beste batzuk aurrera.

END. B.—Otzegi ta epelegi izan da nire odola, laidook be berari zirkinik eragin-ezina, eta orrek ekarri zaez nigana; orregaitik zapalduten dozue, ba, nire epea; baña seguru jiagoze oraindik ara lengoa bagarik, nazana izango nazala, altsu ta bildurgarri; len, ba, orioa lain leun, luma gazteak bestean bigun izan naz, eta orregaitik galdu dot gogo arrok gogo arrori bakarrik ordainduten dautsan begirapena.

WORC.—Ene ugazabarik nagusien ori, gitxi irabazita dau gure etxeak nagusitasunaren txibitea bertan erabilerik; batez be nagusitasun ori orren altsu izateko gure eskuak lagun izan diranazkero.

NORTH.—Ene lord...

END. B.—V Worcester, alde egik emendik zemaia ta bendegaizkeria yakusazat, ba, ire begietan; Ui! sir. azarriegi ta bein-belikoe-gi dok ire yokabidea, eta nagusiagotzeak ezin yok yasan bendekoen betozko gogalditsurik. Ba-dok gure ederretsirik gugandik alde egiteko; i ta ire onurik bear dogunean dei egingo daskagu. (Alde WORCESTER'ek) (NORTHUMBERLAND'eri) Itz egin-aginik intzan i.

NORTH.—Bai, ene lord on. Holmedon'en Endika Percy'k atxilo eginak eta zure nagusitasunaren izenean ari eskatuak, ak diñonez, ez eutsuzan ukatu zuri esan dautsuen bestean gogor; edo ikusi-ezina, edo txarto aitutea, bata edo bestea, da uts onen errudun, ez nire semea.

HOT.—Ene ugazaba, eneban ukatu nik atxilorik, baña gomutan dot burrukea amaiturik zanean, asarrez eta nekearen nekez latz eta mingots, arnasarik baga eta meko eginik, neure ezipatearen ganera itzulirik nengoanean, lorden bat agertu zala an, txairoa bera, orratzetik ara yantzia, eta senargei ba'litzan lez barria; okotzeko bizarra kendu-barri ebala, epaitondoa galendoak dauen antza ebana; emakume yoskilea lez sunda gozoa eriola egoana; bere atzokolo ta urrengo atzagaz usain gozodun kutxatxoari eutsala, nozean bein surretara eroan eta andik kentzen ebana; eta surrak atzanean asarratu egin yakozan arako kutxatxoak ak ain sarri euretara eroanagaitik-eta, usinkara yo eben: eta orraitño be, ak

irribarreka ta itz-ontzika eragoion, eta zer esanka ebilen ilen gorpuak andik ateraten eragoioen gudariak zital ezyakin, ganorabako zirala esaka, axcearen eta bere sur zindoen bitartean gorpu ígingaTri ta itsusien usaina iminten eutsuelako. Itz apain eta billatuenik fcillatuenez itaunka asi yantan; ganetiko zeren artean, nire atxiloak eskatu eustazan zure nagusiagotzearen izenean. Nik orduan, nire zauriak otziturik mindu-mindurik nengoala, nire naibagetan eta eperik ezean nengoala, eta nire burua olango amilotxeak artegaturik ikusirik, koipekero andi barik erantzun neuntsan, zer erantzun neuntsanik eztaidalda, emongo neuntsazala, ala ez; burutik eginda itxi nindun, ba, ain argi yantzita ikusirik, eta alango sunda gozoa eriola, eta suaz, danborrez, eta zauriez laguntzako andera zindok lez eragoiola-ta. Yaungoikoak onetsiko al daust onako irudi au! eta barruko zaurientzako osakairik osakaiena balearen buruko koipea zala esaten eragoion; eta tamal andia zala Ceta ba-zcm izan be) ainbeste gazle on lerdan ondatu izan dauen gezal onek lur errubakoaren erraetatik urten-beaTra; eta su-odi zirtzilokaitik izan eza'litz, bera be gudari izango litzakeala. Zearretara ta zirriska erantzun neuntsen nik itz uts ganorabako ta giltzetatik mtenoi, ene lord, len esan dodanez; eta, arren, ak esana ez al da izango salakuntza-biderik nire zukanako biotz onaren eta zure nagusiagotza garaiaren bitartean.

BLUNT.—Inguruko zerak aintzakotzat artuazkero, ene lord on, Endika Percy'k orduan esana edozer dala be, zuzenez baztatu ledike alango notinari, alango lekutan, alango aldian esandako ganetiko guztia be; bein be ez eragin, ba, orrako orri ari okerrik egiteko, eta gitxiago ak orduan esana dala-ta a salatuteko, orain bere burua zuritu dau-ta.

END. B.—Ba! oraindik be ukalu egiten dautaz orrek bere atxiloak, baldintzaz baño eza'pa'da be. Guk geure lepotik eta bertatik yarei dagigula bere anaidea (koñatua), Mortimer txoriburua; eta ak, nire gogoarren, saldu egin dauz Glendower askarriari, astu andi ari gud.u egiteko eroan ebazanen biziak eta, entzun dogunez, Glendower'en alabeagaz ezkundu da oraintsu March'eko Konde ori. Ustu egin bear ete doguz, ba,

gure diru-kutzak etoi saltzallarik yarei ta eboera ekarteko? Erosi egin bear ete dogu azpikeria? Geitu egin bear ete doguz gure bildurrak, euren burua eurak galdu ta ondatu dabenean? Ez, gosez il dadila mendi ulduetan iñoz be eztoz etsiko, ba, nire dis-kidetzat Mortimer asaldataua erosi ta etxsra ekarteko txakurrandi bat bera be eskatu dagistan gizonik.

HOT.—Asaldataua Mortimer! Eguño eztau alde egir. ak, ene ugazabarik nagusien ori, guduko alanbearrez izan ezik: nik esana egia dala erakusteko, zaurion agotiko itza baño ezta bear, Severn ibai bare iitsuaren ertzean, biak bietara, eskuz esku, ordu baten zatirik andienean, Glendower andiaren adoreari ak adorez erantzunaz bere are-rioa zurturik eukiaz artu ebazan zaurian agotiko itzak dira asko: orretarako alkarregaz itundurik, iru bider gelditu ziran arnasea artzeko, eta iru bider edan eben Severn bizkorreko ur bizitik; eta ibaiko urak, arein begirakune gordin odoltiz ikatururik, igesi egin eban ii bildurtiak bera, eta ostondu egin zan ibai-ertz arroan, bere buru latza burrukari adoretuon odolez orbandurik. Eguño eztau egin marrokeri zirtzil ustelek bera eztanarenik alango zauri itzalez; Mortimer zindoak be ezin artu eikean orrenbeste zauri, eta bere bitetik artu be, saltzallearena egiten ibili ba'litz: au dala-ta, ba, ez al dabe laidotuko Mortimer, asaldatzerik bere arpegira egotzita-

END. B.—Guzurra diñok aretzaz, Percy, guzurra diñok aretzaz; ak etxok egin eguño burrukarik Glendower'egaz: zera esango dauskat, gurago izango eukeala ak Txerre nagaz trikitx egin, Owen Glendower bere areriotzat euki baño. Ez ete az lotsatuten? Baña, txotxo, oraindik ara ez al daustak aitatu be egingo Mortimer'ik: alik eta arinen bidali egistazak ire atxiloak, ostan-txean gogoko izango etxakana entzun bear-ko daustak-eta. Ene lord Northumberland, ba-dok gure ederretsirik ire semeagaz alde egiteko. Bidali egizak ire atxiloak, ostan-txean ikusiko dok. (Alde ENDIKA BAKALDUNA'k, BLUNT'ek eta Yarraigokoak).

HOT.—Txerrena etorri ba'dadi ta orroaka eskatu nire atxiloak, eztozad bidaliko: atzetik ara yoanda, esan egingo daustat; nire burua galgordean imini ba'dagit be, nire biotza azaskatu gura dot.

NORTH.—Ostera! Asarrez mozkorturik ago, ala? Etxoik, atsenden apur bat artu egik; emen yatok ire osabea.

WORCESTER aurrera ostera be.

HOT.—Aitatu bez Morfimer'ik! Dençcniñoa, egingo dot itz aretzaz; eta erruki-bearrean aurkituko al da nire gogoa, ni aganatu ezpa'nadi: bai, zan guztiok ustuko dodaz aren alde, eta tantanik tantan ixuriko dot autsetara nire ofiol maitea, eta eskar txarreko bakalduna bestean, Bolingbroke eskartzarreko ta bizenak yoa bestean gora eragiko dot ostikoperaturik dagon Mortimer.

NORTH.—(WORCESTER'eri) Ar.ai, burutik eragin yaustak bakaldunak iie illobeari.

WOR.—Nok ekarri yok bero au nik alde eginazkero?

HOT.—Bai orixe, nire atxilo guztiak gura dauz; eta beste bein nire emazteriren nebea yarei dagiala eskatu daustadanean, zurbildu egin yako mosua, eta begirakune gordin eraillkorra egin daust, Mortimer'en izenak berak ikatururik.

WOR.—Ezin daustat ezarri errurik: etxoan esan aurreztik Errikarta'k ilik geldituko zala odolez urrena, ala?

NORTH.—Esan yoan ak, neuk entzun naioan orrako ori iragarten: eta bakaldun zori txarreko a (Yaungoikoak azkeisrko al yauskuzak guk ari egindorko okerrak!) Eire'rako bidea artzeko zanean yazo zoan orrako ori; eta bideak ebagita, bakalduntzea galtezko ta iñoren eskuz ilteko laster etorri zoan andik.

WOR.—Eta aren eriotzeagaitik munduaren ago zabalak txarto esanda ta entzuterik zakarrenagaz bizi gozak.

HOT.—Baña, ixilik, arren; ez eban Errikarta Bakaldunak izentau ta aldarrikatu nire anai-de (koñatu) Edemunda Mortimer bakalduntzearen oñordekotzat, ala?

NORTH.—Bai, izentau yoan; neuk ari entzuna dok.

HOT.—Ez, olan izatekotan, ezin daustat nik errurik ezarri bere lengusu bakaldunari, onek a mendi gorrian gosez ilten ikusi gu-reagaitik. Baña yazo ete ledike zuok gizon azkor onen buruan burestuna imini zenduenok, eta orregaitik alsaldari gordinen orbanaganean daroazuenok... yazo ete ledike, mundubete birao ganean daroazuenok, onen bitarteko, bigarren errudun, onen lo-karri, zurubi, edo obeto esateko, gizon eskegitzalla izan zarienok (Ui! azketsi nagizue, parkatu nagizue, onen bera yasten ba'naz zuoi erakustoko bakaldun maltzur au dala-ta zelan eta zelango egokeratan geldituten zarien); lotsea-arren, yazo ete ledi-

ke egunotan, naiz geroko egunkarietan idaztziñk agertutirik zuon zindotasun eta aleko gizonak zindo'asuna ta ala biçtik boztartu ebezala zuzen eztan egikizunerako (zuok egin izan dozuenez, eta Yaungoikoak azketsiko *al* auez!) yazo ete ledike zuok au guzti au egin izaterik Errikarta. *a* larrosa eder maitagarria bakalduntzatik lurreratu, ta, aren orde, Bolingbroke au, bizien au, arantza au landatu izaterik? Eta lotsagarriago dana. orrez ganera esango ete da ziria sartu dautsuela, baztatu egin zabezala, ortik zear bidali zabezala beragaitik lotsariok eroan dozuezanak berak? Ez; badago oraindik astirik zuon dedu erbestera-tuak barriro erosi, ta zuon buruak barriro munduaren uste oneratuteko..., azaskatu zadize zuoi zor dautsuen a eriotza odoltsuz be ordainduteko gau ta egun asma asmaka dabilen bakaldun arro onek egiten dautsue-zan irri ta zapuzkerietatik; olan ba, au da nik rfiñodana...

WOR.—Ixilik. illoba; bego, ez egik esan geia-gorik eta neuk idigiko yoat orain ixilkizun-dun idazti bat, eta zer sakon eta galtzori-tsuak irakurriko yautsadaz ire artegatasun arin aitutekoari; azpitik orroaka doan ibaia aztamakil lokearen ganetik igarrotea bestean galgordetsu ta biotzari eragingarri diran zerak.

HOT.—Yausi ba'dadi, gau on!... edo urpera, edo uger egin: sortaldetik sarkaldera bidali egizu galtzoria, eta eztau bape ardura, deduak, omenak iparraldetik egoalderako bidea egin eta biak alkarri eltzekotan. Ui! erbia otoz otoan eragiten danean baño beroagotu egiten da odola leoia iratzarten danean.

NORTH.—Epearen mugetatik atera egiten dau ori egikizun andien bat irudituteak.

HOT.—Yaungoikoa-arren, erraz egiteko zertzat dot iretargi mosu-zurbilera ikuti egin eta dedu argia andik erauztea, naiz, sakon-berunak eguño ezin ukutu izan dauen urpe-raño murgildu ta an dagon dedua andik adatsetatik elduta ateratea, dedua andik yarei ta bere bikaintasun guztiak leiakide bagarik noberegandu al izatekotan: baña baztartu ta ortik zear bidali dagiguzan mosu-erdidun irudiok (4).

WOR.—Irudizko mundu dabilko orri buruan, baña egin ledikenik deusik be ez. Illoba on, entzun nagik apur baten.

HOT.—Azketsi nagizu.

WOR.—Ire atxilo diran Eskolandarrak eurak.
HOT.—Guztiak eukiko dodaz nik; Yaungoikoa-arren, ak eztau izango Eskolandonrrik bat

bera be; ez, aren gogoia yareiteko bat bera gauza ba'litz be, eztau izango batxorik be; neuk eukiko dodaz, esku au-arren.

WOR.—Alde ta zirrist egiten daustak ik. eta eztaustak entzuten nire esatekorik. Ik euk euki bear dozakan atxiloko.

HOT.—Ez, ez, euki egingo dodaz; argi ta garbi esanda dago: Mortimer eztauela ya-reiko esan dau ak; Mortimer'ik berari aita-tu be ez egiteko agindu daust; baña loak arturik dagola idoroko dot nik a, eta "Mor-timer!" ots egingo dautsat belarrira. Area-go, Mortimer bakarrik esaten irakatsiko dautsadan zozabar bat izango dot, eta ari emon-go dautsat, a asarre baten euki dagian.

WOR.—Entzuik, illoba; itz bat.

HOT.—Agur dagitset, eta zaratatsu egin be, Bolingbroke au zelan asarratu ta zelan es-tutuaz beste asmo ta gurari guztiak; *eta* Kimuruerri'ko Bakaseme gudalkote orregaz-ko, edendu egingo neuke pitxar-bete ga-rardogaz, bere aitak eztauela maite ta ez-bearren baten pozik lekuskela uste ezpa' neu.

WOR.—Agur, senide: entzuteko gogaldi oba-rik dokanean itz egingo dauskat.

NORTH.—Ba! erlabio-mindun eta epebako er-gel lango ergel augu eu, emakume-gogald-ira yo ta ire belarriak euk esanaz besteri isten dautsazakan ori!

HOT.—Ba! ara, makilez bizkarra beroturik, asunak erreta, eta iñurriak usigita lez aur-kituten naz erriketa zirtzildun Bolingbroke au iñok izentetan daustanean. Errikarta'ren aldian..., -ze izen emoten dautsazue leku ari? Izurriak eroango al dau-, Glostershire' ko da leku a; an bizi zan kirten orren osa-ba dukea, York, orren osabea: eguño len-nen irribarre-bakaldun orri, Bolingbroke orri nik belaua makurtu neuntson lekua, zu eta ori Ravenspur'tik atzera zentozanean.

NORTH.—Berkley'ko gazteluan.

HOT.—Egia diñozu: Ba! erbitxakur miatzkala-ri orrek an niri egin eustazan zurikerien zurikeri ta labankerien labanker! Begira, "Sein-mantarretan dagon orren zoria andi egin dadinean", eta. "Endika Percy zindo ori", eta, "Lenugrusu txerakor...". Ui! txerre-

(4) "Baztatu tct ortik zear bidali dagiguzan mosu-erdidun irudiok". Shokespeare'n azter-tzallerik aneñariko dogun Malone'k dñionez, lenagoko aldfetan obetat es'en ei zircm ba-kaldunaren mosu osoa eban txanponak, mosu-erdikina ebanak baño. Mosu-erdikindun irudia, orregaitik, uskeritzct, aleztzat esteñi zctn.

- nak eroango al dauz zurikeriok! Youngoi-koak azketsiko al nau! Osaba on, eralgiz egizu zure ipuina, zure esatekoa, nik nirea amaitu dot-eta.
- WOR.—Ez, ekiok, oraindik amaitu ezpa'dok; ba-yaogu astirik iri etxoteko.
- HOT.—Amaitu dot nik nirea, benetan dirautsut.
- WOR.—Olan ba'dok, ire Eskolandar atxiloetara yoko yoagu oster a be. Bertatik yarei egizak, yarei-ordainik ordainazo bagarik, eta Douglas'en semea egik ire bitarteko bakar, Eskolanda'n indarrak batzeka; eta nik idatziz bidaliko dauskadazan zegaitiakitik, errez lortuko dok orrako ori; seguru ago orretan. (NORTHUMBERLAND'eri) Zu, ens yaun, zure semeak Eskolanda'n orretan dagoion bitartean, elekgizon zindo maite maiteari, gotzaiburuari ixilpean ixuriko dautsazu zuk bularrera onako au.
- HOT.—York'eko gotzaiburuari, ezta?
- WOR.—Arexeri; bere anai Lord Scroop Bristol'en erail ebelako mindu mindurik dagonari. Eztaragiot amesetan, yazo ledikenaz, ondo ausmer egindakoz, asmau ta erabagiaz baño, eta egitera eroateko eretiaren begira dagon zeraz baño.
- HOT.—Usmau dot, sundea artu dautsat; nire bizia-arren, ondo urtengo da.
- NORTH.—Eizea yagi baño len azkatuten dok ik eiza-txakurrak.
- HOT.—Ba! ezin ukatu asmo ori asmo lango asmoa danik... eta gero. Eskolanda'ko ta York'ekoaren indarrak Mortimer'enakaz baturik. ezta?
- WOR.—Orixe egin be egingo yoek.
- HOT.—Benetan, ondo baño obeto asmauta.
- WOR.—Ezta txikia be bizkor ibilteko dogun zegaitia, buruen bat eragita geure buruak yagotea; izan be, ba, dagiguna egin guk, gukanako zorrean dagola uste izango dau bakaldunak, ak ezkauzala naikotu uste dogula uste izango dau ak, guri zeatz ordainduteko bideren bat berak idoro arte; eta dagoneko ikusi egizue zelan asi dan a guri bere begirakune txerakorrak ukatuten.
- HOT.—Asi da bai, asi da: eta orde a emongo dautsagu guk ari.
- WOR.—Agur, illoba; ze bide artu bear dokan idazkiz nik iragarri arte ez egik yo aurrerago arazo onetan. Aldia umatu dadinean (eta arin umatuko dok), zirrist eginda, Glendower eta Mortimer'gana yoko yoat nik; eta, nik asmauko dodanez, an batuko gozak alkargana Douglas, i ta gure indarrak, zori onez, orain loka dagon gure zori onari geure beso sendoz eusteko.
- NORTH.—Agur, anai on: ba-dot usterik ondo baño obeto urtengo gareala.
- HOT.—Agur, osaba. Ui! labur izango al dira mendi, zartada ta urrumak gure yolasari txaloak txalo yo arterañoiko orduak. (Alde dagie).

II EKITALDI

I AGERLEKU.-ROCHESTER. Arroztegiko Arrazpela.

- Zamaldun bat aurrera, eskuan argia dauela.
- I ZAM.—Eee! Eskegi nagie la goxeko laurak ezpa'dira: kebide barriaren ganean dago Artz Nagusia, eta oraindik yantzi bagarik dago nire zaldia, Tira, arrotzun!
- ARROZT.—(Barrutik) Ba-noa, ba-noa.
- I ZAM.—Arren, Toma, aztindu egik "Cuf'en txalmea, ule-moltso batzuk imini egiozak er-tzen azpian; txarto be txarto yaukazak besaburuak zaldi errukarriak.
- Beste Zamaldun bat aurrera.
- II ZAM.—Txakur buztia bestean urez aseturik dagoz emen txidarrak eta babak, eta ori da biderik onena gure zaldi errukarriai bixigoak egiteko; buruz bera itzulita dago etxe au Errobin arrotzuna il zanazkero.
- I ZAM.—Aren errukarri! ez eban izan egun onik orloa karutu zanazkero; aren eriotzea izan zan orrako ori.
- II ZAM.—London'era bideko etxerik zakarrena dala au uste dot, ardiakaitik; tenkea bestean mutxika ta gorriunez beterik nago.
- I ZAM.—Tenkea bestean! Mezea-arren, eguño eztoz izan Kistartza osoan be bakaldunik ollarrak lenengoz yoazkeru niri egin dautsten beste usikada egin dautsoenik.
- II ZAM.—Ba! bein be etxauskuek iminten txixontzirik eta, ori dala-ta, sutegian egin bear izaten yoagu txixa, eta gure etzategian eskallua añako arditzarrak sortuten dozak.
- I ZAM.—E, arrotzun! yagi adi, ta eskegiko al aue! yagi adi.

II ZAM.—Urdai-azpiko bat eta" ginger" zustar bi dodaz emen Charing Cross'eraño eroateko.

I ZAM.—Yaungoikoaren Gorputza-arren! Goseak ilik dagoz zaldi-otsaran daroadazan indiollarrak. Eee! Arroztun! Izurriak eroango al au. Begirik ez ete dok ire buruan? Ezin dok entzun, ala? Ardaoa edatea bestean on ezpa'dok iri kaskarra berotutea, asto utsa nok ni.~Tiruk, eta eskegiko al aue: bildur az, ala?

GADSHILL aurrera.

GAD.—Egun on, zamaldunok. Ze ordu da?

I ZAM.—Ordu biak dirala uste yoat.

GAD.—Arren, ekadak ire argia, atzera emoteko, kortako nire zaldi irendua ikusi dagidan.

I ZAM.—Ez, astiro, arren; irea besteko marrorik ba-yakiat neuk be, bai orixe.

GAD.—Arren, ekanok irea, atzera emongo dauskat-eta.

II ZAM.—Atzera emon, baña noz? Esango ete daustak? "Ekanok ire argia" esan dok ik, eztok? Lenago eskegiko induket.

GAD.—Txo, zamaldun, London'era noz eltzeoko asmoa dozue?

II ZAM.—Oerako argi-bearra izango dogun orduan, bai orixe. Ator, auzoko Mugs ori, dei egin bear yautseguk aitonsemai. Lagunakaz batera egin gura yoeok bidea, zama andía yaroek-eta. (Alde Zcsmaldunck).

GAD.—Eup! Eee! Gelazain!

GEL.—(Barrutik) Arin, arin, diño zisku-lapurrak.

GAD.—Ainbaten dok ori esatea ta "Arin, arin, diño gelazainak" esatea; izan be, ba, ik eztok zisku-lapurragandik alde andiagorik egitetik eragitera doana baño; ik irakasten dok zelan egin bear dan.

Gelazaina aurrera.

GEL.—Egun on, Master Gadshill. Egia dok nik bart esan neuskana: aldean irureun marko ekarri dauzan Kent'eko lur-yabe bat yagok emen; bart, apalduten egozala, be-rari entzun naieuntsan orrako ori bere maikideetatiko bati esaten, diru sartu-urtenetan aitu dan bateri; eta onek beronek be zenbat bide-lotuki daroazan Yaungoikoak bakarrik yakik. Yagi-barri dozak orrakook, eta arrautza eta gurina eskatu yoezak gosarizat; laster bideratuko dozak.

GAD.—I, txotxo, Nikola Gurenaren yarrailekaz (5) orreik bidean topo ez egitekotan, moztu egidak idun au.

GEL.—Ez; olangorik ez; arren, eskegitzalleai itxi egiek egikizun ori; ba-yakiat, ba, edozein gizon guzurtik bestean ba-dokala gurtuten ik Nikola Gurena.

GAD.—Zegaitik aitatuten daustak ik eskegitzallarik? Eskegi ba'nagie, eskegigallu koipatsu bi beteko yoadaz nik, ni eskegitekotan Sir Yon zarra be nigaz batera eskegiko yoeok-eta; eta ba-dakik ik a ezjala goseak ilik dabilenik. Ba! ba yagozak ik euren amesik be egin eztokan Toroitarrak be, gogoko egiten yakelako, gure ogibide oni didziza ezarri gura dautsoenak, eta gure arazoak ondo begiratutekotan, euren entzute ona dalata, guztiz arteztuko leukiezanak. Oñez tatarrez dabilzanakaz enaiagok ni bat eginik, ez xilin-erdigaitik inor makilaka darabilenakaz, ez surpekodun ergel surramuzkodunekaz, aitonseme ta gizon bakesuakaz baño; endoreakaz eta lur-yabe andiakaz baño; zelan eragon dakienakaz, itz egin baño len yoten dakienakaz, eta itz egiten edaten baño lenago dakienakaz, eta edaten arren egiten baño lenago dakienakaz; eta orraitinño be guzurra diñot; etentzaka egiten dautsoe, ba, aik arren euren deunari, zerari, erriaren ondasunai; edo, obeto esateko, arrenik ez egin-arren be, arena (erriarena) goatu baño; izan be, ba, narrua kentzen dautsoe, ta oskiak egin aren narruagaz.

GEL.—Zer esan dok? Erriaren ondasunekaz euren oskiak egin? Ez ete yakiek urik sartuten euria danean?

GAD.—Bai zera, bai zera! zuzentzeak koipatuten yozak. Gazteluen baten barruan ba' gengoak legetxe ostuten yoagu guk, ezetarikoko galgorderik бага; ida-azia yoagu (6) guk osakai-agindutzat,,, inok ikusteka ibilten gozak.

GEL.—Ez, nire sinistea-arren, gauari lotuego zabilte zuok inok ikusteka ibilteko, ida-aziarri baño.

GAD.—Ekadak esku ori; artuko dok ik be guk eskuratu dagigunetik, ni gizon yator nazan bestean seguru.

(5) Lapurra'k yurtsuz Nikola Gurenaren yarraileck; Ingelandsrrentzako Nikola ta Txerrena bert dira-ta.

(6) Azi txirikik ba'dago, txikienetariko da ida edo ira-azia, ikusi be osta-osta egiten data. Aldi atako siniskeriz, Donibanez edo Sañocmez bertu ta sorgmkerien batzuk ezarten yctkozctn ida-aziok ikusezimdu egiten ebctm be- ra cddean eroicma.

GEL.—Ez, gurago yoat i lapur guzurti azan bestean seguru artu.
GAD.—Tiruk; guztitariko gizonentzako dok

"homo" izena. Arroztunari esaiok atera dagitjala kortatik nire zaldi irendua. Agur, zital ugartsu ori. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Gadhill'erako bidea.

ENDIKA BAKALSEMEA ta POINS aurrera:
BARDOLBA ta PETO atzeragotik.

POINS.—Tira, ostondu gadizan, ostondu gadizan; baztarreratu ta ostondu dot Falstaff'en zaldia. eta zirrín-zarranka dabil au, gomadun soñeko apitza iegetxe.

BAKALS.—Nire aldamenan ago. (Alde dagie).

FALSTAFF aurrera.

FAL.—Poins! Poins. eta eskegiko al aue! Poins!

BAKALS.—(Aurreratu-ala) Ixilik, zital kuntzurrun-gizen ori! Ze iskanbilla darabilik ik emen?

FAL.—Nondik dok Poins. Hal?

BAKALS.—Mendi-tontorrera igonik dok a: neu yoango nok bere billa. (POINS'en billa doanarena dagi).

FAL.—Biraoturik nago ni lapur orregaz batera ostuten dodalako; baztartu egin dau nire zaldia zital orrek, eta non danik eztakidala lotu egin dau. Lau oinkada aurrerago yoan bear ba'neu, ikurdidunarena eginik, arnasa bagarik nengoke. Tira ba, onako au gorra-bera, eriotza ona izango dodala uste dot, zital ori nik erailte-arren eskegi ezpa'nagie. Ogei urteotan egunean egunean zin egin izan dot gizon orren lagun izatea izteko, eta orraitioño be, sorginkeriperaturik, liluraturik nago zital galdu orren lagun irauteko. Eskegi nagie la gizon orrek berori maite izateko osakairik emon izan ezpa'daust; ezin izan ledike bestera; osakaiak edan dodaz nik.-Poins! Hal!... Izurriak eroango al zaeuz biok! Bardolba!... Peto!,, Goseak ilgo nau, oinbete arago nik ostu baño len. Eta edatea bestean erraz ezpa'litz gizon on-yator egitea, eta zitalok iztea, agin bakarragaz yan izan dabenetatik zitalik zitalena nintzake ni. Bide ezbardineko sei kana irurogei ta amar milla egiten yataz niri oñez; eta ondo dakie onako au arrizko biotzak daban zitalok! izurriak eroango al dcraz alkarrentzako zintzo ezin izan diran lapurrak! (Xistu egiten dabe) "Fiu! fiu!" -Izurriak eroango al zaeuz guztiok! Ekadazue nire zaldia, zitalok! Ekadazue nire zaldia, eta eskegiko al zaeuz.

BAKALS.—(Aurreratu-ala) Ixilik ago, sabelandi ori! Etxun adi; lurrari deusola imini egik belarria, eta entzuik, al ba'dok, bidaztien oin-otsa.

FAL.—Bein lurreratuazkero, ba-dozue ni eragiteko agerik, ala? Yaungoikoaren odolarrren, oinbete arago be etxoadaz eroango oñez nik nire aragiak ire aitaren dirutegian dagon diru guztiagaitik be. Ze izurriren asmo dozue zuok niri onan zaldizkoak ezarriaz?

BAKALS.—Guzurra diñok ik; etxak ezarri zaldizkorik, zaldizkoa kendu baño.

FAL.—Arren, Hal Bakalseme on ori! lagun akit nire zaldia billatuten, bakalseme on ori.

BAKALS.—Ken akit, zital ori! Ni ire arroztun izatea gura dok, ala?

FAL.—Oa ortik zear, eskegi egik eure burua, ire oñordekotzearen agiria diran ire zango-lokarriz! Goatu ba'nagie, salatu egingo aut onako onetzaz. Zuoi guztióf nik balatak ondu ta eresi zantarrez abestu ezpa'dagitsuedaz, edalontzikada bat ardao gozo emongo al dauste edentzat: adarra yotea orren aurrera ta, ganera, oñez doanean..., iguin dautsal

Gadhill aurrera.

GAD.—Geldi or!

FAL.—Geldi naiagok ni, gogoaz bestera.

POINS.—Ba! gure txakurra dok; ezagun yatak orren ausia. (BARDOLBA ta PETO'gaz aurreratuala).

BARD.—Ze barri dok?

GAD.—Estali mosuak. estali mosuak; yantzi zuon mosu-marroak; bakaldunaren dirua yatok mendia-bera; bakaldunaren dirutegira doana dok.

FAL.—Guzurra diñok, zital orrek; bakaldunaren ardanetxera doana dok.

GAD.—Guztiontzako be dirurik asko dok.

FAL.—Gu eskegiteko bai.

BAKALS.—Yaunak, zuok laurok emongo dau tsazue arpegi bide estuan; beragora yoango gara ni ta Ned Poins; zuokazko erasotik alde egin ba'dagie, gure ganera etorriko dira.

PETO.—Zenbat dira eurak?

GAD.—Zortzi edo amarren bat.

FAL.—Denganiñoa! geuri ez ete dauskue ostuko?

BAKALS — Ostera! bildurti i, Sir Yon Sabelandi?

FAL.—Sabelandi izan be, enok, ba, ni ire aitaita Gaunt'eko Yon'ik, baña orraitíño be enok bildurtirik, Hal.

BAKALS.—Tira ba, gero ikusiko yoagu ori.

POINS.—Yontxo, i txotxo, solo-esiaren ostean yagok ire zaldia; an idoroko dok bear dokanean. Agur, eta tinko egon.

FAL.—Yo al ba'neu ori, yo, eskegiko ba'nindue be!

BAKALS.—(POINS'eri bakarrean) Ned, nondik dozak gure marroak?

POINS.—Emen urrean; osiondu zadiz. (Alde Bakalsemeak eta POINS'ek).

FAL.—Ene ugazabok, zori ontsu izango al zarie orain; baktotxa bere arlora.

Bidaztiak aurrera.

I BID.—Ator ona, auzoko; mutikoak eroango yozak gure zaldia mendia-bera; oñez yoango gozak geu apur baten, gure zangoai eragiteko.

FAL.—Gad, -eta abar-. Geldi or!

BID.—Yosuk onetsiko al gauz!

FAL.—Yo ta zeartau orreik; moztu idunak zitaloi; zeruko katu emagaldukumeok! Urdaiyale zitalok! Gorroto dauskue guri gazteoi; lurrera orreik; murratu egizuez.

BID.—Ui! gureak egin dau, gureak eta dogun guztiarenak, bein betiko!

FAL.—Eskegiko al zauz, zital sabelandiok! Egin dauela zuonak? Ez, sastamar gizenok; emen al lego zuon ondasundegia! Aurrera, urdaio, aurrera! Ostera! Zitalok! Gazteak

be bizi bear yoek. Epaitegi andiko zarie zuok, ezta? Epaituko zaueguz, bai orixe. (Alde FAL., eta besteak, Bidaztiak aurrean daroezala).

BAKALSEMEA ta POINS aurrera barriro.

BAKALS.—Lapurrak estu egin dabez gizon zindoak. Lapurrai ostu giñeioe guk orain, eta pozik yoan London'era; astebeterako zer-esana litzake ori, ilebeterako barrebidea, eta adarra yote bikaina betiko be.

POINS.—Ostondu zadiz; ba-dantzut ba-datozala.

FALSTAFF, GADSHILL, BARDOLBA, ta PETO aurrera barriro.

FAL.—Tira, ene yaunak banaketea dagigun, eta zaldi-ganera gero eguna argitu baño len. Bildurtirik bildurtien bi ezpa'dira Bakalsemea ta Poins, eztago ezetariko zuzentzarik ludi onetan; basa-atak baño adore geiagorik eztau Poins'ek.

BAKALS.—(Eurekanantza axean doala) Betor ona zuon dirua!

POINS.—Zitalok! (Igesi doaz BAR., GADS., eta PETO; bai FAL. be zartada bat edo bi emondakoan, eurak goatua bertanbera ilxita).

BAKALS.—Erraz baño errazago goatu dogu. Zaldi-ganera orain txoria baño pozago: sakabanaturik dira lapurrak, eta ain bildurrrak ilik dagoz-eta, eztira azarten alkarreganaturen; ertzaintzat artzen dau bere laguna euretatico bakotxak. Gaioazan, Ned on. Iterañoiko izerdi bitsetan yagok Falstaff, eta ondo koipatuten yok lurra bera ibili-ala: barre egiteko ezpa'litzok onako au, erruki neunskio.

POINS.—Zital orrek egin izan dauzan zarata ta orroien orroia! (Alde dagie).

III AGERLEKU-WARKWORTH. Gazteluko leku.

HOTSPUR aurrera, idazkien bat irakurten.

HOT.—"Baña, nire aldetik, ene lord, pozik nengoke or, zuotarraí dautsedan maitasunaien aldetik"... Pozik egon ledike, pozik legoke a..., egon, zegaitik eztago. ba, pozik? Gutarraí dautsen maitasunagaitik: bere mandioa gure etxea baño maiteago dauela darakus ak. Dakusadan geiago. "Galgordetsu da zuk artzen dozun egikizuna". Ba! Egia da ori: galgordetsu da otzitutea, lo begitea, edatea; baña nik dirausut. ene lord ergel, asuntza onetako galgordetik aterate-

ko dogula lora au, zera, segurutasuna. "Galgordetsu da zuk artzen dozun egikizuna; eztira bape segururik zuk aitaruriko adiskideak; aldia bera be txarto autua; eta zure asmo osoa be arínegi, beste aldekoen astunaren aldean". Ori diñok ik, ez ete? Barriro dirauskat nik, baserritar buru-arin eta bildurti azala i, eta guzurra diñokala, Emen dogun garaunik ezarena! Yaungoikoa-arren, eguño asmaurikorik ondoen asmaua da gure asma; zintzo ta tinko dira gure adiskideak; ona asma, onak adiskideak eta

itxaroz beteak; bikaina asmoa, ezin obeak adiskideak. Leitu baño leituagorik dau biotza zital onek! Ba! ba! York'eko ene Lorda da asmo au eta egipide oso au goratuten dauena. Denganiñoen denganiño! zital onen aldamenen ba'nengo orain, bere emaztearen axetailuagaz garaunak aterako neuns-kioz. Ezkagoz asmoan nire aita, nire osabea ta neu, ala? Eztagoz Lord Edemunda Mortimer, York'eko ene Lorda, ta Owen Glendower, ala? Eztagoz, ganera, Douglas'tarrak be, ala? Eztodaz emen urrengo ilen bederatzian iskilloakaz niganatuko dirala iragarten dausten euren idazkiak, ala? Eta euretariko batzuk ezтира onazkero onako bidean, ala? Zital kistarr-ez lango kistarr-eza dogu au! Sinisterik bagakoa! Ba! Ikusikok orain ba-doala a bakaldunagana gure asmo osoa ari iragarteko, benetan dala bildurti ta biotz-otz orretan erakutsiaz. Ui! Bikoiztu egin gura neunke nire burua, biak alkarri ukabilkadak emoteko, gurina kenduriko ontzikadaesne orri gure asmoa iragarri dautsadala-ko! Eskegiko a\ dabe! Esan baño eztauko bakaldunari; gerturik gagoz gu. Arratseon urtengo naz ni.

PERCY'ren ANDEREA aurrera.

Kaxo. Katarinetxo! ltxi egin bear zaudaz ordu bion barruan.

AND.—Ui! ene yaun on, zegaitik zagoz orren bakarrik? Ze irain egin ete dot nik, amabost egunotan ni Endika'ren oetik erbesterraturik eukiteko? Esaidazu, yaun ezti, zek kentzen dautsu zure gogaldi ona, zure atsegina, eta urrezko zure loa? Zegaitik ezarten dozuz lurrean zure begiak, eta zegaitik ikaratuten zara orren sarri, yezarrita bakarrik zagozanean? Zegaitik galdu dozu zure mosuetako odol guria, eta zegaitik emon dautsezuz begirakune galduai eta goUlunkeri biraotuari nire altxorra ta nire eskubide zuzenak? Zure aldamenen atzarririk egon izan naz zure loaldi arinetan, eta gudu gordinez marmarka, ipuinak, guda-ipuinak eralten daragoiozula oartu natxatsu; eta zure zaldi yauzkariari ibilte-esakerak esaten entzun izan zaudaz, esaterako. "Adorea, mu-UI!... Aurrera!". Urteera ta atzeraketaz, lubakiez, txoznez, taket-esiez, mugez, bularrurrekoez, sugegorriez, su-odiez, suge-suodiez, atxiloen erosketaz, gudari erailez, eta gudaketa gogorrean yazo oi diran beste zertzaz be erago dautsazu zuk berbetan. Ain gogatsu erago dautso zure barruan zure gogoak, eta ainbesteraño eragin dautsu zu

lotan zagozala-ta, izerdi-kuskubilloak agertu dira zure arpegian, ur bizi eragin-barrian agertu oi diranak langoxeak; eta inondiko ikarak agertu dira zure mosuan, esaterako, bat-bateko aginduz arnasea geldituten dabenean gizonen arpegian ikusi daroaguzan-ak langoak. Ui! Zeren iragarpen dira orra-ko zerak? Arazo astunen bat dau esku artean nire yaunak, eta yakin bear dot nik, ostantxean enozu maite-ta.

HOT.—I, ee!

Otsein bat aurrera.

Yoan dok Gilliams lotukiagaz, ala?

OTS.—Bai, yaun, ordbete ba-dau yoan dala.

HOT.—Ekarri ete yozak Butler'ek zaldiak XeripareneUk?

OTS.—Ointxe-ointxe ekarri dau zaldi bat, ene yaun.

HOT.—Zelango zaldia? Nabar belarri-motza, eztoz?

OTS.—Axe, ene yaun.

HOT.—A nabarra izango dok nire bakaulkia.

Tira ba, bertaUk igongo natxakok ganera; Ui! Itxaro!" (7). Zugaztegia eroan dagiala esaioak BuUereri. (Alde Otseinck).

AND.—Entzun baña, ene yaun.

HOT.—Zer diñozu. ene andera?

AND.—Zek zaroz emendik?

HOT.—Ba! nire zaldiak, ene kutun..., nire zaldiak.

AND.—Ken zakidaz. matxango buru-zoro ori! Ogigaztaiak be eztau zuri eragiten dautsuna besteko artegatasun eta gogaldi alda-korrik. Benetan, yakingo dot zure arazoa, Endika..., bai, yakingo dot. Bildur naz nire neba Mortimer dabilela bere eskubideen alde, ta bere alde yarteko eskatu dautsula zuri: baña, zu ba'zoaz...

HOT.—Gogait egingo neunke ain urrin oñez yoaten, ene kutun.

AND.—Tira, tira, loro barritsu ori, artez erantzun egiozu nire itaunari: benetan, egia esan ezpa'dagistazu, ausi egingo dautsut zure atz txikarra. Endika.

HOT.—Alde, alde emendik, uskerizale ori!... Maite?... Etzaudaz maite, ezatxataz ardu-ra, Katarinetxo: mundu au ezta anderakile-kaz olgetakorik, ezta ezpanakaz muxinak egitekorik be; odoldurik euki bear doguz

(7) "Esperonce" (Itxaro) zcm Percy'ren etxe-ko edo sendikoem goiburua. Aldi átako zaldunok euren ikurdiön izki andi apainez idatzita eroaten eben euren goiburua.

surrak eta ausirik kasketak, eta geuk be beste ainbeste eginjo dautsegu. Yaungoi-
oa-arren, ene zaldia! Zer diñozu, ene Kata-
rinetxo? Zer gura zeban nigazko?

AND.—Enozu maite, ala? Benetan, enozu mai-
te, ala? Tira ba, enagizu maite, maite eno-
zunazkero, neure burua ezot maite izango-
ta. Enozu maite, ala? Ez; esaidazu txantxe-
tan, ala benetan daragoiozuz.

HOT.—Tira, ikusi gura ete nozu zaldiratuten?
Eta zaldiratu nadinean, atzen bagarik mai
te zautfazala zin egingo dol. Baña entzun,
Katarinetxo; ezot gura aurrerantzean nora
noanik itandu dagistazun, ezta zegaitik noa-
nik be; yoan bear dot yoan bear dodan le-
kura; eta, amaituteko, arratseon itxi bear

zaudaz, Katarinetxo maite. Ba-dakit zur za-
reala; baña orraitioño be ez Endika Percy'
ren emaztea baño zurrago: tinko zara, ba-
ña emakume orraitioño be; eta ixilpekoagaz-
ko, anderarik ez zu baño ixilberagorik; on-
do sinisten dot ba, nik, eztozula esango
eztakizunik..., aor noraoñ elduko dan zu-
gan dodan uste ona, Katarinetxo maite.

AND.—Oslera! Orraño baño ez?

HOT.—Atzondo bat bez urrinago. Baña en-
tzun, Katarinetxo: zeu be ni noan lekura
yoango zara; gaur urtengo naz ni, biar zu.
Pozik geldituko ete zara onan, Katarinetxo?

AND.—Nai ta nai ez gelditu bearko. (Alde da-
gie).

IV AGERLEKU.-EASTCHEAP. Basaurdeburu ardanetxeko leku.

ENDIKA BAKALSEMEA aurrera.

BAKALS.—Ned, urien adi gela zikin orreta-
tik, arren, eta lagun akit barre batzuk egi-
ten.

POINS aurrera.

POINS.—Non izan zara, Hal?

BAKALS.—Irurogei-larogei upelen artean egon
nok iru-Iau astaburugaz. Apaltasunaren be-
rengo aria yo yoat. I, txotxo, ardao-saltza-
lla mordoren adiskide mami nok ni; etxoat
eurak ugutza-izenez aitatu-ezinik, esatera-
ko, Tomatxo, Errikartatxo ta Pantzeska. Eu-
ren yareikundea-arren. orainganik autortu-
ten yoek Kimuruerriko Bakalseme baño izan
ez-arren ni, orraitioño be era-meraen bakal-
dun nazala; eta argi ta garbi esaten yaus-
tek enazala ni Yontxo arrorik, Falstafi da-
nez, Korintiar baño, yasako mutil, mutil ya-
tor, mutil on baño... Yaungoikoa-arren, olan-
txe deituten nioek..., eta Ingelanda'ko ba-
kaldun izatera eldu nadinean Eastcheap'eko
mutil on guztiai agindu al izango dautseda-
la. Mosuak gorritutea deituten yoek sakon
eta gogoz edatea, eta edan-ala arnasarik
artu ba'dagik, "hem!" oio egiten yoek, eta
arnasa baten edateko aginduten dauskai.
Amaituteko, ordu lauren baten aurrerakun-
tze lango aurrerakuntzea egin yoat-eta, ni-
re bizian edozein tupinbete barruratu-ezinik
etxoat, euren antzera itz egiteko. Ned, se-
guru ago, dedurik asko galdu dokala, egi-
kizun orretan nigaz egon ezagaz. Baña, Ned
izena gozatuteko, auto so txakurrandiko gozo
au, ardangelako mutil batek ointxe esku-
ratu daustana; bere bizian Ingelanderaz

onako esakunok baño besterik esan eztaue-
nak, "Zortzi xilin eta sei peni", eta, "Ondo
etorriak zarie"; abots zoliz onako au eran-
tsita, "Banoa, ba-noa, yaun!". "Neurtu pint
bat sasi-ardao iretargi-erdikinean", naiz,
beste olangotsu esakunek. Baña, Ned, Fals-
taii etorri arte astia emoteko, arren, or al-
dameneko gelaen baten ago i, nik bitar-
tean ardanetxe-mutil ergel orri arako gozoa
zegaifik emon daustan itanduten dautsada-
la; eta bitarte osoan bein be ez al dok itxi-
ko "Pantzeska" gedar egitea, bere autu
guztian "Ba-noa"z besterik esan eztagian.
Bazartu adi, neuk erakutsiko dauskat zelan
yokatu-ta. (Alde POINS'ek).

POINS.—(Barrutik) Pantzeska!

BAKALS.—Itzalez ederto dagik.

POINS.—(Barruti'k) Pantzeska!

PANTZESKA aurrera.

PAN.—Ba-noa, ba-noa, yaun. Begirada bat
egiok Granada-aretoari, Ralph.

BAKALS.—Ator ona, Pantzeska.

PAN.—Ene Lord?

BAKALS.—Ze aldi daroak otseintzan, Pantzes-
ka?

PAN.—Egia esateko, bost urte, zererako bes-
te...

POINS.—(Barrutik) Pantzeska?

PAN.—Ba-noa, ba-noa, yaun. Arren, etxoizu
apur baten, ene lord.

BAKALS.—Ez, entzuik, Pantzeska; ik emon
daustakan gozoagazko..., txakurrandiko dok,
eztok?

PAN.—Ui! Lord.

BAKALS.—Bost urte! Gure Anderea-arren, al-dirik asko diruai txintxin eragiteko. Baña, Pantzeska, ezin izan ete eindeke adoretzurik asko ire ugazabagazko bildurti agertu, ari orpoak erakutsi ta igesi egiteko?

PAN.—Ui! Yaungoikoa! Yaun, Ingelanda'ko idazli guztiak-arren zin egin nei nire biotzean idoro neielaa...

POINS.—(Barrutik) Pantzeska!

PAN.—Ba-inoa, ba-inoa, yaun.

BAKALS.—Zenbat urte dozak, Pantzeska?

PAN.—Dakusadan... Mikel Gurenentan egingo dodaz...

POINS.—(Barrutik) PcmSzeska!

PAN.—Ba-inoa, yaun.-Arien, etxoizu apur baten, ene lord.

BAKALS.—Ez, entzuidazu, Pantzeska: ik emon daustakan gozoagazko, txakurrandi batekoa eztoz izan. ala?

PAN.—Ene Yaungoikoa! Bikoa izan al litz, yaun!

BAKALS.—Milla libera emongo dauskadaz nik agaitik; euk noz eskatu artuko dozak.

POINS.—(Barrutik) Pantzeska!

PAN.—Ba-inoa, ba-inoa.

BAKALS.—Ba-inoa, Pai.tzeska? Ez, Pantzeska, biar baño, naiz, eguenean baño, Pantzeska; naiz, benetan, euk noz gura, Pantzeska. Baña, Pantzeska...

PAN.—Ene lord?

BAKALS.—Ostuko ete eunke narruzko narru-ondoko au, leiarrezko botoiok, buru uldu au, agatazko erestun au, okada-margoko galtzerdiok, artillezko zango-lokarriok, miñ ezitsua au, españar sakel au?

PAN.—Ene Yaungoikoa! Zer esan gura dozu, yaun?

BAKALS.—Tira ba, ba-yakusat ardao baltz ori dala ire edari bakarra; ba, aiko, Pantzeska, loitu egingo dok ik ire oial zurizko gorantxeaa: Barbari'n eztoz izaten ori orren karu.

PAN.—Zer, yaun?

POINS.—(Barrutik) Pantzeska!

BAKALS.—Oa, zital ori! Eztoz entzuten iri deiez daragoioela, ala? (Biak dagitsce emon dei; zurturik geldituten da Pantzeska, ze bide artu eztafala).

Ardaoduna aurrera.

ARD.—Ostera! Ba-dantzuzak deiez, eta zirkinik be egin ez ik? Yaramon egiek barruko anotzai. (Alde PANTZESKA'k). Ene Lord. atetan dago Sir Yon zarra, amabiko-erdi geiagogaz: itxiko ete dautset barrura sartzen?

BAKALS.—Begira euki apur baten, eta gero idigi egiezu atea. (Alde Ardaodunak) Poins!

POINS aurrera zarrien-barri.

POINS.—Ba-inoa, ba-inoa, yaun.

BAKALS.—I, txotxo, atetan dozak FalstaH eta ganetikoko lapurrak. Pozik yarriko ete gozak?

POINS.—Txirritxirriak bestean pozik, mutil. Baña entzuizu; ze adarra yote maltzur erabili dozu erakusketa-maiko orregaz? Tira, zetan gelditu zarie?

BAKALS.—Adan zarraren alditik umearo onetaraño, gaberdiko amabioiaraño izan dan gogaldirik argienean naiagok ni. Ze ordu dok, Pantzeska?

PAN.—(Barrutik) Ba-inoa, ba-inoa, yaun.

BAKALS.—Urli onek beti be loarak baño itz gitxiago egin bear dauela, eta orraitio be emakumeren seme izan bear dauela! Zurubiak gora-beraka ibiltea dok orren trebetasun bakarra; zebatekoren agiria dok orren itz-erioa. Enok ni oraindik Percy'ren gogokoiki, ipanaldeko Hotspur'en gogokorik; gosari-aurretik sei-zazpi amabiko Eskolandar erail, eskuak ikuzi, ta bere emazteari "Boa ortik zear bizitza bare au! Lan-bearean nago" dirautsanaren gogoko. "Ui! ene Endika kutun", dirautso emazteak, "zenbat erail dozuz gaur?". "Eradan egiozu nire zaldi nabarrari", dirautso senarrak; eta ordubeste geroago erantzuten dautso ak emazteari. "Amalauen bat, uskeri utsa, uskeri utsa". Arren, barrura dei egiok Falstaff'eri: Percy'rena egingo yoat, eta apo gaiztetsi orrek egingo yok aren emazte Mortimer Anderearena. "Rivo" esaten yok mozkorrak (8), Dei egiok saietsarte betedun orri, koipatsu orri.

FALSTAFF, GADSHILL, BARDOLBA, ta PETO aurrera; euren atzetik PANTZESKA ardaogaz.

POINS.—Ondo etorria, Yontxo: nondik izan az?

FAL.—Izurriak eroango al yozak kilil guztiak, bai, gero! eta azaskatuko al gatxakiez! Bai, kontxo, eta amen! Edalontzi bete ardao

(8) "Piivo" dalako onek eztau Ingelonderazko itzen senitasunik, ez antzik. Edaleak arandegietan erabilten eben gedarra da izan. Nire susmoz, itz au Españerazko "'bravo" dogu, arandegietako erriaren agoz mordollotuzrik.

- ekadak, mutil. Onango bizitarik luzaro eroan baño len, gurago neunke galtzerdiak yosi, adabau ta azpiko barriak ezarri be. Izurriak eroango al dauz kihil guztiak! Edalontzi bete ardao ekadak, zital orrek. Ez ete da gelditu onindarrik bizirik, ezetarikorik be? (Edoin egitem dau).
- BAKALS.—Ez ete dok ikusi eguño Titan, gurinontziari mun egiten? Eta gurin biotz-samurra, eguzkiaren itz gozoz urtu egin zoon! Eguño ikusi izan ba'dok orrako ori, begiratu egik anabaka ori.
- FAL.—Zital baño zitalago augu i; karea yaukack ardao onek; zitalkeriaz besterik ezin idoro gizon zitalagan; orraitño be barruan karea dauen edalontziko ardaoa baño txarrrago dok gizon kikila..., kihil zitala. Eure bideak zear abil, Yontxo zar; euk noz gura il adi; gizatasuna, gizatasun ona aztu be egin ezpa'dok lurraren azal onetan, sardin zar keatua nok ni. Iru gizon on be eztozak geldituten Ingelanda'n eskegi bagarik; gizen da euretatik bat, eta zartuaz doa; Yaungoikoa lagun izcingo al yako bitartean! Gezto da ludi au, gero! Eula al nintz; eresiak (scrknoak), naiz, beste edozer abestu al izango neunke. Izurriak eroango al dauz kihil guztiak, beste bein diñot, gero!
- BAKALS.—Kaxo, artille-zorro! Zeri daragoiozu marmarka?
- FAL.—Bakal-sume! Zure bakalderritik zurezko ezpataz atera ezpa'zagidaz, eta basa-atak lez zure aurrean zure bendeko guztiak ortik zear eroan epa'dagidaz, oraindik ara ez al dot eroango bizarrik bat be nire mosuan. Kimuruerriko Bakal-sume izan be zu!
- BAKALS.—Ba! gizon borobil emagaldukume ori, zer yazoten dok?
- FAL.—Kihil etzara. ala? Erantzun orri; eta Poin ori be?
- POINS.—Denganiñoaren denganiño! I, sabelgizen ori, esteak aterako dauskadaz, kihil deitu ba'nagik.
- FAL.—Kihil deitu be nik i! Gaiztetsirik ikusiko aut, nik i kihil deitu baño len: baño milla libera emongo neunkez ik bestean arin egin al izate-arren. Artezik asko dozak ik sorbaldak..., eztok ik ire atzea nok ikusikoren ardurarik; eta ori dok ik ire adiskideai alzeti eustetzat, ala? Izurriak eroango al yok olango atzetik eustea! Aurrez aurre begiratuten dakien gizonak ekadazuez. Ekadak edalontzikada bat ardao; zital utsa naz gaur arean be edan ba'dot.
- BAKALS.—Zital ori! Oraintsuengoz edan dokanetik oraindik legortu bagarik yagozak ire ezpanak.
- FAL.—Eztau ardura orregaitik. Izurriak eroango al dauz bildurti guztiak. Barriro diñot, gero! (Edan egiten dau).
- BAKALS.—Zer yazoten dok?
- FAL.—Zer yazoten dan! Emen dagoz gutariko lau goiz onetan milla libera goatu dabezanak.
- BAKALS.—Non dozak diruok, Yontxo? Non?
- FAL.—Non diran! Ostu egin dauskuez; eun izan dira gu lau erukarrion ganera etorri diranak.
- BAKALS.—Ostera! Eun, gizon?
- FAL.—Zital utsa raz, euretatk amabigaz ordu bioui ezpatakadaka eragon ezpa'dautzat. Alatz utsez gelditu naz bizirik. Zortzi bider zulatu dauste gorantxea, lau bider galtzerdiak; alderik alde zuloz yosi dauste ikurdia; aginez beterik gelditu da nire ezpatea, esku-serrea legetxe. "Ecce signum!". Eguño eztot yokatu obeto gizondu nintzanazkero; dana izan da alperrik. Izurriak eroango al dauz bildurtiak! Itz egin dagiela. Zital eta ilunbearen seme dira, egia baño geiago, naiz gitxiagorik esan ba'dagie.
- BAKALS.—Itz egizue, yaunak; zelan izan da?
- GAD.—Amabien baten ganera yausi gintzazan gu laurok...
- FAL.—Amasei ziran gitxienez, ene lord.
- GAD.—Eta estu gebazan.
- PETO.—Ez, ez, ezkebazan estu.
- FAL.—Zital ori, estu gebazan euretatik guzti-guztiak; Yudar naz ni ostantxean, naiz Ebertar Yudar.
- GAD.—Dirua bananduten geragoiola, sei-zazpi bat gizon barri etorri yakuzan ganera...
- FAL.—Eta estuta egozanak azkaturik, guztiak etorri yakuzan ganera.
- BAKALS.—Ostera! Aikaz guztiakaz egin dozue burruka, ala?
- FAL.—Guztiakaz! Eztakit nik zer esan gura dozun guztiakaz; baño euretatik berrogei ta amarregaz burruka egin ezpa'dot nik, arbi-eskutada nozu ni; berrogei ta amabi, edo amairu etorri ezpa'dira Yontxo zar errukarriaren ganera, eno zu ni oin biko zerik.
- BAKALS.—Yaungoikoa-arren, ez al dozuez eraile euretatik baten batzuk.
- FAL.—Ez; beranduegi da orain arrenik egiteko; artzeakoak arrazo dautsedaz euretatico biri; seguru nago euretatico biri zorra ordainduazo dautsedala..., liñozko yantzidun zital biri. Neuk dirauskat au, Hal..., eta, guzurrik esaten ba'dauskal, arpegira txu egin, eta zaldi deitu nagik. Ezagun yak iri aspalditiko nire burua yagotea; onan, onan yarri izan nok, eta onan zuzendu yoat

nire ezpata-mokoa. Liñozko soñekodun lau zital etorri yatazak ganera...

BAKALS.—Ostera! Lau, ala? Ointxe esan dok ik bi baño etzirala.

FAL.—Lau, Hal; leu izan dirala esan dauskat.

POINS.—Bai, bai, lau esan dau.

FAL.—Aurrez aurre etorri dira laurak, eta nigana yo dabe batez be. Bape ikaratu ta nastu bagarik, nire ikurdian artu dodaz euren guztien zazpi mokoak, onan.

BAKALS.—Zazpi, ala? Ba! oindo ointxe lau baño etzoazan; ointxe ointxe ta liñozko soñeko z yantzirik.

POINS.—Bai, lau liñozko soñekotan.

FAL.—Zazpi, ezpata onen kirtena-arren, eta zital naz ostantxean.

BAKALS.—Geldi itxizue, arren; geiagorik be izango dogu laster.

FAL.—Entzuten ete nok, Hal?

BAKALS.—Bai, eta adi be ba-natxak, Yontxo.

FAL.—Orixe egik, adigarri be ba-dok-eta. Liñozko soñekotan egozala esan dauskadan bederatzioak...

BAKALS.—Olan, oinganik dozak bi geiago.

FAL.—Arein ezpata-mokoak ausirik...

POINS.—Yausi egin yakezan galtzerdiak.

FAL.—Atzeraka egiten asi dira; baña ni georoago ta euren urrago-ta, estutu ta esitu egin dodaz-eta, gogaia baño arinago eurenak eta erdi emon dautsedaz euretatik amakari.

BAKALS.—Zer onen asarrearen asarre! Amaka gizon egin dira liñozko soñekodun bi baño etziranak!

FAL.—Baña, bitartean txerrena sartu izan ba' Htz legetxe, iru sasikume zital, Kendalmuskerrez yantzirik etorri yataz ganera atzetik-ara; ain ilun izan da, ba, Hal, eta ezin ikusi zeinkean zeure eskurik be.

BAKALS.—Sortu dauzan aita langoxe dira guzurrok..., mendi bestean andi, agiriak, ukugarriak. Ba! este-moltso ori, buztinezko garraundun ori, zoro buru-arro ori, emagaldukume ori, lizun-aragikoi ori, koipe-bola itzal ori.,,

FAL.—Ostera! burutik egin yatsu, ala? Burutik egin yatsu, ala? Egia ezta egi, ala?

BAKALS.—Ba! zelan yakiteko ik orrako gizonak Kendal-muskerrez yantzirik egozank, ire eskurik be ezin ikusteko lain ilun izan ba' dok? Tiruk, azaldu egiskuk onako au; zer dirauskuk ik onetzaz?

POINS.—Tira, Yontxo, azaldu egik..., azaldu egik.

FAL.—Ostera! beartu egin bear nozue, ala? Ez; eskuetatik eskegita, naiz munduko beste elorrio guzti ta guztitarikoetan ba'nengo

be, eneunskizue esango bearturik. Bearturik emon be nik zuri zegaitirik! Masustak bestean ugari ba'litzaz be zegaitiak, bearturik iñori be eneunskio emongo zegaitirik, ez nik.

BAKALS.—Luzarogo enaz izango ni oben onen errudunik; bildurti mosu-gorri au, oezapaltzalla au, zaldi-bizkar ausla au, aragimendi itzal au...

FAL.—Ken akit, goseak il ori, epo-narru ori, sugelindara-miñ igar ori, idizil ori, makallao legor ori... U! arnasa-bearrean ez al nengo i zeren antzeko azan esateko!... I, yostunaren kana ori, I, leka ori, I, arranbelontzi ori, I, ontzi-mustur urten zirtzil ori.

BAKALS.—Tira, ba, artuik arnasa apur bat, eta gero ekiok ostera be: eta alderatze zirtziletan nekatu adinean, au bakarrik entzun egidak.

POINS.—Oai akio, Yontxo.

BAKALS.—Guk biok ikusi izan zaueguz zuok laurok lauri erasoten; lotu dozuez zuok aik laurak, eta euren ondasunen yabe egin zarie; ikusi orain esate argiak zelan guzurtauko zabezan. Gu biok yoan gara orduan zuon lauron ganera; eta, itz batez esateko, arpegi emon, eta zuon goakia kendu ta geuretu dogu, bai, eta etxe onetan zuoi erakutsi-ezunik eztogu: eta, Falstaii, arin eta brinean eroan dozak ik eure esteak, ainbesteko trebetasun bizkorrez, eta erruki-eske orroa ta orroa egiten izan dok, eguño txal zekorrek egin izan dauen bestean. I bai ba-az yopu lango yopua, ezpateari ik atera dautsazakan beste agin atera, ta gero burrukan atera dautsazakala esateko! Ze asmo, ze marro, ze oston-zulo idoroko ete dok ire lotsaria an ostondu al izateko?

POINS.—Tira, entzun dagigun, Yontxo; ze marro dok orain?

FAL.—Yaungoikoa-arren, zuok egin zinduezanak bestean ondo ezagun zaudaz nik. Ba! entzun egizue, yaunok: ondo ete legokean oñordeko dalakoa nik erailtea? Bakaldungei yatorrari eraso bear ete neuntzan nik? Ba! ba-dakik ik Erkul bestean adoretzu nazala ni; baña oartu zakioez berezko susmoari; eztau ukutuko leoiak bakalseme zindorik. Berezko lera yatsu onako au; berezko lereak egin nau bildurti. Orre-xegaitik, uste obarik izango yoat itzaz eta neutzaz nire bizian; leoi adoretzuarena neugazko, bakalseme yatorrarena, igazko. Baña, Yaungoikoa-arren, mutilak, pozik nago ni, dirua zuok dozelako. (Barruan dagon arroz,unoari) Arroztuno, itxi atek; atzarrik egon arratseon, biar egin arren. Adoretzuok, mutilok, gazteok, urrezko bioztunok, lagun-

tz a oneko izengoiti guztiak zuontzako! Ba!
ez ete gara poztu be poztuko? Ez ete dogu
otoz otoan antzerkiren bat antzeztuko?

BAKALS.—Bai, eta pozik alan be; ire igesia
izango yok geitzat.

FAL.—Ba! itzik bez geiago orretzaz, Hal,
biotz onik ba'daustak!

Arroztunoa auxrera.

ARROZ.—Ui! Yosu, ene lord bakalseme ori...

BAKALS.—Kaxo, ene lady arroztunoa! Zer
diraustazu?

ARROZ.—Ene bada! bakal-yauregitiko aiton-
seme bat dago atetan, ene lord, zugaz itz
egin gurarik; zeure aitagandik datorrela
diño.

BAKALS.—Bakal-gizon izateko beste bear
dauena emoiuzu, bai, eta nire amagana
bidali egizu atzera.

FAL.—Zetariko gizon da bera?

ARROZ.—Agure da.

FAL.—Zetan daragoio bentasunak gaberdian
oetik-at? Neuk erantzungo ete dauksat?

BAKALS.—Orixe egik, arren, Yontxo.

FAL.—Bai, izan be, esango dauksat egin bear
dauena. (Alde dagi).

BAKALS.—Orain, yaunak; gure Anderea-arren,
ondo baño obeto egin dozue burruka;
olan egin dok ik, Peto; olan egin dok ik,
Bardolba; leoi zarie zuok zeuok be, berezko
lereak eraginda igesi dozue, eztozue ukutu
gura bakalseme yatorrik; ez..., bai zera!

BARD.—Orain benetan esaidazu, zelan dauz
Falsta//en ezpateak ainbeste agin?

PETO.—Ba! bere sastakaiagaz mallatu ta agi-
nak egin dautsoz; eta orretarako. zinaren
zinez egia Ingelanda'tik uxatu bear ba'dau
be, sinistuzoko dauksula esan dau burru-
kan egin dauksazala eginak bere ezpateari;
eta guri geuri be beste orrenbeste egin
dagigula sartu dauksu buruan.

BARD.—Bai, eta surrak ezpata-bedarrez ziz-
tatu dagiguzala odola dariola iminteko, eta
gure soñekoak odolez txipriztindu dagigu-
zala, eta gero zin egin dagigula benetako
gizonen odola dala. Orain zazpi urte yazo
yatana bera yazo yat: gorritu egin yat mo-
sua aren asmo itzal-asarreak entzunaz.

BAKALS.—Zital ori! Orain amazortzi urte di-
rala edalontzikada bat ardao zar ostu eu-
an ik, goatu induen orrako orretan, eta
arrazkero bertatik gorrituten az i, Sua ta ez-
patea, biak euazan ik aldamenean, eta
orraitio be igesi egin dok ik: ze berezko
lerak bultzau au orretara?

BARD.—Ene lord, eztakusazuz izar ibiltariok,
ala? Eztakusazuz lurrunok, ala?

BAKALS.—Bai, ba-dakustaz.

BARD.—Zer iragarten ete dabe?

BAKALS.—Gibel beroa ta zisku otza.

BAR.—Asarrea, ene lord, ondo aituazkero.

BAKALS.—Ez, lokarria, txarto aitu-ezik. Emen
dator Yontxo makal argala, emen dator
azurrutsa.

FALSTAFF aurrera beste bein.

Kaxo, nire zer ezti arroputz! Zenbat urte do-
zak, Yontxo, eure belauna azkenengoz iku-
si euala?

FAL.—Neure belauna! Ire adinekotsu nin-
tzanean, Hal, arranoaren orkatza bestekorik
etzoan nire garria; edozein endoreen eres-
tunaren zuloa-zear igaro-ezinik enaioan nik
orduau; izurriak eroango a\ yozak intziriak
eta naibageak! Puxekea lez puztuten yoeik
gizona. Barri txarrak yozak ortik: Sir Yon
Bracy izan dok emen ire aitaren aldetik;
bakal-yauregiratu egin bear dok goxean.
Burutik egindako iparraldeko urli a heia.
zera, Percy, eta Kimuruerriko a, Amaimon'
eri narrua berotu, Lukiper txerrenburua
adardundu, eta Kimuruerriko aztamakil ma-
kurreko kurutzearen ganean txerrena bere
bendeke egin eban a... (izurria]c eroango al
yok!) zer yakok ari izena?

POINS.—Ui! Glendower.

FAL.—Owen, Owen..., axe bera; eta Mortimer,
aren suña; eta Northumberland zarra, eta
Eskolandar a. Eskolandarrik zurrena, Dou-
glas, mendia gora zaldi-ganean burrutz ar-
tezean igoten dana...

BAKALS.—Zaldi-ganean arin egin-alean pis-
toleagaz artatxcria be erailten dauena,
ala?

FAL.—Bete betean igarri dauksat.

BAKALS.—Ak artatxoririk yoten dauen baño
bete-beteanago.

FAL.—Tira ba, ganora ta adore ona yozak
zital ak beragan; ak eztau arin egingo...

BAKALS.—Olan ba'dok, ze zital augu i, arin
egiten dauelako a goratuteko?

FALS.—Zaldi-ganean, kuku, ez oñez; oñez
oimbeteko biderik be etxok egingo ak.

BAKALS.—Bai, Yontxo, berezko leraz.

FAL.—Autortuten dauksat, berezko leraz
baietz. Tira ba, an yagok a be, eta bai
Mardoke dalakoa be, eta milla txapel-urdin
be: gau onetan zirrirt egin yok Worcester'
ek be; urdinu egin yautsoek burua barriok
ire aitari. Lurra sardin ustelak bestean
merke erosiezirik eztok izango orain.

BAKALS.—Ba! Olan izatekotan, egi-antzeko
dok, Bagil beroa ba'yatok, eta erriko asa-

rreok irautekotan, untze buru-zabalak legeixe eundaka erosi ul izango doguzala neskak.

FAL.—Mezea-arren, mutil, egia diñok; saleroste erreza izango yoagu alde orretatik, urrean. Baña, esaidak, Hal, ez ete dok bildur itzalik? Oñordeko dalakoa azanazkero i, mundu osoan be idoro ete einkez Douglas txerren ori, Percy mamu ori, eta Glendower txerren ori lango beste iru arerio? Ez ete ago itzalez bildurturik? Etxak leituden odola?

BAKALS.—Areean bez, egia esateko; ba-yoat nik ire berezko lera-bearrik.

FAL.—Tira ba, agirika itzala entzun bearko dok biar, ire aitaganatu adinean: maite ba' nok, gertau egik erantzun.

BAKALS.—Nire aitarena egidak! eta aztertu egizak nire bizitzako atzera-aurre ta goraberak.

FAL.—Egingo dodan? Bai, eta pozik, alan be: yezarleku onek egingo yok bakaulkiarena, sastakai onek agintza-makilearena, eta burupeko onek burestunarena.

BAKALS.—Aulkiak egingo yok ire bakaulkiarena, berunezko ire sastakaiak egingo yok ire agintza-makilearena, eta ire buru-ertz soil erukarriak egingo yok ire burestun aberats ederrarena!

FAL.—Tira ba, goitiko Eskarraren sua guztiz itzalita ezpa'yagok igan, bertatik eragingo yak. Ekadak edalontzibete ardao, begiak gorritu dakidazan, negar egin dodala iriditu dagien; biotzaldi andiz itz egin bear yoat, Kambyses Bakaldunaren gogaldian itz egingo yoat, ba.

BAKALS.—Tira ba, aiko makurturik nire be-launa.

FAL.—Sta aiko amen nire itzaldia. Alde egizue, aitonsemeok.

ARROZ.—Ene! Yosue, olgeta lango olgetea da auxe. bai benetan!

FAL.—Ez egin negarrik, bakalduno ezti; alperriko dira negar-erioak-eta.

ARROZ.—Ui! aita yatsu ori; orren arpegiaren ben!

FAL.—Yaungoikoa-airen, lordok, atera egizue emendik bakalduno gotiluna, negarrak itxi egiten dautsoz begietako negarr-ateak-eta.

ARROZ.—Yosue! nik or ikusirik dadozan antzele emagalduzaleak legetxe egin be egiten dau, gero!

FAL.—Ixilik zu, neurri-ontzi on ori; ixilik zu, garaun-alaitzalla ori. Endika, arriturik eta zurturik naiagok, ez ik ire astia non emoten doka ikusiaz bakarrik, ire lagunak nor-

tzuk diran ikusiaz be baño: izan be, ba, zapalduago ta ugariago etorri-arren larran-billoa, alperrik galduago ta lenago igartuten dok gaztearoa. Nire seme audala nik sinistuteko, ire amaren itza yoat alde batetik, eta neure ustea bestetik; *haña* batez be ire begietako zital-kiñua, eta ire beko ezpana ergelkiro yaustea dozak nire seme azala baiezutuden daben zerak. Olan ba, nire seme ba'az, emen yagok zeraren zera; nire seme izanik, zegaitik agertu az i orrenbestean orrako orretan? Orren aldarrai ibiltekoak izan bear ete yck ortzeko eguzki onetsiak, masusiak yanda biziteko? Eñeunkek egon bear onango itaunik egin-bearrean. Lapur eta zisku-ostutzallarik izan bear ete yok Ingelanda'ko bakaldunaren semeak? Onango itaunik egin-bearra be! Ba-yagok zer bat, Endika, ik sarritan entzuna, eta lurralde onetan askok ui izenez ezagun dabena: beñolako idazleak diñoenez, loitu egiten yok ui dalako onek; orixe egiten yoek ik dozakan lagunak be: izan be, ba, Endika, mozkorrak eraginda eztauskat itz egiten, negarrez baño,,: ez atseginez, naibagez baño; ez itzez bakarrik, atsekabearen atseka-bez be baño; eta orraitio be, ba-yagok gizon onindartsu bat ire lagunen artean, sarritan ikusi izan-arren bere izenik eztakidana.

BAKALS.—Zetariko da orrako gizon ori, zure negusiagotzeari eder ba'yako?

FAL.—Yardukera oneko gizona, bai orixe! eta bai gizato be; txerakor arpegiz, betargi, ta ibilkera zindo zindokoa; eta, nik uste dodanez, berrogei ta amar bat urtekoa, edo, gure Anderea-anen, irurogeirako bidean dagona, eta orain datorkit burura, Falstaff yakok izena: oker be oker naiagok ni, a gizona lizunkerizale izatekotan; izan be, ba, Endika, dizdiz egiten yok onindarrak aren begirakunetan. Olan ba, zugatza zer eta zelango dan berak emonetik ezagun al ba' dok, emona zugatzetik lez, bein betiko yiñoat ba-dala onindarrak Falstaff'egan: euki egik a, uxatu egizak besteak. Eta esaidak orain, ik zirtzil oker orrek, nondik ibili az ilebete onetan?

BAKALS.—Bakaldunak lez itz egiten dok, ala? Nirearena egik orain, eta nire aitarena egingo yoat nik.

FAL.—Kendu egin bear daustak bakalduntzea, ala? Nik orren ben, orren nagusiagotzakiro egin dodanaren erdirik egin ba'dagik, bai itzez, eta bai mamiz, orpoetatik eskegi nagik kui-kumeren bat, naiz erbi-kumeren bat legetxe.

BAKALS.—Tiruk, emen naiagok ni yezarrita.
FAL.—Eta emen naiagok ni zutunik: zuok eba-tzi, ene yaunok.

BAKALS.—I, Endika, nondik ator?

FAL.—Eastcheap'etik, ene lord zindo.

BAKALS.—Astunak dozak ire aurka dantzuda-zan alaketak.

FAL.—Yaungoikoaren odola-arren, ene lord, guzurrak dira: poz-eztitan iminiko zaudaz bakalseme gazte onegaz, bai orixe.

BAKALS.—Zin dagik, eskarrik bagako mutil orrek? Enagik begiratu be egin bein be oraindik ara, Eskarretik urrin be urrin eroanik ago i: txerrena dabilkik inguruan gizon zar lodikoteren antza arturik... upel-antzeko gizona dok ire lagun. Zegaiik abil kutxatzar zirin-dario agaz, kokaldatsu anditu agaz, ardao-ontzi itzal agaz, aberekeri-ontzi agaz, estez yosirik dagon lokarri bikote agaz, Manningtree'ko idi erre agaz, sabelean gozokia deraoanagaz; txarrindar begiragarri agaz, zuzentzarik eztauen ule-ur-din agaz, zitalen aita agaz, zar uskerizale agaz? Zetan dok a on, ardaoa dastatu ta edateko baño? Zetan dok a aratz eta garbi, ollar irenduak zaitu ta yateko baño? Zetan dok a maltzur eta trebe, maltzurkerietan baño? Zetan trebe, zitalkerietan baño? Zetan zital, edozetan baño? Zetan aintzako-garri, ezebezetan baño?

FAL.—Aituko al nindu zure eskarrak: nori daragoio zure eskarrak?

BAKALS.—Gazte-ondatzalla zital askarri atzaz, Falstaff'ez, txerrenburu zar bizar-zuri atzaz.

FAL.—Ene lord, ba-dazaut gizon ori.

BAKALS.—Ba-yakiat ezagun dokala.

FAL.—Baña dakidan baño geiago esatea litzake, <z neu baño kaltegarriago dala esatea. Zar dala a? Ainbat errukarriago orre-xegaitik, eta bere ule zuriak dira zar dalaren autorla ta lekuko: baña, zuri dautsudan lotsea alde batera, bete bete-an ukatuten dot emagalduzale dala a, Oben ba'da ardao gozoa, Yaungoikoa lagun izango al yako errukarriari! Oben ba'da zar eta gogargi izatea, gaiztetsia da nik ezagun dodan urli zar a; gorrotagarri ba'da gizen izatea, arako Paraoen'ei argalak dira maitagarri. Ez, ene lord on; Peto bidali egizu ortik zear, Bardolba bidali egizu ortik zear, Poin uxatu; baña, Yontxo Falstaff kutunagazko, Yontxo Falstaff txerakorragezko, Yontxo Falstaff zintzoagazko, Yontxo Falstaff adoietsuagazko, eta Yontxo Falstaff zar izanik ainbat adoretuago dalako, ez egizu bidali ortik zear zure Endika'ren laguntzatik: or-

tik zear bidali egizu Yontxo borobila, bai, eta mundu guziia bidalten dozu.

BAKALS.—Gura yoat eta egin egingo yoat. Deiez, ate-yoka. Alde Arrcztunoa'k, Pantzes-kaik eta BARDOLBA'k).

Aurrera barrero BARCOLBA, arñeketan.

BARD.—Ui! ene lord! Atetan dago xeripa la-guntza asarreagaz.

FAL.—Alde emendik, zital ori! Amaitu dagi-gun antzerkia; zerik asko dot oraindik esa-teko arako Falslaff'en alde.

Arroztuoa aurrera ostera be, estu ta larri.

ARROZ.—Ene Yosua! Ene lord, ene lord...

BAKALS.—Eupa, eupa! txerrena dago bibolin-arian izartolaka: zer yazoten da?

ARROZ.—Atetan dago xeripa ta bere lagun guztiak; etxea arakatuten datoz. Itxiko ete dautset barrura sartzen?

FAL.—Ba-dantzuzu ,ala, Hal? Bein be ez egi-zu esan urre zindozko trintxinik (txanpcnik) ustel danik. Osoan burutik eginda ago i. olargoren antzik izan ez-arren.

BAKALS.—Eta i yaiozaz az kilil eta bildurti, eta berezko Ierarik bagako.

FAL.—Ukatu egiten yoat ire "maior"; xeripa-ri sartzen galazo ba'dagiozu be, orixe esan-go dol; ostantxean, datorrela barrura: zeinek arinagotan beste edonok bestean egin ezpa'dagit, izurriak eroango al dau nire azkuntzea! Ba-ditxarot beste edozein bes-tean arin arin eskegiko nabela lokarritz.

BAKALS.—Tiruk, errezel orren ostean ostondu adi: goitegira doazala besteak. Orain, yaunok, yasa ona ta yakinkidetzta ona erakutsi.

FAL.—Inozkoen baten izan dodaz orrako zer biak; baña yoanik da euren eguna-ta, ostondu egingo naz ni. [Alde BAKALSEMEA to POINS'ez bes'errk).

BAKALS.—Barrura dei egiok xeripari.

Xeripa ta Burdidun bat aurrera.

Dakusagun, xeripa yaun, zer gura dozu nigazko?

XERIPA.—Lenen, azketsi nagizu, ene Iord. Gedarrez eta oioka yarraí yake erria ona sartu diran gizon batzui.

BAKALS.—Ze gizonei?

XERIPA.—Ezagun ezaguna da euretatik bat, ene lord eskartsu..., gizon lodi lodi bat.

BURD.—Gurina bera bestean gizen da.

BAKALS.—Gizon ori, seguru zagoze, eztago emen; neuk bidali dot zereginen batera-ta.

Eta, xeripa, neure itza damotsut, neuk bidaliko dodala biar, bazkal-orduan, ak zuri, naiz beste edozeineri erantzun dagion, edo zetan salatuten dabela a; eta orrazkero, emendik alde egin dagizun eske nagotsu.

XERIPA.—Egingo dot, ene lord. Irureun marko galdu dabez aitonseme bik lapurreta onetan.

BAKALS.—Ea-ledike olan izatea; erantzun bearko dau, gizonoi oV ostu ba'dautse; olan, ba, agur.

XERIPA.—Gau on, ene lord zindo.

BAKALS.—Egun on dalakotan nago ni, ez ete?

XERIPA.—Bai izan be, ene lord, ordu biak dirala uste dot. (Alde Xeripak eta BurdidunTk).

BAKALS.—Paul Deunaren yauretxea bestean ezaguna dok zital koipatsu au. Oa ta esaiok urten daitela.

POINS.—Falstaff! Lo-zorroan dago errezel-ostean, eta zaldiak baño lo-arrantza andiagok egiten dauz.

BAKALS.—Adi akio, orren arnasearen estu! Arakatu egiozak sakelak. (Arakaturen dara-go Poms'ek) Zer idoro dok?

POINS.—Papelez besterik dausik bez, ene lord.

BAKALS.—Dakusagun zetariko diran papelok; irakurri egizak.

POINS.—(Ba-dirakur)

Baita, ollar irendu bat 2s. 2d.

Baita, Gozagarría Os. 4d.

Baita, Ardao gozoa, galon bi 5s. 8d.

Baita, Antxobak eta ardoa apal-

ostean 2s. 1/4d.

Baita, Ogia Os. 6d.

BAKALS.—Ui! zer onen asarrearen asarre! Ardao-osin orrentzako txakurtxiki bateko ogia baño ezi Euki egizak beste papelak; ereti obarik izango yoagu orreik irakurteko; lo egin dagiala eguna argitu arte. Bakal-yauregira yoan bear yoat goxean. Gu duetara yoan bear yoagu guztiok, eta begiragarri izango dok ire lekua. Oñezkoen artean billatuko yautsat lekuen bat zital orri, eta ba-yakiat amabi ogeiko kanako bidea izango dala asko ori ilteko. Atzera emongo yoagu dirua, eskupeko ta guzti. Ator garaiz nigana goxean; eta, geiagoko barik, gau on, Poins.

POINS.—Egun on, ene lord on. (Alde dagie).

III EKITALDI

I AGERLEKU.-BANGOR. Dikonburuaren etxeko leku.

HOTSPUR, WORCESTER, MORTIMER, eta GLENDOWER aurrera.

MORT.—Eder dira aginduok, gure aldeko se-guru, eta itxorrik onenez betea ortik datorrena.

HOT.—Lord Mortimer, eta-ene lengusu Glendovrer, -yezarri gura ete dozue? - Eta osaba Worcester: izurriak eroango al dau! Aztu egin yat lutirudia.

GLEND.—Ez, emen yagok. Yezarri adi, Percy lengusu; yezarri adi i be, Hotspur lengusu, izan be, ba, ire izengoiti ori aitatuten dauen bestean sarritan arpegia zurbildu ta intziri luzea urteten yakok i zeruraturik ikusi gure induken Lancaster'eri.

HOT.—Eta i eu sulezan gura induke ak Ovren Glendovrer entzuten dauen bako-txean.

GLEND.—Ezin yautsat errurik ezarri; suzko irudiz, kurtzulu-argiz beterik yegoan ortze-sapaia ni yaio nintzanean; eta, bildurtia ikaratuten danez, ikaratu egin zoan lurra

bere oñari itzalen ganean, ni amaren sabeletik urten nintzanean.

HOT.—Ba! ori berori yazoko litzakean aldi berean, i yaio ez-ar-en be, ire amaren kate meak umeak erdi izan ba'leuz be.

GLEND.—Lurra ikaratu egin zala ni yaio nintzanean esan yoat eta yifioat nik.

HOT.—Eta enokala ire eretxikorik yifioat nik, ire bildurrez ikaratu zala uste ba'dok.

GLEND.—Sutan yegoan ortze osoa, eta dardaraka lurra.

HOT.—Ui! olan izatekotan, lurra ikaratu ba'zoan, ortzea sutan ekusalako ikaratu zoan, eta ez ire yaiotzearen bildurrez. Gexo danean berezkoak sarritan izaten yozak olango iñondiko umealdiak; sarritan izaten yozak lur sabel-betean sabel-min diralakoak, bere sabelean baiturik dauzan axe ezigatxak zatzatu ta kezkatu; eta axeok, nasaia ego gurarik, ikaratu egiten yoez lur ama zarra, eta lurreratu egiten yoezak yoaletegiak eta oroldiz estalirik dagozan

torreak. Ondo-ez onegaz, minez ikaratu zoon gure ama lur au, i yaio intzanean.

GLEND.—Lengusu, gizon askogandik etxoat yasaten nik, aik olan nik esanaz bestera esaterik, Ederetsi egidak nik beste bein iri esatea nire yaiotzan ortze-sapaia suzko irudiz beterik egon zala; igesi egin ebela auntsak mendietatik, eta umerri ta abelgorrtaldeak gedarrez eta orroaka eragoioela bedartza ikaratueta. Bardinbakotzat iragarri nabe atz eta alatzok; eta nire bizitzako erago osoak darakus enazala ni gizon arrenten izendegikorik. Non dok Ingelanda, Eskolanda ta Kimuruerri'ko itsasegiari asarre egiten dauksen itsasoak barruan artzen dauen lurralde oso onetan bizi danik ni bere ikasla deiñu ta niri irakatsi daustala esan dagikenik? Ekadazue emakumeren seme baño eztan gizon bizia, trebetasunaren bide luze gogaikarrietan nire yarrai etorri ledikena, eta azterketa sakonetan nigaz oinbardin ibili ledikena.

HOT.—Kimuru-izkuntzaz iñok be obeto eztauela itz egiten uste dot. Bazkaiteko gogoia dot.

MORT.—Ixilik ago, Percy lengusu; burutik eragingo dautsak ik.

GLEND.—Eztoz nik sakon eskargatik beste mundukoai dei egin-ezinik.

HOT.—Ba! neuk be eztoz orrenbeste egin-ezinik, ezta beste edonok be; baña etorriko ete dira zuk dei eginazkero?

GLEND.—Ba! i, lengusu, etxoat nik txerrenari aginduteko iri irakatsi-ezinik.

HOT.—Eta nik be etxoat iri irakatsi-ezinik, lengusu, zelan lotsaturik itxi txerrena, egia esanda; egia esaik, eta lotsaturik itxi egik txerrena! A eratorreko alik ba'dok, ekarrik ona, eta zin egiten dauskat ba-dodala nik alik ari emendik lotsaturik alde eragiteko. Ui! egia esaik ire bizian, bai, eta lotsatu egik txerrena!

MORT.—Tiruk, tiruk asko ta geiegi be ba-yoagu berbeta ganorabako onetatik.

GLEND.—Iru bider eupada egin dautso nire alari Endika Bolingbroke'k; eta iru bider bidali dot atzera Wye ibaiaren ertzetatik eta ondo ondartsudan Severn'en ibai-ertzetatik, ortosik eta bizkarrean eguraldiarenak arturik.

HOT.—Etxera ortosik eta eguraldi txarrez etorriazkero, zelan etxoan izan sukarrik, txerrenaren izenean?

GLEND.—Tiruk, aiko amen lutirudia; egin dan zatiketa-agiri irukotxaren arauz zatituko ete yoaguz gure eskubide-lurrak?

MORT.—Iru zati bardintsutan zatitu dauz Di-konburuak; nitzakotzat izentau dóu ak In-

gelanda, Trent eta Severn'etik onakoa, egoealdetik eta eguzkialdetik (yogialdetik); Owen Glendower'entzako, eguzki-sarrera-alde osoa, Kimuruerria, Severn'en ertzak baño aragotik, eta mugaon barruko lur mardul guztia; eta itzako, lengusu maite, Trent'etik gorako ganetiko iparraldea. Iru zatiko gure itunben au bein idatzi, izenpetu, batak bestearena ikurraztu, eta itunbenaren ale bana artuazkero, (eta arratsecn egin ledikena da arazo etu), Shrewbury'ra yoango gozak biar, Percy lengusu, i ta ni, ta Worcester'ko ene Lord ona, aurreztik itundurik dagonez, ire aitagaz eta Eskolanda'tiko indarrakaz an bat egiteko. Oraindik etxagok gertu nire aita Glendower, eta aren bearrrik be etxoagu izango amabost egunotan (GLENDOWER'eri) Bitarte orretan batu daikezuz zuk zure maizterrak, adiskideak, eta ingurueta-ko aitonseamak.

GLEND.—Lenago elduko natxatsue, yaunak; eta neuzag yoango dira zuon emazteak; orain zuok ixilik eta agurri! egiteka alde egin bear dozue aikandik-eta; zuok eta zuon emazteak alkarregandik banakeran, ba, mundubete ur ixuriko da, zuok agurrik egiteka yoanda be.

HOT.—Nire ustez, nire arlotik erdia, Burton'dik iparralderakoa, ezta zuonetik erdia beste-kerik; ikusi baño eztozue, zelan sartzen dan ibai au kakomakoka nire arlora, eta nire lurrik onenetatik iretagi-erdikin itzal bat kentzen daustan, arlo eskargea. Orretarako ormak eginda, geldituaz egingo dautsat Trent ibaiako ur biziari; eta andik aurrera, ur-bide barrian bidez bide astiro ta lau yoango dira Trent'eko urrezuri-antzeko urak; ezta egingo ibaiak onango mako andirik, emen niri olango lur zelai arlorik ostuteko.

GLEND.—Eztauela egingo kakomakorik! Egingo dau, egin bear dau: ba-dakusazu badagiala.

MORT.—Bai, baña oartu akio zelan daroan bere bidea, ta niganantza datorrela, eta gero beste alderantza, alkarri lurr-arlo bardin-tsua kendurik.

WOR.—Bai, baña diru-eralketa andi bagarik emon leio emen bide barria, eta, olan, irabazi iparraldeko lur-mustur au eta ibaiarte eta zelai yoango da bere bidean.

HOT.—Orixe egin be egingo dot; diru-eralketa apur bategaz egingo dot ori.

GLEND.—Eztautsut itxiko aldakuntzarik egiten.

HOT.—Ez ete?

GREND.—Ez, eta eztok egingo olangorik.

HOT.—Nok esateko niri ezetzik?

GLEND.—Ba! neuk esango dauskat.

HOT.—Olan ba'da, ez *ál* dautsut aituko; Kimurueraz itz egidazu.

GLEND.—Ba-yakiat nik Ingelanderaz egiten be, lord, ik bestean ondo, Ingelanda'ko bakalurian irakatsia nok-eta; gatzetan an nintzala, ainbat abesti labur ondu (egin) eta arpaotsez eiertosko abestuten naioazan, eta ango izkuntzeari apaingarri onik emon naieuntsan. Eta olangorik igan ikusteko nok oraindik.

HOT.—Arrano, eta biotz biotzez poztuten naz orregaitik; gurago neunke katakume izan eta miao gedar egin, olango iizneurtzuko bala-tagilerik izan baño; gurago neunke borontzeko kanidel-ontziaren birea entzun, naiz txirrinka legorra burtzilean irrintzeka entzun, eta orrako orrek eleuskidaz iminiko aginak karraskadaka zure itz neurtu ikasiegiak bestean: eskutik daroagun zaldiaren ibilkeraren beartuaren antzeko dira zure itz neurtuak.

GLEND.—Tiruk, itxiko yak Trent arteztuten.

HOT.—Eztaust ardura; beste ainbeste lur iru bider emongo dautsat aintzako izan dadin edozein adiskideri; baño sal-erosian, entzun, gero! sal-erosian ule baten bederatzirenean be eztoz egingo amorerik. Idatzita ete dagoz itunbenok? Yoango ete gara?

GLEND.—Zoragarriro dagi argi iretargiak; arratseon alde egin einke: estutuko yoat idazlea, eta gero bertatik esango dautset zuon emazteai zuon alde egitea; bildur naz nire alabeari buruik egingo ete yakon, ain kutun dau Mortimer-eta. (Alde dagi).

MORT.—Uf! Percy lengusu! Ik bai asarratuten dokala nire aita!

HOT.—Ezin yoat bestera egin; satorraren eta inurriaren ipuina eralgiaz asarratuten naiok batzuetan, Merlin ameslariagaz eta aren iragarpenakaz, iransuge ta egalbako arrainarenagaz, arrano-leoi egamotzarenagaz, luma-aldaketan dagon belearenagaz, leoi etxunarenagaz eta besoak aidean dauzan katuarenagaz, eta beste arrigarri askogaz-eta, gatx egiten yatak berari sinistutea. Aiko, gitxienez bederatzit ordutan euki naiok bart bere otsein eta esaneko yakozan txerrenen izenak aitatuten; "um!" egin yautsat nik gedar, eta "tira, ekiok"; baño etxautsat yaramonik egiten izan. Ene! zaldi unatua bestean, agirika daragoion emaztea bestean gogaikarri egiten yatak a; kea darion etxea baño okerrago: gurago naieunkek eieraan (errotzen) baten urrin bizi, gatzatea ta berakatzak yanda, okoreak yanda ari en-

tzun-bearrean kistarren arteko edozein uda-etxetan bizi baño.

MORT.—Benetan, aintzako aitonseme dok a; asko be asko ta ondo irakurria, eta inondiko ixilkizunak dakizana; leoia bestean kemen-tsu, eta txerakor baño txerakorrago, eta Indietako meak bestean eskuzabal. Esango ete dauskat, lengusu? Lotsa andi yautsak ak ire gogaldiari, eta ik bestera egiten dautsakanean men eragiten yautsak ak bere berezko arrotasunari; bai orixe, ori egiten yok ak; segurutzat euki egik, bizi diranen artean eztagola gizonik ik zirikatu dokan bestean a zirikatu daikenik, aren galgordea ta erantzuna zelango diran bere buruan ikusteka: baño ez egiok sarritan ekin, eta ontzat artu egik nire onu au.

WOR.—Benetan, ene lord, eztoz ontzat artzekorik ire burugogorkeria; eta i ona etortek a bere epetik al imini izan dauenazkero, ikasi egin bear dok, yaun, ire uts ori, ire akats ori arteztuten; orrako orrek batzuetan anditasuna, adorea, ta odola iragarriaren, eta ori dok ak igan autortuten dauen zerik onena, -orraitiño be, sarritan zakarregi ta bat-batekoegi agertuten dok, era-merarik bagarik, eure buruaren yabetasunik bagarik, arrokeria, gangarkeria, nobere ertxizalekeria, eta aurrekoarentzako zapuzkeria; eta orrako zeretatik txikienak be, olangorik aitonsemek ba'yok, galduazo egiten yautsozak gizonen biotzak, eta orbandurik izten yautsok beste zer eder guztien edertasuna, eta ostu egiten yautsek euren goragarritasuna.

HOT.—Tira ba, emon daustazue ikaskizuna: ondo ibiliko al zarie zuon eramerokaz! Emen dagoz gure emazteak, eta agur egin dagiegun.

Aurrera barriro GLENDOWER, LADY MORTIMER eta LADY PERCY' gaz.

MORT.—Nire emazteak Ingelanderaz tutik be ez eta nik be Kimurueraz deusik egin-ezina da asarre baño asarreago egiten nauen gogoaz besterakoena.

GLEND.—Negarrez yakok nire alabea: ak etxok igandik alde egin gura; berak be gudari izan gura yok, eta gudueta yoan.

MORT.—Aita on, esaiozu bera ta nire izeko Percy laster etorriko dirala, zu euren lagun zatxakezala. (Itz egitsn dautso GLENDOWER'ek Lady MORTIMER'eri Kimurueraz, eta besteak izkuntza berean darantzutso).

GLEND.—Etsita ta arterik artu-ezinik yakok emen; emakume gogalditsu ta bereti dok

- au, bere buruan bestek ezer sartu-gureak ezatariko onik egiten eztautsana. (Lady MORTIMER'ek barrero dagi itz, Kimurueraz, MORTIMER'eri).
- MORT.—Zure begirakuneak aituten dodaz: on. doegi aituten dot zure zeru-iturrietatik, zure begietatik, darion Kimuruera polit ori; eta lotsea-arren baño ezpa'da be izkuntza bardinez erantzun bear neunskizu. (Barrero dagi itz Lady MORTIMER'ek). Aituten dodaz zure munak, eta bai zuk be nireak, eta biotz-aldian norgeiagoketea yatsu onako au; baño, kutun, eztof alperrik galduko astirik zure izkuntzea ikasi arte, zure izkuntzeak, ba, bakaldunok uda-basoan, txistu-otsez eta ots-aldakuntza zoragarritz, abestuten dauzan abestirik gozoenak bestean gozo egiten dau Kimuruera.
- GLEND.—Ez, burutik egingo yakok, samurtu ba'adi. (Barrero dagi itz Lady MORTIMER'ek).
- MORT.—Ene! Ezyakinkeria bera natxatsu ni zerotan!
- GLEND.—Lurreko oialetan yezarri zadizala, ta zure buru txairoa bere altzoan imini dagiozula eskatuten dautsu, eta atsegin izango yatsun abestiren bat abestuko dautsula, eta Io-yainkoak burestundu egingo dauzala zure begiak, zure odolak logura astunez iluraturik, atzarritik loak arturik egotera dagon aldea zaldi buztartu biak sortaldetiko urrezko bidea egiten asi baño ordubete lenago gabetik egunera dagona añako ba-dala idoroko dokala (9).
- MORT.—Biotz osoz yezarri ta entzungo dot abestuten; ordurako idatzita egongo dala uste dot gure arteko itunbena.
- GLEND.—Egik orrako ori; eta emendik milla legoa urrin dagoz eguratsetan zuoi yoko dautsuen ereslariak; eta bertatik izango dira emen; yezarri ta adi egon.
- HOT.—Erdi, Katarinetxo, itzalez ondo dakizu zuk etxuten; erdu, arin, arin, nire burua zure altzoan imini dagidan.
- LADY P.—Ken akit, antzar gogalditsu ori (Bardaragoioe erezia yoten).
- HOT.—Ba-dakust orain txerrenak aituten daue-la Kimurueraz; eta ezta arriutekorik a onen gogaldi onekorik izatea. Gure Anderea-arren, ereslari on yatsu.
- LADY P.—Olan izatekotan, ereslari baño etzenke izan bear zuk, gogaldiak zarabiltz zue-ta. Etxun adi, ixilik, Iapur ori, eta entzuik anderea Kimurueraz abestuten.
- HOT.—Gurago neunke nik gure txakur "Lady" Eire'ko izkuntzaz ausika entzun.
- LADY P.—Burua ausi dagiskadala gura dok ala?
- HOT.—Ez.
- LADY P.—Olan izatekotan, ixilik ago.
- HOT.—Ezta; emakumeren akatsa da nirea.
- LADY P.—Yaungoikoa Iagun izango al yak.
- HOT.—Kimurutar anderearen oerako.
- LADY P.—Zer esan dok?
- HOT.—Ixilik! Abestuten daragoio. (Kimuru-abesiiren bat abestuten daragoio Lady MORTIMER'ek).
- HOT.—Tira, Katarine, zure abestia be gura dot.
- LADY P.—Ez nirerik, ez orixe.
- HOT.—Ez zurerik, ez orixe! Ene biotz ori, gozokiginaren emazteak Iegetxe zin egiten dozu! "Ez orixe", ta "bizi nazala bestean seguru", eta "ostantxean Yaungoikoak zigortu nagiala", eta "eguna dan bestean seguru"; eta zuk zure zinai ezarten dautsezuezan yantzetatik esan ledike eguño etzareala yoan Finsbury baño urrinago. Andera zareanazkero. anderak Iegetxe zin egidazu, Katarine, agoabeteko zinak; eta or itxizu "bai orixe" ori ta "ez orixe" ori, ta beste olango milinkeriak yaiegun-yantzi apiztun yauntxoentzat. Tira, abestu egizu.
- LADY P.—Eztof abestuko nik.
- HOT.—Ori yatsu biderik onena yostun, naiz txantxangorrien irakasle izatera eltzeko. Itunbena ordurako idatzita egotekoian, ordu bion barruan alde egingo dot nik; olan, be, zeuk noz gura etorri. (Alde dagi).
- GLEND.—Tira, tira, Iord Mortimer; geldo augu i, Iord Percy beroa yoateko suturik dagon bestean. Idatzita yakok onazkero itunbena; ikurratza ezarri baño etxautsaguk egingo guk, eta orduan zaldi-ganera bereala.
- MORT.—Nire biotz osoagaz. (Alde dagie).

(9) "Zaldi buztartu biak...". Irakurla maite, Eladetaxrak, beste zer asko lez, egunez goitik argi egiten dauskun eguzkia notindu, gizondu, egin eben ata Poiba (Phoibos) izena ezarri. Poiba au ez izan, ba, oñez ibiltea gogokoegi yakonik-eta, zaldi sutsu bik ten egiten eutsoen bideric egiten dau sortaldetik sartalderako bidea, egunean egunean. Ederragotzat dau Shokespeare'k egunsentia, eguzkiaren urteera (Eladetarren Rhododaktylos Eos) egua b^ra boño, eta ba-da izom be.

11 AUEHLtKU.-LOKuON. Bakai-yauregiko leku.

ENDIKA BAKALDUNA, ENDIKA BAKALSE-MEA, ta Lordak aurrera.

END. B.—Lordok, bakarrik itxi gagizuez; alkarregaz autuka eragoteko gara Kimuuerri'ko Bakalsemea ta ni; baña ez urrin yoan, laster izango gara zuon bearrean-eta, íAlde Lordaik). Etxakiat nik, gogoko izan etxakon zeren bat egin dodalako, ala beste zeren bat egaitik gura izan dauen Yaungoikoak, bere erabagi ixilez, nire odoletikoa bera izatsa nigazko azaskatzea ta nire zigorra; baña ik ire bizitzako gora-bera ta atzera-aurreakaz sinistuazo egin daustak Yaungoikoaren azaskatze gorri ta zigor izateko bakarrik izentaua azala, nire oinkada txarrak zigortauteko. Ostantxean, esaidak, íre odol goikoaren lagun izan ete daitezke, ire bakaldun-biotzari erantzutekorik ete dozak olango lera nasai, nastu ta zirtzilak, olango egite erukarri, muskildu, lizun eta beekoak, olango atsegin elkorrak, laguntza zakarrak, i eura-kaz bat eginda ta eurai mentaturik lez agon lagunak?

BAKALS.—Eder izango al yako zure nagusiagotzeari, errubarik eta bidebarik ezarten daustezan ainbat uts zuritu daikedazan bestean zuritu al izango al dodaz beste okerren guztiak be; orraitíño be, zurikerizaleak eta barri-asmatzalla zirtzilek asmau eta goietan dagozanak nai-ta-nai-ez entzun bear izaten dabean uts diralakoan alderako, eskaiu ta zugandik iritxiko al dot, nire bendekotasun zintzoa dala-ta, nire gatzetasuna aldarrai eta okerreko bidez ibiliaz egin izan dodazan benetako utsen azkespen edo parkamena.

END. B.—Yaungoikoak azketsiko al au!... oraitíño be, itxi egidak itanduten, Endika, ire lerakazko, zegaitik artu daben euren egazkadak ire aurretikoenaz guztiz besterako biderik. Ganora barik galdu dok ik ire lekua onularen artean, eta i baño gazteago dan ire anaieak bete yok ire lekua; ia ezezagun eta erbesteko az bakal-yauregiko guztientzat eta nire odoleko diran bakalsemenen biotzentzat; lorrindu ta muskildu egin dozak ígan yarritako itxaro ta usteak; eta ígarla ba'litzozak lez, lur yota ago i guztien ustez. I bestean neure buruaren erakusla izan ba'nintzok ni; lagun zirtzil-artein ibiliaren ibiliz, orren ikusirik eta erabilirik izan ba'nintzok ni, olan eta orrenbestean ustelez urdin-du ta merketu izan ba'nintzok..., oraindik be

zintzo litxakíozak legezko bakaldunari bu-restunerako bidean lagun izan yatazanen biotzak, entzute onik eztakarren erbestean itxiko nínduen, goragarri eztan eta aítzazkotzat artzeko be gei eztan gizona legetxe. Erriak ni gitxitan ikusita, ezin egin nefinkean nik zirkinik, ak ni, izar ibiltarian bat ba'nintzoan lez, arriturik eta agoa zabalik begíratzeka; olan, onan esaten yeutsen gizonak euren umeai, "au dok arako a", eta beste batzuk onan esaten yeutsen, "Non yagok, zein dok Bolingbroke?". Nitzako zoazan orduan Yaungoikoarentzako diran burubelaun makurtzeak, ni neu apaltasunez yantzirik geldituten nintzoan-eta, niganako bendekotasuna irabazten naioan gizonen biótzetatik, gedar, zantzo ta oio zaratatsuak eta goraketak euren agoetatik, burestuna aldean eroan bakaldunaren beraren aurrean be. Onan, nik beti barri ta beti mardul euki izan yoat nire burua; eta nire irudirik, goztai-yantzien antzera, bein be efxoen ikusten, ikusi-ala arriturik gelditu bagarik; eta olan, nire oturuntzak, sarrí ez baño oparo egiten ziranak, benetako yai-antzeko izaten zoazan, eta meatz izaten ziralako, alango yaukal-antza izaten yoen. Bakaldun txoriburua, an ibilten zoan bein ona, bein ara, gatzik bagako irrilariekaz eta bein íxitu, bein itzali egiten diran lasta-eskutadaen antzeko lagun txoriburuekaz; orrazturik, uldurik eta murraturik itxi yoan bere oniasuntzea; bere bakalduntzeak bat egin yoan marmarlari ergelakaz; zakartu egin yoan bere izen andia arein ezespenakaz; eta bestetik, ume irrilariai ííxi egin eutsen bere leptik irri ta barre egiten, eta aurrera lenen etorkonari onango ta alango zala esaten; guztientzako etxarte bideetako lagun egin zoan, erriaren antzeko izatera yo yoan; eta gizonak egun oro ikusten ebelaiko, eztiz aseturik, eztíari íguín crtu yeutsan erriak, eta, ba-dakik, eztítik bear dan baño apur bat geiago asko geiago dala. Olan ba, bere burua erakusteko abagunerik ebanean. bagilean kukua besteko baño etzoan izaten, entzun eta yaramonik egiten etxakona..., ikusia bai, baña begi txarrez eta ikusiaren ikusiz erkínduz; eta etxoan ikusten, meatz ikusten danean eguzkia lango nagusiagotzeagana yoten daben begirakune arriturik etxakona yoaten bere ganera; guztiz bestera, arrausi tr lo egin, begiak lurreratut,

bere aurrean loak artu, eta gizon goibelak euren arerioai egiten dautsezanak langoxe begirakunek egiten yeutsoezan bera ikusiaz asetur'k, okadaka ta beterik egonik. Eta arena lango bidean ago i, Endika; galdu egin dok, ba, ik ire bakalsetmezeari dagokona, ire lagun zirtzilen kide eginik; etxagok begirik i ikusiaren ikusiz asperturik eztagonik, nireak izan ezik; nireak, ba, i sarrago ikusguraz egon dozak; eta orain, samurtasun ergelez, lausoturik yagozak nire begiak i ikusiaz.

BAKALS.—Ene Iord eskartsu baño eskartsuago ori, nire lekuari dagokionago izango naz oraindik ara.

END. B.—Pantze'tik etorrira nire oña Ravenspurgen ezarri r.ebanean Errikarta zana izan az i orain arte mundu guztierentzako; eta ni orduan nintzana langoxe dok orain Percy; nire agintza-makilea-arren eta nire gooa-arren zin egiten dauskat, ik bakalgeia-aren itzal baño ez azan orrek baño bakalduntzarako eskubide giago dauela Percy'k; izan be, ba, orretarako eskubiderik, ezta eskubideren antzik be ak berez izan ezarren, gudariz beteten yozak ak nire bakalderriko lurrak; arpegi emoten yautsek leoia- ren agindun matrallazurrai; eta i baño zarrago izan ez-arren, Iord zarrak eta gotzai agurgarriak be erocn yaroazak guduketa odoltsuetara eta zaurituten daben iskillioetara. Iñoz ilgo eztan entzute lango entzutea iritxi yok ak, Douglas ospatsuari erasota! Eta Douglas eztoz edonor, gero! Kisto aintzakotzat daben bakalderrietan dan gudaririk onenaren izengoitia ekarri yautsoek ari bere bat-bateko egiteak. eraso beroak, eta iskillioetan ak dauen entzuteak. Eta. aiko, ume-mantarretan dagon Marte dalako Hotspur onek, ume gudari onek, iru bider porrot eragin yautsek Douglas'en asmoai; goatu egin yoan bein, azkatu gero, ta bere adiskidetu, eupada lango eupadea egiteko guri, eta bakeari eragin eta gure bakaulkia ikaratuteko. Eta zer diñok ik onako onetzaz? Percy, Northumberland, York'edo Gotzai buru begiragarria, Douglas, eta Mortimer itundu egin dozak gure aurka, eta yagirik dozak. Baña zegaitik eta zetarako dirauskadaz barriok? Zegaitik, Endika, aitatuten daukadaz nire arerioak, i eu atxat areriorik urrekoena ta areriorik maiteena-ta. Antzik asko dok, ba, ik (bendekoren bildurragaitik, lera zirtzikragaitik, eta gogaldia-gaitik), nire aurka egingo dokala burruka Percy'ren diruagaitik, txakurtxo legetxe, aren yarra i ibiliko azala, eta txera argia

egingo dautsekala aren betozkoai, noraño endekaturik agon erakusteko.

BAKALS.—Ez uste izan olangorik. Eztozu idoroko nigan olangorenik deusik be; eta Yaungoikoak parkatuko al dauz zure nagusiagotzearen nigazko uste ona kendu izan dautsuenak; Percy'ren buruagaz barriro neureganduko dot galdu dodan guztia, eta egun argitsuen baten atzanean adoretzurik asko izango naz zure seme nazala esateko: yantzi odoldu odoldua erakutsiko dot orrako egun orretan, eta odolez beteriko mosu-marroak estaliko dau nire arpegia, eta bein orban ori ikuziazkero, berak eroango dau nire Iotsaria beragaz batera. Lenago geroago argitu egun ori, egun orretan alkarregaz trikitx egingo dabe omen ela entzute andiko umekondo orrek. Hotspur kementsu orrek, guztiak ago batez goratuen daben zaldun orrek eta alangorik ustebako Endika'k. Omen mordoak al legoz aren buru-koskolean an dagon omen baktxaren ordez, eta nire buru-ganean nire Iotsariak eta beste aibeste! Etorriko da, ba, eguna iparraldeko gazte orri nire laido guztien alderako bere egite ospatsuak itxiazoko dautsadazana. Nire egile baño ezta Percy, ene yaun on, nitzako egite aintzatsu argiak batzekoa baño ez; eta nik a aibestean estutuko dot-eta, bere aintzetatik guztiak emonazoko dautsadaz. Bai, bere aldiko omenik txikienak be, ostantxean bere biotetik aterako dautsadaz-eta. Au da nik Yaungoikoaren inenez gaur emen aginduten dodana, eta agindu au nik betetea eder ba'dakizu, zure nagusiagotzeak osatuko al dauz, arren, nire nasaikeri zarraren zauri zarrak. Ostantxean. biziaren atzenak ezerezztuten dauz agindu guztiak, eta zin onen atalik txikienik ausi baño len eun milla eriotza artu!o dodaz nik.

END. B.—Eun milla matxinadazale erailten dozak onako onetan: agintzarik izango dok oraindik ara, eta bai nagusienaren uste ona be.

Sir WALTER BLUNT aurrera.

Kaxo, Blunt on! estu ta larri dagonarenak dozak ire begirakunek.

BLUNT.—Olanxe dago nik zuri esateko dakan arazoa be. Ii onen amaikagarrenean Shrewbury'n batuko dirala alkarregana Douglas eta Ingelanda'ko matxinadazaleak iragarri dau Eskolanda'ko Lord Mortimer'ek: baktxak berak agindua betetekotan, eguño legeerri egin izan yakon erasorik txarrena egiteko bestean altsu ta bildurgarri dira euren irtiarak.

END. B.—Gaur urtenik da Westmoreland'eko Kondea; eta agaz batera urtena da nire seme Lancaster'ko Lord Yon be, iragarpen au bost egun geroago etorria da-ta: datorren eguaztenez urtengo az i, Endika; eguenez urtengo gozak gu geu be: Bridgenorth'en egingo yoagu alkarregaz trikitx; eta i, Endika, Glostershire zear yoango az; garbita-

sunak eta zeaztasunak aintzakotzat arturik, gaurdanik amabi bat egun barru Bridgenorth'en alkarganatuko dozak gure indar guztiak. Egikizunik asko yoagu gure esku artean: gaioazan; gizendu egiten dok are-ria bestea euren egitekoa geroraturen dabenean. (Alde dagie).

III AGERLEKU.—EASTCHEAP. : asaurde-buru Ardanetxeko leku.

FALSTAFF eta BARDOLBA aurrera.

FALS.—Bardolba, ez ete nok itzalez argaldu azkenengo egiteazkero? Ez ete nok erkin-du? Ez ete nok iristu? Ba, dingilizka yoat nire narrua, atso zarraren gona nasaia legetxe; tximurturik naiagok, Yon sagarzar ba'nintzok legetxe. Tira ba, garbaitu egingo nok, eta bertatik garbaitu be, orretarako gogorik arean dodan bitartean; laster biotzik izango eztodanazkero, orduan etxoat izango, ba, garbaituteko indarrrik. Piperr-azi, naiz garardoginaren zaldi nok ni, elexearen barru-aldea zegazko dan ondiño aztu ezpa'yatak; elexearen barru-aldea! Lagunak, lagun zitalak izan dozak ni lorrindu ta galdu nabanak.

BARD.—Sir Yon, ainbeste asarraldi izaten do-zuz zuk-eta. ezin bizi zatekez luzaro.

FALS.—Ori dok, izan be; tiruk, abesti lizunen bat abestu egidak; gogargitu nagik. Izan yoat nik aitonsemek izan legiken beste onindar; bai, onindarrrik asko izan yoat; gixitan zin egiten izan yoat; astean zazpi aldiz gora etxoat yokatu diteretara; ordulaurenean beinez gora enok yoaten izan emalgaldutegietara; atzera emon izan yoat yesaten neban dirua, iru-lau bider; ondo bizi izan nok, eta neurri onez: orain, barriz, legerik baga, neurririk baga bizi nok.

BARD.—Bai ba, orren gizen eta lodi zagoz-eta, Sir Yon, besterik ezinean, neurritik urtenda egon bear zuk..., bidezko edozein neurritik urtenda egon bear zuk, Sir Yon.

FALS.—Ire arpegia arteztu egidak ik bai, eta neuk arteztuko yoat nire bizia: i az gure ontziburur, ik daroak argia ontziaren atzealdean..., ez, ire aurrean daroak ik; Kurtzulu Ixitiuaren Zaldun augu i.

BARD.—Ba, Sir Yon, eztautsu egiten kalterik nire mosuak.

FALS.—Ez, zin egingo neunke eztaustala egiten; gizon batek baño geiagok arako Erioztearen burutik, naiz "memento mori"tik ateraten dauen beste onura ateraten yoat

nik ire mosutik: eguño etxoat ikusi ire mosua sulezako sua ta yantzi gorritan bizi dan Aberatsa gomutau bagarik (10); an yagok, ba, a, bere soñeko ta guzti erretan, bai, erretan. Zetan edo atan onindarrera itzulirik ba'intz, ire mosua-arren zin egingo naieunkek nik; au litzakek nire zina, "Yaungoikoaren angeru dan su au-arren"; baña ik eztok ezetarik onindarrrik; eta izan be, ilunbe utsaren seme intzake i, ire mosuko argiagaitik ezpa'litzok. Arako gabaz Gads-hill mendia gora nire zaldia goatzeko arin egin enduanean "ignis fatuus"tzat, naiz, suzko bolatzat artu ezpa'indudan etxagok diruz erostekorik ezer. Ui! beti ago i goratzarretan, betiko suzko txirinka argitsu augu í! Amaikatxo diru eder aurreratu izan daustak ik zuzi ta kurtzulutan, gabaz igaz batera ardandegitik ardandegira ibili izan nazanetan: baña ik nire lepotik edan dokan ardaoagaz argi onak eta merkeak erosiko

neunkeazan Europa'ko argi-etxerik karuenean. Nik emon yaustat yaten eta edaten ogei ta amabi urteotan i azan eribeari; Yaungoikoak ordainduko al yaustak orreko ori!

BARD.—Yaungoikoaren odola-arren, ire sabelean al lego nire mosua!

FALS.—Yaungoikoari eskarrak, seguru nengo-kek orduan sutan nebala biotza.

Arroztunoa aurrera.

Kaxo, Andera Partlet ollo ori! Itandu ete dozu or nok murratu daustan sakela?

ARROZT.—Ba! Sir Yon, zer uste dozu, Sir Yon? Lapurrak dodazala nik etxean uste dozu, ala? Arakatu dot. itandu dot, bai neuk eta bai nire senarrak, gizonik gizon, mutilik mutil, otseinik otsein: ule baten amarrenik be ezta galdu eguño nire atxean.

FALS.—Guzurra diñozu, arroztuno: bizarra kendu dautsoe Bardolba'ri, eta bizarrrik edo

- ulerik asko galdu dau; eta zin egingo neunke ostu egin dausiela sakelekoa. Zoaz ortik zear, emakume zara-ta.
- ARROZT.—Nor? Ni, ala? Ez; eupada dagitsut: Yaungoikoa-arren! eguño neure etxean iñok enau deitu olango izenez.
- FALS.—Alde egizu, ezagunik asko zaudaz.
- ARROZT.—Ez, Sir Yon; enozu ezagun, Sir Yon; nik bai ba-zaudaz ezagun, Sir Yon; dirua zor daustazu zuk, Sir Yon; eta orain eztabaida-billa zabiltz zu, ni ainbarik izteko: amabi crrkondara, amabi atorra erosi daustudaz zure bizkarrerako,
- FALS.—Liñozkoak, liñorik zakarrenezkoak: okinen emazteai emon izan daustsedaz, eta baeak egin dabez eurekaz.
- ARROZT.—Ara, emakume zindo nazan bestean segum, Nederlanda'ko miesexkoak, kana bakotxa (45 atzondo) zortzi xilin ordninduta. Orrez ganera be ba-do zu emen zorrik, Sir Yon, zure yan-edanakaitik, eta zorrean emon yatzun dirua, ogei ta lau libera.
- FALS.—Bardolba'k be artu dau ortik bere zati-rik; ordaindu dagiala.
- ARROZT.—Orrek? Ai ens, beartsu da orí; deusik be ezíau orrek.
- FALS.—Ostera! beartsu? Begiratu egizu orren mosua; zeri ereisten daustazu aberats? Dirutu dagiela orren surra, dirutu daguezala orren mosuak: nik ezlaustu ordainduko txakurtxikirik be. Ba! Ezer eztakian gaztetu egin gura nozu, ala? Lorik ezin egin izan-ço ete dot nire arroztegian nire sakeletakoa iñok ostu bagarik? Berrogei markoko dan nire aitaitagandilco íkurr-erestuna galdu dot.
- ARROZT.—Yosu! sarritan entzun izan daustat bakalsemeari esaten, eztaikit zenbat bider be, burdinorizko zala erestun ori!
- FALS.—Ostera! Yon Kirten yatsu bakalsemea, itzontzi bat; Yaungoikoaren odola-arren, emen ba'lego a, txakurrari legetxe narrua berotuko neunskio, olangorik esan ba'legi.
- ENDIKA BAKALSEMEA ta POINS aurrera, etorri datoza. Bidera urteten yako FALSTAFF BAKALSEMEARI, bere makileaz zarrabetea yoten dauenarena eginik.
- FALS.—Kaxo, mutil! Alde orretatik ete dator axea, benetan? Guztiok yoan bear ete dogu, ba?
- BARD.—Bai, binaka, Newgate'ko erara.
- ARROZT.—Ene Lord, entzun nagizu, arren.
- BAKALS.—Zer diñozu, Quickly andera? Zelan dago zure senarra? Biotz biotzeko yat; gizon zindoetariko da a.
- ARROZT.—Ene yaun on, entzun nagizu.
- FALS.—Bakean itxizu ori, arren, eta neu entzun nagizu-
- BAKALS.—Zer diñok ik, Yontxo?
- FALS.—Lengo gabaz loak artu nendun emen errezel-osteane, eta ustu, murratu egin eusten nire sakela: emagaletxetu egin da etxe au; ostu egiten dabe einen sakeletakoa.
- BAKALS.—Zer galdu dok.Yontxo?
- FALS.—Sinistuko ete daustak, Hal? Iru-lau ordaindukodot, berrogei liberakoa bakoixa, eta nire aitaitagandiko ikurr-erestun bat.
- BAKALS.—Uskeri utsa, aletza, zortzi bat penigei dan zera.
- ARROZT.—Orixe esan daustat nik, ene yaun; etci orixe esaten zuri entzuna nazala: eta, ene yaun, zakarkiro itz egiten dau orrek zutzaz, berori lango ago-zikinak esan daroenez, eta zuri txibiteagaz narrua berotuko daustula esan dau.
- BAKALS.—Ostera! Ez al dau esan!
- ARROZT.—Ostantxean eztago nigan ez sinisterik, ez egirik, ez emakumetasunik be.
- FALS.—Eztozu zuk okan egosiak baño sinistete geiagorik; ezta bere zulotik atera dan azeriak baño egirik geiago be; eta emakumetasunagazko, Marine neskatoa ezkondu ledike ertzainagaz, zu besteko ba-ledike-ta. Ken zakidaz, zer ori, ken zakidaz.
- ARROZT.—Esaizu, zer nazala? Zer nazala?
- FALS.—Zer zaraan! Ba! Beragaitik Yaungoikoari eskar oneko izatekoa.
- ARROZT.—Enaz ni beragaitik Yaungoikoari eskar oneko izateko zerik. eta yakingo al dozu ori; gizon zindoren emazte nozu ni; eta, zure zalduntzea baztarturik, zital zara zu olan deitu nozulako.
- FALS.—Zure emakumetasunari baztarrera eraginik, abere zara, bestera esan ba'dagizu.
- ARROZT.—Esaizu ze abere nazan, zital orrek, alango orrek.
- FALS.—Ze abere! Ba! Urixakurra, igaberea.
- BAKALS.—Igaberea, Sir Yon! Zegaitik igaberea?
- FALS.—Ba! eztalako ez arrain, ez aragirik; gizonen ezin igarri leio zetariko dan.
- ARROZT.—Zuzentzarik bagako gizon zara zu olangorik esateko: zuk, naiz beste edozein gizonen igarri daíke zetariko nazan ni, zital ori, alango ori?
- BAKALS.—Egia diñozu, arrotzuno; eta zakarkiro be zakarkiro baltzituden dau orrek zure izena.
- ARROZT.—Zu zeu be olantxe baltzituden zauz orrek, ene yaun; eta lengo egunean esan eban orrek zuk milla libera zor zeuntsozala.

BAKALS.—I .txotxo, milla libera Eor dauska. daz, ala?

FALS.—Milla libera, Hal! milloe bat; milloe bat añako dok ire adiskidetasuna; ire maitasuna dok ik zor daustakana.

ARROZT.—Ez, ene yaun, Yon Kirten deitu ziniHizan orrek, eta txibiteagaz narrua berotuko eutsula esan dau orrek.

FALS.—Esan ete yoat olangorik, Bardolba?

BARD.—Bai, Sir Yon, esan dozu.

FALS.—Bai..., orrek esatekotan burdinorizko zala nire erestuna.

BAKALS.—Burdinorizko dala yifioat; ire itza bestean on izan gura ete dok orain?

FALS.—Ba! Hal, gizon baño ez azan aldetik, ba-dakik azarten nazala orretara; baño bakalseme azan aldetik, bildur dauskat, leoi-kumearren orroiari bildur dautsadan bestean.

BAKALS.—Eta zegaitik ez leoiari bestean?

FALS.—Bakaldunari berari izan bear yakok bildur leoiari bestean: ire aitari beste bildur dauscadala uste dok, ala? Ez, okmgorik yazotekotan, iztenak egingo al yozak nire garriari, Yaungoikoa-arren.

BAKALS.—Ui! Olangorik yazotekotan, orduan bai yausiko litzakezak ire esteak ire belau-netaño! Baña, txotxo. ire biotzean etxagok lekurik zintzotasunarentzako, egiarentzako, ezta zindotasunarentzako be..., osoan yagok estez eta basadaz beterik. Emakume zindori ezarri ire sakelekoa ostuaren errua! Ba! emagalkume ori, lotsabako ori, zital baño zitalago ori, ire sakeletan etxegoan besterik arandegiko yan-edanen egiriak, emagaltegi-zuzenbideak eta gozo-zatitxo bat (peni errukarrikca bera), iri arnasea luzatuazotekoaz besterik! ire sakeletan beste ostugarririk aurkitutekotan, zital utsa nok ni; eta orraitño, ekin egingo dautsak ik ireari; eztozak iruntsiko ik ire guzurrak; ez ete ago lotsaturik?

FALS.—Entzuten dok, ola, Hal? Ba-dakik erruge-aldian yausi zala Adan; eta zer egiteko Yontxo Falstaff'ek egun zitalotan? Ba-dakik nik beste edozein gizonek baño aragi geiagi dodala eta, orrexegaitik, yauskorrago nazala. Ba-dautorzu, beraz, zeuk ostu dozula nire sakelekoa, ezta?

BAKALS.—Olan dirudi, or diñoenez.

FALS.—Arroztuno, azkesten zaudaz: zoaz, gertau egizu gosaria; maite egizu zure senarra, begiratu egizuz zure otseinak, txeraisu izan zakioez zure arrotzai; edozein zegaiti sentuntsurako gerturik idoroko nozu; bada-kusazu baketu nazala. Geiagorik ete? Ez, zoaz, arren. (Alde arroztunoak).-Orain, Hal, bakal-yauregitiko barrietara: zetan gelditu dok, mutil, lapurreteagazkoa?

BAKALS.—Ui! ene biotzeko idi ori, ondiño be angeru on izan bear nik itzako: atzera emonik yagok dirua.

FALS.—Ui! etxat bape begiko atzera emote ori; nekea birritan artzea dok ori.

BAKALS.—Adiskide nok nire aitagaz, eta neuk zer gura egiteko nok.

FALS.—Besterik ezer egin baño len nire ondasunak ostu egidazak, eta eskuak ikuzteka egik orrako ori.

BARD.—Egizu, ene Lord.

BAKALS.—Oñezkoen artean idoro yoat itzako ogibidea. Yontxo.

FALS.—Oba litzakean zaldizkoetan izan ba' litz. Non idoroteko nik ostuten ondo dakianik? Ogei ta bi urte inguruko lapur on bat al neu! Itzalez nago aurreztik gertau bagarik. Tira ba, Yaungoikoari eskarrak matxinook agertu diralako..., orreik eztautse erasoten onindartsuai baño: txaloak yoten dautsedaz, goratu dagidaz.

BAKALS.—Bardolba...

BARD.—Ene lord...

BAKALS.—Lancaster'ko nire Lord Yon'eri eroaiok idazki au, nire anai Yon'eri; eta beste au, Westmoreland'eko nire Lordari. (Alde BARDOLBA'k) Zaldiratu adi, Poin, zaldiratu adi; ik eta nik, ba. ogei ta amar millako bideia egin bear yoagu zaldiz bazkal-aurretik. (Alde POINS'ek) I, Yontxo, Temple-Hall' era ator nigana biar, arrastiko ordu bietan; an yakingo dok ire egitekoa, eta an artuko dok dirua, ta ire gudnriak ormiduteko agindua. Sutan yagok lurraldea; goian yagok Percy; eta edo a, edo gu, beragoan gelditubearreko gozak. (Alde dagi).

FALS.—Itzon bakan! mundu onen adoretzu! Arroztuno, betor nire gosaria; tira; Ui! Arandegi au al litz nire danborra! (Alde dagi).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.-Matxinoen Gudaltega Shrewsbury'tik ux.

HOTSPUR, WORCESTER, eta DOUGLAS aurrera.

HOT.—Ondo esana, ene Eskolandar zindo ori; aldi eder onetan zurikeritzat artuko eza-pa'litz egia esatea, beste edozein aldiko gudarirena baño zabalago legoke Douglas' en entzutea. Yaungoikoa-arren, zurikeririk esaten eztakit nik; iguin daulset zurikerizaleen miñai; baño nire biolzean inok be etxok ik baño goragoko lekurik; tiruk, nire itza betetera beartu nagik; zelango nazan, erakutsiazo egidak yaun.

DOUG.—Omenaren bakaldun augu i: altsu izan-arren etxagok munduan nik arpegi emongo eziautsadan gizonik.

HOT.—Orixe egik, eta ondo yagok.

Geznari bat aurrera, idazkigaz.

Ze idazki dakazak? (DOUGLAS'eri) Iri, eskarrak emonaz besterik ezin yoat.

GEZ.—Zure aitagandiko da idazki au...

HOT.—Agandiko idazkia! Zegaitik etxatok be-
ra?

GEZ.—A ezin da etorri, ene yaun; gexo gexorik dago a.

HOT.—Denganíñoen denganiño! Zelan yok ak estualdi onetan gexotuteko astirik? Nor dok indarren buru? Noren agintzapean yotzak?

GEZ.—Idazkiak dakar aren gogoa, ez nik, ene yaun.

WOR.—Esaidak, arren, oean yagok a. ala?

GEZ.—Lau egunez egon da, ene yaun, ni andik urten-aurretik; eta nik andik alde egin dodanean agazko bildur andia izan dabe osagileak.

WOR.—Gure arazoak al legozan osasuntsu a gexotu baño len! Eguño eztogu izan aren osasunaren orain baño bear andiagorik.

HOT.—Gexorik orain! Orain lur yota! Gure egitekoaren bizitza-odola bera kutsatuen dau gaitz onek; onagiño da intsikor, geure gudaltgeriño. Emen idazten daust arako barruko gatxa, eta ezin batu edikezala orren arin bere adiskideak, besteren bitartez; eta eztala azarri olango egikizun galgordetsu ta samurrik bere buruaz besteren arduapean ímínten. Orraitiño be onu azarria damosku, gure indar urriakaz aurrera yo dagigula, zoria gure alde dagonentz dakusagun; be-

rak diñonez, ba, eztago orain atzera egiterik, seguru be seguru bakalduna gure asmo guztien yakitun da-ta. Zer diñozue zuok onako onetzaz?

WOR.—Elbarriturik izten gaiozak ire aitaren gatzak.

HOT.—Benetan elbarriturik; azpegia bera soñetik kenduta... eta orraitíño be, benetan, ezta okmgorik; berez dan baño andiago irudituen yaku aren eza: on eta sentzunezko ete litzake gure índar guztiak batera yotea? Orrenbesterik yokatuteak ze ondoren izango leuke yokaldi seguru-ezean? Elitzake on, elitzake sentsuntsu; olangorik egitekotan, ba, gure itxaroen ondoraño, gure itxaroen aragi biziraño elduko gintzakez; gure itxaroen mugaraño, gure zorien atzenaizeneraño elduko gintzakez.

DOUG.—Bai orixe, orragiñoxe elduko gintzakezak; orain, ostera, arazoak bide obarik artzeko itxarorik geldituten dok: adoretzu eralgi daikegu orain ptorkizunaren itxarotan; onan yokatutekotan, atzera egitean dagon nasaitasuna geldituten yakuk.

HOT.—Nora alde eginik, non baturik izango yoagu, txerrenak eta alanbearrak begi txarrez ikusi ba'dagie gure egiteko gurena.

WOR.—Baño orraitíño be, emen izan al litzok ire aita. Banakuntzarik eztatorko ondo gure asmoaren mamiari ta azalari: a emen zegaitik eztan eztakiene batzuk zurtasunak, zintzotasunak, eta gure yokabideai dautsen iguinak daukiela a emen bagarik beste lekutan uste izango dabe; eta gogoratu baño eztozue zelango beste alderako eragina ekarri leion asaldatzerako bildurti danari olango usteak, eta galgordean imini leikela gure arazoa; ondo dakizue, ba, zuok, zemaituten dauen aldean gagozanok eztogula itxi bear gu zeatzegi ikusi gagezanik, itxi egin bear dogu andil: zear argibidearen begia guri kuika egon lediken zulo oro: errezel dalakoa iminten yok ire aita emen ez egoteak, eta orrako orren zegaitia eztakianari len olangoren amesik be ez ebanari bildurra dalakoa erakusten yautsalak.

HOT.—Urrinegi daroazu zer ori. Nik, ostera, onetara darabilt a emen ez egotea: kondea emen ez egoteak a emen egoteak baño diz'diz eta entzute andiagoa, ta adore geiago

ezarriko dautso gure egikizunari: uste izan bear dabe, ba, gizonak, aren laguntzarik бага bakalderriari bultzada onik emoteko lain gudari batzeko gauz izan ba'gara, aren laguntzeagaz lurrera itzuliko dogula. Dana doa ondo bein-beinean, alkarri deutsela ta onik dagoz bein-beinean gure azur-giltzak.

DOUG.—Biotzak nai aña esan dek: bildurrik etxok aitatuten iñok Eskolanda'n.

Sir ERRIKARTA VERNON aurrera.

HOT.—Ene lengusu Vernon! Ondo etorria augu, nire gogoaren,

VER.—Arren egin Yaungoikoari, ondo-etogarriz izan dadizan nire barriak, yaun. Onako bidean da Westmoreland'eko kondea, zazpi milla gizonegaz; beragaz dator Yon Bakalsemea.

HOT.—Eztator okerrik ortik: zer geiagaz?

VER.—Orreza ganera, entzun dodanez, bakalduna bera be onako urtenik da, edo arin urteteko da, gertakuntza sendo ta altsugaz.

HOT.—Ondo-etorria emongo yako ari be. Nondik da aren semea, Kimuruerriko Bakalseme zoro oin-arina, ta aren lagunak, inundiari yaramonik egin ez eta aurrera egiten ebena?

VER.—Guztiak ornidurik, guztiak iskilluok aldean dabezala; guztiak lurr-egaztitzarra (strouthos) legetxe euren lumakaz, axeak putz egin eta bultz eragiten dautsela; ikuzbarri diran arranoenak legetxe beraturik dagozan lumakaz; urrezko soñekoetan, irudien antzera didizetan; orriko ile lez kemen eta mardultasunez beterik, eta uda-erdiko eguzkia bestean argitsu; ikutikari, yauzkari, aumeak legetxe; basati, zezen gazteak langotsu, ikusi dot Endika gaztea..., bere mosu-koskola aldean dauela, iztar-koskolak bere iztarretan dauzala, guda-koskol txairoagaz..., lumadun Merkuu langotsu lurretik yagiten, eta ainbesteko erreztasunez zaldi-yarlekuraturik-eta, odeietatik yatsitako ange-

ruen bat dala esango zeunke, suzko Pegas' en bat erabili ta zuzenduteko, eta zalduntza yatorrez sorgindurik izteko mundua.

HOT.—Bego, bego; epaileko eguzkiak baño sukaz geiagaz dakast gorapen orrek. Datozala. Apaindurik dotoz, opakizun diran umerrri-abelgorriak legetxe dotoz aik, eta opakizunok ondo bero ta odol-darioka opatuko dautsuguz guk gudu ketsuaren yainkono subegidunari; Marte, sareko bere guda-koskola aldean dauela ta bere opamaian yezarrita dagola, bere belarrietaraño odoletan murgilduta geldituko da. Poz-eztitan nago goaki yori eder au ur dala yakiteagaz, eta orraitioño be ondiño eztago gure bendean. Tira, txastatu dagidan, ikusi dagidan zelan dagon nire zaldia; tximisteak legetxe eroan bear nau, ba, Kimuruerriko Bakalsemearen bularrari nireak deutsala ni imini arte: Endika'k egingo dau Endika'gaz bat; zaldi berok zaldi beroagaz, eta ez banandu alkarregandik, bata edo bestea, ilik, lurreratu arte. Ui! etorririk al lego Glendower!

VER.—Ba-da barririk geiagaz be: andik zear zaldi-ganean nentorrela, Worcester'en yakin doí, Glendower'ek ezin batu al izango dauzala bere indarrak amabost egunotan.

DOUG.—Ori da orain arte entzun dodan barririk txarrena.

WOR.—Bai, nire sinistea-arren, otza dakarren otsa da ori.

HOT.—Zenbateraño eke ta guztiz bakaldunaren indarra?

VER.—Ogei ta amar milla gizonerañokoa.

HOT.—Berrogei izan baño eztauko; nire aita ta Glendower emen ez tiranazkero, geure indarrak egin bearko dabe egun andi onetakoa. Tira, arin ikustau dagiguzan gure indarrak: ur da Azkenepai-eguna; il gadizan guztiok, pozik il gadizan.

DOUG.—Itezik ez egik aiatu be egin; etxoatnik eriotzearen bildurrik, eta aren eskuak etxastak elduko urte onen erdikin bietatik lenengoan. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Coventi 'tik urreko Bide zabala.

FALSTAFF eta BARDOLBA aurrera.

FALS.—I, Bardolba, oa Coventry'ra gure aurretik; eta ardaoz bete egidak bonbil bat: andik zear yoango dozak gure gudariak; Sutton-Cop-Hill'en gau egiteko gozak arratseon.

BARD.—Eta dirua, gudaiburu?

FALS.—Aurreratu egidak, aurreratu egidak.

BARD.—"Angeru" bat (11) bearko dot bonbil au bete ordainduteko.

(11) Txanpona da emen "angeru", Inge-landa'ko txanpona. Txanpon onek alderdi batean Mikel Gotzonburu edo Angerubaren irudia ekarren, eta orrexegoutik ereisten yakon 'ongeru".

FALS.—Oirenbesteiaño eldu ba'dadi, eure nekeen alderako artu egik; eta ogei bear iza-tekotan, guztiak artu eutzako; nire lepora diruarena. Uriaren atzenean etxon dagista-la esaiok nire ordezko Peto'ri.

BARD.—Ori ondo, gudalburu: agur. (Alde dagi).

FALS.—Lotsatu ezpa'nagie nire gudariak, izokinkume gazitu naz. Askarriro erabili izan dot bakaldunaren agindua. Irureun liberatik gora sakeleratu dodaz eun eta berrogei ta amar gudari ezte-arren. Etzagun onak baño besterik eztoz batu, etzagunen semeak; itandu dot nortzuk diran ezkonduteko dagozan mutilzarrak, eleiz-deiak bigarren aldiz eginda dagozanak, danborra entzun bestean txerrena entzutea gurako leukio yopu epe-lon aitean; tiroa arturik dagon egaztiak, naiz basa-aateak bestean su-odiaren otsari bildur dautesenen artean. Ogi zipildu (sutan kiskurtr) ta gurinzale diranez besterik eztoz billatu, euren erraietan orratzaren burua baño biotz andiagorik eztabenak, eta, ordain-bidez, yarei gelditu dira eurak gudari-zatik; eta orain nire bendeko guztiak ikurrindun, bosteko-buru, amarreko-buru eta olango agintari dira, arako oialetako Elazar lez, sorkiz yantziriko kirtenak; arako yatunaren txakurrak zauriak miatzkatunen eutsoezan Elazar lez yantziak. Eztoz izan zalan-tzarik, ez kezkarik, eurrez artu dodaz eguño gudari izan ezti-ranak, esaterako, zintzo ez izanagaitik etxetik egotzi izan dabezan otseinak, zarren ezti-ran anaien semeak, sale-txeetako erakus-maiaren arduradun izan eta andik igesi dabenak, porrot egin daben arroztegidunak; bakean dagon munduari ta bake luzeari sortu yakozan bizienak; ikurrin zarra baño sorkitsuago ta zorritsuago diranak; orren zakar eta sorkitsu dira euren yareikuntzea díruz erosi dabenen lekua beteteko nik batu dodazanak-eta, txarri-ana-baka ta azalak yatetik eta txarri-yagolatza-tik etorbarri diran eun eta berrogei ta amar ondasun-ondatzalle arlote, zapaitsu, sorkitsu dodazala uste izango zeunke. Gizon txi-txari, gogaldi argiko bat idoro dot bidean, eta ak esan daust eskegitegi guztiak arakatu ta ango gorpu guztiak batu dodazala. Begik eztau ikusi onango txuxorik, onango txorimalorik. Oneikaz enaz yoango Coventry uribarrua zear, argi dago au: ez, eta iztar-zabal doaz zitalok, aldean zango-Iokarriak (konpaideak) ba'leeroez lez; izan be, ba, baitegietatik atera dodaz eurotatik geienak. Atorrarik bat eta erdi baño eztago nire talde oso onetan; eta atorra-erdikin ori

ezta besterik alkarri erantsi ta sorbalda-ga-nera egotzitako mosu-zapi bi baño, aldarri-karriaren besorik bagako ganeko yantzia langoxea; eta atorrea, egia esateko, nire arroztunari Saint Alban'eko etxarte-bidean ostua, edo Daventry'ko arroztun surgorriari ostua. Baña eztau ardura leku batean, naiz bestean ostua izanak; azpi-soñekorik asko idoroko dabe, yoan-ala, bideko sasi-ganetan.

ENDIKA BAKALSEMEA ta WESTMORELAND aurrera.

BAKALS.—Kaxo, Yontxo puztu ori! Kaxo, lastamairaga!

FALS.—Ostera! Hal! Kaxo, gazte txitxari zoro ori! Ze denganiño dagik ik Warickshire'n? Westmoreland'eko ene Lord on, erruki-eske nagotsu; zu omengarri ori onazksro Shrewsbury'n zintzazalakotan nengon ni.

WEST.—Níre sinistea-arren, Sir Yon, tertzioa baño geiago dok ni ta eu be an egon bear geunkela; baña an dozak dagoneko nire indarrak. Gu guztion begira yagok bakalduna, ori esateko beste ba-nok: gau osoan ibili bear yoagu.

FALS.—Ut, ut! ez izan nire bil'durrik; katua gurina ostuteko bestean zur eta atzarrik nago ni.

BAKALS.—Bai izan be, gurina ostuteko, ori uste yoat nik; onazkero ire lapurreteak gurináurik ago i-ta. Baña, esaidak, Yontxo, noren lagunak dozak or atzetik dato-zanak?

FALS.—Neureak, Hal, neureak.

BAKALS.—Eguño etxoat ikusi olango zital zirtzil errukarriak.

FALS.—Ut, ut! onik csko yatsuz orreik narrua beroturik geldituteko; ke-auntsarentzako yanari izateko; eurak haño adoretsuagoak bestean beteko dabe luncan zuloa: ixilik ago, gizon, gizon ilkoirak dozak, gizon ilkorrak.

WEST.—Bai, baña. Sir Yon, beartsu ta billus baño bearsuago ta billusago dirala uste yoat nik..., eskekoegi.

FALS.—Nire sinistea-arren, orrein txirotasunagazko, ezta-ki non goatu daben gatx ori; efa euren billustasunagazko, seguru nago nigandik eztabela ekasi eguño olangorik.

BAKALS.—Ez, zin egingo neunke ezetz; saiets ganeko iru atzondoko gizontasunari billustasun ez ereistekotan. Baña, txotxo, bizkor abíl; gudategian dok onazkero Percy.

FALS.—Ba! eztago bakalduna gudategian, ala?

WEST.—Bai, on yagok a, Sir Yon: bildur nok beluegi elduko aareala.
 FALS.—Tira ba, burrukearen atzenerako ta

oturuntzearen asierarako oba da barrukari motela ta bazkaldar yatuna. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-Matxinoen Gudaltea Shrewsbury tik ur.

HOTSPUR, WORCESTER, DOUGLAS eta VERNON aurrera.

HOT.—Arratseon erasoko dautsagu.

WOR.—Ba-ledike ezetz.

DOUG.—Olan izatekotan, aldea emoten dautsazu.

VER.—Ezta aldearen tutik be.

HOT.—Zegaitik diñok ori? Eztago indar barien begira, ala?

VER.—Geu be orrexen begira gagozak.

HOT.—Seguruak dozak aren indarrak, gureak ez.

WOR.—Ene illoba on, onurik entzun egik; ez egik zirkinik arratseon.

VER.—Ez egik, ene yaun.

DOUG.—Ezta on zure onua; bildurrak eta biotz otzak itz eragiten dautsu zuri.

VER.—Enagik baltzitu, Douglas: nire bizia-arren..., eta azarri egiten nok neure bizia-gaz eusten nik diñodanari..., omen begiragarriak agindu ba'dagist, ik bestean zer ikusi gitxi yoat nik bildur mengelagaz, naiz bizi dan beste edozein Eskolandarrek bestean: biar gudaketan ikusi daitela gu biotatik zein dan bildur.

DOUG.—Bai, naiz arratseon.

VER.—Ori oniib.

HOT.—Arratseon, diñot nik.

VER.—Tira, tira, ezin izan ledike ori. Andi eretxita nago, zarienak lango agintari izanik, zelan ikusten eztozuezan erasoteko guk doguzan eragozpenak: elduteko dok oraindik Vernon'en zaldizko-aldte bat; gaur eldu dozak ire osaba Worcester'en zaldizkoak; eta lotan yagok oraindik euren kemen eta adorea; otzandurik eta moteldurik euren adorea bideko nekeagaitik, zaldizkorik bat be beretik erdiaren erdirik be ezta.

HOT.—Olantxe yagozak arerioaren zaldizkorik geienak be, bidean nekaturik eta unaturik; gurerik geienak, ostera, atsedena arturik yagozak.

WOR.—Gureak baño geiago dira bakaldunarenak zenbakiz; Yaungoikoa-arren, illoba, geldi ago guztiak eldu arte. (Alkarregrtz itz egiteko otsa yoten dau tuuiak).

Sir VVALTER BLUNT aurrera.

BLUNT.—Agindu txerakor eta eskuzabalakaz

nator ni bakaldunaren aldetik, eder ba'dakitsue lotsaz entzutea.

HOT.—Ondo etorria augu, Sir Walter Blunt; eta Yaungoikoak gurako al leu i eu be gure egikizunaren aldeko izatea! Maite be maite aue guretatico batzuk; eta orrako batzu orrefexek be begi ixarrez ikusten yoezak ire irabaziak eta ire izen ona, i gutariko ez azalako, gutariko barik gure arerio azalako.

BLUNT.—Eta Yaungoikoak ez al dau gurako ni bestelangorik izaterik, zuok nagusiagotza gantzutuaren aurka zagozen bitartean! Baña, or doatsue dakaduan agindua. Bakaldunak fcidali nau yakitera zetariko diran zuon naibageak; eta zegaitik erakusten dautsazun olango gordinkeririk aren benedeko lurrari, erri-barruko bakeari olango arieriokeri gorrikerik sortuazorik. Bakaldunari etxakoz aztu ezetara be zure irabazi onak, eta autortu dator alc asko ta askotariko dirala irabaziok. Zure irainak aiatu dagiozuzala eskatuten dautsu ak, eta irabazi ta guzti izango dozula zuk gura dozuna, eta arin izan be, sta parkamen osoa bai zeutzako. bai zuk zirrikaturik okerreko bidea artu daben guztientzako.

HOT.—Txerakor agiri da bakalduna; eta ondo dakigu ba-dakiala bakaldunak noz agindu ta noz ordaindu. Nire aitak, eta nire osabeal: eta neuk emon geuntsan ak darabilen bakalduntzea bera; eta oraindik ogei ta sei urteko etzanean, munduaren begietan gexorik, zori txarreko ta zirtzil, erbesteratu errikarri guztiak aztua, aberrira ixilean etorria baño etzanean, nire aitak emon eutsan ondo-etorria itsasertzean; eta Lancaster'ko Duke izateko baño ez etorrela ari zin eta min egiten entzun eutsanean, bere izengoitiaren eta feakearen eske baño ez etorrela, errigeren negarrez eta benedekotasun-leieagaz; nire aitak, biotz onez eta errikiak eraginda, zin-bidez agindu eutsan bere laguntzea, eta bai agindua bete be. Bein orra elduta-koan, bakalderriko lord eta baronak oartu ziranean Northumberland aganantza itzulten zala, andi ta txiki, yarri ziran atara, euren txapelak erantzirik eta belaunak makurturik; agana elduten ziran auzoetakoak auzoetan, uritarrak urietan, baserritarrak baserrie-

tan; aren begira egozan zubietan. bideeta-
ra urtetan ziran, esku-agiriak eskeintzen
eutsೋezan, euren zinak opatuten eutsೋezan,
esku-mutiltatz emoten eutsೋezan euren oñor-
dekoak, aren atzetik-ara yoiazan yentetza
argiak eginik. Ak, bertatik (andi zala igarri-
rik), oraindik bere odola beartsu zanean,
nire aitari Ravenspurg'eko itsas-baztar go-
rrian zin egindakoaz baño goratxoago igon
eban; eta orduan, bai orixe! aldatu egin
gura ebazan bakalderriari gogorregi yako-
zan agindu ta lege batzuk; gedar dagi oke-
rren aurka, aberriko oker batzuk negar era-
giten dautsoela dirudi; eta irudi onen bidez,
zuzentza-zaletasun dalakoaren irudi onegaz
irabazi eban billa ebilen guztia: aurrerago
yo eban oraindik; buruak moztu eutsೋezan
alde egindako bakaldunak bere atzean
emen itxiriko kutunai, bakalduna bera Eire'
ko guduetan ebilenean.

BLUNT.—Ken, ken! Ori entzuten enok etorri ni.

HOT.—Goazen, ba, arira. Andik laster be laster, bakalduntzatik eratsi egin eban bakalduna; andik laster, bizia be kendu egin eutsan; eta, bein bakalduntzara eldu zanean, zergaz zamaperatu eban bakalderri osoa; eta orrako ori okerragotuteko, bere senide March (bokotxa bere lekuan egotekotenn bere bakaldun litzokena), Kimuruerriko baitegira-

tu egin dau, erosteren itxaro bagarik an egon eta usteldu dadin; baltzitu egin gura izan dauz nire garaite ta goratzarre zori ontsuak; ixilean berak bidalien eskuetaratu gura izan nau; atera egin dau nire osabea Onularien artetik; asarrez bidali dau nire aita bakaldun-uritik; zinak zinen ganera ausi dauz; okerrak okerren ganera egin dauz; eta, amaituteko, gure segurantzarako gudaroste au batutera bultzau ta beartu gauz; eta bakalduntzarako aren eskubideak ondo aztertu ta arakatutera. eta guk legez besterakoegi idoroten dogu eskubide ori, ak luzaro erabili al izateko.

BLUNT.—Erantzun ori eroango ete yautsat bakaldunari?

HOT.—Ori ez, Sir Walter: gure artean itz egin bear dogu apur baten. Zoaz bakaldunagana; eta atzera seguru etorteko bairik emon ba'dagisku, biar goxean gure osabeak erango dautso gure asmoen barri: agur, ba, onenbestegaz.

BLUNT.—Gurago neunke nik ekarri dodazan agindu andi txerakorrok ontzat artuko ba' zenduez.

HOT.—Ba-ledike olan izatea.

BLUNT.—Olan izatea gurako ol dau Yaungoi-koak! (Alde dagie).

IV AGERLEKU.-YORK. Gotzaiburureneko leku.

YORK'EKO GOTZAIBURUA, ta SIR MIKEL aurrera.

GOTZ.—Bizkor oa, Sir Mikel on ori; Lord Marxal'eri eroan egiok al danik eta arinen agindu ikurraztu au; nire lengusu Scroop'eri beste au; eta ganetiko guztiak euren zuzenbideak diñoenai. Euren gorea, euren garrantzia noragiñoko dan ba'enki. arin egin-
go eunke ire egikizuna.

SIR M.—Ene Lord on, ba-dot susmorik zer daben.

GOTZ.—Ba-dok, bai, urrean baño urreanago. Biar ikusiko dak zein dan amar milla gizonen zoria; *ba*, yaun, egiz iragarri daustenez, Shrewsbury'n alkarren aurrez aurre aurkituko dozak. alkar yoteko, bakaldunak arin baturiko gudaroste altsua, ta Lord Endika'rena; eta bildur nok, Sir Mikel, batetik Northumberland gexorik dagola-ta (aren indarrak zoazan andienak), eta bestetik, Owen Glandower an eztala-ta (eta a be Northumberland'oen indarrakaz batera euren kirio ta zamiltzat etsita yegoan, eta eztok sartzen

ekineon bere igarpenak atzera eraginda), bildur nok makalegi, mengelegi dala Percy'ren indarra bein beinean bakaldunagaz norgeiagoka yokatuteko.

SIR M.—Ba! ene lord on, eztozu zetan izan bildurrik; an dago Douglas, eta bai Lord Mortimer be.

GOTZ.—Ez, Mortimer etxagok an.

SIR M.—Baña an dagoz Mordake, Vernon, Lord Endika Percy, eta an dago Worcester'ko nire Lorda be; eta bai gudari adoretu taldea be, aitonseme zindoak.

GOTZ.—Bai, olantxe dok; baño, orraitioño be, bakaldunak lurralde guztiko bururik onenak batu yozak: Kimuruerriko Bakalsemea. Lancaster'ko Lord Yon, Westmoreland zindoa, eta Blunt gudaberea; eta beste gizon asko, gudariai aginduteko ontzat dagozanak eta ik aitatuturikoen leiakideak.

SIR M.—Ez izan zalantzarik, ene yaun; ondo erantzungo dautse aik bakaldunaren indarra.

GOTZ.—Neuk be etxoat gitxiagoren itxarorik, orraiiño be biidur izateko dok; eta txarrenari aurreak artzeco, Sir Mikel, arin eta zoli abil: Lord Percy'k ez irabaztekotan, ba, gu ikusten etorteko dok bakalduna, bere indarrak sakabanatu-aurretik: ba-yakik, ba,

gu alkarregaz itundurik gagozala, eta zurtasunak aginduten dauena dok arí erantzuteko gogor eta sendo egotea: au dala-ta, bizkor eta arin abil. Barriro yoan bear yoat, ba, beste adiskideai be idazten; olan, ba, agur, Sir Mikel. (Alde dagie bcnan banan).

V E KIITAILDI

I AGERLEKU.-BAKALDUNA'ren Gudaletgia Shrewsbury'tik ur.

ENDIKA BAKALDUNA, ENDIKA BAKALSEMIA, LANCASTER'ko YON BAKALSEMIA, SIR WALTER BLUNT, eta SIR YON FALSTAFF aurrera.

END. B.—Eguzkia bai odoltsu asten d'ala kiorika egiten an aragoko mendi basotsuaren ganetik! Zurbil agiri da eguna eguzkiaren ondo-*ez* cu dala-ta.

BAKALS.—Tutua yoten daragoio egoe-axeak bere asmoetarako; eta orrietan egiten dauen txistu-ots sakonak ekatxa ta egun ekaiztusa diragarz.

END. B.—Olan ba'dok, galduko dabenen galdiko izan dadila, irabazi bear dabenez-tzako etxagok zer txarrik-eta. (Tutu-ots).

WORCESTER eta VERNON aurrera.

Kaxo, Worcester'ko ene Lord! Ezta egoki zu ta ni orain alkarganatuten gareanez alkarganatuterik. Iruzur egin dautsazu zuk guk .dautsugun uste onari; eta erantziago egin dautsuz bakealdiko gure soñeko nasaiak, gure soin-atal zarrak galtzaidu gordinpean ler eragiteko; eztago or.do onako au, ene yaun, eztago ondo au. Zer diñozu zuk onako onetzaz? Barriro egin gura dozu guztiak gorroto dautsoen gudua lotuten dauen poronpil zakar au, ala? Ez ete dozu barriro ibili gura berezko argi ederra egiten zendun esanekotasun-bide biribilean, eta ez izan beingo baten bakarrik argi egiten dauen izarki bildurra sartzekorik, eta oinganik agiri diran etorkizuneko ezbearren iragarpenik?

WOR.—Entzun nagizu, ene ugazaba orrek; ni neugazko, ni naikotu neindeke nire bizitzako atzen geldoa aldi baketsuz igaroz, autor dautort, ba, enazala ibili ni gogoko etxakun egun onen billa.

END. B.—Etzareala ibili billa? Zelan etorri da, ba?

FALS.—Bidean egon da matxinadea-ta, olan idoro dau.

BAKALS.—Ixilik ago, bela garrankari ori, ixilik ago.

WOR.—Gogoko izan yako zure nagusiagotzea. ri zure begirakune txerakorrak nigandik eta nireakandik baztarreratutea; eta orraitiño, gomutazo bear dautsut, ene yaun, gu izan gareala zure adiskiderik lenen eta mamiak. Zugaitik eta zure alde ausi neban nik nire ogibideko makilea Errikarta'ren al-dian; eta gau ta egun ibili nintzan zaldiz zuri bidera urteteko, eta zuri eskuan mun egiteko, zu oin'dbkoarren ez lekuz, ez ondanez niri urrik emoteko be indartsurik eta zori ontsurik etziñanean. Neuk, nire anaieak, eta aren semeak ekarri zinduguzan etxera, eta bildurra alde batera itxita, azarkiro arpegi emon geuntsen aldi atako galgordeai; zin egin zeuskun, eta Lancaster'en egin be, zin ogin zeuskun etzendula bakalduntzearen aurkako asmorik; eta etzendula zure ganera etorbarri ziran eskubideez beste eskakizunik, Gaunt'en etzaguntza ta Lancaster'ko Dukegoaz besterik. Orretarako agindu geuntsun guk gure laguntzea zin-bidez. Baña, aldi gitxi-barru, zure buru-ganera zori onezko euriteak eta euriteak yalgi ziran; eta anditasunezko ainbesteko uriola yausi yatsun ganera-ta, batetik gure laguntzea zala-ta, bestetik bakalderria txarto erabilirik egoala-ta, irudienez zuk yasandako elorrioak ziralata, eta besterako axeak bakalduna Eire'ko zori txarreko guduekan ain luzaro eukirik, Ingelanda osoak a iltzat ebalata, zure aldeko ziran zer guztion mordotik abagunea zeure alde artu zendun zuk agintza esoa arin be arin zure eskuetaratuteko; aztu egin yatsun zuri guri Doncaster'en egindako zina; eta, zu geuk azita, esker txarreko kukuak artatxoria darabilenez garabiltzuz zuk..., zapaldu egin dozu gure abia,

eta guk yaten emonda ain andi egin zara-ta, guk zu maite izan-arren be, eztozu adorerik zure begien aurrera agertuteko, iruntsiko gozuzanaren bildurrez; eta gure segurantzarako, egoai egin-alean eraginaz, zure begien aurretik egaz egin eta indarrok batzera bearturik aurkitu gara; zeuk zeure buruaren aurka gertauriko bidez gogor egiten dautsugu, ba; zuk gu zakar erabiliaz, zure begirakune bildurgarriz, eta beñolako zure arazoan guri egindako zina ta zintzotasuna austeaz zeuk erakutsi dauskuzu guk artu dogun bid'e au,

END. B.—Izan be, zuk esan dozuzan zerok zeirako bide-kurutzetan aldarrikatu dozuez zuok, yauretxeetan irakurri dozuez, aldakorrai ela muker errukarriai alsegin yaken kolorerik emetoko matxinadearen yantziari, olangoak, ba, agoa zabalik eta alkar ukondoaz yota entzun daroetz barrikeriekazko barriak. Eguño eztau izan matxinadeak bere burua edertuteko olango apaingarriren ezik, ezta ondamendi ta nastearen begira dagozan eskeko goseak ilen ezik be.

BAKALS.—Amaren semerik asko dagoz gure gudaroste bietan alkar-yote onetan ondo karu ordainduko dabenak, bein zeingeiagoketara yoazkero. Esaiozu zure lobeari mundu guztiagaz bat egiten dala Kimuruerriko Bakalsema, Endika Percy txalotu ta goratuteko: ditzarodanez, ak bere burua egikizun onetatik bazartu ba'dagi, eztoz uste bizi diranen artean a baño aitonseme adoretasuagorik dagonik, adoretu eraginagorik naiz adoretuago dan gazterik, azarriagorik, naiz ozarriagorik, bere egite aniiz gure aldi au apaindu ta edertuteko. Nigazko, (lotsr be ba-naz onongorik esateko) zaldunzatic zirrist eginik, alde eginik bizi izan naz ni; eta entzun dodanez, ak berak be olangatat nau; eta orraitio be, nire aitarren nagusiagotzearen aurrean diñot, badauela ak nire ederretsia bere entzutea ta bere izen andia nire aurka erabilteko, ta gerturik nagola ni, alde bietako odola aurreratuteko, ak eta nik, guk biok biotara burruka eginda nire zoria zelango dan ikusteko.

END. B.—Eta, Kimuruerriko Bakalseme ori, ainbeste zerek besterantzta eragin-arren, gu geu be azarten gozak i galgorde orretan imintsn. Ez, Worcester on, ez, maite be maite dogu guk gure erria; okerreko bidea arturik zure lobearen alde dagozanak eurak be maite doguz; eta opatu ezeze artu be egingo dabez nire biotz ona ta parkamena

bitsuek, ak eta aren aldekoak eta zeuk be, bai, guztiak izango dira barriro nire adiskide, eta ni euren: au esaiozu zure lobeari, eta iragarri egidazu a zetara geldituten dan: baño men egin gura ezpa'dagi, asarrea ta zigorra dagoz guk noz erabiliko begira-ta, euren egikizuna beteko dabe aik. Onenbestegaz, zoaz; bein bein eztozu kezkatu gura gure bururik erantzunagaz; zuzen eta txerakor da gure eskeintzea; zur artu egizue. (Alde WORCESTER eta VER-NON'ek).

BAKALS.—Nire bizia yokatuko neunke, ezetz arfu aik ontzct: mundu osoa iskillotan egonarren be, usteisu legokez Douglas eta Hots-pur.

END. B.—Olan izatekotan, alde dagigun emendik, bere egitekora agintari bakotxa, eurak erantzunagaz batera ganera yausiko gaxakez-eta; eta Yaungoikoa lagun eta adiskide izango al yaku, gure zegaitia zuzen danazkero! (Alde BAKALDUNAK, BLUNT'ek etc YON BAKALSEMSAK).

FALS.—Hal, gudaketan lurrean ikusi ba'nagik, zaldi-ganean iztartolaka onan imini nagik; ire adiskidetasuna erakutsiko daustak crretan.

BAKALS.—Koloso Iango gizatarrez bestek ezin imini izango au olan. Egizak ire arrenak, eta agur.

FALS.—Oerako aldia al litzok, Hal, eta dana onik eta ondo.

BAKALS.—Ba! Zor dautsak eriotza bat Yaungoikoari. (Alde dagi).

FALS.—Ondio ezta eldu orretarako aldia; eta elitxakit bape gogoko epea bete baño len ordainduterik. Zegaitik aurreratu bear natxako, ondio Berak ni deitu ez-eta? Tira ba, eztau ardura; omena, entzutea dagozik ziri-zirika. Bai, baño zer izango da, ni yoan beragana, ta omenak ortik zear bidali ba'nagi? Orduan zer? Zimitzez lotu ta osatu ete lei omenak zango ausirik? Ez: naiz, besorik? Ez; naiz, zauriaren minik eta elorriorik kendu? Ez. Zer <aa omena? Itz bat. Zer dago omen itzean? Zer da omen dalako ori? Putza. Ondoren argia!... Nok dau? Eguaztanean il zanak. Sorik egiten ete dautso, ukututen ete dau? Ez. Ete dantzu? Ez. Olan izatekotan, so-ezina, ukutu-ezina da, ala? Bai, ilentzako. Baña ez ete da bizi bizi diranakaz? Ez. Zegaitik ez? Baltzitu-bearrak eztau yasan gura olangorik: olan, ba, omenik eztoz gura nik: bertan izena iminteko zera da omena: eta onetan amaitu da nire kistar-ikasbidea (Alde dagi).

II AGEELEKU.-Matxinoen Gudoltegia.

WORCESTER eta VERNON aurrera.

WOR.—Ui! ez. nire lobeak eztau yakin bear bakaldunaren opa txerakor eskuzabala, Sir Errikarta.

VER.—Yakitea oba litxakio.

WOR.—Olan izatekotan ondaturik gagoz guztiok. Ezin tífateke, ezina da bakaldunak betetea biotz ona izango dauskula aginduriko itza; oraindik be izango dau gugazko susmorik, eta idoroko dau aldi egokirik gure irain au beste utsakaz batera zigortuteko: gure bizi osoan susmoak gugan izango dauz bere begi guztiak, azpikeriari etxako, ba, azeriari bcsño uste onik geiago, azeria iñoz be ezta, ba, orren ezirik, orren kutundurik, eta giitzapean itxirik, bere aurrekoen marroen bat ez erakusteraño. Dogun mosua izan guk, pozarena, naiz goibelarena, txarto aituko dau ak gure mosua; eta itoian, kortan yaten emoten yaken idiak legetxe biziko gara gu, mizkego. kutunduago, ta eriotzatic urrago. Ba-ledike nire lobearen okerra aztutea, gazietaunak eta odol be-roak zurituten dabe, ba, a, aren okerra; berak arturiko bere izengoitiaren berarizko legea dau ak..., erbi-garaunak, gogaldiak darabiltzanak; gure bizkarrean dagoz aren okerreri guztiak, nirean eta aren aitarenean: gu izan garn aren irakasla; eta a gugaitik usteldu, gugaitik okerreko bideratu dalako, orrako zer guztiaren erutuñ eta iturburu garealcko, guk ordainduko dogu dana. Olan ba, ene lengusu on, ezetara be eztagiala yakin Endika'k fcakaldunaren eskeintzarik..

VhiR.—Zuk ser gura esan, bera esango dauztat nik be. Or dator zure lobeaa.

HOTSPUR eta DOUGLAS aurrera; Agintzagudariak eta Gudariak atzeragotik.

HOT.—Etorri da atzera nire osabea: yarei egizue, azkatu egizue V'estmoreland'eko ene Lorda.-Ze barri dogu, osaba.

WOR.—Beriatik burrukara urten aitela aginduñ dauk bakaldunak.

DOUG.—Eupadea bidali egiok Westmoreland'eko Lordagaz.

HOT.—Lord Douglas, oa eu eta orixe esaiok.

DOUG.—KontxoS esan egingo dautsat, gero!

eta pozik esan be. (Alde dctgi).

WOR.—Dirudinez, eziau errukirik bakaldunak.

HOT.—Eskatu dautsazu ezetarikorik, ala? Ez aldonbaist, Yaungoikoa-arren!

WOR.—Txerakor azaldu dautsada arturik doguzan irainak. eta aren zin-austeak; eta okerrok onan arteztu dauz ak..., eguño zinik eztauela ausi zín eginaz: matxino-izena ezarten dauku, azpiyaleena; eta iskillorroz zigortuko ei da gugan dogun izen gorrotagarri au.

Barrero aurrera DOUGLAS

DOUG.—Iskillorok artu, aitonsemeok; iskillorok artu! Eupada lango eupada adoretdua egotzi dautsat, ba, arpegira Endika Bakaldunari. Baiturik egon dan Westmoreland'ek daroatso eupadea; eta eupada onek burrukea len baño len ekarteaz besterik ezin yazo ledike.

WOR.—Kimuruerriko Bakalsemea bakaldunaren aurreratu, ta biok biotarako burrukarako eupada egin dauk, loba.

HOT.—Ui! gu biokazko al litz eztabaidea; eta ni ta Endika Monmouth'ez bestek ez al leu gaur arnasea estu! Esaidazu, esaidazu, zelan egin dau bere eupadea? Ni zapuztuten nauenik iragarri ete dau?

VER.—Ez, nire gogoa-arren! Eguño nire bizian eztoz antzun erazago ta apalago egin dako eupadarik, iskillorok erabilten adiskidero irakasteko anaien batek bere anaieari egin ez izatekotan. Gizoni zor yakon guztia emon dautsu ak; bakalsemeren miñez ondu ta apaindu dauz zutzako gorapenak; egunkarik legetxe iragarri dauz zure geitasun eta irabaziak, zu bere gorapenak baño ederrago eginik, zure aldean bere gorapenai gitxi eretxirik; eta bakalsemeri benetan eder yakona eginik, arpegia gorritu dautsoen zer batzuk esan dauz bere buruaz; eta gatx lango gatzagaz asarre egin dautso bere gaztearo arloteari-ta, trebetasun bikotxaren yabe danarena egin dau, ikasi ta irakatsi biak bertatik egiten dauzanarena. Orretan gelditu ta etxon egin dau apur baten: baña itxi egidazu munduari esaten, zera, aldi onetako begi txarrak biziten itxi badagio ari, eguño eztau izan munduak ak damotsona lango itxaro gozorik, ezta, aren zorakeriak dirala-ta, a baño okerrago aituarorik be.

HOT.—Lengusu, aren zorakeriekaz maitemundurik agola dirudi; eguño etxoat entzun nik a baño nasaiago ta ardurabakoago izan dan bakalsemeren barririk. Baña, dalako dala, onaitiño be, bein gaua eldu baño

len, gudariren besoz estutuko yoat nik a, eta iristu egingo dok nik egingo dautsadan txereagaz. Ene beso ori, iskillok artu egizak len baño len; eta, lagunok, gudariok, adiskideok, izlaririk enazan onek zuon egikizuna zuon buruan sartu-gurarik zuon odola berotu daikedan baño gogoratuago ta ausmertuago egingo al dozue zuon egikizuna.

Geznari bat aurrera.

GEZ.—Ene yaun, eutsiz zutzako diran idazkiok.

HOT.—Orain etxoat astirik irakurteko. Aitonsemeok, labur be labur da bizitzea! Laburtasun ori be luzeegi litzake zakar biziteko. Ibili ba' lebil bizitzea erloiuaren eskumokoan, lenengo ordura elduta gelditu ba' le-di be. Bizi ba' gara, bakaldunak ostikopean zapalduko bizi gara; il ba' gadiz, eriotza ederra izango da, gugaz batera bakalsemeak il ba' dadiz! Orain, gure yakinkide-

tzeagazko..., zuzen dira iskillok eurak erabilteko asmoa zuzen danean.

Besie Geznari bat aurrera.

GEZ.—Gertau zadiz, ene yaun; arin dator aurrera bakalduna.

HOT.—Eskarrak damotsodaz nire itzaldia eteten daustalako, enozu ni izlaririk-eta; auxe bakarrik, zera, al dauenik ondoen yokatu dagiala bakotxok; eta emen ateraten dot nik ezpata galgordetsu bat, egun onetan nire bidean aurkitu al dodan odolik onenagaz bera loituteko asmoa dodana. Orain, "esperance!", Percy! eta aurrera. Yo egizuez guduko lanki zaratatsu guztiak eta, eresori ori lagun dala, guztiok alkar besartean estutu dagigun; zeruak lurrari egingo leuskio, ba, gutarikoan batzuk ezetz iñoz geiago alkar besartean estutu. (Tutuen atsa. Alkar besartean estufurik, alde dagie).

III AGERLEKU.-Shrewsbury'tik urreko zelaia.

Urtearak eta gitxi batzuen arteko burrukak. Gudarako otsak. Gero aurrera DOUGLAS eta BLUNT, alkarregaz trikitx eginik.

BLUNT.—Zer yak izena, guduketa onetan aurrea emoten daustakan orri? Ze omenen bila abil niri burua moztu-gurarik?

DOUG.—Yakik, ba, Douglas yatala izena; eta batzuk diñoenez, i bakalduna azalako nabil onan ire buruaren bila.

BLUNT.—Egia esan dauskae (d'auskai).

DOUG.—Kara erosi yok gaur ire antza Stafford'eko Lordak; ire ordez il dok, ba, ezpataz a, Endika Bakaldun: eu be alantxe ilgo az, ire burua benderatu ta atxilo emon ezpa'dagik.

BLUNT.—Enok yaio ni nire burua iñori bere eskuetararuteko, Eskolandar arro ori; eta Lord Stafford'en eriotzeaz azaskatuko dan bakalduna idoroko dok. (Burrukan daragoie, eta ilik geldituteti da BLUNT).

HOTSPUR aurrera.

HOT.—Ui, Douglas, onan egin izan ba'eu burruka ffolmedon'en. eneunkeen benderatuko nik Eskolandarrik.

DOUG.—Dana yagok eginik, dana yagok irabazirik; emen datza bakalduna arnasa bagarik.

HOT.—Non?

DOUG.—Emen.

HOT.—Au, ala, Douglas? Ez; ezagun ezagun yatak arpegi au; zaldun adoretzu zoan au, Blunt yaokan oni izena; dirudinez, bakalduna bera legetxe ornidurik.

DOUG.—Ergel bat yoak ire gogoagaz, doan lekura doala! Karuegi erosi dok iñoren izengoitia; zegaitik esan daustak bakalduna intzala?

HOT.—Asko yozak bakaldunak berea lango guda-koskolak daroezanak.

DOUG.—Aiko, nire ezpaiea-arren, arena lango guda-koskoldun guztiak erailgo yoadaz; aren guda-koskol guztiak banan-banan erailgo yoadaz, bakaldunagaz beragaz aurrez aurre aurkitu arte.

HOT.—Aurrera, ta ekin dagiogun! Ederto baño edertoago, bikain baño bikainago yokatuten yoek gure gudariak egun onetan. (Alde dagie).

Gudarako ots barriak. FALSTAFF aurrera.

FALS.—London'en tirorik artzelm urten al izan arren ni andik, emen artuko ete dodan bildur naz: burura bakarrik yoten dabe *emen*. Ixilik, ixilik! Nor augu i? Sir Walter Blunt: ba-yagok emen omenik itzako, eta eztok uskeririk, gero!... Berun urtua bestean bero nok ni, eta bai a bestean astun be: Yaungoikoak urrinduko al dau nigandik beruna! Eztot bear nik -*eure sa'ielenez beste asta-

rik (pixurik). Auts eginik gelditu diran lekura ekarri dodaz nire sorkiisuak: iru be eztira gelditu bizirik nik ekarriko eun eta berrogei ta amarretatik; eta eurok, geldituten yaken bizi guztian uri-egaletan eskean ibilteko. Baña, nor dator emen?

ENDIKA BAKALSEMEA aurrera.

BAKALS.—Ostera! Besoak aume eginda alperkerian ago i emen? Ekadak ire ezpatea; arerio arroputzen zaldien ostikopean datzae ainbat eta ainbat aitonseme, eta azaskatu bagarik yagozak euren eriotzak; arren, ekadak ire ezpata ori.

FALS.—Ui, Hal, arren, arnasa apur bat arzten itxi egidak. Gergori Turkarrak etxok egin eguño nik gaur egin dodazanak añako guda-egite andirik. Ordainduazo yautsat Percy'ri; leku seguruan imini yoat a.

BAKALS.—Bai, izan be; eta bizirik, i erailteko. Ekadak ire ezpatea, arren.

FALS.—Ez, Yaungoikoa-arren, Hal, Percy bizi ba'dok, eztok artuko nire ezpatarik; nire pistola artuik, gura ba'dok.

BAKALS.—Ekadak: ostera! bere zorroan yagok, ala?

FALS.—Bai, Hal; bero dok, bero; uri bateko crdao guztiak edango neunkez. (Bonbilbete ardao atercrten dau FALSTAFF'ek).

BAKALS.—Ostera! txantxetan eta izkirimirietan ibilteko aldia dok au, ala? (Bonbila FALSTAFF'eri egotzita, alde dagi).

FALS.—Tira ba, bizirik ba'da Percy, zatitu egingo dot. Bidera urten ba'dakit, tira; urten ezpa'dakit, beren-beregi hideratu ba'nakio. lukainkatu nagiala. Etxat bape begiko Sir Walter'enak lez aginak erakutsiazotzen dauzan omenik; bizia ekadazue niri: eta bizia yagon al ba'dagit, tira; ezin ba'dot, bsre billa ibili bagarik datorkit omena, eta nireak egin dau, (Alde dagi).

IV AGERLEKU.-Gudategiko beste leku.

Guda-otsak, Urtearak. ENDIKA BAKALDUNA, ENDIKA BAKALSEMEA, YON BAKALSEMEA, ta WESTMORELAND aurrera.

END. B.—Arren, Endika. baztartu adi i; odol-darioegi ago i. Lancaster'ko Lord Yon, bidelagun izan akio.

YON B.—Ez ni, ene yaun, neu be odol-darioka aurkitu arte.

BAALS.—Arrenka nagoko zure nagusiagotzeari, atzera yoan zadizala, zuk alde egiteak zure adiskideak kikildurik eta zurturik itxi eztagizan.

END. B.—Orixe egin be egingo yoat. Westmoreland'eko ene Lord, zu izan zakioz bide-lagun bere txoznarako bidean.

WEST.—Ator, ene yaun, neu izango natxak lagun ire txoznara-bidean.

BAKALS.—Nire bide-lagun. ene yaun? Eztot nik zure laguntza-bearrrik: eta Yaungoikoak galazoko al dau onango gudategitik azalurratuk Kimuruerriko Bakalsemea ateratea, aitonsemeak ostikopean zapaldurik eta loiturik egon, eta asaldarien iskilloko triskan-tzak eginez irabazten daragoioen gudategi-Uk!

YON B.—Astia alperrik galdu baño eztogu egiten itz eta mitz: tira, Westmoreland lengusu, cra da gure bearrerako bidea; ator, Yaungoikoa-arren. (Alde WESTMORELAND'ek eta YON BAKALSEMEAK).

BAKALS.—Yaungoikoa-arren, ziria sartu daus-tak, Lancaster; enaioan uste orrenbesteko adoredun intzanik: len, anaitzat maite indudan, Yon; baña orain neure mardulago ta dau-tsadana langoxe begirapena dauskat.

END. B.—Ori lango gudari gazteganidik itxaroten neban baño euste mardulago ta guriagoz Lord Percy'ri eusten eta berorren aurrean geldi eukiten ikusi izan yoat nik ori.

BAKALS.—Ui! guztioi emoten dausku adorea mutil orrek (Alde dagi).

Guda-otsak. DOUGLAS aurrera.

DOUG.—Beste bakaldun bat! Hidera'ri bu-ruak azten yakozanez azten dira bakaldunak; arako Douglas naz ni, zori txarreko margook aldean daroezan guztientzat: -nor augu i, bakaldunarena egiten dokan ori?

BAKALS.—Douglas'eri biotzeko mina egiten dautsan bakalduna bera. Aren itzaletatik ainbeste idoro izan dok ik, baña ez bakalduna bera. Seme bi yoadaz gudategian, ire ta Percy'ren billa dabiltzanak; baña i nire ganera etorteko zori ona dodala dakusadanazkero, neuk erasoko dauskat; olan ba, yagoik ire burua!

DOUG.—Bildur nok beste itzalen bat ete azan; eta orraitño be, bai orixe! bakaldun-ek lez daragoiok ik; baña, azana azala, seguru naiagok i nire azalata, onan fra-

baziko aut (Burruka daragoioe; BAKALDUNA larri ta estu dagola, barriro dator aurre-
NA ENDIKA BAKALSEMEA).

BAKALS.—Eragi egik ire buru ori, Eskolan-
dar zirtzil, ostantxean bein geiagotan eztok
eragiko, urrean, eta! Nire besoetan yago-
zak Shirley, Stafford, eta Blunt'en gogoak;
Kimuruerriko Bakalsemea dok i zemaituten
aueña; eta ak etxok aginduten beteko ez-
tauenik. (Burrukari daragoioe; igesi dagi
DOUGLAS'ek). Poztu zadiz, ene yaun: zelan
dago zure nagusiagotzea? Indar barrien bi-
Ua bidali dauz Sir Nikola Gawsay'k, eta bai
Clifton'ek be; Clifton'gana noa bereala.

END. B.—Etxoik, eta amasea artuik apur ba-
ten: barriro erosi dok ik gelduriko ire en-
tzute ona; eta emon daustakan laguntza
adoretsu onegaz nire biziak ardurarik emo-
ten dauskala erakutsi dok.

BAKALS.—Ene Yaungoikoa! Irainik asko ta
geiegi egin izan dauste za noz ilgo begira
nengola esaten ebanak! Olan izan ba'litz,
ilten itxiko zindudazan Douglas'en esku
irainkorraren azpian, munduko eden guz-
tiak baño lenago ekarriko euskitsun, ba,
zure atzena aren eskuak, eta zure semea-
ií etoikeri-nekeak aurreratuko euskiozan.

END. B.—Clifton'gana oa, Sir Nikola Gawsay'
gana yoango nok ni. (Alde dagi).

HOTSPUR aurreia.

HOT.—Oker ezpa'nago, Endika Monmouth au-
gu i.

BAKALS.—Nik nire izena ukatuko ba'neu le-
getxe itz dagik ik.

HOT.—Endika Percy yatak niri izena.

BAKALS.—Ba! Olan izatekotan, ire izeneko
asaldariadoretsu baño adoretuagoa yaku-
sat. Kimuruerriko Bakalsemea nok ni; eta
ez egik uste izan, Percy, nigaz ire entzute-
rik geituko dokanik; izar bik ezin yoeb bir-
rik egin leku berean; Ingelanda'k be ezin
yozak izan bakalderri bi, Endika Percy're-
nik, eta Kimuruerriko Bakalsemeaienik.

HOT.—Etxozak izango be, Endika, gutatik ba-
taren edo bestea ten atzena eldu dok-eta;
eta Yaungoikoak gurako al yok iskilloetan
ire entzutea orain nirea besteko izatea!

BAKALS.—Andiago egingo yoat nik, igandik
alde egin baño len; eta ebagi egingo yo-
adaz ire gangarrean pipilean dagozan ire
omenak, eurakaz nire bururako lora-sortea
eginik.

HOT.—Luzarago ezin yasan yoadaz ire us-
keriak. (Burrukan daragoio).

FALSTAFF aurrera.

FALS.—Ondo esanda, Hal! Ire egitekora,
Hal! Ez, ume-yokorik eztozu idoroko emen,
ez orixe.

Barriro aurrera DOUGLAS; FALSTAFF'egaz
daragoio burrukan, eta au lurrera yausi ta
ilarena egiten dau onek, eta al'ie dagi DOU-
GLAS'ek. Zauriturik, lurrera yausten da

HOTSPUR.

HOT.—Ui! Endika, ostu egin daustak nire gaz-
tearoa! errazago yaroat bizi auskor au gal-
tzea, niri ik irabazitako izengoiti arroak gal-
tzea baño; min andiago emoten yaustak
aurak galtzeak nire biotzari, ire ezpateak
nire aragiari baño: baño biziaren yopu dok
biotza, bizia, barriz, aldiaren ergel; aldiak,
barriz, mundu osoa arakatuten dauen al-
diak gelditu bear yok nozbaiten. Ui! igarri
ta iragarri neinke, eriotzearen esku lurrezko
ta otza nire miñaren ganean ezpa'neu: Ez,
Percy, auts az i, eta zerentzako yaki... (II
egiten da).

BAKALS.—Eltzarrentzako, Percy kementsu;
agur, biotz-andi ori!... Txarto irundako geia-
gokeri ori, i bai gelditu az estutu-estuturik!
Soin onek gogoa bere barruan ebanean, ba-
kalderriko muga-barrua be gitxiegi yakon;
baña orain lekurik asko yako oinkada bi
heteko lurrik zirtzilena be; ilik ba-aioan
lur onek bizirik ezin yok eroan i lango ai-
tonseme adoreturik. Txerari so egitekori-
k ba'intz, eneunke erabiliko nik onenbeste
aperturi i goratuteko; baño nire esku-era-
kutsiak ostonduko al yoeb ire mosu muskil-
du ori; eta, ire orde ezta izenez, neuk emon-
go yaustadaz eskerrak nire buruari, samur-
tasunerakuseta zuzenok nik iri eginagait-
tik. Agur, eta itzako nire goiapenok eugaz
batera betiko zoriontegitara eroan egizak!
Igaz batera ire ilobian lo egin dagiela ire
laidoak, baño laidorik eztadila gomutau
ilobi-ganeko ire idazkunean! (FALSTAFF da-
kus lurrean) Ostera! adiskide zar ori! Soín-
tzar guzti orrek ezin euki izan ete yok bizi
apur bat beintzat? Yontxo enukarri ori,
agur! Gurago neunkean gizon zindoagorik
galdu, i galdu baño. Ui! galtze itzala litxa-
kidak irea, uskerizale ba' nintzok. Eriotzeak
etxok lurreratu garuko iskanbilla odoltsu
onetan i lango orein gizenik, amaikatxo ober-
rik luneratu izan-arren. Luzaro bagarik
ikusiko aut gorpuondurik: ordurarte odo-
letan atza Percy zindoaren aldamenean. (Al-
de dagi).

FALS.—(As'tko yagi-ala) Gorpuondurik! Gaur gorpuondu ba'nagik, or dok nire ederretsia biar ni gatzitu ta biar yateko be. Yaungoikoaren odola-arren, zori onez eta garaiz egin dot ilarena, ostantxean Eskolandar arro ak nirea ta guztiena be ordainduazoko euskidan. Eztanarena egin? Guzurra diñot, ez tot egin nik enazanenik: iltea bera da ez tanarena egitea; eriotzea ezta, ba, gizonaren bizirik eztauenak gizonarena egitea baño; iltea bai ba-da ez tanarena egitea, gizonaren antza baño ezta, ba, ilik dagona, gizon egiten dauen bizirik eztauelako. Berezena da adoreak dauen zerik onena; eta zerik onan orrek aurreratut daust nire biza. Denganiñoen denganiño! Bildur dauats suodiatu dan Percy oni, ilik egon-arren be; oni be ilarena egin eta yagitea otuko ba'litxako, zer? Bildur naz, nik lez, ez tanarena baño egin ez ete dauen. Olan ba, seguru ibili gura dot; bai, eta zin egingo dot neuk erail dodala. Zer dala-ta ezin yagi au be neu yagi nazanez? Begiai bakarrik sinisten dauset, eta iñok be enakus. Olan ba, txotxo, (Ezpatoa sortzen daulso) ire iztarrean beste zauri bat artuta, ator nigaz. (Bere biEkorrean artzen dau HOTSPUR).

Aurrera ostera be ENDIKA BAKALSEMEA ta YON BAKALSEMEA.

BAKALS.—Tiruk, Yon anai, ire ezpata barriari odola adoretzu ixurten irakatsi dau saketa. YON B.—Ixilik! nor yoagu emen? Eztaustak esan gizon gizen au ilik dala, ala?

BAKALS.—Bai, esan dauskat; ilik ikusi yoat, arnasa bagarik luze lurrean. Bizirik ago, ala? Ala, gure begiai iruzur egiten dau sen irudien bat augu? Itz egik, arren; gure be larriena entzun arte etxautsaguet sinistuko gure begiai; ez i ik dirudianik.

FALS.—Ez, egia dok ori; enok ni gizon biko-

txik: baña Yontxo Falstaif ezpa'nok, Yonandi nok. Aiko amen Percy (Lurrera egozten dau gorpua); ire aitak omenik, goratzarrerik egin gura ba'yaustak, ori ondo; egin gura ezpa'yaustak, berak erail dagiala urrengo Percy. Ba-yoat konde, naiz duke izateko itzarorik, bai orixe.

BAKALS.—Ba! neuk erail yoat Percy, eta ilik ikusi aut i.

FALS.—Bai ete? Yaungoikoa, Yaungoikoa! Ikusi zelan dan mundu au guzurbera! Autortuten daukat lurrean eta arnasa bagarik egon nazala, eta alantxe egon dok ori be; baña beingo baten yagi gozak gu biok, eta ordubetean bai ekin yautsaguk burrukan, Shrewsbury'ko erloiuari sinistutekotan. Sinistu ba'dagistak, ori ondo; sinistu ezpa'dagistak, euren obena euren buru-ganean eroan dagiela aidorea sariztau bear dabena. Ilgo al naz neuk egin ezpa'dausat iztarreko zauri ori; bizirik ba'lego gizon ori, eta ukatu ba'legi, denganiñoen denganiño! nire ezpaiearen zati bat yanazoko neunskio.

YON B.—Eguño entzun dodan ipuinik iñondikoena da au.

BAKALS.—Iñondikoena dok urli au, Yon anai. Tiruk, lotsaz ekarrik zama ori bizkarrean: nire aldetik, guzurrak iri onik ekartekotan, itzik onenez apainduko yoat nik. (Atzeraka egiteko otsa) Atzera egiteko otsa da tutu orrena; gure da egun au. Ator, anai, guda-tegiko lekuri gorengoratu gadizan, zeintzuk adiskide bizi diran eta zeintzuk il diran ikusteko. (Alde Bakalseme biak).

FALS.—Esan daustenez, yarra egingo natxake, saria artzekc Yaungoikoak sarituko al dau ni saritu nagiana! Andi egin ba'nadi, argalago egongo naz, barrua ikuzi egingo dot, ba, edatea itxi, ta aratz bizi, aitonsemek egin bear leukenez. (Alde gorpua ba, daroala).

V AGERLEKU.-Gu ategiko beste leku.

Tutuen otsa. Aurrera ENDIKA BAKALDUNA, ENDIKA BAKALSEMEA, YON BAKALSEMEA, WESTMORELAND, eta beste batzuk. WORCESTER eta VERNON atxilo daroetzala.

END. B.—Onan eroatan dau beti asaldatzeak bere zigorra, Gogo txarreko Worcester! ezkeuntsun opatu gure eskarra, azkespena ta biotz oneko eskeintzak zuoi guztioi, ala? Eta zuk besterako eskeintzak iragarri izan dozuz? Txarto erabili izan dozu zure senidea-

ren uste ona? Erailik gelditu dira gure aldeko iru zaldun, konde zindo bat eta orreiz ganera gizon asko, eta bizirik legokez orain, zuk, kistar zintzori dagokionez, egiazko barriak eroan izan ba' zenduz gure gudaroste batetik bestera.

WOR.—Neure segurantzak bultzau izan nau egin dodana egitera, eta epez besarkatuten dot nire zoria, ezin bestez ganera datokit-eta.

END. B.—Eriotzara eroan VVorchester, eta bai Vernon be: beste obentiekazko, etxon egingo dogu geroagorarte. (Alde WORC. eta VERN.'ek yagonda) Zelan ete doa gudategikoa?

BAKALS.—Lord Douglas, Eskolandar zjndo ak, gaurko zoriak atzea emon dautsala ikusirik, Percy zindoa ilik dala, eta bere gizon guztiak bildurak ilik egozala, igesi egin dau berak be besteakaz; eta mendiren batetik yausita, ain lorrindurik gelditu da-ta, goatu egin dabe atzetik ara yarra yean yakozanak. Nire txoznan dago Douglas; eta agazkoa neuk egitearen eske nagoko zure eskarrari.

END. B.—Or dok orretarako nire ederretsia, biotz biotzez.

BAKALS.—Olan ba, Lancaster'ko Yon anai, ire izango dok eskuzabaltasun au: oa Douglas'egana, ta bere buruaren yabe egik, erosketa bagarik, dubarik: ak gaur gure buru-gangarren ganean erakutsi dauen ado-

reak beste alderdiko gure biotzetan be bere egite andiak aintzakotzat artzen eta ederresten irakatsi yauskuk-eta.

YON B.—Eskerrik asko ik egiten dautsakan eta nik bertatik eroango dautsadan txera orregaitik.

END. B.—Olan ba, au da egiteko geldituen yakuna: zatitu egingo doguz gure indarrak. I, Yon seme, eta i, ene lengusu VWestmoreland, York'erako bidea artuko doze zuok len baño len, dantzudanez an iskillioakaz zoli dabilzan Northumberland eta Scroop eleizgizonagaz trikitx egiteko; ni neu..., eta i, Endika seme, Kimuruerri'rako bidean yarriko gozak, Glendower eta March'eko Kondeagaz burruka egiteko. Galdu bear yok asaldatzeak bere agintzea lur oneton, gaurkoa lango beste egun baten billa yoanda: eta arazo au ain bikain burutu dogunazkero, ezkadizan gelditu gure dan oro irabazi arte. (Alde dagie).

**IV ENDIKA BAKALDUNAREN
BIGARREN ATALA**

[SECOND PART OF KING HENRY IV]

IV ENDIKA BAKALDUNAREN

BIGARREN ATALA

(SECOND PART OF KING HENRY IV)

ANTZERKI ONETAN ANTZEZTURIKO LAGUNAK

LAUGARREN ENDIKA BAKALDUNA.

ENDIKA, Kimuruerriko Bakalsemea. geroago V \
 ENDIKA BAKALDUNA J
TOMA, Clarence'ko Dukea I
LANCASTER'ko YON BAKALSEMEA, geroago > Laurak Bakcdsemeak.
 BEDFORD'ko Duke I
GLOSTER'ko HUMPHREY BAKALSEMEA, ge- 1
 roago Gloster'ko Duke J

WARWICK'eko KONDEA)
WESTMORELAND'eko KONDEA {
SURREY'ko KONDEA / Bostok Bakaldunaren alderdikoak.
GOWER \
HARCOURT :

Bakaldunaren Epaitegiko Lord Ebazla Nagusia.
Ebazla Nagusiaren laguntzako Aitonseme bat.

NORTHUMBERLAND'eko KONDEA
SCROOP. York'eko Gotzaiburua
LORD MOWBRAY Seirok Bakaldunaren arerio.
LORD HASTINGS
LORD BARDOLBA
SIR YON COLEVILE

TRAVERS eta MORTON, NORTHUMBERLAND'en Yarraileak.
FALSTAFF, BARDOLBA. PISTOL eta Esku-mutla.
POINS eta PETO, ENDIKA BAKALSEMEA'ren Otseinak.
SHALLOW (Xalou) ta SILENCE (Sailens), Irurako Ebazleak.
DAVY, SHALLOW'ren Otsein.
MOULDY (Ustel), SHADOW (Itzal). WART (Gari), FEEBLE (Makal), eta
 BULLCALF (Ergel), Gudari barriak.

FANG (Txarri-agir) eta SNARE (Goakallu), Xeriparen Otseinak.
ZURRUMURRU.
Burdidun bat.
Yantzari bat, Azken-itzaldiko izloria.

LADY NORTHUMBERLAND.
LADY PERCY.
MISTRESS Quickly, Eastcheap'eko Ardanegiko Arroztunoa. (Kuikli
 Anderea).
DOLL TEARSHEET (Dol Tirit).

Lordak eta laguntzako beste batzuk; Agintza-gudariak, Gudariak, Gez-
 nariak, Yatetxe-otseinak, epaitegi-otseinak, zaltzainak, eta abar.

AGERLEKU.—INGELANDA

5ARRE :A-ERAGOA

WARKWORTH.NORTHUMBERLAND'en Gazte-
Iu-aurrea.

ZURRUMURRUA aurrera, miñez beterik mar-
goztaurik.

ZUR.—Idigi zuon belarriak, izan be, ba, zuota-
tik nok galazoteko aren itzak zabalduerik
Zurumurruak ozen eta zoli itz egin dagia-
nean? Ni naz, bide-zalditzat, axea arturik,
sortaldetik aldazberako sartalderaño ludi ba-
robil onetan asiriko egiteak oraindik be
zabalduten dauzana; etentzaka doaz guzur
baltzak nire miñen ganean, eta izkuntza
guztietan esan daroadaz nik guzur baltzok,
gizonen belarriak guzurrezko barriz bete-
beterik. Bakeaz itz egiten daragoiot nik,
eta, bitartean, estalpeko gorrotoak, seguran-
tzako irribarrepean, mundua zaurituten da-
ragoio; eta nok Zurumurruak baño, nok
nik bakarrik baño egiten dauz gudari-ba-
tze bildurgarriak eta nobere burua yagote-
ko gertakuntzak? Eta bitartean, sabel-andi
dagon urtea, ostantxeko naibagez ernari
egon-eta, uste okerrez, gudu gorri itzalak
ernariturik dagola uste izan! Tutu da Zu-
rumurrua; susmoak, ikus-ezinak, eta bai-
urreanak yoten dabena, eta ain yo-erraza
da-ta, zenbatu-ezin beste burudun ganoraba-

ko bildurti orrek, bein be eriskide eztan yen-
tetza aldakor uts orrek be yo daike. Baña
ze bearr-izanik dot nik nire buru ondo eza-
guna onenbestean azalduteko? Zegaitik da-
go emen Zurumurrua? Endika Bakalduna-
ren garaitea baño len arin arinka etorri naz
ni, Shrewsbury'tik urreko gudategi odoltsuan
ak Hotspur gaztea ta aren gudarostea zu-
zitirik, matxinoen odolagaz beragaz matxi-
nada oldartsuaren garrak itzali baño len.
Baña zegaitik diñot nik orrenbesteko egi-
rik lenengotan? Zera da nire egikizuna, Hots-
pur zindoaren ezpatearen asarrepean yausi
dala Endika Mommouth ortik zear zabaldu-
tea; eta bakaldunak bere buru gantzutua
lurreraño eratsi dauela Douglas'en asarre
biziaren aurrean; zurumurru au zabaldu
dot nik Shrewsbury'ko bakal-gudategitik
Hotspur'en aita Northumberland zarrak
maltzurkeriz gexoarena egiten dauen al-
diak muskilduriko arrizko etxe zarrera bi-
tartean dagozan baserri guztietan; arnas-
estuka datoz bidariak, eta euretatik batek
be eztaur nigandik ikasiriko barriez bes-
terik: zurumurruaren agotik dakarrez na-
scentasun leunerako barriak, ezbearrak eu-
rak baño be okerrago diranak. Alde da-
gi).

I EKITALDI

I AGERLI KU.-Lengoxea.

Atezaina ate-aurrean; LORD BARDOLBA au-
rrera.

L. BARD.—Nor da ate au yagoten dauena?
Eee! Nondik da kondea?

ATEZ.—Nor zareala esango dautsat?

L. BARD.—Lord Baidolba dagola emen aren
begira esaiok kondeari,

ATEZ.—Baratzean dabil aia-onaka kondea;
zure omenari eder ba'yako, atea yo egiozu,
bai, eta berak eiantzungo dautsu.

L. BARD.—Emen dator kondea. (Alde Ateza-
inrck).

NORTHUMBERLAND aurrera.

NORTH.—Ze barri dakak, Lord Bardolba? Une

bakotzak izan bear yok orain ustebako ba-
rrien baten aita: zakar dozak aldiok; zaldi
mizke aziak legetxe, eztabaideak, zoroaren
zozoz, lokarriak etenda, aurrean yaroak oro.

L. BARD.—Konde zindo, Shrewsbury'tiko barri
batzuk dakatsudaz.

NORTH.—Onak izatea gurako al dau Yaun-
goikoak!

L. BARD.—Biotzak opa izan leizanik one-
nak: ia ilteraño zauriturik dago bakalduna;
ene yaun, zure semeak izan dauen zori
onez, ilik da Endika Bakalsemea, alderik
alde zulaturik; eta Douglas'en eskuz ilik
dira Blunt biak: igesi egin dabe gudategitik
Yon Bakalseme gazteak, Westmoreland'ek
eta Stafford'ek; eta zure semearen atxilo

da Sir Yon, Endika Monmouth'en upela: Ui! onango egunik! Olan burruka egin, olan ekin, eta olan irabazi; eguño ezta etorri izan onango egunik aldien edergarritzat, Kaisar'en aldi zori ontsuazkero!

NORTH.—Nogandik dakizak barriok? Ikusi dok gudategia, ala? Shrewsbury'tik ator, ala?

L. BARD.—Andik nigana etorri dan bategaz itz egin yoat; ondo azia ta entzuteko dan aitonseme batek bere kitetik eralgi yaustazak barriok egitatz.

NORTH.—Emen yatok nire otsein Travers, lengo eguazenez barri-billa bidali nebana.

L. BARD.—Ene yaun, bidean atzean itxi dot nik ori; eta orrek eztaki seguru nik zori onez barriro esan daikeodanaz besterik.

TRAVERS aurrera.

NORTH.—I, Travers, ze barri onik dakak ik?

TRAV.—Ene Lord, Sir Yon Umfrevile'k bidali nau bidetik atzera barri pozkarriakaz; eta nik baño zaldi oberik izan ak-eta, atzean itxi nau. Aren atzean etorren aitonseme bat, zaldiari aztalak sartu ta sartu, ta arinarren arinez naturik, eta nire aldamenen gelditu da zaldi odolduari arnasea artzen izteko. Chester'erako bidea zein dan itandu daust; eta nik, nire aldetik, Sharewsbury'tik ze barri dakarren itandu dauzat. Zori txarra izan dabela matxinoak esan daust ak, eta otziturik egon dala Endika Percy'ren aztala. Au esandakoan, bere zaldi mardoaganantz itzuli dau bere burua, eta aurreantza makurturik, txirrinkaraño sartu dauzats bere orpoetako aztalak zaldi errukarriari arnasoska gora-beraka eragoioen aldamenetan; eta olan andik alde eginik, aren arin egin bearrararen arin egin bearragaz bidea iruntsi egin bear ebala esan edikean, itaun geiagorik egiteko astirik emoteka.

NORTH.—Ui!... Barriro esaik; Endika Percy gaztearen aztala otzitu egin dala esan yok, eztok? (I) Aztal-otz egin dala Aztal-bero, eztok? Zori txarra izan dauela matxinadeak, eztok?

L. BARD.—Ene Lord, neuk esango dauz zer yazo dan; garaile urten ezpa'da zure seme ene yaun gaztea, sedazko poronpil baten cdderako emongo dot nik nire barontzea; ez aitatu geiago orrako ori.

NORTH.—Zegaitik emon dauz, ba, galtzeagazko barriak Travers'en aldamentetik zaldiganean yoan dan aitonseme ak?

L. BARD.—Nok? Ak, ala? Bere azpian eroian

zaldia ostutako alperrontziren bat yatsun a; eta nire bizia egingo neunke, agora etorri yakona esan dauela ak.-Ara, emen dator barririk geiago.

MORTON aurrera.

NORTH.—Bai, gizon onen betozkoak, urren zetariko geia datorren diñon orriaren antzeko dan gizon onen betozkoak, banv txaidun idaztiak zer dakarren diragarrela dirudi; uriol asarreak an bere ondamendien lorrata itxi izan dauen ibai-eriza dirudi orrek... Esaik, Morton, Shrewsbury'tik ator, ala?

MORT.—Igesi egin dot Shrewsbury'tik, ene yaun zindo; eriotza iguingarriak an, gure aldekoak bildurtuteko, bere mosuan mosumarrorik itsusiena imini dauen lekutik.

NORTH.—Zelan yagozak nire semea ta anaiea? Ikara baten ago i; eta ire miña baño egokiago dozak ire mosu zuriak ik dakakan barria emoteko. Olangoxe gizona izan zoan Pirama'ren lo-gelako errezelai gau ilunean baztarrera eragin eutsen gizona, aren Torof'tik erdia sutan egoala iragarteko; gizon gogo-yausia, kikildua, olantxe motela, olantxe begi-lausotua, olantxe naibagez lur-yoa; eta Pirama'k ak bere miña erabili al izan baño lenago igarri yoan sua, eta bai nik be nire Percy'ren eriotzea igarri yoat ik iragarri baño lenago. Aiko amen ik esan gura dokana; Au ta au egin dau zure semeak; berea zure anaieak; onan egin dau burruka Douglas zindoak; arein egite andiak entzuteko nire belarri urduri-artegak adi iminita: baña atzenean nire belarriak isteko, eta atzenean gorapeñoi putz egin eta ortik zear bidalteko, intziri egingo dot eta onan amaitu..., anaiea, semea, ta guztiak dira ilik.

MORT.—Bizirik da Douglas, eta zure anaiea be bai oraindik; baña, yaun, zure semeagazko...

NORTH.—Ba! ilik dok a. Ikusi egik susmoak zoli dauela bere miña! Yakin gura eleukenenen bildurra baño eztauenak berezko leraz yakik besteen begietatik, yazo dala bildur yakona. Orraitiño be, itz egik, Morton; guzurre dala bere igarpena esaioi ire kondeari, eta naibaga gozotzat etsiko yoat, eta aberastu egingo aut niri onango okerrik egin izan-arren.

MORT.—Andiegi zara zu, nik zuri ezer bes-

(I) Aztal-bero esan gura dau Ingekmderaz Hotspur itzak.

terantza esateko; egiegi da zure susmoa, seguruegi dira zure bildurrak.

NORTH.—Orraitiño be, zer guztiok gora-bera, eztiñok ik ilik dala Percy. Inondiko autorpena yakusat ire begietan; buruari eragiten dautsak eta, edo bildurrak, edo orrako ori obentzat esteak, eztausk izten egia esaten. Erail ba'yoek, erail dabela esaik; etxok egiten okerrik *a* il dala diragarren miñak; obenik egiten yok, bai, ilaren eriotzea guzurtauten dauenak, ez ila bizirik eztagola diñonak. Orraitiño be, galtzeko egikizuna egiten yok pozkarri ez tiran barriak lenen dakazanak; eta aren miñaren otsa ordutik ara beti izaten dok ileta-yoalearen antzeko, yoan dan adiskide maitearen ileta-yotea gomutauten dauskuna langoxea.

L. BARD.—Ezin dot uste izan, ene yaun, zure semea ilik danik.

MORT.—Yaungoikoa-arren, ez al neu ikusi zuri sinistua-zo-bearrean aurkituten nazana; baña neure begiok ikusi izan dabe a odolatan egoala, zartada makalez erantzuten. Naturirik, meko eginik, eta arnasarik artu-ezinik Endika Monmouth'en aurrean, eta onek bere bapateko asarrean lurreratu egin dau eguño bildurririk izan eztauen Percy, andik bizirik bein geiagotan ez yagiteko. Labur esaieko, bere adorea gudarosteko baserri-tarrik motelena be berotu ta sututen ebanaren eriotza-zurrumurua bein zabalduazkero, aren gudarrien arteko adoret-suenetatik be alde egin eben suak eta beroak; aren melalez egina zan, ba, arein galtzai-dua; eta bein aren metalarenak eginazkero, eurenaturik gelditu ziran besteak, berun motel eta astuna langoturik; eta berez astun dan zera bultzauazkero, bultzauago ta arinago yoaten danez, Hotspur'en eriotzeak astundurik, gure gizonai be orixe yazo yake; euren astuntasunari ainbesteko bizkortasuna emon dautso euren bildurrak-eta; gezirik ez bizkorrago ta arinago yoan bere elburura, gure gudariak, elburutzat euren segurantzzea ebela, gudategitik igesi yoan diran baño. Orduan egin dabe ari-negi atxilo Worcester zindo a; eta Esko-landar asarre, Douglas adoret-sua, odoltsua, lan egiten ondo ekian bere ezpateagaz iru bakaldun-antzeko erail izan dauzana, adorea galtzen asi da, eta lendik igesi dabenen lotsaria zurituteko-edo, bera be igesi doa; eta igesian, bildurraren bildurrez ostop eginik, atxilo goatu dabe. Dana labur esateko, dana dago esanik bakaldunak irabazi dauela esariatzkero; eta astirik galtzeka, bertatik eta arin bidali dau indarra, zu-

ri erasoteko, ene yaun, indarraren burutzat Lancaster gaztea ta Westmoreland datozala. Oneik yatsuz barri osoak.

NORTH.—Astirik asko izan yoat ezbearrok dirala-ta negar egiteko. Edenak berak yok osakeia, eta onak izan ba'litzozak, barriok gexotuko minduen au, txarrek diranazkero, zelanbait osatu egin yoek. Indarbako atetxoriari yazo oi yakonez, sukarrez makal-durik dagozan zori txarrekoak, sukarraldia noz etorrikoren bildurrez, suak artuta lez euren yagolearen esku-artetik zirr-ist egin daroenez, nire soin-atalak be, naibagearen naibagaz mengeldurik egon-arren, naibaagearen naibagaz orain asar-raturik, len ziran lango iru dira. Oa, ba, ortik *zear*. makulu lirain ori! Galtzaiduzko giltzadun eskuzorroak yantzi bear dau orain nire esku au: oa ortik *zear*, ene gexo-txapel ori be! Buru-apaingarri arrogei az i gurendaz gizenduriko bakalsemeak euren elburutzat arfuko dabene nire burua yagoteko. Burdiñez yantzi egizuez nire bekanak, eta datorrela aldiak eia zori txarrek ekarri leien ordurik txarrena, Northumberland asarreari betozkoa erakusteko! Ortzak lurrari mun egin baño eztauko! Yaiotzatikoaren eskuak ez al dautso ezarriko mugarik, ez esirik, uriol asar-reari! Ilgo al da len-urantzzea! Eta oraindik ara mundu au ez al da izango eztabaidak astiro erakusteko antzetzegirik; ori bagarik, Kain len-semearen gogoak bakarrik aginduko al dau biotz guztietan, biotz bakotxak odol-bideak arturik, ikuskizun zakargordina amaitu dadin eta ilak ilunbeak eortzi dagizan!

TRAV.—Gatx egiten dautsu biotzaldi estu-bero orrek, ene yaun.

L. BARD.—Konde ezti ori, zurtasunik baga ez egizu itxi zure omena.

MORT.—Zure asmakide maite guztien biziak dagotsuz zure osasunaren alde; eta nai-tanai-ez berantza egin bear dau zure osasunak, olango biotzaldi ekaiztsuri lekurik emon ba'dagiozu. "Yagi gadizan" zuk esan baño len oartu zintzazan gudutik etorri ledikena-gaz, gudako alanbearragaz, ene yaun. Susmau zendun zuk zartaden alanbearez yausi edikela zure semea: ba-zenkian zuk galgordeen ganeko ago zorrotzaren ganean ebilela zure semea, eta alan ibiliazkero, urrean baño urreanago yausi egingo zala atzenera-ño eldu baño len; iragarri yatsun aren aragiak be artu eikeala zaunirik eta urratirik; eta galgorderik geien egoan lekura eroango ebala bere biotz biziak: eta orraitiño be, "Aurrera, mutil!" esan zeuntson, eta orrako

guzti ori yakin-arren, yazo be yazoko zala susmau-arren, ezin eragin euisun aizeria bein sendo artuiko zure erabagitik. Zer yazo da, ba, edo, zer ekarri dau egiteko oldartu onek, yazo edikena yazotea baño?

L. BARD.—Galtze onetan tarteko garean guztiok genkian itsaso ain galgordetsuan sartzen gintzazala-ta, amar zoritik bat baño ezkebala gure alde, onik eta ondo urteteko: eta orraitño be, zoriaren billa yo geban, aurrean iminiko irabaziak urrean baño urreanago yazoko yakunaren bildurrari yaramonik egiten itxi bagarik; eta azpiratu gabezanazkero, barriro be bada-ezpadaraiu gadizan. Tira, guztia yokatuko dogu, soña ta ondasunak.

MORT.—Tertzio baño tertzioago da orretarako: eta, ene yaun zindo baño zindoago ori, segurutzat entzun dot-eta, egia diñot..., yagirik da York'eko Gotzaiburu zindoa, ondo auturiko indarrakaz: bere yarraileak segurantzaz bikotzez lotuten dakian gizona da *a*. Nire yaun zure semeak gorputzak baño ez ebazan beragaz, itzalak eta gizonen itzalak baño ez, burrukan egiteko: matxinada itzak berak banandu egin eban soñaren egikizuna gogoaren egikizunetik; eta kezkaz betirik egin eben aik burruka, atara bearturik;

gizonak edena edan daroenez; eta, au dala-ta, Guren iskilluak bai gure cildeko ziralara irudien, baño, euren biotz eta gogoagazko, matxinada itz onek leitu-leiturik itxi ebazan, osineko arrainak legetxe. Baña orain, yaurestetu egiten dau Gotzaiburuak matxinadea; zintzotzat eta gurentzat dabez aren asmoak-eta, soñez sta gogoz darraikioz; eta aren yagitea zuzenagotzat agertu dadin, au dau Errikarta Bakaldunaren odola, Pomfret'eko arrietatik azka ta karrazka baturik; zerutiko dala diño bere auzia ta zegaitia; odola dariola dagon lurraren ganean iziarfolaka yarri dala dirautse bere yarraileai, Bolingbroke andiaren azpian arnas-estuka dagon lurraren ganean; eta andi ta txiki. guztiak doaz aren yarrai.

NORTH.—Lendik be ba-nenkian orrako ori; baño, egia esateko, burutik kendu egin daust oraingo naibaga onek. Zatoze barrura nigaz, eta bakotxak bere onua emon dagiala, zein dan biderik onena gure segurantzarako ta azaskatzerako; bidariak eta idazkiak bidali dagiguzan, len baño len adiskideak egiteko..., eguño eztogu izan, ba, gitxiagorik, eta eguño eztogu izan euren bear andiagorik be. (Alde dagie).

H AGERLEKU.-LONDON. Etxartebide bat.

SIR YON FALSTAFF aurrera, bere esku-mutilagaz, ezpatea ta ikurdia daroazala.

FALS.—I, txotxo, gizatzar ori, zer yinok osagileak nire txixagazko?

ESKU-M.—Txixa bera on eta osasuntsu dala esan dau ak, yaun; baño txixa a egin daunak ak an ikusi izan dauzan gatxez ganera besteren batzuk be izan daikezala.

FALS.—Guztitariko gizonak arrotuten yozak niri irri egiteak; buztinezko gizon ergel onen garaunak ezin asmau yoek ezer barregarri-rik, neuk neugan len, naiz orain idoroaz besterik: ni enok buru-zorroztz neugan bakarrik, besteen buru-zorroztzazuna be neugandiko dok-eta. Bere umaldiko umeak batez beste guztiak azpian artu to ito dauzan txari makerea naiabilk ni emen ire aurrean. Ni ikusgarriago egiteko bagarik beste zerbaitegaitik imini ba'au bakalsemek nire osetintzat, ba! olan izatekotan, etxoat nik argirik buruan. I, urrillo emagalkume ori, ego-kiago az i nik nire txapelean eroateko, nire orpoetan laguntzako ostein izateko ba-

ño. Orain arte etxoat izan nik nire laguntzat agatazko pitxirik; baño i urrez, naiz zidarrez yantziten ibili bagarik, ire ugazabana bidaliko aut atzera. Bai, bakalseme gaztetxo orregana, bere okotzean oraindik lumatu bagakoagana, pitxitzat. Lenago urtengo yatazok niri bizarrak eskuzabalean, ari mosuan bat bera agertu baño; eta orraitño, esan eta esan ibiliko dok a bakal-apegi dala bere arpegia: Berak noz-gura amaituko al yok *a* Yaungoikoak, bein beinean bizarrak zelangoa danik be etxok ak-eta; euki baño etxok ak aurrerantzean be bakal-mosutzat bere mosua, bizarginek aren mosuan etxozak irabaziko iñoz be sef peni be-ta; eta orraitño be or ibiliko dok kurrurukuka esaten bere aita oraindik mutilzar zanazkero dala gizon. Bere ederra euki baño etxok ak; baño nirea galdu yok ia; eta yakingo al yok au. Zer esan yok Dumbleton yaunak nire txartes laburrerako ta nire parka nasaietarako satinaz?

ESKU, M.—Bardolba baño bai obarik emon

bearko dautsazula esan dau ak; eztau ar-
tu gura izan arenik, ez zure segurantzarik;
etxcko gogoko segurantzara ori.

FALS.—Donga, gaitzetsi izango al dok ara-
ko Yatun Saloa (2) legetxe, ta miña erreko
al yakok. Emagalkume Aitopel (3) dok a!
zital baño zitalagoa! Bere eskuetan euki ai-
tonsemea, eta orraitioño be segurantz-eske
egon! Emagalkume buru-ulok eztaoe orain
bestirik gorako oskiak eta garritik bera gil-
tza-mordoa baño; eta euren artera agertu
ba'dakie gizon zindoren bat argi ta garbi
diru-eske, segurantz-eske yarten dozak
orreik. Gurago neunke agoa sagutoak ilteko
edenez beteko ba'leuste, segurantz itz ori
entzun fcaño. Begira egon nok ak ogei ta
bi kana satin bidaliko eustazala, ni zaldun
zindo nazalako, ta segurantzea bidalten
yaustak. Tira ba, seguru lo egin baño etxau-
kak, ugaritasunaren adarra yok, ba, ak, eta
adar orrek ondo erakusten yok zirrida dala
bere emaztea; eta bere argia izan-arren,
ezin yok ikusi orrako ori. Nondik dok Bar-
dolba?

ESKU-m.—Smithfiel'd'era yoan da zutzako zal-
diren bat erosten.

FALS.—Paul Deunarenean erosi yoat nik, eta
Smithiield'en erosi gura yaustak ak zaldia?
Emagalteien baten iritxi al ba'neu emaz-
terik, otseindun, zaldidun ela emaztedun
nintzakek orain.

ESKU-M.—Yaun, or dator Bardolba'gaitik bera
yo ebalako, bakalsemea baitegiratu eban
aitonsemea.

FALS.—Urrean gelditu akit; ikusi be etxoat
egin gura gizon ori-

Lord Ebazla Nagusia aurrera bere laguinagaE.

EBAZ.—Nor dok ortik zear doana?

LAG.—Falstaif, yaun orri eder ba'yatsu.

EBAZ.—Lapurreteaz salatirik dagona, ala?

LAG.—Axe bera, ene yaun: baña arrazkerio
otseintza onik egin dau Shrewsbury'n; eta,
entzun dodanez, Lancaster'ko Lord Yon'ga-
na doa orain egikizunen baterako.

EBAZ.—Osiera! York'era, ala? Dei egiok. da-
torrela.

LAG.—Sir Yon Falstaff!

FALS.—Gor nazala esaiok, mutil.

ESKU-M.—Ozenago, garratzago itz egin bear
dautsazu, gor da, ba, nire ugazaba.

EBAZ.—Seguru nago ba-dala izan be, ezer
onik entzuteko. Oa, ukondotik ten egiok, be-
ragaz itz egin bear yoat-eta.

LAG.—Sir Yon...

FALS.—Ostera! Orren gazterik eskean i, zi-

tal ori! Etxagok gudurik, ala? Etxagok non
lanik egin, ala? Etxagok bakalduna bere
bendeokoen bearrean, ala? Alderdiotatik ba-
tean baño izan ez-arren omenik, lotsagarria-
go dok eskean ibiltea, alderdi txarragoan
egotea baño, naiz ta bera aitatuteko ma-
xinada baño itz zatarragorik bear.

LAG.—Oker artu nozu, yaun.

FALS.—Ba! yaun, gizon zindo zareanik esan
dot, ala? Nire zalduntzeari ta nire gudari-
tzeari baztarrera eraginik, guzurra esango
neunkean, olangorik esan izen ba'neu.

LAG.—Arren, yaun, olan izatekotan, bazta-
rrera eragiezu zure zalduntzeari ta gudari-
tzeari, eta emoidazu zure ederretsia guzurra
esan dozula esan dagitsudan, gizon zindoz
bestirik nazala esan ba'dagizu.

FALS.—Zuk olangorik esateko nire ederretsirik
emon be nik! Neure danari uko egin nik?
Nire ederretsirik iritxi ba'dagizu, eskegi na-
gizu; eta baimenik artu ba' dagizu zuk, oba
litxakizu eskegi zagiezala. Alde emendik, ei-
za-txakur ori! Ken ortik!

LAG.—Yaun, itz egin gura dau nire yaunak
zugaz.

EBAZ.—Sir Yon Falstaff, itz bat zuri.

FALS.—Ene yaun on!... Egualdi ona emongo
al dautso Yaungoikoak zure yauntasunari!
Pozarren nago zure yauntasuna emen etxar-
tebidean ikusiaz: zure yauntasuna gexorik
egoaia entzunik nago; pozik nago zure yaun-
tasunari etxetik urteteko onua emon dau-
tsoelako. Gazte izatea gutziz itxi ez-arren,
orraitioño be ba^dozu zuk yaun orrek zar-
sundatxorik, adinak onduaren antzik; eta
zure yauntasunari apalik eskatu-bearrean
nago lotsaz yaramon dagiozula zure osasu-
nari.

EBAZ.—Sir Yon, zu Shrewbury'ra yoan-aurre-
tik dei egin neuntsun.

FALS.—Eder ba'yatsu, nik entzun dodanez,
kezkarik arean ekarri dau bere nagusiago-
tzeak Kimuerritik.

EBAZ.—Bere nagusiagotzeaz eztaragoiot nik;
etzendun etorri gura izan zuk nik dei egin
neuntsunean.

FALS.—Orrez ganera, ba-dantzut aren nagu-
siagotzeak elbarri-aldikada emagalkumea
bera izan dauela.

EBAZ.—Tira ba, Yaungoikoak leneratuko al
dau! Arren, zuri itz egiten itxiko al dausta-
zu.

(2) Luka, XVI, 19.

(3) Somuel Bignrena, XV, 31.

FALS.—Elbarri au, nire ustez, loeri dalakoren bat yatsu, sogogorkerien bat, sder ba'yatsu; odola loak artzeren bat, zizta-minbera-eri emagalkumeren bat.

EBAZ.—Zer dala-ta daragoidazu orretzaz? Dalako dala orrako ori.

FALS.—Naibaga anditik datorrena yatsu ori, arduratik, eta garaunen nastetik; ondorenon zegaitia Galen'en idaztietan irakurria nozu; gorkeria dalakoren bat yatsu.

EBAZ.—Zu zeu be gatx orren azpira yausi zareala uste dot, nik esaten dauksudanik eztozu entzuten-eta.

FALS.—Ori ondo, ene yaun, ondo baño obeto: ori barik, eder ba'yatsu, adi ez egoteko gatxa yatsu, yaramonik ez egiteko gatxa nik dodana.

EBAZ.—Orpoetatik eskegitea litxake zuri adierazoteko bidea, eta eleuskit ardura zure osagile izateak.

FALS.—Bearísu bai ba-naz ni Yob bestean, ene yaun, baño ez a bestean epetsurik: baitegi-edaria bai emon leist zure yauntasunak nire txirotasunaren begirapenez; baño zure aginduai yarraiteko zelan izan nendikenez zure gexo, drakma bateko kezkarik izan leie yakintsuak, naiz, kezkea bera be.

EBAZ.—Zure aurka zure biziagazko salakuntzak egozanean nigana etorteko dei egin neuntsun nik.

FALS.—Eta ni enintxatsun yoa lurralde onetako gudaritza-legeetan aitua nintzalako ta ez yoateko onua emon eustelako.

EBAZ.—Tira ba, egia da, Sir Yon, laidu itzala dozula zure ganean.

FALS.—Nire garrikoak lotuten dauenak ezin izan lei gitxiagorik.

EBAZ.—Eskuarte gitxi dozu zuk, eralketak, barriz, andiak.

FALS.—Bestera izatea gurago neunke nik; gurago neunke nik eskuarte andiagorik eta garri lerdanagorik euki.

EBAZ.—Okerreko bideetatik erabili dozu zuk bakalseme gaztea.

FALS.—Neu be okerreko bideetatik erabili nau bakalseme gazteak: urlri sabel-andia naz ni, bidea erakusten daustan nire txakurra a.

EBAZ.—Tira ba, etxat bape gogoko zauri osabarririk minduterik: Shrewsbury'n bein egin zendun otseintzeak urre apur bat ezarri dau tso ganean arako Gadshill'en zuk gabaz egindakoa: esker oneko izango al zatzakoz aldi artega oneri arako zure egitetik okerrik etorteka alde egin dozulako.

FALS.—Ene yaun...

EBAZ.—Baño zerak ondo doazanazkero, orro-

tan bego; ez egik iratzarri lotan dagon otso-rik.

FALS.—Azeriari usain egitea bestean kaltegarri da otso-rik iratzartea.

EBAZ.—Ostera! Zati-rik andiena erreta dagon argizaia langoxe zara zu.

FALS.—Yai-argizaia lango, ene yaun; koipe utsezko: nire gizentasuna argizaizko dala esango ba'neuntsu, guzurra esango neunskieu.

EBAZ.—Zure arpegiko bizar zurietatik batek be eleuskizu eragin bear bentasunaz bestera.

FALS.—Gizenásunera, gizentasunera, gizentasunera eragiten daust.

EBAZ.—Angeru geztoa legetxe zabilkoz zu batera ta bestera bakalseme gazteari yarraika.

FALS.—Olangorik ez, ene yaun; arina da zure angeru geztoa; ni begiratu nagianak, ostera, nire astuntasunari yaramoteka (pizetu barik) artuko nauela ditxarot: eta orraitioño be, zer batzuetan, ba-dautort au, niri yaramonik be egiteka, aurrera doaz, zegaitik danik eztakidala. Ain gitxitzat esten da onindarra, saltzea nagusi dan egunotan-eta, artz zain egin da benetako adorea; edaletxeko saltzalla egin da burua beteko argitasuna, eta dana agortuten da zenbateko zorra egin dozun atera ta zorraren agiria zuri emoten: gizonaren beste zer on guztiak, gizaldi onetako geztokeriak ainbesteraño antzaldaturik, arakatz bat añaoko be eztira esten. Zuok zarrok eztozuez aintzakotzat artzen gu gazteen geitasunak; zuon beaztun mingotsagaz neurriten dozue gure gibeletako beroa; eta gure gaztediaren aurrendari gareanok, atzelariena be egiten dogu bein edo bein, eta badautort au be.

EBAZ.—Zartzaroaren ezaugarri guztiakaz zartzat idatzita zagozan orrek gazteen izenen lerroan imini gura dozu zure izena, ala? Ezo ta negar-darioka eztozuz begiak, ala? Legor eztagoz zure eskuak, ala? Eztagoz zurbildurik zure mosuak, ala? Eztagoz urdindurik zure bizarra, ala? Eztagoz loka zure zangoak, ala? Eztozu azirik zure sabela, ala? Etago ausirik zure abotsa, ala? Eztago estuturik eta laburturik zure arnasea, ala? Eztozuz okotz bi, ala? Eztozu zure buru-argitasuna moteldurik, ala? Eta zure atal guztiak eztagoz zarren zarrez tximurturik, ala? Eta ori ta guzti be gatzetzat etsiko ete dozu zure burua? Ut, ut, ut, Sir Yon!

FALS.—Ene yaun, arrastiko irurretan, or orren baten, yaio nintzan ni, burua zuri ta sabela arean borobildurik nebazala. Nire abo-

tsagazko, oio ta santsoka ta elex-abestietan galdu dot. Eztot galdu gura astirik geiago gazte nazala zuri erakusten; egia esateko, sentzunez eta adimenez bakarrik nozu zar; ziikin bizkorragorik zeñek egingo niri eupada egin dagistanak, dirua aurreratu dagistala ta gero ikusiko dogu. Bakalsemeak emon eutsun belarrondokoagazko..., bakalsemea zakar dalako ak emon eta zuk artu zendun, yaun sokor zarealako. Asarre egin neuntsan nik orrako orregaitik, eta damuturik dago leoi gaztea; arrano. arrano! ez zorrokiz yantzi ta autsetan itzulteko lain, seda barriz yantzi ta ardao zarretan itzulka ibilteraño baño.

EBAZ.—Tira ba, lagun obarik bidaliko al deuto Yaungoikoak bakalsemeari!

FALS.—Aren lagunari bidaliko al dautso Yaungoikoak bakalseme obarik! Ezin dot alde egin agandik.

EBAZ.—Tira ba, alkarregandik banandu zauez bakaldunak zu ta Endika bakalsemea: dantzudanez, Lancaster'ko Lord Yon'egaz yoa-teko zara zu, Gotzaiburuaren eta Northumberland'eko kondearen aurka.

FALS.—Bai; eta eskerrik asko zertzeladokaitik zure buru-argitasun txerakor eta adiguri-tsuari. Baña, beçira, nire Andera Bakeari etxean mun egiten dautsazuenok arren egizue gure gudaroste biak egun beroz alkar yo eztagi. Yaungoikoa-arren, ba, atorra bi baño eziaroadaz aldean, eta eztaoro izerdi andirik botateko asmorik: egun be-roa ba' dadi, eta nik nire bonbilaz besteri eragitekotan, txu zuririk ez al dot egotziko barriro nire bizian. Egite galgordelsuk bere burua erdi-erakustekotan, ni ezin naz egon bertan sariu bagarik; tñra ba, befiko ezka-ra; baña beti izan da gure Ingelanda'ren marroa, zer onik izatekotan, zer on ori guz-tienegi egitea be. Zar nazala esan gura ba' dozu, atsedena emon bez leuzskit. Yaungoikoa-arren, nire izena ez al litz dan bestean itzal eta ikaragarri arerientzat: oba litxakit ugarrez il, beti ibiliaren ibiliz deusik ezertatu baño.

III AGEKLEKU.-YORK. Gotzaiburuaren yauregiko leku.

YORK'edo GOTZAIBURUA, HASTINGS, Mowbray, eta BARDOLBA LORDAK aurrera.

GOTZ.—Onan *ba*. entzun dozue gure zegaitia, eta ba-dakizue gure eskuarteak; eta, nire adiskide zindo zindook, gure itxaroakazko zuon eretxiak argi ta garbi fragarri egisku-

EBAZ.—Tira ba, zindo izan zadiz, zindo izan zadiz; eta Yaungoikoak onetsiko al dau gudurako zure bidea.

FALS.—Zure yauntasunak ez ete daustaz aurreratuko milla bat libera nire burua orniduteko?

EBAZ.—Peni bat bez, peni bat bez; epebakoe-gi zara zu kurutzerik eroateko. Onik eta ondo ibiliko al zara: nire gorantziak nire lengusu Westmoreland'entzako. (Alde Ebaz-kt Nagusioác eta bere Lagunak).

FALS.—Olangorik egin ba'dagit, iru gizon garratzek erabiiteko gabiz yo ta opilduko al nabe. Gizonek ezin dauz alkarregandik banandu a'dina ta gefagokeria, soin gaztea ta lizunkeria banandu leikezan baño bape errazago; baña ezoerik minduten dau bata, ta gatx lotsagarriak bestea; eta, orregaitik, gatx b'ak aurreratuten dauste eurai biraoka ibilibearra. I, mutiko...

ESKU-M.—Yaun?

FALS.—Zenbct diru yagok nire sakelean?

ESKU-M.—Zazpi "groat" eta peni bi (4).

FALS.—Ezin idoro yoat osapiderik sakelaren iristute onentzako: yesanazkero, bere gatxa luzatu baño etxoat egiten, baña gatxa bera osagatxa dok. Oa, eroaiok idazki au Lancaster'ko nire Lordari, bakalsemeari beste au; Westmoreland'eko Kondeari beste au; eta beste au, ni oarturiko lenengo bizar zuria nire okotzean agertu yatanazkero beragaz ezkonduko nintzala zin egin neuntsan Ursule andereari. Atzari ta igitu adi, mutil; ba-dakik non idoroko noka. (Alde dagi esku-mutilak) Gatx lotsagarriak eroango al dau azur-gatx au! naiz, azur-gatxak eroango al dau gatx lotsagarri au! Zitalarenak dagioz batak edo besteak nire beatz nagusiari-ia. Dana dala, bape eztautso ardu-ra iñori ni meikika ibilteak; guduak dodaz nire gaixen errua ai ezarteko, eta ainbat bidezkoago izango da emongo dausten urteko ordaina. Edozeri ateraten dautso onurea ta koipea buru argiak. Naierak aterako dodaz nire gatxetatik. (Alde dagi).

zuez, arren; eta lenen, lord marxal, ze eretxi dozu zuk?

(4) "Groat" dalako au Ingekmda"ko beño-lako txanpona yatsu, irakurla; lau penikoa bera.

MOWB.—Ontzat eta zuzentzat dot nik gu ya-gi ta yuk iskilloeffiara yoteko dogun zegaitia; baña pozago ta nasaiaigo nengoike, bakaldunaren indarra ta aren alari arpegi emoteko ondo ta sendo gerturik ba'gengoz.

HAST.—Ogei ta bost milla gizon dira dago-neko baturik eta lerroturik doguzanak, bost milla gizon autu; eta Northumberland andiaren laguntzearen itxarotikoak dira ganetiko indarrik geienak, eta artu dauzan irai-nez suturik eta erretan dago aren biotza.

L. BARD.—Olan ba, Lord Hastings, onan dago gure arazoa; asko izango ete da orain dogun ogei ta bos milako indarra Northumberland bagarik gogor egiteko?

HAST.—Agaz bai, agaz gogor egin-ezinik ezto-gu.

L. BARD.—Bai, arrano! ortxe dago untzea; ba-ña a bagarik makalegi gareala uste ba'da-gigu, nire ustez ezkeunke aurreregi yo bear, aren laguntzea gure eskuetan euki arte; izan be, ba, onango egikizun antz ain odol-tsudunean ezkeunke ontzat artu bear bai-urteanik, itxarorik, eta bada-ezpadako la-guntzaren susmorik.

GOTZ.—Egi baño egiago da ori, Lord Bardol-ba; egin-eginean be orixe yazo yakon Shre-wsbury'n Hotspur'eri-ta.

L. BARD.—Orixo yazo yakon, bai, ene yaun; itxarotsu yarri zan a arerioaren aurrean, la-guntza aginduzko eguratsa yan eban, bere gogaketarik txikiena baño txikiago zan indarragaz arroturik; eta olan, bere irudimen andiagaz, gizon zoroena dan irudimen andiagaz, eriotzara eroan ebazan bere indar-rak eta, begiak itxita, ondamendira egin eban yauzi.

HAST.—Baña, zure ederra izango al dot, egu-ño bein be eztau egin kalterik egi-antzak eta laguntza-itxaroak noragiñoko diran ikusteak.

L. BARD.—Bai oraingoa lango guduan; eta izan be, une onetako egikizunean, esku ar-tean darabilgun auzi onetan izan daikegun itxaroa ta goxetiko udabarrian agertuten di-ran lorena ainbateko dira; lorotatik igalirik etorriko dan itxarorik baño leiak erreko dau-zalaren bildur geiago izaten dogu-ta. Etxe, naiz beste olangoren bat eragi gura dogu-nean, bera eragiko dogun lekuko lurra ikusten dogu lenen, eredia marratu gero; eta etxearen irudia dakusagunean, orduan yo bear dogu zenbakietara, eragiteak zen-bat eroango daskun ikusteko; eta al idogu-nez gora yoten dauela ikusi ba'dagigu, zer egiten dogu orduan atal gitxiagodun eredu bertanbera itxi baño? Bakalderri bat lurre-

ratu ta beste bat eragitea dan gure lan andi or-etan askozaz be benrrekoago litxa-kigu etxea non eragiteko lekua ta eredia ikusi ta aztertu, seguru egon oñari sendoa dauela, aituai itandu, yakin noragiño el-tzen diran gure eskuarteak, gauz garean ala ez orrenbesteko eralgi-bearrari erantzuteko, gure eskuarteak gure arerioarenen aldean iminirik; olangorik ez egitekotan, gure aldeko indarrak papel eta zenbakietako ba-karrik izango dira, gizonen ordez gizonen izenak izango 'doguz; etxerik eragiteko ere-dua bere eskuarteez gorakoa marratuten dauenaren antzeko izango gara; olangorik dagianak, ba, bertanbera izten dau etxea erdi-eragian, eta erdi-eragia or izten dau narru gorrian odei negartien bendeko, ta negu zakarren gordinkeriak ondatuteko.

HAST.—Dagigun yaio-barritan il 'd'ala ain zo-ri ontsu yaioteko zan gure itxaroa eta ezto-gula izango doguzan gizonaz ganera bat bera be geiagorik; nire ustez ointxe be in-dar sendorik asko dogu bakaldunarena bar-dinduteko.

L. BARD.—Ba! Ogei ta bost milla baño eztau-z bakaldunak, ala?

HAST.—Geiagorik ez gutzako; areago, orren-beresterik be ez, Lod Bardolba; ba, aren gu-daritaldeak iru dira, or diñoenez, zurrumu-rruak diñoenez; Pantzetarren aurkakoa bat, eta Glendower'en aurkakoa beste bat, eta irugarrena nai-ta-nai-ez gure aurkakoa; olan ba, iru zati eginda dago bakaldun lokea; eta txirotasun arroz eta utsez ots egiten da-be aren dirukutzak.

GOTZ.—Eztogu izan bear bildurrik bere indar guztiak baturik gugana bere indar osoagaz etorriko danik.

HAST.—Olangorik egin ba'legi, iskillu barik itxiko leuke bere bizkarra, Pantzetarrak eta Kimuruak atzetik ara txakurrak lez letorko-zala; ez izan bein be olangoren bildurrik.

L. BARD.—Nor etorriko ete da aren indarren burutzat?

HAST.—Lancaster'ko Dukea ta Westmoreland; bera ta Endika Monmouth, Kimuruen aurka; baña eztaikit seguru nor dan Pantzetarren aurka doan ordezkoa.

GOTZ.—Aurrera yo dagigun, eta iragarri ta aldarrikatu dagigun zegaitik artzen doguzan iskilluak. Aberriak berak eztaki zetara yo; aseegi egin dau bere autapena egiteko irri-tsaren irritsak; bizileku loka ta segurantz-rik bagakoa dau erriaren biotzean etxerik eragiten dauenak. Maitasun aldakordun erri ori! Ik bai otsen otsak ateraten euazan txaloka ta Bolingbroke onesten ik gura eua-

nik a izan baño len! eta orain, ire gurariez besterik ikusirik, ik, abere salo orrek, agaz ain beterik ago-ta, okadaka atzera egotzi gura dok eure kitetik. Olantxe, olantxe, erri txakur orrek, egotzi euan ik ire sabel salo-beratik Errikarta bakaldarra; eta orain barriro iruntsi gura eunke ik okadaka egotzi ta orain ilik dagona, *eta* or daragoiok *ausika* aren billa. Zelan izateko uste onik aldiotan? Errikarta bizirik zanean ilik gura ebenak eurak orain aren ilobian maitemindurik aurkituten dira; ik; ik, *a* London arroa zear

intzirika Bolingbroke'n orpo zurgarrien atzetik yoianean, buru-ganera autsa yaurtin eun-tsan orrek gedar egiten dok orain "Lur ori, ekaguzu barriro bakalduna, eta artuizu au!" Gizon donga gaiztetsien gogaketen! igaroak eta etorkizunak dirudie onen; orain-go zerak txarren.

MOWB.—Gure gudariak zenbatu ta bidean yarriko ete gara?

HAST.—Eretiareen bendeko gara gu, eta goazala aginduten dausku eretiak. (Alde dagie).

II EK . TALDI

I AGERLEKU.—LOH DON. Etxartebide bat.

Arroztonoa, FANG eta bere Mutila arroztonoagaz, eta SNARE euren atzetik, aurrera.

ARROZT.—Master Fang, eskakizuna egin dozu, ala?

FANG.—Bai, egin dot.

ARROZT.—Nondik da zure auzi-laguna? Auzi-lagun mardoza ete da? Gogor egiteko gauz izango ete da?

FANG.—I. txotxo, nondik dok Snare?

ARROZT.—Ene Yaungoikoa! bai! Master Snare ona.

SNARE.—Emen nozu, emen nozu.

FANG.—Snare, estu egin bear yoagu Sir Yon Falstaff.

ARROZT.—Bai, Master Snare on; zer askogaitik salatu dot nik *a*.

SNARE.—Ba-ledike gutatik baten batzuk euren biatik galtzea, ak ezpatakadak emongo dauz-eta.

ARROZT.—Egunaren zori txarreko! Arduraz ibili zadize; neure etxean emon eustan ak ezpatakadea, eta zakarkiro emon be, gero! Egia esateko, ari eztautso ardura ze okerri egin, aterata ba'dau bere iskilloa: txerrenak legetxe erabiliko dau ak ezpatea; ak eztautso yaramonik egingo ez gizoni, ez emakumeri, ez umeri.

FANG.—Eldu al ba'dagiot, eztoz aren zartalden ardurarik.

ARROZT.—Ez, ez neuk be: zuri deutsudala egongo naz.

FANG.—Bein ukabilkada bat emon ba' dagiot; nire ordeazkoaren benderatu ba'dadi.

ARROZT.—Ondaturik nago ak alde eginagaz; segurutzat dirautsuet nire sarlu-urten idaztarian atzen bako zorra dauela ak. Master

Fang on, seguru eutsin egiozu; Master Snare on, ez egiozu itxi iges egiten. Eten bagarik etorten da *a* Pie-corner'era (parkaluko al daust zuon gizatasunak), bastea erosteko (5), eta Lumber Etree'teko Lubber's Head'en Master Smooth sedadunarenean bazkaiteko deituta dago: arren, nire eskakizun-salakuntzea eginik dagonazkero, eta niri yazoa mundu guztiak ba-dakianazkero, erantzun dagio-la bere zorrari. Geiegi dira eun marko emakume bakar beartsuk yasateko; eta nik yasan, yasan, eta yasan egin dodaz: eta ordaindutea beti gerorako, gerorako, gerorako, egun batetik besterako izten izan dau-ta, gomutetea bera fce lotsagarri da. Eztago ezetarik zindotasunik olango eragokeran, edozein zitalen okerreriak eroateko, emakumea lenago astotu, naiz aberetu ezik. An dator; bai bera ta bai zital ezagun ardao-sur Bardolba be. Egin zuon egikizunak, egin zuon egikizunak. Master Fang eta Masier Snare; egidazue, egidazue zuon egitekoa.

SIR YON FALSTAFF, Esku-mutila, ta BARDOLBA aurrera.

FALS.—Kaxo! Noren beorra il da? Zer yazoten da?

FANG.—Sir Yon, lotu egiten zaudaz Mistress Quickly'ren eskariz.

FALS.—Ken akit, zital ori. Alde, zitalok! Atera egik ezpatea, Bardolba; moztu egidak

(5) "Basta" izenez "emagaldu" eston gura dau emen.

zital onen burua; ur-bidera egotzi egik emakunec iGisagacLU cu.

ARROZT.—Urbidera egotzi be ni! Zeu egotziko zaudaz urbidera. Egotziko ete nok? Egotziko ete nok? Zital sasikume ori, alango ori3 Erail, erail ori! Eztizale zital ori! Yaungoikoaren eta bakaldunaren otseinak eraigo ete -dozak? Ezti edoskitzalle zital ori! Etl edoskitzalle zara zu, bci; gizerale ta emakume-erale,.

FALS.—Ez egiek itxi urreratuten, Bardolba.

FANG.—Lagunak! Beto lagunak!

ARROZT.—Gizon onok, beste gizon bai, naiz bi ekarri egizuez. Gurozu? Eztozu gura? Gurozu? eztezu gura? Egizu, egizu, zital orrek! Egizu, kalamu-azi orrek!

FALS.—Ken zakidaz, ontzi-garhitzalla ori! Ken zakidaz, lotsabako ori, ken zakidaz, zirtzil ori! Neuk ekarriko dot zure ondamendia.

Lerd Ebazla Nagusia aurrera, lagunagaz.

EBAZ.—Zer yazoten da? Bakean zagoze, gero!

ARROZT.—Ene yaun on, on izan zakidazi Nire alde yarri zakidaz, arren!

EBAZ.—Kaxo, Sir Yon! Ba! zer darabiltzu emen iskanbilla onegaz? Zure lekuari, zure adinari ta zure egikizunari dagokunik ete da onako au? Onazkero York'erako bidean izan bear zeunkean zuk. Alde egik orregandik, txotxo; zer dala-ta deutsok orri?

ARROZT.—Ui! ene yaun begiragarri ori, zure yauntasunari eder izatekotan, Eastcheap'eko emakume alargun errukarri nozu ni, eta nire eskariz lotu dabe ori.

EBAZ.—Diruen batzukaitik, ala?

ARROZT.—Batzuk baño geiagogaitik, ene yaun; guztiakaitik, dodan guztiagaitik. Etxe ta etzalde, do:na iruntsi daust; or berorren sabeltzar orretara sartu dauz nire ondasun guztiak: baña nik ostera be neureganatu gura dot ortik zerbait, ostantxean gabetan beorr-antzean ganean yarriko natxatsu.

FALS.—Beorrari ganean neu yarriko natxakola uste dot nik, ganera igoteko lurrik neure alde izatekotan.

EBAZ.—Egia ete da orrako ori, Sir Yon? Uf! Nongo gizonek, nasaienik izan-arren, yasateko agiriken agirikok? Ez ete dauzu lotsarik emoten bereaz yabetuteko emakume alargun beartsurik onango bide latz-gogorrik artu-bearrean iminteak?

FALS.—Zenbat da nik zor dauzudan dirutza osoa?

ARROZT.—Gure Anderea-arren, gizon zindo ba'zintzaz, zeu ta dirua be zor zeunskidaz. Bein, Mendekoste Eguastenez, nire etxeko

Delbin-aretoan, arrikatz-suaren ondoan mai biribilaren inçuruan yezarririk zengozala, zin egin zeunstan eskuan zendun edalontzi erdi-urreztaua-arren. Arako, aren aita Windsor'ko abeslari baten antzeko zala esan zeuntsolako, bakalsemek kaskazurra ausi eutsunean yazo zan orrako ori, eta nik zure zauria ikuzten neragoiola zin egin zeunstem niga?, ezkonduko zinizazala, eta ni andera au zure emazie egingo ninduzala. Ukatu egingo ete dozu au? Etzan Earú orduan nireera Keech ona, arakínaren emaztea, eta enendun deitu adiskide Quickly, ala? Ozpín apur baten eske eforren a; ontzikada on bat otarraintxo ebalá esan euskun ak, eta zuk erduan euretafik arean yateko gogoa iragarri zeunstan; eta, eneunstan esan nik orduan kaltegarri zirala zauri barrisntzako, ala? Eta a zurubia bera yoiala, etzeunstan iragarri eixatsula gçgoko ni alango yente beartsuren adiskide izatea, luzaro bagarik andera deituko ninduela esanaz, ala? Eta etzeunstan mun egin, eta ogei ta amar xilin etzeunstan eskatu, ala? Oraintxe iminiko dau suturrean Idazteuna; ukatu egizu orrrako ori, al ba' dozu.

FAÍ S.—Ene yaun, emakume errukarri burutik eginá yaisu o.u; efa or dabil uria gora, uria bera, esaten zure antzeko dala bere semerik zarrena; egokera onean egonc yatsu au, baña bearrak burutik egin dau sala da egia. Baña ern-otsein ergelokazko, irabazi datena euroi ordainduteko zure ederretsia emongo <l daustazu.

EBAZ.—Sir Yon, Sir Yon, ezagun yatak egiari guzurr-antza ta guzurrañ eoi-antza emoteko ik dokan trebetasuna. Ez betozko ustetsuk, ez ire itz-erio lotsabakok, etxausiak alde eragingc zerak nasai ta zuzen ebaztetik; *giri yatanez eta dakusadanez, txarto erabili izan dok ik emakume sinisbera ustetsu au, onen soña ta sakelo, biak ire ctsein eginik.

ARROZT.—Bai, egia da ori, ene yaun.

EBAZ.—Ixilik zagoz, arren. Ordaindu egiok dauzkan zorra, eta ordaíntzeka itxik egin dauzkan zitalkeria; bata liberaz ordaíndu-ezinik eztoz, ezta bestea be, damutuaz.

FALS.—Ene yaun, e2in dot yasan salakuntza au erantzunik emcn bagarik. Lotsabakokeri zantar deituten dozu zuk azartasan zindoa: gizonen batek txeraen bat egin ba'dagi ta ezer esan ez, onindartsutzat esten da: ez, ene yaun, nire egikizun apala gogoraturik, enatxatsu ibiliko eskean. Nik dirautsudana zera da, nire burua erri-otseinokandik ya-

- rei ikusi gura dodala, bakaldunaren arazoak estu ta larri naukie-ta.
- EBAZ.—Okerreririk egiteko bere eskuko danak legetxe izketan daragoiozu zuk; baña zure entzute onari dagokonez erantzun eta zorra ordaindu egiozu emakume errukarri oni.
- FALS.—Zatoz ona, arroztuno. (Bazterrera daroa).
- GOWER aurrera.
- EBAZ.—I, Master Gower..., ze barri dok?
- GOWER.—Emendik ur dira, ene yaun, bakalduna, ta Endika Kimuuerriko Bakalsemea: papel onek diño ganetikoa (Idazki bat damotso).
- FALS.—Aitonseme nazan aldetik...
- ARROZT.—Bai, olan esan dozu zuk len be.
- FALS.—Aitonseme nazan aldetik: tira, aiatu bez geiago orrako ori.
- ARROZT.—Ostikopean dodan lur au-arren, urrezurizko nire erredizak eta nire bazkaldegiko orma-zapiak baitu-bearrean aurkituko naz ni.
- FALS.—Leiarrezko edalontziak, leiarrezko edalontziak dira asko, edateko: eta zure ormakazko, ur-lanez egindako orma-margozki arin alaiok, naiz Seme Ondatzalleagazko Ipuña, naiz Germanitarrak eizean, oe-errezelon eta zedenak yandako orma-zapion aldean milla bider geiago gei yatsuz. Amar libera izan idaitzala, eder ba'yatsu. Tira, zure muke-rraldiagaitik ezpa'litz, elegoke zu baño emakume obarik Ingelanda osoan be. Tira, ikuzi egizu zure mosu ori, eta atera egizu salakuntza ori. Tira, eztozu egon bear orren muker nigaz; enozu ezagun, ala? Tira, tira, ba-dakit norbaitek bultzau zauzala orretara.
- ARROZT.—Arren, Sir Yon, Ogei "zindo" (B) izan daitezala; egia esateko, lotsatu egiten nau nire urrezurizko ontziak baitu-bearrak; emoidazuz, Yaungoikoa-arren, aor.
- FALS.—Ez egizu aiatu be egin olangorik, bego ori; beste norbaitegana yoko dot; ergel izango zara zu oraindik be.
- ARROZT.—Tira ba, Zuk esan dozunez bedi, neure atorea be baitu bear ba'dot be. Ba-ditxarot apalduten nirera etorriko zareala. Dana batera ordainduko daustazu, ala?
- FALS.—Bizi danak dakuske. (BARBOLBAri) Oa orregaz, oa orregaz; amua ondo egotzi egik, amua ondo egotzi egik.
- ARROZT.—Apal-orduan Doll Tearsheet nirera etorterik gura ete dozu?
- FALS.—Itzik bez geiago; datorrela. (Alde Arrozt., BARD., Uri-otsein., eta Esku-mutilak).
- EBAZ.—Ba-dot nik barri obarik.
- FALS.—Ze barri da orrako ori, ene yaun on?
- EBAZ.—Non etzan ida bakalduna bart?
- GOWER.—Basingstoke'n, ene yaun.
- FALS.—Ditxarodanez, dana ondo al dago, ene yaun; ze barri dozu, ene yaun?
- EBAZ.—Bere indar guztiak ete daloz atzera?
- GOWER.—Ez; Lancaster'ko nire Lordagana yoan dira amabost milla oñezko, eta bost milla zaldizko, Northumberland eta Gotzai-buruaren aurka.
- FALS.—Bakalduna Kimuuerritik atzera dator, ene yaun zindo, ala?
- EBAZ.—Laster izango dozuz nigandiko idazkiak; erdu, zatoz nigaz, master Gower on ori.
- FALS.—Ene yaun!
- EBAZ.—Zer yazoten da?
- FALS.—Mester Gower, nigaz bazkalduteko dei egingo ete dautsut?
- GOWER.—Emen dagon yaun onen otseintzan egon bear dot nik. Eskerrik asko, Sir Yon on.
- EBAZ.—Sir Yon, astirik geiegi galtzen dozu zuk emen, bidean yoan-ala kondetegieta guda-riak batu-bearrean zagoz-eta.
- FALS.—Nigaz apaldu gura ete dozu, Master Gower?
- EBAZ.—Nongo irakasla ergelek irakatsi dautsuz era-merok, Sir Yon?
- FALS.—Master Gower, ezpa'dagokidaz eramero, zoroen batek irakatsi daustaz. Au da ezpata-yokoko gatza, ene yaun; ezpata-kadea ezpatakadeari, ta kitu.
- EBAZ.—I, Yaungoikoak argituko al au! Zoro izalaraz, (Alde dagie) (6) Xonpon yatsu emen "zindo" dalako au; sei xilin eta zortzi penikoa.

II AGERLEKU.-Lengoxei i. Beste etxartebide bat.

ENDIKA BAKALSEMEA ta POINS aurrera.

BAKALS.—Yaungoikoa-arren, eiorik baño eioago naiagok.

POINS.—Ori dogu? Olango goiko odolekori intsigiten nekea etzala azarten uste neban nik.

BAKALS.—Egia, intsigi yatak; ori autortuteak nire anditasunari koloreak kendu-arren. Ez ete dok zakar eta zirtzil niizako. edalontzibete garardo arin edan-gurea iragartea?

POINS.—Ba! Balralsemek eleuke izan bear olango lera nasairik, olango edari makalik danik be iragarateko.

BAKALS.—Olan izatekotan, ba-ledikek nire lerearen sortzea bakalsemekiro sorturik ez izatea, egia esateko, ba, zer zirtzil ori, garardo arin ori gogoratuten yatak orain. Baña, benetan, nire anditasunagazko maitasuna galduazo egiten yaustek lera zakarrok. Ze laidorik yatorkidak ire izena gomutaute-tik? Naiz, biar ire arpegia ezaututetik? Naiz, ik zenbat sedazko bitsuk dozakan oartutetik, zera, orreik eta mertxika-koloreko ziran besteez oartutetik? Naiz, ire atorrak, aldean dokana ta aldagarriak zenbat diran yakite-tik? Baña tenistegiaren yagoleak yakiten yok ori ondoen, eta ire sarea an agiri ezta-nazkero, azpiko soñekotan urri abil, urrean; aspaldian ezto yokatu izan, ire bealdetiko besteak, ire Nederlanda'k ire Holanda-at-orrak iruntsi dauzalako (7), eta Yaungoikoak bakarrik yakik ire azpiko soñekoak daroe-zala gedarrez diñoenak Bere bakalderriaren yarausla izango diran, ala ez; baña, emaginak diñoenez, umeak eztabe erurrik; mundua geitu, ugaritu egiten dok bide orre-tatik, eta senitartea asko sendotu.

POINS.—Oker be oker dator zure erago bu-rubako ori zure neke gogorren ostein! Esai-dazu, zenbat bakalseme onek egingo leukie olangorik euren aitak zurea orain dagon bestean gexorik egotekotan?

BAKALS.—Zertxo bat esango ete dauskat, Poins?

POINS.—Bai, bai orixe; eta zer eder baño ©derragorik izango al da bera.

BAKALS.—Onik eta ederrik asko izango dok ik baño aziera obarik izan eztaben adime-mentzat.

POINS.—Esan ba; gerturik nago zuk esan gura daustazun zer bakar orren bultzadea-ri eusteko.

BAKALS.—Arrano! Nire aita gexorik dagolako ni gotilun egoterik eztaala egoki esango daus-kat, nik esan al izan-arren iri (obarik eza-goitik adiskide deituko neunken gizcni lege-txe) gotilun egon, egon nendikela eta goti-lun egon be eçon.

POINS.—Gatx liñxakizu orrako orregaitik go-tilun egotea.

BAICALS.—Esku au-arren dirauskat, txerrena-ren idaztjan eu ta Falstaffi bestean barru-barruan nagola uste dok ik, burugogorkeri ta tinkokericxgaitik. Atzenezan ikusiko dok nor dan nor. Baña nik dirauskat, odola da-riola dodala nik nire biotza emen barruan, nire aita ain gexorik dagolako: eta i lango lagun zirtzil zakarrak eukiteak zuzenez ken-du yaustak ezatariko naibagarik erakustea.

POINS.—Zegaitik?

BAKALS.—Zer uste izateko ik negarrez ikusiko ba'nindukek?

POINS.—Azalutsik bakalsemerentzat etsiko zindukedaz.

BAKALS.—Edonok etsiko leuke olan; eta, txo-txo, onetsi az i edonok uste izango leukena uste dokalako: ireak bestean bere bidea ya-goten etxakik mundu onetan beste iñoen ustek; izan be, edonok ninduke azalustzat. Eta zek zirikatuten yok ire gogaketa begi-ragarria olango usterik izatera?

POINS.—Ba! Orren lizunkeritsu ta Falstaffi'eri orren intsigia ta orren mentatua izan zarea-lako.

BAKALS.—Bai iri euri be.

POINS.—Argi au-arren, nitzaz ondo itz egi-ten dau yenteak; nik neure belarriokaz ent-zun daikek nitzaz esaten dabena: bigarren anai nazala, ta neure eskuak egina nazala da nitzaz esan leikienik txarrena; eta zer biok nire ez izaterik eztago nigan, eta autor dautort. Mezea-arren, emen dator Bardolba.

BAKALS.—Bai Falstaffi'eri nik emoniko esku-muñila be; kistar zcan ori nik emon neun-tsanean, eta ikusi baño ezto zelan ma-txangotu dauen zitaltzar ak.

(7) "Beeko Lur" esan gura dau Nederlan-da itzak; eta emen bakalsemeak sasikumea-kazko zipladaka daragoio; soñaren ba-alde-tiko sasikumeez; orreik izten ei dabe Poins bere soña erdi-narrugcrritan, orreik yantzi-bearrak.

BARDOLBA ta Esku-mutila aurrera.

BARD.—Yaungoikoak yagongo al dau zure eskarra!

BAKALS.—Bai irea be, Bardolba zindo zindo ori!

BARD.—(Esku-mutilari) Ator, asto onindartsu ori, erge! uxori, lotsatu egin bear dok, ala? Zegaitik lotsatuten az orain? Zelango gudari neskatar biurtu atxalru? Orrenbeste-ko obena dok ardao-ontziari bere neskatasuna kentzea, ala?

ESKU-M.—Ene yaun, ointxe ointxe dei egin daust sare gorridun leiotik, ela sarelik ezin berezi izan dot orren arpegiko txatalik be: alango baten begiak ikusi 'dautsadaz kirika; eta garardotegiko anderearen gona gorrian zulo bi egin eta andik dirika egin daustala uste izan dot.

BAKALS.—Eztau mutikoak aurrerakadarik egin, ala?

BARD.—Ken akit, kui zutun emagalkume ori, ken akit!

ESKU-M.—Ken akit, Altee'ren ames zital ori, ken akit!

BAKALS.—Irakatsi egiskuk, mutiko; ze ames, mutiko?

ESKU-M.—Arrano! ene yaun, su-ilitia erdi ebalala ames egin eban Altee'k; eta orregaitik deretxat orri aren ames.

BAKALS.—Burestungarri dok ire azalpena: autso, mutiko. (Dirua damotso).

POINS.—Ui! Arrek ez al dau yoko lora eder au! Ori ondo, autsoz sei peni, i yagon agien.

BARD.—Guztion artean ori eskegi ezpa'dagizue. irain egingo dautsezue eskegigalluai.

BAKALS.—Eta zelan dabil ire ugazaba, Bardolba?

BARD.—Ondo dabil a, ene yaun. Entzun dau ak zure eskarra urira etorri dala; amen zutzako idazki bat.

POINS.—Begirapen andiz bidalia. Eta zelan yabik Martin Gurenaren uda ori, ire ugazaba?

BARD.—Soña onik dauela, yaun.

POINS.—Arrano! Osalari-bearra yok atal ilezinak; baña orren ardurarik etxok ak; ge-xorik egon-arren, eztok ilten atal ori.

BAKALS.—Nire txakurra bestean nigaz etxetiar izaten itxi yautsat nik iko orri; eta eutsin egiten yautsak ak bere lekuari; begira, ostantxean, zelan idazten daustan.

POINS.—(Ba-dirakur) "Yon Falstaff, zaldu-rak...". Edonok yakin bear dau orrako ori, eretirik dauen bestetan nobere izena aitatutea; bakaldunaren nesideak letxe egiten

dau; onakook, ba, ziztadarik artuazkero euren atzen baten, beti esan daroe "Ixuri da bakal-odolik arean, Zelan yazo da au?" diño norbaitek, aitu ezin dauenarena eginda. Eta dirua yesaten daustaren txapela bestean geturik dago erantzuna, "Bakaldunaren lengusu nozu, yaun".

BAKALS.—Bai, izan izango dira gure senide, *ei*o, ostantxean, Yape'tegana yoko dabe sentitasun-billa. Baña goazan idazkira.

POINS.—(Ba-dirakur) "Sir Yon Falstaff, zaldu-nak, bakaldunaren semeari, aren aitagandik urrenari, Endika Kimuruerriko Bakalsemeari, agur" Ba' seguraniza-autorpena dok au.

BAKALS.—Ixilik!

POINS.—(Ba-ddrakur) "Erromarrak 'iangoxe izango naz adozez"; adorerik barik, labur esan gura dau ak, seguru be, arnas-labur, arnas-estu izango dala. "Zuri gorantzituten natxatsu, zuri gorantzituaz, agur dagitsut. Ez izan etxetiarregi Poin'segaz; zure eskar-rak, zure esku-erakutsiak ain txarto darabiltz, ba, orrek-eta, bere arraba Nell'gaz ez-konduteko zarea la diño. Zure crkolo-aldiez al dozunik ondoen damutuko al zara, eta, olan, agur".

"Zure, bai ta ez (edo bardin dana, zuk bera zalan erabili, alan).

YONTXO FALSTAFF, bere etxetiarrentzako; YON nire anai-arrebentzako; eta SIR YON, Europa osoarentzako". Ene yaun, ardan-zuku egingo dot idazki au, eta gero berari yanazo.

BA KAI S.—Ori ta bere itzetatik ogei yanazotea bat litzake. Baña olan erabili ete nok ik, Ned? Ire arrabeagaz ez-konduteko ete nok?

POINS.—Ori baño zori txar andiagorik ez al 'dau izango neskato ak! Baña nik eztot esan eguño olangorik.

BAKALS.—Tira ba, onan dagigu guk ergelena aldiagaz, eta yakitunen gogoak or dozuz odeietan goian guri irrika. Emen London'en ete yagok ire ugazaba?

BARD.—Bai, ene yaun.

BAKALS.—Non apalduteko dok? Txarritegi zarreran apalduteko ete dok apo zarra?

BARD.—Lengoxe lekuan, ene yaun..., Eastcheap'en.

BAKALS.—Laguntzat nortzuk dauzala?

ESKU-M.—Epeso'tarrak, ene yaun, lexa za rrekoak.

BAKALS.—Emakumek apalduten ete dau agaz?

ESKU-M.—Mistress Quickly zarraz eta Mistress Doll Tearsheet'ez bestek batek bez.

BAKALS.—Ze kistarr-ez dok orrako ori?
 ESKU-M.—Benetako aiton-alaba, yaun, eta nire ugazabaren senide.
 BAKALS.—Uri-barrutiko beinlxak uriko zezenen senide diran bestean dok a bestearen senide. Otoz otoan elduko ete gaxakezak apaiten daragoioela, Ned?
 POINS.—Zure itzala nozu ni, ene yaun; banarraikitsu.
 BAKALS.—I, txotxo, mutiko, eta i, Bardolba, oraindik urira etorri nazanagazko itzik bez, gero! zuon ugazabari: autoz ixilik egotearen alderako.
 BARD. Miñik eztot nik, yaun.
 ESKU-M.—Eta nireagazko, yaun..., eskuraturik eukiko dot nik.
 BAKALS.—Onik eta ondo ibili; zoaze. (Alde

BARDOLKA'k eta Esku-mutilak). Mutxikinen bat dogu, urrean, Doll Tearsheet au.
 POINS.—Bai orixe! Saint Alban'dik London'era bitarteko bidezabala bestean zapaldua.
 BAKALS.—Zelan irstxi ete daikegu arratsean Falstaff bere narru gorrian, bera dan lan-goxe ikustea, berak gu ikusteka?
 POINS.—Narruzko yake bana ta amantal bana yantzi ta mai-otseinena eginda.
 BAKALS.—Yaungoiko izatetik zezen izatera? Berakuntza andia litxakek ori! Yupiter'eri yazoa dok ori. Bakalseme izatetik ikasla izatera? Goitik berako antzaldakuntzea litzakek ori! Nire izango dok ori; izan be, ba, asmoa zoro danean, zorakeria izan bear yok laguntzat. Arraikit. Ned. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-WARKWORTH. Gazteluaren aurrea.

NORTHUMBERLAND, LADY NORTHUMBERLAND, eta LADY PERCY aurrera.

NORTH.—Arren, emazte maite, ta alaba txerakor, leundu egizue nire arazo latzen bidea; ez egizue egin aldioi dagoken betozkorik, eta ez izan, curak lez, Percy'ntzako kezkabiderik.

LADY N.—Men egina nozu ni-ta, eztot egingo itzik geiago; zeuk zer gura egizu; zeure zurtasuna bekitzu zure bide-erakusla,

NORTH.—Ai ene! baiturik dot nire izen ona, ene emazte kutun; eta ni yoateaz beste ezezag ezin birrerosi izango dot bera.

LADY P.—Ba! orraitio be, Yaungoikoa-arren, etzadiz yoan guduotara! Izan dozu aldirik, aita, orain baño yoan-bear andiagorik izan, eta zuk emondako itza yan izan dozunik; zeure Percy'k, nik biotz biotzez maite neban Endika'k ainbeste bider iparraldea begiratu eban aldia, aren aita bere indarrakaz andik etorkonentz ikusteko; baño alperrik egon zan begira. Nok sartu eutsun orduan buruan etxean egon bear zendula? Entzute on bi galdu ziran an..., zurea ta zure semearena. Zureagazko..., zeruak argi ta didiz eragingo al dautso! Arenagazko..., eguzkiak goiko ortzeko sapaian argi ta didiz egin daroanez, alantxe dagi arenak; eta aren argitasunak bultzau eban Ingelanda'ko zalduntzea egite eskargak egitera: izan be, *a* izan zan gaztedi zindoa aren aurrean apaindu zan ispillua; ez eban zangorik aren ibilkeria beretuten ez ebanak; eta adoretzuak euren edergarritzat artu eben ak yaiotzati-ko ustzat eban bere itz-erio-uriola; a lango-

xe izate-arren, ba, ixiltu ta astiro itz egi-teko ekandua ebenak, euren osotasuna itxita aren utsera yoten eben: olan ba_a elburu ta ispillu, eredu ta ikaskizun-idazti egin zan a itzetan, ibilkeraz, yan-edanean, atsegin-leretan, gurari- arauetan, berezko zeretan, a zan besteen eredu. Eta bertanbera itxi zendun zuk *a*. A bai ba-zala arrigarri! A bai bazan alatz gizonen artean! Inor baño be ez gitxiagorik, eta zuk lagundu bagarik..., gudu-yainko iguingarriaren aurrean, besteak geiago zirala; gudu egiteko Hotspur'en izenaz besterik ezer etzala agiri irudian gudedegian: Olan itxi zendun zuk *a*. Inoz be ez, uil Inoz be ez al dautsazu egingo aren irudiari ari emondako itzari baño besteri emondakoari lotsa ta begirapen geiago izanazko okerrik! Eurak euretara itxi egizuz: ssndo *iha* marxala ta gotzaiburua; arein indarren erdirik izan ba'leu, izan, nire Endika eztiak, ipuñak ipuin eralgi al izango neunkez gaur Hotspur'en idunetik dingilizka, Monmouth'en ilobiaz.

NORTH.—Izurriak eroango al dau zure biotz samur bera ori, ene alaba lirain; adore bagarik izten nozu igaroriko ondamediez barriro negar eginik. Baña, yoan egin bear dot nik, an galgordeari arpegi emoteko; ostantxean, bera ibiliko da nire billa beste nonbaiten, eta orain baño gitxiago gerturik nagola idoroko nau.

LADY N.—Ui! Eskolanda'ra igesi egizu, aitonsemeak eta erri zeak iskillokaz euren indarra noraino eltzen dan apur bat ikusi dagian arte.

LADY P.—Lurr-arlorik irabazi, ta bakalduna

baño geiago dirala erakutsi ba'dagie, orduan bat egizu eurekaz, galtzaiduzko saietzen bat ba'zintzaz lez, indarra indartsuago egiteko; baña, guztion maitasuna-arren, lenen eurak ikusi dagiela nor dan geiago. Orixe egin zeuntsan zuk zure semeari; olan itxi zendun berak beretara yoten; olan alargundu nintzan ni; eta iñoz be eztoz izango astirik asko aren gomutearen ganera nire hegiotatik euriak euri ixurteko, nire senar zindoaren gomutaz.

IV AGERLEKU.-LONDON. Eastcheap'eko Basaurde-buru Ardandegiko leku.

Mai-otsein bi aurrera.

I MAI.—Ze denganiño ekarri dok or? Yon-sa. garrak? (8) Eztakik Sir Yon'ek ikusi be eztauela egin gura Yon-sagarrik?

II MAI.—Mezea-arren, egia diñok. Bein bakal-semeak yon-sagardun ontzia imini yeutsan aurrean, eta beste bost Sir Yon geiago be ba-egozala esan yeutsan; eta, txapela erantzita, esan yoan "Agur egin bear yautset orain sei zaldun legor.borobil, zar, zimeloi". Asarre baño asarreago egin yoan *a* orrako orrek; baña, azturik yok ori.

I MAI.—Ea, orrazksro, estali egik ontzia ta maian imini egik; eta ikusi egik ia zuzendu al dozakan Sneake'ren ereslari diralakoak; gogoko litxakok Mistress Tearsheet'eri eresirik arean entzutea. Bizkor abil; beroegi dok aik apaldu bear daben gelea; bertatik dozak aik emen.

II MAI.—I, txotxo, bertatik izango dozak emen bakaisemea ta Poin; eta gure yake ta amantaletatik bana yantziko yoek; eta Sir Yon'ek etxok yakin bear orrako ori; Bardolba'k ekarri yok barri au.

I MAI.—Mezea-arren, iztenak eragitekoa izango yoagu emen; marro bikaña izango dok.

II MAI.—Aleginalc egingo yoadaz Sneak idoroten (Alde dagi).

Arroztunoa ta Doll Tearsheet aurrera.

ARROZT.—Benetan, kutun.orain zuk gogaldi on baño ohea dozula uste dot; biotzak gurako leukenik bikainenak dira zure biotz-taupadak; eta zure margoa, zure kolorea, bai orixe, edozein larrosarena lain gorri da; baña, benetan, kanari-ardao geiegi edan dozu; eta baztarrak itzalez ondo arakatuten dauzan ardaoa *úa a.* eta "Zer dok au?" esan baño len gozotuten dau odola. Zelan zagoz orain?

NORTH.—Tira, tira ,erdu barrura nigaz. Alkarrren kide ta alkarrren antzeko dira nire go-go ta goren elduta an geldí, ez gora ez bera, egin daroan izkorea. Gogoz eta pozarren niñoake gotzaiburuagaz bat egiten, baña millaka zegaitik naukie emen geldi. Eskolanda'ra yoatea erabagiko dot; an egongo naz, abaguneak eta zerak gure aldera yar-teak nire laguntzea eskatu arte. (Alde dagie).

DOLL.—Len baño obeto: Eje!

ARROZT.—Ba! ondo esan dozu; urreak urre añako yatsu biotz ona. Begira, emen dator Sir Yon.

FALSTAFF aurrera, abestuz.

FALS.—"Artur lenengoz bakaldegiratu zanean...". Ustu egizue txixontzia. (Alde I Mai-otseinak). "Eta aintzako bakaldun zanean". Kaxo, Mistress Doll!

ARROZT.—Ondo-ezik ddgo, geldi egotez; bai, benetar

FALS.—Emakume guztiak zarie olangoxe; bein bare ta geldi egonazkero, gexorik dagoz.

DOLL.—Zital zikin ori, ori ete da damostazun nasaitasun çuztia?

FALS.—Gizendu egiten dozuez zuok zitalak, Mistress Doll.

DOLL.—Nik loditu be zitalak! Mizkekeriak eta yanaren yanak gizenduten dabez zitalak, ez nik.

FALS.—Sukaldaria ba'da lagun mizkekeriak egiten, gatxak egiten zara zu lagun, Doll; zugiandik artzen doguz gatxak, Doll, zugiandik datorkuz gatxak; autortu egidazu au, onindar beartsu orrek, autortu egidazu.

DOLL.—Bai, atsegina bai..., baita gure kate ta pitxiak be artzen dozuz.

FALS.—"Zuon kakoak, pitxiak eta besaestunak": ba-dakizu, ba, otsaintzea adoretzu egitetik meikika urteten dala; ziri-agea adoretzu okerturik alde egin orma-zulotik eta adoretzu yoaten dala epai-osagileagana; adoretzu eraso bear yakela ontzi beteai.

DOLL.—Zeure burua eskegi egizu mikel zantzar orrek, zeure burua eskegi egizu!

(8) Urte bi irauten ei dabe Yon-sagorrek, eta zímeldurik, tximurturik ei dira gozoen.

ARROZT.—Egia esateko, beti bat zarie zuok; ezin zarie alkarganatu, asarrerren bat izateka; zuok biok zarie ogi-zati txigortu bi bes-tean azurreridun; ezin dozu batera yu zoon eretxietan. Zer egiteko! (DOLL'er) Batak edo besteak yasan bear dau. eta zu zara yasan. eroan bear dauena: ontzi makalagoa zara zu ta, or diñoenez, ontzi utsagoa.

DOLL.—Ontzi makalek yasan ete daike, eroan ete daike upel asarrerik beterik? Bordeaux-ardao itsas-ontzikaidea dau orrek barru'an; eztozu ikusi zuk barrua beteago dauen itsas-ontzi-azalik. Tira, zure adiskide izan gura doi. Yontxo; gudueta yateko zara zu; eta iñori be etxako ardura nik bein geiagotan ikusiko zaudazanentz.

Lenengo Mai-otseina aurrera barriro.

I MAI.—Yaun, Pistol Ikurrinduna dago or bean, eta zuri itz egin gura daustu.

DOLL.—Eskegi dagiela zital iskanbillazale ori! Eztadila etorri ona; Ingelanda'n danik eta zitalik ago-zikinena da a.

ARROZT.—Iskanbillatsurik ba'da, eztadila etorri ona; ez, nire sinistea-arren; nire au-zoen bearrean nago biziteko; eztot gura nik iskanbillaginik; onik onenen artean izen eta entzute ona dot nik; itxi egik atea; ezta sartuko ona iskanbillaginik; enaz bizi ni onen luzaro orain emen iskanbilla ta burrukarik izateko; itxi atea, arren.

FALS.—Entzuten ete dozu, arroztuno?

ARROZT.—Baretu zadiz, nasaitu zadiz, arren, Sir Yon: ezta sartuko ona iskanbillaginik eta burrukaririk.

FALS.—Entzuten ete dozu? Nire ikurrindun da a.

ARROZT.—Ut, ut, ut! Sir Yon, aitatu be ez eizazu a: zure ikurrindun burrukarria ezta sartuko iñoz be nire etxe-barrura. Lengo baten, (cmtxinaen be lengo eguastenez izan zan) Mister Tisick aldunagaz nintzala, ak esan eustan, "Quickly, auzoko Quickly" (an zan gure otsein Master Dumb be). "Auzoko Quickly" diño ak, "gudari ez tiranak bakarrik artu egizuz; entzute txarra dozu, ba". Bai, ori esan eustan. eta ba-dakit nik zegaitik esan eustan, "ba", ak esan eban, "emakume zindo zara zu, eta zutzaz ondo esaten dabena; olan dala. ardurea artu egizu zelangor artzaz artzen dozuzan; ez egizu artu", esan eban ak, "lagun iskanbillatsu ta burrukaririk". Ez, ona ezta sartuko olan-gorik; onespentzat etsi bear zeunke ak esana; ez nik eztot gura iskanbillatsu-burrukaririk nire etxean.

FALS.—Ezta a iskanbillatsu-burrukaririk, ollar-

keririk egitekorik, arroztuno; ziri-sartzalla otzan bai, bai orixe; zartadatxorik emon zeinskio ari, erbitzakurkumeari legetxe; Barbari'ko ollori be eztautso gogor egingo ak, lumak lastu ba'dagioz arpegi emonda. Igon daitela esaiok, mai-otsein, (Alde mai-otseinak).

ARROZT.—Ziri-sartzalla deituten dozu a? Gizon zindori eztautsat itxiko nik nire etxeko aterik, ezta ziri-sartzallari be; baña niri etxat bape begiko iskanbillatsu-burrukaririk; egia esateko, gexotu egiten nau "burrukarik" itza entzuteak berak be; so, yaunak. zelangor ikarea dodan; begira, bai orixe.

DOLL.—Ikaraka zagoz egon be, arroztuno.

ARROZT.—Bai ete? Bai, egia baño egiago, ikaraka nago egon be, orrikarearen orria legetxe; ezin dot yasan burrukarik iskanbillatsurik.

PISTOL, BARDOLBA ta Esku-mutila aurrera.

PIST.—Gora, Sir Yon!

FALS.—Ondo etorria augu, Pistol Ikurrindun. Aiko, Pistol, emen betetan dauskat ardaoz edalontzi au: nire arroztunoaren alde ustu egik.

PIST.—Bala biko nire pistolea ustuko yautsat bsre ganera, Sir Yon.

FALS.—Pistoleak zula-ezina dok au, yaun; nekez egingo dauksak minik.

ARROZT.—Tira. nik eztot edan gura ez zula-ezinik, ez balarik; on egingo daustan baño geiagorik eztot edango nik iñoren ederragaitik be. ez nik.

PIST.—Olan izatekotan, eutsi zuri, Mistress Dorote; zuri ustuko daustu.

DOLL.—Niri ustu! Irri dagitsut nik zuri, txotxo legentsu orri. Onangorik! Zorritsu ori, zirtzil ori, zital ori, ziri-sartzalla ori, sorkitsu ori, alango ori! Ken ortik, zital ustel ori, ken! Zure ugazabarentzako aragi naz ni.

PIST.—Ezagun zatxataz, Mistress Dorote.

DOLL.—Ken. sakel-lapur zital ori! ken zakidaz, zotz zikin ori! Ardao au-arren, aiztoa sartuko daustu zure matrallazur usteletan, gudari zakarrarenik egin ba'dagistazu. Ken zakidaz, garardo-bonbil zital ori! Ken zakidaz, ziri-sartzalla ustel ezpata-kirten ori! Noztik natxatsu ezagun, yaun? Yaungoikoaren argia-arren, dana da sorbaldetan galar-tzu bi daroazalako! Ba!

PIST.—Idunekn izurtsu ori eraigo daustu orregaitik.

FALS.—Asko >dok, Pistol; emen ez al az nasaituko; ez induket atera gura emendik; euk alde egik gure artetik, Pistol.

ARROZT.—Ez, Pistol gualburu on; emen ez, gualburu txerakor.

DOLL.—Gudaiburu! Ziri-sartzalla askarri donga ori, ez ete au lotsatuten iri gualburu deituieak? Nire eretxiko ba'litzozak gualburuak, ezpatakadaka aferako indukie emendik, irabazi-aurretik euren izena ik artuagaitik. Gualburu argi izan be i! I, yopu ori, zegaitik i gualburu? Emagaltegien baten emagalduen bati iduneko izurtsua urratu dautsakalako, ala? Gualburu izan be ori! Eskegi egizue zital orii Okan egosi urdinduz eta okore legorrez bizi da ori. Gualburu izan be orii Yaungoikoaren argi-arren, zakar-zirtzilok "oekidetu" deslean iguingarri ta gorrotagarri egingo dauskue "gualburu" izena; esan-gura txarrak ezarri dautsoez len itz on bikain zanarí; au dala-ta, yaramon egin bear leuskioe gualburuak orri.

BARD.—Arren, bera yatsi adi, ikurrindun on ori.

FALS.—Entzuizu, Mistress Doll.

PIST.—Enok yatsiko ni; yakik, Bardolba, amarrereko-buru..., zeaiu egingo naieunkek nik ori: azaskatuko natxakok.

ESKU-M.—Yaisi adi. arren.

PIST.—Lenago ikusiko yoat dongetsita; esku au-arren, Pulta'ren osin dongetsira, sulezearen ondo ondora doala, an Ereba ta elorrio zakarrak be lagun dauzaia. Eutsin amuarí ta ariari, geroí Bera, bera, txakurrok! Bera, azpiyaleok! Eztogu emen Irene, ala?

ARROZT.—Pisel gualburu on, baretu zadiz; berandu be berandu da, benetan: eskuratu egizu zure asarrea, arren.

PIST.—Gogaldi lango gogaldiak dozuez orraitño! Egunean ogei ta amar millako bíderik baño ezin egin dauen zama-zaldirik eta Asia'ko zaldi zarrik imini bear ete 'daustazue Kaisar, Kanibal, eta Toroi'ko Eladatarren aldamenen? Ez, oba da gaiztetsi ta Kerber bakaldunagana b'daji; eta orroa egin dagiala ortzeak. Iñoren imkizun izan bear ete dcgu utsagaitik?

ARROZT.—Nire sinistea-arren, gualburu. mingots be iningots dira itzok.

BARD.—Alde egik emendik, ikurrindun on orrek: iskanbillara yoko yok bereala onako onek.

PIST.—Txakurrak legetxe ilgo dira gizonak! Orratzak legetxe emon burestunak! Eztogu emen Irene, ala?

ARROZT.—Nire itza-arren, gualburu; eztago emen ízen ori dauenik bat bera be. Orretarako egon be ni! Ostondun egin dodala uste dozu, ala? Nasaitu zadiz, Yaungoikoa-arren.

PIST.—Olan izatekotan, yan eta gizendu zadiz, ene Kalipolis lirain ori. Tíra, ekadazu Kanari ardao zuri apur bai.

"Se fortuna mi tormenta, lo sperare mi contenta...".

Suodi-zaparradai bildurrik izan guk? Ez, txerrenak su egin dagiala: ekadazu ardarrik arean: eta i, kutun ori, atza or i (Lurrean izten dau ezpaíca). Emen amaitu dagigun; eta ganetikoak ez ete dira ezetarako gei?

FALS.—Pistol, baretuko al az, arren.

PIST.—Zaidun kutun, mun egiten yausat ire ukabilari; onngorik! Zazpi izarrak ikusi izan yoaguz.

DOLL.—Zurubia bera egotzi egizue ori; ezin yasan dot olango zital zirtzilik.

PIST.—Zurubia bera egotzi egizue! Etxakuz ezagun Galloway'ko zalditxoak, ala?

FALS.—Egotzik ori ortik bera, txubil-yokoan xilina egotzen danez; bai, uskeriak baño esan ezpa'dagiz emen, eztogu emen orren bearrik.

BARD.—Tíruk, yatsi adi zurubia bera.

PIST.—Ostera! Ebagien bat egingo ete dogu? Odolik aterako ete dogu? (Ezpatea ateraten dau). Olan izatekotan, eriotzea izango al da lo eragingo daustana, nire egun ilunak laburtuko dauzana! Ba! olan izatekotan, Iru Aitzak manatu dagiela bizitza-aria zauri naibagatsu, itzal eta ago-zabalez! Erdu, Atropos, gero!

ARROZT.—Au dok, au!

FALS.—Ekadak nire sastakaia, inutiko.

DOLL.—Arren, Yontxo, arren, ez egizu atera ezpaiairik.

FALS.—(Ezpatea aieraia, aurrean daroa PISTOL) Oa zurubia bera.

ARROZT.—Iskanbilla lango iskanbillea dogu emen! Onango bildur eta ikararik izan baño len bertanbera itxiko dot etxe au. Bai, bai orixe, alkar erailgo dabe onek. Ai ene. af ene! Lekaratu egizuez zuon ezpata narrugorriak, lekaratu egizuez zuon ezpata narrugorriok. (Alde PIST., eta BARD.'k).

DOLL.—Arren, Yonixo, geldi zagoz; yoan da zitala. Ui! emagalkume zirtzil adore gitxiko ori!

ARROZT.—Ez ete dozu minik artu iztar-biartean? Zaztadea sabelera yaurlin dautsula uste izan dot.

BARDOLBA aurrera barriro.

FALS.—Atera dok ateiik, ala?

BARD.—Bai, yaun. Mozkorturik 'dago zital a: min egin dautsazu sorbaldan, yaun.

FALS.—Aren zitala! eupada etxaustak egin, ba!

DOLL.—Ui! zital kutuntxo ori! Ai ene! matxangotxo ori! Zure izerdien izerdi! Tira, itxi egidazu zure arpegia ikuzten; erdu ona, emagalkume aragi-mordcok; ene! zitaltxo ori! Maite zaudaz, benetnn* Toroi'ko Etor bes-tean adoretu zauguz zu, bost Agamenon añako ta bederatzí Entzutetsuak baño amar bider obea; zitaltxo orí

FALS.—Yopu aren zital! Manta-ganean aztinduazoko dot nik a.

DOLL.—Orixe egizu, orretara azarteko lain biotzik ba'dozu; clangorik egin ba'dagizu, izara biren bitartean gora-beraka aztinduko zaudaz nik.

Ereslariak aurrera,

ESKU-M.—Eldu dira ereslariak, yaun.

FALS.—Yo dagiela: Yo, yaunak. Belaun-ganean yezarri zakidaz, Doll. Zital arroputz yopuarena! Urrebiziak legetxe igssl daust zital ak.

DOLL.—Bai izan be, eta yauretzea baño bizkorrago etzatzakoz yarrai zu. Bartoloma'ren apotxo apain emagalkume ori, noz izteko zara egunez burruka egin eta gabaz ezpata-yokoan ibiltea, eta noz asiko da zure soin zarra zerurako bidea artzen?

Atzetik ara ENDIKA BAKALSEMEA ta POINS aurrera, mai-otseinen soñekoz yantzirik.

FALS.—Ixilik, Doll on ori! Eriotza-buruaren antzera ez egizu itz egin; ez egidazu gomutauazo nire atzenik.

DOLL.—I, txotxo, ze gogaldi yok bakalsemeak?

FALS.—Mutil gazte on txoribururena; ederto egingo eukean ak cgi-banatzallearena; ondo ebagiko eukean ogia.

DOLL.—Buru-argi ei da Poin, or diñoenez.

FALS.—Buru-argi a? Eskegi egizu a, matxango a! Tevrkebury'ko yeben-czia besteko garau-nik be eztau ak buru-argi izateko; eztau ak malluak baño adimen geiagorik.

DOLL.—Olan izatekotan, zegaitik maite dau bakalsemeak a orrenbestean?

FALS.—Lodiera bereko diralako bien zangoak; txubil-yokoan ondo egiten dauelako; ezamilloagaz yaten dauelako mikela; eta argizagi-mutxikinak "flap-dragon" tzat (9) irusten dauzalako; eta mutikoakz beor uxuari ganera igoten yakolako; yarlekuen ganetik oin-bardin yauzi egiten dauelako; eta zin egiteko gatzik ba-dauelako; eta oskinaren oski-ereduak legetxe bere oskiak garbi ta argi erabilten dauzalako; eta ipuin

benak eralten daragoiola iskanbillarik ateraten eztauelako; eta beste olango igikune bizibizkorrik egiteko trebetasunik ba-dauelako, eta adimen urria ta soin trebea diragarrren zerokaitik dau bakalsemeak bere laguntzat; bakalsemea bera be, ba, beste olangoxe bat yatsu; ule baten astuntasuna litzake asko arein zerak bardinduteko.

BAKALS.—Txirinka burtzil oni ez ete geunskioz moztu bear belarriak?

POINS.—Bslarrondoko batzuk emon dagioguzan bere emagaldu orren aurrean.

BAKALS.—Begira, loroak bere buruari erpakaz lez, atz dagitso buruan zar zimelari.

POINS.—Ez ete da iñondiko be iñondiko irritsak egiteak baño orrenbeste urte luzaroago irautea?

FALS.—Mosu bat emoidazu, Doll.

BAKALS.—Urte onetan alkarganatuten dira Saturno ta Arlizarra! Zer diño egutegiak orrako orretzaz?

POINS.—Eta, ara, bere otsein Trigon suitsuak ez al dautso eragoko kutunkerien batzuk esaten bere ugazabaren oltxo zarrak, egunkaria, ta ixlkizun-idaztiñoa begira.

FALS.—Zurikeriz damostazuz zuk mosuok.

DOLL.—Egia esateko, biotz biotzetik damotsudaz.

FALS.—Zar nozu ni, zar nozu ni.

DOLL.—Gazte legentsu guztiok baño maiteago zaudaz.

FAIS.—Zerezko gonea gurako ete zeunke? Eguenean artzeko naz dirua; biar artuko dozu txapela. Abesti pozkarriren bat abestu egizu, tira; berandu da; oera yoango gara. Aztu egingo nozu zuk, ni bein yoanazkero.

DOIL.—Egia esateko, negar eragingo daustazu, olangorik esan ba'dagistazu; ikusi baño eztozu ia nik yai-yantzirik yazten dodanentz za atzera etorri arte; tira, entzun abestiaren atzema.

FALS.—Ardao apur bat, Pantzeska.

BAKALS ta POINS.—BertaUK, bertaUK, yaun. (Aurreratu-ala).

(9) Zer ete dogu "Flap-dragon" dalako au? Gizonkeritzat astnkeriak egiten beti ta edoncn izan dira ta dira matsa>ren orpotik datorren mama gozoaren aldekoak-eta, Ingelndasrrak be besteak baño gitxiago ez izan gara, ba, eta Ingelndar mozkortiak euren gicznkeritzat ei eben edari gogorrari ixiokor zan zerbait edariari nastu, su eman, eta dana batera irustea. Or dozu, ba, "Flap-dragon" dalakoa.

FALS.—Ostera! Bakaldunaren sasikumeren bat augu, ala? Eta i, ez augu Poins'en anaien bat, ala?

BAKALS.—Ba! Ik daroakan bizikerearena, ik legor-arlo obentidunak dozakan mundu boro-bil orrek!

FALS.—Ik baño obea: aitonseme nok ni; i, ostera, mai-otsein.

BAKALS.—Egi baño egiago, yaun, eta iri be-larriak aterateko naiatok ni.

ARROZT.—Ene! Yaungoikoak yagongo al dau zure eskarra! Egia esateko, ondo etorria London'era. Yaungoikoak onetsiko al dau zure arpegi ezti ori! Yosu! Etorri zara Kimuruerri'tik, ala?

FALS.—Nagusiagotzeagaz eta emagalkumegaz osoturiko zoro ori (Eskua Doll'en ganean iminita darrai) aragi arin eta ustel au-arren, ondo etorria augu.

DOLL.—Zu, zu ergel koipetsu ori! zapuztu egiten zaudaz.

POINS.—Ene yaun, berotu ezpa'zadiz, alden-du egingo zauz orrek zure azaskatzetik, eta dana geldituko da olgeta utsean.

BAKALS.—I, koipe-argigitegi ori, ik bai zakar baño zakarrago itz egin dok ointsu ointsu nitzaz, aitalonaba zindo, onindartsu ta txerakor onen aurrean!

ARROZT.—Yaungoikoak onetsiko al dau zure biotz ona! Olangoxe da, ba, ori, egia esateko.

FALS.—Entzun nozu, ala?

BAKALS.—Bai; eta ezagutu nok ik, Gadshillinguruan igesi euanean ezautu nindukan legetxe: ba-enkian ik ire atzean nengoala ni, eta beren-beregi esan dok ik esan dokana, nire epea noragiñoko dan ikuste-arren.

FALS.—Ez, ez, ez; eztot uste izan entzuten zengozanik.

BAKALS.—"Olan izatekotan. autortuazo egingo dauskat ire kitetiko iraina, eta, olan, bayakiat i zelan erabili.

FALS.—Nire omena-arren, Hal, eztautsut egin irainik nik, irainik ez nik.

BAKALS.—Ezet! Ni zirtzilduteko ogi-banatzalla, ogi-zeatzalla, eta eztaikit zer besterik be ba-nazala esanda!

FALS.—Eztago or irainik, Hal.

POINS.—Irainik ez!

FALS.—Irainik txikienik bez, Ned, munduan dan irainik txikienik bez; izperrik bez, Ned zindo. Gaizioen aurrean zirtzildu yoat nik ori, geztoak maite etagien; eta orrako ori eginaz, adiskide arduratsurena ta benetako bendekorena egin dot nik, eta eskarrak emongo daustaz zure aitak, Hal, egin donaganaitik. Iroinik ez, Hal; ezetariko iroinik

bez, Ned, ezetarikorik bez; benetan, ezetarikorik bez, mutilak, ezetarikorik bez.

BAKALS.—Ikusik orain zelan irainduten dokan ik emakume onindartsu au bildur utsez eta kikikeri osoz, gugazko ire burua zuri-tute-arren. Geztoetariko dok emakume ori, ala? Naiz, mutikoa be geztoetariko dok, ala? Naiz, bere surrean aperturfa sutan dauen Bardolba dok geztoetariko, ala?

POINS.—Erantzun egik, Iertxun il orrek, erantzun egik-

FALS.—Bereen izendegian dau txerrenak Bardolba, eta egin dau orrenak; eta bertan mozkortiak erre baño egingo eztauen Lukiper txerrenbuaruaren bere bere sutegia da orren mosua. Mutikoaagazko..., angeru ona dau orrek aldamenean; baño txerrenak agintza geiago dau orregan be.

BAKALS.—Eta emakumeakazko, zer?

FALS.—Batagazko, oinganik dago sulezan, eta erreten dago errukarria. Besieagazko..., dirua zor dauzat; eta eztaikit orregaitik gaiztetsi izango danentz.

ARROZT.—Ez, ez orixe.

FALS.—Ez, eztot uste gaiztetsirik zagozanik; ortik yareita zagozala uste dot neuk be. Arrano! beste salakuntza bat dozu zure ganean, legeaz bestera zure etxean aragia yaten izten dozulako; eta orregaitik negararrantza onik egin bearko dozula uste dot.

ARROZT.—Arrozturn guztiak egin daroe orixe; zer da aariki iztar bat, naiz bi berrogeikaro osorako?

BAKALS.—Zuk, aitalonaba...

DOLL.—Zer diño zure eskarrak?

FALS.—Euren aurka aragia asaldatuten dan zerak diñoz orren eskarrak. (Atea yoten dau norbaitek).

ARROZT.—Nok yoten dau atea orren gogor? Yaramon egiok ateari, Pantzeska.

PETO aurrera

BAKALS.—Kaxo, Peto! Ze barri dakak?

PETO.—Wesiminsier'en dago zure aita; eta iparraldetik ogei bidari bai etorri dira nekatu ta unaturik; eta bidean nentorrela amabi bat gudalburugaz trikitx egin dot eta aurreak ariu dautsedaz; burutsik, izerditan, ardandegietako atea yoten, eta guztiak eta bakotxa Yon Falstaff'az itaunka ibili dira.

BAKALS.—Yaungoikoa-anen, Poins, errudun erruduntzat yoat nire burua, asti ederra onan alperrik galdu ta zakartu dodalako; asaldatze-ekatxa, matxinada-ekatxa, odei baltzak dakazan egoe-axea urteten asi ta gure buru billus eta iskillobakoen ganera

euriak euri yausten diran bitartean. Eka-dazak nire ezpatea ta txariesa. Gau on Falstaff. (Alde Endika Bakalsemeok, Poin, Peto ta Bardolba'k).

FALS.—Orain dator gabeko usikadarik gozoe-na, baña yanbarik emen itxi ta alde egin bear, (Ate-yoka barrutik) Ostera be ate-yoka!

BARDOLBA aurrera barriro.

Kaxo! Zer yazoten dok?

BARD.—Errege-yauregira yoan bear dok be-reala, yaun; amabi gudaiburu yagozak atetan ire begira.

FALS.—(Esku-mutilari) I, txotxo, ordaindu egiek ereslariei. Agur, arrezturno; agur. Doll, Ba-dakusazue, andera onok, zelan dabilfzazan gizon aingarren billa: lo egin leie

ezetarako gauz eztiranak, gizon eraginai dei egiten dautsen bitartean. Agur, andera onok; bertatik bidali ezpa'nagie, barriro iku-siko zauedaz alde egin-aurrelik.

DOLL.—Itzik be ezin egin dot...: iztenak egi-teko ezpa'dago nire biotza..., tira ba, Yontxo kutun, yaramon zeure buruari.

FALS.—Agur, agur. (Alde FALSTAFF eta BARDOLBA'k).

ARROZT.—Tira ba, onik eta ondo ibili; eza-gun aut ogei ta bederatzii urteotan, idar-al-diazkero; baña gizon zindoagorik eta biotz zintzoagodunik..., tira ba, onik eta ondo ibi-li.

BARD.—(Barrutik) Mistress Tearsheet'eri esaio-zu datorrela nire ugazabagana.

ARROZT.—Ui! Zoaz arin, Doll, zoaz arin; zoaz arin, Doll on ori. (Alde dagie).

III EKITALDI

I AGERLEKU.-WESTMINSTER. Bakal-yauregiko leku.

ENDIKA BAKALDUNA aurrera, gau-atorrea yantzirik, Esku-mutil bat egaz.

END. B.—Oa, dei egiek Surrey ta Warwick'eko Kondeai; baña onako bidea artu baño len idazkiok irakurri ta buruan erabili be erabili dagiezala esan egiek: bizkor abil. (Alde Esku-mutilak). Nire bendekorik beartsueneta-tik amaikatxo milla ba-dagoz lotan orain! Lo ori, Ui! lo atsegingarri ori, yaioen iñude ezfi ori, nik bai sartu dautsut ikara lan-go ikarea, oraindik ara nire betazalak ezto-zuz azkatu gura-ta, ezta nire sentsuak az-tutean murgildu gura be-ta! Lo ori, zegaitik dozu gurago etzan seaska ketsu keafue-etan, lasta-oe gogorretan zure azur-mamiak eratzanik, eta gau-eltxo burrundadatsua-k lo arrazorik, andikien lo-gela usain gozodu-netan, goi-estalgí karuatarikoen azpian, ere-sirik gozoenez lo arrazota baño? Ui! yainko motel ori, zegaitik zatzaz zirtzilekaz oe zikinetan, bakal-oea, ostera, yagolategi ta erriari dei egiteko yoale eginik izten dozu? Itxi egingo ete dozuz itsasontzi-aga garaian garaia-aren garaiz zorabiatuen dauenean da-gon ontzi-mutilaren begiak eta bere garau-nai itsaso zakar agintariaren seaskan era-gin, eta axeak putz egin, ugin zakarrai bu-rtuk eldu, arein burutzarrak kizkurtu, ta arein astrapala ta durundu gorkorragaz abe-lokarri labanetatik dingilizka itxirik, astinal-

di orregaz eriotzea bera be atzarten da-nean be egingo ete dozu orrako ori ontzi-mutilagaz? Lo alderagokeritsu orrek, emon ete daikeozu atsedetik itsas-mutil bustiri olango aldi zakarrean, eta ukatu egingo ete dautsazu orretarako bide ta zer guz-tiak artu dauzan bakaldunari? Olan izate-kotan, etzan adi, beeko zori ontsu ori! Arte-ga datza burestuna daroan burua.

WARWICK eta SURREY aurrera.

WAR.—Egun on eta egun onak zure nagusia-gotzearii

END. B.—Egun onak emoteko ordua da, ala, yaunak?

WAR.—Ordu batac eta geiagi da.

END. B.—Ba, olan izatekotan, egun on guztfioi, ene yaunok. Irakurri ete dozuez bidali dau-tsuedazan idazkiak?

WAR.—Bai, irakurri doguz, ene nagusi.

END. B.—Orrazkero, oartu zarie gexorik be ge-xorik dagola gure bakalderriaren soña; azi egin dirala gatx zarrak, bera galgorde an-dian iminten dabela, eta biotzaren urrera el-du yakozala.

WAR.—Ondo-eza oraindik eldu baño etxakon soña da; eta lengo sendotasuneratu dateke zurtasunez eta osakai apur bat egaz: laster otzituko da Northumberland ene yauna.

END. B.—Yaungoiko ori! Alanbearren idaz-

tían irakurri al ba'litz eta an ikusi aldiak dakarrezan aldakuntzak, beir. mendi bizkar-tsua zelaitu ta legorr-arloak urperatu ta urtu (euren tmkatasunez asperturik), eta beste beín, zelan zabalegi egiten dan itsasertza Netun'en epermokortzarrentzako be! Ikusi al ba'litz zelan frii egiten dauskuen aldien gora-berak, eta aldien aldakuntzak zelan askotariko edariz beteten dauskuen aldakuntza-edalontzia! Ui! Ikusi al ba'ledi orrako ori, gazterik zori ontsuenak be, bere bidean zelango galgordeak izango dauzan, eta zelango kurutzek yakozan etorteko, itxi egingo leuke idazti ori, eta yezarrita, il egingo litzake. Oraindik amar urte ez tala, adiskide mamí ziran Errikarta ta Northumberland, eta batera egiten eben yolas, eta alkarri gudu egiten eragoioen andik urte bi barru. Zortzi urte baño ez tirala, Percy au zan nire gizonik biotzekoena, nire anai ba'litzan legetxe lan egiten eban nire arazotan, eta nire oñetan iminten ebazan nitzako bere zaletasuna ta bizia; bai, eta nigaitik eupada egiten eutsan Errikarta'ri bere etxean be. Eta zuotatik an egoanak (Warwick'eri)-i, Nebil lengusu, oker ezpa'naigok, an engoan i, begiak negar baten ebazan Errikarta'k, Northumberland'ek salatu ta iraindurik, igarlerenak zirala agertu diran itzok esan ebazan: "Northumberland, ire bitartez Bolingbroke nire lengusua nire bakaulkira igoten dan zurubi ori", Yaungoikoak dakianez, nik orduan olango asmorik izan ez-arren, baña bearrak bakalderriari ainbesteraño burua makurtuazo eutsan-eta, ni ta anditasuna alkarri mun egitera beartu ginduzan: "Etorriko dok aldia", onan ekin eutsan ak, "etorriko dok aldia, ire oben iguingarri orrek, indarrak arturik, ustelera yoko dauena", onan ekin eutsan ak, aldi

onetan yazoten dana aurreztik igarririk, eta gure arteko adiskidetasunaren manakuntzea aurreztik esanik.

WAR.—Gizon guztien bizitzak dabe euren edestia, igaroko aldiak zelango izan ziran darakusana; eta orrako orri so eginazkero, aurreztik igarri ta iragarri ezinik eztago, oker andi barik, izatera oraindik eldu ez tiran zerik andienak, euren azietan eta asikera txikietan or dagoz sorturik-eta. Aldiak erron eta abian ezarririk dauz olango zerak; eta olan etorri-bearreko diranazkero, Errikarta Bakaldunak ondo igarri ekean, orduan berari ustel yakon Northumberland andia, aldia igaro-ala azi atatik ustel be ustel egingo zala; eta azi ak eleukeala idoroko zu ez beste lurrik, azteko.

END. B.—Barrak dakazanak dira zerok, ala? Olan izatekotan, bearrekotzat emon dagiegun arpegi; "bearra"! Itz ori da gure be-Iarrietan oraintxe be ots egiten dauskuna: or diñoenez, berrogei ta amar millako indarra dabe Gotzaiak eta Northumberland'ek.

WAR.—Ezin ledike olangorik, ene yaun; beste ainbestetu egiten dauz zurrumurruak bildur yakenen zenbakiak, anotsak otsa legetxe. Oeratutea eder izango al yako zure eskarrari, Nire bizia-arren, ene yaun, orainganik bidalirik dozuan indarrak eurak be asko izango dira ekite <a erraz irabazteko. Zu are geiago nasaituteko, Glendower ijk dala diñon zertxo bat eldu da nire belarrietara. Gexorik egon da zure nagusiagotzea ama-bost egunotan; eta nai-ta-nai-ez, geitu egin bear ordu larriok zure gexoa.

END. B.—Ontzat artuko yoat ire onua; eta erri-barruko guduok amaturik ba'legoz, Lur Gurenerako bidea artuko geunke, yaun maiteok. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-SHALLOW EBAZLEA'ren etxe-aurreko Arrazpela Gloucestershire'n.

SHALLOW ta SILENCE aurrera, alkarregaz trikitx egiten dabela; atzeragotik MOULDY, SHADOW, WART, FEEBLE, BULLCALF, eta otseinak.

SHAL.—Erdu, erdu, erdu, yaun; ekadak esku ori, yaun, ekadak esku ori, yaun; gizon goiztar augu, kurutzea-arren. Eta zelan dago Silence nire lengusu ona?

SIL.—Egun on, Shallow lengusu on ori.

SHAL.—Eta zelan dago nire lengusiña, ire oe-laguna? Eta ire ta nire alaba lirain liraina, Elene nire besoetakoa?

SIL.—Ai ene! zozoeme baltza da a, Shallow lengusu!

SHAL.—Baietz eta ezetza-arren, esatera azarten nok yakintsu andi egin dala Gillelma nire lengusua: oraindik be Oxford'en yagok a, ez ete?

SIL.—Bai, izan be, yaun, eta diru ederrik eral-ten daust.

SHAL.—Olan ba'da, laster da a Legegíztontegira; Kelmen-Legegíztontegiko izan nintzan ni bein; eta oraindik be an Shallow zoroaren izena aitatuko dabela uste dot.

SIL.—Olan izatekotan, zuzenez ezarten dau-tse Shallow izena, lengusu.

SHAL.—Mezea-arren, edozein izen ezarten yeusten niri; eta egin be. edozer egingo neun-kean, eta borobíl egin be. An gengoazan ni, ta Staffordshire'ko Yon Doit, eta Gorka Bare baltza, eta Pantzeska Pichbone, eta Gilielma Squele Cotswold'eko gizon bat... Legegizontegi guztietan be etzenduekan ido-roko eurak lango lau burrukari, ordutik arako aldietan; eta esan dagiketsut ba-genkia-la guk non ziran emagalduek (10), eta geure esanera geunkazan euretatik onenak. Mutiko zan orduan Yontxo Falstaffi, orain Sir Yon dana, mutiko ta Toma Mowbray Norfjick'eko Dukearen esku-mutil.

SIL.—Sir Yon au, lengusu, oraintsu ona gudarigei-billa etorri izan dana, ala?

SHAL.—Sir Yon berberori. Skogan'eri burua austen ikusi naioan nik ori arrazpeleko atetan, oraindik onenbesteko baño mutiko andiagorik etzala; eta egun berean egin naioan nik burruka Sampson Stockfish zalako bategaz, igaliduna bera Gray'ren Legegi-zondegiaren ostean. Yosu, Yosu, nik izan dodazan egunen zoro! Eta ikusi baño ez-tok nire beñolako ezagunetatik zenbat il di-ran!

SIL.—Aren yarraí ycango gozak gu guztiok be, lengusu.

SHAL.—Egia, bai, egia: seguru be seguru. se-guru be seguru; Abeslariak diñonez, guz-tientzako dok seçuru eriotzea; guztiok go-zak ilteko. Zenbat egiien yok zezen-buzta-riari Stamford'eko perian?

SIL.—Egia esateko, lengusu, enok izan ni an.

SHAL.—Seguru dok eriotzea. Bizirik ete dok oraindik ire uriko Double zarra?

SIL.—Uik, yaum.

SHAL.—Yosu, Yosu, ilik! Arranbelari ain ona, ta ilik! Ak bai elburuan egin eginean yote lango egin eginean yotea: maite be maite eban a Gaunt'eko Yon'ek, eta dirurik as-ko yokatu eban aren alde. Ilik! Bertara eun eta berrogei oinkada egozan elburua yoko eutsun ak, eta berreun eta larogei, naiz ber-reun eta larogei ta amar oinkadaraño yaurtingo eutsun ak gezia; edonoren bio-tza poztuko litzakean a ikusirik. Zenbat egi-ten yok orain ogeiko bat ardik?

SIL.—Zelangoak diran yatsu; amar libera egin leiz ogeiko bat ardik.

SHAL.—Eta ilik ete dok Double zarra?

SIL.—Uste dodanez, emen datoz Sir Yon Falstaff'en gizon bi.

BARDOLBA ta beragaz datorren bat aurrera.

BARD.—Egun on, aitonseme zindook: zein da, arren, Shallow Ebazlea?

SHAL.—Neu nozu Erroberta Shallow, yaun, kondetegi onetako "esquire" txiroa, eta bakaldunaren bake-ebazleatariko bat: zer gu-ra dozu nigazko?

BARD.—Gorantziak bidalduten dautsuz nire gudaiburuak, yaun, Sir Yon Falstaff nire gudaiburuak..., aitonseme garrasteak, zerua-arren, eta gudaiburu adoretriu be adoret-suak.

SHAL.—Ondo etorria aren agurra, yaun; len-dik dazagat a ezpateagaz orantzuten dakian-tzat: zelan dabil zaldun on a? Itandu ete daiketsut zelan dabilen aren emazte ande-rea?

BARD.—Azketsi, parkatu nagizu, yaun; guda-ria beti dago egokiago emazte bagarik.

SHAL.—Ondo esanda, yaun, bai orixe; gora-garri dira, ta beti izan dira, esakera onak. Egokiago!... egoki'tik dator orrako ori: on-do baño obeto; esakera bikaina.

BARD.—Azketsi nagizu, yaun; entzunik dot itz ori. Esakera deituten dozu zuk, ala? Egun on au-arren, eztakit nik zer dan esa-kerea; orraitioño be, nire ezpateagaz erant-zungo dot gudariri dagokon itza dala ori, eta goragarri baño goragarriago dala. Egokiago; or gizonen bat egokiturik dago-nean erabilten da itz ori; naiz, gizonen bat, dana dala izan bera, egokitutzat etsi date-kenean; eta zer bikain yatsu au.

SHAL.—Egin eginean baño egin egineanago zabiltz zu. Ara! emen dator Sir Yon ona.

FALSTAFF aurrera.

Ekadazu esku adoretzu ori, ekadazu zu ain-garri orren esku adoretzua: egia esateko, onik zabiltzalakoren irudia dozu eta ondo baño obeto daroazuz zure urteak: ondo etorria, Sir Yon.

FALS.—Pozik zakustaz, Master Erroberta Shal-low on ori: Master Surecard, ezta?

SHAL.—Ez, Sir Yon, Silence nire lengusua da ori, nire ordekoa.

FALS.—Master Silence on ori, egoki baño ego-kiago dartoitsu bakeagazko izatea.

SIL.—Ondo etorria zauguz, zu aintzako on ori.

FALS.—Ken, ken! eguraldi beroa da au. Aiton-

(10) Emagalduren ordez "bona-robas" diño emen Shakespeare'k; eztakit zein izkuntzatik artu eben Ingelandarrak emagaldue-sanguradun itz au.

- semeok, gertau ete daustazuez emen ama-
bi bat gizon egoki?
- SHAL.—Arrano! gertaunik doguz, bai, yaun.
Yezarri gura ete dozu?
- FALS.—Ikusi egin gura dodaz, arren.
- SHAL.—Nondik da izendegia? Nondik da izen-
degia? Nondik da izendegia? Dakusadan,
dokusadan. Ori da, ori da, ori da, ori da:
bai, arrano! yaun: Ralph, Mouldy!... Dato-
zala nik deitu-ala; ori egin dagiela, ori egin
dagiela; nomdik da Mouldy?
- MOUL.—Emen nozu, zeuk zer-gurarako.
- SHAL.—Zer uste dok, Sir Yon? Soin-atal mor-
dodun gizona; gaztea, sendoa, eta adiskide
onak dauzana.
- FALS.—Mouldy, tJstel yak izena, ala?
- MOUL.—Bai, eder ba'yatsu.
- FALS.—Olan izatekotan, eztoгу galdu bear
astirik i erabilteko.
- SHAL.—Ja, ja, ja! Itzalez ederto esanda, bai
orixe! Erabili-ezak urdindu ta ustelduten
dauz zerak; ederto baño edertoago!... ben-
netan, ondo esanda, Sir Yon; ondo baño
obeto esanda.
- FALS.—(Shallow'ri) Kiñatu egizu.
- MOUL.—Lendik be kiñaturik asko nago ni,
bakean itxiko ba'ninduzue: nire ama zarrak
eztau yakingo orain nok egingo dautsazan
bere solo-lanak eta ganetikoak: eztozeu ni
kiñatu-bearrik; ba-dago ni baño gizon ego-
kiagorik ortik zear yoateko.
- FALS.—Tiruk; ixilik ago. Mouldy; yoan bear
dok; i erabiltordu dok.
- MOUL.—Erabiltordu!
- SHAL.—Ixilik, txotxo, ixilik; baztartu adi; ete
dakik, gero! non agon? Urrengoagana orain.
Sir Yon: dakusadan; Simon Itzal! Simon Sha-
dow!
- FALS.—Bai, arrano! ekadazue ori, berorren
azpian yezarteko: gudari otzen bat izango
da ori, urrean.
- SHAL.—Nondik da Shadow?
- SHAD.—Emen, yaun.
- FALS.—Noren seme augu, Shadow?
- SHAD.—Nire amarena, yaun.
- FALS.—Ire amaren seme! Egi-antzekorik as-
ko; eta ire aitaren itzala: olan, arraren
itzala dok emearen semea: sarritan yazoten
dok, izan be, orrako ori; baño aitarenik zer
andirik etxok izaten.
- SHAL.—Gogoko ete yatsu, Sir Yon?
- FALS.—Udarako izango da on Itzal..., kiñatu
egizu; itzalik asko dogu, ba, gudari-izende-
gia osoan beteteko be.
- SHAL.—Toma Wart, Toma Gari!
- FALS.—Nondik da a?
- WART.—Emen, yaun.
- FALS.—Wart (Gari) yak izena, ala?
- WART.—Bai, yaun.
- FALS.—Gari latz latza az i.
- SHAL.—Kiñatuko ete dot, Sir Yon?
- FALS.—Alperrik litzake, bizkarrean eginda
dauz, ba, bere soñeko guztiak, eta yoskura
guztiak orratzak deutsela dauz: ez egizu
geiago kiñatu.
- SHAL.—Ja, ja, ja!... zuzen zagoz, yaun, zuzen
zagoz: biotz biotzetiko nire zori onak. Pan-
tzeska Feeble (Mengel)!
- FEEBLE.—Emen nozu, yaun.
- FALS.—Ze ogfbide dok ik, Mengel?
- FEEBLE.—Emakume-yostun nozu, yaun.
- SHAL.—Kiñatuko ete dot, yaun?
- FALS.—Bai, gura *ba'dozu*; fcaña gizonen yos-
tun izan ba'litz, orrek berorrek kiñatuko
zindukezan. Emakumeren goneari egin dau-
tsazakan beste zulo egingo ete dautsak
arerioari gudaketan?
- FEEBLE.—Al dodan guztia egingo dot, yaun;
iñok bs ezin dau geiagorik,
- FALS.—Ondo esanda, emakume-yostun on
ori! Ondo esanda, Mengel adoretsu! Uso
asarratua bestean, naiz sagu kementsu ke-
mentsua bestean adoretsu izango az i. Ondo
kiñatu emakume-yostuna, Master Shallow.
- FEEBLE.—Gurago neunke nik Gari yoan izan
ba'litz, yaun.
- FALS.—Eta nik gurago neunke í gizon-yostun
izan ba'intz, ik a adabau ta gudura yoate-
ko: asko izango al dok au, sendoarena da-
gikan Mengel.
- FEEBLE.—Asko izango yat ori. yaun.
- FALS.—Zorreen geldituten natxak, Mengel be-
giragarri. Nor dator urren?
- SHAL.—Kepa Bullcalf (Txal-zekor) larua!
- FALS.—Bai, arrano! dakusagun Txal-zekor.
- BULLCALF.—Emen nozu, yaun.
- FALS.—Yaungoikoa-arren, gudarigei egokia!
Tira, kiñatu egizu Txal-zekor, barriro be
orroa eragiteraño.
- BULLC.—Yaungoikoa-arren! ene gudalburu on
ori...
- FALS.—Ostera! kiñatu baño len orroa dagik,
ala?
- BULLC.—Ene Yaungoikoa! gizon gexo nozu ni,
yaun!
- FALS.—Ze gaitz dok?
- BULLC.—Otz emagalkumearena, yaun..., eztu-
la, yaun..., bakaldunci burestundau zanean
arentzako yoaleak yoten goaturiko eztnla,
yaun.
- FALS.—Tiruk, etxeko yantziakaz yoango az
gduetara; kenduko dauskagu ire otzarena;
eta neuk artuko yoat ardurea ire ordez ire

- adiskideak yo dagiezan yoaleak. Emen dira quztiak, ala?
- SHAL.—Zuk eskatuak baño bi geiago dagoz emen; lau baño eztozuz eroan bear emendik, yaun; eta olan dala, zatoz nirera bazkaiten, arren.
- FALS.—Tira ba, edateko yoango naz, baño ezin dot etxon bazkaitera arte. Pozik nago zu ikusiaz, Master Shallow, bai orixe.
- SHAL.—Ui! Sir Yon, gomutan ete dozu Gorka Gurenaren Zelaietako axe-errotan gau osoa an etzanik igaro geban gaua?
- FALS.—Ez egizu aiatatu geiagotan orrako ori, Master Shallow on orrek, ez egizu geiagotan aiatatu arako a.
- SHAL.—Ja! gau alaia izan zan a, Eta oraindik be bizi ete da Yone Nightwork?
- FALS.—Bizi da, bai, Master Shallow.
- SHAL.—Iñoz be ezin nendun yasan ni.
- FALS.—Iñoz bez, iñoz bez; beti esaten eban ak ikusi be ez ebalaz egin gura Master Shallow.
- SHAL.—Mezea-arren, asarre gorriturik iminten neban nik a. Emagaldu ("bona roba") zan a aldi atan. Onik ete yagok?
- FALS.—Zarturik, zarturik yagok, Master Shallow.
- SHAL.—Bai ba, zarturik egon bear yok onazkero; nai-ta-nai-ez egon bear yok zarturik; seguru be zarturik yagok; eta ni Kelmenegegizondegiratu baño lenago, Errobin Nightwork semea izan yoan Nightwork zarragandik.
- SIL.—Orain berrogei ta amabost urte dirala yazo zan orrako ori.
- SHAL.—Ja! Silence lengusu, ikusi izan al eu ik, zaldun onek eta nik ikusi izan doguna! Ja! Sir Yon, ondo esan ete dot?
- FALS.—Gaberdiko yoale-otsak entzunak gozaku. Master Shallow.
- SHAL.—Entzunak gozak, entzunak gozak, entzunak gozak; benetan, Sir Yon, entzunak gozak; zera zoan gure itz itundua, "E, mutilak!". Tiruk, gaioazan bazkaiten; tiruk, gaioazan bazkaiten; ene! guk ikusi doguzan egunak! Tiruk, tiruk. (Alde FALSTAFF, SHALLOW ta SILENCE'k).
- BULLC.—Master Bardolba amarburu on ori, adiskide izan zakidaz nire ama zarragaitik; eta eutsiz emen amarna xilineko lau Endika, Pantze'ko burestunagaz, zeutzako. Egia esateko, yaun, ainbaten litxakit ni eskegitea ta ni yoatea, yaun: eta orraitioño, neure aldetik, eztaust ardura; baño, gura eztozudalako, eta neure aldetik, nire adiskideakaz geldituteko gogoia dot; ostantxean, neure aldetik, eleuskit ainbeste ardura.
- BARD.—Tira ba, baztartu ojdi.
- FEEBLE.—Egia esateko, eztaust ardura; bein bakarrik ilten da gizona; eriotza bat zor dautsagu Yaungoikoari; bein be eztoz izan gura biotz bildurtirik; au ba'da nire alanbearra, bedi; ezpa'da, ezpedi; iñor be ezta onegirik bere bakaldunaren otseintzarako; eta, yazoko dana yazo, aurtan ilten danak ezta datorren urtean ilterik.
- BARD.—Ondo esanda; gizon bikain augu i, FEEBLE.—Benetan, bein be eztoz izango nik biotz bildurtirik.
- Barrien barri aurrera FALSTAFF eta EBAZ-LEA.
- FALS.—Tira, yaun, zeintzuk gizon artuko do-daz?
- SHAL.—Gogoko yatsuzanetatik lau.
- BARD.—Yaun, itz bat egin gura dautsut: iru libera artu dodaz Mouldy ta Bullcalf yc"=ite-arren.
- FALS.—Bai ete? Ori ondo.
- SHAL.—Erdi, Sir Yon, zeintzuk kiu aututen dozuz?
- FALS.—Zeuk autu nire orde.
- SHAL.—Arrano! olan izatekotan... Mouldy, Bullcalf, Feeble, eta Shadaw.
- FALS.—Mouldy ta Bullcalf: igazko, Mouldy, etxean ago i, gudaritzarako gei izan arte; eta igazko, Bullcalf..., i be azi adi gudaritzarako gei izan arte; zuotarik bata be etxoat gura.
- SHAL.—Sir Yon, Sir Yon, ez egiozu zure buaruari okerrik: orreik dira zutzako gizonik egokienak, eta onenak emon gura neunskizuz nik.
- FALS.—Zuk iraktd bear daustazu zelan autu gizonak, ala, Master Shallow? Ardura izan be niri gizonaren arpegirik, zamilik, goi-berik, txiki- andirik, eta mardotasunik! Gogoa ekadazu niri, Master Shallow. Amen Wart: ba-dakusazu zelangoa antz zakar sorkitsurena dauen; eta orraitioño, pertz-adabaltzallearen malluak yoten dauen bestean bizkor eta zoli ustu ta beteko dau onek bere su-odia; garardoginaren kantinak bete ta ustuten dauzanak bestean baño bizkorrago egingo dauz aurrerakada ta atzerakadak. Eta arpegitik erdia baño eztauen Shadow txotxo onegazko..., gizon au ekadazu: ez-tau onek arerioak berau non yorik; au bestean erraz yoko dau arerioak ezpatearen agoa be., Eta atzerakuntzarik egin bearko danerako..., Feeble onek, emakume-yostun onek, onek bai arin egingo dauela! Ui! gizon ondakinak emoidazuz, bai, eta gizon

andiak emongo dautsudaz nik ondakintzat. Esku-su-odi bat imini egik Wart'en eskue-tan, Bardolba.

BARD.—Zearretara eutsiok, Wart; onan, onan, onan.

FALS.—Tiruk, erabili egik ire esku-su-odi ori. Olan: ederto, bai ete? Ederto; ederto baño ederteago. Beti be yaurtitzallatzat onango gizon txiki, argal, zar, zimel, eta buru-ulak ekadazuz. Ondo egin dok, benetan, Wart; zirtzil sorkitsu kementsu augu i: autso, artu egizak sei peniok eutzako.

SHAL.—Eztau ondiño trebetasunik ískilloa erabilten, eztarabil ondo. Gogoan dot Mileend Green'en (Kelmen-Legegizondegian nintzan aldi aton), aldi atan Artur'en antzerkian Sir Dagonet'ena egiten neban nik; ba-zan an gizontxo bizkor bat, eta onan erabilten eban ak ískilloa; bein emen, bein an zendun be-rra; bein sartu, ta bein alde egingo eutsun; ra.ra.ra, esango eutsun bein; bum, beste bein; eta aurrera bein, atzera beste bein yoango yatsun; beste bein eztoz ikusiko alangorik.

FALS.—Ondo egingo dabe euren egitekoa txo-
txook, Master Shal'ow.--Yaungoikoak yagon-
go al au, Master Silence: eztautsuet itz as-
kotzarik egin gura. Onik eta ondo ibiliko al
zarie aitonseme biok: eskarrik asko: amabi
millako bidea egin bear dot arratseon. Bar-
dolba, guda-koskolak emon egiezak guda-
riai.

SHAL.—Sir Yon, onetsiko al zauz Yaungoi-
koak, zori ontsu egingo al dauz zure ara-
zoak, eta bakea ekarriko al dausku! Etxe-
rakoan, nirera zatoz ni ikusten; barríttau-
ko al dogu aspalditiko gure alkarren eza-
guerea: ba-ledike zugaz batera neu be Ba-
kal-yauregiratutea.

FALS.—Yaungoikoa-arren, olantxe izango al
da, Master Shallow.

SHAL.—Tira; dana esango dot itz bategaz.
Agur. (Alde SHALOW ta SILENCE'k).

FALS.—Agur, aitonseme zindook. Aurrera,
Bardolba; bidea erakutci egiek gizonoi. (Al-
de BARDOLBA'k, Gudalgeiak, eta abar).
Atzera etorri nadinean odeietaraño bidaliko
dodaz ebazleok: ondoraño dakust Shallow
ebazlearen barrua. Ene Yaungoikoa, ene

Yaungoikoa! Gu gizon zarrok guzurra esa-
tera bultza ta itzultzen gauzan txarrindarra-
rena! Goseak ífik bizi dan ebazle onexek
be bere gaztearoko txoriburukeriez eta Tum-
bull Etxartebide inguruan berak buruturiko
agite andiez txorro-txorro niri itz egin baño
besterik ezta egin; eta iru itzetik bat guzu-
na izan da, eta bere entzuleari zeatzago
ordaindu dautso, Turkar Andiari zergea ord-
dainduten yakon baño. Gernutean dot nik a
Kelmen-Legegizondegian, apal-ostean gaz-
tae-azalez egindako gizontzaí; billusik egoa-
nean, arbiburuan aitzoz giza-buru barrega-
rrien bat landuriko zutar biko arbi-a irudian
ak, argi ta garbi esateko; ain merro ta erkin
zan-eta, aren soña ezin ikusi eikuen ikusmen
zorrotzen bat ez abanak; gosearen irudia
bera zan, naiz gosearen irudiaren irudi, eta
orraitíño be, matxangoa bestean lizun eta
zantar, eta Urrillo deiiuten eben emagal-
duak; gaurkotasun-arloan beti ibiltzen zan
atzeraturik; abestu egiten eutsen emakume
bere oekideai, guztien aurrean txibitea eza-
rriai, mandazainai entzuten eutsezan abes-
tiak, eta zin egiten eban berari otuak eta
gabaz goi-arnasaz ikasiak zirala. Eta orain,
Txarrindarraren sastakai izandako au zal-
dundu egin da eta bere anai kutun izan ba'
litxako legetxe itz egiten dau Gaunt'eko
Yon'ez; eta zin egingo neunke orrek eztaue-
ia ikusi izan a bein Zaldunketategiko arraz-
pelean baño; eta orduan berean Gaunt'eko
Yon'ek burua ausi autsan, roaxalaren gizo-
nen artean sartu zalako. Neuk ikusi neban
orrrako ori, eta izen utsari narrua berotuten
e.ragoiola esan neuntsan nik Gaunt'eko Yon'
eri, ori berori ta orren zer guztiak be ang-
ra baten narruan sarfuezinik ez eban-eta;
gatzelu, yauregi litzakean orrentzako zaa-
miola baten ontzia, eta orain lur eta abereen
yabe da. Tira ba, barriztauko dot agazko
ezaguerea atzra etorri ba'nadi; eta txar-
to ibili bearko dot arenean, baten ordez
yakintzazale-arri bi idoro ezpa'dagidaz; al-
bur arrain gazterik amuzki izan al ba'dadi
lutxo zarrik goatzeko, eztoz ikusten yaio-
tzatiko legean zegaiirik nik a ez goatzeko.
Aldiak ekarri dagistala orretarako eretirik,
bai, eta or ikusiko dogu. (Alde dagi).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.-Yorkshire'ko Baso.

YORK'eko GOTZAIURUA, MOWBRAY, HASTINGS, eta beste batzuk aurrera.

GOTZ.—Zer yako izena baso oni?

HAST.—Gualtree-Baso yako izena, eta eder izango al yatsu.

GOTZ.—Emen gelditu, ene yaunok: eta arakatzalleak bidali aurrera, gure arerioak zenbat diran ikasteko.

HAST.—Lendik doguz bidalirik.

GOTZ.—Ondo egin dozue. Arazo andiotan nire adiskide ta anai zarienok, oraintsu idatziriko idazkiak artu dodazala Northumberland'gandik iragarri bear dautsuet; au da euren elburu, euki ta mami otza: bere zelangotasunari dagokozan indarrakaz egon gura ei leu ak berak, baña ezin batu izan ei dauz; eta, ori dala-ta, Eskolanda'ra alde egin dau, bere zori ona obaturteko; eta bere aldetik biotzetiko arrenak opatuaz, guk gure asmoetan ondo urtetea, ta tjure arerio bildurgarriekaz trikitx egin dagigunerako galgordeetan gu nagusi urtetea opa dausku.

MOWB.—Olan dalarik, lur yota ta zati zati eginik gelditu dira guk agan izan doguzan itxaroak.

Geznari bat aurrera.

HAST.—I, txotxo. ze barri dok?

GEZN.—Baso onen eguzki-sarreratik, emendik ara milla bateko biderik nekez dagola, badator arerioa ondo eraturik; eta eurak estalduten daben lurr-arlotik nik uste dodanez, gitxi gora-bera, ogei ta amar milla dira.

MOWB.—Egin eginean olangotsu dirala uste geban guk geuk be. Goazan aurrera ta gudategian arpegi emon dagiegun.

GOTZ.—Nor autu ete dabe gure aurka datozan indarren gualburutzat?

MOWB.—Westmoreland'eko ene Lorda, niie ustez.

WESTMORELAND aurrera.

WEST.—Osasuna ta agur txeratsuk guie gualburu bakalseme Lord Yon Lancaster'ko Dukearen aldetik.

GOTZ.—Ekin esaten, Westmoreland'eko ene Lord, zek zakazan ona.

WEST.—Orrazkero, ene yaun, batezbe zure eskarrari zuzenduko dautsat nire esakizunaren mamia. Bera danez etorri izan ba'ltiz matxinadea, yente iskanbillatsuz osotirik, burutzat gazteri odoltsua dauela, yagolatzat sastamarra, ta txaloak yoteko umeak eta eskekoak dauzala.-, zera da nik esan gura dodana, matxinadea bere irudi yator, egiazko ta berean agрту izan ba'ltiz, zu, aita begiragarri ori, eta yaun zindook, etzengokezen emen, matxinada zirtzil odoltsuaren irudi itsusia zuon omenagaz apainduteko. Zugazko, ba Lord Gotzai ori, erriko bakea da zure yarlekuaren euskarrí ta sendogarrí; bakearen esku zuriak ukutu dau, ba, zure bizarra; bakea izan da, ba, zure yakituri ta irakurteen aldeko; errugetasunaren irudi dira, ba, zure yantzi zuriak, bakearen uso ta gogo onetsia berbera..., Zegaitik alde egiten dozu, ba, zure izkuntzan ain eder diran bake-itzetatik gudu-itx latz eta arrotara, zure idazkiak erre ta txintxurtaturik (11), zure idazkura odoldurik, zure idazkortzak aztamakildurik, eta zure miñ yainkotierra gudu-tutu zaratatsutu ta akuluturik?

GOTZ.—Zegaitik egiten dodan orrako oii? Arira yo ta labur esateko, onan dago auzia: guztiok gagoz gu gexorik; sukar gorira ekarri gauz ase-beteak eta zorakeriak, eta odola atera-bearrean gagoz orregaitik; eta ak be gatx au eban berari intsigirik-eta, gatx onegaz il zan oraintsuengo gure bakaldun Errikarta be. Baña, Westmoreland'eko ene Lord zindo be zindo ori, eztoz nik emen nire burua osalaritzat; bakearen aieriotzat be enaz ni batuten gudari-mordokaz; bestera, gudu itzalaren antza artu ba' dau be gure bakeak apur baterako, zera-gaitik izan da, zori onaren zori onez gexoturik dagozan gogoak, yatekoa gitxiturik, osatuteko, eta biziaren zanak eurak be itxi-eginik ebezan odol loiak garbituteko. Argi-ago tn garbiago itz egingo dautsut, eta entzun nagizu. Zuzenez neurtu dodaz asta-

(11) "Idoztick erre ta txintxurtoturik" diño, baña esan gura dauena besterik da, zera, idctztiajaz zango-koskolok egin dauzala.

kinean gure iskillok egin leikiezan okerrak, eta guk yasaten doguzanak, eta guk yasaten doguzanok besteak baño astunago dirala idoro dot. Ba-dakusagu aldiaren ibaiak norako bidea daroen, eta aldiak dokarren uriol zakarrak beartu gauz gure bake baretik urteten; eta gerturik dogu gure irainen errezkadea, abagunerik datorkenean zuri erakusteko; irain-errezkadea ori aspaldí erakutsi gura izan dautsagu bakaldunari, baño eskaririk asko egin izan-arren, ezkinduzan bein be bere aurrera artu: guk irainak artu ta beragana yoan izan garean guztietan, ukatu egin dausku bera ikustea, eta egin eginean be irainik andienak egin izan dauskuezanen bitartez ukatu be. Oraindik be agiri dan odolletik agiri danez, euren gomutea lurrean idDtzia dagon oraintsuko galgordeak, eta une oro agertuten diranak..., gogoan doguz oraindik-eta..., beartu egin gabez iskillu itsusiok artzera, ez bakea, naiz aren adarrík austeko, emen benetako bakea, izena ta izana izango dauzan bakea iminteko baño.

WEST.—Noz ukatu yatsue eguño zuon eskaririk? Zetan egin dautsue bakaldunak irainik? Nongo "peer"ik zirikatu izan da zuoi atea isteko, legez besterako matxinadarako akiakula edo atxaki zustarbakoak dakazan idazti odoltsu au zuk yainkotiar ikurraztez ikurraztu ta matxinadearen ezpata zorrotz mingotsaren epaia sagaratuteko?

GOTZ.—Nire anai guztien izenez, erriaren onaren izenez, eta batez be etxe-bete gordinkeritan yaio dan nire anaiearen izenez dakat auzi au

WEST.—Olango biderik artu-bearrik eztago erantzuteko; eta ba'Iego be, zuri eztagokitsu bera artzerik.

MOWB.—Zegaitik ez orri be bere atala, eta gu guztioi be, guztioi so egiten dogunazke-rogaroko egunetako zaurien mina, eta egunotan be gure ganean esku astun eta ezbardina yasaten dogunazkero?

WEST.—Ui! ene Lord Mowbray on ori, gogoratu egizu aldi bakotzak zer dakarren alanbearrez, eta ori egin ba'dagizu, aldia dala esango dozu, ez bakalduna, irain egin dautsuna. Orraitiño be, zuokazko, ez bakaldunak egin dautsuenaren aldetik, ez aldiak egin dautsuenetik, eztoz uste biderik dozu-zenik ezetariko alakatzerik zuzenez egiteko: ez eutsuzan atzera emon gomuta ongaxi dan zure aita on Norfolk'eko Duke zanaren yauntza guztiak, ala?

MOWB.—Ze omen galdu eban eguño nire aitak, nigan biztu ta arnasarik artu bear iza-

teko? A maite eban bakalduna, iñoren eskariren eskariz, a nai-ta-nai-ez erbesterear bear gorrian aurkitu zan, eta egin eginean be, a ta Endika Bolingbroke, biak, biak zaldiraturik eta euren yarlekuetan tente be tente egozanean, aztalari so eginik euren zaldíak irrirtzeka alkarregana yoiazalarik, aztamakilak aurreraturik, mosu-koskolak beerraturik, galtzaiduzko begirakune gogorrek euren begi sutuetatik alkarri egiten eutsezanean, eta tutu-ots zoliak euren putzez burrukara dei egiten eutsen une fcearean..., orduantxe, ezek be nire aita Bolingbroke'n bularretik aldenduko ez eukean une atantxe..., Ui! zaldunketategira yaurtin eban bakaldunak bere makílea, aren bizia ari loturik egoan makílea; orduan egotzi eban ak lurrera bere bizía, ta bai arrazkero Bolingbroke'n aginduz, naiz ezpataz, eurena galdu dabena be.

WEST.—Lord Mowbray, zer diñozun be ezta-kizu zuk. Aitonsemerik adoretzuentzat esten zan aldi atan Hereford'eko Kondea; nok daki bietatik zeñerí egingo euskion zoriak irribarre? Baña zure aita izan ba'litz an garaila, Coventry'n bakarrík izango litzakean, beste erri guztietan, ago batez, arentzako gorroto-gedarez besterik etzan entzuten-eta; eta Hereford'en alde egozan arren eta biotz guztiak; a eban, ba euren kutun, a onesten eban eta bakalduna baño be begikoago yaken. Baña nire arlotik eta aritik alde egitea baño etxatsu onako au. Zuo irainak yakiten nator ni ona nire guldaburu bakalsemearen aldetik; zuoi esateko aren aldetik, ak bere aurrera artuko za bezala; eta zuon eskakizunak zuten agertu ba'daitez, artuko dozuez; eta kendu ta bazartu egingo da aren arerio zariela uste iza-nazo dautsoen oro.

MOWB.—Baña ak berak beartu gauz ari agindu au eragitera, eta erriketaz aginduten dau, ez biotz onez.

WEST.—Mowbray, urrinegi zoaz zu zure us-tean, aren agindua olangotzat etsiaz; biotz onetik, errukitik dator agindu au, ez bildur-retik, eta izan be, ara! begien aurrean dago gure gudarostea, eta, nire omena-arren, ustetsuegi dago bildurrari lekurik egiteko, bildurraren gomutarik izateko be. Gizon anditan geiango d'au gure gudarosteak zuonak baño, osoago ta aituago dira gure gizonak iskillok erabilten yakitez, zuonak bestean sendo dira gure guda-koskolak, eta onena gure zegaitia; orrazkero, bidezko da gure biotzak zuonak bestean zindo ta adoretzu

izatea; ez esan, ba, gure agindua bearrak

MOWB.—Tira ba, niçazko, nik eztoz alkarregaz itz egiter" [^]tslro gocarrik.

WEST.—Ornik ***: *da* loi.-çarri baño eztala zuok irain: ^; caka?uena; esku artetik zïrrist egin ~"~. yausi egïfen da ontzi ustela.

HAST.—Agin-u za! aiik *a-ko* ete dau Yon bakalsemeak bere aitagandik, gu entzun eta berefik bein betiko ebazteko gu zetan geldituten g::rean?

WEST.—Guztirako gudaiburu izenetik beretik datorrena da ori; andi eretxita nago ni zuk olango iiaun orinik egïeari berari be.

GOTZ.—Olan izatekotan, Westmoreland'eko ene Lord, euïsi papsltxo au, onetan dagoz ba, gure aldetiko alaketak; alaketotatik guztiak eta bakotxa artezu dagiala; gure egite onetarako emen, naiz beste nonbaiten gerurik eta adoretu dagozan guztiak eta bakotxak benetako segurantzeta izan dagiala azturik geldituko dala bai egina, bai egiteko izan gareana; eta olan izatekotan, atzera yoko dogu guk lege-bidera, eta bakearen besctetan itxiko doguz gure indarrak.

WEST.—Erakuisiko dautsat gudaibunari zuon gurari ori. Eder izango al yatsue, yaunoi, gudaroste bien bitartean gu alkarregaz batzeci; eta, edo atzanean bakera yo (ori guroro nl dou Yaungoikoak!), edo, ezpatak arïurik, erizkide-ezak ebazteko lekura yo.

GOTZ.—Ene yaun, orixe egingo dogu. (Aldo WESTMORELAND'ek).

MOWB.—Ba-dot susmorik nire biotzean gure bake-baldintzetatik bat bera be eztauela betcko ak.

HAST.—Ez egik izan orrako orren bildurrik; gure baldintzen muga-barru nasai ta ondo berezietan egin ba'dagigu bakea, ar-mendiak añako oñarri tinkoak izango yozak gure bakeak-

MOWP.—Eai, baña gugazko dauen eretxia da'ata, edozein apuko, edozein atxaki, zirtzilena, zutarbakoena, areago, edozein zegaiti, utsena, txikiena, irudituen be asko izango yakok baka'dunari gure egikizun au gogora ta ago-sapaira ekarteko; eta bakaldunaganako gure zintzotasunaren zinopa ba' gintzozak be, a'ango axe indartsuetan eralgiko gaioezak-eta, gure alea be, gure galgaraua be galcutsa besiean arin agertuko dok, eta ezin bonandu onik txarretik.

GOTZ.—Ez, ez, ene yaun. Oartu zakioz onako oni: gogait eJimiV clago bakaiduna onango asarre somai ^ia k-j'Vrtiokaz; buruan sartu yako, ba, n-r'-Titi susmoz bïzia kentzeak beste andiaçç bi bizïuten dauzaca bïzia kendu yak-m"ïen ondorengoan arfean; eta, au dala-ia, ~...bi g-^i e^ïngo dauz bere arerioen ize"ml '- ~ '•:~:-k, eij ez euki beragan bere ok~ :ok ~-mi-lo-a bcrmo ekarri leiozanik eser: *cnõo* baño obeto daki, ba, ak, ezin < ***** 7,o\~ -ciera lur oneiciko bedar txarrak bere ~v~vo~k orrefarako eretirik dakatscen r-siecn; 'er? arericen zutarrak ain bai eçnik ~\n ki"iïTildirik daçoz bere adiskic'e-n 'TEI:, bere arcioenak ateraten darc---'•-~"7n cciskideen batanak edo besterencric != lokMu ta asiindu egiten dauz. Olan ba, jur orçek be bere senarra asarratu ta yoter. z',-a\on eraazte okerrak egin daroano eg.ïe.j ciau, zera, senarra yotera doakc~ç T> go;a eragi besoeian dauen umea, eta < ; iekc ~~~~ii besoan gelditua-zoien dautso z5i,-orj-ai, zigorra egiteetara eldu bagarik.

HAST.—On-ez ganera, lendik fau bakaldunak ausi *la* bi. •in"iik I-ere zigorra, oraintsu bere o eriT-k yoten eratilita, eta orain eztau ak zigra segaz emonik be; olan ba, aren alak, aginik bagako leoiak lez, agindu egin daike zigorrik, boña emon ez.

GOI7.—Egi boñ- egi-igo; eta orregaitik gazoz ~~~jv,, :is ?jan n ~:r.~\ ori, orain ondo ecin be'icyfcuz onsr'oak, austen dan azpcgien i:of Jotucskero len baño be sehdoaq~ rjcdifaien *d.an-z*, gure bckea be eguño cusi eza'paitz baño be sendoago geldituko d ~a.

MOV/13.—Olan bedi, emen da barriro Westrnoreland'eko ene yauna.

Barriro aurrera WESTMORELAND'eko Lorda.

WEST.—"?-nendik ur, emendik aukeran dago bakalsemea; eder eie yatsue yaunoi aguz gure gudcroste bietatik bide-bardin batzea?

MOWB.—Olan izatekotan, Yaungoikoa-arren, zu York'eko yaun ori, zu zoakiguz gure curretik.

GOI'Z.—Aurretik zoakidaz eta nire agur eta txerak opau egiozuz aren eskarrari: Ono etorria, ene yaun, eta goazen. (Alde dagie).

II AGEHLEKU.-Basoko beste arlo bat.

Aurrera, alde batetik, MOWBRAY, GOTZAI-BURUA, HASTINGS, eta beste batzuk; beste aldetik, LANCASTER'ko YON BAKALSEMEA, WESTMORELAND, Agintza-gudariak, eta Laguntzakoak.

YON B.—Ondo aurkitua augu emen, Mowbray ene lengusu; egun on zuri, Lord Goztaiburu begiragarri ori; baita iri be, Lord Hastings..., eta guztioi.-York'eko ene Lord, egokiago ta zure lekuanago aurkituten zintzazan zu yoale-otsez dei ta baturik, begirapenez entzuteko zurc inguruan baturik, zure artaldeari Idazteuneko egiak azaldutMi zeuntsezanean, emen burdiñezko gizon egirik zakusadanean baño, itza ezpata egirik, eta bizia eriotzaturik, zure danborragaz matxino-mordoak adoretu ta txaloturik baño. Bakaldunaren biotzean yezarrita egon, eta aren biotz onaren eguzkitan elduten dagonak bakaldunari bere aurrean min egitea, *al ene!* olangoak olango anditasunaren itzalpean egin leikezan okerren andi ta itsusi! Eta au da, gotzai yaun, zugaz yazoten dana. Nok eztau entzun sakon be sakon sartu zareala zu Yaungoikoaren idaztietan? Gure buru izan zareala Aldundian; Yaungoiko berberaren ostzat irudituz zatxakuzala; bitarteko izan zareala eskarraren, zeruko gurentasunen eta gure egite ilunen bitartean? U! nok sinistu be egingo txarto erabili izan dozula zeruak dautsun begirapena ta zerutiko eskarra, egite lotsagarriak egiteko kutun ustelek bere bakaldunaren izena erabili daroanez? Yaungoikoagazko guzurrezko aperturipean, ostu egin dautsazuk Are ordezkoari, nire aitari, bere bendekoak, eta emen batu dozuz Yaungoiko ta Aren ordezkoaren bakearen aurka.

GOTZ.—Lancaster'ko ene yaun on, enago ni emen zure aitaren bakearen aurka; ori barrik, Westmoreland'eko ene yaunari len esan dautsadanez, aldi nastuok beartu gabez, guztien sentsuak eraginik, alkarganatu ta bat-egitera, era zakar onetan, geure buruen segurantzearen alde. Zure Eskarrari bidalirik dot guk arturiko irainen errezkadea, eta an dagoz eurak banan banan izentau ta azaldurik. bakal-yauregian zapuzkeriz entzun gura izan eztauskuezan irainak. Ortik sortu da Idera (Hydra) au, guduaren seme au; eta Idera onen begiak liluratu ta lotarututeko bidea litzake guri gure eskakizun

zuzenak entzun eta eurretan eskatuten dana guri emon, eta guk gure aldetik, zorakeri onetatik osaturik, nagusiagotzearen ofietan benetako zintzotasuna opatu ta an apal apal makurtutea.

MOWB.—Olan ez izatekotan, gerturik gagoz gu gure zoria zelango dan gure atzenengo gizoneraño ikusteko.

HAST.—Eta gu emen yausi ba'gadiz be, badogu indar barririk gure asmoa gure urren aurrera eroateko; eta aik eurak be bendertuak izan ba'daitez, euren adiskideak eroango dabe aurrera guduau; eta olan, okerrak etorriko dira okerren ganera; eta ondorengotik ondorengora, aurrera yarraiko da auzi au Ingelanda'k semerik izango dauen bitartean.

YON B.—Azolegi itz egiten dok ik, Hastings, azalegi itz egiten dok, geroak bere erraie-tan zer dauen igarri-gurarik.

WEST.—Eder izango al yako zure eskarrari orrei argi ta garbi erantzutea, noragiño onetsiko dozuzan euron eskakizunak.

YON B.—Guztai ederreten dautset nik, eta guztiak emongo dautsedaz; eta nire odolaren omena-arren, zin dagit emen, oker aitu dabezala nire aitaren asmoak; eta aren inguruan dagozanen batzuk gogatsuegi artu dabela aren aginpídea ta aren esangurea... Ene yaun, laster be laster erantzungo yake irainoi; nire gogoa-arren, bai orixe. Eder ba'dakituzue au, yarei egizue zvon indarrak, euren kondetegietaratu daitezau, guk gureak bidaliko doguzanez; eta emen, gudarosteen bitartean, adiskideai dagokenez, edan eta alkar besartean estutu dagigun, gure artean barriztau dan gure arteko maitasun eta adiskidetasunaren agiriak euren begietan guztiak euren etxeetara eroan daguezan.

GOTZ.—Gure irainakazko erantzuntzat axtzen dot zure bakalseme-itza.

YON B.—Emoten dautsut itz ori eta bete be egingo dot, eta orrazkero, zure eskarraren alde egiten dot zurrut au.

HAST.—Oa, gudalburu (Agiinfea-gudari bcsti dircruto), eta iragarri egiozak gudarosteari bake-barriok; ordaindu dagioela, ta doazala; ba-yakiat gogoko izango yakela barri au. (Alde Agintza-gudariak).

GOTZ.—Zure osasunaren alde, Westmoreland'eko ene Lord zindo ori.

WEST.—Zure eskarraren alde edaten dot nik; eta zuk ba'zenki zelango nekeak artu izan dodazan bake au ekarteko, neurri barik eta biotzez edango zeunke; baña geroago erakutsiko dautsut agiriago nik dautsudan maitasuna.

GOTZ.—Eztot orrako orren ezpairik, zalantzarik.

WEST.—Poztuten nau orrexek. Osasuna ene yaun eta lengusu zindo Mowbray'ri.

MOWB.—Abagune pozkarrian opa daustazu osasuna, bat-batean arean gexorik nago-ta.

GOTZ.—Beti poztuten dira gizonak yazopen txarrak yazo-aginik egon diranean; baña gotilun eta astun egoten dira yazokune onen aurretik.

WEST.—Olan ba, poztu adi, lengusu; bat-bateko ire ondoez orrek biderik emoten yauskuk. ba, "Zer onen bat etorriko dok biar" esateko.

GOTZ.—Sinistu egidazue, ni neu pozik baño pozago nago.

MOWB.—Ainbat txarrago, arako zure araua egiazko izatekotan. (Oio ta santsotk barruan).

YON B.—Entzun dabe bakeagazko itza. Entzun zelan gedar dagien!

MOWB.—Garaite-ostean bai ba-litzakean pozkarri oiok entzutea.

GOTZ.—Garaite langotsu yatsu bakea, edo, obeto esateko, benderatzetariko, bakeak egiterakoan alderdi biak burua zindoro makurtuten dabe-ta, eta bata be ezta bestea baño gitxiagorik.

YON B.—Zoaz, ene yaun, eta yarei dagiela gure guarostea be (Alde WESTMORELAND'ek). Eta, ene yaun on, zuoi eder izatekotan, gure aurretik igaro daitezala zuon indarrak, zelango gizonkazkoa egin bearko geunkean ikusi dagigun.

GOTZ.—Oa, Lord Hastings on ori, eta aurreigaro dadizala sakabanatu-aurretik. (Alde Hastings'ek).

YON B.—Batera etzango gareala arratseon us-te dot, yaunak.

Aurrera barriro WESTMORELAND.

Iicngusu, zegcitik dcigo orain g'eldi giire gudarostea?

WEST.—Geldi egoteko agindua emon dautsuezenazkero, gudaiburuak eztabe alde egin gura besterako agindua zeure agotik entzun arte.

YON B.—Ba-dakie aik euren egikizuna.

Aurrera barriro HASTINGS.

HAST.—Ene yaun, sakabanatu da gure gudarostea; euren bideak artu dabez, buztarritik azkatuoriko idi gazteak egin daroenez, sorkalde, sarkalde, iparralde ta egoe-alderantzta, naiz, irakastegia naiz danean mutikoak euren etxeetara, naiz yolastegira bizkor eta arin yoaten diranez.

WEST.—Barri onak dira orreik, Lord Hastings; eta atxilo egiten aut orrako orren sarizat, etoi ori, etoikeririk andienaren erruduntzat: bai zu be, gotzaiburu..., eta bai i be. Lord Mowbra--..., biok etoikeririk andienaren erruduntzat.

MOWB.—Zuzen eta gizatasunari dagokionik ete da yokabide au?

WEST.—Olangorik ete da zuon itunbena ta batzarra?

GOTZ.—Onan ausi ta iruntsiko ete dozu zuk emondako itza?

YON B.—Eztautsut emon nik ezetariko bairik: euretaz alakatuten zintzazan irainai erauntzungo neuntsela agindu dautsut nik; eta Kistarrek izan leiken ardurarik andienagaz egingo dot orrako ori; baña zuokazko, matxinok, gertau zadize matxinadeari ta zuonak lango egiteai dagokien saria zelango dan ikusteko. Buru-arinkeriz batu zenduezan indarrok, leiatsu ekarri dozuez ona, ergelkeriz bidali dozuez emendik. Yo gure danborrak, eraso ta yarraiz zakioez sakabanaturik dagozanai; Yaungoikoak, ez guk, gudu egin dau gaur gutzako galdorde bagarrik. Zuotatiko batzuk yagon dagiezala etoiok, eriotzako taui-ganerako, taukia da, ba, etoikeriaren oea ta arnasearen atzena. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-Basoko beste arlo bat.

Gudu-otsak: sartu-urtenak. FALSTAFF eta COLEVILLE aurrera, alkarregaz trikitx eginik.

FALS.—Zer yak izena, yaun? Zetariko ta nondiko augu, arren?

COL.—Zaldunetariko nok, yaun; eta Coleville Ibarreko yatak izena.

FALS.—Tira ba, Coleville yak izena, zaldunmallako augu, eta ibarreko, lekuz; oraindik

be Colevile izango az, etoiarena ire mallea, eta baitegia izango dok ire ibarra..., sakonik asko dan ibarra; olan, oraindik be Colevile Ibarreko izango az.

COL.—Etzara zu Yon Falstaíf, ala?

FALS.—Nazana nazala, *a* bestean adoretzu, yaun; men egingo ete dok, yaun? Ala, igaitik izerdiak bota bear ete yoadaz? Nik izerdirik botaiekotan, ire maitaleen tantanak izango dozak, eta ire eriotzeagaitik negarrez yagozak aik; orrazkero ba, iratzarri egizak ire bildurra ta ikarea, eta nire errukiarri txerakor izan akio.

COL.—Sir Yon Falstaíf zarealakotan nago ni; eta uste orretan zure benderatuten naz.

FALS.—Izkuntza-irakastegi osoa yoat nik emen sabelean; eta guztietatik batek be etxok esaten nire izenaz beste itzik. Edozetarikorik ba'ltzok nire sabela, Europa'ko gizonik eraginena ta aitatuena nintzakek ni: nire sabelak, nire sabelak ondatuten naiok ni. Emen yatok gure gudalburua.

LANCASTER'ko YON BAKALSEMEA, WEST-MORELAND, eta beste batzuk aurrera.

YON B.—Yoanik da beroaldia-ta, ez yarraí aurrerago: dei egin orain gudariai, Westmoreland'eko ene lengusu on. (Alde WEST-MORELAND'ek) I, Falstaíf, non izan augu bitarte guzti onetan? Beti ator i dana eginik dagonean; nire bizia-arren, berandumarroak, noz edo noz, eskegigalluen baten bizkarra ausiazoko dauskae.

FALS.—Ba-neunke tamalik, ene yaun olango-rik yazo ba'ledi; eguño eztoz yakin adorea- ren sari asarrea ta akarra diranik. Elaitzat, geziztat, naiz balatzat nozu, ala? Gogaketea- ren bizkortasunik ete dot nik zar errukarri onek? Al danik eta bizkorren eta arinen etorri naz ona; eun eta larogei baño zaldi geiagori ler eragin dautseí; eta emen, bideko lorratzak aldean dodazala. Sir Yon Colevile Ibarrekoa goatu dot, nire adore aratz eta orbanik bagakoz, zaldun asarre be asarrea ta arerio kementsua. Baña, zelan, gero! Ni ikusi-ala, besterik baga, men egin daust; arako Erroma'ko sur-makurrak lain esku- bide ba- dot nik onako au esateko, zera, "Etorri-ala, ikusi-ala, benderatu egin ne- ban".

YON B.—Ire irabaziari baño orren txerakorta- sunari zorrago yakok ik ori benderatutea.

FALS.—Eztakit ba; emen dago au eta emen dot benderaturik; eta zure eskarrari arren- ka nagoko, egun onetako beste egite goragarrien artean onako au be idatzi daitela;

ostantxean, Yaungoikoa-arren, neuk iminiko dot berarizko balaten baten, goian nire iru- dia dauela ta Colevile nire oñai mun egiten agiri dala; eta ni orretara beartu ba'nagizu, zuok nire aldean peni biko urreztauaarena egin ezpa'dagizue, nik ostera, ospa ta entzutearen ortze garbian, iretargi beteak ortze-ko beste txatartxoan aldean argi be argi egiten dauenez, zuon aldean argi ta dizziz egin ezpa'dagit, ez sinistu bein be aitonse- meren itzik: olan ba, zuzena egidazue, eta gora doala irabazia.

YON B.—Astunegi dok irea, gora igoteko.

FALS.—Olan ba'da, argi egin dagiala.

YON B.—Lodiegi dok irea, argirik egiteko.

FALS.—Nire onerako izango dan zerbait egin dagiala, ene yaun on, eta zeuk zer-gura deitu egizu.

YON B.—Colevile yak izena, ala?

COL.—Bai, ene yaun.

YON B.—Matxino entzutetsu augu, i, Colevile.

FALS.—Eta zure bendeko entzutetsu zindok goatu dau ori.

COL.—Ni enaz, ene yaun, nire nagusiak di- rana baño, ni ona ekarri nabon nagusiak baño; rJ izan ba'nintz euren buru, bendera- tu izan dozuzan baño karuago ta nekezago bsnderatuko zeunkeazan.

FALS.—Eztakit nik aik zelan saldu izan da- bezan euren buruak: baña ik, txotxo txera- korrek legetxe, utsean emon dok irea; eta eskar oneko natxak ire burua emon dausta- kalako.

WESTMORELAND aurrera barriro.

YON B.—Bertanbera itxi dozu yarraiketea, ala?

WEST.—Eginik dago atzeraketea, eta gelditu- rik dago yarraiketea.

YON B.—York'era bidali egizu Colevile bere alkarkideakaz batera, laster erailteko: Blunt, eroan egik au emendik; eta ondo yagon, gero! (Alde batzuk COLEVILE'gaz). Eta Bakal-urira goazen orain, ene yaunok, entzun dodanez, nire aita, bakalduna, gexorik *ie gexorik dago-ta; gure barriak gure aurre- tik yoango yakoz aren nagusiagotzeari eta barriok, lengusu, ik eroango dautsazak, aren pozkarri ta nasaigarritzat; eta gu ire atzetik yoango gozak alosoko bizkortasun- ez.

FALS.—Ene yaun, ekadazu zure ederretsia Glostershire zear yon nadin; eta bein ba- kalyauregiratu zadizanean, nire alde eretxi ona emongo al dozu, arren.

YON B.—Onik eta ondo abil, Falstaíf; nik, na-

zan onek, ik irabazi dokan baño obeto itz fgingo yoat ire olde. (Alde FALSTAFF'ez b sle guztiak).

FA! S.—Ik bururik izatea dok nik gura dodan guztia; ire duketzea baño oba litxakik. Egia esateko, gazte odol-otz onek enau geiegirik maite; barrerik be ezin dautso iñok eragin; baña arrituskorik ezta au; bai ba, ardaorik eztaudaten. Aradaorik edaten eztaben gozteok iñoz be ezтира ezetara eltzen; otzegi egiten dautsie oiola edari arinegiak, eto auaiquia yanda ar geldo ta meko egiten di-iC; eta gero, ezkondu daitezanean, alabak i -ien dabez; ergel eta kikil izaten dira c; en baten; eta geutariko batzuk be olan-çi'xe gintzakez, berogarriagaitik ezpa'litz. E íariko ondorena dau ardao onak. Garau-netara igoten da; eta arein inguruko lurrun ergel, motel eta gordintsuak legortu egiten daustaz niri beintzat: irudikor, bizkor, azkor, arin, sutsu-irudiak sortuten dauz; eta c.iako ori abotseratuazkero 'll ñeiatu. zk ro esan gui.; dcí), eta yaict-ea do onako au, buru-argitasun lango buru-argitasuna sortuten da. Zera >da ardao onaren bigarren ondorena, odola berotutea; eta len otzik eta bare egonik, laru ta zuri itxi izan dau gibela, eta ori yatsu bildurti ta kikilen ezaugarria; baña ardao onak berotu egiten dau odola, ía barrutik azalera eragiten dautso bidea; argitu egiten dau arpegia, eta, mendiganeko suak legetxe, bakalderrri txiki onetako beste guztiak (gizonai esan gura dot) onua emoten dautse, iskillok artu dagiezala; eta gero, bizian erri

zearena dagienak, eta barruko espiritu guztiok batzen dira euren gugalburu dan biotzera, eta onako onek, orrenbesie yurrai-Sk arrotu ta puzturik, edozein egite adoretu egiten dau; ardao ona da adore au dakorrena. Au dala-ta, ardao onik ez izatek.tan, utsa da iskillok erabilteko Irebetasun guztia; ardaoa da, ba, adoreari eragiten dautsana; eta yakituria txerrenak yagoten dauen urre-dirutza baño etxatsu, ardaoagaz yabetu, biztu ta eragin arte. Emendik dator Endika Bakalsemea adoretu izatea, ak, ba, bere aitagandik arturiko odol olzari, lur me, antsu, ta gorriari egiten yakonez, satsa ezarri dautso, giyau egin dau, eta landu egin dau ardao ona edateko ta asko edateko aleginak alegin eginda, eta olan, bero ta adoretu egin da a. Milla bat seme izatekotan nik, zera litzake nik lenen irakatsiko neunskien bizitza-araua..., edari arinak betiko baztarreratuta, ardao onetara yo dagiela.

BARDOLBA aurrera.

Kaxo, Bardolba!

BARD.—Gudaroste osoa sakabanatu yoek, eta yoan dozak.

FALS.—Doazala, Glostershire zear yoango nok ni; eta Erroberta Shallow, "Esquire", ikusiko yoat an; lendik yarabilat a nire atzorkolo ta urrengo atzaren bitartean bigundu ta ora egiten, eta laster ikurraztu egingo yoat nik agaz. Gaioazen. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.—WESTMII

ENDIKA BAKALDUNA, CLARENCE, HUMPHREY BAKALSEMEA, WARWIK, eta beste batzuk aurrera.

END. B.—Yaunok, amaiera emon ba'dagio Yaungoikoak orain gure atetan odola dario-la dogun eztabaida oni, goragoko gudategietara eroango dogu gure gazteria, ta ezpata onetsiez besterik eztoгу aterako. Gertuiki eta atondurik dago gure ontzidia, baturik dagoz gure indarrak, eta edozer dago gure gurariaren neurriz; bakarrik, guk geuk bear dogu sendotasun apur bat; yagita dagozan matxinook agintzearen buztarperatu arte gagoz geldi.

WAR.—Eta guk eztoгу ezpairik zure nagusiatogteak laster izango dauzala orrako zer biak.

TER. Bakal-yauregiko leku.

END. B.—Humphrey, Gloster'ko ene seme, nondik dok ire anai bakalsemea?

HUMPH.—Windsor'era yoan dala uste dot, ene yaun, an eizean egiteko.

END. B.—Zetariko laguntzea eroan yok?

HUMPH.—Eztakit, ene yaun.

END. B.—Ez ete dok agaz Clarence'ko Toma, aren anaiea?

HUMPH.—Ez, ene yaun on, emen berton dago a.

CLAR.—Zer gura dau nire yaun eta aitak?

END. B.—Itzako onaz besterik ezer bez, Clarence'ko Toma. Ze alanbear dala-ta ez ago i ire anai bakalsemeagaz? Maite au ak, eta ik euk eztoк artzen a aintzakotzat, Toma; ire anai guztiak baño biotzeanago auko ak i; ez egik amustu, ez egik otzitu iganako aren maitasuna; kutundu egik maita-

sun ori, ene seme; eta bitartekoren egikizun onik egin daitek ik ni il nadinean, aren anditasunaren eta ire beste anaien bitartean; olan dala. ba, yaramon egiok; ez egik amustu, ez egik baztatu aren iganako maitasuna, ezta ez egik galdu agazko ik dokan alde ona, aganako otz agertuz eta aren gurariak ik yaramonik egin ezagaz; eskartsu, eskuzabal dok, ba, a, berari begirapenik izanazkerok; ba-yok ak errukizko negarrik, eta eguna bestean zabal dok bere esku bera kor dan errukirako; orraitioño be, asarratuazkerok, suarri dok a; negua bestean gordin, eta egun-sentiko liri-iri otza bestean batbateko. Beragaz ardura eukitekoa dok, beraz, aren gogaldia: agirika egiok bere utsakaitik, baña begirapenez egik orrako ori, eta bere odola gogaldi onerako itzulirik dagola dakusakanean egin be; baña muker eta gogaldi txarragaz dagonean, ez egin lokariari tenkadarik, nasaiagotu baño, bere biotzaldiak, legorrean dagon baleari yazoten yakonez, indarka agortu arte. Ikasi egik au, Toma, eta babesleku izango atxake ire anaia; urrezko utzai izango az ire anaia bere barruan artzeko, euren odolak baturik dagien ontzia, susmoaren edenez nasturik aurkitu-arren (eta nai-ta-noiez ixuriko yok aldiak eden ori ontzira), iñoz be odolik ixuri eztakion, eden ori irabedarra bestean, naiz sutauisa bestean indartsu izan ba'ledi be.

CLAR.—Txerakor izango natxako, arduraz eta maitasunez.

END. B.—Zegaitik ez ago agaz Windsor'en i be, Toma?

CLAR.—An eztago a gaur; London'en bazkaldu teko da.

END. B.—Eta nor yok laguntzat? Esan al ete dok?

CLAR.—Poins'egaz, eta etenik bagako bere yarraileakaz.

END. B.—Lurik mardulenean azten dok bedar txarrik geien; eta a, nire gaztearoaren irudi zindoa, bedar txarrez estaldurik yagok; eta, orregaitik, eriotzatik aragorakoa dok nire naibagea; odolezko negarrik darioz nire biotzari nire asabakaz batera lotaratu nadineko noraezako egunak eta aldi ustelak ikusteko zariela irudituen dodanean. Izan be, aren iskanbilla burugogorkeritsuak nok makurturik eztabenean, asarrea ta odol be-roa aren onulari diranean, eskuarteak eta ekandu tzarrak bat-egin dagienean, TJ! zelangoz egoz eroango daben a bere lerak galgordearen aurrera, eta onako onen besterako ustelkerira!

WAR.—Ene yaun eskartsu, urrinegi begiratu ten dozu zuk aren etorkizunagazko: inondiko izkuntzaren bat ikasten daragoioenak legetxe, bere lagunak ikasten daragoio ak; eta olango izkuntzarik ikasten daragoionak naita-nai-ez begiratu ta buruz ikasi bear izaten dauz itzik zakarrenak be; eta bein orra elduazkerok, zuk nagusi orrek dakizunez, itzok ezтира erabilten bestetarako, ezagutu ta eurai iguin eta gorroto izateko baño. Olan, itz zakarrak lez, aldia osotu dadi-nean, bakalsemeak be ortik zear bidaliko dauz bere oraingo yarraileak; eta euren gomutea eredutzat, naiz neurritzat biziko yako, bere eskarrak bestean biziñzak areinen neurritz neurtuteko, olan igaroko txarretik onik aterateko.

END. B.—Nekez egiten dau erleak ezterik gorputan, erlategia bertanbera itxita...

WESTMORELAND aurrera.

Nor dago or? Westmoreland, ala?

WEST.—Osasuna nirerik nagusienari, eta zori on barririk intsigiko al yako ni iragarteko nazanari! Mun dagio Yon bakalseme zure semeak zure eskarraren eskuari; ekarririk dira Nowbray, Scroop Gotzaia, Hastings. eta guztiak, zure legeak bere zigorra ezarri dagitsen. Ezta geldituten orain matxinoen ezpatarik bat be bere lekan eztagonik, edonon darakus bakeak bere olio-adarra; egite au zelan burutu dan, emen irakurri al izango dau astiz zure nagusitasunak, egite baktotxa bere zertzeladakaz.

END. B.—TJ! Westmoreland, uda-txori augu i, neguaren sorbalda-ganera igonda, egunak luzatuaz doazala andik abestu daroana. Ara! barri geiago oraindik.

HARCOURT aurrera.

HAR.—Yaungoikoak yagongo al dau zure nagusiagotzea arierioetatik; eta eurak zure aurka yagi ta yarri dadizanean, ni orain zuri esatera etorri nazanak legetxe yausiko al dira! Yorkshire'ko xeripak lurreratu dauz Northumberland'ko Kondea ta Lord Bardolba, Ingelandar eta Eskolandarrezko indar andiagaz etorri diranak: lotuki onetan dago luze ta zabal azalduta gudaketea zelan eta zetara egin izan >dan, eder ba'dakitsu.

END. B.—Eta zegaitik moteldu bear ete nabe barri onok? Iñoz be ezin etorri ete da zoria esku biak beterik dauzala, bere itzik ederrinak izkirik iguingarrienez idatzita bagarik? Edo sabela emoten dau, baña yakirik

ez (au yazoten yake beartsuai, osasunik badabela); edo, ostantxean, oturuntzea emon, eta sabela kendu (Onetarikoak dira aberatsak. Edozer ugari, baña pozik ezin artu. Poztu egin bea neunke nik barri pozka, rriokaz; eta uts egiten dauste orain begiak, eta zorabiatuak dagoz nire garaunak). Nirearena! Urteratu zakidaze, txarto be txarto aurkituten naz-eta. (Larritu egiten da).

HUMPH.—Nasaitu zadiz, zu nagusitza ori!

W&ST.—Ene yaunik nagusien ori, nasaitu zadiz; gora begiak.

WAR.—Epe artu egizue, bakalsemeok; ba-dakizue, sarritan yazoten yakoz aldikadok orren nagusitasunari. Alde egizue aldamentik, eguratsa emon egiozue; laster izango da onik.

CLAR.—Ez, ez; luzaro ezin yasan izango dauz min zorrotzok; etenbako ardurak eta kezak eta buru-bearrak zulatu ta ausi egin dabe orren bizia euki bear leuken orma ain meata, alde batetik bestera begira dago orren bizia, ta urten egingo da.

HUMPH.—Bildurtu egiten nau erriak; ikusi dakus, ba, ak, iñoz yaio dirala aitarik bagako semeak eta yaiotzatikoak iñoz izaten dauzala yaiotza lotsagarriak be; urtearok be ba-dakie euren izakerea aldatuten, urtea ilebete batzuetan lotan egon eta ilebete batzuen ganetik yauzi (saltu) egin ba'leu legetxe.

CLAR.—Iru bider igon da ibaia, bitartean be-rantzarik egiteka; eta zarrak, aldiaren egunkari zarminduok, gure birraitaita andia, Edorta, gexotu ta il baño zerbait lenago be beste onenbeste yazo zala diñoce.

WAR.—Motelago itz egizue, bakalsemeok, bakalduna bere seneratuaz doa-ta.

HUMPH.—Orren atzena izango da elbarri au, seguru be seguru.

END. B.—Arren, eragi ta beste gelaren batera eroan nagizue: bigun, arren. (Yauregiko leku barruragokora daroe BAKALDUNA, eta oean eratzaten daibe). Eztatla egin ezetarikotsik, ene aciiskide zindook; esku trebe ta laguntzallaren batek eresi atsegingarriz nire gogo nekatuari lo-arrazoteko ez izatekotan.

WAR.—Ereslariak datozala aldameneko lekura.

END. B.—Nire burupeko onen ganean imini egidazue nire burestuna.

CLAR.—Sakonduz doaz orren begiak, eta aldatuaz aldatuaz doa.

WAR.—Ixilago, ixilago!

ENDIKA BAKALSEMEA aurrera.

BAKALS.—Nok ikusi dau Clarence'ko Dukea?

CLAR.—Emen nok, anai, motel be motel.

BAKALS.—Onangorik! euria barruan, eta atetari atetan! Zelan yagok bakalduna?

HUMPH.—Txarto baño txartoago.

BAKALS.—Entzun ete yozak barri onak? Eralgi egiozuez.

HUMPH.—Eurak entzunaz askoz be txarrago yarrí dok.

BAKALS.—Pozarren gexotu ba'dok, osakai bari osatuko dok.

WAR.—Ixilago, ene yaunak; bakalseme kutton, ixilago itz egik; lo egin gura yok ire aita bakaldunak.

CLAR.—Beste gelara goazen.

W&R.—Eder izango ete yako zure eskarri gугaz batera yoatea?

BAKALS.—Ez; emen yezarriko naz, bakal'duna yagoteko. (Alde ENDIKA BAKALSEMEA'z beste guztiok). Zegaitik ete dago burestuna or burupekoaren ganean, oekide orren kezkarok izanik? Kezka argitsu orrena! Ardura urretzatu orrena! Ainbeste gau atzarri ateak zabal zabal izten dautsazakan ori! eta orain igaz yagok lotan! Orraitiño, ez bere burua etxean egindako txapelez estali ta loturik, gaua lo-arrantzaka igaroten dauenaren lo sakon gozotik erdia bestekorik be. Nagusiagotza ori! i aroana ik sakatuten dokanean, egun beroan gudakoskol bikainak egin daroana egiten dok ik, erre beroaren berok. Or dago arnasa-bidean zirkinik eztagian lumatxo bat; arnasarik artu ba'lei, ikaratuko litzake, nai-ta-nai-ez, lumatxo arin eta astarik bagako ori. Ene yaun eskartsu! ene aita!-. Sakona da izan be lo au; urrezko zer biribil ori bagarik Ingelanda'ko ainbeste bakaldun itxi izan dauzan loa da, gero! au. Zera dok iganoko nire zorra, negarrak eta odoletiko naibaga sakona, yaiotzeak, maitasunak, eta seme-samurtasunak ugari ordainduko dautsuezanak, ene aita maite ori; bakalderriburestun au da zuk zor daustazuna, leku eta odoloz zure urrengo nazalako nigana datorrena. (Burestuna buruan iminiala) ñmen, emen dago, Yaungoikoak yagongo al dau berau; eta munduak bere indar osoa beso baten imini ba'dagi be, eztaust kenduko urrenik urren datorkidan omen au; nireai itxiko daustet nik au, zuk niri itxi daustazunez. (Alde dagi).

END. B.—Warwick! Gloster! Clarence!

Aurrera barrero WARWICK eta besteak.

CLAR.—Deiez dago bakalduna, ala?

WAR.—Zer gura dau zure nagusiagotzeak?
Zelan dago zure eskarra?

END. B.—Zegaitik itxi nozue emen bakarrik,
ene yaunok?

CLAR.—Nire anai bakalsemea itxi dogu guk
emen, ene nagusi, ak artu dau, ba, beragan
emen yezarri ta zu yagotea.

END. B.—Kimuruerriko bakalsemea! Nondik
dok bera? Ikusi egin gura yoat a bera; a
etxagok emen.

WAR.—Idigita dago ate au; emendik yoanik
da a ainbatera (nonbcriteria).

HUMPH.—Ezta igaro gu egon garean gelea
zear.

END. B.—Nondik da burestuna? Nok artu dau
nire buruekotik?

WAR.—Emen itxi dogu, ene nagusi, guk alde
egin dogunean,

END. B.—Bakalsemeak eroan dau emendik:
zoaze aren billa. Orrenbeste iradu ete dau
ak nire loa eriotzatat artzeko? Biflatu egi-
zue, Warwick'eko ene yaun; agirika egin
eta ona ekarri egizue. (Alde Wctwriok'ek) Ak
eginak eta nire gatzak bat egiten dabe ni-
rearena egiteko. Ikusi, semeok, zer zarien!
Bai arin be arin asaldatuten dala yayotza-
likoa, bere elburuzat urrea artzen dabe ni-
rearena egiteko. Ikusi, semeok, zer zarien!
Bai arin be arin asaldatuten dala yayotza-
likoa, bere elburuzat urrea artzen dabe ni-
rearena egiteko. Ikusi, semeok, zer zarien!
Bai arin be arin asaldatuten dala yayotza-
likoa, bere elburuzat urrea artzen dabe ni-
rearena egiteko. Ikusi, semeok, zer zarien!
Bai arin be arin asaldatuten dala yayotza-
likoa, bere elburuzat urrea artzen dabe ni-
rearena egiteko. Ikusi, semeok, zer zarien!
Bai arin be arin asaldatuten dala yayotza-
likoa, bere elburuzat urrea artzen dabe ni-
rearena egiteko. Ikusi, semeok, zer zarien!

sapaiko mingostasun au emoten dautso aren
zakarkeriak atzenetan dagon bere aitari.

Barriri aurrera WARWICK.

I, non dok nire adiskide gatzak nirearena
egin arte etxon gura eztauea?

WAR.—Ene yaun, aldameneko gelan idoro dot
bakalsemea, bere matrallak negar gozoz
ikuzten, eta bere naibaga itzaleko aren yo-
kabideaz, a ikusiazkero, eguño odol utsaz
besterik edan eztauen gordinkeriak berak
be negar-tantan samurretan ikuziko leuke
bere aiztoa (kutxiloa). Ba-dator.

END. B.—Baña zegaitik eroan yok emendik
burestuna?

ENDIKA BAKALSEMEA aurrera.

Begira, non datorren. Atsr ona, Endika. Alde
egin zuok, eta bakarrik itxi gagizue gu
biok biotara. (Alde CLAR., HUMPH., Lordak
eta abar).

BAKALS.—Eztot izan zuri bein barriri on-
tzingo neuntsun usterik,

END. B.—Eure guraria izan dok, Endika, ire
uste or-en aita; luzaroegi naiagok ire on-
doan, gogait eragiten dauskat nik. Nire yar-
leku utsaren orrenbesteko gosea eta dok,
ire tertzioa baño len nire agintza-agiriak
euganduteko? Gaztearoaren zoro! Azpian
artu ta itzenak eragingo dauskazan andita-
sunaren billa abil i. Etxon egik apur baten;
axe ain mengel eta erkinak eusten yautsak
goian nire anditasunaren odeiari-ta, laster
yalgiko dok lurrera; ilunabarreraturik ya-
gok nire eguna. Ostu egin dok ik, irainik
bagarik orainganik ordu gitxi batzuk-barru
ire litzakeana; eta nire iltamuan egiztau ta
ikurratu egín dok ik euk nik igandik uste
nebana; erakutsirik dok ik ire biziereagaz
ik enokala maite, eta ní orrako orregaz se-
guruturik iltea gura dok ik. Milla sastakai
dozak ik ostonfuta ire gogaietan, eta ire
arritzko biotzean zorrotzu dozak sastakaiok,
ordu-erdiko bizia niri sastakaika kentzeko.
Onangorik! Ezin yasan ete dok ordu-erdi
baten be? Olan ba'dok, oa, ta euk atxurtu
egik nitzako ilobia; eta yoale pozkarriai
agindu egiek ots egin dagiela ire bela-
rrietan, burestuna eure buruan imini do-
kala iragarteko, ez ni il nazala. Nire gorpu-
lorrean ixurteko ziran negarrak izan dadi-
zala ire burua gurenduteko usaburki-tanta-
nak; niri ez beste apaingarririk ezetarikorik
be, iñok aintzakotzat eztauen autsa baño;
eltxarrai emon egiek iri bizia emon euska-
na. Erauzi egizak, zuztarretik atera egizak
nire agintzakideak, manatu egizak nire agin-
duak, legeari irri egiteko aldia eldu dok
orain-eta; burestundaurik dago boskarren
Endika; Gora, uskeri! Bera, bakaldar ain-
tzakotasuna! Alde emendik, onulari zar gu-
tiok! Batu orain Ingelanda'ko Bakal-yaure-
gian lurralde guztietako matxango nasaiok!
Auzoetako erriok, orain dozue sekulako ere-
tia zuon zaborra guztia zuon artetik kente-
ko; bai ete dozue zuon artean zin egin,
edan, yantzan egin, gabetan iskanbilletan
ibiltan dan zitilik, ostu, erail, eta obenik za-
rrenak erarik barrienez egiten dauen zita-
lik? Poztu zadize, eztautsue emongo kezka-
rik oraindik ara, urreestalti bikotxa ezarri-
ko dautso, ba, Ingelanda'k, aren lotsagarri-

keri irukotxari..., Ingelanda'k emongo daustoko agintzea, omena, ala; boskarren Endika'k kenduko daustoko, ba, musturrekoa nasai-keri estuari, eta edozein errugeren aragietan sartuko dauz bere aginak txakur amurruatuak. Ene bakalderri erukarri ori, erritar guduz gexorik agon ori! Zure asaldatzeai bideak ebateko nire ardurak gauz izan ez-tiranazkerio, zer egiteko zuk, zure ardura bakarra asaldatzea, matxinadea izango danean? Ui! lekaro, basamorvu izango zara ostera be; len bizi ziranak, eurak biziko dira aurrerantzean be..., otsoak!

BAKAL.S.—Ui! parkatu, azketsi nagizu, ene nagusi! (Belcrunbi'katu egiten da) Itz egiten galazoten dausten ostopo ezookaitik, nire negarrokaitik izan ezpa'litz, zure naibageak zuri esanazo ta onen luzaro niri entzunazo daustozun baño len geldituazokoa neunkean nik zuk maitasunez egin daustozun agirika lango agirika au. Eutsi zure burestuna; eta burestun ilezina Daroanek luzaro yagongo al dau zurea! Zure omenaz eta zure entzute onaz besterik maite ba'dot zer orretan, ez al naz bein be yagiko esanekoren egokeran nagon leku onetatik..., nire barrukoan eta benetakoen dan gogo onetatik, agiriko makurtute ta bendekotasun onetatik! Yaungoikoak bekit lekuko ta autorla, ni ona etorri nazanean, eta zure nagusiagotzeagan ezetarikoa arnasarik Gomau eztodanean, orrako orrek bai leiturik itxi daustala biotza! Iruditurik egin ba'dagit, Ui! oraingo nasai-keri onetantxe yausi ta ilgo al naz, eta ez bizi luzarogango mundu sinisigorrari nik erakusteko zelango aldakuntza zindoa izan dodan, zelango aldakuntza zindoa izateko asmoa dodan! Zu yagoteko etorri nazanean, zu ilik zengozala uste izanik (eia il-aginik egon-bear, ene nagusi, zu iltzert nik uste izateko), sokor ba'litzan lez, onan itz egin daustat burestunari, eta onan egin daustat akar: "Iri intsigirik dagon kezkeak yan yok nire aitaren soña; olan dala, ba, eta urrerik onenezko azan ori, urrerik txarrena az i; i baño ederrago dok "karat" ez urriago dana, yagon egiten yok, ba, bizia, edarl-osa-kaitan arturik; ik, ostera, zoliago, omengarriago, ta entzutetsuen izanik, yan eta osorik irusten dok i aroana". Onan salatu ta agirika eginik, ene nagusi, imini izan dot nire buruan, beragaz zelan doakidan ikusteko (nire adta neure aurrean erald daustan arerioagaz legetxe eragoteko), ondorengo yatorraren auzia zelan doan ikusteko. Baña orrako orrek pozik erantsi izan ba'daust biotzean, naiz, nire gogairik puztu izan ba'

daust arrokeriaren arrokeriz; nigan asaldakerik. naiz uskeri-lerak ondo-etorrikerik txikienez lekurik egin ba'dausto burestunari, betiko urrindu dagiala Yaungoikoak burestun ori nire burutik, eta bere aurrean zurtuz eta bildurrez belaubikatuaten dan bendekorik beartsuena lango egin nagiala!

END B.—Ene seme, Yaungoikoak ekarri euskan gogora burestuna artzea, orrako orren zurigarrizat orren biotzetik eskaturik, ire aitaren maitasuna ainbat eta geiago irabazteko! Erdi ona, Endika; oaren aldameanean yezarri akit; eta entzuik nire ustez nire eztaurilik atzenen urtengo dan onua. Ba-yakik Yaungoikoak, ene seme, zelango bide-zidorrez eta bide makur-okerrez irixi neban nik burestun au; eta neuk be ondo yakiat geldigor eta kezkatu egon dala nire buruan; bake obagaz yatsiko dok igana, eretxi obagaz, baietsi obagaz; onan, beira iristaldiko loikeri guztia neugaz yoango dok ilobira-ta. Esku azarriz osturiko omenarena egiten izan yok nigan, olangoren antza izan yok; eta asko zoazan bizirik orretarako emon eusten leguntzea arpegira egozten eustenak; eia euren kezkok, geroago aziagoz, asarrera ta odol-ixurtzera yo yoek, baketzat zana zauriturik. Euk dakusakanez, galgorde andiz erantzun yautset nik bildurkizun andioi; nire bakal-aldi guztia izan dok, ba, arako yazokuneagazko agerleku: eta orain nire eriotzek aldatu egiten yok ikuskizuna: nik irabazi nebana, ba, bide zuzenagaz yoak igana; olan, ik burestuna bere bidez, urrenik urren daroak. Orraitiño be, ni egon nendikean baño seguruago i egon-arren, ez ago seguruegi, asarreak oraintsuegiko izan dozak-eta; eta ik eure egin bear dozakan nire adiskide guztiak oraintsu kendurik yoezak euren izpi ta aginak; arein laguntzaz egin naitoan nik nire lenengo aurrerakadea, eta bildur izateko yatan imini nenduen lekutik atzera euren indarrez kenduko ete nenduen: eta olangorik yazo ez ekidan, buruak moztu naieuntsezan; eta orain eurretario asko Lur Gurenera eroateko nintzoan, geldi ta alperkerian egoteak nire lekua beteteko gogorik ekarri ez egioen. Olan ba, ene Endika, ik artuko dokan bidea gogo geldigorak erbesteko auzi ta guduetan erabiltea izan daiteela; baledikek, egite orrek, emendik urrineko orrek, lenagoko egunetako yazokunen gomutea aztu eragitea. Geiagorik esan gura neunskik. Baña nire bina⁴ ain deusezturik yagozak-eta, etxoat iz egiteko ezetario indarrik. Yaungoikoak parkatuko, azketsiko al daus-

taz buiestuna iristeko erabili nebazan bideak; eta igan benetako baketan irautea emongo al dauk!

BAKALS.—Ene nagusi eskartsu, zuk irabazi zendun, erabili izan dozu, euki izan dozu, ta niri emon daustazu; olan ba, agirian dago ta zuzen da nik eukitea; eta nik nekeri eztautsat atzerik emongo, mundu guztiaren aurka ba'da be ori zuzenez eukiteko.

END. B.—Begira, begira, emen yatok Lancaster'ko ene Yon.

LANCASTER'ko YON BAKALSEMEA, WARWICK, Andikiak, eta beste batzuk aurrera.

YON B.—Osasuna, bakea ta zori ona nire aita bakaldarrari!

END. B.—Zori ona ta bakea, bai, ba-dakasta-

zak, Yon seme; baña osasunak, ai ene! ego gaztez egaz egin yok soin igar zimel onetatik: i ikusiaz, pot egiten yok ludi onetako nire egikizunak. Nondik da Warwick'eko ene Lorda?

BAKALS.—Warwick'eko ene Lord!

END. B.—Berarizko izenik ete dau ni lenen larritu nazan geleak?

WAR.—Yerusalem yako izena, ene yaun zindo.

END. B.—Aintza Yaungoikoari! Antxe amaitu bear dau nire biziak. Urte asko dira Yerusalem'en, ez beste lekutan, ilgo nintzala iragarri eustela; eta nik, oker eta alperrik, Lur Gurenekotzat etsi neban: gela atara eroan nagizue; an il gura dot; Yerusalem atan ilgo da Endika. (Alde dagie).

V EKITALDI

I AGERLEKU.-GLOUCESTERSIIIRE. SHALLOW'neko Bebarru.

SHALLOW, FALSTAFF, BARDOLBA, ta Esku-mutila aurrera.

SHAL.—Ollarra-arren eta mikea-arren, yaun, arratseon eztozu alde egingo. Ostera! Davy, gero!

FALS.—Itxi bear daustazu, Master Erroberta Shallow.

SHAL.—Eztautsut itxiko; eztautsut itxi bear; eztago emen nobere burua zurituterik; ezta izango ezetarako burua zuritutea; eztoz ontzat artu bear zure buru-zuritutea. Ba! Davy!

DAVL aurrera.

DAVY.—Emen nozu. yaun.

SHAL.—Davy, Davy, Davy..., dakusadan, Davy; dakusadan; bai, arrano, Gillelma sukaldariari esaiok datorrela ona. Sir Yon, eztoz aintzakotzat artuko zure burua zurituterik.

DAVY.—Arrano, yaun, onan dira zerak: ezin bete izan doguz arako zure aginduak; eta, orrez ganera, yaun, sasipean be ereingo dogu garia, ala?

SHAL.—Gari gorria, Davy. Baña, Gillelma sukaldariagazko, ez ete yagok usakumerik?

DAVY.—Bai, yaun.-Emen dozu errementariaren agiria, zaldia erantsiarena ta golda-buxdiñena.

SHAL.—Ondo dagonentz ikusi ta ordaindu dagiela. Sir Yon, emen eztozu burua zurituterik.

DAVY.—Zu, yaun, suila be kirten barria ezarri-bear gorrian dago; eta, yaun, Gillelma'ri bere alogeretatik zer bait kentzeko asmorik ete dozu lengo egunean Hinckley'ko perrian galdu eban zorroaren alderako?

SHAL.—Erantzun bearko yok orrako orregaitik. Gillelma sukaldariari esaiok zuzendu dagizala usakume batzuk, Davy, ollo zangamotz bi, ardiki iztar bat, eta gozaki mizke gitxi batzuk.

DAVY.—Gau osoa emen egiteko da gizon ori, ala, yaun?

SHAL.—Bai, Davy. eta ondo artu gura yoat: benetako adiskidea oba dok, sakelean peni batzuk baño. Ondo artu egizuez orren gizonak, Davy; zital utsak dozak, ba, ta, osantxean or ibiliko litzakezak marmarka.

DAVY.—Eurekaitik egin diran marmarrak baño geiagorik eleukie egingo, barruko soñekoak zikin baño zikinago dabez-eta.

SHAL.—Ederto esanda, Davy; eure egitekoe-tara, Davy.

DAVY.—Arren, yaun, Wincot'eko Gillelma Visor'en alde ebatziko al dozu mendiko Kelmen Perkes'en aurka dauen auzian.

SHAL.—Alaketa asko yagozak, Davy, Visor'en

aurka; nik dakidanez, zital baño zitalago dok Visor ori.

DAVY.—Ba-dautortsut begiragarri orri, zital dala a; baña orraitño be, Yaungoikoa-arren, bere adiskidek eskatuazkero, zitalek be bear leuke nok bere alde egin. Gizon zindoak berak itz egin daike bere buruaren alde, baña ez zitalak. Nik zintzo otsein egin izan dautsut zuri begiragarri orri, yaun, zor-tzi urteotan; eta iru ilebetean bein, naiz birritan, zitaleri zindoren aurka irabazi-azio ezin ba'dautsat, artzeko andirik eztoz zugan. Nire adiskide zintzo da orrako zitala, yaun; olan dala, ba, eginalak egingo al dozuz aren alde.

SHAL.—Oa; etxakok okerrik etorriko. Eure arloari yaramon egiok, Davy. (Alde DAVY'k) Non zauguz zu, Sir Yon? Tira, tira, tira, erantzi oñetakoak. Ekadak ire esku ori, Master Baldolba.

BARD.—Poztuten naz zu begiragarri ori ikusteagaz.

SHAL.—Biotz biotzetiko nire eskarrak iri, Master Bardolba txerakor; eta ondo etorria augu i.gizon andi ori (Esku-rrmtikri dirautso cru). Erdu, Sir Yon.

FALS.—Zure atzetik yoango naz, Master Erroberta Shallow on ori. (Alde SHALLOW'k). Bardolba, yaramon egiek gure zaldiai. (Alde BARDOLBA'k eta Esku-mutilak). Zatika yosiko ba'nindue, padar bizartsuen esku-makila lango dan Master Shallow lango lau amabiko egingo neunkez nik. Arrigarri be arrigarri da gizon orrek eta gizon orren

otseinak euren buru-argitasunean alkarren artean crrrenbesteko antzik izatea: orri so eginaren so eginenez, ebazla tenteilien antzera daragoioe eurak; eta bera, orreikaz itz eginaz, ebazla-antzeko otseindue egin da: alkarregaz bizi izanaz orren tentel egin dira-ta, eretxi bateko luldea egin dabe, beste ainbeste basa-antzarrek egingo leukienez. Master Shallow'ren aurkako auziren bat ba'neu, aren gizonak yorratuko neunkez, eurak erabagiko leukie ak zetara yokatuko-ta; eta aren otseinakaz ba'neu auzirik, Master Shallow'ri igutziko neunskio, bere otseinai aginduteko bera lango gizonik eztagola esanaz. Egia da yakintsuak daroena, naiz ezyakinak dabena intsigi eginen yakela, gizonak dabezan gatxak alkarri erantsiak diranez; olan dala, arduraz ibiliko al dira gizonak nortzuk eta zelango diran euren lagunak. Geirik asko aterako dot Shallow onegandik Endika bakalsemea sei yantzi barrik dirauen bitarte osoan barre baten eukiteko. naiz, bardin dana, lau epai-alditan, edo ektaldi bitan..., eta "intervallums" bagarik egingo dau barre. Ui! andi be andi da zin arintxo bategaz esaten dan guzurak, naiz ben-ben esaten dan izkirimiriak eguño sor-baldetan minik izan eztauen gazteari egin daikeona! Ui! bere mosuak okerretara yantziriko txartes ezoaren antza artu arateragiño barreka ikusiko dozue!

SHAL.—(Basrutik). Sir Yon!

FALS.—Ba-noa, Master Shallow; ba-noa, Master Shallow. (Alde dagi).

II AGERLEKU.-WESTMINSTER. Bakal-yauregiko leku.

Aurrera, brnazean, WARWICK, eta Lord Ebazla Nagusia.

WAR.—Kaxo, ene Lord Ebazla Nagusi! Nora zoaz?

EBAZ.—Zelan dago bakalduna?

WAR.—Itzalez ondo; yoanik dira orain aren kezkek.

EBAZ.—Ilik ez al da izango.

WAR.—Yaiotzatiko bidea artu dau; guretariko egikizunetarako a ezta bizirik.

EBAZ.—Bere bide-laguntzat artu al nindu aren nagusiagotzeak; oker guztietarako bidea zabalik itxi dauste bera bizi zala egin izan dautsadazan otseintzak.

WAR.—Izan be, eztoz uste bakaldun gazteak maite zauzanik.

EBAZ.—Ba-dakit ori; eta artu dodaz iskilliak aldi bariak dakazan era barriai erantzute-

ko; eta era barriok ezin izan legieki iruditurik dodana baño zer inguingarriagorik.

WAR.—Emen dotoz Endika zanaren ondorengo goibelak; Ui! Iru aitonseotatik txarrenak lango izakerarik ba'leu Endika biziak, amaikatxo aitonsemek berak leukake orain ziztrinen bati itxi-bearrean aurkituko dan lekua!

EBAZ.—Ene Yaungoikoa! Bildur naz dana itzuliko dauela.

YON BAKALSEMEA, HUMPHREY BAKALSEMEA, CLARENCE, WESTMORELAND, eta abar aurrera.

YON B.—Egun on, Warwick lengusu, egun on.

HUMPH., ta CLAR—Egun on, lengusu.

YON B.—Itz egitea aztu yaken gizonen antzera batu gara.

WAR.—Gomutarik ba-dogu izan; baña baltze-gi da gure geia itz askorik egiteko.

YON B.—Tira ba, bakea izango al dau gu moteldu, goibeldu gauzanak!

EBAZ.—Geuk izango al dogu bakea, goibela-go egon ezkadizan!

HUMPH.—Ui! ene yaun on, adiskidea galdtu be egin dozu zuk, gero! Eta zin egingo neunke eztozula zuk naibagaturen antzik zure arpegian..., zeure buruagazko naibagea dozu zuk.

YON B.—Gizonek batek be yakin ez-arren zelangoz izango dan bere etorkizuna, otzeneratariko da zurea; min egiten daust orrako orrek; gutziz bestera al litz.

CLAR.—Tira ba, ondo ta txeartsu itz egin bear dautsazu orain Sir Yon Falstaff'eri; eta zuk uger ibaia bera ba'dagizu, ibaia gora dagi ak.

EBAZ.—Bakalseme maiteok, zuzenez eta zintzo egin dot nik egin dodana, nire gogoak bidea erakutsi daustanez, alderdikeri bagarik yokaturik; eta bein be enozue ikusiko parkamen lotsagarririk eta seguru eztanik eskatuten. Egiak eta errugetasun tenteak uts egin ba'dagiste, ilik dan nire ugazaba bakaldunagana yoango naz, eta ari esango dautsat nok bidaii nauen bere atzean.

WAR.—Emen datoi bakalsemea.

V ENDIKA BAKALDUNA aurrera.

EBAZ.—Egun on; eta Yaungoikoak yagongo al dau zure nagusiagotzea!

BAKAL.—Yantzi barri ta arro au etxat egiten zuok uste dozen bestean nasai. Anaiok, goibeltasunagaz nasturik, bildunik be badozue zuok arean; Ingelanda'ko dok yauregi au, ez Turkarrenik; Amurath'ik eztok beste Amurath'en baten ondorengo, Endika Endika'ren baño. Orraitifio be, goibel egon zaitze, anaiok, egia esateko egoki yatsue-ta: bakaldunagazko naibagea agiri dok zuokan-eta, biotz biotzean iminiko yoat eta an eroan: olan ba, yarraí goibel, baña guk guztion artean eroan daroagun zamaz ganera ez naibagetu. Nigazko, Yaungoikoa-arren, seguru egon zadize zuon aita izango natxatsuela, zuon anaiaz ganera; zuon biotz ona izan dagidala, bai, eta neuk eroango dodaz zuon kezka; orraitifio be, negar egiozue Endika aren eriotzeari, neuk be orixe egingo yoat-eta; baña bizirik yagok negarrok baño zori on-ordu gefago emongo dautsuen Endika.

YON B.—Oriez besteren itzarorik eztogu izan be zure nagusiagotzearen aldetik.

BAKAL.—Iñondiko begirakunea egiten daustazue zuok guztiok: (Ebazla Nagusiari) batez be zuk; dirudinez, seguru zagoz zu, nik etzaudazala maite.

EBAZ.—Seguru nago ni, ni zuzenez ebaztektan, zure nagusiagotzeak eztauela bide zuzenik niri gorrotorik izateko.

BAKAL.—Ezetz! zelan aztuteko ni lango bakal-seme andiak niri egin izan daustazuzanak lango irainak? Onangorik! agirika egin, akar egin, eta zakarkiro baitegira bidali Ingelanda'ko bakaldungeietatik lenena! Erraz egitekorik ete zan orrako ori? Lete'n ikuzi ta parkatutekorik ete da ori?

EBAZ.—Zure aitaren ordelto nintzan ni orduan; zure aitaren irudia egoan orduan nigan; eta, legea erabiltekoan, ni erriaren onerako urduri ta artega nenbilen bitartean, nire lekuari yaramonik ez egitea otu yakon zure goikotasunari, eta aren ordeko nintzan aren irudi diran nagusiagotza ta alari ta zuzentzeari yaramonik ez egiteagazko zan zure errua, eta yezarrita nengon aulkian bertan yo egin ninduzun zuk; eta agaitik, zeure aitari oben egin izanagaitik, bide zabala arrazo neuntsan nire aginpideari, eta itzalperatu egin zindudazan. Oker ibili ba'nintzan, poztu zadiz orain, orain burestuna daroazunazkero, egizu zure semeak austen eta ezereztuten dauzala zure aginduak, zure yezarleku begiragarritik kendu egiten dauela zuzentzoa, legeari bideak isten dautsazala, eta bakearen eta zure buruaren yagola dan ezpatea amustu egiten dauela; areago, zure bakaldun-irudia aintzakotzat artzen eztauen semea dozula, eta zure egiteai zure beste irudi bat danagan irri egiten dautsen semea. Itandu zure bakal-gogaiai, egizu ori dala zuri zeuri yazoten yatsuna; aitarena egizu orain, eta egizu ba-dozula semerik; entzuizu orain zakar erabili dabela zure nagusiagotzea; ikusi zure legerik bildurgarri-nak buruarinkeriz aintzakotzat be eztabezala artzen; ikusi egizu zure burua zeure semeak aintzakotzat artzen etzauzala, eta gero irudituz egizu zure lekuan nagola, zure ala dodala, eta bigunkeriz, ixilik, aurrera yoaten izten dautsazala zure seme orri. Otzean ebatzi dagizunean onako au, eta bakaldun zcreanazkero, ebatzi ba'dagizu ta idoro, nire lekuari ez egokionik egin nebala, nire buruari ta nire ugazabari ez egokionik egin nebanentz.

BAKAL.—Zuzen zagoz, ebazla, artez zagoz orretan; eta, orrexegaitik, oraindanik ara be

zeuk erabili astakina (pixuak) eta ezpatea: eta ni izan nazan lango nire semek zu iraindu ta zuri men egiterarte fciziko al zara, zure goratzarreak geiturik. Olan biziko al naz ni be, orduan nire aitak esan ebazan itzak nik be esateko: "Zori ontsu naz, neure semeari be zuzentzea ezarteraño azarten dan gizon azarria dodalako; eta ez bape gitxia-gori zori ontsu, bere anditasuna olan zuzentzearen eskuetan iminten dauen semea dodalako". Bai, baitegiratu egin ninduzun zuk; eta, orrexegaitik, zure eskuratu egiten dot zuk erabilten izan dozun ezpatea; baña oar edo gomuta onegaz, zera, nire aurka erabili izan dozuna langoxe gogo azarri, zuzen eta alderdikerririk bagakoz erabiltekotan. Eutsi nire eskua; aitarena egingo dautsazu nire gaztetasunari: zuk belarrietara esan dagistazuna esango dau nire agoak; oarrikasiz dakizuzan eta emon dagidazuzan onu zurrai apalik makurtuko dautset nik nire burua. Eta, bakalseme guztiok, sinistu egidazue, arren; nire aitak eroan dauz ilobira nire zorakeriak, nire biotza be aren ilobian datza-ta; eta aren gogoagaz bizi naz

goibel, munduak nigazko uste ebanari nik irri egiteko, iragarpenak guzurtauteko, eta nirudinez ebatzi ta idatzi izan nabenen uste okerrak zuzarretik erauzi ta aterateko. Arro ta yori yoan da orain arte nire odolaren urutua uskeri-bidean aurrera; besterako bidea artu dau orain, eta izperaz atzera yoango da itsasora, angu ur bizi yaukalakaz batzeko, eta andik aurrera nagusia-gotzeari dagokonez bidea egiteko. Erri-al-dunezko epaitegi nagusiari dei egingo dautsagu orain; eta gure erria ondoen yaurritako erriakaz oinbardin yoan al izan daiten lango izango al dira guk onulari zindotzat autu dagiguzanak; gudua, naiz bakea, naiz biak ezagun eta etxetiar izan dakiguzan; (Ebrazla Netgusiori) eta zuk, aita, zuk izango dozu orrako orretan lenengo ta aurrengo lekua. Bein gure bureskundera egindakoaan, lendik esanda dodanez, erri osoa batuko dogu, ta, Yaungoikoa gure asmo onen alde dala, ez bakalsemek, ez aitonsemek eztauz izango biderik zuzenez esateko Yaungoikoak egun batez be laburtu dagiala Endika'ren bizia. (Alde dagie).

III AGERLEKU.--GLOUSTERSHIRE. SHALLOW'neko Baratza.

FALSTAFF, SHALLOW, SILENCE, BARDOLBA, Esku-mutila, ta DAVY aurrera.

SHAL.—Tira, nire baratza ikusi bear dozu, eta an, estalpean. igazko sagarrak, neukमतatuak, azpilbete bana sagar-zuku ta abar yango dogu: erdu, Silence lengusu; eta oera gero.

FALS.—Yaungoikoa-arren, etxe on eta aberatsa dozu zuk emen.

SHAL.—Utsik, utsik, utsik; eskeko gara guztiok, eskeko gara guztiok, Sir Yon: arrano, egurats ona. Zabaldu mai-zapia, Davy; zabaldu mai-zapia, Davy; ederto, Davy.

FALS.—Otieintza onik egiten dautsu Davy onek; zure otsein eta zure ondasunzai, biak baterci yatsu au.

SHAL.—Zital on, zital on, zital on baño obea, Sir Yon: yaupea-arren, ardao on geiegi edan dot apaltzerakoan: zital ona. Yezarri adi orain, yezarri adi orain: erdu, lengusu.

SIL.—Ai, txotxo! or esan daroenez...

"Ondo yan eta yai egin, yai egin (Abestuaz) Eta urte argiagaitik Yainkoa goratu; Aragia merke dagonean, eta emeak karu, Eta gazte mardulak ara-onaka Orren alai dabiltzazanean, Beti orren alai dabizanean

Ondo yan eta yai dagigun".

FALS.—Aiko amen biotz argi bat! Master Silence on ori, laster egingo dot zurrutada bat orrako orren alde.

SHAL.—Ardao apur bat emoiok Master Bardolba'ri, Davy.

DAVY.—Yezarri zadiz, yaun maite. (Beste mai batera yezarten dira BARDOLBA ta Esku-mutila); laster nozue or; yezarri zadiz, yaun maite maite ori. Master Esku-mutil, Master Esku-mutil on ori, yezarri zadiz... On egingo al dautsue! Yakitan eztozuen, edaritan izango dogu. Baña epe artu bear dozue; biotzetik dator dana. (Alde dergi).

SHAL.—Poztu za'áiz, Master Bardolba: -eta, ene gudaritxo ori. i be poztu adi,

SIL.—(Abestuaz) "Poztu zadiz, poztu zadiz, oro dau nire emazteak;

Txiki ta andi, emakume oro dira, ba, agirikagin;

Pozetan aretoa, bizarrak oro ikara diranean, Eta ondo etorria da Aratuste.

Poztu zadiz, poztu zadiz, eta abar*.

FALS.—Eneban uste nik Master Silence onetarikogogaldikorik zanik.

SIL.—Nor? Ni, ala? Orain artean birritan eta bein egon naz ni alai.

Aurrera barriro DAVY.

DAVY.—Or dozu sagar azalezko ontzikadea zutzako. (BARDOLBA'ri aurrean imini-ala).

SHAL.—Davy...

DAVY.—Zer gura dau nire yaunak (BARDOLBA'ri) Beingoan nozu atzera. Edalontzibete ardao, ala, yaun?

SIL.—(Abestucz) "Betor edalontzibete ardao bizi on

Nire kutunaren alde edateko.
Boa eztarria bera, bera, bon bon;
Eta biotz argia biziko al luzaro.

FALS.—Ori, ori, Master Silence.

SIL.—Eta gogargitu egingo gara; orain dator gabeko aldirik gogargitsuen eta pozkarriena.

FALS.—Osasuna ta bizitza luzea iri, Master Silence.

SIL.—(Abesiucz) "Bete edalontzia, ta betor ona,

Onдораño zure alde edango dodana".

FALS.—Bardolba zindo, ondo etorria augu; ezeren bearrik ba'dok, eta eskatu ezpa'dagistak, izurriak eroango al au. (Esku-mutilari). Ondo etorria, nire lapurtxo ori; benetan ondo etorria i be. Master Bardolba'ren alde edango dot, baita London aldeko "cavalero" guztien alde be.

DAVY.—Ba-dot itxarorik il baño len bein London ikusteko.

BARD.—An ikusi al ba'indut, Davy...

SHAL.—Yaupea-arren, kuartillu batena egingo zeunkie bion artean, ba! ez ete, Master Bardolba?

BARD.—Bai, yaun, eta azunberdjko pitxarkadearena be bai.

SHAL.—Yaungoikoa-arren, eskerrik asko iri; iri yosita ibiliko dok zitala, bai orixe: etxok alde egingo; ondo azia dok.

BARD.—Eta orri yosiko dausat nik neure burua, yaun.

SHAL.—Ba! bakal'dunek itz egin dau. Ez al dok izango ezeren ezik: gogargi egon. (Ate-yokcr gogor) Begiratu egik nor dagon atetan, ee! Nor dago ate-yoka? (Alde DAVY'k).

FALS.—(Zurrutadcr lango zurrutadea egfn dcruen SILENCE'ri) Oingoxean irabazi daustak!

SIL.—(Abestuaz)

"Zuzen zuzena egidazu,
Ta zaldundu nagizu;
Samingo".

Ez ete da olan?

FALS.—Olan dok, bai.

SIL.—Olan da, ala? Ba, olan izatekotan, esai-

zu gizon zarra be zerbaiterako ba-dala gauz.

DAVY aurrera barrien barri.

DAVY.—Eder ba'dakitsu begiragarri orri, Pistol dalako bat dago or Yauregitiko barriakaz.

FALS.—Yauregitiko! datorrela barrura.

PISTOL aurrera.

Kaxo, Pistol!

PISTOL.—Yaungoikoak yagongo al zauz, Sir Yon!

FALS.—Ze axek ekarri au ona puzka, Pistol?

PIST.—Ez gizcnik ezer onerako bultzauden eztauen axe txarrek. Zaldun kutun, bakalderriko gizonik andienetariko zara zu orain.

SIL.—Gure Anderea-arren, nire ustez ori ezta Barson'ço Puif gizon ona baño besterik ezer.

PIST.—Puii, ala? Zure aginetara Putz, kikilik zirtzilen be zirtzilen ori! Sir Yon, ire Pistol eta ire anai nok ni; ariñeketa gorrian etorri natxatsu zaldiz; eta barriak dakatsudaz nik, eta poz zori ontsuak, eta urrezko aldiak, eta sari-barri pozkarriak.

FALS.—Mundu onetako edozein gizonek lez emon egidazak, arren.

PIST.—Uskerra munduari ta munduko zirtzilai!

Apirka'z eta urrezko egunetaz daragoiot nik.

FALS.—Asiritar zaldun zakar ori, ze barri dozak ireok? Kopetua bakaldunak yakingo

al yozak ire barriok.

SIL.—(Abestucz) "Eta Robin Hood, Scarlet, eta Yon'ek".

PIST.—Sastegiko txakurak eupada egín bear dautse Helikon'darra, ala? Iri ta barreka artu bear dira barri onak, ala? Olan izatekotan, Pistol, Asarre Gorrien altzoan imini egik eure burua.

SHAL.—Aitonseme zindo, eztaikit noren seme zarean.

PIST.—Ba, olan izatekotan, tamalik asko izan egizu.

SHAL.—Parkatu nagik, yaun; yauregitiko barriak ba'dakazak. yaun, bide biotatik batekoak dozak ire barriak: edo esatekoak, edo ixilik eukitekoak. Bakaldunaren agintzaidenok ni neu be zelanbait, yaun.

PIST.—Zein bakaldunen agintzakide, kakanneru? Erantzun egizu, ostantxean zureak egin dau-ta.

SHAL.—Endika bakaidunaren agintzakide.

PIST.—Laugarren, ala Boskarren Endika'ren agintzakide?

SHAL.—Laugarren Endika'ren.

PIST.—Uskerra ire ogibideari! Sir Yon, bakaldun dok orain ire bildots samurra; Boskarrren Endika dok orain gizona. Egia yíñoat; Pistol'ek guzurrik esan dagianeane, au egik; eta iseka, irri egidak, Españañ arroputzak lez.

FALS.—Ostera! II dok bakaldun zarra, ala?

PIST.—Ateko untzea bestean ilik yagok a: egin-egineko dozak nire barríak.

FALS.—Gaiioazan, Bardolba! Bastea imini egiok nire zaldiari. Master Erroberta Shallow, autu egizu lur onetan gurako zeunken ogibidea, zeure da-ta. Pistol, omenetan beste ainbeste iminiko dauskat ganean.

BARD.—Egun onen pozkarri be pozkarri! Zalduntzearen alderako be eneunke salduko nire zoria.

PIST.—Ez ete? Ez ete dakadaz barri onak?

FALS.—Oeratu egizue Master Silence. Master Shallow, ene Lord Shallow, zeuk zer gura izan zaitez; ni naz Zori onaren ondasanaizai. Yantzi egizuz zure oskiak; gau osoan ibiliko gara zaldi-ganean; Pistol kutun ori! Ospa, Bardolba! (Alde BARDOLBA'k). Tiruk, Pistol, geiagorik eralgi egidak, eta, bide batez, eutzako pozkarri izan datekenik billatu ta asmau egik. Oskiak, oskiak yantzi, Master Shallow; fca-dakit naibagetan eta gexorik dagola bakaldun gaztea ni noz ikusiko. Edonoren zaldiak artu dagiguzan; nire esanera dagoz Ingelanda'ko legeak. Zori ontsu dira nire adiskide izan diranak; eta ai eta ai Lord Ebazla Nagusiarena!

PIST.—Sai zakarrak yango al dautsoez biriak ari be! "Nondik da nire lengo bizitzea?" esan daroe; ba! emen dago; ondo etorria bedi egun atsegingarri au! (Alde dagie).

IV AGERLEKU.--LON ION. Etxarte bide bat.

Ebazlearen Otseinak aurrera, Quickly Arroztuoa ta Doll Tearsheet tatarrez dakadezala.

ARROZT.—Ez, zital baño zitalago ori; pozik ilgo nintzakek, i eskegita ikusiazkero; atera egin daustak ik sorbalda-azurra bere lekutik

I OTS.—Nire eskuetan imini yaustek ertzainak; eta txibitarik asko artuko yok, bai orixe; berau dala-ta gizon bi erail yoezak oraintsu.

DOLL.—Kako ori, kako ori, guzurra diñok ik; aurrera; neuk esango dauskat zer egin dokan ik, este-mosu donga ori! Sabelean dodan seña galdu ba'dagit, oba litxakikan eure ama yo izan ba'eu, zital papel-mosu ori!

ARROZT.—Ene Yaungoikoa, emen al lego Sir Yon! Norbaiten odola ixuriko leuke ak egun onetan! Baña arren dagiot Yaungoikoari, galdu dakiola orri sabeleko seña!

I OTS.—Olangorik yazo ba'dadi, orain zure sabel-ganean amaika eperpeko baño izan

ezarren, amabi iminiko dozuz orduan. Tira, bioi aginduten dautsuet nigaz zatozela; zuok eta Pistol'ek, zuon artean yo zenduen gizona il da, ba.

DOLL.—Neuk esango dauskat zer azan i, usain-ontziko gizontxo ori. Narrua ondo berotuko al dautsue onako onegaitik, ontzi urdin ori, goseak il zatar ori. Narrua berotu eza'adagitsue, ezin eroan al izango dot gona laburrik.

I OTS.—Tira, tira, emakume zaldun aldarrai ori, tira.

ARROZT.—Ene Yaungoikoa, zuzentzak onan indarraren azpian egon-bearrarena! Tira ba, lorretatik dator nasaitasuna.

DOLL.—Tira, zital ori, tira; eroan nagik ebazlaren bategana.

ARROZT.—Bai, tira, txakur mustur-motz goseti ori.

DOLL.—Gorpu-mosu ori! Azur uts ori!

ARROZT.—I, bilder ori, i!

DOLL.—Tira, merro, igar ori; tira, zital ori.

I OTS.—Bego. (Alde dagie).

V AGERLEKU.-Edonorentzako Leku, Westminster'ko Abategitik ur.

Yauregiko Otsein bi iiak lurrean zabalduten.

I OTS.—Ii geiago, ii geiago.

II OTS.—Birritan yo dabez tutuak.

I OTS.—Ordu biak izango dozak aik bureskuntetik etorri orduko: zoli gabiltzazan, zoli gabiltzazan. (Alde dagie).

FALSTAFF, SHALLOW, PISTOL, BARDOLBA, ta Esku-mutila aurrera.

FALS.—Emen nire aldamenean zagoz, Master Erroberta Shallow; neuk eskatuko dautsat bakaldunari zutzako eskarra; neuk begiratu dot a zearretara, emendik zear dato-

rrela; eta oartu baño etzakioz ak egingo daustan begirakuneari.

PIST.—Yaungoikoak onetsiko al yozak ire biriak, zaldun on!

FALS.—Ator ona, Pistol; nire atzean yarri adi. Ui! (SHALLOW'ri) Yantzi barriak eragiteko astirik izan ba'neu, zuii yesandako milla libera eralgiko neunkezan orretan. Baña ez-tau ardura; egokiago da erakusketa beartsu au; onek diragar *a* ikusteko nik izan dodan aperturia...

SHAL.—Olantxe da, izan be.

FALS.—Aganako nire lera ta zaletasun bizia diragarz...

SHAL.—Ba-diragarz bai, ba-diragarz, ba-diragarz.

FALS.—Eta gau ta egun zaldi-ganean ibiltea yatsu au; eta otu ez, gomutau ez, eperik izan ez nire atorrarik aldatuteko be.

SHAL.—Seguru baño seguruago yatsu ori.

FALS.—Eta ibiliaren ibiliz loi ba'nago, eta a ikuste-arren izerditan; besterik gogora ezertxo be etorteka, beste arazo guztiak azturik, bera ikusteaz beste egitekorik ezpa' litz legetxe.

PIST.—"Semper idem" yatsu ori, "absgue hoc nihil est" yatsu-ta; ardura guztia zer baten imintea yatsu ori.

SHAL.—Orixe yatsu, izan be.

PIST.—Ene zaldun, neuk berotuko dot zure gibel zindoa, eta asarre gorritan iminiko zaudaz. Atxilo zirtzil eginik eta baitegi zikin andurtsura sarturik dago zure Doll, zure gogai zindoetako Elene; eskurik zikinen eta kirtenenak ara tatarrez eroanik; iratzarri egizu eban bestean baltz dan zuloko Alekto' ren suge azaskatzallea, barruan itzalpean dago Doll-eta. Egiaz besterik eztiño Pistol'ek.

FALS.—Neuk yareiko yoat *a*. (Ots, oio ta satntsoak borruan, eta tutuen otsa).

FALS.—Neuk yareiko yoat *a*. (Ots, io ta san-otsa entzuten da.

BAKALDUNA ta bere Yarraigoa aurrera, Ebazla Nagusia euren artean.

FALS.—Yaungoikoak yagongo al dau zure eskarra, Hal Bakaldun; ene Hal bakaldar ori!

PIST.—Zeruak yagon eta eukiko al zauz, entzutearen seme bakaldar be bakaldar ori!

FALS.—Yaungoikoak yareiko al au, ene muti kutun ori!

BAKAL.—Ene Lord Ebazla Nagusi, itz egiozu gizon kirten orri.

EBAZL.—Burutik eginda ago, ala? Ete dakik zer diñokan, gero?

FALS.—Ene bakaldun! ene Yupiter! zuri itz egiten daragoiot nik, ene biotzeka ori!

BAKAL.—Ez utz ezagun, agure: arrenari eldu ta ekiok; bai itsusi be itsusi yakozala uler urdinak zoro ta txantxetariari! Sarritan erabili yoat amesetan orretariko gizona, orren anditua, orren zarra. ta orren lotsabakoa; baña, bein atzarriazkero, iguin yautsat orrako amesari. Orainganik ara iristu egik ire soña ta igan Yaungoikoaren eskarra gizendu egik; bertanbera itxi egik. agur egiok salokeriari; yakik ire lobiak besteenak lango iru dauela zabal bere agoa, noz iruntsiko. Ez egidak erantzun txantxa zoroagaz; nintzana nazanik ez egik uste izan; Yaungoikoak bayakik, ba, eta ludi au be oartuko yakok onako oni, zera, nintzanetik alde egin dodala nik; eta orixe egingo yoat nire lagun izan diranetatik be; len izana nazala entzun ba'dagik, urreratu akit, eta i len izana izango az, nire zorakeri ta burubakokerien aldeko ta eragila; bien bitartean, urrin-~~du~~ ta erbesteratu egiten aut, eriolza-zemaipean, okerreko bidez erabili nabene beste guztiari egin dautsedanez, amar millaren barruan nire ondoratu eztadizan. Emongo dautkat biziteko lain tear dokana, eskuarterik ezak okerrera beartu ez agian; eta ire burua onduten dokala entzun ba'dagigu, ire indar eta zelangotasunai dagokienez aurreratuko augu. (Ebazla Nagusiar) Zure ardurea izan bedi, ene yaun, gure itza betetea. Aurrera. (Alde BAKALDUNAK eta Yarraigoak).

FALS.—Master Shallow, milla libera zor dautsudaz nik.

SHAL.—Bai, arrano, Sir Yon; eta etxera aldean eroateko emoidazuz, arren.

FALS.—Nekez izan dateke ori, Master Shallow. Etdadiz kezkatu orregaz; bakarrean deituko nau; begira, munduaren aurrean olango dalarena egin-bearrean dago a: ez izan bildurrik, aurrerakadea egingo dozularenik; neu izango naz oindiño be zu gizon andi egingo zauzan gizona.

SHAL.—Eztakust ori zelan izan datekenik..., zuk zeure gorartxea niri emon eta barrua lastoz bete ezpa'dagistazu. Arren, Sir Yon, bosteun emoidazuz nire milla liberetctik.

FALS.—Yaun, nire itza bestean on izango nautxatu: iridituarena izan da zuk entzuna.

SHAL.—Bildur naz iriditu orregaz ilgo ete zarean, Sir Yon.

FALS.—Ez izan ezetariko iridituren bildurrik: zatoz nigaz bazkaiten. Tira, Ikurrindun Pistol; erdu, Bardolba: arratseon laster dei egingo daust.

Barriro aurrera YON BAKALSEMEA, Ebazla Nugusia, Ertzainck eta abar.

EBAZL.—Oa, guduontzietara eroan egizue Sir Yon Falstaff; aren lagun guztiak be bera-gaz batera eroan.

FALS.—Ene yaun, ene yaun...

EBAZL.—Itz egiteko enago ni orain, entzuteko baño. Eroan ori emendik.

PIST.—"Se fortuna mi tormenta, lo sperare mi contenta".

(Alde FALS., SHAL., BARD., Esku-mut. eta Erteaincdc).

YON B.—Begiko yat bakaldunaren yokabide au: ba-dau bere lagun oituak ezeren ezik izan eztagienaren aidurarik, baño erbestera egiten dauz, bide oneratu ta euren bizibidea munduaren aurrean zurrago ta apalago agertu arte.

EBAZL.—Izan be, artu dau orrako orren ardua.

YON B.—Batzarrera deitu dauz bakaldunak aldunak, ene yaun.

EBAZL.—Olantxe da, bai.

YON B.—Baten ald'erako bi yokatuko neunkez, urte au amaitu baño len baietz eroan guk erri-barruan erabili doguzan ezpata ta suak Pantze'ra bestean urrin: txoritxo batek abestu daust ori belarrira eta, nire ustez, gogoko izan yako txori orren eresia bakaldunari. Goazen, alde egin gura ete dozu? (Alde dagie).

AZKEN-ITZALDIA. Yantzari batek egina.

Nire bildurra lenen, nire txerea urren; nire eleketea azkenen. Zuon gogoaz besterako izan etarena da nire bildurra; nire bearra, nire txerea; eta zuoi azkespena, parkame-na eokatuteko da nire eleketea, nire itzaldia. Itzaldi onen baten begira ba'zagoze orain, nireak egin dau, neuk ondua da, ba,

nik esango dodana; eta *nih* esan daikedanak, seguru be segiiru, lorrindurik geldituko nazala erakutsiko dau. Baña, noan nire asmora ta, olan, nire alanbearra. Yarkizue (eta ondo daskizue), emen izan nintzala oraintsu gogoko izan etxatsuen antzerki baten atzanean, beragaitik zuoi epea eskatu ta obarik aginduteko. Izan be, orixe egiteko asmotan nintzan onako onegaz, eta au, zori txarreko alanbearrez, Ixarra izan ba'da, porrot egiten dot nik, eta zuok, nire artuendun txerakorrok, galdu egiten dozue. Emen agertuko nintxatsuela agindu neuntsuen nik, eta emen dozue nire soña, beronegaz zeuok zer-gura egiteko; apur bana eratsi egidazue zorra, eta arean bana ordainduko dautsuet eta, zordun askok egin daroenez, goiak eta beak agindu. Nire miñak buruan ezin sartu ba'dautsue ni kituturik iztea, nire zangoai eragin dagitsedala aginduko ete daustazue? Eta orraitino be, ordaintza arin baño elitzake orrako ori..., yantzaz ordaindutea nire zorra. Baña, yankinkidetzta onak edozein ordainbide dau ontzateta, orixe egingo dautsuet. Emen dagozan aitonerala guztiok azketsi, parkatu nabe: aitonsemeak gura ezpa'dabe, olan izatekotan, aitonsemeak eta aitoneralabak ezтира алкарреçаз eriskide, eta olangorik eguño ezta oitu onago batzarretan.

Itz bat geiago, arren. Aragi koipetsuz aseegi ezpa'zagoze, ekin egingo dautso gure egile apalak ipuinari, Sir Yon bertan dalarik, eta alaitu egingo zabez Pantze'ko Katarine lirainagaz; eta an ilgo da Falstaff izerdi bate-tik, txoritxoren batek iragarri daustanez, onazkero zuon eretxi gordinez ilik ezpa'dago; izan be, lekukotzea-arren il zan Oldcastle, eta au ezta gure gizona. Meko eginik dago nire miña; nire zangoak be egin dagienean, gau on esango dautsuet: eta, au dala-ta, belaunbiko yarten natxatsue; baño, izatez, bakaldunoaren alde arren egiteko.

AMAIA

Salta'n 1964'gko, Idilaren 2'garrenean.

V ENDIKA BAKALDUNA

IKING HENRY V)

V ENDIKA BAKALDUNA

(KING HENRY V)

ANTZERKI ONETAN ANTZEZTURIKO NOTINAK

V ENDIKA BAKALDUNA.

GLOSTER'KO DUKEA. I } "mak Bakaldunaren anaiak.
BEDFORD'EKŌ DUKEA }

EXETER'KO DUKEA. Bakaldunaren osaba.

YORK'EKŌ DUKEA. Bakaldunaren lengusu.

SALISBURY, WESTMORELAND. eta WARWICK'EKŌ KONDEAK.

CANTERBURY'KO GOTZAIBURUA.

ELY'KO GOTZAIA.

CAMBRIDGE'KO KONDEA i

LORD SCROOP > Irurok Bakaldunaren aurkako zinkide.

SIR TOMA GREY)

SIR TOMA ERPINGHAM, GOWER, FLUELLEN, MACMORRIS, JAMY,
Bakaldunaren Agintza-gudariak ENDIKA BAKALDUNA'ren guda-
rostean.

BATES, COURT, WILLIAMS, gudaroste bereko Gudariak.

NYM, BARDOLBA, PISTOL, lenago FALSTAFF'en Otsein, eta orain EN-
DIKA BAKALDUNA'ren giarosteko Gudari.

Mutikoa, onantzengoon Otsein.

Aldarrikari bat.

Abeslari-taldea.

VI KARLA, Pantxe'ko Bakalduna.

KOLDOBIKA. Delbina.

BURGUNDY, ORLEANS, eta BOURBON'eko Duke.

Pantze'ko Gualbururik Nagusia (Constable).

RAMBURES eta GRANDPREE, Pantze'ko Andikí.

Harfleur'eko Yaurlea.

MONTJOY, Pantze'tar Aldarrikari.

Ingelanda'ko Bakaldunagako Ordezkariek.

ELIXABETE, Pantze'ko Bakalduno.

KATARINE, KARLA ta ELIXABETE'ren Alaba.

ALITZ (Alice), Bakal-alaba KATARINE'ren Laguntzako Andera And-
kia.

QUICKLY, PISTOL'en Emaztea, Arroztuno.

Lordak, Andera Andikiak, Agintza-gudariak, Pantze ta Ingelan-
da'ko gudariak, Geznariak, eta Laguntzakoak.

AGERLEKU.-INGELANDA'koa Antzerki onen asieran; Pantze'koa gero, oso-osorik.

ABESLARI-TALDEA'rena dagiana aurrera.

ABESL.—Ui! nok al leu Musa sutsuren bat
asmakuntzearen orizerario igoleko! Bakalde-
rrien bat antzeztégitzat, bakalsemeak an-
tzeztaritzat, eta bakaldunak, agertu-ala, an-

tzeztégikoa ikusteko! Orduan artuko leuke
Endika guduzaleak berari dagokon Marte'
ren yasea; eta, eiza-txakur lotuen antzera,
bere ofietan kukurumio ta lan-eske agertuko
litzakez gosea, ezpatea ta sua. Baña, par-
katu, aiton-seme-alaba guztiok, antzeztégi

aintzako-ez onetan orren zer andia erakusten azarri izan dan gogo beeko-zirtzil au; artu al ete dauz lekutxo estu onek Pantze'ko lurr-arlo asarreak? Naiz, estu-estuka be sartu ete daikeguz olezko O onetan Agincourt'eko eguratsa ikaratu eben buru-koskolak eurak bakarrik be? Ui! parkatu! zerbaki makurtxo bat be asko da, ba, Ieku txikian milloiak dagozala iragarteko-ta, eta zenbaketa andi onetan zenbakiena baño egiten eztozunoi itxiko al daskuzue zuon irudimenari bear eragiten. Egizue, iruditu egizue bakalderri altsu bi dagozala orain emen ormon barruan esiturik, alkarren aurrez aurre egon eta mugakide diran bakalderri biok, itxaso galgordetsuak alkarregandik bananduten dauzanok: milla zati egizue gizon ba-

kotxa, irudimenari indar eraginez; uste egizue ikusi dakusazuezala guk eupretzaz daragoiugun zaldiak, eta eurak zapalduten daben lurrean irarri egiten dabezala euren apatxen lorratzak; zuon gogaketak dira, ba, orain gure bakaldunak apaindu bear dabezanak, ona ta ara, batera ta bestera eroan eta ekarri bear dabezanak; aldien ganetik yauzi eginik, urte askotan yazo ordubeteko leiarrezko orduontzian sarturik: eta orrako orren betagarri ta ordeazkotzat ni abeslari-taldearena dagidan au sartu nagizue ipuin onetan; eta sarreratzat epe apalaren eske nagotsue, txeraz entzun gagizuezala, eta biotz onez ebaizi dagizuela gure antzerki au.

I EKITALDI

I AGERLEKU.--LONDON. Areto-aurre bat Bakaldunaren Yauregion.

CANTERBURY'ko GOTZAIBURUA ta ELY'ko GOTZALA aurrera.

CANT.—Ene yaun, gogoratu egizu. lengo bakaldunaren amaikagarren urtean arakatu ta azteturiko gure aurkako legegeia, ta orduko naste ta artegatasunagañtik izan ezpa' litz seguru be seguru ontzat artuko zana bera orain barriro aztertu ta ontzat artzeko dirala.

ELY.—Baña, zelan guk gogor egingo orain legegei orri?

CANT.—Buruari sakatu ta buruan erabilteko dogu orrako ori. Gure ondasunetatik zatirik andiena galtzen dogu orrako ori ontzat artu ba'daite gure aurka; kendu egingo leuskiguez, ba, gizon yaungoikozaleak euren ilburukoz Elexeari itxi dautsezcn lurak; amen ze bide artuko leukien ondasunok: bakaldunaren e'dergarrizat, amabost konde, amabost eun zaldun, eta sei milla ta berreun ikurdidun (esquire) zeatz orniduteko; eskulanic egiteko gauz ez tiran gexo, mengel eta beartsuentzako eun erruki-etxe eragi ta ondo orniduteko; eta, orrez ganera, bakaldunaren diru-kutxetarako milla libera urtean: au diño legegeiak.

ELY.—Zurrutada andia litzake ori.

CANT.—Edalontziko ta edalontzia, biak batera edango leukezana.

ELY.—Baña aurreak artzeko, zer egingo ori eragozteko?

CANT.—Eskarrez eta begirapen txerakorrez beterik dago bakalduna.

ELY.—Eta Elexearen aldeko benetako da.

CANT.—Olangorik ez eben iragarten aren gaztearoko ibilerak. Aren nasaikeria be ildu ta il egin zala bere aitak atzenengo arnasea emonagaz bat irudian: bai, une atan txe, angeruen bati legetxe, otu yakon zerak aztertu ta buruan erabilte, eta Adan zar obentiari beragandik alde eraginda, atsegin-baraturik itxi eban bere soña, barruan zerutiko gogoai leku egin eta aik an batzeko. Eguño ezta egin yakitunik orren arin; eguño ezta etorri oneratuterik urutu ta urioletan, olango ibai mardotan, utsak erauzi ta garbi-ikuziaz; eguño ezta bidali orren arin ortik zear Idera-burudun nasaikeririk, bakaldun onegandik bestean arin.

ELY.—Onetsiak gara aldakuntza orregaz.

CANT.—A entzun baño eztozu Yaungoikotzeaz daragoiorean eta, arriturik, biotz biotzez gurako zeunke a gotzai edo olangotsu egin dagiela; entzuizu erri-arazoetan daragoiorean, eta ori bakarrik ikasten ibili dala esango zeunke: gudua ezta egin dagiela, bai, eta gudaketa itzaki eresia legetxe azaldu ten dautsula esango zeuke; edozein errieta-arazoratu egizu, eta or dozu Gordo'ko poronpila ak azkaturik, arazo ori bere zango-ugala bestean etxetiari eta ezagun yakola: au dala-ta, eguratsa, bardinbako lotsabako izanarren, geldi egoten da ak itz egiten

dauenean, eta arritasun ixila dabil gizonen belarrietan, aren esakune gozo eztiak ostuteko; orregaiifik, aren eretxien bendeko ta otsein izan-bearrean aurkituten dira bizi-zearen zati diran trebetasuna te oarrikasias; eta arriturik geldituteko da zelan aren eskarrak olango uztarik egin dauen, len aren ibilerak orren burubakorenak izanik; ikasi-bakoak izan dira aren lagunak, zakarrak, eta buru-arinak; iskanbiletan emon dau bere aldia; iskanbiletan, yan-edanetan eta olgetan; eta eguño oartu ez agan ezetariko ikasketarik, bakarreratuterik, erritarren arte-rik alde egiterik.

ELY.—Asunpean azten dira mallukiak, eta igalirik onenak auzoan igali zakarragorik dabenean azi ta elduten dira ondoen, eta olan bakalsemeak be nasaikeri estalgipean ostondu egin izan dau zer benak buruan erabiltea; olan, ba, bakalsemea, seguru be seguru, uda-bedarra legetxe azi da, gabaz arinen, iñok ikustska, barruko azi-ındarrak eraginik.

CANT.—Olan izan bear, orain alatzik eztoguta; eta, ou dala-ta, nai-ta-nai-ez ontzat artu bear dogu izan dala guk eztakigun bideren bat zerak ondu ta osotuteko.

ELY.—Baña, ene yaun on, zelan arinagotuko ete dogu erri-aldunak ontzat artzeko diran legegei astun au? Bakaldunaren nagusiagotzea legegei orren alde itzulirik ete dago, ala ez?

CANT.—Ez batera, ez bestera dagola diruái; edo, obeto esateko, gure alderago dagola dirudi, gure aurkako diranai zurikeririk ez

eginetik agiri danez: zer bat opatu dautsat, ba, nik aren nagusiagotzeari, zera..., orain Pantze'gazko arazoak áiraia-ta (eta arazooZ argi ta garbi ta luze itz egim dautsat aren eskarrari), eguño bere aurrekoetatik iñori baño diru-mordo andiangoa emongo dautsagula gure batzarraren izenean.

ELY.—Zelango txerea egin dautso eskeintza orri, ene yaun?

CANT.—Txera argia egin dautso aren nagusiagotzeak; baña eztogu izan asírik asko, bere eretxirik entzuteko..., oartu natxako, ba, autua eteteko gogoia ebala aren eskarrak; eztau izan astirik, orretarako gogorik izan-orren, duketza batzuetarako ak dauzan benetako eskubideak, eta goragotik yota Pantze'ko burestun eta bakaulkirako dauzan eskubideak, bere birraitaita Edorta'gandik datorkozan eskubideak nire agotik entzuteko.

ELY.—Ze eragozpenek eten dau zuon arteko autua?

CANT.—Une atantxe eurak artzea gura izan dabe Pantze'ko bakaldunaren aldetiko ordezkariak: eta, nire ustez, eldu da guk alkarregaz ostera be itz egiteko aldia: laurak eztira, ala?

ELY.—Bai, ba-dira.

CANT.—Olan izatekotan, goazen barrura, ordezkariak ze barri ekarri dabean yakiteko; eta egingo neunke, baietz igarri aik zer dakarren, Pantzetarrak itzik be egin baño len.

ELY.—Neu izango natxatsu lagun; eta luze eretxita nago aik esango dabena entzuteko. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Lengoxea. Bakalderri-arazoetarako gelea bertan.

ENDIKA BAKALDUNA, GLOSTER, BEDFORD, EXETER, WARWICK, WESTMORELAND, eta Otseinak aurrera.

END. B.—Nondik da Canterbury'ko ene Lord eskartsua?

EXET.—Ez emen bertan.

END. B.—Deitu egizu, osaba on.

WEST.—Barrura dei egingo ete dautsagu ordezkariari, ene nagusi?

END. B.—Ondiño ez, ene lengusu; zer astun batzuetan zetara egin ebatzita egon bear geunke arena entzun baño len, Pantze ta gu-gazko gogai batzuk kezkatu-rik gagoz-eta.

CANTERBURY'KO GOTZAIURUA, ta ELY'KO GOTZALA aurrera.

CANT.—Yaungoikoak eta bere angeruak ya-

gongo al dabe zure yezarleku yainkoti-rra, eta luzaro yezarriko al zara bertan!

END. B.—Eskarrik asko, seguru be seguru; ene yaun yakitun, ekiozu, arren, lengo arazoari, eta zuzenez eta Yaungoikoz erakutsi egiskuzu, aik Pantze'n dabean Salitar legeak gure eskubiderako bideak isten daukuza-ntez; eta Yaungoikoak galazoko al dau, ene yaun maite zintzo ori, zuk irakurria iru-ditu, okertu ta makurtuaz, urik zuk zeure errotara ekartea, naiz bada-ezpadako esku-bideai benetakoen kolore yatorra ezarriaz zure yakinkidetza yakitunari olango zama astunik ezartea: ba-daki, ba, Yaungoikoak orain osasuntsu díran zenbatek eta zenba-tek ixuriko leukien euren odola orain zuk, begiragarri orrek, bera egitera zirikatuko gindukezuanaren alde: au dala-ta, ardu-

raz ibili zadiz gu ezetara beartu baño len, lotan dagon gudu-ezpatea iratzarri baño len: Yaungoikoaren izenez aginduten dautsugu arduraz ibili zadizala; eguño eztabe egin, ba, alkarregaz burrukarik olango bakalde-ri bik odol-ixurtze yori barik: ai ene ta alaka-eta itzala da, ba, odol erruge orren tantanetatik bakotxa. ilkortasun laburrean alperrik olango galtzearik egiteko ezpaten agoak zorroztu izan dabezan okarren egilearen aurka. Añenpe ta araope onetan itz egizu, ene yaun; guk, ba, entzun, so egin. eta biotzez sinistu egingo dogu garbi agiri *'daia zure* biotzean *ela* yakinkidetzan *zuk* diñozana, ugutzagaz obena garbi geldituten dan bestean.

CANT.—Olan ba'da, entzun nagizue, zuk nagusien orrek eta zuok "peer" orreik, zuon buruak, zuon biziak, eta zuon otseintzak bakal-aulki oni zor dautsazuezanok..., Pantze'ko nagusitzarako zure goikotasunak egin daiken eskabiderako eztago auzex beste eragozpenik, zera, aik Pharamond'egandik ateraten daben au baño: "In terram Salicam mulieres ne succedant, Salitarren lurre-rako ondorengotzarik eztagiela izan emakumek"; Pantzetarrak oker azalduten dabez orreko itzak Salitar lurra Pantze bakalderria 'd'ala diñoenean, baita lege onen egile ta emakumeen eragozla Pharamond dala diñoenean. Orraitiño be, zintzo autortuten dabe euren idazleak, Germani dala Salitar lurra, Sala ta Elba ibaiaren bitartekoa; Saxonak an benderaturik, Karla Andiak Pantzetar batzuk itxi ebazan, ango lurretan biziteko; eta orrako orreik, Germani'ko emakumek, euren ekandu txarren batzuk zirala-ko-edo, aintzakotzat artu ez-eta, lege au egin eta yarri eben orduan, zera, emakumerik ezin eldu ledikela ondorengotzara Salitarren lurrean: eta lendik esanda dodanez, Salitarren lur ori, Elba ta Sala bitarteko ori. gaur Germani'n Meisen deretxoena da. Beraz, argiro agiri da orrik, Salitar legea etzala asmau Pantze'ko bakalderrirako; eta Pantzetarrak etziran Salitar lurraren yabe be izan Pharamond bakalduna il zanetik la-reun eta ogei urte geroago baño, ezetariko oñarri bagarik lege orren egiletzat daben Pharamond orren eriotzatik la-reun eta ogei urte geroago; Pharamond ori, ba, gure birrerostetik la-reun eta ogei ta seigarren urtean il zan; eta Karla Andiak Saxonak benderatu ta Pantzetar batzuk Sala ibaiaren andikaldean zortzireun eta boskarren urtean imini ebazan. Orrez ganera (euren idazleak diñoec), Kilderik bakaulkitik kenduta, Pe-

pin bakaldunak, Blithild emakumearen ondorengotariako zalako (Klotar bakaldunaren cdotba zan Blithild au), beretzako eskatu eban Pantze'ko burestunerako eskubidetzea, Pantze osoaren ondorengotza bere zalata. Ugon Kapet'ek be (Lorradne'ko Duke ta Karla Andia'gandiko ondorengo arrik bakairra zan Karla'ri burestuna kendu eutsanak), bere eskubideai egi-antz apur bat ezarteko asmoz (egiz eta izcitez eskubide z'ralakook ustel eta uts i'zan-arren), axe bera be Lingare anderearen ondorengotzat agiri zan. Lingare au, ostera, Karlamen'en alaba zan; Karlaman, barriz, Koldobika Inberadorearen seme. Amargarren Koldobika bakaldunak be (Kapet lapurraren ondorengorik bafcarra bera), ezin uxatu izan eban bere yakinkidetzako kezka edo artegatasuna, Pantze'ko burestuna eroatetik etorkon kez-kea, yakin eta nasaitu arte bere amama, Elixabete bakalduno liraina, len aitaturiko Lorraine'ko Duke Karla'ren alaba zala Ermengare andereagandiko yatorri artezez; eta ezkontza orren bitartez barriro lotu yakon Karla Andiaren yatorriari Pantze'ko burestuna. Olan, ba, udako eguzkia bestean argi áa, Pepin bakaldunaren bakalduntzabidea, Ugon Kapet'en eskakizuna, ta Koldobika bakaldunaren biotz-nasaitasuna emakumen bakalduntza-ondorengotzarako eskubidetik datorrela; aik Salitar legea aintzakotzat euki gura izan-arren, emakume-aldetiko zure eskubideari atak isteko; eta gurago dabe sare barrura sartu ta an kirimildu, zuri ta zure asabai kenduriko eskubideak argi ta garbi autortu baño, kakomakoka euren alderako eskubide-billa ibilita.

END. B.—Zuzenez eta yakinkidetzaz egin ete daiket eskakizun au?

CANT.—Neure buru-ganera betor ortiko obena, nagusien bildurgarri ori! Zenbaki-idaz-tian idatzita 'dago, ba, "Semerik izteka il ba'dadi gizonen bat, aren alabeari boako aren ondorengotzea" (1). Lord eskartsu, zure danaren alde yarri zadiz; axetaratu egizu zure ikurrin gorria; begiratu egizuz zure aurretiko altsuak; zoaz, ene lord bildurti ori, zure birraitaitaren ilobira, zure eskabidea aren izenez egiten dozunaren ilobira; dei egiozu aren gogo guduzaleari, eta zure birrosaba Edorta Bakalseme Baltza'renari, odolantzerkiarena egin eban, ba, ak Pantze'ko lurretan, Pantze'ko indar guztiak benderatu

(1) Ikusi ZENBAKIAK Idaztia, XXVII, 8.

ta deusezturik, eta bitartean bere aita altsu be altsua mendi-ganetik irribarreka ta begira egoan, bere leoikumeak Pantzetar andikien odola edatan eragoiola. Ingelandar arein zindo! Euren indarretatik erdia geldi, otzik eta barreka eukiaz, beste erdiak Pantzetarren arrokeri guztiari erantzuteko gei ziranen zindo!

ELY.—Iratzarri egizu ildako adoretuon gomutea, eta barriztau egizuz arein egite andiak zure gudaroste indartsuagaz: arein ondorengo zara zu; arein yezarlekan zagoz yezarrita; ai entzutea ta ospea emon eutzezan odola ta adorea eurak dabiltz zure zane-tan; eta nire nagusi ir.dartsu baño indartsuagoa bere gaztearoko Orril-goizaro goizaroan dago, egite andi ta egikizun itzaletarako eldurik eta umaturik.

EXET.—Zure odoleko zure asabak atzarri zira-nez zu noz atzarriko begira dagoz Lurreko zure anai bakaldunak eta Inberadoreak.

WEST.—Ba-dakie aik bajdozula zuk orretarako zegaitirik, eskuarterik eta alik: zeure garaitasunak be ba-daki; eguño eztau izan Ingelanda'ko bakaldunek andiki aberatsa-gorik, eta bendeko zintzoagarik, euren soñak emen Ingelanda'n dirala, ba, euren biotzak txoznapeetan dagoz orain Pantze'ko lurretan.

CANT.—Ui! soñak be doazala, ene nagusi maite, gogoen yarrai, odolez, ezpataz eta suz zure eskubidea irabazteko; eta orrako orren lagungarritaz guk, gogoari alde-kook, abadetzeak eguño zure asabari emon izan dautsan baño dirutza andiagoga batu ta emongo dautsugu.

END. B.—Pantze'n ganeratuteko bakarrik ez-togu bear guk gudarostea, Eskolandarrakan-dik gure burua yagoteko indar egokiak emen be itxi baño, ostantxean, dana euren alde dabela, ganera letorkiguz-eta.

CANT.—Ene nagusi eskartsu, mugetakoak egingo dabe ormarik asko, barruko gure lurra mugetako lapurretatik yagoteko.

END. B.—Eztoguz esan gura otoz otoko sartu-urtenetako lapurrak bakarrik, orain arte gogalditsu izan yakun Eskolanda osoarena baño; or irakurriko dozue, ba, nire birraitaita iñoz be etzala yoan Pantze'ra bere indarrakak, ornidubako bere bakalderrira, Eskolandarrak. izkorea ondartzara legetxe, euren indar andi ta osoakaz etorteka; era-so beroz lurra ta lurreko uzta elduak igurdi ta erauziz, gaztelu ta uriak inguratz luze nekorrez esiturik; eta Ingelanda, bere aldekorik ezagaz, aztindu ta ikaratu egin izan dau auzo txarrak.

CANT.—Bildurrik geiago izan dau, kalterik artu dauen baño, ene nagusi; ostantxean, Ingelanda bera enizun Luuo eziozu, berak emongo dautsu orrako orren eredu-a-ta: bere zaldizaldun guztiak Pantze'n ziranean, eta bere andikien ama-alargun iletari zanean, bere burua ondo yagon ezeze, Eskolanda-rren bakalduna goatu ta baitegiratu egin eban, abere aldarraia baitegiratuten dan legetxe; eta Ingelanda'k Pantze'ra bidali eban, Edorta bakaldunaren entzutea bakaldun atxiloz beteago egiteko, eta Ingelanda'ko egunkaria goraketaz aberats egiteko, itsasoaren ondoa ta ondoko lupetzea itsasontzi urperatuz eta altxorrez beterik dagon bes-tean.

WEST.—Baña ba-dago esakune bat, zarra ta egiazkoa bera...

"Ezkolanda'tik asi zadiz,
Pantze irabazi gura ba'dozu".

Bein Ingelanda arranoa yaki-billa urtenazkero, aren abi yagonbakora dator ixilka Eskolanda ogigaztaia, ta aren bakalsemetar arrautzak edoskiton dauz, katua beste lekutan danean saguarena eginik. yan al daue-na baño geiago urratu ta ondatuteko.

EXET.—Ortik datorrenez, etxean egon bear dau katuak: orraitño be, bear biraogarri da ori, bear doguzanak yagoteko kutxarik badogunazkero, eta lapurtxoak goatzeko goakallu ederrik be ba-dogunazkero. Iskillodun eskuak ebestean burrukan daragoioen bitartean buru zurrak bere burua yagoten dau aberrian; yaurtzea, ba, goikoz, beekoz, eta beeragokoz, atal askoz osotua izan-arren, guztiakaz zer bat bide yatorrez batu ta guztiz estua egiten dau. atal guztiak alkarren kide dirala, eresian yazo oi danez.

CANT.—Orregaitik, ezbardin egin dauz Yaungoikoak gizonen lege-erriko egikizunak, egikizuna etentzaka eraginaz, eta egikizun orrek ba-dau bere elburu yarririk, zera, men egitea: olantxe egiten dabe, ba, lan erlak, yaiotzatiko arauz yentედun bakalderriari len-urrengotza-bidez lan egiten irakasten dautsen zer eginak. Ba-dabe bakaldunorik, eta bai guztitariko bearginak be: batzuk, ebazlearena eginik, etxea zuzenduten dabe; beste batzuk, sal-erosleena eginik, salerosketea etetik at egitera azarten dira; beste batzuk, gudariena eginik, iskillotzat euren izpiak dabezala, udako lora urtenbarri bigunetan gozoa goatu ta batzen dabe; eta goatua, bidaldi alaiz, etxera daroe, euren bakaldunoaren bakal-txoznara; ta onek. bere nagusiagotzean zoli ta arduratsu, ya-

ramon egiten dautse urrezko abaeak txistu-otsean egiten daragoien arginai; erritar alkarganako txeratsuak ezta igurditen daben bitartean, lankitar igarola erukarriak an erlategiko atetan mordo baturik euren zama astuna an noz itxiko begira dagozan bitartean; ebazla begi-zorrotzak, bere burrundada latz zorrotzagaz, erlanagi alperkeriz arrausilaria erala zurbilen eskuetaraturik. Au da nik emendik ateraten dodana, zera, zer baterako diran zer askok, bako-
txak bere bidea artu daikela, ez guztiak bide bat bera; geziak, asko izan-arren, eta ainbat lekutatik yoaten itxi-arren, elburu batera yo daroenez: uri bat berera ainbat bidek yo daroenez; ur gozoko ainbat lats edo errekatxuk itsaso gezal bat berera yo daroenez; ainbat marrak marrabilaren erdira yo daroenez; olantxe, utsik egiteka, bein bidean dirala, millaka asko egitek elburu batera yoten dabe, eta guztiak egin eginean yo be. Au dala-ta, Pantze'ra, ene nagusi. Lau ataletan banandu egizu zure Ingelanda zori ontsua; lauren bat eroan egizu Pantze'ra, eta ikara baten iminiko dozu Pantze osoa lauren orregaz. Guk geuk, zurea besteko iru indar etxean dogula, gure atek txakurretatik ezin yagon ba dagiguz, kezkatu gagiczala, ta galdu dagiala gure aberriak gogor eta zurraren entzutea.

END. B.—Dei egieuzue barrura Delbin'ak bidaliriko ordezkariak. (Alde Laguntzako batek).
Eragin eraginik eta ebatzi ebatzirik gagoz orain: eta, Yaungoikoa ta zuok lagun zatxakuezala, zuok gure indarraren zan eta zamil zarienok, gure danazkero, Pantze'ri gure lotsearen aurrean bere burua makurtuazo, edo, ostantxean, zeatu ta birrindurik itxiko dogu: edo, an yezarriko gara, luzetara ta zabaletara Pantze osoari ta bere duketza babaldar guztiak guk agindurik, edo aintzako eztan ontzian datzeala gure azurrok, ilobirik baga, euron gomutarik be ezala. Edo edestiak, agoa zabaldu-ala, ago zabalez eta nasai eralgi ta edestuko dauz gure egiteak, edo, ostantxean, miñik bagako agoa izango dau gure ilobiak, itz-bako Turkar balitz legetxe, eta argizagizko idazkunerik be ez-tau izango bere apaingarrizat.

PANTZE'ko Ordezkariak aurrera.

Ondo gerturik gagoz orain gure lengusu Delbinaren etsegina zetan dagon yakiteko; agandiko da, ba, dantzugunez, agurra, ez bakaldunagandikorik.

I ORD.—Gure egikizunaren barri zure nagusiagotzeari aske ta nasai emoteko ederre-

tsia emongo al dauskuzu; ala, itz gitxitan iragarriko ete dautsugu Delbinaren gogoia ta gure ordezkarietza?

END. B.—Ezkara gu agintari gordinik, bakaldun kistar baño; eta gure baitegietako zori txarrekoak lokarriai bestean benderaturik dagoz gure lera okerrak Yaungoikoaren goi-eskarrari: au dala-ta, argi ta garbi, ezetariko eragozpen bagarik iragarri eiguzue Delbinari gogoko yakona.

I ORD.—Onan, ba, labur esango dot. Zure asaba andi III Edorta Bakaldunagandiko eskubidez, zeureztat eskatu izan dauz zure goikotasunak Pantze'ko dukerri batzuk, zure ordezkariak ara bidalita. Zure eskabide orri erantzunaz, au diño gure ugazaba bakalsemeak, zera, zure gaztearoren usainik eta dastarik geiegi dozula; eta gogotan euki dagizula ezíagola ezer Pantze'n "gallarda" arinez (2) irabazi datekenik; zure nasaikeri ta geiegikeriz ezin sartuko zarezala dukerri areitara. Olan dala, zure izakerearentzako egokiagotzat, altxor-ontzi au bidalten dautsu ak; eta onen alderako, zu eske zagokozan dukerriez itzik be ez al dautsazu geiago egingo. Au da Delbinak diñona.

END. B.—Zetariko da altxor ori, osaba?

EXET.—Tenitz-pelotak, ene nagusi.

END. B.—Poztuten gauz Delbina gugazko orren txerakor izateak; eskarrik asko zuri aren esku-agiriagaitik eta zure nekeakaitik: pelotontzako sare bana idoro dagigunean, Yaungoikoa lagun, aren aitaren burestuna galgordean iminiko dauen yokaldiren bat egingo dogu Pantze'n. Esaiouz ari, yokalari lango yokalaria aurkitu dauela bere leiakidetzat-eta, Pantze'ko yokategi guztiak nasturik eta asalaturik geldituko dirala aren yokaldiekaz. Eta ondo oartuten gara a gugana gure nasaikeri-aldiakaz etorteaz, areitatik ze onura atera geban oartzeka. Eguño eztozu aintzakotzat artu Ingelanda'ko yarleku txi-ro au; eta orregaitik, au ez gebanean, iñondiko nasaikerietara itzuli gintzazan; beti be, ba, etxetik urrin diranean izaten dira gizonak gogargien. Baña nire lekua yongongo dodala esan egiozu Delbinari; bakaldun lango izango nazala, ta nire anditasuna eguratsetan zabal igituten dala erakutsiko dodala, Pantze'ko nire bakaulkian yezarri nadinan. Orrako orretarako, nire nagusiagotzeari baztarrera eraginda, luginak astegu-

(2) Esponar yantzaren bent dogu "gallarda" daloko OTU, be-re izenetik ogiri danez.

nez lez lan egin dot; baña an ainbesteko aintza osoz yagiko r.az-eta. Hluraturik itxiko dodaz Pantze'ko begi guztiak, eta itsuturik geldituko da Delbina gu begiratuia, Eta esaiouzu Delbin txerakorrari bere irri onek su-odietako arri-bolatu egin dauzala bere bolok; eta biotzean min artuko dauela eurokaz yoango yakon azaskatze ondatzalleagaz; millaka ta millaka emakume alargunek irri egingo dautsoe, ba, irri oni, euren senar maiteak galdu dabezaiaiko; irri egingo dautsoe ameak euren semeakaitik, irri lurre-ra yausiko diran gazteluak; eta oraindik yaioteko diran batzuk be biderik eta zegaitirik asko izango dabe Delbinaren irri oni añen sta birao egiteko. Baña nik Beragana zuzentza-e-ike yoLen dodan Yaungoikoa-ren eskuetan dago cnako guzti au; eta Aren izenean esaiouzu Delbinari, ba-noakola, al dodanez nire buuia azaskatuteko, ta nire esku zuzena zegaiti onetsi onetsiaren alde ezarteko. Olan, ba bazez aide egizue emendik, eta efaiozue Delbinari buru-rinkeri dastea izango dauefa bñja txantxeak, barre egin eutsoenaren aldean millaka ta millaka geiagok negar egin dagioenean, Segurantzalagunakaz egizuez. Agur, eta ondo ibili. (Alde *Ordezka. ai.-Ay.*)

EXET.—Gogaldi oneko gsznea izan da orixe.

END. B.—Ba-dogu itxarorik lotsaturik itxiko dogula orí bidali dauena. Olan dala, ene yaunok, ez galdu astirik gure bidezkundea aurreratutekorik; eztogu, ba, guk orain Pantze'gazkoaz beste gogaketarik, Yaungoikoa-gazkoak kenduazkero; gure egikizunari dagokozan gogaketak bakarrik doguz. Au dala-ta, arin batuko al dira guduotarako bear doguzan eskuarte egokiak, eta beste zer guztiak be gogotan erabili, gure egoai al danik eta arinen luma geiagu erasteko; Yaungoikoare.i aurrean diñot, ba, Delbin oni bere aitareneko atetan asarre egiteko gareala. Gizon bakotxak, ba, bere buruari lan eragin dagioia orain, egikizun zuzen au laster bere bidean yarri dadin. (Alde dagie).

Abestaldearena dagiana aurrera.

ABEST.—Suak arturik dago orain Ingekmda'ko gazteri guztia, eta yantzitegian datzae se-

dazko yaiegun-soñekoak: aurrera dagie orain guda-koskolginak, eta gizon bakotxak eztau bere biotzean omenagazkoaz beste gomutarik; saldu egiten dabez orain barrutiak zaldia erosteko; Kistar bakaldunen ispillu danan yarraí doaz, orpoetan egoak dabezala, beste ainbeste Merkuri Ingelandar langotsu; aidean dago, ba, orain Zer Yazokoa; eta Zer yazoko onek Endika ta bere yarraileai aginduriko bakal-burestun, duke-burestun, eta konde-burestunetz kirtenetik mokoraño estali ta ostondurik dau ezpatea. Pantzetarrak, gertakuntza itzalon barri yakin dabe-ta, bildurr-ikara baten dagoz; eta erriketa zurbilaren bitartez Ingelanda'ren asmoai beste bíderen bat zelan arrazo, bi-la billaka daragoioe. Ingelanda ori! (eredu zatxakoz zu zure barruko anditasunari, mutiko txAi biotz-andia legetxe) Zer ez egingo zuk, omengarri izango litxakizunik, zure seme guztiak txerakor eta yator ba'litxatzuz! Baña, ikusi zeren eza dozun! Biotz arro utsezko abia idoro dau Pantze'k zugan, eta utsune ori ak salkeri-buiestunez beteten dau; eta iuu gizon ustel... Erikkarta Cambridge'ko Kondea bat, eta Endika Masham'go Lord Scroop, bigarrena; eta Sir Toma Grey, Northumberland'eko zalduna, irugarrena... Pantze'ren urreagaitik (urrea borgarA eruu yaísu on!) zinkidetu egin dira Pantze bilduigarriagaz; eta euren eskuz ilteko da bakaldunen eskar au. r. sulezeak eta etoikeriak eutsin ba'dagioe euren arteko aginduari, Pantze'rako ontziratu-aurretik, Southampton'en. Ez galda oraindik zuon eperik; eta laburtu egizue urrintasuna, guk guie antzerkia aurrera daroagun bitartean. Ordaindurik dago etoikeri-dirutzea; alkarregaz itundurik dagoz saltzalleak; London'dik alde eгина da bakalduna eta orain, aiton-seme-alabok, Southampton' era aldatu da agerlekua..., an dago orain antzetzegia, eta an yezarri bear dozue; eta andik Pantze'ra onik eroan, eta atzera ekarriko zaueguz, itsaso estua guk hluraturik, zuoi bidaldi atsegingarria emon dagitsuen; al ba'dagigu, ba, bati be eztautsagu asaldatuko urdallea gure antzerkiagaz. Baña, bakalduna Southampton'eratu dadinean, eta ez lenago, aldatuko dogu gure agerlekua. (Alde dagi),

II EKITALDI

I AGERLEKU.-LONDON. Basaurde-buru Ardandegiaren aurrea. Eastcheap.

NYM eta BARDOLBA aurrera, banazeen.

BARD.—Ondo aurkitua augu, Nym amarburu.

NYM.—Egun on, Bardolba gudaiburu-ordeko.

BARD.—Eta, oraindik be adiskide zarie i ta Pistol ikuirinduna, ala?

NYM.—Nigazko, niri etxastak bape ardura: itzik gitxi baño etxoat egiten nik; baño eretik datorkenean izango dok alkarrentzako irribarrerik; baño yazoko dana yazoko dok. Enok ni bape burrukatirik; baño begia idigi ta nire burdiñeari eutsingo yauntsat; bakun dok nire burdiñea; baño orregaitik zer? Etxok gaztaiari zerrendarik ebagi-ezinik, eta edozeñen ezpateak bestean eutsin-ezinik, eta ori dok dana.

BARD.—Gosari bat emongo dautsuet zuok alkarren adiskide egiteko; eta anai kutunak legetxe yoango gozak irurok Pantze'ra; olan izango al dok, Nym Amarburu on.

NYM.—Zera dok nik segurutzat dirauskadana, bizirik iraungo dodala al dodan artean; eta luzaroago ezin bizi nadikenean, al dodana egingo yoat: au dok atzena, au dok nire erabagia.

BARD.—Egia dok, amarburu, Nell Quickly'gaz ezkondu dala a; eta, egia esateko. oker egin dauk Nell'ek, igaz ezkonduko itza emonik yegoan a-eta.

NYM.—Etxakiat: diranez izan bear yoek zerak: lotan egon ledikez gizonak, eta bitartean aldean euki daikiez euren buruak; eta, batzuk diñoenez, agorik ba-dabe afztoak. Yazotekoa yazo bedi, beor unatu izan-arren epea, nekez ba'da be oraindik ibili-ezinik eztau. Edozetik ateraten dira bere ondorenak, baño bein beinean ezin dodaz esan.

BARD.—Emen yatozak Pistol Ikurrinduna ta bere emaztea: amarburu on, epetsu egon zagiguz emen.

PISTOL eta Arroztunoa aurrera.

Kaxo, Pistol ene arrotzun!

PIST.—Arrotzun deituten nok, txakur zirtzil orrek, ala? Aiko, esku au-arren zin egiten daukat, iguin dautsadala itz orri; eta nire Nell'ek be etxok artuko ta eukiko arrotzik.

ARROZT.—Ez, ez orixe, ez luzaro; ezin doguz, ba, etxean artu ta euki amabi-amalau bat aitalalaba, euren orratz-lanetik zindo bizi

diranak, etxean emagaltegia dogula or zabaldu bagarik. (Ezpatea aleraten dau Nym'ek) Egun onen zori txarreko, Andera, orrek orain bere ezpatea atera ezpa'dagi! Orain ikusiko doguz gogozko ezkontza-austea ta erailtea biak batera eginik.

BARD.—Gudaiburu-ordeko on, gudaiburu-ordeko on, zemairik ez egin emen.

NYM.—Ut, ut!

PIST.—Euii ut, ut, Aislanda'ko txakur ori! Aislanda'ko txakur belarri-zorrotz ori!

ARROZT.—Nym amarburu on ori, erakutsi egik ire adorea ta Iekaratu egik ire ezpatea.

NYM.—Emendik apur bat alde egin gura ete dok? "Solus" euki gura induket. (Lekaratu egiten dau bere ezpatea).

PIST.—"Solus", txakur argi? Sugegorri zirtzil ori! Ire inondiko arpegian sartuko daukat orrako "solus" ori; ire aginetara, ire ezta-riira, ire biri iguingarrietara, bai, ire biuzturira sartuko daukat "solus" ori, arrano; eta, okerrago dana, ire ago nazkagarriara! Ire erraietara egozten daukat atzera "solus" ori; asarre nok, ba; zutunik yagok Pistol ollarra, eta tximistea baño bizkorrago urtengo da suaren sua.

NYM.—Enok ni Barbason'ik; ezin nok araotu r.i. Iri astinaldi lango astinaldia emetoko gogoa yoat, zakar ba'akit, Pistol, zatitu, zeatu egingo aut nire ezpateagaz, al dodanik ondoen: emendik alde egin gura ba'eu, narua berotuko neunskik, olangorik egiten badakidanez; eta aiko dana esanda.

PIST.—Arroputz zistrin eia dongetsi amurratu ori! Agoa zabalik yagok ilobia eta ur dok kutunka ibili oi dan eriotzea; au dala-ta, arin baño arinago alde egik. (Biak ateraten dabez ezpatak).

BARD.—Entzun nagizue, entzun egidazue nik diñodana: gudari nazan bestean seguiu, kirteneraño sartuko daukat nire ezpatea lenen-lenengo zartadea emon dagianari. (Atera egiten dau ezpatea).

PIST.—Andi dok ire zina-ta, baretu bearko yok asarreak. Ekadak ire ukabilia, ekadak aurreko ire oña: goitsu dok ire adorea,

NYM.—Noz edo noz moztuko daukat ezta-riira, al danik ondoen; aiko argi ta garbi esanda.

PIST.—"Coupe la Gorge!" Ori dok ik esan

gura dokana. Barriro egiten dauskat eupada, Kerete'ko txakur ori, nire emaztearen yabe ingo azala uste dok, ala? Ez; ge-xoetxera oa, eta gatx lotsagarri-duntegian billatu egik Kersidetariko eskekoa, Doll Tearsheet deretxona, ta agaz ezkondu adi; neuk yoat, eta neuk eukiko yoat "quondam" Quickly zana, nire emazte bakartzat; eta, "Pauca", bego. Tiruk.

Mutikoa aurrera.

MUT.—Ene arrotzun Pistol, nire ugazabagana etorri bear dozu, eta zuk be bai, arrotzuno; gexorik be gexorik dago a, eta oera yoan gura dau. Bardolba on ori, aren izara bi-tartean sartu egizu zure surra, eta beroga-riarena egiozu. Benetan, gexorik baño ge-xoagorik dago a.

BARD.—Ken akit, zital ori!

ARROZT.—Egia esateko, egunotatik bat edo baten asebate lango asebeta emongo dau-tse ak bela ta saiei: biotza erail dautso bakaldunak. Senar on, bereala zatoz etxera. (Alde Arrczuncak eta Mutikoak).

BARD.—Tira, alkarregaz adiskidetuko ete zauedaz? Batera yoan bear dogu Pantze'ra; ze denganiño dala-ta euki bear dogu aizo-rik alkarri ezarriak moztuteko?

PIST.—Neuriz goragotu daitezala uginak eta txerrenak ausika doazala yaki-billa.

NYM.—Oraintxe iritxiko yoat orrako ori; aiko esanda.

PIST.—Gizontasunak ebatzi dagiala; ondora-ño sartu egik. (Ezpatak ateraten dabez).

BARD.—Ezpata au-arren erail ingo dot len-nen zartadarik emon dagiana; bai, orixe ingo dot, ezpata au-arren.

PIST.—Ezpateagazko da zina, eta euren bi-dea eroan-bearreko dira zinak.

BARD.—Nym amarburu, adiskide izaterik gu-rra ba'dok, adiskide izan zadize: gura ezpa'dok, ostera, nire arerio be izan zadize. Arren, lekaratu egik.

NYM.—Emongo ete daustazak deman iri ira-baziriko zortzi xilinak?

PIST.—"Zindo" bat emongo dauskat, eta ber-tatik emon be; eta edari gogorrik be emon-go dauskat, eta adiskidetasuna ta anaitasu-na batuko dozak orrako orregaz; Nym'en bi-dez biziko naz ni, eta nire bidez, Nym; zuzen ete da au? Izan be, ba, yaki-ardura-dun izango naz ni gudaltegian, eta irabazi onik izango dot an. Ekadak ire esku ori.

NYM.—Emongo daustak nire "zindoa", ala?

PIST.—Txintxin eginetan eskura ordaindurik.

NYM.—Tira, ba, ondo yagok.

Arrotzunoa aurrera ostera be.

ARROZT.—Emakumegandiko ba'zarie, zatoze len baño len Sir Yon'gana. Ene, ene. biotz aren errukarri! "Quotidiam tertian" suka-irak ainbestean ikara ta dardara eragiten dautso-ta, negargarri da a ikustea. Gizon kutunok, erdue agana.

NYM.—Zer txarrak, odol geldiak bidali dau-tsoz bakaldunak zaldunari; aor argi ta gar-bi esanda.

PIST.—Egia esan dok. Nym; ausirik eta ya-nik yagok aren biotza.

NYM.—BakaUun on dok bakalduna; baño egin daben lango dok a be, eta iñoz ba-yok gogaldi txarrik eta mirrinkeririk.

PIST.—Gaioazan zaldunari gure errukia ira-garten; gu, asurixook, ba, oraindik ara gu geuretara biziteko gozak. (Alde dagie).

II AGEKLEKU.-SOUTHAMPTON. Onu-gela bat.

EXETER, BEDFORD, eta WESTMORELAND au-rrera.

BEDF.—Yaungoikoa-arren, azarri da aren es-karra, azpiyaleokan uste onik izateko.

EXET.—Laster izango dozak goaturik, atxilo eginik.

WEST.—Aik bai ba-dabiltzala leun, bigun eta bardin! Euren biotzak zintzo ba'lira legetxe, zintzotasun tinkoz burestundurik ba'legez le-getxe.

BEDF.—Arein asmo guztien yakitun da bakal-duna, aik orrako orren susmorik be izateka, alkarren arteko artu-emonak bidean goatu-rik.

EXET.—Ori bai, baño bere oekide izan yakon gizonak, esku-erakutsi eskuzabaldarrez mo-teldu ta asetu izan dauen gizonak, erbes-tarren diruz erosiak, bere nagusiaren bi-zia eriotzarako ta azpikerirako saldu-bea-rrarena!

Tutu-ots. ENDIKA BAKALDUNA, SCROOP, CAMBRIDGE, GREY, Lordak eta Laguntzakoak aurrera.

END. B.—Putz egiten daragoio orain gure al-deko axeak, eta ontzira yoango gara. Cam-bridge'ko ene Lord,,, eta Masham'go ene Lord txerakor, eta zu, ene zaldun maite ori,

iragarri egidazuez zuon eretxiak: uste ete dozue gure indarrak biderik urratuko dabela Pantze'koen artetik, orretarako batu doguzan indarrak euren egitekoa buruturik?

SCROOP.—Eztago orregazko ezetarik ezparririk, ene nagusi, bakotzak al dauena egin ba'dagi.

END. B.—Eztot nik orregazko ezetarik ezparririk; buruan ondo sarturik gagoz, ba, emendik biotzik bat be eztoala gureagaz eriskide eztanik, eta gure atzean be ezjala geldituten garaite ta on guztiak opa eztauskuzanik.

CAMBR.—Eguño ezta izan zure nagusiagotzeari baño bildurrik eta maitasun geiagorik izan yakon bakaldunik: eztago, nire ustez, zure bendekorik bat bera be zure yaurtzearen itzalpe gozoan biotz-naibagaz eta artega dagonik.

GREY.—Egia; ezitan busti dabez euren asareak, euren beztunak, zure aitaren arerio izan ziranak, eta bendekotasunez eta biotz aperturitsuz otsein egiten dautsue.

END. B.—Olan izatekotan, zegaitirik eta biderik asko dogu guk eskar oneko izateko; eta lenago galduko dogu gure eskua, bakotxaren irabazi ta aintzakotasuna, irabazi ta aifitzakotasunari dagokonez kitutu bagarik itxi baño.

SCROOP.—Olan, galtzaiduzko zamilez lan egingo dau otseintzeak, eta itxaroa izango da nekearen nasaigarri ta aringarri, zure eskarrari etenbako otseintzea egiteko.

END. B.—Eztogu uste gitxiagorik. Exeter'ko osaba, yarei, azkatu egizu atzo goaturiko gizona, gure aurka txarto esaka eragoiona: ardao geiegik eraso eutsala uste dot, eta parkatu egiten dogu oraín, obeto etsirik.

SCROOP.—Erruki da ori, ez zegurantzeari yaramoterik; zigortu dagiela. ene nagusi; eredutatz bedi ak yasatea, olangorik geiagotan yazo eztaadin.

END. B.—Ui! errukior izan gadizan.

CAMBR.—Olango izango al da zure goikotasuna, eta orraitino be zigortuko al dau.

GREY.—Errukirik asko erakusten dautsazu, yaun, olango zigorraren ostean bizirik itxi ba'dagizu.

END. B.—Ai ene! niganako zuon maitasun andiegia ta ardurea arren txarrak yakoz zori txarreko errukiarri orreri! Ez-ikusirik egin bear ezpa'yake gogaldi txarreen egindako uts txikiak, zelan erabiliko ete dogu gure begia gure aurrean oker eriozkarrink, agin artean eiorik, iruntsirik, eta ausirik agertu dadinecn? Oindiño be yarei egingo dogu arako gizona, geure burua galdu eztagigun

Cambridge'ko Konde Errikarta'k, Scroop'ek eta Grey'k ardura samurrik izan-arren, eta oneik guk a zigortutea gura izan-arren. Eta Pantze'gazko gure arazoetara orain; nortzuk dira oraintsu arako berarizko egikizunerako autu izan diranak?

CAMB.—Neu bat, ene yaun; zure goikotasunak eskatu daust gaur egikizun ori neugan artu dagidala.

SCROOP.—Orixe eskatu daustazu niri be, ene nagusi.

GREY.—Bai niri be, ene bakaldar nagusien orrek.

END. B.—Olan izatekotan, Errikarta Cambridge'ko Konde ori, eure dok au; aufso iri be eurea, Masham'go Lord Scroop; eta, sir zaldun, Northumberland'eko Grey ori, autso iri be eurea; irakurri egizue, eta yakizue ba-dakidala nik zuen geitasuna, zuok zer eta zelango zarien. Westmoreland'eko ene Lord ori, -eta Exeter osaba ori, arratseon ontiratuko gara.-Ba! ze barri dogu, aitonsemeok? Zer dakusazue papel orreitan, zuok orren aldaturik agertuteko? Begira, zelan aldatuten diran! Papel dirudie euren mosuak. Ba! zer irakurri dozue, zuon odola orren kildurik, inoren aurretik igesi eragiteko?

CAMP.—Ba-dautort nire obena, eta zure goikotasunaren errukiaren eskuetan iminten dot nire burua.

GREY., SCROOP.—Agana yoten dogu guk guztiok eske.

END. B.—Erail eta deuseztu egin dogu zeuon onuz oraintsu arte gugan bizirik egon dan errukia; lotsea-arren, eztozue azarri bear errukiaz itzik be egitera; zuon zegaitiak eurak doaz, ba, zuon aurka zuon ganera, euren ugazaben ganera doazan txakurrak legetxe, zuok artegatu ta kezkatuteko. Ene bakalseme ta ene "peer" zindook, ikusi, ikusi Inge-landar mamuok! Amen Cambridge'ko ene Lorda.c ba-dakizue gu gertu be gerturik, eta itzuli be itzulirik gengoazala onen omenari egokozan zer guztiak emon eta eurekaz au orniduteko; eta gizon onek, burestun arin gitxi batzukaitik, buru-arinkeriz zinkideturik, Pantze'ren marrokeriz zin egin dau gu emen Southampton'en erailteko; eta orretarako zin egin dau zaldun onek be, gure eskuzabaltasunagaitik guganako Cambridge baño bape gitxiago bearturik egon ez-arren. Baña, Ui! zer esateko nik itzaz, Lord Scroop? Gordinkeritsu, eskar txarreko, basati, ta gizatasunaz besterako azan izaki ori! Ik, nire asmoen giltzea euki dokan orrek, nire biotza

ondo-ondoraño ezagun izan dokan orrek, ia TI ni urre txintxindu al nindukean orrek, ik eure onerako ta nire kalterako asma-asma-ka ibili-bearrarena! Izan ete edikean, erbes-tetarrak i orretarako yesanda, nire atzeri kezkarik emoteko lain okerrik be ik asmauterik? Ain iñondiko dok orrako ori-ta, baitza zuriaren aldean dan bestean agiria izan arren egia, nekez ikusi al yok nire begiak. Buztarrri bateko txerren bi aikarren asmoe-tarako zin eginik eta alkarri lotuta dagozanez, alkarregaz batera yoazak beti etoike-ria ta erailtea, eurenz ain zer agiriak izan-ik-eta, iñori be etxakozak arrigarri; baña ik, gutziz egi-antzez bestera, ik dei egin dautsak arritueari, ta etoikeri ta erailtearen otseintzat ekarri dok; eta dana dala usteaz bestera benderatu auen txerren zurrak, bikain-izena irabazi bear izan yok sulezan: eta etoikerirako zirika ta zirrika ibiltan di-ran beste txerrenak gaitzetsi-lana baldar baño etxoez egiten, adabakika ta koloreak erabilita, erruki didziztsuaren antzaren billa ibilirik; baña i girotu auen txerrenak zutun-du adila agindu dauk, eztausk ekarri izan aurrera etoikeri-eredurik, etoi-izenaz i zal-dunduteko izan ezik. I onan zorabiau auen txerrena mundu osoa zear ibi'iko ba'ltzok bere leoi-yasean, atzera yoan ledikek Tar-tar itzalera, ta ango gudari-taldea esan, "Eguño ezin irabazi izan dot gogorik bat be a ingelandarra bestean erraz eta txirike-lan"; Ui! ik bai kutsutu be kutsutu dok ik aginduriko zintzotasuna ikusi-ezinagaz! Zin-tzo dirala erakutsi bear dabela gizonak? Ba! erakutsi ik be egin dok: ben eta yakin-tsuena egin bear dabelci? Ba! orrako orren antzik eta irudirik ik be izan dok; sendi zindotiko izan bear dabela? Ba! sendi zin-dotiko augu i be: yaungoikozalereña egin bear dabela? Ba! olangorik egin dok ik be; naiz, yan-urri dirala; eztabela lera zakar andirik, pozik geiegirik, naiz asarrerik; bein arturiko erabagian tinko dirala, ez odola nora ara voten dabena; lotsortasunez eder-uriko apaingarriz eta txairotasunez be-teak; begiz bakarrik bagarik belarriz be egin daroenak, ondo ebatzita, ta ez batagan, ez besteagan ustetsuegi izateka? Okingoxe in-tzanarena egin izan dok ik: eta, onan, orba-netariko zerbait itxi yok ire yausteak, gizo-nik onen eta ondoen yantziak be susmorik arean izateko. Negar egzixgo yoat igaitiki; nire ustez, ba, gizonaren bigarren yauske-rea langoxe dok ire asaldatze au. Agiriak dira onein utsak: ezarri egiezuez eskuak, legeari erantzun dagioen: eta Yaungoikoak

azketsiko, parkatuko al dautsez euron asmo okerrak!

EXET.—Etoikeri nagusia dala-ia, eskuuk ezur-ten dauskadaz, Errikarta Cambridge'ko Kon-de izenari erantzuten dautsakan orri. Etoike-ri rragusia dala-ta, eskuak egozten dauka-daz iri, izenez Endika Masham'go Lord Scroop azan orri. Eskuak ezarten dauka-daz, azpikeri nagusia dala-ta, izenez To-ma Grey Northumberland'eko zaldun azan orri.

SCROOP.—Zuzenez erakutsi dauz Yaungoikoak gure asmoak; ela nire erictzeak feaño ta-mal andiago damost nire erruak, nire utsak; eña zure goikolasunak parkatuko ai dausi nire erru au, nire soñak bere ordaina ordain-du-arren.

CAMB.—Nigazko... Pantze'tiko urreak eztaust sartu buruan orrako ori: eragingarrizat artu izan-arren, nire asmoa !en bafío len burutu-teko: baña Yaungoikoari eskarrak, eragotzi dauelako; eta au egia idala erakusteko, poz-tu egingo naz nire lorretan, Yaungoikoari arren eginaz, Yaungoikoari ta zuri, parkatu nagizuela.

GREY.—Eguño bendeko zintzok eztauz izan poz andiagorik etoikerik kaltegarriena agertu izan dalako, asmo gaitzetsia aurrera eroa-tea galazo dausteiaiko ni orain poztuten na-zan baño: nire soña ez, baña nire okerra azketsi egidazu. nagusien orrek.

END. B.—Yaungoikoak azketsiko al zaeuz be-re errukiz! Entzun zuon epaia. Gure bakal-notinaren aurka alkartu zarie zuok, gure arerio agiriagaz bat egin dozeu, eta aren kutxetatik artu dozeu zuon eriotzeagazko urrezko baia; eta orregaz eraiketarako zuon bakalduna, otseintzarako aren bakal-semeak, eta "peer"ak, azpirako ta aintza-koezerako aren bendekoak, eta bakalderri osoa ondamentirako salduko zeunkien zuok. Geure buruagazko, ezkabiltz gu azaskatze-billa; baña gure bakalderriagazko ainbeste-ko ardurea euki bear dogu-ta, bere onda-mendiaren biila ibili zarien gure bakalde-riagazko-ta, bere legeen bendeand izten zaueguz. Alde egizue, *ba*, emendik, zuon eriotzarako, zori txarreko errukarriok; eta Yaungoikoak bere errukiz eperik emongo al dautsue lege ori zelango dan ikusteko, eta zuon okerreri guztiekazko benetako gar-baia! Eroan egizue emendik. (Alde alkar-kidetuck, yagonda). Pantze'r'a goazen orain, lordok; nitzako bestean zuntzako be go-ragarri ta aintzatsu izango dan egikizunera. Gudu au zuzen danazkero, eztozu ezipairik zori oneko be izango yakula; etoikeri kalte-

garri au Yaungoikoak ainbesteko bere eskarrez argitaratu dauenazkero; gure asierea galazoteko kukuka egon yakun etoikeri au argitaratu danazkero, eztozu orain ezpairik gure bideko laztasun guztiak leundurik gelditu dírala. Aurrera, ba, aberkide maiteok:

Yaungoikoaren eskuetan imini dagigun gure indarra, bertatik bere bidean iminirik. Itsasora biotz argiz; aurretik doazala guda-ikurrinak: Ingelanda'ko bakaldun be ezkara izango, Pantze'ko ez izatekotan. (Alde dagie).

III AGERLEKU.--LONDON. Arroztunoaren etxea, Eastcheap'en.

PISTOL, Arroztunoa, NYM, BARDOLBA, ta Mutikoa aurrera.

ARROZT.—Arren, senar ezti-ezti ori, Staines' eraño zuri lagun egiten itxi egidazu.

PIST.—Ez; samurtasunez beterik dago nire giza-biotza-ta. Poztuko al yak biotz ori, Bardolba; biztu egik ire odol arroa, Nym; i, mutiko, laztu egik ire adorea; il dok, ba, Fals-taff, eta orrako orrek samurtu bear gaiozak.

BARD.—Beragaz batera al nengo, dagon lekuan dagola, zeruan, naiz sulezan!

ARROZT.—Ez, sulezan eztago a, seguru be: Artur'en altzoan dago a, eguño gizonik yoan ba'da Artur'en altzora. Eriotza eder izan dau, eta ume ugutzau-barriak egingo leuken legetxe alde egin dau; egin eginean amabietatik ordubartetara bitartean alde egin dau, izkorea izperatuten asi dan une berean; eta izan be, izarak esku artean erabilten, lorakaz olgetan, bere erpuruai irribarreka ikusi dodanazkero, igarri dot arentzako biderik bat baño ez egoala; idazkortza bestean zorrotz egoan, ba, aren surra, eta zelai muskerrez eragoion totelka. "Kaxo, Sir Yon!", esan dautsat, "Ba! gizon! gogargitu zadiz". Eta ak onan gedar egin dau, "Yaungoikoa, Yaungoikoa, Yaungoikoa!", iru-lau bider. Nik, oster, a nasaituteko asmoz, Yaungoikorik eleukela gogoratu bear esan dautsat; izan dot, ba, itxarorik, oraindik etzala bere burua olango gogaiz kezkatu-bearrik. Olan, ba, oñetan estalgi geiagio imini dagiodazala eskatu daust; sartu dot eskua bere oera ta ukutu dauatsadaz oñak, eta edozein arri bestean otzik egon dira; gero, bere belaunetaraño eroan dot eskua, eta olan, geroago gorago, eta dana zan edozein arri bestean olzik.

NYM.—Ardao-eske egon dala diño.

ARROZT.—Bai. egon da.

BARD.—Baita emakume-eske be.

ARROZT.—Ez, emakumerik eztau eskatu.

MUT.—Bai, eskatu dau, eta emakumek aragiz yantziriko txerrenak dírala esan dau.

ARROZT.—Aragi-kolore gorriarik ezin yasan izan dau ak eguño; eguño etxako goko izan kolore ori.

MUT.—Emakumekaitik txerrenak eroango eballa esan eban bein ak.

ARROZT.—Izan be, emakumei zelanbait okeregina yatsu a; baño orduan ezoeriak yota egoan, eta Babel'go emagalduez eragoioan.

MUT.—Eztozu gomutetan ardia ikusi eballa ak bein Bardolba'ri surrean usigiten, eta sulezan dagozan gogo baltzetariko zala esan eballa?

BARD.—Tira ba, yoanik dok arako suari eusten eutsan errekena; au da aren otseintzan irabazi dodan aberastasun bakarra ta guttia.

NYM.—Lerrokataratuko ete gara? Southampton'dik alde eginik da onazkero bakalduna.

PIST.—Tira, goazen. Ene kutun, ekadazuz zure ezpanak. Yaramon nire pitxiai ta erredizai; zurtasuna bedi zure arau; "Yan eta ordaindu" bedi zure goiburu; iñogazko be ez izan uste onik, lasto baño ezтира, ba, gizonen zinak, taloak bafio meago gizonen aginduak, eta giltzea ezartea da txakurrik onena, ene aata ori; au dala-ta, "caveto" bedi zure onulari. Tira, tira, legortu learrezko zure tantanok. Iskilloetan nire buztarkide zarienok, goazen Pantze'ra; an, ene mutilok, uzanak lez, odola, bai, odola bera edoskitoko, odola bera edoskitoko, odola bera edoskitoko!

MUT.—Eta, or diñoenez, yaki zakar baño ezla orrako ori.

PIST.—Ukutu egizue no orren ago biguna, ta goazen.

BARD.—(Mun egfcKila) Agur, arroztuno.

NYM.—Nik ezin dautsut munik egin; gogaldi orretan nago; baño, agur.

PIST.—Etzandera izangarri zareala erakutsi: ondo itxirik euki dana, ori da aginduten dauksudana.

ARROZT.—Onik eta ondo ibili; agur. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.-PANTZE. Pantze'ko Bakaldunaren Yauregiko leku.

Zaamiolen otsa. Pantze'ko BAKALDUNA, la-gundurik; DELBINA, BURGUNDY'KO DUKEA, ta Gudalbururik Nagusia. ta beste batzuk aurrera.

P. BAK.—Onan dala, indar osoagaz datoz Ingelandarrak gure aurka; eta gure babes-tegietan ai arduratsu baño arduratsua go erantzutea dagokigu guri, bakaldunari dagokonez. Olan, ba, Berri fa Brefagne'ko Dukeok, Brabant eta Orleans'ekook, zuok ur-tengo zarie aurrendari, eta i, Delbin bakal-seme ori, lagun izango akie, gure gudu-urriak gizon adoretsez ornidu, ta euren bu-rua yagoteko eskuarte barriak ai eroanaz, urak iruntsi doroazan itsas-kolkora ura yoa-ten dan baño be arinago datoz, ba, Inge-landarrak gure aurka. Olan dala, egoki ya-ku bildurrak irakatsi legiskun bestean au-rrazdik ikusi ta bideak artzea, igaroko aiái zori txarrekoetan eurai yaramonik ez egin-dako Ingeiandarrak gure lurretan itxiriko ikaskizunak irakatsi dauskuenez.

DELB.—Ene aita bildurgarri bildurgarri ori, egoki be egoki yaku gure arerioaren aurka iskillioak artzea; izan be, ba, gudurik, eze-tariko asarrexik izan ez-arren be ebazteko, yagon-bideak, gudariak batzeak, gertakun-tzak lendik eginak euki, indar barriak ba-tu ta gudualdian legetxe osoturik ez euki-terano eleuke zabartu bear bakeak bakal-derririk, gudua atetan eta ganean ba'litz legetxe, zerok egin baño. Au onan dala, ba, egoki dala diñot guk emendik aide egilea, Pantze'n zeintzuk alderdi diran makal eta mengel ikusi dagigin: eta bildurrik eraku-tsi бага dagigin orrako ori; ez bildur geia-gorik. Ingelandarrak Mendekosteetako "mor-ris" yantzan daragoioela entzunik geunka-ken baño: ba, ene nagusi on, Ingelanda'ko bakalduna ain alper da, bere agintza-maki-lea ain barregarriro daroa gazte arro, txo-riburu, aldakor, azal eta gogaldi!suak-eta, eztago zetan izan aren bildurrik.

GUDAL. N.—Ui! ixilik zagoz, Bakalseme Del-bin ori! Oker be okerra da bakaldun one-gazko zure eretxia: itandu begioe Zure Es-karrak oraintsu andik izan diran ordezka-riai, eta aik esango dautsue zelango ben-tasun andiz ak entzun ebazan, zelan egoan onulari zindoz ornidurik, zenbaterano lotsor

eta urri itzetan, eta guztien ganetik, zen-baterano bildurgarri bere erabagi tinkoetan, eta ortik aterako dozu beñolako aren us-keri ta nasaikeriak Erromar Buria'ren azala baño etzirala izan, aren estalgi baño ez, berezpena zorakeri-estalgiz estalduteko, len-nen erne ta samurren izango diran zusta-rrak baratzaiak satsez estali daroazenez.

DELB.—Ba! eztozu olangorik, ene yaun Gu-dalburu Nagusi; baño olangorik ba'ledi be, eleuskigu ardura iutik be: norbere burua ya-gon bear danean, gure arerioa dirudin ba-ño indartsuagotzat estea da onena: olan, be-ti eikiz beteten dira gertakuntzak; oial apur bat aurreeratze-arren kapea laburregi egin-go leuken zikotzaren egitearen antzeko lit-zake aurreak artzen urri ta ardurabako izatea.

P. BAK.—Endika bakalduna sendo dalakotan gagoz gu; eta, bakalsemeok, zeuok iskillioz ondo orniduteko ardurea artu egizue, ari erantzuteko. Guretik yanda azi dira aren gurasoak; eta gure sendi-bideetan guri eraso-ten ibili izan dan enda gorain odolzaletiko da a; gure gomuta lotsagarriegirako auro-la ta lekuko da Cressy'ko gudaketea, alan-bearrez galdua, an izen baltzeko Kimuruerri'ko Bakalseme Edorta Baltza'k bere eskuz gure bakalseme guztiak atxilo goatu eba-zana; eta bitartean bere aita menditarrak, mendi-ganean zuinunik, eguratsetan tinko, eguzkiak urrezko burestunez burestundu-rik, bere seme azarriari so egiten, irribarre-ka eragoion. bere semea yaiotzatikoaren lana lorrinduten ikusirik, e!a Yaungoikoak eta euren guraso Pantzetarrak ogei urte lenago egingako ereduá deuseztuten bere semea ikusirik. Aldor garaila atatikoxe landara harria yatsu au; eta bildur izan dagiogun yaiotzatiko bere alari ta alanbearrari.

Geznari bat aurrera.

GEZN.—Zure nagusiagotzeak zure aurrera ar-tu-eske dagoz emen Ingelanda'ko Endika Bakaldunaren ordezkarriak.

P. BAK.—Bertatik artuko doguz gure aurre-ra. Zoaze, ta ekarri egizuez. (Alde geznariek eta Andifici balzuk). Ba-dakusazue, adiski-deok, orpoz orpo darraioela eiza oni.

DELB.—Atzera begira yarri ta geldituazo egiezu erasoka datortsuzanai; txakur bildurtiak, ba, eurak zemaituen dabela uste dabenak askozaz aurrerago alde egin dagiane an egin daroe ausirik geien. Ene nagusien on ori, luzaro ez eragon Ingelandarrakaz; eta dakusela zelango bakalderriren buru zanean; nobere burua maite izatea ezta, ene nagusi, nobere buruari yaramonik ez egitea besteko oben zakarrik.

Aurrera barriro Andikiak, EXETER eta Yarraigoakaz batera.

P. BAK.—Ingelanda'ko gure anaieagandiko zari, ezta?

EXET.—Agandikoxe; eta au da ak bidalten dautsun agurra. Zera da ak gura dauena. Yaungoikoa-arren, zuk erantzi ta baztarrean itxi dagizuzala zuk yesandako aintzak Yaungoiko Aloroáuna-arren, bai Yaungoikoaren eskarrez, hai yaiotzatikoaren legez, eta bai errien arteko legez be aren beren eta bere ondorengoan diranak; banan banan aitatuteko, buresluna, ta ekanduz eta aldietako oituraz Pantze'ko burestunari darraikiozan eta dagokozan omen luze-zabal guztiak, eta yakin dagizun zerotatik bat be ezjala gogo txarrez eta zakarkeriz egindako eskaririk, beñolako aldietako papel sitsak yandakoetatik aterarik, ezta autsez estaliriko papel aztustatik aterarik be, lerro gogoangarri gogoangarriok bidalten dautsuz (Papel bat damotso),, eta or ikusiko dozu argi ta garbi onan dala; senái-zugatz orri begirada bat egin dagiozula gura dau ak: eta zuk idoro dagizunean a fcera artez artez datorrela bere asaba entzutesuen artean entzutesuena dan III Edorta'gandik, zure leia-kide yator eta benetako dan ari itxi dagiozuzala zure burestuna ta bakalderria eskatuten dautsu, zugana zearretara baño ez-tatorzanok eta zuk euki daukazuzanok.

P. BAK.—Ostantxean zer yazotsko?

EXET.—Beartute odoltsua, ostantxean; ba, burestuna ostundu ba'dagizu, zeure biotxean ba'dadi be, antxe bs azterka ibiliko da a aren billa; au dala-ta, ekatz itzaletan dator, ostots eta lurr-ikaratan, Yupitsr ba'litz legetxe..., eskariak uts egin ba'dagio, indarrera yoteko; eta Yaungoikoaren erraiak-arren aginduten dautsu, burestuna emon dagiozula; eta erruki izan dagiezula eurak irusteko gudu gosetiak bere matrallazurtzarrak zabal zabalik dauzan gogo errukarriai; eta zure buru-ganera egozten dau ak eztabaida onetan senarrakaitik, gurasoakaitik, se-

nargeiakaitik iruntsiko diran andera alargunen negar, unezurtzen gedar, gizon ilen odol, emaztegei naibagetuen intziri ta urrumen errua. Au yatsu aren eskabidea, aren zemaia, ta nire geznea; Delbina bera emen aurrean ez egotekotan, arentzako be beren beregiko agurrik ba-dakat-eta.

P BAK.—Gugazko, guk luzaroago erabili ta aztertu gura dogu geure buruan orrako ori; biar eroango dautsazue gure erabagi osoa Ingelanda'ko gure anaieari.

DELB.—Delbinagazko, emen nago ni atakotzat; zer dakazue arentzako Ingelanda'tik?

EXET.—Aintzakotzat-eza ta eupadea; bsgirapenik eza. zapuzketea, ta bidaltzalla altsuri txarto ez-torkion edozer da zu atakotzat esten zauzana. Amen nire bakaldunak diñona; Aren eskariak oso osorik beteaz, zure aitaren goikotasunak arindu ta gozatu azpa' dagi zuk aren nagusiagotzeari egin dautsazun irri mingotsa, zure irri orrek erantzun ain beroa izango dauela-ta, Pantze'ko arro-une ta sapai arroak asarre ta akar egingo dautsuela, ta zure irriaren erantzuntzat aren su-odien otsa barriro emongo dabela.

DELB.—Esaiozu ari, aren gogoko erantzunik emon ba'dagio nire aitak, nire gogoaz bestera izango dala; burrukeaz besterik ez-tot gura, ba, nik Ingelanda'gaz: orregaitik, ba, ta orretarako bidali izan dautsadaz arako Paris'ko pelotak, aren gaztetasunari ta gangarkeriari egoki yakozala-ta.

EXET.—Eta orrexegaitik, ikaratu egingo dau ak Paris'ko zuon Louvre, Europa altsuko yauregien nagusi ba'litz be: eta. ez izan ezpairik, guk aren bendekook arriturik idoro izan dogunez, zuk zeuk be idoroko dozu alderik aren egun gordinagoak aginduten ebenetik orain danera fcitar-tean: unerik txikieneraño artzen >du ak orain aldia aintzakotzat: zeuon galtzeetan ikusiko dozue orrako ori, a emen Pantze'n gelditu ba'dadi.

P. BAK.—Biar yakingo dozue zeatz gure goga.

EXET.—Len baño len bidali gagizuz, gu emen zelan gagozan itaunka gure bakalduna bera etorri ez-tadin, orainganik dago, ba, a lur onetan oña ezaririk.

P. BAK.—Laster bidaliko zaudedaz baldintza onakaz: arnasa labor eta etxonalditxo bat baño ezta gau bat onenbesteko zer-ikusidun arazoai erantzuteko. (Alde dagie).

Abeslari-taldearena dagiana aurrera.

ABEST.—Onan, irudituzko egoz arin dagi gure agerlekuak, gogaik baño ez bape as-

tiroago. Egizue Hampton'go ontzira-bidean ontziratuten ikusi dozuela ondo aututako bakalduna, bere bakalduntzea ontziratuten; eta bere ontzidi kementsua, Poiba gazteak sedazko argi-dizdiz eskutoiaz putz egiten dautsala; zuon irudimenak begi areina; ikusi an ontzi-mutilak kalamuzko ontzi-lokarrak gora igoten; entzun ontzi-buruen txistu zolia, zarata nastuen artean aginduak emoten; ikusi ontzi-oial eunduak, axe ikusezinak puzka aurrera daroazala, aurrean aurrera daroazala ontzi sakonak itsaso ildotua zear, itsasotzarrari bularra emonik: Ui! bakarrik iruditu egizue itsasegian zagozela ta urien bat dakusazuela ugin geldigorren ganean, uri dirudi, ba, antzidi yaukal onek, Harfleur'erako bideari deusala. Yarra, yarra! Ontzidi onen atzealdeari deusola begoz zuon gogoak; eta itxi zuon Ingelanda, gaberdia bestean geldi ta ilik, yagolatza aitaitak, umeak, eta atsoak, edo indarra ta kemena galduak, edo oraindik orre-

tara eltzeko diranez besterik eztauen; euren okotzean bizar-landararik txikiarik dabenetatik nor geidutuko da, bu, zaldun autuokaz batera Pantze'ra yoango eztanik? Eragin, eragin zuon gogaketai. eta uri-esitza ikusi eurekaz eurretan; ikusi su-odiak euren busdietan, euren ago idigietatik Harfleur arresidunaren ganera eriotzea egotzen. Iru:itu egizue, zuon ordezkaria fca-datorrela atzera Pantzetarrakandik; bere alaba Katarine opatuten dausala emaztetzat dirautsala Pantze'ko bakaldunak Endika'ri; eta Katarine'gaz batera, ezkontsarizat. dukego txiki ezetarako gauz ezrtan batzuk. Etxako gogoko oparia gureari; eta orain su-odilari bizkorrak kirrua ezarten dausala su-odilezatarrari (Guda-otsafc eta sudci-otsaik barruan), eta oro dator bsra, lurrera, euren aurrean. Txerakcr izan zakiguz oraindik, eta zuon gogoz bete egizue gure ekineko utsuneak. (Alde dagi).

III EKITALDI

I AGERLEKU.-PANTZE. Hartleur'en aurreko aldea.

Gudu-otsak. ENDIKA BAKALDUNA, EXETER, BEDFORD, GLOSTER, eta Gudariak aurrera, igoteko zurubi ta guzti.

END. B.—Arratera beste bein, adiskide maitteok, arratera beste bein; edo gure Inge-landarren gorpuz itxi arresía! Ixiltasuna ta apaltasuna bestean ondo ezer be eztagoko gizonari bake-aldian; baña katamotzaren antzeko izan zuon egiteetan gudu-otsak gure belarrietan putz egin dagianean; zaldu zuon zamilak, batu odolak. laztu ta itsustu berez eder dan arpegia, asarrearen marroa yantzita; ikusgarri itzal bedi zuon begia; borontzeko suodi-antzeko agertu dadila buruko betzulotik; betozkoa zorrotzu dadila bere ganean, bere oñarria urpean dauen atxak bere goi-aldea itsas-ganean itzalez aurrerratu ta zorrotzu daroanez. Estutu orain aginak eta zabal idigi surzuloak; gogor eutsin arnaseari, ta egin-alean batu ta eragi adore guztiak! Aurrera, aurrera, Ingelandar zindo yatorrok, gu^ara egindako gurasoen odola dozuonok! alderdiotan, beste ainbeste Alesander'ek legetxe, goxetik gaberaño burruka eginik, zeri ekin ezaren ezaz euren ezpatak lekaratu egin bear izan ebe-

zan gurasoen semeok: ez or-andu, ez balztitu zuon amarik; orain autortu aitatatzat dozuezanak sortuak zariela! Eredu Izan zakioez orain odol zakarragodun gizonai, eta gudu egiten irakatsi egiezue orain! Eta zuok, aitonseme onok, Ingelanda'n egindako soin-atalak dozuezanok, emen erakutsi egiguzue zuon yakiak emon dautsuen adorea; zuon endea añako zariela zin egiten itxi egiskuzue: eta nik eztot orrako orren ezpairik, eztago. ba, zuon artean bat bera be ain zakar eta zirtzilik, bere begietan argi zindorik eztauenik. Lokarrian dagozan eiza-txakurrak legetxe zagozela dakust, urteteko indarka. Yagi da eizea; zarraikioez zuon adoreari; eta eraso au asi-ala, gedar egizue: Yaungoikoa, lagun zakioz Endika'ri! Gora Inge'anda! eta gora Gorka Deuna! (Alde dagie. Guda-otsak eta suodi-otsak, barruan).

NYM, BARDOLBA, PISTOL, eta Mutikoa aurrera.

BARD.—Aurrera, aurrera. aurrera, aurrera, aurrera! arresi-arratera, arresi-atakara!

NYM.—Geldi, arren, amarburu; beroegi dira zartadak; eta, nigazko, nik eztoz kutxabete bizitzarik; beroegi da ekitaldi au, argi ta garbi itz egiteko,

PIST.—Ondo dago argi ta garbi esatea, ori beti dago, ba, ondo:

Zariadak emon, zartadak artu;
Yainko-bendekoak ilik lurreratu.
Eta ezpateak eta ikurdiak,
Arlo odoltsu ikaragarrian,
Ospe il-ezina irabazi.

MUT.—London'go garardotegien baten al nengo! Nire entzute guztia emongo neunke txolet bete garardo ta segurutasunagaitik.

PIST.—Bai neuk bs:

Beteko ba'litxataz gurariak,
Eleuskit asmoak porrotik egingo,
Ara bizkor bizkor yoan baño.

MUT,—

Txoriak adarrean abestuten dauen bestean pozik,
Baña ez ezetara be ak bestean zindoririk.

FLUELLEN aurrera.

FLUEL.—Arresi-atakara, zuok txakurrok! aurrera, txakurtxook! (Aurrean daroaz).

PIST.—Erruki zakiez, duke *aaii*, buztinezko gizonai! Ibitu egizu zure asarrea, zure gizaasarrea! Ibitu egizu zure asarrea, duke andi! Ibitu egizu zure asarea, ollar eder orrek! Bigun izan zadiz, biotzeko ori!

NYM.—Gogaldi onetaratu zadiz, gizon! Gbaldi txarragaz zatorkuz zu. (Alde NYM, PISTOL, eta BARDOLBA'k, FLUELLEN atzeiki ara dcakela).

MUT.—Gazte izan-arren, oartu natxake iru gangarroi. Iruron esku-mutil naz ni: baño irurok nire otsein izan gura ba'lebe be, iruron artean be eleuskide egingo gizon bat be; izan be, ba, olango iru zakarrek eztabe egiten gizon batenik be. Izan be, ba, gibeltzuri ta mosu-gorri da Bardolba; eta orregaitik, mosu ikaragarririk bai ba-dau, baño burrukarik eztau egiten. Pistol'egazko, miñ zorrotzik bai ba-dau, baño ezpata amutsa; eta, au dala-ta, itzak austen dauz, baño ez ezpafarik. Nym'egako..., gizon itzurriak dirala onenak entun izan dau-ta, arrenik egitea eziau aintzalcoztet, kikiltzat artu eztagien: baño bere itz txar gitxiren alderako ta eurañak bardinduteko, beste ainbeste egite on egiten dauz; ak eztau ausi izan, ba, bereaz besteren bururik, eta orrako ori mozkorturik etjoanean abe zutun bat yota egin eban.

Edozer ostuko dautsue orreik, eta erosi egin dabela esan. Txilibitu-ontzia ostu eban bein Bardolba'k, amabi millako bidean eroan eban, eta iru peni-erditan saldu eban. Anai baño anaia go dira Nym eta Bardolba lapurretan, eta sutegi-parea ostu eben bein Calais'en, eta ortik igarri neban ikatza baño baltzago geldituko zirala. Iñoren sakelakaz euretako eskuzorro naiz surzapiak bestean ni etxetiar izatea gura leukie aik; eta zerak iñoren sakeletik artu ta nirera ekarte, nire gizontasunaz besterako baño besterakoago da, alangorik egitea nire sakela okerrieriz betetea litzake-ta. Itxi egin bear dodaz, eta otsintza oberen billa asi: okada eragiten dautso orre in zitalkeriak nire urdalla makalari-ta, egotzi egin bear dot. (Alde dagi).

FLUELLEN aurrera oster a be, GOWER atzetik darraikola.

GOWER.—Fluellen gualburu, bertatik etorri bear dozu azpi-zuloetara, azpi-zulook, ba, eztagoz gudako egipidearen arauz eginda; zugaz itz egin gura dau Gloster'ko Dukeak.

FLUEL.—Azpizuloetara! Esaiok dukeari ezta-la orren zer onik azpizuloetara yoatea; ba, aiko, azpizuloak eztagozak gudako arauen arauz eginda; eztozak sakonik asko; ba, aiko, arerioa bera (eta orrako ori dukeagaz yorraitu ta az-zindiu zeinke/aiko) gure aspizuloak baño lau kana beragotik dabil azpizulogintzan. Yosu-arren, burubide oberik ez erabiltekotan guk, ak gu guztiok odeixetaraño jautituko gauzala uste xuat.

GOWER.—Uria esitutea bere ardurapean itxi yakon Gloster'ko Dukeak dagoneko daragoio Eire'tar baten zuzentzapean..., aitonseme adoretzu be adoretzu *da* Eire'tar gizon ori, egia esateko.

FLUEL.—Macmorris gualburua dok orrako ori, eztoz?

GOWER.—A dala uste dot

FLUEL.—Yosu-arren, asto utsa dok *a*, munduan danik eta andiena: bere arpegira esango xautzat beste onenbeste: txakurkumeak baño geiagorik etxakik ak guduko benetako egipideetan, aiko, Erromaren egipideetan esan gura xuat.

GOWER.—Emen yatok bera; eta beragaz batera yatok Eskolandar gualburua be, Jamy gualburua.

FLUEL.—Aitonseme itzalez adoretzu dok Jamy gualburua, seguru be seguru, ta zerak arin egitekoa ta beñolako guduetan ezaguer a andikoa, bere geitasunez nik yakin da-

kidanez: Yosu-arren, munduan dan beste edozein gudarik aña eutsingo xao ak bere eretxiari, Erromarren beñolako guduez berak dauen eretxiari.

MACMORRIS eta JAMY aurrera, alkarrsgandik zerbait aldendurik.

JAMY.—Egun on. Fluellen gudaiburu.

FLUEL.—Egun on zure yauntasunari, Jamy gudaiburu on.

GOWER.—Kaxo, Macmorris gudaiburu! Azpizuloetatik alde egin dok, ala? Bertanbera itxi yoek euren egikizuna zuloginak, ala?

MACM.—Kisto-arren, aiko, txarto eginda yagok lana: bertanbera itxi yoek lana, atzeraketea yo yok tutuak. Nire eskua-arren, zin dagit, eta bai nire aitaren gogoa-arren be, txarto eginda dagola lana; bertanbera itxi yoek; ordubetean egotziko neunkean nik uria odeietara, Kisto'k yareiko al nau, aiko: Ui! zakar eginda yagok, txarto eginda yagok; nire eskua-arren, txarto eginda yagok.

FLUEL.—Arren, Macmorris gudaiburu, ederretsiko al dostak, aiko, adiskidetasunez igaz guduak yakintzeaz, Erromar guduak yakintzeaz eztabaida batzuk izatea; batetik, neure nasaitasunagaitik, eta bestetik, aiko, neure gogoa azaskatuteko, gudu-yakintzea zelan erabili bear danegazko; ori dok nire arloa.

JAMY.—Ondo letorke ori, bai orixe, gudaiburu on biok: eta nik be su egingo dauksat nire opilari, orretarako abagunerik agertutekotan; egingo dot olangorik, Miren Anderea-arren.

MACM.—Eztago astirik itzaldietarako, Kisto'k yareiko al nau: bero da eguna, bero dira eguraldia, ta guduak, eta bakalduna, ta dukeak be: eztago astirik itzaldietarako. Esibarruraturik dago uria, eta esi-atakarako deiez dogu tutua; eta, bitartean, guk itz eta

pitz daragoiogu; Kisto-arren, eztoгу ezer egingo: lotsagarri da au gu guztiontzat: Yaungoikoak yareiko al nau, lotsagarri da geidi egotea: lotsagarri *áa*, nire eskua-arren: eta ba-dago eztauririk moztuteko, bai lanik, egingo; eta ezbebe ezta egin, Kisto'k yareiko al nau, aiko,

JAMY.—Osteintza onik egingo dot nire begiok loak artu orduko, edo lurrean luze etzanik ikusiko nozue; bai, edo il; eta al danik eta adoretuen oriainduko dot erioztzea; orixe egingo dot nik seguru be seguru, eta aor argi ta garbi esanda. Andera Miren-arren, pozik be pozik nentzuke zuon bion arteko eztabaidea.

FLUEL.—Macmorris gudaiburu, aiko, zuk besterik uste ezean, ezto uste emen zure aberriar askorik dagonik.

MACM.—Nire aberriarrik! Zein da, ba, nire aberria? Zein da nire aberria? Zital, sasikume, zirtzil eta zatar da nire aberriaz daragoiona.

FLUEL.—Aiko, diranaz bestera artu ba'dagizak zerak, Macmorris gudaiburu, ba-ledikek nik uste izatea i ez atxatala izan, izan bear intxakidan aña txerakor eta begirapentsu, aiko; i bestean gizon yak-arren ni zer biotan. bai guduak yakintzan. eta bai nire yaioztaz, baita beste zetetan be.

MACM.—Ni bestean adoretu azanik etxoat uste nik: Kisto'k yareiko al nau, burua moztuko dauksat.

GOWER.—Biok izanik aitonseme, oker aituko dozue zuok alkar.

JAMY.—Ui! oker andia da ori! (Alkarregaz itz egiteko deia entzuten dct).

GOWER.—Alkarregaz itz egiteko dei egin dau uriak.

FLUEL.—Macmorris gudaiburu, abagune oberrik agertu dadinean, aiko, gudu-yakintzarik badodala iri esateko bestean azarri izango nok; eta bego. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Lengoxea. Harifleur'ko Ateen aurrea.

Yaurlea ta Uritar batzuk arresi-ganean aurrera, Ingelandar Indarrak bean. ENDIKA BAKALDUNA, ta bere Yarraigoa be aurrera.

END. B.—Zer ebazten dau une onetan uriko Yaurleak? Au da guk yaramonik egingo dauksagun alkarregaz itz egitea: au dala-ta, gure errukirik onenaren benderatu egizuez zuon buruak, edo gurerik txarrenerako eupada egiskuzue, gure triskantzeagaz arrotu-

rik gagozan gizonoi: ba, gudari nazan bestean seguru (eta gudari-izenci da nitzako egokiena, nire ustez), bein barrio lanean asi ba'dadiz gurs suodiak, ezto geldi itxiko erdi-goaturik dagon Harifleur, bere autsetan ilobiraturik itxi arte. Itxirik geldituko dira errukiaren ate guztiak, eta atara zirikatutiko gudaria (zakar eta biotz-gogorra) o ibiliko da bere esku odoltia yarei dauela, sulezea bera baño nasaiago ta zabalago dan

bere yakinkidetzegaz; bedarra lez ebaten zuon neskato gordin lirainak, eta ume loratubarrak. Olan izatekotan, zer daust niri, txerrenburua lez garretan baturik, errukibako guduak, kedarrez baltziturik, ondarnendi ta triskantzak egin ba'dagiz? Zuok zeuok ba' zarie errudun, zer ardura daust niri, zuon neskato garbiak aragikeri goriarren esku gogorretara yausi ba'dadiz? Nok eusteko nasaikeri geztoari, arin egin-alean mendia fceara doanean? Ainbaten e!a ain alperrik litzake ondakineta aseturiko gudariri agindu, ta Lebiatan' eri itsasegira datorrela agindu. Au dala-ta, Harfleur'ko gizonok, erruki izan zakiez zuon uriari ta zuon uritarrai, nire gudariak oraindik nire agintzapean dagozan bitartean; oraindik erailketta gordin, lapurreta, ta zitakerizko odei loi eta intsigikorren ganetik eskar-axe ozkirri bigunak putz egiten dauen bitartean. Ori egin ezpa'dagizus, ba! bertatik dakuskezue gudari itsu odoltia bere esku zikin zantarragaz zuon alaba gedar-zolien adatsak loituten; berlatik dakuskezuez zuon aita euren bizar zurietatik goaturik, eta euren buru begiragarri bçiragarriak arresietara yaurtinik eta opildurik; zuon umeak billutsik, aztamakila-burruntzietan sarturik, beñola Yudarren emazteak Eroda'ren gizerai-

la gordinen aurrean ikusi ebezenez, ama burutik eginak euren gedar eta negar nastuz odeiak be urratuko dabezan bitartean. Zer diñozue? Men egin eta orrako orretatik alde egingo ete dozue? Ala, burubiderik barga zuon buruak yagoten ibilita, onan ondatuko ete zarie?

Y AUR.—Gaur amaitu da gure ilxaroa; onenbesteko uri-esitzerik austeko lain indarrik eztauela bein beinean erantzun dausku laguntzea eskatu dauisagun Delbinak. Au dalata, bakaldun andi, zure erruki samurraren bendea iminten doguz bai gure uria, bai gure biziak. Sartu barrura gure ateak zear; zeuk zer-gura egín bai gu geugaz, bai gure diranakaz, ezin dogu, ba, yagon gure fcururik oraindik ara.

END. B.—Idigi ta zabal'du zuon ateak. Tira, osaba Exeter, zoaz eta sartu zadiz Harfleur' era; or gelditu, eta sendo sendotu uri ori Pantzetarren aurka: errukior izan zakiez guztiai. Gugazko, osaba maite, negua datorku, ba, ganera, ta geroago gexoago dira gure gudariak-eta, Calais'era alde egingo dogu guk. Zure arrotz izango gatxatsuz arrats onetan Harfleur'en; biar yarriko gara bidean. (Txera-ots. Urira sortzen dira Baialduna ta ctbar).

III AGERLEKU.-HOUEN. Yauregiko leku bat.

KATARINE ta ALITZE aurrera.

KAT.—Alitze, Ingelanda'n egona zara zu ta ondo dakizu ango izkuntzea.

ALITZ.—Areal, arean, anderaño.

KAT.—Irakatsi egidazu, arren; ikasi egin bear dot itz egiten. Zelan deretxazu eskuari Ingelanderaz?

ALITZ.—Eskuari? De hcmd deretxo eskuari.

KAT.—De hand. Eta atzai?

ALITZ.—Atzai? Ene bada, aztu egin yat atzen izena: gogoratuko yat. Atzai? De fingres deretxela uste dot; bai, de fingres.

KAT.—Eskua, de hand; atzak, de fingres. Ikastun ona nazala uste dot; arin ilcasi dodaz Ingelanderazko itz bi. Ze izen dabe atzazalak?

ALITZ.—Atzazalak, ala? De noils deituten doguz atzazalak.

KAT.—De nails. Entzun; esaidazu, ondo itz egiten dodanentz: de hand, de fmgres, eta de ncrils.

ALITZ.—Ondo esan dozu, anderaño; Ingelanderaz yator yatsu ori.

KAT.—Esaidazu zer yakon izena Ingelanderaz besoari.

ALITZ.—De arm yako, anderaño.

KAT.—Eta ukondoari?

ALITZ.—De elbow.

KAT.—De elbow. Barriro esango dodaz orain arte irakatsi daustazuzan itz guztiak.

ALITZ.—Nekez be nekez esango dozuzala uste dot, anderaño.

KAT.—Azketsi, parkatu nagizu, Alitze; entzun: de haínd, de fingres, de ncóls, de arm eta de bilbow.

ALITZ.—De elbow, anderaño, ez de bilbow.

KAT.—Ene Yaungoiko Yauna, aztu egin yat! de elbcw. Ze izen emoten daustazue i'iunari?

ALITZ.—De neck, anderaño.

KAT.—De mck. Eta okotzari?

ALITZ.—De chin.

KAT.—De sin. De niak, iduna; de sin, okotza.

ALITZ.—Baí. Parkatuko al daust zure omenak; benetan, Ingeianda'n bertan yaiioak bestean yator ebaten dozuz zuk izak.

KAT.—Eztot ezpairik, ez zalantzarik, Yaungoiko lagun, laster ikasiko dodala Ingelanderaz.

ALITZ.—Etxatsu aztu onazkero nik irakatsi dauisudana, ala?

KAT.—Ez, laster esango dautsut barriro: de hcmd, de fingres, de oiails...

ALITZ.—[^]e nails, anderaño, ez de mails.

KAT.—De nails, de arm, de ilbow.

ALITZ.—Parkatuko al daust zure omenak, de el'bow, ez de ilbow.

KAT.—Olan esan be esan dot: de elbow, de nick, eta de sin. Zelan deituten dozuez oña ta ganeko yantzi luzea?

ALITZ.—De foot, anderaño; eta de coun.

KAT.—[^]e foot eta de coun! Ene Yaungoiko Yauna! ots txarreko, usiei, zaka, eia lizurt dira itzok, eta ez lotsadun anierak bere agoan erabiitekoak: mundu osoagaitik be eztodaz ebagiko itzok Pantze'ko yaunen aurrean. Ez de foot eta de coun beintzat. Beste bein esango dot nire ikaskizuna, «ana batera: de haind, de fingres, de nails, de arm, de elbow, de nik, de sin, de foot, de coun.

ALITZ.—Ederto baño edertoago, anderaño! Bapo!

KAT.—Asko da bein baterako; bazkaiten goazen. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.-Lengoxea. Beste leku bat lengoxean.

PANTZE'ko BAKALDUNA, DELBINA, BOURBON'go DUKEA, Pantze'ko GUDALBURU NA-GUSIA, ta beste batzuk aurrera.

P. BAK.—Egia da igaro dauela ak Somme ibaia batetik bestera.

GUDAL.—Eta agaz burrukarik ez egitekotan, ene yaun, ezkadizan bizi Pantze'n; bertanbera itxi dagigun oro, eta erri zakarrari emon gure maastiak.

DELB.—Ene Yaungoiko bizi ori! Gugandik sorturiko landara gitxi batzuk, gure gurasoen lizunkeriaren ondakin batzuk, basa-aldor zakarrearne ezarririko mentu batzuk odeietaraño orren arin azi ta goitik bera begiratu bear ete dabez euren mentatzalleak eurak?

BOURB.—Normandarrak, baño Normandar sasikumeak, Normandar sasikumeak! Ilgo al da nire bizia! eurekaz burrukarik egiteka aurrera egin ba'dagie, saldu egingo dot nire dukegoa ta lurr-arlo ezoren bat eta baserri zikinen bat erosiko dodaz Albion izaro baztatu atan.

GUDAL.—Guiaketa-Yaungoiko ori! Nondik datorke ai adore au? Ezta, ba, arein eguraldigi-ro lañotsu, gordin, eta ilun, aren igaliak betozkoz galtzen dauzana, eguzki motelak nozpeinka bakarrik begratuten dauena, gogo txarrez lez? Arein ur garrastuak, zaldizar unatuen barru-garbitzalla baño ez-tanak, arein garagar-saldeak orrenbesteko adore beroa emoteraño egosi ete daike arein odol otza? Eta leiturik dagonarena egingo ete dau gure odol biziak, ardaoz bizuak? Ui! Gure aberriaren ederragaitik, ezkadizan geldi egon, gure tellatuetatik dingilizka dagozan leikerraldoak lez, erri otzagok gure lur marduletan gazte adoretsuren

izerdi-tantanak ixuri daroazan bitartean; lurrak eurak ez baño, euren yabe yatorrak bai ba-dirala txiro ta lander esan daikegu!

DELB.—Sinistea-arren, eta omena-arren, irri dagiskvo gure anderak, eta argi ta garbi dirauskue agortu dala gure adorea, eta Ingelandar gazteen likiskeriari emongo ei dautsez euren soñak, gudari sasikumez beteteko barriro Pantze.

BOURB.—Ingelanda'ko yantza-irakastegietara bidalten gaez, "ikutika-lavoltak" eta "caranto" bizkorak an irakatsi dagiskuezan; orpoetan bakarrik ei dogu, ba, gatzik, eta igeslaririk bikainenak ei gara gu.

P. BAK.—Nondik ~~de~~ Montjoy aldarrikaria? Arin be arin doala emendik; gure eupada zorrotzagaz agur egin dagiola Ingelanda'ri.-Gora, bakalsemeok! eta arin egin gudategirako bidea, zuon adorea zuon ezpatak baño zorrotzago dozuela: Karla De-labret, Pantze'ko Gudalburu Nagusi ori; zuok, Orleans, Bourbon, eta Berri, Alençon, Brabant, Bar, eta Burgundy'ko Dukeok; Yagoba Chatillon, Rambures, Veaudemont Grandpree, Roussi ta Fauconberg, Foix Lastrale, Bouciqualt, eta Charolois; duke andi, bakalseme altsu, barcn, undiki ta zaldunok, zuon yarleku omengarriak-arren, uxatu egizuez gaur zuokandik lotsari andiak. Geldituazo egiozue Ingelanda'ko Endika'ri, Harfleur'en odolez gorrituriko ikurrinekaz gure lurra zear, dana gorri itxirik, aurrera datorrenari; arrapaladan yausi zadize aren çudarostearne ganera, edur urtua mendietatik ibarretara yausten danez, Alpetz mendiak euren ezotasuna beko sakosta bende-koetara txuka ustuten dabenez; ganera yausi zakieze..., indarririk asko dozue orretara-

ko, eta berari osturiko burdian ekarri egizue Rouen'era, gure atxilotzat.

GUDALB.—Ori da andiai dagokien izkuntzea. Tamalgarri yat aren gudariak ain gitxi izatea, aren gudariak gexorik, eta euren ibiliaren ibiliz goserik aurkitudea; seguru nago, ba, ni, ak gure gudarostea ikusi dagianean, bildurraren bildurrez ur loi bide-raño yausiko yakola ari biotza, eta, besterik бага guk irabazizat, bere buruaren eros-saria opatuko dauskula.

P. BAK.—Olan dala, Gudalburu Nagusi yaun,

arin bidali egizu Montjoy; eta Ingelanda'ri esan dagiola, itandu dagiola, bere burua erosteko bere kitetik zer eskeinduko daukun yakiten bidali dogula. Delbin bakalseme, gugaz geldituko az i Rouen'en.

DELB.—Ez orixe, arren dagoit zure nagusiagotzeari.

P. BAK.—Epe artu egik, gugaz geldituko az eta. Aurrera orain, Gudalburu Nagusi yaun, eta bakalseme guztiok, eta arin ekarri egizue Ingelanda'ren yaustearren barri. (Alde dagie).

V AGERLEKU.-Ingelanda]ren Gudalategia Picardy n.

GOWER eta FLUELLEN aurrera, banan banan.

GOWER.—Kaxo, Fluellen gudalburu! Zubitik ator, ala?

FLUEL.—Seguru be seguru ago, otseintza onik egin izan dala zubian.

GOWER.—Onik ete yagok Exeter'ko Dukea?

FLUEL.—Agamenon bestean biotz-andi dok Exeter'ko Dukea; eta nire gogoz, eta nire biotzez, eta nire bendekotasunez, eta nire biziaz, eta nire alik osoenagaz maite izan eia goratarre dagoian gizona; eztau artu ezetariko zauririk (Goratua ta onetsia izango al dok Yaungoikoa!); adoretu be adoretu yeutsok zubiari, yakituri andi andiagaz. Ikurrindun bat xagok zubian, eta nire yakinkidetzeak diraustanez Marka Andoni *aña* badok *a* adoretu, eta orraitño be gizon ori etxoek aintzakotzat ludi onetan, baña alan eta guzti be otseintza onik egiten ikusirik xuat nik a.

GOWER.—Zer yakok izena?

FLUEL.—Pistol ikurrindun xakok izena.

GOWER.—Etxatak ezagun.

FLUEL.—Aiko emen arako gizona.

PISTOL aurrera.

PIST.—Gudalburu, eskarrik egingo al dautazu, arren; maite be maite zauz Exeter'ko Dukeak.

FLUEL.—Bai, eta goratua bedi Yaungoikoa; eta egin be egin xuat zerbait aren maitagarri izateko.

PIST.—Bardolba gudariak, biotzez sendo ta zindoak, ezpelezko adoredunak, alanbear gordinez eta Zori aldakorrenen txirrinka geldigor asarrea dala-ta (etentzaka biraka darogioin arri borobil-ganean zutunik dagon

yainkoino dtsua yatsu Zori ori), zera egin dau. FLUEL.—Ire ederretsiaz, Pistol Ikurrindun, itsu irudituen xuai Zoria, begien aurraro marroa dauela. Zoria itsu dala iragarteko; eta txirrinkeagaz be irudituen xuai (ei'a au dok ortiko ikaskfzuna), aldakor, geldigor, aldakortasuna bera ta geldigortasuna dala iragarteko; eta bere oña (oar akio oncsko oni) arri borobil-ganean xaurok; biraka, biraka, eta biraka xaurok arri borobil-ganean. Egia esateko, olerkariak ederto baño edertoago iruditu ta azalduten xok Zoria: ikaskizun bikain <dok Zoria'rena.

PIST.—Bardolba'ren arerio da Zoria, eta be-tozko dagio; pastikun bat (3) ostu dau, eta orregaitik eskegi egin bear ei dabe.... eriotza orren donga ta gaiztetsi! Txakurrentzako bedi eskegigallua; yarei bebil gizona, eta kalamuzko lokarrik ez al dau estutu ta itoazoko aren iduna; baña gitxi baño gauz ez-tan pastikunagaitik eriotza-epaia emon dautso Exeter'ek. Au dala-ta, zoaz eta itz egiozu (zuri entzungo dautsu, ba, Exeter'ek), eta Bardolba'ren bizitza-aria ez al da ebagiko txakurrandiko ta laido lotsagarriko lokarrik; itz egiozu, gudalburu, aren biziarren alde, eta eskar oneko geldituko natxatsu.

FLUEL.—Pistol Ikurrindun, aitutuen dot esan gura dozuna, ondo ezpa'da be.

(3) Pastikun ("Pax tecum"dik sortua) dala-lakoa oraindik ni ume gorri nintzanean, yaurretxean, Yaupa edo Meza nagusietan, mun egiteko eikartain eeskuen domine andi amtzeko zer biribila, Yosu Kisto kurutzatuaren iruidun zera da. Ingelandarrok "Pax" deretxoe, eta onatngo zera zan Bardolba lapurTak yaurretxeren baten ostu ebana.

PIST.—Ba! olan ba'da, poztu zadiz,

FLUEL.—Egia esateko, Pistol Ikurrindun, poz-tuteko zerik ezta orrako ori; izan be, ba, aiko, neure anaiea ba'litzok be, dukeak berari gogoko xakona egitea gurako naieun-kek nik eta Bardolba ori erailtea; erabili-bearreko dok, ba, ikaskizuna.

PIST.—II eta gaiztetsirik gelditu! eta iko bat ire adiskidetasunagaitik!

FLUEL.—Tira, ba.

PIST.—España'ko ikoa itzako! (Alde dagi).

FLUEL.—Tira, ba.

GOWER.—Ba! besterena dagian zital agiri baño agiriagoa dok ori; orain yatorkidak gogora; emakumeti ta sakel-lapur dok ori.

FLUEL.—Segurutzat dirauskat, adinaren udal-dian entzun ledikezan besteko itz arro adoret-suak esaten izan xozak zubian. Baña etxok ardura; baña ondo esanda xaok orrek esan dostana, bai orixe; ikusiko xok eretia datorkenean.

GOWER.—Ba! Arroputz, zoro, zital dok ori, nozean bein gduetara yoaten dana, London'era atzera gudariz yantzita doanean, bere burua erakusteko. Olango urliak ondo yakiten yoezak agintari nagusien izenak, eta buruz ikasten dabe non egin ziran otseintza onak; onako, ala orrako arresian, onako arresi-atakan, orrako bidean; nor gelditu zan bizirik adorearen adoz, nor il zan, nor gelditu zan laidoturik; zelan egoan arerioa; eta dana gudako itz yator egokiz esaten dautsue, txitean-pitean edergarriztat labatik arako zin batzuk ezarrita: eta ikuste-ko yatsu zer egingo eztauen gualburuaren erara ebagiriko bizarrak eta gudegaitik ekarririko soñeko zulo ta epaiz beteak bonbil bistsuen artean, eta garardoa edanaren edanez burua utsik gelditu yakenen artean. Gizaldi onetako olango lotsagarriak ezaututen ikasi bear dok, ostantxean iruzur lango iruzurra, ziri lango ziria sartuko dauskae-ta.

FLUEL.—Aiko, Gower gualburu, oartuten nok, ba-yakusat ezjala ori berak muniuari sinistuzo gurako leuskion añako gizonik; yakean zulorik idoro ba'dagiot, emongo dautsat nire eretxia. (Dennbor-otsa bcnruan). Entzun, ba-xatok bakalduna; eta itz egin bear xotzat zubitik.

ENDIKA BAKALDUNA, GLOSTER, eta Guda-riak aurrera.

Yaungoikoak onetsiko al dau zure nagusia-gotzea!

END. B.—Kaxo. Fluellen! Zubitik etorri az, ala?

FLUEL.—Bai, eta eder izango al xako zure nagusiagotzeari. Adoretzu adoretzu eutsin xao zubiari Exeter'ko Dukeak; yoanik dira Pantzetarrak, aiko; eta izan da ekitaldi adoretzu ta kementsurik; arrano, arerioak euki izan dau zubia; eta alde egitsra beartu da, eta Exeter'ko Dukea da orain zubiaren yabe; esan daikeot zure nagusiagotzeari gizon adoretzu dala Dukea.

END. B.—Zeinbat gizon çaldu dozuez, Fluellen?

FLUEL.—Andiak izan dira arerioaren galtzeak, alosa andiak; arrano, nigazko, nik eztoz us-te yauretxe baten lapurretan egin dauelako laster ilteko dan gizonaz besterik dukeak gnildu izan dauenik... Bardolba dalako bat, zure nagusiagotzeari ezagun ba'xako gizon ori: mosua izurriz, pinportaz, ikorrez, garauz beterik garretan dauena; putz egiten dautsoe surrari aren ezpanak, eta txingarra langoxe da. bein urdin, bein gorri; baña egin dau aren surrarenak, eta itzali da sua.

END. B.—Burua moztu bear yake olango okerririk egiten dabenai; eta beren beregi aginduta dogu lur onetako gure ibiltaldietan ezjala ezertxo be goatu bear indarrez, artzen dana ordaindu baño, Pantzetarrak bateri be etxakola egin bear agirikarik, ezta zaputz-itzik ezetarikorik esan be; bakalderriren baten billa biguntasunak eta godin-keriak alkarregaz burruka daragoioenean. ba, yokalaririk otzanenak aurreak artzen yautsazak besteari.

Tutu-otsa. MONTJOY aurrera.

MONT.—Ezagun nozu nire soñekoetatik.

END. B.—Tira, ba, ezagun aut; zer yakiteko nik igandik?

MONT.—Nire ugazabaren gogoa.

END. B.—Iragarri egik.

MONT.—Onako au da nire bakaldunak diño-na: "Ingelanda'ko Endika'ri esaiok: Ilik dagonarena egin-arren, loak arturik baño ez-kara egon; itsumuseria baño obe da zera-ruk nobere alde eukitea. Esaiok ari Harileur' en ari atzera eragin-ezinik eztogula, baña etxakula eder iruditu iraini iraina umatu arte erantzuterik: eldu yakula orain itz egi-teko abagunea, eta orain agintza-itzez itz egingo dogula: damutoko yakola Ingelanda' ri bere zorakeria, ikusiko dauela bere makaltasuna, eta zurtirik itxiko dauela gure epe ta yasateak. Au dala-ta, esaiok gogotan erabili dagiala bere burua birrerostea; eta guk izan doguzan galtzeen, galdu doguzan bendiekoean, iruntsi bear izan doguzan lotsa-rien eineko izan bear dauela birreros-tea

orrek; eta orrako orri ak zamaz (pixuz) erantzutekotan, orrako orrek bizkarra makurtuazo eragingo leuskiola aren zirtziltasunari. Txiroegi dok aren kutxetako dirua gure galtzean alderako; aren bakalderriko odol guztia batuta be ezin dok eldu guk galdu dogunaren neurrira; eta gure lotsariekazko, ordaingarri makal eta gauzeza a bera be gure oñetan belaunbikaturik. Zer oni gure eupadea erantsi egiok; eta, azkenez, esaiok, euren gatxespena ebatzirik *dagon* bere yarraileak saldu egin dauzala. Onenbeste diño nire bakaldun eta ugazabak; onenbesterañoko da nire egikizuna.

END. B.—Zer yak izena? Zetariko azan ba-yakiat.

MONT.—Montjoy yat izena.

END. B.—Polito ta txukun dagik ire egitekoa. Oa atzera. eta esaiok ire bakaldunari... Orain enoala aren billa; baña eragozpenik бага yoan gura neunkela Calais'era: egia esateko, ba, zurtasunik izan ez-arren are-rio maltzur eta zer guztiak bere alde dauzanari onenbesterik autortutea, gatxak er-kindurik yagok nire yentea; gitxiturik nire gudarien zembakia; eta dodazan gitxiak ia eztira beste ainbeste Pantzetar baño bape

obarik; eta nireak onik ziranean (iri diraiuskat, aldarriJcari) Ingelander oin biren ganean iru Pantzetar yoiazala uste naioan nik. Orraitiño be, parkatu nagik, onen arro itz egiten dodalako! pantze'ko zuon eguratsak putz eginda, ak ekarri yaustak makurkeri au; garbaitu, damutu egin bear yoat. *Oa*, ba, ta esaiok ire ugazabari, emen nagola ni; aldor auskor, mengel eta gauz eztan au dok nire birrestostean alderakoa; yagola gexo ta mengel baño eztok nire gudarostea; orraitiño be, Yaungoikoa-arren, esaiok aurrera yoango gareala, gure bidean Pantze ta bera lango beste auzorik guri bidera urten-arren be. (Ziskua emotein dautso) Auto au, Montjoy, ire nekeen alderako. *Oa*, onu onik emon dagiola bere buruari esan egiok ire ugazabari; aurrera egin al ba'iyagiu, egingo dogu; eragotzi ba'dagiskue, gure odolez gorritu egingo dogu zuon lur baltzerana; eta au dalata, Montjoy, onik eta ondo ibili. Auxe da gure erantzunaren mamia ta osotasuna: gagozan lez gagozala, ezkoazala gu gudaketa-billa; eta gagozan lez gagozala, eztogula ziristik be egingo guda-ketatik; au esaiok ire ugazabari. (Alde dagie).

VI AGERLEKU.-Pantzetarren Gudaltea Agincourt'etik ur.

Pantze'ko Gudalburu Nagusia, RAMBURES Andikia, ORLEANS'eko DUKEA, DELBINA, ta beste batzuk aurrera.

GUDALB.—Ut. ut! Munduan danik eta guda-koskolik onena dot. Eguna al litz!

ORL.—Guda-kolkol bikaina dozu zuk, izan be; baña zaldiari be emon bear yako berea.

GUDALB.—Europa'n danik eta zaldirik onena da.

ORL.—Ez ete da iñoz be eguna argituko?

DELB.—Ene yaun Gudalburu Nagusi, ta Orleans yaun, guda-koskolaz eta zaldiaz darragoiozue zuok,.,.

ORL.—Zer biotan munduko edozein bakalsete bestean ondo orniduta zagoz zu.

DELB.—Gau onen luze! Eneunke aldatuko nire zaldia lau oñegaz baño sakatuten eztauen beote edozein zaldiren alderako. Aiko! Bere erraiak arizko ba'lira legetxe, yagi egiten <aa lurretik, gora goraka; "Pegas" zaldi egazlari dok a, surretatik sua dariona. Aidean noa ni ari generatuten natxakonean, aztore nok ni orduan; aidean yoak a takata, takata, lau-oñean; abestu egiten

yok lurra, ak ukututen dauenean; Hermes' en tutuak baño ots gozoagoa emoten yok aren apatxeko azalik zirtzilenak.

ORL.—Sunda-intxaur koloreko da a.

DELB.—Eta yinyer-sustarra bestean bero. Perseu'nizako abere da a; *aide ia* su ulsa da; eta bein be ezta agiri agan lur eta urezko Iengei molelik, bere zalduna ganera doakonean izaten dauen gelditasun epetsuan izan ezik: zaldi da a, benetan; eta abere deitu daikezuz arez beste zaldizar guztiak.

GUDALB.—Izan be, ene yaun, zaldirik zaldien eta bikainen yatsu a.

DELB.—Zaldien buru yatsu a; zaldunen baten agindua yatsu aren irrintzea, ta berari men egitera beartuten dau aren arpegiak.

ORL.—Bego, bego, lengusu.

DELB.—Areago, ezetariko argitasunik eztau bere buruan, larratxoria yagiten danetik asuria etzan arteño, arentzako gorapen barririk ezin esan dauen gizonak; itsasoa uretan bestean aberats da a goragarritan; itz egin daiken miñ bana emoezu itsasoko ondarrari, bai, eta guzientzako itz-geirik asko izango dau nire zaldia: nagusien baten

- tzako itz-gei yatsu a, eta nagusienik nagusienarcnizakc ari ganera igotea; eta munduagazko (ezagun eta ez ezagunarerertzao), munduko bakotxa, bere beste egikizunak baztarturik, agaz zurturik agoa zabalik geldituko litzake. Amalauko bat idatzi neban bein nik nire zaldiaren goratzarrez, eta onan asten zan bera: "Yaiotzatikoaren arrikizun".
- ORL.—Entzunik yoat nik nobere kutunari idatziriko amalauko bat asten zala olan.
- DELB.—Nik nire zaldiarentzako idatzia languotu baño etxoan egin aik, olan izatekotan: nire zaldia dok, ba, nire kutuna.
- ORL.—Ondo zaroaz zure kutunak.
- DELB.—Bai orixe! eta ori dok izan be, kutun on eta zintzoarentzako gorapenik andien eta osoena, ta zeatzena.
- GUDALB.—Bai zera! Lengo egunean zure kutunak bizkarra polito berotu eutsula entzun dot, ba.
- DELB.—Ba-ledike zureak zuri beste ainbeste egin izatea.
- GUDALB.—Nireak ez eban ago-ugalik.
- DELB.—Ui! olan izatekotan, zar eta txerakor izan edikean; eta Eeretar (Eire'tar) zaldun iegetxe ziñoazan lau-oñean, belauinak gorri ta parkak zaldiari yosirik.
- GUDALB.—Eretxi ona dozu zuk zaidunketalarloan.
- DELB.—Olan izatekotan, nire onuari zarrakioz; zaldi-ganean olan dabiltzanak, eta zur eta arduraz eztabiltzanak, lupetza ta iztinga loietara yausten dira. Gurago dot nik nire zaldia euki kutuntzat.
- GUDALB.—Nik, cstera, gurago neunke nire kutuna euki nire zalditzat.
- DELB.—Nire zaldia bere adatsak daroaz, gero!
- GUDALB.—Neu be orrenbestean ilarraindu ta arrotu neindeke, nire kutuntzat txarriemeri ba'neu.
- DELB.—"Atzera doa txakurra berak oka eginera, eta txarrieme ikuzia lupetzara"; edo-zetara ycten dozu zuk.
- GUDALB.—Orraitiño be, nik eztarabilt nire zaldia nire kutuntzat; ezta arira orren gitxi datorren esakunerik be.
- RAMB.—Ene yaun Gudalburu Nagusi, eguzkiak, ala izarrak dira arratseon zure txoznako zure gudalkoskolean ikusi dodazan zerak?
- GUDALB.—Izarrak dira, ene yaun.
- DELB.—Euretatik batzuk biar yausiko dirala ditxarot.
- GUDALB.—Eta orraitiño be, izarrik asko geldituko da nire ortzean.
- DELB.—Ba-ledike olan izatea, bear eztozula daroazuz ainbat-eta, eta omen geiago zeunkake batzuk kenduazkero.
- GUDALB.—Egin eginean be zure zaldia zure gorapenik geiegi daroan legetxe; aikaz bestean ondo lebilke zure zaldia be, zure arropuzkeriak ari ganetik kenduta be.
- DELB.—Irabazita dauena ari ganean iminteko gei al nintz! Bein be ez ete da eguna zabalduko? Milla bateko bidea egingo dot biar zaldiz, txaka-txaka, eta Ingelandarren arpegiz estalita geldituko da nire bidea.
- GUDALB.—Nik eztoz esango olangorik, nire bidetik alde eragingo leuskidelaren bildurrez; baña, eguna al litz, Ingelandarrai belarriak berotuteko irrikiturik nago-ta.
- RAMB.—Nok yokatu gura dau nigaz baietz goatu nik ogei atxilo?
- GUDALB.—Zeure burua imini bear dozu galgordean aik goatu baño len.
- DELB.—Gaberdia da; guda-koskola yazten noa. (Alde dagi).
- ORL.—Goxa noz elduko luze eretxita dago Delbina.
- RAMB.—Ingelandarrak noz yango dago a luze eretxita.
- GUDALB.—Berak erail dagizan guztiak yan ezinik eztauela izango uste dot.
- ORL.—Nire anderearen esku zuria-arren, bakalseme adoretsu da a.
- GUDALB.—Aren oña-arren zin egik, zina ak bere oinpean zapaldu dagian.
- ORL.—Pantze'ko aitonsemerik eraginen eta egikorra dok a.
- GUDALB.—Egitea dok egikor izatea; eta a betf yagok zerbait egiten.
- ORL.—Nik dakidala, ak etxaustak eguño okerrik egin.
- GUDALB.—Biar be etxaustak egingo iñori: oraindak be eutsingo yaustak izen on orri.
- ORL.—Yakin yakiat nik kementsu dala a.
- GUDALB.—A ik baño obeto dazauenak esanda yakiat nik orrako ori.
- ORL.—Nor dok orrako ori?
- GUDALB.—Arrano! berak esanda; eta nok yakingo ez eutsala ardura esan yeustan.
- ORL.—Etxok izan be orren bearrik; orrako ori eztok agan onindar ostondurik.
- GUDALB.—Ba-da, bai, nire sinistea-arren; bere otseinaz bestek eztau ikusi izan eguño; txanodun adorea da arena, eta txanoa kendu dakionean egoak aztinduko yozak.
- ORL.—Ikusi-ezinak eztau eguño itz onik esan.
- GUDALB.—Txapela ezarriko yaustat esakune orri onako onegaz: "Loianketia, zurikeria egoten da adiskidetasunean".
- ORL.—Eta beste onegaz kenduko yoat orrako txapel ori: "Berea emoiok txerrenari".

GUDALB.—Ondo esanda: or dozu zure adis-kidea txerrentzat: auto orratzeren begiari aria besteren egoki datorren beste esakune au: "Izurriak eroango al yok txerrena".

ORL.—Gu baño askozaz be geiago augu i esakunetan, onako onek diragarrenez: "Arin yaurtiten dau zoroak bere gezia".

GUDALB.—Nire ganetik yoan dok ire gezia.
ORL.—Lenengoz ezta yoan gezia zure ganetik.

Geznari bat aurrera.

GEZN.—Ene yaun Gudalburu Nagusi, zuon txoznetatik amabosteun oinkadaren barruan dagoz Ingelandarrak.

GUDALB.—Nok neurtu yok lurr-arlo ori?

GEZN.—Grandpree yaunak.

GUDALB.—Aitonseme adoretsu ta trebe dok a. Eguna al litz! Ene! Ingelanda'ko Endika' ren errukarri! A eztago, gu lez, eguna noz argitukori luze eretxita.

ORL.—Ingelanda'ko bakaldun onen zori txarreko ta artega, ezagun etxakozan lurretan bere yarraila buru-motelakaz onen aurrera etorteko!

GUDALB.—Ezetariko oarmenik ba'lebe Ingelandarrak, arin eragiko leukiez euren apaxak eta igesi.

ORL.—Orrako orren eza yoek aik; izan be, euren buruak ezetariko adimen-babesik eukitekotan, daroen lango buru-koskol azunik ezin erabili al izango leukie.

RAMB.—Ingelanda'ko izaro ak seme adoretsu adoretsuak azten dauz, gero! Bardinik bagako adoredun dira euren txakur mastinak.

ORL.—Txakur ergelak, Errusi'ko artzaren agora itsuan yoan, eta euren buruak an sagar ustelak lez ausi ta opildurik geldituten yakezanak! Eskubide bardina dozu esateko, adoretsu dala bere gosaria leoiaren ezpanetan yaten azarten dan ardia.

GUDALB.—Egin eginen, egin eginen; eta euren ir-astinen antzeko dira gizonok, arrada gogor eta zakarra egiten, sentzuna ta zurtasuna euren emazteentzako itxita; yakitza adakai-zati onak emoezuez gizonoi. eta burdiña ta galtzaidua, bai, eta otsoak lez yan. eta txerrenak lez egingo dautsue burruka.

ORL.—Bai, baña Ingelandarrok adakai gitxi be gitxi dabe.

GUDALB.—Olan izatekotan, yateko yangarrik ba-dabela, baña burrukarako ezetaririk be ezabela idoroko dogu biar. Orain da iskilloak artzeko aldia: tira, ori egingo ete dogu?

ORL.—Ordu biak 'dira orain: baña, dakusa-

dan..., eun bana Ingelandar izango doguz amarretarako. (Alde dergie).

Abestaldearena dagiana aurrera.

ABEST.—Izadiaren ontzi zabala zurrumuru narrazkariak eta ilunbe ausmerlariak beteten daben aldian zer yazoko iruditu egizue orain. Ots ixilak doaz gualtegitik gualtegitira gabaren sabel baltz itsusia zear, gudaroste bateko durundua bestera eroanaz, eta yagola tinkoak ia entzun egiten dabez alkarren txutxu-putxuak; suak darantzutso suari, eta euren gar zurbilen bitartez, gualtegi batekoak ikusi dakusez bestekoen arpegi baltziskak; zaldiari zemaika dago zaldia, irrintze zoli arroz, gabaren belarri motelak zulatuten; eta txoznetatik, gertakuntzagiri bildurgarria diragarre guda-koskolginak, zaldunak orniduten, eta mallu zoliz untzeak sartu ta untze-mokoak zapalduten; kukurrukuka daragoio basetxeko ollarrak, yoten diarduerloiu-yoaleak, eta goiz lotiaren ordua diragar. Euren zenbakiakaitik arro ta euren biotzetan seguru, Pantzetar uste-tsuegi ta pozegiak diteretan yokatu egiten dabez aintzako baño gitxiagotzat dabezan Ingelandarrak; eta agirika ta asarre dagitsoe gau elbarritu astirogegi dabilenari, sorgin loi itsusik lez bidea meikika ta orren goaikarriro egiten dauelako. Ingelandar errukarri galduak, epetsu dagoz yezarrita euren su atzarrien inguruan, opagei diranen antzera, ta goxerako begira dagokoan galgordea ausmer egiten daragoioe; eta euren mosu iristumakaleto arpegi goibelak eta guduak yandako euren soñakoak begira dagon iretargiaren argitan beste ainbeste momu ikaragarrirena egiten dabe. Ui! Gudaritalde lorrindu onen bakaldar gualburua yagolategitik yagolategitira, txoznetatik txoznara yoaten ikusi dagianak, gedar eta oio egin begi: "Gorapena ta aintza berari!". Or dabil, ba, batetik bestera, bere gudarostea ikusten; "Egun on" dirautse irribarre lotsoz, eta anai, adiskide, ta aberkide deituten dauz. Bere bakal-arpegian ezetara be eztau iragarten gudaroste bildurgarri bildurgarriak inguratuta dagonik; igaroko nekeak eta gabaz atzarrik egonak be eztabe itxi bere arpegian ezetariko zurbiltasunik; barri agiri da, ta arpegi argiz eta nagusiagotza gozoz benderatuten dau neketikoa; eta, olan dala, len negarrez eta zurbil egoan zori txarreko bakotxak, a begiratuaz bakarrik, nasaitasuna ateraten dau aren begirakuneetatik: eguzkiak lez, ak berak be guz-

tientzako eskuzabaltasuna dau-ta, aren begi eskuzabalak be emon egiten dautse guztiai eta bakotxari, bildur otza urtuaz. Olan dalarik, erritar eta aitonseme guztiok, so egiozue al izan dodanik ondoen iruditu dodan Endika'ren gabeko iruditxoari: eta orain gudategira yoan bear dau gure agerlekuak;

eta an,..., au tamala! irainik asko egingo dautsagu, urrean. Agincourt'en izenari, laubost milla ezpatamotz zirtzil eta zakurrez girorik txarrenean burruka barregarrian sarturik. Orraitiño be, yezarri ta ikusi, zer yatorrak zelangoe diran euren irudietatik aterata. (Alde dagi).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.—Pantze, Ingelanderren Gudaltea Agincourt'en.

ENDIKA BAKALDUNA, BEDFORD, eta GLOSTER aurrera.

END. B.—Gloster, egia da galbide gorrian ga-goza; au dala-ta, ainbat eta andiago izan bear leuke gure adorea. Egun on, Bedford anai. Alorodun Yaungoikoa! Zer onik be ba-dago zer txarretan, eta sokorrik asko al lira gizonak zer txarretako on ori irisi ta aterateko; ba, goiz yagiazoten dauskue gure auzoko txarrak, eta onako au bai osasungarri, bai ekandu on yatsue; ganera, atetako gure yakinkideta ta irakasla dira: gure atzenerako ondo gertaurik egoteko onurik be emoten dauskue. Onan, bedar txarretatik be ezta atera daikegu, eta txerrenagandik beragandik be ikaskizun onik atera.

ERPINGHAM aurrera.

Egun on, Sir Toma Erpingham zar; Pantze'ko zoi gogorak baño obeto letorkio burupeko apitz on bat buru zuri on orri.

ERP.—Ez olangorik, ene nagusi; atsegingarriago yat etzategi au, bakaldun legetxe nazala orain esan daiket-eta.

END. B.—On dok gizonentzako besteak emondako eredu, euren oraingo nekeak pozik eroatek; olan, nasaitu egiten dok gogo; eta gogo biztuten danean, zalantzarik barga, soin-atalak, len ilik eta lur yota egonarren be, euren ilobi lotietako ateaq urratirik, barriro igituten dozak, azal zarra itxirik eta bizkortasun barriagaz. Ekadak ire kapea, Sir Toma, Anai biok, nire gorantziak emon gure gudaltegiko bakalsemeai; egun onak emon nire aldetik; eta laster datoza-la nire txoznara esan.

GLOST.—Egingo dogu orrako ori, ene nagusi. (Alde GLOSTER eta BEDFORD'ek).

ERP.—Zure eskarraren laguntzat geldituko naz, ala?

END. B.—Ez, ene zaldun on; zoaz nire anaiekaz Ingelander lordakana: apur baten neur buruagaz ekin bear dautsat autuka-ta, eztoz gura besteren laguntzarik.

ERP.—Zeruko Yaunak onetsiko al zauz, Endika zindo! (Alde dagi).

END. B.—Eskarrik asko biotz zar orri! Gogargi dagik ik itz.

PISTOL aurrera.

PIST.—"Qui va la?".

END. B.—Adiskide bat.

PIST.—Azaldu egidak; agintza-gudari az. ala? Ala, beeko, guztietariko, ta erriko az?

END. B.—Gudaritalde bateko aitonseme nok.

PIST.—Aztamakildunetariko augu, ala?

END. B.—Bai, euretario nok. Nor augu eu?

PIST.—Inberadorea bestean aitonseme on.

END. B.—Olan izatekotan, bakalduna baño oba az i.

PIST.—Txotxo on dok bakalduna, eta urrezko bioztun, morrosko bizi, entzutearen aldaska; guraso onen seme, ta ukabil indartsudun; mun dagiot aren oski loiari, eta biotz biotzez maite 'dot ollar burrukari maitagarri a. Zer yak izena?

END. B.—Endika Le Roy.

PIST.—"Le Roy!" Kornuol'go izena yak ori; Kornuoldarretariko augu, ala?

END. B.—Ez, Kimurutar nok.

PIST.—Ezagun ete yak Fluellen?

END. B.—Bai.

PIST.—Dabita Gurenaren egunez buruan daroaken porrua yo ta lurrera egotziko dautsadala esaiok.

END. B.—Ire sastakaia ire txapelean ez egik eroan, gero! egun atan, eu buruan yota ak lurreratu ez agian.

PIST.—Aren adiskide augu, ala?

END. B.—Aren senide be bai.

PIST.—Olan izatekotan, iko bat bestekotzat aut!
END. B.—Eskarrik asko; Yaungoikoa lagun izango al yak!

PIST.—Pistol yatak niri izena. (Alde dagi).

END. B.—Egoki baño egokiago yakok izen ori ire adore itzalari.

FLUELLEN eta GOWER aurrera, banazean.

GOWER.—Fluellen Gudalburua!

FLUEL.—Ixi! Yosu Kisto'ren izenean, ixilago itz egik. Munduan dan zerik arrigarriena dok guduko lenagotiko zer yator bereziak eta legeak ez yagotea: Ponpei Andiaeren guduak aztertuteko nekea beintzat artuko ba'eu, an idoroko eunke, bai orixe! etzala Ponpei'ren gudaletgian txortxorrik eta borborrik; bai orixe! an ikusiko dok bestelangorik zirala angu gudu-arauak, ango erak, ango neurrikotasuna ta ango lotsortasuna.

GOWER.—Ba! gedarrez yaragoiok arerioak; gau osoan ago *a* entzuten.

FLUEL.—Arerioa asto, ta zoro, ta ergel ixil-ezina ba'dok, egoki dala uste ete dok, aiko, gu geu be asto, zoro ta ergel ixil-ezin izatea? Ori ete yiñok ire yakinkidetzak?

GOWER.—Ixilago itz egingo yoat.

FLUEL.—Olan egik, arren, bai, arren. (Alde GOWER eta FLUELLEN'ek).

END. B.—Ardurarik eta adorerik asko dogu Kimurutar onegan.

BATES, COURT, eta WILLIAMS aurrera.

COURT.—Yon Bates anai, eguna ez ete dok an urratuten daragoioia?

BATES.—Baietz uste yoat. Baña guk etxoagu zegaitik poztu andirik eguna urratuteagaz.

WILL.—Argiabarra yakusaguk an, baña gure onen atzenik iñoz be eztogula ikusiko uste yoat. Nor doa or?

END. B.—Adiskide bat.

WILL.—Zein gudalbururen bendeko az?

END. B.—Sir Toma Erpingham'en bendeko.

WILL.—Agintari zar on eta aitonseme txerakor be txerakor da a; arren, ze eretxi dau ak gure egokereaz?

END. B.—Urrengo izkoreak noz iruntsiko begira itsas-ondartzan, ontzia urperaturiko gizonak dagozanez, gu be gagozala da aren eretxia.

BATES.—Ez ete dautso iragarri bere eretxia bakaldunari?

END. B.—Ez; egoki be ezta ak olangorik egitea. Izan be, ba, orrako ori nik zuoi esan-arren, bakalduna, neu nazanez, gizon baño ezta; bioletearen sundea zelango yatan ni-

ri, alangoxe yako ari be; niri legetxe agertuten yakoz ari be lengeiak; giza-sentsu baño ezтира bere sentsu guztiak; bere bakalduntza-agiriak alde batera bazturtuazkero, narrugorritan a bera be gizon baño ezta agiri; eta gureak baño yagiago izan-arren aren biotzaldiak, orraitño be, makurtu ta yasten diranean, gureenak langoxe egoz makurtu ta yasten dira. Au dala-ta, bildur izateko biderik dakusanean, aren beraren bildurrak be, zalantzarik baga, gureak langoxe, gureen usañeko dira: orraitño be, iñok eleuke ikusi bear agan bilduraren izperrik be, eta zuzenez diñot au, ak bildurrik erakutsiazkero, gudarostea kikildu ez-tadin.

BATES.—Erakutsi baño eztau ak azalean berak gura ta al aña adore; baña, nire ustez, gau au otz izan-arren, gurago leuks ak Thames'en idunerañoko uretan ba'lego, emen baño; eta edozelan be, orixe gurako neunskio neuk be, ni bere aldamenen nazala, emen aurkitu baño beinago.

END. B.—Egia esateko, nire yakinkidetzean do-dana esango dot bakaldunaz: nire ustez, ak eleuke egon gura dagonean baño beste lekutan.

BATES.—Olan izatekotan, bera bakarrik al lego emen; birrerrosiko dabela seguru egotekotan, ainbeste gizon errukarriren biziak aurreratuko litzakez-eta.

END. B.—Enaz azarten esaten *a* orren gitxi maite dozuenik, a bera bakarrik emen egotea gurako zeunkiela esanaz, naiz-ta ori zuok besteen eretxia yakite-arren bakarrik esan; nire ustez, ni neu iñon be enintzake ilgo pozago, bakaldunaren lagun nazala baño... aren zegaitia zuzen eta aren eztabaidea goragarri izanazkero.

WILL.—Guk dakiguna baño gefago da ori.

BATES.—Bai, naiz guk bilcttu bear geunkena baño geiago; asko yaku, ba, guri bakaldunaren bendeko gareala yakitea: okerrekorik ba'da aren zegaitia, bakaldunari guk men egiteak berak garbituten gauz gu ortiko obenetik.

WILL.—Baña on ezpa'da aren zegaitia, bakaldunak berak izango dau erantzukizunik asko atzenengo egunean, gudatean ebagi ta mozturiko zango, beso ta buru guztiak batu ta gedar egin dagienean: "Urli lekutan il gintzazan gu; zinka, añenka ta biraoka batzuk; osagile-eske beste batzuk; emen izten ebezan emazte errukarriai deiez beste batzuk; zorrak ebezala gedar egien beste batzuk; eta beste batzuk oraindik azi ta ezteko izten ebezan umetxoai deiez". Bil-

dur naz guduau ilten diranetatik gitxi ilten dirala ondo: zelan izateko aik, izan be, ezetarik goi-maitasunik, odoiaeren ardurarik baño besterenik eztabenean? Eta gizonok ondo il ezpa'dadiz, erantzukizun baltza izango dau orretara bultzau eta eroan dauzan bakaldunak; bakaldunaren esaneko ez izatea, ba, men egitearen aurkako be aurkako litzake.

END. B.—Olan izatekotan, aitaren batek bere semea sal-eroskei billa bidali ba'legi, eta seme ori itsasoan obenak aldean dauzala il ba'ledi, zuk ekarri dozun arauz, aren gaiztakeriaren errua be bera bidali dauen aitari ezarri bearko litzakio: naiz, ugazabak bidalita, otseinen bat, diru-mordoa daroala, bidean lapurrak erasorik, bere okerreri ugariez Yaungoikoagaz onezkoak egiteka il ba'dadi, zure arauz, ugazabari ezarri bear dauztsagu otseinaren betiko galtzearen errua; baña eztago olangorik; bakalduna eztago bere gudarien atzenez erantzutera beaturik, ez aitarik bere semeenez, ezta ugazabarik be bere otseinenez; aik ilterik ezta, ba, eurak gura dabena, arein otseintzea baño. Ganera, eztago bakaldunik, bere zegaitia inõngorik eta garbienu izan-arren, zegaiti edo auzi ori ezpataz ebatzi bear ba'da, gudari guztiz garbiz irabazten alegindu datekenik; baledike euretatik batzuk aurreztik, bake-aldian, asmauriko ta erabagirik erailteren errudun izatea; ba-ledike beste batzuk, zinaren ikurrak ausirik, neskal ziria sartu izanaren errudun izatea; ba-ledike beste batzuk aurreztik, bake-aldian, ostu ta lapurretak egin izatea, ta orain estalgi ta ostonlekutat guduak artzea. Eta, gizonok legea benderatu ta aberriko zigoretik alde egin ba'dabe, gizonakandik alde egin al ba'dagie be, eztabe egorik Yaungoikoagandik *alie* ta igesik egiteko: gudua da Bere bitarteko, gudua da Bere azaska-bidea; au dala-ta, len bakaldunaren legeak ausi izan dabezanak bakaldunaren auzian artzen dabe euren zigorra: euren bizia galduko ebela bildur izan eta yarei gelditu ziranok, olangoren bildurrik ez eben lekuan galtzen dabe; olan, ba, gertau bagarik il ba'daitez, bakalduna ezta euren betiko galtzearen errudunago, lenago egin eta orain euren zigorra artzen daben okerrerien errudun dan baño geiagorik. Bakaldunren da bendeko bakotxaren egikizuna; baña bendekoaren berena da bendeko bakotxaren gogo. Au dala-ta, gudari bakotxak guduetau, gexo bakotxak bere oean egin daroana egin bear dau..., ikuzi, garbitu bere yakinkidetzako or-

banik txikiena be; eta olan ilazkero, irabazi ya!o eriotzea; edo-ta, il ezik, ondo baño obeto galdu dau aldia, aldi orretan olango gertakuntza ederra irabazi dau-ta; eta bizirik urten dadinari et::ako bape oben izango uste izatea, bere bizia bere kitetik opaturik, Yaungoikoak egun a ikusteko abagunerik emon ba'dautso, Bere anõitasuna ikusteko emon c'autsala, orretarako ta besteai be irakasteko zelan gertau bear daben.

WILL.—Egia da gizona bera dala txarto il dadin gizonari datorkon okerraren errudun, bakaldunak eztau or erantzukizunik.

BATES.—Nik neuk eziof gura ak nigaitik erantzun dagianik; eta orraitio be aren alde gogoz eta egin-alean burruka egiteko ebatzita nago.

END. B.—Bakaldunari berari entzun dautsat nik eztauela gura birrososi dagienik.

WILL.—Bai, orixe esan dau, guri burruka pozik eragiteko; baña ba-ledike guri eztarriak moztu dagiskuezanean a birrerostea, eta orregaitik ezkara gu bape zurrago izango.

END. B.—Olangorik ikusteko bizi ba'nadi, ordutik ara eztautsat ezetan sinistuko.

WILL.—Orduan emongo dauisazu berea! Daunbada orrek eztautso egingo kalte andirik bakaldunari, gudari muker asarratuena batek altzezko eskopetatiko daunbadeagaz egin leion baño! Bardin litzakik ori egitea ta eguzkia leituten eragotea, indi-ollarraren baten egakiz ari putz eginda. Ordutik ara eztautsakala itzik be sinistuko! Tiruk, ergelaren itzak dozak orreik.

END. B. Borobilegi dok nire itzak oian txarizat artzea: aldi egokia ba'litzok, asarratu egingo ninixakik.

WILL.—Gure arteko burruka-bide bedi, bizerik gelditu ba'adi.

END. B.—Olan bedi.

WILL.—Zelan ezautuko aut bariro gero?

END. B.—Ekadak ire baien bat, eta nire txapelean erabiliko yoat: au dala-ta, inõz ireztat ezautu ba'dagik, igaz burruka egiteko bide izango yatak.

WILL.—Auto nire eskuzorroa;ekadak ire bat.

END. B.—Auto.

WILL.—Neuk be au nire txapelean eroango yoat: inõz niganatu ba'adi ta esan ba'dagistak biartik atxina, "Nire eskuzorroa dok au", esku au-arren, belarrondoko bat emongo daukat.

END. B.—Nirea inõz ikusteko bizi ba'nadi, eupada egingo daukat.

WILL.—Orretara azartea ta eskegi agiela eskatutea ainbaten litzakik.

END. B.—Tira ba, bakaldunagaz aurkitu ba' adi be egingo yoat orrako ori.

WILL.—Bete egik ire itza: onik eta ondo ibili. BATES.—Aáskide izan zadize, Ingelandar zoro biok, adiskide izan zadize; asko yakuz Pantzetarrakazko eztabidak be, euretatik zelan urtengo garean esan al ba'dagiskuzue.

END. B.—Izan be, ogei burestun yokatu legikiez Pantzetarrak baten alderako baietz irabazi guri; sorbaldetan daroez, ba, aik burestunak; baña Ingelandarrentzako ezta salkeririk Pantzetarren burestunak ebatea; eta eballetariko izango da biar bakalduna bera be. (Alde gudariak) Bakaldunagan! bakaldunagan imini dagiguzan gure biziak, gure gogoak, gure zorrak, gure emazte artegak, gure seme-alabatxoak, etc gure obenak! Bakaldunak erantzun dagiala orrako guztiagaitik! Guk eroan bear dana. Gure izakerearen neketsu, anditasunaren birki dan neke orrena! bere sentzuak bere miñez besterik ezin so dauen edozein zororen bendeko izan bear dau bakaldunaren anditasun orrek-eta; euren buruaren ardureaz besterik eztaben gizonak dabezan amaika bioiz-nasaitasuni agur egin bear daute bakaldunak! Eta zer dabe bakaldunak agintzarik eztauenak be eztabenik, bakalduntzeari berari dagokozan edergallu edo apaingarriez besterik, egiten yakiezan erameriez besterik? Eta zer augu i, yainkoaitzuntzat aben eramera ori? Zetariko yainko augu, i yainkotzat abenak baño ilkorren naibage ta lor geiago yasan bear dokan ori? Non dozak ire etorriak? Non dozak ire diru-arteak? Bakal-edergallu ori, bakal-eramera ori, erakutsi egidak ire geitasuna! Zek egiten au crren gurgarri? Ete az, gero; leku, malla, eraz besterik, besteak zurtu ta bildurtuten dauzanaz besterik? Eta orretan, ik bildurra sartuaz bildur diranak eurarak baño gitxiago az i eu zori ontsu. Zer edaten dok ik sarritan, goratsarre gozoaren orde zuriikeri edentsua baño? Ui! ge-xotu adi, anditasun andi ori, eta ire edergalluari, ire eramerai eskatu egiek osatu agiela! Uste ete dok ire sukar goriak alde egingo dauela zurikeriak, putz eginda, andituten dauzan izengoitien izengoitiz? Alde egingo ete yok belauñ ta buru-makurtuteen aurretik? Eskekoaren belauñari aginduten dautsakanean, aren osanuari be agindu al ete dautsak? Ez, i ames arro ori, bakaldunen atsedengaz orren me ta zorrozt yokatuten dokan orrek: i ondo azaudan bakaldun nok ni; eta ba-yakiat nik zer

diran igurtzaorioa, agintza-makilea, zer bobobila, ezpatea, adaki buru-andia, inberadore-burestuna, urrez eta pitxiz yositako yantziluzea, bakaldunaren aurreko izengoiti-pilodun yauregitar morda, bakalduna an yezarten dan bakauikia, eta mundu onen itsasegi goikoa yoten dauen arrokeri-izkorea, zer guztiok, edergallu apain baño apainago ori, zer guztiok imini-arren nagusiagotzearen oean, bakaldunak ezin yok lorik egin yopu zori txarrekoak bestean gogor; sabela betarik eta burua utsik, bere zori txarrean irabaziriko ogiz betarik lotara doan yopuak bestean ezin yok lo gogorrik egin; inoiz be etxok ikusten olango beartsuk sulezearen ume dan zer ikaragarririk; bestera, eguzkia yaigi ta etzan arte, yopuk lez Poiba'ren begipean izerdiak izerdi botata, Elisi'n lo egiten dau gau osoan; urrengo egunean, bein eguna argituazkero, yaigi egiten da, ta Iperion'eri lagun yako zaldi-ganera igoten; eta olan darraiko beti etentzaka ibili dabilen urteari, lan onurakorraz, bere ilobirarte: eta edergallua bazturtuazkero, bakalduna baño geiago litzateke olango zori txarrekoa, egunak lanean igaro ta gabaz lo eginik. Erriko bakearen kide bai ba-da yopua, gozo yako bakea; baña, bere garaun motelakaz ak eztauz kezka andirik erria beakan eukiteko bakaldunak atzarririk egin bear dauzan orduenik, eta baserritarra yatsu orduotatik onurarik geien ateraten dauena.

ERPINGHAM aurrera.

ERP.—Ene yaun, zu an etzagozala-ta kezkaz, zure billa dabiltz zure andikiak zure gudal-tegian.

END. B.—Zaldun zar on ori, nire txoznan baturu egizuz guztiak: zu baño lenago izango naz ni an.

ERP.—Egingo dot orrako ori. ene yaun. (Alde dagi).

END. B.—Gudaketa-Yaungoiko ori! galtzaidutu egizuz nire gudarien biotzak; bildurrik eza sartu egizu euren biotzetan; euren aurkako gudari-zenbakiak biotzak ateraten ba'dautsez, kendu egiezu zenbakiñ gomutea! Gaur ez, ene Yaun, Ui! gaur ez, ez gogoratu gaur nire aitak burestuna bere buruan iminiiaz egin eban okerra! Ilobi barrian imini dot nik Errikarta'ren gorpua, eta arí indarrez ateru izan yakon odol tantanetan baño damuzko negar tantan geiago ixuri dot nik aren ilobi-ganean: bosteun beartsu dodaz urtero neuk ordainduta, eta aik egu-

nean birritan eragiten dabez zerurantz euren esku zimeitxiuuiiak, aiako odola parkatu dagizun; eta yaurettxeto bi eragi dodaz, eta an abade gotilun benak oraindik be Errikarta'ren gogoaren alde abestuten dabe. Geiagorik be egingo dot; nik egin dagikedanik deusik be gauz izan ez-arren, nire damua parka-eske datortsu-ta.

GLOSTER aurrera.

GLOST.—Ene nagusi!

END. B.—Nire anai Gloster'en abotsa dogu, ala? Bai; ba-yakiat ik dakakan geznea, egaz yoango nok: eguna, nire adiskideak, eta zer guztiak dagoz nire alde. (Alde dagie).

II AGERLEKU.-Pantzetarren Gudaltegia.

DELBINA, ORLEANS, RAMBURES, eta beste batzuk aurrera.

ORL.—Gure guda-koskolak urreztetan daragoio eguzkiak: gora, ene yaunok!

DELB.—"Zaldi-ganera guztiok". Nondik dok nire zaldia? Esku-mutil, zaltzain, ee!

ORL.—Biotz orren adoretsu!

DELB.—Goazen! ur eta lur.

ORL.—Beslerik ez, ala? Egurats eta su...

DELB.—Ortze! Orleans lengusu.

GUDALBURU NAGUSIA aurrera.

Kaxo, ene yaun, Gudalburu Nagusi!

GUDALB.—Entzun, zelan daragoioen gure zaldiak irrintzeka, bertatiko otseintza-eske!

DELB.—Ganeratu zakieze, eta zulatu euren narruak, euren odol beroa Ingelandarren begietaratu dadin, eta adore geiegiz areina egin dcsgien, ia!

RAMB.—Ostera! Gure zaldien odolezko negarra eragin gura dautsezu, ala? Olan izatekotan, zelan ikusteko guk euren negar yatorrik?

Geznari bat aurrera.

GEZN.—Pantze'ko andikiok, ekfterako lerroetaraturik dagoz Ingelandarrak.

GUDALB.—Zaldi-ganera, bakalseme kementuok! Artez zaldi-ganera! Begiratu baño eztozue an dagon talde errukarri goseak ila, eta bizia edoski egingo dautse ai zuon ikuskizun txairo txukunak, gizon areitatik mintzak eta azalak bakarrik itxirik. Eztago an gure esku guztientzako lanik asko; euren zan gexoetan nekez r'ago odolik asko gure Pantzetar adoretsuak gaur atera ta, zetan ekin-ezaz, atzera lekaratu bearko dabezan sastakaiai orbantxo bana ezarteko be: eurai putz egin baño eztozu. gure adoreaen lurrunak berak itzuli ta lurreratuko dauz-eta. Agiri baño agiriago da, yaunak, olangoren bearrik ezala, or gure gudari-taldeen ingu-

ruan alperrik eta zoli ara-onaka dabiltzan otsein eta baserriar ugariak eurak be asko litzakezala gure gudategia olango arerio kiletatik garbituteko, gu geu asti-emongarritzat mendi onen onetan geldi egon-arren be, baña gure omena-arren olangorik eztozu egin bear. Zer esango? Apur apurtxo bana egin dagigun, bai. eta dana dagoke eginik. Yo dagiezala, ba. orasorako tutuak, eta beste yotaldi bat, zaldi-ganeratuteko: gu urreratu-ala, ba, ainbesteko bildurra sartuko da gudategiar-eta, bildurrez makurtu ta men egingo dauskue Ingelandarrak.

GRANDPREE aurrera.

GRAND.—Zegaitik zagoze begira orren luzaro, Pantze'ko ene andikiok? An aragoan dagon izaroko gorpuak, euren azurrak be galduko dabezala etsita, ikuskizun barregarria egiten dabe gudategian eguzkiak argituten dauen goiz onetan; sorkiak diradie zabaltzen dabezan euren ikurrin urratuak, eta irri dagilse gure aideak. igaroala zirkin eraginaz. Marte andiak porrot eginik dirudi arein gudaroste eskekoan, eta osta osta dagi kirika arein mosu-koskol ugartuetatik; argi-mutil tinkoak dirudie euren zaldizkoak zaldi-ganean geldi geldi, euren azlamakilak eskue-tan dabezala; eta arein zaldizar errukarriak makur dabez euren buruak, narra ta eper-mamiak loka ta dingilizka dabezala, pistak darioezala euren begi zurbil iletatik, eta euren ago zurbil moteletako ago-burdiñea loirik dago aginekaz zeitu daben bedarra-gaz, guztiak geldi ta zirkin be egiteka; eta arein eraileak, bela zitalak, egazka dabiltz arein ganean, urduri ta artaga, euren ordua noz elduko begira. Itzik eztago a lango gudarostear' bizitzea azalduteko, ain bizirik bagako agiri da, ba, arein bizia.

GUDALB.—Egin dabez aik euren arrenak, eta eriotzearen begira dagoz.

DELB.—Yakiak eta soñeko barriak bidaliko ete

dautseguz, eta euren zaldi goseai be yakia emon, eta gero egin burruka aikaz?
 GUDALB.—Nire ikurrin moko-zorrotzaren begi-
 ra nago ni: goazen gudategira. Tutularien

bateri kenduko dautsat ikurrina, eta bera erabili nire astirik ezean. Tira, tira, goazen!
 Goraturik dago eguzkia, eta eguna alperrik galdu baño eztozu egiten. (Aide dagie).

III AGEHLEKU.-Ingelanderren Gudalategia.

Ingelanderren gudarostea aurrera: GLOSTER, BEDFORD, EXETER, SALISBURY, ta WEST-MORELAND.

GLOST.—Nondik da bakalduna?

BEDF.—Bakalduna bera yoan da zaldi-ganean, arein guda-lerroak i^huskatuten.

WEST.—Irurogei milla eginak dabez ajk gudaritan.

EXET.—Batentzako bost dira aik: orrez gainera, guztiak dira barri.

SALISB.—Yaungoikoaren eskuak yoko al dau gugaz! ezbardintasan itzala da au. Yaungoikoa lagun izango al yatsue bakalseme guztioi; nire egikizunera noa ni; zeruan alkarganatu arte emen bein geiagotan alkarganatu ezpa'gadiz, pczik daragoiogun..., Bedford'eko ene Lord zindo, Gloster'ko ene Lord maite..., eta Exeter'ko ene Lord on, eta i, nire senide txerakor..., gudari guztiok, agur!

BEDF.—Agur, Salisbury on; eta zori ona lagun izango al yak!

EXET.—Agur, Lord txerakor; adoretu egin gaur burruka; eta, orraitiño be, irain egiten daukat iri olangorik aitatuz, adore zindozko ariz egina augu-ta. (Alde SALISBURY'k).

BEDF.—Txerakortasunez bestean adorez be-
 tea da ori; bietan bakalsemeri dagokionez.

WEST.—Ui! emen al geuz orain.

ENDIKA BAKALDUNA aurrera.

Emen al geuz orain, gaur, Ingelanda'n lanik egiten eztabenetatik amar milla gizon, ez geiagorik!

END. B.—Nor da olangorik gura leukena? Nire lengusu Westmoreland, ala? Ez, ene lengusu lerdin; eriotzarako atza ezarriak ba'gara, gur > aberriaren galtzerako asko gozak gu geu be; eta bizirik geldituteko atza ba'yoagu, gizon gitxiago garean eta omen geiago bakotxarentzat. Yaungoikoaren guraria egingo al da! Arren, gizon bat bera be ez egik geigorik rura izan. Yupiter-arren, enok ni urrezalerik; eta etxaustak ardura nire leporik nor bizi danek be; etxaustak ar-

dura gizonak nire soñekoak ba'darabilez be; olango uskeri ta azaleko zerik eztoz sartzen nire gurarietan; baño oben ba' dok omenzale izatea, neu nok bizirik diran goetatik obentiena. Ez, ene lengusu, benetan, ez egik gura izan gizonik bat be Ingelanda'koetatik; Yaungoikoaren bakea! Al danik eta itzarorik onenak dodazala-ta, olango omen andirik eneunke galdu gurako nik, nire ustez gizon bat geiagok omen-zati bat berak eroango leuskit-eta. Ui! nik etxoat gura gizon bat be geiagorik! Olangorik bagarik al'darrikatu egik, Westmoreland, nire gudarostea zear, alde egin dagiala burruka onetarako biotzik eztauenak; egin eta emongo yakok bidari-agiria, eta biderako dirurik be bere ziskuratuko yakok; ez geun kek il gura gugaz batera ilteko bildur dan gizonagaz batera. Kirispin yai-eguna dok gaur: egun onetan bizirik gelditu ta aberri-ratu dadina, beatzen ganean yarriko dok izen au aitatu dadinean, eta yagi egingo dok Kirispin'en izenera. Egund onetan bizirik gelditu, ta zartzarora eldu dadinak, urtero yai egingo yautsek bere auzokoai aurreko egunez, eta onan esango yautsek: Kirispin Guren 4a biar: eta gero, besoa billusturik, zauratzak erakutsiko yautsezak, eta esan: "Kirispin egunean artu nebazan zauriok". Aztu egiten yake gizon zarrai, baño, orraitiño be, edozer aztu lekikio, baño etxako aztuko, pozik gomutau baño, egun atan egindako egite andirik; eta orduan gure izenak euren agoetan euren senideenak bestean etxetiar izango dira: Endika Bakalduna, Bedford eta Exeter, Warwick eta Talbot, Salisbury ta Gloster, edalontzi beteen artean barriro gomutau ta gogoratuko dira. Yazoriko onen barri aita onak bere semeari emongo dautso; eta Kirispin eta Kirispian' en eguna mundua mundu dan artean inoiz be ezta igaroko gu gomutau bagarik..., gu gitxiok, gu zori ontsu gitxiok, gu anai-mordo au; nir; anai izango da, ba, gaur nigaz bere odola izuri dagiana; idanik eta zirtzilenik izan ba'dadi be, gaurko egunak aitonsemetuko dau, ba, aren izakerea: eta orain Ingelanda'n lotan dagozar aitonsemeak bi-

raotzat etsiko dabez euren buruak emen izan etziraiakc, Kirispir. Deunaren egunean burruka egin ebanak guduaz itz egiten daragoion bitartean eztabe etziko sintzakotzat euren gizatasauna.

SAUSBURY aurrera barriro.

SALIS.—Ene Lord Nagusien ori, arin gertau zadiz: adoretu dagoz Pantzetarrak euren guda-lerroetan, eta bertatik erasoko dauskue.

END. B.—Zer guztiak doguz gertu, gure goak be egotekotan.

WEST.—Gelduko al da orain bere biotzak atzera eragin dagion gizona!

END. B.—Ingelanda'tiko laguntza geiagoren begira ez ago orain, lengusu, eztok?

WEST.—Yaungoikoaren guraria egingo al da! Ene nagusi, zuk eta nik, guk biok bakarrik, laguntzarik geiago bagarik, egingo al geu bakaldar burruka au!

END. B.—Ba! Orain bost milla gizon gitxiago gura eunkez ik; eta gogokoago yatak ori, ik gizon bat geiago gura izatea baño. Ba-dakizue zook zeuon lekuak: Yaungoikoa lagun izango al yatsue guztioi!

Tutu-otsa. MONTJOY aurrera.

MONT.—Beste bein nator zugana, Endika Bakaldun, zure itzulte seguruaren aurretik zure birreroste-sariaz itunduteko: seguru baño seguruago, ba, itsas-kolkotik ain ur zagoz-eta, nai-ta-nai-ez iruntsiko zauz. Orrez gainera, errukirik iritxi dagien, damutu dadizalaska eskatu dagiezula zure yarraileai gura dau gure guda-buru nagusiak; euren goak zelaiotatik hakez eta nasai alde egin dagien, zori txarrekoon gorpu errukarriak, ba, emen etzan eta andurrez bete bear dabez zelaiok.

END. B.—Nok bidali au orain?

MONT.—Pantze'ko Guialburu Nagusiak.

END. B.—Nire lengo erantzuna barriro eroan egik, arren; goatu nagie-la esaiek, eta gero saldu dagiezala nire azurrak. Ene Yaungoiko on! Zegaitik egin bear ete dautse onango iririk lagun errukarrioi? Beñola, leoi biziaren narrau saldu eban gizona il egin zan leoia goatzen eragoiola. Zalantzarik бага, gutatik askoren gorpuak euren yaioterrian idoroko dabe euren ilobia; eta egun onetako lanaren gomutea, bai orixe, borontzetan biziko da euren ilobi-ganean; eta euren azur adoretuak Pantze'n itxi da-

giezanak, gizonari dagokionez ilda, euren ilobitzat zuon sastegiak izan-arren be, euren izango da ospea ta entzutea; an be, ba, argi ta txera egingo dautse eguzkiak, eta lurrunetan euren ospea ortzera eragiko dau, euren lurrezko ondakinak zuon eguratsa togarri egiteko, euren andurrak Pantze'n izurria sortu dagian. Oartu akio, ba, gure Ingelandarren adore ugariari, ilik be, yo ta atzera datorren balearen antzera, bigarren aldiko okerreriak egiten yatozak, bigarren aldizko bizitza ilkorrean erailik-eta. Arro itz egiten itxi egidak: asteguneko gudari baño ezkareala gu esaiok guda-buru nagusiari; guztiz kolorgaturik gelditu dirala gure txairotasuna ta azaleko gure urrea zelai nekorrotan eguraldi euritsuz aurrera eginaz; etxagok ezetariko lumaren lorratzik be gure gudarostean..., ezaugarri ona, nire ustez, guk eztogula igeska egazik egingo..., zarkindu egin yauskuzak aldiak aldean doguzan zerak; baña, mezea-arren, labatik arako dozak gure biotzak, naiz orratzetik arako; eta nire gudari errukarriak niri esaten daragoioe, orraitño be, gautu baño len soñeko barriagotan egongo dirala; ostan-txean, Pantzetarren soñeko barriak euren buruetatik ateraten urratu ta gauz eztirala itxiko dabezala. Olangorik egin ba'dagie (eta Yaungoikoari eder ba'yako, egin egingo dabe), laster batuko da nire birreroste saria. Aldarrikari, aurreratu egik ire nekea; ez adi etorri bein barriro birreroste-sari eske, aldarrikari txerakor; etxoek izango olangorik (zin egiten yoa), nire azur-mamioz besterik..., eta oneik, nik itxi gura dautsedcnez itxi ba'dagiedaz, gitxi emongo dautse, gitxi egingo dautse. Au esaiok guda-buru nagusiari.

GEZN.—Esango dautsat, Endika Bakaldun. Eta, au dala-ta, onik eta ondo ibili; bein geiagotan eztautsazu entzungo aldarrikariri. (Alde dagi).

END. B.—Bildur nok beste bein be etorriko azala i birreroste-sari-eske.

YORK'eko DUKEA aurrera.

YORK.—Ene yaun, aurrendarien buru izan nadila eskatuten dautsut apalik apalen eta belaunbiko.

END. B.—Artu egik gura c'okan ori, York adoretu. Aurrera orain, gudariok; eta, Yaungoikoa, Zeuri eder yatsunez ebatzi egun onetakoa! (Alde dagie).

IV AGERIEKU.--Gudategia.

Guda-otsak. Sarrerak. Pantzetar gudari bat, PISTOL eta Mutikoa aurrera.

PIST.—Men egik, txakur orrek!

P. GUD.—"Aitonseme onetariko azala uste yoat".

PIST.—Onetariko! "Callino, castore me!" (4) Aitonseme augu, ala? Zer yak izena? Azaldu egidak.

P. GUD.—"Ene Yaungoiko Yaun. "O Seigneur Dieu!".

PIST.—Ui! a.'lonseme izan bear Signieur Dew'k; ausmertu egizak r.ire itzak, Signieur Dew orrek, eta oar akie; sastakai-mokoa il bear dok, Signieur Dew, birreroste-sari bikainen bat emon ezpa'dagistak, Ui Signieur orrek.

P. GUD.—Ui! erruki zakidaz! Nire erruki izan egik! (O prenez misericorde! ayez pitie de moi!).

PIST.—"Moy"rik eztok gauz izango ezetarako; berrogei "moy" (5) bear dodaz nik; ostantxean eztarritik aterako dauskat ire birreroste-ordaina, odol gorri tantanetan.

P. GUD.—Ezina ete dok ire besoko indarretik igesi egitea?

PIST.—Basoa opatuten daustakala, txakur orrek? Basoa opatuten daustak basa-aker gaiztetsi lizun orrek?

P. GUD.—Ui! parkatu nagik.

PIST.—Ori diraustak? "moy" mendien bat dok ori, ala? Ator ona, mutiko; Pantzeraz itandu egioi yopu oni zer yakon izena.

MUT.—Entzun: zer yak izena?

P. GUD.—Monsieur le Fer.

MUT.—Master Fer yakola izena diño.

PIST.—Master Fer! Neuk ezpatea atera, yo ta ortik zear aurrean eroango yoat ori: au esaiok Pantzeraz.

MUT.—Eztaikit zelan esaten dan Pantzeraz ezpatea atera, yo ta aurrean eroan.

PIST.—Gertau dadila esan egioi, iduna moztuko yautsat-eta.

P. GUD.—Zer diño, yaun?

MUT.—Gertau zadizala esan dagitsudala dirauts, gudari ori zuri iduna moztuteko ger-turik dago-ta.

PIST.—Bai, iduna moztu, bai orixe, baserri-tar, burestun batzuk emon ezpa'dagistazak, burestun ederrak, gero!; ostantxean, nire ezpata onegaz lorrindurik geldituko az.

P. GUD.—Ui! arren, Yaungoikoa-arren, azket-si nagik! Etxe oneko aitonseme nok ni: bizirik itxi r.egik, bai, eta berreun ikurdi emon-go dauskadaz,

PIST.—Zer esan gura yoek orren itzak?

MUT.—Bizirik itxi dagizula eske dagotsu; etxe oneko aitonseme da; ta bere birreroste-ordaintzat beneun burestun emongo ei dautsuz dirutan.

PIST.—Nire asarrea ibitu dala esaiok, eta artuko dodazala burestunok.

P. GUD.—Zer yiñok orrek, txotxo?

MUT.—Atxilorik bizirik iztea bere zinaz besterako izan-arren, zuk agíndu dautsazuzan ikurdiakaitik, gerturik dagola zu yareiteko, zu azke izteko.

P. GUD.—Milla eskar damotsudaz nire belau-nen ganean; eta zori ontsutat dot nire burua zaldunetariko baten eskuetan yausi nazalako, nire ustez, Ingelanda'ko yaunik adoretsuen, kementsuen, berezienaren eskuetan.

PIST.—Azaldu egidak orrako ori, mutiko.

MUT.—Milla eskarrik asko damotsuz orrek bere belau-nen ganean; eta zori ontsutat dau bere burua, bere ustez Ingelanda'ko yaunik adoretsuen, kementsuen eta aintza-koen baten eskuetan yausi dalako.

PIST.—Odola edoskiten dabenetariko izan-arren ni, erakutsiko yoat nik errukirik arean. Arraikit! (Alde).

MUT.—Zarraikioz gudaiburu andiari. (Alde P. Gudariak). Eguño eztoz ikusi olcmgo abots beterik, olango biotz utsetik urteten; baña egia diño arako esakereak, "Ontzi utsak egin daroa otsik geien". Beñolako antzerki-ko txerren orroalarí (6) au baño amar bi-

(4) Itzokaz zer esan gura dauen, zer ukutuen dauen Pistol'ek eztokie Ingelandar Shakespeare'n aztertzarrik onenak eurok be.

(5) "Moy" dalako au Portugal'go txanpon edo tximkien bat ei zan, Pantzerarrk ez ekian Pistol'entzoko. Pantzeraz "moi" itzak besterik esan gura izan-arren.

(6) Lenagoko "misteri" edo siniskizun-antzerkietan Txerrena be agertuiten zan notin antzeztuen artean, eta bere egikizuna etxar-tebideetan orroa itzalak egin eta geztook aurrean sulezoio atetarantza eroatea zon. Txarrindarra zan Txerrenaren ktgun aren egikizun-ean. Erpatzarrak antzeztuten eben Txerrena; Txarrindarrak, ostera, zurezko ezpatea erabilten ebon bere eskuetan, eta iñondiko aleginak egin Txerrenarí zurezko ezpata orre-gaz aren erpatzarrak ebateko, noiz ta alpe-rrik egin aleginok. Pistol arroputz zaratatsua-

der be adoretsuago ziran Bardolba ta Nym, edonok moztu daikeoz, ba, oni erpak zurezko ezpateagaz; eta aik biak dagoz eskegirik; eta au berau be eskegirik legoke alanbearrez ezer ostuten azarri ba'ledi. Otseine-

kaz gelditu bear dot, gure gualtegi gu-durako zerak: goakizon ederra leukie Pantze'iarrak gureun, onen barririk ba'l-be; zerok yagoteko mutikoez besterik an eztago-ta. (Alde dagi).

V AGERLEKU.--Gudategiko beste arlo bat.

Guda-otsak. DELBINA, ORLEANS, BOURBON, Guialburu Nagusia, RAMBURES, eta beste batzuk aurrera.

GUDALB.—Txerren ori!

ORL.—Ene yaun! galdurik da eguna, dana da galdurik!

DELB.—Nire biziaren eriotzea! Dana dago nasturik, dan-dana! Akarra ta betiko lotsaria dagoz gure kukutzetan guri irrika. Zoriarren txar be txar! Ez egizue igesi (Gudu-ots labur bat).

GUDALB.—Ba! gure gudari-lerro guztiak dagoz natiturik.

DELB.—Lotsariaren betiko baño betikoago! Geure buruak erail dagiguzan sastakaika. oneik ete dira guk diteretan yokaturiko arako errukarriak?

ORL.—Au ete da birreroste-ordaina eskatu geuntsan bakalduna?

BOURB.—Lotsaria, eta betiko lotsaria, eta lo-

tsariaz besterik ezer ez! Omenagaz il gadian atzera beste bein; eta orain Bourbon'en yarraï yoan gura eztauenak, alde egin dagiala emendik eta, bere txapela eskuan dauela, maitekeri-bitariefko zirtzilak legetxe, lo-gela atea yagon dagiala, nire txakurra baño bape zindoago eztan yopuren batek bere alabarik lirainena muskildu ta mutxikinduten daragoion bitartean.

GUDALB.—Erarik ezak galdu gauz len, eta orain geure alde dogu! Mordoka goakiezan ganera Ingelandarroi, gure biziak opatutin, naiz, ostantxean il, gure entzutea galtzeka.

ORL.—Ingelandarrok gureen mordopean zapaldu ta itoteko lain ba-gara bizirik oraindik gudategian, ezetarik erarik ba'geu.

BOURB.—Txerrenak beroa orain ere! Mordo nastura noa ni neu: laburtu dagtgun bizia, ostantxean lotsaria luzeegi egingo yaku-ta. (Alde dagie).

VI AGERLEKU.-Gudategiko beste arlo bat.

Guda-otsak. ENDIKA BAKALDUNA ta Indarrak aurrera, EXETER eta beste batzuk.

END. B.—Ordo yokatu dogu, aberkide adoretu be adoretuok: baño egiteko guztia eztago eginik; oindiño be Pantzetarrak eustsin deutsoe gudategiari.

EXET.—Gorantziak bidalten dautsaz York'eko Dukeak zure nagusiagotzeari.

END. B.—Bizirik da a, ala, osaba on? Ordu onen barruan iru bider ikusi dot a lurrean: beste iru bider yagiten, eta burrukan; burrukoskoletik aztaletaraño dana zan a odol.

EXET.—Eta apaingarri orretan datza gudari adoretu a, zelaia apainduten; eta aren aldamen odolduan, aren zauri omengarrien buztarkide datza Suffolk'eko Konde zindoa be. Suffolk il da lenen; eta York, zauriz yosirik lurrean odolez busti- bustirik eta etzanik egoana, konorteratu egin da ta okotetik eldu dautso, mun egin dautse aren arpegiko zauri ago-zabalai, eta negar zoliz esan

dautso: "Etxoik, Suffoik lengusu maite! Ire gogoaren lagun izan bear yok nireak zerrura-bidean; etxoioik nireari, gogo ezti orrek gero egabardin egaz egiteko; gudategi aintzatsu ta bertan burruka ondo egin danean, gure zalduntzan batera egcn gareanez!". Itzok entzun-ala eldu natxako, ta adoretuteko itz batzuk esan dautsadaz; irribarre egin daust, eskua luzatu daust, eta eskua nekez estutuaz, au esan daust: "Ene yaun maite, nire otseintzak gogoratu egiozak nire nagusiari". Ori esandakoan. beste alderantzira bira eginik, Suffolk'en idunean imini dau bere beso zauritua, ta mun egin dautso ezpanetan; eta olan, eriotzeagaz ezkondurik, odolez ikurraztu dau zindoro ilten dan maitasunaren ilburukoa. Nik, negarrik egin gu-

gan be mutikkak emen arako Txerrenaren ontza dakus, arako Txerrenak lez geztorik gcatu baño orroa geiagi egi'en eban-eta.

ra izan ez-arren, negar eragin daust fuskizun samur orrek; enaz izan nsgarrai bidea isteko beslean gizon-eta, nire ama guztia etorri yat begietara-ta, itxi egin dautset nire negarrai euren bidea artzen.

END. B.—Eztoz egin orretan zer txarrik; iri orrako ori entzunaz, ba, neuk be burruka egin bear yoal nire begi lausotuakaz, os-

tantxean eurok be negar egingo yoek-eta. (Gudu-otsa) Baña, entzun! Zetarako ete da gudarako dei barri au? Batu egin dabez Panlzetarrak euren gizon sakabanaluak, barien barri erasoteko: au dala-ta, gudari bakotxak erail dagizala bere atxiloak; agindu au emon gudarosteari. (Alde dagie).

VII AGERLEKU.-Gud0legiko beste arlo bat.

Guda-otsak. FLUELLEN eta GOWER aurrera.

FLUEL.—Erail mutflak eta oslu gudaroslearen zerak! Gudu-legeez beslerako dok ori, agiri agirian zitalkeri ulsa dok ori, aiko, izan ledikenik andiena; ire yakinkidetzak ez ete yok olangotzat?

GOWER.—Egia dok mutilik bat be ezlala gel-ditu bizirik; eta gudakelatik igesi daben zitalak egin yoek tiiskantza au: orrez ganera, erre ta eroan egin yoek bakaldunaren txoznan aurkitulen zan guztia; orregaitik, zuzenez be zuzenez agindu yok bakaldunak gudari bakoxtak bere atxiloai burua moztuteko. Ene! adorelsu dok gure bakalduna!

FLUEL.—Bai. Monmouth'en yai0a dok a, Gower Gudalburu. Zer xakok izena Alesander Aundia yai0 zan uriari?

GOWER.—Alesander Andia.

FLUEL.—Arren, aunidi ezlok, ba, andi, ala? Aundi, naiz Andi, naiz altsu, naiz itzal, naiz biotzabal, zer guztiok dituk bal, ilzelako alde apurrari baztarrera eraginazkero.

GOWER.—Makedon'en yai0 zala Alesander Andia uste yoat nik; Makedon'go Pillipa yakoan izena aren aitari, nik uste dodanez.

FLUEL.—Makedon dala usle xuat Alesander yai0 zan lekua. Aiko, gudalburu, Ludiaren luhirudia begiratu ba'dagik, an ikusikok, bai orixe, leku bixok, Makedon eta Monmouth'ek bajdabela alkarren antzik. Ba-xagok ibairik Makedon'en, eta bai Monmouth'en be; Mye xakok izena Monmouth'ekoarí; baña ezin xuat gomutau zer xakon izena beste ibaiari; baña etxok ardura, nire atzak alkarren antzeko diran bestean alkarren antzeko dituk biak, eta bietan dituk izokiak. Alesander'en bizitzearí ondo oa ba'akio, Monmouth'eko Endika'ren bizitzea egin-eginean arena langoxe dok, batetik bestera ezetarik aldeik baga edozetan dituk, ba, *ái*-karren antzeko. Alesander'ek (ba-xakik Yaungofoak, eta ik euk be ba-dakik), bere asarre, sumin, gogaldi txarretan (bai ba,

orduan bere burua moteldu ta lausoturik geldítuten xoikuan-eta), bere gogaldi txar eta asarraldian erail egin xuan Killa, bere adiskiderik onena.

GOWER.—Gure bakalduna eztoz olangorik orrelan: ak etxok erail eguño bere adiskiderik.

FLUEL.—Etxagok ondo eginda, aiko, nire ipuinak, amaitu bagarik, oiaindik agoan diiala, eietea. Iiudixak eta alkanen arlean dituen aldeak ekarten diardual; Alesander'ek, mozkorturik eta zer egiten eban oarlzeka bere adiskide Killa erail eban legetxe, Endika Monmouth'ek be, sentsuak osorik eta burua argi zituala, beragandik ortik ziar bidali xuan zaldun gizen sabelaundixa: txantxaz, izkirimiriz, lotsabakokeriz, irriz beterik xeguan a! aztu egin xatak zer xakon ari izena.

GOWER.—Sir Yon Falslaii.

FLUEL.—Bai, izan be: yakik gizon onik yai0 izan dala Monmouth'en.

GOWER.—Emen yatok bere nagusiagotzea.

Guda-otsak. ENDIKA BAKALDUNA aurrera, Ingelandarren Indarren atal bategaz: WARWICK, GLOSTER, EXETER, eta beste batzuk be bai.

END. B.—Pantzeratu ninlzanazkero enaz asarritu oraintxe arte. Tutu bat artu egik, aldarrikari; oa zaldiz an aragoko mendi-ganean dagozan zaldizkoakana; gugaz burrukarik egin gura ba'yoek, yatsi dadizala andik, naiz alde dagiela gudategítik; min egiten yauskuk eurak ikusteak: ez bata, ez besterik egin gura ezpa'yoek, geu yoango gozak eurakana, eta alde eragingo yautseguk, beñolako Asitarren aballetatiko arriak bestean arin: orrez ganera, emen doguzanai idunak moztuko dautseguzala; eta eurretaiik guk goatu dagigun gizonak eztauela izango gure erukirik; oa, eta au esaiek.

EXET.—Emen dator Pantzetarren aldarrikaria, ene nagusi.

GLOST.—Len ekarten ebazan baño apalago dakaz bere begiak.

MONTJOY aurrera.

END. B.—Kaxo! Zer dok ori. aldarrikari? Ezta kik azurrok dodazala baiturik nire birreros-te-ordaintzat, ala? Birreros-te-ordain-eske ator ostera be, ala?

MONT.—Ez, bakaldun andi; zure baietz erru-kiorraren billa ta eske natortsu ni, gudategi odoldua arakatu ta ilen izenak artu ta ilobiratu dagiguzan; gure aitonsemeak erritarrakandik banandufeko, gure bakalseme asko dagoz, ba (egunaren zori txarreko!), alogerekoen odoletan itorik, eta busti busti eginik, etzanda: gure baserritarren soñak eurak be olantxe dagoz bakalsemeen odoletan busti ta itorik; eta euren zaldi zaurituak ilen odoletan apatxak baño gorago sarturik, minaren minez ago-burdiñai aginka, ta burdindun apatxak eragi ta euren ugazaba ilai ostikoka daragoioe, aik birritan erailaz, Ui! zure baietza emoiguzu, bakaldun andi, gudategia galtzoririk бага arakatu, ta arein gorpu ilekazkoa egin dagigun!

END. B.—Zera dirauskat, aldarrikari, eta benetan esan be, ezta kidala ondiño eguna gure danentz; ondiño, ba, ainbat zaldizko agiri dozak gudategian, eta lau-oñean yabiltzak batetik besteraka.

MONT.—Zuona da eguna.

END. B.—Goratua bedi Yaungoikoa orregaitik, eta ez gure indarrik' Zer yakok izena or ur dagon gazteluari?

MONT.—Agincourt deretxo. Olan deituten dabe.

END. B.—Olan dala, Agincourt'eko gudaketa deituko dogu gaurkoa, Kirispin eta Kirispian' en egunez egina.

FLUEL.—Eder ba'dakio zure nagusiagotzeari, gomuta entzutsudun zure aitaitak, eta zure birrosaba Kimuruerri'ko Bakalseme Baltz Edoria'k be, egunkarietan irakurri dodanez, gudaketa itzal baño itzalagoa irabazi eben emen Pantze'n.

END. B.—Bai, yokatu ta irabazi yoen, Fluelen.

FLUEL.—Egia diño zure nagusiagotzeak; gомutan ba'dau zure nagusiagotzeak, osein-tza ona egin eben Kimuruarrak porruak egozan baratz baten, Monmouth'eko euren txapeletan porruak eroezala; eta, zure nagusiagotzeak ondo dakianez, gaurko egune-

rarte darabilez, euren otseintzearen agiri ta gomutatatz; eta seguru nago ni zure nagusiagotzeak eztautsata egiten iririk Dabita Gurenaren egunez porrua aldean daroaneri.

END. B.—Neuk be erabilten yoat omen gomutagarritzat; ba-dakik, ba, aberkide maite, neu be Kimuruar nazala.

FLUEL.—Wye ibaiko ur guztia be ezta asko zure nagusiagotzearen soñetik zure Kimuruodola ezabatzeke; ez, ezta asko: Yaungoikoak onetsi ta yagon dagiala Bere eskarrari ta zure nagusiagotzeari be eder xaken bitartean!

END. B.—Eskarrik asko, ene aberkide on, FLUEL.—Yosu-arren, zure nagusiagotzearen aberkide nozu ni, eta eztoz ardura orrako orren barri nok yakinek; mundu guztiari autortu dotsat orrako ori: eztoz nik zegaitik izan lotsarik (Goratua bedi Yaungoikoa), zure nagusiagotzea gizon zindo dan bitartean.

END. B.—Olangotzat iraunazoko al yaustak Yaungoikoak! Gure aldarrikariak be doazala orregaz; gure alderdi bietan il diranen zenbaki eginaren barri ekarri egidazue. An aragoan dagon urlari dei egiozue ona etorri dadin (WILLIAMS darakus. Alde MONTJOY'k eta beate batzuk).

EXET.—I, gudari, bakaldunagana etorri bear dok.

END. B.—I, gudari, zegaitik darabilk eskuzorro ori ire txapelean?

W'LL.—Zure nagusiagotzeari eder izatekotan, bizirik ba'da, beragaz burruka egin bear dodanaren baia da au.

END. B.—Ingelanderren bat dok, ala?

WILL.—Zure nagusiagotzeari eder ba'lekio, bart arropuzkeririk asko esan eta eupada egin daustan zitala da a; eta, bizirik ba'da, ta iñoz eskuzorri oni eupada egiten azarri ba'dadi, zin eginda nago belarrondoko bat emongo dautsadala ari; naiz, nire eskuzorroa aren txapelean ikusi ba'dagit (Eta zin egin daust ak, b;zirik izaiekctan, gudari dan bestean seguru aldean eroango ebal), emotekoak emongo dautsadaz.

END. B.—Zer uste dok ik, Fluellen Gudalburu? Egoki ete dok gudari onek bere zinari eustea?

FLUEL.—Kikil, ollo ta zital litzake ostantxean, nire yakinkidetaz, eta zuri eder ba'xatsu.

END. B.—Ba-ledikek orren burruka-laguna andikietarikoan bat izan eta ak orri ezin erantzun izatea be, au aren mallakorik eztalako.

FLUEL.—Txerrena bera besteko. Lukiper eta Beltzebu bera lain andiki yator izan ba'ledi

be a, bearreko da (oar bekio onako oni zure eskarra ak bere agindu ta zinari eus-tea; zina ausi ba'dagi ak, aiko, bere oski baltzakaz Yaungoikoaren lur au eguño zapaldu izan dauen zitalik zitelen eta zirtzilik zirtzilaren entzutea baño beerago geldituko da aren entzutea, nire yakinkidetzek diraustanez, Aor.

END. B.—Olan izatekotan, i, txotxo, eutsiok ire aginduari, ire eupadakide orregaz trikitx egin dagikanean.

WILL.—Egingo dot orrako ori, ene nagusi. bi-zi nazan bestean seguru.

END. B.—Noren bendeko gudari augu?

WILL.—Gower Gudalburuaren bendeko, ene nagusi.

FLUEL.—Gudalburu adoretzu da Gower, eta gduetan yakitun eta asko irakurria xatsu.

END. B.—Onako dei egiok, gudari.

WILL.—Egingo dautsat, ene nagusi. (Alde dagi).

END. B.—Autso, Fluellen; ik erabili egik zer au, eta ire txapelari deusala euki egik; Alençon eta ni, gu biok batera lurrean gen-gozanean, ari bere buru-koskoletik kendu naieutsan eskuzorro au; ezetariko gizonek eupadarik egin ba'dagio eskuzorro oni, Alençon'en adiskide dok orrako ori, eta gu-re arerio; olangorik iñogaz trikitx egin ba'dagik, eldu egiok, ni maite nokan bestean seguru.

VIII AGERLEKU-ENDIKA BAKALDUNA'ren Txoznea.

GOWER eia WILLIAMS aurrera.

WILL.—Seguru be seguru nago ni, gudalburu, zaldunduteko deitu zauzala.

FLUELLEN aurrera.

FLUEL.—Yaungoikoaren gura ta atsegina-arren, gudalburu, zoaz arin bakaldunagana, arren; ba-Iedike zuk olangoren amesik be izan daikezun baño be on andiagorik zure begira egotea.

WILL.—Yaun, ezagun ete dozu eskuzorro au?

FLUEL.—Eskuzorroa ezagun dodanentz! Eskuzorroa eskuzorro dala dok nik dakidana.

WILL.—Nik ezagun yoat au; eta, au dala-ta, eupada egiten yausat. (Yo egiten dau FLUELLEN).

FLUEL.—Yaungoikoaren odola-arren, mundu osoan, naiz Pantze'n, naiz Ingelanda'n aurkitu lediken azpiyalerik andiena augu i!

FLUEL.—Zure bendekok bere biotzean izan legiken irrikarik andiena añako omen andia dagist zure eskarrak: pozarren nekuske zango bi baño eleukezan gizona, eskuzorro cra ikusteak asarratuko leukena, Aor; bein ikusi gura neunke a, eta Yaungoikoari eder izango al xako nik a ikusi al izatea.

END. B.—Ezagun ete dok Gower?

FLUEL.—Adiskide maite xat, zuri eder ba'xatsu.

END. B.—Arren, oa aren billa, ta nire txoznara ekarri egik.

FLUEL.—Ba-noa aren billa. (Alde dagi).

END. B.—Warwick'eko ene Lord, eta nire anai Gloster, zoaze atzetik ara Fiuellen'en yarra; ba-ledike esku-agiritzat ari emon dautsadan eskuzorroak ari belarrondokoren bat ekarte; arako gudariarena da; alkarregazko itunbenaren arauz, neuk erabili bear neunke. Zarraikioz, Warwick lengusu on; guda riak a yo ba'dagi (eta bere yardukera zirtizartakotik susrnetan dodanez, eutsin egingo dautso gudariak bere itzari), bertatiko okerren bat sortu ledike ortik; ba-dakit, ba, adoretzu dala Fluellen eta, bein asarratuazkero, auodi-autsa bestean bero be ba-dala-ta, bertatik erantzungo dautso ak irainari; zarraikioez ta arduratu zadize, alkarri okerrik eta kalterik egin eztagitsen. Neugaz zatoz zu, Exeter'ko osaba. (Alde dagie).

GOWER.—Onangorik, yaun! I, zital ori!

WILL.—Nire zina ausi egingo dodala uste dok, ala?

FLUEL.—Ken akit, baztatu adi, Gower Gudalburu; azpikeriari bere ordaina emon gura xotsat zartadaka, baí orixe!

WILL.—Enik ni azpiyalerik, ez etoirik.

FLUEL.—Guzur ori iruntsi egingo dostak. Bere nagusiagotzearen izenean aginduten dostak, eskuak ezarri egiozak; Alençon'go Dukearen aiskide dok ori.

WARWICK eta GLOSTER aurrera.

WAR,—Onangorik, onangorik! Zer yazoten da?

FLUEL.—Warwick"eko ene Lord, azpikeririk intsigikorrena argitaratu da emen (eta Yaungoikoa goratua bedi orregaitik!), afko, uda-ko egunik argiena baño argiango aertu dok. Amen bere nagusiagotzea.

ENDIKA BAKALDUNA ta EXETER aurrera.

END. B.—Onangorik! Zer yazoten da?

FLUEL.—Ene nagusi, emen dozu azpiyale zital bat, bekus zure eskarrak, Alençon'en burukoskoletik zure nagusiagotzeak kendutako eskuzorroa yo dauena,

WILL.—Ene nagusi, nire zan a eskuzorroa; amen aren laguna; eta nik berearen ordege emon neuntsanak bere txapelean eroango ebalagindu eustan: eta eroatekotan, yo egingo neunkela agindu neuntsan: bere txapelean nire eskuzorroa eroala aurkitu dot gizon au, eta nik nire itza besteko izan gura izan dot.

FLUEL.—Zure nagusiagotzeak bentzu orain (zure nagusiagotzeari beccr xakon lotseagaz) zelako zital uts, zirtzil, eskekoar, eta zorritsu dan ori: ba-dot nik itxarorik zure nagusiagotzeak nire alde autortu ta nire lekukotzea egingo dauela, eta zure yakinkidetzeak aginduten dautsunez, autortuko daustazula orain zuk Alençon'goari kendu ta niri emona dala eskuzorro au.

END. B.—Ekadak ire eskuzorroa, gudari; aiko, emen yagok orren laguna. Neu izan nintzoan, izan be, ik yoko euala agindu euna; eta irain gordinak egin be egin daustazak.

FLUEL.—Zure nagusiagotzeari eder ba'dakio, munduan ezetariko guda-legerik ba'dago, orren idunak erantzun dagiala.

END. B.—Zelan azaskatuko ete nok?

WILL.—Biotzetik datoz irain guztiak, ene nagusi; baña nire biotzetik ezta urten eguño nagusiagotzeari min egitekorik.

END. B.—Geu erabili ginduzuzan zuk txarto.

WILL.—Bera zanez etzan agertu zure nagusiagotzea; edozein gizon lege agertu zintxatazan zu; gaua, zure soñekoak, zure zirtiltasuna bediz aurtorla ta lekuko; eta zure goikotasunak orduan yasana, arren, zeure errutzat artuko al dozu, ez nire errutzat; zu aintzakotzct artu zindudazanik ba'zintzaz, ba, nik eneuntsun egin irainik; au dala-ta, arrenka nagoko zure goikotasunari, azketsi, parkatu nagizula.

END. B.—Eutsi, Exeter osaba, burestunez bete egizu eskuzorro au, eta emioizu urli oni. Eutzako ori. lagun; eta omengarritzat erabili egik ire txapelean, nik eupada egin arte.--Emoiozuez burestunak: eta, gudalburu, adiskide izan bear atxako orri.

FLUEL.—Egun au eta esku au-arren, adorerik asko dau txotxo orrek bere sabelean: autso, or dituk eutzako amabi peni; eta, arren, Yaungoikoaren otsein izan, eta burruka ta

asarreetatik, eztabaidetatik, eta aiko-maikoe-tatik alde egingo al dok eta, bai orixe! askozaz oba izango xak.

WILL.—Etxoat bear ire dirurik.

FLUEL.—Biotz onetiko dok; aiko, bestetarako ezpa'dok, ire oskiak adabatuteko izango dok: tiruk, zegaitik izan bear dok orren lortor? Onegirik ezituk ire oskiak: xilin ederra dok, bai orixe! Ostantxean, ausitan emongo doskat.

Ingelandar Aldarrikari bat aurrera.

END. B.—Kaxo, aldarrikari..., zenbatu dozuez ilak, ala?

ALDAR —Amen Pantzetar ilen zenbakia (Ingi edo p-<pel hat damols~;)

END. B.—Aridikietatik zenbat atxilo doguz, osha?

EXET.—Karla Orleans'ko Dukea, bakaldunaren lobeja; Yon Bourbon'go Dukea, ta Bouciqualt andikia: beste andiki, baron, zaldun, eta "esquire'n artean amabosteun, zenbaki borobiletan, gizon arruntzarrez ganera.

END B.—Gudategian ilik datzaen Pantzetarrak eun milla dirala dirausku agiritxo onek: zenbaki onetatik, bakalseme, ta ikurrindun andikietatik, eun eta ogei ta sef datzae ilik; onako oneiz ganera, zaldun, esquire, ta aitonseme adoresutan, zortzi milla ta bereun; eta eurotatik bosteun atzo zaldunduak baño eztira: olan dala, galdu dabezan amar millaotan seireun alogereko baño eztagoz; bakalseme, baron, andiki, zaldun, esquire, ta odol garbiko ta zelangotasuneko dira besteak. Amezan ilik datzaen euren andikien izenak: Karla De-la-bret, Pantze'ko Gudalburu Nagusia; Chatillon'go Yagoba, Pantze'ko amirala; kurutze-arranbeldunen buru, Rambures andikia; Pantze'ko Gudalburu Andi, Guischarde yaun adoretsu Delbina; Yon Alençon'go Dukea; Andoni, Brabant'eko Dukea, Burgundy'ko Dukearen anaiea; eta Edorta, Bar'ko Dukea: Konde mardul gordinetatik, Grandpree ta Roussi, Fauconberg eta Foix, Beaumont eta Marle, Vaudemont eta Lestrade. Laguntalde bakaldarra izan da eriotza onetan! Nondik da gure Ingelandar ilen zenbakia? (Beste ingi edo papelpel bat esukeintzen dautso aldarrikariak). Edorta York'eko Dukea, Suffolk'eko kondea, Sir Errikarta Ketly, Dabita Garn, esquire'a; izengoitidunik besterik bat bez; eta beste gizon guztietatik ogei ta bost fcaño ez. Ene Yaungoikoa! Zure besoa agiri izan da emen, eta Zure besoari bakarrik, ez guri, damotsagu onako zer onan egilatzea! Non, ezeta-

riko marro bagarik, alkar yote garbian eta gudaketa bardinean ezagutu izan da eguño alde batetik onen gibti, eta bestetik onenbesteko galtzerik? Zeuretzat artu egizu, Yaungoikoa, onako au, zeurez besterenik ezta-ta!

EXET.—Itzaletan be itzala da au!

END. B.—Tira, goazen len-urrenka uriskara; eta eriozkarriztat aldarrikatu bedi onako onetzaz ilarraindutea, onako onetzaz arropuztutea, eta onako onegazko çorapena Berari bakarrik zor yakon Yaungoikoari kentzea.

FLUEL.—Ez ete da legezko ta zilegi, zure nagusiagotzeari eder izatekotan, zenbat il diran esatea?

END. B.—Bai, gudaiburu; baña zer au autoriturik, Yaungoikoak egin dauela burruka gure alde.

FLUEL.—Bai, nire yakinkidetzak diraustanez, on andia egin 'dausku Ak.

END. B.—Onango eretietako egikizun guren guztiak dagiguzan: "Non nobis" eta "Te Deum" abestu dagiela; erukiz lurperatu dazizala ilak: bein orrako ori egindakoa, Calais'era yoango gara; eta Ingelanda'ra andik; eguño ara Pantze'tik gu baño gizon zori ontsuagorik eldu eztan Ingelanda'ra. (Alde dogie).

Abestaldearena dagiana aurrera.

ABEST.—Ontzat artu egizue yazokuneko goraberok irakurri eztebezanai nik iragartea; eta irakurri dabezanai eske nagoke, nire burua zuritutzat etsi dagiela zeron aldi, zerbaki ta lenago-geroagotasunaren aldetik; apal apal eskatuten dautset onako au, zerok dabeneuren anditasun eta bizitasunean emen erakustea ezina da-ta. Calais'erantza daroagu orain bakalduna: an dagola iruditu egizue; bein an ikusiakero, egodun zuon gogaiei ganean andik artez itsasoratu egizue. Aor, ikusi Ingelanda'ko itsas-baztarra gizeozko, emakumezko, ta mutikozko izkora zurbil ez estalirik, eta euren gedarrak eta oioak eta txaloak, itsaso ago-zabalak baño ots andiagoo ateraten dabela, bai, puzlari altsuk lez, bakaldunari bidean txera dagiola dirudian itsaso ago-zabalak baño ots

andiagoo: olan legorreratu dadila; eta London'erako bidean ben-ben doala ikusi egizue. Oinkada orren bizkorak dauz gogaiek-eta, Blackheath'en iruditu egizue a oraintxe; ak an bere aurrean bere buru-koskol mallatua ta bere ezpata okertua eroan dagizala gura dabe bere lodak, uria zear: gala-zo egiten dau ak orrako ori, bere biotza uskeritik eta arrokeritik urrin dago-ta; arrandj, erakuste, ta andiuste osoa bere buruari bagarik, Yaungoikoari emonik, Baña, begira orain, gogaiearen sutegi bizi ta lantegian, zelan London uslu dan eta bere etxar-tebideetara ixurten dauzan bere uritarrak! Endorea ta bere agintzakide guztiak, soñekorik txairoenakaz (Beñolako Erroma zarreko agure-batzarrekoen antzera), atzetik ara erritarrak eurrez orpoz orpo doakezala, urteten dira euren etxeetatik, eta uri-barruan artzeko, euren Kaiser benderatzallearen billa doazala; txikiagorik bai, baña orren antzeko litzake gure bakalduno eskartsuaren gudaiburuari, ango ataldatzea bere ezpatan sarturik, Eire'tik etorri ledikenez etorri ba'ledi, ari egingo litxakion elduerako txerea; ainbeste ta ainbeste urtengo litzatekez uri baketsutik ari txera egiteko! Bide gei-go, askozab be biderik geiago izan zan Endika'ri txera egiten urteteko. London'en imini egizue orain; oraindik negarrez eta intzirika daragoioen Pantzetarrak, etxean egotera bultzetan dabe Ingelanda'ko bakalduna; ba-dator Inberadorea (7) Pantze'ren aldetik, Pantze ta Ingelanda'ren arteko ba-keak egiteko; eta itxi egizue oraindik ara Endika atzera Pantze'ra yoan-bitarteko yazokune guztiak, diranak dirala; ara eroan bear dogu; eta neuk egin dot bien bitarte-koarena, igaroa igarorik dagola zuoi gomutatuaz. Parkatu, ba, laburpena; eta zuon gogaiei atzetik, ara eroan zuon begiak be bertatik, atzera Pantze'ra. (Alde dagi).

(7) Holinshed Ingelaandar edesti-idazleak diñenez, 1416 gn. urteko Orrilean eldu zan Ingelanda'ra Segismunda Inberadorea, beste zereginen artean, Ingelanda ta Pantze'ren arteko itunbena egiteko; bein itunbena eginazkero iinurak Turkarren aurka yoateko.

V EKITALDI

I AGERLEKU.-Ingelander Yagola-talde bat.

FLUELLEN eta GOWER aurrera.

GOWER.—Ez, ondo yagok ori; baña zegaitik darabilk gaur porrurik? Yoanik dok Dabita Gurenaren eguna.

FLUEL.—Zer guztiak xuai euren zegaiti ta zetarakoa: nire adiskide aut i, Gower Gudalburu-ta, neuk esango doskat zegaitik darabilan: Pistol zital, pinportatsu, eskekoar, zorritsu, arropuzak, ik euk, nik, eta mundu guztiak dakigunez, aiko, ezetan aintzakorik eztan txotxoa etorri xatak atzo, eta ogía ta gatza ekarri xostzak, aiko, eta nire porrua yan dagidala eskatu xostak: nik burrukarik ezin negikean lekuan yazo zoon orrako ori; baña a barriro ikusi arte aldean eroateraño azarri izango nok, eta orduan esango xotsadaz esatekoak eta erdi.

GOWER.—Ba! emen yatok a indi-ollarra baña arroago ta puztuago.

FLUEL.—Yaungoikoak onetsiko al au, Pistol Ikurrindun! Zital zakar, kihil, zorritsu ori, Yaungoikoak onetsiko al au!

PIST.—Ba! Burutik eginda ago, ala? Egarri az, ala, Toroitar zirtzil ori, Parka'ren aril alan-beartsua niri azkatuazoteko? Ken akiti! Gexotu egiten naiok porruaren andurrak.

FLUEL.—Biotz biotzez arren egiten doskat. zital pinportatsu, zorritsu, nire gurariz, nire eskariz, nire aginduz, yan dagikala, aiko, porru au: ba, aiko, iri atsegin izan ez-arren, ire gogoko izan ez-arren, ik orretarako yangarrik izan ez-arren, ire urdalleak ok egin gura izan-arren, ik porru au yatea gura xuat.

PIST.—Ez Cadwallader eta bere aker guztia-kaitik be (8).

FLUEL.—Autso aker bat utzako (Yo egiten d eru). Yango ete dok, zital pinportatsu orrek?

PIST.—Toroitar zirtzil ori, egin bear yok ireak.

FLUEL.—Egi be egia diñok, zital pinportatsu orrek..., egingo xok Yaungoikoak nai daue-nean: bitartean bizi ta yango al dok ire yakia: tiruk, autso gozagarri apur bat (Barri-ro yoten d eru). Men'di-ikurdidun deitu nin-dukun ik atzo; baña gaur nik beeko malla-ko ikurdidun egingo aut. Usigi egiok, arren: porruri irri egiteko gauza ba'az, bera yan ezinik eztok ik.

GOWER.—Asko dok, bego, gudalburu: zurturik itxi dok ori.

FLUEL.—Porrurik arean yanazoko dotsat, gero! Ostantxean lau egunez eragoko dot orri kaskarra berotuten. Usigi egiok, arren: on dok ire zauri barrientzako ta ire kaskar odolduarentzako.

PIST.—Aginka egin bear dausat, usigi egin bear dot, ala?

FLUEL.—Bai, seguru be seguru ,eta zalaniza bagarik, eta aiko-maiko bagarik be, eta bai ezpai bagarik be.

PIST.—Porr u-arren, azaskatze itzal baño itzalagoa egingo dot: ba-dot yaten, ba-dot yaten, baña zin dagiti...

FLUEL.—Yaik, arren: gozagarri apur bat geia-go gura ete dok ire porruarentzako? Etxagok porrurik asko bera-arren zinik egiteko.

PIST.—Geldi eukik adaki ori: ba-dakusak yaten daragoiodala.

FLUEL.—Onik asko egingo al dosk, zital pinportatsu, biotzez opa doskat. Ez, deusik be ez egik egotzi, arren; on dok azala ire kaskar ausiarentzako. Urren porrurik ikusi dagikanean, irri egiok, arren: aor.

PIST.—Tira, ba.

FLUEL.—Bai, on dok porrua: autso, or dok "groat" bat ire kaskarra osatuteko.

PIST.—Groat bat niri!

FLUEL.—Bai, benetan eta egiz, artu bear dos-tak; ostantxean, emen sakelean xuat beste porru bat iri yanazoteko.

PIST.—Nire azaskatzearen baitzak artzen doskat ire groata.

FLUEL.—Ezer zor ba'doskat, adakika ordainduko doskat; egurdun izango az i, ta ada-

(8) Cadwallader au Kimuruerri'ko bakaldun entzutetsu da, entzutetsu bai edestiz, bcú ipuinez. Northumbria'ko bakaldun Oswy'k erail ebain gudafelan, 655'gn. urtean. Aspalditiko da auzokoak alkarri txarto esaka ibiltea, eta onango auzoak ziran eta dira IngelaTida ta Kimuruerri be. Menditsu da Kimuruerria, Ingelanda, ostera, geien baten zelai; Ingelanderrentzako Kimuruarrok, oneik menditcr ziralako, zakar, baldar eta ez-yakin ziran, izatez olangorik nai-ta-nai-ez izan ez-arren. Zertzat ete dabez Kimuruarrak euren auzoko Ingelandoirrak? Ollamdatz bat bcr gitxienez; ollanda apain txairrotzot, ez gizontzat, bitsuek adoretstu ta gizon izati-arren.

kiez besteik eztostak erosiko. Yaungoikoa lagun izango al ^ak, eta Beiak yagongo al au, eta kaskai ori osatuko al dosk. (Alde dagi).

PIST.—Eta sulezeari be eiagingo dautsat onako onegaitik.

GOWER.—Oa, oa; besterena egiten dauen zítal kihil baño ez az i. Ini ta bane egin bear ete dautsak Ienagokoakandiko zeiaii (Asia-rra begiragarria izan, eta lenagoko adorea- ren gomuta agiritzat daroena), eta euie egitez ez autoitu, ez eutsin iie itzik bateii be? Bi edo iuu aldiz ikusi aut aitonseme onen lepotik iiri ta bane egiten. Ingelandeiaz be- tokoen gatzez ezin egin dauelako, Ingelan- da'ko adakiiik eiabilteko etzala gauz izcin-

go uste izan dok; besteia dala ikusi dok; eta oiaindik aia Kimuiuanen zigotiak iia- katsiko al dausk Ingelandai onen yaidu- keia. Agui. (Alde dagi).

PIST.—Betzokoa okeitu beai ete daust oiain Zoiak? Ba-dot nik banirik gexotegian il da- la niie Nell, Pantze'tiko gatxagaz; eta an eztot nik ateipeiik. Zarrago ta beiago noa; eta niie azpegi nekatuetatik adakika ateaia dauste entzute ona. Tiia ba, emagaldubi- taiteko egingo naz, eta tiebetasun gitxiko sakel-lapur esku-arin. Ingelanda'ia yoango naz ixilka, eta ostu egingo dot an ixilka; an adabauko dodaz zauii-atzok, eta Ga- lliako guduetan aiituak diiala zín egingo dot. Alde dagi).

II AGERLEKU.-Champagne'ko TROYES. PANTZE'ko BAKALDUNA'ren Yauiegiko Gela bat.

Auneia. ate batetik. ENDIKA BAKALDUNA, BEDFORD, GLOSTER, EXETER, WARWICK, WESTMORELAND, eta beste Loid batzuk; bes- te ate batetik, PANTZE'ko BAKALDUNA, ELI- XABETE BAKALDUNOA, KATARINE BAKAL- ALABEA, Andikiak. Andeia Andikiak, eta abai, BURGUNDY'ko Dukea, ta beie Yanai- goa.

END. B.—Bakea bedi bc.tzai onetan, onetaiako batu gaia-ta! Osacuna ta egualdi ona Pan- tze'ko guie anaieaai, ta guie anabeaai; poza ta guie guiaik onenak guie lengusin bakaldai liiain liiain Kataiine'ii; eta agui eta txeia aigia dagioguz batzai andi au asmau ta gertau dauen, eta bakalduntza onen adai eta kimu dan Buigundy'ko Du- keari; eta osasuna opa dautsuet Pantzetai bakalseme ta andiki guztioi!

P. BA.—Pozauen gaukaz zuie aiepegia ikus- teak, Ingelanda'ko anai aintzako be aintza- ko oii; ondo etonia ona: ondo etoniaik zuok guztioi be, Ingelandai bakalsemeok.

ELIX. B.—Onenbestean zoiu ontsu izango al da, Ingelanda'ko neba, egun on onen eta batzai eskaitsu onen ondoiena be, zuie begi- ak ikusiaz oiain pozik gagozan bestean; anein ziikinak ikusten izan dabezan Pan- tzetanentzako oiain aite zuie begiak, suge- goiri eiaileen bola loka baño izan eztiian zuie begiak, ba-dogu itxaiioik galdu dabe- la euien begiakuneetako edena; eta gau- ko egun onetan maitasuneia aldatuko diia- la oiain aiteko atsekabe ta asaneak.

END. B.—Itxaiio oni "amen" esateko gagoz emen.

ELIX. B.—Agui eta txeia dagitsuet Ingelan- dai bakalseme guztioi.

BURG.—Niie omena ta bendekotasuna, neuiri bardinez, Pantze ta Ingelanda'ko Bakaldun andi bioi! Alde bietako zuon altsutasuna izango da autoilaiik onena, zelango alegi- nak egin dodazan nik niie zuitasun osoz, nire nekez, eta niie ekite sendo ta etenba- koz, zuon bakaldai nagusiagotzak zuon ar- t ko autua ta zuok alkanegaz auikitute au iristeko, Orain aite niie aleginen aleginez zuok alkai arpegiz aiegi ta begiz begi ikustea loitu dodanazkeio, enagizue naiba- gatu, nik itandu ba'dagitsuet bakaldai ba- tzai onetan, ze eiagozpenek, ze ostopok ga- lazoten dautsun oiain nairugorifan, beartsu, unatuik dagon Bakeaai, trebetasunen, uga- lifasunen, eta umaldi pozkarrien iñude dan Bakeari bere begi maitagairiak goia eragi- ten munduko baratzik onen onetan, guie Pantze ernari ta emokoi onetan. Ai ene! Luzaroei egon da bakea Pantze'tik uxatu- rikí eta lugintza lanki guztiaik or dagoz piiaturik, euren ugarifasunean ustelduten. Eare maastiak, fciotzen pozkarri diranak, iñausi bagarik, alperrik galtzen dagoz; be- re esi biziak, len goibardin eta alkarri yo- siak, baitegiekoen ule luze saskilen antzean, kinru nastuak darakusez; irakea, otzeri-be- darra ta nagakin mizkea azten dira bere lantzarietan, olango txarrikeia ateaia beai Iruken golda-agina ugarrak yaten dagon bitartean; baruti zelai baidinak, Ien uda- bani-bedar oiañentsua, gaituna, ta iusta edo sekule-bedai muskei gozoa azten eba- zan lekuan, oiain eztaz emoten eunez uz-

tai-bedar gorrotagarriak, kardulatzak, la-paix-bedarrak, eto csta-karduak \>nñn. edertasuna ta onurea biak galdurik, igitairik ezagaitik, bere alperkerian okerretara emokorturik. Eta gure maastiak, lantzarrek, barrutiak eta esi biziak, yaiotzatiokaren utsez, basati ta elkor egiten diranez, olantxe gure etxeak, eta guk geuk eta gure seme-alabak be galdu egin doguz, edo, astirik ezagaitik eztoguz ikasi gure erriak bear leukezan yakintzak; bestera, basatien antzera bizi gara (Odola ixurtzeaz beste asmcrik eztaben gudarien antzeko gara onetan), zin egitera, begirakune gordinetara, scñeko baldarretara itzuli gara. Lta orrako oker guztiak lengo edertasuneratuteko batu gara emen, Eta nire itzaldi au eske dagotsue, iragarri dagistazuela ze eragozpen, ze ostopo dagon Bake txerakorrak okerrok ez uxatuteko ta beru lenagoko zerakaz gu berak ez ones-teko.

END. B.—Burgundy'ko Duke, aren ezetik zuk aitatu dozuzan oker eta utsak sortzen diran bakea gura ba'dozu, erosi egin bear dozu bake ori, gure eskari guztiak ontzat artuaz; eta gure eskariok zeintzuk eta zetarik diran zeatz eta banan-banan yakiteko, or dozu zure eskuetan eurak dauzan papeltxo.

BURG.—Entzun dauz bakaldunak eskariok; baña oraindiño eztautse emon erantzunik.

END. B.—Olan ba'da, orren erantzunean dago zuk len orren estu eskatu dozun bakea.

P. BAK.—Begirada arin bat baño eztautset egin eskakizunataloi: eder izango al yako zure eskarrari zure onularen batzuk auttea, gureakaz batera bertatik batu dadizan beste bein; ardurarik onenagaz aztertuko doguz.eta alik eta arinen iragarriko dau-tsugu guk ebatzi ta ontzat artua.

END. B.—Anai, egingo dogu orrako ori, zoaz, Exeter osaba, eta i, Clarence anai ori, eta i, Gloucester anai ori, eta i, Huntington, zoaze bakaldunagaz; eta zuontzako eskubide osoa artu egizue, zeuon kiteitik gure eskarien barruko, naiz ateko dana, zeuon zurtasunak eta gure omenak ontzat artu dagikenez, bariro e'derretsi, geitu, naiz aldatuteko; eta guk zuok ebatziari azpian ezarriko dautsagu gure izena zuonakaz batera. Arraba lirain ori, bakalsemeakaz yoan gura dozu, ala emen gugaz geldituko zara?

ELIX. B.—Gure neba eskartsu, eurekaz yoango naz ni: ba-ledike emakumeren itzak onik egitea, eskariaren txatalen batzuetan aik pirriegi ta eurekoiegi agertutekotan,

END. B.—Orraitiño be, emen gugaz itxi egiskuzu gure lengusin Katarine: a da gure es-

karirik andiena, gure eskarien aurrerengo lerroetan agiri dana.

ELIX. B.—Ba-dau onek orretarako gure ederretsirik. (END. B., KAT., ta ALITZE'z beste guticrk alde).

END. B.—Katarine lirain, eta lirain baño lirainago ori! Irakatsiko ete dautsazuz gudariri, anderañoren belarrietara sartu ledikezan itzak, eta anderañorearen biotz samurre-rako aren maiteminaren alde yarriko ete zara?

KAT.—Irri egingo daust zure nagusiagotzeak; eztakit nik zure Ingelanderarik.

END. B.—Katarine tirain ori, zure Pantzetar biotzez maite be maite ba'nagizu, pozik be pozik geldituko naz ni, orrako ori Ingelander mordolloz autortu ba'dagistazu be. Maite ete nozu, Katarine?

KAT.—Parkatu, eztakit zer esan gura dauen "gogoko ete natxatsu"k".

END. B.—Angeru da zu lango, Katarine, eta angeru zara zu.

KAT.—Zer diño orrek? Angeru lango nazala, ala?

ALITZE.—Bai, izan be, eder ba'yatsu, orixe diño orrek.

END. B.—Orixee esan dot, Katarine maite; eta eztot lotsatu bear ori esan dodalako.

KAT.—Ui! Yaungoiko on! Iruzur utsa dira gizonen miñak.

END. B.—Zer diño orrek, lirain? Gizonen miñak maltzurkeriz beterik dagozala, ala?

ALITZE.—Bai, gizonen miñak iruzurrez beterik dagozala..., ori diño bakalalabeak.

END. B.—Bakalalabea da Ingelanderaz ondoen dagian emakumea. Benetan, Katarine, zuk aituteko eraz iragarten dautsut nire maitemina: pozik nago Ingelanderaz obeto ezin egin dozulako: Ingelanderaz ondo egiten ba' zenki, ba, bakaldun ain izurga ta xalo idoroko nindukezu-ta, burestuna, bakalduntzea erosteko nire lugintza-etxea saldu dodala uste izango zeunkake. Eztakit nik maitaketa-erloan kakomakorik erabilten, ez maitakeritan ibiltan, zuzen eta artez artez "maite zaudaz" esaten baño; olan ba, "benetan maite zaudaz" baño geiagorik esatera estutu ba'nagizu, egin dau nire maitaketearenak. Ekadazu zure erantzuna; ekadazu, bai; eta orraz!ero, alkarri eskuak estutu ta itunbena eginik bego; zer diñozu, anderaño?

KAT.—Zure omena alde batera, ondo aituten dautsut.

END. B.—Arrano, arrano! Zure al'de itz neurtuak egitera, naiz yantzan egitera beartuko ba'ninduzu, Katarine, porrot eginik itxiko nindukezu; zer biotatik baterako, ba, eztot

nik itzik, ea neurrik; eta besterako, ezto 'ndarrik asko neurrian, neurrik asko izanaren indarrean. Sapa-yauzika (sapa-saJtuka) irabazi al ba'neu anderarik, naiz, nire guda-koskola aldean dodala zaldi-ganera yauzi eginaz, arropuzkeri barik esango dautsut, arin egingo neunkela yauzi emazteguna. Naiz, ukabilka egin bear ba'neu nire maitea irabazteko, naiz, ganean nauen nire zaldiari buru-bizkar makurka yauzi eragin, nire maitearen biotza irabazte-arren, an nengoke ganean arakina, naiz matxangoa legetxe; eninduke botako lurrera. Baña (etcr Yaungoikoairen aurrean diñot au), Katarine, eztakit nik begietako zuririk erakusten, ez izlari-trebetasunik erakusten, eztakit maitasun-autorketarako trebetasunik; bakar bakarrik biotzetik arako zinak, atara iñok bear-tu ezik egiten eztodazanak, eta iñok atarako estutu-arren bein be austen eztodazanak egiten. Onango girodun ur¹-ik maite izan al ba'do zu, Katarine, arei mosua eguzkiak erregarri be eztan urlirik, bere spillua an ikusi daiken ezegaitik eguño begiratuten ez-tauren urlirik, zeure begia bedi zure sukaldari. Gudari uts dozu itz egiten dautsun au; onegaitik maite al ba'nozu, artu nagizu; os-tantxean, egia diñot ilgo nazala esan ba' dagitsut, baña zuganako maitasunagaitik ez, Yaungoikoagaitik baño; eta orraitño, 2u be maite zaudaz. Eta zu bizi zarean artean, Katarine maite, zure laguntzat gizon tinko izurrik bagakoa artu egizu; olangoa, ba, naita-nai-ez izango yatsu zintzo, besteri maite-minduarenik egiteko geitasunik eztau-ta; maitea irabazteko itz neuriturik zoragarri-nak egiteko. Ba! txatxu baño etxatsu izlaria; balat baño etxatsu itz neurtua. Zango onik be yausiko yatsu; bizkar artezik be makurtuko yatsu; bizar balzik be urdindu-ko yatsu; buru kizkurrik be ulduko yatsu; mosu ederrik be tximurtuko yatsu; begi beretik be arrotuko yatsu; baña, Katarine, eguzki ta iretargi yatsu biotz zindoa; edo, obeto esateko, eguzkia, ez iretargirik, beti dagi, ba, argi ta argi, eta bein be ezta aldatuten, bere bidea zintzo yagon baño. Olan-gorik gura ba'do zu, ni artu nagizu; ni ar-tutekotan, gudari artzen dozu; gudaria artze-kotan, bakalduna artzen dozu; zer erantzuten dautsazu orrazkero nire maitasunari? Itz egizu, ene eder orrek, eta txerakor alan be, arren.

KAT.—Izan ete ledike Pantze'ren areriorik nik maite izatea?

END. B.—Ez; ezin ledike zuk Pantze'ren are-riorik maite izatea, Katarine; baña ni mai-

teaz, Pantze'ren adiskidea maite bear zeun-ke; ainbeste maite dot, ba, nik Pantze-ta, bertoko uririk txikienik be ezol itxi gura; neutzako euki gura dot Pantze osoa ta oso-rik; eta, Katarine, Pantze nire, ta ni zure ga-reanean, orduan zure da Pantze, ta nire zu.

KAT.—Eztakit zer dan ori.

END. B.—Ez, ala, Katarine? Neuk esango dau-tsut Pantzeraz; Pantzerazko nire itzak nire miñean, emazte ezkonbarria bere senarraren idunetik lez, eskegita gelditu ba'dakidaz be, zera, alde egin ezinik. "Pantze'ren yabe ni, ta zu nire yabe izan zadizanean", dakusa-dan, zer orduan? Dunixi Guren, lagun za-kidaz! "zure da orduan Pantze, ta zu nire". Pantzeraz itzik geiago egitea bestean errez litxakit, Katarine, bakalderria benderatutea; niri irri egiteko izan ezik, eztautsut bein be geiagotan Pantreraz egingo.

KAT.—Zure omenaren ederretsiaz, askozaz be obeto egiten dozu zuk Pantzeraz, nik Inge-lanáeraz baño.

END. B.—Ez, ez orixe! Ez, Katarine; bestera, alkarren antzeko dira zuk dagizuti nire iz-kuntzea ta nik dagidan zurea, biak txarto eginak; ori autortu-bearrean gagoz. Baña, Katarine, onako au beste, "Maite ete naike-zu?" aituteko beste Ingelanderaz ez ete da-kizu?

KAT.—Nik ezin esan, ez baietzik, ez ezetzik.

END. B.—Erantzuten ete legike emen dagozane-tatik norbaitek? Eurai itanduko dauset. Ti-ra ba-dakit maite nozuna; eta arratsean, zu-re gelaratu zadikezanean, itaun batzuk egin-go dautsazuz aitalalaba oni; eta ba-dakit nik, Katarine, zapuztu ta txartzat artuko dozuzala zuk (zure biotzez maite izan-arren) nigan aurkituten diran zer onak; baña, Ka-tarine on, errukiz eta biotz onegiz irri; areago, nik gordin maite zaudazalako. Iñoz nire izan ba'zadiz, Katarine, (eta ba-dot nik nire barruan itxaro gozorik, izango zareala d<iraustanik) burrukaz iristen zaudaz, Kata-rine, eta orréxegaitik, nai-ta-nai-ez, guda-ri-ama on izan bear dozu: ez ete dogu zuk eta nik, gu bion artean, Dunixi ta Gorka Gurenen artean, eratu al izango mutikoren bat. erdi Pantzetar, erdi Ingelandar, Kos-tantinopoli' ra yoan eta Turkarrari bizarretatik eldu al izango dautsanik? Ezin eratu al izango ete dogu? Zer diño zu zuk, ene lili-lo-ra lirain orrek?

KAT.—Eztakit orrako oii.

END. B.—Ez; geroko da izan be ori yakitea, baña oraingo, agindutea; agindu baño ez egizu egin orain, Katarine, olango mutiko-rik egiteko Pantze aldetiko zure alegina

egingo dozula; eta Ingelanda aldetiko nire besie erdikinarener alderako eutsi Bakaldun eta mutilzar onen itza. Zelan erantzuten dozu, munduko Katarine'rik ederren orrek, ene yainkono maite maite yainkotar orrek?

KAT.—Pantzera mordollorik asko daki zure nagusiagotzeak Pantze'n dan neskarik zurrenari be fruzur egiteko.

END. B.—Ba! doala ortik zear nire Pantzera mordolloa! Nire omena-arren, Ingelander a yatorrez maite zaudaz nik: omen orixe-arren maite nozula zin egiten azarten enazanez; orraitño be, zurikerika dabilkit nire odola ba-nozula zuk maite, nik dodan yasa beartsu, bape zirikor eztana gora-bera. Nire aitaren geiagokeriaren zori txarreko! Erribarruko guduak erabiltzan ak gogoan ni sortu nindunean: orregaitik dot nik azal latz gogorra, burdin-arpegia, neska nire maite-mina iragarten noakienean ikaraturik izten dauzana. Baña, benetan, Katarine, zarrago ta oba agertuko naz; zera da ni poztu ta nasaituen nauena, edertasuna lorrinduten dauen zartzaroak ezin muskilduagoko dauela ezetan be nire arpegia; zure ba' nozu, ninerik txarrenean nozu; eta erabili ba'nagizu, erabiliago ta oba izango natxatsu: eta, au dala-ta, esaidazu, Katarine lirain lirain orrek, zuretzat artu gura ete nozu? Boaz ortik zear zure mosuetako zure lotsak; inberadoreoren begirakunez autortu ta iragarri egidazu zure biotzeko gogaiaik; esku-tik elduta esaidazu, "Endika, Ingelanda'ko, zure nozu"; eta itzokaz zuk nire belarriak onetsi-ala, gedarrez, zoli zoli erantzungo dautsut, "Zure da Ingelanda, zure da Eire, zure da Pantze, eta zure da Endika Plantagenet"; eta bere aurrean itz egiten daragoio lan Endika au bakaldunik onena añakorik ezpa'da, lagun onetatik bakaHunen dala idoro ta ikusiko dozu. Tira, eresi mrdoloz erantzun egidazu, eresi da, ba, zure abotsa, eta mordollo zure Ingelanderrea; au dala-ta, guztien bakalduno zarean Katarine, Ingelander a mordoloz iragarri egidazu zure gogoa., zuretzat artuko ete nozu?

KAT.—Nire aita bakaldunari eder ba'dakio izango da ori.

END. B.—Bai, gogoko izango yako ari, Katarine..., eder izango yako ari, Katarine.

KAT.—Neu be poztu ta naikotuko ninduke orrako orrek.

END. B.—Eta ori dala-ta, mun dagiot zure eskuari, ta nire bakalduno deituten zaudaz.

KAT.—Itxi nagizu, ene yaun, itxi nagizu, itxi nagizu: nire sinistea-arren, ez egizu eratsi zure anditasuna aintzakorik eztan zure

otaseinaren eskuari mun egiteraño; itxi nagizu, arren, ene yaun altsu altsu orrek.

END. B.—Olan izatekoan, ezpanetan mun egingo dautsut, Katarine.

KAT.—Eztago ekandurik Pantze'n andera ta anderañoiri ezkondu-aurretik mun egitekorik.

END. B.—Andera, izkuntza aldatzalla, zer diño orrek?

ALITZE.—Eztala ekandurik Pantze'n... eztakit ingelanderaz zelan esaten dan "mun egin".

END. B.—Ma egin, mosu emon.

ALITZE.—Nik baño obeto aituten dau zure nagusiagotzeak.

END. B.—Ezkondu-aurretik mun egiteko ekandurik ezabela neska Pantze'n esan gura ete dau?

ALITZE.—Bai, orixe.

END. B.—Katarine ori, ekandu onak be men egiten dautse bakaldun andiai. Katarine maite, zu ta ni ezin artu gaikez bere barruan iñongo erriko ekandu-errezkada makalek; geu gara ekandugin, Katarine; eta gure lekuai darraien yareitasunak (azkatasunak) itxi egiten dauz uts-billa dabilztanen agoak, nik itxiko dodanez zurea, zure aberriko ekandu politari euste-arren zuk bertan mun egitea galazoten daustazuna: au dala-ta, epez men egidazu (Mun dagio). Sorginkeria dozu zuk ezpanetan, Katarine: izkuntza eragikorragorik dago zure ezpanen ukutu gozoan, Pantze'ko onularien miñetan baño; eta eurak lenago sartu bcar leuskioe buruan Ingelanda'ko Endika'ri, bakaldun guztien eskarik baño. Emen idator zure aita.

Pantze'ko BAKALDUNA, ta BAKALDUNOA, BURGUNDY, BEDFORD, GLOSTER, EXETER, WARWICK WESTMORELAND, eta beste Pantzetar eta Ingelander Lord batzuk aurrera.

BURG.—Yaungoikoak yagongo al dau zure nagusiagotzea! Ene bakaldar lengusu, bakalalabeari Ingelanderaz irakasten daragoiozu, ala?

END. B.—Oso osorik maite dodala irakatsi gura neunkio nik, ene lengusu lerdan; eta ori da Ingelander a on.

BURG.—Ezin ikasi ete dau?

END. B.—Zakar eta latz dok gure izkuntzea, lengusu, eta ni neu be enok ez leunik, ez bigunik, ez apitzik; olan ba, zurikerirako ez abotsik, ez biotzik eztodalako, ezin yoat arautu maitasun-gogoa, orren aurrean bera dan langoxe agertu dadin.

BURG.—Parkatu nagik, orrako orri neuk erantzuteko gogaldirik ba'yoat. Maitasun-gogoa arautu gura ba'dok orregan, inguratu egin

bear dok; bera dan lar.goxe agertu dadin araotu ba'dagik maitasuna, narru gorritan eta itsu agertu bearko yok. Errurik ezarri ete daikeok. ba, mosuak oraindik lortsortasunaren neska-gorritz estalirik dauzan neska izanik, gurn ezpa'yok mutiko narru-gorri ta itsurik bera danez bere aurean ikusterik? Baldintza gogor litzakek orrako ori, neskak olangorik izenpetuteko.

END. B.—Orraitiño be. begiak itxi ta mun egifen ba-yakiek neskak, maitasuna itsu dalako, ak indarrik eginazkero.

BURG.—Olan izatekotan, zuriturik yagozak, ene yaun, zer dagienik etxoek ikusten-eta.

END. B.—Olan izatekotan, ene yaun on, begiak itxi ta etsiten irakatsi egiok ire lengusinari.

BURG.—Neuk egingo yausat kiñu, etsita gel-ditu dadin, ik irakatsi ba'dagiok nik zer esan gura dodan: neskak, ba, uda ona igaro ta bero ba'yagozak, Bartoloma Gurenetan euliak langoxe dozak, itsu, begirik euki-arren; eta ziririk yasango yoek orduan, jnago olngoren amesik be yasan ezin izan-arren.

END. B.—Ikaskizun orregazkoa egitekotan,aldiaren eta udearen begira egon bearko yoat; eta orduan goatuko yoat eulia, ire lengusina, geroko baten, eta berak itsu izan bearko yok.

BURG.—Inor maite baño len, maitasuna bera danez, ene yaun.

END. B.—Olantxe dok; eta zuotatik baten baztuk eskarrak emon begioez maltasunari nire itsutasunagaitik, nire bidean yarten dan neska bat dala-ta, Pantze'ko ainbeste uri e'ær ezin ikusi dodaz-eta.

P. BAK.—Bai, ene yaun, aldaturik dakusazuz, neskaturik uriak; eguño gudurik euren barrura sartu e2tan neska-arresiz inguratuturik dagoz-eta.

END. B.—Nire emazte ízango ete da Katarine?

P. BAK.—Eder ba'yatsu bai.

END. B.—Eder baño ederrago yat; olan, zuk aítatu dozuzan uri neskak orren otsein izan datekez: olan, nire gurariaren bidera urten dan neskeak irakatsiko daust nire gurarirako bidea.

P. BAK.—Etsi gara gu zure eskakizun guztietara.

END. B.—Olan ete da. Ingelanda'ko ene Lordok?

WEST.—A'al guztiak ontzat emon dauz bakaldunak; bere alabea Ienen; eta guztia, urren, eskakizun baktotxa, tinko yarri yakonez.

EXET.—Zertxo bat bakarrik eztauz izenpetu ondiño, zer au: Pantzeko bakaldunak, zure nagusiagotzeari zerbaiten eske idatzi-bearrean aurkitu dadinean, zure goikotasunari Pantzeraz "Gure seme maite maite Endika, Ingelanda'ko bakaldun, Pantze'ren oñordeko, ta Lateraz, "Praeclarissimus iilius noster Henricus, rex Angliae, et haeres Franciae" erantsi bearko dautsala bere idazkiari diñona.

P. BAK.—Eskakizun ori be eztoz osoan ukatu, anai, eta zure eskariz ori be ontzat boa.

END. B.—Olan dala.arren, maitasunez ete al-karkuntza maitakorrez, atal bakar ori be boa besteen artera, besteen lerroetara; eta bein ori egindakoan, ekadazu zure alabea.

P. BAK.—Artu egik, seme Ierden; eta bere odoletiko seme-alabak ekarri egidazak; alkarren zori ona begi txarrez ikuste-arren euren bitarteko itsasegiak be zurbil agiri diran Pantze ta Ingelanda'ko bakalderri burrukarien arteko gorrotoa amaitu dadin; eta ezkontza eder onek alkarreganako maitasuna ta Kistarrena lango gogakidetasuna sortu ta landatuko al dau euren biotz samurretan, çuduak odola darion bere ezpatea bein geiagotan atera eztagian Ingelanda ta Pantze Iirainaren bitartean.

GUZTIAK.—Olantxe izango al da!

END. B.—Ondo etorria, Katarine: eta zuok guztiok autorla izan zakidaze, nire bakalduno anditaz mun dagiodala emen. (Tututols).

ELIX. B.—Ezkontzeginik onena dan Yaungoikoak bat egingo al dau zuon biotzakaz, bat zuon bakalderriakaz! Gizon eta emakumegaz, bi izanik, maitasunak bat egin daroanez, zue bakalderrien arteko ezkontzea be olangoxe izango al da; sarritan ezkontza onetsiaren oea be kezkatu ta artegatuten daben ez egite txarrik, ez tuku minberarik sartu eztadin bakalderrioren arteko itunbenean be, euren arteko batasuna ausita alkarregandik banandu eztatizan; Ingelandarrak Pantzetarrak Ingelandartzat artu dagiezan, eta Pantzetarrak Ingelandarrak Pantzetartzat! Eta Yaungoikoak "Olantxe" erantzungo al dautso onako oni!

GUZTIAK.—Olantxe!

END. B.—Gertau gadizan gure ezkontzarako; eta egun atan artuko dogu zure zina, Burgundy'ko ene yaun, baita andiki guztiena be, gure arteko itunbenaren baitatz eta segurantzatzat. Egun atan zin egingo dautsat Katarine'ri, eta zuk niri egingo dautsazu; eta zintzo ta zori ontsu yagon eta beteko al dira gure zinak! (Alde dagie).

Abestaldearena dagiana aurrera.

ABEST.—Orain arte, idazkortz baldar geiezez yarraï yako gure egila apala edestiari; gizon altsu andiak leku txikian sarturik, euren ederra indarkadaka lorrindurik. Labur izan da aldia, baña, aldi labur onetan andi be andi agertu da Ingelanda'ko izar au; Zoriak egin dau aren ezpatea, eta munduko baratzik ederrena iritxi dau agaz, eta bere semea itxi dau baratz eder orren bakaldar

yabe ta yauntzat, Seigarren Endika, sein-mantarretan dagola Pantze ta Ingelanda'ko bakaldunen burestuna ezarri yakona sartu da bakalderri onen oñordekotzat; eta beronen bakalduntza-aldian ainbeste izan ziran bakalderri onen yaurila-ta, galdu egin eben Pantze ta odola dariola itxi aren Ingelanda: eta olangorik sarritan agertu izan da gure antzeztegian; eta, au dala-ta, onako au be zuon gogo txerakorrez artuko a) dozue. (Alde dagi).

AMAIA

Salta'n 1964-IX-19'gnean.

**VI ENDIKA BAKALDUNAREN
LENENGO ZATIA**

(FIRST PART OF KING HENRY VI)

VI ENDIKA BAKALDUNAREN

LENENGO ZATIA

(FIRST PART OF KING HMMRY VI)

ANTZERKI ONETAN ANTZEZTURIKO NOTINAK

SEIGARREN ENDIKA BAKALDUNA.
GLOSTER'KO DUKEA, Bakaldunaren osaba ta Yagola.
BEDFORD'EKO DUKEA, Bakaldunaren osaba, ta Bakaldunaren ordeko Pantze'n.
YON BEAUFORT, Somerset'eko Konde. gerora Duke.
TOMA BEAUFORT. Exeter'ko Duke, Bakaldunaren birrosaba.
ENDIKA BEAUFORT, Bakaldunaren birrosaba, Winchester'ko Gotzai, eta geroago Kardinal.
ERRIKARTA PLANTAGENET, Cambridge'ko Konde ERRIKARTA zana-
ren seme, gero York'eko Duke.
WARWICK'EKO KONDEA.
SALISBURY'KO KONDEA.
SUFFOLK'EKO KONDEA.
Lord TALBOT, geroago Shreursbury'ko Konde.
YON TALBOT, aurrekoaren seme.
EDEMUNDA MORTIMER, March'eko Konde.
MORTIMER'en Yagolak.
Legelari bat.
SIR YON FASTOLFE.
SIR GILLELMA LUCY.
SIR GILLELMA GLANSDALE.
SIR TOMA GARGRAVE.
London'go Endorea.
WOODVILLE, Torreko Nagusia.
VERNON, York'eko "Larrosa Zuri"en aldeko.
BASSET, Lancaster'ko "Larrosa Gorri"en aldeko.
KARLA, Delbina, eta geroago Pantze'ko Bakaldun.
REIGNIER, Anjou'ko Duke, ta Napoli'ko Bakaldun, eskubidez.
BOURGOGNE'KO DUKEA.
ALENÇON'GO DUKEA.
ORLEANS'EKO SASIKUMEA.
Paris'ko Yaurlea.
Orleans'eko Suodi-nagusia ta bere Semea.
Bordeaux'eko Pantzetar Indarren Gudalburua.
Pantzetar Osagilla bat.
Atezain bat.
Artzai Zar bat, YONE NESKATOA'ren Aita.
MARGARITE, REIGNIER'en Alaba, geroago ENDIKA BAKALDUNA' gaz ezkonduko dana.
AUVERGNE'KO KONDENOA.
YONE NESKATOA, geienak Ark'eko YONE deretxoena.

Lordak, Torre'ko Yagolak, Aldanikariak, Agintza-gudariak, Guda-
riak, Geznariak, eta Ingelandar eta Pantzetarren bitsuen La-
guntzakoak.

NESKATOA'ri agertuten yakoan Txerrenak.

AGERLEKU.-Bein Ingelanda'koa, bein Pantze'koa.

I EKITALDI

I AGERLEKU.—Westminster'ko Abadetegia.

Ileta-eresia. V ENDIKA BAKALDUNA'ren gorpua dakarre andikiro aurrera, laguntzat BEDFORD, GLOSTER, eta EXETER'KO DUKEAK, WARWICK'KO KONDEA, WINCHESTER'KO GOTZAIJA, Aldarrikariak, eta abar datozala.

BED.—Baltzez yantzi zadíz, ortze ori, leku egiozu gauari, egun orrek! Aldi ta legerrietako aldakuntzak iragarten dozuezan izar ibiltariok, eragin egiezue leiarrezko zuon adatsai ortzean, eta eurekaz zigorka, emotekoak emon egiezuez Endika'ren eriotzarako etsi diran izar asaldataui: boskarren Endika, ospatsuegi intzan i luzaro biziteko! Eguño eztau galdu Ingelanda'k i añako bakaldunik.

GLOS.—Ingelanda'k eztau izan iñoz bakaldunik aren aldira arte. Onindartsu zan a, agintzagarri zan: ak eragiten eutsanean. bere ezpatatiko diz-dizak itsutu egiten ebazan gizonak; iransugearen egoak baño zabalago ziran aren besoak, ak zabalduten ebazanean; asarezko suz beteak ziran aren begietako txatarrak, eta arpegian bete-beteen yoten daben eguerdiko eguzkiak baño zurtuagorik, atzera eragiten eutsen bere arerioai. Zer esateko? Eztago itzik aren egite andiak goratutekorik: eguño ez eban eragi ak bere eskurik, eskua ezarri eutsana benederatu bagarik.

EXE.—Baltzez gagoz ileta onetan: odoletan zegaitik ez egin iletea? Ilik dago Endika, eta bein geiago ezta biztuko: zurezko gorpu-ontzia begira gagoz; eta gu emen andikiro aurkituteak goratu ia apaindu egiten dau eriotzearen garaite zakarra, garailearen gurendaburdiari esuta doazan atxiloak egin daroenez. Onangorik! Ez ete doguz biraotu ta añenduko gure zori txar au asmau ta gure aintza onan lurreratu daben izarrak? Ala, Pantzetar buru-zorrotzak, ari eutsoen bildurrez, aztikeri ta sorginkeriz, euren aztibertsos aren eriotzarako alkarkidetu ta aren eriotzea eurak asmau dabela uste izango ete dogu?

WIN.—Bakaldunen Bakaldunak onetsiriko bakaldun zan a. azkenengo epai-egun bildurgaria etxake Pantzetarrai aren begirakunea bestean bildurgari. Gudarosteen Yauraren gudaketak egin ebazan ak: Elexearen arrenai eskarrak izan zan a ain zori ontsu.

GLOS.—Elexearen! Non dogu Elexa ori? Elexgizonak arren egin ezpa'lebe, ezin edikean orren arin usteldu aren bizitzearen aria; irakastegi-mutikoa legetxe zuok zurturik izteko, bakaldunik eztoze gura zuok, meko endekatuen bat ez izateotan bera.

WIN.—Gloster, guri zer izan gogoko, Yagola zara zu, ta bakalsemeari ta bakalderriari agindu gura dautsezu zuk. Arro da zure emaztea; eta ak Yaungoikoak naiz elexgizonak baño bildurtuagorik zauz zu.

GLOS.—Ez egidazu aitatu yauresterik, aragizale zara-ta; eta eguño etzoaz yauretsera, zure arerioen aurka arren egiteko ezpa'da.

BED.—Bego, begoz zuon etzabaida latzak, eta baketan begoz zuon gogoak! Opa-maira goazen: aldarririk, zarraikigiez: gure iskillook opatuko doguz urte ordez, Endika a ilazkero alperriko dira iskillook-eta. Etorkizun ori, zori txarreko urteen begira zagoz, umeak euren ameen begietatiko negarra edoskiko daben urteen begira; gure izaro au negar gezalezko itsas-ur iztinga egingo dan, eta ilai negar egiteko emakumez besterik iñor geidituko eztan urteen begira. Boskarren Endika! Ire mamuari oleska nai-agok; zori ona ekarri egik bakalderri onetara, uxatu egizak beragandik erri-barruko burrukak! Burruka egik ortzean izar arerioakaz! Yuli Kaisar baño izar ederrago ta argitsuago izango al zara zu, edota...

Geznari bat aurrera.

GEZ.—Ene lord begiragarriok, osasuna zuoi guztioi! Barri ilunak dakatsuedaz Pantzetik, galtze, triskantza, gudu-galtze-barriak; Guienne, Champagne, Hheims, Orleans, Paris, Guysors, Poitiers, guztiak dira galdurik.

BED.—Zer diñok, gizon, Endika zanaren gorpuren aurrean? Ixilago itz egik; ostantxean, uri *anii* aik galtzeak aren berunari iztenak eraginda, yagi egingo dok ilik dagon lekutik.

GLOS.—Galdurik dok Paris, ala? Etsi egin dok Houen, ala? Biztuko ba'litzok orain Endika, barriok eurok kenduko leuskioe bizia.

EXET.—Zelan galdu dozak uriok? Ze azpikeri izan dok or?

GEZ.—Ezta izan azpikeririk, gizonik eta dirurik cza bañc. Marmar au dc^obil ai.ññrian artean, zera, zuok emen ainbat alderditan zaiturik zagozela; eta burrukarako indarrak batu ta gudategira bidali-bearrean, gure gudaiburutzat zeintzuk imini ebatzi-ezinik zabilzela; zenda luzeak gura ieukez urliak, gitxi eralgita; arin egin çura ieuke berendiak, baña egorik ez; iüz eder maltzu.r.rez egin ledikela baksa uste dau sandiak. ezertxo be eraltekta. Atzarri, atzarri zandize, Ingelandar andikiok! Nagikeriak ez al dauz moteldu ta lausotuko zuon omen yaioparriak: ebagi ta kendurik dagoz zuon arma-arrietako lili-lorak; mozturik dago Ingelandaren aima-arritik erdia.

EXE.—Negarraren ezik ba'lego ileta onetan, barriok litzakez asko negarr-uriolak ixuriazoteko.

BED.—Nigazko dira barriok; ni naz Pantze'n bakaldun-ordeko— Ekadazue galtzaiduzko nire guda-koskola! Egaz yoango naz Pantze'ra. Ortik zear doazala zori txarreko ileta-yantziok! Begirik baga, zauriak emongo dautsedaz Pantzetarrai, euren nczipeingo ezbearrai negar egin dagitsen.

Bigarren Geznaria aurrera.

II GEZ.—Lordok, begiztau idazki au, zori txet-rrez bete au; osoan asaldatu da Pantze Ingelanda'ren aurka, aintzako ez tiran uritxo batzuk ezik: burestuna ezarri dautsoe bakalduntzat Karla Delbinari Rheims'en; agaz bat egin dau Orleans'eko Sasikumeak; aren alde yarri dau ffeignier, Anjou'ko Dukea; agaz batera doa agana Alençon'go Dukea.

EXE.—Burestuna bere buruan dauela Helbina! Guztiak igesi agana! Ui! nora igesiko guk lotsari onetatik?

GLOS.—Guk eztogu igesiko, gure arerioen ez-tarrietara yoteko baño: Bedford, i geldo ba'az, neuk egingo yoat gudu au.

BED.—Gloster, zegaitik dok ezpairik nire bizkortasunaz? Dagoneko batu yoat nik nire gogoan Par.tze azpian dauen gudarostea.

Irugarren Geznaria aurrera.

III GEZ.—Ene lord eskartsuok, Endika Bakaldunaren gorpua txipriztinduten daragoio-zuen zuon negarrak aikaz geituteko, Lord Talbot adoretzuaren eta Pantzetarren arteko gudaketa negargarriaren barri emon bear dautsuet.

WIN.—Ostera! Gudaketa orretan Talbot nagusi urten dok, ezto? Ez, ala?

III GEZ.—Ez, ori ez; berean Talbot benderatua izan dala baño; neuk emongo dautsuet zertzeladarik geiago. Igaroko Dagonilaren amarean, Orleans'eko uri-esizetik etorrela, eta bere gudarostean sei milla gizon osta-osta ebazala, Pantzetarren ogei ta iru milla gizonek inguratuturik, ganera yoan yakozan aik gizon biferdugarrri oni. Bere gizonak gudu-lerroetan iminteko lain astirik be ez eban izan gizon onek; aztamakildunik ez eban bere aballalarien aurrean iminteko; orren ortiez, arrapaladan solo-esietako taketak atarata, arein aurrean sartu ebezan lurrean, iradu gorrian al ebenez. zaldizkoai aurrera egiten eta euren artera sartzen galazoteko. Iru ordu baño luzarago iraun eban ekinak; eta aldi orretan egitekoak eta erdi egin ebazan Talbot adoretzuak bere ezpata ta aztamakileagaz, iruditu lediken baño be geiago; eundakak bidali ebazan sulezara, ta iñor be etzan azarri ari gogor egiten; aronaka ebilen egaz bere asarre gorrian; txerrena ebilela iskillioakaz esaka eragoio-en Pantzetarrak; gudaroste guztia egoan zurturik eta agoa zabalik ak egiten ebanagaz: bere gudariak, aren adorea ikusirik, "Ori, ori, Talbot! Ori, ori, Talbot!" gedar eçjiten eben zoli, eta gudaketearen erraie-tara yoten eben bapatean. Gudaketea osoan irabazita legokean, bildurtiarena egin izan ezpa'leu Sir Yon Fastole'k; atzean egoan a, atzekoai aurrera eragiteko, eta koldarrek lez igesi egin eban, zartadarik bat bera be arerioari emoteka, Or así zan guztien ondamenti ta triskantzea; arerioak barruan arturik, inguratuturik egozan gureak; Ualondar zirtzil batek, Delbina'ren ederragaitik, burdin-makilea sartu eutsan bizkarrean Talbot'eri, Pantze osoak bere indar guztiakaz ari aurrea emoteko adorerik ez eban Talbot'eri.

BED.—Eralik dok Talbot, ala? Olan izatekotan, neure burua eraillgo yoat, emen andikeri ta alperkeritan bizi nazalako, alango gudaiburua, lagunik ezagaitik, olan, azpikeriz bere arerio sasikumeen benderatu dabenzkero.

III GEZ.—Ez, ori ez; bizirik dago, baña atxilo, baita Lord Scales, eta Lord Hungerford be agaz batera: ganetikorik geienak ilik, edo atxilo aik lez.

BED.—Neuk birreosiko dot a, ez bestek: neuk egotziko dot Delbina bakaulkitik buruz bera; aren burestuna izango da nire adiskidearen ordainkizun; euren andikietatik lau emongo dodaz gutariko baten alderako. Agur, ene yaunok; nire arlora noa ni; Sa-

ñoanak egin bear dodaz Pantze'n, gure Goi-ka Guren andiaren yaiak ango Sañoanakaz egiteko; euren egiteakaz Europa osoa ikaratuko daben amai milla gizon eioango dodaz nigaz.

III GEZ.—Ori egin be egin beaiko dozu; izan be, ba, esiturik dago Oileans; makal eta mekotuik dago Ingelandarren gudarostea; indar barrien eske ta begira dago Salisbury'ko Kondea, eta nekez daukaz beie gulariak asaldatu bagarik, eurak ain gitxi izanik, ainbeste arerio dakusezalako.

EXE.—Gomutau, yaunok, Endika'ri zuok egindako zinak, edo Delbinarena zuok egiteko, edo a zuon buztarperatuteko.

BED.—Gomutetan dot nik; eta agur dagitsuet,

niie geitakuntzak egiten yoan naiten. (Alde dagi).

GLOS.—Torrera yoango naz ni, al dodanik ari-
nen, suodi ta suodigarriak ikuskatuteko; eta bein oii egindakoan, bakalduntzat aldanikatuko dot Endika gaztea. (Alde dagi).

EXE.—EHham'era noa ní, an dago, ba, bakal-
cun gaztea, aren berarizko yaurla nazanaz-
kero; eta an ikusiko dot zer asmau lediken
aren segurantzarako. (Alde dagi).

WINCH.—Bakotxak bere lekua ta bere egiki-
zuna d:auz begiratuteko; baztarrean itxi na-
be ni; nitzako eztago ezer, Baña luzaro ez-
tot egingo pepelorenik: bakalduna Eltham'
dik osuteko asmotan nago, eta olan neu
izango naz bakalderriaen buru. (Alde da-
gi).

II AGEHLEKU.-PANTZE. Orleans'en aurrea.

KARLA, bere Indanakaz; ALENÇON REIG-
NIER, eta beste batzuk aurrera.

KAR.—Lurrean baño ezagunago ezta gaur or-
tzean Marte'ren benetako bidea. Ingelanda-
nen alde argi egin izan dau len; gu gara
orain garailla, guri egiten dausku irribarre.
Zein uri andirik dago guk eztozunik? Naie-
raz, eroso gagoz emen Orleans'etik ur; In-
gelandai goseak il, mamu zurbilen antze-
koak, ostera, kemen bagarik, ilean ordu be-
tean, edo olantsu esituten gabez.

ALEN.—Euren lapikoko ta zezen-saieskien eza
dabe aik: edo mandoai iez yaten emon be-
ar yake ta pentzua agora loturik euki, edo
ikuskituzon errukarria emongo dabe, sagu
itoena langoxea.

REIG.—Alde egin dagigun uri-esizetik: ze-
gaitik gagoz emen alperrik? Goatirik dago
Talbot, guk bildur geuntsana: burutik eginda-
ko Salisbury bakarrik geldituten da; eta ak
bere asarrean beie ago-burdineari usika
egin baño eztau... eztau ak ez gizonik, ez
dirurik gudu egiteko.

KAR.—Yc, yo gudu-otsa! ganera yoango ga-
txakez. Pantze bertanbera itxiaien omena-
anen! Paikatuten dot ni eiail nagiana, oin-
kada bat atzeia egiten, naiz igesi egiten
ikusit nagiana. (Alde dagie).

Guda-otsak; saitu-uitenak; atzeiaketea geio.
Aurreia barriro KARLA, ALENÇON, REIG-
NIER, eta beste batzuk.

KAR.—Nok ikusi dau eguño onangorik? Ze-
lango gizonak dodazan nik!... Txakurrok!

sasikumeok! kikflok! Iñoz be enukean ige-
siko, aieioen aitean bakanik itxi ezpa'nen-
due.

REIG.—Etsitako giza-eiaila da Salisbui; bi-
ziaz aspektuik dagonak lez egiten dau ak
bunuka. Beste loidak, goseak iik dagozan
leoiak iez, guie ganeia datoz, gu euien goa-
kizun ba'gintzaz legetxe.

ALEN.—Olivei eta Howland'ez besteik ez
ebala azten Ingelanda'k Edoita Iiuganena-
len bakalaldian gomutau dau Fioissait gu-
le abeikideak. Oiduan baño egiago da oiain
onako oii; izan be, ba, Sanson eta Goliat
utsak bidaltzen dauz orain gitxien arteko
burruketara, Bat amarrentzako! Zakar ma-
kal azur-gorriok! Nok uste izateko eguño
olango adorerik eta azartasunik euki beor
dabenik?

KAR.—Beitanbera itxi dagigun uii au, yopu
buiu-aiinak diia, ba, eta ba-ledike goseak
oneik amunatuago egitea; atxinetik dodaz,
ba, ezagun; lenago itzuliko leukiez, ba,
anesiak aginka, uii-esitzea beitanbera itxi
baño.

REIG.—Eiloiuak izaten dabena lango, maki-
na bakanen bana dabela onein besoak,
olan yoten ekiteko, uste dot nik: ostantxean
eleukie gogoi egingo egin daioenez. Oi do-
zu niie edenetsia oneik beitanbera izteko.

ALEN.—Olan bedi.

ORLEANS'EKO SASIKUMEA aunea.

SAS.—Nondik da Delbin bakalsemea? Aien-
tzako dakadaz barriak.

KAR.—Ondo baño obeto etorria augu gure artera, Orleans'ekc Sasikume.

SAS.—Goibel eta gottiun dagozala uste dot zuzn mosuak, yoanik dala zuon poza; ora-intsuengoz azpiratuak izanak ekarri ete dauste orrako ori? Ez kikiidu, ez biozkatu, laguntzea ur da-ta; neskato guren bat dakat emen neugaz, eta neskato onek, goitik izan dauen ikuskizunen baten bidez agindurik dau uri-esitze gogaikarri au amaitu ta Ingelandarrak Pantze'tik uxatu dagizala. Igarketa sakonaren gogoa dau, beñolako Erroma'ko bederati sibilena baño andiagoo; eztau ak zer yazo dan eta yazoko dan azalduezinik. Esaizu, dei egingo ete dau-sat? Sinistu egizuz nire itzak, seguru ta uts-ezinak dira-ta.

KAR.—Oa, dei egiok (Alde SASIKUMEAK). Baña lenen,aren trebetasuna aztertuteko, Reignier, i yarri adi nire iekuan, Delbintzat; arro itandu egiok; begirakune zorrotzak egiozak: olan yakingo yoagu norañoko dan aren trebetasuna (Alde dagi).

SASIKUMEA aurrera barriro, NESKATO'A'gaz.

REIG.—Neskato lirain, zu zara egite arrigarririk egin gura dauzana, ala?

NES.—Reignier, zu zara niri ziria sartuko daustala uste dauena, ala? Nondik da Delbina? Erdu, erdu ortik atzetik; ondo ezagun zaudaz eguño ikusi izan ez-arren. Ez geiditu zurturik, eztago nik eztakidanik; bana-zean, guk biok biotara itz egin gura dot: atzeratu zadize, yaunok, eta cakarrrik itxi gagizuez apur baten.

REIG.—Lenegotatik azarten da ori adoretzu.

NESK.—Delbin, artzai-alaba nozu ni yaiotzaz, ezetariko trebetasunik niri iñok irakatsi bagakoa. Yaungoikoari ta gure Andera eskar-tsuari eder izan yake nire egokera zirtzila argitutea; ara! nire asuri gazte samurrak yagoten neragoiola, eta nire mcsuak eguzki errekorriari opatuten neutsazalarik, Yaungoikoaren Amari eder izan yakon niri agertutea, eta nagusiagotasundun ikustaldian, nik nire egikizuna itxi negiala gura ebal iragarri eustan, eta nire aberria ondikotik yarei negiala; bere laguntzea agindu eustan eta zori ona segurutzat; aintza osoan agertu zan gure Anderea; eta len baltze-ran eta baltz nintzan au berak ixuri eustan dizdiz argiz orain nazan eder egitea eder izan yakon ari. Neuk zer gura itandu egidazu, bai, eta bape gertau bagarik bertatik erantzungo dauz: orretara azarri ba'zadiz, burrukan ikusi egizu noragiñoko dan nire adorea. Ebatzi egizu onako onetzaz...

zori ontsu izango zara zure gudari-lagun gudadortzat artu ba'nagizu.

KAR.—Zurturik itxi nozu zure itz arroakaz; zer au bakarrrik egingo dot zure adorea zelango aan ikusteko, guk biok biotara egingo dogu alkarregaz burruka; eta zuk benderatu ^a'nagizu, egiazko dira "ure itzak; ostantxean eztautsut sinistuko ezertxo be.

NESK.—Gerturik nago ni; emen dago nire ez-pata epai-zorrotza, aldea bietan bost lillora dauzana; Touraine'n, Katarine Gurenaren elexpean burdinzar mendian nik autua.

KAR.—Erdi, ba, Yaungoikoaren izenean; ez-taustat nik emakumeri bildurrik.

NESK.—Eta bizi nazan artean eztaustat nik igesiko gizoni. (Burrukan daragoioe).

KAR.—Geldi, geldi zure eskuak! Amatzon zara zu, eta Debora'ren ezpateagaz doxagoio-zu zuk burruka.

NESK.—Kisto'ren Ama dot nik laguntzat, makalegi nintzake ostantxean.

KAR.—Dana dala lagun yatsuna, niri lagun izan bear zatxataz: irrikurrik nago zu lagun izan zakidazan; nire biotza ta nire eskuak bertatik benderatu daustazuk. Neskato bikain, zure izsna Neskato .ba'da, gero! zure otsein izaten, ez zure ugazaba, itxi egidazu: Pantze'ko Delbina yatsu eskari au egiten dauzuna.

NESK.—Enatxako etsi bear ezetariko maitasuneri, nire egikizuna goitiko guren da-ta; zure arerioak emendik uxatu dagidazanean erajiiiko dot gogoan ze sari eskatu.

KAR.—Bitartean begi onez begiratu egizu be-launbiko dozun zure yopu au.

REIG.—Nire uestez, luzaroegei daragoio berbetan nire yaunak.

ALEN.—Ba-ledike ak guk eztakiguzan asmoen batzuk erabiltea; ostantxean eleuke iraungo orren luzaro berbetan.

REIG.—Besterik eztogu bidaltzeko-ta, geuk kezkatuko ete dogu?

ALEN.—Ba-ledike aren asmoak guk dakigun baño andiago izatea; min zirikalariak izaten dabez emakumeak.

REIG.—Non zagoz, ene yaun? Zer asmetan *úcx* ragoiozu? Bertanbera itxiko dogu Orleans, ala ez?

NESK.—Ez, ez, gero! kikel sinisgorrorok! burruka egizue atzenengo annasaraño; neu izango natxatsue yagola.

KAR.—Orrek zer esan, sendatsi egingo dot nik: burruka egingo dugu Orleans'en alde.

NESK.—Ingelandarren zigor izateko izentaurik nago ni. Arratseon eragiko dot seguru be seguru uri-esitze ori; guduotan sartu nazanazkero, Martin Gurenaren udearen, Alkion

(1) egaztiaren egunen begira egon. Uretan egindako ustaia langoxe da aintza, geroago andiago egiten da, aziaren aziz ezereztu arte. Endika'ren eriotzeagaz amaitu ta ezereztuten da Ingelandaren ustaia; zabaldu ta ezereztu dira ustai-barru orretako aintzak. Beñola bere barruan Kaisar eta aren zori ona eroiazan ontzi arro bildurgarria langoxe naz ni orain.

KAR.—Usok putz egin eutsala Mahoma'ri? Olan izatekotan, arranok putz egin dautsu zuri. Etziran zure antzeko, zu añako, ez Elene, Kostantin Andiaren ama, ez Pillipa

III AGERLEKU.—LONDON. Torre'ko ate-aurrea.

GLOSTER'KO DUKEA aurrera, bere Yarraigo-koakaz, soñeko urdinekaz.

GLOS.—Torrea ikuskatuten nator egun onetan: bildur naz Endika ilazkero lapurretaren bat egin ete dan. Nondik ete dira yagolak emen agiri ez tiranazkero? Idigi atepak: Gloster dago deiez. (Atea yoten dabe Otseirrak).

I YAG.—(Barrutik) Nor dabil ate-yoka orren agintzadunkiro?

I OTS.—Gloster'ko Duke zindoa.

II YAG.—(Barrutik) Dana dala, ezin sartu zaitkeze.

I OTS.—Zitalok, olan erantzuten dautsazue Lord Yagoleari?

I YAG.—(Barrutik) Yaungoikoak yagongo al dau! Erantzun au emoten dautsagu; geuri gogoko yakuna egiten dogu guk.

GLOS.—Nok esan dautsue gogoko yatsuena egiteko? Neuk ez bestek nok egin daike gogoko yakonik? Neu bakarrik naz bazalderriaren yagola. Ausi egizuez atepak eta neuk erantzungo dol: onan eupada egin bear ete dauste sastegikumok? (Arrapaladan doaz GLOSTER'en Otsekrak Torre'ko atetara).

WOOD.—(Barrutik) Ze zarata, ze astrapala dogu au? Ze azpiyale dogu emen?

GLOS.—Nagusi, zure ete da nik dantzudan abotsa? Idigi egizuz atepak; Gloster dago emen barrura sartu-gurarik.

WOOD.—(Barrutik) Epe artu egizu, Duke zindo; ezin dodaz idigi; Winchester'ko Kardinalak galazoten daust: aren agindu berenbereregikoa dot ez zuri ez zureri saftzen ez izteko.

GLOS.—Woodvile kikil ori. ni baño geiagotzat dok ik Winchester arroa, ala? Elexgizon arro a, gure oraintsuengo bakaldun En-

Gurenaren alabak (2). Artizar, ortzetik lurrera yalgi ori, zelan yauretsiko ete zaudaz bear dan giñoan?

ALEN.—Beste baterako baztartu egizuz egikizuna gerorako izteok, eta itxi dagigun urisitze au.

REIG.—Emakume, al dozuna egizu gure omena yagoteko; uxatu egizuz orreik Orleans'etik, eta il-ezin egin zadiz.

KAR.—Bertatik aleginduko gara orrako agiten: tira, goazen atara: neskato au guzurti agertzekotan, eztausat sinistuko igarleri. (Alde dagie).

dika zanak iñoz be ezin iruntsi ebana, ala? Ez az i ez Yaungoikoaren, ez erregeren adiskide: idigi egizak atepak, ostantxean bertatik aterako aut ortik.

I OTS.—Idigi atepak Lord Yagoleari, ostantxean zartadaka idigiko doguz, arin epza'zatoz. (Barriro doaz arrapaladan atetara GLOSTER'en Otseinak).

WINCHESTER aurrera, soñeko gorri-orkaz yantzitako Otseñakaz.

WIN.—Kaxo, Humphry geiagokeritsu! Zer esan gura dozu onako onegaz?

GLOS.—Abade buru-ul, zuk agindu dozu ni barruan enagiela artu, ala?

WIN.—Bai, neuk agindu dot, azpiyala lapur, eta ez bakalderriaren, ez bakaldunaren yagola ori.

GLOS.—Atzeratu zadiz, zinkidetu alkarturiko agiri ori, gure yaun zana erailteko asma-ka ibili ori; oben egin dagien, emagalduai parkamenak emoten dautsezuzan ori: zeurre ganbelu zabalean sartuko zaudaz lotsabakokeri onetan yarra ba'dagizu.

(1) Azillako 11'ganean. da Martin Gurenaren yaia. Egun orren inguruan izaten diran eguraldi atrgi, epel, beroad esaten yake "Martin Gurenaren Udea". Alkion egaztia, umeak aferateko, arrautzen ganean dago, nean (Lotazillaren lenengo erdian) itsasoa bare egoten ei da.

(2) BIDLALIEN EGINAK (XXI, 8-9) Idazleu-neari, auxe dirakurgu: "Biamonean urten eta Kasarata'ra eldu ginizazan, eta Borri Onaren zabaltzalla ta zazpirefakoa zan Pillipa'renean sartu ta gelditu gintzaBoin. Lau alaba ebazorn onek, neska ta igarla".

WIN.—Bai zera, zeu atzeratu zadiz; oinkada bat be ezto egingo nik aizeruiiiza: Damasko izan bedi au, Kain añendua izan zadiz zu, zure anai Abel erailteko, gura ba'dozu.

GL.OS.—Etxaudaz erailço, baña bai zuri atzera eragin; umea erabilteko lokarriena eragingo dautset zure yantzi gorriai zu leku onetatik aterateko.

WIN.—Egizu egitera atomau zadizana; arpegi-ra dagitsut eupada.

GLOS.—Ostera! orren lotsa bagarik egin bear ete daust eupada neure arpegira? Atera ezpatak, gizonok, leku onek berarizko legerik izan-arren; soñeko urdindunak soñeko gorrizka-laruzkadunen aurka. Abade, yagoizuz zure bizarrak, euretatik zu goatu ta zuri ukabilkada lango ukabilkadak emeteko ebatzita nago-ta; ostikopean erabiliko dot zure kardinal-ganbelua; Aita Gurena, naiz eleknagusitzeak gora-bera, mosutik elduta gora-beraka zu tatarrez erabilteko gogotan nago.

WIN.—Gloster, Aita Gurenaren aurrean erantzun bearko dozu onako onegaitik.

GLOS.—Winchester antzar ori! Gedarrez diñot, ekarri lokarriren bat, ekarri lokarriren bat! Yoka, ukabilka atera egizue oraintxe emendik, zegaitik zagoze geldi? Neuk aterako zaudaz emendik, artaldeko otso ori. Alde emendik, soñeko gorrizka-laruzkadunok! Alde emendik, yantzigorridun azaluts orrek! (GLOSTER'ek eta bere aldekoak eraso egiten daiutse beste aldeakai. Iskanbillan aurrea doi'oz London'go Endorea ta Ertzaiakl

END.—Lotsaria, lotsaria, yaunak! agintaririk nagusienak izanik bakea onan lotsagarriro austen dozue-ta!

GLOS.—Bakean, eniore! gitxi dakizu zuk nire irañaren barririk: emen dozu Beaufort, ez Yaungoikoari, ez bakaldunari yaramonik egiteka, Torre au beretzat artu dauena.

WIN.—Emen dago Gloster be, uritarren arerica; bcti guduaren alde, bein bez bctkecken alde dagona, zergaren zergaz sakelak ustuten dautsuezana; yaurespidea ortik zear bidali gura dauena, bakalderriaren yagola dalako; eta emendik Torre'tik iskillcak atera gurako leukezana, bakalsemearena egin eta burestuna bere buruan iminteko.

GLOS.—Itzez eztautsut erantzungo nik, zartadaz baño (Burruka arinean d'aragoioe).

END.—Iskanbilla onetan nire egikizun bakarra agirian aldarrikatutea da. Tira, ertzai, aldarrikatu al dozunik ozenen, al dozunik zolien-

ERTZ.—(Ba-diraikur) "Yaungoikoaren bakearen eta bakaldunaren aurka iskillioakaz emen batu zarien guztitariko gizonok, bere goikotasunaren izenean zeuon etxeataratu zadizela aginduten dautsuegu zigorpean; eta eztagizuela erabili, ezta eskuetaratu be ezpatarik, iskillorik, sastakairik oraindik ara, eriotza-zemaipean".

GLOS.—Kardinal, nik ezto ausi gura legerik; baña alkarregana batu ta itzak bai ausi bear doguz, eta astitsu ausi be.

WIN.—Gloster, batu ba'gadiz batuko gara, zeure kalterako, bai orixe: zure biótzeko odola izango dot gaurko lanaren saritzat.

END.—Adakidunai dei egingo dautset emendik alde egin ezpa'dagizue: txerrena baño be arroago da kardinal au.

GLOS.—Agur, endore; al dozuna dagizu zuk.

WIN.—Gloster askarri ori! yagoizu zure burua, luzaro bagarik ori nire izateko asmotan nozu-ta. (Mordo bitan alde dagie Gloster eta Winchester'ek eta euren Otsenak).

END.—Doazala orreik, eta gero yoango gara gu. Yaungoiko on, andikiok onango asarrik izan-bearrena! Nik neuk ezto egin burrukarik berrogei urteotan. (Alde dagie).

IV AGERLEKU __PANTZE. Orleans'en aurrekoa.

Suodi-burua ta bere Semea aurrera arresiganean.

SUOD.—I, txotxo, ba-dakit ik zelan dagon Orleans esiturik, eta zelan irabazi dabezan Ingelandarrak uri-ertzak.

SEM.—Ba-dakit ori, aíta; eta sarritan ustu dot suodia eurak yoteko, baña, zori txarrez, uts egin izan dot.

SUOD.—Baña orain eztoz utsik egingo. Neure esanera ago: uri onetako suodi-buru nok

ni; zerbait egin bear yoat nire edergarritzat. Bakalsemearen kuikalariek iragarri yaustek Ingelandarrak uri-ertzetan lubaki-barruraturik dagozala, eta an aragoko torreko burdin-sare ostondutik kuika begiratuten dabela urira, eta olan igarten dabela aik zelan kezkatu uria tiroz, naiz erasoz, Oztopo au bidetik kentzeko, suodi bat imini yoat araxe zuzendurik; eta im egunotan egon nok begira ia ikusten dodazan. I ago orain yagoten, ni ezin egon nok luzarago-ta; eze-

tarikorik ikusi ba'dagik, arin ator nigana barriagaz; yaurlearenean idoroko nok. (Al-de dagi).

SEM.—Seguru zagoz, aita; ez izan ezetarik ardurarik; eztautsut emongo kezkarik, ikusi ba'dagiaz aik. (SALISBURY ta TALBOT Lordak aTako torreko goitsgira datoz, bait-tct Sir GILLELMA GLANSDALE, Sir TOMA GARGRAVE, ta beste batzuk be).

SAL.—Talbot, i atzera etorriaz, atzera etorri yatazak nire bizia ta nire poza! Zelan erabili izan abe atxilo egon azan bitartean? Naiz, ze bidez iritxi izan dok yarei gelditutea? Azaldu egidak, arren, torre onen goie-nean.

TALB.—Ponton d-í Santrailles deretxon andiki bat eban Bediord'eko Dukeak atxilo; aren alderako erosi ta yarei nabe. Bein, niri irri egitekgu-iarí askozaz be zirtzilagoaren ordez yarei gura nenduen; eta nik olangorik aintzakotzat artu ez-eta, ezetza emon neuntsen; eta gurago neban il, ni iñok orren zirtziltat etsi baño lenago. Atzenean be, neuk zelan gura saldu nabe. Eaña, Ui! mindu ta zauritu egiten daust bionta Fastolfe saltza-Ueak, nire bendea ba'neu, nire ukabilekaz arena egingo neunenak.

SAL.—Oraindik eztauskuk esan zelan artu euenik.

TAL.—Irriz, zapuztez, eta arrokeriz erabili nabe. Uriko zeira ateraten nenduen, guztien ikuskizun izateko: "Amen", esaten eben, "Amen Pantzetarren bildurr-ikarea zana, gure umeak orrenbesteraño bildurtuten dauzan txuxoa". Orduan nik indarka yareiten neban nire burua ertzaiekandik, eta nire atzazalakaz lurretik arriak aterata, nire loutsaria ikusten egozanai yaurtíten neuntsezan: nire arpegi latza zan asko beste batzui igesi eragiteko; iñor be etzan atometan nigana urreratuten bertatiko eriotzearen bildurrez. Burdinezko orma-barruan be eneunkien segurutzat; nire ain bildur andia zabaldu zan euren artean-eta, galtzaiduzko ageak be ausi neikezala uste eben, eta ikatzarrizko zutikoak be zatitu neikezala; au dalata, gizon tirolaririk autuenak nebazan nire yagolatatzat, eta eten barik nire inguruan ibilten ziran; eta oetik yagiteko zirkinik txiekiena nik egitekotan, gertu egozan aik ni biontzean zaurituteko.

SAL.—Atsekaberi!: asko dot yasan dozuzan elorrioak entzunaz; baña asazkatze lango asazkatzea egingo dogu orrako orregaitik. Apaitordu da orain Orleans'en: emendik, sare onetatik zear banan banan zenbatu

daikedaz, eta ikusi Pantzetarrak zelan gogortuten diran: begiratu dagigun barrua; atseñin be atsegin izango yatsu ikuskizuna.—Sir Toma Gargrave ta Sir Gillelma Glansdale, ertzungo al dodaz zuon ertxiak zein dan lekurik onena guk gure suodiak urrengo aldiz iminteko.

GA.R.—Iparraldeko atea, nire ustez; an dagoz anriikiak-eta.

GLAN.—Eta emen, nire ustez, zubiko lugana aurrean dabela.

TAL.—Nigazko, gosetu egin bear da uri au, edo-fa makaldu burruka arinez. (Uritiko tiroa. Lurrera yausten díra SALISBURY ta SIR TOMA GARGRAVE).

SAL.—Ene Yaungoikoa, erruki zakiguz obentí errukarrioi!

GAR.—Ene Yaungoikoa, erruki zakidaz gizon errukarri oni!

TAL.—Ze ezbear *da* onen bapatean ganera etorri yakun au? Itz egizu, Salisbury; itzik egin al ba'dozu beintzat: zelan zagoz, gizon adoretuen ispillu izan zarean ori? Ercuzirik, kendurik zure begi bata ta mosutik erdia! Torre gaiztetsi au! Gaiztetsia bedi ezbear oioltzu zori txarreko au asmau daunenaren esku erailkorra! Amairu gudaketatan irabazle izan zan Salisbury; bera izan zan eguño lenen Endika Boskarrenari gudu egiten irakatsi eutsana; tutuk, naiz danborrek ots egiten eban bitartean, aren ezpcteak ez eban arterik artzen, gudategian yo ta yo baño. Oindiño be bizirik zagoz, Salisbury? Itzik eza izan-arren, ba-dozu begi bata, eta zerua begira dago erruki-eske: begi bategaz begiratuten dau eguzkiak mundu osoa. Yaungoikoa, ez egizu izan errukirik iñorentzako be, zure eskuetan Salisbury'k errukirik ez izatekotan! Kendu egizue emendik bere gorpua: neu lagun izango naz bera obiratuteko. Sir Toma Gargrave, bai ete dok ik bizirik? Itz egiok Talbot'eri; areago, begiratu egik. Salisbury, pozkarri onegaz poztu egik ire gogoa; ez az ilgo, zera dan bitartean... Dei egiten daust bere eskuagaz, eta irribarre be egiten daust, zera esango ba'leust lez, "Ni il eta yoan nadinean, gomutau nagik eta Pantzetarrakaz azaskatu akit". Egingo dot orrako ori, Plantagenet; eta ire antzera, Neron, kitarrea yoko yoat; uria sutan dagon bitartean: nire izenagaz bakarrik be zori txarreko izango da Pantxe. (Ostetsa entzuten da; gudu-deia geroago) Zer dogu zirkin au? Ze iskanbilla dogu ortzean? Nondik dator gudara-dei au, eta ots au?

Geznari bat aurrera.

GEZN.—Ene yaun, sendotu egin dira Pantzetn-rrak: Delbina Yone neskatoagaz bat eginik (Igarleno gurcn 'srlu-bnrrin dn Yncndaiako au), indar andiagaz etorri da urisiztea kentzeko. (SALISBURY yagi egiten da intzirika).

TALB.—Entzun, entzun zelan intziri dagian ilginik dagon Salisbury'k! Keskatu ta iguin-

du egiten dautso biotza azaskatu-ezinak, Pantzetarrok, neu izango naixatsue Salisburry: neskato, naiz nazkato, delbin, naiz arbin, biotzak zapaldu ta atera egingo dautsuedaz nire zaldiaren apatxez, eta zukua egingo dot zuon garaunak alkarregaz nastaut. Bere txoznara eroan egidazue Salisbury, eta orduan dakuskegu zetara atometan diran Pantzetar sasikumok. (Alde dagie gorpuak ercan daroezala).

V AGERLEKU.—Lengoxea. Uriko atetatik ba'en aurrean.

Guda-otsak, gitxi batzuen sartu-urtenak. TALBOT aurrera, DELBINA'ri yarraika, barrura sartuazota, aWe dagi; YONE NESKATOA gero aurrera, Ingelandarrak aurrean dakazala, eta alde dagi euren atzean; TALBOT gero barru aurrera.

TAL.—Nondik da nire sendotasuna, nire adorea, ta nire indarra? Atzeraka doaz gure Ingelandar gudariak, eta ezin dodaz geldituazo; guda-koskolez yantziriko emakumek daroaz aurrean. Emen, emen dator no ori.

NESKATOA aurrera,

Zein geiagoketa bat izan gura yonat igaz; txerren, naiz txerrenaren ama, araotu, zinkidetu egiten aunat; odola aterako dausnat, sorgin augu i, eta bertatik emon egion ire gogoa otsein atxakonari.

NESK.—Erdi, erdu, neuk, neuk bakarrik itxiko aut lotsaturik. (Burrukan daragcioe).

TAL.—Yaungoikoa, sulezeak nagusi urteterik yasango ete dozu? Iztenak eragingo dautsodaz nire bularrari nire adorearen aleginen aleginez, eta nire sorbaldetakoa arrakaldu dadila, baña nik bereak eta erdi emongo dautsodaz emagaldu adoretzu oni. (Barru burrukan).

NESK.—(Atzeraka doala) Agur, Talbot; oindi, ño eztok eldu ire ordua: Orleans'eri yatekoak eroaten yoan bear yoat. Goatu nagik, al ba'dok; irri egiten yauntsat ire indarrari. Oa, oa, poztu egizak ire gizon goseak ilak; lagun akio Salisbury'ri bere ilburukoa egiten; gure dok egun au, beste asko izango diranez. (NESKATOA urira sartzen da Gudariaiakaz).

TAL.—Ontziginaren txirrinkea lez biraka dabiltz nire gogaiak; eztakit ez non nagon, ez zeri daragoiodan: Anibal'ek lez. sorgin batek bildurrez, ez indarrez, atzeraka daroaz gure gudariak, eta berak zelan gura ira-

bazten dau; olantxe uxatuten dira erlak keagaz euren erlauntzetatik, eta usoak usain andurrez euren usategietatik. Gure gordinkeria dala-ta, Ingelandar txakur deitu gabez; orain, barriz, txakurkumek legetxe irrintzeka igesi egiten dogii. (Guda-ots labur bat) Entzun, aberkideok! edb barru egin burruka, edo erauzi leoiak Ingelanda'ko mazarrotik; agur egiozue zuon lurrari, ardiai emon egiozue leoiene ordez; ardiak eztabe igesten orrenbesteko bildurragaz otsoagandik, naiz zaldik, naiz idik lunabarragandik, ainbestetan benderatu dozezan yopuekandik zuok igesten riozuenez. (Guda-ots. Boste gudoketa arin bat). Ezta yazoko olangorik: -zuon lubakietara zoaze: zuok guztiok etsi zintzazen Salisbury'ren eriotzarako, zuotatik batek be eztau emon gura izan zartada bat be agazko azaskatuteko. Sartu da Neskatua Orleans'era, gu gora-bera, naiz guk egin gora-bera. U! Salisbury'gaz ilgo al nintz! Onako onen lotsariak nire burua ostonduzo egingo daust! (Guda-ots. Atzerakeia. Alde TALBOT'ek *et.a* Indarrak).

Yai-eresi. Arresi-ganean aurrera NESKATOA, KARLA, REIGNIER, ALENÇON eta Gudariak.

NESK.—Zabaldu gure ikurriña arresi-ganean; Orleans' en yabe egin gara barru, Ingelandarrai kenduta; bete dau Neskatoak berak emondako itza.

KAR.—Irazakirik yainkotarren ori, Asteraie'ren (3) alaba ori, ze omen ezarriko ete dautsuzorion onegaitik? Adonis'en baratzen antze-

(3) Eladetarren miti-iztiak diraruskunez, Tzeus eta Themis'en alcrba dr Asterie (Asterie), zuzentza-yainkono. Emen lurrem bizi ei zan Urrezko aldan, baña, iguindurik se-guru be, goiko zorictegitira alde egin ei ebcm emen lenengo obena egin zctnean.

ko dira zure aginduak, gaur loratu ta biar igaliak emoten dabezanak langoxe. Pantze, yáí egizu zure igarleno aintzatsua dala-ta!... Bein barriro egin gara Orleans'en yabe; zorion zorionsuagorik etxako eguño etorri gure legeriari..

REIG.—Zegaitik ez yo Orleans uriko yoale guztiak? Delbin, suak egin dagiezala agindu egiezu uritarrari, eta etxartebide zabaletan yai eta oturuntzak egin dagiezala, Yaungoikoak emon dauskun poza iragarteko.

ALLEN.—Pantze osoa fcteko da poz eta atseginenez gure yardunbideaz yakitun egin dadizanean.

KAR.—Yone'n bidez irabazi izan da eguna, ez gure biiez; eta, orregaitik, nire burestu-

netik erdia berari emongo dauosat; eta nire bakalderriko abade ta lekaide guztiak bidean lerro-lerroka abestuko dabe aren amaibako gorapena. Eta Rodope ta Memphis'koak baño piramide garratagorik eragiazoko dot nik bere oroigarritzat a il dadi-nean, bere autsak, Dari'ren kutxa pitxitsua baño ederragoan sarturik, Pantze'ko bakaldun eta bakaldunoen aurrera eroango dira ydi andietan. Oraindik atxina eztoгу esango Gora Dunixi Gurena, Yone Neska-toa izango da, ba, Pantze'ren gurena. Sartu gadizan eta bakaldar oturuntzea dagi gun garaite onetako urrezko egun onetan. (Po'Z-erssia. Alde dagie).

II EKI TALDI

I AGERLEKU.—ORLEÍ NS'en aurrea.

Pantzetar Amarburu bat aurrera Uriko atetan, eta Yagola bi.

AMAR.—Zeun lekuetan yarrí, yaunak, eta zur egon: otsik, naiz gudaririk somatu ba'dagizue arresien ondoan, zelanbait iragarri egiskuzue yagola-arrazpelan egongo gareanoi.

I YAG.—Iragarriko yatsu, amarburu (Alde Amarburuak). Onan bizi bear dabe otsein errukarriak, besteak euren oe nasai apitzetan lotan dagozan bitartean, ilunetan, euritan, eta otzik bizitera bearturik.

TALBOT, BEDFORD, BOURGOGNE, ta Indarrak aurrera, ormak gora igoteko zurubi ta guzti; euren danborrak ibilte-eresi ixila yoten dabelarik.

TAL.—Lord Bakalordeko ta Bourgogne entzutsu (Zu gure aldera itzuli zarealako Artois, Wallcn, eta Picardy erkiak gure adiskide diran ori), segurutzat dagoz Pantzetarrak euren gau zorionsu onetan, egun osoa yanedanetan igarorik; besarkatu dagigun ereti au, ba, ezetariko iruzurren susmorik izan eztagien, trebetasunez eta sorginkeriz asmauriko iruzurren susmorik.

BED.—Pantze'ren koldar! Bere entzuteari egiten daustan kaltearena, bere beso ta iskilloen sendotasuna sorginekaz eta sulezearen laguntzeagaz nasturik.

BOUR.—Saltzalleak eguño eztabe izan lagun

obarik. Baña nor da Neskato ori, aik orren garbitzat daben ori?

TAL.—Neska dala diñoce.

BED.—Neska! ta orren adoretu izan!

BOUR.—Yaungoikoa-arren, luzaro bagarik ez al da agertuko gizonezkotzat erabilten asi danez, guda-koskola Pantzetarren ikurrinpean eraLili ba'dagi.

TAL.—Tira ba, dabiltzala txerrenakaz sorginkerietan; Yaungoikoa 'dte gure sendotasuna, ta Bere izen garailearen bendeen erabagia artu dcgigun euren suarizko arresiak gora igotolco.

BED.—Igon, Talbot adoretu; ire yarrari yoango gozak gu.

TAL.—Guztiok batera ez; nire ustez, askozaz be oba da gure bidea leku askotatik urrutea; batek alanbearrez porrot egitekotan, orraitio be bestek, naiz besteak arein aleginak gora-bera igon al izateko.

BED.—Etsita; ara aragoko okolura yoango nok ni.

BOUR.—Eta ona ni.

TAL.—Eta emendik igongo da Talbot, ostantxean au izan dadila bere ilobia. Orain, Salisbury, gau onetan agertuko dok igaitik eta Ingelanda'ko Endika'ren eskubideagaitik, zelangoz zintzotasuna davxtsuedan zuoi bioi... (Ormak qera dcaz Ingelاندarrak, Gora Gorka G-urso! Talbot! gedar eginaz, eta guztiak sartzen d-ira Una-a).

YAG.--!skilloetara! Iskillotetara! ganera dator arerioa!

Atorra utsectn arresietatik yauzi egiten dabe Pantzetarrak. Ainbat bidetatik aurreia SASI-KUMEA, ALENCGN, REIGNIER, erdi-yantzi-rik.

ALEN.—Zer dogu au, ene yaunak? Ostera! guztiok onan erdi-billusik?

SASI.—Erdi-billusik! bai. eta pozik alan be, oker andiago bagarik igesi dogulako.

REIG.—Atzarri, gure oak itxi, ta gure lo-geletako ateetan gudu-otsak entzunik alfe egiteko ordua izan da, bai orixe.

ALEN.—Iskilloetara yo nebanazkero eztoz entzun izan onango gudu-egite andi zoriontsuago, naiz etsiagoren barririk.

SASI.—Nire ustez, sulezako txerrenen bat da Talbot au.

REIG.—Sulezakorik ezpa'dok, seguru be seguru aren aide dago Yaungoikoa.

ALEN.—Emen dator Karla; zelan ibili dan yakin gura neunke.

SASI.—Ba! Yone gurena izan dau bere yagolatzat.

KARLA ta NESKATOA aurrera.

KAR.—Au da zure trebetasuna, emakume ziri-sartealla? Gu milikatuteko, gur txanpalke-riaK egiteko, lenengotan irabazi apurtxo bat iristeko izan zaxtakuz lagun, orain gure galtezak askozaz be andiagoak izateko, ala?

NESK.—Zegaitik artogatuten yako Karla bere adiskideari? Beti bardin izango yatsu nire ala, ala? Lotan, naiz atzarrik, nagusi urten

II AGERLEKU.—ORLEANS. Uri-barrua.

TALBOT, BEDFORD, BOURGOGNE, Gudalburu bat, eta beste batzuk aurrera,

BED.—Asi da eguna argituten, eta yoanik da gaua, bere yantzi baltzagaz lurra estalduten izan dauana. Atzeraketea yo orain, eta amaitu gure yarraiketa beroa. (Atzercketa-otsa).

TAL.—Ekarri ona Salisbury zarraren gorpua, eta emen uriko zeian imini, uri biraotu onen erdi-erdian. Ordaindurik dot orain aren gogoari nik egindako zina; aren soñetik ateratako odol-tantan bakotzeko gitxienez bost Pantzetar il dira gau onetan. Eta agaz azas-katuteko zelango triskantzea egin dan etorkizunak ikusi dagian, euren yaiuetxerik beinenean eragiko dot ilobi yagi bat aren omenez, eta an ilobiratuko dot aren gorpua:

bear ete dot nik, ostantxean nñri ezarri zuk errua? Ardura bagako gudariok! ondo egin izan ba'zeue zuon yagoiaiea, elitzakean yazoko eguño bertatiko oker au.

KAR.—Alañon'go Duke, zure erruz yazo da au, gau onetan yagolen buru izanik, obeto begiratu ezotozulako eraso gogor ori.

ALEN.—Bere ardurea euki dodan lekua bes-tean ondo yagonda egon ba'litzaz zure alderdi guztiak, ezkintzakezan izango onen otoz-otoan goatuak.

SASI.—Seguru egon da nire lekua.

REIG.—Eta, nigazko, gaurik geienean, Yone'n auzoan eta neurean batetik besteraka ibili naz, yagolak fcarritzetan; au onan dala, zelan, eta zein bidetatik sartu dira lenen?

NESK.—Yazoaz itzik bez geiago, ene yaunok, zelan, naiz zein bidez sartu diranentz; seguru da gitxi yagondako tokiren bat edo beste idoro dabela, eta andik sartu diiala, Eta oiain au da guie egikizun bakaira, zera, batu sakafcanatu ta zabaldurik dagozan gure gudariak, eta goitegi barriak imini orri kalte egiteko.

Guda-otsak. Ingelandar gudari bat aurrera, "Talbot"oioka. Igesi egiten dabe Pantzetarrak, euren soñekoak bertanbera itxita.

GUD.—Areik itxi dabena artzeraño atomauko naz. Ezpatearena egiten daust Talbot gedar egiteak; eta izan be, goakairik askogaz zamaturik nago aren izenaz beste iskillorik erabili бага. (Alde dagi).

eta bere ganean, edonok irakurri dagian, Orleans'eko lapurretea irarriko da, zelan il zan aspikeriz, eta zelango bildur-ikara izan yakon Pantze'ri. Baña, lordok, andi eretxita nago gure triskantza odoltsu guztian zelan eztogun trikitxik egin Delbinagaz, txapeldun izanbarriagaz, Ark'eko Yone onindartsua-gaz, ezta bere lagun ustelakaz be.

BED.—Uste denez, Lord Talbot, burrukea asi danean bereala yagi dira euren oetatik eta iskillodun gudarien artetik zear arresiganetik yauzi egin dabe, euren gordeleku-tzat mendira yota.

BOUR.—Ni neugazko (ketan eta goxaldeko lurrun lausokorre'tan berezi cl nebaneroño). Seguru nago ni, neuk ikaratu dodazala Delbina ta bere kutuna, ez egunez ez gabaz alkarregandik ezin banandu diran galeper

or-emeok legetxe, alkarri besotik elduta, biak ariñeketan eiorri diranean. Gure indar osoagaz yarraiko gatzakez, emengo zerak euren lekuetan imini dagiguzanean.

Geznari bat aurrera.

GEZ.—Gora, ene yaunok! Zein da bakalsemeyarraigo onetan Talbot kementsu deretxona, Pantze' ko bakaláerri onetan bere egite ospatsuakaitik ain txalotua dana?

TAL.—Esr.en dago Talbot: nor da agaz itz egin gura leukena?

GEZ.—Auvergne'ko Kondeno andera onindartsua, zure entzuteaz arriturik, nire bitartez eta lotsaz eske dagotsu, lord andi, bere aintzearen otsak mundua beteten dauen gizona aurrez aurre ikusiaz bera ilarraindu al izateko abagunea emon dagiozula.

BOUR.—Olan dok, ala? Ba, olan ba'dok, olgeta baketsura aldatuko dozak gure guduok, anderak alkar ikuste-eske datozanazkero.

III AGERLEKU.—AUVERGNE. Gazteluko Arrazpela.

KONDENOA ta bere Atezaia aurrera.

KON.—Atezai, gomutau egik zer emon dauskadan yagoteko; eta bein ori eginazkero, ekadazak giltzak.

ATE.—Egingo dot orrako ori, andera. (Alde dagi).

KON.—Iminita dago marroa; dana ondo urteketotan, Kir'en eriotzeagaitik Tomíre Eskitiarra bestean entzutetsu egingo naz ni egite andi onegaitik. Andi *da* zaldun bildurgarri onegazko zurrumurrua, cta onen egiteena ez bape txikiago: nire begiak be ikusiko al dabe gizon ori, belarriak entzundako iñondiko zurrumurruaz euren eretxi emon dacin.

Geznaria ta TALBOT aurieia.

GEZ.—Andera, etorri da Talbot, geznaz iragarritako zure gtirarfen arauz.

KON.—Eta ondo etorria dogu. Ostera! au dogu arako gizona, ala?

GEZ.—Bai, andera.

KON.—Au da Pantze'ren zigorra, ala? Au da arako Talbota, or ainbesteko bildurra yakona ta amak euren umeak bere izenagaz ixilduten dabezana? Iraçarria ipuin utsa ta guzurrta dala dakust: Erkul'en bat ikusiko neukea'akotan egon naz ni, beste Etor'en bat, arpegi gordin eta soin-atal itzalakaz. Ai ene!

Ezin daikezu, ene lord, ezin daikezu zapuztu olango eskakizun atsegíngarririk.

TAL.—Ba-zeunke Talbot'egan uste onik ez izateko biderik, nik olangorik egin ba'nei; eta izan be, gizezko mundu osoafc bere itz-trebetasunez zerbaít ezin írabazi izan daueanean, emakume baten txerakortasuna izan da asko irabazteko: esaiok, ba, eskarrik onenez erantzuten dautsadala, eta men eginik artuko dodala nire aurrera. Zuotatik onenak ez ete yataz lagun izango?

BED.—Ez; benetan, ez; era-mera onez besterako litzake ori; eta entzunik dot deitu bagako arrotzai yoan doazanean egiten yake-la txerarik argiena.

TAL.—Tira ba, bakarrik artuko dot. Besterik ezin danean, eta ikusiko dot andera onen txerea. Erdu ona, gudalburu. (Txutxuputxuka daragoio). Aitu ete dozu nire asmoa?

GUDALB.—Aitu dot, ene lord, eta olan egingo dot. (Alde dagie).

ume da au, epo motxor barregarrí! Ezina da onango kuskubillo merro iristuk arerioai ainbesteko bildurrik sartzea.

TAL.—Andera, zu kezkatuten atomau naz, baña zure anderatasunak astirik eztauenazkerro, aldi egokiagoren baten begira egongo naz zu ikusten etorteko. (Ba-doaanarena egiten dou).

KON.—Ze asmo dau orrek orain? *Oa. Ia* noira doan itamdti egiok.

GEZ.—Etzoizu, ene Lord Talbot; yakin egin gura dau, ba, nire andereak zegaitik olan bapatean alde egiten dozun.

TAL.—Ba! *a* uste okerrean dagolako, Talbot emen dagola *a* segurututen noa.

Atezaia aurreia bariiro giltzakaz.

KON.—Zu ba'zara arako a, nire atxilo zara.

TAL.—Atxilo! noren atxilo?

KON.—Nire atxilo, lord odol-egarpera; eta orregaitik ekarr zaudaz nirera. Zure itzala luzaro izan da nire yopu, nire sollairuan dago, ba, eskegita zure irudia; baña orain berbera yazoko yako zure mamiari be; eta gure aberria alperrik galdu, gure erriki-deak erail, ta gure seme ta senarrak urteotan zure gordinkeriz atxilo dozuzan orren zango ta besoak netik estuko dodaz.

TAL.—Ja, ja, ja!

KON.—Barre egiten dozu, zoritxarreko orrek? Naibcgotu egingo da -"iire ooza.

TAL.—Berari gogor egiteko, Talbot'en itzalaz besterik eztozula uste izatera itzulirik zagozala ikusteka eragiten daust barre.

KON.—Arako gizona bera zara zu, ala?

TAL.—Bai, izan be.

KON.—Olcn izatekotan, irudi ta itzalaz ga. nera, aren mamia bera be ba-dot evnen.

TAL.—Ez, ez, nire itzala baño enaz ni: oker zagoz, nire izana eztago emen: gizonarenik atalik txikiena gitxien aintzako dana baño ezta zuk dakusazuna: neuk dirautsut, ba, andera, nire molto osoa ba'lego emen, din garai eta zabalj da-ta, zure tellatupea elitzake asko bera artzeko.

KON.—Uskeria odeietaraño goratuten dauen salerosla dogu au; emen ei dago, eta orraitño ez ei dago emen: zelan egiteko alkarren kide ta adiskide alkarren aurka dagoz zerok?

TAL.—Bertatik erakutsiko dautsut egia dala nik esana. (Adarra yoten dau. Danborrtsak entzuten dira; succd:-otsak gero. Ateak aurrean daroezala, Gudariak aurrera). Zer diñozu, andera? Etsita ete zagoz orain Tal-

bot bere itzala baño ezta? Oneik dira aien mamia, aien zarnilak, aren besoak eta indarra, eta oneikaz buztarperatuten dauz ak zuon idun asaldariak, luireratuten dauz zuon uriak, eta zuzituten dauz zuon uriskak, eta une baten izten dauz utsik.

KON.—Talbot garailla! parkatu nire iraña: zure entzuteak zabaldu dauen zure otsa baño gitxiagorik etzareala didoiet, eta zuie iruditik susmau lediken baño geiagorik bazareala. Nire uste arinak ez al dautso dei egingo zure asaneari, tamalik eta naibagaiik asko dot, ba, begirapenez artu etzau-dazalako, begirapenez eta zareanez.

TAL.—Etzadiz larritu, andera lirain; eta ez egizu txarto aitu Talbot'en gogoia, aren soñeko azala txarto aitu dozunez. Enau iraindu zuk eginak; nire naikogarriritz (zure opcagaz) eztoz gura zer au baño besterik, zera, zure ardaoa zelango dan ikusi dagi-gula, baita zure yakiak zelango diran be; beti etorten yakez, ba, ondo gudarien urdallai.

KON.—Biotz biotzez, eta seguiu zagoz omentzat dodala olango gudari andiri nirean yaten emotea. (Alde dagie).

IV AGEHLEKU.—LONDON. Temple'ko Baratza.

SOMERSET, SUFFOLK, eta WARWICK'EKO KONDEAK aurrera; baita ERRIKARTA PLAN-TAGENET, VERNON, eta Legegizon bat be.

PLAN.—Lord andi ta aitonsemeok, zer esan gura dau ixiltasan onek? Iñor be ez ete da atometan nik esana egia dan ala ez erantzuten?

SUF.—Zaratatsuegi ibili gara Temple'ko be-barruan; egokiago da baratz au.

PLAN.—Orrazkero, bertatik esaizu ni egia-aren alde nagonentz, naiz, ainbaten dana, ainbeste zaratagaz Somerset oker egon dala.

SUF.—Egia esateko, enozu ni legeetan aiturik, eta eguño etxat izan gogoko arlo ori; eta au dala-ta, nik nire aldera eragiten dau-tsat legeari.

SOM.—Olan izatekotan, zuk Warwick'eko ene loid oirek ebatzi egizu guie arteko auzia.

WAR.—Aztore bitik, zeñek egiñen dauen egaz goiago; ezpata bitatik, zeñek dauen giro ohea; zaldi bitatik, zeñek daroan obeto gane-koa; neskato bitatik, zeñek dauen begi aigigaoa: txakui bitatik, zein dan usikail ohea; olango zeia-ek ebatzen ba-ledike ni zuzen egotea; baña legeaien kakomako

meotan, egia esateko, enozue ni eskillasoa baño bape yakitunago.

PI AN.—Ba, ba! zirríst egiten dozu zuk polito, erantzutetik: egia ain argi agiri da nire alde-ta, gizonik itsuenak be ba-lekuske.

SOM.—Eta nire alde ain apain yantzita dago-ta. ain argi, ain garden, ain agiri, ain 'dizdikor dago-ta, gizon itsuaren begira be bidea urratuko dau.

PLAN.—Mña loturik euki, ta itz egiteko orren muker zarienzkero, itzik bagakoen bidez iragarri egizuez zuzen eretxiak; aitonseme yator izan eta bere yaiotza zindoaren omenaren ganean zutunik dagonak, egia-aren alde eske nagola uste ba'dau, nigaz batera larrosa zuri bat kendu dagiola asuar oni.

SOM.—Ez kikil, ez koldar, ezta zuritzalle be eztanak, ori bagarik egiaren alde yarten atomau daitenak, larrosa gorri bat erauzi dagiala arantza onetatik.

WAR.—Enaz ni kolore-zalerik; eta txanpalke-ri-koloreren ezetariko sunda bagarik, larrosa zuri au artzen dot nik Plantagenet'egaz.

SUF.—Larrosa gorri au artzen dot nik Someisel gazteagaz; eta onan, niie ustez a dagola zuzen diñol.

VER.—Etxon, lordok eta aitonsemeok, eta ez artu larrosarik geiago zuok ebatzi arte, bere alde larrosa gitxiago artuko danak men egingo dauela bestearen eskubidearen al•*d'e*.

SOM.—Master Vernon on, ondo esanda orixe; gitxiago lortu ba'dagit nik, ixilik izenpe-tuko dot besteen eretxia.

PLAN.—Bai nik be.

VER.—Olan dala, egiaren alde eta zer au agiri agiria dalaren alde, lora zurbil neska-koloreko au artzen dot nik, nire epaia larrosa zuriaren alde emonik.

SOM.—Ez ziztatu, gero, zure atzik lorea artzen daragoiozun bitartean, odola dariozula larrosa zuria gorritu eztagizun eta, olan, zeurre gogoaz bestera, nire alderatu etzaitzean.

VER.—Niro eretxiaren alde odolik ixuri ba'dagit, ene lord, eretxia izango da nire minaren osagille, eta orain dodan eretxiaren alde eukiko nau a ta guzti be.

SOM.—Tira ba, tira ba, aurrera; nor besterik?

LEG.—Nik ikasia ta r.ire idaztiak diñoena guzur ez izatekotan, (SOMERSET'eri) okerreko zan zuk ekarririko zegaitia; eta ori erakusteko, neuk be larrosa zuria artzen dot.

PLAN.—Non dok orain ire zegaitia, ire aldeko argibidea, Somerset?

SOM.—Emen lekan; buruan yarabilk odol gorritan busti busti egingo dauela ire larrosa zurja.

PLAN.—Bitartean, gure larrosa zuriena egiten yoek ire mosuak; bildurrez zurbil yagozak, ba. egia gure alde dagola autortuten.

SOM.—Ez, Plantagenet, eztoz bildurragaitik, asarrez bano, ire mosu gorriak gure larrosa gorriena egiten dabelako lotsaz asarraturik. eta orraitño be ire miñak etxok autortu gura oker agola i,

PLAN.—Ez ete yok arrik ire larroseak, Somerset?

SOM.—Ez ete yok arantzarik ire larroseak, Plantagenet?

PLAN.—Bai, zorrotza ta sarkorra, bere eskubideari eusteko; ire ar yaleak ire guzurra yaten daragoioen bitartean.

SOM.—Tira ba, idoroko yoat nik adiskiderik odola darioen nire larrosak erabilteko, nik esana egia dalari eutsingo dautsoenak, ara agertuten Plantagenet atomauko eztan lekuan.

PLAN.—Eskuetan dodan larrosa garbi auarren, bost ardura yaustak igaitik, mutil muker, ets ire kideakaitik.

SUF.—Ez egiek bide ori arrazo ire zapuzteai, Plantagenet,

PLAN.—Arrazoko yautset, Poole arro; eta biok zapuztu be, i ta ori.

SUF.—Olan izatekotan, eure eztarrira biurtuten yoat ortik nitzako dan zatia.

SOM.—Goazen, goazen, De-la-Poole'ko Gillema on! eder egiten yautsaguk lugin orri berorri itz eginaz.

WAR.—Yaungoikoa-arren, irain egiten dau-tsak, Somerset; Clarence'ko Duke Lionel zoan orren aitaita, Ingelanda'ko Lrugarren Edorta Bakaldunaren irugarren semea: zelan urteteko gangar bagako luginik olango zustar sakonetik?

PLAN.—Leku onen berarizko legeari ateraten dautso orrek koipea, ostantxean elitzake atomauko olangorik esaten, bildurti da-ta.

SOM.—Egin nenduna-arren zin dagit, nire itzai eutsingo dautsedala Kistartasuneko edozein lekutan. Etzoan ire aíta Errikarta, Cambridge'ko Kondea, oraintsuengo gure bakaldunaren aldian azpikeriagaitik eriotzaratua, ala? Eta bere etoikeriagaitik ez ago i orbandurik, usteldurik, eta lenagotiko andikitasunetik alde eraginik, ala? Aren odola oraindik be errudun bizi dok ire odolean; eta leneratu arte, lugin baño ez az i.

PLAN.—Salatua izan zoan nire aita, ez orbandurik; etoikeriagaitik eriotzara epaitua, baña ez etoirik; eta Somerset baño gizon obagaz erakutsiko dot onako au, uztea emoteko dagon aldian nire gogara eldurik ba'lego. Zure lagun Poole ta zu zeugazko, nire gomutearen idaztitan iminiko zaudedaz irain onegaitik, zuoi zuonak eta erdi emoteko; oar akio diñodan oni, eta aurreztik esanda agola yakik.

SOM.—Bai, ori gora-bera gerhirik aurkituko gozak ir> erantzuteko; eta koloreon bitartez ire areriotzat ezagutu gagizak; i gora-bera, nire adiskideok-arren erabiliko yoadaz koloreok.

PLAN.—Eta, nire gogoa-arren, beti erabiliko nik eta nire aldekoak larrosa zurbil eta asarre au, nire gorroto odol-edalearen ezaugarritzat, ni ilobirat-i nadinean nigaz batera zimeldu arte, naiz ni gora yagi-ala nigaz loratu arte.

SUF.—Yo aurrera, eta ire geiagokeriak itoko al au! eta olan, agur, urren igaz aurkitu arte. (Alde dagi).

SOM.—Igaz yoango nok ni be, Poole. Agur, Errikarta geiagokeritsu. (Alde dagi).

PLAN.—Niri egiten daustezan eupadak, eta nai ta nai ez yasan egin bear nik!

WAR.—Winchester eta Gloster'en arteko bein-beineko bakeak egiteko deiturik dagon Al-

dundiaren urrengo batzarrean garbitu ta ikuziko dok ik ire eixeari arpegira egozten dau-tsoen orban au; eta orduan York egin ezpa' agie, ni enok biziko Warwick'tzat euki na-gien. Bitartean, iganako nire maitasunaren agiritzat, Somerset arro ta Poole'n aurka, larrosa au erabiliko yoat ire alderdikotzat; eta emen aurretzik iragarten yoat, gaurko eztabaida onek, alderdi noberekoitze onek, larrosa gorri ta zurien arteko eztabaida onek

V AGERLEKU.—Lengoxea. Torreko leku bat.

MORTIMER aurrera, Yagola bik yarlekuan dakarrela.

MORT.—Nire zartzaro makalaren yagola txerakorrok, atsedena artzen itxi emen Mortimer il-aginari. Elorriogallutik yarei-barriarenak legetxe dagoz nire azpegiak, luzaroen bai-tegian egonda; eta adats urdinok, eriotzea-ren lagunok, Nestor'enak bestean zarrok, kezkaz beteriko adinean, Edemunda Morti-mer'en atzena diragarre. Begiok, orioa agor-tuaz doakon argiaren antzera, motelduaz eta lausotuaz doaz, aginduten dautsenari men eginda legetxe; sorbalda makalok, nai-baga-zama astuna eroan-ezinik; eta besoak, gun bagarik dagoz, urik bagako bere ada-rrak lurrera makurtuten yakozen mats-ondo igartuaren antzera; orraitioño be, oñok (in-darrik ezogaitik sogorturik, buztin-molto oni zutunik eusteko gai izan ez-arren) gogoz ego-arin dira, bai gogoz, ilobira yoateko, nik beste nasaitasunik eztodala ba-lekie lez. Baña, esaidazu, yagola, etorriko ete da ni-re lobeaa?

I YAG.—Etorriko da Errikarta Plantagenet. ene lord; Temple'ra, aren etzategira bidali dogu ari dei egitekoa; eta etorriko dala erantzun dau.

MORT.—Asko da: noikoturik geldituko da orduan nire gogo. Aitonseme aren errukarri! Niri egina añako da ari egindako oke-rra. Endika Monmouth bakaldun izaten asi zanazkero (a ospatsu izaterarte andi nin-tzan ni iskillc'ta'n), onan iguingarriro bakar-turik egon izan naz ni; eta ordutixe ilundu-rik dago Errikarta be, omenak eta etxagun-tzea kendurik; baña orain, etsipenen ebaz-leak, eriotza zuzenak, gizonen naibageen ebazla txerakorrak, biotz-nasaitasun gozo-gaz bidalten nau emendik. Amaiturik al le-goz aren ezbearrak be, galdu ebana atzera iritxiaz.

gogoak millaka bidaliko dauzala eriotzara ta betiko ilunbetara.

PLAN.—Master Vernon on ori, zorrean nagotsu nire alde larrosa zuria artu dozulako.

VER.—Erabiii be egingo dot berau zure alde.

LEG.—Orixe egingo dot neuk be.

PLAN.—Eskarrik asko, yaun zindo. Erdue, goa-zen laurok bazkaiten: atometan naz esa-ten asarre onek odola edango dauela beste egunen batan- (Alde dagie).

ERRIKARTA PLANTAGENET aurrera.

I YAG.—Ene lord, eldu da zure loba maitea. MORT.—Ene adiskide, etorri da Errikarta Plan-tagenet, ala?

PLAN.—Bai, osaba zinio, orren zakar erabili ori, ba-dator zure loba, len zapuzturiko Erri-karta.

MORT.—Lagun akie nire besoai, bidea era-kutsi egiek, aren iduna estutu al dagidan, eta nire azkenengo arnassa aren bularrean emon dagidan: Ui! esaidak noz ukututen dabezan nire ezpanak aren mosuak, mun txerakor makal bat emon al dagiodan. Eta orain esaidak ik, Yorktaren aldor anditiko laniara orrek zegaitik esan dokan len za-puztua izan azala.

PLAN.—Lenen, nire besoari deutsalala imini egizu zure bizkar zarra; eta, zuk ori egi-tekotan, emongo dautsut nire gatxaren bar-ri. Gaur, zer bat dala-ta, itz batzuk esan dautsaguz alkarri Somerset'ek eta nik; eta itzak itz, bere min itsontziagaz, arpegira ego-tzi daust nire aitarean eriotzea: ziplada ak lotu egin daust miña, ostantxean beste ain-beste esango neunskion berari. Au dala-ta, osaba on, nire aita-arren, Plantagenet ya-tor baten omena-arren, eta gure senitasuna-arren, azaldu egidazu zegaitik nire aitak, Cambridge'eko Kondeak, bere bizia galdu eban.

MORT.—Ni baitegiratu nendun zeragaitik be-ragaitik, loba lerden, eta ni nire gaztearo loratu osoan baitegi iguingarri onetan, emen intzirika egoteko, euki izan nauen zera be-la izan dok aren eriotsearen lanki gaiz-tetsia.

PLAN.—Zeatzago azaldu egistazu zegaiti ori; eztakit, ba, nik, eta ezin dot ez igarri, ezta susmau be.

MORT.—Azalduko dauskat, nire arnasa larriak

iztekotan, eta nire esatekoa amaitu baño len eriotzeak nirearena ez egitekotan. Endika Laugarrenak, bakaldun onen aitaitak, bakaukitik eratsi egin yoan bere lengusu Errikarta, Edorta'ren semea, aren semeetarik lenengoa, ta Edorta bakaldunaren Iegezko ondorengoa, yatorri atatiko irugarrena; eta aren bakalaldian iparraldeko Percy'tarrak, lapurreta au osoan zuzenaz besterako zala aurkiturik, ni bakaulkian ezarteko aleginak egin yoezan; zera izan zoan Iord gudazaleoi orretara eragin eutsen zegaitia, alan bakaulkitik eratsiriko Errikaría gazteak bere soñetiko ondorengorik itxi ez ebanazker, ni nintzoen aren ondorengo yaiotzaz eta senitasunez; amaren aldetik, ba, Clarence'ko Duke Lionel' gandiko nok ni, Edorta Irugarrenaren semeetatik irugarrenaren aldetiko; ak. oster, bere yatorria Gaunt'eko Yon'gandik yakak, yatorri ospatsu atatiko laugarrena dalarik. Baña zer oni oar akio; egikizun andi be andi atan ondorengo yator eta zuzen zana iminteko aleginen aleginak egín ebezalako aik, galdu egin naioan nik nire azkatasuna, eta aik euren biziak. Orrako ori baño askozaz geroago, Endika Boskarrena, bere aita Boingbroke'ren ondorengotzat bakalduntzara eldu zanean, ire aitak, CambrHge'ko Kondeak, yatorriz Edemunda Langley, York eko Dukeagandikoak (nire orrabeaigaz ezkend, ta ire aiía izan zcan), barrien barri, nire ezbearraz errukiturik, gudaroste bat batu yoan, ni azkatu ta burestuna niri ezarteko asmotan; baña, besteak lez, konde zindo a bera be yausi zoan eta burua moztu yeutsoen. Onan Mortimer-tarrak, bakalduntzea eurai egokienak, ondaturik gelditu zoazan.

PLAN.—Eta zeu zara euretatik atzenengoa, ene lord.

MORT.—Bai, olanxe dok; eta ba-dakusak ez-todala nik ondorengorik, eta eriotzearen bai dirala nire itz totelak: i az nire ondorengo; ganetiko ondorenak euk aterako dozak; ba-

ña orraitioño zur izan adi ire kezka ardura-tsuetan.

PLAN.—Ilobitiko zure onuak erabiliko al nabe: iaña orraitioño be nire aitaren eriotzea gorcinkeru utsa izan zala uste dot.

MORT.—Erriketalarri ixila izan adi, ene loba; oñarri sendoak yozak Lankastertarren etxeak, eta mendien bat kentzea bentean gatx dok a andik kentzea. Baña orain ire osabea emendik alde egiten yoak; beti leku berean egoteaz asperturik, euren yauregitik bakal-semeak alde egin daroenez.

PLAN.—Uí! osaba, nire gaztearoko zatiren batek birberosiko al dau zure adina!

MORT.—Olangorik egitekotan, kalte egingo eunskidak, arakinak kalte egiten dauenez, zauri bat asko izanik asko emoten dauzanean. Iletarik ez egidak egin, ez adi naibagatu, neure onerako; nire gorpu-lorrerako bakarrik emon egizak aginduak; eta onan, agur; eta ondo urtengo al dozak ire itxarroak, eta zorionsu izango al dok ire bizitzea, bai baketan, bai guduetan! (U egiten da).

PLAN.—Eta bakea, ez gudurik, lagun izango al yako zure gogoari bere alde-egitean! Baitegian egin dozu zuk zure bizitza onetako ibiltaldia eta padarrak legetxe an egin dozuz zuk zure egunak. Tira ba, nire biotzean giitzapean eukiko dot zure onua, eta an begoz nire asmoak. Yagolok, eroan egidazue au emendik; eta neuk artuko dot ardurea orrek bizitzea baño gorpu-lor obarik izan dagian. (Alde Yagolek, MORTIMER'en gorpua daroela). Emen ilten da Mortimer'en zuzi motela, bera baño gitxiago danaren geiagokeriak itota: eta Somerset'ek nire etxeari agindu dautsazan oker eta irain mingotsakazko, eztoz zalantzarik, eztoz ezpairik zindoro erantzungo dautsadala; eta, orregaitik, astirik galtzeka, Aldundegira noa, edo nire yaiotzeari dagokoneratuteko, edo txarrari nire alderako onurea aterako dautsat. (Alde dagi).

III EKITALDI

I AGERLEKU.—LONDON. Aldundegia.

Eresi argi. ENDIKA BAKALDUNA, EXETER, GLOSTER, WARWICK, SOMERSET, eta SUFFOLK aurrera; baita WINCHESTER'KO GO-TZAIA, ERRIKARTA PLANTAGENET, eta beste batzuk be, Salakuntza-papel bat dakar GLOSTER'ek; kendu ta txataldu egiten dautso WINCHESTER'ek.

WIN.—Gloster'ko Humphrey, aurreztik sakon ausmertu, ta arduratsu asmauriko ídatzi iraintzalleakaz zatorkuz? Salatu al ba'dozu, nire aurka zerbait esateko asmorik ba'dozu, lendik asma asmaka ibili bagarik, bertatik esan egizu; nik nire aurka ekarri dagizunari bertatik eta aurreztik gertatzeka erantzuteko asmoa dodanez.

GLOS.—Abade gangar ori! epea eskatuten daust leku onek, ostantxean erakutsiko neunskitsu irain egin daustazula. Zure oben zakarren lerroa idatziz erakustea gurago izanarren nik, ez egizu uste ortik, ez neuk asmaurikorik dakadanik, ezta itzez ezin esan dodala nire idazkortzez idatzita dodana; ez, gotzai; ain azarri da zuie gaiztakeria, ain lizun, izuxritsu, andi ta bakan zure esakera lotsa bageak-eta, umetxoak eurak be zure arrokeriaz bala-bala ta parra-parra daragoie esaka. Ontzoeridun edo lukurlaririk kaltegarriena zara zu; bapateko, izatez; bakearen arerio; lizun, lotsabako, zure bizibide ta malleari dagokion baño lizunago ta lotsabakoago; eta zure etoikeri edo azpikeriagazko, zure akatzetan agirien dan zer onegazko, bai London'go zubian, eta bai Torrean be ni erailteko erabili dozuzan marroez zer esateko? Orrez ganera, bildur naz, zure gogaiaik eraltekotan, zure nagusiena, bakalduna bera be eztagola zure biotz arroko gaiztakeri okerretik at (landa).

WIN.—Gloster, eupada egiten dautsut. Lordok, entzun egistazue, arren, orri erantzungo dautsadana Leiatsurik, geiagokeritsurik, naiz geztorik ba'nintz, orrek gurako leukenez, zelan nintzake ni onen lander, onan ezeuki? Olangorik ba'nintz, ez ete neunke egingo aleginik aurrera egiteko, nire burua obatuteko, gora egiteko, eta ez irauteko riire deiari dagokion landertasunean? Banatzalla be ei naz, baña nor ni baño bakezaleago..., burua berotu ezpa'dagiste? Ez, ene lord

onok, ori ezta duke ori asarratu ta orri min egiten dautsana; berorrek bakarrik ez aginditea da ori asarratuten dauena; orrako orrek beteten dautso bularra ostotsez. eta salakuntzok eragiten dautsaz. Baña yakingo dau zera bestean on nazala...

GLOS.—Zera bestean on! zu, nire aitaitaren casikume ori!...

WIN.—Bai, lord jaun; eta zer zara zu zeu, arren, iñoren bakaulkian arro agindu gura dauena baño?

GLOS.—Enaz ni bakaldun-yagola, ala, abade iñuingarri?

WIN.—Enaz ni be elesako gotzai, ala?

GLOS.—Bai, gaztelura sartu ta gaztelua berak ostua gordetako darabilen legerik bagako lapurraren antzeko zara zu elexako gotzaitzan.

WIN.—Lotsabako Gloster!

GLOS.—Zure egikizun gogatarrean zara zu begiragarri ta lotsagarri, ez zure bizikeran.

WIN.—Erroma'k arteztuko fau orrako ori.

WAR.—Olan izatekotan ara zoaz.

SOM.—Ene lord, yasatea da zuri dagokitsuna.

WAR.—Bai, ez egiozue zama geiegirik ezarri gotzaiari.

SOM.—Nire ustez yaungoikozale izan bear leuke nire yaunak, ela olangori dagokona yaikin bear leuke.

WAR.—Nire ustez apalago izan bear leuke lord orrek; elexako nagusiri eztagokio auzitara yoterik, ez orren bero beintzat.

SOM.—Bai, berorren egokera gurena orren aragi bizian ukututen danean.

WAR.—Egokerea guren, naiz ez-guren izanak zer dau zer ikusirik orrako orregaz? Ezta Gloster bakaldunaren yagola, ala?

PLAN.—(Bere kitean) Plantagenet, dakustanez, geldi euki bear dok ira miña, "Bear danean itz egik, txotxo; ire onu arrorik emon bear ete dok lordak itz egiten daragoioenean, ala?" esan eztagien. Ostantxean ziplada bat botako neunskion Winchester'eri.

END. B.—Gloster eta Winchester'ko osabok, gure Ingelanda'ren yagola bereziok, iritxi-ko al dot, arrenak iristekotan, zuon biotzak maitasunez eta adiskidetasunez alkarregaz bat egitea. Ui! au tupuztarria, gure bures-tunarentzako, zuok lango andiki zindo bik olango asarre latzik erabiltea! Sinistu egi-

dazue, lordok, nire urte gazteak be esan dagikeela legerriaren erraiak aginka zeatuten dauzan augegorritar ar dirala erri arteko eztabaidak. (Zaratea barruan, "Bera soñeko gorrizkadunak"). Ze iskandilla dogu au?
 WAR.—Asaldatzea, seguru be seguru, gotzairren gizon geztoetatik asita! (Zaratea csetera be, "Arriak! Arriok!").

London'go Endorea aurrera, lagunakaz.

END.—Ui! ene lord onok..., eta Endika onindartsu..., London uriaren erruki, gure erruki izan egizue! Erreka-arriz bete dabez euren sakelak iskillorik erabiltea oraintsu galazo yaken gotzaiaren eta Glostei'ko Dukeren otseñak, eta alkarren aurrez aurreko taldeak eginik, alkarri ain sarri ta bizkor eginen dautse arrika-ta, euretatik askok agirian dabez garaunak; etxarbitide guztietan ausi ta birrindurik dagoz leioetako leiarrak, eta gu geu, bildurrez, etxe-barruan egotera bearturik gagoz, gure lantegiak itxita.

Mordoka burruka aurrera GLOSTER'koaren eta WINCHESTER'koaren Otseñak, buruak odol-durik.

END. B.—Guganako bendekotasunaren izenean aginduten 'dautsuegu. geldi euki dagizuezala zuon esku eraileak, eta bakez egon zadizela. Arren, Gloster osaba, ibitu egizu burruka au,

I OTS.—Ez, arriak galazo ba'dagiskuzuez, aginakaz egingo dogu burruka.

II OTS.—Zuok zer egin, zuok baño gitxiago ezkara izango gu. (Barrio daragoioe burruka).

GLOS.—Nire etxeko otseñok, itxi egizue umeiskanbilla au, eta baztartu egizue eguño ikusi eztan lango buriuka au.

III OST.—Ene lord, ba-dakigu guk gizon artez eta zuzen zareana; eta zure bakaldar yatorriz bere nagusiagotzearen urrango baño bape gitxiago etzareana: eta olango bakal-semerik, legerriaren olango aita txerakorrik zure lagun merrok irainduta ikusi baño len, çuk, eta gure emazte ta semeak be, guztiok egingo dogu burruka, eta burrukan yausi bear ba'dogu, zure arerioak gu erailda yausi gaitezala.

I OTS.—Bai, eta gure atzazalakaz urratu dagigunagaz be lurr-arloa estaliko dogu, gu ilourdurako. (Ostera be burruka).

GLOS.—Geldi, geldi, geldi! Eta, maite nozuela diñozueuz, maite ba'nozue, buruan sar-

tuko al dautsuet apur baten epe artu dagizuela.

END. B.—Ui! asarre onek bai naibagetuten daustala biotza! Ikusi ete daikezuz, Winchester'ko ene lord orrek nire intzirriak eta negarrak, eta ez ete zara ibituko? Nor izateko errukior, zu ez izatekotan? Naiz, nok egiteko aleginik bakearen alde, elekgizonak asarre ta burruketan atseginik artzekotan?

WAR.—Etsi zadiz, men egizu, ene yaun yagola; -etsi zadiz, men egizu, Winchester; -burugogorkeritiko zuon ezetzagaz gure nagusia ena erail eta bakalderria ondatu gura ez izatekotan. Ba-dakusazue zelango okerria, eta bai zelango eriotzak be egin diran alkarieganako zuon gorrotoagaitik; olan ba, baketan zagoze, baztartu egizue zuon odol-egarria.

WIN.—Orrek burua makurtu dagiala ostantxean iñoz be eztoz menik egingo.

GLOS.—Buru makurtutera beartuten nau bakaldunaganako nire errukiak; ostantxean biotza aterako neunskio, elekgizonaren bere berarizko legeak niri burua makurtuazo baño lenago.

WAR.—Begira, Winchester'ko ene Lord, dukeak ortik zear bidali dau bere gogaldi mukerrekot asarrea, bere betozko bigunetik agiri danez; zegaitik agiri zara su ondiño orren gogor eta odol-antzerkiaren antzeko?

GLOS.—Eutsi, Winchester, emen eskeintzen dautsut esku au.

END. B.—Ken, ken, Beaufort osaba! elekan esaten zuri entzunda nago oben andi ta astuna dala gaitzakeria; eta ez ete dozu zeuk beteko besteai irakatsi dautsezuna, eta ori egiteka, oker berean zeu izango ete zara obentirik andiena?

WAR.—Bakaldun ezti!... biotzaldi txerakorra dau gotzaiak... Lotsea-arren, ibitu zaitez, Winchester'ko ene Lord! Ba! umek irakatsi bear ete dautsu zer egin bear dozun?

WIN.—Tira ba, Gloster'ko Dujce, men egingo dautsut; maitasuna damotsut zure maitasunaren alderako, eta nire eskua zurearen alderako.

GLOS.—Bai, baña bildur naz, biotz utsetik, arrotik ete datorren orrako ori. Ikusi emen, ene adiskide ta aberkide maiteok; egindako itunben au bedi gure geure ta gure yarraileen aldetiko bakearen agiri; Yaungoikca ez al yat lagun izango, zintzo izan eza'pandi.

WIN.—(Bere kitean) Olango asmorik eztozan bestean lagun izango al yat Yaungoikoa!

END. B.—Osaba maite ori, Gloster'ko Duke txerakor ori, itunben onek emoten daustan

pozarena! Alde emendik, txotxook! ezkagizuezkaiu geiyoLuxi; aikarren adiskiáefu ta alkarregaz batu baño, zuon ugazabak egin dabenez.

I OTS.—Olan bedi; osagillearenera noa ni.

II OTS.—Nik be orixe eçingo dot.

III OTS.—Eta ardanegiak ze osakai damostan ikusiko dot nik. Alde Otseñak, Endoreuk, eta abar.

WAR.—Ontzat artu egizu papei biribil au, nagusien eskartsu eskartsu orrek; Errikarta Plantagenet'en alde zure nagusiagotzeari opatuten dautsagun au.

GLOS.—Ondo arin eskatua, Warwick'eko ene Lord; izan be, ba, bakalseme ezti, zertzelada guztiak aintzakotzat artu ba'dagizuz, biderik eta zegaitirik asko dozu Errikarta'ri eskubidez dagokona emoteko; alan be, Eltham-Place'n zure nagusiagotzeari azaldu neuntsazan zegaitiak aintzakotzat artzekotan.

END. B.—Eta zegaiti indartsuak ziran aik, osaba; au dala-ta, ene lord maiteok, atsegin-garri yaku Errikarta bere odoletiko eskubi-deataratutea.

WAR.—Bere odoletiko eskubideataratu daite-la Errikarta; olan, artezturik geldituko dira aren aitari egindako okerrak.

WIN.—Ori bakarrik ez, Errikarta zintzo izan ba'dadi, York'eko etxeari dagokon ondoren-gotza osoa be ba-damotsat nik, andik dator urrengorik urrengotza artezez-eta.

PLAN.—Bendekotzea tet otseintza apala aginduten dautsuz eriotzararte zure otsein apal onek.

END. B.—Makurtu, ba, ta nire oñari deusala imini zure belauña; eta York'tarren ezpata kementsua iminten dautsut garririkotik dingilizka egikizun ori beteko dozularen baitzat: yagi, Errikarta, Plantagenet yatorizat, eta York'eko Duke bakaldar eginik yagi.

PLAN.—Eta zure arerioak yausi-ala aziko al da Errikaríá; eta zukanako nire bearrak be-teafa, ondatuko al dira zure nagusiagotzearen aurka gogaiz be marmarrik egin dagienak

GUZTIAK.—Ondo etorria, Bakalseme goiko, York'eko Duke altsu ori!

SOM.—(Bere kiteon) Ondatuko al az, bakalseme zirtzil, York'eko Duke zatar ori!

GLOS.—Orain yako egokien zure nagusiagotzeari itsasoak zearkatu, ta burestuna zure buruan Pantze'n ezartea: maitasuna sortzen dau bere bendeko ta adiskideen artean bakalduna bsrtan egoteak, bere arerioak kikildurik izten dauzan bestean.

END. B.—Gloster'ek itzik dagianean, ba-doa Enáika Bakalduna; onu adiskideak arerio asko uxatu egiten dauz-eta.

GLOS.—Dagoneko dagoz gertaurik itsason-tziak. (Eresi argi, Alde EXETER'ez beste guztxtk).

EXE.—Bai, Ingelanda'n, naiz Pantze'n ibili gaitekez, zer etorriko dan eztakigula. Sutan dago ondiño irudituriko maitasunaren autsarsn azpian andikien artean oraintsu agertu dan asarre au, eta garrak gar agertuko dira atzanean: kutsuturiko azpegiak apurka ustelduten diranez, azur, aragi ta zamiak, danak usteldurik yausi arte, orretaraxe yoko dau alkar aitu-ezin zirtzil gorrotabera onek. Eta bildur naz orain, edoskiten egozan seintxoen agoan be Endika Boskarrenaren aldian bala-bala ebilen iragarpena beteko ete dan, zera, Monmouth'en yaiotako Endika'k oro irabaziko eukeala, eta Windsor'en yaiotako Endiko'k oro galduko eukeala; eta orrako ori yazoko dala ain agirian dago-ta, oiangorik yazo baño ler. bere egunak amaitutea gura leuke Exeter'ek (Alde dagi).

II AGERLEKU.—PANIZE. Rouen'en aurea.

NESKATOA aurrera, marroturik, eta Gudariak Baserritarren yantziz yantzirik, bizkarrean zorroak daroezala.

NESK.—Oneik dira uriko atreak, Rouen'go atreak, gure maltzurkeriz eurak zear urira sartu bear dogunak; zur eta arduraz ibi'ii, esan dagizuezan itzetan; euren gariaren dirua artzen datozen zei-gizonak egingo leukienez itz egizue. Barrura sartzen itxi ba'dagiskue (eta ba-dot itxarorik, rtxiko dauskuela), eta ardura bagalco yagolak makal

idcro ba'dagiguz, zelanbait neuk iragarriko dautset gure adiskideai Delbinak eraso leioela arerioai esan gurako dau nire kiñuak.

I GUD.—Gure zorrook etxakuz txarto etorriko uri onetan lapurretan egiteko, eta gu Rouen'en yaun eta yabe egiteko; yo egingo doguz, ba, atreak. (A'ea ycten dabe).

YAG.—(Bairutk) "Qui est la?"

NESK.—Baserritarrak, Pantze'ko yente beartsua..., zearako yente beartsua, euren garia saltzen datorrena.

YAG.—(Atea zabaldu-cda) Sartu, aurrera; yo dau zeiko yoaleak.

NESK.—Rouen, orain eratsiko dodaz lurrera zure luganak. (Urira sartzen dira NESKATOA ta enparauak).

KARLA, ORLEANS'EKO SASIKUMEA, ALENÇON, eta Indarrak aurrera.

KAR.—Dunixi Gurenak onetsiko al dau marro au! Eta beste bein nasai lo egingo dogu Rouen'en.

SAS.—Ona sartu dira Neskatoa ta aren marrolariak; orain a an dagonazkero, zelan iragarriko ete dausku zein dan biderik seguruen a borzurako?

ALEN.—Andik aragoko torretik zuzi bat yaurtinda; orrako orrek iragarriko dau gitxi yagonda dagola bera sartu dan bidea.

NESKATOA aurrera, arresi-ganean, eskuan gora zuzi ixiotua eragiten dauelarik,

NESK.—Begira, au da eztegu-zuzi zori ontsua, Rouen'eri bere aberkideakaz bat eragingo dautsana, Talbotarra zori txarra ekarriko dautsena.

SAS.—Ikusi, Karla zindo, ikusi gure adiskidearen atza; an aragoko torrean dago zuzi ixiotua.

KAR.—Azaskatzearen izarribiltarik legetxe argi egingo al dau, gure arerioen yaustea iragarririk.

ALEN.—Ez galdu astirik, geroagoratzek atzen onik eztabe izaten-eta; sartu, "Delbina!" oio egin bertatik, eta yagoleena egin orduan. (Barrura sartzen dira. Alde NESKATOA'k goitegitik).

Gudu-deia. Aurrera, Uritik, TALBOT, eta Ingelandar Gudariak.

TAL.—Pantze, negartu egingo dozu azpikeri au zure negarrez, Talbot bizirik gelditu ba' dadi azpikeri onetan. Neskatoak, sorgin ak, zori-igarla gaiztetsi ak asmau dau suleza-tar geztokei au gu olangoren uste bagarik gagozala, guk nekez alde eginik Pantze' ren arrokeritik (Uri-barrura alde dagie).

Gudu-deiak: sartu-urtenak, Aurrera, Uritik. BEDFORD, gexorik yezarleku baten dakarre-la, baita aurrera TALBOT, BURGOGNE ta Ingelandarren Indarrak. Gero aurrera, arresi-ganean, NESKATOA, KARLA, SASIKUMEA, ALENÇON, eta beste batzuk.

NESK.—Egun on, adoretuok! garirik bear ete dosue ogitarako? Nire ustez, barau egin

bearko dau Bourgogne'ko Dukeak, onen merke beste bein erosi baño len; zalgaz betetik egon da; gogoko ete yatsue?

BOURG.—Irri egiten ekiozu, txerren zirtzil eta lotsabako emagaldu orrek! ba-dot ustetik luzaro bagarik zeure gariagaz ítoko zaudazala ta zure gari-uztea añenduazoko dautsudala.

KAR.—Ba-dateke zuk olangorik egin baño len zu gosez iltea.

BED.—Egitez azaskatu gakiozan azpikeri onie z itzez.

NESK.—Zer egiteko zuk, bizarrurdin on orrek? Zaldunketategian aztamakil bat ausi ta zure yarlekuan ii, ala?

TAL.—Pantxe'ko txerren zantar ori, eta txani igunigarri ori, zure kutun lizunez inguratu ori! Ete dagotsu zuri irri arroz orren adinari irri egiterik eta erdi-ilik dagon gizonari kikileririk arpegira egotzerik? Anderaño, beste bein burruka egin gura dot zugaz, ostantxean lotsari onegaz ilgo al da Talbot.

NESK.—Orren bero zagoz, ala, yaun? Orraitiño, nasai ago, Neskato; Talbot'ek ostotsik egin ba'dagi, euri izango da urren. (Alkarrri onu-eske daragoioe TALBOT'ek ete bes-teak). Zori ona izango al dau batzar orrek! Nor izango ete da itzaldi-zuzendari?

TAL.—Atomauko ete zarie ortik urtsn eta gugaz batera atetan batuten?

NESK.—Olangorik guk egitekotan, ba-Iedike zuk yaun orrek gu zorotzat artzea, gure dana gure danez ikusten urten ba'gaitetz.

TAL.—Ez taragoiot nik Ekate agirika'ari orri itz egiten, zuri, Alençon, eta ganetikoa baño; gura ete dozue, gudari-zurrean, erdu ta burruka egin or atetan?

ALEN.—Ez, "Signior".

TAL.—Txerrenari, "signior" ori! Pantze'ko mandazain zirtzilok! Otseñen antzera, euki daukiez arresiak, eta aitonsemeen antzera ez tira atometan iskilluok artu ta burruka egiten.

NESK.—Goazen, guda buruok! alde dagigun arresietatik; Talbot'ek, ba, bere begirakunetan eztau iragarten zer onik. Yaungoikoa lagun bekizu, ene Lord! emen gagozala zuoi esateko baño ez kara etorri gu. (Alde NESKATOA'k eta enpaduak arresia'atik).

TAL.—Geu be or izango gara gesu baten, ostantxean lotsaria betorko Talbot'eri bere entzuterik andientzat! Zin egizu, Bourgogne, zeure etxearen omena-arren..., Pantze'n guztien aurrean arturiko irañak orretara zirikaturik, edo bein barriro uriaren yabe egin, edo ilteko; eta nik..., Ingelania'ko Endika bizirik dan bestean seguru, eta be-

re aita emen garaila izan zan bestean seguru; Coeur-de-lior. Anáicxen bictza azpikeria egin yakon uri onetantxe ooiratua izan zan bestean seguru; orren seguru zin egiten dot uri onen yabe egingo nazala, edo il egingo nazala.

BOUR.—Alkarren kide dozak nire zinak eta ireak.

TAL.—Baña guk alde egin baño len, begiratu dagigun ii-aginik dagon bakalseme au, Bedford'eko Duke adoretu au. Tira, ene lord, leku oberen bat emongo dautsugu. gaxarentzako ta zure adin mekoarentzako ego-giako dana.

BED.—Lord Talbot, ez egidak egin olango iranik; emen Rouen'go arresien aurrean egongo nok yezarrita, eta kide izango nozue zuon zori onean, naiz zuon ondikoan.

BOUR.—Bedford adoretu, buruan sartuko al dautsugu emendik alde egin bear dozuia.

BED.—Ez emendik alde egiterik; irakurrita nago, ba, beñola Pendragon mardo a, bere eskuocean gexorik etori zala gudategira, ta bere arerioak benderatu egin ebazala; nire ustez, gudarien biotzak biztu egingo neunkez nik, beti idoro izan dodaz, ba, areinak neurea legetxe.

TAL.—Gogo kikel-ezina dago il-aginik dagon biotz orretan! Olan izan daitela, ba: Yaungoikoak yagongo al dau Bedford! Eta orain. Bourgogne zindo, itzik bez geiago, or zabal doguzan gure indarrak batu, ta gure arerio arroaren ganera yoan baño. (Alde uribarrura, Bcurg. TAL., eta Indarruk, BED-FORD eía beste batzuk ítxirik).

Gudarako deiak: sartu-urtenak. SIR YON FASTOLFE, ta Gudalburu bat aurrera.

GUD.—Nora zoaz, Sir Yon Fastolfe, orren arin?

FAST.—Nora noan! igesiaz neure burua ya-reiten; ostera be euren bendera itzulteko galgoriean gagoz.

GUD.—Ostera! igesita, bakarrik itxiko ete dozu Talbot?

FAST.—Baí, munduko Talbot guztiak be bai, nire bizia yagoteko. (Alde dagi).

GUD.—Zaldun bildurti ori! Zori txarra izango \llcorner dok ire laguntzat! (Alde Urira).

Atzeraketea; sartu-urtenak. Aurrera, uritik, NESKATOA, ALENÇON, KARLA, e. a., eta alde dagie igeska.

BED.—Ene gogo nasai ori, Yaungoikoari gogoko dakionean alde egin baño eztok orain, ikusi dot nire arerioen lur-yotea-ta. Zer da gizon eroaren ustea, naiz sendotasuna? Oraintsu euren irriz azarri agiri izan diranak pozik dagoz orain euren buruak yagote-arren igesiaz (U egiten da, eta ba-daroe bere yarlekuan).

Gudu-otsak. TALBOT, BOURGOGNE ta beste batzuk aurrera beste bein.

TAL.—Egun baten galdu ta egun berean barrien barri irabazita! Omen bikotxa da au, Bourgogne; orraitño be, Yaungoikoari boakio garaite onen aintza!

BOUR.—Talbot guduzale adoretu; bere biotzean zauz Bourgogne'k, leku gurean legetxe, eta an eragiten dauz zure adorea-ren egiteak, kemenaren gomutagarritzat.

TAL.—Eskarrik asko, duke zindo. Baña nondik da orain Neskatoa? Nire ustez, lotan dago beñolako aren gogo etxetiarra; nondik dira orain Sasikumearen arrokeriak eta Karla'ren irriak? Guztiak ilik, ala? Naibagearen naibagaz buru-makur dago Rouen, alango lagun adoretuak igesi yakozalako. Len-urritzat apur bat iminiko dogu urian, berton uri-yaurla trebeen batzuk iminita; eta gero Paris'era yoango gara bakaldunagana, Endika gaztea an dago, ba, bere aitonsemeakaz.

BOUR.—Orraitño be, alde egin baño len, ezkadizan aztu Bedford'eko Duke zindoaz, ilbarri danaz, Rouen'en ari iletea egiteko ardurea artu baño; gudari adoretuagok eztau erabili eguño aztamakilik; biotz zindoagorik ezta izan eguño bakal-yauregian; baña bakaldunak eta aldunik altsuenak be il egin bear, ori da gizonaren uskeriaren atzena-ta. (Alde dagie).

III AGERLÍKU—Rouen"dik urreko zelaiak.

KARLA, SASIKUMEA, ALENÇON, NESKATOA, ta Indarrak aurrera.

NESK.—Ez kikildu, bakalsemeok, oker au izan dogula-ta, ezta naibagatu be Rouen'en ya-

be barriro egin diralako: kezkeak eztauz osatuten, gexoagotu baño. artetzuterik eztaben zerak. Poztu daitela apur baten Talbot asarrea, eta indi-ollarrak lez arro za-

baldu dagiala beie buztana; lumak ateia-ko 'doutsaguz guk, eta beie lagunak kenuko dautsaguz, Delbina ta enpaduak nile esania egon ba'daitez.

KAR.—Zuk eia-kutsi dauskuzu bidea oiain aite, eta zuie tiebetasunaz eztoz izan nik ezetarikoz ezipaiik; otoz otoko uts batek eztau soituko nigan usterik-ezik.

SAS.—Billatu egizuz zure buruan marro ixilen batzuk bai, eta mundu osoan entzute-tsu egingo zauguz.

ALEN.—Olan izatekotan, au egin bear dogu; au da Yone'ren asmoa: zegaiti ederez, eta zegaitiai itz gozoko nastauaz, liluratu egingo dogu Bourgogne'ko Dukea, Talbot itxita gure yarra etorri daiten.

KAR.—Bai, arrano, kutun.olangorik egin al ba' dagigu, Pantze'n eztabe izango lekurik Endika'ren gudaiiak; eta Ingelanda elitza-ke arrotuko gugaz, gure erkietatik aterea izan baño.

ALEN.—Betiko uxatu bear litzatekez aik Pantze'tik, eta ez euki aik kondetegi baterako eskubiderik be emen.

NESK.—Zuok omenganiok nik egingo dodana. Í oaitu zakioez zelan egingo dodan onako au, zelan buiutuko dodan (Datnborr-otsak entzuten dira). Entzun! euien danbonen otsetik susmau daikezue Paiis'eiako bidean diiala aiein indanak.

Ingelandai ibilketa-eiesi. Unintxoan, yoanala, saitu-uitena egiten dabe TALBOT'ek eta bere Indairak.

Oi doa Taibot, beie ikuriñak zabal daioazala, eta Ingelandiari gudari guztiak bere atzetik.

Pantzetar ibilketa-eiesi. BOURGOGNE'KO DUKEA ta beie Indanak auiieia.

Atzean datoz dukea ta beieak; zoi onez datoi atzeragotik. Dei egin cuturako; itz egingo dogu beia-gaz. (Aaturako otsa).

KARLA.—Autu bat Bourgogne'ko Dukeagaz!

BOUR.—Nok guia 'diau autuiik Bouigogne'koa-gaz?

NESK.—Pantze'ko bakalseme Karla zuie abei-kideak.

BOUR.—Zei beok, Kaila? Ba-noa, ba, ni emendik.

KAR.—Itz egin, Neskato, eta liluiatu egizu zule ithez.

NESK.—Bouigogne adoietsu, Pantze'ien itxia-10 seguru; gelditu zadiz, zuri itz egiten itxi egiozu zure otsein apal oni.

BOUR.—Ekiozu; baña aspergarri etzakidaz izan.

NESK.—Begiratu zure aberria, begiratu Pantze mardula, eta ikusi uriak eta uriskak, are-rio gordinak egin dauzan ondamendi ta tiiskantzaz zakartu ta ondaturik! ilten dagon bere sefntxoaren begi samurra erio-tzeak isten dauzanean amak bere sefntxoa begiratuten dauenez, ikusi, ikusi gaxak galduaz galduaz daroan Pantze; so egin oren zauriai, yaiotzaz besterakorik besterakoen diran aren zauriai, zuk zeuk aren bular errukarriaren emon dautsazuzanai! Ui! beste bfderik arrazo egiozu zuie ezpata zontzai; okei egiten dauisoenak yu egizuz, ez egin okeirik lagun yakozanai! Naibaga geiago emon beai leuskitsu zuie abeniaien bulanetik ateiatako odol-tantan batek, erbestekoai ateratako odol-uriolak baño; atzera zatoz, ba, negarr-uriolakaz, eta ikuzi egizuz zure aberriaren orban Ioiak.

BOUR.—Edo bere ithez sorginkerien bat egin daust, edo yaiotzatikoak bertatik bigundu nau.

NESK.—Orrez ganera, Pantzetar guztiak eta Pantze arriturik eta agoa zabalik dozuz zuk, ezin sinistu dabe Pantzetar zareanik, Pantzetar yator zareanik. Nogaz bat egiten dozu, erri ugazabagaz baño, euren onerako zarean bitartean bakarrik zagan uste onik izango dauenagaz baño? Bein Talbot'ek bere oña Pantz'n tinko ta seguru imini dagianean, eta gaiztakerirako lankizat era-bili zauzantzat etsi zagizanean, nor izango da orduan Pantze'ren yaun Ingelandar Endika baño, eta zu ortik zear bidali baño, zure aberriaren saltzallatzat? Au gogoratu-ten dautsugu (eta oní bakarrik oartu zakioz, orrako orren agi-ritzat), etzan zure are-rio Orleans'eko Dukea? Eta etzan a atxilo Ingelanda'n? Baña aik, a zure arerio zala entzun ebenean, azkatu egin eben, azke izteko ordainik eskatzeka, Bourgogne ta bere adiskide guztiak gora-bera. Ikusi, ba; zure aberkideen aurka daragoiozu zuk guduan, eta zure eraila izango diranakaz bat egiten dozu. Tira, tira, atzera zatoz gugana; atzera zatoz, erdu ona andiki aldarrari ori; besartean artuko zaez Karla'k eta bereak.

BOUR.—Benderaturik nau; orroaka daragoion suodiaren zartadeak legetxe eiota itxi nabe neskato orren itz arroak, eta nire belauenen ganean men egin-aginik itxi nabe. Parkatu nagizu, aberri. eta parkatu nagizue zuok aberkideok! eta, yaunok, ontzat artu egizue biotz biotzetiko alkar besarkatute txerakor

au: Onan, ba, agur, Talbot; oraindik ara
 SLXOCIL izango igsu u'tc cnik.
 NESK.—Pantzetarrek legetxe egina, atzera
 egin, eta ostera be atzera etorri!
 KAR.—Ondo etorria, duke adoretzu! barri ta
 gordin egiten gauz zure adiskidetasunak.
 SAS.—Eta adore barria sortuten dausku gu-
 re biotzetan.

ALEN.—Adoretzu egin dau Neskatoak berea
 onako onetan, eta urrezko burestuntxorik
 irabazi dau.

KAR.—Aurrera yo dagigun orain, ene yau-
 nok, eta alkarregaz batu gure indarrak;
 eta ikusi zelan okerrik egingo gure arerioa-
 ri. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.—PARIS. Bakaldegiko leku.

ENDIKA PAKALDUNA, GLOSTER, eta beste
 Lord batzuk, VERNON, BASSET, eta abar
 aurrera. Eurekaz batera TALBOT, eta agintza-
 ko beste Gudari batzuk be.

TAL.—Ene bakalseme eskartsu, ta andiki begi-
 ragarriok..., bakalderri onetara zure etorre-
 rearen barri entzunik, oporraldi bat emon
 dautset nire guduai, nire nagusienagazko
 nire egikizuna beteteko: eta onako onen agi-
 ritzat zure bendera berrogei ta amar leku
 sendo, amabi uri, eta arresidun zazpi uris-
 ka sendo ekarri ta, orrez ganera, bosteun
 atxilo aintzako egin dauzan esku onek zu-
 re goikotasunaren oñetara yalten izten dau-
 tso bere ezpateari, eta bendekoren biotzeti-
 ko zintzotasunaz, irabazteon aintza lenen
 Yaungoikoari damotso, eta urren zure es-
 karrari.

END. B.—Osaba Gloster, au da Pantze'n ain
 luzaro egon izan dan Lord Talbot, ala?

GLOS.—Bai, ene ugazaba, orixe da, zure na-
 gusiagctzeari eder ba'yako.

END. B.—Ondo etorria, gudaiburu adoretzu ta
 lord garaila! Gazte nintzanean (endino encz
 zarrik), gomutan dot zelan esan eban ni-
 re aitag au baño txapel'd.un mardoagok ez
 ebalta iñoz erabili ezpatarik. Atxinetik egon
 gara seguru zure zintzotasunaz, zure otsein-
 tza zintzoaz, eta gudueta zure lanaz; eta
 orraititño oraindik gure saririk zelango dan-
 nik be ikusteko zagoz, eskerrik asko añako
 saririk be artzeka, eguño zure arpegia ez-
 togu iusi izan-eta; olan dala, ba, zutundu

zaitez; eta zure irabaziokaitik Shrewsbury'
 ko Konde egiten zauguz ementxe; eta zu-
 re lekuan yarri zaitez gure bureskundean.
 (Alde ENDIKA BAK., GLOSTER, TAL., eic
 Andikiak).

VER.—Iri itz egin bear dauskat orafn, York'
 eko ene Lord zindoaren omenez daroada-
 zan koloreoi ik itsasoan ain bero irri ta ise-
 ka egin euntsen orri. Atometan ete az or-
 duan il. 9sanari eusten?

BAS.—Bai, yaun; ikusi-ezinez, Somerset'eko
 nire Iordaren aurka, ire miñ iguingarria-
 gaz esanari eusten i eu atometan azan bes-
 tean bai.

VER.—I, txotxo, berari dagokon omena egi-
 ten yautsat nik ire lordari.

BASS.—Ba! zer dok, ba, a? York lain gizon
 adoretzu.

VER.—Entzuidak; orrembestekorik ez; au artu
 egik autortzat. (Yo egien dau).

BASS.—Zital ori, ba-dakik ezpatea ateraten
 dauenak bertatiko eriotzea dauela 'dala is-
 killoetako legea, ostantxean ire belarrondo-
 ko orrek ire odolik onena ateratea bear
 leuke. Baña nagusiagotzeagana yoango
 nok ni, eta bere ederretsia eskatuko dau-
 tsat ire irain oni ordea emoteko; eta or
 ikusiko dok ondo ordainduko dokala onako
 au.

VER.—Tira ba, zirtzil, neu be an izango nok i
 bestean arin; eta gero, ik gura baño lena-
 go igaz bakarrik aurkitu, burrukarako. {Al-
 didagie}.

IV EKITALDI

I AGERLEKU.—PARIS. Legerri-arazoetako Gelcr.

ENDIKA BAKALDUNA, GLOSTER, EXETER, YORK, SUFFOLK, SOMERSET, WINCHESTER, WARWICK, TALBOT, Paris'ko Yaurlea, ta beste batzuk aurrera.

GLOS.—Gotzain yaun, fcrestuna ezarri egizu buruan.

WIN.—Yaungoikoak yagongo al dau Endika, izen orrekoetatik seigarrena!

GLOS.—Paris'ko Yaurlea, egizu orain zure zina (Bekmbikatu egiten da Yaurlea), au ez beste bakaldunik eztozula aututen; bere adiskideez besterik eztozula izango zure adiskidetzat; eta eztozula izango zure arriotzat, aren legerriaren aurka gogo txarrez asma asmaka dabiltzanez besterik; ori egin bear dbzu, Yaungoiko zuzena zure lagun izatea gura ba'dozu. (Alde Yaurleak eta bere Laguntzakoak).

SIR YON FASTOLFE aurrera.

FAS.—Ene nagusien eskartsu ori, zure bureskunderako Calais'tik iraduz zaldiz nentorrela, idcrzki bat emon eusten, Bourgogne'ko Dukeak zutzako idatzia.

TAL.—Lotsaria Bourgogne'ko Dukearentzako ta itzako! Igaz oraintsuengoz aurkitu nintzanean zin eginda nago, zaldun zirtzil, ire zangoko galartzua urratu ta kenduko neuskikala ire zango kikiletik (Erauzi egiten dautso zango-galartzua), eta bete yoat nire zina, atarako lain izatska igon az ba i malla orretara. Parkatu nagizu, bakaldar Endika, eta bai zuok besteok be parkatu nagizue: Patay'ko gudaketan, gutziz fce nik sei milla gizon nebazanean, Pantzetarrak ostera, bantetzako ia amar ziranean, alkarregana eldu baño len, edo alkerri zartadarik emon baño len, beragan uste one imini izan dan zaldun-otsenaren antzera, igesi egin eban sasikume onek; amabireun gizon galdu gebazan guk eraso atan; neu, ta nigaz batera ainbat aitonseme atxilotu egin gendüezan, arerioa gure ganera otoz otoan etorrita. Ortik ebatzi, lord andiok, oker egin dodanentz, naíz, olango bildurtiak zalduntzako apaingarririk erabili bear dabentz, bai, ala, ez.

GLOS.—Egia esateko, lotsagarri izan zan egite ori, eta edozein gizoneri be txarto da-

torkona, askozaz be txartoago zalduneri, guldalfcururi, ta zuzendariri.

TAL.—Malla au lenen egin zanean, ene lordok, yatorri zindotiko zan galartzu-zalduntzea, adoretzu *la* onindartsu, adore arroz beteak, guduetan aintzakotzat agertuten zana; eriotzeari bildurrik ez eutsana, ta ez bearrek txikartuten ez ebana, estualdirik andienetan beti tinko ta kementsu agertuten zana baño. Au dala-ta, olango zerik eztauenak ostuta baño eztau zaldun-izen gantzutua, malla begiragarri au zakarturik, eta (ebazla aintzakorik izatekotan ni), mallatik kendu egin bear litzake olangoa, arrokeriz odol zindotiko dala diñon sasipean yaiotako gizon zakarra lez.

END. B.—Ire aberkideen orban azan orrek, entzun egik ire epaia! Batu, pilatu egizak ire zer-ak, ba, zaldun izandako orrek; erbesteratua izan adi oraindik cira, eriotzapean. (Alde FASTOLFE'k). Eta orain, ene lord yagola, gure osaba Bourgogne'ko Dukeak bidaliriko idazkia ikuskatu egizu.

GLCS.—(IdcFzki-azalcko zuzenbidea ikusi-ala) Zer esan gura ete dau ak, bere idazkerea aldatu dauenazkero? "Bakaldunari" soil soilik, ezebez geigakorik. Aztu egin ete yako bakalduna aren nagusiena d'ala? Ala, zuzenkera zakar onek aurrezkit iragarten ete dau aldakuntzaren bat izan dala aren biotz onean? Zer dogu emen? (Ba-dirakur) "Itxi egiten dot zure alderdi kaltegarria zegaiti bereziakaitik (nire aberri'aren zori txarraik ni eruriturik, eta zuk ozpian dozuzanen negar erurakariak nire biotza ausirik), eta Pantze'ko legezko Bakaldun dan Karla' gaz bat egin". Uí! azpikeri onen zakar eta mamu! Izan ete dateke onangorik..., itunbenari, adiskidetasunari, ta zinai onango uste'keri-ziria sartzerik?

END. B.—Ostera! asaldatu egin da nire osaba Bourgogne, ala?

GLOS.—Bai, ene yaun; eta zure arerio egin da-

END. B.—Ori ete da idazkiak dauen zerik txarrena?

GLOS.—Ori da idazten dauenik txarrena ta guztía, ene yaun.

END. B.—Ba, olan izatekotan, Lord Talbot'ek itz egingo dau agaz, eta onek zigortuko

dau a bere iruzurragaitik: ez *e'e* zagoz pozik, ene lord?

TAL.—Pozik, ene nagusi! pozik eta erdi be bai; aurreak artu ezpa'zeunstaz, eskutu egingo neunkizun egikizim onetan neu erabili nagizula.

END. B.—Olan dala, batu egizuz indarrak, eta bereala zoaz agana; ikusi dagiela ak, txarto be txarto artu dogula bere etoikeria ta zelango iraña dan bero adiskideai iri egitea.

TAL.—Ba-*noa*, ene yaun; biotzez opa dau-tsut oraindik be zuk zure arerioen nastea ikusi al izatea. (Alde dagi).

VERNON eta BASSET aurrera.

VER.—Zure baimena, zure ederretsia emoidazu burruka egiteko, ene nagusien eskar-turk orrek.

BASS.—Niri be, ene yaun, emoidazu burruka egiteko zure ederretsia!

YORK.—Nire otseña da au: entzun egizu, bakalseme zindo!

SOM.—Eta nire da au: aldeko izan zakioz, Endika ezti!

END. B.—Epe artu egizue, lordok; eta itz egiten itxi egiezue. Esan, aitonsemeok, zek gedar eragiten dautsue olan? Eta zegaitik egin gura dozue burruka? Naiz, nogaz?

VER.—Orregaz, ene yaun; irain egin daust-eta.

BASS.—Eta orregaz nik; irain egin daust-eta.

END. B.—Ze irañegaitik alakatuten zarie zuok biok? Ori yakin dagidala lenen, eta gero erantzungo dautsuet.

BASS.—Ingelanda'tik Pantze'rako bidean itsa-soa zearkatuten geragoiola, emen dagon urli onek, miñ marmalari ikusi-ezintsuz asatze egin eustan aldean daroan larroseagaitik; larrosearen orri gorriak nire ugazabaren mosuetako gorria iragarten ebela esanaz, bein aren, eta York'eko Dukearen bitarteko auzian egia autortu gura ez ebanean aren mosuan agertuko gorria; orrez ganera, beste itz zakar irainkorrik be esan*li'a*: itz zakarroi erantzuteko, eta nire ugazabaren laintasunaren alde egiteko, iskillotegeen launtzea gura dot.

VER.—Eta orixe da nire eskabidea be, lord zindo; orrek bere inondiko asmo azarriai azal ederrik ezarri gura izan-arren, yakizu, ene yaun, eupada egin eustala orrek; eta bera izan dala ezaugarri oni irri egin eustana, larrosa oren zurbiltasunak nire ugazabaren biotzeka kikiltasuna iragarten ebala esanaz.

YORK.—Somerset, inoz be ez ete dok itxiko gaiztakeri ori?

SOM.—York'eko ene Lord, betiko erio izan bear ete dau ire gorrotoak, olangorik ezarena egiteko inondiko aleginak egin-arren ik?

END. B.—Ene Yaungoiko on, gizonen garaun gexoetako zorakeriarena, olango zegaiti arin eta utsagaitik olango leiakeri alderdi-tsuak sortzen diranean! Langusu on biok, Yorl eta Somerset'ekook, nasaitu, baretu zaitezte, arren, eta baketan zagoze.

YORK.—Lenen iskillote-bidez ikusi bedi asarre onen ondorena, eta gero aginduko dau bak-kea zure goikotasunak.

SOM.—Gu geure arteko baño ezta auzia; olan dala, geure artean ebatzi dagibun.

YORK.—Or dok nire baia; ontzat aTtu egik, Somerset.

VER.—Ez, lenen asi dan lekuan gelditu d-dila.

BASS.—Zure baietza emon egizu, ene yaun omengarri orrek.

GIOS.—Zure baietza emon egizu! Nastu ta ondatuko al >da zuon eztabaidea! eta galduko al zarie zuon alperriko izketeagaitik! Bendeko arrook, ez ete zarie lotsatuen olango irain zaratatsu lotsabako onegaz bakalduna ta gu geu kezkatu ta artegatuaz? Eta zuok, ene lordok, eztoz uste ondo egiten dozuenik orrean eztabaida geztoak yasanaz; gitxiago oraindik orreik diñoenetik abagunerik artzeko zuon artean asarre ta asal-datzerik eragiteko; itxi egidazue bide obrerik artzea zuoi buruan sartzen.

EXE.—Naibagatu egiten dau orrako orrek orren goikotasuna; ene lord onok, adiskide izan zaidete.

END. B.—Erdi ona, burruka egin gura zeunkienok; gu maite gozuezanazkero agindu egiten dautsuegu, oraindik ara gutzit aztu dagizuela eztabaida au ta beronen zegaitia. Eta zuok, ene lordok, non gagozan gogoratu egizue; Pantze'n gagoz, erri aldakor ziboka dabilenean; gu geure artean banandurik gagozala oartu ba' dagie gure mosuetan, eta gu geure artean alderdietan banandurik ezkareala erizkide orrek bai okada eragingo dautsela euren urdalla nastuai, esaneko ez izateko, eta gure aurka yagiteko! Orrez ganera, guk izango dogun entzutearen txarra, erbesteko bakalsemeak seguru yakin dagienean anderakilla bategaitik, aintzako be eztan uskeri bategaitik Endika Bakalduna Ten aitonsemeak eta andikirik andienak alkar banatu dabela ta Pantze'ko bakalderria galdu dabela! Ui!

gogoratu egizue nire aitak bere benderatua; gogoratu nire adin samurra; eta uskeri bategaitik eztagiun itxi odolaz erosi zana! Neu egin nagizue ebazla eztabaida ezpaitu onetan. Larrosa au erabili ba'dagit nik (Larrosa gorria irmten dau bere soñekoan), ezta kust zegaitirik zegaitik inok susmorik izan bear dauen Somerset'en alderago nagola ni, York'en baño; biak yataz senide, eta biak maite dodaz; bardin asarratu Jeiskedaz burestuna daroadalako, ba, Eskolantarren Bakaldunak be burestuna daroa-ta. Baña zuon berezmenak be rak sartuko dautsue buruan orrako ori nik baño obeto; eta, au dala-ta, ona bakez eta bakean etorri gareanazkero, bakean eta maitasunean yarrai dagiun. York'eko lengusu, zuri ezarten dautsugu Pantze'ko alderdiotan gure ordeko izatea: eta, Somerset'eko ene Lord ori, zaldizko zure indarrak orren oñezko taldeakaz batu egizuz zuk; eta bendeko zintzai dagokienez, zuon gurasoen semeai dagokienez, gogargi zoazue batera, eta zuon arerioletan ausi egizue zuon beaztun asarre sumina. Gu geu, ene lord yagola, eta enparauak, bein arnasa apur bat artutakoan, Calais'era yoango gara atzera; eta Ingelanda'ra andik; eta on, zuon garaiteak dirala-ta, luzaro bagarik, esku-erakutsizat Karla, Alençon, eta etoimordoa emongo dauskuzuezala ditxarot.

II AGERIEKU.—PANTZE. Bordeaux'en aurrea.

TALBOT aurrera, bere Indarrakaz.

TAL.—Tutulari, Bordeaux'eko atetara oa; arresi-ganera dei egiok arein gudalburuari. Aaturako dei dagi Tutulariak. Arresi-ganean aurrera Pantzetar Indarren Gudalburua, ta beste batzuk.

Gudalburuok, iskillioetan Ingelanda'ko Endika Bakaldunaren otseintzan dabilen Yon Talbot Ingelandarra da dei dagitsuena, eta au dirautsue: "Idigi zuon atek; apaldu egiskuzue zuon buruak; zuon nagusien deitu egizue nire nagusia; eta bendeko esanekoan goratzarrea egiozue; eta nik neuk eta nire indarrak alde eginco dogu emendik; baña zuok betozko egin ba'dagiozue opatuten yatsuen bakeari, nire iru otseinen asarre sumina zirikatuko idozue, zere-na, gose argal saiets-agiriarena, ezpata zeatsallearena, eta su-garrarena; eta oneik, eurak biotz onez opatuten dautsuen eskein-tzea purruzatada zapuztu bagarik ontzat

(Eresi argi. Alde END. B., GLOST., SOM., WIN., SUFF., eta BASS.'ek).

WAR.—York'eko ene Lord, seguru be seguru, nire ustez, polito egin dau bakaldunak izlari trebareno»

YORK.—Bai, izan be; baña orraitioño be etxat begiko, Somerset'en ezaugarria ak erabiltea.

WAR.—Ba! gogaldiagaitik egin dau orrako ori, burukeri utsagaitik, ez egiozu ezarri orren errurik; eztoz uste, bakalseme ezti, asmo txarrik izan dauenik.

YORK.—Ba-dakit izan dauela, baña bego ori; beste arazo batzuk erabili-bearrean gagoz orain. (Alde YOK, WARWICK eta VERNON'ok).

EXE.—Ixilduteagaz ondo egin dok, Errikarta; izan be, ba, ire biotzaldiak eztanda egin izan ba'leu, bildur naz uste ta iruditu daikegun baño gorrotozko zapuzte ta asarre gorriagoak ikusi bearko geunkeazan an. Baña, dana dala, ondorenik txarrenak baño eztauz iragarten andikien gogakide ez izate latz onek, bakaldegian bata bestearen alde yarte onek, euren aldekoakaz talde eurekoiak egite onek, eta edonok dakus orrako ori. Okerrik asko da agintza-makile emeen esuetan egotea, baña askozaz be okerrago alkar ikusi-ezinak banaketa gorr>tagarririk sortutea; ortik dator ondamentia, or asten da nastea. (Alde dagi).

artu ezpa'dagizue, une baten lurreratuko dabez zuon torre arro eupadaginak.

GUDAL.—Eriotzearen mozollo adu txarreko bildurgarri ori, gure abarriaren ikara ta zigor odoltsu ori, ur dago zure gordinkeri-aldiaren atzena. Ilik ezik ezin sartu zatez gure artera; argi ta garbi dirautsut, ba, ondo sendoturik gagozala gu, eta indarrak asko dogula emendik urten eta burruka egiteko; alde eçin ba'dagizu, garaí onean, or dago Delbina gudu-sareak zabaldurik, zu eurretan goatu ta kirimilduteko; zure alde bietan dagoz tinko gudal-taldeak, zu esitu ta igesteko abagunerik zuri ez izteko; eztozu ezetariko biderik zirrist egiteko. Eriotzea ta agiriko ondamentia dagotsuz begira aurrez aurre, eta zuzitze zurbila dago-tsu mosuz mosu zai. Zin eginda dagoz amar milla Pantzatar. Ingelandar Talbot'enaz beste Kistarren biziri ez zuzenduteko euren suodi galgordetsuak. Ara, or zagoz zu, gizon adoretzu bizi ori, kemen benderagatxe-

ko ori! Au da zure aintzaren goragarritzat nik ckenengcz oriair.tzer: dciutsiulnn gorapena; ondarra yalgiten asparri dan ondarkerloiuak, bere ondarra agortu-ala, ordua bete dala iragarri orduko, ba, orain zure mosuak kolore ederrez yantzita zaltusen begiok, zimeldurik, odoldurik, zurbil eta ilik ikusiko zauez. (Danbor-otsa urrinetik). Entzun, entzun! Eresi goibela yoten dautso zure gogo bildurtuari Delbinaren danborrak, zer datortsun iragarriaz; zure erio-tzea iragarriko dabe nireak, (Alde Gudalburuak eta bestoak arresi-ganoi'k).*

TAL.—Ipuinik eziño orrek, eziño guzunik; ba-dantzut arerioa; -urten, zaldizko bizkor batzuk, eta ikuskatu euren saieis-aldeak. Ui! gure gudu-gertakuntzearen itxi ta ardurabako! Gu bai ba-gogozala esiturik eta

taketari esturik... Tngelanda'ko orein bildurtizko orein-taldetxc bat gara gu, Pantze'ko txakurtxo-talde auskariak bildurturik! Ingelauda'ko oreinak ba'gara, euren adorea be euki dagigun; eskadizan izan zital-antzeko, zistada bategaz yausteko, etsitako oreinar gogaldi amurratudun baño, eta gal-tzaiduzko buruz atzera eragin txakur odol-zaleai. eta bastarrera eragin kikalai; al danik eta karuen saldu daçiala gizon bakotxak bere hizia; nirea bestean karu saldu dagiala ta, olan, egitekotan, orein karuak gareala idoroko dabe, ene adiskideok.--Zori ona ekarriko al dautse gure ikurrinai Yaungoikoak. Gorka Gurenak, Talbot'elt eta Tngelanda'ren eskubideak burruka bildurgarri onefan! (Alde dagie).

III AGEKLEKU.^Gaskoin'eko Zelaia.

YORK aurrera bere Indarrakaz; Geznari bat datorko.

YORK.—Ez ete dira etorri atzera Delbinaren gudaroste altsuaren yarra yon diran kuikalari bizkorrak?

GEZ.—Etorri dira, bai, ene lord; eta a bere indarragaz Bordeaux'era yon dala diño, Talbot'egaz burruka egitako; a arako bidean zala, zure kuikalari Delbina burutzat ebana baño gudaroste indartsuago bi ikusi ebezan, eta aik biak Delbinarenagaz bat eginik, Bordeaux'erako bidea artu eben.

YORK.—Izurriak eroango al dau Somerset zital a, olan berandutu dauelako geigarritzat niri aginduriko zaldizkoak ekarte, uris-esitze onetarako batu ziran zaldizkoak ekarte! Nire laguntzearen begirc dago Talbot entzutetsua; eta etoi zital batek, azpiyale zistrin batek zaldun zindo ari lagundu-ezinean iminten nau, olan ni orbandurilt itxita; Yaungoikoa lagun izango al yako aren larrialdian! Porrot egin ba'dagi ak, agur Pantze'ko guduok.

SIR GILLEMMA LUCY aurrera.

LUCY.—Gure Ingelandar indarraren bakal.semetar buru ori, Pantze'ko lur onetan eguño bearrekoago izan etzanean ori, arin egin-alean zoaz Talbot zindoa yareiten, burdin-nezko garrikoz esturik dago, ba, a orain, eta ondamenti baltza dagoko begira: Bordeaux'era, duke gudabera! Bordeaux'era,

York! Ostantxean, agur Talbot, Pantze ta Ingelanda'ren omena.

YORK.—Ene Yaungoikoa, Somerset, nire tutuai geldituazoten dautsen ollar arro a, a al lego Talbot'en lekuan! Olan ba'litz, aitonseme adoretu bat aurreratu al izango geunke, etoi eta bildurti bat bertanbera itxita. Negar eragiten dauste asarre amurratuak eta sumin gorriak, azpiyala nagiak lotan dagozan bitarfean gu onan ilten garealako.

LUCY.—Ui! laguntzarik arean bidali egiozu estualdi larrian dagon lordari!

YORK.—Gureak egin 'dau, a il ba'dadi; ausi egin bear dot ezpata gudabera au; negarrez gagoz gu, irribarreka dago Pantze; guk galdu ba'dagigu, geiago dabe eurak egun oro; Somerset etoiari zor yako onako guzti nu.

LUCY.—Olan ba'dci, erruki izango al yako Yaungoikoa Talbot adoretuaren gogoari; baita aren seme Yon'enari be; ordu bi ba-dira, ba, a bidean aurkitu dodala, bere aitagana yoiala! Zazpi urteotan eztau ikusi Talbot'ek bere semea; eta orain bien bizia-rena egina dan lekuan batzen dira alkarregaz.

YORK.—Ai ene! ze poz izango dau Talbot'ek bere semeari bere ilobirako ondo etorria emon dagionean? Goazen! Arnasea ia gelditu eragiten daust alkarregandik bananduta egon diran adiskideak euren eriotzaldian alkar agurtu-bearretik datorkidan naitageak.--Agur, Lucy; nire zori txarrak ezin dau besterik, ni lagun izan bear nintzakion

gizonari lagun ez izatearen erruduna añendu baño. Somerset'en erruz, oren geldokeriz galduak nra Maine, Blois, Poitiers, eta Tours. (Alde bere inckirrakctz).

LUCY.—Onan, crsaldatzearen saiak onango gualburu andien biotzetan yaten daragoioen bitartean, ardurabakotasun lotiak etoi-

keria dakar, Endika Boskarrenak, ondiño bere gorpua ia oztu bagarik dagon garaila ak, gomufan beti bizi dan ak irrabazia galtzeko: biziak, omenak, lurrak eta gutzia galtzen da, oneik alkar kezkatuten daragoioen bitartean. (Alde dagi).

IV AGERLEKU^Gaskoin'eko beste Zelai batzuk.

SOMERSET aurrera, bere Indarrakaz; TALBOT'en Agintza-gudari bat beragaz.

SOM.—Beranduegi da; orain ezin daikedaz bidali; arrcspaladanegi asmau eben York eta Talbot'ek gudu-arazo au; uritiko urteera batek zapaldurik itxi lei gure indar gutzia; bere azarkeri bearbako, etsiarenagaz baltziturik itxi dau Talbot azarriegiak bere lengo entzutearen dizdiz gutzia: York'ek bultzau dau a burruka egin eta lotsariz il dcsdin; bein Talbot ilazkero, York andiak aren izen eta entzutea beretuteko.

AGIN. G.—Amen Gillelma Lucy, besteenak baño askozaz gitxiago diran gure gudarienezako laguntza-eske nigaz batera etorria.

SIR GILLELMA LUCY aurrera.

SOM.—Kaxo, Sir Gillelma! Nondik zatoz?

LUCY.—Nondik natorren, ene yaun! Talbot saldu-erosiagandik; ezbear gorriak esturirik, York eta Somerset zindoai deiez dago a, bere gudari makalak inguraturik daukan eriotzea uxcttuteko; eta guduz nekaturiko azpegietatik gualburu omengarriari odolezko izerdia darion bitartean, eta laguntzearen begira arerioari gogor egitea ak luzatuten dauen bitartean, zuok, aren itxaro ustelok, Ingelanda'ren omenaren baiok, alkarregandik banandurik zagoze, ezetarako gauz eztan alkarren leiaz. Zuon arteko alkar ikusi-ezinak ez al dauz eukiko agandik urrin ari lagun egiteko baturiko

indarrak, a berak, aitonseme zindo entzuetsetu ak, iñonáiko ezbardintasunez bere bizi emoten dauen bitartean; Orleans'eko Sasikumeak. Karla'k, Bourgoñe'k, Alençon'ek, Reignier'ek a inguratu ta, zuon utsez eta erruz, Talbot galtzen dan bitartean.

SOM.—York'ek bultzau dau a orretara, York'ek lagundu bear euskíon.

LUCY.—Eta York'ek beste orrenbeste diño zu zeutzaz; zinka ta añenka diño ak, zuk emen daukazuzala gudu-arazo onetarako baturiko zaldizkoak.

SOM.—Guzurra diño York'ek; eskatu eikezan zaldikoak, eta an eukeazan; omen gitxi ta maitasunik gitxiago zor dautsat nik ari; eta iririk asko arturik nago ní, zaldizkoak bidaliaz ari ederrik egiteko.

LUCY.—Ingelanda'ren iruzurrak, ez Pantze'ren indarrak, goakallutu dau orain Talbot biotz-zindoa: a iñoz be ezta yoango bizi-rik atzera Ingelanda'ra; zuon arteko asarTeak aren zori onari salkeria eginik ilten da a.

SOM.—Tira, zoaz; bertatik bidaliko dodaz zaldizkoak; sei ordu-barru an izango yakoz laguntzat.

LUCY.—Beraniduegi dator laguntzea; onazkero edo atxilo edo ilik dago a; igesi ezin eikean, ba, igesi gura izan ba'leu be; eta iñoz be ez eukean igesi gurako ak, igesi al izanda be.

SOM.—Ilik ba'da a . agur, Talbot adoretzu!

LUCY.—Bizirik da munduan aren entzutea, zuzgan dago aren lotsaria. (Alde dagie).

V AGERLEKU.—Ingelandarren Gudaltea Bordeaux'tik ur.

TALBOT eta bere seme YON aurrera.

TAL.—Yon Talbot gazte ori! Iri gudako marroak irakasteko dei egin dauskat bein adorebako adinak eta azpegi motel makalak ire aita yezarleku apitz itzulira eroanazkero, ik biztu dagikan Talbot'en izena.

Baña (izcrrren gezto ta adu txcrrreko!), eriotza-yairako etorri az orain, galgorde itzal baztarrera ezin eraginerako, zirristik ezin eginerako; au dala-ta, seme maite, nire zaldirik bizkorrenaren ganeratu adi; eta neuk irakatsiko dauskat zelan igesi, beingo igesketaz: tiruk, ez egik galdu astirik, oa.

YON.—Talbot etxat izena, ala? Ui! maite ba' dozu riire arna, ez egizu baltzitu aren ize-no, ni sasikume ta yopu eginik! Talbot'en odolekorik enazala ni esango dau munduak, Talbot zindoa zutunik dagon bitartean lotsagarriri igesi ba'dagit.

TAL.—Nire eriotzeaz azaskatuteko, ni ilteko-tan.

YON.—Olan igesi dagiana ezta bein be atzera etorriko.

TAL.—Gu biok gelditutekotan emen, biok il-go gozak seguru baño seguruago.

YON.—Olan izatekotan, nagon emen ni, eta zeuk igesi egizu, aita; andi da zure galtzea, orregaitik zeu zara bizirik iraungarriago; ni zenbateko nazan ez ezagun danazkerok, ni galduaz eztago galtzerik. Nire eriotzeaz ezlabete Pantzetarrak arrokizun andirik; zureaz bai izango dabe, zu galduaz gure itxaro guztiak dira galdurik. Igesteak ezin orban'-hr daike zuk irabazi dozun omena; baña nireak bai orbanduko dau, egite andirik zelango dariik be nik eztoz egin-eta; edonok zin egingo dau, onura andiagorik aterateko igesi dozula zuk; baña nik nire burua makurtu ba'dagit, orrako ori bildurrez egin dodala esango dabe. Eztago ni bein be zutunik egongo nizanaren itxarorik, lenengo abagunean kikhildu ta igesi ba'dagit. Emen, nire belauenen ganecyi, eriotzaeske nago, lotsariagaz bizirik iraun baño len.

TAL.—Ilobi baten etzango ete dozak, ba, ire amaren itxaro guztiak?

YON.—Bai. nik nire amaren sabela lotsaturik itxi baño len.

TAL.—Nire onespena arturik, oala aginduten dauskat.

YON.—Burruka egin gura dot nik, ez are-rioaQanaiik igesi.

TAL.—Ire aitaren zati bat aurreratu ledikek igan.

YON.—Ez nigan lotsari izango danez beste zctirik bat be.

TAL.—Ik eztok izan eguño entzuterik, eta ezin dok galdu.

YON.—Bai, zure izen entzutetsua: igesiak lorrindu egin bear ete 'dau ori?

TAL.—Ire aitaren aginduak garbi-ikuziko au orban orretatik.

YON.—Zu ezin izan zatekez nire lekukorik, nire aldeko autorlarik, bein zu ilazkerok. Orren seguru, orren agiri ba'da eriotzea, biok igesi dagigin.

TAL.—Eta emen bertanbera itxi nire yarraí-leak, burruka egin eta ilteko? Olango lotsak eguño etxok orbandu nire adina.

YON.—Eta olango Iotsariren errudun izango ete da nire gaztearora? Zuk zure burua zati hi egin daikezun baño bape errazago ezin kendu naikezu zure aldamenetik: gelditu, yoan, zuk zer-gura egin, axe bera egingo dot nik; ni enaz bizirik geldituko, *ba*, nire aita il ba'dadi.

TAL.—Olan izatekotan, emen agur egiten dauskat, seme lerdan, ire bizia arrasti onetan itzaliteko yaio intzan orri. Erdi, alkarren aldamenean bizi ta il gaitazan; eta gogok gogogaz Pantze'tik zoriontegira egaz egin dagian. (Alde dagie).

VI AGERLEKU.—Guidlategi bat.

Gudarako otsak: gitxien arteko gudaketak, eurretan inguratu egiten dabe TALBOT'en semea, eta TALBOT'ek yareiten dau.

TAL.—Korka Gurena ta garaitea! Yo, guda-riok, yo; ausi egin dau Bakal-ordekoak ak Talbot'eri emondako itza, eta Pantzetarren ezpaten asarxepean itxi gauz. Nondik da Yon Talbot? Gelditu adi ta arnasea artu egik; neuk emon neunskan bizia ta eriotzatik yarei aut.

YON.—Ui! birritan zatxataz aita, birritan natxatsu seme! Galdurik eta berea eginik izan da lenengoz emon zeunstan bizia, yaio-tza barria emon epa'zeunste zure ezpata gudakorragez, alanbearraren gogoaz bestera, nire egunak bete arteraño.

TAL.—Ire ezpateak yo ta Delbinaren gangarretik sua atera dauenean, orrako orrek berotu egin yok ire aitaren biotza, garaite mosu-adoretsuaren gurari arroagaz. Orduan berunezko adinak, gazte-gogaldi ta asarre gudabereagaz bizturik, geiago egin yautsek Alençon, Orleans, Bourgogne'ri, ta Gallia'ren arrokeritik yarei izan au. Orleans'eko Sasikume bildurgarria (iri odola atera, ene seme, ta ire lenengo burrukea ik beragoz izan dokana), laster aurkitu 'dok ni bere aurrean nauela, ta alkarri zartada batzuk emonda, laster ixuri yoat nik aren sasikume-odoletik arean; eta zori txarrean, onan itz egin yautsat: "Ik nire seme adoretu Talbot'egandik atera dokan nire odol garbiaren alderako ixurten yoat au ire odol ku-

tsatu, zirtzil, zakar eta txirotik"; onetan ni, eta Sasikumearena egiteko nengoala, indar andiak etorri dozak a yareiteko. Itz egik, ez ago ire aitagaz gogait eginda, Yon? Zelan ago? Itxiko ete dok gudategia, seme, eta igesi egingo ete dok orain zalduntasunaren semeren ikurratza turirik dokanazkero? Igesi egik, ni il naitenean nire eriotzeaz azaskatu aiten; baten laguntzea etxatak ezetarako. Ui! ba-yakiat zorakeri andia áala gure bizi çuztiak ontzitxo bakar baten galgordean imintea! Gaur il ezpa'nadi Pantzetarren asarrepean, zertzaro mengelez biar ilgo nok; ni emen gelditutskotan, gitxi irabazten yoek... nire bizia egun batez laburtutea baño elitzakek ori; i iltekotan, ostera, igaz ilten dok ire ama, gure etxearn izena, nire eriotzeagazko azaskatzea, ire gaztearoa, eta Ingelandar' en ospea: zer guztiok eta geiago iminten yoaguz galgordean, i emen gelditutekotan; zer guztiok aurretuten yoaguz ik egesi egitekotan.

VII AGERLEKU__Lengoxeko beste arlo bat.

Gudarako otsak: turrukatxoak. TALBOT aurrera, zauriturik, Otsein batek deutsala.

TAL.—Nondik da nire beste bizia? Yoanik da nire neurea; Ui! nondik da Talbot gaztea? Nondik da Yon adoretsua? Eriotza garaila, ire atxilo izan-arren, itzako iiri ta barre eragiten yaustak Talbot gaztearen aidoreak: -a oartu yatanean ni txikaturik eta nire belaunen ganean nengola, nire ganean ikara eragin dautso ak bere ezpata odolduari, ta leoi gosstiarena langoxe asarrearen egite andi latzak egiten eta eperik-ez gonia erakusten asi da; baño nire yagola asarrea bakairik gelditu danean, nire ondamentia nigandik uxatuteko, ta iñok eztautsala erasoten ikusirik, asarre itsukorrek eta biotzeko sumin andiak eraginda, bapctean alde egin dau nire aldamenetik Pantzetarren gudaketa-mordo estura; eta odolezko itsaso atan nire semeak busti busti egin dau bere adore yagia; eta an il da nire Ikar, nire garbea, bere arrotasun eta aintzean.

OTS.—Ene yaun maite ori! Aor non daren zure semea.

Gudariak aurrera, YON TALBOT'en gorpua dakarrela.

TAL.—Eriotza mamu ori, guri irri egiteko ba-

YON.—Eztaust egin min andirik Orleans'en ezpata orrek; baño zure itzok bai ateraten dauste odol bizia nire biotzetik: olango lotzariz onango onurarik ateratekotan, zera, biziata alperra aurreratu, ta entzute argia erailtea, Talbot gazteak Talbot zarragandik igesi baño len, ni naroen zaldi bildurtia yausi ta ilgo al da! eta Pantze'ko baserrietako mutilak langoxe egin gura nozu lotsariaren irrikizun, eta zori txarraren yostallu! Seguru baño segurua, zuk irabazi dozun entzute guztia arren, igesi ba'dagit, enaz ni Talbot'en semerik: au dala-ta, igesterik aiatu be ez egidazu geiagotan; alperrik izango da-ta; Talbot'en seme ba'naz, Talbot'en oñetan ilgo naz.

TAL.—Olan ba'dok, yarra akio Kerete'ko ire aita etsiari, i Ikar ori; kutun yatak ire bizia; burruka egin gura ba'dok, burruka egik ire aitaren aldamenean; eta, goragarrri gareala erakutsirik, arro il gaitezana. (Alde dagie).

rrez daragoiozun ori, laster alde egingo dau ilkizunak zure gordinkeri irainkorretik; zuk nai-ta-nai-ez alde egingo dabe Talbot biak, betiko lokarriz alkarri esturik, egaz ortze arina zear. Ik, ire zauriak eriotza mosu-itsusiaren apaingarri diran orrek, itz egioke ire aitari ire arnasea agortu baño len! Itz eginaz, eupada egioke eriotzeari, berak gura, naiz gura ez; Pantzetarren bat dala, ta ire arerio dala iruditu egik. Ene seme orren errukarri! Irribarre dagi, nire ustez; Pantzetar izan ba'litz eriotzea, eriotzea gaur il dala esango ba'leu legetxe. Erdue, erdue, eta bere aitaren fcesoetan eratan egiozue; nire biotzak ezin yasan dauz luzarcago kalteok. Gudariok, agur! Emen dot gurako neunkena, Talbot gaztearen ilobi 'dira orain nire beso zarrok. (II egiten da).

Gudarako otsak. Alde Gudariak eta Otseñak, gorpu biak daroezala. KARLA, ALENÇON, BOURGOGNE, SASIKUMEA, NESKATOA, ta Indarrak aurrera.

KAR.—Laguntzarik ekarri izan ba'lebe York eta Somersset'ek, egun odoltsu izango litxakigun gaurkoa.

SAS.—Talbot'en leioikume gazteak, asarre-lan-dara ak, ak bai mustu dauela bere ezpate-txoa Pantzetarren odoletan!

NESK.—Bein aurkitu naz beragaz, eta onan itz egin dautsat: "Gaste gorbi ori, ator ona, neskatok benderatu agian": baña, purruz-tada arro nagusiagotarez, onan erantzun daust: "Talbot'en semea ezta yaió emag-al'du lotsabakoren goakizunik izateko": eta, Pantzetanen erdi-erdira zuzateko": bertan itxi nau arrosko ak, beragaz burru-ka egingarri enazalakotan,

BOUR.—Seguru be seguru zaldun zindo egin-go litzatekan a: -ara non datzan bere kalteen inñuderik odoltsuenaren besoetan obiraturik!

SAS.—Zeatu egizuez, ebagi euren azurrak, euron bizia Ingelanda'ren aintza, Gallia'ren arrikizun izan diranon azurrak.

KAR.—Ui! ez; ez, gero! Bizirik igesi eragin dauskunari eztagiogun egin okerrik ilik dagonean-

SIR GILLELMA LUCY aurrera, lagunakaz; Pantzetar Aldarrikari bat euren aurrean daturrela.

LUCY.—Aldarrikari, Delbinaren txoznara eroan nagik, an yakin dagigun zeñen aldeko izan dan gaurko aintza.

KAR.—Noren aldetik dakak banderatuteko geznea?

LUCY.—Benderatu, Delbin! Pantzerazko itz utsa yatsu benderatutea; guk Ingelandar gudariok eztakigu zer esan gura dauen itz orrek. Atxilo zeintzuk dozuezan yakiten, eta ilen gorpuak ikuskatuten nator ni.

KAR.—Atxiloez itaunka zatoz? Sulezea da gure baitegia, baña esaidazu noren billa zatozan.

LUCY.—Nondik da gudategi onetako Alkide andia, Lord Talbot adoretzu, Shrewsbury'ko Kondea; iskillorloan izan dauzan egite zori ontsu ta inñondikoakaitik Washford eta Valence'ko Konde andi egina; nondik Goodrig eta Urchinfield'eko Lord Talbot, Black-

mere'ko Lord Strange, Alton'go Lord Verdun, Wingfield'eko Lord Gromwell, Shsfield'eko Lord Furnival, Lord Falconbridge iru bider garaflea; Gorka Gurenaren anaidi zindoko zalduna, Mikel Gurenaren anaidi aintzakoko, ta Urrezko Artinarru'aren anaidi-koa, Pantze'ko bakalderrian bere gudu guztietan Endika Seigarrenaren Marxal andi izan dana?

NESK.—Ba-dogu itz egikera zoro-arrorik emen, bai orixe! Berrogei ta amabi bakalderri dauzan Turkarrak be eztau idazten onango idazkera gogaikarriz. Emen gure oñetan dago izengoiti guztiokaz goratuten dozuna, andurra dariola ta euliz yosirik.

LUCY.—Ilik dago Talbot Pantzetarren zigor zakarra, zuon bakalderriaren ikarea ta Nemesis baltza, ala? Ui! bala biurtuko al litzaz nire begietako fcolak, nik nire asarre gorrian zuoi arpegira yaurtiteko! Ui! biztu al neiz ilok! Askok litzake ori Pantze'ko bakalderria ikaratutelto: bere irudia bakarrik itxiko ta'litz emen zuon artean. zuotatik arroena be zurturik itxiko leuke. Ekadazuez euren gorpuak, emendik eroan al dagidazan, eta euren laintasanari dagokionez obiratu dagiguzan.

NESK.—Nire ustez, Talfcot zarraren mamua da arropuz au. Yaungoikoa-arren, eroan dagizala; emen euki ba'dagiguz, andurra emongo dabe, ta usteliu egingo dauskue eguratsa.

KAR.—Zoaz, eroan egizuz euren gorpuak emendik.

LUCY.—Eroango dodaz: baña euren autsetatik sortuko da Pantze osoa bildurturik itxiko dauen poinitzen bat.

KAR.—Gu eurak bagarik gelditutekotan, zeuk zer-gura egizu eurekaz.—Eta Paris'era goazen orain garaila-gogaldi onetan; oro izango da gure, bein Talbot odolzalea ilik dazkero. (Alde dagie).

V EKITALDI

I AGERLEKU.—LONDON. Bakaldegiko leku.

ENDIKA BAKALDUNA, GLOSTER, eta EXETER aurrera.

END. B.—Irakurri ete dozuz Elexpuruaren, Inberadorearen, eta Armagnac'eko Kondearen idazkiak?

GLOS.—Irakurri dodaz, ene lord!: eta onetara yoten dabe, zera, zure goikotasunari apa-

lik eske dagoz, bake on bat egin daitela Ingelanda ta Pantze'ko bakalderrien artean.

END. B.—Zer deretxatsu euren eskariari?

GLOS.—On deretxat, ene lord on; eta bide bakarra gure Kistarr-odol-ixurtzea gelditua-zo, ta alde bietako baretasuna iristeko.

END. B.—Bai orixe, osaba; beti uste izan dot, ba, nik Yaungoikoaz eta berezkoaz besterako dala onango eztabaida gordin odoltsurik izatea siniste bat dabenen artean.

GLOS.—Orrez ganera, onako au lenago egiteko, ta adiskidetasun onen korapila estuago egiteko, Armagnac'eko Kondeak (Karla'ren ureiko, ta Pantze'n aginpide andiko da bera) bere alaba bakarra eskeintzen dautso zure eskarrari ezkongetzat, ezkontsari andi yorigaz.

END. B.—Ezkontzea, csaba! Ai ene, gazte naz ni ondiño; eta egokiago naz ikasi ta idaztien artean ibilteko, maitekerietan ibilteko baño. Orraitiño be, deitu egizuz ordezkariorik; eta euretatik bekotxak zeuri eder yatsun erantzuna izan dagiala: Yaungoikoaren aintzarako ta nire aberriaren onerako izango dan edozein erabagigaz naikoturik geldituko naz ni.

Aurrera Elexpuruaren Ordezkarria, ta beste Ordezkari bi WINCHESTER'egaz, au orain KARDINAL BEAUFORT dala, Kardinal-soñekoakaz.

EXE.—Ostera! Kardinaltzako mallara eragi daukue Winchester'ko ene Lorda? Olan ba' dtt, argi dakust bete dala beñola Endika Boskarrenak iragarritako au; "Iñoz kardinaltzara eldu ba'dadi a, bustuna añako egingo dau ak bere kardinal-txapela".

END. B.—Ene yaun Ordezkariorik, aztertu ta orraztu doguz zuotatik baktoxaren eskariak. On eta bidezko da zuon asmoa; eta orrazkeror, ebatzirik eta seguru be itzulirik gagoz

II AGEBLEKU.—PANTZE. Aniou'ko Zelaiak.

KARLA, BOURGOGNE, ALENÇON, NESKATOIA, ta Indarrak aurrera, yoan doazala.

KAR.—Gure gogo yausiak poztuteko dira barriok, ene yaunok: Paristar mardoak asaldatu egin dirala diño, eta barriro Pantzetar gudakorren alde yarri dirala.

ALEN.—Olan ba'da, Paris'era, Pantze'ko Karla bakaldar, eta ez euki atzean alperkerian zure indarrak.

NESK.—Bakea lagun bekioe, gugana ba'datoz; ostantxean guduak lurreratu dagizala euren yauregi ta gutzi!

Geznari bat aurrera.

GEZ.—Zori ona gure gualburu adbretsuari, eta beste aínbeste bere lagunai!

KAR.—Ze barri bidalten dabe gure kuikalarriak? Itz egik, arren.

bake txerakorrerako baldintzak iminteko; eta baldintzok Pantze'ra nire Lord Winchester'en bitartez laster bidalteko asmotan gara.

GLOS.—Eta nire lord eta zuon ugazabaren eskeir-tzeagazko, bere goikotasunari ain luze ta zabal azaldu dautsat-eta, anderañoaren geitasun onindartsuak, edertasuna, ta ezkontsari yoria gogoko yakoz-eta, a Ingelanda'ko bakalduno egiteko asmotan idago..

END. B.—Eta itunben orren argigarri ta agiritzat (Ordezkaritari dirautso), pitxi au eroan egiozu neskatoari, nire maitasunaren baitzat. Eta olan dala, ene lord yagola, zuk begiratu ta ardurea artu egizu, oneik Dover'era yagolak seguru eroan dagiezan; eta, an ontziraturik, itsasoaren zoriaren eskuetan itxi egizuz. (Alde ENDIKA BAK, GLOS., eta Ordezkarriak).

WIN.—Geldi, ene lord Elexpuru-ordeko; yantzi benokaz ni yazte-arren Bere Gurentasunari bidaliko neuntsala aginduriko dirutzea artu bear dozu alde egin-aurretik.

ELEX. O.—Zeuk noz-gurararte etxongo dautsut zuri yaun orri. (Alde dagi).

WIN.—VVínchsster'ek eztau bururik makurtuko orain andikirik arroenaren aurrean be, ezta a baño gitxiago izango be. Gloster'ko Humphrey, ondo ikusi bearko idok, ez yaiotzaz, ez agintzaz, eztokala zapalduko goztaia; edo burua makurtuazo ia belaubikotuazo egingo daukast, edo lurralde au asalaturik ikusiko dok. (Alde dagi).

GEZ.—Atzera bat eginik dago orain, len atal bi egindako Ingelandarren giarostea, eta zuoi laster erasoteko asmotan dago.

KAR.—Arinegitxo dator, yaunak, iragarpen au; baño laster gertaoko gara eurai erantzuteko.

BOUR.—Ez al dago an Talbot'en mamurik: a yoanik danazkeror, ene yaun, eztogu zetan izan bildurrik.

NESK.—Bildurra da biotzaldi zakarretatik añengarriena: oles egiozu garaiteari, Karla, ta zeure izango da; elorrioz agin-karraska dagiala Endika'k, ela alakatu bedi mundua.

KAR.—Olan izatekotan, aurrera, ene yaunok; eta zori onlsu izango al da Pantze! (Alde dagie).

III AGERIEKU.—Angiers'en aurrea.

Gudurako otsak: burrukatxoak. NESKATOA aurrera.

NESK.—Garaila da bakal-ordekoa ta igesi doaz Pantzetarrak... Lilurapen eta kutunak, lagun zakidaze orain; eta zuok, nire onularirik onenak zarien eta etorkizuna iragarten daustazuenok.... zuok, laguntzalla bizkor, eta iparraldeko bakaldun yaukalaren ordeko zarienok, agertu zakidaze eta lagun zakidaze egikizun onetan! (Ostotsa entzu'en doi),

Txerrenak aurrera.

Arin eta axean agertute onek darakus zuok izaten diaustazuen zolitasuna. Lurpeko talde altsutik autuak zarien gogo etxetiarrok, lagun zakidaze orain beste bein, Pantze'k irabazi dagian gudategia. (Ba-dabiltz cnaraka, baña itzik eztabe egiten). Ui! luzaro etzakidaze egon ixilik! Len zuon yakitzat nire edola emoten neuntsuen alderako, azpegiaren bat moztu ta bera emongo dautsuet orain, geroko beste esku-erakutsiren baten baitzat, orain nire lagun izatera etsi ba'zadize. (Mokurtu egiten dabez euren buruok). Eztagola zerok arteztuteko ezetarik itzarorik? Neure soña emongo dautsuet saritzat, egiten dautsuedan eskaria iritxi ba'dagit. (Buruai eragiten dautse) Ez nire soñak, ez nire odolaren opeak ezin itzuli ta bultzau ete zabez oiturik dozuen laguntzarako? Olan izatekotan, nire gogoa eutsie..., nire soña, nire odola, ta oro, Ingelanda ak Pantze ben'deratu baño len. (Alde dogie txerrenaf). Ara! bertanbera izten nabe. Eldu da orain Pantze'k bere kukuztun burua makurtuteko crldia, eta Ingelanda'ren altzora yausi daifela bere burua. Makalegi dira beñolako nire liluraketak, eta sendoegei da sulezea neuk zelan-gura erabilteko: Pantze, autsetara makurtuten da orain zure aintza (4). (Alde dogi).

Gudurako otsak. Pantzetar eta Ingelandarrak aurrera, burruka daragofoela. Biak bietara dagie burruka NESKATOAK eta YORK'ek: atxiloturik gel'dStuten da NESKATOA. Igesi Pantzetarrak.

YORK.—Pantze'ko neskato, gogor deusudala uste dot: azkatu egizuz orain zure beste mundukoak, liluraketai oles eginik, eta iku-

si egizu eurak azkatuten zabezanentz. Sari bikaña, egokia txerrena poztuteko! Iku-si zelan erasten dauzan sorgin itsusiak bere bepuruak, Kirke lagun dauela ni antzel-datu gura ba'ndendu lez!

NESK.—Ezin aldatu zatekez dozuna baño antz txarragara.

YORK.—Ui! gizon yator da Karla Delbina; aren antzaz besterik ezin izan begiko ta eder zure begi pitxientzako!

NESK.—Izurrik okerrena yausiko a! da Karla'ren eta zure ganera! eta oean lotan zagozela, otoz otoan esku odoltsuen batek elduko al idautsue!

YORK.—Sorgin zikin gaiztetsi ori, liluratzalla ori, eutsiozu zure miñari!

NESK.—Apu baten añenak esateko zure ederretsia emoidazu, arren.

YORK.—Taketari loiu zagiguzanean esaizuz añenak, sinisterik bagako orrek. (Alde dagie).

Gudarako otsak, SUFFOLK aurrera, MARGA. RITE ANDERAÑO'A'ri lagun yakola.

SUFF.—(Begiratu-ala) Zareana zareala, nire

(4) Ark'eko Yone, "Orleans'eko Neskatoa" izenez be ezaguri dana, Meuse'ko Domrremy urian yaio zan 1412'gn. urtean; Rouen'en il 1431-V-30'gnean. Ark'eko Yagoba luginaren alaba zan, neskoto aratz eta yaungoikczalo. Goitiko putz eta dei sarriak eraginda, 1429' gn. urtecin Pantze'ko Karla Zazpigarrenaren bckaldegira ycan zan, bakaldun ori Ingelandarraif burruku egiteko berctuten. Lenengotan otz artu eban bakaldunak gure neskato azarria, baña gerca neskatcaren esaneia yarri zcn, eta ambat bider Ingelandarra Pantzetarrak bizkarra ederto berotu eutssm. Alango ekite baten gure neskatca Ingelandarren atxilo yausi zcn, eta aik, Pantze'ko Gotzai Kepa Cauchn euren olde ebela, Yone, taketari eutsala, sugarretain ilteko epaia emon eta erail egin eben Rouen'gon enparantza edo plazearen erdi-erdian. Cauchon'ek sorgin'zat eia sini'ste-auslatzat salatu ta olangotzat eriotzarako epaia emon eutsran. Elaxeak Gurenen izendegian imini dau Ycne gizaldi cnetan, bere yaia Pantze'n andikiro egits-n dalarik. Cauchon'e»k sorgintzat salatu ta epaitu ba' eban Yone, ezta arritzekorik gure Shakespearce Ingelandarrak darabilenez erabiltea.

- atxilo zara. Edertasunik ederren ori, ez izan bildurrik, ez igesi! esku lotscrez baño etzaudaz ukutuko, ba, eta bigun iminiko dautsudaz zure garri samurrean, Betiko bakerako mun egiten dautset atzoi (Bere eskuari mun egin-ala). Nor zara? Esaidazu, nire goratzarrea egin dagitsudan.
- MAR.—Margarite yat izena, efa bakaldunen alaba naz, Napoli'ko bakaldunarena, zareana zareala zu.
- SUFF.—Konde naz ni, eta Suffelk yat izena. Minik ez artu, berezkoaren alatz orrel;; le-pazutak bere umetxo lumetxadunak bere egapean atxilo gordeta yareiten dauzanez nik zu yarei zagidazan egin zauz zoriak nire atxilo Orraitiño be, onan yopu-antzera zu erabilteak iñoz minik egin ba'dagitsu, zoaz, eta aurrerantzean be azke izan zaitetz, Suffolk'en adiskidetzat .(Bira egin eta ba-dea,narena egi'e.n dau neskeak). Ui! galditu zadiz! Eztot alik neskato oni yoa-ten izteko; yarei egin gura leuke nire eskuak, baña ezetz diño nire biotzak. Eguzkiak uretako bere izpilluan yokis egin daroanez, irudituriko beste didizzen baten kiñu eginaz, orixe dagi edertasun itzal onek nire begietan. Maiteminduarena egingo neunskio, baña itzik egiten enaz atometan: idazkortzen bat eta idazkura billatuko dodaz, eta idatziz erakutsiko dautsat nire gogoa; ken, ken, De-la-Poole! Ez adi ezindu; ez adi elbarritu; miñik eztoz, ala? Eztok neskato au ire atxilo, ala? Kikildu egingo ete az emakumeren aurrean? Bai, olangoxe da edertasunaren bakaldar nagusiagotzea, nastu egiten dau miña, ta zekartu egiten dauz sentsuak.
- MAR.—Esaizu, Suffolk'eko Kende, (Orí ba'da zure izena), zer ordaindu bear dot nire burua yareiteko? Atxilo naz, ba, dakustanez.
- SUFF.—(Bere kitean) Zelan esan daiketik neskatoak ezetza emongo dautsala ire eskariari, i orrek maite auen, ala ez, ikusi aurretik?
- MAR.—Zegaitik eztozu erantzuten? Zenbat ordaindu bear ete dot nire buruaren yareigarrizat?
- SUFF.—(Bere kitean) Lirain «ia ta, beraz, maitamingarri; emakume da ta, beraz, irabazi datekena.
- MAR.—Yarei-ordainik artuko dozu, ala ez?
- SUFF.—Gizon maitabera, gogoratu egik ba-dokala emazterik; olan izatekotan, zelan izateko Margarite ire kutun? (Bere kitean diño cru.
- MAR.—Oba litxakit orregandik alde egin, eztau entzun guia-ta.
- SUFF.—(Bere kitean) Dana dago lorrinduta; or dago otzitun nauden idazkia (kartea).
- MAR.—Ganora bagarik iz egiten dau; seguru baño seguruago, hurutik eginda dago gizon au.
- SUFF.—(Bere kitean) Eta orraitino be, iritxi ledike legetik yareitea.
- MAR.—Eta orraitino be, zuk erantzutea gurcko neunke nik.
- SUFF.—(Bere kitean) Irabazi egingo dot Margcrite Anderaño au. Norentzako? Ba! bakaldunarentzako; ixilik ago, zurezko zera dok a!
- MAR.—Zuraz daraçoio orrek: zvt-aratzen bat da ori.
- SUFF.—(Bere kitean) Orraitino be, olan naitokurik gelditu ledike nire gogoa, eta ba-kea egin bakalderrion artean. Baña orretan be ba-dago kezkarik; neskato onen aita Napoli'ko bakaldun izan-arren, ba, baita Anjou ta Maine'ko Duke be, orraitino be ezeukiagi da, eta andikiak irri egingo leuskioe ezkontza orri.
- MAR.—Entzuizu, gudalburu..., ez ete dozu astirik?
- SUFF.—(Bere kitean) Olantxe izango da, aik irri egin ba'dagie be: gazte da Endika, ta laster men egingo dau. Anderaño, ixilkizun bat iragarri bear dautsat.
- MAR.—(Bere kitean) Ze ardura daust ni atxilo izateak? Dirudinez, eztaust okerrik egin gura.
- SUFF.—Anderaño, entzuidazu dirautsudana, arren.
- MAR.—(Bere kitean) Ba-ledike Pantzetarrak ni yareitea; eta orduan eztot orren begirape-nen bearrik.
- SUFF.—Anderaño ezti, entzun nagizu arazo baten...,
- MAR.—(Bere kitean) Ba! lenago be izan da emakumerik atxilo.
- SUFF.—Anderaño, zegaitik daragoiozu olan berbetan?
- MAR.—Erruki-eske nagotsu negarrez, ezta "guid pro quo" baño.
- SUFF.—Esaizu, bakalalaba lerdan, ez ete zeunke zori ontsutat zure atxilotzea, bakalduno izatekotan?
- MAR.—Atxilotzean bakalduno izatea zirtzilago da, otseintza zakarrean yopu izatea baño; azke izan bear leukie, ba, bakalalabak.
- SUFF.—Eta azke izan be izango zara, Inge-landa zori ontsuko bakalduna azke izatekotan.
- MAR.—Ba! ze ardura idlaust niri aren azkatasunak?
- SUFF.—Neugan artzen dot zu Endika Bakal-

dunaren bakalduno egitea; urrezko agintzama kilela zure eskuetan, eta burestun eder bat zure buruan imintea, nire zera izan ba'zadiz.

MAR.—Zure zer?

SUFF.—Nire yabe ta ugazabandera.

MAR.—Enaz ni Endika'ren emazte izateko lain.

SUFF.—Ez, anderaño lirain; neu naz zu aña-ko anderaño liraini aren emazte izateko eskatuteko lain enazana, autaketa orretan neutzako ezer ezto dala. Zer diñozu, anderaño, naikoturik eta pozik ete zagoz orretan?

MAR.—Bai nire aitari eder izatekotan, naikoturik eta pozik nengoke.

SUFF.—Orrazkero, gure gudalburu ta ikurrindunai dei egiten noa! (Aurrera datoz guda-riak). Eta, anderaño, alkarregazko auturako gazteluko arresietara dei egingo dautsagu zure aitari, beragaz itz egiteko.

Aturako deia, REIGNIER aurrera arresi-ganean.

SUFF.—Ikusi, Reignier, ikusi zure alabea atxilo!

REIG.—Noren atxilo?

SUFF.—Nire.

REIG.—Zer egingo yako, ba, Suffolk? Gudari nozu, eta eztagokit ez negar egiterik, ezta zoriaren aldakorkeriari alakatuterik.

SUFF.—Zer egingo yako? Ba-dago osapiderik, ene yaun: Etsi zadiz, eta zeure omena-arren zure ederretsia emon egizu..., nire bakaldunagaz ezkonduko da zure alabea; orretarako, au irabazirik dot, ba, nire alegin eta nekeen nekez; bakalalabaren azkatasuna irabazi dautso zure alabeari atxilotza yasanerez onek.

REIG.—Biotzez eta benetan ete diñozu orrako ori?

SUFF.—Ba-daki Margarite lirainak Suffolk'ek eztarabilela txanpalkeririk, azaluskeririk, naiz iruditurik.

REIG.—Neu noa orra bera zure bakalsemetar baiagaz, zure eskari egin-barriari nire erantzuna emoteko. (Alde REIGNIER'ek orresiganetik).

SUFF.—Emen etxongo dautso.

Tutu-otsa. REIGNIER aurrera, bean.

REIG.—Ondo etorria, Konde adoretso, gure lurrerata; eder yatsun bitartean agindu egizu Anjou'n.

SUFF.—Eskarrik asko, Reignier, olango ume

eztia, bakaldunen lagun izateko olango ume egokia dozulako zori ontsu zarean orri; zer erantzuten dautso zure eskarrak nire eskariari?

REIG.—Orren geitasun txikiari olango yaunaren emaztegei yaukal izatera itzuliazko dautsazunazkero, Endika'ren izango da nire alabea, Endika'ri eder izatekotan, eta nik bakez neure dana, Anjou'k eta Maine'k osotuten daben kondetegia iñoren azpian bagarik eta gudu bagarik gozatutekotan.

SUFF.—Ori da neskato onen yarei-ordaina..., azke izten dot; eta nire ardurapean orrako kondetegi biak zuk ondo ta bakez gozate.

REIG.—Bakaldun eskartsu aren ordeazko zarean aldetik eta aren izenean, neskato anen eskua damotsut, emondako itzaren baitzat.

SUFF.—Pantze'ko Reignier, bakaldun eskarrak damotsud'az, bakaldunaren egikizun da autata. (Bere kitean) Eta orraitioño be, arazo onetan auzi au neure izenean erabiltea guragoko neunkean. Ingelanda'ra yoango naz, ba, barri onegaz, ezkontzarako yaia gertetan. Au dala-ta, agur, Reignier: beroni dagokonez, urrezko yauregiatan seguru yagon egizu ikatzarri au.

REIG.—Emen ba'lego, Endiko Bakalduna, Kistar bakalsemea besartean estutuko neunken legetxe nire besartean estututen zaudaz.

MAR. - Agur, ene yaun: beti izango dauz Suffolk'ek Margarite'ren biotza, gorapenak, eta arrenak (Ycan doala dirautso au).

SUFF.—Agur, anderaño ezti: baña, entzun, Margarite, bakalalabearen gorantzirik ez, ala, nire bakaldunarentzako?

MAR.—Otsenari dagokozan gorantziak; otseñari, neska garbiri, ta neskameri dagokozanak emon ari.

SUFF.—Itz ondo asmauak eta lotsor esanak. Baña, anderaño, beste bein kezkatu bear zaudaz..., maitasun-agiririk ez, ala, aren nagusiagotzearentzako?

MAR.—Bai, ene yaun on..., biotz garbi aratz bat, eguño maitasunek orbandu bagakoa, bidalten dautsat bakaldunari.

SUFF.—Eta orrez ganera, au. (Mun dagio).

MAR.—Zeutzako ori: ni enaz atomauko olango maitasun-agiri utsik bakalduneri bidalten. (Alde REIGNIER eta MARGARITE'k).

SUFF.—Ui! neutzako al zintzaz!... Baña, geldi or, Suffolk; ezin sartu ta aldarrai ibili aiteke laberit orretan; Minotaur eta azpikeri itsusiak yagozak or kuika. Endika zirikatu egik orren gorapen arrigarri; buruan erabili egizak odeietaraño yagiten diran

orren onindarrak, eta trebetasuna be lotsaturik izten daben orren berezko eskarrak; sarritan barriztaue egik euren irudia itsas-

-ganean oala, Endika'ren aurrean belaunbikatu adinean, arrituaren arrituz a zurturik itxi dagikan. (Alde dagi).

IV AGEHLEKU.—YOHKEKO DUKEAREN GUDALTEGIA ANJOU'N.

YORK, WARWICK, eta beste batzuk aurrera.

YORK.—Ona aurrera ekarri sorgin a, erre iza-teko epaia emon yakona.

NESKATOA aurrera, yagonda, ta Artzai bat.

ARTZ.—Ai, Yone, bertatik erailgo dau onako onek zure aítaren biotza! Urreko ta urrineko lurraldeak nik arakaturik zure bila, orain zu idoroteko zoria izan dodanean, garaiz besterako zure eriotza gordina ikusi bear ete dot? Ai, Yone, Yone alaba ezti, zugaz il bear idot neuk be!

NESK.—Beartsu zar-zar ori! Zori txarreko zir-tzil zakar ori! Odol zindoagodun naz ni;

ARTZ.—Ut, ut! Ene yaunok, eder ba'yatsue, ezta olangorik; neuk sortu neban ori, elexbarruti osoak dakianez; bizirik da oraindik orren ama, eta ak autortu dagike au dala nire mutilzartzako lenengo igalia.

WAR.—Eskar txarreko, ukatu egingo ete dozuz zure gurasoak?

YORK.—Onako onek diragar gezto ta zakar izan dala orren bizikarea; eta onan amaituten dau bere eriotzeak.

ARTZ.—Yone, zegaitik zara orren buru-gogor? Ba-daki Yaungoikoak nire soñeko zerrenda sareala; eta zugaitik amaika negar egina nozu ni; enagizu ukatu, arren, Yone kutun.

NESK.—Alde emendik, baserritar! Beren beregi erosi dozue zuok gizon au nire yaiotza argia ilunduteko.

ARTZ.—Egia da, "zindo" bat emon neuntsan abadeari orren amaz ezkondu nintzan goxean. Belaunbikatu ta nire onspena artu egizu, ene neskato on orrek. Eztozu makurtu gura, ala? Añendua ta gaiztetsia bedi yaio zintzazan ordua! Saguak ilazoteko eden apur bat izan al litz zeure onerako zure amaren bularretik adoski zeban esnea! Naiz, nire asuriak landan yagoten zebazarean, otso gosetiren batek yan al zenduzan! Ukatu egiten dozu zure aita, baltzeran gaiztetsi orrek? Ui! erre egizue, erre egizue! Bigunegi litxakio eskegitea. {Alde dagi}.

YORK.—Eroan egizue ori emendik; luzaroeni bizi izan da, ba, ludia ekandu txarrez betetako.

NESK.—Emendik atera baño len nor epaitu

dozuen esaten itxi egistazue; ez artzai zakarrek sorturik, Y^o orriz bakaldunakandik datorrena baño; onindartsu ta guren; goitik autua, Yaungoikoaren eskarraren eraginez, lurrean arrigarrikerik arrigarrienak egiteko. Eguño eztoz izan ezetariko artu-emonik gogo gezto edo txerrenakaz; zuok, ostera, (Ifcunkeriz loi-tuok, errugeen odol aratzez orbanduok, milla txarrindarrez zikinduok) besteak daben goi-eskarraren eza dozuelako, zer ezintzat idozue txerrenen laguntza bagarik olango zer arrigarriak egitea. Ez, okerreko ustedunok! Neska garbi izan da Ark' eko Yone bere seintzaro samurretik ara, garbi ta aratz bere gogaletan be; eta bere ne^eska garbi-odol, zuok orren gordin ixuriak, azaskatze-eske gedar egingo dau zoriontegi-ko atetan.

YORK.—Bai, bai; eroan eta bertatik erre ori!

WAR.—Eta entzun, yaunak; neska garbi dala-ko, ez aurreratu abarrik, abarrik asko ezarri; upelbete ui imini eriotza-taketaren oñetan, orren elorriok laburtuteko.

NESK.—Ezek be ez ete dauz beratuko zuon biotz gogorrak? Olan ba'da, Yone, agertu egizu zure makalkeria, zure utsa, orrek legez berarizko legea baitzat demotsuna. Seindun nago, gizerailu gordin odoltoiok; ez egizue erail, ba, nire sabelean sortua, ni neutzako erruki bagako eriotzearen eske oioka zuok erago-arren.

YORK.—Ez al don baist, Yaungoikoa-arren! Seindun neskato gurena!

WAR.—Ori da zure zer arrigarrietatik arrigarriena: orretara eldu da zure zeaztasun estu gutzia, ala?

YORK.—Alkarregaz olgetan ibili dira ori ta Delbina: lendik otu yat orrek orretara yoko eukeala berorren gordelekutat.

WAR.—Tira, ekin; eztozu gura sasikumerik bizi dadin; alan be, Delbina ba'da orren aíta.

NESK.—Ziri ederra sartu dautsuet: ezta arenik nire seña. Alençon izan da nire maitasuna gozau dauena.

YORK.—Alençon! Makiabel ezagun a! Ilgo da, milla bizi ba'leuz be.

NESK.—Ui! azketsi, parkatu nagizue, ziria sartu dautsuet; ezta izan Karla, ezta aita-

tu dautsuedan dukea fce, Napoli'ko Reig-
nier baño ni benderatu nauena.

WAR.—Gizon ezkondua! txarra eta yasa-
nezinena da ori.

YORK.—Ba! neska ona dogu emen!... nire us-
tez berorrek be eztaki norena dan bere se-
ña; ainbestegaz ibili idanazkero, eztaki nor
salatu.

WAR.—Or da ezagun eskuzabal eta nasai
izan dala.

YORK.—Eta orraitño be, bai da, neska gar-
bi da. Emagaldu, zu zeu ta zure umekon-
do, biok gaiztesten zaeuz zure itzak; ez
egizu egin eskaririk, alperrik izango da-ta.

NESK.—Olan izatekotan, atera nagizue emen-
dik; eta nire añena izten dot zuokaz: ez
al dau eguzkiak iñoz be bere izpirik bida-
liko zuok biziko zarien errira; bestera, ilun-
beak eta eriotza-itzal ilunak inguratuko al
zaeuz, gaiztakeriak eta etsiaren etsiak zuon
idun-azurrak ausiazo ta zuon zeuon buruak
eskegiazo arte! (Alde dagi, yagolakaz).

YORK.—Zeu zeatu ta austuko al zara, sule-
zearen ordeko zakar askarri ori!

BEAUFORT KARDINALA aurrera, lagundurik.

KARD.—Bakalordeko lord, bakaldunagandiko
egikizunerako idazkiagaz agur egiten dau-
tsat zure gallentasunari. Yakizue, ba, ene
lordok, Kistartzako legerriak, eztabaida ira-
intzaleoz aspertu ta iguindurik, biziro eska-
tu dabela bake osoa egin idaitela gure abe-
rriaren ete bake-eske dagon Pantze'ren ar-
tean; eta emen ur dira Delbina ta bere ya-
rraigoa, zerbaitez zuokaz itz egiteko,

YORK.—Onetarako izan dira gure neke guz-
tiak, ala? Ainbeste andiki, ainbeste gudal-
buru, aitonseme ta gudariren erailte-ostean,
eztabaida onetan orreik yausi ta euren so-
ñak euren aberriaren alde saldu-ostean, ba-
ke endekatu merro au egin bear ete dogu?
Salkeriz, guzurrez, eta azpikeriz eztoguz gal-
du gure asaba andiak benderaturiko uri-
rik geienak, ala? Ui, Warwick, Warwick!
naibagaz beterik dakust Pantze'ko bakalde-
rri osoa galtzea.

WAR.—Epe artu egik, York; bakerik egiteko-
tan, guk ezarriko doguzan baldintzak ain
estu ta gogorrek izango dira-ta, Pantzeta-
rrak gitxi irabaziko idiabe orretan.

KARLA aurrera, lagundurik; ALENÇON, SA-
SIKUMEA, REIGNIER, eta beste batzuk.

KAR.—Ingelandako lordok, ebatzirik dagonaz-
kero gudu-bitarteko bakea aldarrikatuko

dala Pantze'n, zuokandik yakiten gatoz ze-
tariko baldintzatan egingo dan bake ori.

YORK.—Zuk itz egizu, Winchester; barruan
dirakian asarreak itxi ta ito egiten dau, ba,
nire abots atxilotuaren ataka estua, are-
rio gorrotagarriok emen aurrean ikusirik.

WIN.—Karla, ta enpaduok, onan egin da itun-
bena: Endika Bakaldunak, erruki ta biozpe-
ratasun utsez, bere ederretsia emoten daue-
lako zuon aberria nasaitu ta guduaren es-
tutasunetik yareiteko, ta zuoi arnasea ba-
kean artzen izteko, aren burestunaren ben-
deko izango zarie: eta, Karla, zuk zin egi-
tekotan zergak ordainduko dautsazuzala ta
zure burua aren benderatuko dozula, aren
bendean aren bakalordeko izango zara
emen; eia aurrerantzean be zure izango do-
zu bakalduntzeari dagokion aintzakotasuna.

A.LEN.—Ori dala-ta, berorren itzal baño ez
ete dau izan bear orrek? Burestuntxoz
apaindu bere lokiak eta, orraitño, izatez
eta aginpidez agintzarik bagako izan argi
ta garbi? Barregarri ta adimenaz bestera-
ko da eskeintza au.

KAR.—Yakina da dagoneko nazala Pantze'ko
lurretatik erdia baño geiagoren yabe, eta
berton legezko bakalduntzat lotsa daustela:
benderatu bagako enpadutiko irabaziagai-
tik agur egingo ete dautsat bakalduntze-
ari, Pantze osoko bakal-ordeko deitu na-
gien? Ez, bakal-ordeko lord!; gurago dot do-
dana euki, geiagoren leieagaitik, guztiaren
yabe egitetik nire burua baztarturik ikusi
baño.

YORK.—Karla iraintzalla! ixilbidez itunben-
billa ibilirik, orain itunbena egiteko danean,
itunbena ederresteko danean, aiko-maikoo-
kaz atzera egiten dozu? Edo zuk irabazitzat
bagarik gure bakaldunagandiko emoitza
ederresten dozu ostutzat darabiltzun ba-
kaldun izengoitzi ori, edo, ostantxean, eten-
bako guduzko izurria ezarriko dautsugu.

REIG.—Ene lord, zure burugogorkez zure bu-
rua eztabiltzu ondo itunben onetan; aba-
gune oni yaramon ezpa'dagioz, baten al-
derako amar yokatuko neunkizuz, ezetz aur-
kitu guk onango beste abagunerik.

ALEN.—(Bokarreain KARLA'ri) Egia esateko,
zure erriketeari ta zurtasunari dagokiona
ida guk burrukan yarraitzekotan, egun oro
dakusgunez, zure bendekoen ganera letor-
kezan triskantza ta erailteak aurreratutea;
eta au dala-ta, ontzat artu egizu bake-itun-
ben au, zeuk noz-gura ausi ba' dagizu be.

WAR.—Zer diñozu, Karla? Ontzat artuko ere
dozu gure baldintzea?

KAR.—Bai, artuko dot; indarragaz dagozan gure urien yabe zuok ez egitekotan.
 YORK.—Olan dala, zin egizu bere nagusia-gotzearen bendeko izango zareala, zaldun zarean bestean seguru, beti izango zareala bere esaneko, eta etzareala yagiko Inge-landa'ko burestunaren aurka. (KARLA'k eta

enpadiak zin dagie zintzo i'zango dirala). Olan dala, zuoi eder yatsuenean sakabana-tu egizue zuon gudarostea; eskegi zuon ikurrinak, eta ixildu zuon danborrak, emen bake lango bakea izenbetuten dogu-ta (Alde dagie).

V AGERLEKU.—LONDON. Bakaldegiko leku.

ENDIKA BAKALDUNA aurrera. SUFFOLK'egaz autuan; GLOSTER eta EXETER geroago dartzalarik.

END. B.—Konde zindo, zurturik itxi nau Margarite eiderraz egin dozun azalpen arrigarriak: maitasun-biotzaldi sakona sortuten dabe nire biotzean aren onindarrak, azaleko beste eskarrakaz batera; eta ekatxaldietan axe-boladen indarrak itsasontzirik andienari be uginen aurka bultz eragiten dautsoenez, olantxe bultz eragiten daust niri be aren entzutearen putzak, edo urperatuteko, edo a gozatuteko kaira elduteko.

SUFF.—Ixilik, ene yaun on,,, aren aintzaren goraketearen asiera-aurreko baño etxatsu ipuin azal au: lerro eragikordun idazti biribil osoa egingo leukie neskato maitagarri aren osotasunik andienak (eurak azaldu-teko lain ba'niotz), biotzik motelenari be indartsu eragingo leuskiona: eta, areago dana, a ezta orren yainkozko, zer atseingarrienik atseingarrienak dauzalako, biotzik apalenez zure esanera egonaz naikotuten dalako baño; zure esanera, zure agindura, esan gura dot, asmorik garbien eta onindartsuenagaz, bere yauntzat Endika maite izan eta omen egiteko.

END. B.—rta olan ez izatekotan, Endika elitzake yarriko orretara, Au dala-ta, ene lord yagola, zure ederretria emon egidazu, Margarite Ingelanda'ko bakalduno izan daiten.

GLOS.—Olangorik nik egitekotan, zurikeria egingo neuskio obenari. Ba-dakizu, ene lord, beste emakume aintzakori berbea emonda dagola zure goikotasuna, eta zelan irusteko ari emondako berbea, zure omenari orbanik ezarteka?

SUFF.—Agintariak legez besterako zinakaz egin daroena eginda; naiz, garaiteren baten, bere indarrak zelangoz diran ikusteko, zin egin, eta orraitio be bere arerioa bere mallakorik eztalako zaldunketategia itxi daroanez: ezbardintasan andia da konde ezeukiren alabea ta, olan dala, irainik bagarik ausi dateke zina.

GLOS.—Ba! arren. ori baño geiago da Margarite, ala? Konde baño besterik ezta aren aita, izengoiti argiagorik eta gallenagorik erabili-arren.

SUFF.—Bai, ene lord, bakaldun da neskatoaren aita, Napoli ta Yerusalem'go bakaldun; eta Pantze'n ain lotsa andia dautsoe-ta, ezkontza-bidez guri loturik a geldituteak sendotu egingo dau gure bakea.

GLOS.—Olangorik egin legike Armagnac'eko Kondeak be, Karla'ren urreko senide da-ta.

EXE.—Orrez ganera, bere aberastasuna dago baitzat, ezkontsaria be eskuabalaren dago dala; Reignier'ek, ostera, emoten dauen baño geiago artu egingo dau.

SUFF.—Ezkontsaria, ene lordok! Olango irainik ez egiozue egin bakaldunari, maitasun osoz bagarik, bere autaketea aberastasunaren eginaz ain zirtzil, zakar eta lander agertuko dala irudituteagaz. Endika bera da asko bere bakaldunoa aberastuteko, eta ez bera aberastuko dauen bakaldunorik bilatuteko: baserriar aintzako-ezak egiten dabez olan ezkontzak, olan erosten dabez euren emazteak, salerosleak idi, ardi, naiz zaldia erosi daroenez. Baña bitartakoz egiteko baño zer andiagorik da ezkontzea; bakaldunaren lagunak eztau izan bear guk gura d'ogunek, berak maite dauenak baño, ak izan bear dau baka'dunaren oekide; eta, orrazkero, lordok, bakaldunak maiteen neskato ori dauenzkero, guri eragin bear daukun zegaitirik andiena bakaldunak maiteen neskato ori izatea da. Izan be, zer da indarrez egindako ezkontzea sulezea bera baño besterik, alkarren arteko gizaldi bateko asarre ta burruka baño? Beste-rako ezkontzeak, ostera, zori ona dakar, eta zoriontegiko bakearen eredu da. Bakaldun danazkero Endika, nor ezkondu bear dogu beragaz bakaldunen alaba dan Margarite baño? Bardinik bagako bere irudi-yaseak, eta bere yaiotzeak ontzat emoten dabe bakaldunen bategaz ezkondu-teko bakarrik dala egoki a neskatoa: no aren adore ikaraz-ekinak eta biotz tinko bildurtu-ekinak

(emerkume arrottetctn ikusten diran baño zer andiagcak) eranizungo duuise bukuldunaren ondorengoakazko guk doguzan itxarroai; Endika, ba, garailaren seme danazkerro, egi-antzeko ida garaila geiago sortuko dauzala, berari maitasunez Margarite lango erabagi andiko emaztea lotu ta batu ba' dakio. Olan dala, ba, men egizue, etsi zadize, ene lordok; eta emen nigaz batera erabagi egizue Margarite, ta Margarite bakarrak, izango dala bakalduno.

END. B.—Nik ezin esan daiket, Suffolk'eko ene Lord zindo, ala zure iragarpnaren indarrez, ala nire gaztearo samurrak maitasun beroaren kutsurik eguño izan eztauelako izan dan; baña, au da nik seguru dakidana, ainbesteko burruka somatuten dot nire biotzean, ainbesteko otsak, bai itxaroarenak, bai bildurrarenak-eta, gexorik naukie nire gogaiaik. Ontziratu zadiz, ba; zoaz Pantze'ra, ene lord; edozein baldintza ederretsi egizu itunbenerako; eta aleginak egizuz Margarite Anderañoa Ingelanda'ra etortera egin dadin, itsasoak zearkaturik, Endika Bakal-

dunaren bakalduno zintzo ta gantzutua izan daifsn; arnarrenak ezarri egiozuz erriari-zure zeure ta zure ordeazkotzako dim-eralteetarako. Zoaz, neuk dirautsut; zu etorri-arte, ba, milla kezkek artega naukie. Eta zuk, osaba on, irain-usterik ez egizu izan; zu izan zareanagaitik gaitzetsi ba'nagizu, ez zu zareanagaitik, ba-dakit orrako orrek zurituko dauela bertatiko nire guraria egite au. Eta, au dala-ta, bakarrean nire nabageari eragin eta ausmer egiteko lekura eroan nagizu. (Alde dagi).

GLOS.—Bai, bildur naz orain asiko dala ire naibagea. (Akfe GLOSTER eta EXETER'ek). SUFF.—Onan, ba, irabazi dau Suffolk'ek; eta onan doa, bein Paris gaztea Elade'ra yoan zanez. Maitasun-arloan aren entzeko izateko itxaroz, baña Toroitak ak baño onura geiago aterateko. Bakalduno izango da orain Margarite, eta aren eskuko izango da bakalduna; baña nik bakaldunoa, bakalduna ta bakalderria, irurak eukiko dodaz nire bendea. (Alde dagi).

AMAIA

Salta'n 1966-IV-12'gnea.

**SEIGARREN ENDIKA
BAKALDUNAREN
BIGARREN ZATIA**

[SECOND PART OF KING HENRY VI]

SEIGARREN ENDIKA BAKALDUNAREN

BIGARREN ZATLA

(SECOND PART OF KING HENRY V)

ANTZERKI ONETAN ANTZEZTURIKO NOTINAK

SEIGARREN ENDIKA BAKALDUNA.
HUMPHREY, Gloster'ko Dukea. aren osaba.
BEAUFORT KARDINALA, Winchester'ko Gotzai, Bakaldunaren birrosaba.
ERRIKARTA PLANTAGSNET. York'eko Duke.
EDORTA ta EBRIKARTA, aurrekoaren semeak.
SOMERSET'EKO DUKEA. 1
SUFFOLK'EKO DUKEA. ()
BUCKINGHAM'EKO DUKEA. > Bakaldunaren alderdikoak.
LORD CLIFFORD.
CLIFFORD GAZTEA, aurrekoaren seme.
SALISBURY'KO KONDEA.
WARWICK'EKO KONDEA. ' Ko.C York'en alderdikoak
LORD SCALES, Torreko Nagusi.
LORD SAY.
SIR HUMPHREY STAFFORD. /
GILLELMA STAFFORD. (" Blok anai")
SIR YON STANLEY.
ITSAS-GUDALBURU bat, Ontziburu, ta Ontziburuaren itsas-mutila, eta Walter WHITMORE.
Aitonseme bi, SUFFOLK'en baitegikideak.
VAUX.
Aldarrikari bat.
HUME ta SOUTHWELL, biak abade.
BOLINGBROKE, Araotzalla edo Zinkidetzalla.
Mamu bat, aurrekoak eragia.
TOMA HORNER, Gudakoskolgin.
KEPA (Peter), Aurrekoaren Otsein.
Chatham'go Uri-idazlaria.
Saint Albans'eko Endorea.
SIMPCOX, Eztanarena dagiana.
ERAILA BI.
IACK CADE, Asaldari.
GORKA, YON, DICK, SMITH eulea, MIKEL, eta abar, aurrekoaren yarraileak.
ALESANDER IDEN, Kent'eko Aitonseme.
MARGARITE, ENDIKA BAKALDUNA'ren Bakaldunoa.
ELINORE, Gloster'ko Dukenoa.
MARGARITE JOURDAIN, Sorgina.
SIMPCOX'en Emaztea.

Lordak, Anderak, eta Laguntzakoak; Eskakizundunak, Zinegotziak, Epaitegi-otsein bat, Xeripa (Sheriff), eta Agintza-gudariak: Uritarrak, Ikastunak, Aztoredunak, Yagolak, Gudariak, Geznariak, eta abar.

AGERLEKU.—Ingelanda'ko ainbat lekutan.

nen egin egikizunak bakaldunoaren bureskuniuruku. (Aldu CAICAL, I3AKALDUNO, ta SUFF'ek).

GLOS.—Ingelanda'ko andiki adoretsuok, legerriaren zutikook, bere naibagea zuoi. iragarrri ta zuon ganera ustu bear Ucu Humphrey Dukeak..., zuon naibagea, lur onetako guztien naibagea. Oncngorik! Ez ebczan eralgi nire anai Endikak'k bere gaztearoa, bere adorea, oirua ta erria cjduetan, ala? Ez ebo:n cin sarriian crLo xspaipean lo egin, negu otz eia udakc bero kis kalkorretan, Pantze bere ondoren yaforra benderatuteko, aia? Eta ez ebazan nire o.nai Bedford'ek bere buruko argiak ustu ta agclru, Endika'k iritxia erriketaz eta zurtasunez eukiteko, ala? fiziozez zeucV, Somerset, Buckingham, Ycrk adontsu, Salisbury, ta Warwick garaí'Ci, eztosez: zcnvi sakonak cirtu Pantee'n eta N'-r.^andi't/, n.:a? Naiz, nire csaba *Beonú.yi'ek* et.i neuk, bakalderriko heste oiulan. yakinifu^k'jz batera, on-ulcriensan yaxr- Ua, 3'tcxaz rtek' tu gure buruak ain Inzaro ikasien, cddeko ta aurkako orraztu tc erafc Lik, GO'?. gcxetik gau berandubar'e, zclcir. fas.t'ip io: P-nv í'etavrek gu.grn.7ko k-iyapean eukik^, alcr? Eta aren *qol\ov'Z'iva*, tere urco.ror-n, eztn buvestun^au Pans'en berfa;j, "ere creái: en gogcax bestercx, ala? *Ei-y v*, aipevñk gjti.fu bear ete dabe nekeok eia crne-ok? .Q egin bear efa dabe Endikr.^a gr•'r; -ak, B06ford'en at^arrik egoíeci'k, *guc-oko 7<r-n* egite andiak, eta gure cnv.oli? *rvo' T-.'o:ko* andikiok, lolyu^vii *C.u Li''^d''* ~i au. Erailkor da ezkni:'''.' aui Zuon o-'' .u*^a utsean izten dauena, ccrju.feo'ren ifa'ímUt' zuon izenak azkatu.fen dauzana, zuon ospecn-en irarria Iakarlut.cn dcue^rr, -c' ^zc bendevatu.ren agergarriak iurr^r-úu'fen dauzana, oro mariatu.fen dcusr.a, oro eguén isan eza p'itiz legeíxe'

fí ARD. -• Loba, zer osan qura dau biotzaldí beroko itzaldi onek, eta txarrago áan itsaldi-czken orrak? Pantze'gazko, gure ca a; eta oraindik euki egingo cogu.

GL.OS.—Bai, osaba, al ba'dagigu, eukike dogu; baña orain ezina yaku a eukítea: Súfolk'ek, dukeiu-barri lapikokoa bere gogara egosten daragoion ak, Reignier bakaldunari emon dautsa Anjou ta Maine'ko duketza, eta onako au gizenago da Izengoitiz, ziskuz baño.

SAL.—Ara, gu guztiokaiñk il zana-arren, kon-detegiok izan dira Normandi'rako ate ta glitzak: baña zegaitik dago negarrez Warwick, nire seme adoretsua?

WAR.—Naibagearen naibagaz, eskuratu-ezlnak diralacc: iixaroril: ba'legc, ba, eurak barriro benderatuteko, odol beroa ixuriko leuke nire ezpateak, ez nire begiak negarrik. Anjou ta Maine! Neuk irabazi nebazan biak; besook benderatuak idira erki orreik: eta iz baketsuz atzera emonak dira zauriz nik lorturiko uriak? Ene Yaungoikoa!

YORK.—Suffolk dukeagazko, egingo al dau isaro gudabera onen omena lausotuten aauen arenakí Lenago urratu ta aterako leuskidan Pantze'k nire biotza bera, itunben onetara ni etsi baño. Beti entzun eta irakurri *izrn* doí Ingelanda'ko bakaldunak urretza ta ezkontsari andiak izan dabezala euren emazteakaz bcstera; Endika gure bakaldunak, csiera, emon egiten dau bere tik, ezer eztkarrenagaz bere burua bardin-cituko.

GJ OS.—Iri argi ta garbia, ta eguño iñoz entzun eztana, no a ekarteko diru-eralteetarako Suffolk'ek amabosten bat osorik eskatutea! Pantze'n egon bear eukean no ak, eta Paníze'n çsez il, zera bano len...

KA RD.— GicsLer'ko ene lard, beroegi egiten zara! Nire yaun bakaldunaren gogoko Izan da orrako ori.

GL' 'S.—Winchester'ko ene Lord, ba-dazagut zure gogoa; nire itzaldia ezta zuri gogoko etxatsuna, ni emen egoteak kezkatuten zauz zu. Gorrotoak urten gura dau azalera: elexgizon arro, zure mosuan dakust zure sumina; luzaroago egon ba'nadi emen, barriro asiko gara beñolako gure tiki-miki ía eztabaidetan. Agur, yaunc: eta ni yoan nadi-nean esan, aurreztik iragarri dodala luzaro bagarik galduko dogula Pantze. (Alde da qí.

KARD.—Aor, or doa sumindurik gure yagolea. Ba-dakizue nire arerio dala; areago, zuon çuzíon arerio ta, bildur naz, ez bakaldunaren adiskideegirik. Gogoratu, yaurak, bakaldunaren urrena dala edolez, eta Ingelanda'ko burestunaren ondorengo agiria: Endika'k ezkontza inberien bat lortu Izan ba'leu, eta sarkaldecko bakalderrí *áberats* guztiak, ba-legoke zegaitiril ori gogoaz bestera agertuteko orrako orregaz. Begiratu ori, ene lordok; aren itz sorginkeritsuak ez al dabez liluratuko zuon biotzak; zur eta zai egon. Alde batetik, erri zea bere alde dagolako, "Humphrey, Gloster'ko Duke on" deituaz; txalok yo ta zarataka gedar eginaz, "Yosu'k yagongo al dau zure gallentasun bakaldarra!" ta bestetik, "Yaungoikoak yagongo al dau Humphrey Duke onal", bildur naz, yaunak, zurikeri,

ka bere emazte barri ta karu eroseriko Inqelanda'ko bakaldunoagazko maitasunez ok eginik dagona ta Humphrey anákiekaz asarratu arte; orduan eragiko dot gora nik nire larrosa zuria, bere usain gozoz eguratsa lurrunduko dauena; eta York'eko iski-

lloak eroango dodaz nire ikurrinean, Lancaster'ko etxeagaz burruka egiteko; eta, gura naiz gura ez, emonazo eginyo uuuisat burestuna, bere burubako yaurtzeagaz Inqelanda ederra ondoraño itzuli ta egotzi dauenarena. (Alde dagi).

II AGEBLEKU.—LONDON. GLOSTER'KO DUXEA'reneko leku.

GLOSTER eta DUKENOA aurrera.

DUKENOA.—Zegaitik dago nire yauna burumakur, galburu elduegiak lez, buru-yausi, Kerets'en zama ugariagaz lez? Zegaitik okertuten dau Humphrey Duke andiak bere betozkoa, munduaren esku-erakutsiai iguin ba'leutse lez? Zegaitik dagoz zure begiak lur motelari yosita, zure ikusmena lausotuten dauela dirudina begira? Zer cokusazu or? Munduko omen guztien kutxan dagon Endika'ren burestuna, ala? Olan bada, ekiozu begira. eta eratsita euki begiak zure mosuan, burestun orrek zure burua inguratu arte. Luzatu egizu eskua, eta goatu egizu urre argi ori: -ostera! laburregi da zure eskua, ala? Neureagaz luzatuko dot; eta bion artean eragita, bion artean gure buruak ortzeraño eragiko doguz; eta inoz bein be geiagotan eztogu begiratuko orren beera, lurrari begirada bat egiteko be.

GLOS.—Nell ori, Nell kutun ori. zure yauna maite ba'dozu, ortik zear bidali egizu zure geiagokeriazko gogaion biziena! eta nire bakaldun eta loba Endika onindartsuaren aurka zerbait niri burutandu dakidanean, gogai a izango al da azkenengo nire arnasea mundu ilkor onetan! Arratseon izan dodan ames kezakorrak nau goibel, gotilun.

DUKEN.—Ze ames egin dau nire jaunak? Esaidazu, ta nik, nire aldetik, gaur goxean izan dodara esango dautsut, barriztauz.

GLOS.—Makila au, bakaldegiko nire egikizunaren ezaugarri dan makila au, zati bi egin dala; eztakit, aztu egin yat nok ausi daustan, baña, uste dodanez, Kardinala izan da; eta Somerset'eko Duke Edemunda, ta Gillelma De-la-Poole, Suffolk'eko lenengo Dukearren buruak agiri izan dira makila ausiaren zati bietatik banaren ganean iminita, Au izan da nire amesa: Yaungoikoak bakarrik daki zer diragarren orrako orrek.

DUKEN.—Ba! zera da orrek esan gura dauena. Gloster'en basoko adakirik ausi iagianak bere burua galduko dauela bere azarkeriagaitik. Baña entzun nagizu, ene Hum-

phrey, ene duke ezti: W?siminster'ko goztai-elexan nagusiagctza-yarlekuan nengoala uste neban nik, eta bakaldunak eta bakaldunoak kurestundauten o'iran yariakuan egon be; nire aurrean belaunbikatu egiten yatazala Endika ta Margarite Anderea, ta buruan burestuna ezartan eusteJa.

GLOS.—Ez, Elinore, eta orregaitik bertatik egin bear dautsut csarre: andera azarti, izakera txarreko Elinore! Etzara zu bekalderriko bigarren andera, ta yagolearen errazte, yagoleak maite zauzana, ala? Eztozuz zure eskuan mun^uko naiarak, otu be egin leitekezuzanak baño andiangoak, ala? Eta ori ta guzti be, azpikeriari ekin eta ekin ibili bear ete dozu, zure senarra ta zeure burua omenaren tontor eta gallurretik bera bilinbolaka zori txarraren onetaratuteko? Ken zakidaz, alde egizu nigandik, eta ez al áot bein geiagotan olangorik entzun be egingo!

DUKEN.—Ostera, ostera! ene jaun! Oi-ren^esteraño asarratu bear ete zatzakoz Elinore'ri bere amesa eralteagaitik bakarrik? Aurreantzean neutzako gordeko dodaz nire amesak, bitartean inñor sartu eztakidan.

GLOS.—Ez, etzadziz asarratu, barriro be nasai nago.

Geznari bat aurrera.

GEZ.—Ene lord yagola, Saint Al>ans'era zaldiz yoateko gertau zadizala eder yako aren nagusientasunari, bakaldunak eta bakaldunoak an aztore-eizean eragoteko asmoa dabe-ta.

GLOS.—Ba-noa. Erdu, Nell, nigaz yoan gura ete dozu zaldiz?

DUKEN.—Bai, ene lord on, bertatik nozu zure yarra. (Alde GJ.CSTER eta Geynaricrk). Yarra egin bear dautzat; aurretik ezin yoan naiteke, GJoster'ek gogo yausi apal ori daroan artean. Gizonik, dukerik, eta odolez urrenik ba'nintz, bastartuko neunkez nik os-topo eragiten daben arri gogaikarriok bide-tik, eta bidea bigun eta leun-leun egingo

zala esan eban nire ugazabak, eta lapur zala bakalduna.

SUFF.—Nor da or? (Otsenak barrura) Artu urli au, eta yarraila bategaz bertatik bidali egizue bere ugazabaren billa: bakaldunaren aurrean entzungo dautsugue geiagorik zuan arazoaz. (Alde Otsenak KEPA'gaz).

MARG. B.—Eta zuokazko, yagolearen ega-pean yagonak izatea gura 'dozuenokazko, barrero asi zuan eskakizunak, eta ari eskatu (Urratu egiten dauz euren eskakizunak). Alde emendik, matxango zantarrok! Itxi egiezu yosten, Suifolk.

GUZTIAK.—Tira. goazen. (Alde Eskakizundunak).

MARG. B.—Suffolk'eko ene Lord, esaizu. Ingelanda'ko bakaldegiko ekandu da au, ala? Au da Ingelanda izaro onetako yaurtzea, eta au da Albion'go bakaldunaren bakalduntzea, ala? Orraindik be Endika Bakalduna Glostergogaldi txarrekoaren agintzapean ikasla izateko da, ala? Izengoitiz eta itzez bakalduno izan, eta dukeren baten bendeko izan bear idot, ala? Zera da nik dirautsudana, Poole, Tours urian, ango zaldunketategian, zuk ekitaldi bat egin eta Pantze'ko anderen biotzak zure atzean eroan zebazanean, Endika Bakalduna zure antzeko zala uste neban nik, adorez, erameraz, eta yasaz; baña aren gogo guztia gurentasunera itzulia da, bere agurtzean "Agur, Miren'ak" esatera; igarleak eta belduak dira arentzako txapeldun; Idazteuneko esakuneak, aren iskillak; zaldunketategia, aren ikaskizun, eta guren iragarrien borontzeko irudiak, aren maiteak. Elxpurutzat autoko al leu Kardinalen Batzarrak, eta Erroma're eroan, eta burestun irukotxa ezarri aren buruan: egokera ori legokio aren gurentasunari.

SUFF.—Epe artu egizu, andera: zu Ingelanda etorteko bidea neu izan nintzanazkero, Ingelanda'n be aleginak egingo dodaz osoan zeure gogara egon zadizan.

MARG. B.—Yagola arroaz ganera, or doguz Beaufort elxgizon aginperaa, Somerset, Buckingham, eta York muker marmalaria; eta orreititik txikienak be bakaldunak baña alik geiago dau Ingelanda'n.

SUFF.—Eta orreititik geien al dauenak be ezin dau egin Ingelanda'n Nevil'tarrak baña geiagorik; "peer" uts dira Salisbury ta Warwick.

MARG. B.—Lord guztiotatik batek be enau kezkatuten Lord yagolearen emazte, andera arro ak bestean. Or dabil a bakaldegian andera-taldeakaz, Humphrey'ren emazte lan-

go baño, ii.beradorengo langoago; bakaldunotzat esien dube bakaldegia eziirariak; bizkarrean daroaz dukearen etorriak, eta bere biotzean irri egiten idautso gure bearrari: ez ete naz biziko beragaz azaskatuteko bestean luzaro? Yatorri zakarreko emagaldu zapuzkor izan bera-ta, lengo egunean or ebilen bere kutunen aurrean esaka bere gonarik zakarrenaren buztana be nire aitaren lur guztiak baño geiago zala, Suffolk'ek nire aitari bere alabeagaitik dukerri bi emon arte.

SUFF.—Andera, neuk bete dot eraskinez txaraka bat beretzako, eta txori abeslari-talde lilurakorra imini dot bertan, eta a ara yatsiko da arein txiru-liru lilurakorrak entzuteko-ta, atzera ezin gora egaz egin al izango dau zu bein geiagotan artegatuteko. Olan ba, geldi itxi egizu a, ez egiozu yaramonik egin: eta, andera, neu entzun nagizu; onetan zuri nire onua emoteraño atometan naz, ba. Kardir.ala gogoko izan ez-arren guri, beragaz eta andikiakaz bat egin bear dogu, Humphrey lurreraturik ikusi arte. York'eko Dukeagazko, oraintsuengo alaka onek on andirik eztautso ekarriko ari. Olan ba, banan banan, atzanean guztiak aterata erauziko doguz, bedar txarrak legetze, eta zuk zeuk erabiliko dozu endaitz edo lema zori ontsua.

ENDIKA BAKALDUNA, YORK, eta SOMERSET; GLOSTER'KO DUKE ta DUKENOA, BEAUFORT ARDINALA, BUCKINGHAM, SALISBURY, ta WARWICK aurrera.

END. B.—Nigazko, lord zindook, niri eztaust ardura zein izan; Somerset, naiz York izan, ainbaten yat niri.

YORK.—Txarto eragon ba'dau York'ek Pantze'n, ukatu dakiola bakalordekotea,

SOM.—Aintzako epa'da Somerset leku orretarako, York izan daitela bakalordeko; men egingo dautsat ari.

WAR.—Zure eskarra aintzako danentz, bai, ala ez, ez ibili estabaidaka orretzaz: aintzakoago da York.

KARD.—Warwick geiagokeritsu, i baño obeak itz egin dagiela.

WAR.—Kardinala ezta ni baño oba guda-tegian.

BUCK.—Batzar onetan guztiak dozak i baño oba, Warwick.

WAR.—Guztietatik onen izaterarte biziko al da Warwick.

SAL.—Ixilik, seme! eta ik, Buckingham, zegaitiren bat ekarri egiskuk, onako onetan So-

HORN.—Eder ba'yako zure nagusiagotzeari, eguño ezot nik esun, esui buruian crabili be olangorik: Yaungoikoa yat lekuko, gu-zurrez salatu nauela zital orrek.

KEPA.—(Esku biak gora eragita) Amar azurrok-arren, ene lordok, etxeko goitegian esan eustazan itzok, York'eko ene lordaren guda-koskola garbituten geragoiola.

YORK.—Sastegi zakar zital eta lankiarr ori, burua moztuko dauskat azpiyaleren ire itzokaitik.—Nagusiagotza bakaldar ori, emoidazu, arren, orretarako zure ederretsia, legearen gogortasun osoa ezarri dakiola.

HORN.—Ai ene, ene iord, eskegi nagizu nik inoñ esan ba'dodaz itzok. Nire ikasla da nire salatzallea; eta lengo egunean bere utsagaitik asarre egin neuntsanean, belaubiko zin egin eban, nireak eta erdi artuko neunkezala; ba-dot onako onen autorla onik; au dala-ta, arren, zure nagusiagotzeak ezpegi bidali ortik zear gizon zindorik zital baten salakuntzeagaitik.

END. B.—Osaba, zelan ezarteko legea onako oni?

GLOS.—Epai au, ene yaun, ni ebazla izatekotas; Somerset izan dadila Pantze'n bakalordeko, York'egan susmo au dogu-ta; eta

izentau oneintzako eguna, leku egokian biak eurak eurretze burruka egin dagien, batak bere otseñaren gaiztakeritiko autortzea dau-ta; au da legea, ta Humphrey Dukearen epaia.

END. B.—Olan izan dadila, ba. Somerset'eko ene Lord, pantze'n bakalordeko egiten dogu zure eskarra.

SOM.—Apalik, eskarrik asko zure nagusiagotza bakaldarrari.

IIORN.—Eta gogoz ontzat artzen dot nik burruka.

KEPA.—Ai ene, ene lord, eztakit nik burrukarik egiten; Yaungoikoa-arren, erruki zakioz yazoten yatanari! Nirearena egín dau gizon orren gogo txarrak. Yaungoikoa, erruki zakiaáz! zartadarik bat be ezin emon izango dot nik: ene Yaungoikoa, ene biotza!

GLOS.—I, txotxo, burruka egin bear dok ostantzean eskegi egingo augu.

END. B.—Baitegira eroan egizuez, eta urrengo ilen atzenengo eguna izango da burruka-eguna. Erdi, Somerset, alde egikeran agur egin bear dauskagu. (Eresi argi. Alde dagie).

IV AGERLEKU.—Lengoxea. GLOSTER'KO DUKEA ren Baratza.

MARGARITE JOURDAIN, HUME, SOUTHWELL eta BOLINGBROKE aurrera.

HUME.—Erdi, ene yaunok; zuon aginduak zuok noz beteko begira dago dukenoa.

BOL.—Hume yaun, gertu gagoz orretarako: ikusi ta entzun gura ete dauz andera orrek gure zinkidetzak, gure araoak?

HUME.—Bai, zegaitik ez? Ez izan aren adorea-ren bildurrik.

BOL.—Gogo ta biotz bendera-ezinak dauzala ak entzunik nago; baña, orraitioño be, egoki izango da. Hume yaun, zu an goaian aren aldamean egotea, gu emen bean garean bitartean; eta olan, arren, zoaz Yaungoikoaren izenean, eta alde egizu. (Alde HUME'k) Jourdain ama, etzan zadiz zu, eta auzpeztu zadiz lurtean; Yon Southwell, irakurri zuk; eta goazen gure lante-gira.

DUKENOA aurrera, goitegian, eta bertatik HUME be.

DUK.—Ondo esanda, ene yaunak; eta ondo etorriak gnziok. Asi, lenago ta oba.

BOLIN.—Epe artu, andera on; ba-dakie sorginak noz dan euren garaia, gau itsua, gau iluna, gaceko ixila, Toroi sutan iminitako gau-ordua; mosollo kirriskorrek kirriak egin, baserrietako txakurrak ausi egiten dabentertzia, gogoak ibili dabiltzana, ta mamuak euren ilobietatik yagiten dirana..., garai cri da egokien guk esku artean dogun lanerako. Andera, yezarri zadiz, eta ez izan bildurrik, guk eragi dagigunari gogor eustingo dautsagu esi onetsiren barruan. (Euren egikizunerako egi'taraua beteten dabo emein, eta ustaia egiten dabe; BOLINGBROKE'k, naiz SOUTHWELL'ek, ba-dirakur, "Cnjuero te...", eta abar. Ostots eta oñeztu itzalak d'fra; gero gogoa yagiten dn).

GOG.—"Adsum".

JOUR.—Asmath, bere izen eta alaren aurrean ikaratuten zorean Yaungoiko betikoa-arren, erantzun egiozu nik itanduko dautsudanari; itz egin arte etzara urtengo, ba emendik.

GOG.—Eskatu gura dozuna, nik erantzun eta amaituteko!

BOL.—Bakaldunagazkoa lenen: (Papelatik dirakur). "Zer yazoko yako ari?".

gogaiak aztorea baño gorago igoten dira-
ia.

GLOS.—Ene yaun, adimen zakar berakoia dau
aztorea baño gorago icjoten etxakonak.

KARD.—Erexti orretako nozu neu be; odeiak
baño gorago egon gure leuke orrek.

GLOS.—Bai, ene lord kardinal..., zer esan gu-
ra dozu orregaz? Ez ete litxakio on zure
eskarrari ortzeraño egaz egin al izatea?

END. B.—Betiko pozaren altxorreraño!

KARD.—Lurrean dago zure zoriontegia; bu-
restunera yoten dabe zure begiak eta go-
gaiak, zure biotzeko altxorrera; yagola kal-
tegarri, "peer" galbidetsu, bakaldunagaz
eta legerriagaz orren laban zabiltzan ori!

GLOS.—Ostera, kardinal, orren bapateko egin
da zure abadetzea, ala? "Tantaene animis
coelestibus irae?" Orren bero elexgizonak?
Osaba on, ostondu egizu gaiztakeri ori:
olangorik egin ete daikezu zure gurentasu-
nagaz?

SUFF.—Eztago or gaiztakeririk, yaun; ez
olango eztabaida onari ta olango "peer"
txcrreri dagokion baño geiagorik.

GLOS.—Nori. ene lord?

SUFF.—Ba! zuri, ene lord, zure yagolatzeari
eder ba'yako.

GLOS.—Ba! Suffolk, ezagun yako Ingelanda'
ri zure lotsabakokeria.

MARG. B.—Bai zure geiagokeria be, Gloster.

END. B.—Ixilik arren, bakalduno on; eta ez
egizuz asarratu "peer" suminduok; bake-
ginak dira, ba, zori ontsu ludi onetan.

KARD.—Neu izango al naz or.etsia nire ez-
pata onegaz yagola arro onen aurka ba-
keak egite-arren!

GLOS.—(Bere kitoan) Bai orixe. osaba guren,
orretara eldurik al gengoz!

KARD.—(GLOSTER'eri bakarriV Arrano, zeuk
noz-gura.

GLOS.—(KARDINAL'ari bakarrean) Arazo ou
dala-ta, ez egizu batu alderdirik; zuk zeure
buruagaz erantzun egiozu irain oni.

KARD.—(GLOSTER'eri bakarrik) Bai, ara kui-
ka be eltzen atomauko etzarean lekuan;
atomau ba'zadiz, arratseon egingo dogu
zugaztiaren sorkaldean,

END. B.—Zer darabiltzue, lordok?

KARD.—Sinistu egidak, Gloster loba, ire az-
toredunak aztoreari ain arin dei egin izan
ezpa'leutso, algeta geiago izango geunkean.
(Bokarreon GLOSTER'eri) Esku bietarako
zure ezpateagaz zatoz.

GLOS.—Orixe egin be egingo dot, osaba.

KARD.—(GLOSTER'eri bakarrik) Entzun dok.
ala? Zugaztiaren sorkaldean, gero!

GLOS.—(KARDINAL'ari bakarrik) Kardinal, an

END. B.—Ba! zeri daragoiozu, Gloster osaba?

GLOS.—Aztozetzeaz daragoiozu; bestez ez, ene
lord. (KARDINAL'ari bakarrik) Yaungoikoa-
ren ama-arren, abade, edo onako onegaitik
buru]o ertza ulduko dautsut, edo uts egingo
daust nire buru-yagote guztiak.

KARD.—(GLOSTER'eri bakarrik) "Medice teip-
sum"; yagola, arduraz ibiliko al zara, zeu-
re burua yagoizu.

END. B.—Indartsu dabil axea; bai, zuon asa-
rrea be, lordok. Eresi au bai ba-yatala as-
pergarrii Olango ariak ots latza emoten
dabenean, zelan izateko alkarren arteko ba-
kearen itzarorik? Arren, ene lordok, asarre
au atonduten itxiko al daustazue.

SAINT ALBANS'eko Uritar bat aurrera, "Ala-
tza!", "Miraria!" gedarrez.

GLOS.—Zer dala-ta ete da zarata au? I, txo-
txo, ze alatz diragark?

URIT.—Alatza! Alatza!

SUFF.—Bakaldunagana ator, eta ze alatz dan
esaioik.

URIT.—Bai orixe, Alban Gurenaren yaure-
txean, ordu-erdi baño ezatala, ikusmena lor-
tu dau gizon itsu batek; eguño bere bizian
ikusit eztauen gizonak.

END. B.—Goratua bedi Yaungoikoa, ilunetan
dagozan sinistedun gogoai argia, ta etsiai
nasaitasuna damotsen Yaungoikoa!

St. Albans'eko Endorea ta bere lagunak au-
rrera; eta SIMPCOX, gizon bik bere yarlekuan
áakarrela; atzeragotik bere Emaztea ta lagun-
-taldea.

KARD.—Emen datoz uritarrak urrengorik
urrengo, zure goikotasunari gizona opatu-
ten.

END. B.—Nasaitasun andia dau gizon orrek
lurreko ibar onetan. ikusi-alez bere obenak
geitu-arren.

GLOS.—Geldi 01, ene yaunok: bakaldunaren
ondora ekarri egizue gizon ori; gogoko ya-
ko aren goikotasunari gizon orregaz itz egi-
tea.

END. B.—Lagun on, zertzeladak esaiguzuz
emen, zugaitik guk Yaungoikoa goratu da-
gigun. Eta? Luzaroan itsu egonik, orain osa-
tu egin zara, ala?

SIMP.—Itsu yaioa nozu, zure eskarrari eder
ba'yako.

EMAZT.—Bai, izan be. itsu yaio zan.

(Amabiak bein yo daueneko, aulki-ganetik yauzi egiten dau ta igesi doa; e!a erria atzetik-ara doako, gedarrez, "Alatz!").

END. B.—Ene Yaungoikoa, au ikusita, oraindik be nasai zagcz?

MARG. B.—Barre eragin daust zitala igeska ikusteak.

GLOS.—Yarrai zakioez zitalari; eta emakume petral au eroan egizue emendik.

EMAZT.—Ai ene, yaun, bearrak eraginda egin dogu egin doguna.

GLOS.—Nanua berotu bekie bideko urietako zeietan, andik etorri diran Benvick'era eldu arte. (Alde Endore, Amabi, Emazte, ta abar).

KARD.—Alatzik egin dau gaur Humphrey Dukeak.

SUFF.—Egia; meikiari yauzi eragin eta igesiaz egin dautso.

GLOS.—Baña zuk nik baño alatz geiago egin dozu; uri osoai igesiaz dautsezu zuk egun baten, ene lord.

BUCKINGHAM aurrera.

END. B.—Ze barri dakar gure lengusu Buckingham'ek?

BUCK.—Iragarriak berak nire biotza ikaraturik izten dabon barriak. Lagun-mordo lizunkerira itzuliriko batek (Elincre anderea, yagolearen emaztea, talde onen buru ta nagusi dala, bere begien aurrean ta bera auren kide dala) egite galgordetsuak egin dauz zure legerriaren aurka, sorgin eta zinkidetzalla edo araoztalleakaz arr-emona eragiten, Endika baka'dunaren bizitza ta erioztzeaz itanduten, baita zure goikotasuren bere bere onulariakazko be, zeatzago ta zer-

tzelada geiagogaz zure eskarrari czalduko yukuaz.

KA'RD.—(GLOSTER'eri bakarrean) Eta olan dala, ene lord yagola, eta onako onegaitik London'en baiturik dago zure emaztea. Nire ustez, onako onek amustuta itxi dau zure ezpatearen epafia; egin dozun eupadeari eztcmsazu eutsiko.

GLOS.—Elexgizon geiagokeritsu, ez egidazu naifcagatu biotza; naibageak eta tamalak egin dabe nire indarrarena; eta benderaturik nagcmazkero, men egiten dautsut zuri, naiz gizonik zirtzilenari.

END. B.—Ycrungoiko ori, gaiztoak eçiten dabean ckerreriena, eurekaz euren ondamentia euren ganera ekarrita!

MARG. B.—Gloster, amen orbandurik zure abia; erruga izango al zara zu zeu, oba izango yatsu.

GLOS.—Andera, ni neugazko, Yaungoikoa iminten dot autorlatzat maite be maite izan dodazala bakalduna ta bakalderria; eta nire emazteagazko, eztaki a zetan eta zelan dagonik; naibagarik asko dot entzun dodana entzunaz; zindo da a odolez, baña omena ta onindarra aztu ba'yakoz, eta eurak uiez loitu, zindotasuna zikindu gura dabena nakaz ibili izan ba'da, eztau lekurik nire oean eta nire lagunon artean eta, legeari ta lotsariari goakaitzat emoten dautset a, Gloster'en izen garbia orbandu dauelako.

END. B.—Tira ba, gau onetan emen artuko dogu atsedena; biar London'erantza atzera barriro, arazo au zeatz aztertuteko ta obentti zakarroï erantzunazoteko; eta auzia zuzentzearen aztakin bardinean iminteko; bildurrik eztau izaten, ba, aztakinaren abeak alde batera, naiz bestera itzulteko; zuzentzearen al'dera itzulten da. (Eresi argi. Alde dagie).

II AGERLEKU.—YORK'EKO DUKEA'ren Baratza.

YORK, SALISBURY, ta WARWICK aurrera.

YORK.—Salisbury ta Warwick'eko ene Lord onok, gure apari arina amaitu danazkero, ibiltegi itxi onetan zuon ederretsia emon egidazue orain nire burua nasaitu azaskatuteko, ezpai bagarik Ingslanda'ko burestunerako nik dodan eskubideaz zuon eretxia eskatuaz.

SAL.—Ene Lord, luze eretxita nago ni eskubide ori zeatz azaldurik entzuteko.

WAR.—York kutun, asi adi: eta ire eskaki-

zuna zuzen izatekotan, Nevil'tarrak ire esanera yagozak ire agindua egiteko.

YORK.—Olan izatekotan, ara emen: ene lordok, zazpi seme izan eban Edorta Irugarrenak: lenengoa, Edorta Bakalseme Baltza, Kimuruerri'ko Bakasemea; Hatield'eko Gillelma, bigarrena; eta irugarrena, Clarence'ko Duke Lionel; Gaunt'eko Yon, Lancaster'ko Dukea, izan zan aren urrengo; Edemunda Langley, York'eko Dukea, izan zan boskarrena; Woodstock'eko Toma, Gloster'ko Dukea, izan zan seigarrena; Windsor'ko

laurok, atzera baitegira emendik (JOURDAIN etct bere lctgurrai); eta اندیک eriotza-lekura; sorgina Smithfielden erreko da, austu arte, ta beste irurok eskegi egingo zauz eskegiagalluan. Zu, andera, odol zindoagoko zarealako, zure omen guztiak erantzirik, erbesteraturik biziko zara aberri onetan, Man izaroan, Sir Yon Stanley'gaz batera.

DUK.—Ondo etorria erbesteratutea; ondo etorria litzake nire eriotzea be.

GLOS.—Elinore, dakustanez, legeak epaitu zauz. Nik ezin dot zindotzat etsi legeak gaiztetsi dauenik. (Alde DUKENOA'k eta beste Atxiloak, yagolakaz) Negarrez beterik dodaz nire begiak, naibagaz nire biotza. Ai, Humphrey, ire adinean, laido onek naibagearen naibagez lurrera eratsiko au! Arren, nagusiagotza orrek zure ederretsia emoidazu emendik alde egiteko; poza gura leuke naibageak, eta nasaitasuna nire adinak.

END. B.—Etxon, Humphrey. Gloster'ko Duke; emoizu zure makilea alde egin baño len; Endika bera izango da bere yagola; eta Yaungoikoa izango da nire itxaroa, nire euskarri, nire bide-erakusla, ta nire oñen argi; eta bazez zoaz, Humphrey..., nire yagola nintzazanean baño gitxiagi etzaudaz, ba, maite.

MARG. B.—Eztakit nik zegaitik uiteetan aurreraturik dagon bakaldunak iñok yagonbearrik dauen, umeak lez. Yaungoikoak eta Endika Bakaldunak yaurri dagiela Ingelanda'ko lemea! Emoizu makila ori, yaun, eta bakaldunari bere bakalderria emoiozu.

GLOS.—Nire makilea! eutsi, Endika zindo, nire makilea; zure aita Endika'k emon eustan bestean gogoz izten dautsut makila au; eta beste batzuk geiagokeriz artu gurako leukien gogoz izten dot nik. Agur, bakaldun on; ni il nadinean, eta ezer enazanean, bake omengarria lagun izango al yako zure bakaulkiari! (Alde dagi).

MARG. B.—Ba! bakaldun da orain Endika, eta bakalduno, Margarite; Humphrey, Gloster'ko Dukea, ostera, osta-osta da bera, olango epai minbera egin yako-ta; bultzada bi batera..., erbesteraturik bere emaztea ta azpegi bat kendurik; omen-makila au lortu dogunazkero, egokien yakon lekuan bego. Endika'ren eskuan.

SUFF.—Onantxe yausten da ler-garrazta au; eta OT dago lurrean bere adarrakaz; olan ilten da Elinore'n arrokeria bere gaztearogan.

YORK.—Doala, lordok. Eder izango al yako zure nagusiagotzeari, au da arako burrukarako izentauriko eguna; eta gertu dagoz salaizallea ta salatua, guda-koskolgina ta bere ikaslea, zaldunketategira sartzeko, zure goikotasunari gogoko ba'yako burrukea ikustea.

MARG. B.—Bai, ene lord on; beren-beregi itxi dot, ba, bakalduntegia, buiruka au ikusteko.

END. B.—Eguño eztot ikusi gizonik estu ta larriago, naiz burruka egiteko bildurtiagorik salatzailla ou baño, guda-koskolginaren ikasle au baño, ene lordok.

Aurrera, alde batetik, HORNER eta Auzokoak, oneik aren alde ainbeste edanik, bera mozkorturik dagola; eta makila bat daroa, moko batetik ondar-zorroa dingilizka dauela; danbordun bat bere aurretik; eta beste aldetik. KEPA, danbordunagaz-eta sartzen da, danborduna aurretik datorrela; onek be bestearena lango makilea dakar; bere alde edaten daben Ikasleak yakoz lagun.

I AUZ.—Aiko, auzoko Horner, ire alde edaten yoat edalontzikada ardao au; ez izan bildurrik, auzoko, onik urtengo az.

II AUZ.—Eta aiko, auzoko, emen dok edalontzibete "txarneko".

III AUZ.—Pitxarbate garardo gogor, auzoko: edaik, eta ez egioak izan bildurrik ire ikasleari.

HORN.—Datorrela, bai orixe, eta egingo dot arena; iko bat Kepa'ri!

I IKAS.—Aiko, Kepa, ire alde edaten yoat; eta ez izan bildurrik.

II IKAS.—Gogargi egon, Kepa, eta ez izan ire ugazabaren bildurrik: ikasleen izen onaren alde egik burruka.

KEPA.—Eskarrik asko guztioi: edan eta arren egin nire alde, arren; mundu onetako nire azkenengo zurrutadea egin dodala uste dot, ba, nik. Auto, Errobin, eta ni iltekotan, itzako dok nire amentala: eta ik, Gillelma, nire mallua aTtuko dok: eta ik, Toma, artuik nik dodan diru guztia. Ene Yaungoikoa, onetsi nagizu, Yaungoikoari arrenka nago! enaz, ba, ni gauz eguño nire ugazabari ekiteko, ak, ba, onazkero asko ikasi dau ezpata-burrukan.

SAL.—Tira, itxi edatea ta eldu zartadai. I, txotxo, zer yak izena?

ten ikusi nenduncan be. Baña, bare zagoz, efa etzadziz ioisaz gorriiú rár; lui&uiiicjaz; eta ezek ez al daustu zirkinik eragingo, laster yazokoz yatsunez, eriotzearen azkorea zure buiu-ganean ikusi arte; izan be ba, niri, ta gu guztioi, gorroto daukun no agaz batera, edozer al dauen Suffolk'ek, eta Beaufort donga, abade ustel ak, eta York'ek eraskinez bete dabez txaraka guztiak, zure egoak an azpikeriz intsigita gelditu dakizuzan, eta, andik egaz egiteko aleginiak egin ba'dagizuz, kirimildu egingo zauez: baña, ez izan zuk bildurrik, zure oña goakalluan goaturik ikusi arte, eta foien be ez artu aurreak zure arericai.

GLOS.—Ai, Nell, epe artu egizu! Elburutik urrin zabiltz zu; okarren bai egin bear dot ni iñok yo baño len: eta areriotan dodazan lango ogei bider beste ainsbeste ba'neuz be, eta euretatik bakoxtak dauena lango indarretan ogei bider ba'leu be, urraurik be eleuskide egingo guztiak be, zintzo, yator, eta erruga nazan bitartean. Ganean dozun salakuntzatik nik zu azkatutea gura zeunke, ala? Ba! olan be elitzake garbituko zure orbana, ni, ostera, galgordean geldituko nintzake, legea ausiagaitik. Ixilik egotea *da* zutzako laguntzarik onena, Nell txerakor: eperatu egizu zure bioíza, arren; laster amaituko dira zugazkoa andi eretxita daben egunok.

Aldarrikari bat aurrera.

ALD.—Bere nagusíagotzearen Aldun-batzarre-rako dei egiten dautset zure eskarrari, datorren ilen lenengo egunean Bury'n egingo dan Batzarrerakc.

GLOS.—Nire ereixia aurreziik eskatu bagarik! Ixileko yokabide da au. Tira ba, an izango naz, (Aldo Aldarrikarick). Ene Nell, agur dagitsut: -eta, Xeripa yaun, bakaldunak agin'íua baño andiagorik ez al da izango no orren oben-nekea!

XARI.—Eder izango al yako zure eskarreri, emen amaítuten da nik dodan agindua; eta Sir Yon Stanley dago izentaurik beragaz au Man Izarora eroateko.

GLOS.—Sir Yon, zuk yegon bear dozu nire emazte au, ala?

STAN.—Egikizun ori bizkarreratu dauste, zure Cjka'rari cdsr izate^o"a"ⁿ

GLOS.—Ondo artzeko eskatu dauzudalako ez egizu txartoago erabiii; beste bein be barre egin lei munduak; eta zuri onik egiteko ni biizieta ba-ledike, zuk no orri onik egitekotan: efa, onan dala, agur, Sir Yon. DJiv.—Ostera! yoan zoaz, ene lord, eta niri agurrik egítska?

GLC'S.—fjire negarrak autorla, ezin naz gelditu itsik egífeko. (Alcle GLOSTER eta Otseri-L).

DUK.—Yoanik zara zu be? Zugaz boa nasai-iasun cjuztia! nigaz e-zta geldituten, ba, arean be; eriotzea da nire poza..., eriotzea, bere izenak ainbesietan bildurto nauena, betiko izan gura neban, ba, nik ludi onetan. Stanley, atera nagizu emendík, arren; eztaust ardura nora (eztaustut eskatuko, ba, oskarnk bakar bakarrik, agindu dauz-tuen lekura eroan nagizu.

STAN.—Ea, andera, Man Izaroa yatsu orra-ko leku eri; zue egokereari dagokonez zu artuteko an.

DUK.—Txarrik asko da nire egokerea, lardo utsa da-ta..., eta, au dala-ta, laidoz eta lotsariz artu ia erabiliko ete nozue?

STAN.—Dukenori ta Humphrey Dukearen anderecri dagokonez; egokera crren erara artu ta erabiliko zauguz.

DUK.—Agur, Xeripa, eta nik baño bizitza obarik izango al dozu, nire lotsariaren eroala izan-arren.

XÉR.—Nire ogibideak eragin dausi orí etá parkatu nagizu, andera.

DUK.—3ai, bai, agur; parkaturik dago zure cgíficidearena. Tiro, Stanley, ba-goaz, ala?

STA.N.—Anó'era, zure oben-nekea bete dozunazksro, ortik zear egotzi egizu izara ori, eta goazen gure bidaldirako zure soñekoak artzen.

DUIC.—Nire lotsaria ezta aldaíuko, nire izarrea aldatu-arren; ez, or iraungo dau nire soñekorik ederrsnen ganean be, ta erakutsiko dau bere burua, yantzi dagidazan soñekcak yantzi nik. Goazen, bidea erakutsi egHazu; luze eretxita nago nire baitegia ikusteko (Alde dagie).

tira aren lumak, izatez bela gorrotagarri baño ezui-*iu*,- asui, bildots dala? Iñok emona baño ezta ak narru ori seguru be seguru. otso saloaren lerak dauz-eta. Nor ezta gauz marroz eta iruzurrez lapurraren antzik ez artzeko? Arduraz ibili, ene yaun; gizon guzurti ori len baño len kentzean dago gu guztion ona.

SOMERSET aurrera.

SOM.—Gora nire nagusien eskartsua!

END. B.—Ondo etorria, Lord Somerset. Ze bari Pantze'tik?

SOM.—Yoanik dala lur areitan zuk izan dozun zer-ikusit guztia; dana da galdurik.

END. B.—Barri otzak, Lord Somerset; baña, Yaungoikoaren guraria egin bedi!

YORK.—(Bere kiteon) Nitzako bai barri otzak, Ingelanda emokor mardulerako añako ziran, ba, nire itxaroak Pantze'rako, ain yarri ta tinkoak. Au dala-ta, pipiletan zimeldu idira nire lorak, eta orriak yaten daragoioe zeruko katuak; baña, luzaro bagarik atonduko dot nik lanki au, edo, ostantxean, saldu nire eskubidea ilobi ospatsuen bat erosteko.

GLOSTER aurrera.

GLOS.—Zori on guztiak nire yaun bakaldunarentzak! Parkatu nagizu, ene nagusi, onen belu natorrelako.

SUFF.—Gloster, arinegi etorri zareala yaki-zu, zarean baño zintzoago ez izatekotan; zurea aspikeririk andiena dala-ta, atxilotu egiten zaudaz ementxe.

GLOS.—Tira ba, Suffolk, enozu ikusiko, ba, mosua lotsaz gorriturik, naiz nire mosua aldaturik atxilotute onegaitik; orbanik bagako biotzik ezta ikaratuten erras eta arin. Nire nagusienagazko azpikeri aldetik ni bestean loi bagarik eztao iturrik garbien eta gardenenik be; nok salatu nagike? Zetan naz ni errudun?

YORK.—Or uste dabenez, ene yaun, zu erosteko dirutzak artua zara zu Pantze'tik eta, yagola izanik, ordaintzeka euki dozuz guda-riak; eta orregaitik bere goikotasunak galdu egin dau Pantze.

GLOS.—Esan baño eztabe egiten? Uste baño eztabe? Zertzuk eta nortzuk idira ori uste dabanak? Eguño eztauset ostu gudarai euren ordainik, eta txakurtzikirik be ezto artu Pantze'tik ni erosteko. Gabaz (areago, gau ta egun) atzarrik egoten izan nazan legetxe, Ingelanda'ren ona asma-asmaka,

olantxe lagun izango al yat Laungoikoa! Nire epai-egunean nire aurka ekarri dagie-la Bakaldunari ostu izan dauksadan txakurtzikia, naiz niñzako gorde izan dodan xemaikoa! Ez; neure sakeletiko amaikatxo libera eder bai atera ta emon izan dot ango uri-indarrentzako, erri beartsua zamaturik gura enebalako, eta eguño ezto eskatu atzera emon dagistezanik.

KARD.—Onik ekarriko dautsu, ene yaun, ori esanak.

GLOS.—Egia baño eztiñot nik, olantxe lagun izango al yat Yaungoikoa!

YORK.—Zure yagolatza-aldian, eguño entzun ez tiranak lango elorrioak zuk obentiai ezarri izanak, gordinkerientzutea ekarri dautso Ingelanda'ri.

GLOS.—Ba! ondo yakina da nire yagolatza-aldian errukia izan zala nire errurik andiena; urtu egiten nintzan, ba, obentien negarakaz, eta itz apalez erosten eben euren azkatasuna. Eraila odoltien bat, naiz bidariak zerrutsean izten abazan lapur zakar okerren bat ez izatekotan, eguño eneuntsen emon irabazitakoa añia zigorrik: erailltea bai, eraillte oben odoltia, beste edozein oben zakar baño elorrio gorriagoz zigortu izan dot.

SUFF.—Ene yaun, arinak dira utsok, arin erantzunak; baña, oben andiagorik ezarten yatsu zure bizkarrean, eta orreititik ezin garbitu daikezu erraz zure burua. Bere goikotasunaren izenean atxilotuten zaudaz; eta emen ene yaun karáinalaren yagolatzapean iminten zaudaz, zure epai-aldirarte.

END. B.—Gloster'ko ene yaun, ba-dot nik neure itxarorik, zurituko dozula zuk zure burua edozein susmotatik; erruga zara zu nire yakinkidetzeak diraustanez.

GLOS.—Ai, ene yaun eskartsu, galgordetsu dira egunok! Geiagokeri zakarrak ito egiten dau onindarra, eta esku gorrototsuz ortik zear bidalten da goi-maitasuna; azalutsezko bendekotasuna da nagusi, eta zuzentzea erbesteratu egiten da lur onetatik. Badakit nik niri bizia kentzea dala euren alkarturiko asmoa; eta nire eriotzeak zori ontsu egingo ba'leu izaro au, eta euren gordinkeria-aldia dala erakutsi, gogoz baño gogozago emongo neunke nire bizia; baña, nire ezta euren antzerkiaren aurre-ekitea baño; izan be ba, galgorderen susmorik be oraíndik eztaben millakak ez tira el'duko asmau dabene odol-antzerkiaren atzeneraño. Bere biotzeko gaiztakeria diragarre Beaufort'en begi gorri dizdikorraz, eta bere gorroto ekazitua Suffolk'en betozko ilunak;

bape zur; bakaldunak aleginak eta erdi eginyo UGUÍ oraincik be a yarciteko; erric be yagi egingo da_w urrean, aren biziaren alde; eta orraitíño, bein beinean, uskeri utsa dira gure zegaitiak, uste onik ez utsa, a eriozkarrí dala erakusteko.

YORK.—Au dala-ta, a ilterik eztozu gurako, ez-ta?

SUFF.—Ai, York, bizirik 'diranetatik iñok bez nik baño gurago-

YORK.—York'ek dau biderik geiago eriotza au gura izateko. Baña, ene lord kardinal, eta zu, ene lord Suffoik, esan zuok uste do- zuena, eta biotz biotzeik esan be, ez ete litzake zer berbera txitak sapilai gosegan- dik yagoteko yanzar 'dan arranoa imintea, ta bakaldunaren yagolatatz Humphrey Du- kea imintea?

MARG. B.—Olan seguru ilgo litzakez txita- txoak.

SUFF.—Egia, Andera; eta ori olan dala, ez ete litzake ergelkeri artaldearen yagola aze- rici egitea? Azeria eraila maltzurtzat eza- gun danazkero, eriotzeaz iñok salatu ba' dagi, bere asmoa burutu eztauelako ezta arin eta beingoan yarei bear. Ez; azeri dcmazkero, il daitela, bere izatez da artal- dearen arerio-ta, bere aginak odol gorritz orbandu baño len, Orixe egin bear yaka Humphrey'ri be, erakutsiia dago, ba, nire ugazabaren arerio dala, eta ez ibili aiko- maikotan zelan erailgo dan; sare, naiz segadaz, maltzurkeriz dala, lotan, naiz atza- rific dagola, zelanek eztau ardura, bein era- ilazkero; marro ona da, be, marro egiteko- tan dibilenari aurreak artzen dautzazana.

MARG. B.—Suffolk zindo zindo, adoretzu itz egin dozu.

SUFF.—Ez adoretzu, esana egin aric; sarritan esaten da, ba, egiteko asmorik eztana; ba- ña, nire biotza nire miñaren erizkide dala erakusteko (egite au goragarri dala ikusi- rik, eta nre nagusia bere arerioagandik yagoteko), agindu egizu, bai, eta neu izan- go naz a opatuko dauen abade.

KARD.—Baña, zu abadetzara eldu baño len gura neunke nik a ilik, ene Lord Suffolk; emoizu zure ederretria, egitea ederretri egi- zu, bai, eta neuk billatuko dot a nok erail, orren maite dot, ba, nik nire ugazabaren se- gurutasuna.

SUFF.—Eutsi esku au, egíngarri da egíkizun au.

MARG. B.—Orixe diñot neuk be.

YORK.—Bai nik be; eta gu irurok erizkide izanazkero, gitxi ardura dausku nor yarri egite onen aurka, naiz nok berau txarretsi.

Geznari bat aurrera.

GEZ.—Yaun cndiok, Eire'tik eldu-barri nozue, asaldariak an yagi dirala zuoi iragarteko, eta aik íngslandarrak ezpataz zuzituta itxi dabezala essteke; lagutzeko indarrak bi- dali egizuez, lordok, garaiz, eta arein asa- rreari çeldituazo egiozue, zauria osagatx agin baño len; egin-barritan osatuteko itxa- ro andia dago-tx

KARD.—Len baño len itxi bearko da egin dan zulo ori! Ze eretxi dozue zuok arazo astun onetan?

YORK.—Somers^t bidali dagiela ara bakal- -ordekotzat; egoki da yaurla zori ontsua zer- baiten erabiltea; ikusi baño eztago zelango zori ona izan dauen Pantze'n,

SOM.^—Bere yakituri andíagaz Ycrk izan ba' litz an bakal-ordeko nire *oidez*, elegokean an ni besíean luzaro-

YORK.—Ez, dana galtzeko, zu egon zarea- nez; lenago galduko neunkean nire bizia, dana galdu arte an egonaz etxera lafoz beterik etorri baño. Erakutsi egicazu zure narruan zauri-atzen bat; aragia orren oso- rik yagoten daben gizonak nekez irabazten dabe.

MARG. B.—Geldi or; sutzar egingo da txatar au, ajcerik eta errekinik ezsrri ba'dakio; bego, York on; Somerset ezti, ixilik zagoz; zu izan ba'zintzaz an bakal-ordeko, orrena baño okerragorik izan edikean zure zoria, York.

YORK.—Ostera! utsa baño okerrago? Olan izatekotan, lotsariak b-eroa dana!

SOM.—Eta zeu euren artean, lotsaria gura do- zunazkero!

KARD.—York'eko ene Lcrrd, zure zoria zelan- go dan ikusi egizu. Iskillofan dira Eire'ko baserritar zakarrak, eta buztina Ingelcmda- rren odolez girotu dabe, kondetegi banata- tik auturiko gizatalcearen buru yoan gura ete dozu, Eiret^frrcn aurka zure zcria zelan- go dan ikustekc:?

YORK.—Yoango naz, ene Lord, bere nagusia- gctzeari eder izatekotan.

SUFF.—Ba! gure ederretria da arena; çuk ze erabagi artu, ak baieztu egiten dau; onan dala, York zindo, zeugan ariu egizu egiki- zun au.

YORK.—Ndikoturik eta pozik nego; gudariak batu egidazue, loriok, nik etxeko arazoak arteztuten dodazan bitartean.

SUFF.—Neuk begiratuko dot, Lord York, egi- kizun ori burutu daiten. Baña, goazen orain atzera Humphrey Duke ustelaren arazora.

KARD.—Bego agazkoa; neuk egingo dot, ba,

LA SOMERSET, Andikiak, eta beste batzuk aurrera.

END. B.—Zoaz eta dei egiozu gure osabeari, bertatik datorrela gure aurrera; epaitu egin gura dogu gaur a, or diñoene errudun dan, ala ez ikusteko.

SUFF.—Bertatik dei egingo dautsat, ene yaun zindo. (Alde dagi).

END. B.—Yezarri zuon lekuetan, lordok; ikusiz naiz este zuzenez errudun idoro arte, gogorregi ez egizue artu nire osaba Gloster.

MARG. B.—Yaungoikoak galazoko al dau gizon zindo erubakorik gaitzestea! Edozetariko susmo bcarretik zurituko al dau bere burua!

END. B.—Eskarrik asko, Margarite; nasaigarri ta pozkarri yataz zure itzok.

SUFFOLK aurrera barriro.

Ostera! zegaitik zatoz zurbil? Zegaitik zagoz ikaraturik? Nondik da gure osabea? Zer yatzoten da, Suffolk?

SUFF.—Bere osan ilik dago a, ene lord: ilik dago Gloster.

MARG. B.—Ut, ut, ut! ez al da olangorik!

KARD.—Yaungoikoaren ixilpeko epaia: dukea itz bagarik idagola ames egin dot, itzik bat be ezin dauela egin. (Bakalduna laxriturik konorgatu egiten da).

MARG. B.—Zelan dago nire yauna? Lagun zakidaze, lordok! il egin da bakalduna.

SOM.—Eragi egizue; ten egiozue surretik.

MARG. B.—Arin zoazie, lagun zakidaze, lagun zakidaze! Endika ori, idigi egizuz begiak!

SUFF.—Barriro biztuaz doa: ani'era, epe artu egizu.

END. B.—Zoriontegiko Yaungoikoa!

MARG. B.—Zelan dago nire lord eskartsua?

SUFF.—Nasai zadiz, ene nagusien ori! Nasai zadiz, Endika eskartsu!

END. B.—Ostera! Suffolk'eko Lorda ni nasaituten? Ointxe ointxe etorri yat bela-garran-kadak egiten eta euren ots negargarriz nire bifi-indarrak kentzen, eta orain txepetxaren txirriztadaz, biotz uts arrotiko nasaitasun-itzez uxatuko dauela lengo ots latza uste ete dau? Ez egizu ostondtu ta estali zure edena olango itz eztzitsuz; ez egidak eskurik ezarri ganean, gero! Bildurtu egiten nau ire eskuen ukutuak, sugeren usikadeak legetxe. Alde egik nire begien aurretik, gez-nari zori txarreko orrek! Gogorkeri erailkorra yagok ire begi-bolen ganean yezarrita ta nagusiagotza iluna diragaixela, mundua

ikaratuteko. Enagik begiratu, zauritu egiten yoek ire begirakuneaketa; eta orraitino, ez egik alde egin: erdu, ator, sugedorri ori, eta erail egik ire begirakunez i begiratu agian begirala errugea; eriotzearen itzalpean idoroko yoat, ba, poza..., bizirik irautea birritan iltea baño etxatak, ba, bein Gloster il danazkero.

MARG. B.—Zegaitik egiten dautsazu olango asarre ta agirika zorrotzik Suffolk'eko nire

Lordari? Dukea orren arerio izan-arren be, tamalik asko dau orrek aren eriotzeagaitik Kistarri dagokenez; eta nigazko, a nire arerio izan-arren, negar urtsuak, naiz biotza minduten daben intziriak biztu al ba'legie a, itsutu egingo nintzake negarraren negarrez, gexotu intzirien intziriz, goiz-lorea legetxe zurbil geldituko nintzake odola irusten daben intziriz; orrako guzti ori egingo neunke dukea barriro biztute-arren. Zer dakit nik munduak ze eretxi izango dauen nitzaz? Ezagun dia, ba, azalez baño ezkintzazala adiskide; ba-ledike nik egin dodala dukearena uste izatea; olan, guzurtiaren miñak baltzitu ta zauritu egingo dau nire izena, eta nire laidoz beterik geldituko dira bakaldun-yauregiak. Au da nik aren eriotzeagaz lortuten dodana; nirearen zori txarra! Bakalduno izan eta laidoa izan burestuntzat!

END. B.—Ai ene, nirearen zori txarreko, Gloster'gaitik, nirearen errukarri!

MARG. B.—Nire erruki izan egizu, a baño errukarriago naz-eta. Onangorik! Bira egin da, zure mosua estali egin dozu? Enozu ni legendarunik..., begiratu nagizu. Ostera! Sugedorria lez gortu egin zara, ala? Edemund be egin zaitez, eta ilazo egizu bertanbera itxiriko zure bakaldunoa. Gloster'en ilobian sarturik ete dago zure nasaitasun eta poz gutzia? Ba, olan izaekotan, Margarite Andereak eztautsu emon eguño pozik: mami-irudien bat eragi egiozu ari, eta gurtu egizu; nire irudiagaz, ostera, garardotegiko iragarpen egizu. Onetarako egon nintzan itsasoan urperatu-aginik, eta axe zakarrez birritan Ingelanda'ko itsasegietatik nire abeririantza atzera bultzautu? Zer esan gura izan eban orrako orrek, axe igarleak aurreztik igarri ta iragarri baño, "Etzoakez sikilikitu-abira, ez ezarri oñok itsasegi gogo txarreko onetan" baño? Zer besterik egin neban nik une atan aik axe txerakorrak eura eta aik euren borontzezko lezazulotik azkatu ebazana gaitzetsi ta añendu baño, eta Ingelanda'ko itsasegi onetsietarantz putz egiteko agindu, edo, ostantxean, gure ontzioren aurre-aldea atx bildurgarrien ba-

zurbil, eta odolga, odol. guztiak nekez dabilen bioizeru ulde eginik; eriotzcgag darabilen burrrukan biotzak bere laguntzat odola beragana erctorririk; orrako odol ori biotzagaz batera ctn otziturik, bein be ezta yoaten atzera mnsuak gorritu ta edertuteko. Baña, ikusi, baltzitirik eta oc-olez beterik dago mosu au; fcizi zansan fcaño urtenago bere begi-bolak, gizon itoaren begirakune larriagaz; yagirik bere adatsa, surzu^oak zabal-zabal buvrukeagaz; bere eskuak zabal-zabalik, fciziaren alde eltzen eta goatzen erabili izan dauzala agiri dala, eta in^arrez benderatua izan dala diragarrela: begira, izarai deutssla dagoz bere uleak, dakusazunez; lafzitu ta zutundurik dago bere bizar apaña, ekatxak batera ta besteraka erabili izan dauen udako garia legetxe; ementxs ilazo dabelaz besterik ezin izan danteke; agiriotdtik txikiena be egLantaeko da.

SUFF.—Ba, Warwick, nok erail eikean dukea? Nire ta Beaufort'en ardurapean egon da; eta gu, nire ustez, gu ezgara erailataririk.

WAR.—Baña, zuok biok izan zarie Humphrey dukearen arerio amurratuak; eta, bai orLxe, zuok izan zarie duke onaren yagolak; badau egi-entzik zuok etzcuela erobill izango yaietan, adiskid.ea erabilten danez; eta agirian dago areririk idoro douela.

MARG. B.—Olan ba'aa, seguru be susmorik ba-dozu zuk aitonsemek ba-dabela Huraphroy Dukearen eriotzearen errurik, ezta?

WAR.—Beintxaren bat idoro ba'dagi norbaitek ilik eta odol-barritan eta aren ondoan arakina ikusi ba'daçi eskuetan azkorea daue-la, zelan ez izateko susmorik a izan dala eraila? Miruaren abían eperrik idoroo^kero, zelan ez izateko susmorik eperra zelan il dan, miruak odolik bago.ko mokoagaz gorra-goraka egaz egin-arren? Olangoxe susmoa dogu odo!-antzerki onetan.

MARG. B.—Zu zara, ala, arakina, Suffolk? Nondik da zure aiztoa? Miruen bat ete da Beauort? Nondik dira arnorkatxak?

SUFF.—Aftztorik ezto erabilten nik lotan dagozan gizonak erailteko; baña, emen dot ezpata azaskatzalla bat, gel'di egotez uger-tua, erailteren ezaugarri gorriz laidotu nagianaren biotz gorrotatsuan ikuzita dizdiz egingo dauena; atomau ba'zadiz, esan egi-zu, Warwickshire'ko Lcrrd arro orrek, Humphrey'ren eriotzearen errudun nazala. (Alde fCARD., SOM., eta b<ste batzuk).

WAR.—Zetara ez atomauko Warwick, Suffolk ustelak eupada egin ba'dagio?

MARG. B.—Bere gogaldi laidotzallea baretu-ten ez e^tct crtnmetan ori, eta arrokeriz bes-teen zeretan sartzerik be eztau itxiko, Suffolk'ek ogei milla eupada egin ba'dagioz be.

WAR.—Ixilik zagoz, andera..., eta onako ou lotsaz esaten itxiko al daustazu, zuk orren alde esan dagizun itz fcaikutxa zure bakal-duntzearen aintzakotasunaren laido bafio ezta-ta.

SUFF.—J.ord kirten zakar ori! Eguño anderak bere senarrari orrenbesteko irainik egin izan ba'dautso, baserritar ezi-ikasibakoren bat artu eban zure amak bere oe lotsagarri-za, ta aldor zindoari bcsa-sagarraren mentua ezarri eutsan, eta nrentu orretatiko igali zara zu, ez Nevii'tarren enda zindotikorik.

WAR.—Eraileteagazko erruak babestuko ezpa' zinduz, eta erailea bere irabazia artzeka itxiko ezpa'neu eta, olan, zu amar milla lotsaritik kituturik itxi, eto nire nagusia enren aurkituteak baretuko ezpa'nendu, eraila ustel kihil ori, ire belauen ganean iri ik esandako itzen parkamena eskatuazo, ik esana eure amari yazoa dala ta i eu asala sasikume esanazoko neunskik; eta bein orrako omen fcildurgarri ori iri eragi-nazkerokocm, zor yakana iri emon eta ire gogoa, lotan idagczan gizonen odol-edoskitzalla orren gogoa, sulezara bidaliko neun-ke!

SUFF.---I atzarrik agola ixuriko yoat ire odola, emendik nigaz batera alde egiten atomau ba'adi.

WAR.—Oraintxe bereon gaioazan, gura ba*dok, ostantxean tatarrez oterako aut; i aintzako izan ez-crrren, egingo yoat irearena, eta ot'eintza onik arean egingo yautsat Humphrey Dukearen mamuari. Alde SUFF., pfr WAR.'ek).

END. B.---Non bular-koskol obarik eta sendoa-goril: biotz aratza baño! Iru guda-koskol dauz aldean auzi zuzena dauenak; eta zerrutsean, billusik baño eztago, galtzaidutan baturik egon-arren, zuzenik-ezaz yakinkidetzea usteldurik dauena. (Zaratea barruam).

MARG. B.—Ze zarata da ori?

SUFFOLC eta WARWICK aurrera barrien bari, ezpatak eskuetan dabezala.

END. B.—Ostera! Onangorik, yaunak! zuon is-killio asarreak aterata emen geure aurrean! Orren azarri izateraño eldu zarie, ala? Ba! ze zdrata iskanbillatsu dogu emen?

SUFF.—Bury'ko gizon guztiak nire ganera da-

teegi egindako suodiak legetxe, atzeraka eginik, birao ia añen yuaieck zeure ganeaia dafoz euren indar guztiazgax.

SUFF.—Zeuk agindu birao ta añenak yaur-titeko, eta orain zeuk itxiazoko ete daustazuz? Ara, bertotik erbesteratu nabn lurra-arren, neguko gau luze bat osoan irauongo ezuunke birao ta añenka, otzaren otzak an bedarrari azten izten eztautsan mendiren baten tontorrean billusik ba'nengo be, eta olgetan ígaro izan dodan minuto bat baño eztala izan uste izango neunke.

MARG. B.—Ui! itxi egizuz añenok, arren! ekadazu zure eskua, negar naibagatsuz ziprztindu idagidan; eta ortzetiko eurik ez al dau ezatuko leku au, nire zori txarraren ezaugarriak ezabatu eztatigizan. Ui! mun au (Eskuan mun dagio) irarriko al litz zure eskuan, ikurratz orren bitartez gomutau dagizuzan eurok zear zure alde ainbeste ta ainbeste intziri ixuri izan diran ezipanok! Olan dala, zoaz, nire naibagea norañoko dan ikusi dagidan; susmau baño ezot egiten su emen aldameanean zagozan bitartean, bete-beterik dagonari eza gomutetan dauenean yazoten yakona langoren bat dot nik orain. Edo atzera deituko zaudaz, edo, seguru egon onetzaz, neu be erbesteratu nagi-n bideak artuko dodaz; eta erbesteraturik nago egon be, zugiandik erbesteraturik egonazkero. Zoaz..., orraitíño be ez yoan oraindik! Onantxe alkar besartean estututen dabe gaiztetsiriko adiskide bik, alkarri mun egiten dautse, eta amar milla agur egiten dautse alkarri, eriotzeari baño alkarre-gandik alde egiteari eun bider iguin gei-ago dautsoela. Orraitíño be, agur orain; eta agur nire biziari zugaz batera!

SUFF.—Onan amar bider erbesteratuten da Suifolk..., bakaldunak erbesteraturik bein, iru bider irutan, zuk erbesteraturik. Lurrek eleuskit ardura, zuk emendik alde egitekotan; bere zerutar laguntzat zu ba'zenduz Suifolk'ek, lekaroa, basamortua bera litxakio yentetsurik asko; mundua bera ,dago ba, zu zagozan lekuan, bertako atssgin guz-tiakaz; eta bakartasun utsa dago zu etzagozan lekuan. Ezin dot geiagorik: bizi zadiz, zure bizian poz izateko: nitzako etago beste poik zu bizi zaraela yakitea baño.

VAUX auxrera.

MARG. B.—Nora doa Vaux orren arin? Ze barri dogu. arren?

VAUX.—Beaufort Kardinala il-aginik dagola bere nagusiagotzeari iragarten nator; ber-

tatiko gexoaldi gogorrek eldu dautso. ba, ta amas-esUikci, begiak zcibal-zabalik, eta arnasarik artu-ezinik dauko, Yaungoikoari biraoka ta lurreko gizonai añenka daragoio. Humphrey Dukearen gogoa bere aldameanean bailego lez itz egiten dau batzuetan; bakaldunari deiez dago beste batzuetan eta, bakalduna dalakotan, burupekoari iragarten dautsoz bere gogoa geiegi estututen daben ixilkizunak; eta bere nagusiagotze-ari esateko bidali nabe, oraintxe be a bakaldunari deiez gedar baten dagola.

MARG. B.—Zoaz eta bakaldunari esan egiozu gezna astun ori. (Aldo VAUX'ek) Nirearena! zer dogun mundu au! Barri lango barriak dira oneixek! Baña, zegaitik naibagatuten naz ordubeteko galtzeagaitik, nire gogoaren albcor dan Suffolk'en erbesteratzea bazarturik Suffolk, zugiandik zugiandik bakarrik enaz naibagatuten ni, eta egoe-aldetiko odeiakaz zegaitik enabil norgeiagoka negarrez, eurenak lurra aberastuteko, nireak nire naibaga ta lorrak geituteko diralarik? Zoaz orain emendik; dakizunez, etorteko da bakalduna; galdua zara, nire aldameanean idoro ba'zagiz ak.

SUFF.—Ezin bizi na'dike ni, zugiandik alde egin ba'dagit; zure begien aurrean iltea, barriz, zer besterik litxakit zure altzoan loiskitxo atsegingarri egitea baño? Seaskako seña bere amaren titia ezipanetan dauela ilten danez, baketsu, baretsu ta atseginenez ementxe bidali daiket nik nire askenengo arnasea, ta arnaseagaz gogoa, eguratsetara; zure begietatik urrin, barriz, asarrez amurraturik nengoke, ta zure eske ge'darrez nengoke zuk nire begiak isteko; zure eske, zure ezipanez agoa itxi dagizatan; olan, edo atzera zenkarke nire gogo egazkaria, edo zure soñera bidaliko neunke, eta, olangorik yazotekotan, Elisi gozoan biziko litzateke. Txantxetan iltea baño elitza-teke zure aldameanean iltea; zugiandik urrin iltea, eriotzea bera baño elorrio andi-ago litzake; Ui! emen egoten itxi egidazu, yazotekoa yazo!

MARG. B.—Alde! alde egitea zauri erailkorri ezarten yakon errete mingorra izan-arren, Pantze'ra, Suffolk kutun; andik bidali egidazuz zure barriak; mundu borobil onetan edonon egon-arren zu, izango dot Iris'en bat zu idoroko zauzana-ta.

SUFF.—Ba-noa.

MARG. B.—Eta eutsi nire biotza, zugaz eroateko.

SUFF.—Eguño gauza dan zerik euki eztauen kutxarik zori txarrekoanean gondeten dan

ONTZI-M.—Zuk be beste orrenbeste emon beur do*u, úsfaníxean lurrera dca zure burua.

ONTZIB.—Ostera! asko ta andi ete deretxatsue bi milla burestun ordainduteari, aitonseme izena ta yazkerea aldean erocinik, ala? Buruak moztu zítal bioi; il egin bearko dozue, ba, diru-uskeri ori burrukan galdu doguzan bizien alderako usna da-ta.

I AITON.—Emongo dot, yaun; eta, au dala-ta, bizia aurreratu egidazu.

II AITON.—Nik ba ordainduko dot, eta bereala idatziko dot etxera bere eske.

VVHIT.—Begia galdu doi burruka-saria ontziratulen-eta, orregaitik, nire burua azaskatuteko, il egin bear dok ik (SUFFOLK'eri dirautso oncrko au), ela orreik be ik legetxe il bearko leukie, nire guraria betetekotan.

ONTZIB.—Ez adi izan orren zakar; birreroste-saria artu ta biziten itxiok.

SUFF.—Gorka Gurenaren irudia begiratu egik, aitonseme nok ni: ik zegango etsi ni, axe emongo dauskat.

WHIT.—Neu be aitonseme nok; Walter Whitmore yatak izena. Ostera! Zegaitik ikaraiten az? Ba! bildurtu egiten au eriotzeak, ala?

SUFF.—Ire izenak bildurtuten naiok, orren otsak eriotzea iragarten yaustak-eta. Gizon zur batek, aztu batek erakatu yoan nire bizitzea nire yaiotzan; eta "Water" bitartez ilgo nintzakela iragarri yeustan; orraitiño be, onako onek ez al au egingo odol-tirik; Gaultier idok ire izena, zuzenez ebagiazkero.

WHIT.—Gaultier, naiz Walter izan, bata, naiz bestea izan, etxaustak ardura niri; laidok etxok eguño nire izena orbandu, bertatik nire ezpateagaz orbana kendu ta garbitu bagarik; au dalc-ta, nire azaskatzea salearoslek lez saldu dagidanean, ausi egistak ezpatea, tenka atera egistazak besoak eta mosua loitu egistak, eta kihil nazala zabaldu egik munduan! (Eldu egiten dautso SUFFOLK'eri).

SUFF.—Geldi, Whitmore, bakalseme dok, ba, ire atxiloa, Suffolk'eko Duke, Gillelma De-la-poole.

WHIT.—Sorkiz yantzirik Suffolk'eko Dukea, iruzur egiteko.

SUFF.—Bai, baña sorkiok eztira dukearenik; Yupiter'ek berak be iñoz marrorik erabili eban, zegaitik ez nik?

ONTZIB.—Baña, Yupiter eztau eguño iñoak erail izan, zu, ostera, erailgo zauez.

SUFF.—Baserritar ezezagun eta zakar ori, olango zaltzain zirtzilek etxok ixuri bear Endika Bakaldunaren odolik, Lancaster-ta-

rren odol omengarririk. Eztautsak ik ire eskuari rmm egin etn nire zaldi-malleari eutsin? Ez az ibili burutsik eta oñez nire mando oñetakodunaren aldamenen, eta eztok etsi zori ontsutal ire burua, ederretsitzat nire burua makurtuten neuskanean? Amaika bider bete dlaustak edalontzia, amaika bider yan dok nire maitik, lurreean balaunikaturik, Nik Margarite Bakaldunoari yai egiten neuntsanean, Ez ete? Gomutau egik orrako ori, eta orrek burua makurtuazoko al dausk; bai, eta baztarrera eragiok arrokeri illor orri; bai, gomutau egik zelan egon azan gure areto utsean, ni noz urtego begira. Ez ele dok gogoan? Ire alde idatzi izan dauen esku onsk ixildu ta liluratuko al yok ire miñ esaldatua.

WHIT.—Itz egizu, Ontziburu, ezpatakadaka zuloz yosiko ete dot zital zakar au?

ONTZIB.—Lenen, or' itzez zaurituten itxi egistak, berak zauritu neuenez.

SUFF.—Yopu zirtzil ori, amuts dira zure itzak, eta bai zu zeu be.

ANTZIB.—Atera egizue emendik, eta gure ontzi luezaren aldamenen moztu egiozue burua.

SUFF.—Eztara atomauko orretara zeure burua galdukoren bildurrez.

ONTZIB.—Bai, Poole.

SUFF.—Poole!

ONTZIB.—Poole! Sir Poole! Lord! Bai, txakurtegi, osin zikin, ur loitegi; ire loi eta zikin-keriak zikindu egiten yok Ingelanda'k edaten dauen urrezuri-iturria-ta. Orain itxiko yoat nik bakalderriko omiasunak irunsten dauzan ire ago zabal ori; lurra garbituko yoek bakaldunoari mun egindako ire ezpanak; eta ik, Humphrey Duke onaren erioztzeari irribarre egin euntsan orrek, alperrik egingo dautsezak mosuak sokor eztiran axeai, eta axeok, iri irri egiteko, putz eta txistu egingo daukai atzera; eta sulezako sorginekaz ezkondu adi, ez bendekorik, ez ondasunik, ez burestunik eztauen bakaldun aintzako-ezaren alabea yaun altsugaz ezkonduko ori. Txerren-zurtasunez egin az i andi, eta, Sylla geigogkeritsua legetxe, ire amaren biotz odol-dariotiko odolez okadaka ago. Ire bitartez saldu yakozan Pantze'ri Anjou ta Maine; igaitik, i bitarteko azala yagi dozak Normandar ustelak, eta etxoek aintzakotza", gu euren yaun ideituterik; eta Picardi'k erail egin yozak gure yaurleak, otoz-otoan goatu gure gazteluak, eta gudariak etxera sorkiz yantzirik eta zauriturik bidali daukuz; iri dauskaen gorrotos, iski-Uoakaz yagi dozak eguño euren ezpatak

esatea ainbaten da-ta, guk geuk izan bear yeurriite erri-agiritan.

GOR.—Untze untzean yo dok; esku gogorra besteko agiririk etxagok, ba, biotza be sendo dala iragarteko.

YON.—Or dozak! Or dozak! aikor Best'en semea, Wingham'go narru-ontzallea...

GOR.—Arentzako izango dozak gure arerioen narruak, eta txakurrenak dirala esango yok ak.

YON.—Or dok Díck arakina be...

GOR.—Idia lez yo ta lurrera botako yok ak obena, eta gaiztakeriari iduna txalari legetxe moziuko yautsak.

YON.—Or yoagu Smith eulea be...

GOR.—"Argo", ak irungo yok bizitzako aria.

YON.—Tiruk, tiruk, goazan geu be euren alderdira.

Danborr-otsa. Aurrera Cade, Dick arakina, Smith eulea, eta beste batzuk, yentetza andia egiten dabela.

CADE.—Guk Yon Cade'k, gure aita zalakoa-gandiko izen onetakoak...

DICK.—(Bere kitean) Edo, obeto esateko, upelbete sardinzar ostu ebalako (3).

CADE.—Gure arerioak gure aurrean yausiko diralako (goitiko eragincr dot, ba, bakaldun eta bakalsemeak lurreratuteko) ixilik zagozela aginduten dautsuegu.

DICK.—Ixilik!

CADE.—Mortimer zan nire aita...

DICK.—(Bere kitean) Gizon zindo ta argin ona zan a.

CADE.—Plantagenet zan nire ama...

DICK.—(Bere kitean) Ezagun ezagun yatan; emagin izan zan.

CADE.—Lacy'tar zan nire ama...

DICK.—(Bere kifean) Atez-ate-saltzalla baten alabea zan izan be, eta amaika galartzu saldua zan (4).

SMITH.—(Bere kitean) Baña oraintsu, bere naruzko zorroagaz ortik zear ibilteko gauz izan ez-eta, emen berean kantinak ikuzten ibilten da.

CADE.—Au dala-ta, etxe argiko seme nozue.

DICK.—(Bere kitean) Bai, bai orixe, zindo ta argi dok ire baserria; eta an yaio zoan ori sasitzan..., orren aitak eguño etxoan izan, ba, beste etxerik txabolatxo bat baño.

CADE.—Adoretzu nozue ni.

SMITH.—(Bere kitean) Izan bear ba, bearra beti da adoretzu-ta

CADE.—Asko yasan-ezinik eztot nik.

DICK.—(Bere kitean) Etxagok ezparririk orretan;

iru zeiegunetan yarraian orri bizkarra berrotuten ikusia naz-eta.

CADE.—Eztausat bildurrik ez ezpatari, ez suri.

SMITH.—(Bere kitean) Ezin izan, ba, ezpatearen bildurrik, zula-ezina da orren 'soñekoak-ta.

DICK.—(Bere kitean) Orraitiño be suari bildur izan bear leuskio, nire ustez, ardiak ostuagaitik eskua erre egin eutsoen-eta.

CADE.—Adoretzu izan, ba, gizonak; adoretzu da, ba, zuon gudaiburua, eta aldakuntzak gura doguz bakalderrian. Peni baten saldu bear dira Ingeleinda'n sei peni-erdiko otanak; amar txopin artuko dauz iru txopineko ontziak; eta azpikeritzat etsiko dot iñok garardo makalik eiatea; guztiena izango da bakalderri osoa; eta Cheapside'n yango dau bedarra nire zaldiak; eta bakaldun izan naitenean..., bakaldun lango izango naz.

GUZTIAK.—Yaugoikoak yagongo al dau zure nagusiagotzea!

CADE.—Eskarrik asko, erri on: dirurik ezta izango; nire lepotik yango dabe guztiak; eta soñeko bardinez yantziko dodaz guztiak, anaiak legetxe erizkide izan daitezun, eta euren yauntzat gurtu nagien.

DICK.—Legegizon guztiak erailtea bedi gure lenengo egikizuna.

CADE.—Ori da nire asmoa. Ez ete da negargarri asuri errugearen naruz idaznarrua egitea? Eta idaznarru orrek, bertan idatziazkero, gizonarena egitea? Batzuk diñoenez, eztena sartzen dabe erlak; baña eztena sartzen dauena erlaen argizaia dala diñot nik; izan be, ba, zer bati bein argizai-ikurratza ezarri neuntsan, eta arrazkero enaz ni nire buruaren yabe. Ostera! nor dogu or?

Aurrera batzuk, Chatham'go idazkaria daka-rrela.

SMITH.—Chatham'go idazkaria; ba-daki orrek idazten, irakurten eta sartu-urtenak ateraten.

CADE.—Orren mamu!

SMITH.—Umeentzako idazkera-ereduak egiten daragoiola goatu dogu.

(3) Upel esan gura dou Ingelanderazko "oade" itzak.

(4) Allubeta, galartzu, zint, esatn gura dau Ingelanderazko "lace" itzak, eta ortik dator "lacy" itza, allubetazko, galartzuzko, ziniatzko eson gura dauena.

izan ete dateke arerioaren izkuntzea dakianik? Eai, ala e??

GUZTIAK.—Ez, ez; eta, orregaitik, aren burua bear dogu.

G. STAF.—Tira ba. itz txerakorrez ezer cnik eztogula Iortuten ikusirik, eraso egiezu baldunaren gudarosteagaz.

STAF.—Alde, aldarrikari; eta uririk uri iragarrri egik azpiyala ta saltzalla dirala Cade' gaz yagi diranak; guiaketea amaitu fcaño len igesi dagienak, euren emazte ta umeen aurrean be, eskegi egingo dirala, euren etxeetako atetan, eredu ta ikasgarritzat; eta zuok, bakaldunaren adiskide zarienok, nire

yarrai erdue. (Alde STAFFORF biak eta In-daT'ak).

CADE.—Eta zuok, erriaren aldeko zarienok, niri yarrai. Gizon zariela erakutsi egizue orai.i; azkatasunaren alde daragoiogu guk. Eztogu itxiko andikirik bat be, aitonsemerik be ez: untzedun oskidunak bakarrik itxi dagiguzan; olangoak dira, ba, gizon zindo aurreratzalleak, eta gure alde yarriko litzakezanak, orretara atomau ba'lediz.

DICK.—Guztiak dagoz aik lenurrenkaturik, eta guganantza datoz.

CADE.—Lenurrentzarik gitxien dogunean gagoz gu lenurrenkatu. Tira, goazen aurrea. (Alde dagie).

III AGERLEKU.-Blackheath'eko beste arlo bat.

Gudarako otsak. Alderdi biak aurrera burruka, ta STAFFORD biak ilik geldituten dira.

CADE.—Nondik da Dick, Ashford'eko arakina?

DICK.—Emen, yaun.

CADE.—Ardi ta idiak legetxe yausten dozak ire aurrean, eta arakindegian ba'engo legetxe ekin dauksak ik: onan sarituko aut... Oraindik ara be Berrogeikaroa orain arte bestean luze izango dok; eta astein euneko larogei ta emeretzrentzako erailteko nire ederreksia izango dok.

DICK.—Geiagorik eztot gura.

CADE.—Eta, egia esateko, gitxiagorik eztok irabazi. Garaitearen gomutagarri au erabiliko yoat nik (SIR H. STAFFORD'en gudakskola yazten dau); eta London'erako nire bide gutzian nire zaldiaren atzean tatarrez eronngo dira gorpuak eta, bein an, endorearen ezpatea gure aurrean eroanzoko dogu.

DICK.—Aurrera egin eta onik egin gura ba' dogu, lurreratu egizuz baitegiatako ateak, eta urten daitezala baituak.

CADE.—Ez izan orren bildurrik, seguru ago. Tira, goazen London'erantza. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.--LONDON. Bakaldegiko leku.

ENDIKA BAKALDUNA aurrera, eskarien bat dirakurrela; BUCKINGHAMEKO DUKEA ta LORD SAY beragaz dagozala; aragoan MARGARITE BAALDUNOA, SUFFOLK'en buruari negarrez.

MARG. B.—Sarritan entzun dot naibageak beratu egiten dauela biotza, ta bildurti ta endekatu egiten dauela; azaskatzeaz erago, ba, ta itxi negar egitea. Baña, nok izteko negarra, onako au ikusiazkero? Emen, taupadaka dabilkidan altzo onetan, etzan dateke bere burua; baña, nondik da bere gorpua, nik besartean estutu al izateko?

BUCK.—Zer erantzuten dautso zure eskarrak matxinoen eskakizunari?

END. B.—Gotzai gurenen bat bidaliko dautset ai arren egiteko; Yaungoikoak galazoko al dau, ba. orrenbeste gogo xalo ezpataz galteza! Eta ezpata odoltsuz aik moztu baño

len neuk be itz egingo dot euren gudalburu Yon Cade'gaz; baña, etxon, beste bein irakurriko dot.

MARG. B.—Ai ene, zital basatiok! Ni benderatu nengikean mosu eder maitagarri onek, izar aldarraien baten antzerc, eta ezin bear-tu izan dauz aik beratu edikezan, au begiraçarri be etziran aik?

END. B.—Lord Say, zin eginda dago Yon Cade zure buruaren yabe egiteko.

SAY.—Bai, baña ba-dot nik itxarorik zure goikotsuna egingo dala a beraren yabe.

END. B.—Onangorik, andera! oraindik be negar eta intzirika Suffolk'en eriotzea dalata? Bildur naz, kutun, ni il izan ba'nintz, nigaitik etzendukeala egin izango orrenbeste negar.

MARG. B.—Ez, kutun, eneunkean egingo negarrik, zugaitik il baño.

etzauz deituko Yon Cade; onu onik emon yakola uste dot.

DICK.—Ene lord, gudaroste bat batu da Smithfield'en.

CADE.—Tira ba, eureka burruka egin dagigun; banu, lenuyo, Loni'uon'çjo Zubira zozze au emoten; eta, al ba'dozue, Torrea be erre egizue. Tira, goazen. (Alde dagie).

vn AGERLEKU.—LONDON. Smithiield.

Gudarako otsak. Aurrera, alde batetik, CADE ta bere Gudaritaldea; bestetik, Uritarrak, eta Bakaldunaren Indarrak, euren buru Matai GOUGH dala. Buirukan daragoioe bitsuek; ausi ta birrindurik geldituten dira Uritarrak, eta ilik MATAI GOUGH.

CADE.—Olan, yaunak: goazen orain, batzuk Savoy-yauregia itzuli ta lurreratuten; epaitegietara beste batzuk; lurrera doazala guztiak.

DICK.—Eskakizun bat dot zure lortasunaren-tzako.

CADE.—Lortasuna bera ba'idok be ik eskatua, eure izango dok itz orren alderako.

DICK.—Ingelanda'ko legeak zure agotiko izan daitezala bakarrik eskatuten dautsue.

YON.—(Bere kitean) Mezea-arren, olan izatekotan. ostera be lege garratzik izango dogu, ezpatakadea emon eutsoen agoan, ba, eta oraindiño etxakok osatu.

SMITH.—(Bere kitean) Ez, Yon, lege atsitua litzakek orren agotikoa; arnasa andurtsua yok orrek, gaztae erreya yaten daue!ako-ta.

CADE.—Buruan erabiirik dot ori be, olantxe izango dok. Ospa! erre bakalderriko gomutagarri guztiak; nire agoa izango da Ingelanda'ko Aldundegia.

YON.—(Bere kitean) Olan izatekotan; usigi egingo daben legeak izango doguz, aginak atera ezpa'dakioz.

CADE.—Eta oraindik ara guztien izango da edozer.

Geznari bat aurrera.

GEZN.—Ene lord, goakai bat, goakai bat! amen Lord Say, uriak Pantze'ri saldu eutsazana, oraintsuengo lagungarri-aldian liberako ogei ta bat amabosten eta xilin bana (5) ordainduazo euskuno.

GORKA BEVIS aurrera, LORD SAY'goz.

CADE.—Tira ba, orregaitik amar bider moztuko yako burua. A! Say ori, sarga ori, obeto esan, Lord Taket ori! guie bakal-agintzapean augu orain. Zer erantzun daikeok nire r.agusiaogtzeari Pantze'ko Delbinari Nor-

mandi emon izanaz, Monsieur Basimeku? Yakin egik emen dagozanen aurrean, Lord Mortimer beraren aurrean be, ni nazala i lango sastamarrak bakal-yauregitik garbitu bear dauzan inerrean. Bakalderriko gazteri guztia usteldu dok ik elizti-irakastegia eragiaz; eta len, gure aurretikoak koska-zotzeko koska ta koska-zotzaz beste idazterik ez ebenean, i izan intzan bide emen frarkina erabilteko; eta, bakaldunaren, bures-tunaren, eta bentasunaren aurka, papela egiteko lantegia eragi dok ik. Eure mosumusuan erakitsuko yak ire inguruan izan dozakala ik izen, aditz, eta olango zer askarriez itz egiten izan daben gizonak, Kistarren belarrik ezin entzun daikezan zerez itz egiten dabenak. Bake-ebazleak be autu dozak ik, eurak ezin eiantzun ekiezen zeretaz gizon beartsuai itanduteko euren aurrean. Orrez ganera, baitegian sartu euzan ik; eta irakurten ez ekielako, eskegi egin dozak; egin eginean be orrexegaitik beste inor baño bizigarriago ziranak. Yantzidun zaldian ibilia augu, eztok?

SAY.—Eta zer ortik?

CADE.—Ba! ez eunskion imini bear yantzirik ire zaldiari, i baño gizon zindoagoak euren galtzerdi ta gorantxagaz dabiltzan bitartean.

DICK.—Eta mangutsik be bear egin bear daben bitartean; esaterako, arakin nazan onek ibili bear izaten dodanez.

SAY.—Kent'eko gizonok...

DICK.—Zer dok ik esatekorik Kent dala-ta?

SAY.—Auxe baño ez... "Terra bona, mala gens" id'ala.

CADE.—Ken ori, ken ori! Lateraz daragoio.

SAY.—Entzun nagizue, eta nora-gura eroan nagizue. Kaiser'en azalpenetan idatzita dagonenez, izaro onetako lekurik eziena da;

(5) "Liberako ogei ta bat amabosten eta xilin bot". Ezina dogu au; izan be, liberea amabost zati egin ba'dogu, zelon emoteko ogei ta bat zcti? Gitxiogo orrez ganera xilin bat, emoteko xilnik eztago-ta. Edo idazlea, edo Cade lo egon zirion au idatzi edo esan ebenean.

VIU AGERLEKU.—SOUTHWARK.

Guda-otsak. CADE ta bere Sastamarrak aurrera.

CADE.—Fish Street gora! Saint Magnus Etxar-tebide-muturra bera! Erail eta lurreratu! Thames'era egotzi! (Alkorregaz itz egiteko otsa, atzeraketea gero) Ze o!c da dantzudan au? Erailteko aginduazkero nik, ete dago iñor atzeketarako, naiz itz egiteko yoten azarri ledikenik?

BUCKINGHAM eta LORD CLIFFORD aurrera Indarrakaz.

BUCK.—Bai, emen yagozak eurak atomau ta i artegatuen abenak; yakik, Cade, bakaldunaren ordezkotzat etorri gareala ik okerreko bideraturiko erriagana, eta parkamena aldarrikatuten dogu emen i bertanbera itxi ta euren etxera bakez yoan dadizan guztientzat.

CLIF.—Zer diñozue, aberkiJeok? Ibitu ta men egingo ete dautsazue errukiari, opatuten yatsuen bitartean? Ala, zuok zuon eriotzara eroaten itxiko ete dautsazue matxi foari? Bakalduna maite izan, eta aren parkamena besarkatu gura dauenak bere txapela gora eragi, ta "Yaungoikoak yagonqo al dau aren nagusiagotzea" esan dagiala. Ari gorroto izan, eta aren aita Endika B03-karrenari, Pantze'ri ikarea sartu eutsanari goratzarrerik egin eztagionak, eragin dagiola bere iskilluari ta datorrela aurrera.

GUZTIAK.—Yaungoikoak yagongo al dau bakalduna! Yaungoikoak yagongo al dau bakalduna!

CADE.—Ba! orren adoretu dira Buckingham eta Clifford, ala? Eta zuok, baserritar zirtzilok, sinistu egiten dautsezue, ala? *Zuan* parkamenak idunetatik dingilizka dozuazala eskegi zagiezunik gura dozue, ala? Southwark'eko White Hart'en zuok ni bertanbera izteko urratu dau bidea nire ezpateak London'go atepak zear, ala? Eneban uste nik zuon beñolako azkatasunaz bein barru yabetu arte iskilluak itxiko zeunkiezunik; baña, zuok guztiok zarie saltzalla ta sasikume, eta gozo yatsue andikien yopu izatea. Ausi dagitsuezala bizkarrazurrak euren zamaz, zuon etxeen yabetu daitezala, izortu dagiezala zuon emazteak eta alabak zeun begien aurrean: nigazko, neuk bakarrik itzuliko dot dana; eta, au dala-ta,

Yaungoikoaren biraoa betor zuon ganera, zuon guztion ganera!

GUZTIAK.—Guztiok yarraiko gatxakoz Cade'ri, guztiok yarraiko gatxakoz Cade'ri!

CLIF.—Enáika Boskarrenaren seme da, ala, Caie, orregaz yoango zariela gedar egiteko? Pantze'ren biotza zear eroango ete zaeuz orrek eta zuotatik zirtzilenak be kondetu ta duketuko ete dauz? Ai ene, eztau orrek igesteko ez etxerik, ez lekurik; eta ez-taki zelan bizi be, lapurretaz izan ezik, zuon adiskideai eta guri ostua izan ezik. Ez ete litzake lotsagarri, zuok asarrean bizi zarien bitartean, zuok len benderatu zeuezan Pantzetarrak, itsasoaren ganetik ikuti egin eta zuok arein benderatutea? Erri-barruko burruka onetan, London'ez yabeturik, tertako etxartebedetan bidean aurkituten dabezan guztiái "Viliako" oioka dantzudazala irudituten yat. Oba yatsue amar milla Cade yaiotza zirtzileko galdu, Pantzetarrai erruki eskatu baño len. Pantze'ra, Pantze'ra, ta goatu an galdu dozuena; ez egin okerrik eta kalterik Ingelanda'ri, zuon aberria da-ta; ba-dau dirurik Endika'k, eta gizon eta sendo zarie zuok; gure aldean eta gure alde dago Yaungoikoa, ez izan ezparririk gure izango dala garaitsa.

GUZTIAK.—Gora Oifford! Gora Clifford! Clifford eta bakaldunaren yarrai yoango gara gu.

CADE.—(Bere kitean) Izan ete da eguño lumarrik putzak batera-besteraka yentetza au bestean arin erabili dauenik? Endika Boskarrenaren izenak eurak gura ezabela be ba-daroaz eun okerreritara, eta bertanbera ta bakarrik izten nabe ni. Izketan daragoieo alkarregaz ixilka, ni otoz ototan poatzeko; nire ezpateagaz egin bearko dot bidea, emen egoterik eztago-ta. Txerrenak eta sulezeak gura, naiz gura ez, zuon erdi-erdiük zear yoango naz! eta Yaungoikoa ta nire omena bekidaz autorla ez-tala adorerik-eza niri ige-siazoten daustana, nire yarraileen azpikeri zirtzil lotsagarria baño. (Alde dagi).

BUCK.—Ostera! igesi dau, ala? Zoaze zuotatik batzuk eta yarrai zakioez; eta milla bu-restuneko saria izango dau aren burua bakaldunari ekarri dagionak. (Alde euretattiko batzuk). Erdue nire yarrai, gudariok; asmauko dogu bideren bat zuon eta bakaldunaren artean onezkoak egiteko. (Alde dagie).

"gara" itz ori niii on egiteko sortua da (6); izan be, ba, buru-koskoiuguiuk izan ezpa' litz, bein baño geiagotan erdibituko euskiden garaunen koskola aiotz makurrez; eta bein baño geiagotan, egarri izan-eta, bidean adoretu niñoala, txoletarena egin izan daust, bertatik edateko; eta orain yakitzat "garba" itza izan bear yat.

IDEN aurrera, atzetik otseñak datorkozala.

IDEN.—Yauna, nok bizi gurako ete leuke bakal-yauregi zurrubillotsuan, ibiltegi atse-gingarriotan ibili al izanazkero? Naikoturik nau nire aitak itxiriko ondorengo txiki onek, eta bakalderri añako da. Enabil ni bestea gitxituaz andi egiteren billa; ondasunak batzeko yoranek eztaust ekarriko iñoren ikusi-ezinik; asko yat biziteko lain eta beartsuak nire ateetatik pozik bidalteko lain «uki.

CADE.—(Bere kiiean) Emen dator lur onen yabea aldarriztat ni goatzeko, bere lurr-ar-lora bere ederretsi bagarik sartu nazalako. Zital ori, salatu egin gura nok ik, eta milla burestun artu nire burua bakaldunari eroate-arren! Baña egalperrari legetxe burdinea yanazoko dauskat, eta orratz andiren bat ba'litzok lez nire ezpatea iruntsiaz, i ta ni alkarregandik banandu-aurretik (Ondko au xilez diño).

IDEN.—Ba, lagun zakar, zareana zareala. etzaudaz ezagun; zegaitik salatuteko nik zu? Ni bere yabe onen gogoaz bestera nire baratzera sartu, lapurra lez nire lurra ostuten etorri, ta nire ormak gora igotea bera ez ete da asko, itz zakarrik esaten ibili ta niri eupadarik egin bagarik be, ala?

CADE.—Zuri eupada egin. Bai, eguño atera izan dan odolik onena-arren, zuri arpegi emon be bai. Ondo ta zeatz begiratu nagizu bost egunotan eztoz yan okelarik; orraitño be, erdue zu zeu ta zure bost gizonak, eta ila baño ilago itxi ezpa'zagiedaz, arren dagiot Yaungoikoari eztagidala yan bedarrik geiago.

IDEN.—Ez, iñoz ezta esango, Ingelanda zutunik dagon bitartean, Alesander Iden, Kent' eko aitonsemeak, indarra bere alde dauela, gizon goseak ilegaz burruka egin dauenik. Imini egizuz zure begiak nireak tinko begiratuten, aurrez aurre, begiz begi, eta ikusi egizu ia zure begiradaz nireak beeratu al dozuzan; soin-atala soin-atolari deutsala yarri zaitetz, bai, eta or ikusiko dozu ni ba-

ño txikiago zareala; atz bat añako baño ezia zure eskua nire ukabilaren aldean; zotz bat baño ezta zure zangoa adakitzar onen aldean; bere indar guztiagaz egingo dau burruka nire oñak; eta nire besoa eragi ba' dagit, orainganik dago eginik zure ilobia lur onetan. Berbakazko, ezpata onek esan dagiala berbak eztiñoena, ezpata onen an ditasunak erantzungo dautse itzai-eta.

CADE.—Nire adorea-arren, eguño entzun izan dodan burrukaririk txapeldunena augu i. Galtzaidu, ire agoa okertu ba'dakik, ntxiz gizon zakar baldar azurrandi ori idictLen bizkarrazurra legetxe ebagi ezpa'da uk, atzera ire lekaratu baño len, untzezabaldueindeke. (Burrukan daragoioe, yausi egiten da CADE) Ui, erail nabe! Goseak ilazo daust, ez beste ezek, ez beste iñok; amar mílla txerren ba'letoz be nire aurka, eta galdu dodazan amar yataldiak emon niri, guztiai eupada egingo neunskie. Igartu odi, baratz ori; eta oraindak ara etxe onetan bizi diran guztien ilobi izan adi, iñok benderatu bagako Cade'ren gogoak igesi dauelako.

IDEN.—Cade da, ala, mamu azpiyala a da, ala, nik erail dodana? Ezpata, onetsi ta gurendu egingo aut ire egite andi onegaitik. eta nire obi-ganean eskegi ni il nadinean; iñoz be etxoat ikuziko ire mokoko odol au; aldarrikariren yantzia lez erabiliko dok, ire ugazabaren omenaren edergarritzat.

CADE.—Agur, Iden; eta arrotuko al zauz zure garaiteak. Bere gizonik onena galdu dauela esaiozu Kent'eri nire aldetik; kihil eta dollor izan daitezala arren egiozu mundu guztiari... eguño bildurrik izan eztodan au goseak, ez adoreak, benderatu nau-ta. (II egiten da).

(6) "Sallet" itza denkar idazleak guk "garba", "gara" imini dogun lekucon. "Sallet" itzak Ingelanderaz zer bi esan gura dauz, "buru-koskola" ta Kastilla'ko erderaz "ensalada" esaten yokona, eta itzon esemgureakaz bere yokoar darabil emen Shakespeare'k, olango zeretcm bera mutil be mutil da-ta. Ezta argi agiri ze barazki gordin yan eban Cade'k bere gose-egaorri amaratuak yanazota. Ba-ledike urrazea izatea, buruz-bera iminiazkero buru-koskol antzik ba-dauelako, eta oriozpinez onduia yaten diran baratzki gordine-tojik oituen a bera dalako; baña, goseak legerik ez-eta, ba-ledike azagara, naiz arbi-garic izatea be.

ENDIKA BAKALDUNA aurrera, laguntzakoakaz.

END. B.—Buckingham, etxok York'ek guri okerrik egiteko asmorik, ala, zuok alkarri besotik elduta ibilteko?

YORK.—Bendekotasun eta apaltasun osoz opatuten dautso York'ek bere burua zure goikotasunari.

END. B.—Olan izatekotan, zetarako dira dakuzuzan indarrak?

YORK.—Somerset saltzalleari emendik alde eragiteko, ta benderatua dala oraintsu yakin dodan Cade mamuaren aurka burruka egiteko.

IDEN aurrera, CAPE'ren buruagaz.

IDEN.—Onen zakarrik eta ízakera ain zirtzilekorik bakaldunaren aurrera agertu al badadi, ara, etoi baten burua opatuten dautsat zure eskarrari, Cade'ren burua, burrukan erail dodanarena.

END. B.—Cade'ren burua! Yaungoiko andi, zure zuzenaren zuzen! Ui, ilik dagola dakusadan orren begirakunea, bizi zala ainbeste artegatu nendunarena. Esaidak, adiskide, i az ori erail dauen gizona, ala?

IDEN.—Neu naz, bai, eder ba'yako zure nagusiagotzeari.

END. B.—Zer yak izena? Eta ze mallatako augu?

IDEN.—Alesander Iden yat izena; bakalduna maite dauen Kent'eko ikurdidun ("Esquire") beartsu bat.

BUCK.—Zuri eider izatekotan, ene yaun, elegoke txarto berorren otseintza onagaitik ori zaldun egitea.

END. B.—Belaunbikatu adi, Iden. (Belaunbikatu egiten da) Zaldundurik yagi adi. Milla marko emoten dauskaguz saritzat; eta oraindik ara i gure laguntzako izatea gura yoagu.

IDEN.—Olango eskuzabaltasungarri izateko lain biziko al da Iden, eta inoz be ez bizi zu ugazaba orrentzako zintzo ez izatekotan!

END. B.—Ikusi, Buckingham! bakaldunoagaz dator Somerset; oa, ta esaiok ostondu dagiala dukea York'en begietatik, arin be arin.

MARGARITE BAKALDUNOA ta SOMERSET aurrera.

MARG. B.—Milla York'egaitik be ezta oston-

duko au, zutunik arro ta azarri aurrez aurre a begircitu bano-

YORK.—Ostera! azke, yarei dago Somerset, ala? Olan izatekotan, York, yarei, azkatu egizak ain luzaro baitegiraturik egon diran ire gogaketak, eta ire miña eztaitea izan ire biotza baño gitxiagorik. Nire aurrean yasan bear ete dot Somerset? Bakaldun guzurti! zegaitik iruntsi dozu niri emoniko berbea, niri egindako okerrari gogor be gogor erantzun daikeodala yakinik? Bakaldun deitu zaudaz? Ez, etzara zu bakaldunik; etzara egoki, etzara gauz yentetzaen yaurla ta agintari iateko, etoiri aginduten atomau ez, eta bera zure agintzapean eukiteko gauz etzarean ori. Burestunik eztagoko zure buxu orri; palmadunaren palmaadarrari elduteko egina da zure eskua, eta ez bakaldar agintza-makila bildurgarririk apainduteko. Nire bepuruen inguruan egiteko da urre ori, nire bepuruen irrikarre ia betozkoak, Akileu'ren aztamakilearen antzera, eurak aldatu-ala, erailteko, edo osatuteko dira gei-ta. Amen esku bat agintzamakileari goian eusteko, ta beronegaz legeak beteazoteko. Leku egidazu; Yaungoikoa-arren, oraindik ara eztautsazu aginduko Yaungoikoak aginduteko egin izan daunari.

SOM.—Azpiyala itzal ori! Atxilotu egiten aut, York, bakaldunaren eta burestunaren aurkako etoikeri eriozkarria dala-ta; men egik, etoi azarri orrek; bealunbikatu adi erruki-eske.

YORK.—Ni bealunbikatutea gurok? Onei itanduten itxi egidazue lenen, ia yasan al dabenen ni bealunbikatuterik. I, txotxo, dei egiek ona nire semeai, nire segurantzatzat: (Alde Laguntzako batek) ba-dakít nik ni baitegira yoaten ikusi baño len euren ezpatak baituko dabezala nire azkatasunaren alde.

MAG. B.—Dei egin ona Cliiford'eri; bereala datorrela, ak esan dagian York'en seme sasikumek izango diranentz euren aita azpiyalearen segurantzeari erantzutekoak. (Alde Laguntzako batek).

YORK.—Odolez orbanduriko Napoli'tar ori, Napoli'tik egotzi ori, Ingelanda'ren zigor odolto odoltsu ori! York'en semeak, zurea baño yaiotza zindoagokoak, eurak izango dira euren aitaren yagola; eta edena nire segurantzarako nire semeak aintzakotzat artu gura eztabezanai! Ara non datozen; ondo beteko dabe euren egikizuna, bai orixe.

MARG. B.—Eta eme_n dator Cliiford. arein segurantzzea ukatuteko.

gorik yasateko gertu nago ni; eta ire buru-koskoiean idatziko yoai orrako ori, ire elxe-ezaugarritik ezautu al ba'agit.

WAR.—Aiko, nire aitaren ezaugarria-arren, Nevil-darren buru-koskoleko aldor lakaztsuari deutsan artz beso-eragia-arren, gaur goian erabiliko yoat nire buru-koskola, ekatxak gura, naiz gura ez, bere orriak aldean dauzan mendi-tontorreko izaiak bere burua erakutsi daroanez..., bestegaitik ezpa'dok, i beragaz ikaratuteko.

CLIF.—Eta erauzi, atera egingo yoat artza ire buru-koskoletik, eta purreztadarik andienaz

ostikopean zapaldu, artz-yagoleak gura, naiz gura sz.

CLIF. GAZT.—Eta, olan dala, iskillioetara, aita garaila, matxinoena ta euren lagunena egin daigun.

ERRIK.—Ut, ut! goimaitasun apur bat, lotsea-arren! ez akigu ibili purreztadaka, arratseon, ba, Yosu Kisto'gaz apalduko dok.

CLIF. GAZT.—Mamu gorrotagarri ori, nondik dakik ik olangorik?

ERRIK.—Zoriontegian, zeruan ezik, seguru be seguru sulezan apalduko dok. (Alde, banaEain).

II AGERLEKU.—Saint Albans.

Gudarako otsak; burrukalditxoak. WARWICK aurrera.

WAR.—Cumberiand'eko Clifford, Warwick dago iri deiez! eta artzagandik ostondu ezpa' adi, urten adi orain (tutu asarreak gudarako ots egin, eta il-egni'nik dagozanen negarrck egurats utsa bete dagieneain) eta nigaz burruka egik, gero! Iparraldeko Lord arro, Cumberland'eko Clifford, samea sarraturik dauela yagok Warwick, burrukarako iri dei ta dei.

YORK aurrera.

Kaxo, ene lord zindo! Ostera! oñez guztiak!
YORK.—Clifford esku eraillkordunak erail yaustak zaldia; baña bardindurik gelditu gara, berak ainbeste maite izan dauen zaldi polita bela ta saien yaki egin dot-eta.

LORD OLIFFORD aurrera.

WARWICK.—Hdu da biotatik bataren, edo bion aldía.

YORK.—Geldi, Warwick, beste eizen baten bila oa, neuk eizatu bear yoat, ba, orain au il arteraño.

WAR.—Tira ba, euk yo, ta ondo yo, York, ik burestunaren alde daragoiok burrukan-eta. Clifford, egiteko andiak egiteko nazanazke-ro gaur, naibagarik askogaz geldituten nok iri erasoteka alde egin-bearragaz. (Alde dagi),

CLIF.—Zer dakusk nigan, York? Zegaitikago geldi?

YORK.—Pozkarri ta maitagarri izan bear li-txakidak ire yokabide adoretdua, nire are-rio tinko ezpa'intz.

CLIF.—Ire adorea be eleuke gelditu bear

gorapen eta andi-este bagarik, zintzotasunaren aurkako ta etoikeriaren aldeko ezpa' litzok.

YORK.—Zuzenaren eta benetako eskubidearen alde darabilidan bestean, lagun izango al yatak nire adore ori ire ezpatearen aurka!

CLIF.—Nire gogo ta soña biak iminiko yoadaz ekinean.

YORK.—Egikizun itzala dok ori! Bereala ekiok.

CLIF.—"La fin couronne les Oeuvres". (Burrukain darogioie, ta yausi ta il egiten da CLIFFORD).

YORK.—Onan, bakea ekarri dausk guduak, geldi ago-ta. Yaungoikoa, bakea izango al dau onen gogoak, Zeuri eder ba'yatsu! (Alde dogi).

CLIFFORD GAZTEA aurrera.

CLIF. GAZT.—Lotsaria ta nastea! dana dago eio ta birrindurik; nastea dakar bildurak eta, yagon-bearrez, zauritu egin daroa nas-teak. Gudu ori, sulezearen seme ori, Yaungoiko asarreak bere bitartekotzat auen ori, azaskatzearen ikatz goriak gotzti egizak gure aldekoen biotz leitetara! Ez igesi, gudariok; eztau bere buru-maitasunik benetako gudari danek; eta berez ezlau adorerik bere burua maite dauenek, alangoen baten izan ezik. Ui! (Bere aitaren gorpua ikusi-ááa) ondatuko al da mundu zirtzil au, eta azkenengo egunerako iragarririko sugarrak batera erreko al dabez ortze-lurrak! Guz-tientzako tutuak yo dagiala bere otsa, beste ots guztiak ixildu daitezán! Aurreztik agin-duta ete zeunkan, aita maite, gudaketa zarkarrean onan ilteko, zure gaztearoa bake-tan igaro, zurtasun-adineko urrezuri-yantzia

yagotea. Tira, yaunak oindiño eztogu eskuratu irabazi doguna; ezta asko gure arerioak orain igesi egina, barrira be biztuten diran arerioak dira-ta.

YORK.—Gure segurantzea euren yairai yoa-tea dala uste dot nik; dantzudanez, ba, London'era igesia da bakalduna, Aldunak batzarrera deituteko. Yanai gakiozan, Aldunak batu baño len. Zer diño Waiwick

yaunak? Arein yarra yoango ete gara?
Vv^fAR.—Arein uUefik? Ez, al ba'dogu eurcr: aurietik baño. Ara, ene yaunak, esku arren, egun goragarri izan da gaurkoa; etorkizun osoan gomutauko da Saint Albans'eko gudaketea, York ospatsuak irabazia. Yo danborrak eta tutuak; eta London'era guztiok; eta gaurkoa lango egun asko etorriko al yakuz! (Alde dagie).

Salta'n 1966-IV-25'knean.

**SEIGARREN ENDIKA
BAKALDUNAREN
IRUGARREN ZATIA**

(THIRD PART OF KING HENRY VI)

SEIGARREN ENDIKA BAKALDUNAREN

IRUGARREN ZA.TIA

(THIRD PART OF KING HENRY VI)

ANTZERKI ONETAN ANTZEZTURIKO NOTINAK

SEIGARREN ENDIKA BAKALDUNA.
EDORTA, Kimuruerriko Bakalseme, aurreko onen seme.
XI KOLDOBIKA, Pantze'ko Bakalduna.
SOMERSET'EKO DUKEA.
EXETER'EKO DUKEA.
OXFORD'EKO KONDEA. (Seirok Endika Bakaldunaren
NORTHUMBERLAND'EKO KONDEA. [aldekoak.
WESTMORELAND'EKO KONDEA.
LORD CLIFFORD.
ERRIKARTA PLANTAGENET, York'eko Dukea,
EDORTA, MARCH'eko Konde, geroago
IV EDORTA BAKALDUN. Laurok ERRIKARTA
EDEMUNDA, Rutland'eko Kondea. PLANTAGENET'en Semeak.
GORKA, gerora Clarence'ko Duke.
ERRIKARTA, gerora Gloster'ko Duke.
NORFOLK'EKO DUKEA.
MONTAGUE'KO MARKETZA.
WARWICK'EKO KONDEA. (Zortzirok YORK'EKO DUKEA'ren
PEMBROKE'KO KONDEA. (alderdikoak.
LORD HASTINGS.
LORD STAFFORD.
SIR YON MORTIMER. (Biok York'eko Dukearen osabak.
SIR UGA MORTIMER. - (
ENDIKA, Richmond'eko Kondea, gazte.
LORD RIVERS, LADY GREY'ren Nebea.
SIR GILLELMA STANLEY.
SIR YON MONTGOMERY.
SIR YON SOMERVILLE.
RUTLAND'en Yabolea.
YORK'eko Endorea.
Torre'ko Nagusia.
Andiki bat.
Baitegiko yagola bi.
Eiztari bat.
Bere aita erail dauen seme bat.
Bere semea erail dauen aita bat.
MARGARITE BAKALDUNOA.
LADY GREY, gerora IV EDORTA'ren Bakalduno.
BONE, Pantze'ko Bakaldunoaren Aizta.

Gudariak, eta ENDIKA BAKALDUNA'ren eta EDORTA BAKALDUNA'ren Laguntzako beste batzuk, Geznariak, Yagolak, e. a.

AGERLEKU.—PANTZE'n Irugarren Ekitaldiko zati baten; INGELANDA'n antzerki enparauan.

- asmoak izatea. Northumberland'eko Konde, orrek erail yok ire aita; bui ireu Le, Lord Cliffoord; eta zuok biok zagoze zin eginik azaskatuko zariela orregaz, orren serne, orren kutun, eta orren adiskideakaz.
- NORTH.—Eta bete ezpa'dagit nire zina, Yaun-goikoa azaskatuko a) da nigaz!
- CLIF.—Orrako orrexen itxaroak dau Clifford galtzaiduzko ileta-yantzitan.
- WEST.—Onangorik! au be yasan bear ete dogu? Indarrez kendu dagigun ortik; asarrez dirakiala dago nire biotza; ezin dot yasan onangorik.
- END. B.—Epe artu egizu. Westmoreland'eko Konde txerakor orrek.
- CLIF.—Alperrentzako ta olangoentzako bedi epea; or yezarten elitzakean atomauko ori, bizirik ba'litz zure aita. Ene yaun eskartsu, aldundegi onetan eraso dagiogun York'eko sendiari.
- NORTH.—Ondo esan dok, lengusu; orixe dagigun.
- END. B.—Ba! eztakizue zuok euron alde dago la uria, ta euron atzean gudari-taldeak dabezala, ala?
- EXET.—Baña, bein dukea erailazkero, arin ige-siko dabe aik.
- END. B.—Urrin bego olangoren asmorik Endika'ren biotzetik, aldundegia zuzitutearen asmorik! Exeter'ko lengusu, betozkoak, itzak eta zemaik izango dozak Endika'k egingo dauen gudua. (Dukeaganontza aurrera doaz). York'eko Duke matxino ori, yatsi adi nire bakalkitit, eta eskar eta eruki-eske belaubikatu akit oñetan; neu nok ire nagusien-c.
- YORK.—Neu nok ire nagusiena.
- EXET.—Yatsi adi, lotsea-arren: orrek egin endun i York'eko Duke.
- YORK.—Ondorengoz nintzoan ni orrako ori, kondetzean nintzoanez.
- EXET.—Burestunaren azpiyala izan zoan ire aita.
- WAR.—Exeter, i eu az burestunaren azpiyala, Endika lapur onen yarraila azanazkero.
- CLIF.—Noren yarraila izateko ori, bere berezko bakaldunaren baño?
- WAR.—Egia, Clifford; eta Errikarta York'eko Dukea dok orrako ori.
- END B.—I nire bakalkian yezarrita agon birlartean, zutunik egon bear yoat nik, ala?
- YORK.—Bai, eta olantxe izango da; orregaz naikotu zadiz.
- WAR.—Lankaster'ko Duke izan zadiz zu; ori izan daitela hakaldun.
- WEST.—Biak da ori. bakaldun eta Lankaster'ko Duke: eta orrakçi orren alde egongo da Lord Westmoreland.
- WAR.—Eta orrako ori txarretsi egingo dau Warwick'ek. Azturik zagoz zu gu gareala gudategitik orpoak eragiazio dautsuegunak, gu zuon aitak erail doguzanak, eta ikurri-nak zabalik uria zear yauregiko ateetara bidea egin dogunak.
- NORTH.—Bai, Warwick, gomutan dot nire nai-bagarako; eta, nire gogoaren, ik eta ire etxeoak orrako orren tamalik asko izango dozue.
- WEST.—Plantagenet, ire aitaren zanetan izan ziran odol-tantanetan baño bizi geiago kenduko yautset iri, emen dagozan ire semeai, ire senideai, eta ire adiskideai.
- CLIF.—Bego; Wanwick, nik emendik zirkinik egin baño len itzen orde ez al dautsuet bidaliko nire aitaren eriotzearen azaskagarri izango dan geznarien bat.
- WAR.—Clifford'en errukarri! aintzakotzat be eztodaz artzen bere zemaik!
- YORK.—Burestunerako guk dogun eskubidea erakutsi dagitsugula gura dozu, ala? Olangorik gura ez izatekotan, gure ezpatak eskatu ta autortuazoko dabe orrako ori gudategian.
- END. B.—Ze eskubide-agiri dok ik, etoi orrek, burestunerako? I eu azanez, York'eko Duke izan zoan ire aita be; March'eko Konde zoan ire aitaita, Roger Mortimer; Boskarren Endika'ren seme nok ni, Delbina'ri ta Pantzetarrai burua makurtuazo, ta euren uri tc errialdeak bere eskuetaratu ebazanaren seme.
- WAR.—Ez egik aitatu Pantze'rik, oso osorik galdu dok-eta.
- END. B.—Lord yagoleak galdu eban, ez nik; bederatzi ilebete baño enebazan nik burestuna ezarri eustenean.
- ERRIK.—Zarrik asko zara orain, eta orraitño be, galtzeko bidean zagoz, nire ustez. Aita, erauzi egizu burestuna lapurraren burutik.
- EDOR.—Orixe egizu, aita kutun; zeure buruan imini egizu.
- MONT.—(YORK'eri) Anai on, iskillozale ta euren omengarri zareanazkero, iskilloz lortu dagigun, aiko-maikoak alde batera itxia.
- ERRIK.—Ots eragin danbor eta adarra, eta igei egingo dau bakaldlinak-
- YORK.—Exilik, semeok!
- END. B.—Eu ago ixilik! eta bakaldunari itxiok itz egiten.
- WAR.—Plantagenet'ek itz egingo dou lenen: entzun egizue, lordok; ixilik eta adi egon

- tuna zuri ta zure ondorengoai damotset betiko; baña baldintzeagaz, zera, emen zin egin ba'dagizu erri-barruko gudua gelditua-zoko dozula ta, nire bizialdian zuie bakaldun eta nagusienari dagokan omena egin-go daustazula, eta ez azpikeriz, ezta indaT-keriz be etzaieala ibiliko ni bakalduntzatic eratsi ta zu zeu bakaldun izateko billa.
- YORK.—Gogoz egingo dot zin oii, eta bai bete be. (Baikauilitik yatsi-ala).
- WAR.—Goia Endika Bakalduna! Plantagenet, besaitean estutu egik.
- END. B.—Goia i eu be, eta bai iie seme kazkonduok be!
- YORK.—Onezkoak eginda dagoz oiain Yoik eta Lankastei.
- EXET.—Biaotua bedi euiak alkanen aierio egiteko billa dabilkena! (Tutu-deia. Aurrera daTOZ Lordoik).
- YORK.—Agur, ene loid eskartsu; nire gaztelura noa ni.
- WAR.—Eta London yagongo yoat nik nire gudariakaz.
- NORF.—Eta Norfolk'era yoango naz ni nire yarraileakaz.
- MONT.—Itsasora ni, andik etorri naz-eta. (Alde YORK eta bere Semeak, WAR., NORF., MONT., ta Gudariak, euren Laguntzakoakoz).
- END. B.—Eta Bakal-yauregira ni, naibagaz eta atsekabez.
- EXET.—Emen 'dator bere mosuak asarrea diragarren bakaldunoa: (Yoan-ala) ixilik alde egingo dot.
- END. B.—(Yoan-ala) Orixe egingo yoat neuk be, Exeter.
- MARGARITE BAKALDUNOA ta KIMURUE-
RRIKO BAKALSEMEA aurrera.
- MARG. B.—Ez, ez alde egin nigandik; yarraioango natxatsu.
- END. B.—Epe artu egizu, bakalduno txerakor, eta geldituko naz.
- MARG. B.—Nok izateko eperik onango estualdian? Ai, zori txarreko gizon! neska nintza-ia il al nintz, eta zu eguño ez ikusi, eguño semerik ez ekaiii zuii. zu onen beiezkoaz besterako zaieala ikusteko! Iiabazi ete dau onek onen beiezko eskubideak galtzeiik? Nik daufsadan maitasunetik eidia izan ba' zeuntso, naiz nik bein onegaitik yasan nebazan minak yasan izan ba'zeuz, naiz nik niie odolagaz yanaritu izan dodanez yanaritu izan ba'zeu..., an ilixiko zeunkean zure biotzek odolik onena, duke basati a zure ondorengo egin baño len, eta zure seme bakanaii zuie ondoiengotzea kendu baño ien.
- BAKALS.—Aita, zuk ezin kendu daikedazu zule ondoiengotzarik: zu bakaldun izatekotan, zegaitik ez ni zure unen?
- END. B.—Azketsi, paikatu nagizu, Maigaiite; azketsi nagik, seme kutun: Waiwick'eko Kondeak eta dukeak beaitu nabe onetaia.
- MARG. B.—Beaitu zu! bakaldun izan, eta beaitu egingo zabez, ala? Lotsatu egiten nau zuii entzuteak. Ba! biHuiti zoi! Ixaneko oii! zeuie buiua, zuie semea, ta ni ondatu gozuz; Yoiktanai emon dautsazue leku ain goikoa-ta, bakaldun izango ba'zaia, euiak yasaten daben bitaitean izango zaia. Zei da ari ta aien ondoiengoai buiestuneiaiko eskubidea emotea, zuk zeuie ilobia idigi ta beitaia zu tatanez aldz-aurretik yoatea baño? Ebaz'a nagusi ta Calais'eko lord da Warwick; Falconbridge uxoa da itsasadar estuetako agintari; bakalderriko yagola egin da dukea; eta orraitioño be seguruzagozala uste dozu, ala? Olangoxe segurutasuna dau otsoz inguiaturik dagon asuri idardaiatiak. Ni izan ba' nintz an, emekume baño izan ez-arien ni, gudaiiak yauitin bearko nenduen euren aztamakilez, alango itunbenik nik ontzat emon baño len. Zuk, ostera, zeure bizia zure omena baño beinagotzat etsi dozu; eta oii egin dozula ikusiik, alde egiten dot emen zuie zeie bietatik, zuie maitik, eta zuie oetik, beie bidez niie semeari ondoiengotzea kendu yakon aiako Aldunen erabagia ezeiztu ta txartzat emon arte. Nille ikuninen yarraioango dira zureai agur egin dautsen iparraldeko lordak, bein zabaldurik ikusi dagiezanean..., zure lotsarirako ta Yoik etzaldearen ondamendi zeatzerrako. Geiagoko bagarik, emen izten zaudaz. Erdu, seme, goazen; gertuik yagok guie gudarostea; eidu, euren billa yoango gozak.
- END. B.—Etxon. Margarite txerakor, eta entzuidazu diñodana.
- MARG. B.—Dagoneko egin dozu itzik asko; zoaz.
- END. B.—Edorta seme maitagani, nigaz geldituko ete az?
- MARG. B.—Bai, beie aierioak erail dagien.
- BAKALS.—Gudategitik garaila natorkenean ikusiko dot zure eskarra: orren yantii yoango naz aldi atara arte.
- MARG. B.—Erdu, seme, goazen; ezin dogu astirik geiago galdu onan. (Alde MARG. BAK.'k e-ta BAKALSEMEA'k).
- END. B.—Bakaldunoren errukarri! itz asareak asanazo dautsaz niganako ta bere

izan orrakc cren bildiurik: eta. onan, agur dagiskat apal-apalik. (Alde dagi).

SIR YON eta SIR UGA MORTIMER aurrera.

YORK.—Sir Yon eta Sir Uga Mortimer, nire osabok! zori oneko orduan zatoze Sandal' era; gu esibarruratuteko asmotan dago baldunoa.

SIR YON.—Eztau izango gu esibarruratu-bea rrik, geu urtengo gatzakoz gudategira-ta.

YORK.—Ostera! bost milla gizonegaz, ala?

ERRIK.—Bai, bosteunegaz, aita, orretara bear-

tu ba'gagiez: emakume bat dakarre gualburutzat; zeren bildur izateko gu? (Lbilie-otsa urnnean),

EDOR.—Ba-dantzudaz curen danborrak: eratu dagiguzan gure gudariak, eta atera aurrera, eta agindu bereala burrukara sartu daitezala.

YORK.—Bost gizon ogeirentzako!... Ezbardintasun andia izan-arren, eztoz ezpairik, osaba, gure garaitearenik. Pantze'n gudaketarik asko irabazia nozu, arerioa batentzako amar zanean; zegaitik ez izateko orain orduko ondorenik? (Alde dagie).

III AGERLEKU.—Sandal-gaztelutik urreko Zelaiak.

Gudarako otsak. RUTLAND eta bere Yagolea aurrera.

RUTL.—Ai, nora igesiko guk euren eskuetatik alde egiteko? Ai, yagola, ara non datorren Clifford odoltia!

CLIFFORD eta Gudariak aurrera.

CLIF.—Alde, abade! zure abadetzeak yareiten dau zure bizia. Duke biraotu onen ume orregazko, nire aita orrenak erail eban orregazko..., il egin bear dau orrek.

YAG.—Eta ni neu be lagun izango 'naxako, ene lord.

CLIF.—Gudariok, eroan ori emendik!

YAG.—Ai, Gliiford, ez egizu erail mutiko erruga au, Yaungoikoaren eta gizonen, bitsuen gorrotoa zure generatu eztagizun. (Alde dagi, gudariak indarrez aterata).

CLIF.—Onangorik! dagoneko il da, ala? Ala, bildurrak itxiaz dauzaz begiak? Neuk idigiko dauzadaz.

RUTL.—Olangoxe begirakunea dau esibarruraturiko leoiak bere erpa irunskorretan dardaraz dagon zori txarrekoarentzako; eta olantxe ibilten da berak goatuari irainka, ta olantxe etorten da atzera, aren soin-atalak urratu ta zatitutsko. Ai, Clifford zindo, zure ezpatea erail nagizu, ez olango begirakune zorrotz zemaikorrez! Clifford ezti, il baño len entzun nagizu! Bendeko zirtzilegi ta mengelegi naz ni zure asarrearentzako; gizonakan azaskatu zadiz, eta bizirik itxi nagizu ni.

CLIF.—Alperrik daragoiok fcerbetan, ume gaxo orrek; nire aitaren odolez itxita yagok ire itzak andik barrura sartzeko atakea.

RUTL.—Olan ba'da, nire aitaren odolak idigi dagiala barriro. Gizon da a. Clifford, agaz egizu burruka bardina.

CLIF.—Ire anaiak ba'legoz emen, euren biziak eta irea elitzakezak asko nire burua azaskatuteko; ez, nik idigi ba'neiz ire asaben ilob'ak. eta euren gorpu-kutzak kateetatik eskegi, orrako orrek ezin naikotu izango leuke nire sumina, ezta nire biotza nasaitu be. Biotza elorriotuten daustan sumin yatak York-etxekorik ikustea; eta sulezan nago, areik nik biraoturikoak zuzaretetik atera, ta bct bera be bizirik itxi ez arte. Au dalata. (Besoa erogiten dau).

RUTL.—Il-aurretik arren egiten itxi egistazu! Zutzako da nire arrena: Clifford ezti, erruki zakidaz!

CLIF.—Nire ezpatearen mokoak dauena lan-go errukia.

RUTL.—Eguño eztautsut egin nik kalterik: zegaitik ilazo gura nozu?

CLIF.—Ire aitak egin yaustak.

RUTL.—Ni yaio baño len izan zan orrako ori. Ba-dozu zuk seme bat..., agaitik erruki zakidaz, onako onen azaskatzeagaitik (zuzen da, ba, Yaungoikoa) zure semea be, ni lez, errukarriro erail eztagien. Ai, nire egun guztietan baitegian biziten itxi egistazu; eta ezetariko okerrik egin dagitsudanean il naite-la, orain eztozu, ba, orretarako ezetariko biderik.

CLIF.—Ezetariko biderik ez! ire aitak erail yoan nirea; eta, orrazkero, il adi. (Ezpatea serten dauso CLIFFORD'ek).

RUTL.—"Dii faciant, laudis summa sit ista tuae!". (Il egiten da).

CLIF.—Plantagenet! Ba-noa, Plantagenet! eta nire ezpatearen agoan dagon ire semearen odolak ugartuko yok bera, arik eta ire eurre odolak ire semearenagoz batera an gogorturik, bienak niri garbituazo arte. (Alde dagi).

tsora YORK'eri, eta onek burruka egiten dautse).

CLIF.—Bai, bai, onan egiten dau burruka goakalluan goaturiko ollagorrak.

NORTH.—Olan egiten clauz aleginak sarean goaturiko kuiak. (Atxilo egi'eri dafce YORK).

YORK.—Olango gurenda dabe lapurrak eurak goatu dabenagaz; oncn men egiten dabe gizon yatorrak, onen askozaz geiago diran lapurren aurrean.

NORTH.—Oni zer egitea gurako leuke zure eskarrak, bakalduno?

MARG. B.—Gudari adoretuok, Cliford, eta Northumberland, erdue, satormendi onen ganean zutunik imini egizue ori, bere besoakaz beñola mendiak artu ta orain bere esku artean itzal utsagaz gelditu dana. Ba! zu zara Ingelanda'ko bakaldun izan gura zebana? Zu zara gure aldundegian asaldatu zintzczana, ta zure yatorri goikoaz ainbeste ollarkeri ta arropuzkeri erabili zebazana? Nondik da orain zure seme-mor doa zure alde urteteko? Nor.dik dira Edorta lotsagaldua ta Gorka mardoa? Eta noncik da bizkarmakur adoretu mamu a, Errikartatxo zure muti'a, bere abots latzagaz bere aita asaldatutera bultzatuten ebana? Naiz, bestekaz batera, nondik da zure Rutland kutuna? Ara, York: sur-zapi au busti ta ase-ase egin dot Cliford adoretuak bere ezpatearen mokoz mutikoaren biotzetik iuxriazo dauen odolagaz; eta zure begiak aren eriotzeagaitik urik emon al ba'dabe, au damotsut beronegaz zure negarrak legortu dagizuzan. Ai ene, York'en errukarri! atzenbako gorrotoa ezpa'neuntsu, negar egingo neunskio zure egokera negargarriari. Arren, naibagatu zadiz, ni poztu nadin, York. Zer? Orren legor eta igar ete dagoz zure errai sutsuak, Rutland'en eriotzeagaitik negartxo bat be ezin ixurtzeraño? Zegaitik zara epe-tsu, gizon? Burutik eginda gelditu bear zeunke: eta nik, zuri burutik eragiteko, onan egiten dautsu irri. Lurra yo egizu ostikoagaz, orroa egizu, aginak estutu ta karraska egizu, nik abestu ta yantzan egin dagidan. Bai ba, agirian dago, saria gura zeunke zuk niri olgau eragite-arren; York'ek ezin dau itzik egin burestunik eroan ezik. Burestun bat betor York'entzako! eta, lordok, zuon buruak makurtu egiozuez orri; eutsin orri eskuetatik nik buruan iminten dautsadan bitartean. (Popelezko burestuna iraintzen áautso burucrn). Bai, arrano, orain bai ba-dirudi orrek bakaldun! Bai, au da Endika Bakaldunaren yarlekua beretzat artu ebana; eta au da ak bere oñordekotzat autu

ebana. Baña, zelan artu dau burestuna onen arin eta goíz Fianiguentii andiak, bere zin andia orretan ausirik? Nik uste dodanez, zuk etzenduanean izan bear bakaldun, gure Endika Bakaldurjak eriotzeari eskua estutu arteño. Eta zuk zure burua Endika'ren aintzagaz larutu gura ete dozu, eta aren lokietako estuna orain, a bizi dala, ostu, zure zin yainkoarrez besterc? Ui parkatuezi-negi, parkatuezi-negi da uts ori! Kendu orri burestuna; eta burestunagaz batera burua be; eta guk arnasea artzen dogun bitartean erail ori.

CLIF.—Nire da egikizun ori, nire aitaren alde-rako.

MARG. B.—Ez, etxon; entzun dagiguzan orren arrenak.

YORK.—Pantze'ko otsoeme, baña Pantze'ko otsoak baño okerrago ori, zura mifean sugerorrien açinak baño eden geiago dozun ori! Ui! zure gisan bai ba-dirudi itsusi baño itsusiago, Amazonetariko bardaskak egingo leukenez, zori txararren bendeian yausi diranen dordoen lepotik barre ta gurenda-keririk egiteak! Egite txarren egite txarrez lotsagalduta aloaezin ezpa'litz zure mosu sorginena langoa, zu lotsatuten eragoko neunskio, bakalduno arro; esango neunskizu rondiko zarean, noren alaba zarean, eta lotsagarririk asko litzake zu lotsaturik izteko, lotsafcako ezpa'zintzaz. Napoli ta Sikeli, bietako Bakaldunaren izena dau zure aitak, baita Jerusalem'gorena be; eta orraitño, Ingelanda'ko baserri-etzagunek baño lur gixiagiago dau. Bakaldun beartsu ak irakasi ete dautsu iñor irainduten? Eztago orren bearrrik, eztozu orren bearrrik, bakalduno ollar, arako esakunea da emen beteten dana, "Eskekoak zaldun, zaldiak ertun eta lertu". Edertasuna da emakumek sarritan arrotu ta puztuten dauzana; baña, ba-daki Yaungoikoak, zuk eztozu edertasun andirik; onindarra da emakumek arrigarrien egin daroazana; dana besterakoak egin zauz zu arri-garri; lotseak egiten dauz yainkozkotz dirudiela; eta orrako orren ezak askarri ta iguingarri egiten zauz zu; gure oinpez beste aldekoak gutzako beste aldeko diran beste edozein ontasunen beste aldeko zara zu, edo-ta, Egoaldea Iparraldearentzako beste aldeko dan bestean beste aldeko zara zu, edo-ta, Egoaldea Iparraldearentzako beste aldeko dan bestean beste aldeko zara zu, edo... zera zara zu, katamotzaren tiotza, emakume-narruz estalirik! Zelan legortu al izan dozu umearen bitzita-odola, aren aitari begiak beragaz ikuzi dagizala

na bakotxa; ez odeiak euren sare-bitartean artuta, ortze argi-gardenean alkarregandik banandurik baño. Ara, ara! batu egiten dira, alkar besartean estututen dabe, eta alkarri mosuka daragoioela dirudi, alkarregaz itunben ausiezinen bat zin-bidez egiten ba'leragoioe lez; kurtzulu bat baño ezтира orain, argi bat, eguzki bat. Yazokuneren bat diragar Yaungoikoak onako onegaz.

EDOR.—Inondiko be inondiko ta olangorik eguño entzun eztana dok orrako ori. Gogoratu baño eztok gudategira dei egiten dauskula orrako orrek, dagoneko gure irabaziz argi dagigunok, Plantagenet adoretzuaren semeok, orraitio be alkarregaz batu bear doguzala gure argiak eta lur oni argi egin, eguzki onek ludiari dagionez. Esan gura dauena esan gura dauela orrako orrek, oraindik atxina nik nire ikurdian iru eguzki argi eder erabiiko dodaz.

ERRIK.—Ez, iru alaba erabili egizak:.. ire ederretsiz diñodanez, ar-zale baño eme-zaleago az-eta.

Geznari bat aurrera.

Nor augu í, ire begirakune gotilunak ire miñean esakizun itzalen bat larri dagola dira garren ori?

GEZN.—Ai, York'eko Dukea, zuon aita bakalsemetar nire yaun maitea erailten eben bitartean ikusla naibagatu izana nozue ni!

EDOR.—Ui! bego, ez egik esan geiagorik! geiegi entzun yoat-eta.

ERRIK.—Zelan il dan esaik, nik dana osoan entzun gura yoat-eta.

GEZN.—Arerio askok inguraturik egoan; be-
ra bakarrik guztien aurka, Toroi'ren itxaroa zana, Toroi'ra sartu gurarik ebiltzan Eladetarren aurka. Baña, Erku! berak be men egin bear dau ainbesteko ezbufdintasunaren aurrean; eta zartada askok, azkora txikiarenak izanda be, aririk gogorrenoko aretxa be brintzatu ta lurrera egozten dabe. Esku askoren artean benderatu eben zuon aita; baña, erail, Clifford'en beso sumintu errukirik bagakoak eta bakaldunoak bakarrik erail eben; onako onek Duke eskartsuari buruan irri andiz burestuna esarrita, mosu-mosuan irri ta iseka egin euton; eta naibagearen naibagaz negar egin ebanean, negarrak legortuteko, Rutland gazte ezti erruga, Clifford zakarrak erailaren odolatan aseturiko sur-zapia emon euton bakalduno biotz-gogorak: eta irri askoren ostean, irain zakar askoren ostean, burua moztu, ta York'eko atetatik eskegi eben; eta

an dago, eguño nik ikusi izan dodan ikuskizunik neurgariena.

EDOR.—York'eko Duke ezti, guri eusteko abea, yoana zara orain, ezto guk makilarik, ezto gu zelan egon zutunik! Clifford ori, Clifford arroputz ori, bere zalduntasunagaitik Europa'ko lora izan dana erail dok ik, eta azpikeriz benderatu dok ik a, esku esku izan ba'litzok ak berak benderatuko induan-eta! baitegi da orain nire gogoaren yauregia: ai, urtego al da baitegi orretatik, nire soin au lurpean sarturik baketan egon daiten! iñoz be enaz poztuko oraindik arata, iñoz bez. Ui! iñoz bez, geroi

ERRIK.—Nik ezin yoat egin negarrik; nire soin osoko ezotasuna ezto, ba, asko nire biotzean dodan laba-su guztia ilxungiteko; nire miñak be ezinustu dau nire biotzeko zama éskargea; beragaz itz egin bear neunken axeak, ba, nire biotza berotuten daben txingarrak ixiotuagotu ta gorituten daragoio, eta garretan erreten nabe, negarrez amatau gura neunkezan garretan. Naibagea arinduteko dira negarrak; au dala-ta, ume-entzako, negarrak; zartadak eta azaskatutea, nitzako! Errikarta, zure izena daroat nik; azaskatuko naz zure eriotzeaz, edo il, orretarako aleginetan ospea lortuaz.

EDOR.—Izena itxi yok igan duke adoretzu ak; bere dukegoa ta yarlekua itxi yaustazak niri.

ERRIK.—Ez, bakalsemetar arrano aren ume yator ba'az, eguzkia begiz begi begiturik erakutsi egik ire yatorria; yezarleku ta dukegoagazko, bakaulki ta bakalduntzeagazko, edo ire dozak, edo ez az i aren seme.

Ibilketa-otsa. WARWICK eta MONTAGUE aurrera, Indarrakaz.

WAR.—Kaxo, lord lerdienok! zelan zagoze? Z; barri dogu?

ERRIK.—Warwick'eko Yaun andi, gure barri negargarriak eralgiko ba'geuz, eta gure itzak sastakaikada bana emon gure aragiari, mingarriago litxakiguz itzak zauriak baño. Erailik dago York'eko Dukea, lord aáoretzu ori!

EDOR.—Warwick, Warwick ori! erail egin dau Lord Clifford gordinak bere gogoaren yaureipena bestean zu maite zenduzan Plantagenet a.

WAR.—Amar egun dira barriok nik negarretan ito nebazala; eta orain, zuon dordoak geituteko, arrazkeroko barrien barri zuof emoten nator. Wakefield'en egindako gudaketa odoltsuaren eta berean zuon aita ado-

WAR.—Oraindik ara etzara March'eko Konde, York'eko Duke baño: ingeiandu'ku bukuulkitik urren dan *mallea*; gu bidean yoan-ala, ba, Ingelanda'ko bakalduntzat aldarrikatuko zauguz uri ta uriska guztietan; eta pozarren bere txapela gora-goraka yaurtin eztagianak burua galduko dau uts orregaitik. Edorta Bakaldun. Errikarta kernentsu, Montague, eztagigun etxon luzarago, entzutearren amesetan, tutuak yota gure egitekoratu baño.

ERRIK.—Orrazkero, Clifford, galtzaiduzko ba' litzok be ire biotza (Ire egitez suarritzko dala erakutsi dokonez), or nαιοak ni bera urra-

tu ta zatitu. edo neurea iri emoteko.

EDOR.—Q!ar. dala, yo danborrok: giire aldeko izango al dira Yaungoikoa *ta* Gorka Gurena!

Geznari bat aurrera.

WAR.—Kaxo! ze barri dogu?

GfZN.—Norfolk'eko Dukeak diragartsue nire bitartez, gudaroste itzalagaz datorrela bakaldunoa; eta zuon begira dago a onua arin artzeko.

WAR.—Ba! olan dala, ebatzita dago, aurrera goazen, gudari adoretsuok. (Alde dagie).

II AGERLEKU.—York'en aurrea.

Txera-eresaldi, ENDIKA BAKALDUNA, MARGARITE BAKALDUNOA, KIMURUERRIKO BAKALSEMEA, CLIFFORD, eta NORTHUMBERLAND, Indarrakaz, aurrera.

MARG. B.—Cndo etorria, ene lord, York'eko uri eder onetara. An aragoan dago zure areriorik arerioenaren burua, bere burua zure burestunetz inguratu-billa ebilenarena; ikuskizun orrek ez ete dau adoretuten zure biotza, ene yaun?

END. B.—Bai, urpera noz yoango bildur diranak atxak adoretu ta poztu daroezanez; gogoa bera be iguindu egiten daust ikuskizun onek. Galazo egizu azaskatutea, ordeari ordea emotea, Yaungoiko maite orrek! ezta nire erririk, nire gogoaz bestera ausi dot zina.

CLIF.—Ene ugazaba eskartsu, baztartu egin bear dira biguntasun andiegi ta erruki ka!tegarri ori. Nor begiratuten dabe txeratsu leoiak? Ez euren etzategiaz yabetu dan abererik. Noren eskurik miazkatuten dau basoko artzak? Ez bere begien arrearren bere umeak triskantzatuten dautsazanarenik. Nok alde egiten dau kuika dagon sugearen usikada erailkorretik? Ez bizkarra bere ostikopean zapalduten dautsanek. Mamarro ta arrik txikiak be atzera bira egingo dau, iñok zapaldu ba'dagi, usoak be mokoka egingo dabe euren umeak yagoteko. Zure burestunaren billa ibili zan York geiagoke-ritsua, ta irribarreka zu, ak bere betozko asarrea erakusten eutsun bitartean; ak, duke baño ez izanik, bakaldundu egin gura eban bere semea, eta eragi bere ondorengoak, aita maitakorreri dagokionez; zuk, oster, bakaldun izanik, eta onspenez seme

on bat izanik, zure ederretsia emon zeban oñordekotzea ari kentzeko, eta orretan irragarri zebanez, etzara zu aita maitakor. Adimenik bagako izakiak be azi egiten dabez euren umeak; eta gizonaren arpegia eurentzat bildurgarri izan-arren, orraitño be, euren umetxo samurrak yagote-arren nok etzauz ikusi euren abira igon danagaz burruka ta gudu egiten (baita iñoz bildurrez egaz egiteko erabili izan dobezcm euren egoafcaz be), euren bizia be euren umeak yagote-arren opaturik? Lotsea-arren, ene ugazaba, eurekandik ikasi egizu ikaskizuna! Ez ete litzake errukarri mutiko onek, bere aitaren erruz, yaioztatiko bere eskubidea galtzea, eta geroago bere semeari esatea, "Nire ardura bagako aita papeloak bertanbera itxi yoan nire birraitaitak eta aitaitak lortu ebena"? Ba! au bai ba-litzake lotsari lango lotsaria! Begiratu egizu mutikoa; eta onen gizon-mosuaq, zori ona diragarren orren mosuaq galtzaidutuko al dau zure biotz samurra zeure danari eusteko, eta zeure dana orreri izteko^

END. B.—Bikain, bapo egin dau Clifford'ek izlariarena, zegaiti indartsuak ekarririk. Baña, Clifford, esaidak, eztoz entzun izan eguño txarto irixiriko ondasunak azken txarra izan daroenik, ala? Eta ze zori on izan daiken bere semearentzako ondasunak batzen sulezara yoan dan aitaren semeak? Nire egite onindarretikoak itxiko dautsadaz nik nire semeari nire ostein; eta nire aitak ez al leust itxi olangoz besterik! ganetiko guztiak eukiteak, ba, amaika bider ardura geiagokakar, euren yabetzara eltzeak pozetan dakarren baño. Ai, York lengusu! ire adiakiderik onenak yakin al lekie **or ire burua**

egik ire ezpatea; gu guztiok egin genduzana-arren, etsita nago miñeko bakarrik dala Clifford'en gizontasuna.

EDOR.—Esan, Endika, izango dot zuzenez dagoکیدana, ala ez? Gaur barausi daben milla gizonke eztabe barriro iñoz yango zure burestunari agur egin ezpa'dagiozu.

WAR.—Orrako ori ukatu ba'dagizu, zure buru-ganera betor euren odola; York'ek, ba, zuzenez yazten dau bere guda-koskola.

BAKALS.—Zuzen ba'da Warwick'ek zuzen dala diñona, eztago okerrik, dana zuzen izan baño.

ERRIK.—Sortu auanak sortu auakt, or yagok ire ama; ondb yakiat, ba, ire amaren miña dokala.

MARG. B.—I, ostera, ez az ez ire aitaren, ez ire amaren antzeko; oker sorturiko mamu iguingarri-atza ezarri yakona baño, alan-bearrak atza ezarria baño, kunkun edentsutik, naiz muskerraren usikada bildurgarritik lez, gizonak igandik alde egin dagien.

ERRIK.—Napolf'ko fcurdin Ingelanda'ko urrez estali ori, ubideri itsaso deituko ba'litxako lez, zure aitek bakal-izena daroan ori, nondiko ta zetatiko zarean yakin zuk eta ez ete zara lotsatuko zure miñari zure biotz zakar zirtzila iragarten izteko?

EDOR.—Dodan guztia eínongo neunke urdaska lotsabako oni bere burua ezagutuazote-arren. Zu baño askozaz be ederrago zan Elade'ko Elene, zure senarra Menela ba-litz be; eta bein be emakume ustel ak ez eban iraindu Agamenon'en anaiea zuk bakaldun au iraindu idozun bestean. Yaiak yai egin ebazan bakaldun onen aitek Pantz'ren erdi-erdian, ezi egin eban ango bakalduna,

eta Delbinari burua makurluazo eutsan; eta onek beronen egokereari egokena lango emaztea artu izan ba'leu gaurko egunerarte euki eikean aintza a; baña, onek bere oerako eskekoa arfu ebanean, eta zure aita beartsuari zugazko ezteguen esku-erakutsia emon eutsanean, egin-eginean be orduantxe eguzki argialdi ak ak ekarri eban bere ostean eurite ta ekatxak, onen ailak bere zori onez Pantze'n irabazia ezabatu ta etxean burestunaren aurlicako guciuak sortuko ebezanak. Eta izan be, zure arrokeriak baño zer bestek sortu dau iskanbilla au? Apal eta olzan izan ba'zintzaz, oraindik lotan legoke gure eskubidea; eta guk, bakaldun txerakorraren errukiz, zirrist eragingo geunskion gure eskakizunari beste aldi-ren baterarte.

GORKA.—Baña, gure eguzki-argiak egiten ebala zure udabarria ikusi gebanean, eta zure udeak ez euskula aziazoten, azkorea ezarri geuntsen zure zustar lapurrai; eta azkorearen agoak gu geu be zerbaít zauritu-arren, orraitño be, yakizu, yoten asi gareanazkero, iñoz be ezkareala geldituko orain, zu lurrera eratsi, efo gure odol beroagaz zure aztea ureztatu *avieño*.

EROR.—Eta erabagi onetan eupada egiten dautsut; ezfot gura autu-mauturik geiago, bakaldun txerakorrari itzik egiten be izten eztautsazulako. Yo tutuak, itulariok! Ai-deak aztindu dagizala gure ikurrin odoltiak! eta, edo garaitea, edo ilobia.

MARG. B.—Etxon, Edorta.

EDOR.—Ez, emakume eztabaidatsu, eztago etxongo luzerago: amar milla bizitza kos-taeko dira gaur itzok. (Alde dagie).

III AGERLEKU.—Yorkshire'n, Tovrton eta Saxton bitarteko Gudategia.

Gudarako otsak: sartu-urtenak. WARWICK aurrera.

WAR.—Aringalariak ariñeketan lez, ekinaren ekinez unaturik, etzan egingo naz apur baten, arnasea artzeko: arturiko zartadak eta, erantzunez, nik emondako ainbeste takatekok ostu egin dauste, ba, nire zamil ondo yosietako indarra-ta, gura naiz gura ez, atsedean artu bear dot apur baten.

EDORTA aurrera, ariñeketan.

EDOR.—Irribarre eiguzu, Yaungoikoa! ostan-txean, yo ta zeartau gagizuz, eriotza muker orrek! betozkoa okertuten dausku, ba, mun-

du onek, eta odeipean dago Edorta'ren eguzkia.

WAR.—Xaxo, ene yaun! zer yazo *da*? Ba-ete dogu itxaro onik?

GORK9 aurrera.

GOR.—Galdurik da gure zoriona, etsipen bal-tzaz beste itxarorik eztozu; ausirik dagoz gure lerroak, eta ondamedia datorku yarraí: ze onu emoten dauskuzue zuok? Nora igesiko liogu?

EDOR.—Alperriko da igesa, egaz datoz, ba, gure yarraí; makal gara gu, ta ezin dogu zirristik egin euren yarraiketatik.

ren antzera; uginak dira bein nagusi, *axea* gero; batari obeño douko bein, bestcari beste bein; bitsuek tenka, garaila izateko, bularrak bularrari deutsal, eta orraitño, ez batzuek, ez besteak, ez garaila, ez benderatu; olangoxe da gudu zantar onen orekea. Emen satormnái onen ganean yezarriko naz. Yaungoikoak zeintzuk gura, aik izango al dira garaila! Nire bakalduno Margarite'k eta Clifford'ek be, ba, asarre egin dauste gudaketatik alde egin dagidan, biak zin eginik, ni bagarik dagozanean doakiela ondoen. Ilik al nengo! Yaungoikoak ori gura izatekotan; zer besterik dago, ba, nrundu onetan, naibaga, lor eta dordoz besterik? Yaungoiko ori! nire ustez elegoke bizitza zori ontsuagorik boserritar utsarena baño; mendi-ganean yezarri, ni orain nagonez, eta an eguzki-erloiuia egin, orratzik orratz, beragaz ikusteko zelan doazan arin minutoak, zenbat minutok osotuten daben ordu egina; zenbat orduk egiten daben eguna; zenbat egunek amaituko daben urtea; zenbat urtez bizi dateken gizon ilkorra. Bein au yakindakoan, banandu gero aldia: onenbeste ordutan yagon bear dot nire artaldea; onenbeste ordutan atsedean artu bear dot; onenbeste ordutan gogo-ausmerri egin bear dot; onenbeste ordutan olgau bear dot; onenbeste egun dira nire ardiak ernaritu ziral; onenbeste aste igaroko dira ergel-errukarriok umeak egin baño len; onenbeste urte (3) nik eurak moztu baño len; onenbeste minuto, ordu, egun, ilebete, ta urtek, euren egikizunerako egin eta igaroak, ilobi baketsura leroakiez ule urdinak. Ene! au bai balitzake bizitea! au bai bizitza gozoa! au bai bizitza zoragarria! Aranokan-txarakeak eztautse emoten euten ardi ergelak yagoten dargoioen artzaia itzal gozoagoa, buruganeko legor bikain orratz-lan bakanez egindakoak bendekoen azpikeri bildur diran bakaldunai emoten dautsena baño, ala? Ui, bai, ba-damotse; amaika bider gozoagoa damotse. Eta amaituteko..., artzaiak etxean egindako gatzatua, narruzko bonbiletiko bere edari arin ozkirria, zugatz-itzalpe ozkirrian egin daroan bere loa, orrako guzti ori bere segurua ta gozo beretzako dauena, askozaz be oba da bakalsemeri urrezko edalontzi argitsueta emoten yakozan mizkekeriak baño, bere soña oe bakanean datzala, bere begira ardurea, uste onik-eza, ta azpikeria dagokozanean.

Guda-otsak, Bere aita erail dauen Seme bat aaurera, aren gorpua dakarrela.

SEM.—Txarto putz egiten dau iñori onik ez-takartson axeak. Ba-ledike urre-mordoren ya-be izatea eskuz-eskuko burrukan ilazo dautsadan gizon au, eta nik, orain pozik kentzen dautsadazan onek, ba-ledike gaba eldu baño len nire bizia ta diruok, bitsuok beste gizonen baten eskuetan iztea, gizon il onek niri izten daustazanez. Nor dogu au- Ene, Yaungoikoa! Eztabaida onetan ez-yakinez erail dodan neure aitaren mosua da au. Aldion larri, onango yazokunek sortzen dabezanazkero! London'dik estu-estuka atera nendun ni bakaldunak; nire aita, Warwick" eko Kondearen otsein zana, York'en alderdikoakaz etorri zan, bere ugazabak bultzau ta estuturik; eta nik, nire bizia beragandik artu neban onek, nire eskuz kendu dausat berea. Azketsi nagizu, Yaungoikoa, onako au egin dodanean eztoz yakin zer egiten izan dodanik! Azketsi, parkatu zuk be, aita, etzaudaz ezautu-ta; Nire negarrez ezabatu ta ikuziko dodaz atz odoltsuok, eta eztoz itzik geiago egingo negarrak agortu arte.

END. B.—Ikuskizun onen errukarri! Aldion gordin eta odoltsu! Artxo errugeen ganera dator euren asarrea, leoiak euren etzategiagaitik burruka ta gudian dargoioen bitartean. Negar egik, negar egik, gizon, lagun izango natxakik, negarreko negar eginaz; eta erri-barruko gudu dok-eta, gure biotz eta begiak negarrez itsutuko al dozak, eta lertuko al dozak naibagearen naibagaz.

Bere Semea erail dauen Aita bat aurrera, gorpua bere besoetan dakarrela.

AITA.—Zure lekuari orren yosirik gogor egin daustazun ori, ekadazu zure urrea, urrerik arean ba'dozu; eun zartadaz irabazi dot, ba, urre ori. Baña, dakusadan: gure areriores mosu da au, ala? Bai, zera! neure seme bakarra da! Ai, ene, mutil, bizirik arean gelditu ba'yak, eragik ire begia! ikusi, ikusi, ze lango euri-zaparradak yausten diran ire

(3) Oker dcrgo einen Shakespeare, baño, bera bagarik bere idcrtziak birridatzi dabezanok dagozala oker uste dot nik. Eta izon be, ardiok enenbeste urterik onenbeste urtera ba'garik, urtean urtean moztuten dira, uda-asierrcn. Sherketpeore bera onetan yakitun zan; eta oiTegctitik diñot areti birridazleena dala emengo okerra.

Poiba ori (4), eguño emon ezpa'zeuntso Paiton'eri zure ederretsink zure zaiái suisuak erabilteko, eguño ez eukean kiskaliko lurrare zure burdi goriak! Eta, Endika, bakaldunari dagokonez yaurri ta agindu izan ba' zeu, naiz zure aitak eta arenak egin ebenez egin, York'eko etxeari lekuri emoteka, eguño elitzakezan yagiko udako eulien antzera; eta zori txarreko bakalderri onetan gure eriotzeagaitik amar milla gizonek ez eukien itxiko alargun iletaginik; eta zuk zeuk bakez eukiko zeunkean gaur zure yarlekua. Egurats txerakorraz zer bestek kutunduten dauz, ba, bedar txarrak? Eta biguntasan geiegiaz zer bestek egiten dauz azarri lapurrak? Alperriko dira alaketak, eta osaezinak nire zauriak; eztago ezetarik igespi-derik, ezta igesteko indarrik be; errukiga da arerioa, eta eztau erakutsiko errukirik; irabazi be eztoz egin, ba, euren errukirik, Eguratsa sartu yat nire zauri larrietara, eta odolustuaren odolustuak konortea galduazoten daust. Erdu, York eta Errikarta, Warwick eta enpaduak; zuon aitaen bularrak alderik alde zulatu nebazan nik nire ezpataz..., erdibitu egizue nire bularra. (Konortea galtzen dau).

Guda-otsak eta atzeraketea. EDORTA, GORKA, ERRIKARTA, MONTAGUE, WARWICK, eta Gudariak aurrera.

EDOR.—Arnasea artu dagigun orain, yaurtak; atsedean artu daigula aginduten dausku zori onak, eta guduko botzokoak begirakune baketsuz leundu ta bigundu dagiguzala. Axe-bolada asarreak puzturiko ontzi-oialak altxorrez beteriko ontzia uginai bularra emon eta aurrera eroaten dauenez, bakaldun izan-arren Endika barea, berak nora-gura eroaten izan dauen bakalduno odolitiari yarrak dakiozala gudari batzuk. Clifford'ek aikaz igesi dauela uste ete doze?

WAR.—Ez, ezina da ak igestea; itzok nik bere aurrean esan-arren be, ire anai Errikarta'k ezarri yauntsak ari ilobirako atza; eta dagon lekuan dagola, ilik da a seguru. (Urruma egin eta il egiten da CLIFFORD).

EDOR.—Norena ete da orren larri agur dagian gogoa?

ERRIK.—Ilerako urrumea, biziak eta eriotzeak alkarregandik alde egiterakoa langoxea.

EDOR.—Ikusi nor dan; eta, gudaketea amaitu danazkero, adiskide, ala arerio izan, txerakor erabili dagigun.

ERRIK.—Ezereztu egik erruki-epai ori, Clifford

dok-eta; ak, ba, adarra ebateaz naikotu bagarik, orriak srnoieko zan Bntland moztuaz, kimu samur a andik gozaro sorturiko zuztarrari be ezarri yeutsan bere aitzo eraikorra..., gure bakalдар aita, York'eko Dukea esan gura yoat.

WAR.—Zoaze aren burua York'eko atetik ekarten, Clifford'ek an iminiriko zuon aitararen burua; aren orde, onek bete dagiala aren lekua; neurri bardinez ibili bear dogu.

EDOR.—Eroan dagiela gure etxerako zori txarreko izan dan moztu ori, guri ta gutarrai eriotzeaz besterik abestuten ez euskun ori; eriotzeak geldituazo dausto orain bere ots zemaikor gjtulunari, eta eztau egingo itzik geiago bere miñ zori-txarr-iragarleak. (Gudari'afe eragi egiten dabe gorpua).

WAR.—Nire ustez, orrek eztau ezer aituten. Itz egik, Clifford, ete dakik nok egiten dauskan itz? Odei baltzak estalten dabez orren biziaren izpiak, eta orrek ezta kus, ezta entzun be guk diñogunik.

ERRIK.—Ui, entzungo al leusku! eta, ba-ledike ori entzuten egotea be; eginik eta oiturik dago ori eztanarena egitera, eleuke entzun gura, ba, gure aitari aren eriotzaldian esan eutsazanak lango irain eta iririk.

GORKA.—Olangorik uste ba'dok, irain mingotsez yosi egik.

ERRIK.—Clifford, errukia eskatu ta errukirik ez egik lortu.

EDOR.—Clifford, alperriko tamalez damutu adi.

WAR.—Clifford, ire utsen zurigarrik asmau egik.

GORKA.—Ire okerrerien alderako guk elorri zakarrak asmetan doguzan bitartean.

ERRIK.—Maite euan ik York, eta York'en seme nok ni.

EDOR.—Rutland'en erruki intzan i, nik be erruki izango dauskat.

GORKA.—Nondik dok Margarite Gudalburua, orain ire alde egiteko?

WAR.—Irri egiten dauksae, Clifford; birao egik ik oi euanez.

ERRIK.—Ostera! biraorik bat be ez? Eslu ta larri dabil mundu au, Clifford'ek bere adiskideai biraorik ezin esan dautsenazkero. Ortik dakit, ilik dagola au; eta, nire gogoarren, ordu biko bizia erosi al ba'leu esku eskoi onek, edonok gura naiz gura ez orri akar eta asarre egin al izateko, ebagi ta moztu egingo leuke esku onek, eta andik ur-

(4) Eguzkia deMuten eben Poiba Eladetar olerkariak. Irudimentsu izan, ba, olerkariak edonon ba.

rik dagon bitartean; eta Neron be beratuko dau damuak, aren uluketak, aren nsgar gezaltsuak ikusi ta entzun-ala. Bai, baña eskean yoan da a; emoten. Warwick; bakaldunoa zekerraldean, Endika'rentzako laguntza-eske; Warwick eskoe-aldean, Edorta'rentzako emazte-eske. Negarrez no a. eta bere Endika bakalduntzatik kendu egin dabela diño; barrez bestea, eta bere Edorta bakalduntzaraturik dagola diño; au dala-ta, no ak, zori txarreko errukarri ak, naibagearen naibagaz ezin dau itzik geiago egin; bitartean Warwick'ek zenbatu ta goratuko dauz Edorta'ren eskubideak, zuriuiko dauz aren uts eta akatzak, zegaiti indartsuak erakutsiko dauz eta, atzenean bakalduna irabazirik, bakaldunoaren aldetik berera eroango dau, bakaldunak aginduko dautso bere arrabea, baita beste edozer be, Edorta bakaldunaren lekua sendotu ta ari eusteko. Ui. Margarite, au yazoko da; eta zu, errukarri ori, bertanbera itxiko zabez orduan, eta zureak egin dau!

II BAS.—Esan, nor zauguz, bakaldun eta bakaldunoez daragoiozun ori?

END. B.—Dirudidan bañd areago, eta izateko yaio nintzan baño gitxiago: gitxienez be gizon, gitxiagorik eneunke izan bear-eta; eta gizonak erago daikie bakalduneez, eta zegaitik ez nik?

II BAS.—Bai, baña bakaldun ba'zintzaz lez daragoiozu zuk berbetan.

END. B.—Ba, izan be ba-naz..., gogoz; eta asko da ori.

II BAS.—Baña, bakaldun ba'zara, nondik da zure burestuna?

END. B.—Nire biotzean dago nire burestuna, ez nire buruan; ez ikatzarri eta Indietako arriz apaindurik, ezta agiri danik be: nasaitasuna yako izena nire buresumari..., bakaldunak gitxitan gozotuten dauzan burestuna da au.

II BAS.—Tira ba, burestuntzat nasaitasuna dauen bakaldun ba'zara, zure burestun nasaiak eta zuk zeuk nasai etorri bear dozue gugaz; guk uste dogunea, ba, Edorta Bakaldunak bakalduntzea kendu dautsian ba-

kalduna zara zu; eta guk aren bendekook, edozetan zin-bitfez, zintzotasuna agindu dautsagunok, atxilotu egiten zauguz aren areriotzat.

END. B.—Baña, eztozue eguño zinik egin eta ausi?

II BAS.—Ez, eguño bez olango zinik; eta orain be eztozu ausiko.

END. B.—Non bizi zintzazen ni Ingelanda'ko Bakaldun nintzanean?

II BAS.—Orain gagozan lurralde onetantxe.

END. B.—Bederatzi ilebeteko nintzala gantzutu nenduen bakalduntzat; bakaldun izan ziran nire aita ta aitaita; eta 7.uok niri zintzo izateko zin eginiko bendeko zintzazen; au dala-ta, esaidazue, eztozuez ausi zuon zinak?

I BAS.—Ez; zu bakaldun zintzazanean bakkarririk gintzazan gu bendeko.

END. B.—Ba! ilik nago orain, ala? Edonok legetxe, eztoz artzen arnasea, ala? Ba! gizon ergelok, zuok eztaizue zin zegaitik egiten dozuen be! ñra, luma oni nire mosutik putz egin eta ortik zear nik bidali, eta axeak atzera nigana dakarrenez, putz dagidanean nire putzari men eginaz, eta bestek putz egiten dauenean, besteri men eginaz, beti be putzik andiena nagusi dala; olangoxe da zuon gizon zeon arintasuna. Baña, ez ausi zuon zinik; ba, nire eskari biguna dala-ta. etzarie izango oben orren errudun. Nora gura yoan zuok, agindu egingo dautsazue bakaldunari; eta zeuok izango zarie bakaldun; agindu zuok, eta men egingo dautsuet nik.

I BAS.—Bakaldunaren bendeko zintzo gara gu, Edorta Bakaldunaren, gero!

END. B.—Olangoxe izango zintzakoez Endika'ri be barriro, Edorta Bakaldunaren lekuan yezarrita ba'lego.

I BAS.—Yaungoikoaren eta bakaldunaren izenez, gugaz ertzaiakana etorri zadizala aginduten 'dautsugu.

END. B.—Erakutsi bidea, Yaungoikoaren izenez; egin bedi zuon bakaldunaren izenez agindua; eta Yaungoikoak zer-gura egin daiala zuon bakaldunak, eta ak gura daianari apal men egingo dautsat nik (Alde da-

- EDOR. B.—Ba, olan izatekotan, utsean damo-
isudaz zui'e senarraren lurak.
- L. GREY.—Millaka eskarrik askogaz agur da-
gitsut.
- GLOS.—(Bere kitean) Eginik dago ezkontzea;
ikurratzat txerea ezarten dautso no orrek.
- EDOR. B.—Baña etxoizu..-, maitasunaren emoi-
ak esan gura dot nik.
- L. GREY.—Maitasunaren emoiak esan guia
dot neuk be, ene ugazaba maite.
- EDOR. B.—Bai, baña, bildur naz, nik aituten
dodanez eztozula aituten zuk orrako ori. Ze-
lango maitasuna uste dozu zuk eskatuten
dodala onen benetan?
- L. GREY.—II arterañoiko nire maitasuna, nire
eskar apalak, nire arrenak; onindarrak es-
katu ta onindarrak emon daroana.
- EDOR. B.—Ez, ez orixe, olango maitasunik
eztot nik esan gura izan.
- L. GREY.—Ba, olan izatekotan, zuk eztozu
esan gura izan nik uste izan dodanik.
- EDOR. B.—Baña orain aitu daikezu nik esan
gura izan dodanaren zati bat.
- L. GREY.—Nire gogoak iñoz be eztautsu emon-
go zure goikotasunak zearka-mearka esan
gura daula nik susmo dodana izatekotan,
- EDOR. B.—Argi ta garbi esateko, aragizkoa
egin gura dot zugaz.
- L. GREY.—Eta zuri zeuri be argi esateko, zu-
gaz etzan baño gurago dot baitegian etzan.
- EDOR. B.—Ba, olan izatekotan, eztozuz iritxiko
zure senarraren lurak.
- L. GREY.—Ba, olan izatekotan, nire zindotasu-
na izango da nire ezkontsari; olango gal-
tzezag eztozaz eskuratu gura, ba, lurrok.
- EDOR. B.—Orrako orregaz oker andia egiten
dautsezu zure seme-alabai-
- L. GREY.—Orrako orregaz zure goikotasunak
guri bitsuoi, niri ta nire seme-alabai, egi-
ten dauskuzu oker andia. Baña, yaun al-
tsu, biotz nasaieiiiko zure lera ori eztagoko
nire eskari gotilunari; baietz, naiz ezetz da-
la, agur egistazu, arren.
- EDOR. B.—Bai, nire eskariari baietza emon
ba'dagiozu; ez, zuk nire eskariari ezetza
emotekotan.
- L. GHEY.—Olan ba'da, ez dirautsut, ene yaun.
Amaitu da nire eskariagazkoa.
- GLOS.—(CLAR.'eri bakarrik) Etxakok gogoko
alargunari, betozkoa erakusten yautsak.
- CLAR.—(GLOST.'eri berkarrik) Kistarrstan da-
nik eta maitemindurik amutsena dok ori.
- EDOR. B.—Lotsortsu be lotsortsu dala no ori
diragarre bere begirakueak; bardinbako-
tzat darakuse bere itzak bere zurtasuna; na-
gusiagotzea añako dira bere osotasunak; bi-
de batez, edo bestez, bakaldunen batentza-
ko da no ori; *eta* edo nire kutun, edo nire
bakaiduno izango da no ori (Bere kitean di-
ño auj.—Edorta Bakai-aunak bere oakaldu-
notzat artu zagizafa esan gura dozu, ala?)
- L. GREY.—Ori esatea izatea baño errazago
da, ene yaun eskartsu: oeragaz otgetan eta
txantxetan ibilteko bendeko egoki naz ni,
ez-egoki be ez-egoki nagusien izateko.
- EDOR. B.—Alargun ezti, nire bakalderria-
arren zin dagitsut nire gogoak gura daue-
naz besterik eztrautsudaia; eta orrako ori
zu nire maitetzat gozatutea da.
- L. GERY.—Eta ori nik men egin daikeodan
baño geiago da: ba-dakit nik zirtziiegi naza-
la zure bakatduno izateko, eta orraitieño be
onegi zure kutun izateko,
- EDOR. B.—Besterako-billa daragoiozu zuk,
alargun; nire bakalduno esan gura izan dot
nik.
- L. GREY.—Naibagatu egingo zauz nire se-
meak zu aita deituteak.
- EDOR. B.—Ez nire alabak ama deituko zaue-
zanean baño geiagorik. Alargun zara zu, eta
ba-dozuz seme-alabaren batzuk; eta. Yaun-
goikoaren Ama-arren, mutilzar izan-arren,
nik neuk be ba-dodaz batzuk: Ba! zer zori
ontsu da seme-alaba askoren aita izatea.
Bego, nire bakalduno izango zara-ta,
- GLOS.—(CLAR.'ri bakarrik) Amaitu dau bere
autortzea aita yainkotiar orrek.
- CLAR.—(GLOST.'eri bakarrik) Autorla egin ba'
dok, autortzeak egin yok.
- EDOR. B.—Anaiok, guk alkarri txutxuputxuka
taagopean esan dautsaguna yakin gura do-
zue, ala?
- GLOS.—Etxako gogoko izan alargunari, goti-
lun dagola dirudi-ta.
- EDOR. B.—Iñondiko eretxiko zeunskioe zuok,
nik ori ezkondu ba nei.
- CLAR.—Nogaz, ene yaun?
- EDOR. B.—Neugaz, ba, Clarence.
- GLOS.—Gitxienez be amar egunerako arriki-
zun litzake ori.
- CLAR.—Arriituak dirausn baño egun bat geia-
go dok ori.
- GLOS.—Orrenbestexean da arrikizun ori arri-
kizunegi.
- EDOR. B.—Tira ba, yo adarra, anaiok: zera
esango dautsuet, emona dala bere senarra-
ren lurrekazko orren eskakizuna.

Aitonseme bat aurrera.

AIT.—Ene yaun eskartsu, goatu dabe Endika
zure arerioa, etc: atxilo ekarri dabe zure
yauregiko atetara.

III ÁGfcKitKu.—PAN

Txera-eresaldi. KOLDOBIKA Pantze'ko Bakalduna, ta BONE ANDERAÑOÁ aurrera, lagundurik; bere yarlekuan yarten da BAKALDUNA. MARGARITE BAKALDUNOÁ, ta bere Seme EDORTA BAKALSEMEA aurrera gero, bai- OXFORD'EKO KONDEA be.

KOLD.—Ingelanda'ko Bakalduno lirain ori, aintzako Margarite, gugaz yezarri zadiz: eztagoko zure egoteari, ez zure yaiotzeari, Koldobika yezarriia dagon bilarlean zu zutunik egoterik.

MARG. B.—Ez, Pantze'ko bakaldun altsu: bere ontzi-oiala eratsi-bearrean, eta bakaldunak aginduten daben lekuan apur baten ikasi-bearrean dago orain Margarite. Lenagoko urrezko egunetan Albion andiko bakalduno izan nintzala autortu-bearrean nago: baña, orain zori txarrak ostikopean dau nire ize-na, eta lotsariz lurreratu nau; eta lurrean artu bear dot nire zoria lango yezarlekuá, eta nire yezarleku apalari dagokonez erago bear dot nik.

KOL. B.—Ba! esaizu, bakalduno lirain. nondik datortsu etsipen andi ori?

MARG. B.—Nire biotza artegatasun eta kezka-tan itorik dagon bitartean nire begiak negarrez bete, ta nire miñari ixilduazoten dau-tsana lango zegaititik.

KOL. B.—Dana dala orrako ori, zeu lango izan zadiz oraindik, eta gure aldameanean yezarri zadiz; ez makuríu zure iduna zoriaren buz-tarpera, oraindio be bildurrik bagako zure gogoari zori txar guztien ganean garaila ibi-liazo baño (Bere aldameanean yezsrríafzoten dcrutso). Argi ta garbi itz egizu, Margarite Bakalduno, ta iragarri eiskuzu zure lorra; arinduko dogu Ior ori, Pantze'k nasaitasunik emon al izatekotan.

MARG. B.—Itz txerakorrok biztu egiten dabez nire gogaketa buru-makurrak, eta baimena ta eiderretsia emon nire ezbeaz eta naibaga miñ-lotuai. Beki, ba, orain Koldobika zin-doak Endika, nire maite bakana, bakaldun izatefik gizon erbesteratu egin dala, eta Eskolanda'n bertanbera itxirik, bizitien bear-turik; bien bitartean York'eko Duke Edorta arro geiagokeritsuak Ingelanda'ko legezko bakaldun benetan gantzutuaren bakaldun-izena ta yezarlekuá, osturik, berak dauzala. Au dala-ta, ni Margarite errukarri au, {nire seme, Edorta Bakolseme, Endika'ren oñordeko onegaz batera) zure laguntza zu-zen legezkoaren billa ta eske etorri naz ona;

eta zuk orretan uts egin ba'dagiskuzu, egin dau gure itxaro guztienak; ba-dau Eskolan-da'k laguntzeko gogo onik, baña ezin dau; bai gure erria, bai gure andikiak, bitsuek dagoz okerreko bideraturik, goaturik gure onidasunak, igesirik gure gudariak, eta, da-kusazunez, eskala uts gu geu.

KOL. B.—Bakalduno ospatsu, epez baretu egi-zu zure biotzeko ekatx ori, ori zelan ezerez-tuko asma-asmaka daragoiogun bitartean.

MARG. B.—Guk eixonago ta sendoago egiten da gure arerioa.

KOL. B.—Nik etxonago ta laguntza oba eta se-guruago emongo dautsut.

MARG. B.—Ui, baña artegatasuna, eperik-eza dabil beti ezbearraren inguruan; eta ara non datorren nire naibagearen iturri ta sortza-ilea bera!

WARWICK aurrera, Lagunakaz.

KOL. B.—Nor da gure aurrera orren azani da-torrena?

MARG. B.—Guro Konde Warwick da, Bdortc'ren adiskiderik andiena.

KOL. B.—Ondo etorria, Warwick'eko Konde! zek zakaz Pantze'ra? (Bere yarlekutifc yotsia-la, Yagi egiten det MARGARITE).

MARG. B.—Bai, orain asten da yagiten biga-rren ekatxa; au da, ba, *axea ia* uginak, bi-tsuak darabiltzana.

WAR.—Aintzako Edorta, Albion'go Bakaldunagandik, nire yaun eta nagusien, zure adis-kide agiriagandik nator ni, txerakortasunez, eta eruditurik bagako biotz onez..., lenen, zure bakaldar notinari agur egiteko; urren, adiskidetasun-itunbena eskatuteko; eta az-kenez, adiskidetasun ori ezkontza-lokaniz es-tuago egiteko, zure arraba Iirain Bone onin-dartsua legezko ezkontzaz Ingelanda'ko ba-kaldunari emon ba'dagiozu.

MARG. B.—Orrako ori aurrera yoatekotan, egin dau Endika'ren itxaroarenak.

WAR.—(BONE'ri) Eta, anderaño eskartsu, gure bakaldunaren izenez agindurik nator, zure ederretsia ta eskarrez, apal apalik zure es-kuari mun egiteko ta nire miñagaz nire nagusienaren biotzeko zuganako garra zuri iragarteko; entzuteak, ba, aren belarri zo-lietara oraintsu eldurik, aren biotzean imini ta irarri dauz zure edertasunaren irudia ta zure onindarra.

MARG. B.—Koldobika bakaldun, eta Bone an-

kubidea makal ba'da, Edorta'ren zori oneñik agri ledikenez, olan izatekctan bidezko da nik eskuak len aginduriko laguntzatic yarei eukitea Orraitño be, biotz on eta txera argi guztia izango dozu nire aldetik, zure egokereak eskatu ta nik emon daiketsudan guztia.

WAR.—Eskolanda'n bizi da orain Endika, iñok orretara beartu bagarik, eta an ezer eztauenazkero, ezer ezin galdu. Eta zu zeugazko, "guondam" gure bakalduno izanagazko, badozu zuk zure aita, zuri eusteko; eta oba litxakitsu Pantze bagarik zure aita kezkatutea.

MARG. B.—Ixilik zagoz, Warwick lotsabako ori..., bakaldunak eragi-eratsika zabiltzan arro ori! Eztot alde egingo nik emendik, nire itzez eta negarrez, bitsuek egiz beteak, Koldobika Bakalduna zure eragokera maltzurraz eta zure yaunaren maitasun ustelaz oartu arte; zuok biok zarle, ba, abi bereko txoriak. (Adarr-otsa barruaki).

KOL. B.—Warwick, bidarien bat da ori, guztzako edo zutzako.

Geznari bat aurrera.

GEZN.—Ene yaun ordeko, zutzako da idazki au, zure anai Montague Marketzagandiko; (KOLD. B.'ri) zure nagusiagotzearentzako ta gure bakaldunagandiko, beste au; eta, andera, zutzako, au (BONE'ri); (MARGARITE'ri) onako au eztakit nogamdjko dan. (Ba-dirakur bakotzak berea).

OXF.—Gogoko yaí gure bakalduno lirainak barrioi dagitsen irrfbarrea, Warwick'ek beretzakoai betozkoa okertuten dautsen bitartean.

BAKALS.—Areaço, ikusi zelan Koldobika'k ostikoaz lurra yoten dauen, csunak erre ba' lebe legetxe: ba-dot itxarorik zerak onerako bidea artu dabela.

KOL. B.—Warwick, ze barri dozu zuk? Eta zuk, bakalduna lirain?

MARG. B.—Nire biotza alangorik uste bagako pozez beteten daustenak, nireak.

WAR.—Naibagaz beteak eta biotza artegatuten baustenak, nireak.

KOL. B.—Ostera! Lady Grey'gaz ezkondu da zure bakalduna, ala? Eta orain, zure ta bere asmakizuna labanduteko, papela bidalten daust epe-eske? Au da ak Pantze'gaz egiteko billa dabilen itunbena, ala? Onenbesteraño gu zapuztu ta ez-aintzakotzat artzeraño atomau ete da?

MARG. B.—Orrako ori len be esan dautsatanik zure nagusiagotzeari; or agiri dira Edor-

ta'ren maitasuna ta Warwick'en zindotasunc.

WAR.—Koldobika bakaldun, autor dautort emen, Yaungoikoaren aurrean, eta zoriategiko zori onagazko dodan itxaroa-arren, nik nire burua garbi dodala Edorta'ren bide bagako erago onetatik..., oraindik ara ezta a nire bakaldun, lotsaturik itxi nau-ta, baña bera gelditu da lotsatuago, bere lotsaria ikusteko gauza ba'litz a. Azturik dot nik York'edo etxeagaitik aldiz aurretik il zala nire aita, ala? Ez-ikusi egin dot nik nire lobanoari egindako okerra, ala? Eneuntsan neuk ezarri bakaldun-burestuna, ala? Eneuntsan kendu Endika'ri yaiotzatiko eskubidea, ala? Eta lotsaririk andiena emoten daust saritzat? Beretzako bedi lotsaria! omenerako eskubidea dot, ba, nik: eta, agaitik galduriko nire omena osatuteko, ementxe ta oraintxe agur liagitsot ari, eta Endika'gana noa atzera. Ene bakalduno zindo. ortik zear boaz lengo asarreak, eta oraindik ara zure otsein zintzo naz: azaskatuko naz ak Bone Anderañoari egindako okerreriaz, eta lengo lekuan iminiko dot Endika.

MARG. B.—Warwick, maitasuneratu egin dabe zure itzok beñolako nire gorrotoa; eta parkatu, kitutu ta aztutzat dodaz uts zarrak, eta poztuten nau zu Endika Bakaldunaren odiskide eginik ikusteak.

WAR.—Bai, ain adiskide, ain benetako adiskide-ta, Koldobika Bakaldunari eder ba'litxako gudari-mordo autuen bategaz gu ornidutea, neugan artuko neunke gudariok gure itsas-ertzean legorreratu ta agintari gordin a guduz bere yarlekutik indarrez kentzea. Bere ezkongai barriak eztautso emongo laguntzarik: etct Clarence'gazko, (artu dedan idaizkiak diñenez) egiantz egiantzeko da ak aganik alde egin dauela orain, omenagaitik, naiz gure aberriaren indar eta seguran-tzeagaitik bagarik, irrirts eta lera nasaiagaitik a ezkondu dalako.

BONE.—Neba maite, zelan azaskatuko zara Bone'ri egindako irainaz, bakaláuno zori txarreko oni zure laguntzea emonaz baño?

MARG. B.—Entzute andiko bakaldun, zelan biziko da Endika errukarria, zuk atera ezpa'dagizu a bere etsipen zakarretik?

BONE.—Bat bera dira nire auzia ta Ingelanda'ko bakaldunoarena.

WAR.—Bai nirea be, Bone anderaño lirain; zuonagaz bat da nirea be.

KOL. B.—Bai nirea be. neskato orrenagaz, zureagaz eta Margarite'nagaz. Au dala-ta, eta atzenengoz, osoan erabagita nago izango dozuela gure laguntzarik.

- baño eztozak aik; Edorta nok ni, zuon eta Warwick' en bakaidun, eta gogoko yoiuiia egin bear yoat.
- GLOS.—Eta gogoko yakar.a egin be egingo dok, gure bakaldun azalako; orraitio be, bapateko ezkontzak nekez eta gitxitan izaten yoeck atzen onik.
- EDOR. B.—Ostera! Errikarta anai, i be min arturik ago, ala?
- GLOS.—Ez ni; ez, ez al daust itxiko Yaungoikoak alkarregaz batu diranak banandute-rik; bai, tamalgarri litzake orren ondo buztartu diranak banandutea.
- EDOR. B.—Zuon irri ta gogoaz besterakoa baztarturik, esaidazue zegaitik eleuken izan bear Lady Grey'k nire emazte ta Ingelanda' ko bakalduno; eta, zuok be, Somerset eta Montague, nazai esaiuzue zuon eretxia.
- CLAR.—Olan izatekotan, amen nire eretxia, zera, Lady Bone'gazko ezkontza-arloan irri egin dautsazulako, zure arerio egiten dala Koldobika Bakalduna.
- GLOS.—Waiwick be, zuk agindua egiten darragoiona, a beia be lotsaturik eta iraindurik geldituten da ezkontza eginbarri onegaz.
- EDOR. B.—Zer yazoko, nik asmau daikedan asmoz Koldobika ta Warwick, biak, baketurik gelaitu ba'lediz?
- MONT.—Orraitio be, erbestetik ekatxakazko, Pantze'gaz alango itunbenen bat egiteak etxeoagazko ezkontzeak baño sendoago egingo euksan gure aberri au.
- HAST.—Ba! eztaki Montague'k Ingelanda berez dagola seguru, bere semeak zintzo izatekotan, ala?
- MONT.—Baña, seguruago Pantze laguntzat dauenean.
- HAST.—Erabilteko oba da Pantze, beragan uste onik izateko baño; Yaungoikoa izan dakigula lagun Yaungoikoa ta gure babes ausiezintzat Berak emon dauskuzan itsasoak, eta eurak lagun doguzala guk geure burua yagonazkero, areitan eta gu geugan dago gure segurantzeta.
- CLAR.—Itzaldi onegaitik bakanik Lord Hastings'ek ondo irabazirik dau Lord Hungerford'en oñordekoaren eskua.
- EDOR. B.—Bai, eta ortik zer? Gogoko izan yatan eta emon egin neuntsan; eta zer onetan nire gogoia izango da lege.
- GLOS.—Eta orraitio be, nire ustez, eztau ondo egin zure eskarrak Lord Scales'en oñordeko ta alabea zure emazte maitearen nebeari emonaz; obeto letorkion no a niri, naiz Clarence'ri; baña, zure ezkontzeagaz lurperatu egin dozu zure anaiakanako maitasuna.
- CLAR.—Ostantxean etzeunskion emongo Lord Egville'ren cñdrckoa zure emifzte brçrriaren semeari, zure anaiak euren zoriaren bila beste nonbaifera bidalirik.
- EDOR. B.—Ai ene. Clarence errukarri! emazte bategaitik ago muker? Billatuko dauskat.
- CLAR.—Zeutzako aututen erakutsi dozu zuk zelango burua dozun, eta xalo ta azal daznakero ori, neure arazoetan nire bitarteko neu izafen itxiko al daustazu; eta orretarakoxe, zugiandik laster alde egiteko asma dot.
- EDOR. B.—Alde egin, naiz emlen gelditu, Edorta izango da bakaldun, eta ez egon bere anairen gurariri loturik.
- ELIX. B.—Ene lordok, zuzena egidazue, ta zuok guztiok autortu egin bear dozue bere nagusiagotzeari bakaldunotzara ni eragitea ederretsi baño len, enintzala ni yaotza ta odol zirtzilekorik; eta ni baño zirtzilegok izan dau onango zori onik. Baña nire izen au nitzako ta nirentzako omengarri dan beste, zuok be ederrestea nik gura izan-orren, gogoko eixatsuenazkero, galgordez eta nabagazko odeiez estalten dozuez nire pozak.
- EDOR. B.—Ene kutun, ez egizuz artu aintzakotzat onein betozkoak; ze galgorde ta ze nai bage yausi dateko zure ganera, Edorta zure adiskide zintzo ta orreik men egin bear dausoen nagusien dan bitartean? Areago, ari men egin eta zu be maite bearko zabezanak, eurentzako nire gorrotoaren billa ez ibiltekotan; eta olangorik egin ba' dagie, orraitio be seguru eukiko zaudaz nik, eta nire suminaren azaskatzea eurekan ikusiko dabe.
- GLOS.—(Bere kitean) Ba-dantzut, baña eztot askotarik esango, ainbat eta geiago buruan erabili baño.

Geznari bat aurrera.

EDOR. B.—Geznari, ze idazki, edo ze barri dakak Pantze'tik?

GEZN.—Nire ugazaba ta nagusien, iaazkirik eztakat; eta itzik be gitxi, baña zure berarizko baimen bagarik ezin eralgi neikezan langoak.

EDOR. B.—Ekiok, parkafurik ago; au dala-ta, esaidazak euren itzak ik gogoratu daikekanik eta eginenak. Zer erantzuten yaitsak Koldobika Bakaldunak gure idazkiari?

GEZN.—Nik alde egiterakoan, oneik izan ziran aien itzak eurak. "Oa ta esaiok Edorta ustelari, ire bakaldun dalakoari, yantza-

dituten yakuna, ire anaiea gabaren estalpeun, aruutu bayurik, gudatsgian nasai dagoa, bere gudariak inguruko urietan kirika dagozala, bera yagola utsez yagonik dagoa, gu ara otoz-otoan elduta, ezin ete geinke a geure gogara goatu? Egikizun ori erraztat, olgetatzat dabe gure kuikalariak; ixilka Rhesu'ren txoznaraturik, Oduseu'k eta Dumeda mardoak, trebetasunez eta gizatasunez, andik Taraki'tar zori txarreko zaldiak ekarri ebezanez (5). guk geuk be, gabaren

estaldi baltzez estalirik, otoz-otoan eta eurak onrSzekrc. Wreratu daikeguz Edorta'ren yagolak, efa a bera goatu; eztiñot a erailgo dogunik, a oioz-otoan goatzea baño ezta nire asmoa-ta. Egikizun onetarako nire yarra etorri gura idozuenok, gedarrez eta oioka Encika'ren izena esan zuon buruagaz batera. ("End;ka!" gedar dagie guztiak). Tira ba, goazen aurrera, ixilik; Warwick eta bere adiskidsen alde, gora Yaungoikoa ta Gor!a Gurenní (Alde dagie).

III AGERLEKU.—EDORTA ren Gudategia. Warwick etik ur.

Gauzai batzuk aurrera, BAKALDUNA'ren txozna-aurrean.

I GAUZ.—Tira, yaunak, gizon bakotxa bere lekura: onazkero etzanik dago bakalduna, lo egiteko.

II GAUZ.—Ostera! oera ezta yoango, ala?

I GAUZ.—Ez, ba; zin lango zina egin dau, oi dauen atsedetik artzeko bein be ezta-la etzango Warwick'ena, edo beiarena egin arte.

II GAUZ.—Olan ba'da, biar izango da orra-ko ori, urrean, or diñoenez Warwick orren ur ba'dago.

III GAUZ.—Baña, esaidazue, arren, nor da bakaldunagaz batera txozna onetan lotan dagon aitonsemea?

I GAUZ.—Lord Hastings, bakaldunaren adiskiderik andiena dok orrako ori.

III GAUZ.—Ui, a dok? Baña, zegaitik agindu yok bakaldunak bere yarrailerik onenak urietan etzan 'daitezala, bera atetan leku otzean etzaten dan bitartean?

II GAUZ.—Omengarriago dok orrako ori, galgordetsuago dalako.

III GAUZ.—Bai, baña nasaitasun omentsua emoidazue niri neurí; omen galgordetsurik baño gurago dot nik orrako ori. Ori zelan dagon ba'leki Warwick'ek, eztago ezpairik iratzaniko leukela.

I GAUZ.—Bidea itxi ezik ari gure aztamakilak.

II GAUZ.—Bai, izan be, zer bestegaitik yagoten dogu bere bakaldar txoznea, a gau-are-riostatik yagoteko baño?

WARWICK, CLARENCE, OXFORD, SOMERSET, eta Indarrak aurrera.

WAR.—Au da aren txoznea; eta ara non dagozan bere yagolak. Adorea, mutilak! Orain cmena, edo iñoz bez! baña, zarraikidaze, ta gure izango da Edorta.

I GAUZ.—Nor da cr?

II GAUZ.—Geldi or, iigo zara ostantxean, (Gedar dagie WARWICK'ek eta besteok "WARWICK! WARWICK!" eta Yagolai erasoten dautse; igesi dcaz. onek, "Iskillcak! Iskillcak!" edo egin-ala, WARWICK etct enpaduak crtzetik-ara darraikiela).

Danborrak yo-ala ta tutuak ots egin-ala, barrero aurrera WARWICK eta enpaduak, BAKALDUNA, gau-atorraz yantzirik, yarlekuan yezarrita dakarrela; igeska agiri dira GLOSTER eta HASTINGS.

SOM.—Nortzuk dira an igesi doazanak?

WAR.—Errikarta ta Hastings; doazala; emen dago dukea.

EDOR. B.—Dukea! Ba! Warwick, oraintsuen-gez alde egin zebanean bakaldun enenduzun deitu, ala?

WAR.—Bai, boña anazkeio zeiak aldatu egin 'dira; nire ordezkotzean iraindu ta lotsatu nenduzunean, bakalduntzatik eratsi egin zendudazcn, eta zu orain York'eko Duke egiten etorri noz. Ai ene, zelan yaurteko zuk bakalderririk, zure ordekoa zelan erabili be eztakizunazkero; eta emazte bategaz naikotu be ezin zareanazkero; zure anaiak be anaikiro erabilten eztakizunazkero; erriaren onerako ikasten be eztakizunazkero, eta zure arerioetatik zure burua yagoten be eztakizunazkero?

EDOR. B.—Bai, e? Clarence anai, i be emen ago? Ba, orrazkero ba-yakusat nai-ta-nai-ez

(5) Ikusi Hilforena, K, 435-502. Oduseu'k eta Dumeda'k Rhesu bera erail egin eben, beste batzukaz batera, eiaillok lctan egczala, eta gero Rhesu'ren zaldí ederrakaz burdian alde egin bizkor euren cnizietara.

rritan, bera yagoteko yagola-talde mangelaba baño eztaueia, ouamza eter.cn da eizean, astia emoten eta olgetan. Bide ixilez iragarri dausat, gitxi gora-bera aldi onetan onantza etorri ba'dadi, etorbidezta oi dauen eizaketea arturik, bere adiskideak idoroko idauzala emen, zaldi, gizon eta guzti, a bere abiltotzatik yareiteko.

EDORTA BAKALDUNA ta Eiztari bat aurrera.

EIZT.—Emendik, ene yaun; alde onetan dago, ba, eizea.

EDOR. B.—Ez, bide onetatik, gizon; cor non dagozan eiztariak. Gloster'ko anai, Lord Hastings, eta enparauok, onenbestean urreratu zarie gotzaiaren oreinak ostuteko?

GLOS.—Anai, astia ta arazoa, biak yagozak arin ibiltearen eske; gerturik yagok ire zaldia basobtoko okuluan.

EDOR. B.—Baña andik nora yoateko?

HAST.—Lynn'era, ene lord; eta an ontzia artuta Flandes'era.

GLOS.—Ondo igarrita, bai orixe; orixe zan, ba, nik esan gura nebana.

EDOR. B.—Stanley, ordainduko dauskat ire azartasuna.

GLOS.—Baña, zer dala-ta gagoz emen? Itz egiteko aldirik ezta au.

EDOR. B.—Eiztariok, zer diñozue? Gugaz yoan gura ete dozue?

EIZT.—Oba emen gelditu ta eskegi gagiezala baño.

GLOS.—Alde, ba, gugaz; eta alperriko itzik asko da.

EDOR. B.—Gotzai, agur; yagoik ire burua Warwick'en betozkotik; eta arren egik, nik burestuna barrero neuganatu dagidan. {Alde dccgie}.

VI AGERLEKU.—Torreko leku.

ENDIKA BAKALDUNA, GLARENCE, WARWICK, SOMERSET, RICHMOND GAZTEA, OXFORD, MONTAGUE, Torreko Nagusia, ta Laguntzakoak aurrera.

END. B.—Nagusi yaun, Yaungoikoak eta nire adiskideak Edorta bakaulkitik astindu, nire atxilotzea azkatasuneratu, bildurra itxaroratu, nire naibageak pozeratu dabezanazkerro, zenbat dira gu azkatuterakoan zor yatsuzan alogerak?

NAG.—Onez izan ezik, bendeoak ezer ezin eskatu leie euren nagusienakandik; baña, arren apalek irabaztekotan, zure nagusia-gotzearen parkamena eskatuten dausut.

END. B.—Zegaitik, nagusi? Ni ondo artu ta erabili gaitik, ala? Ez, seguru zagoz ondo ordainduko dausudala zure txerakortasuna, orrako orrek nire baitegi-aldia atseginaldi egin dau-ta; bai, gogai motel askoren ostean, atzanean. etxeko otsen ereskidetasunari eskarrak, euren azkatasuna galdu dabela azuten yaken txorittegioko txorierna lango atsegin-aldia. Baña, Warwick. Yaungoikoaren urren ik azkato nok-eta, eskarrak iri ta Yaungoikoari; A izan dok Egilla, Aren bitarteko edo lanki i. Au dala-ta, bean eta apal biziaz zoriaren gogo totarra benderratu dagidan, zoriak kalterik egingo eztaustan lekuan biziaz, nire aurkako izarrak dirala-ta lur onetsi onetako erriak be zigorrik izan eztagian..., nire buruak oraindik be bu-

restuna aldean eroan-arren, Warwick, iri izten idauskat agintzea, i zori ontsu az ire egite guztietan-eta.

WAR.—Lendik be entzutetsu izan da zure eskarra onindartsutasunez, eta orain onindartsu bestean zur be ba-zareala dirudi, zoriaren okerreria ikusi ta berari zirrist eginik; gitxi dira, ba, euren izarren erara yokatuten daben gizonak; orraitio be, zertxo baten bakarrik ezarriko dausat errurik zure eskarrari, Clarence emen egonik zuk ni autuagazkoa.

CLAR.—Ez, Warwick, agintzagarri zara zu, zure yaiotzean Yaungoikoak oli-adar eta ereñontzezko burestuna emon eutsun ori, eta bake-aldian eta, gudu-aldian be bai, urrean, zori ontsu izango zarean ori; eta, au dala-ta, or dozu nire ederretsia neure kitetik,

WAR.—Eta nik Clarence bakarrik aututen dok yagolatatzat.

END. B.—Warwick eta Clarence, ekadazuez biok zuon eskuak; estutu orain alkarri zuon eskuak, eta eskuakaz batera zuon biotzak be, erizkide-ezak yaurtzetik galazo eztagian; lur onen yagola egiten zaudadaz zuok biok; nik neuk, obenari betozko egin eta nire Egilea goratuteko, agintzarik bagako bizitza bizi ta nire atzenengo egunak yaungoikozaletasunean igaroten dodazan bitartean.

WAR.—Zer deretxo Clarence'k gure nagusienaren ilburukoari?

OLAR.—Clarence'k berak be eder deretxola,

HAST.—Ene ugazaba, beste bein yoko dodaz atepak, orrei dei egiteko.

Arresi-ganean aurrera York'eko Endorea ta Zinegotziak.

END.—Ene yaunak, aurretik oartuik gagoz zuon etorrereaz, eta gure segurantzarako itxi egin doguz atepak; gure zintzotasuna Endika'ri emonik dogu orain-eta.

EDOR. B.—Baña, Emdore yaun, Endika ba'da zuon bakaldun, gitxienez be York'eko Duke da Edorta.

END.—Egia, ene yaun; etzadaz gitxiagotzat.
EDOR. B.—Ba, nire duketzeaz beste ezeren eske enator ni, orrako orregaz bakarrik naiturrik.

GLOS.—(Bere kitean) Baña, azeriak bein bere buiua sartuazkero, laster idoroko dau biderik bere soña be suiraren atzetik sartzeko.

HAST.—Zegaitik zagoz, ba, ez-baitsu, endore yaun? Idigi atepak, Endika Bakaldunaren adiskide gara-ta.

END.—Ori diñozu? Olan izatekotan, idigiko yatsuez atepak. (Alde goitegitik).

GLOS.—Gudalburu azarri-zurra, eta zera beingoan buruan sartu yakona!

HAST.—Dana ondo urtetea gura leuke agure on orrek, berak orretan zer-ikusirik baga: baña, bein sartuazkero, seguru be seguru nago, orri ta orren lagunai erantzunazoko dautsegula.

Barrero aurrera Endorea ta Zinegotziak, bean.

EDOR. B.—Olan, endore yaun: gabaz, naiz gudatez izan ezik, atepak eztabe egon bear itxirik. Ba! ez izan bildurrik, gizon, giltzak emon baño; (Ba-damctsoz besteak giltzak) Edorta'k yagongo dauz, ba, bai, uria, bai zeu, bai bere yarrao yoan gura daben adiskije guztiak.

Danborr-otsa. MONTGOMERY ta Indarrak aurrera, gudari-ibilketaz.

GLOS.—Anai, Sir Yon Montgomery, gure adiskide uste-ongarria dok au, oker ezpa'nago.
EDOR. B.—Ondo etorria augu, Sir Yon! baña, zegaitik ator iskilluokaz?

MONT.—Bere ekatxaldian Edorta Bakaldunaren lagun izateko, edozein bendeko zintzok izan bear leukenez.

EDOR. B.—Eskarrik asko, Montgomery on; baña, guk orain aztu egin dogu burestunera-ko eskubidea, eta orain gure duketzea ba-

ño eztozu eskatuten, ganetikoa guri bidalieu Yuungoikoari eder dakien arte.

MONT.—Olan izatekotan, agur, ni atzera yoango naz emendik-eta: bakalduni otsein egiteko etorri naz ni, ez dukeri. Dantordun, yo, eta goazen emendik, (Ibilte-otsa yoten asten da).

EDOR. B.—Ez, geldi, Sir Yon, apui baten; eta ebatzi dagigun zetariko bide seguruz atzera buiestunaren yabe egin geindekezan.

MONT.—Ze ebatzi ta ebatzi bagako? Itz gitxitan...., ementxe aldarrikatu gura ezpa'dozu bakaldun zareala, zu zure zoriaren eskuetan itxi ta ba-noa ni, zure laguntzat ekarriak atzera eroanik; zegaitik egiteko burrukarik, zuk ezetariko eskubiderik gura ez izatekotan?

GLOS.—Zegaitik ibili aiko-maikoka, anai?

EDOR. B.—Sendoago izan gadizanean egingo dogu eskakizuna; ordurarte, gure asmoak ostondutea da zurtasuna.

HAST.—Ortik zear bidali egizak kezkok! Iskilluok izan bear dabe orain nagusi.

GLOS.—Eta bildurrik bagako gogoak igoten dozak arinen burestunera. Anai, bertatik aldarrikatu aikegu; eta orrako orren otsak adiskide asko ekarri dagikez igana.

EDOR. B.—Zuok gura dozuenez bedi, ba, nire da, ba, eskubidea, eta ostuta baño eztauka Endika'k burestuna.

MONT.—Bai, nagusieneri dagokonez itz egiten dau orain nire nagusienak; eta Edorta'ren aldekoen txapeldun izango naz ni orain.

HAST.—Tutua yo; emen aldarrikatu dogu Edorta: -erdu, gudari, egin aldarriketea. (Poipel bat damotso. Txera-eresaldi.).

GUD.—(Ba-dirakur) "Edorta Laugarrena, Yuungoikoaren eskarrez, Ingelanda ta Pantze'ko, ta Eire'ko Lord, eta abar".

MONT.—Eta dana dala Edorta Bakaldunaren eskubidearen aurka dagona, onako au-arren (Burdinezko bere esku-zorroa lurrera egozten dau) eupada dagiot bik bietarako burru-kara.

GUZTIAK.—Gora Edorta Laugarrena!

EDOR. B.—Eskarrik asko, Montgomery adoretzu; eta eskerrak zuoi guztioi be; lagun ba'dakit zoria. ordainduko dautsuet txera au. Orain, arrats onetan. emen York'en babestu gadizan; eta goxeko eguzkia ostertzean bere burdian yagi dadinean, aurrera egingo dogu, Warwick eta bere kideakanantza; badakit, ba, ta ondo yakin be, Endika eztaula gudaririk. Ai, Clarence gaizto! iri bai badagokik txarto be txarto Endika'ri labanke-

V EKITALDI

i AGERLE: U.—Coventry.

WARWICK, Coventry'ko Endorea, Geznari bi, ta beste batzuk aurrera, Arresien ganean.

WAR.—Nontfik da Oxford adoretsuagandik etorririko bidaria? Zenbat bide yagok emendik ene yaunagana, ene lagun zindo?

I GEZN.—Dunsmore'n da onazkero, onako bidean.

WAR.—Zenbat bide yagok emendik gure anai Montague'gana? Nondik da Montague'gandiko bidaria?

II GEZN.—Daintry'n da a onazkero, gudaroste asarreagaz.

SIR YON SOMERVILLE aurrera.

WAR.—Eaan, Somerville, zer diño nire seme maiteak? Eta, ire igartez, zenbat bide yagok orain Clarence dagon lekura?

SOM.—Southam'en itxi dot nik a bere indarrakaz, eta ordu bien barruan emen izango da la ditxarot. (Danborr-otsa entzuten da).

WAR.—Olan izatekotan, ur-ur da Clarence; ba-dantzut danbor-otsa.

SOM.—Ezta a, ene yaun; alde onetatik dago Southam; Warwick'etik dator zuk dantzuzun danborra.

WAR.—Nor izateko andik letorkena? Euren ustetik bagako adiskideren batzuk, urrean.

SOM.—Berton dagoz, eta laster be laster yaginko dozu.

Ibilketa. Txera-eresaldi. EDORTA BAKALDUNA, GLOSTER, eta Indarrak aurrera.

EDOR. B.—Arresietara oa, tutulari, eta itz egiterako yo egik.

GLOS.—Ikusik gudariz zelan ornidurik dauen Warwick mukerrak arresia.

WAR.—Usterik bagako ezbearrarena! etorri yaku Edorta nasaikeritsua, ala? Non artu dauz loak gure kuikalariak, edo arerioak zelan irabazi izan dauz aik, orren agertutearen ezetariko barririk ez izateko guk?

EDOR. B.—Warwick, idigiko ete dozak orain uriko atepak, itz txerakorrak esan, eta belauinak apalik makurtu, bakaldun deitu Edorta, eta bere aurrean arrukia eskatuko ete njok? Eta ak parkatuko dauskaz irainok.

WAR.—Ez, bestera, aterako ete dozak emendik ire indarrak, autortu nok eragi ta nok

eratsi auen, ire ugazaba deitu Warwick, eta damurik erakutsiko ete dok? Eta oraindik ara be York'eko Duke izango az.

GLOS.—Gitxienez be, bakaldun eu izango intzakela esango eunkeala uste neban nik; ala, bere gogoaz besterako txantxetan ibili dok ori?

WAR.—Dukegoa eztok esku-erakutsi bikainetarikorik, ala?

GLOS.—Bai, bai orixe, konde beartsuk emeteko; otseintzarik egingo dauskat nik olango esku-erakutsiren alderako.

WAR.—Ni nok ire anaieari bakalduntzea emon eutsana.

EDOR. B.—Neure da, olan izatekotan, beste-gaitik ezpa'da, Warwick'en esku-erakutsiz

WAR.—Ez az i Atlas'ik orrenbesteko zamarik eroateko; eta, mengel orri, atzera kendu egiten dausk bere esku-erakutsia; eta Endika dok nire bakaldun, Warwick aren ben-deko dalarik.

EDOR. B.—Baña, Edorta'ren atxilo da Warwick'en bakalduna; eta, Warwick kementsu, onexeri erantzun baño ez egik egin..., zetarako dok soña bein burua moztuazkeror?

GLOS.—Ai ene, dakusan baño geiago al lekus aurreztik Warwick'ek, baña ostu egin dautsoe bakalduna, ostondurik ebala uste eban bitartean! Gotzainaren yauregian itxi zeban zuk Endika errukarria, eta baten alde amar yokatuko dautsudaz baietz idoro zuk a Torrean.

EDOR. B.—Olantxe da bai; eta orraitioño be Warwick zara zu oraindik.

GLOS.—Tira, Warwick, eguzkia nora zapiak ara egizu; belaubikatu zadiz, belaubikatu zadiz; gori dagon bitartean yo egizu burdiña.

WAR.—Olangorik egin baño len moztu egingo yoat esku au ukondotik eta ire mosura yaurtin, ire aurrean nire ikurrina eratsiaz nire burua zirtzildu baño len.

EDOR. B.—Al dokanez erabili-arren ire ikurrina, *axea la* urutuak ire adiskide izan-arren, esku onegaz ire adats baltzetik elduta, ire burua oraindik epel eta moztu-barri dan bitartean, ire odolagaz lurreko autsetan esakune au idatziko yok nire eskuak. "Geiagotan ezta aldatuko Axea nora aia doan Warwick".

II AGERLEKU.—Guáategi bai Buriel'efik ur.

Guda-otsak eta sartu-urtenak. EDORTA BAKALDUNA aurrera, WARWICK zauriturik dakarrela.

EDOR. B.—Olan, or etzan adi; il adi. ta bildurrez il adi. gu bildurrez gindukezan tximitez besterik etzan, *ba*, Warwick. Orain, Montague, eulsiok ik ire yariekuari; ire bilia noa, ire azurkak Warwick'enai lagun izan dakiezan. (Alde dagi).

WAR.—Ui, nor dago emen nire urrean? Erdu nigana, adiskide, ala arerio, eta esaidak nor dan garaila, York, ala Warwick. Zegaitik egiten dodan itaun au? Nire soin eioak darakus, nire odolak, nire indarrrik-ezak, nire biotz gexoak dcrakus lurrari emon bear dautsadala nire soña, eta, nire yausteagaz, arerioari garaitea. Onan men egiten yautsak izaiak azkorearen agoari, bere adarrak arrano bakaldarrari aterpea emoten outsoen izaiak. aren itzalpean leoia bere mokor-ganean, erpak gora egoten zanak, bere gorenge adarrak Yupiter'en zugatza (6) goitik bera begiratuten ebenak, eta bere azpiko txaraka merroak negu-axe indartsuetatik yagoten ebazanak. Orain eriotzearen burustalgia baltzez lausoturik dagozan begiok, eguerdiko eguzkia bestean zorrotz izan dokaz, munduko azpikeri ixil-ostonduak arakatuteko; nire bekokiko izurrak, orain odolez beteak. bakaldunen ilobiak lango dirala esan yoek or sarriñan; nor izan da, ba, bakaldun, nik ari ilobia ezin idigi negikeonik? Eta nor atometan zan irribarrerik egiten, Warwick'ek betozkoa okertuten ebanen? Ara, or datza orain nire aintza autsetan eta odoletan lorrindu ta zikindurik! Nire baso bereziak, nire ibiltegiak, nik nebanan yauregiak bertanbera izten nabe orain; eta nire lur guztietatik nire soña betekoz besterik etxatak geldituten! Zer dok, ba, an-

dikeria, nagusitzea. agintzea, lur eta autsaz besterik! eta, ondo. naiz txarto bizi, bizi gareanez bizi, orraitño be il egin bear.

OXFORD eta SOMERSET aurrera.

SOM.—Ai. Warwick, Warwick! gu gagozanez ba'zengoz zu, oraindik eskuratu geinke galdu dogun guztia; gudaroste itzal bat ekarri dau Pantze'tik bakaldunoak; oraintxe entzun dogu barri au; ai, igesi al izango al zeu!

WAR.—Ba, ori ta gkuzti be, eneunke igesiko. A.; Montague, i emen ba'ago, anai kulun, eldu egisiak eskutik, eta ire ezpanakaz eutziok apur baten nire gogoari! enok maite ik. maite ba'nenduk, ba, anai, ire negarrez urtu ta ikuziko eunke ezpanak alkarri erantsi ta itzik egiten izten eztaustan ezpanetako odol gogortua. Ator, arin, Montague, ostantxean ilgo nok-eta,

SOM.—Ai, Warwick! Montague'k emon dau bere azkenengo arnasea; eta Warwick' eri ideiez egon da aizenengoz arnasea artu arte, eta au esaten izan dau, "Nire gorantziak nire anai adoretuari". Eta geiagorik esan gura izan dau, ta esan be esan dau geiagorik baña aren itzen otsa sapaipeko suodiotsa langoxe izan da-ta, ezin igarri izan dogu zer esan gura izan dauen; baña, atzeneen, urrumeka esan dauena entzun eta aitu al izan dausat, zera, "Ui, agur, Warwick!"

WAR.—Atsedan gozo izango al dau bere go-goak! igesi, yaunak, eta yarei zuon buruak; Warwick'ek, ba, agur dagitsue guztioi, zoriontegirarte. (II egiten da).

OXF.—Goazen, goazen, bakaldunoaren indar andiari bidera urteten! (Alde dagie, WARWICK'en gorpua ba-daroela).

III AGERLEKU.—Gudategiko besle arlo bal.

Txera-eresaldi. EDORTA BAKALDUNA aurrera, garaila-ospaz; CLARENCE, GLOSTER, eta enpuduakaz.

EDOR. B.—Gora-bidean gaukaz bein-beinean gure zoriak, eta garaite-burestunakaz apaindu gabez. Baña, egun argitsu onetan badakust (erdl-ikusi dakust) odei baltz, susmotsu, zemaikor bat, gure eguzki argiari, sar-

kaldeko bere oe nasaira eldu baño len, aurrez aurre urtengo yakona: au da nik esan gura dodana, ene yaunok, zera, gure itsasbazzarreratu dirala bakaldunoak Pantze'n baturiko indarrak, eta, dantzugunez, aurrera datoz, gugaz burruka egiteko.

(6) Arelxa yatsu Yupiter'en zugatza.

Geznari bat aurrera.

GEZN.—Edorta ur eta burrukarako gerturik dago-ta, gertau zadize, yaunak; adoretsu izan ba.

OXF.—Eneban uste gitxiagorik; bere zurtasuna da onen arin ibiltea, gu gertau bagarik idoroteko.

SOM.—Baña, oker dago a, gu gerturik gagoz-eta.

MARG. B.—Poztu egiten daust biotza zuon adorea ikusiak.

OXF.—Emen bedi gure gudaketea; eztozu alde egingo emendik.

Txera ta ibilketa-eresi. Aurrera, uirinean, EDORTA BAKALDUNA, CLARENCE, GLOSTER, eta Indarrak.

EDOR. B.—Yarraila adoretsook, an aragoan

dago baso arantzatsua, Yaungoikoa ta zuok lagun, arraisa bafic len zustarretik enagi bear dana. Zuon suari errekinik geiago ezarribearrik eztoz; ba-dakit, ba, aik kiskalteko bestean gori zagozela; burrukarako atza emon, eta yo, yaunak.

MARG. B.—Yaun, zaldun, eta aitonsemeok, nik zer esan, bestera esango leukie nire negarrak; dakustanez, ba, esaten dodan itz bakoetxeko, nire begietatiko ura edaten dot. Au id'ala-ta, auxe baño ez: arerioaren atxilo da Endika zuon nagusiena; osturik aren lekua; arakindegi da aren bakalderria, erailik dagoz aren bendekoak, ezerezturik aren legeak, eta agorturik aren ondasuntzea; eta an aragoan dago triskantza au egin dauen otsoa, Zuzentzearen aldeko da zuon burrukea: au dala-ta, Yaungoikoaren izenean, yaunak, adoretsu izan, eta emon burrukarako atza. (Alde gudaroste biak).

V AGERLEKU.—Zelaietako beste arlo bat.

Guda-otsak; sartu-urtenak; eta geroago atzeraketa-otsa. Gero aurrera EDORTA BAKALDUNA, OLARENCE, GLOSTER, eta Indarrak, MARGARITE BAKALDUNOIA, OXFORD, eta SONERSET atxilo dabezala.

EDOR. B.—Amaitu da orain asarraldi zaratsu bat. Hammes' Castle'ra eroan berea-lla Oxford; Somerset'egazko, moztu dagioela errudunari bere burua. Zoaze, eroan egizuez emendik; eztautset ezer enlzun gura.

OXF.—Nigazko, ez aut urdurituko nik nire itzez.

SOM.—Ezta nik be, nire zoriari epez nire burua makurtu baño. (Alde OXFORD etct SOMERSET'ek, yagolaikoz).

MARG. B.—Olan, gotilun alde egiten dogu mundidu artega onetatik, Yerusalem eztian alkarregaz pozik batzeko.

EDOR. B.—Aldarrikatu ete da Edorta idoro dagianak sari andia izango dauela, ta ak bere bizia emongo dauela?

GLOS.—Bai, aldarrikatu da; eta ara non datorren Elorta gaztea.

Gudariak aurrera, EDORTA BAKALSEMEA' gaz.

EDOR. B.—Aurrera ekarri lerdan ori, bere itzak entzun dagiguzan. Onangorik! orren gazte dan orantzarik asi ete dateke zizatuten?

Edorta, zelan zuritu daikiek ire burua iski-lloak erabilteagaitik, nire bendekoai eragiteagaitik, eta ik ekarri daustakan urduritahun guztiagaitik?

BAKALS.—Bendekori dagokonez egizu itz, York geiagokeritsu! nire aitaren agoa nazala ni orain egizu; alde egizu zure yarlekufik eta belaubikatu zadiz ni nagon lekuan, zure itzak eurak nik esaten dautsudan biartearen, zuk, etoi orrek, nik eurai eranlzutea gura izan 'dozun itzak eurak.

MARG. B.—A! ire aita izan al litzok orren adorelsu!

GLOS.—Oindiño be gonak al zeuz zuk zeuk, eta eguño ez al zeunsoz ostu bere parkak Lankaster'eri!

BA.KALS.—Aisopa, neguko gabetarako itxi egizuz zure ipuñak eta zure konkorra; zure igarkizun lotsabakoak ezira leku onetarakorik.

GLOS.—Yaungoikoa-arren, txotxo, ire izurri izango nok ire itz orregaitik.

MARG. B.—Bai, gizonen izurri izateko yaioa az i.

GLOS.—Yaungoikoa-arren, alde eragiozue atxilo akargin oni.

BAKALS.—Ez, bizkar-okar asarrekin oni alde eragin baño.

EDOR. B.—Ixilik, mutiko oldetsu, ostantxean liluratu egingo dauskat miña.

CLAR.—Ezibako mutiko, lotsabakoegi az i.

BAKALS.—Ba-dakit nik nire egikizuna; zuok

urren bere iduna arakinaren aitzoari. Ze odol-nyerlekukoik dau orain Roscius'sk (7) egiteko?

GLOS.—Beti dabil susmoa gogo errudunaren inguruan; edozein txaraka artzen dau lapurrak ertzaintzat.

END. B.—Eraskinez txarakan goaturik gelditu dan txoriak, egoak dardaraka dauzala, bildur dautso edozein txarakari; eta txori eme ezti zori txarreko baten ar nazan onek neurre begien aurrean dot nire ume errukarria an intsigirik, goaturik eta ilik gelditu dan zer itzala.

GLOS.—Baí bere semeari egaziñen egikizuna irakatsi eutsan Kerete'ko aita bai izan zan ergel baño ergelago! eta orraitño, bere ego guztiak gora-bera, itorik gelditu zan ergel a (8).

END. B.—Daidal ni; Ikar. nire seme errukarria; Mino, ire aita, guri geure bidea galazo eskuna; ire anaí Edorta, nire seme kunitari egoak moztu dautsazan eguzkia; eta bere sakonak aren bizia iruntsi dauen itsaso az i eu. A! ire ezpataz erail nagik, ez ire itez! Gogozago ta errezagó artuko yok nire bularrak ire ezpatearen mokoá, nire belarriak ipuin negargarri a baño. Baña, zetarako ator? Nire biziaren billa ez ete?

GLOS.—Gizerailatzat raukac, ala?

END. B.—Yazarla bai, beintzat, ba-az; eta errugeak ilazotea erailla izatea ba'dok, aiko, gizeraila az i.

GLOS.—Bere gangarkeriagaitik erail yoat ire semea.

END. B.—Ire lenengo gangarkeriagaitik erail izan ba'endue, ez intzakean biziko nire semerik erailteko. Eta neuk igarrita iragarpen au egiten yoat orain, zera, orain nire bildurrak aintzakotzat artu ez eta yaramonik egiten eztautsen amaikak, amaika agurek, amaika andera alargunek, amaika umezurtzek intziariak intziri ta negarrak negar egingo dabezala i yaio intzalako; biraoz eta añenez beteko abe; agurek, euren semeak, euren emazteak, euren senarrak; eta umezurtzak, euren gurasoak guztiak, igaitik, aldiz aurretik galdu dabezalako. Txirrista ta oio egin yoan mozolloak i yaio intzanean..., iragarpen txarra; garrankada egin yoan gau-beleak, zori txarreko ordua zala iragarteko; damu-ausika ibili zoazan txakurak, eta ekatx zakarrak lurreratu egin yoazan zugatzak; kebide-buruan kokatu zoan bela baltza, eta belamika barritsuak zakarkiro abestunen eragoion. Oi dan baño umein andiagorik izan yoan ire amak, eta, orraitño be, amak itxaro leiken baño gi-

(7) Roscius edo, izen osoz, Quintus Rescius Gaius, daiako uu yaiuízaz yopu zan, baño gizon argi-trebeak edcncn, edcnoz, eta edozetariko gizonen artean agertu oi diraiá, onako au be beñolaiak Erroma'n ointzeiari-arloan gorengo mallara igcn 'an efa, orregaiik entzufetsu cgin zan, Antzerki barregarrietan zan bera antzeiari. Ba-dai, zu, ba, iru'urikcak dira antzerkiak: Barregarriak (Komoidia), Eragioalk (Dramak) eta eurretan odel-ixurtzea dabenak, Odol-antzerkiak (Tragcidiuk). Antzerkiak: ekitaídi ta agerlekutan bananduten dira, lan oneicntxe dakusazunec.

(8) Ipuin?mundo utsera gurouz Daidal eta Ikar'en ipuñak. Eiadetar aineslarien ipuña yatsu cna'ko aiu, baño oñarritzat egirik be izango ete dauen nago. Aita-semeak ziran Daidal eta Ikar, eta Kerete izaroan bizi. Irudigin, etxegin eta asmatzalla trebe zan, ipuñak diñonez, Daidal eta, orregaitik, Kerete'ko bakal dun Mino'ren adiskidetzca irabazteraño eldu zan. Mino'ko Daidal trebeari lurpean zulo andi bat eragin eutsan, an Minotaur edo Mincezen itzaia baiturik eukiteko, Bai egin be Daidal'ek zulca ta andik urteगतxa egin be, zula ari kckemako ta zearbide a'ško be asko emonda. Zulo ori ospatsu da arrazkero, ta "labirintu" izenez ezagun da. Ariadne, Mino'ren alabea ta Teseu, Atenai'ko baikaldunaren seme, aikarregcz maitu'mindu ziran, baño Mino'ren gogoko izan ez gazteon aikarreganaiko maitasuna-ta, Teseu Daidal'ek egindako arako zuloan sartu eban. Baña, zer ez asmau gazteck, len eia orain, maitasun-arloan? Ariadne'k Daidul'egana yo eban, Toscu zulotik ctera ta agaz igesteko bideren bat idorcckeko, eia bai Daidal'ek iraikaisi be. Aril bat artu egizu eskuan eta bidean ycan-aia arilari aria emonazo baño oztczu, esan eutsan Daidal'ek Ariadne'ri, eta bein Teseu'gana elduazkero, ariak erakutsiko dautsu nondik urten, Bai Ariadne'k Daidal'en esona arin egin eta Teseu'gaz Kerete'tik alde egin be. Zer yazo zan eta zelan yazo zan Mino'k yakin ebanean, asarrearen asa'Trez sututa., Daidal berak egindako zulcan sarfu eban bere semeagaz eta zuicko aieak itxi.

Daidai bizkor-trebeak andik egaz igestea asmau eban, eta orreta'rako bai bere soñari, bai bere semearenari lumaik erantsi argizaigaz eta bein ori egindakoan, egaz urten zuletik, itsas-ganik itsas-gan, gora ta gora, eta Daidal bera Itali'rano eldu ei zom onik eta ondo, baño Ikar gixaxoa, goregi egaz egin eia, argizaia eguzkiaren indarrak (beroak) urtuta, itsasora yausi ta on fto zan, seguru be.

ten yoat iie nagusiagotzeari zor dautsadan zintzotasunaien ikurratza.

EDOR. B.—Eskairik asko, Clarence zindo; eskarririk asko, aintzako anai.

GLOS.—Eta, i sortu auen zugatzaii dautsadan maitasunaren agiritzat igaliari emoten dautsadan muna bedi au. (Bere kMectn) Egia esateko, onantxe mun egin eutsan Yuda'k bere ugazabari, eta goraí gedar egin eban, biotzez kalte guztiak opa eutsazan bitartean.

EDOR. B.—Orain bai ba-nago ni nire gogara yezarririk, aberrian bakea ta nire anaien maitasuna dodazala.

CLAR.—Maigarite'gazko, agaz zer egitea gura dau zure eskarruk? Bere uilu Regnier'ek baitu egin dauz Pantze'ko Bakaldunaren alde Sikeli biak eta Yerusalem, eta eurak emona bidali dabe no orren ordaintzat.

EDOR. B.—Alde eragiozue, ta emendik Pantze'ratu egizue. Eta orain zer besterik egiteko, garaite-yai andiz, ikukizun barregarri-pozkorrez, bakaldegitarrai dagokienakaz astia emon baño? Yo idanborrak eta tutuak! Agur, kezka garratz-mingotsok! ditxarodanez, atzenik bagako zure poza emen asten da-ta. (Alde dagie).

Salta'n 1966'gko. Onilaien 9'gnean.

**IRUGARREN ERRIKARTA
BAKALDUNAREN
BIZITZA TA ERIOTZEA**

(THE LIFE AND DEATH OF KING RICHARD III)

IRUGARREN ERRIKARTA BAKALDUNAREN

BIZITZA TA ERIOTZEA

(THE LIFE AND DEATH OF KING RICHARD III)

ANTZERKI ONETAN ANTZEZTURIKO NOTINAK

LAUGAREN EDORTA BAKALDUNA.
EDORTA, Kimuruerriko Bakalseme, geroago.
V EDORTA BAKALDUN izango dana.
ERRIKARTA, York'eko Duke.
GORKA, Clarence'ko Duke.
ERRIKARTA, Gloster'ko Duke, geroago.
III ERIKARTA BAKALDUN izango dana.
Gazte bat, Clarence'ren Seme.
ENDIKA, Richmond'eko Duke, geroago.
VII ENDIKA BAKALDUN izango dana.
BOUCHIER KARDINALA, Canterbury'ko Gotzaiburu.
TOMA ROTHERAM, York'eko Gotzaiburu.
YON MORTON, Ely'ko Gotzai.
BUCKINGHAM'EKO DUKEA.
NORFOLK'EKO DUKEA.
SURREY'KO KONDEA. aurrekoaren Seme.
RIVERS KONDEA, EDORTA BAKALDUNA'ren.
Bakaldunoaren neba.
DORSET'EKO MARKETZA ta LORD GREY.
bakalduno orren semeak.
OXFORD'EKO KONDEA.
LORD HASTINGS.
LORD STANLEY.
LORD LEVEL.
SIR TOMA VAUGHAN.
SIR ERRIKARTA RATCLIFF.
SIR GILLELMA CATESBY.
SIR YAGOBA TYRREL.
SIR YAGOBA BLOUNT.
SIR WALTER HERBERT.
SIR ERROBERTA BRAKENBURY, Torreko Nagusi.
KISTOPOR URSWICK, Abade.
Beste abade bat.
London'go Endore edo Lord Mayor.
Wiltshire'ko Xeripa (Sheriff).
ELIXABETE, IV EDORTA BAKALDUNA'ren Bakaldunoa.
MARGARITE, VI ENDIKA BAKALDUNA'ren Alarguna.
YORKEKO DUKENOA, IV EDORTA BAKALDUN. CLARENCE, ta GLOSTER'en ama.
LADY ANE. Kimuruerriko Bakalaseme, VI ENDIKA BAKALDUNA'ren seme EDORTA'ren alarguna; Clarence'ren Alaba gazte bat.

Lordak, eta Laguntzako beste batzuk; Aitonseme bi, "Puisivant" bat, agiri-idazla bat, Uritarrak, Eraleak, Geznariak, Mamuak, Gudaiak, eta abar.

AGERLEKU__INGELANDA.

tzia erabili; alargun tukutsu baño tukutsua-
goa ta bakaldunoa barritsu andiak dozak
bakaliderrri onetan, gure anaieak aik ema-
kume andikitu ebazanazkero.

BRAK.—Zuoi bioi eske nago, parkatu nagizue-
la, arren; aren nagusiagotzeak zorrotz agin-
du daust, bere anaieak eztagiala izan eze-
tarikoz gizonegaz ezetariko auturik.

GLOS.—Olan izanda be, eder ba'dakitsu, Bra-
kenbury aintzako, guk alkarri esan dagio-
gun edozetan sartu zatekez zu: eztagioiogu
ezetariko azpikeriz, gizon; bakalduna yakin-
tsu ta onindartsu dala diñogu, eta aren ba-
kalduno zindoa urteetan aurreratua, liraina,
ta tururik arean bagakoa dala; oin politik,
kerexa lango ezpanak, begi zoragarriak,
eta miñ atsegingarri baño atsegingarriagoa
dauzala Shore'ren emazteak; eta aitonseme
ta aiton-alabatu egiten dirala bakaldunoa-
ren senideak: zer deretxatsu, yaun? Ukatu
ete daikszu onako guzti au?

BRAK.—Orrako orregaz, ene yaun, nik neuk
eztot egitekorik.

GLOS.—Egitekorik izan ez Mistress Shore'gaz!
Neuk dirautsut, lagun, batez bestek izan
ba'dagi agaz egitekorik, oba litxakiola orra-
ko orri, bere egitekoa ixilean eta bakarrik
egin.

BRAK.—Nor da orrako bat ori, ene yaun?

GLOS.—Bere senarra, zital; salatu egin gura
nozu, ala?

BRAK.—Parkatu nagizu, arren, eskartsu orrek,
eta amaituko al dozu duke zindo onegazko
zure autua.

CLAR.—Ba-yakiguk ze agindu daukakan ik,
Brakenbury, eta egingo dogu ire esana.

GLOS.—Bakaldunoaren bendeko gozak-eta,
men egin bear guk. Agur, anai; bakalduna-
gana noa ni, eta zerbaiterako erabili gura
ba'nok, naiz dala Edorta Bakaldunaren
emazte alarguna arraba deituteko, egingo
yoat nik i yaraiteko. Bitartean, ik uste ba-
ño geiago minduten nau anaiaren arteko ez-
bear andi onek.

CLAR.—Ba-yakiat orrako ori gu biotatik balari
be etxakola ez eder, ez gogoko.

GLOS.—Tiva ba, luzarorako eztoz izango ire
baifegí-a'día; neuk yareíko aut, ostantxean
neu ilgo nok ire ordez (!): bitartean epe ar-
tu.

CLAR.—Nai-ta-nai-ez artu bear: agur. (Alde
CLAR., BRAK., eta Yergolak).

GLOS.—Oa, zapaldu egik atzera bein be za-
palduko eztozan bidea, Clarence xalo, izu-
rrik bagako! Ain maite aut-eta, laster bida-
liko yoat ire gogoa zorientegira, Yaungoi-

koak gure eskuetatiko esku-erakutsirik artu
gura izaekoian. Euña, uor dator emcn? Has
tings azkatu-barria, ala?

HASTINGS aurrera.

HAST.—Egun ona baño ohea nire lord eskar-
tsuari!

GLOS.—Beste orrenbeste nire lord omdasun-
zainari! ondo etorria zauguz egurats zabal
onetara. Zelán igaro dozu, yaun orrek, bai-
tegi-aldia?

HAST.—Epez, lord zindo, baitegiraluak iga-
ro bear dabenez; baño, ni baitegira-bide
izan ziranak eskarrak emoteko izango da ni-
re bizitza guztia, ene lord.

GLOS.—Bai seguru, bai seguru; eta beste
orrenbeste egingo 'dau Clarence'k be; zure
arerio izan ziranak eurak dira, ba, arenak
be, eta zuri egina bera egin dautsoe ari
be,

HAST.—Ainbat eta tamalgarriago arranoa
kaiolaratutea, zapilaia, arrabaltzak eta
aztoareak euren gogara ta azka goatzen da-
rgoioen bitartean.

GLOS.—Ze barri dogu erbestetik?

HAST.—Etxeko au bestean txarrik bat bez sr-
bestetik, gexorik, makal, eta gotilun dago
bakalduna, eta beragazko bildur andia da-
be osagileak.

GLOS.—Paul Gurena-arren, izan be, barri
txarra da ori. Bizibide txarra erabili yok ak
aspaldi onetan, eta alperrik galduegi egin
yok bere burua; orrako ori gogoratzeak be-
rak egiten yok min. Oean yagok, ala?

HAST.—Bai.

GLOS.—I oa aurretik, ni ire yarraí yoango
nok-ela. (Alde HASTINGS'ek) Ditzarodanez, a
ezin bizi dateke; baño, eztau il bear Gorka
bere bide-zaldi-ganean zorientegira bidali
arte. Barrura sartuko naz, Clarence'ganako
aren gorrotoa biztuteko, zegaiti astunez or-
nidu ta sendoturiko guzurrez; eta nire asmo
baltzean nik porrotik ez egitekotan, beste
egun bat be eztau Clarence'k biziteko; eta

(1) Itz-yokoa, berba-yokoa dorabil emein
Gloster'ek bere anai Clarence'gaz; escsngura
biko aditza darabil, berak zer bat escm gura,
ta Clarence'k besterik aitu dagian. Izon be,
Ingelanderaz "lie" aditzak alde bertetik "etzcm,
edo etxun, eta ilobion etzonik edo etxunik.
egon esan gura dau; eta bestetik, guzurra
escm. Gloster'ek onako au dcrabil bere bu-
num; Clarence'k, osterá, lenengo escmgurea
azarten doutso.

dika ilaren zauriak idigi egiten dabez euren ataka leituak eta odola darioe faarriof Lotsaz gorritu adi, lotsaz gorritu adi, itsusitasun zakarraren konkor ori; i emen ego-teak ateraten yok, ba, odol au zan otz utsetatik, euretán ezetariko odolik eztagonetatik; gizatasun eta berezkoaz besterako ire egiteak eragiten yok berezkoaz guztiz fjesterako uriol au. Ui, odol au zeuk egin zeban Yaungoiko ori, azaskatu zadiz onen eriotzeazi Ui, odol au edan dozun lur ori, azaskatu zadiz onen eriotzeaz! Naiz, Yaungoikoa, tximisteagaz yota iiki itxi egizu eralea; naiz, lur, zure agoa zabal-zabal egin da, bizirik iruntsi egizu, bakañdun on onen odola irunsten dozunez, sulezeak eragindako besoak erail eta triskantzatu dauen onen odola irunsten dozur.ez!

GLOS.—Andera, zuk eztozu ezagun goimaitasunaren araurik, txarraren ordeza ona, biraoren ordeza onespina emoten dauen goimaitasunaren araurik.

ANE.—Zital ori, ik eztoz ezagun ez Yaungoikoaren, ez gizonen legerik; abererik be etxagok errukirik arean ezfaueñik.

GLOS.—Baña, nik arean be eztoz, eta orregaitik enaz abererik.

ANE.—Ui, au bai itzal baño itzalago, txerxena egia esaten!

GLOS.—Itzalago ta arrigarriago da angeruak orren asarre izatea. Ernakumetan osotasun yainkoñar zearan orrek, ereti onetan itxiko al daustazu nire egite txar diralakoez nire buxua zurituten.

ANE.—Gizonetan izurritz betea zearan orrek itxiko al daustazu ereti onetan zu biraotu ori biraotuten..

GLOS.—Miñek izenik ezarri daiketsun baño ederrago ta lirainago orrek, asti apurixoren bat emongo al daustazu nire burua zurituteko.

ANE.—Biotzek iruditu daiken baño zakarrago orrek, ik ezin dok buru zuritute gauza danik egin, eure burua eskegiteaz besterik.

GLOS.—Salatu egingo nenduke olango etsipenak.

ANE.—Eta eñsiaz zuritu be zurituko dok ik ire burua; besteai erailte zakarra ezarri izanagaitik eure buruari azaskaize ondo irabazia ezarriaz.

GLOS.—Eta nik erail ezpa'neuz aik?

ANE.—Elegokez ilik. Baña, ilik dagoz aik eta, txerrendar yopu, euk eraitik.

GLOS.—Nik eneban erail zure senarra.

ANE.—Ba, olan izatekotan, bizirik dago.

GLOS.—Ez, ilik dago; eta Edorta'ren eskuz erailik.

ANE.—Guzur biribil baño biribilagoa diñok ik: Margariie BukuluuiGak ikusi ycun ire czpata erailea lurrana eriola; ik aren bularrari eutsola imini, baña ire anaieak ire ezpatearen mokoari bestera eragin eutsونا.

GLOS.—Eragin eta bultzau egin nindun ak bere miñ iraintzalleagaz, arein erua nire sorbalda errugean ganean ezarten eustalako.

ANE.—Zeure oiotez odoitiak bultzau zinduzan zu, arakinkeriez beste ezeren amesik egiten eztozun ori: zuk etzeban erail bakaldun aa, ala?

GLOS.—Bai, ba-dautort,

ANE.—Autorten daustazu, kirikiñokriz orrek? Orrazkero, Yaungoikoak be emongo al daust zu gaitzestea, zure egite zakar geztogaitik; Ui, zindo zan a, otzan, eta onindatsu.

GLOS.—ñinbat eta egokiago bera an dauen Zorioniegiko Bnkaldunarentzako.

ANE.—Zoriontegián dago a, zu ara if.oz be el'duko etzearan iekuan.

GLOS.—Eskarrak emongo al daustaz, ara yoa-teko lagun izan natxakolako; lurrerako baño arako egokiago zan, ba, a.

ANE.—Eta i eu ez az egoki sulezarako izan ezik beste lekutarako.

GLOS.—Bai, beste leku baterako, bera izentetan itxi ba'dagistazu.

ANE.—Baitegien fcatarako.

GLOS.—Zure lo-gelarako.

ANE.—Zori txarra izango al dau zu etzaten zearan lo-geleak!

GLOS.—Olanxe izango da, andera, ni zugaz etzan arte.

ANE.—Orixe ditxarot neuk be.

GLOS.—Ba-dakit olan izango dana. Baña, Lady Ane zindo, ziplada zorrotzoi eta asarreoi baztarrera eragin, eta astiroago eragonaz, Endika ta Edorta, Plantagenet bion aldiz aurretiko eriotzeaz, eriotza orreñ eragilea bera ez ete da gero egilea aña errudun?

ANE.—I eu izan intzan eragile ta egile biraotu be biraotua.

GLOS.—Zure edertasuna izan zan eragilea, zure edertasuna, nire lo-aldietan beti inguruka ebilkidan zure edertasuna mundu osoa erailtera bultzetan nenduna, zure besarte çjozoan ordul-eteñ ni bizi al izatekotan.

ANE.—Olangorik uste izan ba'neu, gizerala, nire atzazalok urratuko eukien edertasun a nire mosutik.

GLOS.—Begiok ezin yasango eukien edertasun a urratuterik; etzindekezan izango o'angoren errudun ni an zure aldamean izateketan; eguzkiak munfu guztia poztu daroanez, olanxe poztuten nendun zure edertasunak; a zan nire egun. a nire bizi.

biak erabili egizuz, biak dira, ba, zure. Eta zure esku eskarisuiiko eskurrik bat baño ezpa'da be, zure otsein lander txiro onek eskatu al ba'dagi, betiko baieztu ta sendoturik itxiko dozu aren zori ona.

ANE.—Zer da orrako ori?

GLOS.—Iletari izateko zuk zeuk baño bide geiagorik dauenari itxi dagiozuzala zure egikizun gotilunok, eta bertatik yoan zadizala Crosby Enparantza'ra; eta zuri zor yatsun arduregaz an ikusiko zaudaz, bein Chertsey'ko lekeretxean bakaldun zindo au andikiro ilobiratu ta damu-negarrez bere ilobia bustiazkerokoan; ainbat zegaiti zuri ezezagunekaitik emon egistazu, arren, zori on au.

ANE.—Biotz biotzez; eta neu be asko poztuten nau zu orren damaturik ikusteak. Tressel eta Berkley, nigaz zatoze zuok.

GLOS.—Agur egistazu.

ANE.—Zuk irabazirik dozun baño geiago *ñā* ori; baña, zu zelan zuritu zeuk irakasten daustazunazkero, lendik agur egin dautsudala iruditu egizu. (Alde LADY ANE, TRES., eta BERK.'k).

GLOS.—Yaunok, eragí gorpua.

AIT.—Chertsey-aldera, ala, yaun zindo?

GLOS.—Ez, Lekaide Zurienera; an etxon ni noz elduko begira. (Beste guztiak alde Gorpua-gaz) Eguño iñok egin ete dautso emakumeri maitaminduarenik onan? Eguño irabazi izan ete da emakumerik onan? Nire da no a; baña, luzaro eztoz eukiko. Onangorik! nik, bere senarra ta senarraren aita erail nebazan onek f cere biotzeko gorrotorik andianean artu emakume ori niretzat; bere agoan birao ta añaenak, bere begietan negarrak, bere gorrotoaren autorla odol-da-

rio ziranen artean; Yaungoikoa, bere yakin-kidetzen.. (n'tzno eragczpenak) ak eukirik, eta nik ezetariko adiskiderik izan ez, nire eskariaren alde ekiteko, txerren agiria ta azalutsaren begirakunek baño, eta orraitioño be nik irabazi emakume a, mundu guztia utsagaitik Ene! dagoneko aztu ete yako bakalseme adoretu a, Edorta, bere yauna, gogaldi asarrean nengola iru bat ilebete dirala Tewks^:ury'n erail nebana? Mundu zabalak ezin emon daike a baño aitonseme eztiago ta ederragorik (Berezkcak bere eskuzabaltasunez eratur, gazte, adcretsu, zur eta, seguru be seguru, bakaldar be bakaldarra...); eta oindiño be emakume ak nigana, bakalseme gozo au bere gaztearo urrezkoan moztu ta no a bera dordo-oeko alargun egin nebanagana eratsiko ete dauz bere begiak? Nigana, osorik be Edorta'ren erdikina besteko be enazan onegana? Nigana, meiki ta onen zori txarreko nazan onegana? Nire dukegoa yokatuko neunke eskekoren ziskuaren alderako, bitarte oso onetan oker egon nazala nire neure goitasunaz; nire bizia-arren, nik neuk ezin-arren, itzalez be itzalez gizon yator idoroten nau emakume ak. Ispilluen bat erositko dot; eta ogei, naiz berrogeiren bat yostun lanean iminiko dotdaz, nire soña apainduteko erak ikasi ta asmau dagiezan: neure buruagaz onezkoak egin dodazanazkero, euki egingo dodaz onezkoak, orretarako zerbait eralgi bear ba'dot be. Baña, lenen, bere ilobira sartuko dot urlri ori; eta gero negarrez eta aiaka atzera yoan nire maitteagana. Argi egik, eguzki eder, nik ispilluren bat erosi arteño, ni igaro-ala nire itzala ikusi al dagidan. (Alde dagi).

III AGERLEKU.—LONDON. Bakaldegiko leku.

ELIXABETE BAKALDUNOA, LORD RIVERS, eta LORD GREY aurrera.

RIV.—Epe artu egizu, andera: seguru zagoz bere nagusiagotzeak laster lortuko dauela barriro be bere betiko osasuna.

GREY.—Gexoagotu egiten dau a bere gatxagaz zu artegatuteak: au dala-ta, Yaungoikoarren, nasai egon zadiz.

ELIX. B.—Zer yazzko litxakit a il ba'ledi?

GREY.—A lango yauna galtzeaz beste okerrik eta kalterik ez.

ELIX. B.—A lango yauna galtzeak kalte ta oker guztiak dakaz beragaz.

GREY.—Seme on bat emon dautsu Yaungoi-

koak onespentzat, a yoan dadinean zure nasagarri izan dakitsun.

ELIX. B.—Ai, gazte da a; eta Errikarta Glos-ter'en ardurapean egongo da aren ume-al dia, ez ni neu, ez zuotatik iñor maite eztauenaren ardurapean.

RIV.—Ebatzita ete dago a izango dala bakalsemearen aldeko ta yagola?

ELIX. B.—Ebatzita egon ez-arren, orretarako zeinduta dago. Baña, olan izango da bakaldunarena bein egindakoan.

BUCKINGHAM eta STANLEY aurrera.

GREY.—Emen dotoz Buckingham eta Stanley'ko Lordak.

ikusirik ízan dauela, eta ire omenak ire irabazi andiai zor yakezala esan, Zer ezin yok orrek? Al andia yok orrek, bai arrano, al yok orrek.

RIV.—Zer, arrano, zer al yok?

GLOS.—Zer al dauen! bakaldungaz ezkondu, mutilzarregaz, mutil lerdenezag ezkondu be bai: ire amamak ezkontza txarragorik egin ebalá uste yoat.

ELIX. B.—Gloster'ko ene Lord, luzaroeqi yasan dodaz zure asarre-agirikak, eta zure irain garratz-mingotsak: Yaungoikoa-arren, aren nagusiagotzeari iragarriko dautsadaz ainbestetan yasan izan dodazan zure agirika zakarrok. Gurago neunke baserriko neska otsein izan, onan bakalduno andi baño, onan estuturik, onan zapuzturik, eta onan ekinik izan baño.

MARGARITE BAKALDUNOA aurrera, atzetik.

Eztot nik poz andirik Ingelanda'ko Bakalduno izanagaz.

MARG. B.—Eta apur ori be gitxiagotuko al yako, Yaungoikoa, arren! niri zor yataz zure omena, egokerea ta yarlekua.

GLOS.—Ostera! bakaldunari iragarriko dau-tsazulagaz zemaituten nozu? Esaiozu, iragarri egiozu, ez euki or barruan: ara, bakaldunaren aurrean be autortuko dot nik esana: Torre'ko zori ta galgordean iminiko dot nire burua. Itz egiteko tertzioa da, azturik dodaz nire nekeak.

MARG. B.—Alde emendik, txerren orrek! gogotanegi dodaz nik: Torrean erail euan ik Endika nire senarra, eta Tewksbury'n Edorta, nire seme errukarria.

GLOS.—Zu bakalduno izan baño len, bai, naiz zure senarra bakaldun izan baño len, zamari izan nintzan ni aren arazo andietan; aren areriozko bedar txarren ateratzalla, aren adiskideak esku zabalez sarituten nebazana; aren odola bakaldar egiteko neurea ixuri nebana.

MARG. B.—Bai, arena, naiz irea baño odol askozaz obarik be ixuri euan ik.

GLOS.—Eta bitarte guzti orretan zu ta Grey zure senarra Lankaster etxearen aldeko maxino zintzazen; i be, Rivers, i eu be orretariko izan intzan: zure senarra etzan gelditu erailik Saint Albans'eko gudaketan. Margarite'ren alde, ala? Azturik ba'dozue, itxi egidazue zuoi gogoratuten zer izan zarien len eta zer zarien orain; ni zer izan nizan eta zer nazanagaz batera.

MARG. B.—Erala zital izan az i, eta oindiño be orixe az.

GLOS.—Clarence errukarriak bertanbera itxi eban Warwick, bere aita; bai, eta zinausla egin zan, eta Yosuk parkafuko ai duiso orrako ori!

MARG. B.—Yaungoikoa azaskatuko al da orrako orretzaz!

GLOS.—Edorta'ren alde, burestunaren alde burruka egiteko; eta orrako orren saritzat, yaun errukarri a, burua mozturik gelditu da. Edorta'rena langoxe, suarrizko al litz nire biotza; naiz, Edorta'rena bigun, nirea langoxe; umeegi ta ergelegi naz ni mundu onetarako.

MARG. B.—Sulezara oa ariñeketan, lotseararren, eta alde egik mundu onetaük, txerrenik txerrenen orrekí an yagok ire bakalderria.

RIV.—Gloster'ko ene Lord, gu zuon arerio gintzazala erakusteko ekin eta ekin gogora dakazakan egun larri-zeregintsu aitan gu gure yaunaren yarraí ibili gintzoazan, gure nagusienagaz, gure bakaldunagaz; alantxe yarraiko gintxakizuzan, zu zeu bakaldun izatekoian.

GLOS.—Ni neu izatekotan!... gurago neunke auzorik auzo saltzen ibili: urrin izango al da nire biotzetik clangoren amesik be!

ELIX. B.—Lur onetako bakaldun ba'zendiz, zuze ustez, izango zeunkean beste poz gitxi dodala nik lur onetako bakalduno izanaz, uste zeinke, ene lord.

MARG. B.—Lur onetako bakaldunoak dauen beste poz gitxi; neu naz, ba, lur onetako bakalduno, eta pozik arean bagako, zelan goa danik fcagako. Ezin dot izan eperik luzarago. (Aurreraíu-ala) Entzun nagizue, alkarregaz burruka daragoiozuen itsas-lapurrok, niri ostua zatituten dozuen bitartean asarre ta burruka zabiltzenok! Zuctalik nor eztago ikciraturik ni ikusiaz? Bakalduno nazan onen aurrean zuok, nire bende-kook, zuon buruak makuríu ezpa'dagistazue, bakaldunotzatik kendua izan-arren, matxinotz ikaratuko ete zauedaz? A, zital zindo, ez egik igesi!

GLOS.—Sorgin zikin izurisu, zer egiten dozu nire begien currean?

MARG. B.—Zuk Iorrindu dozuna barriztau baño ez, ori egingo dot nik iri alde egiten itxi baño len.

GLOS.—Etzagcz eriotzapean erbesteturik, ala?

MARG. B.—Bai, erbesteratu nenduen; baña, emen nire bizilekuan geldituaz erictzeak emongo leuskidan baño neke ta elorrio geiagotz emoten daust erbesteratuteak. Senar bat eta seme bat zor daustazak ik..., eta bakal-

HAST.—Emakume iragarla guzurti ori, amaitu egizu zure biracketu zcraa, zure Valterako gure epea agortu eztagizun.

MARG. B.—Lotsaririk lotsagarriena betor zure ganera! zuk zeuk agortu dozu nire epea.

RIV.—Irabazi dozunez erantzutekotan, zure egizuna irakatsi bear litxakitsu zuri.

MARG. B.—Irabazi dodanez erantzutekotan, zuok guztiok men egin bear zeunskide, zuon bakalduno izaten irakatsi, eta zuok nire bendeko izaten ikasi; Ui, otseintza onik egistazue, eta zuok orra.ko bendekotasun ori ikasi!

DORS.—Ez ibili orregaz ez-baika, burutik eginda dago ori.

MARG. B.—Ixilik, marketz yaun, lotsabako zara zu: osta-osta da aintzakotzat artzekorik zure omen ezar-barria: Ui, gauz al litz zure aitonsetmetza barria bera galtzea ta errukarri izatea zer dan esteko! Goietan dagozanak zartada ta koskorreko asko artu daroetz eurak ikaratu ta astinduteko; eta yausi ba'dadiz, txiki eginda ta zeaturik geldituten dira.

GLOS.—Onu bikaña. arranotan: ikasi egik, ikasi egik, marketz.

DORS.—Ni bestean zu zeu be ukututen zauz onu orrek, ene yaun.

GLOS.—Bai, eta bai askozaz areago be: baña, ni ain gofan yafoa nok-eta, eguratsetako gure etxea eretz-zugatzaren tontorrean dago, axeagaz olgetan ibilten da, ta eguzkiari yaramonik be eztautso egiten.

MARG. B.—Eta itzaldu egiten dau eguzkia; ai ene! ai ene! orain eriotzearen itzalpean dagon nire semea orra.ko orren aurtoria; aren izpi argitsu baño argitsuagoak zure asarre odeitsuak betiko ilunbetan batu izan dauzana. Gure arrano-abian eragita dago zure arrano-abia: orra.ko ori dalmsazun Yaungoiko ori, ez egizu yasan olangorik; adolez irabazia dalako, odolez galduko al da!

BUCK.—Ixilik. ixilik, lotsea-arren, goi-maitasuna-arren ezpa'da.

MARG. B.—Ez ekin niri ez goimaitasunagaz, ez lotseagaz: goimaitasunik бага erabili nozue ni, eta lotsariz triskantzatu dozuez nire itxaroak, Irainkor da niri egiten yatan goimaitasuna, lotsagarri da nire bizia, eta nire lotsarian oraindik bizirik dago nire naibagako sumina!

BUCK.—Bego, bego.

MARG. B.—Buckingham bakaldar ori, mun egingo dausat zure eskuari, gure arteko alkartasun eta adiskidetasunaren agiritzat: onik eta ondo ibiliko al zarie zu zeu ta zure

etxe zindokoak! Zuk eztozu gutarren odolez orbanduriko soñekorik, eta zu etzagoz nire biraoen barruan be.

BUCK.—Ezta emen gagozanetatik besterik inor be; bein be ezтира eltzen, ba, biraok esaten dauzanaren ezpanak baño urrinago.

MARG. B.—Ortzera igcn eta an lo gozotan dagon Yaungoikoaren bakea biraok iratzarri egiten dabelaz besterik ezin sinistu izango dot nik, Ui, Buckingham, yaramon egiozu zure buruari or orragoan dagon txakurragandik! Begira, usigi egiten dcm orrek, zurikeririk dagianean; eta usigi dagianean, eriotzaraño kutsatuko dau orren agin edentsuak; ez izan zer-ikusirik eta crremonik orregaz, zur begia orregaz; alde orregandik; euren atza ezarri dauisoe orri obenak, eriotzeak eta sulezeak, eta orren otsein dira euren bifarteko guztiak.

GLOS.—Zer diño orrek, Buckingham'go ene Lord?

BUCK.—Deusik bez aintzakotzat artzen dodanik, ene yaun eskartsu.

MARG. B.—Ostera! zapuztu egiten nozu nire onu zindoagaitik, ala? Eta zurikerietan, txanpalkerietcn zabilkoz beragandik alde egiteko esan dautsudan txerrenari? Ui, baña, beste egunen baten gogoratu egizu au, orrek biotza naihagaz erdibiturik iixiko dautsunean, eta crduan esaizu igarla ta iragarla izan zala Margarite errukarria! Zuo-tatik baktotxa biziko al da orren gorrotoaren bendeko izaterarte, ori zuonaren benieko izaterarte, eta zuok guztiok Yaungoikoaren gorrotoa ikusi arte! (Alde dagi).

HAST.—Laztuta dodaz nire uleak orren añenak entzuriik .

RIV.—Bai nik be nireak; andi eretxita nago, zegaitik dagon ori azka (yarei).

GLOS.—Ezin dausat nik orri errurik ezarri; Yaungoikoaren Ama Gurena-arren, okernk geiegi egin yac crri; damuturik nago nik nire aldeik egin izan dautsadanagaz.

ELIX. B.—Nik neuk eguño eztausat egin ezetarikorik, nik dakidanik.

GLOS.—Orraitio be zuk onura onik atera dozu orren okeretatik. Beroegi nengoa orain eskar ona erakusteko otzei dan norbaite-ri on egiterakoan. Aor Clarence! Itzalez ondo ordaindu yako ari; bere otseintzen alderako, txarritxokian dago lodituen! Yaungoikoak parkatuko al dauz orra.ko orren errudunak!

RIV.—Ondoren onindartsu ta Kistarri dagokiona da kalte egin dauskuenen alde arren egitea.

GLOS.—(Bere Iritean) Orixe egiten dot beti

BRAK.—Itsaspeko ixilkizunai begira egoteko iain asiirik izun eit; zébuii zure erÍGíaldian?

CLAR.—Ba-nebala uste neban; eta sarritan alegindu nintzan nire gogoia emoteko, baña ugin ikusezintsuen batek atzera bidalten eustan, egurats uts, nasai ta igikorrera urteten galazorik; indarrak indar eta iztenak izten egin nik nire gogoia ortik zear bidal-teko, eta itsasoak sakatu ta eutsin egin ni-re gogoari nire barruan.

BRAK.—Ez ete zintzazan atzarri il-bear gorri orretan?

CLAR.—Ez, ez, bizia baño luzeago egien zan nire amesa; Ui, orduan asi zan nire gogoko ekatxa! Itsaso baltzetik arako olerkariak aitaten daben ontziburu muker-gotilun agaz betiko gaba dauen bakalderrira niñoala uste neban. Ara eldu nintzanean, nire iñon-diko gogoari lenen agur eta txera egin eutsana Warwick entzutetsua, nire aitagíñar-rabearen aita, izan zan; zarataka, gedarrez esan eustan ak, "Ze zigor ete idauko gorde-ta bakalderri baltz onek Clarence zin-aus-learentzak?" Eta geiagokorik бага, ondatu egin zan: orduan Angeru langoxe itzal aldarrai bat ikusi neban, bere adats argit-sua odoldurik ekarrena; eta ak be oioka esan eban, "Eldu da Clarence, Clarence us-tel, igeslari, zin-auslea, Tewksbury'ko guda-tegian ni ezpatat erail nenduna; goatu egi-zue, Suminok, zuon elorrioretara eroan ori!" Orrako orren urren, nire ustez, txerren zikin talde batek inguratu nendun, eta belarrietan ots eta gedar ain iguingarriak egiten eustezan-eta, zaratearen zarataz, ikaraturik atzarri nintzan, eta andik zati baten sule-zan nintzalaz besterik ezin sinistu izan ne-ban..., ainbesterañoko zirria egin eustan arako amesak.

BRAK.—Ezta arritutekorik, jaun, orrako orrek zu bildurtutea; zuri entzunaz beste bagarik, neu be ikaraturik nagola uste dot.

CLAR.—Ui, Brakenbury, Edorta'ren alde egin dodaz nik orain nire gogoaren aurka autortuten idatorkidazan zerok; eta ikusi baño eztozu ak orain zelan ordainduten dausta-zan! Yaungoiko ori! biotz-biotzetiko nire arrenak ezin baretu ba'zabaz, ori bagarik nire egite dongakaitik azaskatu gura ba'do-zu, ni neugan bakarrik ustu egizu zure su-mina, Ui, parkatu egizuz nire emazte erru-gea ta nire ume errukarriak! Yagola, nire aldamenean yezarri zakidaz apur baten; astun dot nire gogoia, eta lo egin gura neun-ke.

BRAK.—Orixe egingo dot, ene lord; atsedan

onik emongo al dautso Yaungoikoak zure eskarrari! (Bcccddun yarleku bate.n Icak artzen dau CLARENCE). Naibageak aldatu egiten dauz atzarrik eta lotan egoteko orduak, goiztu egiten dau gaua, eta gautu eguerdia. Euren anditasuntzat bakalsemeak eztabe besterik euren izenak baño, azaleko omena, barruko lan eta nekeen alderako; eta, minik egiten eztautsen burutape-nen alderako, min egiten dautsen mundu bete ardura artega dabe sarritan; olan da-la, euren izengoití arro, ta izen zirtzilen baten bitartean, eztago ezetariko alderik, azaleko entzuteaz besterik.

Erala biak aurrera.

I ERA'L.—E! Nor dago emen?

BRAK.—Zer gurok, txotxo? Eta zelan etorri az ona?

I ERA'L.—Clarence'gaz itz egin gura neunke, eta neure zangoen ganean etorri naz ona.

BRAK.—Ostera! orren labor?

II ERA'L.—Gogait eragitea baño oba yatsu ori, jaun. Erakutsi egiok dakagun agindua; itzik bez geiago. (Ingi edo popel bcst damot-soe BRAKENBURY'ri, eta ba-dirakur cnek).

BRAK.—Clarence'ko Duke zindoa zuon eskuetan imini dagidala aginduten dauste emen: onako onek zer esan gura dauen azterka enaz ibiliko ni, onek esan gura dauenaz ni erruga izango naz-eta. Or datza dukea lotan..., eta or dozuez giltzak; bakaldunagana noake ni, onan nire ardurapekoa zuon eskuetan itxi dodala ari iragarteko.

I ERA'L.—Yoan baño eztozu, jaun; zurizatea yatsu ori: onik eta ondo ibili. (Alde BRAKENBURY'k).

II ERA'L.—Eta? Lotan dagola erailgo ete dogu?

I ERA'L.—Ez; koldarkiro egin dogula esango yok, atzarri dadinean.

II ERA'L.—Atzarri dadinean! Ba! zoro, iñoz be eztoz atzarriko azken epai-egun andirarte.

I ERA'L.—Ba, orduan esango yok lotan egoan bitartean erail gebala.

II ERA'L.—Epai itza aitautetek damu dalako zera sortu yok nigan.

I ERA'L.—Ostera! bildur az, ala?

II ERA'L.—Ez ori erailteko bildurrik, orretarako agindurik eta bairik ba-dogunazkerok; ori erailteagaitik gaiztetsi izatearen bildur baño, orrako orretatik gu yarei gaikezan bairik etxagok-eta.

I ERA'L.—I tinko engoala uste neban nik.

II ERA'L.—Olantxe nago egon be, ori bizirik izteko.

II ERAL.—Eta azaskatze berbera egotzen dau Ak zeure buru-ganera, zin-susla uste!- e'a erala be ba-zarealako: Lankastertarren etxearen alde bunuka egiteko zin egina zara zu.

I ERAL.—Eta, Yaungoikoarentzako etoi eta azpiyala danek legetxe, ausi egin zeban arako zina, eta zure ezpata etoikeritsuz alderik alde zulatu zeuntsozan enaiak zure nagusienaren semeari.

II ERAL.—Bera kutun izan eta yagoteko zuk zin eginari.

I ERAL.—Zelan ekani zeinke zuk guie aui-ka Yaungoikoaien legeiik, zuk zeuk olan la-iri ausi dozunik?

CLAR.—Ai ene! Noren alderako ta nogaitik egin neban nik egite zakar a? Edorta'gaitik, nire anaeigaitik, beie aldeiak; ak etzauez bidalten orrako orregaitik ni erailteko, oben orretan a ni bestean sakon sarturik dago-ta. Egite orretzaz Yaungoikoak azaskatu gura izatekotan, Ui, yakizue, agirian azaskatuko dala A; Aren esku altsutik auzia ez egizue kendu; Ak eztau kokomakoka ibili-bearrrik, naiz legeaz besterako biierik artu ta erabili-bearrrik, Bera iraindu dabeneana egiteko.

I ERAL.—Nok egin indun, ba, bitarteko odolti, ire eskuz Plantagenet gazte leiden adoietsua, bakalseme ikaslea, il zanean?

CLAR.—Nire anaeiganako maitasunak, txerrenak, eta nire suminak.

I ERAL.—Ire anaeiganako maitasunak, gure bendekotasunak, eta ire utsak, ire okerre-riak zirikatuta bultzetan gabez gu i emen erailtera.

CLAR.—Nire anaiea maite ba'dozue, ez egistazue gorrotorik izan; aren anai naz ni, eta maite be maite dot nik a. Sariz erosiak ba'zarie orretarako, atzera zoaze, eta nire anai Gloster'gana bidaliko zauedaz, nire biziagaitik sari obarik emongo dautsuenagana, Edorta'k nire eriotzearen bairiagaitik emongo dautsuenana baño obaiik emongo dautsuenagana.

II ERAL.—Okei zagoz, gonoto dautsu zuie anai Glostei'ek.

CLAR.—Ui, ez, maite nou ak, eta kutun be kutun nau. Agana zoaze niie aldetik.

ERALE BIAK.—Bai, agana yoan be yoango gaia.

CLAR.—Esaiozue, gure aita Yoik bakaldarrak beie esku gaiailegaz beie iru semeak onetsi ta alkar maite izateko bere biotz biotzetik agindu euskunean gitxi uste izan eba-

la ak gure adiskidetasuna zatitu ta austutik geldituko zanik; onako au gomutau dagiala esaiozue Glostei'eii, bai, ta negai egingo dau ak.

I ERAL.—Bai, enotanizko neganak; guie negai egiteko agindu euskun langoxe negarrak.

CLAR.—Ui, ez egizue baltzitu a, on eta txerakor iia-ta.

I ERAL.—Eduna uzteaientzako dan langoxe. Tiia, oker zagoz; ak beiak agindu ta bidali gauz emen zureaiena egin dagigun.

CLAR.—Ezin izan ledike olangoiik; niie zoiia zala-ta, negar egin eban ak, eta ni bere besartean estututa, intziri artean zin egin eban, ni azkatuteko aleginak alegin egingo ebazala.

I ERAL.—Ba! orixe egin be dagi, mundu onetako yoputasunetik azkaturik zorientegiko pozetara bidalten zauzanean.

II ERAL.—Onezkoak egizuz Yaungoikoagaz, il bear dozu-ta, ene lord.

CLAR.—Yaungoikoagaz onezkoak nik egiteko arako zini yainkotiana ba-dozue zuok, eta onaitiño be, onen itsu zagoze zeun gogoakazko, ni eiaiaz Yaungoikoagaz buriuka egiteko asmotan? Ui, yaunak, gogotan erabii egizue, egite onegaitik gorroto izango dautsuela onetarako bidean imini zaezuanak.

II ERAL.—Zer egingo dogu?

CLAR.—Itxi zuon asmo geztoa, ta yaiei zuon gogoak.

I ERAL.—Itxi gure asmo geztoa! kikilena ta emakumena litzake oii.

CLAR.—Abeieena, piztien, basatiena, txenena da asmo geztoik ez iztea. Zuok bakalseme izan, eta ni lez azkatasuna kendurik baitegian egotekotan, eta zuok lango eralarik etoitokotan..., zuotatik zein elegoke biziik itxi dagiela eske? Ene adiskide, ba-yakusal errukirik arean kuika ire begirakunetan; Ui, azaluts eta guzurti ezpa'dok ire begia, ator nire aldamenera, ta nire ordezes eskatu egik, euk eskatuko eukenez, nire zori txarrean ba'engo; ze eskekok etxok bakalseme eskokoren errukirik?

II ERAL.—Atzea begira yarri zadiz, jaun.

I ERAL.—Autso au. autso au: (Ezpataika darabil) eta guzti au asko ezpa'da, ardaupelean barrura sartu ta ito egingo zaudaz. (Alde dogi gorpuagerz).

II ERAL.—Egite odoltsu, ta etsiak egina! nik hai gogoz be gogoz ikuziko neunkez nire

EDOR. B.—Zori ontsu baño zori ontsuago igaro doqu eguna. Glester, goimaitasun egiteak egin agoz; bakea egin dogu areriotasunetik; maitasun ederra, gorrototik, irainez sumunduriko andiki arroon artean.

GLOS.—Lan onetsia, ene yaun nagusien baño nagusienago. Bakalsemordio onetan inok, guzuzeko ustez, naiz okerreko susmoz, areriotzat ba'nau; zurtasun gitxigaz, naiz niie asarre gorri aHian, batzar onetan dagonek yasan-gatxik ezer egin ba'dot nik, irrikiturik nago ni. beragaz onezkoak egiteko: erioztza yat niri areriotasunean egotea; gorroto dautsat areriotasunari, eta gizon on guztiekandiko maitasuna gura dot. Lenen, andera, zuri nagotsu bake yatorraren eske, nik nire otseintza zintzoz erosiko dodanaren eske; zuri, Buckingham ene lengusu zindo, eguño gure artean ezetarik mukerkeririk izan ba'da; -zuri, ta zuri, Rivers eta Dorset'eko Lordak, orretarako ezetarik biderik бага betozkoz begiratuten izan nozueno; zuoi, Lord Woodville ta Lord Scales; zuoi, duke, konde, lord, aitonsemeoi; izan be, Ez-takit arratseon yaio dnn umeri baño gorroto geiagorik dautsadan gaur Ingelanda'n bizi dan inçtxori; eskarrik askoka nagoko Yaungoikoari, Berak emon daustan apaltasunagaitik.

ELIX. B.—Gaurtik ara yaieguntzat eukiko da egun au; Yaungoikoak atonduko al dauz asarre guztiak. Ene lord nagusien, zure goikotasunak gure neba Clarence zure adiskidetasuneratu dagiala eske nagotsu.

GLOS.—Andera, bakaldunaren aurrean onan niri irri egiteko opatu ete dot nire maitasuna? Nok eztaki ilik dagola duke zindoa? (Guztiak ikaratulen dira) Irain egiten dautsazue ari, bere gorpua aintzakotzat artuezagaz.

EDOR. B.—Nok eztakian a ilik dagola! nor da a ilik danik dakianik?

ELIX. B.—Guztia dakusazun Yaungoikoa, ze mundu fogun au!

BUCK.—Enpaduak bestean zurbil ete nago ni, Lord Dorset?

DORS.—Bai, ene yaun on; eta emen dagozatenatik bat be eztago bere mosuko gorria galdu eztauenik.

EDOR. B.—Ilik dago Clarence? Atzeratu egin zan, ba, agindua.

GLOS.—Baña a, gizon errukarri a, zure lengo aginduz il zan, eta egodun Merkuri'k eroan eban a agindua; elbarritu geldoren batek eroan eban besterako agindua, aren ilobiratutea ikusteko be beluegi etorri zanak. Yaungoikoak gurako ta emongo al

dau norbaitek, zindotasunez eta zintzotasunez Clarence baño gitxiago danek, gogaitan a baho odoltsu-oáoltiago, baña odoiez bakaldunagandik ain urreko eztanek, beragazko susmorik be eztanek Clarence zori txarrekoak baño zer txarragorik ez irabaztea!

STANLEY aurrera.

STAN.—Eskarren bat emoidazu, ene nagusien orrek, nire otseintzen alderako!

EDOR. B.—Ixilik, arrers; naibagaz beterik yachok nire biotza.

STAN.—Enaz zutunduko, zure goikotasunak entzun ezpa'nagi.

EDOR. B.—Olan izatekotan, bereala esaik ire eskaria.

STAN.—Bizia parkatu dagiozula nire otseñari, nagusien orrek, oraintsu Norfolk'eko Dukearen laguntzan izandako aitonseme iskanbillatsu bat erail dau gaur ak-eta.

EDOR. B.—Ba-yoat nik miñik nire anaiea erail ifagiela aginduteko, eta miñ berak yopurik parkatuko ete yok? Gizonik etxoan erail nire anaieak, gogaizko izan zoan aren okerra, eta orraitioño eriotza mingotsa izan dok aren zigorra. Nok egin eustan eskaririk aren alde? Nire sumin-aldian, nor belaunbikatu zoan nire onetan, eta zur ibilteko niri onurik emon? Nok aitatu yoan anaitasunik? Nok esan yeustan anai errukarri ak, Warwick altsua bertanbera itxita, nire alde burruka egin ebalarik? Nok eBan yeustan, Tewksbury'ko gudategian, Oxford'ek azpian nendunean, ak ni yarei ta "Bizi adi, anai maite, ta bakaldun izan adi" esan eustalarik? Nok esan eustan, a ta ni, gu biok ia ilteraño otzak gogorturik, gudategian etzanda gengozanean, zelan batu nendun ak bere soñekoetan, eta bere burua, makal eta billusik, gabeko otz zorrotz gogokorrari emon eustalarik? Asarre gorri zakar obentsuak onako zer guztiok nire gomutatik kendu ta erauzi egin eustazan, eta zuotatik batek be ez eban izan orrako zerok niri gomutarazoteko lain biotz onik. Baña, zuon burtsañak, naiz otseñak mozkorrena lango erailteren bat egin dagienean eta, olan, gure Birrerosla maitearen irudi ederra itsus-tu dabenean, bereala zagoze zuok zuon belaunen ganean parkeske; eta nik, zuzentzeaz bestera ba'da be, emon egin bear dautsuet: nire anaiearen alde, oster, gizonik batek be ez eban itzik egin gura izan, ezta nik neuk be, eskar txarreko onek, ni-

gelditu ispillurik bat baño, ta bera ustela, guzurtia, riire lotsciria an 'kiiRiaz naibagaturik izten nauana. Alargun zara zu; baño, orraitño be ama zara, ta zure umeak damotsuen nasaitasuna geldituten yatsu; niri, ostera, eriotzeak indarrez kendu daust senarra nire besartetik, eta nire esku mengel bietatik makulu bi erauzi, Clarence ta Edorta. Ui, nire min-urrumen aldean zureak erdirik be izan ez-eta, zegaitik artu bear dodaz nire ganera zure dordoak eta zure negarrak ito?

SEM.—Ai, izeko, zuk eztozu egin negarrik gure aitaren eriotzeagaitik! zelan izateko gu zure lagun gure senide-negarrakaz?

ALAB.—Negar bagarik gelditu zan gu umezurtzon zori txarra, negar bagarik gelditu bedi, ba, zure alargun-mina!

ELIX. B.—Ez egistazue emon laguntzarik nire alaketetan; enaz ni auntzurik alaketetarako; nire begietara yoten dabe iturri guztietatiko bideak, iretargi ezoak bere bendeko nauela, mundu guztia itoteko lain negar ixuri dagidan nik! Ai, nire senarragaitik, nire Lord Edorta maiteagaitik!

UMEAK.—Ai, gure aitagaitik, gure Lord Clarence maiteagaitik!

DUK.—Ai ene, biakaitik, biak nire, Edorta ta Clarence!

ELIX. B.—Ze euskarririk izan dot nik Edorta'z besterik? Eta yoanik da a!

UMEAK.—Ze euskarri geban guk Clarence'z besterik? Eta yoanik da a!

DUK.—Ze euskarri neban nik eurez besterik? Eta yoanik dira aik.

ELIX. B.—Eguño ezta izan alargunik onango galtze larririk izan dauenik!

UMEAK.—Eguño ezta izan onango galtzerik izan dauen umezurtzik!

DUK.—Eguño ezta izan onango galtze itzalik izan dauen amarik! Ai ene, naibageon ama naz ni! Zatika dabez orreik dordoak, osoak dira nireak. Edorta'gaitik negar dagi no orrek, eta bai nik be; Clarence'gaitik dagit nik negar, ez orrek; Clarence'gaitik dagie negar umetxook, bai nik be; Edorta'gaitik dagit nik negar, ez eurok: Ai ene, zuok irurok, iru zori txarrekok, nire ganera ixurten dozuez zuon negar guztiak! Ni naz zuon naibagearen inudea (añea), ela nik mizketu ta azi egingo dot nire alaketeagaz.

DORS.—Nasaitu zadiz, ama maite: gogoaz bestera iminten txazu Yaungoikoa. Aren egiteaz zu eskar txarreko izateagaz: eskartxarreko deituten dabe mundu onetan esku za-baletik zorrean artu izan dana gogoaz bestera, muker ordaindutea; areago deituko

dabe Yaungoikoaren aurka olan egotea, Yaungoikoak atzera eskatuten dautsu zorrean artu zebana-ta.

RIV.—Andera, ama arduratsuri dagokenez, gomutau egizu bakalseme gazte zure semea: bertatik bere billa bidali egizuz norbaitzuk; burestundau dagiela; agan bizi da zure nasaitasuna; Edorta zanaren ilobian ito egizu naibaga etsia, eta Edorta biziaren bakalkian landatu egizuz zure pozak.

GLOSTER, BUCKINGHAM, STANLEY, HASTINGS, RATCLIFF, eta beste batzuk aurrera.

GLOS.—Nasaitu zadiz, arraba: guztiok dogu zegaitirik asko gure izar argitsua lausotuz negar egiteko; baño, inok be ezin dauz osatu bere kalteak eurakaitik negar eta alaka eginaz. Andera, ene ama, erruki-eske nagotsu; etzaudaz ikusi: nire belauen ganean apalik eskatuten dautsut zure onespina.

DUK.—Yaungoikoa onetsiko al au; eta otzantasuna, maitasuna, goimaitasuna, bendekotasuna, ta benetako zintzotasuna iminiko al yozak ire biotzean!

GLOS.—(B&re kitectn) Amen; eta ni agure on iltea emongo al daust! au izaten da amaren onespeneren azkena; andi eretxita nago zelan zure eskarrak zure onespeneri ezarri eztauzan,

BUCK.—Bakalseme odeitsuok, eta andiki biotz-minduok, alkarren artean naibaga astun au daroazuenok, alkar poztu egizue orain alkarreganako maitasunagaz: bakal'dun onegazko uztea guk galdu izan-arren, bere semearen uztea batzeko gara. Gorroto gorria oraintsu asurik, arduraz be arduraz yagon bear da alkarregaz batu ta yosirik gelditu diran zuon biotzetako maitasuna; nire ustez, yarraigo urrien bategaz ona London'era ekarri bear da Ludlow'tik bakalseme gaztea, gure bakalduntzat ari burestuna ezarteko.

RIV.—Zegaitik yarraigo urrigaz, Buckingham'go ene Lord?

BUCK.—Ba, ene yaun, yarraigo andiz barriro idigi eztadin gogo txarretiko zauri osaparria: eta oindino bakalderria gordin eta yaurla bagarik dagonazkero, ainbat eta okerrago ta kaltegarriago litzake orrako ori; zaldi baktotxa bere ago-ugalen yabe danean, eta berak nora-gurako bidea artu daikenean, nire ustez, kalteari berari ezeze, kaltearen bildurrari be aurreak artu bear yakoz.

GLOS.—Bakaldunak gu guztiokaz onezkoak

rako, itsasoa artegatu egiten dala ekatx I II URIT.—Ebazleak dei eginda goaz.
ar.dier. bat urrecstii-o-ln. Raña. Yaungoikoa- I III URIT.—Bai ni be: lagun izango natxatsue.
ren eskuetan itxi daigun dana. Nora zoaze? I (Aide dagie).

IV AGERLEKU.—LO[^]TOON. Bakaldegiko leku.

YORK'EKO GOTZAIBURUA, YORK'EKO DUKE gaztea, ELIXABETE BAALDUNOA, ta YORK' EKO DUKENOA aurrera.

GOTZ.—Entzun dodanez, Northampton'en etzan dira bart; eta Stony-Stratford' en izango dira arratseon: emen izango dira biar edo etzi.

DUKEN.—Luze be luze eretxita nago noz ikusiko nik bakalsemea: azkenengoz ikusi nebanazkero asko azi izango dala ditxarot.

ELEX. B.—Nik, ostera, eztala azi entzun dot; York'eko nire semea a baño geiago azi dala esan dauste.

YORK.—Bai, ama; baña, etxat gogoko olan izaterik.

DUKEN.—Zegaitik, ene loba gaite? On <ia aztea.

YORK.—Amama, arako arrats baten. aparitan gengoazala, nire anaiea baño andiago nintfala esaten eragoion nire osaba Rivers'ek: "Bai", esan eban nire osaba Gloster'ek, "txairo izaten dira bedar txikiak, arin azten láira bedar txar andiak"; eta, orregaitik, nik eneunke azi gura onen arin. lora gozoak astiro, bedar txarrak, ostera, arin azten diralako.

DUKEN.—Egia esateko, egia esateko eztok izan olan ori esan dauenagazkoa; zeri zirtzilzen eta zori txarrekoen zoan a gazts-tan; ain luñaro ta ain astiro egon zoan a azten-eta, aren arauz, egizko izatekotan, eder eta lirain izan bear leuke ak.

GOTZ.—Eta ezpai bagarik, olangoxe da a, ene andera eskartsu.

DUKEN.—Olango al da; orraitioño be amek arin larrituen gara.

YORK.—Egia esateko, orrako ori yakin izan ba'neu, nire aziereaz ak adarra yo eustan baño obeto yoko neunskion berari bere aziereaz nire osabeari.

DUKEN.—Zelan, ene York gazte? Iragarri egis-tak, arren.

YORK.—Ba, or diñoenez, ain arin eta bizkor azi zan nire osabea-ta, yao ta ordu bi barru ogi-azalari usika egiteko gai zan a; uite oso bi igaro ziran niri agunik urtea baño len. Amama, adarra yote zorrotz eta mingots litzakean onako au.

DUKEN.—Arren, York .lirain, nok esan dausk orrako ori?

YORK.—Bere iñudeak amama.

DUKEN.—Bere iñudeak! I yao baño lenago il zoan a.

YOTiK.—A izan ezpa'zan, eztakit nok esan eustan.

ELIX. B.—Mutikoaren itzontzi: tirok, maltzurre-gi az i.

GOTZ.—Andera on, atzakioz asarratu mutikoa-ri.

ELIX. B.—Ormak be entzun egiten dabe.

GOTZ.—Emen dator geznari bat.

Geznari bat aurrera.

Ze barri?

GEZN.—Eurak esateak berak be minduten naben barriak, ene yaun.

ELIX. B.—Zelan dago bakalsemea?

GEZM.—Onik eta ondo, andera.

DUCEN.—Ze barri dakak?

GEZN.—Atxilo bidaH dabez Pomfret'era Lord Rivers eta Lord Grey, eta aikaz batera Sir Toma Vaughan.

DUKEN.—Nok aginriuta?

GEZM.—Gloster eta Buckingham'go Duke altsuak aginduta.

E. IX. B.—Ze okerrergaitik?

Gt/iM.—Iragarriko dot iragarri daikedan guztio,- ezertxorik be ezakit nik, ene andera eskartsu, andikiok zegaitik, naiz zer dala-ta baitegiratu dahezan.

ELIX. B.—Ai ene, ba-iiakust nire etxearen ondamedia! Goatu dau orain katamotzak orein otzana; asi da gogorkeri arro lotsabakoa bildurrik emoten eztautsan bakaulki erugearen ganera bere urtuak yaurtiten: ondo etorriak zaoize onadamendi, odol, eta triskantzok! Lutirudian legetxe argi dakust zer guztien atzena.

DUKEN.—Etorreko diran egunon askarri, bi raogarri, artega ta burrukari! Zuotatiko zen batek ikusi dabez nire begiak? Bere bizia galdu eban nire senarrak, burestuna lortuteko; eta sarritan ibili izan dira nire semeak gora-beraka yaurtinik, euren irabazick ni poztu, ta euren galtzeai nik negar egiteko; eta bein bakeak egin eta asarre

tzat, eta leku ori eurentat eskatuteko lain buru dabenezct da yauretze-eskubideu; bakalseme orrek, ostera, eztau irabazí, ezta eskatu be leku ori; eta, au daia-ta, nire eretxiz, ezin euki lei ak leku ori; olan, ba, an eztagona andik kenduaz eztozu austen zuk ez lege berezirik, ezta eskubiderik be. Sarritan entzuna nozu yauretse-babeseraturi" ko gizonex, baña eguño bez yauretze-babeseraturiko umez.

KARD.—Ene yaun, bein benderatuko dozu nire gogo. Erdu, Lond Hastings, nigaz yoango ete zara?

HAST.—Bai. yoango naz, ene yaun.

BAKALS.—Yaun onok, alik eta arinen egizue egiteko ori. (Alde KABD., eta HAST.'ek). Esaidazu, Gloster osaba, nire anaiea etortekotan, non egongo gara bureskunderarte?

GLOS.—Ztire bakalduntzeari ondoen dereñon lekuan. Kik zuri onurik emotekotan. egun baten. naiz bñen, Torrean atsedeen artuko dozu; gero, zeak non-gura eta egokien yatsula uste dozun lelcuan, zure osasunaren eta nasaitasunaren aldetik egokien yatsun lekuan.

BAKALS.—Torrea da leku guztietatik gitxien gogoko yatana. Yuli Kaisar'ek eragi ete eban leku a?

GLOS.—A asi zan toki a eragiten. ene yaun eskartsu; eta, arrazkero, gizaldirik gizaldi barrero eragi izan dabe.

BAKALS.—Idatzita ete dago ak eragi ebalá, ala gizaldirik gizaldi agoz ete datorku ak eragi ebalá?

BUCK.—Ídatzita dago, ene yaun eskartsu.

BAKALS.—Baña, esaidazu, ene yaun, orrako ori idaíza eta ezpa'lego, ez ete litzake asko zer orren barri gizaldirik gizaldira etortea, munduaren atzenengo eguneraño atakotzat esteko?

GLOS.—(Bere kitectn) Gazte orren argirik iñoz be ezta bizi izaten luzaro, or esan daroenez.

BAKALS.—Zer diñozu, osaba?

GLOS.—Zera da nik diñodana, izki bagarik be luzaro biziten dala entzutea. (Bere kitectn). Onan, esangura biko itzez txarrindar zar Gaiztakeriak irakatsi ebanex.

BAKALS.—Ospa andiko gizon zan Yuli Kaisar a; bere adorea ezerragoto egin eban aren zurtasuna, eta bere zurtasunak bizia emon eutsen bere egite adoietsuai; eiioz zeak eztau benderatuten benderatzalla au; bizirik dirau, ba, onek ospaz, bizitez irau eza-rren. Zertxo bat esango dautsut, Buckingham lengusu...

BUCK.—Zer, ene yaun eskartsu?

BAKALS.—Gizonduteraño bizi ba'nadi, barrero

irabazi ta eskuratuko dot beñola guk Paníze'n geban eskuibidea, osíantxean gudari lez ílgo naz, bakaldun lez bizi izan nazan au.

GLOS.—(Bere kitectn) Uda laburren ostean goiz etorten da udabarria.

BUCK.—Emen dator York'edo Dukea, eta ordu onez etorri be.

YORK, HASTINGS, eta KADINALA aurrera.

BAKALS.—York'eko Errikarta! Zelan dago gure anai maitea?

YORK.—Ondo, ene yaun bildurgarri; onan deftu bear aut orain.

BAKALS.—Bai, anai, ire ta nire tamalez; ilbarri dok izengoiti ori ebana, eta izengoiti orrek bere nagusiagotzatik asko galdu yok aren eriotzeagaz.

GLOS.—Zelan dago nire loba, Rork'eko Lord zindoa?

YORK.—Eskarrrik asko zuri, osaba txerakor. Ui, ene yaun, bedar txarrak arin azten dirala esan zeban zuk; ni baño askozaz be andiago egin da nire anai bakalsemea.

GLOS.—Azi dok, bai, ene yaun.

YORK.—Ori idala-ta, bedar txarretariko ete da, ba, a?

GLOS.—Ui, ene loba lerdex, olangorik etxoat esan bear.

YORK.—Olan izatekotan, niri baño begirapen geiágo dautsazu orri.

GLOS.—Nire nagusien dok ori-ta, orrek etxok niri agindu-ezinik; ik, ostera, eztoz nigan senitasunekoaz beste aginperidrik.

YORK.—Arren, osaba, ekadazu zure sastakaia.

GLOS.—Níre sastakaía, ene Lobatxo? Biotzbiotzez.

BAKALS.—Eskean. anai?

YORK.—Nire osaba txerakorrari eskean. emongo daustala ba'dakit-eta; eta yostallu baño eztanazkero, mukerkeri bagarik emongo daust.

GLOS.—Ori baño emoi obarik emongo dautsat nik nire lobeari.

YORK.—Emoi obarik! Ui, ezpatea yatsu orrako ori.

GLOS.—Bai, loba txerakor, arinago ba'litzok.

YORK.—Ba! olan izatekotan, zer arin utsak bakariik emon guia dozuz zuk, dakustanez; ezetza emongo dautsazu zuk eskaleari zer andiágo ta astunagoetan.

GLOS.—Astunegi dok ire eskerrak erabilteko.

YORK.—Arin litzakit, astunago ba'litz be.

GLOS.—Ostera! Nire ískilloa gura eunke, ala, yauntxo?

YORK.—Guxa neunke, bai, zuk deituten nozuna langoxe eskarrak zuri emoteko.

GLOS.—Zelango eskarrak?

YORK.—Eskar txikiak, eskarrak gitxi.

BAKALS.—Oiaindak be zipladaka ibiliko da York'eko nire Lorda: osaba, ba-daki zure eskarrak ze yaramon egín orri, zelan erabili ori.

YORK.—Ni zelan eioan esan gura dok ik, ez nigaz zelan erago: osaba, zuri ta niri, guri bioi irrika daragoio nire anaieak; matxango langoxe, txiki nazalako ni, zure sorbaldetan eroan beai nendukezula uste dau orrek.

BUCK.—Orrek bai ba-daragoiola buru-argitasun zorrotz be zorrotzez! Bere osabeari egingen dautsan irria arinduteko, polito ta trebero dagio irri bere buruari; arrigarri be arrigarri da orren ga'te ta orren trebe izatea.

GLOS.—Ene yaun eskartsu, ire bideari ekingo ete dautsak? Ire amagana yoango gozak n' ta Buckingham nire lengusu ona, Tonean ak iri bidera urten eta ondo-ertoria an iri emon 'a:agiskala ari eskatuteko.

YORK.—Ostera! Torrera yoan bear dok, ala ene yaun?

BAKALS.—Nai-ta-nai-ez ni ara yoatea gura yok nire yagola yaunak.

YORK.—Nik etxoat lorik nasai egingo Torrean.

GLOS.—Zegaitik ez? Zeren bildur izateko?

YORK.—Arrano, nire osaba Clarence'ren mamu asarrearen bildur: amamak esan eustan an erail ebela a.

BAKALS.—Osaba ilen bildurrik etxoat nik.

GLOS.—Ezta bizirenik be, ditxarodanez.

BAKALS.—Bizirik fca'dagoz, euren bildurrik eneunkela izan bear ditxarot. Baña, ator, ene yaun; eta biotza astun daroadala, nire go-go eureka dodala, natioak Torrera.

(Ador-otsa. Ald'e BAKALSEME, YORK, HAST., KARD., eta Lagumtzrakoak.)

BUCK.—Ez ete dozu uste, ene yaun, bere ama me-zorrotzak zirikatu dauela York txiki berritsua zuri olango irri ta barre iraintsuak egiteko?

GLOS.—Bai, seguru; bai, seguru: Ui, mutikoaren itzontzi! mutiko azarri, bizi, buru-argí, aurreraru, gei dana: osoan dok a bere amarena, buru-erpinetik beatzetaraño.

BUCK.—Tira ba, atsedan artu dagiela. Ator ona, Catesby. Gure asmakide izateko ta

ixilkizuna gordetako zin eginik ago i; badakik ik, yakitun ago i, zegaitik arin egin gura dogun egitekoa; ze eretxi dok ik onako onetzaz? Ez ete litzakek egikizun erraza Gillelma Lord Hastings gure aldera ekarte, duke zindo au izaro ospatsu onetako bakaulkian ezarteko?

CATES.—Aren aitaganako maitasuna-anen ain maite dau ak bakalsemea-ta, ezin iia-bazi izango dogu a bakalsemearen auika-ko ezetaiako.

BUCK.—Tiia, ba, olan izatekotan, auxe baka-riik; oa, Catesby zindo, eta, beste zeieginen bat egingen dokanaiena eginik, azteitu egik zetaia dagon Loid Hastings guie asmoagazko; eta biar Toneiako dei egio, buleskunde-yaietan an egoteko. Guie aldeia-ko itzulbeia dagola ikusi ba'dagik, eiagiok orretara, eta fiagani egiozak guie onetaiako zegaiti guztiak: a mukei egotekotan, lei otz, gogoaz bestea egoiekotan a, ik euk be olangoiena egik; eta, olan, eten egin autua, eta fiagarri egiskuk aien ieiea; Onularibatzai bi egingo doguz, ba, biar, eta egiteko onik izango dok ik aitan.

GLGS.—Niie goiantziak emiozak Loid Gillelma'ri; esaiok ari, Catesby, bai ixuiiko dogula Pomfiet'eko Gazteluan aien aieiiomoido zanaian odola; eta esaiok nire yau-nari bani onon pozanen Shore andereari beste maatxo gozo bat emon dagiela.

BUCK.—Oa, Catesby on, eta ondo egik egiteko au.

CATES.—Ene yaun on biok. al dodan ardura guzfiagaz egingo dot.

GLOS.—Zu Iotara baño len yakingo ete dogu zure egikizunagazkoa, Catesby?

CATES.—Bai, ene yaun.

G-LOS.—Crosby Place'n idoroko gozuz gu biok. (Alde CATESBY'k).

BUCK.—Baña, zer egiteko guk, ene yaun, Lor Hastings'ek gure asmoen aldera men egin ezpa'tfagi?

GLOS.—Buru moztu ari, gizon; zeozer egingo dogu; eta ara, ni bakaldun izan nadi-nean, eskatu niri Hereford'eko kondetzea ta nire anai bakaldunak izan ebazan ondasun eraingarri guztiak.

BUCK.—Gogoratuko dautsut zure agindua.

GLOS.—Noz emongo begiia egon baño eztozu, biotz-biotzez emongo yatsuz-eta. Erdu, teitziotz apaldu dagigun, geio guie asmoak zelan edo alan yanausi al daiguzan. (Alde dagie).

II AGERLEKU.—LORD HASTINGS'en etxe-aurrea.

Geznari bat aurrera.

GEZN.—Ene yaun, ene yaun!... (Atea yo-ala).

HAST.—(Barrurik) Nor dago ate-yoka?

GEZN.—Lord Stanley'gandiko bat.

HAST.—(Barrutik) Ze ordu da?

GEZN.—Laurak eginak.

HASTINGS aurrera.

HAST.—Gau aspergarriotan ezin egin ete dau lorik ene Lord Stanley'k?

GEZN.—Olan dirudi ni esateko nazanetik. Lenen, aren gorantzak zu zindo orrentzat.

HAST.—Zer urren?

GEZN.—Urren ak íragarten dautsu. zuri yaun orri, buru-koskola basaurdeak kendu dautsalara ames egin dauela; orrez ganera, batzar bi dirala egiteko diño ak; eta yazo ledikela bietatik bataren erabagiak iri ta niri negar eragitea, bestean egon gerealako. Au dala-ta, zure eretxia yakiteko bidali nau ak, ía bertatik zaldi-ganeratu ta albait arinen, beragaz batera, iparralderako bidea artu gura dozuentz, ak susmetan dauen galgordetik zirrist egiteko.

HAST.—Oa, txotxo, oa, oa atzera ire ugazabagana; esaiok ari eztagiala izan banazko batzarren bildurrik; bietatik batean gagozala a ta ni, eta nire adiskide on Catesby dagola bestean; gugazkorik ezer ezín yazo datekela, batean naiz bestean, guk yakingo eztogunik. Esaiok zuzarrrik bagako dirala aren bildurrak, ume-bildurrak; eta aren amesakazko, arriturik eta andi eretxita nagola, lo artegetako amesen irriai ak yarmonik egiteaz; basaurderik gure yarrai etorri-aurretik basaurdegandik igestea, basaurdeak gure yarrai etorteko asmorik be eztaueanean, gure yarrai etorri dadin zirikatutea, ta gure yarrai etorriazotea ledikela. Oa, esaiok ire ugazabari, oetik yagi ta datorrela nigana; eta biok yoango gareala Torrera, eta an ikusiko yok ak basaurdea txerakor izango yakula.

GEZN.—Yoango naz, ene yaun, eta esango dauatsat ari zuk diñozuna, (Alde dagi).

CATESEY aurrera.

CATES.—Egun on asko opa dauksadaz nire yaun zindoari!

HAST.—Egun on, Catesby; goiztar zabilkuz;

ze barri, ze barri, loka ta ziboka dabilkun gure aldi onetan?

CATES.—Ziboka dabilen mundua da au, izan be. ene yaun; eta bakalderriko lora-sortea Errikarta'k erabili arte, buruz-gora ínoz be eztala ibiliko uste dot nik.

HAST.—Ostera! Lora-sortea erabili! burestuna esan gura ete dozu?

CATES.—Bai, ene yaun on.

HAST.—Burestuna orren okerreko lekutan iminita ikusi baño len gurago neunke nire buru au moztu dagistela. A burestun-billa dabilen susmorik ba-dok, ala?

CATES.—Bai, nire bizia-arren; eta eure kitek bere aldekoen artean itxaro au ak, ortik ik irabazi onik aterateko: eta orretarako, barri on au bidalten dauks, zera, egun onetantxe il bear dabela Pomfret'en ire arerioak, bakaldunoaien senideak.

HAST.—Egia esateko, barri onegaitik etxoat ez negarrik, ez iletdrik egingo, oindiño be aik nire arerio izan dozak-eta: baña, nik nire autarkia Errikarta'ren alde emoteagazko, olan nire uçazabaren ondorençcai, legez aren urren datozanaí,bideak itxirik, fca-yakik Yaungoikoak nik eztodala egingo olangorik tizi nazan artean.

CATES.—Asmo on orretan eukiko al au Yaungoikoak!

HAST.—Baña, urtebeterako barrerik ba-yoat onako onegaz, zera, oindiño be bizirik nagola, nire ugazabaren gorrotoa ekarri eustenen eriotza odicsua ikusteko, Tira, ba, Catesby, amabost bat egun-barru bidaliko dauksat ik oicmçoren amesik be eztokan lotukien bat.

CATES.—Zer zakarra dok iltea, ene yaun eskartsu, gizonak orretarako gertau bagarik, eta olangoren uste bagarik dagozanean,

HAST.—Itzal baño itzalago, itzal baño itzalagc! eta ori yazoten yakek Rivere, Veaughan eta Grey'ri; eta beste orrenbeste yazoko yake i ta ni bestean segurutzat dagozan beste gizon batzui be; ik dakikanez, Errikarta bakalseme ta Buckingham'en adiskide diranai.

CATES.—Aintzako baño aintzakoagotzat abe i bakalseme biak. (Bere kitean) Bai, London'gc zubian gofcm i eskegiteko bestean aintzako.

HAST.—Ba-yakiat ba-nabena; eta ondo irabazirik yoat orrako ori.

STANLEY aurrera.

Aurrera, aurrera; nondik da, gizon, zure basaurde-aztamakilea? Basaurdearen bildur izan, eta orren gertau bagarik?

STAN.—Egun on, ene yaun; egun on, iri be, Catesby: adarra yo baño eztok ik, baña niri eixatazak bape begiko batzar banandu b'ok, gurutza gurena-arren, ez niri.

HAST.—Ene yaun, ik irea bestean maite yoat nik nire burua; eta autortu be autortu egiten yoaf, eguño orain bestean eztodala maite izan; segurutzat ezpa'neu gure egoke-rea, onen ollar agertuko nintzakela uste dok, ala?

STAN.—Nasai eta gogargi: urten zoazan London'dik Pomfret'era yoan ziran andikiak, eta seguru egozala uste yoen..., eta izan be, etxozen zegaitik izan susmo txarrik; baña, orraitño be, ba-dakusk, ortzea arin be arin odeitu ta lañatu zala! Susmo txarra emoten yaustak asperkunde onek; zustarrik bagako dirala nire bildurrak erakutsiko al yok Yaungoikoak! Eta? Torrera yoango ete gozak? Aurrera yoak eguna.

HAST.—Tirok, tirok .zerbait esan bear daukat. Ez ete dok susmetan, ene yaun? Gaur moztuten dautsez buruak arako ik aitaturiko andikiak.

STAN.—Egia esateko, aik euren buruak aldean eroangarriago zoazan, arefin salatza-lleak euren buruetan txapelik eroangarri baño.Baña, goazen, ene yaun, goazen emendik.

"Pursmvant" bat aiurrera.

HAST.—Zoaze aurrera zuon bidean; urli onegaz itz egin bear dot nik. (Alde STAN., ta CATES.'ek) Kaxo, txctxo! zelan abil?

PURS.—Ondo, ta obeto zuk itanduten daustazulako.

HAST.—Ba, gizon, oraintsuengoz guk emen al-

karri bidera urlen geuntsanean baño obeto nabil ni; orduan atxilo niñolan Torrera, bakaldunoaren aldekoen zirikatze; baña orain (eta eutzako ta ixilik eukiteko dira'uskat au), gaur erail dabez r.ire arerio aik, eta ni eguño baño obeto nañagok.

PURS.—Yaunroikoz, olan iraungo al dozu, omengarri orren pozkarriztat!

HAST.—Eskarrik asko, txotxo; autso, nire alde edaik. (Bere kaianarrua yaurtiten dautso).

PURS.—Eskarrik asko, omengarri orri. (Alde dagi).

Abade bat aurrera.

ABAD.—Ondo aurkitua, ene yaun; poztuten nau zu omengarri ori ikusteak.

HAST.—Eskarrik asko zuri, Sir Yon on orri, biotz-biotzetik. Zor dautsut oindño zure oraintsuengo otseintzea; urrengo larunbatez zatoz, bai, eta ordainduko dautsut.

BUCKINGHAM aurrera.

BUCK.—Ostera! abadegaz autu-mutuka, ondasuntzai ynun! Pomfret'eko zure adiskideak dabe abade-bearrik; zuk, omengarri orrek, eztozu autortu-bearrik bein-beinean.

HAST.—Egia esateko, gizon guren onek bidera urten daustanean, arako zuk aitaturiko gizonak e'orri yataz gogora. Zer? Torrera zoaz, ala?

BUCK.—Bai, ene yaun; baña, luzaro ezin egon neindeke an: atzera etorriko naz zuk andik alde egin baño len.

HAST.—Bai, urrean baño urreanago, an bazkalduteko naz-eta.

BUCK.—(Bere kitean) Bai apalduteko be, ik ori yakin ez-arren. Tira, yoan gure dozu, ala?

HAST.—Zure esanera nagotsu, yaun. (Alde dagie).

Hf AGERLEKU.—POMFRET. Gaztelu-aurrea.

Yagola batzukaz RATCUFF aurrera, RIVERS, GREY, eta VAUGHAM erailteko badaroezala.

RIV.—Sir Errikarta Ratcliff, auxe esaten itxi egistazu, egiaren, bendekotasunaren eta zintzotasunaren alde ilten dan gizon bat ikusiko dozu gaur.

GREY.—Yaungoikoak yagongo al dau bakal-semea zuon aldra guztiagandik! odol-edoeki-

tzalia-mordo askarri biraogarri zarie zuok. VAUG.—Bizirik geldituten zara zu, onako onegaitik gero negar egiteko.

RATC.—Bego; eldu dira atzenera zuon bizitzak.

RIV.—Ui, Pomfret, Pomfret! Baitegi odoltsu ori, andiki zindoentzako zori txarreko ta adu txarreko azan ori! ire orma errutsuen barruan emen erail eben Bigarren Errikarta;

eta ire Ieku lotsagarria Iotsagarriagotuteko, gure odol errugea emoten dauskagu éa-ritzat.

GREY.—Orain yausi da gure buru-ganera Margarite'ren biraoa, Hastings'eri, iri, ta niri esan eskuna, Errikarta'k aren seme-ari ezpatea sartzerakoan gu aren aldame-
nean gengo zalako.

RIV.—Orduan biraotu eban no ak Errikarta, orduan biraotu eban ak Buckingham, orduan biraotu eban ak Hastings; Ui, Yaun-

goikoa, gogoratu egizu arako biraoa, eta befeko al dzuu aikaz, gaur gugaz beteten dozunez! Eta nire arraba ta bere seme bakaldarrakazko, naikotuko al zara, Yaungoiko maite, gure odol yator zindoagaz, Zuk dakizunez, zuzenaz testera ixuriko danagaz!

RATC.—Arin egin egitekoa; igarorik dago zuon eriotzarako ordua.

RIV.—Erdi, Grey, erdu, Vaughan, besartean alkar estutu daigun; agur, zorientegian alkarregaz batu arte (Alde dagie).

IV AGERLEKU__LONDON. Torreko leku.

BUCKINGHAM, STANLEY, HASTINGS, ELY'KO GOTZAIA, RATCLIFF, LOVEL, eta beste batzuk aurrera, mai-inguruan; Onulari-batza-
rreko Otseñak, begira.

HAST.—Andiki zindook. bureskunde-gertake-
tak egitea da emen batu gauzan arazoa. Itz egin, ba, Yaungoikoaren izenean, noz izango da bureskunde-eguna?

BUCK.—Zer guztiak gerturik ete dagoz ba-
kaldun-bureskunderako?

STAN.—Gerturik dagoz; eguna bakarrik dago
oindiño izentau bagarik.

ELY.—Biarkoa izango dala uste dot, ba, zori
oneko egun ori.

BUCK.—Emen áagozanetik nok daki lord
yagolearen gogoia? Nor da duke zindoaren
barrukoena?

ELY.—Zure eskarra da, gure ustez, aren go-
goia onidoen eta lenen yakin bear leukena.

BUCK.—Alkarren arpegiak doguz guk eza-
gun; biotzakazko, nirekorik eztaki ak, zuo-
netakorik nik dakidan baño bape geiago; ezta
nik be arenekorik, ene yaun, zuk nirekorik
dakizun baño bape geiagorik. Lord Hastings,
zu ta a zagoze alkarregandik ur maitasunez.

HAST.—Eskarrak dagitsodaz aren eskarrari,
ba-dakit, ba, ak maite baño maiteago naue-
la; baña, bureskundeagazko aren asmoez
eztote aztertu oindiño, eta ak berak be ez-
taust iragarri orrako orregazko bere asmo-
rik; baña, zuok, ene yaun zindook, zuok
izentau daikezue eguna; eta neuk emongo
dot autarkia dukearen izenean, eta oneko
au ak onez artuko dauela uste dot.

ELY.—Ordu onez, emen dator dukea bera.

GLOSTER aurrera.

GLOS.—Ene yaun zindo ta lengusu guztiok,

egun on guztioi. Luzaro egon naz lotan; ba-
ña, ni emen ez egotea eztoz uste eragozpe-
nik izan danik ni emen nagola ebazteko
ziran arazoak ebazteko.

BUCK.—Ordurako etorri ezpa'zintzaz, ene
yaun. Lord Gillelma Hastings'ek emongo eu-
kean autarkia zure orde, zererako, bakal-
dunaren bureskunderako.

GLOS.—Ezin izan iñor nire yaun Hastings
baño azarriagorik; ondo nazau yaun orrek,
eta maite bcño maiteago nau. Ely'ko ene
yaun, Holborn'en izan nintzanean malluki
ederrik ikusi neban an zure baratzean; arren,
euretaiko batzuk nitzako bidali dagiezala
agindu egizu.

ELY.—Arrano, egingo dot orrako ori, ene
yaun, eta gogo-gogoz egin be. (Alde dagi).

GLOS.—Buckingham'go ene lengusu, itz bat
egin gura dot zugaz. (Albora daroa) Azter-
tu dau Catesby'k Hasiings gure arazoan,
eta aitonseme ori ain fceero ta setatsu idoro
dau-ta, burua galdu gurago ei dau, gure
asmoari men egin baño, berak kutunkiro
bere ugazabaren seme deituten dauenak
Ingelanda'ko bakaulkiko bakalduntzea gal-
du baño lenago.

BUCK.—Alde egizu emendik apur baterako;
zugaz yoango naz ni be. (Alde GLOST., eta
BUCK.'ek).

STAN.—Oindiño eztoz izentau gurenda-egun
au. Nire ustez, goxegi da biarko eguna; ni-
gazko, ba, ni enago gertaurik oraindik, ge-
roago ba'litz egon-arren.

Barrero aurrera ELY'KO GOTZAIA.

ELY.—Nomdik da nire yaun Gloster'ko Dukea?
Bifali dodaz mallukien billa,

HAST.—Gogargi ta leun agiri da aren eska-
rra goiz onetan; ba-dau ak gogoko yakon
asmoen bat, alango gogaldi argiz egun

onak emoten dauzanazkero. Nire ustez, Kistar-erri guztietan be eztago maitasuna, naiz gorrotoa ak baño gitxiago ostonduten daunik; aren arpegitik bertatik ezagutuko dozu, ba, aren biotza.

STAN.—Aren biotzekorik zer ikusi dozu zuk gaur ak erakutsi dauen bizitasunetik?

HAST.—Ba! emen gagozan gizonotatik bategaz be ez tala asarre; izan ba'litz, ba, iragarriko eukean bere begirakunetan.

Barrien-barri aurrera GLOSTER eta BUCKINGHAM.

GLOS.—Esaidazue, arren, zergarri dira, zer irabazi dabe ni ilteko zinkidetu ta alkarturik dagozan txerrenak, euren sorginkeri birao-garriz, euren suleza-lilurapenez nire soñaren yabe egin diranak?

HAST.—Zure eskarrari dauksadan maitasun samurrak eragiten daust zuri okerrik egin dauksuenak bakalseme orren aurrean gaitzesten neu lenen izatera: diranak dirala, eriotzea irabazí dabela diñot nik, ene yaun.

GLOS.—Olan iatekotan, ire begiak izan dadizala euren okerreriaren autorla: begiratu ta ikusi egik zelan nagon sorginkeriperaturik; begiratu egik, landara urratua legetxe igaturik yagok nire besoa; eta Edorta'ren emaztea, ta Shore bariaska a, alkarreregaz bat eginik, aik biak dozak euren sorginkeriz ni onan atza ezarririk itxi nabanak.

HAST.—Olangorik egin ba'dabe, ene yaun zindo...

GLOS.—Ba'dabe! ba'dabeka atorkit bardaska biraogarri orren aldeko ori? Azpiyala ta etoi augu i: moztu orri burua! Paul Gurena-arren zin dagit ez toudala yango ezer orrako ori eginik ikusi arte. Lovel eta Ratcliff, zuon ardurapean orrako ori egitea: enparauak, ni maite nabanak, yagi ta nire

yarrai datoza. (Alde HAST., LOV., eta RAT.'ez 'besteak).

HAST.—Ingelanda'rena, Ingelanda'rena! negarrik izperrik bez niregaitik, aureak arturik, nik sinisperegi onek galazo neinukan onako au-ta. Buru-koskola basaurdeak zuzitu eutsala ames egin efcan Stanley'k; eta nik yaramonik be eneuntsan egin orrako orri, ta igestea eneban etsi aintzakotzat. Iru bider ostopo egin dau nire zaldi erantsiak, eta ikaratu egin da Torrea ikusiaz, ni arategira eroaten lotsa izan ba'litz legetxe. Ui, orain nago itz egin dauksan abadearen bearrean: damuturik nago orain arako "pursuivant" ari arroegi esanaz, nire arerioak gaur Pomíret'en triskantzatu dabezala, ta ni neu seguru nengola eskar eta adiskidetasunean. Ui, Margarite, Margarite, orain eldu da Hastings errukarriaren zori txarreko buru-ganera zure birao astuna.

RATC.—Tira, tira, bego; yateko da dukea; arin autortu zadiz; luze eretxita dago a, zure burua noz eukiko.

HAST.—Gizonen une bateko eskar adiskidetasun ori, ire billa Yaungoikoaren eskarriaren billa baño zoliago ibilten garean ori! Itsastar mozkortua ontzi-abeen legetxe bizi da bere itxaro oñarririk bagakoa zure begirakune txerakorretan imini daroana, gerturik, buru-makurraldi baktoxean andik buruzkanka itasaoaren zori txarreko erraietara yausteko.

LOV.—Tira, tira, bego; alperrik da oleska ibiltea.

HAST.—Errikarta odolzale-odolti ori! Ingelanda'ren errukarri! eguño izan dan aldi zori txarrekorik bildurgarriena iragarten idausut, ene aberri. Tira, zubil-ganera eroan nagizue; eroan egiozue ari nire burua; irribarre egiten dauste laster ilgo diranak. (Alde dagie).

V AGERLEKU.—LONDON. Torreko Arresiak.

GLOSTER, eta BUCKINGHAM aurrera, guda-koskol ugartsuakaz, itzalez itsusi.

GLOS.—Tirok, lengusu, zelan ago ikaraz eta koloreak aldaturik, itzen bitartean arnasea etenik, gero ostera be ekin, ostera be etenik, bildurraren bildurrez burutik eginda ta zoraturik ba'engo lez?

BUCK.—Ba'. odol-antzerkilari treberena egin ezinik etxoat nik; itz egin-ala atzea begi-

ratu, alde guztietarantza kuika egon, bildur-tu ta ikaratu elbitzaren zirkiragaz. orretan susmoaren susmo iragarririk: nire bendeko ta otsein dozak mamu-begirakunek, bear-turiko irribarreak legetxe; eta edonoz, birtsuok yagozak gertu euren egitekoan, nire marroak apaindu ta edertuteko. Baña, yon ete dok Catesby?

GLOS.—Bai, yoanik dok; eta, aiko, or yakak beragaz batera endorea.

Endorea ta CATESBY aurrera.

BUCK.—Endore yaun.

GLOS.—Yagoik eragi-erasteko zubia!

BUCK.—Entzun! danbor-otsa da.

GLOS.—Catesby, yagoizak arresiak.

BUCK.—Endore yaun, zeragaitik deitu zauguz...

GLOS.—Atzea begiratu egik, yagoik ire burua..., arerioak yatozak emen.

BUCK.—Yaungoikoak eta gure errugetasunak yagongo ai gabez!

GLOS.—Nasaitu adi. adiskideak dozak..., Rat-ciññ eta Lovel.

LOVEL eta RATCLIFF aurrera, HASTINGS'en buruagaz.

LOV.—Amen azpiyala zakar aren burua, Hastings gaJgordetsu ta beragazko susmorik bagakoarena.

GLOS.—Ain maite neban gizon ori-ta, nai-tanai-ez negar egin bear dot. Lurrean bizi dan Kistamk xaloen eta etrugeantzat neban nik a; nire gogairik ixilgarrienen edestia an idazteko, nik nire idazti egina zan a: onindarr-azalez ain leun eta txairo estaldu-ten eban ak bere txarrindarra-ta, bere erru agiria, zera, Shore'ren emazteagazko arremonak, baztartzukero, ezetariko susmorik ez eban emoten.

BUCK.—Ba! ba! eguño bizi izan dan saltzallarik ezkutuena izan da a. Onako au zuri esateko Yaungoikoz bizi ezpa'gendiz, otuko ete litxakizun, sinistuko ete zeunkean etoi zorrotz me ak gaur, emen onulari-batzarreen beiton, ni ta Gloster nire yaun ona flteko marroak iminia zanik?

END.—Ori egin dau. ala?

GLOS.—Zer, ba? Turkartzat, edo sinistebakotzat gozuz, ala? Edo-ta, uste ete dozu, galgorderik andienak, Ingelanda'ko bakeak eta geure buruen segurantzak beartu izan ezpa'genduz erailte onetara, orren arin eta bapatean, lege-bideak baztarturik, zital a erailgo geunkeala?

END.—Nasaitu zadiz, yaun! irabazirik eban ak eriotzea; eta ondo egin dozue zuok biok, olangorik egin eztagien, etoi ustelai ikaskizun lango ikaskizuna emonaz. Agandiko zer obaren itxarorik eban nik eguño be, bein a Shore'ren emazteagazko arr-emonetera yausi zanazkero.

BUCK.—Orraitiño be, aren atzena zeuk ikusi al izan arte a ez erailtea ebazirik gengozan; baña orain, zerbait gure gogoaz bes-tera, gure adiskide gartsuon bapateko egi-

teak galazo egin dau orrako ori; zera zan, bu *guk*. gura gcunkeanc etoinri zuk entzutea, bere azpiyalakeria zelan egiteko zan zure aurrean bildurrez eralgi ta autortutea; uritarrai zuk orrako ori iragarteko; ba-le-dike, ba, ostantxean aik gugaitik marmarka ta esamesaka ibiltea, eta aik aren eriotzeagaitik negar egin eta tamalik izatea.

END.—Baña, ene yaun on, zuon itzak egingo dau nik ikusi ta nik ari entzun izan ba'neuntsok beste; eta ez izan ezpairik, bakalseme zindo biok, neuk iragarriko dautsedala gure uritar zintzoai zuok ondo ta zuzen egin dozuena.

GLOS.—Eta orretarakoxe gura zinduguzan emen, mundu marmatlaiaren esameasak baztartzuteko.

BUCK.—Baña gure asmoiako beianduegi eldu zareanazkeio, oiraitiño be gure asmoaren autorla izan zakiguz; eta, au dala-ta, geia-goko bagarik, ene endore on, agur dagitsugu. (Alde endreok).

GLOS.—Orren atzetik-ara oa, orren atzetik-ara oa(Buckingham lengusu. Guildhall'era yoa Endorea, zaldia arin egin-alean: an, orretarako aldi egokirik daktorkikanean, Edorta'ren semeen sasikumetasuna aiatu egik; esaiek ai uritar bat erail egin ebala Edorta'k, arako uritarrak bere semea burestunaren ondorengo egingo ebala esan ebalko. bere semeagaz bere etxea esan gura ebalarik, etxeak aurrean, ezaugarritzat burestuna eban-eta. Orrez ganera, txitean-pitean aiatu egik Edorta'ren lizunkeri zantarra, eta lizunkeri-laguna aldatuteko ak eban leia aberetarra; Hzunkeri bete-bear ori, ba, euren otseñetara, alabetara, emazteetara..., bere begia ta biotza nora, ara eltzen zala esaiek ai, nok eragotzirik ez-eta, non-gura goatzen ebala bere lizunkeria non eta no-gaz bete. Areago, bear ba'dok ni neu ukututeraño eldu adi: esaiek ai, Edorta ase-gatxagandik nire ama seindun gelditu zanean, nire aita bakaldarra, York zindoa, Pantze'ko gudutan zala, eta aldiak neurturik, a oartu zala etzala bererik bere emaztearen seme ori; eta orrako ori argi agertu zan aren zeretan, aren ezaugarrietan, ezaugarriok nire aita duke zindoaren ezetariko antzik ez eben-eta; onako au gitxitan eta amesetan legetxe esaik, nire ama oindiño bizi dok-eta. ene yaun.

BUCK.—Ez izan ezpairik, ene yaun; ortik etorteko dan sari bikaña neutzako ba'litz legetxe egingo dot izlari tiebeiena; eta, gefagoko bagarik, agur, ene yaun.

GLOS.—Ie egitekoa ondo urtetekotan, Bay-

nard'en Gaztelu'rci ator; an aurkituko nok aita begiragarri ta gotzai yakitunen artean. BUCK.—Ba-noa; eta Guildhall'diko barrien begira egon zadiz irurak naiz laurak aldean. (Alde diagi). GLOS.—Alik eta arinen oa, Lovel, Shaw Irakaslearenera. Eta i (CATESBY'ri), Penker Le-

kaidearenera; biai esaiozue ordubete-barru nigaz batu daitezala Baynard'en Gazteluan. (Alde LOVEL eta CATESBY'k). Barrura sartuko naz orain, Clarence'ren semerik inok eztagiala ikusi, eta bakalsemeakana infortxo be ezetadila urreratu, aginduteko (Alde dagi),

VI AGERLEKU.—LONDON. Etxarte bide bat.

Latzinaldari bat aurrera.

LATZ.—Emen daroat Lord Hastings onagazko salakuntza-agiria, esku-idatzi lirainez idatzi dodana, Paul Gurenarenean gaur irakurteko, eta ikusi zelan datozan zerak urregorik-urtego, berez berez! amaika ordu eder igaro dot beiau idazten, bait bidali eustan, ba, Catesby'k; beste onenbeste aldi igaro neban salakuntza-agiia lenengoz idazten; eta oiraitiño orain bost ordu oraindik bizi-

rik egoan Hastings, bizirik, orbanik бага, aztertu bagarik, bere buiuren yabe, yaiei eta aska. Mundu Iango mundua dogu auxe! Nor da onen motel eta buiurik bagako ukutu be egin dateken mairo au ez ikusteko? Orraitiño be, nor azarririk asko badakusala esateko? Gaizto da mundu au, eta guztiz ondatu bear dau onango egite zakar zantarrak ixilik yasan bear ba'diia. (Alde dagi).

VII AGERLEKU.—LONDON. I aynard en Gazteluko Arrazpela.

GLOSTER eta BUCKINGHAM aurrera, alkarri bidera urten-ala.

GLOS.—Kaxo. gizon, kaxo! zer diño uritarak?

BIJCK.—Gure Yaunaren Ama Gurena-airen, izka dagoz uritarak, itzik be eztagie.

GLOS.—Ukutu ete dok Edorta'ren semeen sasikumetasuna?

BUCK.—Bai; baiña Luke Andreagazko aren egiunea, baita bitarteko Pantze'n egiña be; aitatu ta axetaratu dodaz aren leia ta lera ase-ezinak eta uiian indairez lizun-keritan erabili dauzan emazteak be; utsaigaitiko aren gogorkeriak; bere sasikumetasuna, zuie aita Pantze'n zala sortua zalako, eta aien antza be, duke zindoarenik etzana be aitaturik; eta gero zure ezaugarriak, egin-eginean zure aitarenak, bai soñez, bai gogoz, aitatu ta axetaiaturik; argitaratu dodaz Eskolanda'feo zuie garaiteak, guduetako zure yakituiia, bake-aldiko zuie zurtasuna, zure eskuzabaltasuna, onindaira, apaltasun txeratsua; izan be, zure asmoe-taiaiko ondo letorkenik ezertxo be ezot itxi ukutu bagarik, naiz trebekiro erabili bagarik, niie itzaldian; eta niie itzaldia amaitu-aginik egoanean, bere aberriaren onaren alde egoanak "Gora Eirikarta, Ingelanda'ko Bakaldun!" gedar eta oio egteko eskatu dautset.

GLOS.—Eta egin ete yoek orrako ori?

BUCK.—Ez, (Yaungoikoa lagun bekit) itzik be eztabe egin; mami-irudiak legetxe, naiz arri biziak legetxe, alkar begiratu, ta zurbil baño zurbilago gelditu baño. Eta ori ikusi dodanean, asane egin dautset; eta endoreari itandu dautsat ixiltasun orrek zer esan gura idauen; ak erantzun daust, erria eztagola oiturik uri-idazkariak bestek berari itz egitera. Orduan uri-idazkariari eskatu dautsat nire itzaldia barrero berak egin dagaia. "Au ta au diño dukeak..., ondoren au atera dau dukeak"; baña bere kitetik eztau esan ezertxo be nire itzaldiaren alde. Ak amaitu dauenean, an aretoko barranean egon diran nire yarraila batzuk, gora-goraka eragi ta eragin egin dautse euren txapelai, eta amarren batek gedar egin dau "Gora Errikarta Bakalduna!". Eta, gitxi batzuon oioak nire alde arturik, onan esan dot: "Eskarrik asko. uritar eta adiskide txeratsuok, zuon zurtasuna ta Errikarta'ganako zuon maitasuna diragarrez zuon txalo ta zarata pozez beteok; eta geiagoko bagarik, itzaldia etenik alde egin dot amdik.

GLOS.—Miñbako aldir otsak 'dozak aik! etxoek itzik egin gura izan? Ez ete dozak etorriko, ba, endorea ta zinegotziak?

BUCK.—Emen da endorea. Bildurrik arean badozula erakutsi egiozu; urri izan itzetan, es-

kariren eskariz bakarrik itzik eginda; arren-idaztiren bat eskuetan dozufa ikusi zagiezala, eta elelgizon biren erdian zagoz, ene yaun; oñarri orren ganean egingo dot, ba, nik itzaldi gurenen bat; eta ez erraz eta arin men egin gure eskariak; neskearena egin, ezetz erantzun, eta orraitño be artu opatuen yakona.

GLOS.—Ba-noa; eta nik nire aldetik ezetza emongo dodan bestean, ik arein aldetik eskatu ba'dagistak, seguru baño seguruago ezin ohea izango dok ortiko ondorena,

BUCK.—Zoaz, etxe-gallurrera igoizu; ate-yoka daragoio endore yaunak. (Alde GLOSTER'ek).

Endore yauna, zinegotziak, eta Uritarrak aurrrera.

Ondo etorria, ene yaun; zuok noz etorriko begira euki nozue; eztoz uste dukeak zuon itzik entzun gurako dauenik.

Gaztelutik aurrera dator CATESBY.

Kaxo Catesby..., zo erantzun emon dautso ire yaunak nire eskariari?

CATES.—Zure eskarrari eske dago nire yaun zindoa, bera ikusten zoakiozala biar, naiz etzi; barruan dago a, lekaide begiragarri-begiragarri bigaz, Yaungoikoagazko ausmerretan; eta eleuke gura ezetarik mundutar arazorik eldu dakionik, yainkotar eragotik bera ateratekorik.

BUCK.—Atzera oa, Catesby on, duke eskartsuagana; asmo andiakaz, zer-ikusi andiko arazoaz, gu guztion onagazko baño bape gitxiago eztanaz agaz itz egiteko gareala ni neu, endorea ta zinegotziak, esaiok ari.

CATES.—Bertatik iragarriko dautsat orrako ori. (Alde CATESBY'k).

BUCK.—Ai, ai, ene yaun, bakalseme au ezta Edorta'rik! Au eztago egunez oean emagaiduri kutunkeririk egiten, bere belauen ganean arren-ausmerretan baño; eztago au zirrilda bikotegaz olgetan, Yaungoiko-geietan yakitun diran bigaz ausmerrean baño; ez lotan, bere soin nagia guszenduteko, arrenka baño, bere gogo atzarria aberastuteko; zon ontsu litzake Ingelanda, bere nagusientasuna bakalseme oníndartsu onek beragan artu ba'legi: baña, bildur naz, seguru be seguru au eztago orretarako itzuli ta irafaziko.

END.—Arrano, Yaungoikoa-arren, ez al dausku aren eskarrak ezetzik emongo!

BUCK.—Bildur naz ezetza emongo dauskula. Emen daior barric-fcarri Catesby.

Barrío aurrera CATESBY.

Catesby, zsr diño aren eskarrak?

CATES.—Andi eretxita dago a zegaitik batu dozuen orrenfeste uritar beragana etorteko; aurretik orrako orren barririk emon eztautsozelako, bildur da a, ene yaun, beraganako asmo onik eztauzuela.

BUCK.—Tamalik asko dot nire lengusu zindoak guk beraganako asmo onik eztagoagazko susmorik dauelako; Yaungoikoa-arren, maitasan osoz gatorkoz gu; eta, au dalata, oa beste bein eta au esaiok ari. (Alde CATESBY'k) Gizon guren eta yaungoikozaleak euren agurtzakaz arrenka daragoioenean, zer andiren bat bear da aik egikizun orretatik aterateko..., orren gozo da, ba, adidi-arren gartsua.

GLOSTER aurrera, goitegiko zutiko-estalpean,

gotzai biren bitartean. Atzera dator CATESBY. END.—Ara, non dagon an goian bere eskarra, elelgizon bien bitartean!

BUCK.—Onindarrezko euskari bi bakalseme kistarrarentzat, ari eusteko, uskeritara yausi eztaadin: eta ikusi, arren-idazti bat dau bere eskuan, gizen yainkotiarran ezaugarrikerik yatorrena. Plantagenet ospatsu, bakalseme eskartsu be eskartsu, abegi onez entzun egizuz gure eskariak, txera onez entzun gure eskakizunak; eta parkatu gagizuz zure yaungoikozaletasuna ta benetako kistar-garra eten dautsugulako.

GLOS.—Ene yaun, eztago olango buru-zurিতে-bearrik; bestera, zeuk parkatuko al nozu, arren, Yaungoikoaren otseintza gartsuan eragote-arren nire adiskideai etxonazo dautsedalako. Baña, onako oni baztarrera eraginik, zer da zure eskarrari eder yakona?

BUCK.—Ditxarodanez, Yaungoikoari eder yakona bera, eta txarto yaurririko izaro onetako gizon on guztiai eder yakona bera.

GLOS.—Ba-dot susmorik uriari eder etxakon zeren bat egin dodala; eta nire ezyakin-keriagaitik niri asarre egiten zatozela.

BUCK.—Orixe egin be egin dozu, ene yaun: eta gure eskariak erantzunaz zuzendu ta arteztuko al dozu zure uts eta oker ori!

GLOS.—Ori ez egitekotan, zegaitik bizi naz Kistar-lurrean?

BUCK.—Yakizu. ba, zera dala zure utsa, zure okerra, yezarlekurik gorengo, nagusiagotzearen bakaulka, zure aurretikoen agintza-

makiladun ogibidea inñori itxi ta emotea; zori onez dozun egokerea ta yaiotzaz zor yatsuna, zure etxe bakaidarretik belauunik belauin eta lerroz-Jerro datorren aintza ta ospea; orra-ko guzti ori aldor ustel lotsagarri itxi ta emotea; eta bitartean, gure aberriaren onerako guk iratzarri gura doguzan zure gogai apalak loak arturik dagozan bitartean, azpegi egcki bagarik dago gure ízaro zin-áo au, zauratz lotsagarritz beterik bere mosua, landara zakarrez mentaturik bere bakal-aldorra, eta aztute ilun sakonaren itsaskolkokan ia murgildurik. Eta ori guzti ori osatuteko, biotz-biotzez eske gagotsuz, zuk, eskartsu orrek, zugan artu dagizula, txeratsu, zure aberri onen yaurtzea: ez bakaldunaren yagolatizat, ez ondasunzaitzat, ez ordezkoztat, naiz besteren irabaziaren egile apalztat, urregorik urregotzat, belauunik belauin eta odoletik cidolera datorrentzat baño, zure yaiotsitiko eskubidetzat, zure inberadoretzat, zeure dana. Orretarako nator ni, eskari zuzen onegaz zuri eragiten, zure adiskide maie ta intsigi diran uritarrokaz, eta eurok ni zirikatu be zirikatuturik.

GLOS.—Eztaikit zein dan egokiago nire llearentzako ta zuon izakerearentzako, ala nik ixikiñ alde egin, ala garratz itz egin zuoi, zuon eskakizuna txarretsiaz: ník ez erantzutekotan, ba-ledike miñik bagako geiagokeria dcdala zuok uste izatea, erantzunegazag amore egiten dodala nagusientasunaren urrezko buztarria ník eroateko, zuok maitakiro ganean imini gura daustazuen buztarri ori; niganako maitasunez onduriko zuon eskari orregaitik asarre egingo ba'neuntsue, ostera, zapuztu, ezetsi ta uxatu egingo neunksz nire adiskideak. Au dala-ta, itz egiteko ta, olan, lenengo zeretik alde egiteko ta, gero, itz eginaz atzerengo zerean ez yausteko, bein betiko erantzun au damotsuet. Nire esclarrak zor daustadaz niganako zuon maitasunari; baño, nire aintzakorik-ezak ateak isten daustaz zuon eskari andiari. Lenen, eragozpen guztiak baztarturik ba'legoz, eta burestunerako nire bidea, urregorik urrenez eta yaiotza-eskubidez, leundurik ba'lego..., orraitíño be, ain biozka naz ni, ain andi ta afñbeste dira nire uts eta akatsak-eta, gurago neunke ník nire anditasunetik nire burua ostondu..., nire ontzi au ezta, ba, ftsaso asarri erantzutekorik, ezta gauz nire anditasunean ostonduta egotea gura izateko baño, eta nire aintzaren Iurrunetan itorrik geldituteko baño. Baña, Yaungoikoari eskarrak, eztago nire bearrik..., eta nire bearrean ba'zengoze, utsa litzake nire lagun-

tzea; Bakal-zugatzak itxi dausku bakal-igalirik, eto igali ori, urteak igaro-ala umatuz, egcki etorriko yako nagusiagotzearen yarlekuari, eta, seguru be seguru, zori ontsu egingo gauz bere bakalduntzeagaz. Agan iminten dot ník zuok nigan imini gura zeunkiena... eskubidea ta aren izar zori ontsuen zori ona; eta Yaungoikoak ez al daust itxiko orra-ko ori ari kentzerik!

BUCK.—Ene yaun, yakinkidetzarik ba-dozula diragar onako onek, baño zure yakinkidetzak dakazan begirapenak politak bai, baño arin eta utsak dira, inguruko zer guztiak ondo aztertu ta aztatuazkero. Zure anaiaren seme dala Edorta diñozu zuk; orixe diñoгу guk geuk be, baño ez Edorta'ren emazteagandikorik; izan be, ba, Lady Luke' gaz ezkondu zan a (biñiriñ dago. oindiño zure ama, cñi agñndua autortuteko), eta gero, bitarteko, Pantze'ko Bakaldunaren arraba Bone'gaz ezkondu zan. Oneik biok baztarreraturik, eskala ezeuki batek, ardurearen arduraz burutik egindako, etxebete ume-dun, bere edertasuna ta egunik onenak yoanik ebazan emakume alargun batek bere goakallu ta eroskizun egin eban aren begi lizun emakumetia, ta an yausi zan ta bere goitegitik, bean zirtzildurik eta emazte bi batera ebazala lotsagarri geldituteko. Bere oe legeaz besterakoan, emakume alargun agandik izan eban ak Edorta au, gure ekan-duaren arauz bakalseme deituten dogun au. Garratzago ta mingotsago itz egingo neunke, bizirik dagozan batzukanako dodan lotseak nire miñari utsaldu egingo eza'leutsu. Au dala-ta, ba, ene yaun on, artu egizu zeutzako eskeintzen yatsun bakaliñduntza au; gu geu ta aberria oneste-arren eza'p'da, zure aurreko zindoeatik aldiak ekarri dauen ustelkeri au kentzeko, ta lerroz-lerro datorren bídera atzera yoteko beintzat.

END.—Orixe egizu, ene yaun on; eske dago-tsuz zure uritarrak.

BUCK.—Ez ukatu, yaun altsu, opatuten yatsun maitasun au.

CATES.—Ui, poztu egizuz, emon egiezu lege-zko euren eskakizuna!

GLOS.—Ai ene, zegaitik pilatu gura douez artegatasun orreik nire ganera? Enaz gauz ni agintza ta nagusiagotzarako; arren, ez egidazue txartzat artu; ezin daustuet eta eztaustuet amore egingo.

BUCK.—Ukatu ba'dagiskuzu (zure anaíaTen se'meigaino zure gar eta maítasunagaitik ari baikalduntzea kentzeko muker eta go-goaz bestera zagczalako), geuri be ezagun yaku zure biotzaren samurtasuna-ta zugan

zure senidectrentzako dozun tamal bigun. txerakor, emeari oariu yutxakcz, baita beste guztientzako dozunari be..., orraitioño be, yakizu, gure eskaria zuk ontzat artu, naiz artu ez, ifioz be ezatala izango gure bakaldun zure cncéarean semea; ori bagarik, besteren bat iminiko doçu bakaulkian, zure eixsaren lotsari ta yausterako; eta gure erabagi onegaz, emen izien zauguz zu. Goazen, urit^rrok, ezkagoz luzarcago eske eragotsko. ÍA'da BUCK., Ecdcro ;i Untnrak).

CATES.—Aizera dei egiezu, bakcdsome kutun, cnt^at crlu egizu euren eskctria; ukatu ba' daçjieu, negar egingo dau orregaitik lurralde guz'ciak.

GLOS.—Mundubete kezka neugancsiutera bear-tu bear nok, ala? Dei egiek, dextczala atzera. (Endre ta ganciikoai dc: eaacn dca CATESBY, cta alde dTa') tlrrizkorik enaz ni, zuon eskari txerakorrek nire barrura sar-tzekoa baño, nire yakinkidetzeaz eta nire gogoaz besterako izan-arren be.

Earrío aurrera BUCKINGHAM etci CATESBY, Endorea ta abar ba-datozala.

Buckingham'go lengusu, eta gizon yakitun be-nok, zoria bizkarrean imini gura daustazue-

nazkero, bere zamea nik yasan eta eroatekn nik gura, naiz gura ez, epe artu bear dot zama ori eroateko ta yasateko: baño, zuok ni orretara bearturik egiten dodanaren yarraí marmar balztik, naiz esames mosuzikinik etorri ba'ledi, ni zuok beartu izanak zurituko nau ortik letorkezan orban eta loi guztietatik; ondo daki, ba, Yaungonkoak, eta zuok be arean ba-dakusazue, urrin be urrin nagola ni onangoren leiatik.

END.--Yaungoikoak onetsiko al dau zure eskarra! Ba-dakusgu orrako ori, eta orixe esango dogu.

GI OS.—Egi utsa esango dozue, cri esan ba' dagizue.

BUCK.—Olan ba'da, bakal-izen onegaz agur dçtgitsut..., Gora Errikarta Bakalduna, Ingelanda'ko aintzako bakalduna!

GUZTIAK.—Amen.

BUCK.—Eder ete yatsu zu bier burestundau-tea?

GLOS.—Zeuok noz-gura, olan izango da-ta.,

3UCK.—Zure begira egongo çara, ba, biar; eta onan, geiagoko bagarik, eta poz-pozik, agur dagitsugu.

GLOS.—(Gctza.ai) Erdu, atzera goazen gure eçikizun yainkcarrera. Agur, ene lengusu; agur, aifiskide txerakorrek. (Aide dagie).

IV EKITALDI

I AGERLEKU. -LONDON. Torrearen aurrea.

ELIXABETE BAKAIDUNOA, YORK'EKO DUKE-NOA, ta DORSETEKO MARKETZA aurrera alde batetik; ANE GLOSTER'KO DUKENOA, LADY MARGARITE PANTAGENET, CLARENCE'rsn Alaba gazteari bidea erakusten, beste-tik.

DUKEN.—Nor dogu emen bidera datorkuna? Gloster'ko bere izeko txerakorrek erjkitik dakarren nire loba Plantagenet, ala? Nire bizia-arren, Torrera doa seguru be seguru, biotz on utsez bakalseme samurrari agur eta txera egiten: cndo aurkitua, alaba.

ANE.—Egun zori ontsu pozkarria emongo al dautseu Yaungoikoak eskartsu bioi!

ELIX. B.—Eeste ainbeste zeuri, aizta on! Nora zoaz?

ANE.—Torrea baño urrinago ez; eta susmorik ba-do'áñez, zeu zaroazan biotzondokoak naroa ni be. zori onak emoteko an dagozan bakalseme txeratsuai.

ELIX. B.—Eskarrik asko, aizta txeratsu: batera sartuko gara guztiok; eta, ordu onean alan be, emen dator Torreko nagusia.

BRAKENBURY aurrera.

Nagusi yaun, arren, zure ederretsiaz, zelan da-go nire bakaldungeia, ta York'eko nire seme gaztea?

BRAK.—Ondo baño obeto, andera maite. Zure epea-arren, ezin itxi neinketsue eurak ikustetik; bakaldunak besterako egindu gogorra emonik nago.

ELIX. B.—Bakaldunak! nor dogu orrako ori?

BRAK.—Lord Yagolea esan gura dot.

ELIX. B.—Yaungoikoak galazoko al dautso ari olango izengoitirik artzen! Mugak ezarri ete dauz ak nire aikanako maitasunaren eta nire bitartean? Arein ama naz ni; nok eragotzeko niri aikana yoaterik?

DUKEN.—Arein aitaren ama naz ni; ikusi egingo dodaz.

ANE.—Arein izeko naz ni legez, arein ama maitasunez; GU dala-ta, arein aurrera eroan nagizu; neugan artuko dot zure errua, ta neuk artuko dot zure egikizuna, neure galgordeagaz.

BRAK.—Ez, andera, ez..., ezin dausut itxi olan-gorik egiten: zinez loturik nago, eta, au dala-ta, parkatu nagizue. (Alde dagi).

STANLEY aurrera.

STAN.—Ordubete geroago urten izan ba' nin-txatsue bidera, anderak, York'eko zure es-karra, begirapenez, bakalduno lirain biren amatzat agurtu al izango neunkean. (GLOS-TERKO DUKENOA'ri) Erdi, andera, artez yoan bear dozu Westminster'era, an Errika-rta'ren bakaldunotzat zuri burestuna ezar-teko.

ELIX. B.—Ui. ebagi egistazue nire gorantxa-ren allubetea, nire biotz estutuak taupa-daka ekin dagian, ostantxean larritu ta erailgo nabe barri erailgarriok!

ANE.—Barrion askarri! barrion gogoaz besle-rako!

DORS.—Nasaitu zadiz; zelan zagoz, ama?

ELIX. B.—Ui. Dorset, ez egistak itzik egin, or-tik zear oa! Eriotzea ta ondamendia yoazak atzetik-ara ire yarra; zori txarreko dok ire amaren izena semeentzako. Eriotzea atzean itxi gura ba'dok, itsasoak zearkatu egizak, eta Richmoni'egaz bizi adi, sulezearen in-darrik araño eltzen eztan lekuan: oa, oston-du adi, ostondu adi arakindegi onetatik, flen zenbakia azi eztagikan; eta Margarite'ren añenpean ilgo al nok ni, ez amarik, ez emazerik, ez Ingelanda'n aintzakotzat da-ben bakaldunorik enazan au.

STAN.—Ardura zurrez betea da zure onu ori, andera; al dokan onura ta mami guztia atera egiek orduai; ire aldeko idazkirik izango dok nigandik nire semearentzako, a bidera urten dakikan: buru gitxigaz astiroe-gi ibiliaz ez al yak egingo beranduegi.

DUKEN.—Yentea txarto banatuen dauen axe zori txarreko onena! Nire erraien biraotua, eriotza-oe onena! Munduarentzako suge gor-ri izango idana eroan dozue zuok, nire erraiok, ak bere begirakune edentsuz yo dagianarenak egin dau-ta.

STAN.—Erdi, anidera, erdu; arin egin-alean bidali nabe-ta.

ANE.—Eta ni gogoaz bestera baño gogoaz bes-terago yoango naz. Ui, Yaungoikoa-arren,

galtzaidu gorria al litz nire bekokia ingura-tuko dauen urrezko mea, garaunetaraño ni erre ta kiskalduteko! Eden erailkorrez gan-tzutuko al nabe, ta gizonak "Gora Bakaldu-noa" oio egin baño len ilgo al naz!

ELIX. B.—Zoaz, zoaz, errukarri ori, ezto zure aintzaren ikus-ezinik; okerrik eztautsut opa-tuko nire gogo txarra bazkatuteko.

ANE.—Zegaitik ez? Orain nire senar dana ni-gana etorri zanean, ni Endika'ren gorpua-ren yarra niñoianean; nire beste senar an-gerugandiko odola aren eskueiatik osta-osta oindño garbituteko zanean; eta orduan deun il aren yarTai negarrez niñoianean; Ui, Errikarta'ren arpegia begiratu nebanean, GU zan nire guraria, "Biraotua izango al az" esan neban nik, "ni onen gazterik, onen alargun gazte egin nokalako! eta ezkondu adinean niaaagea ibiliko al dok ire oearen inguruan; eta ire emaztea (ire emazte iza-teko ladh dan ergelik egotekotan), ik nire yaun maitearen eriotzeagaz ni egin nokan baño zori txarrekoago izango al dok ire bi-ziagaz!". Eta, ara, biraio au nik barriro esan al izan baño be lenago, ain aldi laburrean, nire emakume-biotza aren itz eztsuten yopu ta bendeko baño bendekoago egin zan, eta neure biraoen bendean gelditu nintzan..., eta orrako orrek nire begiak orain arte atsedean bagarik euki daustaz; eguño aren oean ezto izan, ba, loaren urrezko inñontzik. Bes-tera, aren ames bildurtiz atzarrak geldi ego-ten izan naz, Orrez ganera, gorroto daust ak, nire aita Warwick'gaitik; eta, seguru be seguru, laster itxiko nau fcertainbera.

ELIX. B.—Agur, errukarri ori! erruki dausut zure alaketeari.

ANE.—Erruki geiago dausut nik zureari.

ELIX. B.—Agur, aintzak eta anditasunak orren gotilun aurkituten zabezan ori.

ANE.—Agur, errukarri, zer berberari agur da-giozun ori!

DUKEN.—(DORSET'eri) Richmond'egana oa i, eta zori ona izango al dok! (ANE'ri) Zoaz zu Erriltarta'gana, eta angeru cnak yagon-go al zauez! (ELIXABETE B.'ri) Yauretxera zoaz zu, eta gogai onak izango al dira zu-re yabe! Nire ilobira yoango naz ni, bakea ta atsedena izan dagidazan an; larogei ur-te naibagetsu ta gefago ikusia nozue, eta ordubeteko pozaren alderako astebeteko lo-rra ta naibagea ordaindu dodaz.

ELIX. B.—Etxon oindño, begiratu Torrea nigaz batera beste bein. Arri zarrak, errukitu za-kiez umetxo samur orrei, ikus-ezinak zuo-kazko orma-barruratu dauzana! Seaska go-

gorlatza olango txikitxo liraintzatz! Aña zakar sorkitsu ori, bakalseme samurrenizako olgeta-lagun zar-muker ori, omdo artu ta

erabili egizan nire umetxoak! Onango naitzaga foroak cnan agur dergitsfi zure arriai, Torre. (Alde dagie).

II AGERLEKU__LONDON. Bakalderri-arazo-lekua Bakaldgian.

Poz-turut-otsa. Bakalduntzat, ERRIKARTA aurrera, bere bakaulkian; BUCKINGHAM, CATESBY, Esku-mutil bat, eta beste batzuk.

ERRIK. B.—Baztarreratu guztiok. Buckingham' go lengusu...

BUCK.—Zer, nire nagusien eskartsu?

ERRIK. B.—Ekadak eskua. Ire onuz eta ire laguntzaz yagok Errikarta Bakalduna onen goi yezarrita: egun baterako bakarrik izango ete dozak gure anditasun eta omenok, ala irauin egingo ete yoeck, eta gu pozetan egon eureka ete eurentan?

BUCK.—Bizirik dagoz oindiño, eta beti-betiko iraungo al dabe!

ERRIK. B.—Ai, Buckingham, uku-arriarena (2) egiten daragoiot nik orain, benetan urre yator zindo azan, ala ez, ikusteko: bizirik yagok Edorta gaztea; igarri egik orain nik esan gura dodana.

BUCK.—Esan esatekoa, ene yaun maite.

ERRIK. B.—Ba, Buckingham, bakaldun izan gura neunke nik.

BUCK.—Ba! izan be, orixe zara, ene ugazaba ospatsu ospatsu ori.

ERRIK. B.—Ba! bakaldun nok, ala? Bai, olande dok; baña, bizirik yagok Edorta.

BUCK.—Egia, bakaldar zindo.

ERRIK. B.—Ortik, Edorta'k bizirik irautetik lektorkezan ondorenen mingots! Benetan, bakaldar zindo baño enok ni! Lengusu, len ez intzan i aitu-gogorrik: argiago itz egin bear ete yoa? Sasikumeen eriotzea gura yoa nik; eta orrako ori bertatik egitea. Zer diñok ik? Arin esaik, beingoan esaik.

BUCK.—Eder yakona egin lei zure eskarrak.

ERRIK. B.—Ut, ut, leiturik ago i, leiturik yagok ire txeakortasuna; esaik, bai ete yoa ire ederretsirik aik erailteko?

BUCK.—Arnasea artzeko asti apur bat emoidazu, yaun maite, orrako orretzaz nik argi ta garbi itz egin-aurretik; laster ebatziko dot zure eskarrak gura dauenagazkoa. (Alde dagi).

CATES.—(Bere kitean) Asarre da bakalduna: ikusi, ezpanari usiko daragoio.

ERRIK. B.—(Ycrtsi egiten da bakauDitik) Burd'ñezko biotza daben ergelakaz eta gazte txori-buruakaz itz egingo dot; ezto bear nik

begi sentsuntsuz begiratuten nauenik; arduratsu ta begirapentsu egin da Buckingham buru-argia.—I, mutil!

ESKU-M.—Zer, ene yaun?

ERRIK. B.—Ez ete dok ik ezagun eriotzaren bat bertalik egiteko urrez erosi ledikenik?

ESKU-M.—Ba-dot ezagun bere gogoaz besteraturik dabilen aiton seme bat, bere eskuarteak bere gogo ta adorea bestekorik etxakozana; ogei izlarik beste eragingo leuskio urreak ari, eta urreak, seguru baño seguruago, edozetarako zirikatuko dau a.

ERRIK. B.—Zer yakok izena urli orri?

ESKU-M.—Tyrrel yako izena, ene yaun.

ERRIK. B.—Aran ezagun yatak gizon ori; oa, ona dei egik, mutil. (Alde esku-mutilak) Buckingham burutsu, azterla sakona, ezta izango oraindik ara nire onulari: orren luzaro, nekatu bagarik, nigaz egonik, gelditu egin bear ete dau ak orain, arnasea artzeko? Tira, olan izatekotan...

STANLEY aurrera.

Kaxo Lord Stanley! ze barri dogu?

STAN.—Yakizu, ene yaun maite, entzun dodanez, Dorset'eko Marketzaz igesi egin dauela Richmond bizi dan lekura.

ERRIK. B.—Ator ona, Catesby; zurrumurrua zabaldu egik ortik zear, gexo-gexorik dagola Ane nire emaztea; agindua emongo yoa a

(2) Uku-arri, naiz iku-arri (ukutu ta ikutu, bietara esaten da, ba, non dan) txingi edo suorri yatsu, irakurria. Zeanuri'n leku bi dagoz Txingilekueia izena dabenak, eta bietan dagoz succrriak. Txingi itzetik dator txingar itza. Baña goazen gure arlora. Urre-arotzak urrea garbiago, ala loiago, zindoago, ala us-telago dan ikusteko erabilten dabe uku-arri edo suarria. Uku-arriion igurtzi ba'dagizu urrea, lorrataz itxiko dera ara urreak, eta lorratz orri kimi-zer batzuk ezarTi ba'dagiozuz, arako lorrataz orain artu dauen antzetik igarriko dau-tsu urre-arotzak, urre utsa darn, ala ez eta urre utsik ezpa'da, urretik zenbat dauen.

Ortik aituko dozu, irakurla, Errikarta'k emen zer escm gura dauen.

giltzapean goide dagien; itaunka billatu egidak 01 orrenbaten eskuarte gitxfiko aitonsemeien bat, Claience'ien alabsagaz nik a beitatik ezkontuteko; eigel dok Claience' ren semea, ta etxautsat bildurrik. Aiko, amesetan ago il Baniio diiauskat, Ane nile cakaiaunoa gexoiik dagola ta, uriean, il egingo dala zabaldu egik or: ekiok, gizon; zer-ikusia andia yok, ba, nitzako, nire kalterako litzaken itxarori azten galazoteak. (Alde CATESBY'k) Nire anaiearen alabeagaz ezkondu bear dot, ostantxean nire bakalduntzea leiar auskorarren ganean datzata: aren necak erail ienen, eta gero beragaz ezkondu; Irabazte segururik eztakaskun bidea! Baña, odoleñan ain sakon sarturik nago-ta, gerturik nago obenaren yarraí oten barririk egiteko, enuki negaitiik eztago nire begietan.

Banien-bairi aurrera Esku-mutila, TYRREL' egaz.

Tyrrel yak izena, ala?

TYRR.—Yagoba Tyrrel, eta zure bendekorik esanginena.

ERRIK. B.—Ete aez, gero?

TYRR.—Aztertu nagizu, ene yaun eskartsu.

ERRIK. B.—Atomauko ete az nire adiskiderik erailten?

TURR.—Eder ba'yatsu bai. Baña, gurago neunke arerio bí erail.

ERRIK. B.—Ba, olan izatekotan, or dok ire guraria: arerio uts bi, nire atsedenen areioak, eta nire lo gozoaren asalatzalla bi dozak nire gurariz ik eurena egin bear dokanak: Tyrrel, Torreko sasikumeez daragoiot.

TYRR.—Bideak idigiko al daustazuz aikana eltzeko, eta laster kenduko dautsut aikazko bildurra.

ERRIK. B.—Doñu gozoa abestuten daustak. Entzun, ator ona, Tyrrel: oa, bai onek idigiko dauskaz arako bideak: yagí adi, eta auto ire belarrira (agopean dirautso): ori dok íre egitekoa: orrako ori eginik dagola esaidak bai, eta nire kutun izango az, eta orregaitik ñor baño maiteago izango aut.

TYRR.—Bertatik egingo dot orrako ori. (Alde dcogi).

BUCKINGHAM aurrera beste bein.

BUCK.—Ene yaun, nire biotza azteituaz, gogogogotan erabili dot oraintsu egin zeunstan zure eskakizuna.

ERRIK. B.—Ori ondo, bego ori. Richmond'egana igeirik dogu Dorset

BUCK.—Neuk be entzun dot barri ori, ene yaun.

EnRIK. B.—Stanley, ire emaztearen seme dok a: aiko ba, gogotan eukik ori.

BUCK.—Ene yaun, arako esku-erakutsiaren eske natortsu ni, zuk agindu fa zor daustazunaren eske; nire izango dirala agindurik dozun Hereford'eko kondetza ta kondetzeari dagokozan eragingeien esko.

ERRIK. B. — Staniey, yagoik ire eraaztea; ak Richmond'eri idazkirik bidaltzekotan, ik erantzun bearko dok.

BUCK.—Zer diño zure goikotasunak nire eskari zuzenaz?

ERRIK. B.—Orain gomutetan dot..., Richmond oimiño mutikotxo gogalditsu baño etzanean, Richmond bakaldun izango zala iragarri eban Endika Seigarrenak. Bakaldun! Baledike.

BUCK.—Ene yaun...

ERRIK. B.—Zegaitik ez ete eustan esan igar-leak orduan niri, bere aldamenean nengoan oni, nire eskuz ilgo zaia Richmond?

BUCK.—Ene yaun, kondetzeagazko zure agindua.

ERRIK. B.—Richmond! Oraintsuengoz Exeter' en izan nintzanean, endoreak txeratsu erakutsi eustan gaztelua, eta Rougs-mont izeenez aitatu eban; eta izen orrek ikaratu egin nendun, Eire'ko bertsolari batek bein esan eustalako, nik bein Richmond ikusiazkero, Iuzaro enintzakela biziko.

BUCK.—Ene yaun...

ERRIK. B.—Baí, ze ordu da?

BUCK.—Zure eskarrak agindua zuri gomutazoteraño atomauko naz.

ERRIK. B.—Ori ondo, baña ze ordu da?

BUCK.—Oraintxe yoteko dira amarrak.

ERRIK. B.—Tira ba, yo baño eztabe.

BUCK.—Zegaitik yo baño eztabe?

ERRIK. B.—Kirtenen bat ba'intz legetxe, ire eskariaren eta nire gogaketen bitartean ik yo ta yo daragoiokalakako. Gaur etxoat ezer emoteko gogaldirik.

BUCK.—Ba, ebatzi egizu, emongo daustazun, ala ez.

ERRIK. B.—Artegatu, urduritu egiten nok ik; etxoat emoteko gogaldirik. (Alde ERRIKAR-TA BAKALDUNAK eta bere Ycirraigokcak).

BUCK.—Au dogu? Olango zapuzkeriz ordaindu bear ete daustaz nire otseintza andiak? Orretarako egin ete dot nik ori bakaldun? Ui, Hastings gomutauko al dot, eta Brecknock'era alde egin, nire buru bildurto au aldean dodan bitartean! (Alde dcrgi).

III AGERLEKU.—LONDON. Bakaldegiko beste leku bat.

TYRREL aurrera.

TYRR.—Eginik dago gogokeri ta odol-egitea, triskantza errukarrizko egiterik erukarriena, lur onek olangoren errurik izan dauenik andiena. Errairik eta errukirik bagako Dighton eta Forrest'ek, errukirik arean bagako triskantza arakindegitarra egiteko nik erosiak, zital eldu-umatu, txakur odoliti izanarren, samurtasunez eta erruki bigunez urturik, negar egiten izan dabe, euren erioztza-egieta eralgi-ala. Dighton'ek, "Ui, onan egozan atzanik ume samurrak". Eta Forrest'ek, "Onan egozan, besartean alkar estuturik, alabasterrezko euren beso errugeen artean. Aldor bateko lau larrosa gorri ziran euren ezpanak, euren uda-edertasunean alkarri mun egiten eutsela. Arren-idazti bat egoan euren burupekoaren ganean; eta onako onek bein (csan dau Fcrest'ek), larri-larri aldatuazo egin daust nire gogoa; baña, txerrenarenai"... orretan gelditu izan da zitaia; eta Dighton'ek onetara ekin dau-tso, "Lorrindu, muskildu egin dogu berezkoaren lanik osoen eta gozoena, eguño lenengoz Yaungoikoak zer eginak eratu ebazane-tik ona izan dan lanik bikainena". Biak dira emendik yoanik; yakinkidetzak eta damuaren damuak eztautse itxi itzik egiten; eta, au dala-ta, bick itxi dodaz an, eta ni ona etorri naz barriok bakaldun odolitiari ekarteko: eta emen dator bera.

ERRIKARTA BAKALDUNA aurrera.

Osasuna, gora, ene yaun nagusien!

ERRIK. B.—Tyrrel maite, fcarri zori ontsuak ete dakazak?

TYRR.—Agindu zsunstana egiteak ekartekoa ba'da zure zori ona, zori ontsu izan zadiz, eginik dago arako a-ta.

ERRIK. B.—Ikusi be egin dozak ilik, ala?

TYRR.—Bai, ene yaun.

ERRIKA. B.—Bai ilcbiraturik be, Tyrrel maite?

TYRR.—Torreko abadeak ilobiratu dauz; baña, eçia esateko, eztaikit non.

ERRIK. B.—Apal-ostean laster etorri akit, Tyrrel, orduan r.iri arein erioztzako gora-bera ta zertzeladak eralteko. Bitartean, nik iri zelango saria emongo gogotan erabili baño besterik ez egik egin, ik gura dokanaren yabe izateko. Agur ordurarte.

TYRR.—Apal-apalik dagitsut agur. (Alde dagi).

ERRIK. B.—Giltzaperatu dot Clarence'ren semea; ezkontza zirtzilez ezkondu dot aren alabea; Abaran'en altozan lotan dagoz Edorta'ren semeak, eta Ane nire emazteak gau on esan dautso munduari. Eta orain, badakidanazkero Bretagne'ko Richmond'ek nire anaiearen alaba gazte Elixabete'gaz ezkondu ta egijne ta lokarri orren bitartez burrestunaren yabe egiteko asmo arrorik badauela, Elixabete'gana yoango naz, emaztegi gogargi itxarotsuagana.

RATCLIFF aurrera.

RATC.—Ene yaun...

ERRIK. B.—Barri onak, ala txarrak akarre orren azarri?

RATC.—Barri txarrak, ene yaun; Richmond' egana yoanik da Morton; eta gudategian da Buckingham, bere atzean Kimurutar kemen-tsuak dauzala, ta geroago ta aziago eginaz 'doaz aren indarrak.

ERRIK. B.—Richmond'egaz batera Ely'k gei-ago artegatuten nau, Buckingham'ek eta ak arrapaladan baturiko indctrak baño. Tira, entzunik eta ikasirik nago geroratze geldo-aren berunezko otsein dala esames bildurtia; eskeko oinkada-laburraren oinkada mekoa erabali daroa geroratzeak; au dala-ta, Yupiter'en Merkuri, bizkortasun sutsu-geldigorra bedi nire ego, ta bakaldun-aldarrikari! Oa, batu egizak gizonak; nire ikurdia izan-go dok nirs onulari; zirti-zarta, arin ibili bear yoagu, azpiyaleak gudategian eupadaka daragoioenean. (Alde dagie).

'V AGERLEKU.—LONDON. Bakaliegia-aurrea.

MARGARITE BAKALDUNOA aurrera.

MARG. B.—Olan, orain asten da umatuten zori on-aldia, eta, umaturik, erioztaeren ago ustelera yalgiten. Muga-barru onetan egon

naz ni kuika maltzurkiro, nire arerioen ilberea noz elduko begira. Ondoren itzala ikusi ta autortuteko naz ni, eta Pantze'ra yoango naz; atzena asiarea bestean mingots, baltz, eta zori txarreko izango dalaren itxa-

rotan. Alde egin emendik, zori txarreko Margarite: nor dator emen?

ELIXABETE BAKALDUNOA ta YORK'EKO DUKENOA aurreia.

ELIX. B.—Ai ene, niie bakalseme enukaniena! Ai, niie umetxo samuiena! Pipiletik uiten bagako loa, loa gozo ageibaniena! zuon gogo maitaganiak oindiño eguiatsetan egaz ba'dabiltz, eta betiko baitegian ezpa dagoz, nife inguiuan egaz egizue zuon ego ainez, eta zuon amaien alaketak entzun egizuez!

MARG. B.—Egaz egiozue inguruan; esan egiozue eskubideari zor yakon zorrak gau-len ditu egin dauela zuon umearoko egun-lendia.

DUKEN.—Ainbeste zori txar eta dordok laz-tu ta karraskatu egin dauste abotsa-ta, ixilik dago nire miñ dordoz unatua. Edorta Plantagenet, zegaitik il az i?

MARG. B.—Plantagenet'ek kitututen dau Plantagenet, eriotzeagaz ordainduten dau Edorta'k Edorta'gazko bere zorra.

ELIX. B.—Yaungoiko ori, onango asuri maitagarriak bertanbera itxi ta igesirik, otsoaren sabelera egotziko ete dozuz? Noz egin dozu Zuk lorik onango egiterik egin danean?

MARG. B.—Endikci gurena ta nire seme ezta il ziranean.

DUKEN.—(Lurrecm yezarri-ala) Bizi il, ikusmen itsu, ilkor errukarriren itzal bizi, dordotegi, munduaren lotsari, ilobiari zor yakona biziak ostu idauskanan ori, egun gogaikarrien mami ta gomutagarri txiki oii, atsedeen'k bagako oirek atsedeenik izango al don Ingelanda'ko legezko lurraren ganean, legez bestera odol errugaz asetu ta mozkortu daben lurraren ganean!

ELIX. B.—(DUKENOA'ren aldamenen yezarri-ala) Ai, yezarleku motelik emon dauskuzun bestean arin emongo al dauskuzu ilobiren bat! orduan an ostonduko neunkez nik niie azunak, ez emen atsedeenik emon. A!, guk ez bestek, nok dau alakatuteko zegaitirik?

MARG. B.—(Aurreratu-ala) Aspaldiko naibagea ba'da begiraganiena, niieari emon egiozue lenengo lekua. (Lurrean yezarri-ctla) Lagunik izan al ba'dai etsipenak, nire ezbear eta dordoak ikusirik eralgi egizuez barriro zuonak: Ba-neban nik Edorta'rik, Errikarta batek a erail arte; ba-neban nik Endika'rik, Errikarta batek a erail arte; ba-zeban zuk Edorta'rik, Errikarta batek a erail

arte; ba-zeban zuk Errikarta'rik, Errikarta batek a erail arte.

DUKEN.—Nik be ba-neban Errikarta'rik, eta zuk erail zeban a; fca-neban nik Hutland'ik be, eta a erailten lagun izan zintzazan zu.

MARG. B.—Ba-zeban zuk Clarence'rik be, eta¹ Errikarta'k erail efaan a. Zure erraietako txakurgetitik urten da gu guztiok eriotzaratuteko dan suleza-txakurra; bai, bildotsak artegatu ta euren odol ederra miazkatuteko, begiak idigi baño len aginak eukazan txakur a; Yaungoikoaren eskuetatiko lan txairo-bikaña muskildu ta lorrinduteko dan zakar a; lur onetako agintari gordin keritsu baño gordinkeritsuago a negarrez dagozanen begi gorrien aurrean aginduten dauen a, zure erraietatik urten zan a, guri gure ilobietaraño yarra ta yazarleko a. Ui, Yaungoiko zuzen-zuzen, artez, eta zer guztiak ondo eraturten dozuzan ori, nik bai nik eskarrak emoten dautsudazala txakur okelazale onek bere amaren soñetikoak bere goakaitzat artu, ta bere ama besteen negar-lagun egiten. dauelako!

DUKEN.—Endika'ren emazte ori, etzadziz arrotu nire zori txarrakaz! Yaungoikoa autorla, zure zori txarrak dirala-ta negar eginik nozu ni.

MARG. B.—Epe artu egizu nigaz; azaskatze-gose nozu ni, eta orain aseturik nago, azaskatzea ikusiaz. Ilik dago zure Edoita, niie Biorta erail ebana; ilik zure beste Edorta, nire Edoita kitututeko; alde-betegairi baño ezta York gaztea, nire galtze andia ez eben osotuten aik biak be-ta; ilik da Clarence, nire Edorta sastakaika erail ebana; eta burutik egindakoen egite orren ikusleak. Hastings ezkontza-auslea, Rivers, Vaughan, Grey, euren ilobi ilunetan dagoz, gazterik ilik. Oindiño bizirik dago Errikarta, sulezearen bitarteko baltza; gogoak erosi ta ara (sulezara) bidalteko bakarrik emen itxia: baña, ur-ur dcigo aren atzen errukarri iñoen errukirik bagakoa; agoa idigirik dago lurra, su-garretan gori-gori dago sulezea, orroaka dagoz txerrenak, arrenka gurenak, eta ni biziko al naz "II da txakurra!" esateko.

ELIX. B.—Ui, iragarri zeban zuk etorriko zala aldia zuk Iagunduko zeunstana bonbilerturiko armiarnea, kunkun bizkar-tximur zakarra biraotuten!

MARG. B.—Igaroko nire zori onaren mamu ero, itzal uts, iruditoriko bakalduno deitu zendudazan nik orduan; ni izan nintzananen irudi, erakusketa itzalaren azalpen labur zurikor; gero beera egotzeko, gora era-

gitako bat; irri egiteko bakarrik ume eder bi dauzan ama; izan zareanaren ames; ikurrin txairo, tiro galgordetsu guztiak beragana yoatekoa; anditasunaren atz, arnasa, kaskabillo; irri-bakalduno, antzetzegirako bakarrik dana. Nondik da orain zure senarra? Nondik dira zure nebak? Nondik zure seme biak? Non dozu zuk pozik? Nor dartzu eske, nor helaunbikañuten yatsu ta "Gora Bakaldunoal" esan? Nondik dira euren huruak makurturik zurikeriak egiten eutsuezan andikiak? Nondik dira estu-estuka zure yarrai yoaten ziran aldrak? Yoanik da guzti ori, eta ikusi orain zer zarean: emazte zori ontsu izan-bearrean, alargun zori txar-txarreko baño etzara; ama poz uts izan-bearrean, izen orri alaka egiten dauzana baño etzara; eskarr-eske doakozana izan-bearrsan, eskala apal baño etzara; bakalduno izan-bearrean, kezkaz burestundauriko zirlzil-zirtzil baño elzara; niri irri egiten zeunstan ori, irri egina orain; guzUak bildur eutsoena, bateri be orain bildur dauzala; guztiai eginduten eutsena, iñok orain bere esanik egiten eztautsola., Onan ibili da biraka zuzentzearen txirrinkea, eta aldiaren goakai eginik itxi zauz; izan zintzazanaren gomuteaz besterik eztozula, zu zareana izanaz zure elorrio andiagogarriztat. Ostu egiten zeunstan zuk nire lekua, eta zegaitik eztaustazu ostuten zuzen dana nire naibagatik? Zure idun arroak daroa nire buztarri astunetik erdia; eta buztarri onetatik nire buru nekatuari oraintxe zirrist eraginda, zuri izten dauzute bere zama osoa. Agur, York' en emazte, eta bakalduno zori txar baltzeko ori; Ingelantar dordook irribarre eragingo dauste Pantze'n.

ELIX. B.—Biraotan trebe ori, etxoi?u apur baten, eta irakatsi egidazu zelan biraotu nire arerioak!

MARG. B.—Ez egin lorik gabaz; barau egin egunez; bizirik dagon zori txarraren aldamentean imini egizu ildako zori ona; ziran baño ederrago zirala zure umetxoak iruditu egizu, eta aik erail ebazana, dan baño zakarrago dala: zure galtzea ederragoturik, ainbat eta zakarrago egingo dozu zure okerraren egilea; onako au gogoan erabiliak irakatsiko dautsu zelan biraotu.

ELIX. B.—Motel dira nire itzak; Ui, zureakaz biztu ta zolitu egizuz!

MARG. B.—Zure dordoak zorrotzu ta zolituko dabez zure itzak, eta nireak lez barrura sartuko dira. (Alde dogi).

DUKEN.—Zegaitik izan bear ete dau zori txarrak itzontzi?

ELIX. B.—Aide utsezko bitarteko dira bitartekizea erncn dauisen dnrdontzako, ilburukorik egin eztaben pozen aide utsszko oñordeko, ezbearren izlari zoli errukarri! ori yatsuz itzak. Dagiela euren egitekoa, doazala euren elburura: bestetarako ezpa'dira be, biotza nasaituten dabe.

DUKEN.—Olan izatekotan, loturik ez euki miña. nigaz zatoz, eta nire seme gaitzetsiarena dagigun itz mingotzez, zure seme kutus biena egin dauen nire semearena dagigun, (Danborr-otsa barruan) Danborr-otsa dantzut!: neurri bagarik erabili zure alaketak.

ERRIKARTA BAKALDUNA ta bere Yarraigoa aurrera, ba-doazalarik.

ERRIK. B.—Nok isten daust gudategirako nire bidea?

DUKEN.—Ui, bere errai biraotuetan iri iduna biurtuaz, iri bidea itxi ta eten euskikeanak. ik egin dozakan erailte ta triskantza guztiak egiten galazoteko, zori geztko ori!

ELIX. B.—Urrezko burestunez ostonduten dok ik ire bekokia, zuzentzarik ba'lego, burdin gorizko atza euki bear leuken bekoki ori, burestun orren yabe zan bakalsemea erail dokan orrek, nire semeai eta nire nebai eriotza itzala ezarri dautsekan orrek? Esaidak yopu zital orrek, non dozak nire semeak?

DUKEN.—Kunkun ori, kunkun ori, non dok ire anai Clarence? Eta aren seme Edortatxo Plantagenet?

ELIX. B.—Nondik dira Rivers, Vaughan. Grey bikañak?

DUKEN.—Nondik dok Hastings txerakorra?

ERRIKA. B.—Txera-ots bat. danborlariok! Gudu-otsa yo, danborlariok! Ez al dauz entzungo Yaungoikoak Yaungoikoaren gantzutuari marmarka daragoioen emakume esameslariok; yo, gero! (Txera-otsa, Gudu-otsak). Edo epe artu. ta txeratsu itz egistazue, edo gudu-otsen erantzunez, onan itoko dodaz zuon alaketak.

DUKEN.—Nire seme az, ala?

ERRIK. B.—Bai, Yaungoikoari, nire aitari, ta zeuri eskarrak.

DUKEN.—Olan izatekotan, epez entzuik nire eperik-eza.

ERRIK. B.—Andera, ba-dot nik zure izakerearen ukutuxorik, eta ezin yasan dot asarrik.

DUKEN.—Ui, itxi egistak itz egiten!

ERRIK. B.—Egin ba; baña, eztaustut entzungo.

DUKEN.—Otzan eta txerakor izango nok nire itzetan.

ERRIK. B.—Labur be izan zadiz, ama on; as-tirik ezto-eta.

DUKEN.—Orren asti gitxi dok, ala? Yaungoi-koak ba-yakik, ire begira ni elorrio ta ilaginetan egon nok.

ERRIK. B.—Eta atzenean be enatxatsu etorri, zu nasaítuteko, ala?

DUKEN.—Ez, gurutze gurena-arren, ondo dakik ik, nire suleza izateko etorri intzan í lur onetara. Zama astuna izan zoon nitzako ire yaiotzea; asarrekor eta eurekoi izan intzan i ire umaroan; bildurgarri, etsi, basati ta amurrutu ire irakastegira-aldian; azarri, lotsabako, ta burrukari ire giza-arora sartzerakoan; arro, me, maltzur eta odoliti bein gizaroratuazkero; len baño otzanago, baño orraitíño be kaltegarriago, gorrotoan txeratsu; aífatu ta izentau ete idaíkek ik igaz tatera nasai eta pozik egon neintean ordurík?

ERRIK. B.—Egia esateko, bein, nigaz bagarik, gosaria artzeko dei egin eutsun Humphrey'ren Orduaz besterik bat bez (3). Orren zakar ba'naz zure begientzako, zu mindu bagarik aurrera yoaten itxi egistazu, andera, Yo danborra.

DUKEN.—Entzuidak. arren.

ERRIK. B.—Mingotsegi itz egiten dozu zuk.

DUKEN.—Itz bat entzuidak, inoz be geiagotan eztauskat itzik egingo-ta.

ERRIK. B.—OÍan bedi.

DUKEN.—Edo, Yaungoikoaren ebatziz, gudu onetatik atzera garaila etorri baño len il egingo az, edo neu ilgo nok, naibagaz *eta* urteen urtez, eta sekula beste bein ikusi ez ire arpegia. Au dala-ta, ígan artuik nire biraorik astunena, gudaketan ire guda-koskolak baño geiago nekatuko auena! Beste aífdean egingo yoek burruka nire arrenak; eta on Edcria'ren semetxoak belarrira itz egingo yautsek ire arerioen gogoai, eta zori ona ta garaitea agínduko yaulsezak. Odolti az í, eta cdolti izango az ire atzeneraño; lotsaria dok ire bizitzearen otsein eta i noz ilgo begira yagok. (Alde dagi).

ELIX. B.—Zegaitirik geiago izan-arren orretarako, adore gitxiago dot nik biraotuteko; "Araen" dirautsat nik no orri. (Yoan-aja diño onafco *aiu*).

ERRIK. B.—Etxon, andera, itz bat esan bear dautsut.

ELIX. B.—Ezto-eta nik bakal-odoldun beste seme-rik, zuk eraííteko; nire alabakazko, Errikarta, arren egingo daben lekaíme izango dira, ez negar egíteko bakaldunorik; eta orrazkero, ez emon zartadarik ai bizia kentzeko.

ERRIK. B.—Izena Elixabete yakon alaba bat dozu zuk, onindartsu ta liraina, bakaldar eta eskartsua*.

ELIX. B.—Eta il egin bear ete dau orregaitfk? Ui. biziko al do, eta neuk zokartuko dau-tsadaz ari era ta ekanduak, neuk Iorrindu areu edertasuna; Edorta'ren sasikume dala esanaz baltzítuko dot; lotsari-estalgia egctziko d.autsat ganera; trkkaníza odoltsuak bere erpak ezarteku a bizi al izateko-tan, Edorta'ren alaba eziala autortuko dot.

ERRIK. B.—Ez egíozu okerrik egin aren yaiotzeari; bakal-odoídana da a.

ELIX. B.—Oksngorik ezuala esango dot, aren bizia yagote-arren.

EtiRIK. B.—Bere yaiioizea dau ak *bere* bizia-
ren yagolarik onentzat.

ELIX. B.—Segurantzta orrek erail ebazan aren nebak.

ERRIK. B.—Ba! bestaldera egon zíran izar onak aik yaiio ziranean, arein auxka.

ELIX. B.—Ez, adiskide txarr-ustelak izan ziran arein bizien aurkako.

ERRIK. B.—Ziristik egin-ezina da alanbearraren erabagia.

ELIX. B.—Egia, eskartxarrekokeriak egiten dauenean alanbearrarena; eriotza oberik izateko yaiোক ziran nire umetxoak, goi-eskarrak ta bizitza obagaz onetsi izan ba' zendu.

ERRIK. B.—Nire lobak neuk erail izan ba'neuz lez dagizu zuk itz.

ELIX. B.—Lobak, izan be; eta euren osabeak berak, íruzurrez, ai nasaitasuna, bakalduntzea, senitartea, bizia kenduak. Dana dala arein biotz samurrak alderik alde zultu ebazana, zearka-mearka, zeu izan zintzazan aren eskua ara zuzendu ebana: seguru be seguru amuts eta motel an ezpata erailea, zure arrizko biotzean zorroztu arte, nire bildotsen erraietan barrura sartzeko. Baña, naibagearen naibageak naibaga uxoa ezi ta otzanduko ezpa'leu, nire miñak zure belarrietara nire mutikoen izenik aiatu baño lenago zure begietan sartuko lítzakez nire atzazalak, ontzipeko kakoa legetxe; eta ni, eriotzeak etsiaren etsiz olan esiturik, ez oialik, ez lokaririk gelditu etxakon ontzi-

(3) Aldi aldiko Inghelandairren esa'kerea yatsu "Humphrey'rea Ordua". Londo-n'go Poul Gurenaren yauretze-aurreko etxartebeideak Humphrey ya'kon izema. Etxean zer yainik *ez* ebanai; etxetik urten, eixarte'bide atora yoan, eta *cm* ara-onaika íbítlen ekiten ei eutsan, zeregints'Urena egiteko.

- ixo errukarrioTⁿ antzera, armolezko zure bioiza yota, biⁿrinduñ geldifuko nintzake.
- ERRÍC. B.—Andora, eguño zuri zeuri, naiz zurei kalfetan egixi dautsuerian baño on gei-ago zuri ta aure^ñi egiteko asmoa dodan bestean ondo urtenro al naz rñre egifekoan, eta orrenbesivko :icñ ona i^ñngo al dol galgurdez betsriko gu;:u odoHsuetan!
- ELIX. B.—Kñin on izan ledikeLan ze onik ete dago orizearen arpegiak osLondurik, nik ikusi eztagidan?
- ERLUK. B.—Zure urneck aurreiatu ia goiatutea, c.n.ciera mcñe,
- ELIX. B.—Euren buruak an galtzeko, eskegi-gegien batera govaturik, uic:?
- ERdlfC. B.—Ez, omeiiGren aintsakotasunera ta goitegira, lui^ñreko aintzai^ñen iaberadoretzako goitegira baño.
- ELIX. B.—Bai, olangoren ots eta durunduz zurutu egistazuz nire naibageak; esaidazu ze egokeya, ze anaitasun, ze omen emon dai-keozun zuk nire umeri.
- ERRIK. B.—Dodan guziña be bai; bai, eta nerau ta guzti emongo dausat nik zure umeri, nik egin dautsudazala uste dozun, oker guztien gonuiia gci-ela zuk sure biotz asar-reako Lefeⁿ (4) itotekotan.
- ELIX. B.—Lapur esaizu, zure txera-aldiak esan-ien izaten haño luzarago irauen eztaaian,
- ERRIK. B.—Olan izatekotan, yakizu, biotz biotzez maite dodaña zure alabea.
- ELIX. B.—Besterik uste dau nire alabearen amak..
- ERRÍK. B.—Zer uste dozu, ba?
- ELIX. B.—Biclzeñik eta bioUez bagarik, beste zerbaitetik maite dodala rAxe alabea; olan, biotzez eta biotzetik bagarJk maite zebazan zuk aren nebak be; eta, orregaitik, biotzetik bagarík eskarrak dagitsudaz arako agaitik,
- ERRIK. R.—Ez isan orren epebakorik eta bapatekorik, nire esangurea oker aituteko; nik esan gura dodana zera da, biotz osoz maite dodala zure alabea, ta bera ñngelandaⁿ ko bakalduno egileko asmoa dodala.
- ELIX. B.—Tira ba, eta nor izango dala uste dozu aren bakaldun?
- ERRIK. B.—A bakalduno egitsn dauena bexa: ncr besterik izateko?
- ELIX. B.—Zer? Zeu, ala?
- ERRIK. B.—Bai, neu: zer deretxatsu, andera?
- ELIX. B.—Zelan egiteko zuk ari maiteaxenik?
- ERRIK. B.—Zugandik ikasiko neunke oriako ori, zeu zara aren gogaldia ondoen ezagun dauena-ta.
- ELIX. B.—Eta nigandik ikasi guxa ete dozu?
- ERRIK. B.—Biotz-biotzez, andera.
- LLiX. b.—Aren nebak erau ebazan gizonagaz odoia darioia dagozun bioiz bi bidali egio-zuz; euretan Edorta ta York izenak irarri-rik; orduan ba-Iedfke ak negar egitea; au idala-ta, emoiiz sur-zapi baf emon egiozu, beñcla Margarite^k zure aitari Rutland^ñen odoletan aseturikoa emon eutsanez; eta esai-ozu neskato ari suv-zapi atan artu zald bere neba kutunen soñetatiko izerdi gorria/ eta añindu egiozu agaz legortu dagiala bere begietaitiko negarra. Zirikatze onek ei-agin ezpaⁿdagio ari zu maite izatera, zure egite zindoezko idazkiren bat bidali egiozu; esaiozu, eralgi egiozu, zuk alde eragin zeun-teseia mundu onetatik aren osaba Clarenceⁿ ri, aren osaba Riversⁿeri; bai, eta agaitik haztartu dozula aren izeko on iVne be.
- ERRIK. B.—Irri egiten daustazu, andera; ezta au zure alabea iratjazieko biderik.
- ELIX. B.—Eztago beste biderik; beste antzen bat ez artzekotan zuk, eta onako guzti au egin dauen Errikarta ez izatekotan.
- ERRÍK. B.—Ez ete dautsat esango beragaitik egin dodala onako guzti au?
- fi.,IX. B.—Ez, olangorik zuk egitekotan, naita-nai-ez gorroto izan bearko dautsu ba, ak, maitasuna olango triskantzta odoltsuz irabazi dozulako,
- ERnK. B.—Ara, eginik dagonak eztaubeste- ra izaterik; zurtasun bagarik ibilten dira batzuetan gizonak, baña, geroago izaten dabe asiirik damututeko, Zure semeai kendu ta neuk artu baⁿdot bakalduntzea, zure alabea-ri emongo dautsat, okerra zuzenduteko. Zure sabeletfkorik evaf baⁿdot, zure odoletiko nñre ondorengoak lortuko dodaz zure alabearen bitartez, zure enarilasuna biztu ta geituteko; maitasun-arloan amamaren izena ezta asko gitxiagorik, ama-izen kutuna ba-ñic; ain zure seme-alaba dira zure ilobak (orixeⁿ fcaí, maila bat bera.gokc), zeure zeu- re giroko, zeure zeure odoleko; neke bardin-ak emongo dautsuez, berak yasango dau- zan gau bateko miñak izan ezik, zuk zeuk beragaitik yasan zebazan langoxe minak

(4) Lete dalako au beñolako olerkari ames- laric^k. asmaⁿuriko ifcaí edo erreka yatsu, ba- ña ez muñidu onstaⁿ.korik, euren zorionlegikca, beste mundukca fcañio. Ibcñi atako urik edan eⁿgvanari azñju, ta zeatz aztu be, egⁿten ei ya- kozan mundⁿu onel;Tiko zer oncrk eta txarrak, bitsuek, icn ezetçiriⁿko kezkarik edo artegerta- sunik ez izateko. Azute esan gura dau Lete itzak Eladeraz. Ikusi Birgiliⁿrcn Enearena Vfc 705-715.

izan ezik. Zure umeak aspergarri, gogaikarri izan yakozan zure gaztetasunari, nireak ostera, zure zartzaroko nasaigarri iango yatsuz. Bakaldun litzakean semearen galtzea baño eztozu izan, eta galtze agaitik bakalduno egin da zure alabea. Nik gura neunkenez ezin dot zuzendu egin dautsudan okerra, eta, audala-ta, ontzat artu egizu zuzentza-bidean al dodana. Aintzakotasun goikoe-tara nik a eragiteko, egione ta alkartasun eder onek laster ekarriko dau etxera zure semea, bildurrez beterik erbestean gogoaz bestera dabilena: zure alaba liraina emazte deituten dauen bakaldunak, etxetiarkiro, anai deituko dau Dorset; barrien-barri izango zara zu bakaldunaren ama, eta pozetan alango bigaz, zuzendurik geldituko dira zori txarreko aldietako ondamendiak. Ba! egun on asko ikusieko gara; Eguzki-aldeko pitxitara bihurturik etorriko dira atzera zuk ixuri dozuan lobelezko negar-tantanak, eurak ixuri ebazana zori onezko irabaziz alango amar bider aberasturik. Zoaz, ba, ene ama, zure alabeagana; zure ikusi-ikasiz adoretu egizuz aren urte biotz-yausiak; gertau egizuz aren belarriak, maitaminduaren ipuñak entsuteko; sartu egizu aren biotz samurrean urrezko nagusientasunaren gora-garra; gogoratu egiozuz bakalalabeari ezkontza-poze-tako ordu ixil gozoak; eta nire beso onek Buckingham asaldari muker, buru-motela, zigortau dagianean, bekokian garailla-lora-sortea dodala etorri nadinean, garailaren oera eroango dot zure alabsa; ari eralgiko dautsat barriro nire garaitea, eta bera bakarrik izango da garailano, Kaisarra'ren kaisar.

ELIX. B.—Zer esateko nik lenen? Bere aita-ren anaiea izateko aren yaun? Ala, aren osaba esango dot? Ala, aren nebak eta osabak erail ebazana? Zetariko izenez egingo dautsat ari zure aldetik maitaminduarena, bai Yaungoikoak, bai legeak, bai nire omenak, bai a beraren maitasunak aren adin samurrari izen ori eder eta atsegingarri dala-kotzat erakutsi al dagioen?

ERRIK. B.—Egiune onegaz Ingelanda ederre-ko bakea egingo dala esan egiozu.

ELIX. B.—Atzenbako elorrioz ordainduko Ieuken bakea.

ERRIK. B.—Esaiozu, agindu al izan-arren, es-ke dagokola bakalduna.

ELIX. B.—Bakaldunaren Bakaldunak galazota daukana ontzat artu ta egiteko.

ERRIK. B.—Esaiozu bakalduno andi ta altsu izango dala.

ELIX. B.—Izen orri negar egiteko, aren amak egiten dautsanez.

ERRIK. B.—Beti-beti maite izango dodala esaiozu.

ELIX. B.—Baña luzaro iraungo ete dau orra-ko "beti" labur orrek?

ERRIK. B.—Sendo ta gozoro, bere bizitza atse-gintsuaren atzenerarte.

ELIX. B.—Baña bere bizitza gozoak luzaro iraungo ete dau onik?

ERRIK. B.—Yaungoikoak eta berezkoak bizia bera luzatuten daben bestean luzaro.

ELIX. B.—Sulezeari ta Errikarta'ri eder yaken bitartean.

ERRIK. B.—Esaiozu, bere bendeko apal naza-la, bere nagusien nazan au.

ELIX. B.—Baña ak, zure bendekoak, iguin dau-tso olango nagusientasunari.

ERRIK. B.—Izlari trebe izan zakidaz agazko, nire aldez.

ELIX. B.—Zori obarik izaten dau azalpen zin-dok, lau ta izurrik baga esanda.

ERRIK. B.—Olan ba'da, lau-lau, argi ta garbi, eralgj egiozu nire maite-esakizuna.

ELIX. B.—Esakera zakarregia da lau bai, ta zindo ez.

ERRIK. B.—Azalekoegi ta bizi-arinegi dira zu-re zegaitiak.

ELIX. B.—Ui, ez, sakonegi ta ilegi dira nire zegaitiak; sakonegi ta ilegi dagoz umetxo errukarriak euren ilobietan.

ERRIK. B.—Ez egizu yo ari ori, andera; iga-roko zera yatsu ori.

ELIX. B.—Oindiño be yo egingo dot nik ari orí, nire bitzeko ariak eten arte.

ERRIK. B.—Nire Gorka, nire zango-galartzu, ta nire burestuna-arren...

ELIX. B.—Zakaturik, iraindurik dagotsuz orreik; irugarrena, barriz, zuk osturik.

ERRIK. B.—Zin dagiL..

ELIX. B.—Utsa-arren; orrako orí ezta zinik-eta: zure Gorka'k, zakaturik, galdu dau bere omen gurena; zure zango-galartzuak, mus-kildurik, baítu egin dabe euren zalduntza-onindarra; zure burestunak, ostua bera. Iotsagarritu egin dau bere bakal-aíntza. Si-nistekorik ezegaitik zin egin gura ba'dozu, zin egizu, ba. okerrik egin eztautsazun zer-baitegaitik.

ERRIK. B.—Ara, munitdia-arren.

ELIX. B.—Zure okerri zakarrez beterik baño beteago dago mundua.

ERRIK. B.—Nire aitaren eriotzea-arren.

ELIX. B.—Omengatu, zakartu egin dau a zure bizitzeak.

ERRIK. B.—Orrazkero, neure burua-arren.

ELIX. B.—Txarto erabilia yatsu zure buxua.

ERRIK. B.—Ba, olan ba'da, Yaungoikoa-arren.

ELIX. B.—Yaungoikoari egiten yakona da okerrik andiena. Yaungoikoa-arren egindako zinik austeko bildurrik izan ba'zeu, elitzakean ausiko zure anaeak egindako batasuna, ezta nire nebarik erailgo be: Yaungoikoa-arren egindako zinik austeko bildurrik izan ba'zeu, nire semearen loki samurrrak apainduko leuke orain zure burua inguratuten dauen bakaldun-meak; eta bakalseme biak legokez orain emen bizirik eta arnasea artzen, zuk ausiriko zinak aik arren yanari eginik, orain, autsetan, oe-lagun samur diranak. Zer-arren zin egin daikezu zuk orain?

ERRIK. B.—Geroa-arren, etorkizuna-arren.

ELIX. B.—Igaroan oker egin dautsazu zuk georoari; neuk be, ba, negarrik asko ikuzi ta legortu bearko dot geroan, igaroan zuk egin daustazuan okerrakaitik. Bizirik dagoz zuk euren gurasoak erail dautsezuezan umeak, ezi bagako gaztedia, gero negar egingo dauena; bizirik dagoz semeak erail dautsezuzan gurasoak, landara zar antzuak, orra-ko orregaitik eta zartzaroagaitik negar egiteko. Ez egin zinik geroa-arren; geroa, ba, eldu baño len txarto erabili izan dozu zuk, aldi txarto erabilia mugaz andikaldera geroaren arlorra be sartuta.

ERRIK. B.—Nire okerrak arteztu ta euretaz damututeko asmorik ezpa'dot, porrot egingo al dot nire arerio galgordetsuakaz dodan gudu onetan! Neuk nastuko al dot nire burua! Yaungoikoak eta Zoriak itxiko al daustez zori onerako atea! Egun. ez egistak emon ire argirik; ezta ik be, gau orrek, ire atsedenk! Adu oneko izarbelok, nire asmoen aurka yarri zakidaze zuok guztiok!... zure bakal-alaba lirain-ederra biotz garbitiko maitasunez, intsigitasun araisez, gogai zerutarrez maite ezpa'dot! Agan datzae nire zori ona ta zurea; a bagarik, nire, zure, bere, lur, eta Kistar gogo askoren yrrai eriotzea, sarraskia, ondamendia, ta atzena datoz; orrako orretatik ezin egin ziristik onako onegaz baño; onako onegaz bakarrik egingo yako zirrist orrako orri. Au dalata, ama maite, (Onan deitu bear zcmdaz), nire maitasunaren eta aren bitarteko izan zakidaz: nik izan gura dodana-arren eskatu egiozu, ez ni izan nazana-arren; ez aiatu nire babazirik, irabazi gura dodana baño; ekiozu, bearra ta aldic-j izakerea dala-ta, eta ez al zara muker eta setatsurik izango asmo andietan.

ELIX. B.—Onan zirikatu bear ete nau txerrenak?

ERRIK. B.—Bai, onerako zirikatu ba'zagiz txerrenak.

ELIX. B.—Neure buruaz aztuko ete naz?

ERRIK. B.—Bai, zure buruaz gomuteteak okerrik ekarri ba'dagitsu.

ELIX. B.—Eaña, semeak erail zeunstazan zuk.

ERRIK. B.—Baña zure alabearen erraietan ilobiratuten dodaz; eta abi gozo atan barriro biztuko idira, zure nasaitasun eta pozerako~

ELIX. B.—Nire alabea zure gurarira itzulten yoango ete naz?

ERRIK. B.—Eta orrako orregaz ama zori ontsu izaten.

ELIX. B.—Ba-noa. Laster idatzi egistazu, eta iragarriko dautsut aren gogca.

ERRIK. B.—Nire maitasun yatorraren muna eroan egiozu; eta, geiagoko bagarik, agur. (Mun dergio. Alde EUXABETE BAK.k).

Ergel orren berakor, emakume orren buru-arin eta aldakor.

RATCLIFF aurrera; atzeragotik CATESBY datorrela.

Kaxe! ze barri?

RATC.—Nagusien altsu be altsu ori. itsas-ontzidi itzal bat dago eguzki-sarrera aldeko izpastarrean; bada-ezpadako adiskide biotz-ustel asko doaz, mordoka, itsasegira, iskillorik baga, eta ai atzera eragitera ebatzi bagarik: Richmond dalakoa euren ontzidiburu; eta an dagoz ontzietan, Buckingham noz etorriko bakarrik begira; legorreratute ko, aren laguntza ta ondo-etorriaren begira.

ERRIK. B.— Adiskide oin-bizkorren bat doala Norfolk'eko Dukeagana: Eu, Ratcliff..., naiz Catesby; nondik da bera?

CATES.—Emen, ene yaun, on.

ERRIK. B.—Catesby, egaz egik dukeagana.

CATES.—Al dodanik eta arinen egingo dot, ene yaun.

ERRIK. B.—Ratcliff, ator ona: Salis^uurv'ra oa: bein ara eldutakoa, (CATESBY'ri) zital motel. ardurabako ori, zegaitik ago emen, dukeagana yoateka?

CATES.—Lenen, ugazaba altsu, iragarri egistazu zure ederretsia, zure aldetik ari zer iragarriko dautsadan.

ERRIK. B.—Bai, izan be, Catesby on: esaiok ari bertatik batu dagiala indarrak eta gudarosterik andiena, eta bertatik Salisbury'n bidera urten dagistala.

CATES.—Ba-noa. {Alde dagi}.

RATC.—Eta zer egiteko nik Salisbury'n?

ERRIK. B.—Ba! zer egingo eunke ik an ni ara aldu baño len?

RATC.—Zure aurretik yoan bear neunkela esan daustazu zuk, goiko orrek.

STANLEY aurrera.

ERRIK. B.—Aldatu egin yat gogo. Stanley, ze barri dakak?

STAN.—Barri onik bapez, ene ugazaba eurrak entzunaz zu poztutekorik; ezta ain txarrik be, ezin esatekorik.

ERRIK. B.—Ba, ba! ezetz igarrika atorku i! ez txar, ez on! Zegaitik ibili bear dok orrenbesteko bide luzean kako-makoka, esatekoa zirti-zarta esan al izanik? Beste bein, ze barri dakak?

STAN.—Itsas-ganean da Richmond.

ERRIK. B.—An urperaiuko al dok, eta itsasoak azpian artuko al yokf Igesi bildurtf gibelzuri ak zetan ete yaragoiok an?

STAN.—Eztaikit nik, nagusien altsu, susmorik izan-arren.

ERRIK. B.—Tira ba, zeren susmo dok?

STAN.—Dorset, Buckingham eta Morton'ek zirikatu ta eraginik, Ingelanda onetarako bidean da a, burestunaren billa.

ERRIK. B.—Uisik yagok bakaulkia, ala? Ez ete yok ezpateak nok erabilirik? II egin ete dok bakalduna? Yaberik baga ete yagok bakalderrria? York'en ondorengoetatik nor yagok bizirik, gu ez besterik? Eta nor dok Ingelanda'ko bakaldun York andiaren ondorengo baño? Au dala-ta, esaidak, zetan yaragoiok ak itsas-ganean?

STAN.—Orretarako ez izatekotan, ene ugazaba, nik ezin dot igarri.

ERRIK. B.—Ire ugazaba izateko ez izatekotan ezin dokala igarri zegaitik datorren Kimurutarra. Bildur nok asaldatu, ta aren afera igesiko ete dokan.

STAN.—Ez, ugazaba altsu; eta, au dala-ta, ez izan nigan uste onaren-efik.

ERRIK. B.—Non dozak, ba, ire indarrak ari atzera eragiteko? Non dozak ire maizterrak eta ire yarraileak? Ez ete yagozak orain sarkaldeko izpastarreen, matxinoak euren ontzietatik seguru ateraten?

STAN.—Ez, ene yaun on, iparraldean dagoz nire adizkideak.

ERRIK. B.—Adiskide otzak nitzako; zer egiten yoek aik iparraldean, euren nagusienaren otseintzan sarkaldean egon bear leukienazkero?

STAN.—Eztabe artu orretarako agindurik, bakaldun altsu; zure nagusiagotzeari eder etsi ba'dakio, batuko dodaz nire adiskideak, eta

zure nagusiagotzeari eder dakion lekuan eta aldiz bidera urtengo natxatsu.

ERRIK. B.—Bai, bai, Richmond'egaz bat egite-ra yoango intzake i; baño, etxoat izango igan uste onik.

STAN.—Nagusien altsu-altsu ori, eztozu zuk zegaitirik nire adiskidetasunagazko ezparrik susmorik izateko: eguño enaz izan eta cir.dik ara be enaz izango nif ustel.

ERRIK. B.—Oa, fca, eta batu egizak gizonak. Bcma, ire atzean itxik ire serne Gorka Stanley; sendo ta tinkD izango al dok ire biot'a, ostantxean mengel baño eztok aren segurantzeta.

STAN.—Ni zintzo izango natxatsunez erabiliko al dozu a. (Alde dag;).

Geznari tat aurrera.

GEZN.—Ene nagusien eskartsu, adiskideak ondo iragarri daustenez, iskillokaz dagoz orain Devonshire'n Sir Edorta Courtney ta bere anaiarik zarrena, Exeter'ko Gotzai arroa, kide asko geiagogaz.

Beste Geznari bat aurrera.

II GEZN.—Guildford'tarrak iskillok arturik dagoz Kent'en, ene ugazaba; eta ordurik ordura eupadakide geiago batzen dira matxinoen aldera, eta indartsuago egiten dira euren indarrak.

Beste Geznari bat aurrera.

III GEZN.—Ene yaun, Buckingham andiaren gudarostea,

ERRIK. B.—Ortik zear zoaze, mozollook! erioztza-otsez besterik eztakazue zuok! (Yo egiten dau). Auto, auto ori, barri obarik ekarri arte.

III GEZN.—Au ida nik zure nagusiagotzeari dakatsodan barria, zera, bapateko uriol eta euritez zabaldu ta sakabanatu egin dala Buckingham'en gudarostea; eta a bera aldarrai eta bakarrik dabilela, nondik danik inok eztakiala.

ERRIK. B.—Erruki-eske naçokik: auto katanneru au iri emondako belarrondokoa osatuteko. Burutapen oneko adiskidek aldarrikatu ete yok saririk emongo yakola a etoia goatu ta ekarri dagianari?

III GEZN.—Eginik dago olango aldarrikatutea, ene ugazaba.

Laugarren Geznari bat aurrera.

IV GEZN.—Or diñoenez, ene ugazaba, iskillok eskuetan dabezala dagoz Yorkshire'n Sir Toma Lovel, eta Dorset'eko Lord Marke-

tza. Baña. barri nasaigarri au dakatsot zure gcikotasunari..., zera, ekatxak sakahanatu egin dauela Bretagne'tiko ontzidia; Richmond'ek ontzitxo bat bidali dauela itsas-baztarrera, Dorsetshire'n, itsas-baztarrekoai itanduteko, bere aldeko diran, ala ez; Buckingham'andik bere alde etcerriak diraiia erantzun dautsoe aik; eta ak, areikan uste onik ez-eta, ontzi-oialak axeari emonda, atzera Bretagne'rako fciidea artu dauela.

EKRİK. B.—Aurrera, aurrera, iskilluak arturik gagozanazkero; eurekaz burruka egiteko erbestetar areririk ezpa'dago, emen etxeko matxinoak yu ta botateko.

CATESBY aurrera barrien-barri.

CATES.—Ene ugazaba, goaturik dago Buckingham'go Dukea, ori da barriik onena, bani otzago da Richmond'eko Kon^ea gudaroste indartsugaz Milford'en legorreratu dala, haña, orraitioño be, esan-bearrekoa da.

ERRIK. B.—Salisbury alierantza goazeni guda-kefa lango gudaketarik irabazi edikean guk enen escmesaka daragoiogun bitartean, irahazi, naiz gaidu: norbaitek beragan artu dagiala Buckhgham Saiisbury'ra eroateko agintuia; nigaz doazala enpaduak. (Ots argi. Aldc dogie).

V AGERLEKU.—LORD STANLEY'neko leku.

STANLEY ta SIH URSWICK aurrera.

STAN.—Sir Kistopor, au esaiozu Richmond'eri nire aldetik: aporik amurrutuenaren txarritgian baitegiraturik dagola Gorka Stanley nire semea; ni asaldatu ba'nendi, burua moztuko leuskioela Gorka gazteari; eta orra-ko orren bildurrak galazoten daustala orain aren lagun izatea. Au dala-ta, oa; nire gorantziak nire yaunari; orrez ganera, esaiok, bakaldunoa biotzez etsi dala Errikaita aren alaba Elíxabetegaz ezkondutera. Baña, esaidak, non dok orain Richmond bakaldarva?

KIST.—Pembroke'n, edo Ha'rford-West'en, Kimuruerri'n.

STAN.—Izen andiko gizonetatik zeintzuk yoan dozak aren aldera?

KIST.—Sir Walter Herbert, gudari ospatsun bera; Sir Gilberta Talbot, Sir Gillelma Stanley; Oxford, Pembroke adoretsua, Sir Yagoba Blunt, eta Rice ap Toma, talde adoretstu bategaz; baita beste asko he, izenez eta izanez. bietara andiak: eta London'erantza daroez euren indarrak, lenago, bidean, arerioagaz burruka egin ezpa'dagie.

STAN.—Ori ondo, csrin oa ire yaunagana; mun egiten yausat eskuan; idazki onek iragarriko yausat n're gogoia. Agur. (Pcipel batzuk damctsoz KISTOPOR'eri. Alde dagie).

V E K I T A L D I

I AGERLEKU.—SALIS3URY. Toki zabal idigi.

Xeiipa (Sheriff) ta Yagolak aurrera. BUCKINGHAM eraíliegira daroelarik.

BUICK.—Ez ete daust itxi gura Errikarta Bakaldunak beraii itzik egiten?

XERIP.—Ez, ene yaun on; epe artu, ba.

BUCK.—Hastings, eta Edorta'ien semeok, Grey ta Rivers, Endika Bakaldun guren, eta ire seme Eforta, Vaughan, eta ixilpeko zuzentzaiik-eza zakai-ustslak aldiz aurretik eroan zabezanok, zuon arima muker gogoaz besterakoak odei-bitartetik ikusi ba' dakuse ordu onetako au, azaskatute-arren baño ezpa'da be, irri ta barre egiozue nire ondamendiari! Omusantu-eguna da au, lagunak, ezta?

XERIP.—Bai, ba-da, ene yaun.

BUCK.—Ba, olan ba'da, Omusantu-eguna da nire soñaren azken-epai-eguna. Au da Edorta Bakaldunaren aldian nire ganera etortea opa izan nebana, aren semeentzako, naiz aren emaztearen aldekoentzako ustel agertuko nintzanean; au da nik beragan usterik geien ne'canaren bitartez egun berean ni yaustea opa izan neban eguna; cu, Ildako Guztien egun au, egun au da nire gogo bildurrez ilarentzako ebatzita dagon nire okerreri guztien erantzuna emotekoa: ni irrika ibili natxakon goiko Guzti-Ikusla ak, nire buru-ganera itzuli daust nire arren iruditua, eta benetan emon daust txantxetan es-

katu neuntsoncr, Onan beartuten dauz Ak gizon geztion ezpatak euren mokoak euren yabeen biotzeiarako bidea artzen: onan, astun yausten da nirs idunera Margarite'ren arako biraoa, ak esana, "Ak ire biotza nai-

bagearen naibagaz erdibitu dagianean, gomutau egik igarla izan zala Margarite". Tira, yaunak, lotsariaren zubilera eroan nagizue; okerreriari okerreria, ta Iotsaria da lotsariari zor yakona. (Alde dagie).

II AGERLEKU.—Tamworth'etik urreko Zelai.

RICMMOND, OXFORD, SIR YAGOBA BLUNT, SIR WARTER HERBERT, eta beste batzuk aurrera, danbor eta ikurrinakaz; Indarrakaz aurrera ba-doazala.

RICH.—Nire iskillokide, ta adiskide maite-maite zarienok, agintza gordinaren buztarpean zapaldu-opilduok, bein-beinean ezetariko eragozpen bagarik eldu gara lur onen erraietaraño; eta aiaa Sianley-gandik gure nasaitasun eta adorerako lerroak artzen doguz emen. Basaurde lapur, odolti ta zori íxarrekoak, gure uda-soloak eta maasti emokorrak induska lorrindu ta muskildu dauzanak, urunbia leçetxe salo edaten dau zuen odol epela, eta zuon biotzetan egiten dau bere askea, txarri zantar au gure izaro onen erdi-erdian bertan etxunik dago orain,

Leicester uritik ur, yakin dogunez; egun bateko bidea baño eztago Tamsworth'etik ara. Yaungoikoaren izenean, aurrera gogatsu, adiskide adoretuok, gudu zorrotzaren bide odoltsu onegaz betiko bakezko uztea batzeko,

OXF.—Eztot ezpairik, seguru nago gure alde-
ra etorriko dirala aren adiskideak.

BLUNT.—Ak eztau beste adiskidearik, bildurrez adiskide yakozanak baño, eta orrako orreik euren bearrik geien idauenean itxiko dabe a bertanbera.

RICH.—Gure alde guzti ori. Au dala-ta, aurrera, Yaungoikoaren izenean: bizkor da itxaro yatorra, eta elai-egoz egaz egiten dau; yaungoikotu egiten dauz bakaldunak, eta bakaldundu izaki zirtzilagoak. (Alde dagie).

III AGERLEKU.—Bosworth larrea.

ERRIKARTA BAKALDUNA ta Indarrak; NORFOL'EKO DUKEA, SURREY'KO KONDEA, ta beste batzuk aurrera.

ERRIK. B.—Emen eragi gure txoznak, ementxe Bosworth'eko larra onetan; Surrey'ko ene Lord, zegaitik ago orren gotilun?

SURR.—Nire arpegia baño amaika bider argiago dago nire biotza.

ERRIK. B.—Norfolk'eko ene Lord.

NORF.—Emen nozu, ene ugazaba eskartsu-eskarísu.

ERRIK. B.—Norfolk, zartadarik izan bear yoa-gu; ba! ez ete?

NORF.—Eietarikoak izan bear doguz, ene yaun maite, emonak eta artuak.

ERRIK. B.—Eragi nire txoznea! Emen etzango naz arratseon, (Asten dira Gudariak Bakaldunaren txoznect eragiten) baño non biar? Tira ba, eztau ardura orregaitik. Nok zenbatu dauz saltzalleak?

NORF.—Geienez be sei edo zazpi millara el-tzen da euren indarra.

ERRIK. B.—Ba, ori lango iru da gure gudasos-

tea; ganera, sendotasunaren torre da bakaldunaren izena, beste aldean dagozanak eztabena. Eragi txoznea! Erdu, aitonseme zindook, dakusgun larra onek zer dauen gure alde; deitu onu zindoko gizon batzuk; ez al dogu ízango yakintza-ezik, ez al dogu galduko astirik; egun zeregintsua izango da, ba, biarkoa, yaunak. (Alde dagie).

Aurrera, larrearen beste aldetik, RICHMOND, SIR GILLELMA BRANDON, OXFORD, eta beste Lord batzuk. RICHMOND'en txoznea eragiten dabe gudari batzuk.

RICH.—Urrezko etzakerea izan dau eguzki nekatuak, eta bere suzko burdiaren lorratz argiak biar egualdi ona izango dogularen baia damosku. Sir Gillelma Brandon, ik eroango dok nire ikurrina. Ekadazue papelik eta H'azkurik arean, nire txoznatik artuta; marratu egin bear dot gudaketeta zelan izango danaren irudia, gualburu bakotxari bere egitekoa izantau ta berezi, eta ein zuzenez ataldu gure indar txikarra. Oxford'eko

ene Lord, i, Sir Gillelma Brandon, eta i. Sir Walter Herbert..., nigaz gelditu zuok. Penbroke'ko Kondeak or dau bere gudari-taldea; Blunt gudalburu on, nire gauonak emoiok ari, eta esaiok kondeari goxeko ordu bietan datorrela nire txoznara, ni ikusten; oindiño beste zertxo bat egistak, gudalburu on, ete dakik non dagon Lord Stanley besteen gudategian?

BLUNT.—Oker aitu ezpa'dodaz aren ikurrinak (eta eztoz uste olangorik yazo yatanik), aren gudari-taldea, gitxienez, bakaldunaren indar nagusia baño milla bateko bidean egoealderago dago.

RICH.—Onako au galgorde bagarik egitea al izanazkero, Blunt maite, asmau egik agaz itz egiteko bide onen bat, eta emoiok nire aldetik bear-bearreko izango dan idatzitxo au.

BLUNT.—Neugan artuko dot egikizun ori, neure biziaren galgordepean; eta, gsiagoko bagarik, atsedon ona emongo al dautsu Yaungoikoak arratseon!

RICH.—Gau on, Blunt Gudalburu on. Erdu, aitonsemeok, biarko arazoaz bakotzak bere onua emon dagian; sartu nire txoznara; goridin' eta otz dago eguratsa. (Txoznara alde dagie).

Bakaldunaren Txoznara ERRIKARTA BAKALDUNA, NORFOLK, RATCLIFF, eta CATESBY.

ERRIK. B.—Ze ordu da?

CATES.—Apal-ordu da, ene yaun; seirak.

ERRIK. B.—Arratseon eztoz apalduko nik. Papela ta idazkura ekadazuez. Ostera! len baño nasaiago da nire guda-koskola, ala? Nire guda-koskol osoa nire txoznan itxi dabe, ala?

CATES.—Bai, ene ugazaba; eta zer guztiak dagoz gerturik.

ERRIK. B.—Norfolk on, arin oa i ire egiteko-ra; yagola arduratsuk erabili egizak, gau-yagola seguruak autu egizak.

NORF.—Ba-noa, ene yaun.

ERRIK. B.—Larratxoriagaz batera igitu adi biaramonsan, Norfolk zindo.

NORF.—Seguru egon, ene yaun. (Alde dagi).

ERRIK. B.—Ratcliff...

RATC.—Zer. ene yaun?

ERRIK. B.—"Pursuivant" bat bidali egik Stanley'ren gudaltegira; esaiok eguzkia yagi-aurretik ekarri dagiala bere indarra, bere seme Gorka betiko gauaren ilobi itsura yausi eztaiotan.. Ardaoz bete egistak katillu bat. Zuzi bat ekadak. Bastea ezarri egiok nire zaldi Surrey zuriari, biar gudategirako. Be-

giratu ta ardurea artu egik nire asta-makia kirten-sendo izan dadizun, buñu ez asu- r.egi..., Ratcliff...

RATC.—Zer, ene yaun?

ERRIK. B.—Ikusi ete dok Lord Northumberland gotiluna?

RATC.—Toma Surrey'ko Kondea ta a, biak ikusi dodaz olloak otaratuten diran aldian, gudaritaldetik gudaritaldera ebiltzala gudaltsgian, gudariak adoretuten.

ERRIK. B.—Olan ba'dok, nasai naiagok. Ekadak katillubets ardao; etxoa nik len izafen izan dodana lango biotz-bizitasunik, ezta gogo arçirik be. Qr iixik. Gerturik ete daçoz idazkura ta papela?

RATC.—Bai, ene yaun.

ERRIK. B.—Atzarrik eta zur egon dadizala agindu egiek nire yagolai; bakarrik itxi nagik. Ratcliff, or gaber.ái-inguruan afor nigana, iskilluok yazten nire lagun izateko. Alde egik, gero! (Alde ERRIKARTA BAK.k bere txoznara. Alde RAT., eta CATES.'ek).

Idigi egiten da RICHMOND'en txoznea, ta bera ta bere Gudalburuak agertuten dira. STANLEY aurrera.

STAN.—Zori ona ta garaitea kokatuko al dira zure buru-koskolaren ganean!

RICH.—Gau ilunak emon daiken nasaitasun guztia etorriko al da zure ganera, aitaginarraba zindo! Esaidazu, zelan dago gure ama maitea?

STAN.—Eientzaka Richmond'en alde arrenka dagon ire amaren izenez onesten aut, nik aren bitarteko onek; bego agazkoa. Ixilka aurrera yoazak gabeko orduak, eta ilun zurizksa agiri da eguzki-aidetik. Labur esateko, (ori nginduten dausku, ba, aro onek) goxean goiz gertau egik ire gudaketea, eta ire zoria zartada odoltsu ta eriotza-begirakunedun guduaren eskuetan imfni egik, Nik, al dodanez, (ezin ycat, ba, egin gura neunkenik) al dodanik ondoen emongo yoat astia, eta ire lagun izango nok seguru eztan gudu-ekite onetan: baña, ire aldean ni ezin agertu izango nok aurreregi, ni ikusi ba'nagie, ire anai Gorka samurra bere aitaren begien aurrean erail eztagien. Agur. Eztogu orretarako astirik, eta aldi bildurgarri au be eztoz egokirik luzaroan alkarregandik banandurik egon diran adiskideak alkarregaz euki bear leukiezan txera ta maitasun-erakuste ta autu luzeatarako: astirik emongo al dausku Yaungoikoak maitasunaren orretaiko arr-emonetarako! Agur, beste

bein: kementsu izan, eta onik eta ondo uitenç *al a?A*

RICH.—Yaun onck, bere gudari-faldera eroan egizue au; gogai kezcatsu-urduriokaz loiskitxo bat egiten aleginduko naz, biar, garaitaren egoz gora-goraka igon bear neunken au, berunezko Ioa-gura astunak azpian artu ta sakatu enagian; gau on beste bein, lord eta aitonseme maiteok. (Alde Lerdak eta *ubar*, STANLEY'gcsz). Nire bnrua Zure gudalburutzat dodan Ori, begi txerakorrez begiratu egizuz nire indarrak; yo ta zeatuten daben zure asarrearen burdiñak imini egiezuz eskuetan, euren yaust³ astunez birrindu dagiezan euren arerioen buru-koskol lapurra¹ Zure zigorraren bitarteko ta erabilitzalla egin gaizuz, garaite-aldian goratu zai-guzcn! Zure babespean iminien dxt nire gogo atzcirria, nire betazalai bera yausten nik itxi baño len; Iotan, naiz atzarrik, Ui, beti yagon nagizui (Lcaik art'zen dou).

ENDIKA SEIGARRENA'ren seme, EDORTA BAKALSEME'aren Mamu, edo aren antzeko Agerkizun bat yagiten da txozna bien bitartean.

MAM.—(ERRIKARTAii) Astun kokatuko al nok biar ire çogooaren ganean! Gomutau egik zelan erail nendukan nire gaztearo-Iendian Tesvksbury'n: etsi adi, ba, ta il adi! Poztu ta gogargitu adi, Richmond; ire alde yaragoioek, ba, burrukan okerrieriak egin yakezan bakalseme erailak: Endika Bakaldunaren ondorengoak nasaituten au, Richmond.

SEIGARREN ENDIKA BAKALDUNA'ren Marjua yagiten da.

MAM.—(ERRIK. B.'ri) Ire eskuz, zulo eraillorrez yosirik gelditu zoan nire soin gantzutua, ni bizi nintzanean; Gomutau gagizak Torrea ta ni: etsi ta il adi. Seigarren Endikak aginduten dausk, etsi ta il aitela! (RICHMOND'eri) Garaila izan adi, onindartsu ta guren ori! I bakaldun izango intzala iragarri eban Endika'k nasaituten au ire lotan: bizi adi, loratu adi!

CLARENCE'ren Mamua yagiten da.

MAM.—(ERRIK. B.'ri) Astun kokatuko al nok biar ire gogoaren ganean! Ni, Clarence, ardaoren ardaotan ito nendukana, ire iruzurrez eriotzaratu nendukana! ni gomutau nagik biar gudaketan, eta yausiko al yak ire ezpata amutsa; etsi ta il adi! (RICH.'eri) I, Lankastertarren etxeko landara ori, ire alde

orrenka daragoioe okerrak egin yakezan York'en ondorengoak; angeru onak yagon-go al ycek ire gudaketea! Bizi ta loratu adi!

RIVERS, GREY, eta VAUGHAN'en Mamuak yagiien dira.

RTVERS'ENA.—(ERRIK. B.'r) Astun yezarriko al nok biar ire go^oaren gar.ean ni, Rivers, Pomfref'en il nint^ana: Eisi adi, ta il *aiv*.

GREY'RENY.—(ERPJK. L.'r.í Grey gomutau egik, ei: ctsiko a\ fok irs goçon!

V/UO¹IAA""N-« ILI-RIK. B.'ri) Va.uçcm gomutru ecik, eia errudunare-n bildurrez yausiko al yak ire astamakilea: etsi adi, ta il *or: i*

IRURAK. (RICH.'eri) Atzaxri adi, eta gcmutau egik Ernkarta'rsn iictzean dagczan guri egindcko ckerrak benderatuko dabela a! Atzarri adi, ta irabazi egik eguna!

HASTINGS'e.n Mamua ycgiten da.

MAM.—(ERRIK. B.'ri) O'dolti ta errudun, erruqonT_itoa~r7z aizarri ç;di, etrr gudcl;3ta odoltsuan amaitu egizak ire egunak! Lord Hastings gc~rmntau egik: etsi cdi, ta il adi! (RICH.'rr) Arteçatasuriik T-agako gogo ori, atzarri adi, atzarri acil' artu iskillioak, egin burruka, ta garaila izan, Ingelanda lirainarren!

Bakalseme gazte bien Mamuak yagiten dira.

MAMUAK.—Torrean eraildako ire lobez ames egik: berun izango al gatxakaz ire biotzean, Errikarta, eia berantza sakaiuko al dauskagu, i ondaturik, iotsaturik eta ilik gelditu crte! Eir-i ta il adila aginduten dauskae ira loben gogoak! Lo egik, Richrmond, baketan lo egik, eta pozetan atzarri adi; angeru onak yagono al aue basaurdeagandiko edozein kezkatik! Bizi adi, ta bakalenda zori ontsua sortu egik! Loratu adila opa dauskae Edorta'ren seme zori txarrekoak.

ANE BAKALDUNOA'ren Mamua yagiten da.

MAM.—Errikarta, ire emazteak, Ane ire emazte zori txarrekcak, igaz ordubeteko lo nasairik egin ez ebanak, artegatasunez beteten yok orain ire Ioa: ni gomutau nagik biarko gudaketan, eta yausiko al yak ire ezpata epairik bagakoa: etsi adi, il adi! (RICH.'eri) Gogo nasai-bare ori, nasai lo

egik; zori onaz eta garaite zori ontsuaz ames egik: ire aide aneiika yaragoiok ire aierioaien emazteak.

BUCKINGHAM'en Mamua yagiten da.

MAM.—(ERRIK. B.'ri) Lenena izan nintzoan ni burestunerako iif lagun egiten; atzenengoa izan nok ni iie gogorkeiia oartu ta yasanten; Ui, gudaketan gogotan erabili egik Buckingham, eta iie erruagandiko ikaratan il adi! Ekiok, ekiok egite odoltsuz eta erioztzez amesetan: larritu ta etsi adi; etsiaren etsiz emoik azkenengo ire arnasea! (RICH.' eri) Iii lagundu al izan-aunetik il nintzoan, lagumdukeko itxaioz: baña, poztu egik ire biotza, ta ez adi adoregatu; Yaungoikoak eta angeiu onak daragoioe bunukan Richmond'en aldean; Errikarta, osteia, yausten da bere arrokeriaren goitegitik. (Ondatu egiten da Mamun. ERRIKARTA B. ikaraturik oztzarten da bere amesetik).

ERRIK. B.—Beste zaldien bat ekadazue..., bat nire zauiik... Erruki zakidaz, Yosu! Ixi-lik! ames utsa izan da. Yakinkidetza koldar-bildurti ori, eloirioen elorrioak ezarten daustazak ik! Urdin, oztin dagoz argiak, gaberdi gaberdi da orain. Izerdi-tantan otz bildurtiak agiri dira nire soin ikaratan. Ostera! neure buruaren bildur? Eztago emen neu ez besterik iñor: maite dau Errikarta'k Errikarta; zera, neu naz ni. Badago emen erailarik, ala? Ez; bai, neu naz; olan izatekotan, igesi egik. Onangorik! neure buruaz neu azaskatu! Ai ene, maite dot nik nire burua. Zegaitik? Neure buiuari egin izan daustadan egite onen bategaitik, ala? Bai zera! Ai ene, dana bestera, gorroto daustat nik nire buruari, neuk egindako egite goriotagarriakaitik! zital naz ni: baña, orraitioño be, guzurra diñot, naz ni zitalik. Zoro, ergel ori, txarrik ez egik esan eure buruaz; zoro, ergel, ez egik egin zurikeririk. Milla miñ dauz nire yakinkidetzak, eta ipuin bana dakarie miñok, eta zitaltzat epaitu ta gaiztesten nau ipuin bakotzak. Zinaustea zinaustearen ganera, eta zinausterik andienak; erailtea, erailte gorri-gordina, gorengo mallako erailtea; oben guztizak banan-banan, malla guztietarikoak, guztiak datoz mordoan epaitegira, guztiak gedarrez eta oioka, "Errudun! enudun da ori!". Etsi egingo naz. Izakirik bat bera be eztago ni maite nauenik; eta, il ba'nadi, iñortxok be eztauz izango nire errukirik; ez, ba, zegaitik izateko errukirik, nik neuk be nigan nire errukirik idoroten epza'dot? Nire txoznara

etorri dirala nik erail izan dodazanen go-goak uste izan dot; eta biar, azaskatzez, Errikarta'ren buru-ganera etoniko danagaz zemaftu nabe guztiak.

RATCLIFF aurrera.

RATC.—Ene yaun...

ERRIK. B.—Nor dogu or?

RATC.—Ratcliff, ene yaun; neu naz. Auzoko ollar goiztarrak biiritan agur egin daustoxari; yagirik dagoz zure adiskideak, eta iskillok soñean estuten daiagoioe.

ERRIK. B.—Ui, Ratcliff, ames bildurgaria ames egin yoat! ze uste dok ik, zintzo izango ete yakuzak guie adiskide guztiak?

RATC.—Ezpaiki bez orretan, ene yaun.

ERRIK. B.—Ui, Ratcliff, bildur nok, bildur nok. bildur nok.

RATC.—Ez, ene yaun on, ez izan itzalen bilduririk.

ERRIK. B.—Paul Beldua-arren, amar milla gudar iskilloz zeatz estalirikok eta Richmond kirtanak leroazanak baño ikara ta bildur andiagorik sartu yautsoek barko itzalak Errikarta'ien biotzari. Oindiño eztok uneratu eguna. Erdu, nigaz ator; tellatu-egalpean kuika egoten danarena egingo yoat gure txoznen azpian, nigandik zirrist egiteko asmotan iñor dagonentz yakiteko. (Alde RATC' ek eta ERRIK. B.'k).

Atzarten da RICHMOND. OXFORD eta beste batzuk aurrera.

LORDAK.—Egun on, Richmond!

RICH.—Erruki-eske nagotsue, lord eta aitonseme atzaniok, nagitzar eta berantar au lotan aurkitu nozuelako.

LORDAK.—Zelan egin dozu lo, ene yaun?

RICH.—Zuok alde egin dozuena, eguño buru loguratsutan sartu ledikezan lorik gozoen eta amesik zori ontsuenak izan dodaz, ene yaunak. Arein soñak Errikarta'k erail ebazanen gogoak nire txoznara etorri ta garaite-goraketak egin daustezala iruditut: sinistu egistazue, pozik eta aigi dago niie biotza, olango ames gozoa gogoraturik, Urrin ete dago argiabarra, yaunak?

LORDAK.—Laurak-inguru da.

RICH.—Ba, olan izatekotan, iskillok artu ta aginduak emoteko tertzioa da, (Gudarietarantza doa) Astirik-ezak eta aldiaren estukureak galazo egiten dausku esana baño geiagorik esaten, aberkide maiteok: orraitioño be, gogotan euki onako au, gure alde dagie burruka Yaungoikoak eta gure zegai-

ti zuzenak; gure aurrean doguz yainkotar gurenen eta okerrik egin yaken gogoen arrenak, torre goiak langoxeak; guk irabaztea gurago leukie guk gudu egiten dautsegunak, Errikarta'z besteak, ak eta aren yarrai doazanak baño; zer da, ba, ari yarrai doakozana? Benetan agintari gordin odolli ta giza-eralea, aitonsemeok; odoletan eragia, eta odoletan sendo yarrria; dauena lortuteko bide ta bitarteko billa ibili, ta bere laguntzat erabili ebazan bere bide ta bitartekoak erail dauzana; arri zakar zirtzil bat da a, a an bere ganean yezarri dana, Ingelanda' ren bakaulki eder dalako izan-arren; beti Yaungoikoaren arerio izana da a; au dala-ta, ba, Yaungoikoaren arerioari burruka egin ba'dagiozue, Yaungoikoak, zuzenez, Bere gudarizat yagongo zauetz; izerdirik ixuri ba'dagizue agintari gordinik lurreraturteko, nasai egingo dozue lo, bein agintari gordina erailazkero; zuon aberriaren arerioen aurka burruka egin ba'dagizue, zuon aberriaren aberastasuna izango da zuon nekeen ordaña; zuon emazteak yagoteko egin ba'dagizue burruka, zuon emazteak emongo dautsue zuok etxeratutakoan ondo-etorria, zuoi garaileai; zuon seme-alabak ezpatatik yagon ba'dagizue, euren seme-alaben seme-alabak ordaindu ta kitutuko dautsue zuon zartzarosan. Au dala-ta, Yaungoikoaren eta zuon diran zer guztion izenean aurrera zuon ikurrinak, atera zuon ezpata urten-irrikituak, urten-artegak, urten-gureak. Nigazko, nire alegin azarrien sariztat, gorpuz otz au lur otzari emoteko gertu nago; baña, ondo urten ba'nendi egite onetatik, zuotatik gitxien danak nire irabazitik artuko dau bere zatia. Yo, zoli ta pozik, danborrak eta tutuak; Yaungoikoa ta Gorka Gurena! Richmond eta garaitea! (Alde dagie).

Barrío aurrera **ERRIK. B.**, **RATCLIFF**, Otseintzakoak, eta Indarrak.

ERRIK. B.—Zer esan dau Northumberland'ek Richmond'egazko?

RATC.—Eguño eztauela ikosi ak iskillorik erabilten, gudurik egiten.

ERRIK. B.—Egia esan yok ak: eta orduan zer esan yok Surrey'k?

RATC.—Irribarre eginda, gutzako ainbat eta oba dala esan dau.

ERRIB.—Zuzen egon dok; eta olantxe dok, izan be. (Erloi-uak yoten dau). Ze ordu dok? Egutegien bat ekadazue. Nok ikusi dau eguzkia gaur?

RATC.—Ez nik, ene yaun.

ERRIK. B.—Olan ba'dok, etxok aintzakotzat gaur argi egiterik; egutegi onsk diñonez, ba, orain ordubete dala eupada egin bear euskion eguzkialdeari: egun baltza izango da au norbaitentzat. Ratcliff...

RATC.—Zer, ene yaun?

ERRIK. B.—Gaur etxok iñok ikusiko eguzkirik; betozkoa erakutsi ta akar egiten yauntsak ortzeak gure gufarosteari. Lurretikoak al litzozak iñontz-antzeko negarrok. Argirik ez gaur! Ba! zer geiagorik ardura daust orrek niri, Richmond'eri baño? Niri betozkoa erakusten daustan ortze berak begirakune goibela egiten dautso ari be.

NORFOLK aurrera.

NOR.—Iskilloetara, iskilloetara, ene yaun; arro dabil arerioa larran.

ERRIK. B.—Tira, ekin, ekin; guda-koskola ezarri nire zaldiari; deitu Lord Stanley, esan ari ekarri dagiala bere indarra; nire gudarrien aurretik yoango naz ni zelaira, eta onan eratuko dot nire gudaketea: lerro baten zabalduko dira nire aurre-indarrak, oñezkotan beste zaldizkotan idirala; erdian iminiko doguz gure arranbelariak; Yon Norfolk'eko Dukea, Toma Surrey'ko Kondea izango dira oñezko ta zaldizkoen gudaiburu. Oneik onan eraturik dodazala, gu geu gudarostean atal nagusian yarraiko gatxakez; eta zaldizkoz sendotuko doguz gudaroste onen albo biak. Geiagoko bagarik, Gorka Gurena lagun izango al yaku! Ze eretxi dok ik, Norfolk?

NORF.—Guda-eraketa bikain yatsu ori, nagusien gudazale... Goxen nire txoznan idoro dot onako au. (Papel biribildu bat damoto).

ERRIK. B.—(Ba-dirakur) "Norfolk'eko Yontxo, ez adi izan azarriegi, ire ugazaba Errikartatxo'k bere burua saldu yok-eta", Arerioak asmauriko zera yak au, Yoan, aitonsemeok, baktxa bere egitekora; gure ames totelak ez al dabez bildurtuko gure gogoak: koldarr-kikilak darabilen itza baño ezta yankikidetzeta, ezpatak dira gure lege. Aurrera, batu aikaz, naste-borrasteen goazen euren ganera; zorientegira ez yoatekotan, sulezara goazen alkarri eskutik elduta. Zer esateko esanaz besterik? Nogazkoa egin bear dozen gomutau; aldarrai dabiltzanen eskutadeagazkoa, zitalakazkoa, eta igesiakazkoa, Biritainarren zaborreagazkoa, baserritar kirten otseingarriekazkoa, euren erri asebetegiak euren etsien egite ta on-

damendi segurura okadaka egozten dauzkanakoa. Zuon lo gozoa galazo ta artegatu egiten zabez aik; lurren yabe zarie, emazte ederrez onetsiak zarie; ara, ba, aik kendu, ta oneik izortu egingo dautsuez. Eta nor da euren buru, gure amak ordaindurik Bretagne'n luzaro euki izan daben arlotetzarra baño? Esne-zuku, eguño bere bizian ©iurretan oskiak somatzen daben baño ot2 geiagorik somau eztauen baño? Txibitotsean atzera itsasora bídalf daiguzan emen sakabanaturik dabiltzanok; zigorka bidali daiguzan emendik aintzakoegitatz doguzan Pantze'ko sorkiok, eskeko goseak-iloc, euren biziaz asperturik eta etsita dagozanok; eskuarterik-ekaz egite andion amesik eragin ezpa'leutse sagutzar errukarri orrei, etsiarren etsiz euren buruak eskegiko eukiezan; benderatu-bearrekoak ba'gara, gizonak benderatu gagezala, ez Bretagne'tar sasikumok; ez gure asabak orrein lurtean benderatu, astinaldi ederrik emon ta euren oin-Pean eopalóVu, ta gomutagarritzat eta lotsagairitzat, euren sasikumek itxi eutsezanok. Onein gozagarri izango ete dira gure lurrrak? Gure emazteak etzan bear ete daba oneik? Gure alabak izortu bear ete da-

bez oneik? Adi! badantzut euren danborotsa. (Urrinetiko donborro-oisu) Yo ia ke, ingelanda'ko aitonsemeok! Burruka egin, etxagun azarriok!... Yaurtin, arranbelaxiok, yaurtin zuon geziak orrein buruetara!... gogor sartu aztalak zuon zaldi arroai, eta odolatan ibili, odolatan uger egin zaldi-ganean; ikaraturik eta arriturik itxi egizue ortzea zuon astamakila ausien karraskadaz!

Geznari bat aurrera.

Zer diño Lord Stanley'k? Ekarriko ete dauz bere indarrak?

GEZN.—Ene yaun, eztau etorri gura.

ERRIK. B.—Moztu dagioela burua aren seme Gorka'ri!

NORF.—Ene yaun, igaro dau arerioak iztingea; gudaketa-ostean il daitela Gorka Stanley.

ERRIK. B.—Milla biotz andi yagozak nire buruarrean; aurrera doazala gure ikurrinak, eraso gure arerioai; goi-atsez erensuge sutuen gogaldia emongo al dausku beñolako adoretzatz, Gorka Guren txeratsuk! Euren ganera! gure buru-koskolen ganean kokaturik dago garaitea. (Alde dagie).

IV AGERIEKU.—Lanako beste arlo bat.

Guda-otsak: sartu-urtenak. NORFOLK eta Indarrak aurrera; CATESBY datorko.

CATES.—Lagun zakiguz, Norfolk'eko ene Lord, lagun zakiguz, lagun zakiguz! gizoni dago kon baño alatz andiangoak egiten daragoio bakaldunak, galgorde guzti ta guztitafkoai aurrez-aurre yarririk! Erail dautsoe bere zaldia, eta oñez daragoio burruka, bera erioztzearen eztarrian dagon bitartean Richmond' en billa. Lagun zakiguz, yaun txerakor, ostantzean galdurik dogu eguna-ta!

Guda-otsak. ERRIKARTA BAKALDUNA ounera.

ERRIK. B.—Zaldien bat ekadazue! Zaldien bat ekadazue! Nire bakalderria zaldi baten alderako!

CATES.—Alde egizu, ene yaun; neuk billatuko dautsuz zaldien bat.

ERRIK. B.—Yopu, diteretara yokatu yoat nik nire bizia, ba, eta diterak dakarren zorira yarriko nok: sei Richmond dagozala gudategi onetan uste yoat; bost erail yoadaz gaur atakotzat., Zaldiren bat! zaldiren bat! nire bakalduntzea zaldí bategaitik! {Alde dagie).

V AGERLEKU—Gudategiko beste arlo bat.

Guda-otsak. Aurrera, aurrez-aurreko aldeetatik, ERRIKARTA BAK., ta RICHMOND; eta burrukan daragoioela, alde dagie. Atzerakea, ta poz-eresaldia. Gero aurrera barriri, RICHMOND, burestuna STANLEY'k dakanela. baita beste Lord batzuk eta Indarrak be.

RICH.—Yaungoikoa ta zuon besoak gorotuak bediz, adiskide garaileok! gure da gaurko eguna, ilik dago txakur odolti amunatua. STAN.—^Richmond adoretzu, ondo baño obeto azaskatu az! Amen, zori txarreko odolti onen loki iletatik erauzi dot aspaldi osturi-

ko bakalduntzea, beronegaz ire bekokia txairotuteko; erabili egik, gozatu egik, eta aintzakotzat etsí egik.

RICH.—Zoriontegiko Yaungoiko an'di, "Amen" esaíozu orrako orri! Baña, esaidazu, bizirik ete dago Gorka Stanley gaztea?

STAN.—Bai, ene yaun, eta seguru, Leicester urian eta, iri eder ízatekotan, ara yoan geindekez orain.

RICH.—Izendun gizonetatik zeinbat eta zeintzuk il ete dira alde bietan?

STAN.—Yon, Norfolk'eko Dukea, Walter Lord Ferrers, Sir Erroberta Brakenbury, ta Sir Gillelma Brandon.

RICH.—Lurra emon egiezue euren gorpual, euren yaiotzeari dagokionez; parkamena alidarrikatu egizue igesi daben gudarientzaL gugana bendekoturik etorri gura dabenen-tzat; eta gero, zin egin dogunez, batasuna egingo dogu larrosa zuri ta gorriagaz: Yaungoikoa, irribarre egiozu batasun eder oni, aspaldilik betozko ilunez begiratu dozu, ba, euren arteko areriotasuna! Zein saltzallek, zein etoik entzuten daust, ta eztaust erantzu-

ten "Amen"? Luzaro egon da Ingelanda amurraturik, eta bere burua urratu dau; itsuturik, anaieak anaiearen odola ixuri dau, aitak bapatean erail dau bere semea; orretara bearturik, bere aitaren erala izan da semea; York eta Lankaster alkarregandik banandurik, gorroto gorritz banandurik egon diralako yazo 'da onako guzti au, eta, Ui! orain Richmond'ek eta Elixabete'k, bakal-etxearen ondorengo yator eta legezkoak, Yaungoikoaren agindu txerakorrez alkarregaz batu-batu egingo al dabez! Eta euren ondorengoak (Zuk olon gura izatekotan, Yaungoikoa), geroa edertuko al dabe bake mosu-txerakorragaz, ugaritasun irribarretsuz, eta egun on zori ontsuz! Amustu egizu etoien epaia, Yaun eskartsu, egun odoltsurik atzera ekarri gurako leukienena, eta Ingelanda errukarriak negar-errekak ixurtea gurako leukienena! Gelditu dira orain errikideen alkar zaurituteak, barriro bizi da bakea; eta bakea emen luzaro bizi daiten, "Amen" esango al dau Yaungoikoak! (Alde dagie).

ZORTZIGARREN ENDIKA
BAKALDUNA

(KING HENRY VIII)

ZORTZIGARREN ENDIKA BAKALDUNA

(KING HENRY VIII)

ANTZERKI ONETAN ANTZEZTURIKO NOTINAK

ZORTZIGARREN ENDIKA BAKALDUNA.

WOLSEY KARDINALA.

CAMPEIUS KARDINALA.

CAPUCIUS, V KARLA INBERADOREA'gandiko Ordezkarria.

CRANMER, Canterbury'ko Gotzaiburua.

NORFOLK'EKO DUKEA.

BUCKINGHAM'EKO DUKEA.

SUFFOLK'EKO DUKEA.

SURREY'KO KONDEA.

Lord Chamberlain (Ondasunzaia).

Lord Chancsllor (Epaikariburua).

GARDINER, Winchester'ko Gotzai.

LINCOLN'EKO GOTZAIA.

LORD ABERGAVENNY.

LORD SANDS.

SIR ENDIKA GUILDFORD.

SIR TOMA LOVELL.

SIR ANDONI DENNY.

SIR NIKOLA VAUX.

WOLSEY'ren Idazkariak.

CROMWELL, WOLSEY'ren Otsein.

GRIFFITH, KATARINE BAKALDUNOA'ren Atezaia.

Iru Aitonseme.

BUTTS, Bakaldunaren Osagile.

GARTER, Iskillo-bazkuneko Aldarrikari-buruetariko.

BUCKINGHAM'GO DUKEA'ren Begiralea.

BRANDON.

Zaldunketa ta Egitarauen Buiu.

Onulari-batzartegiko Atezaia.

Atezaia ta bere Otseña.

GARDINER'en Esku-mutila.

Aldarrikari bat.

KATARINE BAKALDUNOA, ENDIKA BAKALDUNA'ren Emazte, gerora ezkontzatik banandua.

ANE BULLEN, aurrekoaren Omen-Neskame, geroago Bakalduno.

Andera Andiki Zar bat, ANE BULLEN'en adiskide.

EPE, KATARINE BAKALDUNOA'ien Otsein.

Ainbat Lord eta Emakume Andiki Erakusketa Ixiletan; BAKALDUNOA'ren otseintzako Emakumek; Idazkariak, Gudalburuak, Yago-lak, eta laguntzako beste batzuk; ilen Mamu edo Itzalak.

AGERLEKU.—LONDON. geien baten, eta WINCHESTER; bein KIMBOLTON.

AURRE-ERASI

Barrerik eragiten enatortsue: zer astunak, benak, goibelak, andiak, eragileak, nagusia-gotza ta naibagez beteak, negar eragiten dabenak lango ikuskizun zindoak erakusten dautsueguz orain. Errukitu al diranak, negarrik ixuri leie emen, eurai olangorik eder izatekotan; edozelan be, egoki da geia orretarako. Egirik idoroko dabe emen, zer sinisgarririk ikusiko dabelakoren itxaroz euren dirua emon dabenak. Ikuskizuna alosoko dala esateko, agerleku bat edo bestekoa ikusteko bakarrik letorkezanak, seguru nago euren dirua ordu labur birako ondo emontzat etsiko dabela, ixilik eta gogara egon ba'dadiz. Antzezkizun gordin nasaien bat ikusteko, ikurdi-olsak entzuteko, kirtenen bat, txartas nabar-luze egal-laruen bategaz, ikusteko letorkezanak bakarrik etsiko dabez euren buruak iruzur eginik; yakizue, ba, entzula maiteok, olangorik egingo ba'gendu,

yazoaren egiari ergelkeririk eta burrukarik nastuko ba'geuntso, lotsa izan bcar dautsegun gure sentzunari ta entzute onari, biak kalte eginaz ganera, adiskiderik elitzakigula geldituko gizon aituen artean. Au dalanta, uri onetako entzularik lenen eta zori ontsuenak zuok zarienzkero, Yaungoikoaarren, gotilundu zadize zuok gotilun egotea guk gura dogunean; gure ipuin yatorreko lagunak eurak ikusi dakusazuezala egizue, bizirik ba'legoz legetxe; andi dakusazuezala, aldrak darraikiezala, adiskide kutunezko taldez inguraturik dabiltzala egizue; bein onako au egindakoa eta beingoan, ikusi zelan anditasuna bearr-izan gorri-yausten dan: eta orrako ori ikusita gogargi egoteko gauz ba'zadize, gizonik bere ezteguetan gotilun egon datekela esango dautsuet.

I EKITALDJ

I AGERLEKU.—LONDON. Bakaldegiko Bebarru.

NORFOLK'EKO DUKEA aurrera ate batetik; BUCKINGHAM'GO DUKEA ta LORD ABERGAVENNY, beste batetik.

BUCK.—Egun on, eta bidera ondo urtena. Zelan ibili zara oraintsuengoz Pantze'n alkar ikusi gendunazkero?

NORF.—Osasunez, eskarrik asko; eta arrazkero beti egon naz an ikusiagaz arriturik.

BUCK.—Tertzioz besterako sukarrak euki nendun ni nire lo-gelan, aik aintzaren eguzld biak, aik gizonen zuzi biak, Andren ibarrean alkarri bidera urten eutsenean.

NORF.—Guynes eta Arde bitartean; an nintzan orduan, ikusi nebazan zaldi-ganetik alkarri agur egiten; zaldien ganetik yatsi ziranean, ni odi egon-eta, besartean alkar estututen ikusi nebazan, bein alkarganatu ziranean; aik osotuten ebena bakaulkidun lauk batera be osotu ete eikien?

BUCK.—Aldi guzti orretan nire lo-gelan baituxik nengoan ni, nire lo-gelearen atxilo.

NORF.—Olan izatekotan, lurreko aintza ikustea galdu zendun zuk: "Mutilzar egon dok orain arte arrandia, baña oraingoan bera baño be andiagogaz ezkondu dok" esan eikien gizonak. Atzokoa baño oba zan egun bakotxa, azkenengoak aurreragokoen arrigarritasunak beretu arte. Bein Pantzetarrak, dizdiz uts, urre utsetan yantzirik, Jentilen yainkoen antzeko, Ingelandarrak baño txairoago agertu ziran; eta biaramonean, Inditu egin eben Ingelandarrak Ingelanda: urre-meatzat etsi ta artu zeinkean zutunik egoan gizon bakotxa. Kerubeak langoxe ziran euren esku-mutilak, burutik beatzetara urreztaurik; anderak be, nekera oiturik egon ez-eta, euren apaingarripean izerditu-eginik, ez eben mosua margoztau-bearrik, nekeak berak margoztetan eutsen-eta; bera longorik bagakotzat iragarri zan ofoka ikuskizun a; eta orraitino be, urrengo gabaz etorri zan ikuskizunak merroturik eta ikustea-lain be etzala itxi eban *a*. Bakaldun

biak. arçji.tTSunez biak bardinak. An aurkituten zanak txiki izten eban bestea, bein bat-ak, bein besteak; ikusten ebena, a goratuten eben; eta biak batera aurrean egozanean, biak bat zirala esaten eben ikusleak; eta ikuslarik bat be etzan atometan au bes-tea baño zakarrago dok esaten, ederra zakarretik berezten trebe izan-arren be. Eguzkiok (Eguzki-izenez deituten ebezan, ba, bakaldun biak), euren aldarrikarien bidez, zaldun zindoai zaldunketarako eupada egin eutsenean, iruditu edikean baño be egite andiagok egiten ebezan; ain andiak-eta, egi-antzeko ezeze, sinisgarri egin zan beñolako ipuña, zera, fievis'ena (1).

BUCK.—Ui, oskotxo da ori.

NORF.—Nire lafantasuna esten dodan bestean, eta este au nire lafantasuna añako dan bestean seguru, nik esan daikedanik andiena be txiki ta uts geldituten da izanaren aldean. Dana izan zan an bakalдар, dana itzalez eder-bikain; dana ikusgarri ta txair-*o*; zer bakobcak eta egikizun baktotxak argi ta diadz egiten eban an, baktotxak bere egikizuna zeatz eta bere aldian eginik.

BUCK.—Nok zuzeMdu eban yai ori, zera, nok imfni ebazan yaif orretako atal eta txatalak euren lekuetan?

NORF.—Olango zereginetarako yaiorik etzala seguru be seguru uste zan batek.

BUCK.—Nok, arren, ene yaun?

NORF.—York'eko Kardinal begiragarri-begiragarri ta ebazte andidunak eratu eban guzti au.

BUCK.—Txerrenak eroango al yok! Ak etxok itxiko inoren opilik bere mustur saloa an sartu bagarik. Ze egitekorik yoan ak uskeri baño uskeriagootan? Andi eretxita nago zegaitik a lango koipe-moltsok kendu bear dautsezan eguzkiaren izpi gozoak besieai.

NORF.—Segura be seguru. yaun, ba-dau ak geitasunik onango zeretarako; izan be, ba, ak eztauenazkero bere euskarriztat ez bere edertasunak bere ondorengoai bidea erakusten dautsen yatorri bikañik, ez burestunaren alde egindako egitekorik, berari leku orretara dei egitekorik; lagun gallenik be eztauenazkero, orretarako eurekaz alkartuteko ta alkarturik leku ori lortuteko, armiarreak bere sarea bere barrutik ateratako arizegin daroanez, alantxe ak be berebere irabazien ind:n:ez urratu dau leku orretarako bidea; goitik, zerutik dauen eskar orregaz erosi dau ak bakaldunaren urrengo lekua.

ABER.—Eztaikit nik goitik ari zer etoni yakon,

(nirea baño begi zorrotzagoen balek ikusi daga'la orrako ori); baño nik ikusi duil edonondik dariola ari arrokeria; nondik dator ko ori ari? Sulezatik ezpa'dator ko, emolla muker-zikotz da txerrena-ta; edo, txerrenak lendik dau dana emonik, eta ak berak asten dau suleza barrien bat beragan.

BUCK.—Pantze'rako bidaldi onetan, bakaldunaren ederretsirik бага, zelan danganifo artu ete dau ak beragan bakaldunaren lagun nortzuk izango ziranaren ardurea ta egikizuna? Berak egin eban arako aitonsemeen izendegia; diru-eralketa andiak bestean omen gitxi aterako eukienak izentau ebazan; eta onulari begiragarrien batzarrari yaramonik egiteka, besterik бага, bere idazkia izan zan asko, aitonsemeai ara yonazoteko.

ABER.—Ezagun idot nik nire seniderik, iru bai gitxienez, onako au dala-ta, ain lur yota gelditurik, lengo lekura nekez yagiko diranak.

BUCK.—Ui, porrot egin dabe askok, euren etxaguntzetako ondasun guztiak bidaldi andi orretarako eroanik. Ondoren negargarri-rik ekarriko dau olango uskeriak.

NORF.—Tamalez diñot, Pantze ta gure arteko bakea ezta la or eralgi dan dirua lain.

BUCK.—Goitik argituriko zera zan gizon baktotxa andik laster sorturiko ekatx itzalaren ostean; eta, otz-otoan guztiak agertu ziran igarla, zeren igarla, bake orren bapateko ondaketeta esan gura ta iragarten eballa arako ekatxak, bakearen soñekoak urratu ebazan ekatx ak.

NORF.—Pipila galdurik dago bake-lora ori; ausi ta zulatu egin dau Pantze'k egiunea, gure salerosleen ondasunak Bordeaux'en goaturik.

ABER.—Orregaitik izan ete da, etxakola itxi itzik egiten andiko ordezkaritari?

NORF.—Bai, arrano, orrexegaitik, egin-eginean.

ABER.—Bake argia izan be, ta eralketen eralketak eragin dauskuzana!

BUCK.—Ba, arazo guzti au gure kardinal begiragarriak erabilia yatsu.

NORF.—Eder etsiko al yatsu, guztiak oartu idira zure ta kardinalaren arteko alkar ikusi-ezinaz. Aureztik esan neuntsun nik (eta

(1) Southarnpton'go Kode zan Bevis au eta entzutetsu egin zan Gillelma Benderatza-Uearen aidian, eta asko gorafu eben gero Zaldunketa-idaztiak, bere egite andi-odoretsuakaitik.

biotz onez eta zuri omema ta segurantzea gura dautsueanak esana da). kardinalaren gogo txar eta alaz oartu zadizala; eta gainera, gogotan erabili zengiala zukanako aren gorrotoak eleukela bitartekoren bearrik zugaz ak berak zer-gura egiteko. Ezagun yatsu aren izakerea, aren lerea; ezagun yatsu asperkor, azarkor dala a; eta ba-dakit nîk ago zorrotz dauela aren ezpateak; Iuzeda, ta urrin eldu ledikena; eta gura dauen lekuraño eldu ezpa'dadi, yaurtin egiten dau ak. Biotzeratu egizu nire onua, eta zindo dala ikusiko dozu... Ara! aor non datorren beragandik zirrist egin bear zeunke-
/a esan dautsudan itsaspeko atxa.

WOLSEY KARDINALA aurrera, Yagoleetatiko baizuk Ziskua <sren aurrean dakarrekr, eta Idazkari bi papelakaz. Igaro-ala, KARDINALA'k bere begiak BUCKINGHAM'egom yosten dauz, eta onek agan, alkarri zaputz eginik.

WOL.—Buckinham'go Dukearen Begiralea? Nontîk da ak iraçarria?

I IDAZK.—Emen, eta eder izango al yatsu.

WOL.—Emen ete dago a bera be?

I IDAZK.—Bai, eta eder izango al yatsu.

WOL.—Tira ba, geiagorîk yalringo dogu, eta Buckingham'ek eratsiko dauz apur bat bere begi arroak. (Alde WOLSEY'k eta bere Yarraigcak).

BUCK.—Ba-dau edenik bere agoan arakinaren txakur onek, eta nik ezin dautsat ezarri mosu-lokarririk; au dala-ta, lotan dagon bitartean ez irartzatea îzango da onena. Aintzakoago da eskekoren yakituria, andikiren odola baño.

NORF.—Ostera! Asarratu egin zara, ala? Epea eskaiu egiozu Yaungoikoari; ori da zure gatxak bear dauen osakai bakarra.

BUCK.—Aren begirakunetan irakurri dot badauela ak zerbaît nire aurka; eta ez-aintzakotu egin nau aren begiak, ak zer zarkartzat dauentzat; oraintxe be ba-darabil ak ni artegatuteko marrokeren bat: bakaldunagana yoan d-a; atzetik-aria yoanda, bildurtu egingo dot nire begirakunez.

NORF.—Geldi zagoz, ene jaun, eta zu zetarako zoazanaz zure buruak zure asarreagaz eztabaidan eragon dagiala: goiko mendietara igoteko, lenengotik eroan bear dira oinkadak astiro: berea egiten izten yakon zaldi beroa langoxe yatsu sumina, unaturik izten dau bere giroak. Ingelanda osoan be eztago zurea lango onurik emongo leusH-dan gizonik; zure adiskideri emongo zeunskiona lango onua emioizu zeure buruari.

BUCK.—Bakaldunagana yoango naz; eta nire ago zindoz azpiratu ta zapaldu egingo dot gedarrez Ipswick'eko urli orren arrokeria; ostantxean, gedarrez esan, eztagola alderik gizonetik gizonera.

NORF.—Onu artu egik; eu erdi-erreta izteko bestean ez egik berotu labarik ire areriarrentzako; eldu bear dogun baño arago eldu geintezekaz arinaren arinez, eta demea galdu, arago yoan izanagaitik. Ez ete dakik esnari, naiz beste lobeleri ganaz eragiten dautsan suak, irudiz Iobela ugarituarren, alperrik galdu baño eztauela egiten? Onurik artuik, barriro dirauskat, Ingelanda osoan etxagok i artezûteko eu baño buru obarik, burubidearen uragaz itzali, naiz arinduko ba'endu ire biotzaldiaren sua.

BUCK.—Eskarrik as'õ, jaun; eta aurreran-tzean ire onuaren yarraî ibiliko nok; baño bayakiat urli arro baño arroago au (beaztunoren beaztunez, baño orraitîño be, biotzaildi zintzoz, 'bere izenez aitatu gura ezto-dan au), ustel eta saltzalla dala, bai beste batzui orixe ezuntz dautsedalako, bai euren ondarreko arritxorik txikienak be argi ikusten doguzan garagarleko iturriak bestean garbi ta argi diran erakustez be.

NORF.—Ez egik esan saltzalla danik.

BUCK.—Bakaldunari esango dausat ba-dala; eta itsas-ertzeko atxak bestean gogor izango 'dok nire autorpena. Entzuidak. Azeri, naiz otso yainkotiar onek, naiz bata ta bestea dan onek (salo besteam maltzur be badck, ba, eta okerrerioik egiten trebe dan bestean okerrerietara itzulia; bere buruak eta lekuoik alikar kutsututen dabela), ezesan-bai-esanez, onek eragin yautsak gure ugazaba bakaldunari oraintsuengo egiune karu ori, ainbeste ondasun iruntsi dauen itunben ori, bera ikutzerakoan esku artean austen dan leiarra bestean auskor dan itunben ori; eta bere andikeria Pantze'n, emen etxean legetxe erakuste-arren izan dok dan ori.

NORF.—Bai orixe, eta orregaitik eta orretarakoxe egin be egin yo.

BUCK.—Entzuidak, arren, jaun. Berak zelangura idatzi dauz kardinal maltzur onek arako egiunearen atalak, eta berak "Onan bedi" esanaz besterik baga ontzat artu izan dira, ilari makuluak dakatson baño onura geiagorik ez ekarteko; baño gure zenbakikardinalak egin yok ori, ta ondo eginda yagok, oker ezin egon lediken aintzako Wolsey'k egina dok-eta. Au yatok urren (eta onlko au Etoikeri andereori atzetiJc-ara darctiikon txaicurtxotzat esten dot nik), zera,

Bere izekoa ikusteko atxakiz etorri dok ona Karla Inberadorea. Atxaki utsa izan dok ori, izatez ba, Wolsey'gaz ixilpean itunduteko izan dok. Bildur yeutsan ak Pantze ta Ingelanda'ren arteko itunbenari, itunben orrelan beretzako galgordeak ikusi eido erdi-ikusi egiten yoazan-eta; ixileko arremonak izan dauz, ba, ak kardinalagaz; etxoat uste onetan oker nagonik; segun nago, ba, Inberadoreak agindu baño lenago ordaindu dauela eta, orregaitik, bere eskaria eskatu baño be lenago emon yakola; baño bein Inberadorearen gogara bidea egin eta urrez estaliakero, Inberadoreak zera iragarri yeutsan Wolsey'ri, onek aldatu egfala bakaldunaren yokerea ta ausi arako itunbena. Yakingo al dau bakaldunak (eita laster yakingo dau nire bitartez), kardinalak berak zelan-gura ta bere onerako sal-eroska darabilela aren entzute ona.

NORF.—Tamalgarri yatak olangorik entzutea, eta oker al engo orretan.

BUCK.—Ez, nire itzen txataltxotan bez; erakutsiko doidan langoxe dok egin-eginean *a* izatez.

BRANDON aurrera, Egitarau-ogibidedun bat aren aurretik. eta Yagoletatiko gizon bi, naiz irugaz.

BRAN.—Ire egitekoa, Egitarau-ogibidedun; egik orrako ori.

EGIT.—Ene Lord Buckingham'go Duke, eta Hereford, Stafford eta Northampton'go Sir Konde, gure nagusien, gure bakaldunaren ize-nean atxilo egiten zaudaz, etoikeririk andienaren erruduntzat.

BUCK.—(NORFOLK'eri) Aiko, ene lord, barruratu naiok sareak: egin yok niieak, asir.os eta egite zalzarrez.

BRAN.—Ba-dot tamalik azkatasuua kendu yatsulako, arazo onetan zu ikusiaz; zu Torrerayatea yako eder nagusienari.

BUCK.—Alperriko izango yat erruge nazala autortu ta errukirik eskatutea; nire uneik txikiena be bazu egiten daust, ba, ganera egotzi dausten koloreak. Yaungoikoak gure dauena egingo al da onetan eta beste zer guztietan! Agindura nago. Onik eta ondo ibili, Abergavenny'ko ene Lord!

BRAN.—Ez, lagun izan bear yatsu ori. (EBERGAVENNY'ri) Ak berak besterik zer ebazten dauen zuk yakin arte, zu Torrera yatea yako eder bakaldunari.

ABER.—Dukeak esan dauenez, Yaungoikoak gura dauena egingo al *da*, ta men egingo dautsat nik bakaldunaren edervari!

BRAN.—Emen dot bakaldunagandiko agindua Lord Montacute be atxilotuteko; eta dukearen autorr-entzulea, Yon de la Car, eta baita Gilberta Peck dalako bat be, dukearen idazkaria.

BUCK.—Bai, oneik izango dira, urrean, zinkidetuak, besterik izango danik eztot uste.

BRAN.—Chatreux'eko lekaide bat.

BUCK.—Üi, Nikola Hopkins, ezta?

BRAN.—Bai, axe.

BUCK.—Usel eta guzurti da nire begiralea; urrea erakutsi dautso kardinal andiegiak; luzatuko dana luzatu da nire bizia; Buckingham errukarriaren itzal baño enaz ni, ta itzalari berari be odeiak yarri yakoz ganean, nire eguzki argia ilundurik. Agur, ene yaun (Alde dagie).

II AGERLEKU.—LONDON. Onularitegia.

Turut-otsa. ENDIKA BAKALDUNA, WOLSEY KARDINALA, Onularitzako Lordak, SIR TOMA LOVELL, Malla-gudariak, eta Laguntzakoak aurrera. KALDINALA'ren sorbaldeari deustalaz sartzan da BAKALDUNA.

END. B.—Nire bizia bera ta berak dauen zerik onena, nire biotza, eskarririk askoka dagoz zure ardura andi onegaitik: ler egin-eginik egon dan zinkidetzearan lekuan bertan egon izan naz, etct eskarrak damotsudaz ito dozulako. Gure aurrera dei egin dagioela Buckingham'en arako aillonseme ari; idatziz esanak, ak agoz eta itzez zelan sendotu ta baiezutuen dauzan entzun gura dol;

eta zeatz-zeatz eta banan-banan barriro eralgi dagizala bere ugazabaren azpikeriak.

Yezarri egiten da BAKALDUNA bere aulkian. Bakotxa bere lekuan yezarten dira Onularitzako lordak. Bakaldunaren oñak baño berago KARDINALA, aren eskoialdean. Otsa barruan, oioka, "Leku egin Bakaldunoari". KATARLE BAKALDUNOA dator aurrera, NORFOLK eta SUFFOLK'eko Dukeak bñea erakusten dautsoelarik; belaunbikatu egiten da BAKALDUNOA. Yagi egiten da BAKALDUNA bere yarlekutik, eragi egiten dau BAKALDUNOA, mun egin, eta bere aldamenan yezarriazoten dautso.

KAT. B.—Ez, luzaroago egon bear dot belaubiko; eskala naz ni.

END. B.—Yagi zadiz, eta gure aldamenen yezarri zadiz; zure eskaririk erdia aiatu be ez oiguzu inoz; zure da ta zuk dozu gure aletik *erria*: beste erdikina be nik emonik dozu zuk eskatu baño len; barrero egizu zure eskaria, eta eutsi, artu egizu.

KAT. B.—Eskarrik asko zure nagusiagotzeari. Zeia da nire eskakizunaren geia, zeure burua maite dagizula, eta maitasun orrek eraginda, yaramonik egiteka bertanbera eztagizuzala itxi zure omena ta zure ogibideari dagokon aintzakotasuna.

END. B.—Ekin, ens andera.

KAT. B.—Alaketa-bide andian dagozala zure bendekoak esan dauste or, eta ez gitxik be (eta odol-zlndoaik dira ori esan daustenak), bidali yakezan aginduk dirala-ta, bakaldunaganako euren biotzetako zintzotasuna etenik eta ausirik gelditu yakela: eta orretan, ene kardinal yaun on, zu izan zareala zerga edo petxuok ezarri dautsezuezanata, euren asarre ta marmarrik mingotsenak zutzako izan-arren, gure ugazaba bakalduna (ezetariko loi ta orbnnetik garbi yagongo al dau Yaungoikcak aren omena), gure ugazaba bakalduna bera be ezta geldituten bere izena esakera zakarrez baltzitu bagarik, areago, zintzotasunari eten eragin eta asaldatze utserako bidea ia diragarren esakera zakarrez baltzitu bagarik.

NORF.—Ez ia diragarrenik..., iragarri diragarre-ta; zergok dirala-ta, ba, eula guztiak, eurak dabezan ainbeste beargin euki-ezinik, euren bearlekuefatic egotzi egin bear izan dabez iruleak, kardatzalleak, oial-yotzalleak, eta oneik guztiok, beste ogibidetarako egoki izan ez-eta, goseak eta eskuarterik-ezak bultzurik, etsirik eta zer yazokori yaramonik egiteka, gedar baten dagoz guztiak, eta galgordetsu dira.

END. B.—Zergak! nongo zergak? Eta zetarikoz zergarik? Ene yaun kardinal, onetan ni lez zu zeu be eruduntzat zagozan ori, ete dakizu orrako zergearren barririk?

WOL.—Yaun, eder izango al yatsu, zati bat baño eztoz nik ezagun bakalderriazgako zeretan; besteakaz egiten dodan lerro edo izendegian aurrengo baño enaz ni.

KAT. B.—Ez, ene yaun, zuk eztzikizu besteak baño geiagorik; baño ezagun diran erabagiak artzen dozuz zuk; eta erabagiok kaltegarri yakez ezagutu gura eleukiezanai, eta ezagutu gura ez-drran nai-ta-nai-ez ezagutuko dabezanai. Nire nagusienak yakin bear leukezan zergok, eurak entzuteak be-

rak be mindu egiten dau, eta euren azpian lerturik eta opildurik geldituten da eurak eroan eta yasan bear dauzana. Zuk asma-uak dirala diñoe or bala-bala; ostantxean, inontfiko eraz baltzitzen zabez.

END. B.—Ostera be zergai ekiten! zetarikoz dira zergok? Yakin ete daikegu zetarikoz diran zori oneko zergok?

KAT. B.—Azarriegi naz zure epea zirikatuten; baño zuk aginduriko parkamenak atomauazoten nau orretara. Zure aginduetatik dator bendekoen naibagea, baktaxaren ondasunetatik seirena emonazo ta bertatik batzoko emon dozun agindutik; eta orretarako atxakitzat Pantze'ko zure guduak aiatu dabez: onako onek egiten dau erria agoa idigitoko azarri; erriaren miñak txuagaz batera zukanako bendekotasuna be ortik zear egozten dau, eta euren biotzak otzitu ta leitu eçiten dira zukanako zintzotasunear; biraoak eta añenak baño eztagoz zutzako orain len arrenak egozan lekuan; eta zera da yazo dana, suminduriko arein ostikopean gelditu idala bendekotasun otzana. Onako au len baño len gogoan erabiliko al leu zure nagusiagotzeak, arazorik beinena auxe da-ta.

END. B.—Nire bizia-arren, etxaku auxe bape gogoko.

WOL.—Eta nigazko, nik eztoz emon onetan besteak baño oinkada bat be aurrerago, eta emon dodana be gizon yakitunen ederretsiz emon dot. Baltz-baltz eginik ba'narabile ez-yakinen miñak, nire ala ta ni enazuenak, agintariei yazoten yakena da au.-, itxi egidazue esaten onangorik yasan bear dauela onindarrak alanbearrez, eta galgaturik ibili bear dauela onindarrak. Egin bear dogunik eztoz itxi bear egiteka, gogo txarreko esleen bildurrez; ontzi ornidu-barriren yarra doazan arrain saloen antzeko dira, ba, esleok, ontziaren yarra yoantz alperrik begira egoteaz beste onurarik eztaben arrain saloak langoexak. Guk egin dagunik onena, sarritan, gogo txarrekoen eretxiz, edo ezta guk eginik, eio eztauskue guk eginikoztat autortuten; ayn sarritan, guk egin dagunik txarrena, zakarren entzutera eldurik, gure egiterik onentzat goratu ta txalotuten dabe. Irri ta asarre egingo dauskuclaren bildurrez geldi egon bear ba'dogu, zustarrak emon bearko doguz gagozan lekuan, eta mami-irudiak legetxe geldi egon.

END. B.—Ondo ta arduraz egindako zerak eztabe izan bear bildurrik; lenago olangorik egin bagako zerak dira eurak ze ondoren ekarrikoren bildur izan bear dogunak. Agin-

du ori langorik ete dozu igaroko aldietan? Bat bez, nire ustez. Gure legepetik aterata, gure guraripean, gure gogaldipean eztoguz imini bear gure bendeoak. Bakotxaren ondasunen seirena? Zerga ikaragarria yatsu ori! Ori egitea, ta zugatzari adarrak, azala, ta aldor-zati bat be kentzea ainbaten litzateke, zustarren bat aldean itxi-arren, ba, eguratsak ur guztia edcskiko leuskio zugatzari. Gure idazkiak bidali egizuz agindu orregazko kezka ta alaketak dabezan kon-detegi bakotxera, orrako agindu orri indarra ukatuten dautsan gizon bakotxari par-katuten dautsagula esanaz: arren, egizu e^iteko ori, zure ardurapean izten dot.

WOL.—(Bere Idozkariari) Itz bat iri. Bakaldu-naren eskar eta parkamenagazko idazkiak idatzi egizak kon-detegi bakotxera. Erexi txarra yok nitzaz erri r.aibagetuak; agindua deuseztute au eta parkamen au gure bitar-tez eta eskariz etorri dirala zabaldu egik or: orrako orretzaz beste onurik be emongo dauskat laster. (Alde Idazkariak).

Begiralea aurrera.

KAT. B.—Ba-dot tamalik Buckingham'go Du-kea gogoko etxatsulako.

END. B.—Zuk ezeze beste askok be ba-dabe orrako orren tamalik; yakitun da aitonseme a, eta bai izlari trebe-trebe be; iñor bez berezkoari ak baño zor andiagorik dau-tsanik; ainbesteko da ak ikasia-ta, irakasla andiak ornidu ta ai irakasteko lain be ba-da a, iñoz iñoren laguntza-bearrik бага. Orraitiño be ikusi, arturiko emoi zindook ondo erabili ezik, bein burua okerreratuaz-keru, mamu ta bidutzi baño etxatsuz, len eder izandako baño amaika bider itsusiago baño. Zer arrigarrien arteko zan gizon ain oso au, beroni entzuteko irrikituren irrikituz beronek itz noz egingo begira minuto baten be ezin etxon genduan au; au, ene andera, ekandu ain zakardun egin da-ta, bere edergarriak ain itsusitu egin 'touz-eta, sulezan zikindu ba'litz Iegetxe baltz egin da. Yezarri zadiz gure aldamenean: entzun bear dozu..., au zan aren uste oneko aiton-semea, edonor naibageturik izteko añako zerak entzungo dozuz onegandik. Len esan-dako okerreriak barrio eralgi ta azaldu dagizala agindua egiozu; gogaitk eztogu egingo entzuten, zerok buruan ondo sartu-rik gelditu dakiguzan.

WOL.—Aurreratu zadiz, eta biotz adoresuz eralgi egizu, bendeo arduratsuri dagoko-

nez, Buckingham'go Dukeaz baturik dozuna. END. B.—Nasai iz cgin.

BEGIR.—Lenen, egunoro bere itzaldiak kutsa-tuten eutsazan ekandua izan dau ak, ba-kalduna ondorengo bagarik ilteketan, bi-deak urratuko dauzala agintza-makilea be-raganduteko: oneixek itzok bere suin Lord Aberga'ny'ri esaten a entzuna nozu; eta zinez iragarri eban kardinalaz azaskatuteko zemaia.

WOL.—Zure goikotasunari eder izango al ya-ko, emen eta orain asmo galgordetsu oni so egitea, Zu zeutzako ezeze, zure adiski-deentzako be ba-dau ak gogo txarrik.

KAT. B.—Ene kardinal yakintsu, gcmaitasu-nez esaizu esango dozun guztia.

END. B.—Ekin; guk uts egitekotan, ze onarri iminten yoan ak iDurestunerako bere eskubi-dearentzako? Onako onetzaz eguño ezer ent-zun ete dautsak?

BEGIR.—Nikola Hopkins'en zustrarik бага-ko iragarpen batek eragin eutsan ari orre-tarako.

END. B.—Zer zion Hopkins dalako ori?

BEGIR.—Bere autor-entzula, ChartreuxTco le-kaide bat, yaun, une oro belarriak nagu-sientza itzez berotuten eutsazana.

END. B.—Zelan yakini dok orrako ori?

BEGIR.—Zure nagusiagotzea Pantze'ra yoan baño lentxoago, Dukea Rose'n zala, Saint Lawrence Poultney'ko ertxadon-barrutian, Londondarrak ze erexi eben Bakalduna Pantze'ra yoateaz Dukeak itandu eustan; nik erantzun neuntsan, ba-ebela bildurrik Pantzetarrak saltzalla agertuko ete ziran, bakaldunaren galbiderako. Bertatik esan eban dukeak, ba-zala olango bildurrik izan be; eta bildur zala egi urtengo ete ziran lekaide yainkotiar baten itzak; amezan be-re itzak, "Lekaide ak sarritan eskatu izan daust bitartekoz, nire etxe-abade Yon de la Car'eri nire ederretsia emon dagiodala, au-rreztik izentauriko orduen baten lekaide ak abade oni garrantzi andiko zeren bat daue-la esateko-ta: bere esanetik niri ez besteri ezertxo be ez esateko autortza-ixilkizunpean zin eraginda, auxe esan eutsan ben-ben eta astiro, zera..., "esaiozu dukeari porrot egin-go •diabela bai bakaldunak, bai aren ondo-rengoak; erriaren biotza irabazten alegindu dadila; dukeak yaurriko dau Ingelanda".

KAT. B.—Ezagun-egagun zatxataz zu, dukearen begirala izan zara zu, eta galdu egin do-zu zure ogibidea, maizterren alaketegaitik; ardurez ibili zadiz zure gogaldi txarrean gizon zindori errurik earri eztagiozun, eta zure gogo zindoagoa lorrindu etagizun: ardu-

roz ibili, gerol bai, biotzez eskatuten dau-
iñut orduiuz ibili zadizala,

END. B.—Itxi egiozu ekiten; aurrera yo.

BEGIR.—Nire gogo-aarren, egia baño eztiñot.

Esan neuntsan nik nire ugazaba dukeari, ba-
le*iiakela lekaidea txerrenaren lilurapenez
iruzur eginik egotea; eta galbidetsu yakola
oneko zer onetan ain aurrera yoaterik bu-
ruan erabiltea; ba-edikela, ba, ak zerbait
asmau ta sinistuazkero, asmaua egin gura
izatea; "Ut, ut', esan eustan, "kalterik ezin
etorri lekikit ortik"; ganera erantsiaz, ba-
kalduna bere oraintsuengo gexo-aldian il
izan ba'litz, kardinalaren eta Sir Toma Lo-
vell'en buruak ortik zear bilin-bolaka yoan-
go zirala.

END. B.—Ostera! ori be ba-dogu? Orren us-
teldurik ete yagok a? Onangorik! geztio ba-
ño geztioago da gizon au: besterik ezer ba-
ete dok esateko?

BEGIR.—Bai, ene ugazaba.

END. B.—Ekiok.

BEGIR.—Zure goikotasunak dukeari Sir Gillel-
mo Blomer'az asarre egin-ostean, ni Green-
•wich'en nengola.

END. B.—Gomutan dot orrako aldi ori: nire
otsein izanik a, dukeak beretzat geldituazo
eutsan. Baña, ekiok; ortik zer?

BEGIR.—Ak esa_n eban, "Onako onegaitik To-
rrera bidali izan ba'nendu, nire aita Errikar-
ta bakalduntza-lapurriari egiteko zana egin-

go neunkean: ak, bera Salisbury'n egoala,
aren aurrera yoateko ederretsia eskatu eu-
tsan Errikarta'ri, eta ederretsi ori emon izan
ba'iitxako ari, bendeke zintzoren agiriak
egin-ala, bere aiztoa sartuko euskion ba-
kaldunari".

END. B.—Saltzalla itzal baño itzalago dok a.
WOL.—Ikusi, andera, nasai egon ete dateke
bakalduna gizon ori baitegiraturik eztagon
bitartean?

KAT. B.—Yaungoikoak adabau ta arteztuko al
dau guztia!

END. B.—Ba-idok ik zerbait geiago esateko go-
gorik; zer diñok?

BEGIR.—Arako bere aita dukearena aizto ta
guzti egiteko, emon-alean luzatu eban bere
soña, esku bata sastakaiari eutsala ta bes-
tea bere bularrean ebala, eta begiak gora
eragirik, zin ikaragarri bat egin eban; eta
au zan bere zinaren mamia, zera, bera
txarto erabiitekotan, egitea egiteko asmo
uts ila baño geiago dan bestean, bere aita
egiteko zana baño andiago litzakela ak
egingo eukeana.

END. B.—Bere aiztoa gure soñean lekaratutea
dok ak esan gura dauena. Goaturik dago
a; dei egiozue, bertatik aztertu dagigun;
errukirik erakutsi ba'dagio legeak, bere dau;
ostantxean, gurerik eztagiala billatu; saltza-
Uarik andiena *áa a*, bai egunez, bai gabaz.
(Alde *dictge*).

II AGERIEKU.—LONDON. Bakaldegiko leku.

Lord Txanberlana ta LORD SANDS aurrera.

TXAN.—Yazo ete ledike Pantze'ren Iflurapenak
gizonak orrenbesteraño sorginkeriperatute-
rik?

SANDS.—Barregarrienik barregarrienak izan-
arren be, areago, gizonenik izan ez-arren
be, ekandu barrien yarrai doaz guztiak.

TXAN.—Nik ikusi daidanez, aieru, mosu bat
edo bi bakar-bakarrrik dira oraintsuko Pan-
tze'ra yoan-etorriik gure Ingelandar onak
atera daben onura guztia; baña bakan ya-
tsuz aieruok, mosuok; aieruok egiten dabe-
zanean, ba, zin egingo zeunke euren surrak
eurak be Pipin, naiz Koltari'ren onulari izan
dirala, orren ben 'dira-ta.

SANDS.—Zango barriak dabez guztiak, eta
meikiak eurak; belaun-osteko gatxen bat
dabela esango leuke ibiltzen len ikusi eztau-
zonak.

TXAN.—Ut, ut! Kistarrak bagarik, jentilak di-
rala esango zeunke euren soñekoetatik.

SIR TOMA LOVELL aurrera.

Ze barri dogu, Sir Toma Lovell?

LOV.—Egia esateko, ene jaun, eztoz entzun
ezetarikorik, epaitegi-atean yosita dagon ira-
garpenez besterik.

TXAN.—Zer diragar?

LOV.—Bakaldegia burrukaz, itz egin-bearrez
eta yostunez betetan daben, yoan-etorria
egin daben oraingo erako gazteakazkoa da.
aik zelan zuzendu bear diranagazkoa.

TXAN.—Poztuten nau orrexek; eguño Louvre
ikusi izan ez-arren Ingelandar bakaldegita-
rrak dentsuntsu ta zur izan datekezala go-
goratu dagiela eskatuko neunskie gure mon-
sieurari.

LOV.—Bata edo bestea egin bear dabe (ori
•ctgindurriik dogoz, be), edo itxi Pantze'n goa-
turiko ergelkeri la luma-ondakinok, eureta-
tik datozan beste zerakaz batera, esatera-
ko, burrukak eta su-ziriak, eurak baño gizon
obeak izan-arren erbestean egon eztrialako

besteak ezestea, agur egin bearko dautse pelotarako zaletasun beroari, galtzerdi luzsai, parka motz-nasaia, eta andiko beste zera, eta gizon zindoen seneratu barriro: edo, ostantxean, euren lagun ergelakana yoan atzera ara; an amaitu daie, nire us-tez, euren nasaikeriaren ondakina, eta an barre egin daiola.

SANDS.—Euren gatxa ain intsigikor (eraskor) egin da-ta, ai osakairen bat ezarteko tertzioa da.

TXAN.—Uskeri apañok galdurik, gure anderrak bai izango dabe galtze lango galtzea!

LOV.—Bai orixe, naibagarik izango da euren aften: inñondiko marroa ikasi yoek emagaldukumok emakumek beingo-beingoan euren benderatuteko; Pantzetar abestien bat eta bibolina dozak asko orretarako.

SANDS.—Txerrenak yoko al dautse bibolina! pozik nago orreik ba-doazalako, seguru baño seguruago, ba, eztago orreik aldatuterik: oraindik ara beintzat or baserrietako an'dikiak be (neu be orrefariko naz), len ain luzaro baztarturik egon diranak be, itz egiteko erarik, eta bai nok entzunik be, argi ta garbi ta lau itz eginda, inok irririk egiteko bildur bagarik, izango dabe.

TXAN.—Ondo esanda, Lord Sands; gazte ta zangar zauguz oindiño.

SANES.—Bai, izango be oraindik.

TXAN.—fiorako bi'dean zuru, Sir Túma?

LOV.—Kardinalenarakoan; ak deiturik zagoz zu zeu be.

TXAN.—Bai, izan be; aparia emoteko ∞ arratseon, eta andietarikoa alan be, gizon eta emakume andiki askori; an izango da bakalderri onetako edertasuna, bai orixe.

LOV.—Biotz zabala dau elexgizon ak, izan be; gu elikatuten gauzan lurra bestean emokor dan biotza; edonon yausten da aren inñontza.

TXAN.—Zindo da a ezpai bagarik; ago bal-tza dau aretaz besterik diñonak.

SANDS.—Emon-ezinik eztau ak, ene yaun, ba-dau ak orretarako eskuarterik; irakaste okerra baño oben andiago litzake zikoizkeria ağan; eskuzabal be eskuzabal izan bear leukie aren ogibideko gizonak; ikasbidea emoteko emen iminiak dira alangoak.

TXAN.—Egia, orretarakoxe iminiak yatsuz; baña gitxik emoten idabe orain orren andirik. Nire begira daço nire ontzitxo; nigaz yoango zara zu, yaun ori. Erdu, Sir Toma on, berandu egin eztagikun; eta berandu eltzerik eneunke gura, Sir Endika Guildford' ek eta nik eratu bear dogu, ba, arrats onetako yaia, agindurik dogu-ta.

SANDS.—Zure agindura nago ni. (Alde dagie).

IV AGERLEKU.—LONDON. Era-mera-lekua York etxean. Zaamiolen otsa.

Legorpean maitxo bat Kardinalarentzako, mai andiago bat yatera deituentzako. Aurrera, alde batetik, ANE BULLEN, eta Lord, Lady, eta aitalalaba batzuk, yairakotzat; beste ate batetik, SIR ENDIKA GUILDFORD sartzen da.

GUIL.—Anderok, aren eskarraren aldetiko ondo-etorriak guztioi egiten dautsue txera; ak ditxaronez, zuotatik inok ez al dau ekarriko naibagarik oturuntza onetara; laguntza ona, ardao ona, ta ondo-etorri txeratsua daben lagun zindoak egcn bear leukien bestean nasai, argi ta pozik gura zendukiez ak. Ui, ene yaun, belu zatoze zuok:

Lord Txanbelana, Lord Sands, eta SIR TOMA

LOVELL aurrera,

egoak emongo euskidazan nii onango baztar edrrean aurkítuteak.

TXAN.—Gazte zara zu, Sir Endika Guildford.

SANS.—Sir Toma Lovell, nire gogai erriarren erdirik ba'leu kardinalak, anderotatik baten

batzuk ízango leukie etzan-aurretik nogaz itz egin, eta eztoz uste gogoaz besterako izango litzakienik; nire bizia-arren, ederrezko batzar kutun gozo dira orreik.

LOV.—Ui. orreitatik bat edo biren autorr-entzula al intz i, yaun ori!

SANDS.—Orrako ori al nintzok; errazetaiko litzakek artuko leuken oben-nekea.

LOV.—Zelan, zegaitik litzakek errezetariko?

SANS.—Oe apitza izan lediken bestean erraz eta bigun.

TXAN.—Andera gozook, yezarri gura ete dozue? Endika yaun, alde orretan zu, arren; neuk artuko dct alde onen ardurea; ba-dator barrura bere eskarra. Ez, eztozue izan bear leirik; negu egiten dabe emakume bik batera; ene yaun Sands, zu bakarrik zara oneik atzarrik eukiko dauzana; arren, anderon bitartean yarri zadiz..

SANS.—Baí orixe, eta eskarrik asko zurí, yaun orri. Zuoñ ederretsiz, andera gozook; (ANE BULLEN eta beste anderazko baten bitartean yezarten da) azketsi, parkatu, zakar-re

gi itz egin ba'dagit; nire aitagandiko dot zakarkeri au.

ANE.—Burutik eginen bat zan, ala?

SANDS.—Ui, burutik egin bañõ eginagoa, itzalez burutik egin, maitasun-arloan be; baña iñori be ez eutsan egiten usikarik; nik dagidanez..., arnasaldi baten zuok lan-goetatik ogeiri mun egiten eutsen. (Mun dagio).

TXAN.—Ondo esana, ene yaun; olan, atsegin ez yezarririk zagoz. Aitonsemeak, zuontzako izango da oben-nekea, andera lirainok betozkoz egon ba'idndiz.

SANS.—Nigazko, bakarrik itxi nagizue.

Zaamiolen otsa. WOLSEY KARDINALA aurre-ra, bere yarraigokoakaz; eta bere yarlekuan yezarten da.

WOL.—Ondo etorriak zauguez, ene yateitu lirainok: biotz-argi ta pozik eztagan andera zindo, naiz aitonnssmea, ezta nire adiskide; au bakarrik nire ondo-etorria sendotuteko; eta osasuna zuoi guztioi. (Edan dagi).

SANDS.—Zindo ta yator da zure eskarra: eka, dazue nire eskar onez beteriko edalontzia, eta olan, itz askorik egin-beanik eztogu izango.

WOL.—Ene yaun Sands, zoidun natxatsu: biotz-argitu egizuz zure auzokoak. Anderok, zuok etzagoze biotz-argi: aitonsemeok, noren erru da onako au?

SANDS.—Lenen ardao goiriak igon bear dau euren mosuetara, ene yaun; orduan ixilduko gabez guri itz eginaren itz eginaz.

ANE.—Biotz argiz dagizu zuk zure egitekoa, ene yaun Sands.

SANDS.—Bai, neure yokoa egiten izten daustenean. Zure osasunaren alde edaten dot au, andera, eta, txerakor, beste onenbeste egingo al dozu nirearen alde, ain zer andia da, ba, nik esan gura dodana.

ANE.—Ezin erakutsi a) izango daustazu.

SANDS.—Esan dautsat zure eskarrari bertatik asiko dirala oneik izketan. (Danbor eta tutuen otsa: su-odi-a'sak barruan).

WOL.—Zer dogu ori?

TXAN.—Zuotatik baten bat doala zer dan ikusten. (Alde otsein batek).

WOL.—Gudu-otsa da ori, eta zetarako ete da? Ez, anderak, ez izan bildurrik; gudako lege guztietatik berarizko legedun zarie zuok.

Auiiera barriro otseña.

TXAN.—Kaxo! zer dok?

OTSE.—Erbestetar-talde zindoan bat da, olan-

go dirudie, ba; euren ontzitxo uretan itxita, legorreratu egin dira; eta onako bidea artu dabe, erbesteko bakaldunekandiko ordezkari anditzat.

WOL.—Txanberlan yaun on, zoaz eta ondo-etorria emon egiezu; ba-dakizu zuk pantzeraz; eta, arren, txera argiz artu ta gure aurrera ekarri egizuz, emengo edertasunezko ortzeak argi egingo 'diautsen leku onetara. Doazala batzuk orregaz. (Alde Txanberlonalk yarraigokoakaz. Guztiak yagiten dira, ta bazartu egiten dabez maiak) Eten egin dcutsue orain oturuntzea: baña atonduko dogu ori. Yan-auste on bana zuoi guztioi: eta beste bein ondo-etorrizko zaparrada bat zuoi; ondo etorriak guztioi.

Zaamiolen otsa, BAKALDUNA ta beste batzuk aurrera, marrockaz, artzai-yantziekaz, baita Zuzidunak be, Lord Txanbelanak bidea erakusten dautsela. KARDINALA'ren aurretik iga-ro-ala, agur txerakorra dagitsoe.

Talde zindo-yatorra auxe! zer gura ete dabe?

TXAN.—Ingelan'deraz eztakielako, zure eskarrari onako au eskatu dagiogula eskatu daste, zera, arratseon emen onango batzar zindo ta ederra egiteko zintzazala entzunik, euren artaldeak itxita ona etorri-beanean aurkitu dirala; eta zure ederretsiaren eske dagoz, anderok ikusi ta eurokaz orubetean yai egiteko.

WOL.—Esaiezu, Lord Txanbelan, nire etxe apal-ixiroa edertu bañõ eztabela egin; eta, orregaitik, milla eskai egiten idautsedazala ta, arren, eurai gogoko yakena egin dagiela. (Andera bana aututen dabe yantzara'ko. ANE BULLEN oututen dau BAKALDUNA'k).

END. B.—Eguño ukutu dodan eskurik lirainena! edertasun ori, orain arte iñoz be etzau-daz ezagan izan! (Eresia. Yantzan daragoioe).

WOL.—Ene yaun...

TXAN.—Zer gura dau zure eskarrak?

WOL.—Arren, au bakarrik esaiek nire alde-tik: euren aitean ba-dagola leku au betetako ni bañõ lainago danen bat, eta oriako ori ezagan ba'neu, berari emongo neuskio-la, omenez eta lotsaz.

TXAN.—Esango dautset, ene yaun. (Marrodu-nafkana yoanda., atzera dator).

WOL.—Zer diñoce?

TXAN.—Guztiak autoituten dabe olangorik egon ba-dagoki; zuk zeuk idoro dagizula orrako ori gura dabe, eta bein idioiazkero yezarriko dala zure lekuan.

WOL.—Dakustan, ba. (Ba-dator bere lekutik) Zuon ederretsiagaz, aitonsemeok; au da nik aututen dodana, eta bakaldun dala uste dot.

END. B.—(Marroa kendu-ala) Idoro dozu bere billa zenbiltzana, kardinal orrek; batzar lango batzarra dozu zuk emen; ondo egin dozu, yaun; elxegizon zara zu, eta orregaitik ez-pa'litz, etzindukedaz ondo etsiko!

WOL.—Pozik nago zure eskarra orren atsegin-garri agiri dalako.

END. B.—Ene yaun txanbelan, arren, zatoz ona; nor dogu andera lirain ori?

TXAN.—Sir Toma Bullen'en alabea, eta eder izango al yatsu... Rochfordd'eko Konde-urrenarena..., bakaldunoaren emakumeetatikoa.

END. B.—Yaungoikoa-arren, mizkeri da ori. (ANE'ri) Kutun, zakarkeri litzake besteen artetik nik zu autu ta zuri munik ez egi-

tea. Osasuna, aitonsemeok! Zurrut egin, urifigiirik urrer», csasuncreri alde!

WOL.—Sir Toma Lovell, gerturik ete dago oturuntzea barruko aretoan?

LOV.—Bai, ene yaun.

WOL.—Bildur naz zure eskarra yantzeagaz beroegi ez ete dagon.

END. B.—Neu be orrexen bildur naz.

WOL.—Ozkirriago da, ene yaun, beste aretoan.

END. B.—Bid'ea erakutsi bakotxak bere ande-reari: lagun kutun, etzaudaz itxi bear bertanbera: gogargi ta pozik egon gadizan: ene yaun kardinal on, sei bat bider edan bear dot andera lirainon osasunaren alde, eta gero yantzan eragin; eta gero ikusiko dogu zein dan kutunen. Yo dagiela eres-lariak. (Alde, tutulariakaz).

II EKITALDI

I AGERLEKU__LONDON. Etxartebide bat.

Aitonseme bi aurrera, alkarri bidera urteten yakezala.

I AIT.—Nora oa orren arin?

II AIT.—Ui, Yaungoikoa lagun izango al yak! epaitegira noa, Buckingham'go Duke andi-ari zer yazoko yakon entzuten.

I AIT.—Neuk aurreratuko dauskat neke ori, yacun. Dana dago eginik, atxiloa atzera bai-tegira eroateaz beste egikizun guztia,

II AIT.—An izanda ago, ala?

I AIT.—Bai, an izan nok.

II AIT.—Esaidak, arren, zer yazo dan.

I AIT.—An yazoa arin igarri ezinik eztok.

II AIT.—Errudun aurkitu yoek, ala?

I AIT.—Bai, errudun be errudun idoro dabe eta, orrexegaitik, gaiztetsi egin dabe.

II AIT.—Ba-yoat orrako orren tamalik.

I AIT.—Ik ezeze, beste askok be ba-yoai.

II AIT.—Baña, arren, zelan yazo dok?

I AIT.—Itz gitxiz, labur esango dauskat. Epai-tegira etorri dok duke andia; eta an, egin yakozan salakuntzak gora-bera, ezta errudun esaten izan yok, eta zegaitirik asko ekarri yok legerik eztauela ausi erakusteko. Bakaldunaren salatariak, ostera, autorla askoren autortzak, azterketak eta erakusketak ekarri yozak aurrera-ta, indar egiten izan yok dukearen aurka; zer guztiok bere aurrean, "viva voce", agotik arako itzez autoriak eurak esatea gura izan yok dukeak;

orretan, bere begiralea agertu dok dukearen aurka; bere txantzelor Sir Gilberta Peck; eta bere autor-entzula Yon Car, okerreri guzti au egin izan dauan arako lekaide txerren Hopkin'segaz.

II AIT.—A izan ete dok dukea bere iragarpe-nez asebeste dauena?

I AIT.—Bai, axe. Guztiok salatu yoek a gogor; eta alperriko izan dozak salakuntzok ezereztuteko ak egin izan dauzan aleginak: eta au dala-ta, agiriok aurrean dabezala, bere lagun andikiak etoikeririk andienaren errudun idoro yoek. Itzik asko egin yok, eta trebero egin be, bere biziaren alde; baña bere itzaldiaz errukiaz besterik, naiz be-rra bertanbera itzeaz besterik etxok lortu.

II AIT.—Orrako guzti orren ostein, zetara ta zelan gelditu dok?

I AIE.—Epaitegira barriro eroan dabenean aren il-kanpak entzun dozak, aren epaia esan gura yoat, ain estu ta larri agertu dok-eta, izerdi baten agiri izan dok, eta zerbait esan yok suminez, larriturik, eta iraduz; baña atzera bereratu dok, eta gero edozetan epe zindoa erakutsi yok.

II AIT.—Etxoat uste ak eriotzeari bildurrik dau-tsanik.

I AIT.—Seguru be seguru, etxautsak; eguño eztok izan a olango emekirik; zegaitik ilten danaren bildurrik bai izan lei arean.

II AIT.—Seguru baño seguruago kardinala *iabil onako* guzii onelan sarturik.

I AIT.—Ba-yok orrek egi-antzik, guztitariko suzmoz; lenen, or dok Eire'ko Yaurla Kildare'ri egindako salakuntzea; eta a andik kenduta, arin baño arinago bidali yoen ara aren ordez Surrey'ko Kondea, bere aitari ezetan lagundu ez egion.

II AIT.—Azerikeri andi ta erriketeak eragina izan zoan orrako ori.

I AIT.—Atzsra idatorrenean bost efa erdi esan-go yautsazak esan bear yakoanari, ordea emoteko. Oarturik yagok ori, eta geienak oarturik..., billatuko yok kardinalak ogibideren bat bakaldunaren adiskide egiten darenantzako, eta bakaldegitik urrinik asko, andik urrinduteko.

II AIT.—Erri osoak gorroto itzala yautsak kardinalari ta, yakinkiJetzatic diñot, irurogei oin lurpean sarturik ikusi gura leuke a: ain maite ta kutun eban, ba, erriak duke au; Buckingham eskuzabal, era-meren ispillu deituten eban erriak a.

I AIT.—Emen gelditu zadiz, yaun, eta zeuk ikusi egizu beratzaz daragoiozun gizon *zindo* ondatua.

BUCKINGHAM aurrera, epaitegitik atzera datorrela; makiladun epaitegi-otseñak bere aurretik. Azkora bat daroe bere aurretik, azkoreak epafa aganantza dauela; aztamakiladunak alde banatatik; beragaz batera doaz SIR TOMA LOVELL, SIR NIKOLA VAUX, SIR GILLELMA SANDS, eta erritarrak.

II AIT.—Emen gagozan eta dakusgun.

BUCK.—Erritar on guztiok, niganako errukia erakusteko onen urrin etorri zarienok, *entzun* diñodana, eta gero, etxera yoanda, itxi nagizue ni. Saltzalla-epaia, etoi-epaia artu dot egun onetan, eta izen orregaz il bear dot: orraitño be, Yaungoikoa bedi lekuko, nire yakinkidetzean etoi ba'naz, yakinkidetzek ondainko al nau, azkorea nire ganera yausiala, zintzo ezpa'naz! Legeari eztautsat ezarten errurik; zuzena baño ezta egin, nire aurka ekarriak egi iatekolan; baña, diran baño Kistarrago al litzaz nire eriotzearen billa ibili diranak: aik euren guraria bete-arren, biotzez parkatuten dautset; orraitño be, ez al dira arrotuko euren gaiztakeriaz, eta ez al dabez eragiko euren gaiztakeriak be gizon andien ilobi-ganean; olangorik egin ba'legie, nire odol errugeak gedar egingo leuke euren aurka-ta, ezto, ba, nik itzarorik mundu onetan luzaroago

biziteko, eta eskatu be ezto egingo, nik egin neikezan gaiztakeriak baño erruki geia-gorik bakaldunak eukí-arren. Buckingham' egaitik negarrik egilen atometarañoko adorerik izan ez-arren, ni maile nozuen gitxiok, aren adiskide ta lagun zindook, angeru onen antzera eriotzaraño lagun zakioez, zuokandik alde egitea bakarrik mingots eta eriotza egiten yakoanari; eta gu alkarregandik bananduko gauzan azkorea nire ganera yausi dadinean yaun-opa gozoren bat egizue zuon arrenakaz, eta zoriontegira eragi nire gogoia. Aurrera, Yaungoikoaren izenean.

LOV.—Arren, goimaitasuna-arren, eguño zure biotzean niganako gogo txarrik ostonduta egon izan ba'da, osoro parkatu egistazu.

BUCK.—Sir Toma Lovell, neuri parkatutea gura neunken bestean nire kitetik perkatuten dautset; ezin izan ledike nik parkatu al izateko baño irain eta oben andiagorik; gogo txar-baltzek eztau izango lekurik nire ilobian. Gorantziak nire cldetik aren eskarrari; eta ak Buckingham aitatu ba'dagi, esaiozue, arren, zoriontegarako bide-erdian idoro dozuela a: oindiño be bakaldunarentzako dira nire opa ta arrenak; eta, soñetik alde egin arte, aren alde onespene-eske eragoko dauela nire gogoak; bere urteak zenfcatuteko astirik dodan baño luzaroago biziko al da! Maitala ta maitatua izango al da bere agintzaldia! eta zarren zarrez atzenera eldu dadinean, gomutagarri bat izango al dabe berak eta ontasanak!

LOV.—Ibai-ertzera eroan bear zaudaz, eskar ori; gero Sir Toma Vaux'en afSurapean itxi-ko dot nire ardurapekoa, eta ak eroango zauz zure atzenera.

VAUX.—Zoaze gertakuntza guztiak egiten, ba-doa dukea ontzira-ta; çertau ontzia; eta gizon andiri dagokionez ornidu ontzia.

BUCK.—Ez, Sir Nikola, aitatu be ez egizu olangorik; irri baño eztaust egingo orain nire txairotasanak. "Lord High Constable" ta Buckingham'go Duke izan naz orain arte; orain, ostera, Edorta Bchun errukarri; orraitño be, nire salatzalla zirtzilak baño aberatsago naz, egia zer danik eguño ezagutu eztabenak baño aberatsago; ikurrazta ezarten dautsat orain nik egiari; eta egunen baten urruma ta negar eragingo dautsen odolez ikurraztu be. Kire aita zindo, Buckingham'go Endika, Errikarta burestun-lapurarren aurka lenen burua eragi ebana, zori txarrean aurkitu zanean, bere otsein

Banister'gana yoañ zan laguntza-eske, eta zori txarreko ak saldurik, epaiketa bagarik yausi zan; Yaungoikoaren baketan izango al da a! Gero, aren urren, bakalduntzara Zazpigarren Endika eldurik, nire aitaren galtzeaz errukituxik, bakalseme bakaldar-bakaldarrerri dagokonez, atzera nire omeneratatu nendun ondaturik nengoan au, beste bein andiki eginaz. Orain ,aren semeak, Zortzigarren Endika'k, zartada bategaz, betiko erauzi dauz mundu onetatik zori ontsu egin izan naberen nire bizia, omena, izena, ta dana. Aurreztik aztertuturik epaitu nabe, eta epaia zindo izan dala esan-bearrean nago; eta orretan nire aita zori txarrekoa baño arean zori ontsuago izan naz; orraitioño be, bein-beinean zori bateko gara, biok yausi gara gure otsenien erruz eta egitez, geien maite izan doguzanen erruz eta egitez; berezkoaz besterako ta zintzotasunik bagako otseintzearena! Yaungoikoaren asmoak edonon eta edozetan; orraitioño be. niri entzuten zagozenok, il-aginik dagon gizonagandik au artu egizue segurutzat, zera, ez izan uste on geiegirik maite dozuezanankan; zuon adiskidetu ta zuon biotzak emon izan dautsezuezanank zuon zori ona berantzaka asi dalari oartu dakioanean, ba, urak legetxe alde egingo dabe zuokandik, eta zuok ondatu gura zabezan lekuan izan ezik beste inongo lekutan eztozuez idoroko eurak. Erritar on guztiok, arren egizue nire alde! Iñci bear zaudedaz orain: eldu yat nire bizitza luze-aspergarriko atzenengo ordua. Agur: eta inoz zer goibel negargarrikerik esan gura izatekotan, ni zelan yausi nazan esan egizue. Esan dot esatekoa; eta Yaungoikoak azketsiko, parkatuko al nou! (Alde BUCKINGHAM'ek eta Yorraigokoak).

I AIT.—Ui, errukarri be errukarri dok au! Yaun, bildur nok, orrako orrek bira ta añañ geiegi ekarriko dauzala errudunen gamera.

II AIT.—Itzal eta biraogarri dok ori, errurik ezpa'yok dukeak; baño, ixilpean ori baño

oker andiagoren barri emongo dauskat, yazo ba'dadi.

I AIT.—Angeru onak aldenduko al gabez olangotik! non yazoteko olangorik? Eztok ik nire zintzotasunaren ezpairik, eztok?

II AIT.—Ixilkizun au ain an'dia dok-eta, uste on andia bearko litzatekek ixilik ez eukiteko.

I AIT.—Iragarri egistak; enok ni itzontzirik.

II AIT.—Ba-yoat igan uste onik; iragarriko dauskat; ez ete dok entzun oraintsu txutxuputxurik eta marmarrik bakalduna ta Katarine alkarregandik bananduteko diranagazkorik?

I AIT.—Bai, baño barri orrek etxok mamirik; orrako zurrumuru ori bakaldunak entzunaz bat, zurrumuru ori bertatik ixilduazoteko agindua emon yeutsan endoreari, eta barri ori zabalduten atomau dadizanen miñak lotu dagizala.

II AIT.—Baña. baltzitude zalako orrek ba-yok orain egirik, yaun, agiri danez; indartsuago, eguño baño indartsuago asi dok, ba, orain barriro zabalduten; eta segurutzat yagok, bakalduna ezarri ta elduko dala orrako orretara. Edo kardinalak, edo bakaldunaren urreko besteren batek kezKaren bat sartu yautsak buruan bakaldunari, bakalduno onaganako gogo txar utsez, eta orrako orrek ondatuko yok bakaldunoa: onako au seguruagotzat eukiteko, etorbarri dok Campeius Kardinala; eta guztiak uste dabenez, arazo orretarako etorri dok.

I AIT.—Kardinalak egina dok ori; orregaz azaskatu gurako yok inberadoieaz, eskatu dautsan Toledo'ko gotzaiburutzea emon eztautsalako.

II AIT.—Elburua yo dokala, igarri dokala uste yoat; baño, ez ete dok gordin be gordin orrako orrek bakaldunoa mindu-bearra? Berea egin gurako yok kardinalak, eta yausi egin bearko yat bakaldunok.

I AIT.—Negargarri dok ori. Leku agiriegian gagozak arazo au erabilteko; bakarrean erabili. dagigun sakonago. (Alde dagie).

II AGERLEKU.—LONDON. Bakaldegiko Bebarru.

Lord Txanbelana aurrera, idazkiren bat irakurten.

TXAN.—(Ba-diroikur) "Ene yaun..., ardurarik andienagaz autu, ezi, ta ornidu nebazan zuk, yaun orrek, eskatu zeunstazan zaldiak; gazte ta lirain ziran, eta iparraldeko enda

edo aririk onenekoak. London'erako bidea artzeko gerturik egozanean, nire kardinalaren otsenetatiko batek, aren aginduz eta in'darrez, kendu egin eustazan; eta zegaitzatzat onako au iminita, zera, bere ugazabari zor yakola otseintzea bendekori baño len, bakaldunari baño len ez izatekotan; eta

agoak itxi euskuzan orrako orrek, yaun". Izan ce, *Diiaui* nok, oiangorik *ak* egin be egingo ez ete dauen; tira *aa*, daukazala: eaozer egingo daueia ak uste dot.

NORFOLK eta SUFFOLK'eko DUKEAK aurre-
ra.

NOR.—Ondo aurkitua, ene Lord Txanbelan.

TXAN.—f.gun on oioi.

SUFF.—Zetan daragoio bakaldunak?

TXAN.—Bakarrik itxi aot niK, goguketa goibe-
lez eta kezkaz ceterik.

NOR.—Zer aaia-ta?

TXAN.—Bere anaiearen emazteagazko ezkon-
tzeak aren yakinkidetzeari larriegi darabile-
\a dirudi.

SUFF.—Ez, beste emakumeren bat sartu yako

ari yakinkidetzara, eta barruregi sartu be,
NOR.—Oiantxe da, izan be; karainalak egina
da au, kardinal-bakaldunak egina; abade
itsu ak, zoriaren semerik zarrenak lez, be-
rak nora-gura eragiten dautso txirrinkeari.
Nozoait ezautuko dau *a* bakaldunak.

SUFF.—Yaungoikoz ezautuko al au! ostan-
txean, bere kitetik bein be eztau ezautuko
ak bere burua.

NOR.—Ak bai yainkotiarkiro yokatuten dau
bere arazo guztietan! eta zelango gar eta
aperturiz! Izan be, ba, ak orain tarrat era-
ginik itxi dau gure ta bakaldunoaren bir-
loba inberadorearen arteko alkartasuna, ba-
kaldunaren biotzera murgilduten da *a*, eta
galtzoriak, ezpaiaik, yakinkidetzako elorrio
ta biurketak, eta etsipenak erein eta za-
balduten dauz an..., eta bakaldunaren ez-
kontzeagazkoak ez guztiok; eta ezkontzea
austeko onua damotso, bakalduna gatxota-
tik oscttuteko; andera *a* galduagaz ogei ur-
teotan bere idunetik dingilizka egon izan-
arren bere tiizdikiz galdu eztauen pitxia
galtzeko; angeruak gizon onak maite daroe-
zanez *a* maite izan dauen anderea; zoriaren
zartadarik andiena artu dagianean be ba-
kalduna onetsiko dauena; yainkotiar ez ete
da egikera au?

TXAN.—Yaungoikoak ez al daust itxiko olan-
go onurik emoten! egi baño egiago da edo-
non dabilela barri au; miñ guztiak diño
orixe, eta biotz yator guztiak negarrez da-
goz orregaitik: arazootan euren begiak yar-
ten atometan diran guztiak ba-dakuse nora
yoko daben arazook..., Pantze'ko bakalduna-
ren arrabeagana. Egunen baten Yaungoi-
koak idigiko dautsaz begiak bakaliunari,
ain luzaroan gizon gezto azarri onegan lo-
tan egon diran aren begiak.

SUFF.—Eta aren yoputzapetik yareiko gauz.

NOR.—Ba-dogu arren egin eta biotz biotzez
egin-bearrik, gure yareitearen alde; ostan-
txean, gizon alorodun onek esku-mutildu
egingo gauz bakaldar gareanok; ora lan-
goxe dira orrentzako gure omen guztiak,
berorri eder yakon irudia emoteko gure
omenai.

SUFF.—Nigazko, ene yaunak, nik ezto maite
a, eta bildurrik be eztautsat; aor nire sinis-
kizuna: *a* bagarik egina nazanazkero, *a* ba-
garik iraungo dot zutunik, bakaldunari eder
ba'dakio; ainbaten yataz aren añenak eta
aren onespentak, nik yaramonik egiten ez-
tautsadan arnasa baño eztira bitzuek. Eza-
gun izan yat eta ezagun yat; au dala-ta,
arro egin dauenaren eskuetan izten dot *a*,
zera, Aita Gurnaren eskuetan.

NOR.—Barrura goazen; eta *a* gotilunduten da-
ben gogaioz besterik sartu dagiogun bakal-
idunari buru-bfotzetara: ene yaun, lagun
izango ete zatxakuz?

TXAN.—Ontzat artu egizue nire ezetza; beste
nonbaitera bidali nau bakaldunak; ganera,
a artegatuteko au aldi bape egokirik ezta-
la ikusiko dozue; osasuna yaunoi.

NOR.—Eskarrik asko, ene yaun txanbelan orri.
(Alde Txanbeianak).

Idigi egiten dau NORFOLK'ek beragan batu-
tsn dan ate bat. Yezarrita, oldozkor dirakurra-
la dakuse BAKALDUNA.

SUFF.—Goibel baño goibelago agiri dok! se-
guru be seguru guztiz naibagaturik dago.

END. B.—Nor dago or?

NOR.—Yaungoikoa-arren, ez al da asarre.

END. B.—Nor dago or? Gero! Zelan atomau za-
ris bakarreko nire ausmerretara sartzen?
Nor naz ni, e?

NOR.—Bakaldun eskartsu, Gaiztakeriak egu-
ño euren sumorik be izan eztauen irain
guztiak be parkatuten dauzana zara zu: ba-
kaldunagazko arazoa *da* guri onan bende-
koen erago-bearra ausiazoten dauskuna; eta
arazo onetan zure bakal-erextia yakiten ga-
toz.

END. B.—Azarriegi zarie zuok; zoaze ortik
zear; neuk erakutsiko dautsuet zeintzuk di-
ran arazo-aldiak; mundu onetako arazoen
aldirik da au, ala?

WOLSEY eta CAMPEIUS aurrera.

Nor dago or? Nire yaun on kardinala, ala?
Ui, ene Wolsey, nire yakinkidetzara zauritu
onen nasaitasun ori, bakalclunarentzako

- lango csakai *HTCL* 2v (CAMPEIUS'eri) Ondo I etorria zauguz gure bakalderrira, yaun yakintsu begiragarri baño begiragarriago ori; zeuk zer-gura egin gu geugaz eta gure bakalderriaz. (WOLSEY'ri) Ene yaun on, ardurea artu egizu zuk, nik esan au itz uts izan eztaiten.
- WOL.—Ez al zara izango olangorik, yaun. Ordubeteko astirik emongo al dauskuzu alkarregaz guk biok itz egiteko.
- END. B.—(NORFOLK ota SUFFOLK'eri) Zeregintsu nago; zoaze.
- NOR.—(SUFFOLK'eri bakarrik) Abade onek etxok arrokeririk!
- SUFF.—(NORFOLK'eri bakarrik) Ixilik ago; bere lekua niri emotekotan be, eneunke egon gurako arroken arrotz orren gexorik: baña, orrako orrek ezin irauin lei.
- NOR.—(SUFFOLK'eri bakarrik) Irautekotan, yazoko yatana yazo, yo egingo yoat.
- SUFF.—(NORFOLK'eri bakarrik) Nik emongo yauntsa beste zartada bat. (Alde NORFOLK eta SUFFOLK'ek).
- WOL.—Bakaldun guztiak baño zurtasun-eredu ohea emon dau zure eskarrak zure kezka et-aztea zeure kietik Kistartasunaren eskuetan itxiagaz. Nor izateko orain asarre? Noren ikusi-ezinik izateko zuk? Españarrak eurak be, emakume orri odolez eta biotzez loturik egon-arren, epaibidea zuzen ta zindo dala autortu bear dabe. Elexgizonak, elxgizon yakintsuak esan gura dot, Kistar-errietako elxgizon guztiak, euren kietik emon al izan dabe euren eretxia; epaibide zuzenaren inude dan Erroma'k berak be, zuk orretarako dei eginda, gizon on au, abade zuzen eta yakintsu au, Campeius Kardinal au bidali dausku, guztien eretxia beronek dakaskula, beste bein zure aurrera dakatsudan gizon au.
- END. B.—Eta beste bein damotsat ondo-etorria nire besartean, eta eskar oneko natxake Giltzapeko Batzarkide begiragarriai, euren biotz onagaitik: neuk gurako neunken lango-xe gizona bidali dauste.
- CAMP.—Orren zindo zara zu-ta, erbestetar guztien biotz ongarrri zara zu. Zure goikotasunaren eskuetan iminten dot Erroma'tik arazo onetarako dakadan aginduaren agiria: an emon dausten agindu orrek diñonez, zuk, York'eko Kardinal ene yaun orrek, Erroma'ren otsein nazan onegaz batu bear dozu, guk bion artean arazo al alderdikeri bagarik ebazteko.
- END. B.—Gizon bardin bi. Iragarriko yako ba. kaldunoari zu zetarako etoiri zanean. Nondik dogu Gardiner?
- WOL.—Ba-dakit zure nagusiagotzeak bakal-dunoa ain maite izan dauela-ta, ez al 'dautsazu ukatuko ari bera baño gitxiago dan emakumeri be legeak emoten dautsanik, zera, aren alde eragozpen bagarik itz egingo dabean yakitunak izentetea.
- END. B.—Ez, eta diranik eta onenak emongo yakoz; eta nire biotz ona beragaz izango dau ondoen egin dagianak: Yaungoikoak ez al dau gurako besterik. Kardinal, arren, dei egiozu, datorrela nigana nire ixilpekolari bari Gardiner: nitzako gizon egikotzat dot a (Alde WOLSEY'k).
- Barrero aurrera WOLSEY, GARDINER'gaz.
- WOL.—(GARD'eri bakarrik) Ekadazu esku ori; poza ta nire biotz ona zutzako; bakal-dunarena zara orain.
- GARD.—WOL'ri bakarrik) Beti izango naz zure Argitasunaren esaneko, zuk eragi nozuta.
- END. B.—Erdu ona, Gardiner. (Biak bietara daragoieo berbetari).
- CAMP.—York'eko ene yaun, Pace Irakasla izeneko gizon bat ez ete egoan len gizon ori dagon lekuan?
- WOL.—Bai, axe egoan.
- CAMP.—Ez ete eben a gizon yakituntzat?
- WOL.—Bai, bai orixe.
- CAMP.—Ba, sinistu egistazu, arazo au dala-ta marmarrik asko dabil or, zu zeu be marmarrotan barruan zareala,
- WOL.—Ostera! neu be bai, ala!
- CAMP.—Aik ezтира geldituko zuk a begi txarez ikusten zendula esan bagarik; eta a, ain onindartsu zalako, yagi egingo litzakearen bildurrez, erbesteko zereginen batera bidalita, oindiño be an dozula; eta ortik etorri yakon naibagearen naibagaz zoratu ta il egin dala.
- WOL.—Bakea izango al dau Yaungoikoagaz! ori da asko nik kistarreri opa izateko; bizi diran marmarlarientzako ba-dot nik eurak non sarturik. Tentel bai ba-zan a, beti ta nainon onindartsuarena egiten ebilen-eta; (GARDINER'az) gizon on orrek nik zer agindu, axe egiten dau: ostantxekorik inor be eneunke euki gura bakaldunagandik ain ur-Au ikasi egizu, anaf, ezkareala bizi geu baño zirtzilagok guri eldu ta berak nora-gura gu eroan gagizan.
- END. B.—Lotsaz emoiok au bakaldunoari. (Alde GARDINER'ek) Black Friars da, nire us-tez, gizon orren yakitunak artzeko tokirik egokiena; an batuko zarie arazo astun au

aztertu, aztindu ta eralteko: ene Wolsey. zeugan artu egizu tokia gertetako ardurea. Ui, ui, ene yaun, burua bere Lekuan dauen edonor ez ete Ieuke mindu *la* naibagatuko

oe-Iagun ain atsegingarria itxi-bearrak? Baña, yakinkidetzea, yakinkidetzea... zer samurretan be samurra da-ta, a itxi-bearrean nago! (Alde dagie).

III AGERLEIOJ__LONDON. BAKALDUNO'tegiko Areto-aurrea.

ANE BULLEN eta Neskazar andiki bat aurera.

ANE.—Orregaitik be ez; au bai ba-dala naibaga zorrotza: aren Nagusiagotzea emakume agaz ain luzaro bizi izanik, eta andera a ain ona izanik, iñongo miñek ari ezer lotsagarririk ezin ezarri ízanik,... nire bizia-arren, ak iñoz eztau yakin iñori okerrik egitea zer danik; Ui! ainbeste urtetan bakaulkian, nagusiagotzan. eta arrandi-putzetan, eurak iztea lortutea baño askozaz garratza-go ta mingarriago dan zerotan ainbeste urtetan bizi izanda..., epaialdi onen ostein andera ari agur egitea! ene! bidutzia berak be erruki izango leuskio olango zerari.

NESK.—Biotzik gogorrenak be urtu ta negar egiten dabe andera orri yazoagaz.

ANE.—Ene! Yaungoikoaren erabagia! eguño ez al leu ezagutu olango anditasunik: betikorik izan ez-arren anditasun ori, orraitño be, dauenari kendu ba'dagio beti ziboka idabilen zoriak, eriotzeak bizia kentzea bestean mingor egiten da.

NESK.—Ai ene, anderearen errukarri! erbestetar da orain barriro.

ANE.—Errukarriago da orrexegaitik. Izan be, eta zin dagit, oba da yaioztaz zirtzil izan, eta apal eta zori ontsu bizi, goietan urrezko naibageagaz naibagaz bizi baño.

NESK.—Gure poza da gure ondasunik beinena.

ANE.—Diñod'an egia-arren eta nire neskatasuna-arren, eneunke izan gura bakaldunorik.

NESK.—Ut, ut, nik bai izan gurako neunke, eta orregaitik nire neskatasuna galbidean imini be bai; ta zuk zeuk be gurako zeunke azaluskeri-sunda ori gora-bera; emakume-biotzik be ba-dozu emakumeren edertasunik asko dozun orrek; eta biotz ori beti ibili izan da goitasun. aberastasan eta nagusitasunaren billa; eta, nire ustez, onespenak yatsuz orrako orreik; eta eztoz ezpairik, zure yakinkidetzea zala orr'ítara yarriko litzakela, zuk zeuk orretarako indarr-iskitxo bat eginazkero.

ANE.—Ez, benetan, ez.

NESK.—Bai, benetan be benetan: ez ete zeunke bakalduno izan gurako?

ANE.—Ez, ez eguzkipeko ondasun guztiakaitik be.

NESK.—Andia da; nigazko, txakurtxiki batek be itzuliko nenduke ni bakalduno izatera, zar izan-arren ni; baño, arren, zer deretxatsu dukeno izatea? Ete dozu indarrrik izen orren astuntasuna eroatekorik?

ANE.—Ez, egia esateko.

NESK.—Makal eta merro zara, olan ba'da; apur bat berago goazen; komde gazterik ba' nintz eneunke gurako zuri bidera urterterik, mosua gorrituteak baño areagorik Ietorkizu ortik-eta; zure bizkarrak ezin ba'dau yasan zama au, makalegi da iñoz seme-alabarik izateko.

ANE.—Zure ixildu-ezina! barrien-barri zin dagit, iñoz be eneunkela gurako bakalduno izaterik mundu guztiagaitik be.

NESK.—Benetan dirautsut, Ingelanda txikiagaitik be egingo zeunke zuk orrenbeste; neuk be egingo neunke orrenbeste, Carnarvonshire' gaitik be, burestunak ak dauen beste ondasun baño izan ez-arren be. Ara, nor datorku emen?

Lord Txanbelana aurrera.

TXAN.—Egun on, anderok. Zegan ete legoke salgei zuon autu-mautu ixilaren barri yakitea?

ANE.—Zure eskaria beste be ez, ene yaun on; zuk eskatutea Iain be ezta: gure anderearen naibageagazko errukia izan da gure autugeia.

TXAN.—Arazo zindo ta emakume onai dago-kiena izan da: ba-dago itxarorik dana ondo yazoko dala.

ANE.—Olan izango al da, amen!

TXAN.—Biotz zindoa dozue zuok, eta zerutiko onespenak izango al dabez zuok langoak. Andera lirain, benetan itz egiten dodala igarri ta yakin dagizun, eta zure onindar askotarikoak aintzakotzat artu dirala, zutzaz dauen eretxi ona iragarten dautsu bakaldunaren nagusiagotzeak, eta Pembroke'ko Markesnotzea baño bape gitxiagorik zuri ez emoteko asmaoa dau ak; eta urteko lagun-garrizat urteko milla libera erasten dautsoz ak izentatze orri.

ANE. Eztcklt ^elan íragarrí be níre eskar ona; utsa *áa* ník dodan guztia be; níre arrenak ezтира guren-gurenak, eta níre gurariak be ezтира uskeri utsa baño geiagorik; eta, orraitño be, arrenak eta gurariak dira ník emon neikiozan zer bakarrak. Arren, níre eskarrak eta níre bendekotasuna eroan egiozuz, yaun orrek, otssin lotsaz gorritua-renak ba'ltizaz lez, aren gcikotasunari; aren osasun eía bakaiduntzearen alde arrenka, otoika nago ní.

TXAN.—Andera, ezin dot aintzakotzat artu ez bukaldunak zutzaz dauen erelxi ona. [Bere kitem] Ondo be onio aztertu dot ori; edertasuna ta onindarra alkarregaz ain egoki nastuta dagoz crregan-eta, benderatu dabe bakaliuna: eta nok daki oraindik andera onegandik sortu ledikeia izaro oso au argitan iminiko leuken pitxiren bat? Bakaldunagana noa zugaz itz egin dodala esaten.

ANE.—Ene yaun begiragarri ori (Alde Lord Txa'n'bejanak).

NESK.—Ara, ikusten dozu? Ara, ara! amasei urte dira bakaltegian eskean nabilela, ta ibili nazala, eta níre Hbera-eskariak eztabe ezer lortu izan, beranduegi edo goxegi eskatu dodalako; zu, ostera, zoriarena! zu, emen arrain *oaa* eldu-barri baño etzearan ori, ut, ut, gura-naíz-gura ez dartzun zori onena! idigi baño lenago beteten dautsu zuri goa zori onak.

IV AGERLEKU.—LONDON. Bebarru bat BLACK FRIARS'en.

Turut, adar, txistu-otsak. Makiladun bi aurre-ra, zidarrezko makilatxo labor banagaz; Idaz-la bi orreín urren, irakasla-soñekoakaz; Canterbury'ko Gotzaiburua bakarrik onako onein urren; LINCOLN, ELY, ROCHESTER, eta SAINT ASAPH'eko GOTZAIK aurrekoaren urren; aurrekoen urren, apur bat atzerago, Andiki bat dator sakelagaz, sakelean sillu nagusia ta Kardinal-txapel bat dakazala; abode bi urren, zidarrezko kurutz banagaz; gero Andiki bideerakusla bat burutsik, laguntzat zidarrezko buruago bat dakarren egitarau-arduradun bat dauela; Andiki bi urren, zidarrezko zutiko andi bana dakarrela; urren, alkarren alboan, WOLSEY ta CAMPEIUS Kardinal biak; Andiki bi, batak ezpatea, bestea buruaga bat daroetzala. Gero, BAKALDUNA ta BAKALDUNOA, ta euren Laguntzakoak. Agintza legorpeko aulkian yezarten da Bakalduna; *a* baño beragoan yezarten dira Kardinal biak, ebazlatzat. BAKALDUNOA Bakalduna-

ANE.—Bakan egíten yat onako au, bakan eta iñondiko.

NESK.—Gozo ete da? Ala mingots? Berrogei txakurrandi bai yokatuko neunkez, ezetz. Bazan beñola andera bat (ipuin zarra yatsu au), bakalduno izaterik gura ez ebana, bai, olangorik izatea gura ez ebana, Aigito'ko lupetz guztiagaitik be: iñoz entzun ete dozu ipuin ori?

ANE.—Tira, ba-dozu adarra yo-gurarrik.

NESK.—Zugazko crazoagaz Irratxoria baño gorago yagi nendike ní. Pembroke'ko Markezñoi Uriean milla libera lotsa utsagaitik! Zure aldetik egitekorik bapez! Nire bizia-arren, millaka giagoren agindua dakar orra-ko orrek; izan be, ba, omenaren gonea atze-alietik luzeago da aurre-aldetik baño. Orainganik dakit dukenotzea daroazula zure atzetik; esaizu, ez ete zara len izan zarean baño sendoago?

ANE.—Andera on, zeu poztu zadiz irudimenera datortsunaga, eta bakean itxi nagizu. Ez al naz biziko, orrako orrek pozik arean be emoten ba'daust: larritu egiten nau gero zer etorrikoak. Eztau nasaitasunik bakaldunoak, eta gu agaz azturik gagoz ain luzaro agandik urrundurik: arren, emen entzun dozunik ezertxo be ez egiozu esan.

NESK.—Zetarikotzat nozu ní? (Alde dagie).

ren aldameanean bagarik urrintxoago yezarten da. Epaitgiaren aldamenetan yezarten dira GOTZAIK, elex-epaitegian yezarri oi diranez; euren bitartean yezarten dira Idazleak. Gotzaien urren yezarten dira Lord Andikiak. Zutunik geldituten dira Aldarrikaria ta beste ikusla guztiak, bebarruaren inguruan, urren-gorik urrengo.

WOL.—Guztiak ixil-ixilik begoz Erroma'tik dogun egikizuna irakurri arte.

END. B.—Ba-dago orren bearrik, ala? Orrako ori lendik dago agirian irakurrik, eta guztiak autortuten dabe zuok dozuen ala; au dala-ta, eztozue zetan astirik galdu.

WOL.—Olan bedi. Aurrera.

IDAZL.—Dei egin Ingelanda'ko bakaldun Endika'ri, epaitegira etorri daiten.

END. B.—Emen nago.

IDAZL.—Esan Katarine Ingelanda'ko Bakaldunoi, datorrela epaitegira.

ALDAR.—Katarine, Ingelanda'ko Bakaldunoa, e. a.

(Eztau erantzuten Bakaldunoaik, yaki egiten *da* bere yezarlekutik, epaitegia zecr Bakaldunagana doa, *ici* aren oñetan beksunbiko yarten da; gero itz egiten dau).

KAT. B.—Yaun, zuzena egin eta erruki izan-go al daustazu; emakume mengel eta erbestetar nozu, ba, ni, zure aginterritik urrin yaioa, alderdikeri bagako ebazlarik, zuzen eta artez ebartziko dauenik emen eztauena. Ai ene, yaun, zetan egin dautsut nik okerrik? Gogoko etxatsunik zer idoro dozu nire eragoan, ni onan baztatu ta zure biotza nigandik aldentuteko? Yaungoikoa bedi aurtola ta lekuko, emazte apal zintzo izan naxatsu ni, zure esaneko beti-beti; bildurrez beti zure gogoaz besterakorik egiteko, bai, zurs mosuaren, zure kiñuren bendeko, pozez, ala naigabaz, *a* zelan ikusten izan do'dian. Noz egin izan dot zure gogoaz besterakorik, noz ezto egin zure gogoa neure gogo? Naiz, noz enaz aleginduz zure adiskideak maite izateko, nire arerio zirana nik yakin-arren? Zure asarrepera yausi diran nire adiskideetatik zeñek yarrai dau nire adiskidetasunean, nik nigandik uxatu bagarik? Yaun, ogei urtez gora zure emazte izan nazala gogoratu egizu, zure esaneko emazte ta, nire onespentzat, ainbat seme-alaba izan dodazala zugandik; aldi orretan nire entzufé ona orbandu legikenik ezer, ezkontzaren aurkakorik, zukanako maitasun eta egikizunen aurkakorik nik egin izan dodanik zuk aitatu ta erakutsi be egin ba'dagizu, ortik zear bidali nagizu Yaungoikoaren izenean; lotsaria bedi nire ondasun bakarra, *ela* zuzentzarik gogorren eta zorrotzenaren eskuetan itxi nagizu. Ara, yaun, bakaldun zur-zurtzat, buruz argi ta zur be zurtzat etsi eben zure aita bakalduna; bera baño urte askoz lenago bakaldun izandakoetatik yakintsuen eta zurrentzat esten eben nire aita Perdiñanda, España'ko Bakalduna; eztago zetan esanik, eztago ezpairik gure arazo au ebazteko bakalderri guztietatiko gizonik yakintsuenak batu ebezala aik biak, eta aik legezkatotz ebatzi ebela gure arteko ezkontzea; au dala-ta, apal-apalik eske nagotsu, yaun, geroagoratu dagizula arazo au ebaztea. España'ko nire adiskideak euren onua niri emon arteraño; eskatuko dautset euren onua; orretarako eperik emon ezpa'dagistazu, Yaungonkoa bedi nire ebazla ta zure atsegina egin bedi!

WOL.—Emen dozu, andera, eta zeuk eskatu-

ta. elex-gizon begiragarriok; zindotasunez eta yakituriz berebizikoak, bai, lurralde onetatikoetatik aituen eta autuenak, zure alde aleginak egiteko batu idiranak; alperriko da, ba, auzi au geroagoraterik zuk gura izatea, bai zeure nasaitasunaren aldetik, baita bakaldunaren kezka, estu ta larri darabilenak uxatuteko.

CAMP.—Ondo ta zuzenez itz egin dau yaun agurgarri orrek; au dala-ta, andera, egoki da bakaldunak batu dauen batzar onek bere arloan aurrera egitea; eta, astirik galtzeka, euren argibideak esan eta entzutea.

KAT. B.—Kardinal yaun, zuri itz egin gura dautsut.

WOL.—Zer esan gura dozu, andera?

KAT. B.—Negar egin-aginik nago, yaun; baña, bakalduno nazala gogoraturik, edo olango nazala luzaro amesetan egonik, baña segurutzat bakaldun-alaba izanik, su-txatartu egingo dodaz nire negar-tantanak.

WOL.—Epe artu egizu.

KAT. B.—Zu apal izan zadizanean artuko dot; arartean artu ba'dagit, zigortau egingo nau Yaungoikoak. Orretara zerik askok eragin eta bultzetan nabelarik, nire arerio zarea-la sinistuta nago; au dala-ta, etzaudaz artu gura nire ebazlatzat; zu zeu zara, ba, nire ta nire yaunaren bitarteko txingarrai putz egin dautsena, gure arteko auzia sortu dauena, eta Yaungoikoaren iñontzak itzalliko al 'dauz txingarrok! Au dala-ta, barriro diñot iguin eta gorroto dautsudala, areago, biotz-biotzez diñot etzaudazala artu gura nire ebazlatzat; beste bien diñot, nire areririk okerrenentzat zaudazala ta ez bape egiaren aldekotzat.

WOL.—Autor dautort itzok eztirala zure agotikorik; orain arte zu beti izan zara maitasunaren aldeko, eta beti izan zara txeratsu ta emakumeari dagokon baño yakintsuago ta zurrago. Andera, irain egiten daustazazu; eztoz nik zutzako gogo txarrik, ezta okerrik ez zutzako, ez beste iñorentako; Eiroma'ko batzarraren aginduak esango dau noraño eldu nizan, edo elduko nizan, bai, Erroma'ko batzar osoak. Txingarroi nik putz egin dautsedala leporatu daustazu zuk; ezetz diñot nik; emen aurrean dago bakalduna; orrek uste ba'dau nik zer bat egin, eta besterik esaten dodala, erraz te erraz yako orri nire guzurkeria zigortau ta niri min egitea! bai, guzurti nazala esanagaz ni mindu nozun zuzen. Ba-daki, ba, orrek ezta la egia zuk leporatu daustazuna, ba-daki orrek guzurra ta okerra leporatu daustazuzala. Au dala-ta, orregan dago ni

nsatutea. eta osatute ori ezta besterik zure u-steak zugandik aldendutea baño: bere *na-*gusiagotzeak arazo onetaz itzik egin-aurre* tik, andera, atzera iruntsi egizu nitzaz txarto esan douna, arren, eta ez esan olango-bein geiagotan.

KAT. B.—Ene yaun. ene yaun, izurrik bagako andera nozu ni, mungelegi zure maltzurkeriari erantzuteko. Bigun eta apal itz egiten dozu zuk; errugeren anizez eta apal egiten dozu zure egitekoa; baña, arrokeriz, gorrotoz, eta ollarkeriz beterik ganezka dago zure biotza; zoriari ta orren nagusiagotzeari eskarrak, geldi-geldi, berengo mallatik asita, gorengoetara eldu zara orain, eta zure yarraila dira eskubideak; eta zure itzak, zure otsein idiran zure itzak, zeuk zer-gura egiten dabe zuk esan-ala. Ezin naz esateka gelditu, ardura geiago emoten dautsu zuri zeure omenak, gogoakazko zure egikizun goikoak baño: au dala-ta, beste bein ukatu egiten zaudaz nire ebazlatzat; eta emen, zuon guztien aurrean, Aita Gurenagana yoten dot, nire auzia agana eroanda ak berak ebatzi dagian. (Bakaldunari bere lotsa-agiriok eginda, alde egitekcarena dagi).

CAMP.—Setatsu ta berean dago bakaldunoa; zital, setati ta buru-gogor salatuten dauen zuzentzeaganako, ebazleak salatutera itzulirik. eta muker eta tirritsu dago ebatzi bear dabenanakano; eztago ondo ori. Ba-doa ori.

END. B.—Dei egiozue. datorrela baniro.

ALDAR.—Katarine, Ingelanda'ko Bakaldunca, zatoz epaitegira.

GRIF.—Andera, barriro be dei egiten dautsue.

KAT. B.—Zer bear dozu? Ekin, arren, zuk zure bideari: deitu dagitsuenean etorri atzera, Yaungoikoa lagun izango al yat, nire epeak yasan al dauen baño geiago gogait eragiten dauste! Arren, yo auirera. ekin: goazen, arren; oraindik ara iñoz geiagotan enaz agertuko arazo onegazko euren epaitegietan. (Alde BAKALDUNO, GRIF., eta La'guntzako besteak).

END. B.—Ekiozu zure bideari, Katarine: ori baño emazte obarik ba-dauela diñon mundu onetako gizoni iñok eztagiola ezetan sinistu, orretan guzurra esan dauelako; zeu langorik eztozu zuk, bakar zara zu..., zure zelangotasun bakanak, zure maitagarritasun gozoa, santu-antzeko zure otzantasuna, emazteri dagokona lango etxe-erabiltea, eta zure zerik gorengo ta yaungoikozaleak itz egin al ba'lebe zure alde, lurreko bakaldunoen bakalduno zarean orren alde... zindo da ori yaiotzaz; eta berez zindo danez, nígazko

bere eragoa be zindo baño zind^ago izan da.

WOL.—Yaun eskartsu be eskartsu, zuxe nagusiagotzeari erarik apalenez egoz nagoko, zuri eder izatekoan, emen dagozan guztien aurrean esan eta iragarri dagizula ia eguño arazo au zure nagusiagotzeari buruan erabiliako dautsudan; sdo-ta, iñoz zure bidean kezkarik imini izan dodan, orretarako bidean zu iminteko; edo-ta, eguño itzik iñikienik be egin izan dautsudan zure emaztea orain aurkituten dan lekura ekartekorik, edo andera orri ezetan ukutu izan dautsadan, beragH.tik Yaungoikoari nik eskarrak emon izaii haño; itz egizu, arren, ostu ta ostuta geio iotu izan naban leku berean askatu bear nabe. ba, naiz ta oso-osoau naikoturik itxi ez ni beingoan.

END. B.—Ene yaun kardinal, zuritirik zagoz; bai, nire omena-arren, eztozu egin zuk olangorik. eta azkaturik zagoz. Eztozu zuk iñok irakatsi ta erakutsi-bearrik areriorik asko idozula; zure arerio zegaiti diran be ezta-kienak; baserrietako txakurren antzeko dira orrako orreik, beste txakurrak ausi egiten dabelako, eurak be ausi egiten dabe: orretarikoen batzuk asarratu dabe bakaldunoa zure aurka. Zuri-zuritirik zagoz. Zuriago egiterik gura ete dozu? Zuk beti gura izan dozu arazo onf lo eragítea; eguño eztautsazu egin ziririk, ez zirkinik; eragotzi bai sarri-sarritan orretarako hideak; nire omena-arren, onenbeste diñot nire kardinal onaren alde. ta onan zurituten dot ori; orain, astirik eta zuon adirik izango al dot arazo onetara zek bultzau nauen zuoi esateko: gero zeuck ikusi zer datorren ortik, obeto esan, zer etorri dan. Onan yazo da; adi egon: zeretik sorru ziran nire yakinkidetzean nire lenengo kezka ta zistadak, aldi atan Pantze'ren ordezko zan Baíona'ko Gotzaiak esandako itz batzuetatik; Orleans'eko Dukearen eta gure alaba Miren'en arteko ezkontzeaz itz egiteko etorria zan a ona; arazoa aztindu ta erabili-ala ta atzenengo erabagia artu-aurretik, ak (gotzafak esan gura dot) epe eskatu eban; bitartean bere yaunari itanduteko gure alabea legezko zan ala ez, beñola nire anaiearen emazte izandako alargunagaz ni ezkondu nintzalako. .Orrako bitarte edo epe orrek ondo-ondoraño aztindu eban nire yakinkidetzeta, bildur itzala sartu yatan, biotza erdibituteko bildurra, ta bular guztia ikara baten itxi eustan; aztinaldi orregaz gogaketa nastuak etorri yatazan moltsoka ta estu-estu ta larrilari imini nenduen. Lenen, susmoa eto-

ri yatan enendula Yaungoikoak begi onez ikusten; Yaungoikoak agindu izan dautso, ba, berezkoari nire emaztearen sabelak seme-rik izatekotan, seme orrek bere bizitzan ilak ilobian daben baño beste zereginik ez izatea; izan be, ba, bere semeak edo yaío-aurretik sabelean bertan il dira, edo mundu onetan arnasea artu ta laster: au dala-ta, Yaungoikoaren zigorra ganean dodala iruditu yatan, zera, mundu onetako yaruslerik onena bear leuken nire bakalderriak eleukela izango olango pozik nik emonda; ortik dator nik buruan erabili ta erabili egin nebala nik ondorengorik ez izatetik nire bakalderriak izango leuken galtzoria; eta naibagarik eta inifizirik asko emon eustan orrako orrek, Olan, nire yakinkidetzearen ontzia iisaso asarrean urperatu-aginik ego-larik, osapide onetarantza eragin neuntsan nire ontziari, eta osapide orretzaz eragoteko gngoz oraín baturik; zera, nire yakinkidetzeari aríeztutea ida nik esan gura dodana (orduak nik gexogexorjik soinatuten nefcan nire yakinkidetzeari ta oraindik be guztiz onak eztagona aríeztutea), lurralde onetako elexgizon begiragarri ta irakasla yakitun guztiak nire yakinkidetzeari aríeztutea: lenen, zugiandik asi nintzan, ixilpean eta bakarrean, zugiandik, Lincoln'eko ene yaun; gomuietan dozu zuk zelán izerdi-bitsetan nengoa ni, estu ta larri, lenengoz nik eragin neuntsunean.

LIN.—Ondo gogoan dot, ene nagusi.

END. B.—Luzaro itz egin neuntsun onako onetaz; zeuk esan orain, arren, ze onu emon zeunstan nire nasaigarriztat.

LIN.—Zure ederretsiz, ene nagusiagotza ori. Lenengotan asko eragin eustan alango ga-

rrantzi andiko arazoak, bai berak, bai andik etorri ledikezan ondoren astunak, eta ni oraindik ezpaian, zolantzan gelditu izan-arren, gaur artzeko zarean bidea bera artzeko onua emon izan neuntsun.

END. B.—Zu ikaratu zendudazan gero, Canterbury'ko ene yaun; eta zure ederretsia iritxi neban, batzar au batzeko: epaitegi onetako gizon guztien eretxia lortu neban, *banan-banan*, aurreztik, eta zuon eretxiak zuon eskuz idatzita ta zuon silluz yota iritxi dodaz; au dala-ta, ekin eta aurrera yo, arazo au aurrera ekarri dauena ezta izan, ba, bakalduno on oneganako gogo txarrik, nik esandako zerak nire yakinkidetzeari egiten eutsoezan ziztadak baño. Gure arteko ezkontzea legezko dala erakutsi egizue, bai, eta nire bízi ta nire bakalduntzea-arren dirautsuet, gerturik nagola ni agaz, Katarine nire bakaldunoagaz nire bizitza guztian biziteko, munduko andera ederrik ederrenagaz baño lenago.

CAMP.—Zure ederretsiz, yaun. Bakaldunoa erren ez egotekotan, egoki ta bearreko da ebazte au beste egunen baterako geroagoraturtea: bitartean iñondiko aleginak egín bear dira bakaldunoak Aita Gurenagana egin dauen deia banatu ta utsean geHStu dailen. (Alde egiteko yaqi egiten dira).

END. B.—(Bere kitean) Agirian dago kardinalok enabela artzen aintzakotzat: iguin eta gorroto dautset Erroma'k darabiltzan gerorazte nagi ta marrooi. Cranmer, nire otsein yakintsu maite-maite ori, atzera ator, arren! ba-yakiat, ba, i nire aldameratuazkero, igaz batera nire nasaitasuna be ba-datorrela. Eten batzarra: alde guztiok. Etorri ziranez alde dagie).

III EKITALDI

I AGERLEKU.—LONDON. Bridewell'go Yaurogia. BAKALDUNOA'ren lekuetako txoki bat.

BAKALDUNOA ta bere Emakumeetatik batzuk, I lanean.

KAT. B.—Kítarra artu, neskato; kezKaren kez-kaz gotilun dago nire biotza; abestu, ta sakabanatu egizuz nire kezkok: itxi lana.

ABESTIA

Orpeu'k, bere kitarreagaz abesturik,
Makurtuazo ein eutsen zugatzai
Eta mendi buru-zuri leituai.

Bere eresiagaz landarak eta lorak
Beti erne; euzki-zaparradena...
Udabari bat ein eban urtea.

Yoten eta abestuten *a* zek, nok entzun,
Itsasoko uginak eurak be, i,
Buru-makur bere ondoan geldi.

Olangoxe *>ia aitea* eresi gozoan:
Kezka eraillkorra ta biotz-larri
Loak artu, edo. entzun-ala il.

Andiki bert nrrpra.

KAT. B.—Ze barri 'dogu?

ANDI.—Gogoko izango al yatsu; zure begira dagoz kardinal andi biak artzeko lekuan.

KAT. B.—Nigaz itz egin gura dabe, ala?

ANDI.—Ori esan dagitsudala eskatu dauste, andera.

KAT. B.—Ona datozala esaiezu gizon argi-argioi. (Alde Andifcak) Ze arazok ete dakaz emakume errukarri makal, kutuna izatea galdu dauen onegana? Orreïn etorrerea etxat bape gogoko, susmo txarra dot. Gizon onak izan bear leukie; euren arazoak be ain zuzenak: baña, soñekok eztau egiten lekaiderik.

WOLSEY ta CAMPEIUS aurrera.

WOL.—Bakea zure nagusiagotzeari.

KAT. B.—Etxeko zereginetan aurkituten nozue emen, gizon argi-argiok. Nazana nazala, zerik txarrenak yazoko be gertau egin bear neunke nire burua. Zer gura dozue nigazko, yaun begiragarriok?

WOL.—Eder izango al yatsu, andera zindo, zeure gelara alde egitea, zetarako etorri garean ain zuri azalduteko.

KAT. B.—Ementxe esaiezu esatekca; nire yakinkidstzean eztago ezer nik orain arte eginik, okuluan esan-bearrekorik; emakume guztiak esan al leie biotza nik lez garbi ta nasai dabela! Ene yaunok, bape eztaust ardua niri, beste asko baño zori ontsuago nazanazkero, nire egiteak edozeñek ebatzi-arren, edozeñek ikusi-arren, besteak ni begi txarrez ikusi ta nigazko eretxi zirtzilik euki-arren, ain seguru nago, ba, akatzik bagako dala nire bizikerea. Ni zelango emazte nazan yakitea ba'da zuon arazoa, bildurrik бага esan zuon esatekoa; argizale da egia.

WOL.—"Tanta est erga te mentis integritas. regina serenissima..".

KAT. B.—Ene, ene, ene yaun on, lateiakadarririk (: emen; ona etorri nintzanazkero enozu izan ni orren alpertzarririk, bizi izan nazan lekuko izkuntzea ez ikasteko bestekorik; iñondiko, erbesteko izkuntzeak iñondikoago ta erbestekoago egiten dau nire auzic, susmotsuago; Ingelanderaz itz egizu, arren; ba-dagoz batzuk emen euren eskarrak emon-go dautsuezanak, euren etzanderearen alde egia esan ba'dagkus..., sinistu egidazu, okerririk asko egin yako etzandera oni; kardinal yaun, Ingelanderaz parkatu ledikena da nik nire kiterik kiteenetik egin izan dodan obena bera be.

WOL.—Andera zindo, min egiten daust nire zindotasunak (eta zutzako ia aren nagusia-gotzarentzako nire gar eta aperturiak) olango susmo sakon-astunik sortu izanak, nik asmorik onenak erabilita. Enaior, ba, ni miñ on guztiak onesten caben zure entzute ona salakuntzaz orbanduten, ezta zure naibagea geituteko zu salduien be: lendik dozu zuk naibagarik asko, andera cn; ni enaior beste ezetarako, zu ta bakaldunaren arteko eztabaida ta auzi astun orretan zure eretxia yakiten baño; gizon zindo ta zintzo garean aldetik gure eretxi zuzenak zuri emcien, eta auzi onetan gure nasaitasuna zuri ekarten be baño.

CAMP.—Andera omentsu-omentsu ori, York'eko nire yaunak, gizon oneri dagokionez, bere zintzotasuna ta ganetiko zerak bear dan baño geiago zuk baltzitu izana aztu ta baztarturik, bere izakera zindoak eta zuri oraindik dautsun aperturi, gar. eta bende-kotasunak eraginda, nik neuk legetxe ak be bere bitartekotasuna ta onua opcituten dautsuz, zu ta gure arteko bakeak egiteko asmcz.

KAT. B.—(Bere kieranJT'ii ondatuteko. Ene yaunok, eskarrik asko zuoi bioi, zuon asmo onakaitik; gizon zindoak lez dagizue itz, Yaungoikoa-arren, olangoxeak izango al zarie izatez be! baña, zelan erantzuteko zuoi beingoan^ onango arazo astun baño astunagoan, nire omenari ain urreko yakonean (nire bi'ziari urrekagc ete yakcn bildur naz), zelan erantzuteko nik nire buru-argitasun mengelagaz, eta olango gizon ben eta yakintsuai. Egia esateko, eztaikit. Nire otseñakaz batera lanari daragoiodala egon naz; Yaungoikoa dakianez, olango gizonik, edo olango arazorik etorri ledikenen susmo gitxigaz. Ni izan nazanagaitik, nire anditansunaren azkenengo ziztadea somatuten dot, ba, orain, ene yaun onok, astirik emon egidazue, onua artzeko astirik nire arazo onetan: ai ene, emakume naz ni, adiskideiik bagako, itzarorik bagako!

WOL.—Andera, okerririk asko egiten idautsazu bakaldunak dautsun maitasunari zure bildurrokaz; zenbatu ezin-ala dira zure itxaro ta adiskideak.

KAT. B.—Inçelanda'n gitxi baño ez nire onerakorik; uste ete dozue, yaunak Ingelamja' n iñor atometan danik niri onurik emoten? Naiz agirian nire adiskide izaten aren nagusiagofizearen gogoaz bestera..., naiz ta berez gizon zindo baño zindoago izan..., eta emen aren bendeand biz? Ez, ez, ene adiskideok, emen ezta bizi nire naibageak neur-

tu bear dauzanik, ez nik beragan uste onik izan daikedanik! Nire beste ncsaitasun guztiak lez, emendik urrin dagoz olangoak, neure aberrían, yaunak.

CAMP.—Eskartsu orrek baztartuko al zenduz zure naibageak, eta nire onu ona artu.

KAT. B.—Bai ete, yaun? Zelan?

CAMP.—Bakaldunaren babespean imini egizu zure arazorik andiena; maitakor eta txeratsu yatsu a; orrako ori askozaz be oba izango da bai zure omenerako, bai zure auzirako; zure aurkako izan ba'dadi, ba, legegaren epaia, orbandurik alde egingo dozu.

WOL.—Zuzen da orrek dirautsuna.

KAT. B.—Zuok zeuok tiok gura dozuena esaten dcustazue, zeuok gura dozuena, nire ondamendia: au da zuon kístarron onua, ala? Ortik zeai' zoazie! Yaungoikoa dago oraindik guztien ganetik; ba-dago Ebazla *hcA* bakaldunek ezin erosi dauena.

CAMP.—Besietzat artzen gauz zure asarreak.

KAT. B.—Andiago, orrexegaitik, zuon lotsaria; gizon gurentzat zenduedazan nik, bai orixe, onindar-kardinal bitzat; baña, bildur naz oben-kardinal eta biotz-arro ez ete zarien; lotsea-arren, zuon buruak adabau egizuez, ene yaunok. Au da dakastazuen nasaitasuna, ala? Au 'da andera zori txarreko, zuon artean galduko. irri ta zaputz egindako emakumeri dakatsozuen biotz-osakaia, ala? Eneuskizue gurako nire naibageetatik erdirik be; ori baño goi-maitasun gefagorik ba-dot: baña, aurreztik esan bear dautsuet, arduraz ibili zadize, Yaungoikoa-arren, arduraz zabi'tze, nire naibaga astunak danak batera ganera yausi ezaktitsuezan.

WOL.—Andera. octrkabetute utsa da ori; gorroloz erantzuten dautsazu zuk gure biotz onari.

KAT. B.—Zuok bai ni ezereztuten nozuela: ut, ut, zuok eia zuok lango irakasla guzurtiak! Ete dozue zuzentzarik, ete dozue errukirik, ete dozue elexgizonen soñekoaz besterik ezer, nik nire auzi mengel-auskorra niri gorroto daustanaren eskuetan imintea zuok gura izateko? Ai ene! dagoneko nau ak bere oefik uxalurik, bere mailasunetik aspalditik! Zar nozue ni, ene yaunok, eta orain agaz dodan lokarría ezta besterik aganako nire bendekotasuna baño. Zer yazoteko nire zori txar au baño andiagorik? Zuon ikaste guztiak onango añena dakaste ganero.

CAMP.—Txarrago dira zure bildurrak.

KAT. B.—Adiskiderik eztauenazkero onindarrak, neuri itxi egistazue itz egiten. Oneta-

rako bizi izan ete naz onen luzaro emazte, emazte zintzo? Ollarkeri bagarik atometan naz esaten, eguño susmo txarrek baltzitu izan eztauen emakume? Ez ete dodaz beti bakaldunagan izan nire biotz osoa ta nire biotz-kada guztiak? Ez ete dot bera maiteen izan Yaungoikoaren urren? Ez ete natxako izan esaneko? Kutunaren kutunez, ez ete natxako izan aperturitsuegi be? Nire arrenak egitea be ez ete yat ia aztu a pozik eukitearren? Eta onango esker txarrez ordaindu bear ete daust? Eztago ondo ori, yaunak. Ekrtgazue bere senarrari beti zintzo izan yakon emakume bat, bere senarraren pozaz beste ezeren amesik be egin ezlauea, eta emakume orri, geien egin dauanean be, beste onindar bat, beste omen bat ezarriko daufsat nik..., zera, epe andia.

WOL.—Andera, guk doroaguna bagarik, beste biderik artzen dozu zuk.

KAT. B.—Ene yaun, enaz atometan ni nire burua ain errudun egiten, zuon ugazabak ezkontzaz emon eustan izengoiti omentuna neure kitetik izteko; eriotzeak bakarrik alkarregandik aldenduko gauz ni ta nire anditasuna.

WOL.—Entzun egistazu, arren.

KAT. B.—Ez al neu eguño bein be zapaldu Ingelandar lur cu, edo-ta berton azten dan zurikeri-txanpalkeririk somau! Angeru-mosua dozuez zuok, baña ba-dazazu Yaungoikoak zuon biotzak. Zer yazoko yat orain niri, andera errukarrí oni? Bizi díran emakumeetatik ni naz zori txarrekoena. (Bere emctkumead) Ai ene! neska errukarriok, non dik da orain zuon zori ona? Urpera yoanik[^] ez errukirik, ez adiskiderik, ez itxarorik eztagon bakalderrian; seniderik be ez emen niri negar egiteko; osta-osta ilobirik be nitzako: nire burua makurtu ta il egingo naz, bein landako andera izan eta loratu zan liliaren antzera.

WOL.-Gu ona gakaquezan asmoak zindo dirala ba'zenki eskartsu orrek, zagozan baño nasaiago zengokez: zegaitik, zer dala-ta egiteko guk okerrik zuri, andera on? Ai ene! gure lekuak, gure ogibideak, bitzuek galazoten idauskue olangorik egitea; olango naibageak osatuteko gara gu, ez ereiteko; Yaungoikoa-arren, ausmertu egizu zer dagizun; zelango kaltea ekarri ziñeion zure buruari, bai, zeatz galdu bakaldunaren zuganako biotz-ontasuna, zure erago orregaz. Esanekotasunari mun egiten dautsoe bakaldunen biotzak, esanekotasuna ain maite dabe-ta; baña, mukerkeri ta setakeriaren aurka, esnea supuruan legetxe asarre yagi-

ten dira, etc ekatxa legetxe bildurgarri egi- ten dira. Ba-dakit nik zu ari aro bigun, zindoko zareana, zure gogoia baretasuna bera bestean bcire dana: arren, gure ogibideak diñontzat artu gazizuz, bakegintzat, adiskidetzat, eta otseintzat.

CAMP.—Andera, zeuk ikusiko dozu olango- xeak gareala. Oker eta kalte egiten dau- tsezu zure onindarrai emakume makalen bil- durrokaz; zurea lango gogo zindoak ortik zear bidali ta yaurtiten dauz olango ez- paiaik, guzurrezko dirua, diru ustela yaur- titen dan lez. Maite zauz bakaldunak; ez al dozu galduko gero maitasun ori: gugaz- kj, zure arazoan guban uste onik izatea zu- ri eder izatekotan, gerturik gagoz gu zure

alde guk gure yakituriagaz al dogun guz- tia egiteko.

KAT. B.—Zeuok gura dozuena egin, ene yau- nok: eta parkciu, urren, ezer txarto esan ba'dot; ba-dakizue emakume nazala ni, bu- ru-argitasunik eztdana zuok langoai bear yakienez erantzuteko. Arren, nire gorantziak bakaldunari, gorantziak eta bendekotasuna: beragaz dau oindiño nire biotza; eta nire arrenak, nire oioitzak bizi nazan arte guz- tian izango dauz beragaz. Tira, aba begira- garri-argiok, betoz zuon onuak; bere oña lur onetan imini ebanean bere andiiasunak onen karu eros.iko ebazalaren susmo gitxi eban no a bera dago orain eskeko eginik. (Alde dagie).

II AGEHLEKU—LONDON. Bakaldegiko BAKALDUNA'ren arloko gela-aurrea.

Aurrera NORFOLK eta SUFFOLK'eko DU- KEAK, SURREY'ko KONDEA, ta Lord Txanbe- lana.

NORF.—Zure alaketak nireakaz batu gura ba' dozuz orain, eta eurakaz ekin eta ekin, ezin yasan izango dauz kardinalak, eta yausi egingo da euren zamapean: ereti cra galdu ba'dagizu, ostera. lendik ganean dozuzan irañez ganera barriak yasan bearko dozu- zala da nik agindu neiskizun zer bakarra.

SURR.—Pozik nago, pozik eta gerturik nire aitaxe dukearen eriotzeaz azaskatuteko ere- tirik txikienari be alperrik galtzen ez izteko.

NORF.—Zsin andikik eztazur iruntsi bear izan aren zapuzkeriak, edo, gitxienez, zein ez- ta egon bazartu-bazarturik? Noz izan dau- tso ak ezetariko lotsarik eta begirunerik zin- do-antzik daueneri, bere buruaz besteri?

TXAN.—Ene yaunok, gogoko yatsuena diño- zue zuok; ba-dakit nik a zergarri dan zuon eta nire aldetik; baña eztaik zer egin gein- ken aren aurka, gure eretia orain izan- arren. Ez atomau ari ezer egiten, aurreztik bakaliunaganako bideak ari itxi ezik; ak, ba, sorginkerien bat dau bere miñean bal- kaldunaganako.

NORF.—Ui. ez egiozu bildurrik izan; amaitu- rik dago bakaldunaganako aren lilurapena; idoro dau bakaldunak aren itzen ezta beti- ko mingoztuko dauen geia. Yausi da ba- kaldunaren asarrepera, andik iñoz be ez ya- giteko.

SURR.—Yaun, olango barriak ordu oro entzu- toko be gerlurik nozu ni.

NORF.—Sinistu e-gistazu. egia da; **cgerta di-**

ra ezkontza-auste-arazoan ak bestera egin izan dauzan alegin guztiak; eta izan be, olangorik nire areriori gurako neunskionez agertu da orretan.

SURR.—Zelan agertu dira aren egite ta ibi- lerak?

SUF.—Iñondiko bidez.

SURR.—Ui. zslan, zelan?

SUF.—Okerreko bidea artu eban Aita Gure- naganako kardinalaren idazkiak, eta bakal- dunaren begien aurrera etorri zan; eta iaiz- ki atan agiri zan kardinalak ezkontza-aus- teagazko epaia geroagratuiea eskatuten eutsala Aita Gurenari; ezkoniza-ausiea egi- tekotan, ba, kardinalak diño, "ba-dakust, ba, nire bakalduna bakaldunoaren laguntzako bategaz, Ane Bullen anderañoagaz, kutun- keritan dabilela".

SURR.—Bokalcunak dau orrako ori, ala?

SUF.—Bai, sinistu eçistazu,

SURR.—Ezer iritxiko ete da orregaz?

TXAN.—Ba-dakusaz bakaldunak gizon orrek bere elburura eltzezo egiten dauzan kako- mako ta zirku-mirkuak, beña orretan galduak dira aren alegin guztiak, eta gexoa ilda gero datoz osakeiak; dagoneko dago ezkon- duta bakalduna neska lirain agaz.

SURR.—Al lego ezkondata!

SUF.—Zori onru izango al gara zure gurari orretan, ene yaun! gurari ori beterik dezu- ta, bai orixe.

SURR.—Poz-pozik txalotuten dot ezkontza ori!

SUF.—Amen dirautsot nik zure poz andi orri!

NORF.—Gizon guztien amenak orrako orren- tzat!

SUF.—Agindula dago emazte barriari bures-

tuna noz eta zelan ezarri; arrano, arrano, barribarria *da* barri au, eta ba-ledike on izatea or bala-bala oraindik ez zabaldutea«. Baña, ene yaunok, Iirain da neskatoa, oso bai soñez, bai gogoz; sinisturik nago ni, andera orregandik etorriko yakola lurralde oni gogotan eukigarri izango dan onespenen bat.

SURR.—Baña, bakaldunak iruntsi ta ausi al izango ete dau kardinalaren idazki ori? Ez al da yazoko olangorik!

NORF.—Arrano, arrano, amen!

SUF.—Ez ez; bere surraren inguruan burrundadaka erlaster geiago i'oiili ta lenago sartuko dautso eztena batek edo bestek. Ixilik yoan da Erroma'ra Ccmpeius kardinala; iñorí agurrík egiteka yoan da; ebatzi bagarik itxi dau bakal'unaren auzia; eta gure kardinalaren ordezeko ta bitartekotzat yoan da ara, an aren asmoak aurrera eroateko. Segurutzat dirautsuet, "Bai, e?" esan eban bakaldunak orrako ori yakin ebanean.

TXAN.—Ascrre bizitan iminiko al dau a Yaungoikoa, eta indartsuago esango al dau ak "Bai, e?"

NORF.—Baña, sne ycrun, noz dator atzera Cranmer?

SUF.—Atzera etcrvirik dago, eta lengo bere eretxiakaz etorríta; eta Kistar-erririk geier. etnko bere kid.erik ospatsuenen eretxiagaz batera yoíen dauen aren eretxia gogoko izan yako bakaldunari bere ezkontza-austerako: nire ustez, laster iragarriko da aren bigarren ezkostzea ta bakaldunoaren burreskunda. Oraindik ara Katarine'ri etxako deituko Bakalduno, bakal-alaba alargun baño, .Artur bakalsemearen alarguna.

NORF.—Gizon bikain da Cranmer berberori, eía nekerik csko artu izan dau bakaldunaren arazoan.

SUF.—Bai; eta ciu dala-ta, Gctzaiburuturik ikupiko dogn.

NORF.—Orixe entzun dot.

SUF.—Olantxe da izan be. Kardinala dator!

WOLSEY ta CROMWELL aurrera.

NORF.—So, so, gogaldi txarra dau.

WOL.—Cromwell, emon ete dautsazu bakal-dunari arakc papel-eskutadea?

CRCM.—Bere eskuetcin itxi dot, bere lo-geian.

WOL.—Begiratu ete dau o'alak bcrruan eka. rrena?

CROM.—Bertatik kendu dautsaz silluak; eta ben-ben ikusi dau lenen ikusi dauena; ardurea agiri izan da aren arpoagian. Goiz onetan zu emen bere begira egoteko agindu dau,

WOL.—Gerturik ete dago urteteko?

CROM.—Onazkero gerturik dagola uste dot.

WAL.—Bakarrik itxi nagizu apur baten. (Alde CROMV/ZLL'ek) Pantze'ko bakaldunaren arrabeagaz, Alençon'go Dukenoagaz izan bearko dau; agaz ezkondu bearko dau... Ane Bullen! Ez, ez, Ane Bullen'ik ez arentzako; mosu lirainik baño geitxoago bear do-gu emsn. Bullen! Ez, Bullen'ik ezto-gu bear emen... Arin be arin yakin gura neunkez Erromat'iko barriak... Pembroke'ko Markeznoa!

NORF.—Cogoaz bestera dago, asarre da.

SUF.—Bear ba'da, entzun egin dau asarre yakola oakalduna.

SURR.—Asarre baño asarreago izango al dok, yaun, iri zuzentzea egiteko!

WOL.—Lengo bakaldunoaren laguntzako emakumea, zaldun baten alabea, bere andearen andera izateko! bakaldunoaren bakal-duno!... Argizai onek eztau argi onik egiten; putz egin eta itzali egingo dot... Zer emakume ori onindartsu ta aintzako dala nik yakin-arren? Orraitiño be, ba-dakit Lutertar bñl.ru-gogor dala; eta ozta on gutzako olangok gure loakaldun eskura-gogorraren besartean lo egitea. Orrez ganera or yagi da beste siniste-ausla bat, siniste-ausleen buru dan Cranmer; bakaldunaren adiskide ta kutun izatera eldu da narrax, etia orri entzuten dautsa bakaldunak.

NORF.—A.sarre da zerbaitegaitik.

SURR.—Al Iego zerbait, bere biotzeko ari nagusia asarratuazoteko!

SUF.—Bakalduna, bakalduna!

BAKALDUNA aurrera, papeltxo bat ba-dirakurrela, ta LOVE.LL agaz batera.

END. B.—Ondasun-mendiak eta mendiak pilatu dauz orrek berorrentzako! eta orrek ordurik ordura eralten dauzan diruen dirua! Zelan batu ete dau orrenbeste ondasun? Ene ycuñok, ikusi ete dozeu kardinala?

NORF.—Berar^s adi-adi egon gara emen, ene yaun; iñoncliko ikararen bat dau orrek bere garaunetan; ezpanari usigi ta ikaratu egiten da; gelditu bapatean, lurra begiratu ta, gero, lokira eroaten dau bere atza; bizkor ibihen asten da bertatik; gero gelditu ostera be, ta bularra yoten dau gogor; eta bereala iretargia begira yarten da; iñondiko egokeretan ikusi dogu ori.

END. B.—Ba-ledike olangorik yczitotea; matxinadea dau orrek buruan. Lege-erri-arazozkazko papel batzuk bidali daustaz gaur goxean, nik irakurteko, neuk eskatu neuntsa-

nez; eta ba-dakizue zer aurkitu dodan an, ezpai bagarik orrek an ourlzeúku itxiG? Egía, onetara diñon bere ondasunen errezkada ©do izendegia: maiko ainbatariko ontzi ta ganetiko tresnak, bere altxorra, zamau eder baño ederragoak, eta etxe-errediz bikainak; eta ainbeste ta ain ederrak dira-ta, bende-kck eukiteko ederregi ta geiegi dirala uste dot.

NORF.—Yaungoikoak gura izan dau ori; angeruen batek imini dau papel ori eskutadan zure begien atsegingarritzat.

END. B.—Orren gogoak lurra baño goragoan, gogoagazko zeretan dagola uste ba'gendu, usie, oraíndik be bere gogaketetan itxiko geunke; baña, bildur naz orren gogapenak iretagiz berakoak ete diran, orrek orren benetan artzako ez tiran zeretakoak. (Yezari ogiten da tci agopecm ba-diraiir.so zer bait LOVELL'eri, eta WOLSEY'gma dtoa au).

WOL.—Yaungoikoak parkatuko al daust! beti onetsiko al dau Yaungoikoak zure nagusia-gotzea!

END. B.—Ene yaun on, zeruko zerez beterik zagoz zu, eta artu dozuzan eskarrik onenen errezkada edo izendegia darabiltzu zuk buruan; eta orain gogo-gogotan erabili dozuz; osta-osta dozu zuk astirik lurreko arazorik aztertuteko; egia esateko, orretan arduradun txarra zarea la uste dot, eta poztuten nau orretan zu nire antzeko izateak.

WOL.—Yaun, ba-dot gogoagazko zer gurenetarako astirik; eta bai astirik lege-erriko nire zereginetarako be, nire ardurapean dodazan zereginetarako be; eta geure buruak be eskatuten dausku astirik, nik neuk be, ba, nire antzeko ilkorak legetxe, aita ta amaren seme nazanazkero, nai-ta-nai-ez bear dot astirik neure burua yagoteko,

END. B.—Ondo esanda.

WOL.—Eta zure nagusiagctzeak ez al dauz alkarregandik bananduko, alkarregaz buztartu baño, nire ondo esana ta nire ondo eginá!

END. B.—Ondo esanda ori be; eta ondo esatea bera be ondo egitea, edo olangotsu da; eta, orraitíño be, itzak ez tira egiterik. Maitte zenduzan zu nire aita zanak: alan esan eban ak beintzat; eta ak bere esana egitez burestundau eban zugan. Nik, nire bakalduntzea artu nebanazkero, zu euki zaudaz nire biotzean nire urren; ondasunak zugana ettorteko bidean zu imini ezeze, neure ondasunetatik be artu izan dot zuri emoteko, nire eskuzabaltasunez.

WOL.—(Bere kitean) Zer esan gura ete dau

SURR.—(Besteai baknruck) Aurrera yoko ál yok arazo onek!

END. B.—Etzaudaz egin lege-erriko çizonik lenena, ala? Esaidazu, arren, orain diñodana egitzat dozun, ala ez; eta ori autortu al ba' dozu, esaidazu niganako loturik eta bearturik zagozan, ala ez. Zer diñozu?

WOL.—Ene nagusirik nagusien, autortuten dodaz zure eskar bakaldarrak, nigana egun oro zaparradaka etorriak, nik ordaindu al baño geiago ta an'giago dirala; çizonik euren billa ibili lediken baño be andiago ta geiago izan dira-ta; nire aleginak nire gurariak baño laburrago gelditu dira beti, baña orrailíño be al dorian egin izan dot; zure ta lege-erriaren ona izan da beti nire aldetik nire elburua. Nire ganera zuk mordoka ixuri izan dozuzan zure eskarren alde-rako, nik, orrenbestegarri enazan lander onek, ezin exonn zuri bestenk bendekoren biotz ona ta eskarrak baño; nire arrenak zeruraniza, zure clde; beti azten eçvn ize.n dan, eta daçon, zuganako nire zintzotasuna, eriotzararte, negu orrek ilazo arte.

END. B.—Ederio erantzunda; eta bennfeko zintzotasun orretatik omena da zintzotasun orren ordaña, gaistakerioren ordaña zigorra dan legetxe. Zabal izan yatsula nire eskuá uste dot, maitasuna cmon dautsula nire biotzak, eta beste iñori baño omen geiago ixuri dautsula nire alak; au dala-ta, beste iñorentzako baño zoUago ta aperiuritsuago ibili bear eukien zure eskuak, zure biotzak, zure garaunak, zuk al doznn guztian, zure adiskide onen alde, bendekoren zure beste egikizunez ganera.

WOL.—Autor dautort beti egin dodala alegin geiago nausiagotzearen onerako, ninerako baño; olangoxe naz, olangoxe izan naz, eta olangoxe izango naz, naiz ta mundu guztiak tartat egin zuganako zintzotasunean, eta euren biotzetatik zintzotasun ori uxatu; irudímenak iruditu leiken beste çaitzorian, galtzori ikaragarritan ikusiko ba'nindukedaz be, uriolak eta umgak ganera d.atcrkozan atxarena egingo leuke zugerako niie zintzotasunak, zure iraun, zirkinik egitea, ibai zakar onek bere ertzi çanaz eginda be.

END. B.—Zindoro esanda; oartu zadize, yamnak, biotz zindo-zintzoa dau onek, zeuok ikusi doze, ba, berau beronen biotza idigiten, Irakurri egizu au; (Papel batzuk daTnotsoz) eta beste au gero; eta gero gosaria artzen, orretarako gogorik ba'dozu.

(Alde dagi, WOLSEY KARDINAL'ari betozko egif.en dautsalarik; aren atzetik mordocm docrz Anddkiak, irribai\`r\`oka ta alkarregaz txtxupu-txuka).

WOL.—Zer esan gura ete dau onako onek? Nondik dator bapateko asarre au? Zelan ete datorkit? Betozkoagaz alde egin dau nigandik, ondamedia ba'lerioe lez aren begiak: olan begiratuten dau leoi asarreak bera asarratu dauen eiztari azarria; eta gero ezerezturik izten dau. Irakurri egin bear dot papel au; ba-dot búdurrik emen dagola azalduta aren asarrearen zegaitia... Bai, izan be; nireak egin dau papel onetakoa-gaz; nire neure onerako batu izan dodan ondasuntzatzarraren banan-banagaz azalpena dakar; zererako, Aita Gurentzea irabazteko ta^ orreiarako, Erroma'ko nire adis-kideak erosteko. Nire zabarkeriarena, nire ardurabakoarena! bide egokia bera dala-ta, bertan ergelak yausteko! Nongo txerren are-riok iminiazio eustan bakaldunarentzako pardelean nire ixilkizunik, nire muxilik andien au? £z ete dago onako au osatuteko Liderik? Ez ete dago ezeiaiki asmorik onako au cui buruiki aieratekorik? Ba-dakit cnako onek ari zarrastada gogorra egingo dautsala; *ba*, ba-dakust bide bat, bera ondo erabiliaskero, zoriak besterik egin gura izan-arren, estukura onetatik ondo aterako nauena. Zer da au? "Aita Gurenari", ala? Mi bizirik nagon bestean egia, arazo guztia azalduaz nik Aita Guxenari idatziriko idazkia. Au onan dalarik, agur nire itxaroko! eldu naz nire anditasunaren gallur-gallurrera; eta nire aintzaren eguerdi-eguerdi atatik arin noa orain nire sarkaldera; izarbela gabaz Igetxe yausiko naz, eta gizonek enau ikusiko bein geiagotan.

Barrien-barri aurrera NORFOLK eta SUFFOLK' EKO DUKEAK, SURREY'KO KONDEA, ta Txanbelan yauna.

NORF.—Entzun bakaldunaren guraria, kardinal; sillu nagusia bertatik gure eskuetartu dagizula aginduten dau ak; eta zu, nire Lord Winchester'en Asher Etxe'ratu ta andik urten bagarik an egon zadizala, aren nagusiagotzeagandik beste barririk entzun arte.

WOL.—Etxon... non dozue emon yatsuen agindua, yaunak? Itzez ezin ekarri olango al andirik.

SUF.—Nor atometako eurai yaramonik ez egi-ten, bakaldunaren Çjurari agoz iragairia ba' dakarre?

WOL.—Olangorik egiteko guraria, naiz itzak baño besterik eztoan bitaitetan, zuon gurari txarra esan gura dot, yakizue, yaun tar-tekozaleok, ukatuten azarri ta ukatu egin bear dautsuedala orrako ori. Ba-dakit orain gei gogorrezoak, mea gogorrezoak zarríena, gorrotozkoak; zuok bai poztu nire zori txarrakaz eurok zuon yanari ba'litzaz legetxe! eta zuok bai bigun, leun eta lotsabako agiri ni ondatu nagiken edozetan! Zarrakieze zuon gorroto-bideai, gizon geztokkerok; kistaren bidea da ori, urrean, eta, bai ba, egunen baten artuko dozuez zuon sariak. Zuok tere eske zagozen sillu ori, nire ta zuon ugazaba dan bakaldunak bere eskuz emon eustan; eta nire bizitza guztian, lekuagaz eta omenagaz batera, neuk gozatuteko agindu eustan; eta bere ontasunaren sendaganitatzat idazki agiriz loturik emon eustan: nok artuko dau orain?

SURR.—Emon eutsunak berak, bakaldunak.

WOL.—Orrazkero, berak artu bearko dau.

SURR.—Saltzalla, etoi arro zara zu, abade.

WOL.—Guzurra diñozu, yaun arro orrek; orain berrogei cirdu dirala guragoko eukean Surrey'k bere miña erre, itzol: esan baño.

SURR.—Oben gorri ori, zure geiagokeriak ostu eutsan negarrez dagon lurralde oni Buckingham zindoa, nire aitaxea; zu zeu eta, zure zerik onenakaz batera, kardinal guztiak, zure anaiak, etzinien aren buruko ule bat lain be. Izuriak eroango al dau zure zurtasu?,a! Eire'ra bidali nenduzun ordeazkotzat; ari lagun izateko urrin, bakaldunagandik urrin, urrin zuk ezarri zeuntsan erruaren erruki izan eitekezan guztiakandik; eta bitartean zuk, zuk on orrek, erruki begiragani bagarik, errua azkoreagaz pcrkcrta zeuntsan ari.

WOL.—Guzurra da bai au, bai zuk itzontzi orrek nire entzute onaren aurka esan zeinken guztia, eta neuk diñot. Legez artu eban dukeak arfu ebana; aren ebazla zindoak eta aren egite txairak lekuko ta autorla^ erubako ta aganako berarizko gorrotozik bagako izan nintzala ni, Zu lez itzontzi ba' nintz, yaun, omenetan bestean zintzotasun gitxi dozula esango neunke, bakaldunaganako zintzotasun eta egi-arloan Surrey baño gizon obarik lagun ba-nazala, a lagun eta aren uskeri ta tentelkeriak aintzakotzat artzen dabezanak lagun.

SURR.—Nire bizia-arren, abade, zure soñeko luzealc yagoten zauz zu, ostantxean somau bearko zeunke nire ezpatea zure odolean. Ene yaunok, yasan ete daikeuz arroke-riok entzutea? Eta urlri onegandik? Yantzigo-

- rri-zati onek gu onan otzan ondaturik izteko bizi ba'gadiz, agur, anditasuna; ekin dagio-la orrek eta bildurto ta uxatu gagizala bere txapelagaz, larratxoriak bildurto ta uxatuten diranez.
- WOL.—Ontasun guztia eden yako zure urdallleari.
- SURR.—Eaí, kardinal, lurralde osoaren onurea baten eskuetaratutean dagon ontasuna, orretarako bil'úrria, indarra ta zemaiak erabilirik, zure zeure eskuetaratutean dagon ontasuna; bakaldunaren aurka zuk Aita Gurenari idatzi ta bidean goatu dan zure idazkiko ontasur.a; ni zirikatuten nozunazkero, agiri-agirian geldituko da zure ontasun dalako ori. Norfolk'eko ene yaun, benetan zindo zareanazkero zu, guztien onari zuk begirapenik ba-dautsazunazkero, gure egokera, çure seme-alaba, orrek bizirik irautekotan andiki nekez izango diran gure seme-alabai begirapenik ba-dautsazuenazkero, aurrera atera egizu orren oben-mordotzarra-orek bere bizian batu izan dauena: neuk ikaratuko zaudaz arako neska baltzeranari zure besartean mosuka zeragoionean sagaratuteko txilinak ikaratuko zendukeazan baño okerrago, kardinal yaun.
- WOL.—Nik bai zapuztu baño zapuztuago neinkela gizon au goimaitasunak galazoko eza-leust olangorik!
- NORF.—Bakaldunaren eskuetan 'dagoz zuk idatziriko zerak, baña lotsabakokeri utsa dira, guk dakigula.
- WOL.—Ainbat ederrago ta orbangsago agertuko da nire yakinkidetzeara nigazko egia bakaldunak yakin dagianean.
- SURR.—Ezin yagon zaitez orrako orrek; eskarrrak emoten dautsada nire gomutamenari zuk idatziriko zer batzuk oraindik gomutan dodazalako; eta argitara urtengo dira. Orair, lotsaz gorritu ta zeure burua zarataka errudun autortu al ba'dozu, kardinal orrek, zintzotasun apur bat erakutsiko idozu.
- WOL.—Ekin, yaun; atometan naz zure salakuntzarik txarrenak enizuten be: gorritu ba' nadi, gorritu, eramera onik bagako andiki bat ikusteak gorritu nau.
- SURR.—Gurago dot orretarikorik ez izan, nire sorburuan bururik ez izatea baño. Entzun ba: lenen, orretarako bakaldunaren ederretsi bagarik, naiz bakaldunak olangorik yakiteka, Aita Gurenaren ordezkoztea eskatu zendula; eta orrako orregaz gotzai guztien ala gitxiagotu enin gura izan zendula.
- NORF.—Urren, zuk Erroma'ra, edo erbesteko bakaldunai idatziriko zure idazkietan "Ego et Rex meus" idazten zendula; eta zuk orretan bakaiduna zure oiseindu eyien zenduii.
- SUF.—Urren, inberadoreagana lege-erri onen ordezkoztest ycan zintzazanean, sillu nagusia Flandes'era eroan zendula, ez bakaldunak, ez aren onulariak yakinik.
- SURR.—Baita, eskubide osoa emon zeuntsala Cassalis'ko Gergori'ri gure bakaldunaren eta Ferrara'ren arteko itumbena egiteko, orretarako bakaldunaren, nai lege-erriaren ederretsirik izateka.
- SUF.—Baita, zure geiagokeri utsa-arren, zure txapela irarriazo dozula bakaldunaren txanponetan.
- SUF.—Urren, dirutza andiak bidali dozuzala Erroma'ra, (zure yakinkidetzeara berak ya'kingo dau diruok zelam batu dozuzan) anditasunerako zure bideak erraztu ta leunduteko; eta ori guzti ori bakalderri osoa ondattuteko. Ba-dago beste zerik asko be, baña zuri zeuri deusuenak eta lotsagarriak dirata, eurekaz eztot loitu gura nire agoa.
- TXAN.—Ene yaun ori, geiegi ez egizu estutu yausten dagon gizonik! onindar da ez estututea; or dago legea uts orreina egiteko; legegak zigortau dagiala ori, ez zuk. Negar eragifen daust ain andi izan dana orren gitxi ta txiki eginik ikusteak.
- SURR.—Parkatuten dautsat nik.
- SUF.—Kardinal yaun, amen lengoaz ganera bakaldunak gura dauena: Aita Gurenaren ordezkoztea dozula-ta, oraintsu zuk egina legegaren zigorpean yausten da-ta, agindu au emon dau zure aurka, zera^ galdu dagizuzala zure ondasun guztiak, lurra, etorriak, ondasun ibilkorrak eta geldiak, eta beste edozer, eta zuk aurrerantzean etzagizula izan bakaldunaren babesik: au da niri ezarri dausten egikizuna.
- NORF.—Eta onan, emen itxiko zauguz, zelan obeto bizi ausmertu dagizun. Sillu nagusia guri emoteagazko, zu setatsu ta buru-gogor egon zareala yakingo dau bakaldunak, eta orregaitik ak eskar onik emongo dautsula eztot zalantzarik. Onik eta ondo ibili, ba, ene kardinal yaun on txikar ori. (WOLSEY'z beste guztiok alde).
- WOL.—Agur, ba, zuok dakastazuen ondasun txiki orri. Agur, agur luzea nire anditasun guztiai! Onangoxe da gizonagazkoa: itxaroaren orri samur-guriak urten yakoz gaur; loratu egiten da biar eta omen guriz beteten da: leia dator etzi, dana erre ta egosten dauen leia eta, nasai biziko dala uste izatera eldu dadinean, bere anditasuna eldutertera doala sinistu-sinisturik dagonean, ge-xotu egiten da aren zuztarra, ta gero burua

makurtu ta yausi egíten da, ni yausten nazenez. Mutiko geldigor olgetariak puxekakaz uger egiten itsasoratuten diranez, ni be ainbat udatan sartu izan naz nire aintzaren itsasoan; nire oñak ondorik yoten ez eben itsasoan barrura; baña, atzenean, nire arrokeri puztu puztuak ler eta eztanda egin eban nire azpian; eta orain, nekaturik eta otseintzan zarturik nagonean^ ugin errukibakoen bendea itxi nau, euren azpian betiko ostondu ta itoko naberen uginen bendea. Mundu onetako arrandi, putz eta aintza utsoz, iguin eta gorroto dautsuet: barrien-barri idigi ta zabaldurik dakust nire Hotza. Ui! Bakaldun eta bakalsemeen txeratik bizi dan gizona bai ba-dala zori txarreko ta errukarri! Gduetan baño, naiz emakumek yasaten dabezan baño biliñur eta larrialdi geiago dago ain zoli ta arduratsu euren irribarre-billa, euren begirada samurren billa gabiltzan bakalduren begiraden eta eurak dakaskuen ondamiendiaren bitartean: eta ankikien adiskidea yausten danean, lukiper legetxe yausten da, iñoz barriro yagiteko itxaro bagarik.

CROMWELL aurrera, arriturik.

Ze barri iogu, Cromwell!

CROM.—Eztoz adorerik izik egiteko, yaun.

WOL.—Ostera! nire zori txarrak arriturik, ala? Anditatz ete dok gizon andien bat yaustea? Bai, negarrez ba'ago, yausita nago ni, izan be.

CROM.—Zelan zagoz, yaun orí?

WOL.—Ba, ondo; eguño bez orain bestean benetan zori ontsu, ene Cromwell on, Orain bai ba-dazaut nire fcurua; eta nire barruan lurreko anditasunak emon daustena baño bake andiagoa somatuen dot, yakinkidetz bare-ixila. BakaHuna izan dok ni osatu nauena, eta eskarrak emoten dautsadaz biotzez eta apaHk; eta sorbaldotatik, ondaturik dagozan zutikootatik, errukiz, ontzidi osoa be urperatuko leuken zamea kendu daustalako..., omenik geiegi; Ui! Cromwell, zama astunegia, zama astunegia da ori zerurako itxarorik dauen gizonarentzako!

CROM.—Pozik baño pozago nago zuk, begiragarri orrek, orrako ori zeure onerakotzat artu dozulako.

WOL.—Olangotzat artu dodala ditxarot; nire ustez, barruan somatuten dodan adore ta indarrari eskarrak, geí naz orain nire arerio biotz-makalak opatu ta yasanazo leiskiedazanak baño zori txar geiago ta andiagorik be yasateko. Ze barri dogu ortik?

CROM.—Zuk bakaldunaren adiskidetasuna galtzea da astuunena ta txarrena,

WOL.—Yaungoikoak onetsiko al dau bakalduna!

CROM.—Zure lekua beteteko, Bakaldun-ordezkatat Toma More autu dabela da urrengo barria..

WOL.—Arintxoegi autu dabe: baña, gizon yakintzu da a. Luzaro iraungo al dau bakaldunaren adiskide ta kutun, eta zuzentzea egin, zintzotasunagaitik eta bere yakinkidetzegaitik; bere bizia igaro ta onesper artean lo egin dagianean, euren ganera umezurtzen negarrak ixuri daitezzen obiren bat izan dagien aren azurrak! zer besterik?

CROM.—Ondo-elorria izan dauela Cranmer'ek atzera etorri danean, Canterbury'ko Gotziburutzan imini dabe-tñ.

WOL.—Barri be fcarri da ori, izan be.

CROM.—Azkenengoa, aspaldian bakaldunagaz ixilean ezkondua egon dan Ane Anderea, gaur agertu 'sala agirian bakaldunotzat, yauretxetxora doala; eta orain ezta aren bureskudeazkoa baño beste barriektarik.

WOL.—Or yagok ni lurreratu ncuen zamea. Cromwell, nik goatu al izateko baño urrinago yoan yatak bakalduna; emakume bakar agaitik galdu dodaz nik nire aintza ta onditanus guztiak eta betiko galdu fce; eguzkik eztauz ekarriko atzera nire omenak, ezta nire omenik urreztauko be nire irribarreen begira egoten izan diran gizatalde zindoak. Oo, alde egik nigandik, Cromwell; gizon yausi errukarri baño enok ni, orain ire yaun eta ugazaba izateko lain be ezтана: bakalduna billatu egik; a eguskia ez al dok iñoz be ostonduko, arren! Esanda yaukat a i zer azan eta noragiño azan i zintzo; gora ta aurrera eragingo dausk ak; nire gomutaxoen batek eragingo yauntsak ari, (ba-yVnL ha, herez 7^{ndo} daja a) ire otseintza itxarotsua alperrik gaBu eztañin be; Cromwell on ori, ez egik itxi a yaramonik egiteka; erabili egik a, eta geroko ire segurantzeta biDatu egik.

CR^M.—Ui, ene yaun, itxi egin bear zaudaz, ala? Bertanbera itxi bear ete dot ugazaba o'ren oi\ orren zindo, ta orren .?íntzoa? Burdiñezko biotzik eztozuen guztiok autortu egizue zelango naibageagaz izten dauen Cromwell'ek bere ugaaba. Bakaldunarentzako izango da nire otseintzea; baña nire arrenak fctei be beti zutzako izanoo dira.

WOL.—Cromwell, nire zori txar guztietan negar bat egiteko be eneban usterik; baña ik beartu egin nok, ire zintzotasun zindoagaz,

emakumerena egiten. Legortu daiguzan gu-re begiak; eta zerbait geiago entzun egis-tak, Cromvrell; eta, ni azturik gelditu nadi-nean, azturik geldituko nok-eta, eta arri zu-ri otz motelaren aspian, nire izenik be geia-go entzungo eztan lekuan, nik zer irakatsi dauskadan esaik; esaik, beñola aintza-bi-deak zapalduaz ibili ta omenaren sakosta ta azal-une guztiak ikusi ta arakatu ebazan Wolsey^k bera urperaturik egoanean bide-rik idoro euskala ik gora igoteko; bide se-guru ta galbiderik bagakoa, naiz ta ire uga-zabak berak bi'de ori galdu izan. Nire yaus-kereaz, eta ni ondatu nauen zeraz oartu adi. Cromvreil. ez aztu, auxe aginduten dauskat, alde egik geiagokeritik; oben ori zala-ta yausi zonzan angeruak; zelan uste izateko, ba, gizonak, beie Egilearen irudi dan gizo-nak, agaz irabazterik? Azkenen maite egik eure burua: kutun izan gorroto dauskaenen biotzak; zindotasunak baño geiagorik etxok irabazten ustelksriak. Bake biguna erabili

ire esku eskoian, gogo txarreko miñak ixil-duteko. Zuzor. izar, eta ez izan bildurrik; ire elburu guztiak aberriaren, ire Yaungoi-koaren eta zintzotasunaren aldera yo dagie-la; olan, yaustekotan be, zinopa zori ontsu yausiko az! Otsein izan akio bakaldunari: eta, arren, orain nirera-bidean lagun izan akit; nik dodazan zer guztien izendegia egíngo dok an nirean, atzenengo txakurtxi-kirañokoa; dana dok bakaldunaren; nire soñekoa ta Yaungoikoaganako nire zintzo-tasuna bakarrik dozak orain neure dirala esan neiken zer bakarrak. Cromvrell, Crom-well. bakaldunaren otseintzan erabili dodan aperturi ta garretik erdia Yaungoikoarenean erabili izan ba'neu, nire urteetan eneun-kean itxiko narru gorritan nire arerioen ben-dean.

CROM.—Epe artu egizu, yaun on.

WOL.—Artu be artzen dot. Agur bakaldegiko itxaroai! zeruan dagoz nire itxaroak. (Al-de dagie).

IV EKITALDI

I AGERLEKU.—Westminster'ko Etxartebide bat.

Alkarri bidera urteten dautsela, Aitonseme bi.

I AIT.—Poztuten nau emen alkarregaz aurki-tuteak.

II AIT.—Bai neu ba.

I AIT.—Lekua artzen etorri zara ona, Ane An-derea bureskunde-ostean emendik igaro-ala ikusteko, ala?

II AIT.—Orretarakoxe bakarrik. Oraintsuengoz alkarregaz aurkitu gintzazanean Buckingham'go Dukea etorren bere epai-alditik.

I AIT.—Egia, izan be; baña, naibagea opatu euskun aldi ak; gaurkoak, ostera, guztien-tzako poza,

II AIT.—Ori ondo; seguru nago, uritarrak irag-
garri dabela bakaldunaganako biotz ona, eta eurena emon bear yakela autortuaz aperturitsu ta gartsu dabiltzala onango yaiak egiten, antzerkiz, etxartebideetan ibil-tez, eta osteango omen-iragartez bakaldu-pori zintzotasuna iragarten.

I AIT.—Eguño ezta izan oraingoa baño yai ederrago ta zuzenagorik, yaun, seguru be seguru.

II AIT.—Itandu ete neinketsu zer dauen orrako orrek. eskuan dozun papel orrek?

I AIT.—Bai, gizon; ekandu danez, bureskun-deetan zereginik dabenen izendegia yatsu emen dagona. Suffolk'eko Dukea dago le-nen, eta bakaldegiko Ondasunzai nagusia-rena egingo dau; Norfolk'eko Dukea dator urren, konde marxalarena egiteko; zeuk irak-
kurri zengike ganetikoa.

II AIT.—Eskarrik asko, yaun; lendik ezpa'nen-kiz ekanduak, begiratu bearko neunke pa-pel ori. Baña, arren, zer yazo yako, zer iza-teko da Katarine, bakal-alaba alarguna? Zelan doa agazko arazoa?

I AIT.—Ori be esan daiketsut. Canterbury'ko Gotzaiburuak, bere ogibideko ta mallako beste lagun yakintsu begiragarri batzukaz epaitegikoak batu ebazan Dunstable'n, Amphill'etik ara sei milla dagozan lekuan, bakal-alabea < m egoan-eta; sarritan dei egin eutsoen bakal-alaba ari, baña etzan agertu; eta, labur esateko, agertu etzalako. eta bakaldunak oraintsu izan dauen kezkea-gaitik, arako gizon yakintsurik geienen ere-txiaren arauz, manaturik gelditu zan aren ezkonzect, olan lengo ezkontzea utsean gel-diturik; arrazkero Kimbolton'era aldatu eben no a. eta an dago gexorik.

II AIT.—Ai ene, andera on aren errukarri!...
Turut-otsa da: emen gagozan, ba-dator bakaldunoa.

Ifcilkundearen Isn-urrenketa (era).

Turuí-otsaldi pozkarria: gero onan datoz aurrera:

- 1.—EbazJa ti.
 - 2.—Ebczla nagusia (Chancellor), bere aurrean buruagea ia zorroa dcazala.
 - 3.—A'beslariak, abeska. (Eresia).
 - 4.—I'ndon'go Endorea, buruagea daroala. Zango-zingiladuna gero, gudu-yantziakaz eta buruan burdinorizko burestuna daroala.
 - 5.—Dorset'eko Marketza, eskuan urrezko agintza-makilea, eta buruan urrezko burestun-erdikina daroazala. Agaz batera Surrey'ko iCondea, eskucn usodun urrezurizko makilafxa ta buruan konde-burestuna daroazala. Gogo Gurenaren tatzako idun-estun bana deroe biak.
 - 6.—Suffolk'eko Dukea, atarako yantziagaz, bere burestuntxoa buruan cauela, ondasunzai nagusiar dagokon barda zuria eskuan daroala. Agaz batera Norfolk'eko Dukea, marxaltzako adakibcoaçaz, burestuntxoa buruan. Goço Gurenaren batzciko iduneko bana daroala,
 - 7.—Buru-çan-Iegor bat, Bost Itsasatekoetik lauk darcela; Bakaldunoa legorpean bere sofiekonk çarjerengo luzeogaz; bere adatsaren apaingarritzat pibicia ta fceurestuna daroazala. London eta Winchester'ko Go-tzaiak aren al.de banatan.
 - 8.—Ne-iclk'eko Dukeno zarra, urrezko burestuntxo bctega;?, buresiunboak lorazko apaingarriak dauza'arik, Bckalfunoaren soñeko-buifitana daroala.
 - 9.—Andera Andiki, naiz Kondeno batzuk, urrezko lorarik bagalco uztaitxo billusak fcuruan daroazala.
- Yarraigo fcakaldarra, bai orixe... Ba-dazaudaz oneik: nor da agintza-makilea daroana?
- I AIT.—Dorset'eko Marketza vatsu ori: adakitxoa daroana, barriz, Surrey'ko Kondea.
- II AIT.—Andiki adoretzu arro yatsu ori. Súfolk'eko Dukea <ia beste ori, ezta?
- I AIT.—Baí, axe bera..., ondasunzai nagusia.
- II AIT.—Eia a Norfolk'eko nire yauna, ezta?
- I AIT.—Bai.
- II AIT.—'Regiak Bf"kaldunoaqan dauzala) Yaungoíkoak onetsiko al zauz! eguño ikusi izan dodan arpegirik ederrrena dozu zuk. Yaun, arimarik dodan bestean seguru, angeru langoxe da; Indiak osorik dauz gure bakaldunak bere besartean; eta Indiak ba-

ño geiago ta ederragorik andera ori bere besartean estutu dagianean: ezin dausat ezarri errurik aren yakinkidetzeari.

I AIT.—Bere buru-ganeko omen-legorra daroan-ak Bost Itsasateetako baronetatik lau dira.

II AIT.—Zori ontsu dira gizonok; eta bai Bakaldunoagandik ur d.agozan guztiak be. Nire ustez, Norfolk'eko Dukeno andera zar zindoa da bakaldunoaren soñeko-buztana daroana,.

I AIT.—Bai, bera da; eta kondenoak dira besife guztiak.

II AIT.—Orixe diñoce euren burestuntxoak. Izarrak dira orreik, izan be; eta yausten diranak, batzuetan.

I AIT.—Bego. (A)de egiten dau Ibilkundeak, turut-ots andiagaz).

Irugarren Aitonseme bat aurrera.

Yaungoíkoak lagun izango al yatsu, yaun! non berotu zara orrenbestean?

III AIT.—Abategiko yentetzan egon naz; atz bat be geiago ezin sartu eitekean lekuan; ia itota nago pozaren pozez aik botaten izan daben sunda andurt'suz.

II AIT.—Arauzko egite ori ikusi dozu, ala?

(II AIT.—Bai, ikusi dot.

I AIT.—Zelango izan da?

III AIT.—Ikusgarri be ikusgarri.

II AIT.—Azaldu egískuzu, yaun on orrek.

III AIT.—Al dodanik ondoen eta zeaitzen azalduko dausuet. Aurreztik gertauriko koruko leku batera bein bakaldunoa eroanazkero, a ara eroan dauen andera ta yaun-talde bikain-ederrak apur bat aHe egin dau agandik: a eskartsua, ostera, yezarri egin da, apur baten atsedena artzeko, ordu-erdi edo olangoren baten, orretarakoxe dan yezarleku eder baten, bere edertasuna erriaren curreen agiri-agirian iminita. Sinistu egistazue, yaunak, gizonek eguño izan dauen emakumerik ederrrena *aa* a; eta erriak a bete-fcetean ikusi dauenean, ekatx gogorrek yota itsasoon ontzi-oialak ateraten dabena Iangoxe zaratea atera da an, ain zolia ta ain askotarikoa. Gora-goraka egaz yoan dira an txapelak, kapak, gorantxak be bai, nire ustez; efa arein fcuruak eurak be, sorbaldeci eutsela egon ezipal'tiaz, galduko litzakezan an. Eguño ikusi eztodana lango pozaldia izan da an. Emakume sabel-andiak, seña egiteko astebetean begira egoteko be etziranak, beñolako gduetako aariak legetxe, sakatu egiten eutsen currekoai, ta ikaratu eragin. Gizonek ezin esan eikean

an. "Nire emaztea dok au"; guztiak egon dira an alkarri eutsela^ ain bat eginik.

II AIT.—Eta gero zer?

III AIE.—Alango baten yagi áa a eskartsua, eta opa-mairantza yoan da oinkada eratsuz; bslaubikatu egin da an; eta deun-antzerá bere begi lirainak zerurantz áragita, arren intsigia egin dau. Gero, barrien-barri zutunduta, erriaganantza burua makurtu dau; Canterbury'ko Gotzaiak bakaldunori 'dago-kozan bakal-egiteko guztiak egin dauzanean, esaterako, orio onetsiagaz gantzutu, Edorta Autorlearen burestuna, makilatxoa ta baketxoria emon, eia esangurarik duben olango beste zer guztiak bakaMunoari zindoro ezarri dautsazanean, abeslari-taldsak, bakalderriko eresirik autuenagaz, "Te Deum" abestu dau. Olan, alde egin dau andik bakaldunoak, eta atzera York Place'ra, andik yauretzerakoan erabili izan dauen ibilketa txairo berberagaz, oturuntzea York Place'n egiteko dira-ta.

I AIT.—Yaun, leku ari bein geiagotan eztautsazu deitu bear Yok ?lace'rik, izen ori yoana dc-ta; galdu dau, -a, izen ori, kardinala yauci zanazkero; bakaldunarena da orain, eta WhitehaTi deretxí.

III AIE.—Ba-dakit; baña izen ori cin aldabarri da-ta, bizi-bizirik dot oindiño lengo izena.

II AGERLEKU.—Kimbolton.

KATARINE alarguna aurrera, gexorik; GRIF-FITH'ck eta EPE'k bien bitariean dakarrela.

GRIF.—Zelan zagcz, eskartsu ori?

KAT.—Ui, Griffith, gexorik, i!-aginik! Adar astunen antzera, iurrerantza makurturik dagoz nire zangoak, euren zamea itxi-gurarik. Ekadazu yezarlekuen bat; olan, olan..., orain nasaitxoago nagola dirudiU Ni ekarri ala, ez ete daustazu esctn, Griffith, ilik dala Wolsey kardinala, omenaren seme cndi a?

GRIF.—Bai, andera; baña, nire ustez, nik esanari ezciatsazu egin yaramonik, zure min zorrotzagaitik.

KAT.—Arren, Griffith on, zelan il zan esaidazu; ondo il ba'zan, bere zori onez aurreak artu daustaz, nire ikasbiderako.

GRIF.—Ondo il zala diñoe, andera; Northumberland'eko Konde andiak York'en atxilo egin eta bere ganean ebazan orban eta salakuntza gogorrai erantzuteko epaitegira baroiala, bapatean gexotu zan, eta gexotu be ain txarto-ta etzan gauz mando-ganera igoteko be.

II AIT.—Zeintzuk gotzai begiragarri izan díra bukuluunoaren alde banatan yoan diranak?

III AIT.—Stokesley ta Gardiner; Winchester'koa bata... oraintsu bakaldunaren idazkaritzat izentaua, London'goa bestea,

II AIT.—Winchester'koa eztabe or gotzaiburuarren, Clanmer onindartsuaren adískide-adiskidetzat.

III AIT.—Edonok daki ori lurralde onetan; oiraiñño be, bein-beinean eztago urrutu andirik euren bitariean; baña urratu ori azi dadinean, Clanmer'ek idoroko dau bera bertanbera itxiko eztauen adiskideren bat.

II AIT.—Nor ete ledike orrako ori, arren?

III AIT.—CromweII'tar Toma; bakaldunak aintzako-ainisakoizai dauen gizona, eta benetan aínizako adiskidea... Bere pitxi-etxeko ugazabaífaz aulu dau bakaldunak, eta dagoneko da onulari mamien artek.

II AIT.—Geiagogarri be egingo da a.

III AIT.—Bai, zalantza bagarik. Tíra, yaunak, nire bidez yoango zarie, bakaldegira, eta an nire arrotz eta maikide izango zarie: neuk be agindu dait zerbait. íbili-ala esango dautsuet zerbait geiagi,

BIAK.—Guri agindu baño eztozu, yaun. (Alde dagle).

KAT.—Ai ene. gixajoa!

GRIF.—Atzanean, arako bideak errazak izan eta, Leicester'era yoan zan, eta ango abategian ariu eben arrotzta ostatuz; eia ango abade begiraganick eta abategiko lekaide guztiak begirapenez eta omenez artu eben; eta itzok esan eutsozan abadeari, "Aita abade, bere azur nekatuak zuon artean izteko etorri da legerriko ekatxak eio-tako agure bat; lur apur bat emon egiozue, goimaitasuna-arren!". Olan oeratu zan; eta an bere gatxa etentzaka yarrai yakon; eta iru gau geroago, zortzirak inguruan, bere atzenengo ordua axe izango zala berak aurreztik esanekoan, damuz eta garbaiz betetik, ausmerketa, negar, eta naibaga artean, bere ornenak munduari emon eutsazan atzera, Yaungoikoari bere zafi onetsia, eta baketan artu eban betiko loak.

KAT.—Olantxe, baketan izango al dau atsedena; ez al yakoz astun egingo bere utsak! Aretzaz geiagorik esaten be itxiko al daustazu, Griffith, eta, orraitño be, goimaitasuna

nez. Gizon ase-ezina zan a, beti bakaldarrak añako izan gura ebana; bere onuz uakaiaerri guzlia loturik *neie* aendean ebana; erago garbitzat eban ak símonkeria; bere eretxia zan aren iege; egia oagarik, guzorra esaten *exan* nakajaunaren aurrean; eta esangura bikoak ziran aren itzak eta gogaketak; ifioz *be* etzan errukior, aurrekoa zeian ondaiu-zale baño; rjera orauan zanez, joere aginduak be andiak izaten ziran; *oaña*, bere egiteak uisa, fera orain denez; ekanau txarrez beterik egoan aren soña, eta ikasfúae txarra emon eutsen elexgizonai.

GliiF.—Andera zindo, borontzetan bizi dira gizonen egite txarrak; baña uretan idazten doguz euren oninaarrak. Orain zure nagusiagotzeak entzungo al daust aren aide escrngo dodan onái

KAT.—Bai, Griffith on, gezto ta gogo txarreko ninizake ostantxean.

GRIF.—Kaminal au, yaiotzaz aldor apaietfko izan-arren, bere seaskatik omen andirako eratua izan zan zafantza bagarik; yakitun zan, eta yakitun umatu ta benetakoa; zur baño zurrago, itz egiten ondo ekiana, eta Efnistu eragiten ebana; arro ta mingots bera maite ez ebenentzat; baña, udea bestean gozo fera maite izan eta bere billa ebizantentzat, Eta iristen ebanagaz naikotu ezarren (eta obe'n yatsun onako au) orraitioño be, bakaldun bestean eskuzabal zan emoterakoan. Onako cnen autorlatzat or dozuz Ipswich eta Oxford, yakitetegi bikote orii Bietatik bata beragaz batera yausi da, bera eragi ebana baño luzaroago ez bizi gura-ta; bestea, oindiño amaitu bagarik egon-arren, alan eta guzti be ain entzutetsu, artean ain bikain, eta oraindik be gorantza doana data, Kistarr-erriak beti itz egingo dabe aren onindarraren alde- Kardinalagaz beragazko, bere yauskeran asten da aren zori ona; orduan ezagutu eban, *ba*, bere burua, eta ez lenago, eta bere izan dau gitxi izatsan dagon zori ona; eta aren zartzaroari gizonen emon eikiozanak baño omen andiagok erasfeko, Yaungoikoaren bildurrean il zan.

KAT.—Nire eriotzearen ostein, nire omenak usteldu ta aztu eztadizan, nire bizitzako egiteen aldarrikaritzat eztot gura Griifith egunkari zindoaz besterik. Goratuazo egin daustazu bizirik zala nik gorrotorik geien neuntsana, zure egi, zintzotasun eta lotsortasun yaungoikozalez, orain a auts baño ezta-nean; baketan izango al da! Epe, oraindik be nire aidamenean zagoz; eta berago iminí nagizu: eztot aldi luzerik zuri kezka ta

egikizun andirik emoteko. Griifith on, ereslariai agindu egiezu nik nire il-yoale deituten dodan eresi gotilun-negargarria yo dagiela, ara noan zeruko ereskidetasun gozoa nik gogotan darabildan bitartean. (Eresi gotilun-bena yoiem dabe),

GRIF.—Loak artu dau; neskato on, yezarri ta ixiiik gagozan, ori iratzarri eztaigun, Epe lirain.

IKUSKIZUNA.—Bizkor-bizkor datoz aurrera, alkarren atzean, sei Notin, soñeko zuriz yantzita, euren buruetan orrizko uztaí bana eta mosuetan urrezko marro bana dakarrenak; orrolloak, naiz palma-adarrak euren eskuetan (bana), Lenen, euren burualc makurtuten dautsoez, eta gero yantzán egiten dabe, eta aldakuntza batzuk eginik, Ienengo biak orretarako daben uztaia buru-ganean iminent dautsoe; eta bien bifartean beste lurak, begirapenezko buru-makurketak egiten dautsoez; gero, lenengo biak orretarako eban uztaia urrengo biak emoten dautsoe; oneik be, lengoak langoxe aldakuntzak egin, eta aik egin dabena bera egiten dabe; bein ori egindakoan, atzerengo biak emoten dautsoe uztaia, oneik be bestek egin dabena bera egiteko: eta bein egiteko ori amaiturikoan, andera bakaldunoak, orretara Yaungoikoak eraginda letxe, lotan poza iragarten dau, eta bere eskuak zerurantz eragiten dauz; eta olan^ geiagoko bagarik, eta yantzán egin-ala ondatu egiten dira, uztaiak eurekaz daroezala. Eresia yoten dirae.

KAT.—Bake-gogook, nondik zarie? Guztiok alde egin ete dozue? Eta zuon atzean emen zori txarretan it<i nozue?

GRIF.—Andera, emen gagoz.

KAT.—Zuri deiez enago ni: eztozue inor ikusi ona sartzen ni loak artuazkero, ala?

GRIF.—Inor bez, andera.

KAT.—Ezetz? Ointxe-ointxe be eztozue ikusi zori ontsu-talde bat oturuntzarako niri dei egiten, ala? Eguzkiarenak langoxe didizak euren arpegietatik urteten izan yakezanak, ala? Betiko zori ona opatu ta cgingu dauste; eta oraindik olangorik erabilteko lain enazala uste dodan uztaiak ekarri daustez; baña, eroateko lain izango nazala ditxarot.

GRIF.—Poztuten nau, andera, zuk zure irudimenean olango ames onak eukiteak.

KAT.—Gelditu daitezala agindu egiezu oslariai, latz eta astun egiten yatazeta (Ixildu egiten <ta ere'sda).

iPE.—Ez ete zara oartu gure anderea asko be asko aldatu dala beingoan? Mosua zelan luzatu yakon? Arpegia zelan zuritu yakon

cta lurra besteraño otzitu Hnn? Begiratu eqi-
zuz orren begiak!
GRIF.—Ba-doa ori, neskato; arren dagigun,
arren dagigun.
EPE.—Nasaituko al dau Yaungoikoak!

Geznari bat aurrera.

GEZ.—Eder ba'yatsu, eskartsu orri.
KAT.—Gizon zakar zara zu; ori baño begira-
pen geiagogarri ez ete gara, ba?
GRIF.—Errudun zara olango yardunbide za-
karra darabiltzunean, erabilten oiturik da-
gon anditasuna galtzerik orrek eztauela gu-
ra yakinik, belaunbikatu zakioz.
GEZ.—Parkske nagotsu apal-apalik; nire ira-
duak egin nau zakar eta baldar. Aitonseme
bat dago or, feakaldunagandikoa bera, zu
ikusgureagaz datorrena.
KAT.—Sartuazo egiozu, Griffith; baña urlu au
ez al dot beste bein ikusiko. (Alde GRIF-
FITH'ek eta Geznarink).

Aurrera barriro GRIFFITH, CAPUCIUS'egaz.
Oker ezpa'dagoz nire begiak inberadoreagan-
diko, nire lobeagandiko, ordezkari bidalia
zara zu.

CAP.—Axe bera, andera, zure otsein.
KAT.—Ui, ene yaun, aldi ta izengoitiak asko
aldatu dira nigan agüño lenengoz ikusi zen-
dudazanazkero. Baña, arren, zer gura dozu
nigaz?
CAP.—Andera zindo, lenen, nire neure otsein-
tzea zuri, eskaitsu orri; urren, bakaldunak
zu ikusteko egin daustan eskaria; naibaga-
turik dago a zure makaladja dala-ta, eta
bere bakaldun-gorantziak bidalten dautsuz
nire bitartez, eta biotz-biotzez eskauiten dau-
tsu nasai egon zadizala.
KAT.—Ui, ene yaun on, beluegi áator nasaita-
suna; ilazo ta gero datorren parkatutea lan-
goxe da ori; garaiz emona izan ba'litz, osa-
tuko nendukean osakai gozo orrek; baña,
nasaitasunak eztau orain onik nitzako. arre-
nak baño. Zelan dago aren nagusiagotzea?

CAP.—Ondo dago a, andera.
KAT.—Beti egongo al da olan! eta beti lora-
turik, ni ar eta mamarroen artean nagon bi-
tarteant, eta nire izen errukarria bakalderrian
inok gogotan eztauenean! Epe, bidali ete
dozu nik idatziaz dautsudan arako idaz-
kia?
EPE.—(Idazkia KATARINE'ri emon-ala) Ez, an-
dera.
KAT.—Yaun apal-apalik arren egin bear

dautsut idazki au nire yaun bakaldunari
emon dagiozula.
CAP.—Ggoz be gogoz, andera.

KAT.—Idazki onetan çorantzi eqit?n dautsat
aren ontasunari gure arfeko maitasun gar-
biaren eredu dan aren alaba gaztea..., ze-
rutiko inñontzak parra-parra ta eurrez ya-
tsiko al dira aren ganeraí ari irakaste onin-
'áartsua emon dagiola eskatuten dautsat;
ga2te da neskato a, eta berez izakera zin-
do eratsuduna; nire ustez, beragazko ardu-
rai erantzungo dautse ak, eta Yaungoikoak
berak bakarrik dakienez, bakalduna ain
maite izan dauen amagaitik maitasun apur
bat izan dagiola neskato ari. Zera da nire
urrengo eskaria, aren nagusiagotzeak erru-
kirik arean izan dagicela nire emakume zori
txarrekoai, nire zori txarrean biak ain
zintzoro ta ain luzaro yarrai yatazanai; eta
eurotatik bat be ezta, (eta orain eneuke
Pann bear guzurrik) bat be ezta senar on-
garri eztanik, eta senar zindogarri izan be,
onindarragaitik, biotzeko benetako ederta-
sunagaitik, zindotasunagaitik eta ibilera
aratz-garbiagaitik; eta zori ontsu izango di-
ra, seguru nago. neskokaz ezkondu daite-
zanak. Nire gizonezkoen alde da nire atze-
nengo eskaria, ezeukirik ezeukiepak, bear-
tsurik beartsuenak dira erurak, baña bearri-
zanak eztautez egüño alde eragin nigandik;
ondo ta bear danez ordaindu dagioezala
alogerak, eta orrez ganera zer'ait geiago,
orrexegaitik ni gomutan euki nagien; Yaun-
goikoari eder izan ba'litzako ni luzcroago
bizi ta nik zer emonik eukitea, onan ezkin-
tzakeazan bananduko alkarregan^ik. Ona-
ko zerok dira idazkiak dauzana; eta, ene
yaun on, mundu onetan maiteen dozuna-
arren, eta il diranen gogoai Kistar-^akea
opa dautsezuenazkero, vente errukarri-
on adiskide izan zadiz, eta ekin eta ekin egio-
zu bakaHunari rigazko azkenengo egite
zuzen au egin dagistala.

CAP.—Yaungoikoa-arren, egingo dot eain ^e,
ostantxean gionaren antza bera be galduko
al dot!

KAT.—Eskarrik asko, yaun zindo. Nire goran-
tziak apal-apalik aren nagusiagotzeari;
esaiozu yoan dala orain ludi onetatik aren
luzaroko kezkea; esaiozu, onetsi egiten do-
dala eriotza-aldian, orixe egin be egingo
dot-eta... Lausotuaz doez nire begiak, Agur,
ene yaun. Griffith, agur. Ez, Epe, zuk enozu
itxi bear oraindik: oera yoan bear dot; ema-
kume geiagori dei egiezu. II nadinean, nes-
kato on, lotsaz erabili nagizue; neskalorak

zabaldu nire ganean, mundu guztiak yakin dagian emazte garbi izan nazala ilobiragiño: gantzutu ta lurrundu nagizue, eta yenteak ikustsko imini; bakaldunotzatik kendua

izan-arren, bakaHuno lez, eta bakaldun-alaba lez obriratu nagizue. Ezin dot geiagorik. (Alde dagie, KATARINE'ri bidean lo gun yicckzola).

V E K I T A L D I

I AGERLEKU.—LONDON. Bakaldegiko sollairu bat.

Winchester'ko Gotzai GARDINER aurrera, Esku-mutil bat, zuzigaz, agaz datorrela.

GARD.—Ordu batak dczak, mutil, ez ete?

ESKU-M.—Yota dagoz.

GARD.—Bear-bearreko zeretarako dozak orduok, ez atseginerako; atsedeen nasaiagaz gure soin-gogoak barriztetako izan bear leuke aldi onek, ez guk alperrik galtzeko.

SIR TOMA LOVELL aurrera.

Gau on, Sir Toma! nora zoaz onen berandu?

LOV.—Bakaldunagandik zatoz, ala, ene yaun?

GARD.—Bai, Toma yaun, eta Suffolk'eko Dukeagaz kartetan itxi dot a.

LOV.—Agana yoan bear 'dot neuk be, a oertu baño len. Agur egin bear dautsut, ba.

GARD.—Oraindik ez, Toma Lovell yaun. Zer yazoten da? Iraduz zagozala dirudi; okerrik ezpa'datortsu ortik, zure adiskide oni iragarri egiozu ara zaroazan arazoa, alde txarrekoak gaberdiz ibiltzen dirala or esaten dabenez, gaberdiz erabilten diran arazoak egunez erabilten diranak baño izate astunagoko ta bildurgarriagako izaten dira-ta.

LOV.—Ene yaun, adiskide zatxataz; eta ixilkizun au baño astunagorik be iragarriko neunskie zure belarriai. Señã egiten dago bakaldunca, estu ta larri, or diñoenez; eta bildurrik ba-da estukura orretan arenak egir?go ete dauen.

GARD.—Biotz-biotzez ekingo dautsat arrenka ta arrenka, aren sabelean sortua andik onez urten eta bizi dadin: baña, igali ori emon dauen aldorra len-baño-len zustrarettik aterako al da.

LOV.—Neuk be ba-dot zuk esanari "amen" erantzuteko gogorik, urrean; eta orraitioño be, a emakume on, andera gozo da-ta, guk opa dautsagun baño zer oberen opagarri dala 'diraust nire yakinkidetzek.

GARD.—Baña, yaun, yaun, entzun nagizu, Sir Toma; nire neure bidea daroan aitonseme zara zu; ba-dakit zur eta yaungoikozale zareala; eta itxi egistazu esaten, eztogula f

onik izango, sinistu egistazu. Sir Toma Lovell, arik eta no aren esku biak diran Cranmer eta Cromwell'ek eta no ak berak euren ilobietan lo egin arte.

LOV.—Bakalderriko gizonik urtenenak aitu dozuz oraintxe. Cromwell'gazko, a pitxiebtarean ariuradun autuaz ganera, gorengo ebazla ta bakalderriko agirien arduradun eta bakaldunaren idazkari egin dabe; eta, orrez ganera, bidean dago gerora bere ganera zerbait geiagorik etorteko be. Gotzai-burua, barriz, bakaldunaren esku ta miñda; eta nor atometako aren aurka txitik egingen?

GARD.—Atomau ez? Bai, bai, Sir Toma, badago atometan danik, eta ez bat bakarrik; eta neu bo atomau naz agazko nire gogoa iragcrtren; eta egin be gaur egin dot, (eta csan neitsu) eta a onango ta onango dala nik esanda, nire ustez asarre bizian imini dodaz onularitzako yaunak, ba-dakit, ba, nik, eta aik eurak be ba-dakie, sinistetik alde egina baño alde eginagoa dala a, Iurralde au kutsatu ta ustelduten dauen izurria dala; eta nik esanok ai eraginda, bakaldunari asarre egin dautsoe, eta bakaldunak entzun egin dautsez euren alaketak, zera, bere burua ta bakaldunari dagokozan ardurak bertanbera itxita dauzala, ak lendik yakinik gure argibideak bere aurrean imini dautsozan arrisku ta galgorde bildurgarriak; entzun dauz bakal'dunak gure alaketok, eta a biar goxean onularien epaitegitara agertu dadila agindu dau. Bedar txarretariko tia a gizona, Sir Toma, eta zustrazustrarettik a atera-bearrean gagoz. Luzaroegi euki zaudaz zure egitekotik aldendurik-eta, gau on, Sir Toma.

LOV.—Gau on eta gau on, ene yaun; zure otsein geldituten naz. (Alde GARDINER'ek eta Esku-mutilaik).

LOVELL urten-aginik dagola, BAKALDUNA ta SUFFOLK'EKO DUKEA aurrera.

END B.—Karla, enoa arratseon geiago yoka-

tuten; beste zerbcritPTi *Anao* nire gogo; go-gorregi zera zu nitzako.

SUFF.—Bein bakarrik irabazi dautsut, yaun.
END. B.—Gifxi baño eztaustazu irabazi, Kar-la; eta irabazi be eztaustazu egingo nire gogoia yokoan atan dagonean. Eia orain beste zer batera, ze barri dakazu bakaldu-noagandik. Lovell?

LOV.—Zuk emon daustazun egitekoa nik neuk ezin egin izan dautsat .bakalduncari, baña aren emakumeen bitartez emon dautsat zure geznea; eta ak, aren ordezkotzai, bere eskar onak bidali dauisun apaltasuruk apa-lenaz, eta zure nagusiagotzeak aren alde arrenik biotzetikoenak egin dagizuzala es-katu dau.

END. B.—Zer tññozu, zer? Aren alde arren egin dagidala? Zer, ba, negarrez eta gedarrez dago, ala?

LOV.—Olan dagola esan dau aren emaku-meak; eta ak esan dauenez, aren umemiñak il-aginik izten dabe aidi bakotxsan.

END. B.—Ai ene, andera aren errukarri!

SUFF.—Onez eta onik aterako al dau Yaun-goikoak a bere nekeetatik, eta neke andi bagarik, zure ncigusiagotzearen pozkarrizat onordekorik emongo al dautsui

END. B.—Gaberdia da, Karla; oera zoaz, arren; eta nire bakalduno errukarria zelan dagon gogoratu egizu zure arrenetan. Bakarrik ixi naçizu, bakarrean erabilteko obeak dira nire gogaketak eta.

SUFF.—Gau bare baketsua opa dautsat zure nagusiagotzeari; eta gogotan eukiko dot ni-re andera ona nire arrenetan.

END. B.—Gau on, Karla. (Alde SUFFOLK'ek).

SIR ANDONI DENNY aurrera.

Kaxo, yaun, ze barri doyu?

DEN.—Yaun, ekarri dot nire yaun Gotzaibu-rua, zuk agindu iieunstanez.

END. B.—A! Canterbury, eztok?

DEN.—Bai, ene yaun on.

END. B.—Bai, izan be; non dago a, Denny?

DEN.—Zure ederretsiaren begira dago, zuk zer aginduko.

END. B.—Ona ekarri egik. (Aldo Dcn,ny'k).

LOV.—(Bere kiteon) Arako gotzciak esana da onako au; zori onez etorri naz ona.

DENNY aurrera ostera be, CRANMER'egaz

END. B.—Ustu sollairua. (Bertem gelditu gura dauelto dirudin LOVELL'eri) Ostera! esan dot. ger. Alde emendik. OsteraJ

CRAN.—Bildurrak ilik nago; zer dala-ta ete

dau betozko ori? Bildur-ikarea sartzeko mo-sua da ori. Zer_~ait eztago ondo.

END. B.—Zeian zagoz, ene lora? Zetarako dei egin dautsudan yakin gura ete dozu?

CRAN.—Zure nire nagusien crren ederra egi-tea *da* nire egin-bearra*

END. B.—Zutundu zadiz, arren. Canterbury'ko ene yaun on eskarisu ori. Tira, ibiltalditxo bai egin bear dogu biok biotara; ba-dot zutzako barririk; tira, tñra, ekadazu esku ori, Ai, ene lord on, min emoten daust diño-do:nak, eta nai^agarik asko dot urren esan bear dauUdanagaz; nire gogcz bestera, zugazko alaketa naibagagarri Gsko entzun izan aoadz craintsu; eta aiaketok gogoan erabiii ta ausnerturik, gure geure ta gure onularien batzarraren aurrera zuri biarko deitutera eragin dauskue; ba-dakif an zure burua nekez zuriu al izango dozu).a-ta, zuri ezarriko yatsuzan salakuntsak geroagoko ebazte-aldian zure erantzunez zuritu al da-gizuzan, epe artu lear dozu birittean, eta pozik scgn zure etxetat gure Torrea dozia; gutzako zu anai besteko zara-ta, egoki da guk bide au arizea, osfartxean zure aurka autortzarik egiten inor be eiitzake atomau-ko-ta.

CRAN.—Esktrik apañenak zure nagusiago-tzeari; eta pozik bcno pozaço nago ni, zeatz eralteko eretia izango dodalac, nire iastoa ta garia ulkarregandik bananduteko; ba-dakit, ba, eztagola gizonik çuzurtien irai-nez, ni gizon errukarri au faño irairiduago-rik.

END. B.—Zutundu zadiz, Canterbury on; guban zure atñskide onegan, zustarrak emonda dago zure 2Xitzioasuna ía csctasuna; ekaíazu esku on, ta zuñdu za.diz; ibiHaldi bat da-gigun, arren. Nire Andera Guyena-airen. zelango gizon zañkakuz zu? Ene lord, Zu ta zure safaiza'lleo'k ak'-.:regaz aizeko ale-ginak egin dagidazalazko eskakizunen bat egingo zeunstala uste neban nik, etcí geia-gcko fcagarik zuri entzunazoteko.

C'IA N.—Yaun bil'urgarri-xildurçarri ori, nire zj.ntzoiasuna ta zindotasuna dira niri eutsin eia adorea emoten daustenak; zintzotasu-nak eta zindotasunak uís egin ba'dagi'te, nik eia nire arerioak, bitsuok benderaiuko *fogu nire burua; rñ enaz, ba, iñor, enaz ain-tzakotzat eukitekorik, onindarron-ezean ba' nago. Eztot nire aurka esan daitekenaren bildurrik.

END. B.—Ez ets dakizu zelan zagozan niun-duagazko, mundu guziagazko? Asko, au-niiz dira zure arerioak, eta ez txikiak be; euren egiteak be einekoak izan bearko; eta

epaiak beti eztau emoten zuzentzeari ta egia-ri dagokirik; olango aldian biotz galdu-ustelak ezin zuzendu ta arteztu ete legie eurak kntgoxe autorla ustelik zure aurka, ala? Lenago be yazo da orrenbesterik. In-dartsuak dozuz zure aurka dagozanak, eta euren indar andia añako gogo txardunak. Aren otsein zarean zure Ugazaba lur gezto onetan bizi zanean ak izan eban baño zori obea (autorla guzurtien aldetik esan gura dot) izango dozula uste dozu, ala? Tira, tira; arriskurik bagakotzat artzen dozu zuk amiltegia, eta zeure ondamendiaren billa zabiz.

CRAN.—Yaungoikoak eta zure nagusiagotzeak yagongo al dabe nire errugetasuna, ostan-txean yausiko naz imini daustezen sareeta-
ra!

END. B.—Nasai zagoz; geuk itxi daitseguena baño geiagorik eztabe egingo. Nasai egon zu; eta eguerdi-aurre onetan agertu, gero, euren currea; euren salakuntzekaz aik zu estutuerik yazo ba'ledi, ez aztu zure burua zurituteko biderik onena artzeaz, eta ereti-ak irakatsi leiskizun indar eta adorerik andienagaz zure burua zurituteaz; eskar-fak asko ezpa'yatsuz, elastun au emon egiezu, eta euren aurrean epaia gu geuganatu egi-zu. Ara, negarrez dago gizon ona! Zindo da ori, nire omena-arren. Yaungoikoaren Ama onetsia! zin egingo neunke biotz zindoa dauela orrek; eta eztagola nire bakalde-
rrian ori baño gizon obarik. Zoaz, eta nire esana egizu. (Alde CRANMER'ek) Bere negarretan ito egin dau orrek bere miña.

Andera Zar bat aurrera.

AITONS.—(Barrutik) Erdu atzera; zer bear do-
zu?

AND. Z.—Enoa ni atzera; dakadan barriak onduko dau nire azarkeria. Angeru onak egaz egingo al dabe zure bakaldun-burura, eta euren ego onetsien itzalpean iminiko al dabe zure burua!

END. B.—Zure mosuetatik igarten dot zuk dakazun geznea. Egin dau seña bakaldunoak, ala? Baietz esan egizu, eta mutiko dala.

AND. Z.—Bai, bai^ ene ugazaba; eta mutiko ederra egin be; zeruko Yaungoikoak orain ela beti onetsiko al dau neskato a,, neskato da, geroago etorriko dira mutikoak. Yaun, bera ikusten yoan zakiozala gura dau zure bakaldunoak, eta erbestetar a ezagutu dagizula; kerexa bat besteren antzeko dan bestean zure antzeko da a.

END. B.—Lovell...

Beste bein aurrera LOVELL.

LOV.—Zer, yaun?

END. B.—Eun marko emoiolak emakume orri. Bakaldunoagana noa ni. (Alde ENDIKA BA: 'fc).

AND. Z.—Eun marko! Egun-argi au-arren, gei-ago bear dot. Edozein esku-mutil ida orrenbestegarri. Gei-ago bear dot nik, edo asarre egingo dautsat bere aurrean. Onetarako esan ete dautsat bere antzeko dala? Gei-ago bear dot, ostantxean esana guzurra dala esango dot; gori dagon bitartean yoko dot burdífnea. (Alde dagie).

II AGERLEKU__Onulari-Batzartegiaren aurrea.

CRANMER aurrera; Otsenak, Atezaia, eta abar aurrera.

CRAN.—Beranduegi enatorrela uste dot; eta orraitño be, arin be arin etorteko esan daust Onulariak nigana bidaliriko aitonsemeak. Ate guztiak giltzaz itxita? Zer esan gura ete dau onek? Eee! non zagoz atezai? Enozu ezaaututen, ala?

ATEZ.—Bai, ene yaun; baña oindiño ezin dau-tsut aterik idigi.

CRAN.—Zegaitik ez?

ATEZ.—Deitu arte zuk begira egon bear do-
zu, eskartsu orrek.

BUTTS Osagilea aurrera.

CRAN,—Ondo dago.

BUTTS.—(Bere kiteon) Gaiztakeriren bat ya-tsu au. Pozik nago, zori onez bide au artu dodalako; bertatik yakingo dau bakaldun-
nak onako au. (Alde dagi).

CRAN.—(Bere kitean) Butts, bakaldunaren osa-gilea da ori; ben-ben begiratu nau nire aurretik igaro-ala! Yaungoikoak ez al dau gurako orrek nire zori txarra igarterik! Se-guru baño seguruago, ni gorroto nabentatik batek edo batzuk beren-beregi gertaua da irain au. Yaungoikoak aldatuko al dauz orrein biotzak! Euren gorrotagarri izatekorik eztot egin izan egiño; ez orreik ni baltzitu-
ten ibiltekorik; lotsatu egin bear leukie ni atetan begira eukiteagaz, eurak lez neu be onulari nazan au, mutil, otsein eta zaltza-
ñekaz begira eukiteagaz. Baña orreik eurak

aura daben guztia egin bear dabe, eta nik epez begira egon bear.

Goiko leio baten agertuten dira BAKALDUNA ta BUTTS.

BUTTS.—Neuk erakutsiko dautsat zure nagusiagotzeari ikuskizunik inõnái koena.

END. B.—Nor da a, Butts?

BUTTS.—Zure nagusiaqotzeak sarritan ikusia dala a, uste dot.

END. B.—Nor? Non?

BUTTS.—An, ene yaun; ara non dagon Canterbury argi-eskartsua, atean, begira, eskala, esku-mutil eta otseñik berengoen artean.

END. B.—A! bera da. izan be; ori ete da alkarri orreik dautsen begirapena? Eskarrak badagola oindiño orreik baño goragoko danik. Eramera onik beintzat oindokoarren babebela orreik uste neban nik, olango gizon andiri, gure adiskide danari, eurak gura dabela ta beste bagarik, zerbaitegaz datorenari legetxe, olan atetan fcegira ez egonazoteko lainik. Andera Miren-arren, Butts, zitalkeria dabil or; eurak euretara itxi egizuz, eta errezelak ondo itxi egizuz; laster entzungo dogu geiagorik. (Alde dugie).

Onulari-Batzartegia.

Eurrera Lord Gorengo Epaikaria, SUFFOLK eta NORFOLK'EKO DUKEAK, SURREY'KO KONDEA, Lord Txanbelana, GARDINER, eta CROMWELL. Gorengo Epaikaria maipuruan ezkerreko aldetik yarten da; a baño goragoan utsik >dago yarieku bat, CANTERBURY'KO GO-TZAIBURUA'rentzokoa. Enpaduak, urrengorik urrengo, baktotxa bere lekuan yarten dira, maiaren elde bietan. CROMWELL berengo lekuan. idazkariarena egiteko.

GOR. EP.—Idazlari yaun, esan onulari-batzarra zetarako batu dan. Zetarako batu gara?

CROM.—Eder izango al yatsue, yaun omen-garrioi, Canterbury Argiari dagokona da arazorik beña.

GARD.—Iragarri ete yako?

CROM.—Bai.

NORF.—Nor dago or begira?

ATEZ.—Nire yaun gotzaiburua; eta orduerdi egin dau or zuok zer gura 'dozen yakiteko.

GOR. EP.—Sartu daitela.

ATEZ.—Sartu zadike orain, yaun argi ori. (Onulari-maira urreratuten da CRANMER).

GOR. EP.—Ene yaun on gotzaiburu, lotsatu baño lotsatuagorik nago emen yezarrita, yezarleku au utsik ikusirik; baño guztiok

gara gizon, makal geurez, soindun, ez angeru; eta makaHasunci. ta zurtasunik-eza dala-ta, zu, gure irakasia izan fear zeun-ken ori, okerreko bidez ioiiri zara, kai zeutzaako, eta ez gitxi be Dakaiaunaganako, gero legeakanako, iragarri dauskuenez, bakalderri guzti au zuk zeuk eta zure kapillauak eretxi barriz, eretxi askolaiiko ta kaitegarriz beterik; siniste-auste oira eretxiok eta^ aldatu ezik, kaltegarri izan iecikez.

GAHD.—BertatiIt egin-aearrekoa da aldatute ori be, ene yaun zindook; zaiaiak eziten ibiltan diranak, ba, ezta^ez eraoiiten oinkadaka astiro ia eskutik, agoko çogarrak imini ta eskuratu arte aztaiak sartu coiio. Yaramonik egin ezpa'dagiagu gatx intsigikor oni, (gizon bategunufco oegnajj^nguiiik eta gure zaLarker;uga:tijk eziago ez osakairik, ez osapiderik; eta gero zer? Iskanbillak, naste zakarrak, bakaiaerri osoa gaiu ta ustelduten dalarik, oraintsu gure auzokoen artean, gual'áeko Alernani'n yazo izan danez, oinaño be gure gornutan euki ta erruki emoten dauskunetz.

CRAiN.—Ene yaun onok, orain arte, bai nire bizian, bai nire ogibide barrian aieginak egin dodaz, eta ez gitxi be, nire irakasteak eta nire aginpide sendoak bide bat eta bera segurua eroan dagien; sta on egitea izan da nire bide orren elburua; hiotz argi ta garbiz diñot diñodana, bizi diranen artean eztago gizonik bere yckinkidetzan eta bere lekuan erri-bakea austen dabena nik baño gorroto andiagorik dautsenik, oiango geiago eragiten dautsonik. Yaungoikoak ez al dau gurako bakaldunak ník dautsadan baño zintzotasun gitxiagoko gizonik aurkifuterik! Euren yakitzat gorrotoa, ikusi-ezina ta gaiztakeria daben gizonak onenaii be usika ta aginka egiten áautsoe. Arren be arren eskatuten dautsuet yaunoi, zuzentzako auzi onetan, dirartak dirala nire salatza-Ueak, r.ire aurrez aurre egon eta bildur bagarik erasoko al dauste,

SUFF.—Ez, ene yaun, olangorik ezin ledike; onulari zara zu, eta ori zareanazkero^ inok ezin salatu zaiketz, ezin atomau orretarako.

GARD.—Ene yaun, arazo artidiagorik ba-dogunazkero, arin egingo dogu zugazkoa. Emen dogu aron goikotasunaren ederretsia ta guk batera arturiko erabagia, zure auzia obeto ebazteko, zu emendik Torrera bidalteko; eta an, gizon utsa baño etzarealarik, ikusiko dozu zelan atomauko diran ainbat eta ainbat zu bildur bagarik salatuten, eta zuk erantzun-ala baño geiago agertuko yatzuz ara.

CRAN.—A! eskarrik asko Winchester'ko ene yaun on orri; beti zara zu nire adiskide on; zure guraria egin ba'dadi, nire ebazla ta zin-ebazla, bitsuek izango zatxataz, orren errukior zara-ta; badakit nik zuk zetara yoten dozun, ni ondatutera; orraitino, geiagokeria baño egokiago yakoz maitasuna ta apaltasuna elex-ginoneri; ardi galduak eratasunez irabaztea, ortik zear bat bera be egoztea baño. Egun oro okerreriak egiteagaz zuk zure yakinkidetzea zuritu ta garbituten dozun bestean erraz garbitu ta zurituko dot nik nire burua, nire epea neurtuteko uok ezarri zainskiedazan erru astunetarik. Geiagorik be esan-ezinik eztot, baña zure goi-deiari dautsadan lotssak eratsuago ta cpalago egiten nau.

GARD.—Ene yaun, ene yaun, siniskizun-ausleen yarraila zara zu. Ori da egia; gizon turuargiak ba-dakuse zure itzen utsa zure azal eder-argitsuaren azpian.

CROM.—Winchester'ko ene yaun, zorroztxoegi zara zu, eta parkatu egistazu au esatea; lotsaz eta begirunez artu ta erabili bear litzatekez gizon zindoak, euren utsak gorabera, len izan diranagaitik; gogorkeri *aa* yausita dagon gizona ostikopean zapaldu-tea.

GARD.—Idazkari yaun, itxi egistazu esaten, emen baturik gagozanotatik zuk dozula eskubiderik gitxi en olangorik esateko.

CROM.—Zegaitik ene yaun?

GARD.—Ez ete zaudaz nik zu zeu be sinisteausla barrion yarrailatzat? Zu etzara zindo.

CROM.—Zindo ez?

GARD.—Ez zindo, eta barriro diñot.

CROM.—Nire zindotasunetik erdia al zendu! Ba'zendu, arrenka yoango litxakizuz gizonak, ez zure bildurrik izan.

GARD.—Eztot aztuko izkuntza lotsabako ori.

CROM.—Gogotan euki baño eztozu. Zure bizi-tza lotsagarria be gomutau egizu.

TXAN.—Geiegi da ori; lotsea-arren, epe artu egizue, ene yaunok.

GARD.—Esan dot nik esatekoa.

CROM.—Bai nik be.

TXAN.—Olan dala, zugazko au, ene yaun; guztien eretxiz erabagita dago zu, atxilotzat, bertatik Torrera eroatea; bakaldunaren ederreysi barriren yakitun gu egin arte zu an egoteko: guztiak eretxi onetako, yaunak?

GU2TIAK.—Bai, guztiok.

CRAN.—Ez ete dago beste biderik, errukizko biderik, ni nai-ta-nai-ez Torrera yoatea baño, yaunak?

GARD.—Ze beste bideren begira zu egoteko?

Iñondikoz kezkarri zara zu. Datorrela zaien bat.

Zai bat aurrera.

CRAN.—Nitzako da, ala? Saltzalla ba'nintz legetxe yoan bear dot ara, ala?

GARD.—Artu, ta Torrean seguru euki egizu.

CRAN.—Etxon, ene yaun on, zerbait ba-dot oíndino esateko. Ikusi au, ene yaunok; elastun au dala-ta, nire auzia, gizon biotz-gogorren eskuartetik kenduta, ebazlarik zindonenaren eskuetan, nire ugazaba bakaldunaren eskuetan iminten dot.

TXAN.—Bakaldunaren elastuna *<ia* au.

SURR.—Eza aren antzekorik.

SUF.—Yaungoikoa-arren, elastun zindo da, ez ustelik; arri bildurgarri oni lenen zirkin eragin geuntsanean esan neuntsuen nik geure ganera yausiko zala.

NORF.—Uste ete dozue, yaunok, bakaldunak yasango dauela, bakaldunak itxiko dauela gizon oni beronen atz txikarrean be minik egiferik?

TXAN.—Seguru be seguru dago orain ori; garrantzi andia emoten dautso bakaldunak orren biziari. Arazo onetatik urtenda al nengo!

CROM.—Gizon onen zimdotasunarentzako ikusi-ezinik txerrenak eta bere ikasleak bakarrik izan leikie-ta, onen aurka ipuin eta esamesen billa genbiltzanean niri burura etorri izan yatan, putz egiten zeuntsoela orain erretan zabezan suari; or dozue orain, eta ikusi ondorenak.

BAKALDUNA aurrera, batzarrekoai betozkoa

erakusten; bere yarlekuan yezarten da.

GARD.—Nagusien bildurgarri ori, gu bai bagozala Yaungoikoari egun oro eskarrak emon-bearrean, zu lango bakalduna emon dauskulako; ez on eta yakituna bakarrik, bai yaungoikozalerik yaungoikozaleena be; bere omenaren elbururik beñentzat, bende-kotasun osoz, elexea dauena; eta elexeari dautsazun begirapen gurenak eraginda, zure egikizun ori sendo beteteko, zu bakaldun ori zeu zatoz Elexearen eta aren iraintzalla andi onen arteko auzia ebazten.

END. B.—Winchester'ko Gotzai, zuk beti izan dozu trebetasunik asko zurikeri ta txanpalkeririk bertatik asmetako. Baña, yakizu ni enatorrela orain olango txanpalkeririk entzuteko, eta gitxiago nire aurrean; meegi ta billusegi dira zure txanpalkeririk irainik estalteko, Zu ezin zara eldu nigana: txan-

III AGERLEKU.—Bakaldegiko Arrazpela.

Otsak eta zaratea barruan. Atezaia ta bere Otseña aurrera.

ATEZ.—Bertatik ixilduko ete zarie, zitalok? Paris'ko enparantza-lorategien bat dalakotzat artzen dozue bakaldegia, ala? Baztartu zuon arrantzok, yopu zakerrok. (Barru-alde-tik). Atezai on, okela-gelakoa naz ni (3).

ATEZ.—Eskegitegiko al intz, eta eskegiko al endukie, zital ori! arrantzaka ibilteko lekurik ete dok au? (Otsenari) Amabi bat basasagarr-adaki ekarri egistazak, eta sendoak izan daitezala: arein aldean abarrak baño eztozak oneik. Eratzi egingo dautsuedaz zuon buru-narruak: uguzketea ikusi gura dozue, ala? Zital zakarrok, emen gaiardo ta pastelen begira zagoze, ala?

OTSEÑ.—Arren, yaun, epe artu egizu: su-odiz garbitu ezpa'dagiguz, orrileko lenengo eguneko goxean lo eragitea bestean ezina da orreik sakabanatuiea; eta orrileko lenengo eguneko goxean eztozu inor lotan eukiko; bat yatau orrei ortik eragitea ta Paul Gurenaren yauretxea bultzaka itzultea (4).

ATEZ.—Zital ori, zelan sartu dozak barrura?

OTSEÑ.—Aí ene, nik eztakii; zelan saitzen da izkorea? Lau oñen luzerako adaki zindo battegaz emon al izan dodazan zartadak emon izan dautsedaz, erruki bagarik, yaun; ikusi baño etozu zelan gelditu dan berau.

ATEZ.—Ezebe eztok egin ik.

OTSEÑ.—Santson'ik enozu ni, ezta Sir Guy'rik, ezta Colbrand'ik be, orreik nire aurrean birrindurik izteko: baño bertan yoteko bururik izan daueneri parkatu ba'dautsat, gazte, naiz zarreri emakume, naiz gizoni, adardun, naiz adardungila izan, ez al dot gaurtik ara solomorik zelangó danik ikusteko be itzarorik izango. (Barruan) Entzuten ete dozu, atezai?

ATEZ.—Lanter nozu or, ollartxo.—Itxirik eukik atea, txotxo.

OTSEÑ.—Nik zer egitea gura dozu?

ATEZ.—Zer besterik egiteko ik, amabika lurrera itzuli baño? Berton gudari-eragoketak egiteko Moorfield (5) dok leku au, ala? Ala, inñondiko Inditarren bat bere buruaga andiagaz etorri yakuk bakaldegira, emakumek gu euren bitartean onan estututeko? Ene bada, sekuleko aragikeria dogu atetan! Nire kistar yakinkidetzeak diraustanez uguztz onek milla ekarriko dauz beronen ostein:

guztitarikoak egongo dira emen, aita, aita-bitxi, ta danak.

OTSEÑ.—Karuago egongo dira txaliak, yaun. An ate-ondoan dagon urliak sutegi dirudi bere arpegian, ba, sinistu egidazu, udako ogsi egunik beroenak batera beste bero emoten dau ajen surrak; aren aldamenean dagozan guztiak dagoz bero aren barruan, eta eztabe bear beste onen-nekerik; suzko asto ar a iru bider yo dot buruan, eta iru feider yaurtin daust ak sua; su-o'diren bat letgetxe dago a an, gu ortik zear yaurtiteko. Soñeko uskeriak saltzen dauzan baten emazte buru gitxikoa egoan arako surgorriagancile ur eta nigaitik marmarka ta txakurrenak esaten eragoien bakalderrian alango sutaz rrik ixitu gendulako, bere buruko izeratxu krabelin-kolorekoa ari lurrera yausi arte. Bein, nire adakiak okerreko bidea artu, ta emakume a yo dot, eta orduan ak gedar au egin dizu. "Adakiak!". eta orduan ikusi dot nik makiladun batzuk etozala urrinetik, ari lagun egit^n, Stand'eko itxaro ta arrokizun diranak, emakumea be angoa da-ta. Nire ganera etorri idira; eutsin dausat orraitioño nik nire lekuari; atzanean, ni ta euren bitartean, inñarra-kirtenaren luzerea besteko bitarterik be ezta egon; oindiño be nik eupada egin ai; baño, orduantxe arein ostetik mutil-talde batek alango arrikada sarriak egozten izan daustaz-eta, nire entzute

(3) Emen aitezaiak aitatuten dauen Paris ez'ta Panfeeko uri-burua, Lcndcn'go etxe-arteko loraiegi baten fízna baño. Leku crren yabe Erroberta de Paris'gandik etorkon izen ori aítatu dogun lorate'giari. Zaratatsu zira-n lorategia bera ta bere inguruak. Loro'egi orren aldamenen egoan Shakespeare'ren "The Globe" antzeztegia bera be.

(4) Yai-egun izaten zan Ingelaina'n orrilarren lenengo eg'Uncr, eta egun orretan yenteak ez eban ivzat&n goxean lo-gura andirik; egunagaz bat yagiten ziran, atso-aigurak izan ezik, yaia goiz asteko. Yai orretan beste ikuskizunen arieon "May-pole" fzenekca be erakusten zan, eta ikusi&n a'u gure "Zinta-dantza" langcxa da. Nck nori ariua ete da? Yatorriz gure, alct Ingelaindar? Ikusidk dot Ingelanda'n, Is'le of Wight'en.

(5) Tcki onetan egiten ebezccn gudari-geiak eta gudaria'k euren soin-eragoiketak.

ona ainbestegarririk etzala-ta. irabazten itxi egin dautset: txerrena bera egon da arein artean, nire ustez, seguru baño seguruago.

ATEZ.—Gazteok dira amsztegiatara arrapaladan sartu ta sagar-mutxikinakaitik burruka egiten dabenak; eta olangorik yasateko ezta gauz iñor, Torre-mendiko Askarriak, naiz Limbhouse'eko mutiko okerrak, euren anai maiteak izan-ezik. "Limbo Patrum"ean dodaz euretatico batzuk, eta an egon bear-ko dabe yantzan iru egunotan; eta orrez ganera, an izango dabez zigortzalla bi be, ci narrau berotuteko.

Lord Txanbelana auriera.

TXAN.—Ene bada, emen dagon yentetzea! eta geituz doaz oraindak; alde guztietatik datoz, emen periren bat be'gendu legetxe! Nondik dira atezaiak, zital nagiak? Egitekoa egin dozue, lagunak; iñondiko sarra-marrearari itxi dautsazue barrua sartzen: uri-ertzetako zuon adiskide zintzoak dira orreik ala? Lekurik asko izango ete dogu

anderentzako, uguzketatik atzera datozanera-ko, bai ete'f

ATEZ.—Eder izango al yako zure omenari, gizon baño ezkara gu; eta guz bestek egin leiena egin dogu guk, geure burua urratu ta zatituen itxi ezik: gudarcste osorik be elitzake gauz orreik eskuratuteko.

TXAN.—Bizi nazan bestean seguru, orren errurik ezarri ba'dagist bakaldunak, orpoetik lotuta iminiko zauedaz, eta bertatik imini be; eta zuoi izun gogor bana ezarri, zuon ardurabakokeriagaitik; zital geldo-nagiak zarie zuok; eta emen zagoze zuok garardou-pelak ustuten, zuon egikizuna bete-bearrean. Entzun! turuten otsa cia; eldu dira uguzketatik; zoaze ia bidea egizue, yente-mordoa eroso iğaro daiten; ostantxean baitegira sartuko zau'e'daz ile birako.

ATEZ.—Bidea egin bakaldun-alabearentzako.

OTSEN.—Zu, gizatzar, baztarreratu zadiz eta estutu, ostantxean eztozu izango ctzik buruan.

ATEZ.—I, yantzi-nabar, esi-ganera igon egik; ostantxean taketean sartuko aut, kur.kuna legetxe.

IV AGERLEKU__Bakaldegia.

Turutadunak aurrera, yoten; gero Zinegotzi bi, Endorea, Garter, GRANMER, NORFOLK'EKO DUKEA, bere marxal-makileagaz, SUFFOLK'EKO DUKEA, Andiki bi,, uguzketa-emoiak artzeko ontzi-mutildun ontzi andi bana dakarrela; gero NORFOLK'EKO DUKENOA, amabitxi berau, arro ta txairo yantziriko seña besoetan dakarrela, e. a. Soñekoaren buztana Andera batek dakar; gero, urren, DORSET EKO MARKEZNOA, beste amabitxia, ta Anderak. Yente-mordo au bein igaroten da antzetegian alde batetik bestera, ta itz egiten dau Garter'ek.

GART.—Yaungoikoa, bizitza on, luzs ta beti zori ontsua bidali egiozu atzenbako zure ontasunetik Ingelanda'ko bakal-alaba goikoaltsu Elixabete'ri.

Turut-ots argia. BAKALDUNA ta Yarraigokoak aurrera.

CRAN.—(Belaunbiko) Eta zure bakaldun eskarri ta bakalduno onari, nire lagunen eta neure izenean onan arren egiten dautset: anderaño eskartsu be eskartsu onegan bere gurasoak Yaungoikoak zori ontsu egiteko,

egüño emon izan dauzan nasaitasun eta poz guztiak yaisi ta yalgiko al dira zuon ganera!

END. B.—Eskarrik asko, Gotzaiburu yaun on orri. Zer yako neskatoari izena?

CRAN.—Elixabete.

END. B.—Zutundu zadiz. yaun. (BAKALDUNA'k mun egiten dautso seintxcciri) Mun onegaz batera nire onspena ariu egin: Yaungoikoak yagongo al au! Aren eskuetan iminten yonat ire bizia.

CRAN.—Amen.

END. B.—(Amabitxiai) Nire adiskide zindook. eskuzabalegi izan zatxataze zuok. Biotzioizetiko nire eskarrak zuoi; ume onek be beste onenbeste egingo dau orreiarako Ingelanderarik asko ikasi dagianean.

CRAN.—Itz egiten iixi egistazu, yaun, Yaungoikoak eragiten daust-eta; eta iñok eztagizala txanpalkeritzat artu nire iizak, egi urtengo dira-ta. Bakal-alaba au (Yungcikoak beti yagcngo al dau!) seaskan egon-arren, onspenak millaka ta millaka aginduten dauisaz onelc lurralde oni, aldiaz eldu ta zolituko diran onspenak: zera izango da, (baña crain bizi dkanetik gitxik ikusi cf izctngo dau ontasan a) bere aldiko bakal-

seme-alaben eredu, baita bere urren etorriko diranentzat be. Saba etzan izan inoz be umetxo au izango dan baño yakiturizale ta onindarzialeago: bakaldir edertasun guztiak, onai darraikiezan onindar guztiak, alango bi egirik geldituko dira neskato onegan: zintzotasuna izango da onen inude, oldozpen guren zerutikoak izango dira onen onulari: maite izango dabe ta bildur izango dautsoe; bere-bere zsrak onetsiko dabe; axeak yoten 'fauen garitzea legetxe ikaratu egingo dira beronen arerioak, eta naibagaz burumakur geldituko dira; beronegaz batera aziko da ontasuna: onen egunetan edonok yango dau seguru, bere matsondopean, berak landatu ta erain dagiana; eta bake-abesti gozo-argiak abestuko dautsez bere auzokoai; benetan eta egiz ezagutuko dabe Yaungoikoa; eta beronen ingurukoak beronegan irakurriko dabsz omen-bideak, eta bideok-zear eldu euren anditasunera, ez odolez. Eta bake au loak eztau artuko beronegaz; pointiz txori arrigarri bere autsetatik bere onordekotzat, bera bestean arrigarri dcin bera langoxe beste bat sortuazoten dauen legetxe, onek be bere onespena (Ycmngol'kocok iunbe onetati'k gora dei egin daginean) beste bateri, bere ama bestean andiri itxiko dautso, bere omeneko auz gurenetatik izar-antzeko yagiko danari, ta ba-keak bizirik sendo ta tinko iraungo dau: ume autu onen otsein izandorko bakea, ugaritasuna, maitersuna, egia, ikarea, onen urrengorenak be izango dira, eta matsondoa legetxe azikc yakoz; ortzeko eguzkiak argi egiten dautsen leku guzietan an izango dira aren omena ta aren izenaren anditasuna, eta lege-erri barriak egingo dauz; lorea lez garatuko da, eta mendiko izaiaren antzera, bere adarrak inguruko zelai guztietara zabalduko dauz; gure umeen umeak ikusiko dabe guzti au, eta onetsi egingo dabe Yaungoikoa.

END. B.—Zer arrigarriak diñozuz zuk.

CRAN.—Ingelanda'ren zori oneralto, zar egingo da bakal-alaba au; egun askok ikusiko dabe au, eta orraifino, egunik bat be ezta izango bere burestuntzat egite andiren bat

izango eztauenik. Ez al nenki geiagorik! baña, onek be il egin bear dau, bai, il egin bear dau, goiko gurenak onen bearrean dagoz-eta, orraifino be, neska garbi izango da; orbanrik arean bagako lili yatsiko da au lurrera, eta mundu guztiak egingo dautso negar eta ileta.

END. B.—Ui, Gotzaiburu yaun, gizondu egin nozu orain; ume zori ontsu au izanarte, ez-tot ezer lortu, ez-tot ezer iritxi; nasaitasuna iragarten daustan oni ain ederretsi dautsat-eta, zoriontegira eldu nadinean, ume onek zer dagian ikusi gurako dot, eta nire Egilea çoratu. Eskarrik asko guztiak. Zuri, Endore yaun on, eta zuoi, anai onoi, beartu-bearturik, zorrean geldituten natxatsue; omen andi izan da nitzako zuok emen aurkitutea, eta eskar oneko nazala ikusiko dozue. Aurrera, ycunak; guztiok ikusi bear dozue bakaldunoa, eta ak eskarrak emon bear dautsuez, OEtantxean gexotu egingo litzake-ta. Gaur, gizonek ez al dau burutan erabiliko etxeko zereginik; guztiok geldituko zarie, ba, nirean; txiki onek opor-egun egingo dau gaurkoa. (Alde dagde).

AZKEN-ERAGOA

Baten aurka amar yokatuko neunke antzerki au ezetz izan emen dagozan guztien gogoko; nasai egoteko etorri dira batzuk, eta ekitaldi baten edo bitan loak artuta egoteko; *baña*, bildur gara orrei ikararik emon izango dautsegula gure turutakaz; au dala-ta, argi dago antzerki au ez-tala gauz esango dabela; beste batzuk, uritarrai frain egiten yakelakoan etorri dira entzuten eta gedar dagie, "Ori dok zurtasuna!", eta orrcitino be, olangorik ez-togu egin; orregaitik, bildur naz, antzerki onetzaz orain ezer orik entzun ba'dagigu, emakume biotz onekoakandik bakarrik entzungo dogula, olango emakume bat erakutsi dautsegulako; emakume biotz onekook irribarrerik egin ba'dagie ta esan, "Etxagon txarto be", laster izango doguz gizonetatik be onenak gure alde; eziago, ba, ondo anderak txaloak yoteko agindu dagioenean, gizonak txalorik yo bagarik gelditutea.

AMAIA

IZTEGITXO

Itzotatik Zeanuri'n beintzat erriak darabil-
tzanak ezaugarritzat (z) eroango dabe; bes-
teak edo Azkue'n iztegian idoroko dozuz, edo
barriak idira.

A

ADAKEI(Z).—Beiki, bei-okela.
AGINIK(Z).—Atzizki dozu itz au eta erderaz-
ko "a punto de" esan gura dau; esaterako,
II-aginik, yausi-aginik dago, "está a punto
de morir, de caer".
AGIRIKA(Z).—Erderazko "repreñión".
AGIRIKA EGIN(Z).—Erderazko "reprender".
AIAZO(Z).—Txakurra zirikatatu norbait, ⁿaiz zer-
bait uxatu daian.
AKARRO(Z).—Galale-estalg. "Raspa" erde-
raz.
AKETO.—Landubako, ezibako gizon.
ALAKETA.—"Kexa".
ALATZ.—Mirari.
ALDEKERI, ALDERDIKERI.—Erderazko "par-
cialidad".
ALLIZARR.—Alladun izarr; "cometa" erderaz.
ALDORR(Z).—Enborr, zubil; "tronco" erderaz.
ALTXORR.—Balio aradiko edozer.
ALOSOKO(Z).—Ez andi, ez txiki, bitarteko;
"regular" erderaz.
ALLUBETA(Z).—"Kordoi".
AMEZAN(Z).—Amen bera, zer bat baño geia-
go diranerako. Esaterako, amen gizon bat,
amezan gizon bi.
ANOTS.—Erantzun, oiartzun; erderazko "eco".
APEN.—"bengantza".
APENTZALLA.—"Bengatzalla".
APERTURI(Z).—Zolitasun, ardura bizi. "Dili-
gencia" erderaz.
ARAKATU(Z).—Erderazko "registrar".
ARAKIN.—"Karnazeru".
ARAKATZ.—Masusta-antzeko ale; "grosalla"
erderaz.
ARAOTU.—Erderazko "conjurar".
ARERI (OÑATI).— Areriotasun.
ARETO.—"Saloi"; etxeko leku nasai.
ARGI-TAKET.—"Kandela".
ARMOLU(Z).—Arri andi bakarr; "risco" erde-
raz.
ARRADA(Z).—Eraso; "acometida" erderaz.
ARRATE(Z).—Edozein solo-esi orain, baña ya-
toniz "arri-esi-ate".

ARROZTUN.—Arrotzak etxean artzen dauza-
na.
ARROZTUNO.—Arrotzak etxean artzen dauzan
emakume.
ARRUNT.—"Ordinario, común" erderaz.
ASTA.—"Pixu".
ASTATU.—"Píxetu".
ASUARR(Z).—Arr, larr; "zarzamora" erderaz.
ATOMAU(Z).—Ausartu. azarri.
ATZ(Z).—a) "atzamar"; b) "marka, señale",
esaterako "azatz".
ATZONDO(Z).—"Palmo" erderaz.
ATXILO (OÑATI).—"Preso" erderaz.
AUSI(Z).—Beste esanguren artean Zeanuri'n
"digerir".
AUTU(Z).—Berbaldi, eleketa.
AZKE.—Yarei, "libre".
AZOKA.—Merkatu.
AZPEGI.—Oin-beso-begi.

B

BAI(Z).—Itza beteko dalaren alde iminten
dan edozer; "garantía, prenda" erderaz.
BAITU(Z).—Zerbaiten alde baien bat imini;
"garantizar, preñar" erderaz.
BAI URREANAK(Z).—Susmoak.
BEGITEN(Z).—Erderazko "lazada".
BEREZKO(Z).—Erderazko "natural, naturaleza".
BESTAL.—Erromarren artean "Vesta" yainko-
noaren otseintzako neska.
BIAO (OÑATI).—Bazkal-ondoko loalditxo.
BIDUTZI.—Mamu.
BIUZTURKZ).—Urdail; biuzturiko min=urdaila-
ko min. Nire susmoz, "biozturi"fik dator,
biotz + uri (iri), biotzetik urr.
BIZIGO(Z).—Erderazko "lombritz intestinal",
umeak sarritan izaten dabena.
BRIN(Z).—Abantz(z); erderazko "velocidad".
BRINEAN(Z).—Erderazko "velozmente".
BURRUTZ(Z).—Erderazko "escarpado, empi-
nado"; ingelanderazko "steep".
BULKO.—Pentsamentu; erderazko "idea".

D

DEMA.—"Apostu".

E

EBAN.—Erderazko "ébanu" zugatza ta bai zugatz orren zura be.
 EDEN.—Sikilikitu(z), pozo, bereno.
 EDABE(Z).—Edari.
 EDESTI.—Yazoak, igaroak, "istori". Aldiz aurretik yaio azkorakadaka itsusi egindako Larramendikume "kondaira" darabilde norbaitzuk itz ezagunago ta dotoreago oneu orde. Eztakit zegaitik maitamindu diran itz ganorabako orregaz; neska batzuk senar-geia Iraketsago, itsusiago ta maitiago izaten ei daude.
 EGINGO NEUNKE BAIETZ/EZETZ(Z). -Erderazko "apostaría a que sí/no",
 EGIUNE(Z).—"Tratu", "kontratu".
 ELEKETA.—Bebetá.
 ELORRIO(Z).—Min zorrotz: erderazko "tormento".
 ENDAITZ.—Lema, erderazko "timón".
 ENDORE.—"Alkate".
 ENTZIN.—"Konfiau".
 ENTZITE.—"Konfiantza".
 EPE(Z).—a) Zerbaisterako aldi izentau; b) go-goaz besterako zerbaist eroate, "pasentzi". Epebako ori! epe artu egizu, gizon(z), impaciente! ten paciencia, hombre".
 ERAGOTZI(Z).—Debekau.
 ERALGI(Z).—a) Zerbaistera baetik igaroz; b) agotik berbak erion.
 ERDI.—Sein egin.
 ERDI-MIN.—Ume-min.
 ERAN.—Ilazo.
 ERAIA.—Ilazotzalla.
 ERESI.—"Musika".
 ERESKIN.—Musikea yoteko lanki, esaterako albokak, txistua, t. a.
 ERDU(Z).—Nonbaitera yoan, naiz etorri.
 ERIO(Z).—Erderazko "aforo", "caudal", "erio andiko da iturri au(z), esta fuente es de mucho caudal".
 EROSTA.—Negarketa.
 ERRON.—Arrautzak egin.
 ETOIKERI.—Azpikeri.
 EZABATU.—Idatzia manatu, "borrau".
 EZAGUN-ITZ.—Erderazko "santo y seña".

G

GALARTZU.—"Zinta".
 GANKADA(Z).—Akulukada.
 GARRAZTA(Z).—Tantai; andi.
 GENTZA.—Bake.
 GIYAU(Z).—Lurra arrotu, landu.
 GIZA-A RI.—Erderazko "humanidad".
 GOGARA(Z).—Pozik; erderazko "a gusto".

GURTU.—"Adorau".
 GURTZA.—"Adorasiño".

I

IDÍ ZKI.—Kutun, "karta".
 IDAZTI.—Liburu.
 IDERA.—"Hydra", eun burudun sugetzarr zalakoa.
 IGARO(Z).—Erderazko "transportar, acarrear".
 IGAROLA(Z).—Erderazko "transportista, acarreador". "Iketz-igerola(z), transportista de carbón".
 IGALI.—Erderazko "fiuta, fruto".
 IGIU.—Maneau, zirkin egin.
 IKURDI.—Soña yagoteko, gduetan ezkerreko besoan erabilten zan zer biribilsamarra.
 IKURRATZ.—"Sillu".
 IKATZARRI.—"Diamante".
 IKURRITZ.—Erderazko "lema".
 IKURRAZTU.—"Sillau".
 IKUZI.—Urez garbitu.
 ILARRAINDU.—Arrotu.
 INTSIGI.—Itxiki, berez "pegau". Ortik dator erantsi(z)", adherir.
 INTXUSA.—Sauku (zugazko edo abarretariko yatsu au).
 IITZA(Z).—Erderazko "juncal".
 IRADU.—Astirik eza.
 IRATXO.—Erderazko "duende".
 IRITS(Z).—Argal.
 IRISTU(Z).—Argaldu.
 IROZO.—Eutsin.
 ISPEL.—Erderazko "ostra".
 ITANDU(Z).—Galdetu.
 ITAUN(Z).—Galdera.
 ITSASARGI.—Erderazko "faro".
 IZARBEL.—Erderazko "planeta", esaterako biri garan Lurr au.
 IZARKI.—Erderazko "meteoro, bólido".
 IZKORA.—Itsasoa bere ertzetarantza datorren aldia.
 IZKUNTZA-ALDATZALLA.—Izkuntzaren bat besteren batera aldatzen dauena.
 IZPERA.—Izkoraz besterakoa.
 IZANTZA, IZADI.—Erderazko "universo"; zer guztien batza.
 IZAI.—Erderazko "abeto" toki batzuetan, "chopo" beste batzuetan.
 IZARO.—a) Mundaka-aurrean itsasoan dagon legorr-zatia, b) edozein olango lurzati.

K

KAI.—Itsasate, "portu".
 KAKITU(Z).—Erderazko "hastiarise"; zerbaistez iguindu.

KAKOKETA.—Erderazko "reflexión de la luz" iragarteko darabilt.

KE-AUTS, SUTAUTS.—Erderazko "pólvora".

KIRIO.—Zanzuri, "nerbio".

KOKOMARRO(Z).—Erderazko "disfrazado".

KONPAIDE(Z).—Laterazko "compede"tik dator eta itz au bein entzun neuntsan nire ama zanari. Erderaz "traba" ete?

KUKUTS(Z).—Egazti batzuk buruan izaten dabena luma-mordo urtena. "Penacho" erderaz.

L

LANKI.—Tramankulu; besoak eta oñak dira gure geure lankiak.

LANKIARR.—Mekaniarr; erderazko "mecánico".

LATS.—Errekatsu.

LEIA(Z).—Zerbaisten irrits, gurari. Otzeneko a ezta zeinkirik.

LEIKERRALDO(Z).—Erderazko "carámbano".

LEKARETXE.—Frailategi.

LARRI-LARRI(Z).—Ia, erderazko "casi".

LERR.—Piñu (zugatz).

LEN-URRENTZA.—Era, erderazko "orden".

LUGAN(Z).—Lurmendi luze-bedarr; erderazko "tarima"-ordez be iñoz ba-darabilt.

LUPETZ(Z).—Lokatz.

LUPETZA.—Lokatzatza.

LURRUNURTU.—Lurrundu ta lurruna atzera urtu.

LUTIRUDI.—Erderazko "mapa".

M

MAKERA(Z).—Urde ama, txarri ama.

MAMI-IRUDL.—Erderazko "estatua".

MANATU(Z).—Banatu, erderazko "deshacer".

MARGO.—Kolare.

MEIKI (ARBIZU).—Koxo, erren.

MINTZO.—Berba, itz.

MINTZATU.—Berba, itz egin.

MOTXORR(Z).—Txiki, "nanu".

MURRATU(Z).—Murriztu, erderazko "despojar".

MUSARRAKIN.—Erderazko "escote".

MUSKILDU(Z).—Lorrindu, erderazko "estropear".

MUKERR(Z).—Enderazko "contrariado"-edo.

N

NAGUSIAGOTZA.—Erderazko "majestad, majesty".

NAIERA(Z).—Erderazko "gusto, capricho".

NEKOSTA.—Erderaz "ciprés" deretxoen zugatz edo abe.

O

OBEN(Z).—Oken, aitezatasuna galtze; oitik, "pekatu".

OBFNDU, OBENEGIN(Z).—a) Okertu; b) "pekatu" egin.

OODI(Z).—a) Erderazko "canaleta"; b) tutu, "tubo".

OIAN.—Baso.

ONDIKO.—Zori txarr, ezbearr.

ONDORENGOTZA.—"Erentzi".

ORTZE.—Zeru-sapai. Ortik oskarbi, ostadarr, e. a.

ORROLLO, ORRILLO.—Orridun abarr, adarr.

OSKI.—Narruzko oñetako, Erderazko "zapato".

OSKIGIN.—Zapatari.

OSKIDE.—Armoniarr; beste otsegaz ondo ezkontzen dan ots.

OSKIDETASUN.—"Armoni"; beste otsakaz ondo ezkontzea.

OSTERTZ.—Lurrak eta ortzeak alkarregaz egiten dabena obo.

OTU(Z).—Bururatu; erderazko "ocurrir".

P

PISTA(Z).—Erderazko "legaña".

S

SAGUTO.—"Arratoi".

SOBERA.—Somabera.

SOROSI.—Zerbaisteri adi egon, begiratu, lagundu.

SUNDA(Z).—Usain, atsegingarri, naiz iguingarri.

SUODI.—"Kafioi".

SUTAUTS.—Erderazko "pólvora".

Í

TAUKI(Z).—Zubil-zati zutun. erderazko "tajo".
TÍRUK, TIRUN(Z).—Atorr (emakume, naiz gizon).

TROKA(Z).—Sakosta ardi.

TXABIL(Z).—Iruteko lanki; mokostatik alkarri deuten "kono" bik egiten dabe. Yatorriz "zabil"etik dator eta "kono" ordeaz erabilteko berebiziko itza dogu euskerazko "txabil" au.

TXIRRITXIRRI, TXIRTXIR(Z).—Erderazko "gri-llo" dalakoa.

TXUBIL.—Erderez "tejo" dalako yolasa.

TXUXO(Z).—Txorimalo; baita endore ado alkatetarak erabilten dabena makilea be,

U

UBILERI.—"Erreuma".
 UGIN.—Urutu(z), olatu.
 UGUTZ.—Bateo.
 UGUX(Z).—Ur-yauzi, ur-saltu; erderazko "cattarata".
 UKARR.—Eskupeko, "erremusina".
 UMERRI(Z).—Aunizak eta ardiak; abelgorri ta umerriak, ganado mayor y menor.
 URETZA(Z).—Urtza.
 URUTU(Z).—Olatu, ugin.
 URREAN(Z).—Erderazko "probablemente".
 USARTU.—Inoren zeretari sartu.
 USTURI(Z).—Erderazko "muérdago"; Oñati'n "bibora".
 USIGI(Z), USEGI.—Aginka egin.
 UZTA.—"Kuxetza"; erderazko "cosecha".

Y

YAKINKIDETZA.—"Kontzentzi".
 YAREI (OÑATI).—Azke, "Iibre"; baita "azkatu" be.
 YASA(Z).—Erderazko "apostura, porte".
 YASANAK.—Erderazko "pasiones"; maitasuna, gorrotoa ta olangoak yasanak dira.
 YAURESPIDE.—"Erlejiño".
 YAURRI.—"Gobernau".

YAURLA.—Gobernatzalla.
 YAURESTATU.—írlejiñotu.
 YAUPARINO.—Yaupari eme, abade eme.
 YAUZI.—Saltu, saltu egin.
 YAZOAK.—Edesti. "istori".
 YORI.—Ugari.
 YEBEN.—Zalga, erderazko "mostaza".
 YESAN.—Zorrean artu.
 YOPU.—Bere buruaren yabe eztana, ezderazko "esclavo".

Z

ZADORR(Z).—Lurpeko urbide.
 ZAMA.—"Karga".
 ZAURATZ.—Zaurondo, erderazko "cicatriz".
 ZEGAN(Z).—Erderazko "a qué precio". Zegan dagoz arrautzak?, "la qué precio están los huevos?".
 ZEI.—Merkatu.
 ZERGA.—Petxu.
 ZILEGI.—Galazota eztagona.
 ZINOPA.—Martif.
 ZIO.—Zegaiti.
 ZUGATZ.—Abe, "arbola".
 ZUGAZNO.—Abe txiki, abarr.
 ZURGIN.—Arotz.
 ZURUBI.—Eskellara.